

JUAN BAUTISTA EGUZKITZA MEABE

*NEURE ENTZULE MAITEAK*

*Berbaldi hautuak*

*Sarrera eta edizioa*

Andres Urrutia



BILBAO

*JAREIN*

MMXIII

Juan Bautista Eguzkitza Meabe (Lemoa 1875-1939) abade eta euskalzalearen idatzi hautatuak batu dira liburu honetan. Eguzkitzak Gasteizko Seminarioan ikasketak egin eta bertan egon zen irakasle gero, erretorika eta gramatika irakasten. Abade moduan Lekeitiora joan zenean, bertako Latinitate katedra hartu zuen 1904. urtean eta gerra zibilera arte (1937) bertan jardun zuen lanean.

Euskaltzaina izan zen eta parte hartzaile bizia euskalgintzan. Bizkaiko abade talde batek sortutako *Jaungoiko-Zale* elkartearen buru izan zen eta haiek egiten zuten *Ekin* aldizkarian idazten zuen.

Eguzkitzak predikari eta hizlari moduan dauka osperik handiena. Entzuleak hartzen zituen beti kontuan, esateko/entzuteko moduan idazten zuen, eta oso ondo menperatzen zituen erretorikako teknikak. Dotrina arloan ere ez zen atzean geratzekoa, maisu egiten zuen abadeei ematen zizkien hitzaldietan eta gogo-jardunetan.

Bete-bete sartzeko da Euskal Pizkundera deritzan mugimenduan, bere arloa euskaraz eta hona egokituta zabaltzeko egin zuen ahalgina kontuan hartuta.

*JUAN BAUTISTA EGUZKITZA MEARE*

**NEURE ENTZULE MAITEAK**  
**Berbaldi hautuak**

*Sarrera eta edizioa*  
**Andres Urrutia**

**Jarein 9**

JUAN BAUTISTA EGUZKITZA MEABE

**NEURE ENTZULE MAITEAK**

**Berbaldi hautuak**

*Sarrera eta edizioa*

**Andres Urrutia**

JUAN BAUTISTA EGUZKITZA MEABE

NEURE ENTZULE MAITEAK  
Berbaldi hautuak

*Sarrera eta edizioa*  
Andres Urrutia

LABAYRU IKASTEGIA  
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

BILBAO  
2013

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dute.

© *Argitaraldi bonena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa

Labayru Ikastegia  
Colon de Larreategi, 14-2. esk.  
48001 BILBAO  
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58  
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.  
Silutegia: Tecnigraf, S.A.L.

Lege Gordailua: BI-382-2013  
ISBN: 978-84-92599-35-6

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaureratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez, Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

## AURKIBIDEA

BERBAURREKOA. <i>Ander Manterola</i> .....	11
SARRERA ETA EDIZIOA. <i>Andres Urrutia</i> .....	13
1. Juan Bautista Eguzkitza Meabe (1875-1939): hiru ahots, berba- lari baten gainean.....	13
2. Nor dugu Eguzkitza?.....	14
3. Eguzkitza, XX. mendeko lehen hereneko euskal kultura-sarean partaide.....	17
4. Eguzkitzaren sermoigintza.....	21
4.1. Eguzkitza, erretorika maisua: <i>Oratio In Seminario Conci- liari Victoriensi</i> .....	21
4.2. Eguzkitza, sermolari eta hizlari aipatua.....	24
4.3. Eguzkitza eta garaiko erretorika sakratua.....	26
4.4. Sermoi baten eredua: <i>Jose Deuna, Lekeitioko langileai</i> .....	30
4.4.1. Eguzkitzaren <i>Jose Deuna, Lekeitioko langileai</i> ser- moiarene arrazoia eta gizarte-ezaugarriak: Jose Deu- naren Anaidia.....	31
4.4.2. Sermoiaren egitura klasikoa testuetan.....	33
4.4.3. Lexikoa sermoian.....	37
4.4.4. Sermoiaren funtzio diskurtsiboa.....	38
5. Gure argitalpena.....	41
5.1. Edukiaren xehetasunak: hautuaren arrazoiak.....	41
5.2. Testuen grafia eta hizkuntza paradigmatik: berezitasunak....	42
5.2.1. Grafia sistema.....	43
5.2.2. Lexikoa.....	47
5.2.3. Aditz forma batzuk.....	53
6. Ondorioak.....	55
7. Eskerrak ematea.....	57

8. Iturriak.....	58
8.1. Artxiiboak.....	58
8.2. Prentsa idatzia.....	59
8.3. Bibliografia.....	59
8.3.1. Oratoriari buruzkoa.....	59
8.3.2. Juan Bautista Eguzkitzarena .....	62
8.3.3. Eguzkitzaren eta bere lanaren gainekoa.....	69
8.4. Webguneak .....	72
9. Irudiak.....	73

## NEURE ENTZULE MAITEAK. BERBALDI HAUTUAK

### Berbaldi banangoak<sup>1</sup>

I. Oratio In Seminario Conciliari Victoriensi, pro inaugurandis academicis studiis, Kalendis Octobris anni 1903, habita a D. Joanne Baptista Egusquiza, ejusdem seminarii Grammaticae et Rhetoricae professore .....	77
II. Durangoko Euskal egunetan Andra Mariaren Jaiotz egunean ospatutako eliz jaiari Eguzkitza jaunak eginiko itzaldia .....	101
III. Zabala Aba ta euskereazko bere lanak. Eguzkitza euskaltzainak Durangoko Euskal egunetan irakurri eban itzaldia .....	109
IV. Eguzkitzatar J. B. euskaltzain jaunak Karmelo Etxegarairi Euskaltzaindian sartu zanean irakurritako itzaldia.....	126
V. Eguzkitza euskaltzain jaunaren itzaldia. (Doneztebeko bigarren Euskal egunetakoa).....	135
VI. Kaxarrenkaren goraberak eta Auriako jaiak .....	147
VII. Arrasateko Euskal egunean Eguzkitza euskaltzainak egindako itzaldia .....	162
VIII. Mexikotar katolikoaren alde, Loiolan batu ziran luistarrai apaiz jaun Eguzkitza euskaltzainak egindako itzaldia 1928garreneko jorrailaren 22an.....	170
IX. Andoaingo Euskal jaietan aurtengo irailaren 22an Eguzkitza euskaltzainak egindako eleiz itzaldia. Gipuzkeraz eta bizkaieraz	180

### Eleiz berbaldiak<sup>2</sup>

#### [1. BETIKO EGIAR]

X. Lurreko gauza guztiak Egilea dauke .....	193
---	-----

<sup>1</sup> Sail honen bederatzia berbaldiok lehen ere argitaratuak izan dira.

<sup>2</sup> Bigarren sail honetara bildutakoak, osteraz, gure edizio honetan, lehen aldiz argitaratuak dira.



XI. Jauna, neure elburua erazagutu egidazu.....	198
XII. Arimearen betiko salbazinoa.....	206
XIII. Pekatua uskeritzat eukiko dogu?.....	214
XIV. Damua .....	221
XV. Damutu ezik, ez dago parkatzerik .....	227
XVI. Berealaxe damutu zaitez .....	233
XVII. Eriotzea.....	241
XVIII. Aragiaren biztuera .....	248
XIX. Eriotz ostean, Epaikundea .....	255
XX. Eriotzea ta Epaikundea .....	263
XXI. Garbitokia.....	270
XXII. Jaunartzea.....	277
XXIII. Meza barria.....	280
[2. JESUKRISTO]	
XXIV. Jesusen Biotza.....	288
XXV. Jesusen Biotza .....	294
XXVI. Josu Biotza .....	301
XXVII. Jesusen Biotza .....	306
XXVIII. Lekeitioko erria gangeritik aldendu ebalako, eskar ona.	313
XXIX. Jesusen Biotza.....	320
XXX. Jaureskundea .....	327
XXXI. Kisto Errege .....	335
XXXII. Epifania .....	342
XXXIII. Eguen Guren: alkar maitatzeko agindua .....	350
XXXIV. Bariku Gurena .....	355
XXXV. Zazpi itzak .....	367
XXXVI. Zazpi itzak .....	391
[3. ANDRA MARIA]	
XXXVII. Sorkunde Garbia .....	411
XXXVIII. Sorkunde Garbia: emakumeen jasotzailea .....	416
XXXIX. Andra Mariaren jaiotzea .....	421
XL. Andra Mariaren jaiotzea .....	428
XLI. Andra Mariaren jaiotzea.....	436
XLII. Andra Maria.....	442
XLIII. Karmelgo Ama .....	447
[4. SANTUAK]	
XLIV. Jose Deuna, gure bitartekoa .....	454
XLV. Jose Deuna .....	461

XLVI. Kepa Deuna .....	467
XLVII. San Pablo .....	475
XLVIII. Santiago Apostolua .....	481
XLIX. Ander Deuna .....	488
L. Bartolome Deuna .....	494
LI. San Migel .....	501
LII. Antolin Deuna .....	508
LIII. Santa Luzia .....	516
LIV. Santa Mariñe .....	523
LV. Eufeme Deuna .....	530
LVI. Asisko San Frantzisko .....	538
LVII. Asisko San Frantzisko .....	545
LVIII. Asisko San Frantzisko .....	552
LIX. San Antonio .....	558
LX. Teresa Deuna .....	564
LXI. Balentin Berriotxo .....	571
[5. DANETARIKOAK]	
LXII. Kistinau-ikasbidearen jai .....	577
LXIII. Kistinau-ikasbidearen jai .....	583
LXIV. Kistinau-ikasbidearen jai .....	589
LXV. Aratustea .....	595

## BERBAURREKOA

*Ars bene dicendi*, (gauzak) ondo esateko bidea. Horretara definitu izan da latinez erretorikea. Greziar zaharretatik datorkigun jakintza, Aristoteles eredu ezagunena dela; gero latindarrek landu eta garatua, Zizeron agirien dala.

*Ars bene dicendi*, ondo esateko jakite hori jente aurrean egitekoa zan, eta hiru helburu bete behar zituan hizlariak jakite horregaz: lehenengo, entzuleak beregandu (*captatio*), hurrengo, azaldu gura ebana ondo ulerrarazo (*intelligere*) eta hirugarrenik, esandakoa sinesterazo, entzuleok be bat etorri eitezala esandako horretan (*persuadere*).

Erdi Aro luzeko mendeetan Unibersidadean irakasten zan arte (*ars*) hori, *Trivium* eta *Quadrivium* ikas arloen barruan. Gramatika, Dialektika eta Erretorika ziran *Trivium* edo *hirukotx bidea* osotzen eben ikasgai edo jakintza-arloak. Goragoko jakintza bereziak, hau da, Teologia, Medikuntza edo Zuzenbidea ikasten hasi aurretik egin behar ziran ikasbideok.

Aro modernoetan, bai gizarte eta politika jardueran, bai erlijio jardueran be, ardatzetariko bat izan da erretorika, ikasketetan eta jentearreko jarduean. XVI. mendean Eleizeak ikastetxe bereziak edo Seminarioak eratu zituan abadegaientzat. Eta eurotan, aspaldirik etorren ikas sistema bardintsua ezarri eban. Abade egiteko derrigorrezkoak ziran Filosofia eta Teologia ikasten hasi aurretik, latinari eta grekoari jagokozan gramatika eta erretorika arauak jakin behar ziran. Eta horretarako, Kintilianoren erretorika legeak ikasteaz gainera, Demostenes eta San Joan Krisostomo, Zizeron eta S. Leon Nagusiaren hitzaldiak hartzen ziran erudizat.

Bideok eginda eukazan gaztetatik Juan Bautista Eguzkitzak, latinezko gramatika eta erretorika irakasten hasi zanean, behin abade eginda laster. Honezaz bere maisutasuna erakutsi eban, Gasteizgo Seminarioan 1903ko ikasturtearen hasierako hitzaldi nagusia latinez emon ebanean.

Abade lanetara eroan eban gero bere ondo esateko trebetasuna. Kontuan hartzekoa da gure gizartea ahozkotasunean bizi zala gehien bat orduko denporetan. Entzun ahalá ikasten zan. Halako egoeretan hizlariaren eragina agiri-agirikoa da; eta erlijino arloan sermoilari onak diranak entzute handikoak izaten dira. Eta sermoilari onak, idazle onak izaten dira gehienetan. Idatzi egiten ditue, esan aurretik, euren sermoiak.

Entzute handiko sermolaria izan zan Eguzkitza, batez be Bizkaiko herrietan. Gerratetik laster hil zan bere jaioterrian, Lemoan, baina handik hogeí urtera oindino Zeanuriko herrian zaharrek gogoan gorderik

ebezan haren gerra aurreko sermoiak eta sermoian entzundako esaldiak: *Soloan egozan atxurretan gizon bi; bata aukeratua izan zan eta bestea baztertua. Errotarriaz ebilzan emakume bi; bata aukeratua izan zan, bestea...*

Euskal erretorikak tradizino aberatsa erakutsi dau azken mendeetan zehar, euskal literaturaren alderdi sendo bat osotzeraino. XVII. mendeko Frantzian Bossuet eleiz erretorikaren eredu gorenetakoa izan zan. Baina gure artean be erretorikaren lantzaile bikainak izan ditugu mugaz alde bietan. Axularren *Gerok* XVII. mendetik hainbat predikariri erraztu eutsen sermoegintza. Eta hegoaldean, Larramendik beroturiko giroan, Kardaberazek irakatsi eutsen orduko eleizgizoni euskeraz jenteaurrean zelan ondo esan, eta eleiz oratorian ospe handia jaretsi eben, beste batzuen artean, Galdos, Añibarro edo Baertel-ek.

Eleiz erretorika, sermoelaritza beste berba bategaz, tradizino handiko literatura da euskeraz, hizkuntza nagusietan baino pisu gehiagokoa literatura orokorraren barruan: euskeraz idatzi danaren osotasunean parte garrantzitsua hartzen dau eleiz erretorikak: predikariak jente aurrean esateko eta eleiztarrek entzuteko sortu dan literatura idatziak. Literatura honen aleak, gehien bat, argitara urten barik iraun dabe: paper pleguetan idatzi eta kartapazio edo karpetetan batu eta pilatu izan dira sermoiok, eta apurka-apurka datoz argitara eta ezagutzera. Frantziskotarren artxiboetako *Euskerazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)* (2005) dogu literatura isil horren lekuko garbia.

Andres Urrutiaren eskutik jatorkez agirira J.B. Eguzkitzaren sermoiak, artean argirik ikusi bakoak. Liburu sortatxo argitaratu eban bere sasoiari, gudu aurreko urteetan, eta danetan ezagunena *Gizarte-auzia* (1935). Gerraostean obra hau ezagutzera emon dauena, oraingo sermoion prestatzailea bera da. Gero eta gehiago eta hobeto ezagutzen goaz, bada, Bizkaiak euskereari XX. mendearen lehen herenean emon deutsan idazle honen lana. Belaunaldi zaharren eta barrien arteko katebegi segurua dogu gure idazlea. Lemoako euskerearen lur mamintsua, Lekeitio aldeko eta Bizkaiko euskera-moduen ongarriaz aberasten jakin dauen sermoilari eta idazle bikaina.

*Ander Manterola*

## SARRERA ETA EDIZIOA

Andres Urrutia

### 1. Juan Bautista Eguzkitza Meabe (1875-1939): hiru ahots, berbalarri baten gainean

1921. urtean, Durangon, Euskal eguna lehenbiziz ospatzen, Azkue lekeitiarra sartu berri den Euskaltzaindiaren buruak, honela idazten du:

«Euskaldunak:

Goizean Meza bitarteko itzaldi ederra entzueran, neure barruan ninoan nik: "Ai nok leukean eskuera gramofonu uts bat, bera emen-txe erabilteko eskubidea ta yasa! Neure lankide maite onen itzaldi auxe artuta estualdi onetan erara nasaituko nintzateke". Bene-benetan dirautsuet: bigira onen ta euskalegun onen amaitzat bere bizikoa izango genduan. Nik "euskaldunak" csanda gero, neure gramofonu bateri zotza kendu ta ederto entzungo zenduezan barrero Eguzkiza yaunaren itzak. Tenor bati bere gora-goraka luzeak entzunda gero frantzesak *bis*, alemanak *Wieder*, erdaldunak *que se repita* esanda, bigarrencz oiuragiten dautse. Iztun bati (sermolari bati) zegaitik ez? Oiturarik ezto gu ta nik gaur bere neurez ekin bearke»<sup>3</sup>.

Urte askoz geroago (1975), aita Santi Onaindiak berretsi zituen Azkueren hitz horiek:

«Eguzkitza, sermolari. Gure artean badira, -ta nun ez?- gizon jakitun batzuk, bizitza osoan ikasi ta ikasi egin dabcnak. Norentzat jakituri guzti ori? Urkoari ez al dautsagu erakutsi bear? Batak besteari emoteko ez ete dogu ikasten? Ala, emen be, geurekoi utsak izango? Gizonak gizona jaso, eskolatu ta duindu bear dau. Ortan saiatu naia dakusgu gaur batez be, guztiok, elburu bat billatuz, betiko atsedeen zoriontsura jo dagigun.

Au egin eban Eguzkitzak. Jainkoak emoniko doai ta gaitasunak, talentuak, etzitun beretzat bakarrik gorde; ugaritu ta besteai zabaldu baino. Berbaz erakusteari gagokiozala, gogora daiguzan lemoatar argiak erriz erri egindako itzaldiak, baita ainbat euskal egun eta jaietan esanak be. Ortik ikusi daikegu guztiontzat eredu bikain dogula.

Itzaldi edo sermoi orrean mamiña ausnartuz, bertatik ikusten doguna auxe dozue: Eguzkitzak beti, fedea ta euskara, korapillo samurrez lotu ta estutzen dauskuzala. Erri baten arimea, izan be, berak darabilen izkuntza, berbetan agertzen jaku iñon baiño obeto. Orixegaitik, besteak beste, "euskaldun fededun" esan oi zan ao batean, lenago; euskeraz mintzatzen zanak fedea be zainduko eban. Gaur oraindik beste ainbeste esan daikegu, egia-

<sup>3</sup> AZKUE, RESURRECCIÓN MARIA DE: «Durangoko euskalegunen amairako», *Lenengo Euskal egunetako itzaldiak*, Bilbo: Euzko-Argitaldaria, 1922, 129-135 or.

ri zor yakona emotera ezkeru. Euskera galdu dauanak, kristiñau fedea be laster bertan bera itxiko; eta kristiñau federik ez dauanak ez dauasa bere izkuntzari luzaro eutsiko. Edo biak, edo bapez; ez dago besterik<sup>4</sup>.

Urte berean, Eusebio Erkiagak ere:

«Frase luze ala labur, saillean, erreto, trabarik bage asi ta amaitu. Ez ekian arek, orduan eta gaur dan egunean nabarmenago, batzuek darabilen ezpan-arteko esturarik eta totel-motelik; makulu bitartez mintzamodu aspergarri ta berbartuan diarduenen antzik, ez eban, ez, Eguzkitzak.

Aditz sintetikuzale bazan, baiña urri erabilli ohi eban, eta formarik arruntenak, gehienbat. Anaforikurik ez eban astindu. Berbetan ez eban behar izan; idazte-orduan, buruak emon be ez. Ohitura kontua da. Usaten ez dauanak, premiñarik be ez. Geurez be, badakigu ori.

Radikalizatu e te zan don Juan? Orrelan balitz, 80 urte lehenago modan egona dogu, orrezkeru; ajornamentuz. Kontamiñaziño bildurrak jo ez gaitu ba orain, orko, ango ta emengo? Lehen orduko euskaltzaiñak, orren kontrako kezka egozan eta jardunean, bide garbizalea ta garbitzaillea artu ehen<sup>5</sup>.

Hiru ahots, hiru lekuko. Hirurok, nolana ere, pertsona berbera zuten helburu eta xede, alegia, Juan Bautista Eguzkitza Meabe lemoar euskal idazlea, euskaltzaina eta euskaltzalea.

## 2. Nor dugu Eguzkitza?

Luze hitz egin da Eguzkitzari buruz hainbat lekutan. Horren izaera eta ahaleginak aipagarri izan dira euskal letretakoen ahotan<sup>6</sup>.

Lemoan jaio zen 1875. urtean. Gasteizko abade mintegian ikasketak burutu ondoren, erretorika eta gramatika irakasle izan zen mintegi hartan. Gerora, Lekeition zegoen Latinitate katedra bete zuen 1904. urterik aurrera eta itsasaldeko herrian bizi eta jardun zuen<sup>7</sup>, euskaralaritzari

<sup>4</sup> ONAINDIA, AITA SANII: «J. B. Eguzkitzaren eleiz idazlanak», *Euskera*, XXI (1976), 241-242 or.

<sup>5</sup> ERKIAGA, EUSEBIO: «Eguzkitza Meabe, Juan Bautista (1875-1939). Bere bizitza eta lanak», *Euskera*, XXI (1976), 230 or.

<sup>6</sup> URRUTIA BADIOLA, ANDRES: «J. B. Eguzkitza (1875-1939)», Bidegileak bilduma, 24 karpeta, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2001.

<sup>7</sup> Eguzkitza urteetan (33 urte) bizi izan zen Lekeition, Apaltoa kaleko 14 zenbakian. Esate baterako, 1924. urteko Lekeitioko udal erroldan bera agertzen da latin irakasle gisa, ordurako hogeitau urte bizi zala Lekeition eta 49 urte zituela. Berarekin batera bere arreba «Mariana Egusquiza Meabe», 47 urtekoa, eta bere loba «María Bezuen Egusquiza», 19 urtekoa, bizi ziren [Lekeitioko udal errolda, 1924 (LUA 1046/11)]. Erkiagaren hitzetan, udaro joaten zen Lemoara, bere herrira, eta han oporrak igaro, in Erkiaga, Eusebio: «Eguzkitza Meabe, Juan Bautista (1875-1939). Bere bizitza eta lanak», *Euskera*, XXI (1976), 217-238 or.

emana, ekitaldi ugarietan parte hartuz, euskara eta euskal kulturaren berbizkunde sasoiari.

Latinitate katedra Lekeition sortu zen 1862. urteko irailaren 23an sinaturiko notario eskritura<sup>8</sup> baten bidez. Bertan parte hartu zuten José Luis de Abaroa jaunak eta Bruno López de la Calle eta Joaquín de Sagasti jaunek, azken bi horiek José Javier de Uribarren (1791-1861)<sup>9</sup> jaunaren testamentu bidezko albazeak zirela; era berean, Lekeitioko eliz kabildoaren izenean, Juan Domingo Agirrek eta Pedro de Longa alkate jaunak eta Francisco de Aldekoa sindikoak, Lekeitioko Udalaren izenean. Katedra hori sortu zen José Javier de Uribarren jaunaren ekimenez, hura zela Parisen bizi zen banka-gizona eta kezka berezia izan zuena Lekeitiorekiko. Bera hil eta gero, haren albazeek hartu zuten agindua lekeitiarren mesederako ekimenak aurrera eramateko eta horien artean, lekeitiarren irakaskuntza ziurtatzeko. Halaxe jasotzen da eskritura horretan:

«Que en ella se dedicó muy especialmente a derramar beneficios sobre los desvalidos de esta villa su pueblo nativo, y entre los objetos de su especial atención lo fué procurar la enseñanza de Latinitad a los niños pobres para que con esta base importante pudieran ampliar su instrucción o cuando menos hallar una colocación segura con que atender decorosamente a su subsistencia».

Latinitate katedra sortzearekin batera bertako patronatoa izendatzen da, patronato horretan Uribarrenen albazeak, José Luis de Abaroak, Uribarrenen loba eta bazkideak eta eliza katolikoa eta udalak parte hartzen dutela. Aldi berean, diru finko bat ezartzen da fundazio horren irakaslea eta gainerako gastuak ordaintzeko; diru hori Parisen egongo da, halako finantza titulu batean inbertitua. Orobat, sortzaileen izenak jarriko dira Latinitate katedraren eraikinean, han bertan ager daitezen katedra nola sortu zen gomutaraizteko<sup>10</sup>.

<sup>8</sup> Lekeitioko hiriaren Latinitate katedra sortzeko eskrituraren kopia [Copia de la Escritura de Fundación de la Cátedra de Latinitad de la villa de Lekeitio], 1862-09-23 (LUA 01458/02, 58. karpeta, 2. izapidea, 1. folioa).

<sup>9</sup> José Javier de Uribarren jaunari buruz ikus daiteke: DUO, GONZALO: «Lekeitio en el siglo XIX y José Javier de Uribarren (1791-1861)», *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía* 23, 1995, 137-162 or.; eta *Las Escuelas de Náutica de Bizkaia, Gipuzkoa y Laburdi: siglos XVI-XX. Análisis histórico documental*, Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2001.

<sup>10</sup> Lekeitioko hiriaren Latinitate katedra sortzeko eskrituraren kopia [Copia de la Escritura de Fundación de la Cátedra de Latinitad de la villa de Lekeitio], 1862-09-23 (LUA 01458/02, 58. karpeta, 2. izapidea, 1. folioa).

Latinitate katedra horretara iritsi zen Eguzkitza 1904. urtean eta gerra zibilaren garaiak arte (1937) bertan egon zen lanean<sup>11</sup>. Lekeition eta Latinitate katedra horretan eraman zuen bizimoduaren lekukotza Eusebio Erkiagak azaldu zuen haren ikasle izandakoen hitzetatik hartuta:

«Bizitza benetan ikusgarria don Juanena! Egunero, utsik barik, goizeko 6 ta erdietan altara nagusi aurrean auzpez, mezatarako gertuten. Ordu erdi orrelan. Zazpiretan mezea, ta ostean, beste ordu-erdi belau-niko, Jaunari eskerrak emoten. Zortzi ta erdietan, egin-egifetan, eskolalaratzen zan, amaikak arte. Arratsaldean, ordu bietatik 4 arte. Ta erakutsi, baiña zelan erakutsi! Latin, griegu, erretolika ta betegarriak. A zan gizona, beti osasunez beterik, almen eta indar osoz irakasten; bein be ez larrialdi edo gogo motel. Ainbat irakasle izan dodaz; baiña onelakorik bat bere ez, antzemotekorik be. Eskolan errespetu aundiko gizona zan, baiña biotz zabala ta guztiz ona. Beti zintzua ta benetako apaiza... (Txomin San Sebastiánen testigantza). Beste ikasle batek be, gazteagoak, gehitu deusku: "Lekeition ikasi ta Gaztelu Elexabeitira joaten giñanean, ango irugarren urtekoen ondoan guk geuk, latin asko be gehiango jakiten genduan don Juanen ikasleok. Erderaz ulertzen ez gendua, euskeraz azalduten euskun. Bere buruaz estua zan eta ikasleok be, estututen ginduzan. Baiña don Juan, abade ta gizon on-ona zan. Beharbada, serioegia. Historia-ikaste orduak gozo ta atsegin izaten genduzan aregaz. Orregatik edo, beti izan naiz arrezkero historia-zale" (Emilio Kortabitarteren testigantza).<sup>12</sup>.

Gerra lehertu eta berehala susmagarri bihurtu zen aldi berriko irabazleentzat. Lekeition sartu bezain laster, frankistek espetxeratu zuten, eta epaitua izan zen<sup>13</sup> eta aske utzi zuten 1937. urtean. Aske baina, dena

<sup>11</sup> Horren argigarri, besteak beste, Bruno de Larrazabal jaunari idatzi zion 1923. urteko gutuna, Lemoatik bertatik, abuztu aldean. Eguzkitzak begirune osoz baina tinko egi-ten du protesta Latinitate katedran gertatu ziren diru-murrizketen kontra, horiek ekarri baitzuten irakasle laguntzailcaren lanpostua ezabatzea [J. B. Eguzkitzaren gutuna Bruno de Larrazabal jaunari, 1923-08-23 (LUA 01458/02, 58. karpeta, 2. izapidea, 14. folioa)].

<sup>12</sup> ERKIAGA, EUSEBIO: «Eguzkitza Meabe, Juan Bautista (1875-1939). Bere bizitza eta lanak», *Euskera*, XXI (1976), 217-238 or.

<sup>13</sup> EUZKO APAIZ TALDEA: «Juicio número siete», *Historia general de la guerra civil en Euskadi*, VIII liburukia, Donostia: Luis Haranburu, 1979, 119-124 or.



den, gaitzak jota erretiratu zen Lemoara<sup>14</sup>, bere jaioterrira, eta bertan hil zen 1939. urtean<sup>15</sup>.

Bizitzan zehar arlorik behinenak euskal idazletza, itzulpengintza, saiakera eta etnografia, ikerketa edota kazetaritza izan zituen hark, sermoigintza baztertu gabe.

Gogotik hartu zuen parte Euskaltzaindiaren zereginetan, ia sarreratik bertatik. Orobat, Bizkaiko abade aldra batek sartu zuen *Jaungoiko-Zale* elkartean (1912) eta haren buru ere izan zen, aldi batean.

Azken horren itzalpean idatzi zuen Errepublika garaian *Ekin* astero-koan eta *Euzkadi* egunkarian. Kezka bizia izan zuen erlijio gaitan, ez bakarrik herritarrentzako elizkizunetan (*Andra Mariaren Loretako ila*), ezpada gizarteak bizi zituen kezka nagusietan (*Gizarte-azua*), dotrina-ren zabalkundea ere gogoko zitzaioela.

Irakaskuntzan eta pedagogian gailendu bazen ere Latinitate katedran, Eguzkitzak hasieratik bertatik idoro zuen hitzaren ahala eta horren erakustokia, eta berehala igarri zuen honek kristau mezua zabaltzeko zuen garrantzia, hitz batez, agudo konturatu zen sermoigintzak izan zezakeen indarraz, erlijioaz zein hizkuntzaz, euskararen esparruan.

### 3. Eguzkitza, XX. mendeko lehen hereneko euskal kultura- sarean partaide

Aurrekoan azaldu den bezalaxe, Eguzkitzak parte hartu zuen, modu aktiboan gainera, garai hartan garatu ziren euskal kulturaren sareetan.

<sup>14</sup> Eguzkitzaren hitzak dira hauek, Lekeitiotik atera eta Lemoan zegoela Azkueri idatzitako gutun batean jasoak (1937-6-6): *No hubo tiempo material de despedirme de V. Dispense, dé memorias a todos los buenos y mande como guste a su afmo. a. y s. s.* Ikus: Eguzkitzaren gutunak, 1921-1939 (ABA-RMA-110-0391).

<sup>15</sup> Gerrako irabazleentzat gogokoa ez zena begien bistakoa da. Izan ere, 1940. urtean Bilboko auzitegitik informazioa eskatu zioten Lekeitioko Udalarí. Ordurako Eguzkitza hila zen eta, antza denez, Bilboko auzitegian horren berririk ez zegoen. Izapidearen arabera, Eguzkitza, *nacionalista destacadísimo, elemento de centros culturales separatistas e influyente político* omen zen. Lekeitiotik bidali zen erantzunean adierazten zen joana zela herritik eta baita hila ere; eta ezin zutela zehaztu Eguzkitza Euzko Alderdi Jeltzaleko kidea izan zen edo ez. Ikus: Juan Bautista Egusquiza Meabe / Juzgado instructor provincial de responsabilidades políticas de Vizcaya, 1940 (LUA 433). Bizirik zegoela ere, arazoak izan zituen argi dago eta horrexegatik bere adiskide Azkuek luzatu zion berehalako agiria 1939. urteko maiatzaren 16an, bertan Azkuek honelakoak esaten zituela: *...que desde hace muchos años conozco y trato al sacerdote D. Juan Bautista Egusquiza y Meabe, miembro de número de la citada Academia de la Lengua Vasca, de quien me consta que jamás ha desarrollado actividad política de ningún género, ni participado en ideologías o propagandas afectas al Nacionalismo o Separatismo Vasco, pudiendo también afirmar que en sus labores en el seno de la academia citada nunca ha rozado la esfera política, limitándolas al aspecto filológico propio de la academia.*...Ikus: Eguzkitzaren gutunak, 1921-1939 (ABA-RMA-110-0391).

Izatez, kultura jasoia izan zen euskalgintzaren helburua eta xedea hogeigarren mendearen hasieran. Urte askoren ondoren, gailurra jo zuen horrek Oñatiko Kongresuan 1918. urtean. Bertatik sortu ziren, lehendabizi Eusko Ikaskuntza eta gerora 1919. urtean Euskaltzaindia, aurrekoaren poderioz.

Bi-bietan bildu ziren intelektual euskaltzaleak, bi-biotan ere bilbatu zen halako sare aberatsa, euskalgintzako adituak barneratu zituen mugaren bi aldeetan. Egun, prosopografiaren arloan, bada orduko giro hori aztertu duena eta honek Eguzkitzaren jokabidea lekutzeko balio du.

Lan horretan, Amelia Hernández Mata ikerlariak jarri ditu zereginak:

«Dena dela, lan honen jomuga ez da izan artikulatuotan jorraturiko gaiak aztertzea, intelektualen parte hartzea neurtzea baino. Beraz, artikuluen mamiari dagokionez, lanok gaika sailkatu baino ez dugu egin, zerrenda era landuago baten eskaintzearen»<sup>16</sup>.

Honetarako, Piarres Lafitteren ekintzabideak eta garai horretako elkarte eta aldizkari euskaltzaleetara jo du:

«Jarraian ditugun lerroetan erakutsi nahi genuke nortzuk hartu zuten parte Ipar Euskal Herriko kultur jardueran 1920 eta 1940 urteen artean, bereziki nabarmendu nahi baitugu Piarres Lafitteren parte hartzea gune kulturallean, 1920.eko hamarkadan sartu zenetik II. Munduko Gerrak euskal ekintza kulturalen bilakaera oztopatu zuen arte. Lana burutzeko orduko elkarte eta aldizkarietara jo dugu: *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, *Eskualduna*, Eskualzaleen Biltzarra, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, *Gure Herria*, *Bulletin du Musée Basque* eta *Aintzina*»<sup>17</sup>.

Metodoak metodo, oso esanguratsu gertatu da eginikoa, zeharbidez ematen duelako horrek Eguzkitzaren berri:

«Aldizkariok aztertu orduko, gehien interesatu zaiguna izan da ezagutzea zein intelektual izan ziren lankide, bai sozietateek buruturiko bileretan parte hartzeagaitik, bai aldizkari berebetean idatzi izateagaitik. Izan ere, bilerotako kidesasuna bada ere harremanetan sartzeko biderik aiposena, pentsalari horiek zein aldizkaritan idatzi zuten ezagutzeak bide emango digu garaikideen arteko beste harreman batzuk suposatzeke ere, harremanok frogatzeko eskutitz, idazki zein lekukoen alkarizketetara jo behar izango badugu ere»<sup>18</sup>.

<sup>16</sup> HERNÁNDEZ MATA, AMELIA: «Piarres Lafitteren sare intelektualak», *Euskera (Pierre Lafitteri omenaldia)*, XLVI-separata (2001, 2), 584 or.

<sup>17</sup> *Ibidem*, 581 or.

<sup>18</sup> HERNÁNDEZ MATA, AMELIA: *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan*, Iker-20, Bilbo: Euskaltzaindia-Euskal Herriko Unibertsitatea, 2007, 15-16 or.

Eguzkitzak Euskaltzaindian jardun zuen nagusiki eta langintza horren zenbaketa oso adierazgarria da. Datari dagokionez, 1919. urtean hasi zen lanean Eguzkitza, hasierako lau euskaltzainek izendatu ondoren.

Eguzkitzak ez zuen, ez, hutsik egin, zela bileretan parte hartuz, zela artikulua eta argitalpenak eginez. Estatistikek osotzen dituzte, ezin hobeto, esandakoaren frogar:

a) Bileren kopuruari dagokionez, Eguzkitza da euskaltzain osoen artean bosgarrena. Guztira 90 aldiz hartu zuen parte Eguzkitzak Euskaltzaindiaren bileretan.

«Batzarkide	Bileren kopurua
Resurrección M. <sup>a</sup> de Azkue	120
Georges Lacombe	108
Ramón Olabide	106
Dámaso Intza	96
<b>Juan Bautista Eguzkitza</b>	90
(...), <sup>19</sup> .	

b) Artikuluei dagokionez, lau elkarte euskaltzaleen aldizkariak erkatuz, Eguzkitzak 4 artikulua ditu *RIEV*en eta 17 *Euskera* aldizkarian. Konparazio baterako, Azkueren ondoren (41 testu) eta Sebero Altuberen aurretik (12) Eguzkitza da irtenena argitaratze kontuan. Eusko Ikaskuntzaren *RIEV*en, aldiz, bere partaidetza txikiagoa da.

«Izena	<i>RIEV</i> (1920-1936)	<i>Euskera</i> (1920-1936)
(...)		
(...)		
Altube, Sebero	3	12
<b>Eguzkitza, Juan Bautista</b>	4	17
Azkue, Resurrección M. <sup>a</sup> de	3	41
(...), <sup>20</sup> .		

c) Gaien aldetik, Eguzkitzaren 17 artikulua hauek filologia sailean kokatzen dira. Horrek gutxitu egiten du Azkueretik alde, lekeitiarrari gai berean 36 artikulua egotzen baitzaizkio.

<sup>19</sup> *Ibidem*, 92 or.

<sup>20</sup> *Ibidem*, 110 or.; ikus 388-393 orrialdeak ere.

«Izena	Euskera (1920-1936)	(...)
	FILOLOGIA	
Altube, S.	12	
Azkue, R. M <sup>a</sup>	36	
Bähr, G.	2	
Campion, A.	1	
<b>Eguzkitza, J.</b>	17	
(...) <sup>21</sup> .		

d) Badago desoreka bat Eguzkitzaren zereginetan Euskaltzaindiaren eta Eusko Ikaskuntzaren artean. Honetan azaleratzen da alde txiki hori.

«Argi dago harreman txikia izan zela Euskaltzaindia eta azterturiko gainerako elkarteen artean: zerrendatu ditugun Euskaltzaindiaren 35 partaideetatik 6 baino ez ziren Eusko Ikaskuntzaren batzarretara joan. Georges Lacombe, ohiko partaidea Euskaltzaindian, noizean behin bildu zen *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*ren eta Euskaltzaleen Biltzarraren kideekin; eta Jean Elissalde noizbehinka agertu zen Euskaltzaindiaren bileretan eta bakan batzuetan Eskualzaleen Biltzarrak antolaturikoetan. Harreman gutxi horiek Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntzaren kideen artean bilakatu ziren, baina batere ez Euskaltzaindia eta *Société des Sciences, Lettres eta Bayonne*koen artean.<sup>22</sup>

«Laburbilduz: harreman txikia Euskaltzaindia Eusko Ikaskuntzarekin, baina batere ez *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*rekin. Harreman horiek jatorri berbera izanak eragin zituen, bai geografia-aren aldetik baita bultzatzaileen aldetik ere, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako diputazioek bultzatu baitzituzten bai Eusko Ikaskuntza baita Euskaltzaindia ere. Harreman urriak izatea Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak aztergai desberdinak izateak eragin zuen, Eusko Ikaskuntzak zientziaren arlo güztiak aztertu baitzituen eta Euskaltzaindiak euskal hizkuntza baino ez. Harrigarria, hala ere, hain erlazio txikia izatea, Euskaltzaindia Eusko Ikaskuntzatik sortu zela kontuan harturik.<sup>23</sup>

e) Aurrekoa hala bada ere, horrek badu, bestelako irakurketa, zuzeneko zerikusia duena Eguzkitzaren hizlari zereginekin. Izan ere, Eguzkitzak sare horretan parte hartu bazuen ere, nagusiki Euskal Herriko

<sup>21</sup> HERNÁNDEZ MATA, AMELIA: «Piarres Lafitten sare intelektuala», *Euskera (Pierre Lafitteri omenaldia)*, XLVI-separata (2001, 2), 598 or.

<sup>22</sup> HERNÁNDEZ MATA, AMELIA: *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan*, Iker-20, Bilbo: Euskaltzaindia-Euskal Herriko Unibertsitatea, 2007, 109 or.

<sup>23</sup> *Ibidem*, 109 or.

Hegoaldean jardun zuen, Iparraldeko ekimenetan partaidetza ezaguna izan gabe. Partaidetza horrek eraman zuen, bestalde, Euskal Egunetakoen hizlari sarri izatera, liburu honen lehen esparruko hitzaldietan adierazi den bezalaxe.

f) Eguzkitzak, hala ere, izan zuen bestelako sare-partaidetza, erlijioa eta euskara uztartu zituena eta bere berbaldigintzan guztiz azpimarragarria dena. Hura izan zen *Jaungoiko-Zale* eta lehen ere aztertua izan da<sup>24</sup>. Hitz laburretan esateko, Eguzkitza partaide eta zuzendaria ere izan zen Bizkaiko abade aldra batek aurrera eraman zuen ekitaldi erraldoian XX. mendeko lehen herenean, euskara eta erlijio katolikoa uztartzeko.

Hainbatez, Eguzkitza intelektual konprometitu izan zen, euskalgintzaren sareetan parte hartu zuena eta zabalkunde lan eragingarria egin zuena, besteak beste, hitzez eta ahotsez, erretorika sakratua egoki erabiliz eta sermoigintza euskaldunaren molde berritsuak ezarriz.

#### 4. Eguzkitzaren sermoigintza

Eguzkitzaren biografiak argi erakusten du holako jarraitutasuna bi gai nagusiren aldetik: lehena da kristautasuna eta bigarrena, euskara eta euskal kultura. Hartara jarrita, Eguzkitzak badaki zein den bere eginkizuna eta horretarako teknika eta taktika erabiltzen ditu, egoki erabili ere.

Hasteko, Eguzkitza erretorika maisua da, ezagutzen ditu autore klasikoak eta ideia jakinak ditu horien gainean; bigarrenaz, ideia horiek praktikan jartzen ditu bere sermoigintzan, emaitza egokiak lortuz, eta hirugarrenaz, Eguzkitzak baliabide horiek erabiltzen ditu, bateko, euskal sermoigintza eraberritzeko eta besteko, euskara eta euskal kultura bera herriari transmititzeko, katolikotasunarekin batera.

##### 4.1. *Eguzkitza, erretorika maisua: Oratio In Seminario Conciliari Victoriensi*<sup>25</sup>

Eguzkitzak, ikasketak bukatu bezain laster, erretorika eta gramatika irakasle jardun zuen Gasteizko Abade Mintegian. Han, 1903-04 ikasturteko sarrera-hitzaldia egitea egokitu zitzaion.

<sup>24</sup> Ikus 5. oharra.

<sup>25</sup> Edizio honetan, *Berbaldi banangoak* sailean jasoa: I. *Oratio In Seminario Conciliari Victoriensi, pro inaugurandis academicis studiis, Kalendis Octobris anni 1903, habita a D. Joanne Baptista Egusquiza, ejusdem seminarii Grammaticae et Rhetoricae professore.*

Egin ere, latinez egin zuen hitzaldi hori, olerkiak gazteen hezkuntzan duen pisua azpimarratuz. Humanismo bete-betea erakutsi zuen hartan Eguzkitzak eta kultura klasikoaren zaletasuna eta ezagupide harrigarria. Titulua bera ere, oso adierazgarria da: *Oratio In Seminario Conciliari Victoriensi, pro inaugurandis academicis studiis, Kalendis Octobris anni 1903, habita a D. Joanne Baptista Egusquiza, ejusdem seminarii Grammaticae et Rhetoricae professore.*

Eguzkitzak oso argi dauka olerkiak, eta oro har literaturak<sup>26</sup>, duen garrantzia eta berori egoki erakusteko modua:

«Agite vero: litterariis studiis permissum est, has hominis perficere egregias facultates; litterarum namque disciplina docemur, non modo praecepta, quibus expurgare sermonem, sed viam etiam atque rationem, qua animi cogitationes, venustam ipsis largiendo formam, nitentiores ostro possimus reddere atque affectuum quasi sanguine vivificare».<sup>27</sup>

Bide beretik, Coll y Vehí<sup>28</sup> orduko literatura ikerlea parafraseatuz:

«Ars enim bene dicendi, nihil aliud est, quam ipsamet ars recte cogitandi alteque sentiendi. Jam dudum Haratius dixerat: «Scribendi recte sapere est et principium et fons»<sup>29</sup>.

Horrek bidea ematen dio, Zizeroren antzera, erretorikaren kontzeptu klasikoa hedatzeko, Horazio eta Quintilianoren eskutik:

«Erit igitur eloquens –ait Cicero– qui ita dicit ut probet, ut delectet, ut flectat. Probare necessitatis est, delectare suavitatis, flectere victoriae. Nam id unum ex omnibus ad obtinendas causas plurimum valet. Sed quot officia oratoris, tot sunt genera dicendi; subtile in probando, modicum in delectando, vehemens in flectendo; in quo uno vis omnis oratoris est. Quibus apprime convenientia sunt, quae Quintilianus scripsit: «Huc (ad affectus) –inquit– incumbat orator, hoc opus ejus, hic

<sup>26</sup> PUJANTE, DAVID: *Manual de retórica*, Castalia Universidad, 1 zk., Madril: Castalia, 2003, 67 or.: «En cuanto al ámbito de la enseñanza, hay una total integración de la retórica en la literatura. En muchos de los textos para universitarios y bachilleres, bajo el nombre genérico de *literatura* se integran la retórica y la poética, algunos principios de estética, y en ocasiones tratados de versificación».

<sup>27</sup> In edizio honen *Berbaldi banangoak* saila: I. *Oratio In Seminario Conciliari Victoriensi*.

<sup>28</sup> Egile horren biografia ikus daiteke, Teodoro Barók eginda in COLL Y VEHÍ, JOSÉ: *Diálogos literarios*, Bartzelona: Librería de Juan y Antonio Bastinos, 1885, VII-XIV or.

<sup>29</sup> In edizio honen *Berbaldi banangoak* saila: I. *Oratio In Seminario Conciliari Victoriensi*.

labor est, sine quo cetera nuda, jejuna, infirma, ingrata sunt; adeo velut spiritus operis hujus, et animus esti n affectibus»<sup>30</sup>.

Areagotzen da olerkariaren eta erretorikaren arteko lotura:

«Ergo tantum abest ut poesis et eloquentia inter se rixentur, quin potius utraque alterius poscat opem res ac praesidium, ut perfectionis valeat attingere fastigium. Omnes artes –inquit Tullius– quae ah humanitatem pertinent, habent quoddam commune vinculum, et quasi cognitione quadam inter se continentur»<sup>31</sup>.

Esatariaren ezaugarriak ere aintzat hartzeko modukoak dira:

«Uerior atque robustior, quam philosophorum sermo, debet esse oratoris locutio, quae proprio orationis signata nomine est. Loquuntur enim philosophi de rebus placatis et minime turbulentis, docendi causa, non capiendi; quam ob rem eorum oratio «nihil habet iratum, nihil invidum, nihil atrox, nihil miserabile, nihil astutum»; at oratoris, cujus grandis erit et ornata vox, et nervos et aculeos habere debet oratio»<sup>32</sup>.

Hitz batez esateko, bi trebezia horien estekak ezin utzizkoak ikusten ditu eta guztiz onuragarriak gazteen hezkuntzan:

«Ergo poesis et eloquentia non edo inter se differunt, quod illa utilitate, haec sua vitate careat, sed quod, utrumque cum sit et proficuum et dulcium particeps rerum, utilia ad jucunditatem prima, jucunda ad utilitatem altera refert. Sed de his jam satis verborum est. Superest ut breviter expendamus quantum utilitatis percipiatur ex litteris»<sup>33</sup>.

«Litterarum cognitio –ut hinc ordiar, et id, quod agressus sum, absolvam– vel ex eo utilis habenda est, quod earum studia adulescentiam agunt atque instituunt Litterae, ubi primum adolescentuli ratione coeperint uti, titillatione quadam purissimae voluptatis eos alliciunt; qui, dum his illecebris tenentur, et labori libentius incumbunt, et ex perenni litterarum fonte aquam ingenii fertilitatis effectricem hauriunt, qua eorum irrigatae metnes, uberes postmodum atque opimos efferant fructus»<sup>34</sup>.

Literaturaren gorakada, nolnahi ere, ez da ezkutatzeko modukoa:

«Flexanima illa, ut poetae vocant, et omnium rerum regina, eloquentia, potis est langescentes animos incitare, effrenatos moderare,

<sup>30</sup> *Ibidem.*

<sup>31</sup> *Ibidem.*

<sup>32</sup> *Ibidem.*

<sup>33</sup> *Ibidem.*

<sup>34</sup> *Ibidem.*

moerentes consolari, afflictos levare, superbos frangere, innocentes erigere, a vitiis deterrere, ad virtutem allicere, eosque ita permovere, ut aut sperent aut metuant, aut oderint aut ament, quae ipsis ut expetenda aut refugenda aut contemnenda aut amanda proponuntur.<sup>35</sup>

Hitzaldiaren bukaeran, halako ondorioa:

«At vero mihi fefellisse me videor, quippe quoniam vestra, qui per vos sapitis, et litterarum amore flagratis, non sunt mihi accendenda studia. Itaque vela, contraham, et eum, quem in orationis exordio posse me arripere difisus sum portum, laeto animo respiciam; grates vobis, quod pronis me accepistis auribus, ex adyto tanquam cordis persolvam, dicendique finem faciam, modo vos iterum rogavero ut, quamquam multa, quod hujus loci non digna protuli, jure ac merito reprehendatis, studium tamen meum facessendi jussum et –quoad quidem vires ferebant– tenendi clavum, ne improbetis.<sup>36</sup>»

#### 4.2. Eguzkitza, sermolari eta hizlari aipatua

Eguzkitza 1904. urterik aurrera irakaskuntzari emana bizi zen, batez ere, latinaren bidetik. Nolanahi ere, Eguzkitza, idatziz zein ahoz euskalgintzako partaide aktibo eta cragilea izan zen. Lekeition bizi arren, sarri-sarri ibili zen hizlari Euskal Herrian zehar.

Hortaz, horren ahozko zeregin eta emaitzetan badago zer bereizi eta zer nabaritu, erlijio gaietan eta euskal kultura gaietan izan baitzen adierazle eta esatari nabarmena. Hizlari izan zenean euskara eta euskal kulturaren gaiak jorratu zituen, liburu honen lehen zatiko testuetan ikus daitekeenez; gehienetan, testu horiek han-hor-hemenka barreiatuta argitaratu izan dira eta *Berbaldi banangoak* deitu eta hala sailkatu dira oraingoan. Hauetan esan daiteke Eguzkitza hizlari dela, sermolari baino gehiago. Halakoetan nagusi zaio Eguzkitzari jakituriaren esanahia, ikerlari trebearen dohaina eta eskua, erretorika egoki batez josiak eta bilbatuak.

Bigarren multzo batean, aldiz, eliz berbaldiak dira barneratu direnak, bere eskutik jaso ziren modu berberean. Argitalpenari buruzko xehetasunak geroago azalduko badira ere<sup>37</sup>, dagoeneko begien bistakoa da honelakoak ez direna barreiatuak eta argitaratuak izan; egun, zorionez, Labayru Ikastegiaren Bibliotekan dira, guztion eskura.

<sup>35</sup> *Ibidem.*

<sup>36</sup> *Ibidem.*

<sup>37</sup> Ikus *Gure argitalpena* atala, sarrera honetan.



Eguzkitza sermolari ibiltaria izan zen, herriz herri ibili zena, Euskal Herrian mendeetan zehar semolaritzak ondu zituen fruituen berritzaile eta erakusle<sup>38</sup>. Sona eta aipu handia eskuratu zituen Eguzkitzak halakoetan, eta horren testigantza osoak dira, esaterako, Bilboko Bihotz Sakratuaren irudia ezartzeko ekitaldian Bizkaiko Foru Aldundian eman zuen hitzaldia<sup>39</sup> edota Sota eta Aznar etxearen Artagan-Mendi itsasontzia itsasoratzeko ekitaldian<sup>40</sup>. Gipuzkoa aldean ere, izan zuen oihartzuna Eguzkitza sermolariak, esaterako, Andoaingo Euskal Jaietan, 1929. urtean<sup>41</sup>.

Horiek gogora ekartzen dute Eguzkitza sermolaria, teknika baten jabe eta mezu baten eramaile, egoki uztartuz bata eta bestea. Hori bera gogoratzen du Erkiagak:

«Eta itzaldiak eurak, ez zituan arek bestek irakurteko egin, berberak esateko bai ostera. Belarri onekoa zan eta ahots ederrekkoa. Orregaitik, asmoz ta jardukeraz, entzun egin behar jakon, berberari entzun. Irakurtea neke daiteke; entzutea badakigu atsegin zana. Doiñutasun bereziak ezarten eutsazan itzaldiarj; saillean barruna, soñuketa ta mintzura ezbarðiñak eta volumen aldakorra. Asieran isil samar, bigun; urrena sendo baiña gozo; jarraipenean kementsu, gora ta beherako mintzurretan; guenez, sarri askotan, esaldia oldartsu ta ozen burututeko. Musikatason orrek entzulcak ezitan jarten zituan, ernagarria bait zan aren etorria ta esan argia, berezkoa, euskalduna. Itsasontzia ur-azalean olatuei maitez deusala, dzauan-dzauan ari dan bezela, batean garai, urrena

<sup>38</sup> URKIZA, JULEN: «P. Juan Vicente: escritor euskérico y predicador», *15 estudios sobre el Padre Juan Vicente Zengotita*, CD, Burgos: Estudios Monte Carmelo, 17, 1994, 245-291 or.

<sup>39</sup> Liburu honetan, *Elez berbaldiak* sailcan jaso: XXX. *Jaureskundera*.

<sup>40</sup> OSSA ETXABURU, RAFAEL: «El "Artagan-Mendi", los buques-escuelas y las banderas de conveniencia», *El Bilbao del novecientos. Riqueza y poder de la Ría. 1900-1923*, Biblioteca Vascongada Villar, 9 zk., Bilbo: Biblioteca Vascongada Villar, 1969, 173-190 or.: «El domingo 14 de octubre de 1917, a las diez de la mañana, celebran en la iglesia parroquial de San Nicolás de Bari, de Guecho, una solemne función religiosa. Misa del Padre Eslava, con intervención de coro y orquesta bajo la dirección del maestro Ansón y prédica a cargo de don Juan Bautista Egusquiza, del clero parroquial de Lequeitio. Inicialmente pretendieron celebrarla en la Basílica de Begoña; la coincidencia con la festividad anual de la proclamación de Patrona de Vizcaya, obligó al cambio de lugar del acto religioso. Después de la ccremonia hubo banquete en Igeretxe. "Quiera Dios que proteja a la hermosa nave vizcaína que dentro de unos días marcha para lejanos mares y El acompañe a los bravos marinos vascos que forman su tripulación", se dirá en los brindis.

Berebat, *Euzkadi* egunkaria, urte bereko zenbakia, urriaren 18koa.

<sup>41</sup> Ikus *Argia* asterokoa, urte bereko irailaren 29ari dagokion zenbakia.

sakon, musikadun esanen zanbuluei gozaro atxikiak jarten zituan entzule gogatsuak<sup>42</sup>.

### 4.3. Eguzkitza eta garaiko erretorika sakratua

Zein da, izan ere, Eguzkitzaren teknika erretorikoa? Eguzkitza oso gertu dago garai hartan abade mintegietan erakutsi eta, oro har, elizkizunetan erabiltzen zen molde komunikatiboetatik.

XIX. mende hondarrean, Espainiako giroari dagokionez, lehen hurbilketa baterako osagaiak liburu klasiko zenbaitzuetatik datoz:

«El *ars dicendi*, del jesuita alemán y destacado neoescolástico José Kleutgen (1811-1883), sustituyó al del español, también jesuita, Cipriano Suárez, y se mantuvo como libro de texto en la mayoría de los seminarios eclesiásticos europeos hasta mediados del siglo actual.

La cuarta parte tiene por objeto la "Elocuencia" y, al explicar su proceso de elaboración, distingue las fases tradicionales de la *inventio*, *dispositio*, *elocutio*, *memoria* y *pronunciatio*. Se detiene, de manera especial, en la "Elocuencia Sagrada". En el *Apéndice* presenta algunos modelos de *progymnasmas* y diversos esquemas de diferentes tipos de discursos<sup>43</sup>.

Era berean, predikazio gorabeheretan:

«Entre las múltiples obras dedicadas a la predicación sobresale por su amplia difusión la *Elocuencia sagrada. Tratado teórico-práctico* (1879) de Miguel Yus. Este tratado está dividido en tres partes. La primera, titulada "De grandes reglas generales de la elocución", trata de los elementos, formas y cualidades de la elocución.

La segunda -"De las reglas particulares de la elocuencia"- abarca tres libros en los que estudia, respectivamente, la "Invención", la "Disposición" y la "Elocución".

La tercera -"De las varias especies de la elocuencia sagrada"-: describe los caracteres de los tres géneros principales de la predicación sagrada: el didascálico -"que explica y confirma la doctrina cristiana en todo lo que se refiere a los dogmas de la fe y a los preceptos de la moral"-, el panegírico -"que contiene la alabanza de algún santo o personaje ilustre"- y el exhortativo -"que dirige a los hombres a la virtud por la fuerza de la doctrina cristiana"-<sup>44</sup>.

<sup>42</sup> ERKIAGA, EUSEBIO: «Eguzkitza Meabe, Juan Bautista (1875-1939). Bere bizitza eta lanak», *Euskera*, XXI (1976), 230 or.

<sup>43</sup> HERNÁNDEZ GUERRERO, JOSÉ ANTONIO eta GARCÍA TEJERA, M.<sup>a</sup> DEL CARMEN: *Historia breve de la Retórica*, Teoría de la literatura y literatura comparada, 10 zk., Madrid: Síntesis, 1994, 152-153 or.

<sup>44</sup> *Ibidem*, 169 or.

Hortaz, garai horretan erregelen mendean dagoen artea da erretorika. Literatura eta erretorika sakratua eta politika dira horren salbuespenak, horietan kausitzen baitira modurik garbienean erretorikaren zinezko zereginak<sup>45</sup>.

Erretorika horrek, bestalde, ez du aurreko mendeko indar bera. Nolanahi ere, sermoigintzak bere horretan jarraitzen du:

«¿Qué desarrollo, pues, tiene el conjunto de la tradición retórica en el XIX español? En primer lugar, como punto culminante de una secular *literaturización* la retórica se ve más que como código comunicativo, como conjunto de reglas pertenecientes a una concepción neoclásica del arte literario que va agotándose a medida que avanza el siglo pero que está muy arraigada en el mundo de la enseñanza: decenas de manuales lo atestiguan. En segundo lugar, continúa con vigor considerable el impulso de una predicación cristiana cuyos antecedentes pueden remontarse casi hasta Trento, si bien se detectan en este seno evidentes preocupaciones por cierta creciente secularización y por asegurar la recepción popular de esta labor pastoral»<sup>46</sup>.

Inguruabar horietan murgildurik, erretorika sakratuak badu, lehen so batean, Kleutgenen iritziz<sup>47</sup>, behinola Zizerok idatzi zuena gainditu beharra.

Izan ere, erromatarrak argi idatzi zuen:

<sup>45</sup> ASKOREN ARTEAN: *Retórica e Historia en el siglo XIX. Sagasta: oratoria y opinión pública*, Colección Quintiliano de Retórica y Comunicación bilduma, 9 zk., Logroño: Instituto de Estudios Riojanos (IER), 2008, 39-40' or.: «Es, por lo tanto, fuera del ámbito "literario" donde podemos encontrar las manifestaciones que más se aproximan al ejercicio de una retórica entendida de manera global y "física", esto es, los casos en los que realmente se pronuncian discursos ante auditorios que han de ser convencidos, instruidos o emocionados. Esos ámbitos son, principalmente, dos: el de la oratoria sagrada y el mundo de la política. En cuanto a la primera, es cierto que no muestra ya el vigor que tenía en el siglo anterior y que tan bien se reflejaba en el célebre *Fray Gerundio* del padre Isla, puesto que la difusión del liberalismo y de otras corrientes de pensamiento secularizantes trae consigo algún grado de reacción contra el inmenso poder de la Iglesia en la época. Con todo, la posición de la Iglesia sigue siendo más que preeminente en muchos ámbitos de la vida cotidiana y cultural del siglo XIX español, y tanto la predicación como los manuales dedicados a enseñanza gozaron de considerable vigor durante la centuria».

<sup>46</sup> *Ibidem*, 78 or.

<sup>47</sup> KLEUTGEN, JOSEPHO: *Ars dicendi*, Turin: Typographia pontificia Petri Marietti, 1895, 399 or.: «Assequetur propositum efficiendo, ut *veritas pateat*, ut *veritas moveat*. [S. Aug., de Doct. Christ. 4, 61 (nº 314).] Ac nos quidem his libris quaerimus, quid ad hunc effectum possit humana ars et indutria; inanis autem omnis nostra institutio, si orator altoiri quodam virtutum praesidio instructus non sit».

«XXI 69 Erit igitur eloquens –hunc enim auctore Antonio quaremis-  
is qui in foro causisque ciuilibus ita dicet ut probet, ut delectet, ut flec-  
tat. Probare necessitatis est, delectare suauitatis, flectere victoriae: nam  
id unum ex omnibus ad obtinendas causas potest plurimum». [«Será,  
pues, elocuente –al elocuente es, en efecto, al que pretendemos defi-  
nir, según las indicaciones de Antonio– aquel que en las causas foren-  
ses y civiles habla de forma que pruebe, agrade y convenza: probar, en  
aras de la necesidad; agradar, en aras a la belleza; y convencer, en aras  
de la victoria.»<sup>48</sup>.]

Horri gehitu zion, hala ere, San Agustinek:

«Porro qui non verbis contendit, sive submisse, sive températe, sive  
granditer dicat, id agit verbis ut veritas pateat, veritas placeat, veritas  
moveat». [«Ahora bien, el que no contiene por palabras, ya hable con  
estilo sencillo, moderado o sublime, lo que intenta es que la verdad se  
patentice, que la verdad deleite, que la verdad conmueva»<sup>49</sup>.]

Bi ikuspegi dira, horien ondorioz, hor jokatu beharrekoak eta bi  
horiek aurrera eramateko, eliz hizlariak bigarrenari indarra eman behar,  
bere zeregina egoki lortzeko. Horra hor, bada, erretorikaren teoria oro-  
korra, gero Eguzkitzaren sermoigintzan aplikagarri izan daitekeena.

Behar-beharrezkoa, ordea, erregela horien deskripzioa eta zehazta-  
pena egin aurretik hitz batzuk aipatzea, erretorika sakratuaren nondik  
norakoak azaltzen dituztenak eta ziur asko, behin baino gehiagotan  
Eguzkitzak berak erabili zituenak:

«Ahora, y para acabar, permítaseme advertir á los Profesores, de  
Oratoria Sagrada, poco experimentados, que esta enseñanza ha de ser  
necesaria y eminentemente práctica, puesto que la razón y la experien-  
cia nos dicen, que el absoluto conocimiento de todas las reglas, es insu-  
ficiente para formar un Orador, si no se hace ejercicio de las mismas.  
Por esta razón, cuiden los Profesores de que sus discípulos se ejerciten  
más en poner por obra las reglas de la Retórica que en oír muchas  
explicaciones. Por lo cual, los aconsejaría á no seguir en sus lecciones  
el orden, que guardan las cuatro partes de la Elocuencia, sino empezar  
por la tercera, que es la Elocución, mandando á sus alumnos que hagan  
siempre ejercicios correspondientes á lo que les explican»<sup>50</sup>.

<sup>48</sup> CICERÓN, MARCO TULLIO: *El orador*, Biblioteca temática: Clásicos de Grecia y Roma, Madrid: Alianza Editorial, 2001, 57 or.

<sup>49</sup> MARTÍN, BALBINO (arg.): *Obras de San Agustín*, Biblioteca de autores cristianos, Madrid: La Editorial Católica, 1957, 344-345 or.

<sup>50</sup> SAN JOSÉ, MAURICIO DE: *Tratado de elocuencia sagrada*, Bilbo: Imprenta Artística de Müller y Zavaleta, 1902, IX or.

Horretara jarrita, zehaztu behar da lehen-lehenez, zer den erretorika sakratua:

«De lo dicho es fácil colegir la Sagrada Elocuencia: «Es un Arte que enseña la manera de promulgar dignamente la Divina Palabra en cualquier Oración ordenada al bien de las almas»<sup>51</sup>.

Bide beretik, lau zati ditu horrek: *De Inventione*, *De Dispositione*, *De Elocutione*, *De Memoria* eta *De Pronuntiatione*<sup>52</sup>.

Era berean, genero eta arloak ere, modu askotakoak ditu: *De genere didascalica*, *De genere exhortativo*, *De panegiriko* eta *De homiliae*<sup>53</sup>.

Bestera esanik ere, arloak izan daitezke:

«Estos géneros son cuatro, á saber: 1.<sup>º</sup> Demostrativo ó Exhortativo; 2.<sup>º</sup> Deliberativo ó Persuasivo; 3.<sup>º</sup> Didascálico; 4.<sup>º</sup> Judicial»<sup>54</sup>.

Genero bakoitzari dagokionez: 1. Didaskaliko<sup>55</sup>, 2. Exhortatiboa<sup>56</sup>, 3. Panegiriko<sup>57</sup>. Begien bistakoa da eta generoa ere sakonduko da horretan, arloak gorabehera, Eguzkitzak arlo desberdinetako sermoiak egin zituela<sup>58</sup>,

<sup>51</sup> *Ibidem*, 4 or.

<sup>52</sup> KLEUTGEN, JOSEPHO: *Ars dicendi*, Turin: Typographia pontificia Petri Marietti, 1895, XIV-XV or.

<sup>53</sup> *Ibidem*, XVI or. eta YUS, MIGUEL: *Elocuencia Sagrada. Tratado Teórico-Práctico*, Madril: Librería Católica de Gregorio del Amo, 1894, 462-463 or.

<sup>54</sup> SAN JOSÉ, MAURICIO DE: *Tratado de elocuencia sagrada*, Bilbo: Imprenta Artística de Müller y Zavaleta, 1902, 6-7 or.

<sup>55</sup> YUS, MIGUEL: *Elocuencia Sagrada. Tratado Teórico-Práctico*, Madril: Librería Católica de Gregorio del Amo, 1894, 361 or.: «Es propio de este género explicar y confirmar la doctrina cristiana en todo lo que se refiere á los dogmas de la fe y á los preceptos de la moral, y aunque su objeto se dirige á instruir, ha de ser de tal modo, que, no sólo confirme la verdad, sino que también agrade, mueva y persuada».

<sup>56</sup> *Ibidem*, 413 or.: «Al género exhortativo pertenecen las oraciones que tienen por objeto dirigir á los hombres á la virtud por la fuerza de la doctrina cristiana. Este género abraza la *persuasión y disuasión*, y también la *repreñión* que corrige á los pecadores y la *consolación* que levanta á los afligidos. Los discursos del género exhortativo serán siempre buenos, pues diciendo á todos que lleven con paciencia los trabajos, que sean caritativos, que huyan del mal, etc., se recomienda la observancia de muchos deberes que á todos incumben. Pero esta exhortación general, que podrá ser conveniente al fin del discurso algunas veces, no debe confundirse con el discurso mismo, cuya proposición ha de ser concreta y las exhortaciones ajustadas á la proposición».

<sup>57</sup> *Ibidem*, 393 or.: «Se llamaban discursos panegíricos los que se pronunciaban en las *panegyrys* ó solemnes reuniones que tenían los griegos con motivo de los juegos ó funciones sagradas. El objeto de estos discursos era la alabanza de los dioses, de los hombres insignes ó de los pueblos. Posteriormente se ha dado el nombre de panegíricos á los que contienen la alabanza de algún santo ó personaje ilustre, etc.».

<sup>58</sup> Ikus *Gure argitalpena* atala, sarrera honetan.

eta neurtezina izango litzatekeela haren sermoigintza luze-zabal eta genero guztiak barruan sartuta aztertzea.

#### 4.4. *Sermoi baten eredia: Jose Deuna, Lekeitioko langilea*<sup>59</sup>

Laburtu beharrez, sermoi bat hartu da eredutzat; Lekeitioko langilei zuzendua, Jose Deunaren egunean. Horrela egitean, generoaren alde-tik arlo didaskalikoan kokatzen da ikerketa<sup>60</sup>.

Horretarako, alabaina, ezinbestekoa da sermoi baten zatiak, erretorika sakratuaren barnean bereiztea. Teoria klasikoaren arabera, bost<sup>61</sup> dira horiek:

- 1.- *Exordium*<sup>62</sup>
- 2.- *Narratio*<sup>63</sup>
- 3.- *Confirmatio*<sup>64</sup>
- 4.- *Confutatio*<sup>65</sup> eta
- 5.- *Peroratio*<sup>66</sup>.

<sup>59</sup> Edizio honetan, *Eleiz berbaldiak* sailcan jasoa: XLV. *Jose Deuna, Lekeitioko langilea*.

<sup>60</sup> SAN JOSÉ, MAURICIO DE: *Tratado de elocuencia sagrada*, Bilbo: Imprenta Artística de Müller y Zavaleta, 1902, 339-340 or.: «La utilidad propia de estos discursos se reduce, dicen los Santos Agustín y Crisóstomo, á la instrucción é imitación: *Solemnitates martyrum, exhortationes sunt martyriorum*, consiguiéndose con esto, dos grandes fines, á saber, la gloria de los Santos y la utilidad de los oyentes. La instrucción consiste en señalar cuál sea la verdadera y sólida virtud, por qué caminos se llega á ella y con qué medios se consigue; y todo esto con el ejemplo del Santo de que se trata, teniendo siempre en cuenta la edad, estado y condición de los oyentes. La imitación y ventajas de la virtud y los más fuertes motivos que exciten á practicarla, las asechanzas del común enemigo, los auxilios de la gracia, la grandeza del premio, depende, en fin, de avisos, exhortaciones y reproches prudentes y oportunos».

<sup>61</sup> *Ibidem*, 80 or.

<sup>62</sup> *Ibidem*, 81 or.: «El *Exordio* es la primera parte del discurso por medio de la cual el Orador procura predisponer al auditorio, haciéndoselo benévolo, atento y dócil».

<sup>63</sup> *Ibidem*, 92 or.: «La *Narración*, como segunda parte del discurso, la forman todas aquellas cosas que se dicen antes de las pruebas, con tal que tengan relación con las mismas, con la proposición de Asunto ó Final, ó con el sujeto del sermón».

<sup>64</sup> *Ibidem*, 94 or.: «Se llama *Confirmación* todo lo que sirve para probar y defender el asunto propuesto. Hemos dicho también *defender*, pues en la Confirmación se ha de hacer guerra ofensiva y defensiva contra los vicios, esto es, se han de usar pruebas y refutaciones».

<sup>65</sup> *Ibidem*, 117-118 or.: «La *Confutación* es aquella parte del sermón que con sólidas razones, borra de la mente de los oyentes las dificultades que podrían impedir el triunfo de nuestra causa, y por la cual el Orador muestra todo su talento y habilidad. Esta tiene dos partes, á saber: la objeción y la respuesta. La objeción se plantea con energía y fuerza de tal modo que el Orador se exprese en aquel lenguaje, respire aquellos sentimientos y le dé todas aquellas formas que recibiría si fuese expuesta por los mismos oyentes, á fin de despertar con esto su atención y prepararlos á escuchar con provecho su refutación».

<sup>66</sup> *Ibidem*, 122 or.: «La *Peroración* no es otra cosa sino la recopilación de las pruebas principales de un discurso, y el último y más solemne movimiento de los afectos».

Bakoitzaren kontzeptua zein den eta horiek euskaratzeko ahalegi-nak ere eman dira berrikitan<sup>67</sup>. Bide beretik, horretara sailkatuko dira oraingoan, erretorika sakratuan bilbatze aldera. Zernahi gisaz, horiek kokatuko dira Eguzkitzaren sermoi honetan, berbertatik adierazteko haren predikazio teknikak.

#### 4.4.1. Eguzkitzaren *Jose Deuna, Lekeitioko langileai* sermoiaren arrazoia eta gizarte-ezaugarriak: Jose Deunaren Anaidia

Sermoi horren berri egokia izateko, bertako gizarte-ezaugarrietara jo behar. Taxu horretan, sermoi hori Lekeition predikatu zela esaten da hasieran eta bertako *langileok* ditu xede. Helburuak helburu, elkarteen mundua oso ezaguna zen Euskal Herrian, eta zeregin jakinak zituen:

«En nuestro país, como en los demás países europeos, los obreros de cada profesión se hallaban asociados en gremios y corporaciones cuyas ordenanzas locales se imponían a la vida de esas instituciones con el máximo rigor. Estos gremios de artesanos existían en los pueblos de más importancia y cada uno de ellos tenía un santo patrono como protector: el de los zapateros era San Crispín y San Crispiniano; el de los herreros, Santa Bárbara; el de los cuchilleros, San Eloy; el de los sastres, San Antonio de Padua; el de los cordoneros, San Bernardo; etc. Este carácter religioso de los gremios nos hace ver que estas instituciones económicas constituían a la vez cofradías religiosas»<sup>68</sup>.

Elkarte horiek, berebat, lanbide jakin bateko antolakuntza osatzen zuten eta kide guztien ospakizuna urtero egiten zuten, elkarkidetzaz gisa:

«Nadie podía llegar a ser maestro en uno cualquiera de esos gremios, sin haber sufrido un examen de aptitud y haber abandonado cin-

<sup>67</sup> GARZIA, JOXERRA: *Jendaurrean Hizlari. (Abozko) Komunikazio Gaitasuna Iantze-ko Eskuliburua*, Iruin: Alberdania, 2008, 120 or.

#### Diskurtsoaren zatiak:

	LATINEZKO IZENAK	EUSKAL IZEN BEHIN-BEHINEKOAK
1	<i>Exordium/proemium/principium</i>	Sarrera/atarikoa/hasiera
2	<i>Narratio</i>	Azalpena
3	<i>Argumentatio</i>	Arrazoibidea
3.1	<i>Confirmatio/probatio</i>	Frogatzea
3.2	<i>Refutatio/confutatio/reprehensio</i>	Gezurztatzea
4	<i>Epilogus/peroratio/conclusio</i>	Epilogo/amaiera

<sup>68</sup> THALAMÁS LABANDIBAR, JUAN: *Aspectos de la Vida Profesional Vasca. El campesino, el pescador, el obrero*, Ciencias, Bellas Artes y Letras, 13 zk., Donostia: Euskaltzaleak-Beñat Idaztiak, 1935, 153 or.

cuenta o cien reales, según que el aspirante a maestro fuese o no hijo de maestro de obra prima. Esos derechos eran destinados a un fondo común con el cual se celebraba la fiesta de los Patronos. Cada cofradía solemnizaba la fiesta de su patrono en su propia calle; las fiestas tenían un doble carácter, religioso y profano; misa solemne con sermón y vísperas con reserva, txistu y tamboril a todo pasto, buena comida y corrida de novillos ensogados.<sup>69</sup>

Urte zehatza jakin ez arren, sermoi horren nondik norakoak Lekeitioko *Hermanidad de San José* inguruan kokatzen da. Izan ere, *hermandad* hori lekeitiarren artean sortu zuten, elkarri sorospen eta laguntza emateko. Hala agertzen da bere lehen araudian, 1903. urtean:

«Art. 1.<sup>o</sup>- Se constituye en Lequeitio una Sociedad de Socorros Mútuos, titulada "Hermanidad de San José", dedicada exclusivamente al Socorro Mútuo entre sus asociados, y será sucesora de la que hasta ahora se titulaba "La Vigilancia".<sup>70</sup>

Beraz, eta aurrekoaren ondorioz, elkarte hau ez da itsastarren moduko kofradia, lehorrekoen arteko kofradia baino. Argi geratzen da araudi bereko bosgarren artikuluan:

«Art. 5.<sup>o</sup>- Todo individuo que desee ingresar en la Sociedad deberá reunir las condiciones siguientes: 1.<sup>a</sup> Ser Católico, Apostólico y Romano. 2.<sup>a</sup> Ser mayor de 15 años y menor de 50 años. 3.<sup>a</sup> Habitar dentro del recinto del pueblo de Lequeitio; los que vivieren en sus alrededores podrán ser admitidos á juicio de la Junta Directiva. 4.<sup>a</sup> Ejercer alguna industria, oficio, profesión ó empleo. 5.<sup>a</sup> Observar buena conducta...<sup>71</sup>.

Elkarte horrek, bestalde, nabarmen erakusten du San Joseren aldeko eraspena, araudiraren 53. artikuluan adierazten duen bezala. Izatez, orrialde hauetan aztertua izateko aukeratu den sermoiaren zergatiak bertan zehazten dira:

«Art. 53.<sup>o</sup>- En honor á esta Sociedad de Socorros Mútuos que se denomina la "Hermanidad de San José" en sustitución á la de "Vigilancia de Socorros Mútuos de Artesanos" que antes tenía, se tomó por intercesor y abogado al esclarecido y glorioso patriarca San José y en su día, y en obsequio de dicho patrón, así como por el carácter eminentemente cristiano de esta Sociedad, se celebrará una misa y comu-

<sup>69</sup> *Ibidem*, 154-155 or.

<sup>70</sup> San Jose Kofradiaren araudia, 1903 (LUA 2005/8).

<sup>71</sup> *Ibidem*.



nión general, así como la Misa Solemne, con sermón, a fin de que asistan todos los socios con la devoción más fervorosa, y por intercesión de su esposa María Santísima, pidan al Dios Omnipotente por la duración y prosperidad de esta Sociedad, y los bienes eternos para sus miembros»<sup>72</sup>.

Elkarte hori ospe handikoa izan zen Lekeitioko bizitzan. Hainbatez, testu honetan jasotako araudi horren artikulak geroko eraldaketetan ere gorde ziren (1922, 1925 eta 1936). Kideen kopuruari dagokionez, 1913. urtean 112 bazkide zituen, 1929. urtean, 212 bazkide eta egun gizarte segurantzak betetzen dituen eginerak betetzen zituen. Sarri eskatu zion laguntza udalari eta ohargarria da baita ere 1936. urtean, araudia berriztatu zuenean, testu elebiduna ezarri zuela, alegia, euskaraz eta gaztelaniaz. Azken araudi horretan, gainera, hauxe jaso zen:

«45garren Ara.- Anaidi aonek beronen eleiz artuemonen arazoak obatasun osoz eroateko eleiz Artekari bat autetsiko dau, eta berau Abadea ta Bazkide barruko edo Laguntzalea izan bearko dau»<sup>73</sup>.

Artekari hori Juan Bautista Eguzkitza izan ote zen? Era berean, araudi horren euskaratzailea izan ote zen? Gaur egun ez daukagu hori frogatzeko adina osagairik. Hala ere, gertu-gertutik jarraitu zuena elkartearen bizitza argi dago eta lekeitiar lanbidekoek euren ospakizun nagusietan hizlari izateko aukera egin zutena ere begien bistakoa da, Eguzkitzaren hizlari doaiak ondo ezagutzen baitzituzten.

Azal ditzagun, beraz, sermoiaren zatiak (*exordium, narratio, confirmatio, refutatio, peroratio*) eta koka ditzagun sermoiaren testuak zati bakoitzean. Horrela egitera, gainera, Eguzkitzak erretorikaren legeak nola betetzen dituen erakusgarri geratuko da.

#### 4.4.2. Sermoiaren egitura klasikoa testuetan

##### EXORDIUM

– Testua: beti elebiduna, latina eta euskara barruratzen dituela. Itzulpenak berak direla esan daiteke.

– Tratamendua: *Neure entzule maiteok*. Horixe da, besterik gabe (*anai-arreba maiteok, kristau maiteok...*) Eguzkitzak erabiltzen duen

<sup>72</sup> *Ibidem*.

<sup>73</sup> San Jose Kofradiaren araudia, 1922 (LUA 2005/8); San Jose Kofradiaren araudia, 1925 eta elkarte berberaren gutuneria, 1928-1932 (LUA 2006/4); Lekeitioko Joseba-Deuna'ren anaidi'ko Araudia/Reglamento de la Hermandad de San José de Lequeitio, 1936 (LUA 2006/4).

esamolde bere-berea. Horixe da, bide beretik, liburu honen titulua, berorrek markatzen baitu Eguzkitzaren esangurarik nabarmenena.

– Sarrera orokorra (*lan egiteko ta lanaz biziteko agindua, Jaungoikoak ezarri eutsan gizonari*). Jarraian, Eguzkitzak, arrazoiak ematen ditu *Génesis* liburutik. Labur esanda, lana atsegin izatetik lana nekea izatera igarotzea. Jarraian horren zergatia ematen du, giza seme-alabek Jaungoikoaren agindua hautsi dutelako. Haatik, Jaungoikoak laguntzen du giza seme-alaben nekea arintzen eta Jaungoikoarekiko zorra ordaintzen. Ondorioa, beraz, hauxe da: lana, gizonarentzat zerurako bidea da.

– Deialdia: Jaungoikoa, Jose Deuna eta Zeruko Ama samurra.

– Gaiaren iragarpena:

«Langileak, geixo ta ezbearretan bata-besteari laguntzeko, alkartuta egotea gauza ona da; alkargo edo anaidi orren jagolatzat San Jose eukitea, ona baino be obea»<sup>74</sup>.

– Gonbitea:

«Neure itzaldi onetan orrexek gauza biok azaldu nai neuskizue. Orretan asi orduko, oitura danez, Jaunaren aurrean auspazturik, goiko argi ta laguntasuna eskatuko dautsaguz. Bitartekotzat S(an) Joseren ezkontide ta geure zeruko Ama samurra ipinirik, Aingeruaren agurra esan daiogun»<sup>75</sup>.

## NARRATIO

«Genesis deritxon liburuak dinosku: «Bere eskuz egindako gizona artu ta atsegintegian ipini eban Jaunak». Zetarako? Paradisuko atsegin artean, ezer egin barik, alper eta nagi biziteko izan ete zan? Ez! «Ut operaretur et custodiret illum. Paradisuko lur emokorra bere bearraz landu ta zaindu egian.» Zetan edo atan lan egiteko, orretarako ipini eban Jaunak paradisuari gizona. Baina orduan lana gizonarentzat atsegina zan, orain, ostera, nekea da.

Zegaitik? Atseginezko toki aretan zorientsu bizi zan gizonak Jangoikoaren legea ausi ebalako, orixegaitik Jaunak esan eutsan lenengo gizonari: «Nire agindua ausiaz, gaiztakeria egin dozu; ori egin dozulako, aurrerantzean lurra ezikaitz, biurri ta madarikatua izango da zuretzat. Lurraz, baseaz egina zara ta barriro lurrera, auts izatera biurte arte,

<sup>74</sup> In edizio honen *Eleiz berbaldiak* saila: XLV. *Jose Deuna, Lekeitioko langileai*.

<sup>75</sup> *Ibidem*.

jango dozun ogi-kopaua zeure arpegiko izerdiz irabazi bearco dozu». Au dala-ta, orain gizonarentzat lana Jaungoikoaren agindua ezeze, Jau-naren zigor edo kastigua be bada; eta ain zuzen be, zigor edo kastigua dogulako, lana guretzat nekea da.

Norbere guraz egiten dan lana, larregiren bat izan ezik beintzat, gizonarentzat atsegingarri be izan daiteke; baina premineak, bearrizana, naitaezak eginazoten dauana, latz eta garratza, gogor eta neketsua izan da beti ta izango be bai. Orraitik be, inoz begiak gora jaso barik, geroko itxaropen barik, ogi-kopau bat irabaztea baino beste asmu barik lanean diarduan gizonarentzat, lan ori naitaez, kistinau dan langilea-rentzat baino, geroko itxaropena daukan gizonarentzat baino, askozaz be latz eta garratzagoa, astun eta neketsuagoa izango da.

Egiz, gizonaren gaiztakeria lan neketsuaz zigorkatu edo kastigua eban Jaunak; baina Jauna gure zeruko Aita on, errukior eta samurra data, beti, zigorkatzen gaituanean be bai, geure on eta mesederen bila dabil. Augaitik, eta Jaungoikoak olantxe nai izan daualako, geure lanaz grina gaiztoak ezi ta pekatuen orbanak garbitu geinkez; geure lanaz Jangoikoari dautsaguzan zorrak ordaindu geinkeoz eta zerurako irabaziak be egin geinkez. Onela, lana bear dan lez egin ezkeru, gizonarentzat zerurako bidea da»<sup>76</sup>.

#### CONFIRMATIO

«Onelan ba, S(an) Joseren anaidian dagozanok langile zur eta arduratsua izan diralako, inori begira egon barik euren artean karidade egiten dabelako, alkarri lagunduaz bestela errian izango litzakezan bearrizan edo premia be gitxitzen dabezalako, langileen alkargo edo anaidi oni laguntzea gauza zuzen eta bidezkoa dala dirudi»<sup>77</sup>.

Lehenari dagokionez, argumentuak honetara datoz: lan egiteagatik lotsatu beharrik ez dago, jaunak ere lan egin zuen eta Jose Deunak ere gauza bera. Lana, hala ere, elkarrekin egin behar da, Eguzkitzaren berbetan. Une horietan, Eguzkitzak *Gizarte auzia* artikuluetan eta liburuan garatu zituen nondik norakoak aurreratzen ditu, eta *Confirmatio* horren zereginak zehazten ditu, batik bat, langileen ezbeharrak, gaitzak eta zahartzarua aurreikusteko. Bibliaren aipamenak egiten ditu, *Ecclesiastes* liburutik eta azkenean galderaren teknika eta figura darabil:

<sup>76</sup> *Ibidem.*

<sup>77</sup> *Ibidem.*

«Inoz ezbearrik ez zoritxarrik ez geixorik ez baletorkio be, langileak alkargo edo anaidian sartuaz, zer galtzen dau?»<sup>78</sup>.

Horren harira, albiste ezin aberatsagoak ematen ditu, sermoiaren bidez Lekeitioko kofradia honi buruz: bazkideak nolakoak, betebeharrekoak halakoak eta egoki bereizten ditu karitate hutsa eta karitate eta zuhurtasuna, kofradiaren egitekoetan.

Bigarrenaren harira, argumentazioa laburragoa da. *Jose Deuna* guztiz laudatzekoa da, eta horren bitartekotasuna, ezinbestekoa. Langilea zen eta horrexegatik langileen jagolea izatea zegokion. Gainera, bere lanaz irabazi zuen zeruko saria:

«Aren antzera, lan eginaz guk be gauza bi orreik batera irabazi geinkcz. Biziteko lan egin bearrak zerua irabaztea ez dautso inoz inori galarazo; bestera, guztiai lagundu egin dautse. Santu alperrik ez dago; guztiak, bakotzak bere arloan gogoz lan egin dabe»<sup>79</sup>.

#### REFUTATIO

«N(eure) e(ntzule) m(aiteok), gizarteak gorabera andiak izan ditu. Gaur egunean be ondo dagoanik ez dinot; gizarteko gauzak dagozan baino obeto ipini leikezala dirudi, baina gizartea gaur baino askozaz txarrago be egon da. Erroma mundurik erdiaren jabe ta agintari zanean, bitariko gisasemeak egozan: batzuk aske edo libre, euren buruen jabe ziran; besteak ez ziran euren buruen jabe, inoren otsein, morroi ta jopu baino. Lenengoak, erti-lanak, lan bitxiak egiten ebezan, besterik ez. Burua nekatzeko lanak bai, baina gorputza nekatzeko zan lanik ez eben egiten; onako lan guztiak otseinenak, morroienak, jopuenak ziran, eta onetariko askok, oina ta soina, jana ta jantzia baino beste irabazi barik, ekin bear izaten eutsoen lanari. Gorputza askotxu nekatu barik egin ezin leikezan lan orrei *opera servilia*, 'otsein-lanak', critxoen erro-marrak, eta lan orreik gizon aske edo librearentzat lotsagarri zirala uste eben. Eretxi okerra da ori; baina eretxi oker orrek gizartean sustriak sakon bota ebazan eta luzaro iraun eban.

Eretxi okerra dala esan dot. Eta egiz, eskulana, gorputza nekatuta egiten dan lana, gizonarentzat ez da egundo izan lotsagarri. Alperkeria bai, ekandu txar guztien ama dan alperkeria, bai. Baina lana, lotsagarri? Gizona zindotu, obetu ta goratzen dauan lana, lotsagarri? Kistinau danak olakorik ezin esan daïke. Kistinau Jesukistoren jarraitzailea da. Jesukistok zer egin eban? Ogetamar urtera arte, bere bizitzarik geiene-

<sup>78</sup> *Ibidem.*

<sup>79</sup> *Ibidem.*

an, Nazaretoko lantegian lanari ekin eutsan. Augaitik, gero, irakasten eta mirariak egiten asi zanean, judatarrek esaten eben: «*Nonne hic est filius fabri?* Ez al da au langilearen semea; ta berau be langilea?» Ikasten ez da ibili ta ikasi barik, dakian beste zelan daki? Jangoiko Semeak bizibidea irabazteko lanean ziarduan. Jangoiko andia lan egiteaz ez zan lotsatu, ta guk gizon txikiok lana lotsagarri danik zelan esan geinke»<sup>80</sup>.

#### PERORATIO

«Guk be geure eguneroko lanaz zerua irabazi geinke; orretarako ardura pizka bat euki bear, besterik ez. Gogo ta biotzak gora jaso; noizik noizera Jangoikoagaz gomutau, Jaunaren aginduari burua makurtu, eta Jaunaren naia betetearren, Jaunari atsegin emotearren, lan egin badaigu, geure Egile, Jabe ta Ugazaba nagusi dogun Jaunak otsain zintzoari lez esango dausku guri be: «*Euge serve bone et fidelis..., intra in gaudium Domini tui.* Otsein on eta zintzoori, poztu zaitte..., zeure Jaunaren zorionera sartu zaitte. Ondasun txikietan zintzoa izan zarealako, ondasun andien jabe egingo zaitut. *Quia in pauca fuisti fidelis supra multa te constituam.*».

Auspaztu gaizan, ba, S(an) Joseren irudiaren aurrean eta bitarteko laguntzaile ta Jagola izan dakigula eskatu daiogun.

Zeure lanaz zerua irabazi zenduan Nazaretoko langile zoriontsuorek, gogo ta biotzak gora jasoten eta geure eguneroko lanak, zeure an tzera, asmu zuzenez egiten irakatsi eiguzu. Zeruan daukazun zorion andi ori Jangoikoaren maitasunarren lan egiteak, orrexek ekarri dautsu; guri be lana zerurako bide izan dakigun, geure lanetan lagundu gaizuz, oraingo nekeen saria betiko atsedean eta zoriona izan daigun»<sup>81</sup>.

Horra, bada, zirkulua itxita eta sermoiaren tesia garatuta, teknika eta testu egoki baten bidez.

#### 4.4.3. Lexikoa sermoian

Eguzkitza, egungo ikuspegitik begiratuta, garai hartako garbizaletasunaren esparruan kokatuko genuke. Hala eta guztiz ere, lehen hurbilketa hori nabarduraz bete beharko genuke, batez ere, sermoigintzari dagokionez, Eguzkitzak garbizaletasun hori beti bigundu baitzuen herriaren ulergarritasuna bermatzeko.

Izatez, Eguzkitza garbizalea bada ere, haren garbizaletasuna eite jakin batekoa da. Ez ditu asko estimatzen Sabino Aranak asmatu eta zabaldu zituen hizperriak eta, orenen gainetik, lehengo hitz zaharrak

<sup>80</sup> *Ibidem.*

<sup>81</sup> *Ibidem.*

lehenesten ditu. Eta halakorik ezean, bakar-bakarrik hizperrietara joteko irizpidea aldezen du:

«Itz barriak sortu orduko, bearrezkoak diran ala ez astiro ta ondo begiratu bedi: edozein euskalkitan itz zarririk badago, orren ordezeko barririk ez da bear... Au egin arren be..., edozein erderaz adierazo leiken guztira euskeraz adierazo al izateko, bear dituan itz barri guztiakin ornidu eta aberastu bear da»<sup>82</sup>.

Eguzkitzak sermoiak bizkaieraz ematen ditu eta hala idatzi ere. Zenbait kasutan Gipuzkoan emandako sermoieta argi ikusten da gipuzkeraz ahoskatu zuena eta gero modu berean argitaratu, bizkaierazko ordainak ere emanez, batez ere, hiztegiari eta aditzari dagokienez<sup>83</sup>.

Eguzkitzaren estrategia, sermoigintzaren aldetik, sinonimiaren arloan kokatzen da, herri xeheak hizperriei buruz izan dezakeen ez jakintasuna gainditu nahian eta komunikazio eta predikazioaren egintza komunikatiboari kalterik egin gabe. Besteak beste, nabarmenak dira sermoi honetan honelakoak: *zigorkatu* edo *kastigau/ otseinenak, morroienak, jopuenak/ opera servilia*, 'otsein-lanak/ *aske* edo *libre/ alkargo* edo *anaidia/ anaidi* edo *kofradia*.

Kasu horietan bistan da hizperria erabiltzen duen lehen aldian ematen duela maileguaren sinonimia eta gero bere horretan jarraitzen duela hizperria erabiltzen, entzulea ohitu dadin hizperri horren erabilerara.

#### 4.4.4. Sermoiaren funtzio diskurtsiboa

Berrikitan zabaldu da gure artean sermoiei buruzko estimua, horiek baitira tradizio luze baten aribide gotorrak. Are gehiago, euskararen esparruan bertara batu dira bateko, aspaldiko tradizioa<sup>84</sup>, garai batean bazter-

<sup>82</sup> EGUZKITZA MEABE, JUAN BAUTISTA: «Euskera idatziaren batasuna», *Euskera*, III (1922), I zk., 119 or.

<sup>83</sup> Esaterako, Andoainen 1929. urtean egin zuen hitzaldian, edizio honetan *Berbaldi banangoak* sailcan jasoa: IX. *Andoaingo Euskal jaietan aurtengo irailaren 22an Eguzkitza euskaltzainak egindako eleiz itzaldia. Gipuzkeraz eta bizkaieraz.*

<sup>84</sup> URIBEETXEBARRIA MAIZTEGI, TOMAS: «Euskarazko sermoi-ondarea Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboan. (Basque sermon collections in the Biscay Regional Archive)», RIEV, 52-2 (2007), 421-422 or. : «Esango balitz euskal oratoriari ez zaiola merezi duen arreta eskaini, ez litzateke, agian, ongi hartua izango, sermoi-libururik ez baita falta gure argitalpenetan. Baina, kontutan hartuz gero zenbateraino bete duen beste edozein hutsune euskal literaturaren historian, ziurrenez arrazoizkoa litzateke pentsatzea ez dela sekula oratoria horren azterketa sakonik egin, ez direla literatura horretan erabili izan diren erre-kurtso literarioak arakatu, ez dela oratoria horren barneko bilakabidea jarraitu, ez zaiola kasu askorik egin euskararen literaturaren zatirik handienari. Eta bere garaian ere argitaratu ziren hainbat deboziozko liburu eta antzeko, herrian hedatu ere egin zirenak, eta, astiroago, baita doktrina-azalpen eta sermoi-gai zen materiala ere».

tuta izan zena eta besteko, tradizio horrek jokatu duen zeregina, euskara eta euskal kultura ez eze, erlijioaren baloreak ere zabaltzeko.

Etena<sup>85</sup> ere izan da betiko sermoigintzaren eta oraingo homiletikaren artean, euskarazkoa ere ukitu duena. Izan ere, abadeak eta fraideak hezteko ahaleginetan zuzeneko zerikusia izan du sermolaritzarako pres-taketa lanak<sup>86</sup>.

Kontuak honetara, heziketa prozesu honetan helburuak zein ziren argi dago: eta *logosen* aldetik baino, *pathosen* aldetik zihoazen:

«*Grosso modo* kontzepzio horien pean banatzen da erretorika, nahiz eta formula daitekeen beste terminotan, beti ere dualitatean. Erretorika *phatosean* jartzen bada, publikoaren emozioetara hain zuzen, konben-tzimenduak behera egiten du eta pertsuasioak gora, manipulazioaren erretorika litzatekeena. Indarra *logosean* jartzen bada, berriz, logikaren eta argudiatzearen ikuspegia ematen zaio erretorikari eta demostrazio zientifikotik hurbil kokatzen da»<sup>87</sup>.

Horretara jarrita, Ozaetaren esanetan, sermoiek zer nolako zeregina duten argitzen saiatzen da. Generoetan gorago esan dena azpimarratuz, entzuleak motibatzea du helburua sermoiak, *inpaktua*.

«Sermoiek hartzailearengan inpaktu bat izatean dute funtsa. Bestela ere formula liteke: sermoiek eduki formal batez gain, eduki morala (ideologikoa) ere badute, izan ere, fedea sendotzea/bidera ekartzea edo konbertsioa bilatzen dutelako. Posizio hartze bat. Horrela gauzak, estrategia multzo bat behar da praktikara eraman inpaktu hori –*ekintza* eragitea– erdiesteko. Horren transmisio katea pertsuasioa da. Erretorika horretaz arduratu da eta injinerutza oso bat ere sortu du. Erlijio katoli-

<sup>85</sup> INTXAUSTI, JOSEBA eta LETE, JOSE MARIA: «Sermolariak: hitzaren eta herritarren zerbitzuan», *Arantzazu: Ikerlan eta Saiakerak XX. mendeko historiaz/Investigaciones y Ensayos acerca de su historia en el siglo XX*, Donostia: Arantzazu E. F., 2003, 552 or.: «Horrek guztiak, ordea, ez du esan nahi tradizioz jasotako prediku-modu denek eten- edo aldama bera izan dutenik; alderantziz, batzuek beren hartan iraun dute: Garizuma edo aldi trinkoetako predikaldiek (gogora Aste Santua, adibidez), urteko zenbait jai handi orokorretakoek (abuztuko Andre Mari, Sortzez Garbia, eab.), nahiz herrietako Zaindari-jaietakoek».

<sup>86</sup> *Ibidem*, 549 or.: «Bigarren, hori jakinki, apaizatarako ikasketetan sermolaritzarako prestaketari bere lekua eman zitzaion, nolabait esateko Seminario Txikitik hasita (jendaurreko agerpenak, deklamazioa, etab.), eta apaiz-ikasketak amaitzean, ikastaro berezia eratu izan zen apaiz berrientzat, "Curso de Oratoria" zeritzan batekin, horretarako esku-liburu eta guzti (Probintziarako argitara emandako Aita J. Alejaldre-rena, hain zuzen)».

<sup>87</sup> OZAETA ELORTZA, ARANTZA: *Agirre Asteasukoaren «Eracusaldiac». Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan*, Iker-24, Bilbo: Euskaltzaindia-Mondragon Unibertsitatea, 2010, 237 or.

koaren kasuan, erretorika erabili du bere helburuen barreiatze eta hedatzeko asmoz, eta, beraz, bada erlaziorik konfigurazio linguistikoa-  
ren eta konfigurazio sozio-diskurtsiboaren artean...»<sup>88</sup>.

Bide beretik, laster antzematen da orain arte esandakoaren ardatz bikoitza, alegia, Ozaetak aztergai duen Agirre Asteasuko euskal klasiko-aren sermoigintzak maila formalak betetzen dituela eta aldi berean asmo jakina eta agerikoa duela, euskara bera duintasunez erabiltzea. Era horretan transmititzen zaizkio herri xeheari orduko hartan euskalgintzan ari ziren haize berriak.

Horretarako du lagungarri hizkuntzaren aldeko jabekuntza harrigarrira eta bestetik, jendearengana heltzeko jokaera.

Bide beretik:

«Ondoriozta daiteke sermoiareneko elementu espiritualak ez dela hegemonikoa, ohartarazpen, izan-arazpen eta praxiari emana baitago. Horrela, bada, sermoia *pathosak* gobernaturiko berbalak da, genero epidiktikotik izango lukeena, koherentea dena bere izatearekin (hortik ikuskizun edo espektakuluaren diskurtsoa, sermoiareneko "funtzio", "puntuazio" esatea)»<sup>89</sup>.

Era berean:

«Tropoak eta figurak erabiltzeko premia dauka sermoilariak (exemplak, konparazioak, hiperboleak, adjetibazioak, eta abar). Edertasuna eta emozioa ahozko eraikuntzak dira, hitzaren formulazioaren bidez txunditu eta hunkitzeko bidea egiten du sermoilariak, efektu praktikokoak bilatzeko (*revertere ad me*). Alde horretatik, sermoiak elaborazio literarioa dauka: bai edukian eta bai forman, kezka dago. Sermoien harritzen duten gauzak esateko premia du. Erretorika behar zuen horretarako, baina erretorika ez da erregela bilduma arbitrarioki erabil daitekeena, baizik, gure kasuan, sentimendua eta emozioa hartaratzeko»<sup>90</sup>.

Hitz batez esateko, Eguzkitzak lantzen du, behinola Zizerok adierazi eta San Agustinek ondu zuen hura, eta jendearengana euskararen bidez kristautasun mezua eramaten du, eskema jakin batetik abiatuz eta horri euskalgintzaren berrikuntzak gehituz.

<sup>88</sup> *Ibidem*, 238 or.

<sup>89</sup> *Ibidem*, 254 or

<sup>90</sup> *Ibidem*.



## 5. Gure argitalpena

### 5.1. Edukiaren xehetasunak: hautuaren arrazoiak

Eguzkitzaren sermoiek badute euren historia. Aldenduak ziren gerra ostean edo, gutxienez, eskuraerrazak ez. Aita Santi Onaindiak 1975. urtean erakutsi zuen argitaratzeko asmoa, baina ekimena bidean geratu zen.

Gerora, Labayru Ikastegira joan ziren testu horiek, ibilbide luzea egin ondoren. Eskuizkribuak dira, egoki atonduak kutxetan. Guztira 134 hitzaldi dira eta Xabier Perea Txabarri abadeak atondu eta makinaz jo zituen 1985. urtean.

Egoera horretan luzaro iraun dute. Pereaekin izan genituen harremanetan beti erakutsi zuen hark gogo berezia testu hauek argitaratuak izan zitezcn. Horrexegatik, hil baino lehentsuago aukera eman zigun berarekin egoteko eta bultzadaxoa emateko gure zereginetan.

Ukaezina da, hortaz, hari zor dioguna eta hala azpimarratu nahi dugu, guretzat erabat baliagarri izan baita hark ondutako lana. Luze joango litzateke makinaz Perea 782 orrialde ekarri zizkioten 134 hitzaldi horiek euren osotasunean argitaratzea. Horrexegatik, horietariko esanguratsuenak hautatu eta horiek egin dute jausia eskuizkributik idatz-makinara eta berbertatik ordenagailura, gerora, liburu honetan argitaratuak izateko.

Izan ere, gure argitalpenak 56 hitzaldi batu ditu. Hautua egiteko, Xabier Pereaen lana izan dugu gidari. Hark hiru liburu handitan banatu zituen Eguzkitzaren sermoiak, gaiaren arabera. Horien tituluak jaso dira sarrera honen *Bibliografia* azpisailean, *Argitaragabeak* arloan eta sermoi bakoitzaren tituluaren bertan nabarmendu da, izartxo baten bidez zein diren liburu honetara baturikoak.

Galdera, alabaina, laster dator ezpainetara, alegia, zein izan dugun irizpide halako hautuak egiteko orduan. Irizpidea baino, irizpideak direla esan beharra dago.

Halako batez:

1. Data eta lekua zehazturik dituzten hitzaldiak hobetsi dira.
2. Gai bati buruz hitzaldi bat baino gehiago badira eskuizkribuen bilduman, aukeratzen dena beti izan da aukeratua sermoiaren barneko erreferentziak aintzat hartuta, hau da, xehetasun historiko, linguistiko edo etnografiko gehien dituen.

Jakin badakigu hautua honetara eginik ere, beti-beti ez dugula asmatzen. Nolanahi ere, hortxe daude jatorrizko testuak eta makinaz jotako aleak, esandakoaren lekuko gisa.

Hainbatez, gure helburua ez zen inola ere testu guztiak ematea, askoz interesgarriagoa baita guretzat Eguzkitzaren eredu linguistikoa,

XX. mendeko lehen herenean nola gorpuztu zen maila jasoan, batik bat, sermoiaren egoera komunikatibo berezian, egoera horren hartzailea herri osoa zela.

Horren ondorioz, premiazkoa zitzaigun hori erakustea, hau da, ea eredu linguistiko komunikatibo hori baliozkoa zen euskararen esparruan. Horrexegatik lehenetsi da ikuspegi hori, erlijioaren mezua eta muina ere alboratu gabe.

Hona, bada, gaiaren aldetik, hautaketaren oinarria. Ez, ordea, hizkuntzarena, jarraian horren inguruan jardungo dugula.

### 5.2. *Testuen grafia eta bizkuntza paradigmak: berezitasunak*

Eguzkitzaren berbaldiek, grafia sisteman ezta hizkuntza ereduari berari dagokionean ere, ez dute eredu tinko-tinkorik erakusten, bestetara baino. Hau da, aldaeren arteko alternantzia ugari azaltzen du, hizkuntza formen artekoa batez ere; han-hemen, testuetan zehar txandakatu, bi edo hiru lexiko edota aditz forma desberdin ageri zaigu, kasurako, bizkaieraz zein gipuzkeraz idatzitako berbaldietan ere.

Eredu horren *ziurtasun eza* igarririk —sarritxo euskalkien arteko nahasteak ekarria da—, eta edizio honetarako testuak orraztu behar genituela, arrazoizkoa iritzi genion Eguzkitzaren supraparadigma linguistikoa gauzatzen ahalegintzeari: bat, bizkaierazkoa eta gipuzkerazkoa, bestea. Berbaldiok, testu-kritikaren galbahetik eralgi eta ostean, hizkuntza sistema bakarrera ekartzea idazlearen eta irakurleen mesederako aurreikusi genuen, bada, nahiz eta horrek lanak emango zizkigun...

Esan barik doa, bestetik, helburu hori beti ere idazlearen berezkotasunei men eginez burutu beharra zegoela, hots, Eguzkitzaren hizkuntza berezitasunei ahalik eta estuen oratu nahi geniela. Eta halaxe egin genuen, egin ere.

Hurrengo azpiataletan gure testu-kritika lan neketsu honen garapena islaturik dago, kasuistika aberatsa batu baitugu, arlorik arlo joanda, hausnarketa prozesu horren erakusgarri lez. Adibideok ez dira alfabetikoki ordenatu, ezpada testuetan agertuaz-agertuaz pilatu eta gero zerrendatu ditugu.

Azken emaitza, jadetxi nahi genuen Eguzkitzaren hizkuntza eredu txukun, sendo eta uniforme, hortaz, testu-bilduma honetan bertan duzue.

Gainerako meritu guztiak Eguzkitzarenak berarenak dira, jakina, orduko eredu linguistiko aldakor hura gorabehera, maisu handia baita euskaraz idazten: narrazio trebea ez eze —edukiak elkarri josten nahiz literatura baliabideak erabiltzen—, herri-euskararen sena ere, garbia eta zehatza duen luma dugu, zalantza barik, idazle lemoarra.

## 5.2.1. Grafia sistema

- a) Bustidura: *iñ* > *in*; *ill* > *il*; *ix* > *iz* / bokala + *ñ* > bokala + *in*; bokala + *ll* > bokala + *il*
- b) Hitz-kateak (elkartzea edo banatzea)
- *-rarte* > *-ra arte*
  - *ezk-* > *ez g-*
  - *etz-* > *ez z-*
  - *ezt-* > *ez t-*
  - *ezp-* > *ez b-*
  - *eleizau* > *eleiza au*
  - *esan* / *egin alak* > *esanalak* / *eginalak* / *emonalak*
  - *ez euki* > *ezeuki*
  - *lau oineko* > *lauoineko*
  - *esku bete*
  - *arabe*
  - *bapez*, *bape* (*aleginik bapez*)
  - *zentzun bako*, *zentzu gabeko* > *zentzunbako*, *zentzungabeko*
  - *amai bako* > *amaibako*
  - *ezebez* > *ezer be ez*.
  - *orban bako*, *orban bage* > *orbanbako*, *orbanbage*
  - *sineste bakoa*, *sineste gabea* > *sinestebako*, *sinestegabe* (*baina: sineste bako agintari*)
  - *ardura bako* > *ardurabako*
  - *aita ordeko* > *aitaordeko*
  - *maitasuna arren* > *maitasunarren*
  - *maitetasun arren* > *maitetasunarren*
  - *garreanean* (*bederatzi ilabete garreanean*)
  - *eten bako* > *etenbako*
  - *urteoro*
  - *seme orde* > *semeorde*
  - *biotzandiak* (*izan*)
  - *nai ta ez*, *nai ta ezkoa* > *naitaez*, *naitaezkoa*
- c) Marratxoaren erabilera (hitz-elkarketa)
- *bein-da-betiko* > *bein ta betiko*
  - *ete-* (*ete-da* > *ete da*)
  - *-edo* (*kentzearren-edo*)
  - *bai-* (*bai-doa* > *baidoa*)
  - *-ta* (*dino-ta*)
  - *bat-zein-bat* > *bat zein bat*
  - *bat-edo-beste* > *bat edo beste*
  - *min artze* > *min-artze*

- *odol tanta* > *odol-tanta*
- *guzur jainko* > *guzur-jainko*
- *biotz-beroz, biotz-biguna, biotz-zabalez, biotz-sendo...*
- *esku-zabalez*
- *Aita-Jangoikoa* > *Aita Jangoikoa*
- *buru-gogor* > *burugogor*
- *gurutze-buru* > *gurutzeburu*
- *izatez-goitiko* > *izatez goitiko*
- *esku-lan* > *eskulan*
- *uri-buru* > *uriburu*
- *agintari-orde* > *agintariorde* (baina: *agintari-ordeko*)
- *eskuartean* > *esku artean*
- *errukior-samurra*
- *andi-samurra*
- *maitasun-atsegin*
- *artu-emon*
- *laztan-maitagarria*
- *goragarri-maiteok*
- *baltz-ilun*
- *gogo-biotz*
- *laztan-kutun*
- *laztan-samur*
- *gozo-eztitsa*
- *garbi-sendoa*
- *andi-ederra*
- *gozo-atsegingarri*
- *atsegin-eztitan*
- *zenbatu-ala* > *zenbatu ala*
- *asma-aleko* > *asma aleko*
- *giza-talde* > *gizatalde*
- *bigun-errukiorra*
- *txarto-eginak, gaizki-eginak*
- *beren-beregi* > *berenberegi*
- *basa-pizti* > *basapizti*
- *argi-izar* > *argizar*
- *Seme-Jaungoikoa* > *Seme Jaungoikoa*
- *on-osasungarria*
- *andiki-usaineko*
- *biderakusle* > *bide-erakusle*
- *aleginak-alegin* > *aleginak alegin*
- *euri-antz*

- euri-jauste
- itxas-barru > itxasbarru
- itxas-alde > itxasalde
- eregi-bikain
- ase-bete > asebete
- sor-gor > sorgor
- gaizkin-dongeak
- -ertz (ibai-ertz, bide-ertz)
- epel-makal
- laztan-maite, maite-laztan
- egin-arazi > eginarazi
- aserratu-eragin > aserratu eragin
- zeru-goiak
- erri-zain > errizain
- untzi-buru > untziburu
- bide-bazter

## d) Letra larri eta xehea

- Jabe ('Jangoikoa')
- Epaikari Gorengoa
- Ebanjelio
- Sakramentu Altarakoa, Altarako Sakramentua
- Jesusen Gorputz eta Odola
- Jesusen Biotz
- Aita Goikoa
- Lege Zar (haina: antxinako legea)
- Iru Bakaldunen eguna
- Aitagurea
- Abemaria
- Erromako Kaisar
- Kisfo Errege
- Jangoiko Seme, Jangoiko Gizon, Seme Bakarra, Goiko Jaun
- Jangoiko Egiazkoa, Gizon Egiazkoa
- Egitadetako Liburua
- Gizonaren Seme
- Eguen Guren, Bariku Guren, Ostiral Guren
- Ama ('Ama Birjina')
- Andra Maria Garbia, Sorkunde Garbia, Sorkunde Orbangea
- Urliá, Berendia, Sendia
- Jaungoiko Alorodun
- Andra Erregina
- Mariaren Jaiotza eguna

- *Jaungoikoaren Alaba ('Maria')*
- *Irutasun Guztiz Santua*
- *Mariaren Alabak*
- *Laugarren Agindu, Bigarren Agindu, etab.*
- *Eleiza Ama*
- *Eskritura Santuak*
- *Amabi Apostoluak*
- *Egizko Jaungoikoa*
- *Aingeruaren agurra*
- *Azken Juizioko eguna*
- *Aingeru Jagole, Aingeru Zaintzaile*
- *Jaun eta Jabe ('Jaungoikoa')*
- *Aita San Frantzisko*
- *Iruharrengoen (Frantziskotarrak)*
- *Aratuste*
- *Legeko Aginduak*
- *Lenengo Eskutitz*

Baina xehez: *legea, diabru, lur, zeru, bera, gaizkina, diabru, Jesukristoren neke eta pasino, meza nagusi, aita santu, Moisesen legea, apostolua(k), serafin, kristinau-ikasbidea...*

e) -a organikoa

- *Prantzi > Prantzia*
- *Austri > Austria*
- *Ungri > Ungria*
- *Alemania > Alemania*
- *gloriz > gloriaz*
- *grazi > grazia*
- *grezitar > greziatar*
- *Ondarrabi > Hondarribia*
- *Naparroko > Naparroako*
- *emaitz > emaitza*
- *penitentzi > penitentzia*
- *eleiz > eleiza*
- *neskatil > neskatila*

f) Grafia erratak

- *Jangoikaz gero > Jangoikoaz gero*
- *izakara > izakera*
- *ekundu > ekandu*
- *asabandik > asabakandik*
- *dauset > dautset*
- *pantzetarrak > prantzetarrak*

- *eztsiago* > *ertsiago*
- *izteko, iztea* > *isteko, istea*
- *eztan* > *eztan* > *ez dau*
- *izkilu* > *iskilu*
- *urratza* > *urratsa*
- *auzpaz* > *auspaz*
- *iritzi* > *iritxi* ('*loritu*')
- *azkatasun* > *askatasun*
- *ager da* > *ageri da*
- *irakarri* > *irakorri* ('*jaso, altxatu*')
- *gentil* > *jentil*
- *dayozanak* > *doijazanak*
- *arrese* > *arresi*

g) Tipografia eta puntuazioa

Komatxo bikoitzak ('*a*'): aipamen zuzenak adierazteko.

Komatxo bakunak ('*a*'): esanahiak bereizteko.

Letra etzana: aparteko zentzua azaleratzeko edo erdal berbak testutik nabarmentzeko.

Laburdurak garatu: *entz(u)le mait(e)ok*.

Puntuazioa gaurkotu: bokatihoak koma artean jarri, harridura- eta galdera-ikurrak erabili, eten puntuak kontestu zehatzetan ipini, etab.

h) Latinezko aipuak: grafia zuzendu edo aipuak eurak osatu.

### 5.2.2. Lexikoa

a) Alternantzia saihestuz

Kasurik gehienetan indartsuen ageri den aldaeraren alde egin dugu.

Hala ere, badira kasu bakan batzuk bestetara eginez argitu behar izan ditugunak, alegia, formarik ahulena hobetsiz, berori delako gaurko euskara eredutik hurren dagoena, batez ere gipuzkeraz idatzitako testuetan. Halakoetan, baina, egia da; agerpen-kopuruari begira, apenas alderik egon ohi dela lehian azaldutako lexiko-aldaeron artean.

- *ospatsu / ospetsu* > *ospatsu*
- *bakotxa* (bizk.) / *bakoitza* (gip.)
- *sineskintza / sineskitza* > *sineskintza*
- *errez / erraz* > *errez*
- *pozkarri / pozgarri* > *pozkarri*
- *nagusi / nausi* > *nagusi*.
- *ezagutu / ezautu* > *ezagutu*
- *aserratu / asarratu* > *aserratu*

- *Dabit / Dabid > Dabit*
- *aiskide / adiskide > aiskide*
- *antxina / antzina > antxina* (bizk.)
- *aitzin / aintzin > aitzin* ('aurre')
- *-ta gero / -da gero > ta gero* (gebienetan)
- *agiri / ageri > agiri* (bizk.)
- *gaxo / gaizo / gaixo > gaxo*
- *gixaxo / gizaxo > gixaxo*
- *geixo / geizo / gexo / gaizo > geixo* (bizk.)
- *eriotz > eriotzea* (bizk.) (baina: *eriotz aurre | oste | ordu*)
- *jaiotz > jaiotzea* (bizk.) (baina: *jaiotz aurre | oste*)
- *bizitz > bizitzea* (bizk.)
- *jagola / jagole > jagola* (salbu: *Jagole aba*)
- *bata-bestea / bata bestea > bata-bestea*.
- *ajola / axola > ajola* (salbu nafarreraz: *axola*)
- *ajolakabe / ajola gabe > ajolakabe*
- *euskal / euzkel / euskel / euzkal > euskal*
- *iriki / ireki > iriki*
- *zeorrek / zerorrek > zeorrek*
- *aundizki / andizki > aundizki*
- *izkuntza / izkuntz > izkuntza*
- *ereinotz / erinotz > ereinotz*
- *aurkitu / arkitu > aurkitu* (salbu nafarreraz: *arkitu*)
- *erdal / erdel > erdal* (*erdalerriak, erdal itzak...*)
- *emakume / emakuma > emakume*
- *ezagun / ezaun > ezagun*
- *-keri / -keria > -keri* (*arrokeriarik > arrokeririk*)
- *baina / baino > baina*
- *antzo / anzo > antzo*
- *elbarritu / elberritu > elbarritu*
- *bidali / biali > bidali*
- *zerikusi / zerekusi > zerikusi*
- *ikusi / ekusi > ikusi*
- *barre / parre > barre*
- *gauza / gauz > gauza*
- *oiek / oek > oiek*
- *odai / odei > odai* (*baina baita odoi ere*)
- *Jaungoikoa / Jaugoikoa > Jaungoikoa*
- *ipuin / ipui > ipuin*
- *kaskar / kaizkar > kaskar*
- *amurratu / amorratu > amurratu*



- *ezkutatu / izkutatu* > *ezkutatu* (salbu nafarreraz: *izkutatu*)
- *leba / lleba* > *leba*
- *azkatu* > *askatu*
- *azke* > *aske*
- *danak / danek* > *danak*
- *Jesukisto / Jesukristo* > *Jesukisto*
- *maitetasun / maitatasun* > *maitetasun*
- *ardao / ardo* > *ardao* (bizk.)
- *geztoki / gaiztoki* > *gaiztoki*
- *gatx / gaitz* > *gatx* (bizk.) (salbu gipuzkeraz: *gaitz*)
- *izentau / izendau* > *izentau* (bizk.) (salbu gipuzkeraz: *izentatu*)
- *dongekeri / dongakeri* > *dongekeri* (*baina: dongaro*)
- *donge / donga* > *donge*
- *augaitik / augatik* > *augaitik* (bizk.)
- *origaitik / origatik* > *origaitik* (bizk.)
- *gurutze / gurutza* > *gurutze*
- *akar / aker* > *akar*
- *gaine(an) / gane(an)* > *gaine(an)* (salbu: *orrezaz ganera, mendi-ganea*)
- *eleizate / elizate* > *eleizate*
- *eskar / esker* > *eskar*
- *Kisto / Kristo* > *Kisto*
- *kistinau / kristinau* > *kistinau*
- *osti* > *ostia*
- *inontz / inuntz* > *inontz*
- *eguerdi / eguberdi* > *eguerdi*
- *persona / pertsona* > *persona* (bizk.)
- *bikotx / bikoitz* > *bikotx* (bizk.)
- *premina / premia* > *premina* (bizk.)
- *atx / aitz* > *atx* (bizk.)
- *aizkarri* > *azkarri*
- *leor / legor* > *leor*
- *gogo(a) / gogu(a)* > *gogo(a)*
- *bearrizan / biarrizen* > *bearrizan*
- *itzuli / itxuli* > *itzuli*
- *emendixek* > *emendixik*
- *Eupeme / Eufeme* > *Eufeme*
- *Prantzisko / Frantzisko* > *Frantzisko*
- *galgarua* > *galgaraua*
- *eratsi / eretsi* > *eratsi*

- *aurrez / eurrez > aurrez*
  - *leu-leu > leun-leun*
  - *ziero > ziaro*
  - *borreru / borrero > borreru* (salbu gipuzkeraz: *borrero*)
  - *parkatu / barkatu > parkatu* (salbu gipuzkeraz: *barkatu*)
  - *parkazino / barkazio > parkazino* (salbu gipuzkeraz: *barkazio*)
  - *ago / abo > ago*
  - *zorigaizto / zorigezto > zorigaizto* (gip.)
  - *augatik / augaitik > augatik* (gip.)
  - *gutxi / gitxi > gutxi* (gip.)
  - *onela / onelan > onela* (gip.)
  - *itxaron / itxoron > itxaron* (gip.)
  - *inok / inork > inok* (salbu gipuzkeraz: *inork*)
  - *nok / nork > nok* (salbu gipuzkeraz: *nork*)
  - *ezeke / ezerke > ezeke* (salbu gipuzkeraz: *ezerke*)
  - *zek / zerk > zek* (salbu gipuzkeraz: *zerke*)
  - *inoz / inoiz > inoz* (salbu gipuzkeraz: *inoiz*)
  - *noiz / noz > noz* (salbu gipuzkeraz: *noiz*)
  - *edonok / edonork > edonok* (salbu gipuzkeraz: *edonork*)
- b) Alternantziari eutsiz
- *erlejino | erlejio*
  - *anbat | ainbat*
  - *bezala | bezela*
  - *isuri | ixuri*
  - *sinestu | sinistu*
  - *aiztu | aztu*
  - *biluzik | biloizik*
  - *sinesmen | sinismen*
  - *eginkizun | egikizun*
  - *bedeinkatu | bedinkatu*
  - *kristinau | kistinau*
  - *aditu | aitu*
  - *mingoitz | mingots*
  - *nagusi | nagosi*
  - *judutar | judatar*
  - *jaiobarri | jaioparri*
  - *naigabe | naibage*
  - *be | bere*
  - *guzti | guzi*
  - *igale | igali*

- *ao* | *ago*
  - *aundi* | *andi*
  - *iriki* | *ideki*
  - *kerizpe* | *gerizpe*
  - *oeik* | *oriek*
  - *orbangabea* | *orbanbagea*
  - *zugatz* | *zugaitz*
  - *asmo* | *asmu*
  - *siniskintza* | *sineskintza*
  - *apostolo* | *apostolu*
  - *aurrez aur* | *aurrez aurre*
  - *zutindu* | *zutundu*
  - *euskera* | *euskara*
- c) Gaurko eredutik kanpora gelditutako zenbait hitz
- *pozkarri*
  - *ospatsu*
  - *egi*
  - *eskar* (*eskar on, eskar txar, eskar gaizto...*)
  - *abi*
  - *anai*
  - *-keri*
  - *ixeka*
  - *antsi*
  - *ixilik*
  - *alort*
  - *erestun* (*idunestun, burestun...*)
  - *igiri*
  - *famili*
  - *aiskide*
  - *txikar*
  - *bidar*
  - *boskarren*
  - *inatzi*
  - *soldau*
  - *kistinau*
  - *soldautza*
  - *ezauera*
  - *amurru*
  - *pazentzia*
  - *sapai*
  - *iragi*

- *gaba* (*gabean*, *gabeko*...)
- *lenguseina*
- *bendezino*
- *atarau*
- *areitz*
- *laroineko*
- *inostarri*
- *odoi*
- *inorbait*
- *oxin*
- *itxusi*
- *bupera*
- *lloba*
- *etzun*
- *errex*
- *laister*
- *guzi*
- *oba*
- *eskeilara*
- *koroe*
- *albinu*
- *burpil*
- *mingane*
- *inardu*

## d) Bizkaierazko lexiko-aldaerak

- *jaube* | *jabe*
- *agiri* / *ageri* > *agiri*
- *galerazo* / *galerazi* > *galerazo*
- *bakotxa* / *bakoitza* > *bakotxa*
- *misino* / *misio* / *mixino* / *mixio* > *misino*
- *itxaso* / *itsaso* > *itxaso*
- *zegaitik* / *zergaitik* > *zegaitik*
- *edonoren* / *edonoen* > *edonoren*
- *ixilik* / *isilik* > *ixilik*
- *parkapen* / *parkamen* > *parkapen*
- *inpernu* | *infernu*
- *deabru* | *diabru*
- *itxasuntzi* | *itxasontzi* > *itxasuntzi*
- *ikasle* | *ikasl*
- *berbiztu* / *birbiztu* > *berbiztu*
- *igitei* / *ilai* / *igetei* > *igitei*

- *eskoma / eskuma > eskoma*
- *atera / atara > atera*
- *biraoa / biroa > biraoa*
- *banezean / banazean > banezean*
- *orroia / orroa > orroia*
- *ortzean / ortzian > ortzean*
- *atsekabe / atsakabe > atsekabe*
- *edonon / edonun > edonon*
- *baizen / beizen > baizen*
- *idegi / edegi > idegi*
- *eutsi / eutsin > eutsi*
- *elikatu / alikatu > elikatu*
- *elizkizun / eleizkizun > elizkizun*
- *menpetu / menbetu > menpetu*
- *ziur / zigur > ziur*
- *maitagarri / maitegarri > maitagarri*
- *jatsi / jatzi > jatsi*
- *non / nun > non*
- *berealaxe / berelaxe > berealaxe*
- *begirakune / begirakun > begirakune*
- *baratza / baratze > baratza*
- *eskegi / esegi > eskegi*
- *esakun / esakune > esakun*
- *ekatz / ekaitz > ekatz*
- *anai / anae > anai*
- *trumoi / trumoe > trumoi*
- *arrisku / arrisgu > arrisku*
- *sufridu / supridu > sufridu*
- *birloratu / birlorau > birloratu*
- *garraxika / garrasika > garraxika*
- *egaz / egaitz > egaz*
- *ogeta / ogeita > ogeta*
- *pazientzia / pazentzia > pazentzia*
- *ixildu / ixeldu > ixildu*
- *osterantzean / osterantxean > osterantzean*

### 5.2.3. Aditz forma batzuk

#### a) Faktitiboak (arazo / erazo, eragin)

- *iraunazo < iraun-azo, iraun azo, iraunazo*
- *iraunerazi < iraun-erazi*

- *jakinazo* < *jakinazo*, *jakinarazi*
- *jakinerazi* < *jakin-erazi*
- *arrerazo* < *arrazo*, *arrerazo*
- *arrerazi*
- *eginazo*
- *eginarazi* < *egin-arazi*
- *aserratu eragin* < *aserratu-eragin*
- *zutiarazi* < *zutiazi*
- *bete eragin* < *bete-eragin*
- *galerazi*
- *betearazi* < *bete-arazi*
- *idatziarazi* < *idatzi-arazi*
- *apalerazi*
- *sortuerazi*
- *emanerazi*
- *esanerazi*
- *adierazi*
- *adierazo*
- *sinestuazo* < *sinestu azo*
- *ezagutuazo*
- *bizierazo*
- *gomutazo*
- *luzatuazo*
- *ilerazo*

## b) Adizkiak

- *nindun* > *ninduan*
- *gendun* | *genduan*
- *zendun* | *zenduan*
- *daun* / *dauen* / *dauan* > *dauan*
- *daula* / *dauela* / *dabela* / *dauala* > *dauala*
- *nijoan*
- *daukoz* / *daukaz* > *daukaz*
- *geike* / *geinke* > *geinke*
- *zazu* / *ezazu* > *ezazu*
- *legio*
- *neuntsan* > *neutsan*.
- *dauko* (baina: *daukaz*, *daukan*, *daukala*...)
- *jakon* | *jakan*
- *dagon* / *dagoan* > *dagoan*
- *zeuskun* > *zeuskun*
- *dabiltz* | *dabiltza*

- *ginuzan* > *ginduzan*
- *legi* | *lei*
- *dinotsogu* / *dinotsagu* > *dinotsagu*
- *diten*
- *joala* / *joiala* > *joiala*
- *geinkeoe*
- *leikeo*
- *badagigu* / *badaigu* > *badaigu*
- *zeiten*
- *dagokioe* / *dagokie* > *dagokie*
- *darokie* / *daroe* > *daroe*
- *doia* / *doa* > *doa*
- *deitela* / *daitela* > *daitela*
- *zefon* | *zefon*
- *daike* | *dagike*
- *dabilen* / *dabilan* > *dabilen*
- *dautz-* / *deuts-* / *dauts-* > *dauts-*
- *geuke* / *geunke* > *geunke*
- *dauka* > *dauko*
- *legikeo* / *leikeo* > *leikeo*
- *daukogu* / *daukagu* > *daukagu*
- *emodazu* / *emoidazu* > *emoidazu*
- *deusku* / *dausku* > *dausku*
- *garen* / *garean* > *garean*
- *negoan* > *nengoan*
- *geutsen* / *geuntsen* > *geuntsen*
- *zare* / *zarie* > *zarie*
- *bageuko* > *bageunko*
- *gabez* / *gaitue* > *gaitue*
- *naiz* / *naz* > *naz*
- *ebilen* / *ebilan* > *ebilan*
- *ekatzu* / *ekazu* > *ekazu*
- *guazen* / *goazen* > *goazen*
- *leikie* > *leukie*
- *daitezen* / *daitezan* > *daitezan*

## 6. Ondorioak

Aurrekoa laburtze aldera, honetara azal daitezke Eguzkitzaren sermoigintzak agertzen dituen ondorioak:

– Eguzkitzaren euskalgintzak erakusten du bitariko norabidea: bateko, kristautasun zabaltzea eta besteko, euskara eta euskal kultura lantzea.

– Horretarako, Eguzkitzak garai hartako intelektualen sareetan parte hartzen du modu nabarmenean. Horietariko bi dira gailenenak beraren zereginetan: Euskaltzaindia eta *Jaungoiko Zale* elkarteak.

– Era berean, Eguzkitzak, xede horiek eskuratzeko, euskara erabiltzen du idatziz zein ahoz. Ahozko emaitza horiek dira, besteak beste, Eguzkitzaren hitzaldiak.

– Bi-bitarikoak dira hitzaldi hauek. Hartara, hitzaldi *zibilak* ez ezik, hitzaldi erlijiosoak ere barruratu dira argitalpen honetara, ustez, bi-biok, funtsean eredu erretoriko berari erantzuten diotela.

– Eredu horren zutabeak dira Eguzkitzarentzat, erretorikari buruz duen ezaupide frogatua, abade mintegitik eta Lekeitioko irakaskuntzatik datorkiona eta euskararen jabetza, berak ondua eta landua.

– Bi osagai horiek uztartuta, Eguzkitzak, askoren hizkuntza gehiegi-kerietan jausi gabe, euskararen berriztatze prozesuan sartzen du bere burua, bete-betean. Garbizale amorratua izan gabe, hitzetan eta esentan tankera berria dakarkio euskal sermoigintzari.

– Eguzkitzak sermoigintza goratu egiten du, euskara jasoago (hiztegia, joskera...) baten bidez. Sermoia da, izan ere, egoera komunikatibo horren adierazlerik preziatuena, horra batzen baitira sermoilariaren hizkera, erlijioaren egiak barreiatu nahi dituenak eta herri horrek erabiltzen duen hizkuntza bera, euskara.

– Eguzkitzak frogatzen du euskara molde horrek herriarekin komunikatzeko balio dezakeela, hots, mezu hori herriari helarazi dakioketela euskara jaso eta duin baten bidez.

– Eguzkitzak, bestetik ere, erretorika sakratuaren ereduak jorratzen ditu hertsiki eta bide horretatik eredu ezin hobea eskaintzen du orduko (eta gaurko) ekintza komunikatiboak, euskararen esparruan, elkarren artean kontrastatzeko.

– Eredu horrek bazuen bere jarraibidea; hala ere, finkatu aurretik erro-errotik ezabatua eta deuseztatua izan zena gerra zibilaren aldetik. Gero etorri zena, zalantzarik ez, beste nonbaitetik abiatu zen, euskara bera aintzat hartzeko gerra osteko aldiak etorri arte itxoin egin beharko baita.



– Bazen hura ustezko eredu, eliz sermoigintzatik gizarte hizlaritzara igarotzeko modukoa izan zitekeena. Aipagarriak dira horretan Jordi Llovet katalanaren hitzak:

«Seria molt important, per als doctorands, que hi hagués unes proves, una revàlidaque permetés valorar la capacitat d'eloqüència i la capacitar de verbalització d'un professor. Als països protestans han tingut l'enorme sort que, per tradició secular, els professors universitaris han copiat els models de la prédica. A Amèrica i a Anglaterra els professors són habitualment excel·lents pel que fa a aquesta qüestió de la capacitat de comunicació. Són d'una eloqüència extraordinària. L'exegesi bíblica i el sermó, en aquests països tenen una gran importància. La importància d'aquesta tradició es troba no solament en l'àmbit universitari, sinó també en el polític, en el parlamentari..., cosa que aquí no tenim. Al que vol ser professor universitari, l'hauríem d'ensenyar a *discoursejar*. S'ha de saber engrescar els estudiants»<sup>91</sup>.

## 7. Eskerrak ematea

Honelako lanak burutzean jende asko eskertu beharra izaten da. Has gaitzen, bada, hasiera-hasieratik, liburu honen kronologia luzea baita. Hiru izen datoz gogora berehalakoan: Rufo Atxurra eta Eusebio Erkiaga lekeitiarrak, eurengandik ikasi nituelako Eguzkitzaren izena eta izana. Orobat, Xabier Perea Txabarri abadea, egindako lan neketsugatik, berak hartu baitzuen beregain Eguzkitzaren sermoiak makinaz jotzeko ardua, ustez, gure moduan, horiek merezi zutela euskaldunen eskura egotea eta euskalgintzaren arloan barreiatzea.

Horientzat garrantzitsuak ziren euskara eta sermoigintza, fedearen porasuz. Guretzat, bata zein bestea aintzat hartzekoak baziren ere, jakin-mina zen nagusi, sermoiaren komunikazio ekintzak XX. mendearen hasieran zer nolako gorabeherak zituen euskararen barrutian zehazteko.

Horretarako aukeratu beharra zegoen eta Eguzkitza zen egokiena, Bizkaia aldean behinik behin.

Eskerrak, orobat, euren eroapenagatik Aitziber Urkizari, testu hauek ordenagailuan lehenengoz sartzea berak egin zuelako. Erabakigarri suertatu da argitalpen honetarako Igone Etxebarria, urte luzeetan zehar eta etsitu gabe, aurrera egiteko ahaleginetan laguntza paregabea eskaini duelako.

<sup>91</sup> SARIDÁ, ZENEIDA: "Jordi Llovet, amb vocació d'humanista", *Serra d'Or*, 510 zk., Juny-2002, 443 or.

Ezin ahaztu edota alboratu Ander Manterolaren akuilua eta eragina, berak ere, aspalditik entzuna baitzuen, familiaren barruan, Eguzkitzaren ospea sermoigintzan. Berarenak dira aurkezpena eta hamaikatxo argibide esanguratsu, Eguzkitza eta *Jaungoiko-Zale* elkarteari buruz.

Liburu honetan dauden hainbat irudi eta argigarri Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekatik datoz. Bertakoei eskerrik beroenak eta, orobat, euskararen akademiari. Lekeitioko udal artxiboa eta bertako arduraduna den Maite Garamendi andereari ere, eskerrak, hango agiriak erraz kontsultatzeko era ahalbidetu duelako.

Azkenerrako utzi dugu, hala nahita, Nagore Etxebarriaren bultzada. Bera da euskal sermoigintzan dugun aditurik nabarmenena, eta bera da, nire aldamenean, neke eta larririk gabe, liburu honetan diren hainbat orrialderen aholkulari. Ezin ordainduzkoa dena, beraz, gogoz aitortu beharrekoa da.

Adolfo Arejitari ere eskerrak, esku irmoz lagundu duelako honen argitalpenerako baliabideak lortzen.

Zer esanik ez, liburu hau argitaratzen lagundu duten erakundeei ere eskerrak: BBK Fundazioa, Lemoako Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza... Hona gure ongileak.

*Last but not least*, Eguzkitzaren senideak aintzakotzat hartu behar, urte askotan haren gomuta izan dutenak, garai zailenetan.

Josefina emazteari ere barkamena, berari ostutako ordu franko baita orrialde hauetan.

## 8. Iturriak

### 8.1. Artxiboak

AZKUE BIBLIOTEKA (Euskaltzaindia, Bilbo): Eguzkitzaren gutunak, 1920 (ABA-EUS-1920); Eguzkitzaren gutunak, 1920 (LAC-106-083); Eguzkitzaren gutunak, 1921 (ABA-EUS-1921); Eguzkitzaren gutunak, 1923 (ABA-EUS-1923); Neologismos, data bakoa, (ABA-RMA-072-0002); Eguzkitzaren gutunak, 1921-1939 (ABA-RMA-110-0391). Irudiak: NAS-94944; NAS-94966; NAS-104856; NAS-105281<sup>92</sup>.

LEKEITIOKO UDAL ARTXIBOA (LUA): Lekeitioko hiriaren Latinitate katedra sortzeko eskrituraren kopia [Copia de la Escritura de Fundación de la Cátedra de Latinitad de la villa de Lekeitio], 1862-09-23 (LUA 01458/02, 58. karpeta, 2. izapidea, 1. folioa); J. B. Eguzkitzaren gutuna

<sup>92</sup> Testu eta irudi horiek Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan kontsultagai daude.

Bruno de Larrazabal jaunari, 1923-08-23 (LUA 01458/02, 58. karpeta, 2. izapidea, 14. folioa); Lekeitioko udal errolda, 1924 (LUA 1046/11); San Jose Kofradiaren araudia, 1903 (LUA 2005/8); San Jose Kofradiaren araudia, 1922 (LUA 2005/8); San Jose Kofradiaren araudia, 1925 eta elkarte berberaren gutuneria (1928-1932) (LUA 2006/4); Lekeitio'ko Joseba-Deuna'ren anaidi'ko Araudia/Reglamento de la Hermandad de San José de Lequeitio, 1936 (LUA 2006/4); Juan Bautista Egusquiza Meabe/Juzgado instructor provincial de responsabilidades políticas de Vizcaya, 1940 (LUA 433).

## 8.2. Prentsa idatzia

ARGIA, 1929.

EL PUEBLO VASCO, 1919.

EUZKADI, 1900-1936.

## 8.3. Bibliografia

### 8.3.1. Oratoriari buruzkoa<sup>93</sup>

ARREGI, Antonio M<sup>a</sup>. *Summarium Theologiae Moralis*, Bilbo: Elexpuru Hnos, 1918.

— *Compendio de Teología Moral*, Bilbo: El Mensajero del Corazón de Jesús, 1958. (Itzulpena eta edizioa: M. Zalba.)

ASKOREN ARTEAN. *Retórica e Historia en el siglo XIX. Sagasta: oratoria y opinión pública*, Colección Quintiliano de Retórica y Comunicación bilduma, 9 zk., Logroño: Instituto de Estudios Riojanos (IER), 2008. (Edizioa: J.A. Caballero López.)

CAPMANY, Antonio de. *Centinela contra franceses*, Colección TÁMESIS. SERIE B-TEXTOS, XVII zk., Londres: Tamesis Books Limited, 1988. (Edizio, sarrera, ohar eta eranskinak: F. Etienvre.)

CICERÓ, Marco Tulio. *De l'orador*, vol. I, Escriptors llatins, Bartzelona: Fundació Bernat Metge, 1929. (Itzulpena eta edizioa: S. Galmés.)

— *De l'orador*, vol. II, Escriptors llatins, Bartzelona: Fundació Bernat Metge, 1931. (Itzulpena eta edizioa: S. Galmés.)

— *De l'orador*, vol. III, Escriptors llatins, Bartzelona: Fundació Bernat Metge, 1933. (Itzulpena eta edizioa: S. Galmés.)

CICERÓN, Marco Tulio. *El orador*, Biblioteca temática: Clásicos de Grecia y Roma, Madril: Alianza Editorial, 2001. (Sarrera: E. Sánchez Salor.)

<sup>93</sup> Bibliografia zerrenda hau orokorra da.

CICÉRON, M. Tullius. *L'orateur: du meilleur genre d'orateurs*, Collection des universités de France, Paris: Les Belles Lettres, 2002. (Itzulpena eta edizioa: A. Yon.)

COLL Y VEHÍ, José. *Elementos de literatura*, Bartzelona: Imprenta del Diario de Barcelona, 1868.

— *Modelos de latinidad entresacados de las obras de Virgilio y Horacio*, Bartzelona: Imprenta del Diario de Barcelona, 1868.

— *Modelos de poesía castellana*, Bartzelona: Imprenta del Diario de Barcelona, 1871.

— *Programa de retórica y poética*, Bartzelona: Imprenta Barcelonesa, 1884.

— *Diálogos literarios*, Bartzelona: Librería de Juan y Antonio Bastinos, 1885.

— *Compendio de retórica y poética ó Nociones elementales de literatura*, Bartzelona: Imprenta Barcelonesa, 1892.

CILLERUELO, L. [ET AL]. *Obras completas de San Agustín*, XXXIX (Escritos varios), Madril: Biblioteca de Autores Cristianos, 1988.

DIJK, T. A. van. *Discurso y poder*, Bartzelona: Gedisa Editorial, 2009. (Itzulpena: A. Bixio.)

— *Discurso y contexto. Un enfoque sociocognitivo*, Bartzelona: Editorial Gedisa, 2012. (Itzulpena: A. Lizosain.)

EIXIMENIS, Francesc. *Art de predicació al poble*, Textos pedagògics, 47 zk., Bartzelona: Eumo Editorial, 2009. (Edizioa, itzulpena eta hitzaurrea: X. Renedo.)

GARZIA, Joxerra. *Jendaurrean Hizlari. (Abozko) Komunikazio Gaitasuna Lantzeko Eskuliburua*, Irun: Alberdania, 2008.

GÓNZALEZ LOBO, M.<sup>a</sup> Ángeles. *Curso de publicidad*, Madril: Editorial Eresma & Celeste Ediciones, 1998.

HERNÁNDEZ GUERRERO, José Antonio eta GARCÍA TEJERA, M.<sup>a</sup> del Carmen. *Historia breve de la Retórica*, Teoría de la literatura y literatura comparada, 10 zk., Madril: Síntesis, 1994.

INIXAUSTI, Joseba eta LETE, Jose Maria. «Sermolariak: hitzaren eta herritarren zerbitzuan», *Arantzazu: Ikerlan eta Saiakerak XX. mendeko historiaz/Investigaciones y Ensayos acerca de su historia en el siglo XX*, Donostia: Arantzazu E. F., 2003, 547-561 or.

JURISPERTISSIMUS, Guarnerius. *Liber divinarum sententiarum*, Testi, Studi, Strumenti, 14 zk., Spoleto: Centro italiano di studi sull'alto medioevo, 1999. (Edizioa: G. Mazzanti.)

KLEUTGEN, Josepho. *Ars dicendi*, Turin: Typographia pontificia Petri Marietti, 1895.

LANDA, Karmelo. «Jendaurrean hitz egiteko zer jakin behar den», *Karmel*, 240 zk. (2002-4), 54-60 or.

LÓPEZ EIRE, Antonio. *Retórica clásica y teoría literaria moderna*, Cuadernos de lengua española, Madril: Arco Libros, 1997.

LÓPEZ NAVIA, Santiago A. (arg.) *El arte de hablar bien y convencer. Platón, Aristóteles, Cicerón y Quintiliano*, Madril: Ediciones Planeta Madrid: 2010. (Hitzaurrea: Alfonso Ortega Carmona.)

MARCOTEGUI BARBER, Beatriz. *Instructio morum et fidei. La predicación en el Reino de Navarra en el siglo XV*, Iruñea: Gobierno de Navarra, 2009.

MARTÍN, Balbino (arg.). *Obras de San Agustín*, Biblioteca de autores cristianos, Madril: La Editorial Católica, 1957.

MARTÍNEZ Y SANZ, Manuel. *Lecciones de oratoria sagrada tomadas de las obras de los padres de la Iglesia*, Madril: Librería de D. Miguel Olamendi, 1877.

ORTEGA CARMONA, Alfonso. *Retórica y Homilética. Oratoria en la Iglesia*, Salamanca: Librería Cervantes, 1993.

OZAEIA ELORTZA, Arantza. *Agirre Asteasukoaren «Eracusalduac». Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan*, Iker-24, Bilbo: Euskaltzaindia-Mondragon Unibertsitatea, 2010.

PUJANTE, David. *Manual de retórica*, Castalia Universidad, 1 zk., Madril: Castalia, 2003.

RUBIÓ Y ORS, Joaquín. *Manual de elocuencia sagrada*,artzelona: Imprenta de José Rubió, 1858.

SANCHEZ ARCE Y PEÑUELA, Antonio. *Lecciones de Oratoria Sagrada*, Granada: Imp. y Lib. de la Viuda é Hijos de Zamora, 1872 (2. argitaraldia).

SAN JOSÉ, Mauricio de. *Tratado de elocuencia sagrada*, Bilbo: Imprenta Artística de Müller y Zavaleta, 1902.

SARDÁ, Zeneida. «Jordi Llovet, amb vocació d'humanista», *Serra d'Or*, 510 zk., Juny-2002, 443 or.

SATRUSTEGI, Jose María. «Hitzaren artelana», *FLV*, 94 zk. (2003-XXXV), 371-380.

SCHURR, Viktor. *La predicación cristiana en el siglo XX*, Madril: El perpetuo socorro, 1956. (Itzulpena: A. Hortelano.)

THALAMÁS LABANDIBAR, Juan. *Aspectos de la Vida Profesional Vasca. El campesino, el pescador, el obrero*, Ciencias, Bellas Artes y Letras, 13 zk., Donostia: Euskaltzaleak-Beñat Idaztiak, 1935.

URIBEETXEBARRIA MAIZTEGI, Tomas. «Euskarazko sermoi-ondarea Bizkaiko Foru Aldundiko Artxihoan. (Basque sermon collections in the Biscay Regional Archive)», *RIEV*, 52-2 (2007), 415-446 or.

URKIZA, Julen. «P. Juan Vicente: escritor euskérico y predicador», *15 estudios sobre el Padre Juan Vicente Zengotita*, CD, Burgos: Estudios Monte Carmelo, 17, 1994, 245-291 or.

VIROLI, Maurizio. *De la política a la razón de Estado. La adquisición y transformación del lenguaje político (1250-1600)*, Akal Universitaria. Serie Historia moderna, 289 zk., Madril: Ediciones Akal, 2009. (Itzulpena: S. Chaparro Martínez.)

Yus, Miguel. *Elocuencia Sagrada. Tratado Teórico-Práctico*, Madril: Librería Católica de Gregorio del Amo, 1894 (2. argitaraldia).

### 8.3.2. Juan Bautista Eguzkitzarena

#### a) Argitaratuak

EGUZKITZA MEABE, Juan Bautista. *Oratio In Seminario Conciliari Victorienſi pro inaugurandis academicis studiis Kalendis Octobris anni 1903, habita A D. Joanne Baptista Egusquiza, ejusdem seminarii Grammaticae et Rhetoricae professore*<sup>94</sup>, Vitoria-Gasteiz: Pujol Filiorum (arg.), 1903.

— *Kristoren dotrinako ikaskizunik biarrenak ipini ditu euskeraz abadiak, gure Jauna artu baino len ikasi dagiezan euskeldun ume-txuak*, Bilbo: Verdes Achirica, 1911.

— *Garbitokiko arimaen illa (Sarda y Salvany jaunak erderaz idatzi ebanetik euzkeraldia)*, Jaungoiko-Zaleren euskerazko idaztiak bilduma, Bilbo: Grijelmo, 1915.

— *Euzkeldunei euskeraz Iurreko eleizan*, Bilbo: Grijelmo, 1915.

— «Feria V. in Coena Domini», *Cooperador del clero (Órgano oficial del Montepío Diocesano de Vitoria)*, 64. zk., 1915 (VII urtea), 51-56 or.

— «Ecce Homo», *Jaungoiko-Zale*, 71 zk. (1917), 10-11 or.

— «Andra Marijari», *Jaungoiko-Zale*, 80 zk. (1917), 5 or.

— «¿La voz Euzkadi es neológica?», *Euskal-Esnalea* (VIII), 1918, 1 or.

— «Gabon Gaba. Gure Jaunaren Jayotza», *Jaungoiko-Zale*, 89 zk. (1918), 2-3 or.

— «Josuren Eriotza», *Jaungoiko-Zale*, 120 zk. (1919), 65-66 or.

— «Euskalzain ala Euskaltzain», *Euskera*, I (1920), II zk., 19-28 or.

— «Irugarren txostena», *Euskera*, I (1920), II zk., 28-31 or.

— «Euskalki ala euskalgi?», *Euskera*, I (1920), II zk., 38-44 or.

— «-Kari atzizkia. (Eta -gai, -kai, -kizun...), *Euskera*, I (1920), II zk., 66-73 or.

<sup>94</sup> Gure bilduma honetan ere argitaratua.

— «Durangoko Euskal egunetan Andra Mariaren Jaiotz egunean ospatutako eleiz jaiari Eguzkitza jaunak eginiko itzaldia», *Lenengo Euskal egunetako itzaldiak*, Bilbao: Euzko-Argitaldaria, 1922, 121-128 (\*)<sup>95</sup>.

— «Getsemaniko otoa», *Jaungoiko-Zale*, 166 zk. (1921), 46-47 or.

— «Euskera idatziaren batasuna», *Euskera*, III (1922), I zk., 114-122 or.

— «Zabalak idatzitako adizpiakera batzuetaz zerbait», *Euskera*, III (1922), II zk., 30 or.

— «*Bai* eta *ez* aditz-aurrean», *Euskera*, III (1922), III zk., 55-63 or.

— «*Bai* eta *ez* aditz-aurrean. (Azkue jaunari erantzuna)», *Euskera*, III (1922), IV zk., 38-48 or.

— «Zabala Aba ta euskereazko bere lanak. Eguzkitza euskaltzainak Durangoko Euskal egunetan irakurri eban itzaldia», *Lenengo Euskal egunetako itzaldiak*, Bilbo: Euzko-Argitaldaria, 1922, 13-30 or. (\*)<sup>96</sup>

— «Itz bikoitzak darakuskuezan euskal izpiakeraren arau batzuk», RIEV, 1924, 592-598 or.

— «Oloa ala arrautzea lenago?», *Jaungoiko-Zale*, 260 zk. (1925), 176-177 or. (Aurkibidetik jasotako egiletasuna.)

— «Bizkaiko euskeraren eta batez be, bere adizpiakeraren aldakuntzak. (Kapanagaren liburutik agiri danez)», *Euskera*, VI (1925), II-III zk., 136-147 or.

— «¿Conjugación familiar o dialogada?», *Euskera*, VI (1925), IV zk., 3-15 or.

— «Eguzkitzatar J. B. euskaltzain jaunak Karmelo Etxegarairi Euskaltzaindian sartu zanean irakurritako itzaldia», *Euskera*, VII (1926), I zk., 26-37 or. (\*)<sup>97</sup>

— «Eguzkitza euskaltzain jaunaren itzaldia», *Bigarren Euskal egunetako itzaldiak Donezteben 1923garren irailean ospatuak*, Bermeo: Gaubeka, 1926, 2-14 or. (\*)<sup>98</sup>

— «Mixiolarien agurra!», *Jaungoiko-Zale*, 289 zk. (1926), 245 or. (Aurkibidetik jasotako egiletasuna.)

— «Kaxarrenkaren goraberak eta Auriako jai», RIEV, XVIII zk., 1927, 422-436 or. (\*)<sup>99</sup>

— «Arrasateko Euskal egunean Eguzkitza euskaltzainak egindako itzaldia», *Euskera*, IX (1928), 24-34 or. (\*)<sup>100</sup>

<sup>95</sup> *Ibidem.*

<sup>96</sup> *Ibidem.*

<sup>97</sup> *Ibidem.*

<sup>98</sup> *Ibidem.*

<sup>99</sup> *Ibidem.*

<sup>100</sup> *Ibidem.*

— «Mexikotar katolikoen alde, Loiolan batu ziran luistarrai apaiz jaun Eguzkitza euskaltzainak egindako itzaldia 1928garreneko jorrailaren 22an», Loiolako Argi Izpiak, 13, Donostia: Gure Mutillak, 1928, 1-14 or. (\*)<sup>101</sup>

— «Andoingo Euskal jaietan aurtengo irailaren 22an Eguzkitza euskaltzainak egindako eleiz itzaldia. Gipuzkeraz eta bizkaieraz», *Jaungoiko-Zaleren idaztiak*, Amorebieta-Zornotza: Jaungoiko-Zaleren Irarkola, 1929, 1-16 or. (\*)<sup>102</sup>

— «Lourdesko Osakuntza Arrigarriak (I)», *Jaungoiko-Zale*, 340 zk. (1929), 6-7 or.

— «Lourdesko Osakuntza Arrigarriak (II)», *Jaungoiko-Zale*, 342 zk. (1929), 40-41 or.

— «Lourdesko Osakuntza Arrigarriak (III)», *Jaungoiko-zale*, 347 zk. (1929), 123-125 or.

— «Lourdesko Osakuntza Arrigarriak (IV)», *Jaungoiko-Zale*, 348 zk. (1929), 141-142 or.

— «Lourdesko Osakuntza Arrigarriak (V)», *Jaungoiko-Zale*, 356 zk. (1929), 272-274 or.

— «Lourdesko Osakuntza Arrigarriak (VI)», *Jaungoiko-Zale*, 357 zk. (1929), 292 or.

— «Lourdesko Osakuntza Arrigarriak (VII)», *Jaungoiko-Zale*, 359 zk. (1929), 323-324 or.

— «Lourdesko Osakuntza Arrigarriak (VIII)», *Jaungoiko-Zale*, 360 zk. (1929), 338-339 or.

— «Lourdesko Osakuntza Arrigarriak (IX)», *Jaungoiko-Zale*, 361 zk. (1929), 338-340 or.

— «Lourdesko Osakuntza Arrigarriak (X)», *Jaungoiko-Zale*, 362 zk. (1929), 356-358 or.

— «Aita Santua ta Mexikoko auzia», *Jaungoiko-Zale*, 363 zk. (1929), 383-385 or.

— «Emakume euskotarrak», *Jakintza*, 14 zk. (1930), 85 or.

— «El sufijo *-garr*», *Euskera*, XI (1930), 262-266 or.

— «Mikoletaren euskereak eta gaur Bizkaian darabilguzanak, ze alde ete dauke?», RIEV, XXI zk., 1930, 468-477 or.

— «Los sufijos *-bel*, *-pel*; *-bil*, *-pil*, *-mil*», *Euskera*, XI (1930), 218-220 or.

— «Verbos compuestos, factitivos o causales: ¿cuál es en ellos el verdadero elemento factitivo?», *Euskera*, XI (1930), 213-217 or.

<sup>101</sup> *Ibidem.*

<sup>102</sup> *Ibidem.*



- «Lourdesko Osakuntza Arrigarriak», *Jaungoiko-zale*, 365 zk. (1930), 25-28 or.
- «Observaciones a algunos puntos de la Morfología Vasca del señor Azkue», *Euskera*, XII (1931), 62-67 or.
- «Sukalde basterrian. Usanak», *Jaungoiko-Zale*, 399 zk. (1931), 179-180 or. (Aurkibidetik jasotako egiletasuna.)
- «Las flexiones del pretérito del verbo transitivo», *Euzkerea*, II (1933), 485-489 or., III (1934), 156-163 or. eta 236-243 or.
- «Conjugación remota del transitivo vasco», *Euzkerea*, IV (1935), 562-569 or.
- *Argi Donea*, Zornotza: Jaungoiko-Zale Bazkuna, 1933. (Aita Franzisko Baltzolarenenaren bizkaierazko itzulpena.)
- «De euzkeralogía: gizaiti o gizatzakunde?», *Euskal-Esnalea* (VIII), 1918, 29-32-or.
- «Verbos compuestos, factitivos o causales: ¿cuál es en ellos el verdadero elemento factitivo?», *Euskera*, XV (1934), 246-257 or.
- *Gizarte-Auzia. Ugazaba ta langille arteko gora-berak*, Zornotza: Jaungoiko-Zale Bazkuna, 1935 (*Ekinen* argitaratutako lanen bilduma).
- *Gizarte-auzia*, Klasikoak bilduma, 42. zk., Donostia: Euskal Editoreen Elkarte, 1990. (Sarrera eta edizioa: A. Urrutia.)
- *Andra Mariaren Loretako illa*, Jaungoiko-Zaleren euskerazko idaztijak bilduma (II-2), Zornotza: Jaungoiko-Zale, 1919.
- EGUZKITZA, JUAN BAUTISTA [ET AL.]: *Cristiñau-Icasbidea (Bizkaieraz. Lenengo malla)*, Vitoria-Gasteiz: Montepío Diocesano, [urte bakoia].
- *Cristiñau-Icasbidea (Bizkaieraz. Bigarren malla)*, Vitoria-Gasteiz: Montepío Diocesano, [urte bakoia].
- *Cristiñau-Icasbidea (Bizkaieraz. Irugarren malla)*, Vitoria-Gasteiz: Montepío Diocesano, [urte bakoia].
- *Kristiñau-Ikasbidea (Bizkaieraz. Osoa)*, Zornotza: Jaungoiko-Zale, 1934. (M. Lekuonarenaren bizkaierazko itzulpena.)
- «Andra Mariari bere Jasokundia eta beste bertso batzuk», *Aran. Arratiako aldizkaria*, Zeñuri: Zulaibar Lanbide Ikastegia, 1978-79. (*Post mortem.*)

#### b) Argitaragabeak

EGUZKITZA MEABE, Juan Bautista. *Eleiz berbaldiak* (hiru liburu).

[Labayru Ikastegiko Euskal Bibliotekan dauden eskuizkribuen bilduma, Xabier Perea Txabarri abade ikertzaileak baturik eta transkribiturik. Hona hemen berbaldi guztien izenburu-zerrenda, gure edizio honetan argitaratuak izan direnak izartxoan alboan dutela.]

Lehenengo liburua, *Betiko Egiak*:

1. «Fedea ta buruko argia bata bestearen aurka eztagoz».
2. «Lurreko gauza guztiak Egillea dauke»\*.
3. «Jauna, neure elburua erazagutu egidazu»\*.
4. «Betikotasunera goaz».
5. «Gure arimea il eziña ta betirakoa da».
6. «Jainkoa da gure zoriona».
7. «Arimearen osasuna».
8. «Arimearen betiko salbazioa»\*.
9. «Pekatuaren kalteak».
10. «Pekatu uskeritzat eukiko dogu?»\*.
11. «Lucifer eta Kistoren ikurriñak».
12. «Bikoak».
13. «Damua»\*.
14. «Garbaia».
15. «Damutu ezik, eztago parkatzerik»\*.
16. «Berealaxe damutu zaitez»\*.
17. «Albait lasterren on-biurtu».
18. «Jaunagana biurtzea ez bekizu belutu».
19. «Jangoiko onak parkatu nai dausku».
20. «Jangoikoa parkaziño opaka datorkigu».
21. «Jangoikoa guztientzat da errukitsua».
22. «Guk parkatu ezik, Jangoikoak be ez dausku parkatzen».
23. «Azkeneraño onean iraun dagiana, orixe salbauko da».
24. «Garaitu dagianari betiko koroia emongo jako».
25. «Eriotzea»\*.
26. «Zuzenen eriotzea».
27. «Pekatarien eriotzea».
28. «Aragiaren biztuera. (Lemoan, 1923)»\*.
29. «Eriotz-ostean, Epaikundea»\*.
30. «Eriotzea ta Epaikundea»\*.
31. «Inpernuko oñazeak».
32. «Inpernua ta zerua».
33. «Garbitokia».
34. «Garbitokia».
35. «Garbitokia. (Lekeition, 1930)»\*.
36. «Mariaren bidez, zeruko Aitagana».
37. «Autortza Jangoikoak ipiñi dau».
38. «Autortza ona egiteko bear diran gauzak».
39. «Autortza ona egiteko bear diran gauzak».
40. «Azterketa ta damua».

41. «Autortza ona egiteko bear diran azken iru gauzak».
42. «Konfesiño generala».
43. «Jaunartzea»\*.
44. «Komuniñorako zelan gertau».
45. «Jauna artzeko, albait ondoen garbitu biotza».
46. «Meza barria»\*.
47. «Siñesmena».
48. «Gure Jaunagazko maitasuna».
49. «Apaltasuna».

Bigarren liburua, *Jesukristo eta Andra Maria*:

50. «Josu-Biotza».
51. «Jesusen Biotza».
52. «Jesusen Biotza».
53. «Jesusen Biotza».
54. «Jesusen Biotza»\*.
55. «Jesusen Biotza. (Lekeition)»\*.
56. «Jesu-Biotza. (Lekeition)»\*.
57. «Jesusen Biotza. (Lekeition)»\*.
58. «Lekeitioko erria gangeritik aldendu ebalako, eskar ona. (1922)»\*.
59. «Jesusen Biotza. (Lekeition, Meza Barri baten)»\*.
60. «Jaureskundera. (Lemoako Udaletxean)».
61. «Jaureskundera. (Bilboko Aldundian)»\*.
62. «Kisto Errege»\*.
63. «Gurutze Santua».
64. «Gurutze Santuaren eguna».
65. «Epifania»\*.
66. «Epifania».
67. «Epifania».
68. «Eguen Gurena».
69. «Eguen Gurena: Kisto egiaz dago Eukaristian».
70. «Eguen Gurena: alkar maitatzeko agindua»\*.
71. «Bariku Gurena».
72. «Bariku Gurena»\*.
73. «Nekaldia».
74. «Zazpi itzak»\*.
75. «Zazpi itzak. (Gipuzkeraz)»\*.
76. «Andra Mariaren bakartasuna».
77. «Ama Naigabetua».
78. «Sorkunde Garbia: Mariaren Alabai».

79. «Sorkunde Garbia ta emakumeen duintasuna».
80. «Sorkunde Garbia ta apaltasuna».
81. «Sorkunde Garbia. (Lekeition)»\*.
82. «Sorkunde Garbia: gure pekatuak kendu daiguzan».
83. «Sorkunde Garbia».
84. «Sorkunde Garbia».
85. «Sorkunde Garbia».
86. «Sorkunde Garbia, emakumeen jasotzallea»\*.
87. «Andra Mariaren Jaiotza».
88. «Andra Mariaren Jaiotza».
89. «Andra Mariaren Jaiotza. (Natxitian)»\*.
90. «Andra Mariaren Jaiotza. (Lemoan)»\*.
91. «Andra Mariaren Jaiotza. (Albonigan)»\*.
92. «Andra Mariaren Ikerkundera».
93. «Andra Mariaren Jasokundera».
94. «Andra Mariaren Jasokundera».
95. «Andra Mariaren Jasokundera».
96. «Andra Maria, geure Ama».
97. «Andra Mariaren maitasuna».
98. «Andra Maria: Lekeitioko Mariaren Alabai»\*.
99. «Agurtza».
100. «Karmelgo Ama».
101. «Karmelgo Ama».
102. «Karmelgo Ama. (Larrea, 1932)»\*.

Hirugarren liburua, *Santuak eta Danetarikoak*:

103. «Jose Deuna, geure bitartekoa»\*.
104. «Jose Deuna: lanak gizona goraltzen dau».
105. «Jose Deuna, laguntzaile ta jagolea».
106. «Jose Deuna: Lekeitioko langileei»\*.
107. «Kepa Deuna»\*.
108. «Kepa Deuna».
109. «Kepa Deuna».
110. «San Paulo»\*.
111. «Santiago»\*.
112. «Ander Deuna. (1922)».
113. «Ander Deuna»\*.
114. «Bartolome Deuna»\*.
115. «San Migel»\*.
116. «Antolin Deuna»\*.
117. «Santa Luzia»\*.

118. «Santa Mariña. (Otxandion, 1929)\*».
119. «Eufeme Deuna»\*.
120. «Asisko San Frantzisko. (Lekeition, 1929)\*».
121. «Asisko San Frantzisko. (Lekeition, 1931)\*».
122. «Asisko San Frantzisko. (Arantzazun)\*».
123. «Asisko San Frantzisko».
124. «Asisko San Frantzisko».
125. «San Antonio»\*.
126. «Teresa Deuna»\*.
127. «Berriotxo. (Elorrion)\*».
128. «Kistiñau-Ikasbidearen jai. (Abadiñon, 1925)\*».
129. «Kistiñau-Ikasbidearen jai. (Iurren)\*».
130. «Kistiñau-Ikasbidearen jai. (Markinan)\*».
131. «Kistiñau-Ikasbidearen jai».
132. «Kistiñau-Ikasbidea».
133. «Misiño-Igandea».
134. «Aratuztea»\*.

### 8.3.3. Eguzkitzaren eta bere lanaren gainekoa

ABENDAÑO GURTUBAI, Luis eta MADARIAGA TUBET, Miren. «Juan Bautista Eguzkitza Meabe (Lemoa, 1874 [sic]-1939)», *Arratiako idazle aitzindarien antologia*, Oñati: Testuen idazleena, 2005, 226-242 or. (Zuzendaria: G. Aurrekoetxea, I. Esparza eta A. Larrea.)

AGIRRE, Domingo de. *Sermoiak*, Bilbo: Labayru Ikastegia, Bilbao Bizkaia Kultura, 2000 (Sarrera eta edizioa: S. Garcia Trujillo).

ALDEKOA, Iñaki. «Euskal Herriaren modernizazioa: foruzaletasuna, industrializazioa eta nazionalismoa», *Euskal literaturaren historia*, Donostia: Erein, 2008, 106-165 or. (Itzulpena: J. Muñoz).

ALTUNA, Belen. *Euskaldun fededun. Euskaldun ona izateko modu baten historia*, Irun: Alberdania, 2003.

ASKOREN ARTEAN. «Literatura», *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Cuerpo B*, Donostia: Editorial Auñamendi, Estornes Lasa Hnos., 1973, 215-218 or.

ASKOREN ARTEAN. *Piarres Lafitteri omenaldia*, Iker-2, Bilbo: Euskaltzaindia, 1983.

ASKOREN ARTEAN. *Agustin Kardaberaz. Hirugarren Mendeurrena (1703-2003)*, Euskal Herria Saila, 24 zk., Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 2004 (Edizioa: E. Pérez Gaztelu eta E. Zulaika Ijurko).

AZKUE, Resurrección María de. «Durangoko euskalegunen amairako», *Lenengo Euskal egunetako itzaldiak*, Bilbo: Euzko-Argitaldaria, 1922, 129-135 or.

DUO, Gonzalo. *Las Escuelas de Náutica de Bizkaia, Gipuzkoa y Laburdi: siglos XVI-XX. Análisis histórico documental*, Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2001.

— «Lekeitio en el siglo XIX y José Javier de Uribarren (1791-1861)», *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía* 23, 1995. 137-162 or.

ERKIAGA, Eusebio. «Eguskita Meabe, Juan Bautista (1875-1939). Bere bizitza eta lanak», *Euskera*, XXI (1976), 217-238 or.

— «Boltxebikiak, Eguzkitza ta honen saio *Gizarte-auzia* barriro», *Karmel*, 1991-2, 65-70 or.

ESPARZA ORDEÑANA, Iñaki eta LARREA BEOBIDE, Ángel. «Eguzkitza Meabe, A. Juan Bautista (1875-1939)», *Arratiako euskal idazle aitzindariak (In memoriam)*, Oñati: Testuen idazleena, 2004, 119-125 or.

ETXEBARRIA ANGOITIA, Nikolas. *J. B. Eguzkitzaren Gizarte-auzian agertzen diren hitz elkartu eta erakarriei zenbait oharpen*. (Argitaragabea: Azkue Biblioteka, 25.928 txosten-zenbakia.)

ETXEBARRIA ETXEBARRENA, Nagore. *Frantziskotarren artxiboak. Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)*, Bilbo: Labayru Ikastegia-Arantzazu E.F.-Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 2005.

ETXEBARRIA ETXEBARRENA, Nagore eta APRAIZ OLIDEN, Ainara. *Juan Ignazio Astigarraga (1783-1854) Sermoitegia. XVIII. eta XIX. mendeetako euskal oratoria sakratua*, Bilbo: Labayru Ikastegia-Basauriko Udala-Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 2007.

ETXENAGUSIA, Karmelo. *Euskal idazleen lorategia*, Donostia: [s.n.], 1969, 231-235 or.

EUZKO APAIZ TALDE. «Juicio número siete», *Historia general de la guerra civil en Euskadi*, VIII liburukia, Donostia: Luis Haranburu, 1979, 119-124 or.

HERNÁNDEZ MATA, Amelia. «Piarres Lafitten sare intelektuala», *Euskera (Pierre Lafitteri omenaldia)*, XLVI-separata (2001, 2), 581-637 or.

— *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan*, Iker-20, Bilbo: Euskaltzaindia-Euskal Herriko Unibertsitatea, 2007.

JIMÉNEZ SÁNCHEZ, José Manuel. *Lekeitio: Estudio Histórico-Artístico*, Bilbo: Diputación Foral de Bizkaia, 2003 (Monografías de pueblos de Bizkaia).

— *Lekeitio: Azterketa historiko-artistikoa*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 2002 (Bizkaiko Herrien Monografiak).

KINTANA GOIRIENA, Jurgi. *Intelektuala nazioa eraikitzen. R. M. Azkue-ren pentsaera eta obra*, Iker-22, Bilbo: Euskaltzaindia-Euskal Herriko Unibertsitatea, 2008.

MITXELENA, Koldo. «De 1850 hasta nuestros días», *Historia de la literatura vasca*, Donostia: Erein, 1988, 117-154 or.

ONAINDIA, Aita Santi. *Euskal literatura*, IV liburukia (1910-1935), Donostia: Etor, 1975, 20-29 or.

— «Jon B. Eguzkitza zanaren jaiotz eun-urtea», *Karmel*, 1975-4, 67-70 or.

— «J. B. Eguskitzaren eleiz idazlanak», *Euskera*, XXI (1976), 238-255 or.

ORIXE. *Euskal literaturaren historia laburra*, Donostia: Utriusque Vasconiae, 2002, 78 or. (Edizioa: P. Iztueta.)

OSSA ETXABURU, Rafael. «El «Artagan-Mendi», los buques-escuelas y las banderas de conveniencia», *El Bilbao del novecientos. Riqueza y poder de la Ría. 1900-1923*, Biblioteca Vascongada Villar, 9 zk., Bilbo: Librería Villar, 1969, 173-190 or.

PAGOLA HIERNÁNDEZ, Inés. *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*, Iker-18, Bilbo: Euskaltzaindia-Euskal Herriko Unibertsitatea, 2005.

PRADO ANTÚNEZ, Ana Isabel. *Lekeitio II: Estudio histórico-artístico*, Bilbo: Diputación Foral de Bizkaia, 2004 (Monografías de pueblos de Bizkaia).

— *Lekeitio II: Monografía historiko-artistikoa*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 2004 (Bizkaiko Herrien Monografiak).

SALABERRI MUÑOZ, Patxi. «Errautsetatik berpiztu zen literatura», *Iraupe-na eta lekukotasuna. Euskal Literatura idatzia 1900 arte*, Donostia: Elkar, 2002, 197-223 or.

SAN MARTÍN ORTIZ DE ZÁRATE, Juan. *Escritores euskericos* (Catálogo Bio-bibliográfico de escritores contemporáneos en Vasconce), Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1968.

SARASOLA, Ibon. *Euskal literaturaren historia*, Donostia: Lur, 1970, 44 eta 125 or.

URRUTIA BADIOLA, Andres. «J. B. Eguzkitza eta Lekeitio, berrogeitamar urte geroxeago (1939-1989)», *Karmel*, 1989-4, 5-17 or.

— «Gerra aurreko euskal terminologia juridikoan: J. B. Eguskitzaren *Gizarte-auzia* (1935)», *Karmel*, 1997-4, 50-84 or.

— «Juan Bautista Eguzkitza (1875-1939)», Bidegileak bilduma, 24 karpeta, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2001.

— «Lourdesko Ama Birjina, J. B. Eguskitzaren euskal prosan: *Lourdesko osakuntza arrigarriak*», *Litterae Vasconicae: Euskeraren Iker Atalak*, 12 zk., Bilbo: Labayru Ikastegia, 2011.

VILLASANTE, Luis. «Eguskitzaren gorazarrea Lemoan. Euskaltzainburuaren hitzak», *Euskera*, XXI (1976), 214-217 or.

VILLASANTE, Luis. *Historia de la literatura vasca*, Oñati: Arantzazu, 1979 (2. argitaraldia), 361-362 or.

ZABALA, Enrike. *Euskal literaturaren historia laburra*, Lazkao: [s. n.], 1977, 109 or.

— *Euskal alfabetatzeko literatura/textua*, Lazkao: Pax, 1979, 180-181 or

ZABALA, Fr. Juan Mateo. *Aita Juan Mateo Zabalaren sermoiak (I)*, Euskararen lekukoak, 18 zk., Bilbo: Euskaltzaindia, 1996 (Edizioa: Fr. L. Villasante).

— *Aita Juan Mateo Zabalaren sermoiak (II)*, Euskararen lekukoak, 21 zk., Bilbo: Euskaltzaindia, 2000 (Edizioa: Fr. L. Villasante).


ZARATE, Mikel. *Bizkaiko euskal idazleak. Bizkaierazko literaturearen kondaira antzera: 1580-1968*, Derio: Seminario-Ikastetxea, 1970, 163-168 or.

#### 8.4. Webguneak

LITERATURAREN ZUBITEGIA web-orria: [www.zubitegia.com](http://www.zubitegia.com) // Eguzkitza, Juan Bautista. (Kontsulta data: 2013-01-12.)




## 9. Irudiak



Euskaltzaindiaren bilera, XX. mendeko bigarren hamarkadan

Ezkerretik eskuinera. Eserita: Juan Bautista Eguzkitza, Bonifazio Etxegarai, Resurrección María de Azkue, Georges Lacombe. Zutik: Orixe, Martin Landerretxe, Seber Altube, Julio Urkixo, Raimundo Olabide.

(Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan kontsultagai.)



Juan Bautista Eguzkitza Meabe  
(1875-1939), helduarroan



### Euskaltzaindiaren sorrera ekitaldia (1919)

Ezkerretik eskuinera. Eserita: Julio Urkixo, Resurrección María de Azkue, Luis Eleizalde. Zutik: Raimundo Olabide, Pierre Broussain, Pierre Lhande, Jose Agerre, Txomin Agirre, Juan Bautista Eguzkitza.

(Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan kontsultagai.)

# 1. BERBALDI BANANGOAK

**ORATIO IN SEMINARIO CONCILIARI VICTORIENSI,  
PRO INAUGURANDIS ACADEMICIS STUDIIS,  
KALENDIS OCTOBRIS ANNI 1903,  
HABITA A D. JOANNE BAPTISTA EGUSQUIZA,  
EJUSDEM SEMINARII  
GRAMMATICAE ET RHETORICAE PROFESSORE**

J. H. S.

Excme. et Illme. Domine:

Quaecumque ad dicendum accedentibus, timorem assueverunt incutere, ea mihi hodierno die sese objiciunt universa. Sive enim eorum, qui me prius, egregiam referentes laudem, orationes habuerunt, eruditissimorum hominum dignitatem et sapientiam considero; sive orationum ipsarum, in quibus plurimi sunt illigati et verborum et sententiarum lepores, praestantiam intueor; sive ad hujus loci amplitudinem et ad hanc lectissimorum adolescentum coronam oculorum converto aciem; sive mediocritatem denique meam, inbecillitatemque ingenii animo cogitationeque percurro; haec omnia mihi, Excme. atque Illme. Domine, vosque ceteri humanissimi auditores, et pervalido sunt timori, et velut ingentis ponderis saxum quoddam animum opprimunt meum. Quod si sapientissimos accepimus viros, doctrina et litteris quamlibet instructos atque ingenii viribus potentes, saepe conturbatos esse, cum ad dicendum venissent, quid tandem mihi animi esse oportebat, tot undique timoris stimulis circumvento?

Quare –ingenuè fatear– nusquam fuissem ausus hujus loci auctoritatem contingere, ex quo doctissimi magistri mei, omni laude et praedicatione digni, multa, praeclara et magnifica ornate et concinne dixerunt, si

---

<sup>1</sup> Argitaratua: *Oratio In Seminario Conciliari Victoriensi, pro inaugurandis academicis studiis, Kalendis Octobris anni 1903, habita a D. Joanne Baptista Egusquitza, ejusdem seminarii Grammaticae et Rhetoricae professore*, Vitoria-Gasteiz: Typis Filiorum Pujol, 1903. Latinez idatzita dago.

cujus et monita, exsequi pergratum est mihi, ejus non fuisset jussui parendum. Quod vero hanc dicendi provinciam ultro poscens non acceperam, nec penes me fuerat hoc munus detrectare, sed jussus atque officio impulsus, non potueram quin verba apud vos facerem, eo mihi magna spes erat, honorandissimi Domini, fore ut vestra non carerem omnino venia.

Itaque vestrae potius benignitati quam viribus meis confisus, mecum volvere ingressus sum, quid potissimum afferrem quod, licet hoc ornatissimo consessu prae mearum tenuitate virium dignum esse non posset, vitae tamen meae institutum propius accederet. Quod ubi diu versavi, id demum consilii cepi, ut de praestantia, jucunditate atque utilitate humaniorum litterarum — quantum in me est, si quid modo est — breviter disse- rerem.

Cur autem prae cunctis, quae novitate sua vestras valuissent mulcere aures animosque allicere, hanc sumpserim ad dicendum materiam, vobis omnibus a carceribus ad calcem maxime cognitam, illud caussae fuit, quod prohibebar magna et abdita tentare, quum humeri tenuia etiam atque aperta recusarent ferre. Nihil tamen dubii est, contritis ac communibus rebus pertractandis, novum esse difficultatis genus, quum res, quanto notior est, orationem eo numerosius structam efflagitare videatur, ut tandem audientium animis aridere possit. Cui ergo de rebus maxime notis sit dicendum, ei omnibus et animi et corporis nervis enitendum est in oratione comenda atque exornanda. Quam cum ita explorare me atque absolvere posse desperaverim, ut recto valeat stare talo, illud antequam ulterius progrediar, á vobis impense oro, ut tenuitatem meam vestra bonitate, clementia ac favore ob eam rem sublevetis, ut haec qualiscumque oratiuncula mea, his veluti secundis subvecta ventis, rate licet fragili ac tardo motu, subire tandem possit, quem sibi proposuit portum. Adeste ergo animis, ac mihi, licet immerenti, et ad hoc tantum munus sustinendum minime idoneo, non modo aures sed mentes quoque attentas adhibite quaeso.

Excme. et Illme: Pæsul:

Abs re non fore mihi visum est, ingenui et studiosi adolescentes, quaedan praemittere, quae cum naturam atque officium pulchriorum artium nonnihil recludant, tum viam sternant, qua ad ea, quae dicenda sumpsi pervenire liceat. Nihilo enim plus nostra interest, quid potissimum hac in re tenendum sit, requirere. Si vero ab iis quaeras, benevole auditor, qui de natura atque officio pulchriorum artium multa subtiliter disserunt, quibus terminis ac regionibus honestae artes contineantur, alios aliis verbis ac sententiis tibi occurrere invenies. Multi enim, solertiae technicae plus aequo tribuentes, summam artis in imitatione natu-

rae, eaque sola, contineri arbitrantur. Ex quibus alii, usque eo perfricatae fuere frontis, ut blaterare non sint veriti, nihil artis referre pulchra an foeda, honesta an turpia sint, quae imitanda, suscepit objecta naturae; modo enim ars -inquit ipsi- concinne ac quam diligentissime ea exprimat, quantumvis foeda in se ac turpia sint, eo ipso quod arte imitata fuerunt, pulchra evadunt in artibus. Itaque laudibus extollunt ad coelum eorum artificum artis opera, quibus cordi est, sordes ac sentinas corradere ipsosque artifices, vel ut libentius dixerim, artis osiores aeterna praedicant dignos corona; qui cum artem nihili faciant, nec aliud avant quam ventoso trahi gloriae curru in mundi scenam, et nummum in loculos demittere, haec secum compressis agitant labris: Valeat res sordida, si me...

Palma negata macrum, donata reducit opimum<sup>2</sup>!

Pestifera haec ac pernitiiosa doctrina quantum detrimenti intulerit cum artibus ipsis, tum praecipue rectis atque honestis moribus, multo notius est quam ut pluribus verbis explicari oporteat. Neminem enim latet, quas strages tecerit hodiernis etiam temporibus in humana societate, haec perditorum hominum effrenata licentia. Quae tamen mala non arti ipsi sunt adscribenda, sed eorum improbitati, qui re per se bona atque utili, ad homines in ruinam et exitium inducendos inique abutuntur. Artem namque, quae pulchriorum est, pudet eorum, quae morali sensui taedium afferunt. Illud enim constat, nihil esse pulchrum, quod non idem pudicum sit, nam pulchritudo pudoris est soror ventre ex uno concepta gemella. Quae ergo mala ac foeda sunt, eo tantum consilio in artis opera induci poterunt, ut pulchri splendoribus abdita ac boni veluti pelago absumpta, eorum nitori inserviant. Nisi enim malum a bono, foedum a pulchro in artis superetur operibus, fieri prorsus non poterit, quin ea aegre ferant quotquot sciant artis callere legitimam voluptatem. Quod autem plures sint, quibus tetra ac turpia artis opera vehementius arrident, nihilo minus refert ad eam rem, qua de agitur, judicandam. An vero pro iis stabimus, qui corruptelarum illecebris irretiti ac vitiis dediti, tum mentis ipsorum tum sensibilitatis aciem adeo hebescere passi sunt, ut nulla jam ipsis foeteant? Positum sit igitur in primis, eos, qui in emolendo artis opus, honestorum morum jura despiciatui ducunt, ilicet premi jure ac merito violatae artis crimene turpi.

Alii, quod nolint artes in invidiam trahi, foedis quidem modum statuunt in artis operibus; in una tamen naturae imitatione summam artis positam esse contendunt. Hi quoque artificis solertiae technicae priores

<sup>2</sup> [Flor. lib. II. ep. I, 181.]

partes in artibus tribuunt. Inficiandum non est, imitationem in artibus principium esse ac fontem uberrimam purissimae voluptatis, non in iis modo, quae pulchra cum sint, fieri non potest quin miti dulcedine animos perfundant, verum in illis etiam, quae nihil pulchri suapte natura habere videntur. Saepe enim fit ut, quae visa in rerum natura non nobis placuerunt, eadem arte imitata, mira jucunditate atque incredibili suavitate repleant pectora nostra. At haec, quamquam vera sunt, id tamen minime efficiunt, ut pulchriores artes in una pulchrae naturae imitatione sic circumcludendas censeamus, ut praeter solertiam, quae ad molitionem operis effectioemve refertur, nihil aliud ab artifice efflagitemus. Etsi enim nulla est ars, cujus non semina ac principia naturae debeantur, non ideo pulchriores artes eam habent definitam regionem, cujus finibus septae teneantur; sed terminos imperii sui longius latiusque proferunt. Solertia quidem technica, quae magni facienda est, opus est artificii, sed multo maxime ingenio. Quae enim Horatius de poetis scripsit, ea cuilibet artifice plus minusve adscribi queunt. Sic ille:

Primum ego me illorum dederim quibus esse poetas  
 exerpam numero; neque enim concludere versum  
 dixeris esse satis; neque si quis scribat, uti nos,  
 sermoni propiora, putes hunc esse poetam.  
 Ingenium cui sit, cui mens diviniior atque os  
 magna sonaturum, des nominis hujus honorem<sup>3</sup>.

Ingenii itaque viribus usus est artificii, quibus, decerptis hinc inde partibus rerum pulchris, mente concipere ac componere valeat speciem pulchritudinis eximiam, quam intuens in eaque defixus, ad illius similitudinem artem et manum dirigat. Quod inter alios plurimos, ab Heracleote Zeuxi, qui tum longè ceteris excellere pictoribus existimabatur, apud Crotoniatas factum fuisse a Cicerone accepimus. Nan Crotoniatae cum vellent Junonis templum egregiis picturis locupletare, Zeuxin magno pretio conductum adhibuerunt: «Is et ceteras complures tabulas pinxit —inquit Tullius—, quarum nonnulla pars usque nostram memoriam propter fani religionem remansit; et, ut excellentem muliebris formae pulchritudinem muta in sese imago contineret, Helenae se pingere simulacrum velle dixit; quod Crotoniatae, qui eum muliebri in corpore pingendo plurimum aliis praestare saepe accepissent, libenter audierunt. Putaverunt enim, si, quo in genere plurimum posset, in eo magno opere elaborasset, egregium sibi opus illo in fano relicturum. Neque tum eos illa opinio fefellit. Nan Zeuxis illico quaesivit ab illis, quasnam vir-

<sup>3</sup> [Lib. I., Satyr, IV, 39 et sqq.]

gines formosas haberent... Praebete mihi, quaeso –inquit– ex istis virginibus formosissimas, dum pingo id, quod pollicitus sum vobis, ut mutum in simulacrum ex animali exemplo veritas transferatur. Tum Crotoniatae publico de consilio virginibus in unum locum conduxerunt, et pictori, quas vellet, eligendi potestatem dederunt. Ille autem quinque delegit; quarum nomina multi poetae memoriae prodiderunt, quod ejus essent iudicio probatae, qui verissimum pulchritudinis habere iudicium debuisset. Neque enim putavit omnia, quae quaereret ad venustatem uno se in corpore reperire posse, ideo quod nihil simplici in genere omni ex parte perfectum natura, expolivit. Itaque, tamquam ceteris non sit habitura quod largiatur, si uni cuncta concesserit, aliud alii commodi, aliquo adjuncto incommodo, muneratur<sup>4</sup>. Quam ob rem artifex, huius egregii pictoris disciplinam sequutus, pro viribus eniti debet, ut in omni genere pulchro eximias quasdam, quae neque oculis, neque auribus, neque ullo alio sensu percipi possunt, pulchritudinis formas mente concipiat ac cogitatione componat; quas cum perbelle emolitus fuerit, tum demum ejus nominis dignus evaserit. Honestarum igitur artium praecipuum ac nobilissimum objectum, ne dicam unicum, est pulchritudo idealis, quae cum concinne arte exprimitur, mortalia pectora in altum rapit, ac summae et increatae Pulchritudinis flagranti accendit amore<sup>5</sup>. Sit ergo

<sup>4</sup> [De invent. lib. II, cap. I.]

<sup>5</sup> [Haec ut plenius pateant, et ejus, cui datum est hac in re habere nasum, penitus confirmantur auctoritate, hic afferre juvat, modo per vos liceat, quae de ideali pulchritudine Joseph Coll y Vehi perbelle scripsit. Haec ille:

¡Oh lumbre misteriosa  
al sentido mortal siempre velada!  
Por ti suspira ansiosa  
el alma desterrada  
de su primera celestial morada.

Su cerviz irguió impura  
la serpiente del mal, y huiste al cielo,  
dejando en amargura  
y torcedor desvelo  
en tinieblas envuelto el hondo suelo.

Los celajes y flores,  
la airosa cumbre donde el sol centella,  
los ríos corredores,  
la silenciosa estrella  
impresa aún guardan tu divina huella.

Si risueña alborada  
canta el ave al nacer del nuevo día,  
o en la noche callada  
sucña triste elegía  
dentro el recinto de la selva umbría;

si la fuente murmura  
o suspiran las auras; si violenta  
rasga la nube oscura  
y en las ondas revienta  
del mar, que ronco brama, la tormenta;  
tú brillas; dentro el pecho  
de inmortal voz retumba el eco santo,  
y el corazón deshecho  
en copioso llanto  
respira exento de inmortal quebranto;  
sombras de un bien perdido  
agítanse en la mente; vago crece  
deseo indefinido  
que alegría y entristece;  
la tierra de los ojos desaparece.

¡Oh lumbre soberana  
de la eterna Verdad fiel compañera,  
y del Bien supremo hermana!  
¡Ay! ¡Quién feliz pudiera  
con tus alas volar al alta esfera!



artifici quidlibet audendi ampla potestas, modo illud in mente alte repositum teneat ut: Ficta voluptatis causa sint proxima veris<sup>6</sup>. Sed jam tempus est ad id, quod instituimus, accedere, et ad dicenda pauca de litterarum praestantia venire.

## II

Neque vero opus erit nobis multum laboris insumere, ut earum, quae humaniores vocantur, litterarum tractationem dignitatis et praestantiae plenissimam esse demonstramus. Etenim si eas artes, quae ad animos honesta voluptate perfundendos pertinent, mente et cogitatione lustramus, litterariam facultatem ceteris artibus antistare, si paululum admittamur, actutum intelligemus. Eo namque dignior et praestantior est ars, quo plures et perfectiores pulchritudinis species exprimere valet; constat vero, multas esse pulchritudinis formas, easque eximias, quae nisi rationis interprete oratione, expromi nequeunt. Ut enim eas tantum nominemus artes, in quibus amplior datur artifici facultas in lucem edendi, quas mente concepit pulchritudinis formas, statuariam nempe, picturam ac musicen; quis est quin sciat, plurima esse animi sensa, nitore corusca, ad quae concinne exprimenda harum artium nulla existimatur idonea? Nullas rursus pulchritudinis species valuit unquam artifex ullus cogitatione componere, quas affabre literario in opere efferre nequeverit. Quae cum ita sint, quis auxit earum artium ullam cum litterarum studiis comparare?

---

¡Quién pudiera, ¡ay!, del alma  
saciar la ardiente sed que la devora!  
¡Quién, ¡ay!, tornar la calma,  
oh humbre encantadora,  
al triste corazón que ausente llora!  
¡La patria do te escondes  
en balde buscan mis cansados ojos!  
Te llamo y no respondes...  
¡Sólo yertos abrojos  
doquier contemplo y míseros despojos!  
Ya que no puedan verte  
nunca cesen mis ojos de llorarte,  
ni el alma de creerte,  
ni el corazón de amarte,  
ni el balbuciente labio de ensalzarte.

<sup>6</sup> [A. P. 338.]

Vosotros, que el acento  
del alma poseéis sabio, elocuente,  
decid lo que yo siento,  
decid lo que impotente  
en vano anhela descifrar la mente.  
Cantad, y vuestro canto  
del alto cielo al corazón descienda;  
en amor puro y santo  
el espíritu encienda,  
y vencedor del tiempo el vuelo extienda.]

Neque tamen ambigitur, quin pictorum ac statuariorum opera et voluptatis et praestantiae habeant plurimum; quibus tum ad conservandam clarorum virorum memoriam, tum ad ceteros in eorum imitationem inducendos, magnam inesse vim non immerito creditur. Sed, quae tabulae vel statuae fuere unquam cum litterarum monumentis conferendae? Nam, quas tabulas vel statuas harum artifices conficiunt, eae, et solius corporis effigiem exprimunt, et uno tantum spectantur loco, et ejusmodi sunt, ut eas, si nihil aliud, ipsum sane pernicibus alis celere tempus, confecturum ac consumpturum sit. At litterae non corporis modo formam, sed ipsa animi sensa et cordis adyta exprimunt, et clarorum virum res gestas oculis subjiciunt, et iisdem, quibus ipse terrarum orbis, terminis ac regionibus continentur, et —quod vehementius mirandum est—vetustas ipsa, cum non opera solum manufacta, sed ipsam etiam naturam paulatim excedendo perimat, iis non modo nihil detrahit, sed majorem in dies comparat dignitatem. Ahena signa, quae Homero aut Virgilio, Demostheni vel Tulio posuerat antiquitas, perierunt sane; at quae ipsi sibi litterarum monumenta ingenii et doctrinae magnitudine exstruxerant, adhuc viguerunt, nunc vigent, deinceps vigeant. Haud immerito Pindarus magnam sibi asseruit laudem, quum se statuarium esse negans, qui mutas edoleret statuas, una defixas in basi, arroganter professus est, quos ipse cantibus suis celebraret, eorum famam terra marique sparsum iri.

Quod ad musicen attinet, nemini non est pervium, eam artem statuariarum et picturarum vel ex eo plurimum anteire, quod, majori quam illae praedita licentia, validius conflatur animi motus. Quod licet verum sit, haud tamen dubitandum est, quin procul erraverint, qui ope musices ideas exprimi arbitrati sunt. Cum carmina saepenumero nervis sociantur, hoc nonnullis causae fuit, ob quam in eum errorem prolapsi sunt; nam quid cujusque rei non satis attendentes, modis adscripserunt quod unis numeris erat tribuendum. Caeterum, quibus collibuit, his in rebus perscrutandis, diligentiam affectare, hi professi sunt modos impares esse exprimendis ideis, ex quibus sententiae cohaerent; quas rursus in lucem edere atque aliorum oculis subjicere uni orationi concessum est<sup>7</sup>. Quod ergo litterae reliquis artibus victrices eluserunt palmas, ex eo efficitur, ut non eas immerito artium dominas nuncupemus.

Temporum si velimus memoriam replicare, et antiquitatis monumenta excutere, facile deprehendemus, veteres homines, qui perpetuo omnium aetatum consensu praeter ceteros in scientiis floruerunt, pluri-

<sup>7</sup> [Coll y Vehi. Elem. de Lit., 141; Diál. Liber, 112.]

mi litteras fecisse, eosdemque ipsos, quamvis omnes artes bonae sint—nam si quae malae dicuntur, immerito eis artium nomen tribuitur—has tamen nostras bonarum, ingenuarum, et liberalium artium peculiari ac proprio donasse nomine; ea reor de causa, quod alias et ab hominibus servili submissis jugo, has vero ab ingeniis tantum et liberis excoli consentaneum judicaverint. Quinimo totam hanc litterarum disciplinam veteres illi humanitatem vocarunt, quasi si existimassent non multo minus inter homines qui his ex fontibus hauserint et vulgus aliorum, quam inter ceteros et pecudes interesse. Equidem, si litterarum studia tam levia sunt, quam ea haberi volunt quidam humanitatis contemptores, haud scio quid negotii fuerit quamobrem pluribus in locis, annuis litterarum certaminibus propositis, excitati fuerint studiosorum hominum animi ad nobilem illam ingenii doctrinaeque contentionem; neque satis calleo, quo pacto id fieri potuerit, ut ii, qui eo in certamine fuerint probati, honestissimum reportarint praemium. Sed multo plus est praestantiae in litteris, ut inibi patebit.

Duabus praecipue rebus homines a reliquis animantibus discernimur, ratione et rationis interprete oratione. Admirabilis quidem est humanae mentis praestantia, nihil ut praestantius neque divinius, in iis omnibus, quae sub coelo sunt, inveniri possit. Aliis multis in rebus ante-eunt hominibus pleraque animalia; superat enim hominem pernecitate lepus, vi et robore taurus, utroque leo; nec hominum quisquam aequaverit unquam aut visu lynces, aut talpas auditu, aut odoratu canes. Quibus tamen omnibus cum desit illa, nitide lucens, rationis scintilla, cujus est videre, cernere, intelligere, caussarum et eorum, quae fiunt ex causis, ordinem et conexionem contueri; quaque praeditus homo, apprehendit Deum, apprehendit purissimas illas mentes ab omni corporis societate secretas, apprehendit mundi, et eorum, quae illius ambitu continentur, primordia, ceteraque ejusmodi, quae multis et magnis tenebris obsita, et intimis manent naturae recessibus abdita et retrusa; inde fit, ut plus praestet homo mente carentibus quam animata inanimis, sentientia non sentientibus; ut animantes rationis expertes multo maxime superet, illisque omnibus praesit; ut cunctis dominetur, atque in universis regnet; ut non modo feras cornibus, dentibus et ungulis instructas, verum volucres etiam, pennis in seblime ellatas famulari cogat vel voluptati vel usibus suis.

Neque ea modo rationis scintilla, sed oratione quoque antistat homo ceteris animantibus; nisi quis, quod viderit earum nonnullis datum esse reddere sonos nostris simillimos, illud dixerit esse satis, ut eas loquela praeditas existimemus. Neque vero auditas voces iterare et reddere, quod picae et psittaci faciunt, illud alloquium appellamus; sed quae ani-

mus novit, ea aliis patefacere, id est quod loquutionis nomine significamus. Quum vero postremum hoc ab animantibus mentis expertibus fieri posse, nemo, nisi vecors sit, dicere auxit, liquido constat, orationem in omnibus, quae terram incolunt, animantibus, unius hominis esse propriam.

Illud ipsum adeo praeclarum rationis munus, tanti non esset faciendum, nisi clementissimus Deus, qui illo hominem donavit, hoc rursus orationis munere ipsum cumulaverit. At Deus, opt, max, ceteris quidem animantibus sonos tantummodo quosdam dedit, quibus laetitiam, dolorem aliaque ejus generis utcumque indicarent; hominibus vero, ineffabili quodam ductus amore, distinctam largitus est articulataque vocem, qua ad animi notiones evolendas, atque in medium proferendas uterentur. Singulare Dei munus, atque egregium hominis decus! Cum vero vocis usus ad eos tantum pertineret, qui eodem tempore iisdemque in locis viverent, hoc amplius hominum machinata est industria, litteras, quae, ut voces notionum, sic ipsae vocum essent notae; quibuscum illud effectum est, ut non solum absentes cum absentibus, sed etiam ii, qui multis ante saeculis flourissent, cum omni posteritate colloqui propemodo possent.

Agite vero: litterariis studiis permissum est, has hominis perficere egregias facultates; litterarum namque disciplina docemur, non modo praecepta, quibus expurgare sermonem, sed viam etiam atque rationem, qua animi cogitationes, venustam ipsis largiendo formam, nitentiores ostro possimus reddere atque affectuum quasi sanguine vivificare. Nec dubium est, quin errore ducantur, qui levia tantummodo comendae ac poliendae orationis praecepta litteris contineri arbitrantur. Ars enim bene dicendi, nihil aliud est, quam ipsamet ars recte cogitandi alteque sentiendi<sup>8</sup>. Jam dudum Haratius dixerat: «Scribendi recte sapere est et principium et fons».

Verbaque provisam rem non invita sequentur<sup>9</sup>.

Cujus vero artis est docere, quodnam nobis iter tenendum sit, quod emensi, rectius valeamus cogitare, vehementius sentire, et eorum, quae animus apprime novit, veras effingere imagines nitido orationis speculo, ejus artis, quis auxit praestantiam negare?

Litterarum rursus disciplina docemur, quae cujusque rei propria sit oratio, ita ut, qui earum gnarus sit, is et humilia subtiliter, et magna graviter, et mediocria temperate possit dicere; docemur sententias molliori-

<sup>8</sup> [Coll y Vehi, Diál. Lit.]

<sup>9</sup> [Ep. ad Pison.]

bus numeris explere, orationem translationum nitore illuminare, quasque veritates efferre cupimus, eas veste amictas auro distincta gemmisque adornata, in apricum proferre et sic spectantium oculis subjicere. Quamquam veritatis per se magna vis est, adeo ut, suis ipsa opibus pollens, crebrius occupaverit humanas mentes; ubi tamen his, quorum supra meminimus, copiis ac praesidiis fuit munita ac roborata, tantum nanciscitur virtutis, ut vel rebelles mentes in deditionem subigat, corda licet athena audacter frangat, sui que in observantiam compellat.

Quid vero est aut gloriosius aut obtabilius quam arbitrato tuo flectere, quo velis, audientium vel legentium animos, eosque pulchritudinis splendore obstupefactos, quibusdam velut habenis numerosae orationis regere, et quid probent, quidve rejiciant, pro imperio ac potestate praescribere? Egregia sane et digna res, quam vos, ingenui adolescentes, quibus solidae suo stant robore vires, summa corporis et animi contentione sectemini! Possem hoc loco evagari latius, et ea, quae inconcinno quodam et impolito orationis genere hactenus dixi, clarorum virorum testimoniis confirmare; sed et sacietas refugienda est mihi, ne taedium vobis afferam, et, quorum memini, ea satis spero fore, ut eorum, qui litteras meledictis incessere audent, obstruantur fauces, retundaturque audacia. Sequitur nunc, ut de jucunditate dicamus.

### III

Litteraria studia et voluptatis et oblectamenti habere plurimum, qui hebes omnino et vecors non sit, negabit nemo. Cum enim litterarum illud sit officium, eximias, quas ii, quibus divinius est mens, animo conceperunt pulchritudinis species, perbelle et concinne proferre, nostrisque fideliter oculis subjicere, plane consequitur earum studia honestae voluptatis esse plenissima et decora jucunditate confertissima; quippe quia pulchrarum rerum aspectus, cujuscumque tandem generis sint, nobis vehementer placet, nostros mulcet ac reficit animos, purissima eos voluptate recreat, ac mira et incredibili suavitate perfundit. Eximii illius poetae, qui digito praetereuntium romanae monstrabatur fidicen lyrae, mira et egregia opera, nullus unquam lustraverit, qui eorum non suavitatem perceperit. Quis item odas fratris Ludovici a Leone, quarum singulae candidae sunt et talos a vertice pulchrae ad imos, vel summis gustavit labris, quin ipsius omnia allici studia, mentem teneri animumque mulceri senserit? Nullius quippe laboris est, ex illis perpetuo virentibus campis flores colligere suavissimos, quos qui odorentur, fieri non poterit quin miti dulcedine repleantur. Quis est omnium, qui Aeneidos Vir-

gilianaē –poematis non tantum inter omnia latina sine ulla dubitatione praestantissimi, sed etiam Graeciae gloriam in magnum discrimen vocantis<sup>10</sup>– vel unum legerit librum, et tamen ejus poetae, quem nascentem placido lumine Andes vidit, diviniorem non fuerit admiratus mentem, nec omnibus optaverit votis se ejus viri, qui tot bella tam belle scripsit quam simillimum esse? Oppido quam ineptus sit oportet, qui Ciceronis –hoc est, ejus oratoris, qui inter romanos scriptores eloquentiae laude ita numeratur primus, ut ab eo nemo numeretur secundus<sup>11</sup>– orationes legens, earum non sit vim expertus, qua hominum animos pertractant, nec pulchritudinem, qua eorum voluntates excipiunt. Sed et infinitum erat, sive poetarum sive oratorum opera oblectamenti et dulcedinis onusta, singillatim persequi velle, et supervacaneum est, de voluptate, quae ex litteris percipitur, pluribus dicere, cum id suo quisque de sensu judicare facile possit. Itaque quaedam subjungam, quibus probe cognitis decerni possit, quid intersit, ad jucunditatem quod attinet, poesim inter et eloquentiam.

Poeticam veteres non tam artem esse, quam incitationem quamdam animi, furoremque divinitus immissum, autumarunt. Saepe enim audivi –inquit Tullius– poetam bonum neminem –id quod a Democrito et Platone in scriptis relictum esse dicunt– sine inflammatione animorum existere posse, et sine quodam afflatu quasi furoris<sup>12</sup>. Ab iis tamen, qui ceterarum rerum studia, et doctrina et praeceptis et arte constare; poetam natura ipsa valere, et mentis viribus excitari, et quasi divino quodam spiritu inflari<sup>13</sup> existimarunt, aliquantum dissensit Artis Poeticae egregius auctor, cujus sunt illa:

Natura fieret laudabile carmen, an arte  
quaesitum est. Ego nec studium sine divite vena  
nec rude quid prosit video ingenium, alterius sic  
altera poscit opem res, et conjurat amice<sup>14</sup>.

Sensit itaque Horatius, in poeta non aliter ac in oratore, praeter naturae atque ingenii praestantiam, artem requiri ac praeceptorum observationem. Procul a veritate forte non erit, qui, has prima saltem specie dispares sententias consociari posse arbitratus, utramque facultatem statuat

<sup>10</sup> [M. A. Muret.]

<sup>11</sup> [M. A. Muret.]

<sup>12</sup> [De orat. lib. II, cap. 44.]

<sup>13</sup> [Orat. pro Archia Poeta.]

<sup>14</sup> [A. P. V. 408 et sqq.]

et natura et arte constare; plus tamen in poeta ingenium, plus in oratore industriam valere.

Quidquid sit, illud dubitari nequit, artificiosam eloquentiam, cujus officium est, dicere apposite ad persuasionem; finis, persuadere dictione, magnopere a poesi differre, in qua ad voluptatem et oblectationem omnia dirigi, eamque spectare unam videntur: delectant enim poetae, quod et praeclaras sententias fundunt, et eas grandibus verbis et minime vulgari dicendi genere efferunt; delectant numero ipso et harmonico sono, qui cum audientium aures mulcet et tenet, tum eorum subrepsit animis; delectant insuper, quia in rebus etiam, quae nihil nostra referunt, concitant animos nostros omni genere affectuum; quippe eorum legendo opera vel audiendo, nunc premimur metu, nunc in spem erigimur, nunc laetitia afficimur et gaudio exultamus, nunc angimur et ad humum moerore gravi deducimur. Quam vim poetarum his expressit Horatius versiculis:

Ac ne forte putes, me, quae facere ipse recusem,  
 quum recte tractent alii, laudare maligne;  
 ille per extentum funem mihi posse videtur  
 ire poeta, meum qui pectus inaniter angit,  
 irritat, mulcet, falsis terroribus implet,  
 ut magus, et modo me Thebis, modo ponit Athenis<sup>15</sup>.

Cum igitur juvandis animis fuerit natum inventumque poema<sup>16</sup>, in iis quoque rebus, quibus prodesse volunt poetae aut idonea dicere vitae, nihil aliud aucupari videbuntur praeter animorum oblectationem; quam cum poetices proprium esse finem statuamus, ei cetera omnia subjicienda esse arbitramur.

At eloquentiae alius est finis, qui extra artis terminos libere vagatur, quem intuens in eoque defixus, orator discernere debet, quid admittendum, quidve rejiciendum ipsi sit; neque enim quae pulchra sunt, quod et jucunda et dulcia sint, oratori propterea amplectenda sunt; sed quae aptiora et propiora sunt fini, ea gnaviter captanda et enixe persequenda; quippe eloquentia est utilium cupida rerum, earumque apprime tenax. Quam ob rem, qui uni animorum delectationi in dicendo studeat, non modo oratoris non mereretur laudem, sed sophistarum similis evaderet, qui ab oratore hoc differunt, Tullio iudice, quod, «quum sit ipsis propositum, non perturbare animos, sed placare potius, nec tam

<sup>15</sup> [Lib. II. ep. I, 208 et sqq.]

<sup>16</sup> [Art Poet.]

persuadere quam delectare; et apertius id faciunt quam oratores et crebrius, concinnas magis sententias exquirunt, quam probabiles, a re saepe discedunt, intexunt fabulas, verba altius transferunt, eaque ita disponunt, ut pictores varietatem colorum, paria paribus referunt, adversa contrariis, saepissimeque similiter extrema definiunt<sup>17</sup>.

Hoc in confesso est, tria esse quae orator dicendo efficere debet, ut fidem faciat iis qui audiunt, ut eos suavitate perfundat et ut eorum animos aptis et accomodatis ad obtinendum id, quod vult, affectibus perterret. Ex his tribus; quamquam illud primum plurimum habet in oratione momenti, adeo ut romanus orator ponere non dubitaverit, sine philosophia non posse effici, quem quaerebat, eloquentem<sup>18</sup>, et eloquentiae sicut reliquarum rerum, sapientiam fundamentum esse<sup>19</sup>; hoc tamen postremum oratoris est maxime proprium, ita ut eo, quidquid habeat in dicendo virium conferendum ipsi sit. Erit igitur eloquens —ait Cicero— qui ita dicet ut probet, ut delectet, ut flectat. Probare necessitatis est, delectare suavitatis, flectere victoriae. Nam id unum ex omnibus ad obtinendas causas plurimum valet. Sed quot officia oratoris, tot sunt genera dicendi; subtile in probando, modicum in delectando, vehemens in flectendo; in quo uno vis omnis oratoris est<sup>20</sup>. Quibus apprime convenientia sunt, quae Quintilianus scripsit: «Huc (ad affectus) —inquit— incumbat orator, hoc opus ejus, hic labor est, sine quo cetera nuda, jejuna, infirma, ingrata sunt; adeo velut spiritus operis hujus, et animus est in affectibus»<sup>21</sup>.

Et certe, sive verum est quod M. Tullius<sup>22</sup> docuit, «officium hujus facultatis esse, dicere apposite ad persuasionem; finem, persuadere dictione»; sive eos sequi malimus, qui ex Aristotele tradunt, oratorem, etiamsi non persuadeat, dum tamen nihil omittat eorum, quae artificiose cogitari possunt ad persuadendum, finem arti suae propositum consecutum esse, cum in omnibus artibus idem prorsus sit officium artificis et finis artis; artificiosamque propterea eloquentiam definiendam esse, non artem persuadendi, sed facultatem videndi et excogitandi omnia, quae in quaque re apta sunt ad persuadendum; hoc semper indubium erit, quod M. Fabius scriptum reliquit, oratorem, quamvis ejus ars in

<sup>17</sup> [Orat. cap. XIX.]

<sup>18</sup> [Ibid. cap. IV.]

<sup>19</sup> [Ibid. cap. 21.]

<sup>20</sup> [Orat. cap. 21.]

<sup>21</sup> [De institut. orat. lib. 6, cap. II.]

<sup>22</sup> [De invent. lib. I, cap. V.]



eventu posita non sit, ad victoriam tendere<sup>23</sup>. Quo semel posito, illud quoque consequitur, quae in quaque re ab obtinendam victoriam nihil praesidii oratori afferunt, ea, quamlibet pulchra et jucunda et dulcia sint, contemnenda ipsi et rejicienda esse; quae vero pariendae victoriae aptiora oratori et utiliora suppeditent arma, ea, quamquam forte nec pulchra nec jucunda sint, ab eo diligenter scrutanda, impigre sumenda magnique facienda, nisi pro vera et solida, et succi et sanguinis plena eloquentia, ariditatem quamdam et sterilitatem orationis, et jejunam et fame ac macie enectam amplecti velit.

Denique, ut verum tempus poesis erit; quo gemmae pratorum nemorumque viriditas, et rosis ac violis contractae viae, quas viridantes omni ex parte opacant patularum arborum comae, et lucentes ac fugaces, atque argenti similes lymphae, quae nunc loborant obliquo trepidare rivo, nunc impinguntur praepropere ad pellucentes saxulos, nunc crepitantibus lapillis labuntur cum murmure, ineffabiliter pascunt oculos; vigilum avium, qui auroram evocant, mulcet aures undique cantus; ab arboribus vernantibus et in novum sese florem induentibus odores suavissimi afflantur: ad voluptatem et delectationem omnia dirigi, eamque aucupari unam videntur. At ubi segetes et arborum fetus aestivo torrefactos calore, mitigavit auctumnus, et ad maturitatem perduxit, longe alius agrorum aspectus, alius arborum est. Flaventia jam sata, pomis obsita rura, lividae vites, onustae sunt suis opibus arbores; demetuntur segetes, teruntur area; fluunt praela, complentur horrea; ad utilitatem, non amplius ad voluptatem, prope referuntur omnia. Talis facies eloquentiae est. Haud igitur immerito La-Harpe cum, missa poesi, ad pertractandam eloquentiam venisset, arbitrari se dixit, ex florentis aetatis oblectationibus, ad ingravescentis seria negotia transire.

Quae tamen, ne errore aliquo implicemur, non ita intelligenda sunt, ut poesim utilium, eloquentiam dulcium contemptricem rerum existimemus. Aliud enim est, utilia contemnere, aliud proficuis etiam in rebus jucunditatem aucupari; aliud jucunda despiciatui ducere, aliud longe dissimile, dulcia utilibus submittere –quod eloquentia facit– et ea ad nanciscenda fructuosa adhibere. Non enim quod vere novo ad voluptatem omnia, auctumno ad utilitatem universa referri videntur, propterea aut verum tempus utilitate caret, aut autumnitas prorsus jucunditatis est vacua, nam etiam segetis falcem vocantis maturitas, et arborum suarum opum pondere incurvescentium nos aspectus oblectat. Sic etiam, licet jucunda poesim, fructuosa eloquentiam consecrari decet, neque illa uti-

<sup>23</sup> [De institut orat. lib. II, cap. 17.]

litatis est expers, neque haec rursus voluptatis orba. Uterque, et poeta et orator, ut omne puctum ferre mereatur, utile debet dulci miscere; ille, ut monendo delectet; hic, ut delectando moneat ac flectat. Ergo tantum abest ut poesis et eloquentia inter se rixentur, quin potius utraque alterius poscat opem res ac praesidium, ut perfectionis valeat attingere fastigium. Omnes artes –inquit Tullius<sup>24</sup>– quae ad humanitatem pertinent, habent quoddam commune vinculum, et quasi cognatione quadam inter se continentur.

Quin poesis ad eloquentiam plurimum conferat, ne dubitari quidem licet. Bene enim dicere, quod oratoris est munus, nihil est aliud quam scienter et perite et ornate et numerose dicere. Nam et in soluta oratione, dum versum effugias –id quidem orationis est vitium– modum tamen et numerum quemdam servari oportet, cum jucunditatis caussa, tum quia sine compositione verborum enervatur oratio, ut in ea nec impetus ullus, nec vis esse possit. Demosthenis non tam vibrarent fulmina illa –inquit Tullius– nisi numeris contorta ferrentur<sup>25</sup>. Numerose autem dicere, quo nullum est majus elocutionis ornamentum, poterit nemo, qui aures non habeat in numeris poeticis diu multumque exercitatas. Ne vero in errorem delabamur, id –ut Ciceroni videtur– in dicendo numerosum putatur, «non quod totum constat e numeris; sed quod ad numeros proxime accedit; quo etiam difficilium est in oratione uti, quam versibus: quod illis certa quaedam et definita lex est, quam sequi sit necesse; in dicendo autem nihil est propositum, nisi ut ne immoderata, aut angusta; aut dissoluta aut fluens sit oratio. Multum interest, utrum numerosa, id est, similis numerorum, an plane e numeris constet. Alterum si fit, intolerabile vitium est; alterum nisi fit, dissipata et inculta et fluens est oratio<sup>26</sup>.

Oratori item curandum est, non modo ut veritas pateat, verum etiam ut delectet et mulceat. Hanc vero mulcedinem, quae audientium animos tenet ac trahit, quaeque, sicuti sanguis in corporibus, sic ipsa in perpetuis orationibus fusa esse debet<sup>27</sup>, e quibus, nisi ex poeticis fontibus, haurire poterit orator, et quomodo, nisi poetarum libando opera? Ueberior atque robustior, quam philosophorum sermo, debet esse oratoris locutio, quae proprio orationis signata nomine est. Loquuntur enim philosophi de rebus placatis et minime turbulentis, docendi causa, non capiendi; quam ob rem eorum oratio «nihil habet iratum, nihil invidum,

<sup>24</sup> [Pro Archia Poeta. cap. I.]

<sup>25</sup> [Orat., cap. 70.]

<sup>26</sup> [Orat., cap. 58 et 65.]

<sup>27</sup> [Cic. de Orat. cap. II.]

nihil atrox, nihil miserabile, nihil astutum»; at oratoris, cujus grandis erit et ornata vox, et nervos et aculeos habere debet oratio. Zeno quidem ille, a quo disciplina Stoicorum est... quum compresserat digitos pugnumque fecerat, dialecticam ajebat ejusmodi esse; quum autem diduxerat et manum dilataverat, palmae illius similem eloquentiam esse dicebat<sup>28</sup>. Omnis porro granditas orationis, omnis peregrina, a communi remota et vulgari abhorrens conformatio verborum, omnes figurae praestantiores, quae et vim adjiciunt rebus et gratiam praestant, non ab aliis scriptoribus quam a poetis repetuntur. Quare non immerito dictum est neminem eloquentis dignum evasisse nomine, quin poetarum libros diligenter et accurate pervoluntarit.

Nec rursus ambigendum est, quin in poesi, dramatica praesertim et epica, multa reperiantur loca, quae eloquentiam redolent ac sapiunt, quaeque proprio ejus sunt obsignata, sigillo. Ex quibus unum modo afferam, ex libro X Aeneidos Virgilii depromptum, quo id, quod dixi, indubitanter constet. Cum enim Aeneae, genitrix apud eum, quem gentes, antequam demissa coelitus sapientia impiis falsorum numinum cultibus homines liberasset, res hominumque Deumque aeternis regere imperiis credidere, moestis et gravibus conquesta esset verbis, quod Troes in magnum discrimen fuissent adducti saevae memorem Junonis ob iram, Rutulorumque vim:

O pater, o hominum divumque aeterna potestas!  
 (nam aliud quid sit, quod jam implorare queamus)  
 cernis ut insultent Rutuli, Turmusque feratur  
 por medios insignis equis, tumidusque secundo  
 Marte ruat? Non clausa tegunt jam moenia Teucros,  
 quin intra portas, atque ipsis praelia miscent  
 aggeribus murorum; et inundant sanguine fossae.  
 Aeneas ignarus abest. Nunquamne levare  
 obsidione sines? Muris iterum imminet hostis  
 nascentis Troiae, nec non exercitus alter,  
 atque iterum in Teucros Aetolis surgit ab Arpis  
 Tydides. Equidem credo, mea vulnera restant;  
 et tua progenies mortalia demoror arma!  
 Si sine pace tua, atque invito numine, Troes.  
 Italiam petiere, luant peccata, neque illos  
 juveris auxilio. Sin tot responsa secuti  
 quae superi Manesque dabant, cur nunc tua quisquam  
 vertere jussa potest, aut cur nova condere fata?

<sup>28</sup> [Orat. cap. XXXII.]

Nihil super imperio moveor: sperabimus ista,  
dum fortuna fuit: vincant, quos vincere mavis,  
si nulla est regio, Teucris quam det tua conjux  
dura.

Tum regia Juno  
acta furore gravi: Quid (inquit) me alta silentia cogis  
rumpere, et obductum verbis vulgare dolorem?  
Aeneam hominum quisquam divumque subegit  
bella sequi, aut hostem regi se inferre Latino?  
Italiam fatis petiit auctoribus, esto  
Cassandrae impulsus furiis; num linqere castra  
hortati sumus, aut vitam committere ventis?  
num puero summam belli, num credere muros?  
Tyrhenamve fidem aut gentes agitare quietas  
Quis deus in fraudem, quae dura potentia nostra  
egit? Ubi hic Juno, demissave nubibus Iris?  
Idignum est, Italos Troiam circumdare flammis  
nascentem, et patria Turmum consistere terra,  
cui Pilumnus avus, cui diva Venilia mater:  
quid, face Troianos atra vim ferre Latinis?  
arva aliena jugo premere, atque avertere praedas?  
quid, soceros legere, et gremiis abducere pactas?  
pacem orare manu, praefigere puppibus arma?  
Tu potes Aeneam manibus subducere Graium,  
proque viro nebulam, et ventos obtendere inanes  
et potes in totidem classem convertere Nymphas:  
nos aliquid Rutulos contra juvisse, nefandum est<sup>29</sup>?

Ergo poesis et eloquentia non eo inter se differunt, quod illa utilitate, haec suavitate careat, sed quod, utraque cum sit et proficuum et dulcium particeps rerum, utilia ad jucunditatem prima, jucunda ad utilitatem altera refert. Sed de his jam satis verborum est. Superest ut breviter expendamus quantum utilitatis percipiatur ex litteris.

#### IV

Ex litterarum cognitione non mediocrem ab iis, quid ad haec studia animum appulerunt; utilitatem capi, perfacile est ad intelligendum.

<sup>29</sup> [Conf. Aencid. lib. II, 347 et sqq., 387 et sqq., 638 et sqq.; lib. VIII, 126, 470 et sqq.; lib. IX, 127 et sqq.; lib. X, 278 et sqq., etc. Confetiam Arauc nostri A. Ercilla, qui in orationibus nemini est secundus, cant. II, XXIX, XXX, XXXIV, etc. In dramat vero ita multis in locis, ut puditum sit ea percensere.]

Quam ob rem necesse non est, apud vos imprimis, auditores ornatissimi, qui ejus rei minime omnium ignari estis, pluribus dicere. Itaque summa sequar fastigia rerum, potiusque reprehendi me patiar, quod multa, quae fusius explicare licuisset, compresserim ac coartaverim, quam quod orationem hanc longius justo progredi commiserim. Litterarum cognitio —ut hinc ordiar, et id, quod agressus sum, absolvam— vel ex eo utilis habenda est, quod earum studia adolescentiam agunt atque instituunt<sup>30</sup>. Litterae, ubi primum adolescentuli ratione coeperint uti, titillatione quadam purissimae voluptatis eos alliciunt; qui, dum his illecebris tenentur, et labori libentius incumbunt, et ex perenni litterarum fonte aquam ingenii fertilitatis effectricem hauriunt, qua eorum irrigatae mentes, uberes postmodum atque opimos efferant fructus. Neque hoc modo, sed illud amplius, puerorum dum ingenia excolunt, et eorum mentibus pulcherrimarum rerum semina committunt, dicendi insuper facultatem perficiunt, in qualibet re exprimenda venustatem et facilitatem tribuunt, aurium denique sensum in oratione numerose struenda conferunt. Quae omnia, si recta intelligentia et definita animi moderatione gubernentur, plurimum in se fructus habere, nemo, quin plane desipiat, inficias ibit. Neque tamen hi praecipui sunt eorum fructuum, qui ex litteris percipiuntur: sunt alii alius generis nec minores sane nec contemptibiliores.

Nam litterae nedum bene dicendi, sed etiam recte vivendi commonstrant vias; inditos nobis a natura honestatis igniculos suscitant; luxuriantes rationisque imperium detrectantes cupiditates comprimunt ac coercent; quantus sit in virtute splendor, quantaque in vitiis deformitas edocent; eorum denique animos, qui his studiis operam dant, praeceptis saluberrimis explent: quae qui semel penitus imbiberunt, ii et vitii turpitudinem omni studio et summa contentione refugient, et virtutem ceteris omnibus rebus perpetuo anteponendam ducent. Quod haud quidem obscure veteres poetae significarunt, cum illud memoriae prodiderunt, argonautas juxta floridam quaedam insulam navigantes, quam Acheloides incolebant, magnumque in vitae discrimen adductos ob mollem delicatumque Sirenium cantum, in uno Orpheo, optimo et sapientissimo vate, perfugium habuisse. Nam, ubi Threcius sacerdos, assidens in puppi, nunc mollibus digitis, nunc pectine eburno fides coepit pulsare, simulque eam vocem explicare, qua rupes nemoraque traxerat, amnium decursum suspenderat et tigres leniverat rabidosque leones, tanta aures animosque navitarum voluptate et suavitate complevit, ut deinceps Acheloidum cantus nihili fecerint; quos aspernati argonautae, et ab sco-

<sup>30</sup> [Cic. Pro Arch. Poet.]

pulis liberi, quod jam dudum susceperant iter, potuerunt prosequi. Haec narratio exerit, veteres sibi visos esse magnam inesse vim in litteris ad juventutem a vitiis avocandam. Illa videlicet florida insula adolescentia est; Orphei lyra, litterarum regina, poesis. Nam, quemadmodum illa Acheloidum sedes, sic adolescentia, floribus quidem ditissima est; at scopulis circumdata et periculis plena; quam qui agunt, Sirenum, id est, voluptatum mollissimas voces saepe audiunt, quibus si sese decipi patiantur, fieri non poterit quin ad scopulos allidantur. At vero, sicut optimi vatis lyra argonautas, sic litterae, id est, sapientissimorum virum praecepta, quae litteris continentur, adolescentulos docent Sirenum cantibus aures occludere, ne voluptatis blanditiis decepti et a recto itinere abducti, in scopulos deferantur. Adolescentes deinde litterarum studiosi, quemadmodum argonautae ex Orphei lyra, sic et ipsi ex litteris purissimam percipiunt voluptatem; quae, cum major sinceriorque sit sensuum delectatione, ut major lux minorem, sic et ipsa eam, quae ex sensibus percipitur, extinguit voluptatem. Ergo, ut optimi illius vatis lyra argonautas, sic litterae adolescentulos ab scopulis, quae tumido vitae mari frequentiora jacent, arcent et liberant, ut tandem institutum illud iter emensi, vellus aureum, id est, virtutem consequantur cum immortalis gloria conjunctam. Quae omnia lyricorum authentata vatum, Horatius, qui tenui deduxit poemata filo, his pulcherrimis complexus est versiculis:

Hic error (poesis) tamen et levis haec insania quantas  
virtutes habeat, sic collige. Vatis avarus  
non temere est animus; versus amat, hoc studet unum;  
detrimenta, fugas servorum, incendia ridet,  
non fraudem socio, puerove incogitat ullam  
pupillo, vivit siliquis et pane secundo,  
militiae quamquam piger et malus, utilis urbi,  
si das hoc, parvis quoque rebus magna juvari.  
Os tenerum pueri balbumque poeta figurat,  
torquet ab obscenis jam nunc sermonibus aurem,  
mox etiam pectus praeceptis format amicis,  
asperitatis et invidiae corrector et irae;  
recte facta refert, orientia tempora notis  
instruit exemplis, inopem solatur et aegrum.

Ut autem in semente spes messis posita est, sic reliquae totius vitae expectatio ab optima adolescentum institutione pendet; qui si ea, quae litteris continentur saluberrima virtutis praecepta, penitus imbiberint, ejus pulchritudine incensi, omnes vires suas ad eam non agnoscendam modo, sed exercendam, excolendam propagandamque conferent; ex quo quot quantaque hominum coetui eveniant bona, suspicari quidem

facilius est quam verbis enucleare. Nam, quemadmodum privata, sic et publica felicitas, ad quam omnia humana referenda sunt, in virtute excolenda atque exercenda sita est; ad quam cum litterae plurimum conferant, eas non singulis modo hominibus, verum ipsis etiam civitatibus utiles esse, extra omnem dubitationis aleam positum est. Domi quidem ornamento sunt civitatibus litterae; militiae praesidio. Alterum per se cui-libet est pervium; alterum vel ex eo pervincitur, quod Lacedaemonii, tabo et cruore obliti, strage et cladibus oppressi, labantes jam ac deficientes animo, ubi eos Tyrtoeus in martia bella versibus exacuit, honestissimam et pulcherrimam de Messeniis victoriam reportarunt.

Magnam omnino vim magnumque momentum positum esse in litteris ad inducendos homines, ut, Dei et naturae jussa secuti, virtutem exerceant, ut tandem ii sint, qui esse debent, ei sane minime omnium ambigendum erit, qui animum humanum ea ratione scire studuerit, qua vel depravari vel corrumpi vitiiis, vel virtutibus perfici ac sublimari potest. Immortalis enim et coelestis animus noster, quandiu mortalis et concreti et terristris corporis obstringitur ac tenetur vinculis, plura judicat aut amore aut odio, aut spe aut timore quam ratione et veritate; quare modo bona malis, interdum etiam mala bonis anteponit; meliora videt quidem ac probat, deteriora tamen sequitur. Nullus sit hominum, in que non insit naturalis et appetitio eorum quae jucunda, et fuga eorum quae molesta ipsi videantur; nullus, quin viderit quam Apostolus in membris suis viderat legem, repugnantem legi mentis suae<sup>31</sup>; nullus, quin senserit laetitiam, molestiam, spem, metum aliasque ejus generis animi affectiones, saepenumero rationi adversari; nullus, quin intellexerit alio se a ratione, alio a cupiditatibus trahi. At vero dementiae est has hominis evertere velle cupiditates, quae ut pessimae sunt et iniquitatis plenae, cum rationis detrectantes imperium, hominem in vitia efferunt; sic optimae et virtutum causae uberrimae, cum rationem audiunt eique obsequuntur. Ergo hoc unum restat ad homines a vitiiis avocandos virtutisque in officio continendos, cupiditatibus illis, quae saepe cum ratione pugnant, frenos injicere; easque ut rationi famulentur, cogere.

Age vero, litteras plurimum valere ad caecas et animi dominatrices coercendas ac regendas cupiditates, nihil est quod dubitemus. Flexanima illa, ut poetae vocant, et omnium rerum regina, eloquentia, potis est langescentes animos incitare, effrenatos moderare, moerentes consolari, afflictos levare, superbos frangere, innocentes erigere, a vitiiis detertere, ad virtutem allicere, eosque ita permovere, ut aut sperent aut metuant,

<sup>31</sup> [Ad Rom. cap. 7.]

aut oderint aut ament, quae ipsis ut expetenda aut refugienda aut contemnenda aut amanda proponuntur. Hac facultate —ait Cicero— et fraus hominum ad perniciem et integritas ad salutem vocatur: Quis cohortari ad virtutem ardentius, quia a vitiis acrius revocare, quia vituperare improbos asperius, quia laudare bonos ornatus, quis cupiditatem vehementius frangere accusando potest? Quis moerorem levare mitius consolando<sup>32</sup>? Hujus facultatis est tractare animos, hujus omni modo permovere; haec modo perfringit, modo irrepat in sensus; inserit novas opiniones, evellit insitas; haec valet non modo inclinantem impellere aut stantem inclinare, sed adversantem et repugnantem, ut imperator bonus et fortis, capere aut in deditioem subigere<sup>33</sup>. Unde merito dictum est eloquentiam in rebus humanis quasi regnum quoddam obtinere, eadem ad res efficiendas non minusquam ferrum valere, nullamque esse rem ad ducendos, quo velis, hominum animos, dicendi copia potentior. Ea res tantum in se habet virium, ut cum vehemens, incensa, incitata ac rapida fertur, sustineri nullo modo possit. Ciceroni pro familiari reo summus orator non respondit Hortensius. Privata in causa, magna et gravi, cum coepisset Curio pater respondere subito assedit, quum sibi venenis memoriam ereptam diceret<sup>34</sup>. Quid? quod, eodem dicente Cicerone, legem agrariam, hoc est, alimentum suum abdicavit romana tribus? Quid? quod Catilinam, hominem audicissimum, qui armis patriam petere decreverat, omnino perfregit? Adeo validis in eum viribus tela libavit, ut permagno eo crimine in senatu accusatus, prorsus obmutuerit. Equidem, eloquentia praediti qui sunt, majus omnibus tyrannis in homines assequuntur imperium; quippe tyranni corpora tantum constringere, eloquentes et in animis valent regnare; illi invitis, hi volentibus imperant; illi omnibus sunt, quos dominatu premunt, odibiles, hi universis, in quibus regnant, amabiles. Quid attinet plura dicere? Satis mihi hac de re fecisse verba videor.

Quod vero ad poesim spectat, pronum est intelligere, omnia vitae praecepta, omnia virtutis officia, nihilo a poetis deterius quam a philosophis ipsis doceri; nam et praecepta sapientiae, quo facilius in animos influant, insatiabili quadam admirabilium rerum varietate condiunt, et verba, quibus ea efferunt, quo mitius mentibus instillentur, certis numeris et pedibus vincunt. Nihil est autem tam cognatum mentibus nostris quam numeri, quibus et excitamur et incendimur et lenimur et langues-

<sup>32</sup> [De orat. lib. II, cap. 9.]

<sup>33</sup> [De orat. cap. 44.]

<sup>34</sup> [Cic. Orat. cap. 37.]



cimus et ad hilaritatem et ad tristitiam saepe deducimur<sup>35</sup>. Cum ergo magna quaedam sit vis, incredibilisque numerorum ad movendos motosque componendos animi affectus, si quanti res quaeque sit, non quanti vulgo fiat, spectare volumus, multo plus esse in poesi momenti, quam plerique fortasse suspicantur, ad regendas et, ut rationi famulentur, adducendas cupiditates, facile deprehendemus. Hujus enim facultatis est, et virtutis et vitii veros ducere vultus; haec valet, oratione ceu nitido usa speculo, et virtutis candidam faciem, et vitii os retegere horridum; penes quam eandem est, nedum vitium acriter deturpare et virtutem amplissimis nitoribus exornare, sed et vitio deditos acerbe vituperare et virtutis cultores ornatissime laudare. Quas vero illud fecerit strages, et quos haec ediderit fructus, quae alia poterit facultas grandioribus verbis referre? Cum autem omnem sensum voluptas aut molestia comitetur, quarum altera naturae consentanea et amica, amorem; altera adversa et inimica, odium erga rem gignit, ex qua voluptas aut molestia percipitur; cujus facultatis est, virtutem, cum pulcherrimam tum jucunditatis plenissimam; vitium, cum horridum tum molestia refertum, mortaliū oculis objicere, ei facultati non potest quin plurimum insit virium ad homines a vitiorum servitute in veram libertatem, virtutisque in studium perducendos. Quare nolite dubitare quin litteras, quum ea in re permultum possint, utiles haberi oporteat.

At enim non desunt, qui litteras non modo non utiles, sed perniciosas et pestíferas esse, orandi quidem viribus, dum in eas invehuntur usi, demonstrare conentur. Equidem, si quarum isti meminisse solent calamitatum, reapse literis impigenda esset culpa, eas nedum laudandas sed prorsus exterminandas, non tam esset difficile ad pervincendum. At patet, non litteris, quas isti tantopere exagitant et insectantur, sed eorum, qui litterarum opibus viribusque nequiter abutuntur improbae voluntati, ea, quorum litterae immerito accusantur, adscribenda esse mala. Nam litterarum hic est finis, ut innocentiae, non flagitio, ut aequitati, non iniustitiae, ut veritati, non ut mendatio patrocinentur. Quod enim pulchras res perbelle exprimere, earum est officium, propterea pulchriores litterae vocantur; at multis pervincitur argumentis, nihil esse pulchrum quod non idem et bonum sit et verum<sup>36</sup>. Cum ergo litterae errori vel nequitiae inservire, tum et officio decedere coguntur. Quod si non est aequum id haberi malum, quo bene uti licet, videant isti humanitatis contemptores, quam sit iniquissimum et non ferendum, litteras, quibus bene uti earum ipsa natura expostulat, eo crimine accusare.

<sup>35</sup> [Cic. de Orat. cap. 51.]

<sup>36</sup> [Urráb. Ont. Disput. 2, cap. 4, art. 7.]

Atqui non nemo erit, qui adeo inflamata in litteras rapiatur invidia, ut eas vel idcirco vituperandas censeat, quod plures homines, qui in litteris aetatem duxerint, earum viribus abusi, multas et magnas ediderint strages. Nos vero, quoniam iis, quae omnibus nota sunt, fidem abrogare velle dementiae est, non inficiabimur perditissimos extitisse homines, litteris, quidem expolitos, qui mellitis et ad fallendum compositis verbis, multitudinem, pestiferas ei obtrudendo sententias, omnino infatuaverint et gravissimis in rebus illuserint; at illud admonebimus, maxime nobis cavendum esse, ne propter hominum litteris, secus quam oportet, utentium vitia, rem ipsam in invidiam trahamus. Nam ubi eo amentiae progressi fuerimus, ut propter hominum improbitatem res ipsas in crimen vocare aequum esse statuamus, nulla jam amplius erit facultas, quam non contumeliis onerare et maledictis incessere debeamus. Quid igitur?, quod facultas nulla est, in qua non gravissima nonnunquam flagitia deprehensa sint, propterea omnes, quotquot sunt facultates, vituperandas, maledictis appetendas, exterminandasque arbitremur? Absit. At vero ex litteris, dum earum homines abusi sunt opibus, plus cepit detrimenti humana societas. Esto; quamquam enim inficiandum non esse arbitramur, litteras, quoties officio decesserunt, propterea decessisse, quod ii, qui philosophorum nomine male utuntur, gravissimos in errores prolapsi, multa docuerunt scelera immania et infanda (quorum certe philosophia vacat culpa); tamen causae nobis nihil esse videtur, quamobrem verum esse quod objicitur, diffiteri conemur. Nam vox haec una omnium est, quo quid melius, praestantius, nobisque sit utilius, eo nos ingentioribus, dum ea perperam utimur gaza, affici malis. Quare si, quas clades litterarum infert abusio, tam magnae sunt, quam eas isti videri volunt, non poterit quin literae, si definita animi moderatione gubernentur, optimos ferant et uberrimos fructus. Quae cum ita se habeant, comprimant vocem litterarum osiores, inscitiae vel invidiae indicem; illud, quod adhuc in eas exprompserunt, ponant odium; fateanturque nobiscum litteras, cum praestantiae et jucunditatis, tum utilitatis et emolumenti habere plurimum.

Illud jam reliquum est, ut vos, si qua ratione possum, exacuum et exsuscitem, studiosi atque optimi adolescentes, ut, dum aetas apta est ad labores perferendos, dum animus nullis aliis tenetur curis, dum cetera ad capiendum ingenii cultum necessaria, vobis affatim suppetunt; torporem et ignaviam ex animo excutientes, summa ope et contentione litterarum studiis incumbatis; quibus sive quis utilitatem sequatur, nihil fructuosius, sive praestantiam, nihil illustrius, sive oblectationem, nihil dulcius et jucundius, ne votis quidem conceptis expeti potest. At vero mihi fefellisse me videor, quippe quoniam vestra, qui per vos sapitis, et

litterarum amore flagratis, non sunt mihi accendenda studia. Itaque vela, contraham, et eum, quem in orationis exordio posse me arripere difisus sum portum, laeto animo respiciam; grates vobis, quod pronis me accepistis auribus, ex adyto tanquam cordis persolvam, dicendique finem faciam, modo vos iterum rogavero ut, quamquam multa, quod hujus loci non digna protuli, jure ac merito reprehendatis, studium tamen meum facessendi jussum et —quoad quidem vires ferebant— tenendi clavum, ne improbetis.

Dixi.

**DURANGOKO EUSKAL EGUNETAN  
ANDRA MARIAREN JAIOTZ EGUNEAN  
OSPATUTAKO ELEIZ JAIAN  
EGUZKITZA JAUNAK EGINIKO ITZALDIA**

*«Omnes populi, tribus et linguae ipsi servient.»*

(Dan. 7, 14)

Gotzain agurgarriori, Bizkai-Gipuzkoako Aldundien Buruzagi bikainak eta beste aldun jaunak, uri onetako agintari ta entzule maiteok:

Euskal jaien azkenengo egun onetan Andra Mariaren Jaiotzea gomutau ta ospatzen dogu. Ama maite onek bere jaiotzan goizeko izarra egiz eta benetan dirudi. Goizeko izarrak, eguzkia-ta egun osoa bere ondoren dakarz. Mariaren jaiotzeak be Zuzentasun-eguzkia Jesukristo gure Jauna, laster etorrela iragarri ta adierazoten eban: augaitik beinola zeruko bidean itsumustuka ebiltzan gizaseme errukarrientzat Ama samur onen jaiotzea, gau-ilunean dagozanentzat egunabarra, egunaren lenengo argi-zirrinta<sup>38</sup> baizen gozo, atsegintsu, alai ta pozkarri izan zala zuzen sine-tsi ta esan daikegu. Zure jaiotzeak, Jaungoikoaren Ama garbia –dinotso Eleizeak–, mundu guztiari poz andia ekarri dautso: gure Osasuna dan Zuzentasun-eguzkia zugandik jaioda; Jaungoikoaren aserre ta zigorra gure lepotik kendu, bere onespen eta laguntza emon, eriotzea menpetu ta betiko bizitza ekarri dauskun Salbatzailea zure erraietako seme dogu-ta, zure jaiotza orrek, Ama on-ona, guztioi atsegin-poz andia ekarri dausku. *Nativitas tua, Dei Genitrix Virgo gaudium anuntiavit universo mundo.*

Euskaldunok, zeruko Ama bigun, amultsu, gozo ta samur onegazko eraspen<sup>39</sup> eta maitasuna geure lurreko amen bularretan, ugartaz batera,

<sup>37</sup> Argitaratua: «Durangoko Euskal egunetan, Andra Mariaren Jaiotz egunean ospatutako eleiz jaietan Eguzkitza jaunak eginiko itzaldia», *Bigarren Euskal egunetako itzaldia*, Bermeo: Gaubeka, 1926, 121-128 or. (Izendapen bibliografiko hau grafia moldaturik dago.) Bizkaicraz idatzita dago.

<sup>38</sup> *Argi-zirrinta*: egunsenti.

<sup>39</sup> *Eraspen*: debozino.

edoski<sup>40</sup> ta edan doguzala, nik esan barik be, ondo dakizue. Zinez, bein baino sarriago geure lurreko garatz<sup>41</sup>, arazo ta zereginak eraspen eta maitasun onei gainean autsa ezarten dautse: orduan, auspeko sua lez, ixil, estal eta ezkutu egon oi dira ta euren bero ta indarra be galdu dabela dirudi. Baina, bai zera! Gaineko auts orri pizka bat eragin ezkerro, azpiko eraspen eta maitasun orreïn txingar<sup>42</sup> gorriak be laster agertzen dira.

Andra Mariagazko zaletasun, eraspen eta maitasun oneik euren egongu<sup>43</sup> ta bizitokia gure gogo-biotzetan dauke. Biotzean jaio ta biotzean bizi dira; baina zindo ta zintzoak izateko, gitxienez be Andra Mariaren jairen bat ospatzen dogunean, euren barreneko lurrin eta usain gozoa iragarri, erakutsi, edatu ta zabaldu bear dabe. Beti ezkutuan eukiteko gauzak be ez dira-ta, kristinau guztientzat ain atsegintsu ta pozkarri dan egun onetan, geure gogoak jaso, biotzak idegi, barrenak zabaldu ta zeruko Ama atsegin eta gozo oni geure eraspen eta maitasuna, geure eskar on ta zaletasun laztana agertu ta erakutsi bear dautsaguz. Geure buruak eta geure gauzak, batez be geure gogo-biotzen landara ta kimuak diralako maiteen doguzan gauzak, geure gogamen<sup>44</sup>, asmo ta gurariak eta oneik azaldu ta adierazoteko darabilgun geure euskerea, zeruko Ama laztantsu orren eskuetan ipini bear doguz.

Izan be, entz(ule) mait(eok), gure euskera zar, garbi ta eder au, Jaungoikoagana joateko bide, Jaunaren eta Mariaren seme zintzo izateko jagola<sup>45</sup> ta lagun izango jakula deritxogu: geure sinestean sendo, geure oitura onetan garbi irauteko berariz lagundu gaitezala uste dogu, ta au uste dogulako, Euskal jai oneik amaitu baino len, geure asmo ta lan oro Uribarriko Amaren eskuz, guztioen Jabe dan Goiko Jaunari eskini ta opaldu nai izan dautsaguz. Nire itzaldi onen gaia orixe izango da. Oitura dan lez, aurrera jarraitu orduko, Jaunaren oinetan auspaztu gaizan eta bere laguntza eskatu daiogun. Uribarriko Ama maite-samur ori bitarteko izan zakiguz eta zeure aurrean auspaz dinotsugun aingeruaren agurra gogo onez entzun, abegi onez artu egizu.

\*\*\*\*\*

<sup>40</sup> *Edoski*: bularra hartu.

<sup>41</sup> *Garatz*: tratu, negozio.

<sup>42</sup> *Txingar*: brasa, kanbor.

<sup>43</sup> *Egongu*: egonleku.

<sup>44</sup> *Gogamen*: gogoeta, pentsamentu.

<sup>45</sup> *Jagola*: zaintzaile.

Euskal jai oneik Durangon lenengoak ez dira. Orain ogeta amabost urte Euskal jai andi, eder, ospatsu, bikain eta gorenengoak egin ziran emen. Euskeraren alde ainbeste neke artu ta ainbeste lan egin ebazan bertoko seme Astarloa, euskaltzale andi ta euskalari ospatsuari bere jaioterri onek, or Ezkurdin, aitzurdinezko<sup>46</sup> irudia eregi eutsan; eta gizon argi ta langile onen gomuta onak euskaldunen gogoetan beti iraun egian, durangoarrak Astarloaren deduz<sup>47</sup> eta opaz jaiak jai egin ebezan. Orain Euskal jaiak barriro egin doguz eta euskerea geure sinestean sendo, geure ekandu onetan zindo ta garbi irauteko lagun eta jagola ona izango jakula adierazo nai neuskizue.

Gauza erreza dala deritxat. Geure asabakandik artu dogun siniste au okerra balitz, jarauntsiz<sup>48</sup> itxi dauskuezan oitura ta ekanduak gaizto, ustel eta zikinak balira, gure erri onek, bere euskerea galduaz, siniste ta ekanduetan ausaz<sup>49</sup> irabazi egingo leuke; baina sineste ori egiazkoa ta ekandu orreik zindo ta garbiak diran ezkeru, euskerea galduaz gure sineste ta oitura onai be kaltea letorkioe. Begira zegaitik. Gogo edo arimearen ispilua arpegia dala sarritan entzun eta esan dogu; baina antxinako helendarrak, greziatar jakitunak, guk baino zuzenago, gogoaren ispilua, arpegia ez, izkuntza bai, izkuntza zala esaten eben. Gogoaren itz eta abotsen, barreneko izkuntza ta azalekoaren arteko inkunde<sup>50</sup> ta artu-emonak zeatz adierazotea eginen zailtxua da, zinez. Baina bata-besteaz alkartasun estua ta zerikusi andia daukela inok be ezin ukatu lei.

Eta egiz, entz(ule) mait(eok); gure gogoak sortutako gogapen, irudi, antz, asmo ta gurariak izkuntzaren bidez agertu ta azaltzen doguz; baina izkuntzak berak be, gure barrenean sortzen digun gogorapen, asmo ta gurari orrei berarizko jas eta taiua, izakera ta egidamu<sup>51</sup> berezia arrezotzen dautse. Augaitik edozein izkuntza ta berau darabilan erria alkarrekin estu-estu lotuta dagoz, eta alkarrekin estu ta ertsi lotuak dagozako, izkuntza aldatzea edozein errirentzat bere gogoaren izakera berezi ori aldatzea izan oi da. Baina aldaketa onek, erriak asabakandik artu dituan siniste ta oiturai kalte baino besterik ezin egin legioela, itsua ez dan edonok dakus eta edonok daki.

Erri bakotxak, ez beingoan baina urteak joan, urteak etorri bere aiurri<sup>52</sup>, mendu ta izakera berezia artzen ditu. Erri bakotxaren arpegia ori-

<sup>46</sup> *Aitzurdin*: marmol, harrinabar.

<sup>47</sup> *Dedu*: ohore (*deduz eta opaz*: ohoretan eta omenez).

<sup>48</sup> *Jarauntsi*: oinordetzan hartu.

<sup>49</sup> *Ausaz*: ameneko, beharbada.

<sup>50</sup> *Inkunde*: egintza.

<sup>51</sup> *Egidamu*: itxura.

<sup>52</sup> *Aiurri*: jite, izaera.

xe, bere izakera berezi ori da, eta barreneko bizia izkuntzaren bidez agertu ta azaltzen dogulako, erri bakotxaren izkuntza bere arpegi ori iragarri ta erakusten dauskun ispilua da. Ispilu au kendu ezkeru, erriaren arpegia estaldu egiten da-ta, arpegi ori ikusterik ez dago; baina arpegia estaltzea sinestu ta ekandu onentzat kaltegarri dala, nok ukatu daike?

Aratustez marmo<sup>53</sup> janzten diranak, arpegia zamorroz<sup>54</sup> estaltzen dabenak zer egiten daben ondo dakigu; bein arpegia estaldu ezkeru, norberak bere buruari ta aurrekoai zor dauksen lotsea bertatik galtzen dau. Augaitik aratuste egunetan sinestecunak sinestebako dirudie eta ekandu onetakoak diran errietan be grina gaizto, donge, zantar, ustel eta zikin guztiak azalera, agirira urteten dira. Bardin, euren erria itxi ta urri-netara doazanak, geienez beintzat, sinismenean otzitu ta ekanduetan gaiztotu egiten dirala ondoegi be baidakigu. Gure erriatik Ameriketara joaten diran asko ta askok esan dodan ori on egiten dabe. Zer jazo etc da? Euren arpegia aldatu egin ete dabe?

Aldatu asko, entz(u)le mait(eok), estaldu egin dabe-ta! Toki barri aetan nortzuk diran inok ez daki: noren seme ta senide diran, euren errian zer egiten eben, nogaz batzen ziran, zelako ekanduak eukezan inok ez daki; edo beintzat, guztiz gitxik dakie. Ezezagunak dira-ta, arpegia estaldu dabela dirudi. Onelan euren errietan bizi ziraneko lotsa ona be galdu dabelako, asaben sinesteari jaramon gitxi ta ekandu onai gitxiago egiten dautse.

Naiz zamorroz jantziaz naiz urri-netara joanaz arpegia estaltzea, gizon bakotxaren sineste ta ekandu onentzat kaltegarri dala bere senecun dago-anak ezin ukatu daike; baina gizon bakotxagaz jazoten dan ori erri oso az be bardin jazo oi da, erria gizon askoren batza edo alkargoa baino besterik ez da-ta. Erri osoak bere arpegia ezkutau badagi, gizon bakotxak lez bere lotsea galduko dau. Erriaren arpegia, zein da? Bere mendu, bere izakera berezia dala esan dogu eta izakera onen ispilua erriak darabilan izkuntza dala ondo dakigu. Augaitik izkuntza galdu ta galtze onegaz arpegia ezkutau, bere izakerea aldatu naiz estaldu dauan erria, berarizko laguntzaren bat euki ezik, asabakandik, izkuntzaz batera, artu dituan sineste ta oitura onak be galtzeko arrisku andian dago. Asaben izkuntza galdu dau, asaben izakerea be aldatu edo beintzat estaldu dau, asabai lotsea galdu dautse ta euren sineste ta ekanduak laga ta isteko be gauza gitxi, guztiz gitxi bear izango dau.

<sup>53</sup> *Marmo*: mozorro.

<sup>54</sup> *Zamorro*: maskara.

Izkuntza galtzeak edozein erri bere sinesmen eta ekandu onak be galtzeko zorian ipinten dauala baidirudi; baina, ori orrelan jazoten ete da? Zoritxarrez bai, entz(ule) mait(eok), orrelantxe izan oi da. Entzun ezpabe. Irlandarrak euren sinesmenari eutsiten mutilak dirala, sinestean oneik baino sendoroago irauten dakianik inortxu be ez dagoala, Ameriketari izan diran neure abade lagunai sarri entzun dautset. Sinesmenez ain sendoak direan irlandar oneikin Goiko Ameriketari zer jazo dan entzun egizue. Orain esango dodan au *Sal Terraen*, 1914garreneko urtarri-lari dagokion zenbakian irakurri neban. Goiko Ameriketari gure sinestea arinen eta errezen itxi ta laga dabenak –dino *Sal Terraek*–, euren izkuntza galdu ta ingelesena ikasi eben irlandarrak izan dira. Ingeles ikasi ta gero be, euren oguzkera<sup>55</sup> berezia jagon eta gorde eben bitartean, sinestean be naiko sendo iraun eben; baina euren oguzkerea be galdu, ingelesena artu eta onein erara oguzi, esan eta idazten asi ziranean, aurrez<sup>56</sup>, tutarrez<sup>57</sup>, irutatik bik gitxienez euren sineskintza<sup>58</sup> be laga, itxi, jaurti ta bertakoena, naste andiko guzur sinestea artu eben. Ipar Amerikako irlandar guztiak asaben sinestean sendoro iraun balebe, gaur ogei miloe gitxienez izango ziran; baina izkuntzaz batera asaben sinestea be askok galdu ebelako, gaur ango irlandarren artean gure Ama Eleizeak, ogei miloen orde, sei miloe seme baino ez daukaz.

Ipar Ameriketari euren izkuntzari sendoroen eutsi dautsenak, an bizi diran prantzetar<sup>59</sup> izan dira. Beste arazo batzuetan englandera, ingeles-izkuntza, erabili arren, euren artean beti prantzeraz<sup>60</sup> egin dabe; euren eleizetan itzaldi, otoi, eskari, bederatziurren, abesti edo kantuak be beti prantzeraz egin dira. Izkuntza ardura andiz jagon dabe ta sinesteari be beste inok baino zintzoro ta sendoroago eutsi dautse. Gertaera ta jazopen oneik adierazo ondoren, len aitatu dodan *Sal Terraek* auxe dino: edozein erri bere izkuntza galdu ezker, bere sineste ta oiturak be errez aldatu ta galtzen ditu, izkuntzari sendoroago eutsi ta bere asabakandiko sineste ta ekanduai be luzarago eutsiten dautse. Baina ori egia bada, edozein erri bere izkuntzari sendoroago eutsi ta asabakandiko sineskintza ta oiturai be zailago, gogorrago, luzarago eutsiten badautse, Euskalerrian euskereari eutsitea, gure erri onek asabakandik daukazan sineste ta ekandu onai eutsitea dala autortu bear dogu: eus-

<sup>55</sup> *Oguzkera*: ahoskatze.

<sup>56</sup> *Aurrez*: barra-barra.

<sup>57</sup> *Tutarrez*: erabat.

<sup>58</sup> *Sineskintza*: sinisbide, erlijino.

<sup>59</sup> *Prantzetar*: frantziar.

<sup>60</sup> *Prantzera*: frantses.



kerearen alde lan egitea, gure sineskintza ta oitura garbien alde lan egitea dala bere senean dagoan gizonek ezin ukatu daike. Euskerea zeatz, osoro<sup>61</sup> galdu daben errietara begiratu ezkeru, galtze au sineste ta ekanduentzat kaltegarri izan dala berez gauza argia da-ta, inok esan bearrik ez daukazue; toki orreitan ekanduak be asko aldatu dirala, euskereak dirauan alderdian baino latz, garratz, mergatz<sup>62</sup> eta biurriagoak dirala ta grina dongeak indar geiago daukela geure begiz dakusgu.

Au egi garbia dan arren, gure arteko batzuk ez dakuse, edo beintzat ez dabe autortu nai; baina begietan lausoa daukagulako-edo, guk ez dakusgun ori gure sinestearen arerioak argiro dakuse. Jaunak esan eban eta egia da: «*Felii bujus saeculi prudentiores filiis lucis in generatione sua sunt* (Luc. XVI, 8); munduzaleak euren asmo, garatz eta arazoetan argiaren —Ebanjelioaren— semeak baino zoli, zur eta bizkorragoak izaten dira». Euren asmo dongeetan gu baino zoli ta bizkorragoak diran munduzale ta sinestearen etsai oneik, bat kendu barik, euskerearen arerioak izaten dira ta al daben guztian, euskereari euren gorrotoa erakutsita gudu gogorra egiten dautse.

Arako Combes, kristinau izenaren arerio zital eta amurratuak 1903garren urtean, Frantziako agintzari<sup>63</sup> zala, Euskalerriko eleizetan itzaldiak euskeraz egitea debekau, eragotzi ta galerazo egin eban eta ori zala-ta, bere lagun eta aiskideak, oro gure sinestearen etsaiak, txalo andiak jo eutsoezan. Onelakoak gure sinesteari iguin<sup>64</sup> eta gorroto bizia dautse ta sineste oni gorroto dautsoelako, euskerea be il, kendu bein ta betiko, cortzi ta lurpean sartu nai dabe. Gure sineste ta euskerearen bitartean alkartasunik ez balekuse, euskereari jaramonik ez leuskioe egingo, euskerea galtzeko asmoetan ez litzakez ibiliko; baina Euskalerrian euskerea sinestearen aiskide-lagun eta jagola ona dala-ta, jagola ori il eta ondar bako lezara jaurti nai leukie.

Guk zer egin bear dogun geure sinestearen etsai orreik irakasten dauskue. Arerioak irakasle doguz, entzule maiteak! Gure sinesteari gorroto dautsen etsai oneik, gure euskereari be gorroto dautse; geure sineste ta ekandu onak maite doguzanok, euskerea be maite izan bear dogu. Aek sinestea galdu nai dabelako, euskerea be galdu nai dabe; guk geure sinestea jagon eta zaindu nai dogulako, euskerea be jagon eta zaindu, sendotu ta bizkortu egin bear dogu.

<sup>61</sup> Osoro: guztiz, erabat.

<sup>62</sup> Mergatz: mingots.

<sup>63</sup> Agintzari: agintari.

<sup>64</sup> Iguin: nazka, antoju.

Gure erri maite oni bere sinesmen eta ekandu onetan iraunazoteko, lenen eta aurrenengo Goiko Jaunaren laguntza da. Baina orren urrengo, eguzkiaren azpian daukagun laguntzarik onena, geure euskerea da; laguntzarik onena Euskalerrriaren gogoa, bere izakera berezia, bese barreneko arpegia darakusan ispilua, geure asabakandik datorkigun euskera zar au da. Izkuntza aldatzea erriaren gogoa aldatzea da, baina gogoa aldatzeak aurreragoko sineste, ekandu ta izakeraren aldatzea beragaz daroa. Augaitik Euskalerrrian bere sineskintza ta ekanduai eutsiteko, bere gogoari, gogo orren mendu ta izakera bereziari eutsi bear dautsegu; baina oni eutsiteko, euskerea galdu ez dedin, lan egin bear dogu. Gizon eta erri baktotxak izkuntzaren bidez bere barreneko bizia agertu ta azaldu daroa; augaitik edozein errirentzat ogasunik bereena, bere mendu ta izakeraren agerpenik garbiena bere izkuntza da: Euskalerrriarentzat, euskerea.

Geure euskera garbi ta maite onek Jaunaren eta Andra Mariaren seme zintzo izateko berariz lagundu gaikez. Eta egiz, entz(ule) mait(eok), edonorantz begiratuaz dakusguzan mendiak, zapaltzen doguzan bideak, bizi garean etxeak, geure errietako iturri, ibai, solo, bazter eta zokondo<sup>65</sup> guztiak, ildegietako geure arbasoen azurrak, aizeak darabilan autsak, nozbait, bearbada, geure guraso ta asaben gorputz eta aragi izan zan auts orrek, euskerea geure-geurea dogula dinoskue, eta geure asaba onen oroipen edo gomutea, geure biotzen bitxia, geure odolaren bitsa, geure izatearen usaina, geure gogoen arnasa dalako, asaba ta ondorengoen arteko lokarri ta txibistun bizia dan euskera onek geure arbaso ta aurretikoekin beste ezek baino estu ta ertsiago alkartu, batu ta lotzen gaitu. Baina asaben sinestean sendo ta ekanduetan garbi irauteko, eurakin estu ta ertsi lotuta, gogoz eta biotzez bat eginda egotea baino oberik ete dago? Ez! Orretarako biderik onena asabak eta euren gauzak biotzean ondo barrendu<sup>66</sup> ta eurakin gogo ta biotzez bat egitea da; augaitik, geure asabakin lokarri biziz lotzen gaituan geure euskera onek aen sineste ta ekanduetan irauteko, berariz lagundu gaikez. Gure asmo, uste ta itxaropena orixe da; itxaropen au galduko bagendu, lanari jarraitzeko kemen eta adorea be galduko geunkez. Baina uste ta itxaropen gozo oneik geure gogoa indartu ta biotza sendatzen dauskuez, eta orain arte lez aurrerantzean be euskerea geure sinestearen lagun eta jagola izan dakigun, jai oneik amaitu baino len, Uribarriko Ama samurraren eskuz, Jaungoikoari betiko eskini ta opaldu gura dautsogu.

<sup>65</sup> *Zokondo*: txoko, bazter.

<sup>66</sup> *Barrendu*: barruratu.

Auspaztu gaizan, ba, here oinetan eta gogo beroz, biotz osoz esan daiogun: Ama gozo, Ama samur, Ama maite, gure asaben ekandu onez bizi nai dogu; sinestez asabak baizen sendo, oituraz aek baizen zindo ta garbi iraun nai geunke. Baina arerioak geure sinesmena ilundu ta geure ekandu onak zikindu nai dauskuez-ta, Ama laztanorrek, zeure magalpean artu ta jagon gaizuz. Orain arte gure sineste ta gure euskerea alkarren lagun eta aiskide barruko izan dira; aurrearrantzean be izan daitezcan, biak zeure eskuetan ipinten doguz. Zuk, Ama maiteorrek, Goiko Jaunari eskini ta opaldu egiozuz, zerutar kemen eta indarrez sendotu ta bizkortu egizuz... Bizitza onetan Jaunarenak eta zeureak izan gaitezcan eta gero betiko zoriona jadetsi daigun, orain eta beti lagun zakiguz.

**ZABALA ABA TA EUSKEREAZKO BERE LANAK.  
EGUZKITZA EUSKALTZAINAK DURANGOKO  
EUSKAL EGUNETAN IRAKURRI EBAN IT'ZALDIA**

Andere ta jaunak:

Gizonik nagiena be bearrianak artu ta ertsi badagi, langile ta lantzale<sup>68</sup> agertu oi da. Alperarri lan eragiteko bearrian ori akulu zorrotza da; muker<sup>69</sup> eta nagienak be azkartu ta bizkortzeko akulari ta zirikatzaile on-ona. Euskaltzaindiko nire lankideak Zabalatar Juan Mateo zanaren bizitza ta bere euskal idaztien barri zuoi emoteko ardurea, olgetan-benetan, neure lepora egotzi eusten.

Berandurako lana zala-ta, tintilik<sup>70</sup> be ez nintzan estutu. Baina gero, neure gain artu neban zeregin au egin eta betetako eguna urreratuaz joala nekusan, eta nagienak be langile egiten dituan bearrian latz orrek ni be zirikatu ta bizkortu ninduan; akulari bikain orrek nagi oni be lan eragin daust. Bearrianak erazota, lan pizka bat egin dot; baina neure lan au erkin<sup>71</sup> eta txatarregia<sup>72</sup> izango ez ete dan bildur naz.

Zabalaren bizitz edestia idazteko asmoz gai bila asi nintzanean, askozaz be gai geiago idoroko nituala ta lan eder eta orniduago egin al izango nebala uste neban; baina gure aurretikoak lanak egiteko baino egindako lan orreik ondorengoai jakinazoteko ardura gitxiago artu dabelako, edo aldi ta urteakin, batean-bestean izan diran egigai<sup>73</sup>, idazti edo paperak sakabanatuta galdu diralako, idoro al izan ditudan gaiak nai neukean baino urriagoak dira-ta, nire aleginak gorabera, Zabala abaren bizitz edesti onek utsune larregi izango ditu.

---

<sup>67</sup> Argitaratua: «Zabala aba ta euskereazko bere lanak. Eguzkitza euskaltzainak Durangoko Euskal egunetan irakurri eban itzaldia», *Lenengo Euskal egunetako itzaldiak*, Bilbao: Euzko Argitaldaria, 1922, 13-30 or. (Izendapen bibliografiko hau grafia moldaturik dago.) Bizkaieraz idatzita dago.

<sup>68</sup> *Lantzale*: fin, behargin.

<sup>69</sup> *Muker*: alper, faltso.

<sup>70</sup> *Tintik*: mist, tut.

<sup>71</sup> *Erkin*: ahul.

<sup>72</sup> *Txatar*: akastun.

<sup>73</sup> *Egigai*: agiri.

Bildu edo batu ditudan gai pizka oneik bear dan lez atondu, orraztu, ertza atera ta ondo apaindu, irudiz edertu ta euskera eztiz gozotu al baneiz, gaitz erdi izango litzake; baina... ortxe dago, ba, untzea<sup>74</sup>! Batzuk, Jaunak emonda, orretarako berebiziko antze<sup>75</sup>, berarizko jas eta trebetasuna dauke; erleak eztiaren atzetik lez, irakurle naiz entzulen gogo-biotzak izkera garbi, gozo, leun eta apainaren bidez, nainora eratorri, ekarri ta atsegin-eztitan euki daroetz.

A, nik be ori egin al baneu...! Baina orretarako berarizko antze ta jasik ez daukanak beste nonbait arturiko *gatz*a bear dauala edonok daki.

Neurez ez neunkan jas ori; inoren gatzetz ordeztu ta ornitzeko asmoz Zabalaren ipuinak gar eta ardura andiz irakurri nituan. Baina, tamalez, *gatzontzian gatz gixitxu* idoro neban. Zer egingo jako, ba! Al doguna dagigu, andere ta jaunak, al doguna ta ez nai doguna!

Neure barriketa au amaitu dagidanean, batek baino geiagok esangodo dau bere kolkorako: «Gazatxu, gazaegi... Pizka bat gaziago izan balitz, gogo obeaz entzungo gendun; baina barriketaldi onek *ez gatzik ez berakatzik* ez dau euki-ta, azkenerako zerbait baino geiago gogaitu be egin gara». Orixe ez neuke nai, andere ta jaunak. Augaitik egalak batu, ertsi ta al bait aldirik laburrenean amaitzeko alegin egingo dot. Gero edozer, naien dozuena, oben barik, esan zengikie; orretarako eskubide osoa damotzuet. Baina orain, inok neure lepora egotzitako zeregina leptotik jaurti ta atsedean eta arnasa artu gura izatea, oben eta erru andia be ez da-ta, orain barriketan diardudan bitartean, arren, eropen, egoarri ta gibel andiz entzun egidazue.

Naste txarrik ez ipinteko neure lan au irurendu egingo dot, iru atalean azalduko dot:

1. Lenengoa: Zabalaren bizitz edesti laburtxua.
2. Bigarrena: Zabalaren euskera-lanak, ipuinak barik.
3. Irugarrena: Zabalaren ipuinak berariz.

\*\*\*\*\*

### 1. *Zabalaren bizitz edesti laburtxua*

Bilbon 1777garren urteko irailaren 21ean jaio zan gure Zabala. Juan bere aita Bakioko semea zan; Mari Josefa bere ama, Arratiako Areatza

<sup>74</sup> *Untze*: kako, koska.

<sup>75</sup> *Antze*: gaitasun, abilezia.

edo Villaroko alabea. Urrengo egunean, San Antongo eleizan Juan Mateo izena ipinita, bateatu eban Elorriagatar Jose bertoko abade nagusiak.

Zabalaren gazteroko barririk ez daukagu. Asistar Prantzisko<sup>76</sup> Deunaren lekaide-batza<sup>77</sup> noz eta non sartu zan, bere ikasketak non eta nogaz egin zituan, oneik amaitu ta berealaxe zetan inardun eban ezin jakin izan dot; aldi onetako agiriak uts dagie ta gauza ziuurrik ezin jakin leikela deritxat. Galiziako erritxu baten, Hebrongo belgundari<sup>78</sup> ikastetxean urte biko ikastaroa egin ta gero, 1815garren urteko urrilaren 9an, Zarauzko lekaidetxera<sup>79</sup> etorri zala, ori bai, ori ageri zarrak darakuskue; baina 1819garren urtera arte bialguntza- edo misino-lanetan asi zanik ez dirudi. Aitaturiko urte onetan bai. Astigarragatar Juan Inazio abarekin, Berriz, Gamiz, Getxo, Luno, Zornotzako Bernagoitia, Arrankudiaga, Sondika, Bakio ta Ibarrangeluan bialguntzak<sup>80</sup> emon ebazan. Urrengo urtean (1820garrena) Mañaria, Arrigorriaga, Muxika, Laukiniz. Larrauri, Arrieta, Orozko ta Baranbion. Urrengoan (1821garrena) Zaldua, Gernika, Lexona, Errigoitia, Mungia, Dima ta Ean.

Zabalaren bialguntza-eginen onein barri Añibarro abak eta Zabalak berak idatzi eben eta Zarauzko lekaidetxean dagoan 'bezerro' deritxon liburuak emoten dausku. Bere zeregin oneitan aurrera jarraitu eban ala ez ageri zarrak ez dinoskue; baina bere euskalitzia<sup>81</sup> irakurri ezkeru, baietz dirudi. Bizkaiko erririk geienetan egon zala ta bialguntza bitartean euskal itz eta aditzerak biltzeko ardurea artu ebala deritxat.

Zarauzko lekaidetxean lekaipuru edo Jagole aba birritan izan zan, eta eleiza aretako altara nagusi ta albo bietakoak bera etxeko buru zala eginak ei dira.

Aurrerago aitatu dodan eta 'bezerro' deritxon liburu orren jarraitzaileak gure Zabala euskal idazle ospatsu onetzaz auxe dinosku: «Deuna ta jakituna zan, jan urri ta edan urriago, lo gitxi ta otoitz asko egiten eban gizona». Irurogeta bi urtegaz, 1840garreneko otsailaren 6an, irugarrenez lekaipuru zala il zan eta bere gorpua eleiz guenean, *ebanjelio* aldean, eortzia datza. Zabala il zanetik aldi gitxi barru, Gipuzkoako buruzagi arrotzaren aginduz Zarauzko lekaide-batza be sakabanatu bear izan zan eta lekaideakin batera ageri ta paper asko be banakatu ta galdu ziralako-

<sup>76</sup> *Prantzisko*: Frantzisko.

<sup>77</sup> *Lekaide-batza*: ordena.

<sup>78</sup> *Belgundari*: misinolari.

<sup>79</sup> *Lekaidetxe*: komentu.

<sup>80</sup> [*Bialguntza*: misino.]

<sup>81</sup> *Euskalitzia*: euskal gramatika.

-edo, ezagutu ta jakin bear genduzan gauza asko, gaur ezelan be ezin jakin geinkez.

\*\*\*\*\*

## 2. Zabala euskalari: bere euskerazko lanak, ipuinak lekot<sup>82</sup>

Zabalak, bere *Euskal aditzaren* sarreran dinoskunez, Astarloaren *Apología de la lengua bascongada* deritxon liburua 1803garren urtean argitaldu<sup>83</sup> ta berealaxe irakurri eban.

Durangoar ospatsu onek bese aldizti edo apologi aretan bizkaierazko euskalizia eskintzen eban. Lenengo idaztian aitatu baino egiten ez ebazan gaiak, bigarren onetan ugari ta zeatzago azalduko ebazala-ta, euskalizti ori eskuratzeko gurari bizia eukala dinosku Zabalak; baina Astarloa gaizoa, atsekabeak erasota, aginduriko bere euskalizti ori argitaltzeko era ta asti barik il zan 1806garren urtean.

Bere idaztiak argitaratzeko ardurea Zamakola ta Erro bere aiskideai itxi eutsen. Oneik zeregin ori egiteko asmoa bai eukala dirudi; baina, nik ez dakit zegaitik, beti urrengorako itxi ta larregi luzatu eben eta azkenean be Astarloaren agindua bete barik il ziran.

Bien bitartean Zabala ez zan lo egon, ez; euskera ikasten inarduan. «Neure nagusiak agintzen eustezan zereginak bete al izateko –dinosku berak– euskera ikasi bearrean aurkitu nintzan. Andia zan nire lorra<sup>84</sup>; bialguntzako sor eta motel nengoan.» «Bilbotarra izanik, ori ez da arrigarri», esan leike norbaitek; baina Zabalaren moteltasun ori bilbotarra izatetik etorrela uste baleu, oker legoke. Euskeraz itz egiteko sortasuna<sup>85</sup> nondik etorkion Zabalak berak dinosku: «Neure ikastaroko urteak –dino– erdalerrian igaro neban eta ain aldi luzez euskerarik entzun ez nebalako, inok sinistu daiken baino geiago sortu ta moteldu nintzan. Neure moteltasun ori zala-ta, Ovidiusek baino obeto esan nengikean: «*Dicere saepe aliquid conanti (turpe tateri) verba mihi desunt dedidici-que loqui*; zerbait esateko asmoz asten nazanean, au gauza lotsagarrial, itzak uts egiten dauste ta neure izkuntza aiztu<sup>86</sup> egin dot».

Larramendi aba ta beste batzuen lanak irakurriaz, euskal aditz jokoren «ederra» ezagutu ebala ta bearrizanak erazota asi eban lan onek,

<sup>82</sup> *Lekot*: salbu.

<sup>83</sup> *Argitaldu*: argitaratu.

<sup>84</sup> *Lor*: eginbehar; zama.

<sup>85</sup> *Sortasun*: astuntasun.

<sup>86</sup> *Aiztu*: ahaztu.

beste askori lez berari be, biotza irabazi eutsola ta asikerako lanaren «mingoitza»<sup>87</sup>, aldi gitxi barru atsegin-ezti biurtu jakola autortzen dau. Astarloaren beste idaztiak argitaratzen ziran bitartean, onen aldizti edo apologiako gai batzuk aztertzen, Larramendiren lanak eta iru euskalkietan idatzitako liburuak irakurten, euskaldunai entzunaz oartu ta biltzen zituan itz eta arauak urrengorik urrengora ipini ta ikasten, gozaro jardun ebala dinosku.

Bialguntza-eginenetan erririk erri ebilela, Bizkaiko euskal itz eta adituzerak batzen asi zala aurrerago esan dot; lan oni arduraz ekin eta jarraitu eutsala dirudi. Au zala-ta, euskalitziren bat argitaratzeko asmoetan ebilelako zurrumurrua zabaldu zan eta Ulibarritar Jose Paul, Abandoko erazle<sup>88</sup> ta euskaltzale sutsuak, orrelako zerbait entzunik, zurrumuru ori egia ete zan jakin eta bere buruan erabiltzan asmoak agertzeko, 1826garren urteko epailaren lenengoan Zabalari idatzi eutsan. «Euskal ikasgurik<sup>89</sup> ez daukagu ta bear-bearrekoak doguz –inotsan Ulibarrik Zabalari–: euskal irakaspide barria, iztegi bi, bat euskeratik erderara, bigarrena erderatik euskerara, ta Lege Zarra, *Forua*, izkuntza bietan, urre antzeko izkiz euskeraz eta izki baltzez erderaz argitaratu bear litzakez.» Ulibarrik beste idazki askoren artean, Zabalaren erantzuna be liburu baten berridatzi eban. Liburu onen jabe gaur Urkixo jauna da. Zabalak Ulibarri emondako erantzuna, nik dakidala, osorik, orain arte, inoz be ez da argitaldu, ta ezagutu dagizuen, oraintxe irakurriko dautsuet. Ona emen<sup>90</sup>.

«San Juan Bautista Zarauzkoan, martiaren bederatzigarrenean, mila zortzireun ta seigarren urtean<sup>91</sup> –dino, baina berridatzi ebanak egindako utsa dala Ulibarrik Zabalari aurrerago egin eutsan idazkiak argiro dakus–.

«Jose Paulo Ulibarriko, neure adiskidea:

«Zeure karteti agiri daneti mila gauza andi ta anditzarrak darabiltzuz zeure buru orretan; baia nik egia edo deritxadana esango badeutsut, bein bere izango ez diranak, neure aldetiz beinik bein. Euskerazko *Arte* barria, edo zeuk dinozun legez *Araukea*; berbategi bi, bat euskeratik

<sup>87</sup> *Mingoitz*: garraztasun.

<sup>88</sup> [*Erazle*: perrari.]

<sup>89</sup> *Ikasgu*: gidaliburu.

<sup>90</sup> Juan Mateo Zabalaren eskutitzonen grafia be gaurkotu egin dogu, nahi-ta Eguzkitzak berak dakarren transkripzioak jatorrizko eskuizkribuaren grafiari zehatz jarraitu. Kokoan artekoa Eguzkitzak erantsitakoa ei da.

<sup>91</sup> [*Mila zortzireun ta seigarren urtean*: mila zortzireun ta ogeta seigarren urtean.]



erderara, ta bigarrena erderatik euskerara; euskerazko *Forua*, eta euskaldun ain garbiak, eze ez deutsen bapere kalterik egingo ez erderazko papelak, ezta ain jagi ibili direan eta oraindio bere esaten direan irakaste deungak. Orregaiti esateko nenguan, eta gitxigaiti lumeak eskribidu ez dau<sup>92</sup>, orreek gogo eroak eta alperrak direala. Baia nire artean egin dot: "Oneri berba astuna eretxiko jeutsak, gaiagozan isilik"; eta alan atzeratu na(z).

»Dana dala, ez da egia, ez izango bere, dirudianeti beintzat, nik eskribidu edo konpondu dodala len aitatu doguzan *Artea* ta *Berbategia*. Inox-inox buruak emon deust egin bear ko neunkeala iozen<sup>93</sup> (sic) bat; baia gauzea ondo begiraturik, biotzak esan deust, ta ez bein: "Ez dok ori iretzat; ireak baxen indar ta lagungarri obeak bear dituk ortarako".

»Izan bere, nik ez daukat ori egiteko bear dan astirik, ez gura neukean era onik, ez dirurik ta ez ezer; eta okerrago dana, ija ez daukat gogorik edo (...) -"urondon" edo "ukondon" dino-. Baina oker dagoala dirudi, esan joian legez, ez daukat adirik, bada inoz izan dodan apurra bere, il jatan dana, ikusirik alde baten ezingo nebala nik bakarrik, eta bestetik eginda bere, alperriko lana zala.

»Ezingo nebala esan dot, eta orretan nago, bada, zer ez berakauteko zeregina ez alborik arako lana? Liburu(a) atereak esku askotan joko dau, begi askok ikusiko dabe(e) ta euren artean ez gitxik adietan jakenak. Besteak besterik uste begie, baia ni beti egon naz, eta oraindikorren bere nago (ez), argitaratu bear ez dala, ondo ta alde guztietara ondo eginda ez dagoan liburu(rik). Baita, nik bakarrik ta inoz lagunduko ez deustala, *Artea* ta berbatoki<sup>94</sup> bi egiteko? Bai ta barriz, nok erosteko eskribiduko dira berbatoki zarrak? Euskeria dabil saki eginik guztien ostikopean, inok bere ikusi gura ez dabela eta euskaldunak eurak erbestetu ta aaztu gura leukela. Antxinako ipuineko leoi zarrari legez, batak emoten deutso adarkadea, besteak ostikadea, besteak aginkadea. Nor, bada, erosteko dira liburu orreek? Nor irakurteko? Zeuk baxen maite ta laztan balebe(e) besteak, asko izango litzatekez aterako leukazanak euskerazko liburuak. Baia geure damu gogorrean ez da alan eta gitxi(k) dau maite; eta geienak, eta an-an urrean guztiak, gorroto eresten deutse, eta onek ilten deutse gogoa eukiko leukenai bere.

»Zer, burua galanto ausi liburuak egin ezinik, urtu orreek argitara aterateko, or ogeta amar edo berrogei mila errial, ta gero saguak, zedenak ta autsak jateko? Ez gágoz orren zoroak. Ez dakit nik zetarako naukan Jaungoikoak, baia orain beintzat ez darabilt olango amesik.

<sup>92</sup> Geuk zuzenduta: *eztan* > *eztau* > *ez dau*.

<sup>93</sup> [*Iozen* (?): zeren.]

<sup>94</sup> *Berbatoki*: hiztegi.

»Besteren batek ataratzzen badituz, ondo; atsegin artuko dot. Aal dabe-nak dagiala. Baia, nik? Ez nago ni orretarako; lagungarri gitxi ta gogoa ilgarri asko daukat orretarako bideak artuteko, eta nigati Forua erderaz geldituko da, ta Larramendiren *Artea* ta *Berbatokia* orain arteko agintasunean. Au da nigaiti entzun dozun guzur eskeratzarraren ganean esan bear dautsudana. Osterantzean badakizu beti izan dozula ta izango bere zeure adiskide.

Frai Juamateo Zabalakoa.»

Euskaldunok beti bat, atzo ta gaur bardin: euskerea itsuski ta saki eginik, ostikopean darabilgu. Euskaldunak gareala ago betean dinogu; emen eta emendik urrun orretzaz arrotzen gara ta bien bitartean geure euskerea, ipizki zatarra bailitzan, zapuztu ta zapaldu egiten dogu! Euskaldunok euskaltzale, nor izango ete gara?

Zabalak idazki onetan dinoana aintzat artu ezkeru, bere lanak argitaratzeko asmorik ez eukala dirudi. Argitaratzeko asmorik euki ezik, asiriko lana be itxi ta laga ebala norbaitek uste izan daike; baina ez orraitik, bere *Bizkaierazko aditzaren* sarreran dinoskunez, ori ta guzti be euskereari eutsan maitasuna, bere biotzean ez zan inoz otzitu ta maitasunak edonori lan eragiten dautso.

Astarloaren idaztiak irakurri ta ikasteko asmoz, aen jabe egin ziranai bein baino sarriago eskatu eutsezala dino, baina Astarloaren omen eta ospeari ezer ez kentzearren-edo, ukatu egin eutsezala be bai. Orraitik be 1821garren urtean Astarloak bere eskuz idatzitako ingurti<sup>95</sup> bat nondik edo andik beragandu eban Zabalak. Ingurti onek utsune asko eukazala, amaitubako lan marketsa<sup>96</sup> zala; baina ori ta guzti be aditza obeto uler-tu ta ezagutzeko argirik asko emon eutsala dinosku ta bere *Bizkaierazko aditza* atondu ta idazteko zerbait baino geiago lagundu eutsola dirudi. Berberak dino ba: «Gure aditzaren barriak iturri oneitan artu ditut; neure lan au egiteko erabili dodazan gaiak, aitaturiko orrexek dira.»

«Euskera ikasten berenberegi ez naz ibili. Astialdietan ekin dautsat, bai; baina beste zeregin andi ta bearragorik izan dot. Landu dodan euskal arlo au atsedendietan eta erdi jolasketan egindako lana da; baina lan luze ta jarraitua. Asi nebala ogeta amazortzi urte baino geiago dira ta besterik ezinean baino ez dot inoz neure eskuetatik laga.»

Bizkaiko erriak erabiltzan aditzera guztiak edo beintzat geien-geientsuak arduraz eta zeatz batu zituan Zabalak. Lan andi ta eder-ederra egin ebala zetan esan be ez da. Arrezkeru bizkai-aditza azaldu daben

<sup>95</sup> *Ingurti*: liburutxu.

<sup>96</sup> *Markets*: akastun.

orok Zabalaren oinatzai jarraitu dautsela esan ezkerro, beste barik be Zabalaren lan au, uts bakoa ez, baina bikain eta gorenengoa dala edo-nok susmau daike. Zabalak berak be zerbait baino geiago egin ebala uste eban: «Durangoar euskalariak bere aldizti<sup>97</sup> edo apologi ospatsuan gure aditzari buruz ikutu ta aitatu zituan gauzarik asko idoro ditudala deritxat –dino Zabalak bere aditzaren aitzinsolasean–. Neure idorokuntza oncek urengorik urengora ta ikaspide arauz emen ipini dodaz, eta Astarloaren euskal lanak oraindik argitaldu ez diralako, utsune ori neure onek zerbait bete leikelakoan, argitaratzea erabagi dot».

Zabalak bere lanaren sarreran orixe idatzi eban; baina Zabala 1840garren urteko otsailaren 6an il zala ta bere aditza argitaldu orduko beste zortzi urte igaro zirala ondo dakigu. Izan be, lan onen lenengo irarkaldia<sup>98</sup> Donostiako irarle<sup>99</sup> Baroja jaunak 1848garren urtean egin eban «Gipuzkoako Aldundiaren aginduz eta diruz».

*Bizkaierazko aditzaren* irarkaldi au Bizkaiko Aldundiak ordaintzea egoki ta zuzenago izango zala dirudi. Bizkaiko Aldundiak nai ez ebalako ala zegaitik sartu ete zan arazo onetan Gipuzkoako Aldundia? Ziur ez dakit. Baina Zabala Gipuzkoan luzaro bizi izan zan ezkerro, ango zaldun eta andiki batzuekin, Montorrongo kondearekin batez be, aiskide barruko egin zala, oker egoteko bildur barik, sinetsi daikegu. Zabalaren eriotz ostean, bere lan au irarteko<sup>100</sup> Aldundiaren laguntza zaldun eta andiki oneik, Gipuzkoan itzal andiko izan bere aiskide oneik, jadetsi ebela dirudit.

Zabalaren lan au argitaldu baino lenago, Iztueta jaunari bere eretxia eskatu eutsen eta onek, bere txostenaren azkenaldean auxe idatzi eban: «Bere jaiotzatiko izkuntzaren bazter eta zokondoak Zabalak ondo aztertu ta arakatu ditu... Mardo<sup>101</sup> ta sendo, bere edergailu guztiakin apainduta, gaztaroan zan baizen eder, zoragarri ta argitsu aurkezten dausku. Gure arteko sinisogorrak euskal aditzaren ederraz arrituta geldituko dirala ta izkuntza zar onen ezkutukiak<sup>102</sup> ezagutu nairik dabiltzan arrotzak be, euren egarri ori laster ase al izango dabela deritxat».

Zabala baino iru urte lenago jaio ta bost urte geroago il zan bere aiskide Mr. Fleury Lécluse. Toulousseko ikastetxe nagusian elenera edo greziatarren izkuntzaren irakasle izan zan jaun au, euskaltzale andia be

<sup>97</sup> *Aldizti*: apologia.

<sup>98</sup> *Irarkaldi*: argitaraldi.

<sup>99</sup> *Irarle*: argitaratzaile.

<sup>100</sup> *Irarri*: argitaratu.

<sup>101</sup> *Mardo*: mardul, sendo.

<sup>102</sup> *Ezkutuki*: misterio, isileko.

bai zan. Geienez bere izenaz, inoz Lor Urhersi gorria izenordeaz, euskerari buruz ainbat lan argitaratu ebazan. Zabala ta Léclusen arteko ezau-pide ta artu-emonak Tolosako irazle ta liburu-saltzaile Mendizabalдар Jose Inazioren bidez sortu zirala dirudit; beintzat Mendizabal tartean ibili zala ezelan be ezin ukatu lei, Léclusek bere idazkietan ori argiro dino-ta.

Zabalak, aurrerago esan dodan lez, bere bialguntza-ibiltaldietan ainbat euskal itz eta esakera batu zituan or-emen Bizkaiko errietan. Lécluse euskal iztegia argitaltzeko asmoetan ebilela jakinik, 1828garren urtean Bizkaian baturiko itz eta esakera orreik, Añibarroren *Euskal irakaspidea* ta Axularren *Geroko gero* bat bialdu eutsazan Zabalak, len aitatu dodan Mendizabalen bitartez. Léclusek lotazilaren 13an lateraz<sup>103</sup> erantzun eutsan Zabalarari. Erantzun au Zarauzko lekaideak euren idazte-gian<sup>104</sup> dauke.

*Geroko gero* bialdu eutsalako, Zabalarari eskarrak egiten dautsaz eta berak ondo ulertzen ez zituan gauza batzuk, arren, adierazo daiozala be eskatzen dautso:

«Bialdu daustazun itz eta esakeren bilduma eder-ederra da –dinotso Zabalarari–. Baina itzak urrengorik urrengora, bakotxa bere tokian ipini barik eta izki zeegiaz idatzita dagoz. Geienez Bizkaiko cuskerearenak dirá; nozbait gazteleraz azaltzen dozuz, baina beste askotan czetariko adierazpenik ez daroe-ta, neure *Iztegian* sartu nai banitu, uts asko egingo ez ete neukezan bildur naz. Itz bakotxa bere tokian ipinita, izki argi ta garbiz idatzita bialdu baleust nire aiskide Mendizabalek zure itz-zerrenda au nire iztegi onentzat edergarri andia izango zan; baina neure kabuz zuzentzen eta berridazten asiko banintz, iztegia aberaskiz apaintzen dodalakoan, utsez beteko neunkela dirudit.

«1.º *Si pretiosa hoc collectio codem quo epistolae tuae stylo exornata foret, mihi sane non inutilis fuisset, futuroque dictionario grande decus attulisset, sed pro meo ingenio metueren ne pluribus mendis quam divitiis onerarem... Excusatum igitur me babeas si parvum e tanto labore fructum percepturus, hunc tibi, simul ac jusseris, remittere in animo habeam.*

«Eta zuk ainbeste nekegaz egin dozun lan onetatik onura gitxi baino atera ezin neiken ezkeru, adierazoko daustazun baizen laster itzuli egingo dautsut.

«Itz eta esakera oneik agaka jarraian balegoz be, onenak aututa *Iztegian* sartzea, niretzat lar astunegia izango litzake-ta, Larramendiren iztegiaren azkenaldean zcure itz eta esakeren bilduma ori, laburtxu ta izki

<sup>103</sup> *Latera*: latin.

<sup>104</sup> *Idaztegi*: artxibo, agiritegi.

argiz, naiz zeuk naiz aiskideren batek idatzita, ezin ipini ete lei? Orretarakotan berealaxe itzuliko neuskizu, ta nire iztegi onen irarkaldia pizka bat atzeratu ezker, zure esakerarik ederrenak, bakotxa bere lekuan sartzeko, astia egongo litzake noski.

«Añibarroren *Euskal irakaspidea* idatzita dagoan lez be, zerbaitera-ko izango jatala uste dot. Larramendik ez dakartzan eta bizkaierari berariz dagokiozan atzizkiren batzuk artu ta autu al izango ditut eta origaitik, bein-bein, itzultzeko asmorik ez daukat.

«2.<sup>o</sup> *Non item de grammatica: ut ut, scripta sit, ut ut redacta spero me aliquod verborum bizcainorum desinentias; quibus caret "El Arte de Larramendi", ex ea deprompturum*».

Dirudianez, Zabalak Lécluseri auxe be itandu eutsan: «Zeure iztegi orren irarkaldi berezi bi egiten ibili barik, bat bakarra egin eta bestearen ordez gazteleratik euskerarakoa ezin egin ete zinei?» Eta Léclusek daran-tzutso: «Bai, ene aba; orain beingoan ez, baina geroago, Jaungoikoa lagun, ori ta prantzeratik euskerarakoa be argitaltzeko asmoa daukat». Asmoa bai, noski; baina euskeratik erderarakoa be irarri<sup>105</sup> amaitu barik il zan ainbeste asmoon bere buruan erabiltzan Toulousseko irakasle au.

Zabalak bialdu eutsozan eta lenago aitatu doguzan idaztiak Léclusek areri nozbait itzuli eutsazan ala ez ziur ezin esan nei; baina ezetz deritxat. Añibarroren *Euskal irakaspidea* nondik nora ibili dan eta non egon leiteken ez dakit. Zabalaren eskuz idatzitako *Iztegia*, Bonapartek bere eskuetara joan zala argiro dino (*Remarques sur certaines assertions de M. J. Vinson concernant la langue basque*, 1884).

Euskal aditzak aldi bakotxean 206 irabiakera<sup>106</sup> eukazala idatzi eban Astarloak bere aldizti edo apologian. Astarloaren esan au ames utsa zala-koan, askok irri ta barre egin eben. Beste batzuk, ostera (oneitarikoa zan gure Zabala be), gauza anditzat etsi arren, gizon benaren esana zala-ta, adizpiakera<sup>107</sup> orreik zeintzuk ete ziran jakin nairik buruausterik asko erabilen. 1821garren urtean Astarloak idatzitako ingurti bat Zabalaren eskuetan jausi zala aurrerago esan dot. Aitaturiko 206 adizpiakera orreik zeintzuk ziran ezagutu al izateko, argirik asko emon eutsan Zabalari durangoar euskalariaren ingurti onek eta gai au bere aiskide Lécluseri adierazoteko asmoz, adizpiakera orreik edaz idatzi ta azaldu ebazan Zabalak 1829garren urtean. Zabalaren eskuz idatzitako lan au Prantzisko Deunaren semeak Zarauzko euren idaztegian dauke. (Nota. El P. Zabala en su *Verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno* pag. 8, § 5,

<sup>105</sup> *Irarri*: inprimidu.

<sup>106</sup> *Irabiakera*: jokabide.

<sup>107</sup> *Adizpiakera*: aditz-joko.

dice: «Al presente no nos servimos de artículos peculiares para las conjugaciones de recipiente con paciente de 1.<sup>as</sup> y 2.<sup>as</sup> personas, sino que las expresamos con los absolutos; y decimos del mismo modo “aquel me ha vendido, *ak saldu nau*” y “aquel me ha vendido a mis enemigos, *ak arerioai saldu nau*”; “tú nos ofreces en el templo, *elexan eskiniten gozak*”, y “tú nos ofreces a Dios en el templo, *Jaungoikoari elexan eskiniten gozak*”. Pero antes no era así, sino que a la manera que a los de paciente de 3.<sup>as</sup> personas, cuando tienen recipiente les añadimos después de la radical la característica que indique dicha función del nombre, así se añadía en igual caso a las de paciente de 1.<sup>as</sup> y 2.<sup>as</sup>, y en las oraciones de los ejemplos se decía: *ak arerioai saldu na-u-tse*; *ik Jaungoikoari elexan eskiniten go-tsa-zak* o *gau-tsa-zak*. Este uso ha debido durar hasta casi nuestros días, y algunas personas me han asegurado que le han oído poco o mucho».)

Nik dakidala inoz ez da argitaldu. Zabalak ingurti onetan luzez azaltzen dituan adizpiakerak, Astarloak bere *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva* deritxon liburuaren 708garren ingoskitik<sup>108</sup> 728garrenera bitartean aitatzen ditu; baina, nire eretziz, gaur dazaugun euskereari Zabalaren aditzerak Astarloarenak baino obeto dagokioz eta gerorako itxi barik, berealaxe irarri ta argitaldu bear litzakezala uste dot.

Euskeran *zu* oraintukoa ta alboetako erderak arrerazoa zala idatzi eban Oihenartek. *Zu* baino *zuek* aurreragokoa dala ta bigarren oni bere azkenengo izki biak kendurik, nozbait geroago *zu* egin zala. Oihenartek ori esan baleu, olakorik inoz ez dala egin dinoskun Zabala zuzen legoke, naste txar au alderantzira egina da-ta; baina Oihenarten esana Zabalak oker ulertu ebala deritxat. Ingurti onen 21garren ingoskian (bizkaierazko bere aditzaren 164garrenean bè bai) notin<sup>109</sup> bakar batekin izketan diardugula erabili oi dogun *zu*, euskeran *i* baizen antxinakoa dala dino Zabalak. Ni be orretan nago, baina euskeran *i* baizen antxinakoa dogun *zu* ori jatorriz askarra<sup>110</sup> da, beinola (*zuek* euskeran sartu baino len), askori itz egiteko erabili ori zan bigarren notina. Euskalki guztietan *zuri* dagokiozan aditzeraz ori argiro darakuse ta inok be ezin ukatu leikela deritxat.

Zabalaren aburua zuzena balitz, berak eraldutako *zauts*, *zausku*, *zautsat*, *zautset* be zuzen legokez; baina *zu* askorena izatetik bat bakarrarena izatera ekarri zanean, berari egokiozan adizpiakera guztiak be

<sup>108</sup> *Ingoski*: orrialde.

<sup>109</sup> *Notin*: lagun, persona.

<sup>110</sup> *Askar*: plural.

jarraitu egin eutsen eta augaitik, beinola egokiozan adizpiakerak orain be dagokioz: *zaustaz*, *zauskuz*, *zautsadaz*, *zautsedaz*.

Zinez, *zu* bere tokitik atera ta orren orde *zuek* sortu eben euskaldunak, euskereari orban andia iratsi<sup>111</sup> eutsen. *Zuri* bereak ebazan aditzerak itxi ta *zuek* ontzat artu ezkeru, onentzat aditzera barriak bear ziran. Oneik zirala-ta, gure erriak, Bizkaian batez be, naste izugarria sartu eban; naste au baino gauza negargarriagorik euskeran ez dazaut. Nasterik gitxien dakarren aditzerak autetsi ta besteak alde batera itxiko bagenduz be, guztiak oker eralduak dira-ta, euskereari iratsi jakon orban baltz ori garbitu barik geldituko litzake.

Motin bategaz itz egiteko *i* erabili ta *zu* bere tokian itxi balitz, gaur onelako nasterik ez geunkan. Zuzenena orixe izango zala dirudit. Baina auzokoen koipekeriak euskeran sartzearen, *zu* bere tokitik atera zan eta orrek utsik itxi eban tokia hetetako, *zuek* sortu bear. An egin arren be, *zuren* aditzerak *zuek*entzat itxi ta arentzat, notin bakarrari egokiozan lako aditzera barriak sortu balira, askozaz be naste gitxiago sartuko zan gure euskeran. Aldia zanean ori egin balitz, bai, Zabalaren aditzera oneik, *zaust*, *zausku*, *zautsat*, *zautset*, egoki letorkez; baina orretarakotan, *zaitut* naiz *zaudazen* orde *be*, *zaut*, *zau*, *zaugu*, *zabez* esan eta erabili bear litzakez, *za* ori batean notin bakartzat eta bestean askartzat erabiltzea, gauza zuzena ez da-ta.

Zabalaren eskuz idatzitako beste lantxu bi badira. Batari *Elementos de la lengua bascongada* deritxo; besteak idazpururik ez daroa. Bietan euskal aditza azaltzen dau ta gauza batzuetan 1848garren urtean irarri zan eta aurrerago aituta dodan *Bizkaierazko aditza* dirudi; baina bardinak ez dira. Idazti onein jabe gaur Urkixo jauna da.

*Urteko domeka guztijetarako berbaldi ikasbidekuak* deritxon Astarloa abaren euskal idazia zuzentzen be ekin eutsan Zabalak. Geienez, itz batzuen orde beste egokiago batzuk ipinten ditu; baina bein baino sarriago joskerea be zuzentzen dau. Zuzentzerik geienak Astarloaren lenengo liburuari dagokioz; bigarrenari gitxi batzuk baino ez. Zortzi ingurrazti<sup>112</sup> idazti ebazan, baina aspertu zalako-edo, Astarloaren okerrak zuzentzeko asmoz asi eban lan au, ez eban guztiz amaitu. Zabalaren eskuz idatziriko ingurrazti oneik Zarauzko lekaideak euren idaztegian daukez.

Euskereatzaz beste lantxu batzuk be egin ebazan Zabalak; baina esandako orrein garrantzirik ez dauke. 1856garren urtean Barojarenean

<sup>111</sup> *Iratsi*: gaineratu.

<sup>112</sup> *Ingurrazti*: koaderno.

argitaldu zan idaztiño bati onantxe deritxo: «Larramendik aitatzen dituan euskal idaztiez gero argitaratu diranen barri».

Berreun ieki<sup>113</sup> bakarrik eta Bonaparteren lepotik irarri ziran. Lan onen egilea Hernaniko apaiz Iturriaga jauna ete dan dinoe batzuk, baina beste askok Zabalak egina dala uste dabe. Larrinaga abak dinostanez, lan onen idazti jatorra len aitatu dogun eta Zabala ta Léclusen bitarteko izan zan Mendizabalen eskuz egina da. Vinson jaunaren eretxiz, euskal idaztien barri emoteko gure artean egin diran lanetatik oso ta orniduen, auxe da. Jakin dodanez, Zabalak beste jaun bi lagun ebazala, Iztuetaren *Kondairatzaz* bere eretxia emon eban eta beste orrelako lan labur batzuk be egin ebazan. Baina onetzaz naiko; goazan orain irugarren eta azkenengo arlora.

\*\*\*\*\*

### 3. *Zabala ipuingin: bere ipuinetzaz berariz*

Ipuina barre eragiteko baino bestetako ez balitz, gizon elduen zeregina baino ume-jolasa obeto izango litzake. Ondo egindako ipuinak barre eragiten dau, bai, bein baino sarriago; baina ezpanetara irri-barrea erakarriaz gizasemeai euren irrirts<sup>114</sup>, zalekeri<sup>115</sup>, grina ta oitura dongeak darakutsez eta orrelakoren baten otsein eta jopu<sup>116</sup> diranai, olgetan-benetan, akar<sup>117</sup> eta agiraka be egiten dautse.

Ipuina asmauriko jazopenen baten edesti laburra da. Bein baino sarriago gizasemeak, baina geienez jazopen orren egile abereren batzuk izan oi dira. Edozein ipuinek egiantza<sup>118</sup> euki dagiantzat, bere egile diran abere orreik euren izakera bereziz, euren olde<sup>119</sup>, usma<sup>120</sup>, seta ta gainerako azturaz ager beitez, eta bere *izkerea* erreza, ta ipuinginak dinoana sinetseko baileban, tolesgabea izan bedi. Ipuinez dinoguna abere artean jazo dala esan arren, gizonen garramura<sup>121</sup>, irrirts, leza<sup>122</sup>, grina, zalekeri ta egiteen irudi bizia izan oi dalako, ume ta ez-jakinak

<sup>113</sup> *Ieki*: ale.

<sup>114</sup> *Irrirts*: grina.

<sup>115</sup> *Zalekeria*: bizio, grina txar.

<sup>116</sup> *Jopu*: agindupeko.

<sup>117</sup> *Akar*: errieta.

<sup>118</sup> *Egiantz*: sinisgarritasun.

<sup>119</sup> *Olde*: gogo, gurari.

<sup>120</sup> *Usma*: sen, intuizino.

<sup>121</sup> *Garramura*: lizunkeria.

<sup>122</sup> *Leza*: barruko gurari zital.



ezeze gizon argi ta jakitunak be ipuin onak atseginez entzun eta irakurri daroez.

Aurrekoari aserratu eragin barik, bere uts eta akatsak erakutsi ta agiriraka egiteko, ipuina berebizikoa dala-ta, beinola ipuinak zereginik andi ta astunenetan be bein baino sarriago erabilten ziran. Menemio Agripak urdail eta beso-zankoen ipuinaz Erromako erri aserratua baretu, baketu ta menditik urira ekarri ebalá, Natan igarleak Dabit erregeari aberats eta txiroaren ipuinaz bere erru edo obena ezagutu ta autortu eragin eutsola, gure Jaunak be, ipuin bidez egi andi ta sakonak sarri adierazo ta irakatsi zituala nik baizen ondo dakizue.

Batzuen eretxiz ipuina aldi bateko gitxiren nauskeri<sup>123</sup> ta askoren joputzak<sup>124</sup> sortutako elerti era da. «Egiak erran eta adiskideak gal» esan daroe benapartarrak eta ori sarri jazo oi da; «egiak esan eta nagusia aserratu», au oraindik sarriago. Baina egia irudi ederpean ezkutau arren be, latz, garratz eta mergatza da-ta, jopuak euren nagusi arroai ipuin bidez egiak esan eta agiraka egiten azartuko<sup>125</sup> ziranik ez dot uste. Irudimen bizidun errietan, jakintzan aurreratuz batera, iturritik ura lez, berez sorturiko elerti era obeto dirudit. Ipuinaren seaskea sortaldeko errietan idoro daiteke noski; geroago Aisopa Eladan eta Fedro Erroman ipuingin ospatsuenak izan zirala eta oraintsukoen artean La Fontaineri urrik emotekorik ez dagoala orok dakigu. Gure Zabala onein ondoan ipintekoa ez da, zinez; baina aintzat artzekoa, bai.

Bizkaierazko aditza azaldu ondoren, zutano ta itanozko era biak noz egokiro erabili daitekezan be adierazoten dau Zabalak. Bigarren gai onetzaz diarduala, 166garren ingoskian, auxe dino: «Izkirimiri, ipuin eta onein antzeko idaztietan itanozko aditzera au aske, jarei ta sarriago erabili daiteke, ta antzez eta zurtasunez erabili ezkerro, berarizko gatz, edertasun eta atsegina emoten dautse. Gure ipuin-idazle Mogeldar Bizenta andereak bederatzi ipuinetan pizka bat erabili dau. Al baleu zabal eta sarriago erabili, bere ipuinak gazi-gozo, eder eta atseginoak izango ziran-ta! Nik be, amahi inorenez eta neure ogetakaz egindako ipuin bilduma baidaukat, eta ipuin oneitan itanori dagokion *zabalerea* emoteko ardurea artu dot».

Zabalaren ipuin oneik nondik nora ebiltzan emen inok ez ekian; beste gure gauza asko lez galdu-edo egin zirala uste zan. Baina 1904garren urtean Azkue jaunak Parisko liburutegia ikertu ta aztertzen

<sup>123</sup> *Nauskeri*: autoritarismo.

<sup>124</sup> *Joputza*: menpekotasun.

<sup>125</sup> *Azartu*: ausartu.

inarduala, bizkaieraz idatzitako ogeta amabost ipuin idoro edo aurkitu ebazan. Norenak ziran ez inoen, baina irakurten asi zanekoxe, Zabala-renak zirala Azkueri zanak emon eutsan eta Urkixo jaunaren aldizkingi<sup>126</sup> edo errebistan Zabala-ren ipuintzat argitaldu ziran. Zabalak bere bizkaierazko aditzaren azkenaldean dinoan ori gogoan artu ta ipuin onein izkera ta idazkerea ondo oartu ezkeru, gai onetzaz ezetariko zalantza edo ezbairik inok be ezin euki leikela deritxat.

Berba aurrekoa, sarrerea, antxinako euskaldunen alabantzak, ipuin aurreko jakinbearra ta ogeta amabost ipuin dira guztiz. Zabala-renak, zeintzuk etc dira? «Isopo agurea jolastuten ta olgetan» idazpurutzat daukana, «Perugaz Joanen arteko berbetea» deritxonaren urrengo doa, ta bilduma egin ta gero erantsia dala agiri da. Egileak aitzinsolasean auxe dino. «Ogeta bat dira neureak ta amabi besteenak, ta bitzuok alkar jota, ogeta amairu guztiak. Onei aurretik ganetu jakez euskaldunen alabantzak, ez dakit nik norenak, eta atzetik "Perugaz..."», Mogelena». Andera onek bere ipuin onak argitaratu zituanean (Donostian 1804garren urtean) auxe idatzi eban: «Esan nuen len berso ipuizko oiek ez dirala nere burukoak. Pilo andi bat dauka eginda nere osaba jaunak, eta pilotik artuak dira emen ikusiko diran gitxi batzuk». Onelan ba, ipuin onein biltzaileak 3, 6, 12, 15, 20, 25, 28, 30, 31 ta 32garrenen azpian «Mogelena» idatzi eban ezkeru, aitaturiko ipuin oneik *Peru Abarkaren* egilearenak dirala egin ukatu ginei; 21garrena, Salaberrirena, ta enparauak<sup>127</sup> Zabala-renak. Baina onek azaltzen dituan gairik geien-geientsuak, antxinako ipuinetatik arturikoak dira.

«Nok esango eustan neuri –dino Zabalak– ipuinginan egingo nebala? Nik beintzat ez neutsan sinistuko asko .... Alanda guzti be, makalaldi baten beste gauzatarako ez nintzanean prestu, eta oean besteetan baino astiroago egon bear izaten nebanean, ene atsegingarrirako, uste ez neban eginen oneri eutsi ta ekin neutsan, eta neureak geienak orduantxe eginak dira .... Berba neuruetan dagoz eta neurri labur-luze ta geraldin era askotakoetan, eta onelangoak gogoa joteko, begizkoa egiteko ta errezago oratu ta erantsiteko, berezko gatz, gazigarria ta uia<sup>128</sup> izan daroe.»

Gure artean askok erabili daben euskera mordoilo, loi, ezain, itxusi ta lotsagarria gomutau ezkeru, Zabala-ren ipuin oneik euskera garbi ta ederrean dagozala esan daikegu; baina, tamalez, gatz eta gazigarri gitxi-

<sup>126</sup> *Aldizkingi*: aldizkari.

<sup>127</sup> *Enparau*: gainontzeko.

<sup>128</sup> *Ui*: bike.

txu dauke. Gaiak, bai, gaiak egokiak dira; baina *egostarin* eta *gazaegi* dagoz-ta, ipuin bikainak daukaguzanik ezin esan daikegu. Batxu baka-  
rrik, laburrenetarikoan atan be, irakurriko dautsuet, zelakoak diran zeuok  
oartu dagikeze. Bigarrena da:

*Zaldi arroa ta asto apala*

Zaldi arroa bitxiz ta zidarrez  
tint apaindua, jabea ganean  
eukala, joian ibilte galantez  
bere bidean.

Onen betea daroa burua,  
baita ain dago burueretxia,  
ze, zabal dala..., datorko estua  
bide guztia.

Astoa barriz azur-uts, goseti,  
buruz berarik, arrainen<sup>132</sup> azpian  
etorren geldi aurreko bideti  
bere andiran.

Zaldito putzak, buru jagiagaz  
irrintz eginik, zearka begira  
bete-betea ta abrigu txarragaz  
dirautsa: «Jira».

Asto ikuski ta lotsabakoa,  
niri bidean ez egin aldera?  
Bada ostikoz... Ken laster, ken; oa  
bide-munera.

Asto gaxoak bildurraren nekez  
ez daki nor dan ta konor<sup>129</sup> guztiak  
joanik daukaz, jo baleban legez  
oinaztarriak<sup>130</sup>.

Zan andik ara bularrez idigi<sup>131</sup>  
zaldia, eta jaunak sats-lorrean  
galdu zalako, apainak edeki  
ta agindu eban.

Gerora astoak zaldia zamari  
eginik dakus ta arroa simaurdun  
eta dirautsa gaiztoz makalari:  
«Agur, o lagun».

Ea, gizona, egiten badozu  
geriz apur bat; ez, arren, arrotu:  
normairi berba gozo egiozu  
ez ostikotu.

Zer deritxazue? Gatz gitxitxu daukela, ez al da ori? Zabalak berak be  
orretako zerbait igarri ebalá dirudit. «Nik gura neunkeana da –dino itzau-  
rrekoan– oneetatik bidea artuta edo ainbagakoan, nik baino buru, *gatz*,  
asti ta gogo ohea daukanen batek, geiago eta ederragoak egin balegiz.»

Nik nai neunkena be orixe da. «Gure euskaldunak ipuinzaleak dire-  
ala badakit», dino Zabalak. Gaurkoak be ete dira? Baleiteke. Baina Biz-  
kaiko euskaldunak, gure baserritarrak batez be, euskera irakurteko atze-  
ra ta nagi dagozala egunoro dantzugu ta geure begiz dakusgu. Onetara-  
ko jaio danen batek bere eskuak lanari ezarri begioz: gazi-gozaan ondo

<sup>129</sup> *Konor*: korde.

<sup>130</sup> *Oinaztarri*: oinaztu, tximista.

<sup>131</sup> *Idigi*: idegi, zabaldu.

<sup>132</sup> *Arrain*: ohol.

ipini, ta ipuin atsegin eta zoragarriak begiz, Zabalaren eretziz ipuinzale direan euskaldunok, noz edo bein bizkortu ta irakurtzale be egin daitezana.

Amaitu dot. Eroapen andiz entzun daustazuelako, eskarrak dagitsuedaz. Neure lan txatxar<sup>133</sup> onen akats andi ta utsune agiriak ezin ukatu neiz. Zabalaren izen eta ospeari zor jakon baino askozaz laburrago gelditu nazala ondo dakit. Au dala-ta, nai dozuen beste agiraka egidazue; baina lan ederragoa egiteko asmoa izan dodan ezkerro, edolabe nire asmo on au onetsi egizue. Eta euskeraren alde geure asmoen ideko lanak, lan andi ta ederragoak egiteko, guztioi Jauna lagun bekigu.

---

<sup>133</sup> *Txatxar*: ziztrin.

**EGUZKITZATAR J. B. EUSKALTZAIN JAUNAK**  
**KARMELO ETXEGARAIRI**  
**EUSKALTZAINDIAN SARTU ZANEAN**  
**IRAKURRITAKO ITZALDIA**

Ogeita zazpi bat urte badira, gutxienez; alaz ere, atzo izan bailitzan oroitzen naiz. Gasteizko nere ikastaroa bukatu ezker, egunik galdu gabe, nere etxe-zilora, gurasoen ondora, itzultzen nintzan, beste nere ikaskideak bezela, ni ere alai ta pozez.

Nere erriko apezak, arratsalde oroz, ango jaun baten etxean batzen ziran, eta arratsalde apalean, zerbait irakurtzeko asmoz, ara joaten nintzan ni ere. Urte baten –zein izan zan ez dizutet esango, ez bainaiz oroitzen gutxi gorabera baizik– irakurgai berri bat aurkitu nuan etxe artan: Azkue jaunaren *Euskalzale*. Erderazko albistariak, ikustalditxo bat eman ondoren, sakelean sartu ta beren etxeetara eramaten zituzten apez jaunak, gero asti geiagor eta zeatzago irakurtzeko asmoz; *Euskalzale...*, ez.

Euskera zaila zekarrela, irakurri ere ezin zutela, begiak nekarazi ta buruak austeko egina zirudiala... Au zala, ori zala, beren etxeetara eraman ere ez zuten nai izaten. Iru zenbakitatik bi gutxienez an uzten zituzten beti, eta neronek artu ta nere etxera eraman ez banitu, an geldituko ziran, inori bururik ausi gabe.

*Auñamendiko lorearen* atal batzuek orduantxe irakurri nituan lenbizikoz. Oporraldia bukatu ezker, berriz Gasteizerako bidea artu bear izaten nuan, eta gure lankide maite izan zan Agirre jaunaren idazti osoa ez nuan aldi artan irakurri; baina irakurritako atalak atsegin izan zitzaizkidan eta eleztaldi berezia egin zanean, *Auñamendiko lorea* eskuratu ta joranez<sup>135</sup> irakurri nuan burutik beateraino.

Irakurgai onen itzaurre edo sarbidea –badakizute– Etxegaraiko Karmeloren lana da. Sarbide ura idatzi zuan jaun argi, idazle antzetsu<sup>136</sup> ta

<sup>134</sup> Argitaratua: «Eguzkitzatar J. B. euskaltzain jaunak Karmelo Etxegarairi Euskaltzaindian sartu zanean irakurritako itzaldia» in EUSKERA, VII (1926), 26-37 or. (Izendapen bibliografiko hau grafia moldaturik dago.) Gipuzkeraz idatzita dago.

<sup>135</sup> *Joranez*: grinaz.

<sup>136</sup> *Antzetsu*: trebe.

bikain onek, Euskaltzaindian sartzeko noizbait, egunen baten, irakurriko zuan itzaldiari nik erantzungo niola orduan inork esan balit, a nolako barre-algara egingo nion nik! «Amets zoroa da ori –esango nion–; bururik duan gizonek sinetsi ezin dezaken amets utsa!»

Inolaz ere sinetsiko ez nuan eginen au Euskaltzaindiko nere lagunak eman zidaten, eta orduan ezetz esateko kemen eta ausardirik euki ez nualako, orain nere eginkizun au, al dedan bezela ta ez nai nuken bezela, egin bearko det.

Eta zinez, zure itzaldi mamitsu orri erantzuteko bazan gure artean ni baino gaiago zanik. Batez ere, gipuzkoeraz erantzun bear zaitzun ezkerro, euskalki xamur eta lirain au bere amaren magalean edoski duan edonork, irakurriz zerbait ikasi besterik egin ez dedan gaizo onek baino eun bidar egokiago egingo zuan lan au. Nire lagunak ordea –nik ez dakit zergatik– berak garako gizonak diralarik, Euskaltzaindiko atea iriki ta zuri, jaun agurgarriorri, «atoz barrura» esateko gipuzkoeran garerdira ere eltzen ez naizan txiki totel au bidali naute. Au dela-ta, gutxi dakiten txiroak gizon aundi, argi ta jakintsuen aurrera bezela, ni ere Euskaltzaindiko atarian labur eta motz, beldurti ta lotsor aurkezten natzaitzu; baina asmo ta gogo onez natorkizula zeorrek ere badakizu-ta, atarira bidali nauten mezulari baldar onen ongi etorria ar ezazu lenbizi; gero, atoz nerekin etxe barnera ta zuretzat aspaldi degun esertokian eseri zaitte. Nik egin dizudan au baino arrera obe ta txera andiagoa egingo dizutela, besoak zabalik, biotza pozez, ezpainak irriz artuko zaituztela etxeke guziak esan didate; eta ontan gezurrik ez dizudala esan, euskaltzain orok, bata-bestearen ondoren, aiskide antzo eskua ertsiko dizutenean, zuk zeorrek zere begiz ikusiko dezu. Euskalerriko liburutegi guziak ajo-laz ikertu ta idazti zarrak –gure artean diranak beintzat– astiz eta arretaz irakurri ta aztertu dituzun langile azkar, idazle garai ta jakintsuori, Euskaltzaindian abegi onez eta pozaren pozez artzen zaitugu. Ongi etorria izan zaitte!

\*\*\*\*\*

Ongi etorria eman ondoren, zure itzaldi eder, luze ta sakon orri zertxobait erantzungo diot. Bere gaitzat Mogeldarrak artu dituzu. Osaba ta bi iloben bizitzak, zeorrek dakizun bezela, ederki edestu ta azalduaz, euskeraren alde egin zituzten lanen berri ere argi ta garbi eman diguzu. Nik dakidala, Mogeldarrak euskera piztu ta pizkortzeko<sup>137</sup> egin zuten

<sup>137</sup> *Pizkortu*: bizkortu, zolitu.

lanik aipatu gabe ez dezu utzi. Alaz ere, *Kristinau Ikasbide luzea* deritzaion eta eskuz idatzita dagoan beste liburutxo bat badazaut. Mogeleana dan ala ez ziur ez dakit; baina aurrerago bere jabe izan zan apez jaunak Mogelena zalako susmoa zeukan, eta azalaren barrualdean ipini zion oartxo baten orrela dio.

Mogel zarra –zuk esan dezun bezela– euskeraz eta erderaz ari zan; gai askotaz idatzi zuan, eta bere eskuz landuriko sail guzietan gizon jakintsuaren lorratz agiriak utzi zizkigun. Bere iloba apezak gutxiago idatzi zuan, zinez; baina onek ere aski ta aldi artarako, naiko ongi. Beste iloba andreak ipuiak eta beste zerbait baizik ez zuan idatzi; ori ta guzi ere, emakume zalarik, bestek egiten ez zuan aldi artan, euskeraz idazten ari zalako gere txaloak zor dizkiogu.

Mogeldarrak beren lanaz irabazi zuten mailan ipintzeko, zuk esan dezun ori aski dala deritzat. Berriz orri ikutu nai banio, zure buru argi ta idazkortz<sup>138</sup> antzetsuaz ezin obeki egin dezun lan ori, nere esku maldarrez lorrindu egingo nuke; buruan ipini diezun burestun<sup>139</sup> eder ori alperrik galdu besterik ez nuke egingo-ta, gai ortaz jardutzeko asmorik ez det. Ori ortan bego, ta Mogeldarren aldi artaz eta gure ontaz zerikusi duan beste zerbait aipa dezagun.

\*\*\*\*\*

Euskaldun euskaltzale gutxi, guziz gutxi, izan ditugu gere arbasoetan. Odolez euskotar izateaz bai, gaur eguneko beren seme asko bezela, gure asabak ere maiz arrotu dira. Ontaz, emen bertan eta emendik urruti, beren buruak goretsi dituzte; baina beren jatorri ori gauza aundizat bazuten ere, euskeraren alde ezer egiteko, beren izkuntza zaitu, euskeraz idatzi ta irakurtzeko –Madariaga arratiarrak aserre biziz arpegiaren ematen zienez– beti uzkur eta soratio<sup>140</sup>, sor eta gor egon dira.

Humboldt Euskalerrira etorri aurretik, kristau ikasbideren bat edo beste izan ezik, beste irakurgairik ez genuen bizkaieraz. Euskaldun oro ortan lander eta txiro asko ziran naski; baina guzien artean txiro ta landerrenak, gu bizkaitarrok ginan. Garai artan esnatu ta zerbait pizkortzen asi ginala dirudi. Euskeraren alde, aurrerago ez bezela, lan egin zan beintzat. Lekaide ta apez batzuek batez ere, euskera lantzeko arlo oni gogoz ekin zioten. Au on egiteko, Mogel biak, Astarloa biak, Añibarro ta Bartolome aba karmeldarra aipatzea aski izango da.

<sup>138</sup> *Idazkortz*: idazkera.

<sup>139</sup> *Burestun*: koroi.

<sup>140</sup> *Soratio*: nagi, ardura barik.

Oiek bai, gogo beroz lan egin zuten; baina, zoritxarrez, beren lana erriak ez zuan aintzat artu. Euskal arazoetan, aurrerago bezela orduan ere, erria gelbera<sup>141</sup>, soraio, otz eta gogaikor zebilan. Apez asko ere nola zebiltzan, Mogelek berak esaten digu, *Peru Abarkan* dakarren lekaide<sup>142</sup> ta apezaren arteko elkarrizketan. Praileak onela dio: «Abade askok nazaude ta gitxi-gitxi batzuk baino aurkitu ez ditut euskerazaleak. Gura leukee jakin, baina neke baga atxurlari alperrak legez». Euskaltzale aien lanak apez askok orrela artu zituzten; eta beste enparauak nola?

Aundizkiak<sup>143</sup> euskera aintzat artzeko, aundi ta arroegiak ziran; baserritarrak, beren autu ta arremantetan egunero euskera zerabilten baserritarrak ere, narda<sup>144</sup> ta gorrotoz ez, baina eurite luzearen ostean berriz euria jausten ikusi oi duten gogaitza ta aspertze aundiz artu zituzten geienak. Begi onez ikusi, irakurri ta erabili..., gutxik, guziz gutxik. Augatik egun aietan euskeraren alde piztu zan garra, laistertxe iraungi<sup>145</sup>, itzali zan, eta aurrerago bezela edo gaizkiago gelditu ginan.

Gure egun auetan ere, aul eta makal dagoan euskera pizkortu ta sendotzeko asmoz, lan ederrik asko egin da, ta dirudianez inoz baino joran eta gar geiagoz. Apez, apezgai, lekaide ta Euskalerriarekiko maitasuna beren biotzetan nabaritu duten beste askok, euskeraren alde bene-benetan lan egin dute ta orain ere badagite; gure erritar geientsuak, ordea, gure nekazari, arrantzale ta langileak, Mogelen aldian bezela orain ere, lozorroan daude. Gutxi batzuek bai, beren asaben izkuntza, odolaren mintzoa, abendaren arnasa bezela dala-ta, euskera maite dute, irakurri ere zerbait irakurtzen dute, beren aurrari ere irakasten die. Beste asko ta askok, ordea, ezetariko garrantzirik ez die ematen; amaren magalean ikasi zutelako beren arremantetan badarabilte, baina maitasun-izpirik ez die ta, zama astuna bere bizkarrean daraman lepakari<sup>146</sup> nekatua bezela, oiek ere aspertu, nagitu ta gogait eginak daudela durudi.

Zerbait irakurri duten beste batzuek, euskerak duan garrantzia bada-akitela ta beren izkuntza maite dutela esango dizute. Zoritxarrez maitasun ori mingainean baizik beste inon ez da agiri. Euskerari indar emateko, eskolak ipini bear lirakela..., bear bezelako libururik ere ez daukagula..., au, ori ta bestea egin bear litzakela, maiz entzungo diezute erostale<sup>147</sup> oiei. Bien bitartean, berak, beren etxeetan, beren aide, aiski-

<sup>141</sup> *Gelbera*: erkin.

<sup>142</sup> [*Lekaide*: praile.]

<sup>143</sup> *Aundizki*: handiki, eragin handiko.

<sup>144</sup> *Narda*: higuin, antoju.

<sup>145</sup> *Iraungi*: amatau.

<sup>146</sup> *Lepakari*: soinkari, zamaketari.

<sup>147</sup> *Erostale*: erostari, auhendari.



de ta ezagunen artean, euskerari eusteko ezertxo ere ez dute egingo. Eskola ta liburu, ta beste gauza asko ere ongi letozkigu, zinez; baina ez dauzkagula-ta, ezer ezin egin genezakela uste izan bear ote degu?

«Batez ere aurrai erakutsi —esan zigun uri ontako seme argi Elorza jaunak Durangoko Euskal egunetan—. Baina ez eskolen zai egon, ez libururik ez dagoala esan. Oriek aitzakiak besterik ez dira. Etxean, kalean, baserrian, edozein tokitan erakutsi lezaioke aurrari euskera, nai izan ezkeru. Neke geiago bear dituzten makina bat gauza buruan sartzen zaizkie aur gaxoai.»

\*\*\*\*\*

Egi aundia da ori. Liburu gabe, eskola gabe ta etsaiak gudurik gogorrena egiten digutelarik ere, guk geronek baldankeriz<sup>148</sup> antzi ta utziko ez bagenu, euskaldunok bear bezela, zinez eta benetan nai bagenu, euskera biziko litzake. Aurrerapide aundirik ez luke egingo, ori ez; baina..., bizi? Euskaldunok egiz eta zinez nai bagenu, gure odola izoztu ta il, beren adore ta kemena guziz akituko litzaken eguneraino, euskerak ere iraungo luke.

Gere biotzen giltza geronek degu; eta geronek nai ez degula, gere gogoen argia itzungi<sup>149</sup>, maitasun-garra itzali, barneko ernemin eta kimak ebaki, ta gogoaren bizia irato lezaken etsairik ez dago. Euskeraren etsairik aundiena, gaiztoena, gogorrena gere baldankeri, zabarkeri izugarria da. Gure gogoen giltza geronen eskuan dagoalako, euskeraren bizia ere euskaldunon eskuan dago. Euskaldunen artean, zorigaitzoz, beren izkuntza maite ez dutenak askotxo dira, ta oraindik siniskaitzago dana, gorroto bizia diotenak ere ez dira gutxi. Au dela-ta, euskera iletsi bear ote degu? Euskera maite dutela dioten asko, ain baldar, ain nagi ta zabar<sup>150</sup> ez balira, beren maitasun ori egintzaz balerakuste, berak —ez dakitenak baldin badira— ikasi ta beren aurrai ere irakatsiko balie, beste enparau oiek euskeraren alde ezertxo egin ez arren ere, bere bizi az etsy bearrik, geren ustea galdu bearrik ez genuke.

Lapondarren<sup>151</sup> esakun<sup>152</sup> batek dionez, arraia usteltzen burutik asi oi da, eta erriak ere bai. Euskerari bere galbiderik nagusia aundizki ta aberatsetatik etorri zaio, ta eginkizun nazkagarri ontan gure erriko *ikas-*

<sup>148</sup> *Baldankeria*: itxikeria.

<sup>149</sup> *Itzungi*: amatau.

<sup>150</sup> *Zabar*: ardurabako, baldan.

<sup>151</sup> [*Lapondarren*: errusitarren.]

<sup>152</sup> *Esakun*: esaera.

*tunak* askotxo lagundu die. Euskeraren galtzeaz erri ikaskabeak ere bere obena, bere errua badu; baina gaizoak obendun danez ere ez daki. Ikas-teko betarik izan ez duten nekazari ta langileak erri bakoitzaren aiurri, mendu, ta izakera bereziaz argirik ez dute: berezkin<sup>153</sup> oiek zaitu naiz galdu aenbaten<sup>154</sup> zaie. Augatik, erria, bere izakera ori galduz, eriotz lezara buruz aurre balijoa ere, ori galerazteko beren kabuz ezertxo ez lukete egingo. Ez ba! Ezagutzen ez duan gauzarik inork ez du maite, ta maite ez duan gauza zaitzeko lanik inork ez dagi. Ontan gure erri ikaskabeak, Jauna gurutziltzatu zuten judatarrak<sup>155</sup> bezela, jakinezaz uts egin du; beraz, erriaren obena ikastunena baino askotaz ere txikiago izan da; gaizoak oben egin duanik ere ez daki.

Euskera zaitzeak duan garrantzia, erri lauak ez, baina ikastunak bai, oiek badakuste. Geren arbasoai zenbat zor diegun, aiengandik artu degun izakera berezia zein dan eta orri iraurazteak nolako garrantzi aundia duan, ikastunak ongi dakite. Zinez, arbasoai gere izate guzia zor diegu. Aiek ziran bezela eusko seme ta euskaldun izan ez balira, gu ere orain gerana ez ginan izango. Beren seme geranez, zor diegun lotsa ta itzal orrek, euskera, aien eta gure arteko txibista<sup>156</sup> bezela dan izkuntza au, maitatzera garamazki, gure lankide izan zan Broussain jauna igitu<sup>157</sup> ta eraman zuanez. Bein batean Lacombe jaunari idatzi zion au entzun ezazute:

«Gogoak eta eskolak emaiten dautaten zioaz bestalde, bertze bat badut eskuararen maitatzeko, hau da Eskualherriko gauza guzientzat dudan maitatze beroa, irrintzinatik hasirik eta pilotaraino, ezen badirudit ene aspaldiko arbaso guzien mintzoak bat egiten dutela ene bihotzean, habarrots handi batekin oihu eginez eta erranez: «Eskualduna hiz, gu hire egile guziak eskualdunak ginen, eskualduntasuna maitatu behar duk!». Bai, segurki, ene arbaso maiteak zien manuari jarraikiren natzaio».

Ori zion Broussain jaunak; bere erri aldeko apez batek onela dio:

«Eskuaraz mintzo ziren gure arbasoak;/ jendeki, ahaidego, gizaldi osoak,/ eskuaraz mintzo gaiten hein ondokoak,/ haurrekin bereziki, zuek burhasoak./ Eskuara hain da eder, hain da maitagarri,/ non behar baitiogu laguntza ekharri;/ bizi dadin maitea, orai eta gero/ berma gaiten hortarat eskualdunak oro».

\*\*\*\*\*

<sup>153</sup> *Berezkin*: berezitasun.

<sup>154</sup> *Aenbaten*: seguru antzean.

<sup>155</sup> *Judatar*: judutar.

<sup>156</sup> *Txibista*: begizta.

<sup>157</sup> *Igitu*: bultzau.

Azkenaldi ontan euskeraren kaltean egindako makurrak anbat euskaldunek aitortu dituzte, ta ori ezagutu ta aitortu duten gazte ikastunak ere, ez dira gutxi. Zorigaitoz, oiek, beren ikasketak egiteko urrutira joan bearrak dira; baina askotxok euskerarekiko maitasun-garra beren biotzetan daramate. Ikastun orien artean badira oraindik euskeraren bizitza edo eriotzari dagozkion auzi oietzaz, zabar, uzkur, ajoiakabe dabilzanik. Baina ikastun diran ezkeroz, beren begiak iriki ta Euskalerriari arretaz begira badezaiote, euskera ziero galtzeak lekarzkigun kalte aundiak ere oartu ta ezagutuko dituztela deritzat. Ikastunak dira-ta; egiaren egarriz dabilta-ta, ortarako bidean daude. Biotzeko grina makurrak adimen-begiak lausotzen ez badizkie beintzat, oietako asko ere, aldi gutxi barru, besteen gogaide, beste beren ikaskideak bezela, euskaltzale egingo dirala uste genezake.

Orrela izongo ote da? Egiaren indarra aundia da-ta, orrela izan bear lukela dirudi. Orrela balitz, gure arteko ikastun geientsuak, gaurdaino euskeraren kaltean egindako makurrak aitortu ta itzez eta egitez –itzez bakarrik ez da aski–, itzez eta egitez beren buruak euskaltzale erakutsiko lituzketen egun artan, erri lau ikaskabeak ere euskera aintzat artuko luke: jakin gabez egin duan okerra, aitortu ta euskaltzale egingo litzate.

Uste betez itxadon oi ditugun gauza askok ere maiz uts ematen digute-ta, lenbiziko ura, ikastunen euskaltzaletzea, izango dan ala ez –ziur ez dakit-eta– ezin esan dezaket; baina ori beteko balitz, bigarren au erriaren euskaltzaletzea ere egin eta beteko litzake, aurrak nagosiagotan ikusten dutena bezelaxe, erri ikaskabeak ere ikastunengandik ikasi duana egin oi du-ta.

\*\*\*\*\*

Goian egon diranetatik etorri zaió euskerari bere gaurko auleri ta gaitz au: ikastunak, beren zabarkeriz, kalte aundia egin diote; baina sendakaia ere gaitza etorri zaion bide ortatik, goitik bera, etorri bear zaiola deritzat. Ortik ezpaletorkio, euskerarentzat beste sendabiderik ez dakust.

Erri lauak audizki ta ikastunengandik ikasi duan bide okerra, bere kabuz, bein ere ez du zuzendu: aiek lenbizi oker ori zuzendu ezik, erria bere bide okerrari jarraiki zaió, ta beste ezertan egin ez duana, euskal arazo ontan egingo duanik ez uste.

Goiko maila orietan dauden aundizki ta ikastunak –guziak ez baina geientsuak, bai– beren erria maite dutela dasate, beren enda<sup>158</sup> ta beren

<sup>158</sup> *Enda*: erraza.

jatorriz ilarraindu<sup>159</sup>, ta arrotzen dirala diote; baina euskera gabe, *euskaldunik ezin diteke; Euskalerririk, ain gutxi.*

Euskera dala-ta darabilgun auzi au, nolanaiko auzia danik ez uste: galdu ala irabaziko degun ez dakit, baina auzi onen irabazte edo galtzeak *garen ala ez erabakiko du.* Euskera zearo galduko litzaken egunean, geren izena ere galduko genuke. Bearbada, euskera guziz galdu arren ere, gure ondorengoak beren buruak euskaldun eta beren erria Euskalerrri deituko lituzkete. Izana galdu ezkerro, ordea, izen utsa zertarako da? Beartsuari aberats, beldurtiari azarri<sup>160</sup>, ilunari argi, gauari egun deitzea bezenbat litzake ori. Euskaldun ez lirake izango beintzat; eta euskaldun izan ezik, izen aizun ori zertarako erabili?

Euskalerrria maite dutela dioten aundizki ta ikastun oriek, beren baitara itzuli ta ori ongi oldoztu, gogoz ausnartu bear lukete, ori egin ezkerro, gure erriarentzat euskerak duan garrantzi aundia ere ezagutu ta aitortu bearrean legozke-ta. Gure lankide gartsu ta euskalari bikain izan zan Eleizalde jaunak, ori argiro ikusten zuan; eta ain argiro ikusten zualako, eri edo gaiso zegoalarik ere, euskeraren alde lan egiteari inoz ez zion utzi: azken arnasaraino euskera ta Euskalerrria bere gogoan zerabilzkian beti gure lankide bizi ta bizkor onek. Euskera pizkortu, sendatu, apaindu ta zabaltzeko iskilurik<sup>161</sup> bearrenak auek dira: idatzi ta irakurri, ikasi ta irakatsi, itz egin, erabili, erdoitzen ez utzi. Olerkariak dion bezela: «Dezagun orok egin bihotzez agintza<sup>162</sup>/ elgarrekin eskuaraz gaiten bethi mintza.»

Zinez, euskeraren alde lan egiteko, oraingo au baino aldi egoki ta ederragorik izan da. Gauza aundirik egin gabe joan eta igazi<sup>163</sup> ziran alde eder aiek. Aurrerago egin bear ziran eta egin ez ziran lanak, orain aldi laburrean egin bear; baina gure esakun zar batek dio: «Aldi laburra lasterra bada, egun astia baino obe da». Beraz aldi laburrean lan asko egin bearrean gaudela-ta, gere kemen eta adorea ez ditugu galdu bear.

Euskeraren alde egingo ditugun lan orietan, gere biotz osoa, bai, ipini bear degu: gere izkuntza maitatu ta maitarazi; geronek erabili, besteai ere, al bestean, erabili arazi. Gure asmo ta erabakia orixe izan bedi. Eri ta aul dago gaxoa; baina gere *bularren arnasaz, biotzen beroaz, odolaren suaz, maitasunaren garraz*, oraindik ere sendatu ta pizkortu diteke.

<sup>159</sup> *Ilarraindu*: harropuztu.

<sup>160</sup> *Azarri*: ausardia.

<sup>161</sup> *Iskilu*: arma.

<sup>162</sup> *Agintza*: agindu.

<sup>163</sup> *Igazi*: irago, joan.

Esakun zarrak dio: «Biotza ta zentzuna gudian dira bearrago, iski-luak baino». Zinez, euskeraren alde lan egiteko iskilu gutxi dauzkagu gaur, antzina zabalik zeuden bide asko orain ertsiak daude. Baina biotz eta zentzuak ere uts emango ote digute? Euskaldunok, azkenean, gere zentzu ona ere galdu ote degu? Biotz gabeko epel, soraio, koldarren batzuek ote gera? Orrenbestearaino zabartu, kikildu, endekatu geranik ez det uste...

Eusko Ikaskuntzak onela dei egiten digu: «Asmoz eta Jakitez». Euskaltzaindiak, ostera: «Ekin eta Jarrai». Euskaldun oroentzat dei egokiak dira. Euskalerrria zinez maite dutenen oi u ozen eta dei zoliak dira. Entzun ditzagun, geren gogoetan josi ditzagun, olerkariak dion bezela egin dezagun: «Oihu au aditzean, chuti gaiten denak./ Eta egin ditzagun ahal ditugunak./ Hauche dauku galdetzen gure Jainko Jaunak./ Eskualdunak egon giten bethi eskualdunak».

**EGUZKITZA EUSKALTZAIN JAUNAREN ITZALDIA.  
(DONEZTEBEKO BIGARREN EUSKAL EGUNETAKOA)<sup>165</sup>**

Andere ta jaunak:

Irakurtzera noaien lantxo zarpail<sup>166</sup> eta zirtzil<sup>167</sup> au nere gogoz ez nuan nere gain artu. Euskaltzaindiko nere lankide maiteak poliki-poliki lepora egotzi zidaten. Aiek ori egin zutenean, batzarretik urruti nengotan ni eta egunkarietan beren asmo au irakurri nuenean, bere baitan erran nuan: «Nire lagunak lanaren gaia, bai, ongi autetsi dute; baina langilea, oso gaizki.

»Aiskide oiei atsegin ematekoz, napar seme ta apez argi batek bere euskaraz idatzi zituan liburuetaz itz egin bear dut; baina napar euskaldunen aurrean ortaz jardukitzea, neri, Bizkaiko euskara edoski nuan eta bertze euskalkietan motel nagoen oni, bertze inori baino anitz eta anitz zailago zait. Ori edozeinek daki.

»Bertzalde, Euskaltzaindi ontan napar eta gipuzkoar idazle antzetsu ta trebe anitz badira, ta oietatik edonork lan au askotaz obekiago egin lezakean. Au onela dalarik, nere lagun oiek zer ari ote dira? Nora begira ote daude?».

Au zala-ta neri egotzitako egikizun au, euliak kentzen diran bezala, astindu ta nere leptotik jaurtikitzeko asmoz, zapuzti ta aserre xamar nijotan urrengo batzarrera. Nere asmo ori azaltzen asi nintzalarik, urbil zegotan lankide batek bearrira<sup>168</sup> erran zidan: «Napar apez baten lanetzaz mintzo bear zera Donezteben. Ortarako napar naiz gipuzkoar euskaltzain bat zein bat egokiago izanen zala deritzazu noski; baina egokiena zein dan jakiteko gauza askõri begiratu bear zaie. Adi ezazu. Naparroa Euskalerriaren soltaldean, Bizkaia sarkaldean daude. Bidasoaz emendik

---

<sup>164</sup> Argitaratua: «Eguzkitza euskaltzain jaunaren itzaldia», *Bigarren Euskal egunetako itzaldiak Donezteben*, Bermeo: Gaubecka, 1926, 1-14 or. (Izendapen bibliografiko hau grafia moldaturik dago.) Nafarreraz idatzita dago.

<sup>165</sup> Izenburua geuk ipinia da.

<sup>166</sup> *Zarpail*: baldar.

<sup>167</sup> *Zirtzil*: txatxar, baliobako.

<sup>168</sup> *Bearrir*: belarri.

darabilzkgigun euskalkien artean, bata-bertzeaganik urrutien daudenak napartarrena ta bizkaitarrena dira. Guzien arteko besarka laztan, apa gozoaren bila gabiltz aspaldi, ta napar euskaldunei anai-besarka maite ori emateko, zu, Bizkaiko euskaltzain ori autetsi zinugun. Bizkaieraz antzetsu ta trebeago zaude, noski; baina, ortarako lain badakizu-ta, zere itzaldia gipuzkeraz egin zenezake ta orrela egin ezkeroz, zere euskalki ta Naparroakoaren bitarte dagoan bertze au, gipuzkoa-euskalki xamur au, zure besarka laztan orren begizta, txibistin<sup>169</sup> ta oropil<sup>170</sup> bizi, sendo ta iraunkorra ere izan diteke».

Au entzunaz, nire beldur eta kezka guziak berealaxe deuseztu ziran, aizeak-edo eraman zituan. Zer erran nion?: «Napar euskaldunei Bizkaiko-koen besarka gozo, ezti ta maitatsua emateko, ango euskaltzaleen biotz barnetiko apa laztana napar euskaltzalei ekartzeko, Bizkaiko euskaltzain txiki au autu nauzute? Ongi dago. Egikizun eder eta bikaina, lan atsegina da ori neretzat. Gogo ta biotzez, atsegin eta poz aundiz eginen dut».

Ori erantzun nion eta ortara nator, andere ta jaunak. Euskal egun oiek egin eta ospatzeko, aurtan napar iri garbi, lirain, polit-eder auxe autetsi dugu. Bere zugazti mardul, lats<sup>171</sup> bizkor, ibai garden ta ur-jauzte politez; bere mendi jagi, larre ta zelai orlegiz; bere mendizka ta ibai atsegingarri oietan, urzoak bezala, an-emenka bananduta dauden etxe zuri ta ostatu ederrez, Doneztebe onek napar mendietako atsegintoki zoragarria dirudi.

Napar anai maiteak, iri polit ontara Bizkaiko euskaldunen agurrik gozo ta eztierna dakartzutet. Euskara, gure izkuntza zar eta maitagarria, geronen izakera bereziaren agerkunik<sup>172</sup> ederrena, gere gogoen arnasa ta gere odolaren bitsa bezala dan izkuntza au, piztu ta pizkortu, landu ta edertu, sendotu ta zabaldu nairik, an, goiz eta arrats, lanean diarduten guzien izenean dakartzutedan laztan samur au, otoi anaiak, txera aundiz, abegi onez ta gogo beroz ar ezazute. Odolez aurrider, guraso baten seme geranok, asmo ta txede berdinez euskararen alde lan egiteko, elkargo ta eztaiak egin bear genituke. Biotz barnetik damatzutedan besarka laztan au, eztaí-besarka gozo betikoa izan bedi, bere erestuna<sup>173</sup>, bitarte daukagun gere anai gipuzkoarren euskalki xamur, bigun, ezti dalarik.

<sup>169</sup> *Txibistin*: begizta.

<sup>170</sup> *Oropil*: korapilo.

<sup>171</sup> *Lats*: erreka.

<sup>172</sup> *Agerkun*: agerpen.

<sup>173</sup> *Erestun*: eraztun.

Bear nuan bezela, Bizkaiko euskaltzaleen izenean, zuoi agur egin eta apa eman ondoren, nere itzaldi onen gaia adierazi bear dizutet.

Euskaltzaindiko nere lagunak izendatu zidatena, uraxe bera da: Lizarragatar Joakin, Elkanoko animazai izan zanaren bizitzaz eta jaun onek euskaraz idatziriko liburuetzaz laburkiro mintzaturen natzaitzute. Eta errexago uler dezazuten, gipuzkoerakin goi-napar iparraldeko euskara pizkatxo bat nasiren dut.

## I

Lizarragaren bizitzaz gauza aundirik ez dakigu. Lanari gogoz ekin ziola, ori bai, ori inork ezin uka dezake; bainan bere ta bertzeen animen betiko osasun eta zoriona, lan eta ekinaldi guzien txede nagusi zuala, apez argi onek, erritik irten gabe, bizitza izkutua eraman zuan, eta berak idatzitako liburuak mintzo ezpalira, lanerako zuan gar aundia argiro erakutsi ezpaligute, ainbertze urtez Elkanoko zokoan zer ari zan, zer egin zuan ere ez genekike.

*Elkano* deritzaion bere liburuak gazteleraz idatzitako oartxo bat du, sanduen bizitzai asiera ematen dien ingorri edo orrialdean bertan. Oar au Jose Joakin Ollok idatzi zuan Hondarribian 1867garren urtean eta berak dionez, Lizarragaz an ematen dizkigun berri laburrak, bere aiskide Felix Idoate, Arzeko apez jaunak liburu onekin batera bidali zion eskutitz batetik artuak dira.

Elkano deritzan erria –badakizute– Egues ibarrean, Iruñatik Aoize-rantz legua erdi bide barru dago. Ementxe ta Migelena zeritzan etxean, berak nonbait aitortzen duanez, jaio zan gure Lizarraga 1748garren urteko buruilaren<sup>174</sup> 17an. Bere burasoak<sup>175</sup> Lizarragatar Tomas eta Iragitar Maria Frantziska izan ziran, eta bataiatzean bere osaba Joakin Elkanoko apez-animazain zanaren izena ezarri zioten. Apezgorako ikasketak Iruñan egin zituan; ikastaroa bukatu ta berealaxe itzuli zan bere errira. Bi urtez ordezeko izan ondoren, 1772garren urtean bere erritarren animazaingoa guntzaz<sup>176</sup>, jabetasunez iritxi zuan. Jesusen Lagundian sartzeko asmoetan ere ibili zala dirudi; urte batez, beintzat, Loiolan egon zan, baina osasunik ezagatik-edo, bere apezgora itzuli zan berriz eta anitz urtez eginen oni ekin zion bere erritaren onerako. 1835garren urteko ilbeltza-

<sup>174</sup> *Buruil*: irail.

<sup>175</sup> *Buraso*: guraso.

<sup>176</sup> *Guntzaz*: ontsaz, cderki.



ren<sup>177</sup> 20an il zan, larogeta sei bete ta laister, eta bere gorpua jaiotetxe-ko ilobian eortzi zuten. Gauza gutxi da, baina bertzerik ez dakigu. Jaungoikoak lanerako urte ta egun ederrik asko eman zizkion eta Lizarragak bere urte ta egunak joko, jolas eta alperkerian ez zituan igaro. Egunik galdu gabe, bere bizitza guzian gogoz lan egin zuala berak idatzitako liburu oiek argiro diote.

## II

Liburu asko idatzi zituan euskaraz jaun argi ta langile aundi onek; baina orain arte iru bakarrik irarri dira, bertze enparau guziak argitaratu gabe daude. Argitaratuak oiek dira: *Urteco igande guztietaraco platica edo itzaldiak*. Donostian, Barojaren moldiztegian argitaldu zan liburu au 1846an. Guziz irurogeita bortz itzaldi dauzka ta azken aldean, «Pange lingua ta sacris solemnii» euskaraz eta Aldareko Sakramentuaren opa ta deduz bertze neurtitz batzuek dakarzki. Gero, liburu au obeki uler dadintzat, bertan darabiltzan ainbat itz ere erderaz azaltzen ditu. Bertze idatzi guzietan Lizarragak bere erriko euskara, napar-egoaldekoa darabil; baina liburu ontan goi-napar iparraldekoa asko nasten du. Batez ere aditz-laguntzailea, geienez beintzat, iparraldeko euskararena da. Nere lankide Intza abak uste duanez, itzaldi oiek Donostian argitaltzean, egilearen baimenez-edo, norbaitek aldaketaren batzuek egin zituan liburu ontan.

Lizarragaren bertze bi idaztitxo Luis Luziano Bonaparte, bakaltseme<sup>178</sup>, euskaltzale aundi euskalari ospatsuak, argitara eman zituan Londonen 1868garren urtean: *S(an) Juanen Ebangelioa ta Copla guisa batzuc, molde gutitacoac, celebratus Jesus jaunaren amore ta favoreca*. Azkenengo onek 729 adia edo ahapaldi dauzka ta gero erranen dudanez, ahapaldi guzi oiek bertze izen batekin eta Lizarragaren eskuz idatzita, *Elkano* deritzan liburuan irakurri ditekez.

Argitalduak oiek dira; argitaltzeka daudenak anitz geiago. Oien berri ere laburkiro emanen ditzutet.

Azal gainean 3 zenbakia daraman Lizarragaren liburuttoak, gai eta atal asko ditu.

a) Lenbizi: «Jesu Christoren vizitzaren historia laburkiro, eta beraren Ama Virginia S<sup>Smarena</sup> vidanabar; berechsi misterio celebratzen direnac

<sup>177</sup> *Ilbeltz*: urtarril.

<sup>178</sup> *Bakaltseme*: printze.

urteaz elizan, contatzeco itzez itz, nai badu, bacocho bere aldian». Lotazilaren 8an Andre Mariaren Sorkunde garbiaz asi ta bere iltzeaz bukatzen du. Atal onek 54 orrialde dauzka, bi sailetan bereziak eta orrialde oietan gure Jaunaren eta bere Amaren bizitzako 82 izkutuki edo misterio edestu ta azaltzen ditu.

b) Bigarren: «Cembait doctrina M.<sup>a</sup> SS<sup>mac</sup> emanac Sor M.<sup>a</sup> de Jesus Agredacoari»; bertze amar orrialdetan.

c) Irugarren: «Sandu cembaiten vizitzac euscaraz, laburquiro paratuac, asiz avendutic; daizquenac conta urbilen jai edo igandeetan urteaz Christio fielei; ez adierazteco sollic, baita icusiarazteco ere erreligione Christioaren doctrina ona ongui cumplituric ayenganic, moguiarazteco imitatzera ayec norc bere ariora dezaquen guisan, eta ala placer emateco Jangoicoari, ta logratzeco beraren gracia ta gloria.

«Berechsi dire Aita Pedro Ribadeneirac contatzentuenetic bere Flos SSorum deitzen den libruan, ez an diren guziac, baicic ezaunago direnenac, ta prochu yago eman dezaquetela iduridutenac aldiritar pobreen ertean».

Eun eta berrogeita ameka sanduen bizitzak dakartzki lenbizi, gure Xabier aundiaz asi ta S(an) Andres bialduaz bukatzen dualarik. Gero, ondorean iloro gaineratuak –*añadituak* dio– bertze ogeita zazpirenak, izotzilaren<sup>179</sup> 14an S(an) Hilarioz asi ta lotazilaren 17an S(an) Francisco de Senaz bukatuz. Azkenez, «Purgatorioco arimen memoria». Guziz 328 orrialde, bakoitza bi sailetan.

*Elkano* izena duan liburuak ere anitz atal baditu. Lenbizi, Elkanoko eleizan zeuden kapellania ta urteroko mezaen berri ematen du erderaz. Gero, Ollok idatzi zuan eta aurrerago aipatu dudan oarraren ondorean, «Ortzegun sanduco misterioa, Aldareco sacramentuaren fundacioa ta comeatzeco doctrina forman» dakartzki. Orriak zenbatu gabe daude.

d) Laugarren, *Cembait Sanduren viciac, asteaz datocinac contatzeco bere cargucoei*. Ilbeltz edo izotzilaren lenbiziko egunean S(an) Odilon abadeaz asten da ta lotazilaren 28an «Aur innocenteen martirioaz» bukatzen du.

Azal gainean 3 zenbakia daraman liburuan eun eta irurogei ta emezortzi sandu aipatu zituan Lizarragak; oietatik larogei ta bi *Elkano* deritzan ontan berriz aipatzen ditu, baina beren bizitzak bertze era batez edestu edo kontatuz. An aipatu gabeak zortzi baizik ez dira. Guzi ori berreun eta emezortzi orrialdetan egiten du, orrialde bakoitzak bi sail dauzkalarik.

<sup>179</sup> *Izotzil*: urtarril.

e) Bostgarren, *Neurtitzak*. «Sacris solemniis hynnoaren guisara Ama Virginaren gloriatan»; ogei ta lau orrialde ta 493 ahapaldi. Berriz, «Sacris solemniis hynnoaren guisara cembait copla Jesus onaren honra ta amoretan», «Corpus Christiren festaco hynnoa ta Pange lingua euscaraz»; gero, «Passioan sartzeaz». Ogei ta amasei orrialdean 713 ahapaldi dakarzuki. Urrengo, «Canta batzuc euscaraz aldareco sacramentuaren laudariotan»; aurrerago aipatu ditudan «Pange lingua ta Sacris solemniis» berriz dakartza zerbait aldatuz; ondoren, «Bertze copla guisa batzuc molde gutitacoac, ala nolana gozatzeco sacramentu sanduaren laudariotan». Zazpireun eta ogei ta bederatzi ahapaldi, ogei ta bi orrialdetan. Bona parte jaunak Londonen argitara emanak eta oiek berdinak dira. Lizarragak idazpurutzat auxe ipini zioten: «Eginac guerra demboran, etsaien ertean, naibageen eta tristuren arintzeco ta ematzeco»; gero, «Jesus-Christoren evangelio sandua S(an) Juanec: dacarran guisara, euscaran itzulia, itzez itz daiquen dina, eguiaren amorez, añadituric capituloen ondorean cembait explicacio laburtto, arguitzeco». Amairu orri oso.

f) Azkenez, «Dies irae»; erderaz eta euskaraz eta arkibidea.

Lizarragaren jaitetxean bertze bi liburu ediro dira: bat aundia, txipiagoa bertzea.

Andienaren izena auxe da: *Sermones de Decalogo et Orat.<sup>e</sup> Dominica*. Lenbiziko berreun eta ogeta bederatzi ingoskietan amar aginduak azaltzen ditu. Ondorean Jaunaren legea betetzeco dugun bearkun<sup>180</sup> andiaz, graziaren onaz, garbitokiko<sup>181</sup> animaz eta Jainko-legearen alde egari<sup>182</sup> bear dugunaz mintzatzen da. Gero, gizonaren azaga<sup>183</sup> edo azkenkiak dakarzuki gogarte antzo, ogeita amar itzalditan. Azkenez, ototza zer dan adieraziz eta aitagurea itzez itz azalduz bukatzen du. Liburu onek guziz irureun eta larogeta börtz ingoski dauzka, bakoitza bi sailetan berezia.

Bere jaitetxean ediro dan bertze liburuari onela deritzaio: *Erien ongui maneatzeco ta ongui illzen laguntzeco cembait itz gaien oroigarri ta asiera, escritura sagradutic eta sanduetatic berechsiac, escunara izateco cer erran bear orduan Apèz aitac bere hume espiritualei, claro, plau ta sencillqui paratuac*.

Liburu au bertzeak baino txipiagoa da, ta guziz 157 orri oso dauzka. Lenbiziko 12 orrietan: «Monita pro Sacerdote ta Regula pro visitatione infirmorum», Lazioko erderaz dakarzuki. Amairugarren orritik eun eta ogei

<sup>180</sup> *Bearkun*: bctebhear, eginkizun.

<sup>181</sup> *Garbitoki*: purgatorio.

<sup>182</sup> *Egari*: jasan.

<sup>183</sup> *Azaga*: atzen, azken.

ta emeretzigarrenera, eriei laguntzeko egoki diran anitz gai azaltzen ditu euskaraz. Gero berriz lateraz dakarzki: «Subvenite, Methodus aplicandi apostolicam benedictionem, Ordo commendationis animae»; ta azkenez, «Aliquot sententiae ex sacris litteris et Patribus selectae ad auxiliandum infirmis et hic separatim collectae, ut cum opus est, in promptu habeantur».

Nere lankide maite Intza abak dionez, buruñurdunak<sup>184</sup> beren Iruñako lekaretxean, Lizarragak bere eskuz idatzi zuan eta neurtitz asko dituan bertze idaztitxo bat ere badute; baina neurtitz oiek *Elkano* deritzan liburuak ere badakarzki ta aurrerago aipatu ditut.

Lizarragaren bertze liburu bat Naparroako Aldunegian<sup>185</sup> dago. Azal gainean auxe dakar: *Sermones Cathetici consentanei ad Catechismum Romanum ab anno 1771. Vasconice*. Eta barruan lenbiziko orrialdean auxe dio: «Cembat predicu ta platica uscaraz, urte gucico igandeetan eta bertze cembait jaietan predicatuac aldirietan, Jangoicoaren gloria ta animen prochuetaco, milla zazpitan eun ta iruetan ogei ta ameca garren urtetic alcina ta librugontan nasteca ezarriac». Guziz 455 orrialde dauzka, ta 109 itzalditan Kredoa ta Sakramentuak azaltzen ditu. Liburu au *Sermones de Decalogo* deritzanaren anai nagusia da. Azkenengo au idazten ameka urte geroago asi zan Lizarraga, ta bietan kristau-ikasbide guzia azaldu zuan.

Naparroako Aldunegian arkitzen dan liburu au irakurtzeko betarik ez dut izan; bertze enparauak, bai, ikusi ta aztertu ditut. Orain gutxi entzun oi ditugun itz batzuek eta ainbat adizkera berezi, goi-napar egoaldeko euskarari dagozkionak arkitu ditut liburu oietan; baina oetzaz egun mintzo nai banu, itzaldi au luze, astun eta gogaikarri egingo litzake-ta, olako asmorik ez dut. Goazen, ba, bertze gai batera.

### III

Lizarragak itz neurtuz eta neurtu gabez idatzi zuan eta bietara sail luzeak idatzi ere. Olerkari ote zan? Bere lan oietan, nolako euskara ote darabil? Bi galdera oiei laburtxo erantzunen diet.

*Elkano* deritzan liburuan edonork ikus dezakenez, Lizarragak tartekamarteka neurtitz sail aundiak idatzi zituan. Ahapaldi batzuek poliki eginak daude, bearrientzat aski atseginak dira. Baina geienez bere neurti-

<sup>184</sup> *Buruñurdun*: kaputxino.

<sup>185</sup> *Aldunegi*: Aldundi.

tzak ongi arpikotu<sup>186</sup> ta bear bezela lantzeko axolarik ez zuan izan, eta bertzalde, benetako olerkariak bear dituan gogai eregi, irudi eder eta biozketa<sup>187</sup> xamurak ere maizegi uts egiten diote. Augaitik, Lizarraga bertsolari, *neurtizlari* bai, baina olerkari izan zanik ez dut uste.

Nolako euskara darabil? Euskarak berea duan joskeraren kaltez maiz uts egiten du; baina joskerari dagozkion oker eta utsak alde batera utzirik, euskal itzen ordeztatik itz arrotzak ere maizegi darabilzki, nere ustez. Ori egin zuan bakoitzean, itz berririk ez asmatzearen egin balu, nik ortaz gaizkirik ez nuke erranen; baina euskal itz jatorrak alde batera utzita, batere bearrizanik gabe, erderatikoak aurrez darabiltza, ta au, nere aburuz, inolaz ere ezin zuzenetsi genezake. Alaz ere, Lizarragak baino obekiago euskaraz idatzi zutenak aurreko mendetan gutxi izan dira; gaizkiago egin zutenak, anitz. Augaitik, aldi artan egiten zana nere gogoan dudalarik, Lizarragaren euskara on xamarra dala, gezurrik gabe, erran dezaket.

Orain, zorionez, euskaltzaleak agitz ugaritu zaizkigun egun oietan, euskara guk apezok galdu dugula anitzek diote. Aspaldi ontan apezan aurka egindako salakuntza ori maiz irakurri dut, eta egia errateko, irakurri dudana bakoitzean, agitz aserratu naiz. «Kaskarin oiek zer ari dira? –erraten nuan nere baitan–. Euskara guk apezok galdu dugula?» Baina erradazute: orain arte apezak izan ezik, euskaraz nork idatzi du? Euskararen alde lan egin duten bertze jaun oiek non dira? Beren euskarazko lan ederrak non daude? Betoiz gizon agurgarri oiek; beren buruak erakus bitzate, ta guk apezok, bekaitzik gabe, guziei ta bakoitzari burugainetan ereinotz-burestuna ipiniren diegu.

Baina gure aurretiko euskal idazlerik bikainenak, Axular eta Mendi-buru, Gerriko ta Agirre, Añibarro ta Mogel, apezak ez al ziran? Bai, noski. Eta gure izkuntza zar ontan oien idaztiak baino ederragorik nork egin du? Guk dakigula, inork ere ez. Au oroitzuz, erraten nuan: «Euskararen galtzea apezan obena nola izan daiteke?».

Buru argi baino odola biziago duten euskaltzale gazte, bero ta kartsu oiek, euskararen galtze ortan apezak ere beren obena badutela erran balute, beren iritzia zuzena izanen zan eta ontzat artuko nuan. Baina apezak baizik bertzek obenik ez duala, oben ori apezena bakarrik izan dala adierazi nai izan dute, ta ori bere senean dagoan gizonnek ezin zuzenetsi dezake.

<sup>186</sup> *Arpikotu*: zintzelaz landu.

<sup>187</sup> *Biozketa*: bihotzaldi.

Euskararen galtzean euskaldun guziak, apezak ere bai, orok beren obena dute. Bertzeen obenaz egun ezer errateko asmorik ez dut; apezenez mintzatuko naiz. Entzun. Gure Kanpion andiak *Celtas, Iberos, Euskaros* deritzan bere liburuan (III atal, 1. azalburu ta 199garren ingoskian), auxe dio: «Apezak, egunerik egunera ugarituaz dijoan saldo<sup>188</sup> txiki batez landa, bertze enparau guziak, edo kezkatiegiak ziralako edo gure izkuntza bear bezela ez zekitelako, soinkariak bere otarrea<sup>189</sup> uzten duan bezala, laterazko iztegia euskarara irauli zuten, eta onela, bai gure gogoari ta zilegiari dagozkien euskal itzik geienak, baita gure sineste ta uzkurtzaz zerikusirik dutenak ere, bein betiko irato<sup>190</sup> ta eortzi zituzten». Kanpion jauna ortan izpidean dago; arrazoia du.

Egun baten anitz liburu zar zeuden liburutegi batera sartu nintzan. Liburutegi artan Axularren *Geroco gero*, Mendibururen *Otoitz-gaiak*, Churiok laburdieraz<sup>191</sup> egindako *Jesu-Christoren Imitazionea* ta bertze bi liburu, eskuz idatziak, arkitu, upatu<sup>192</sup>, ediro nituan. Eskuz idatzitako bi liburu aiek, izki edo letra argi-ederra zuten; ongi josiak eta ardi-laruzko azalez ederki apainduak zeuden. Ura bai nere poza! Nere baitan onela oldozten nuan: «Astia izanen dutanean, Axular eta Churio irakurriko ditut. Tolosan argitaldu ziran eta nik etxean ditudan Mendibururen *Otoitz-gaietan* norbaitek aldakuntzaren batzuek egin zituala inoiz entzun dut, eta au ere egia dan ala ez ikusiko dut; baina ori, iradurik<sup>193</sup> gabe, asti ta beta ona izanen ditudanean. Ederrenetakoak diran liburu oiek anitzek irakurri dituzte eta dakarzkiten euskal itzak iztegirako bildu ere bai; baina bertze bi liburu (eskuz idatzita dauden oiek) nere ustez iztegirako itz bila ibili danak inoiz ez ditu irakurri. Antzinakoak dirudite. Bizkaiko mendi tartean gure euskalkia ongien mintzaten dan toki oietan, igandez elizan erriari irakurtzeko eginak dira ta orain arte niork<sup>194</sup> bildu ez dituan euskal itz jator asko edirenen ditut emen». Uste onekin poz-pozik, aurrak oski<sup>195</sup> berriakin baino pozikago, nere liburuak galtzarpean nituala, nijoan nere etxera. Urrengo egunerako lan au uzteko eperik<sup>196</sup> gabe, etxera eldu ta berealaxe, liburu aietatik bata iriki ta gar andiz irakurtzen asi nintzan. Amar bat orrialde irakurri nituane-

188 *Saldo*: moltso, talde.

189 [*Otarre*: saski.]

190 [*Irato*: itoarazi.]

191 *Laburdieraz*: lapurteraz.

192 *Upatu*: topatu.

193 *Iradu*: prisa.

194 *Niork*: inork.

195 *Oski*: zapata.

196 [*Epe*: asti.]

ko, zearo aspertu ta gogaitu nintzan; ezin jarraiki izan nuan. Bertze liburu eskuan arturik, irakurtzen asi nintzan, baina bertze ainbertze agitu<sup>197</sup> zitzaidan. Gauza zakar, ezain eta itxusiagorik euskaraz nioz<sup>198</sup> ez dut irakurri. Orrialde osoak, aditz-laguntzaileez landa, euskal itz bat egina bera ere ez zeukaten; goian asi ta beraino erdal itzez josita zeuden. Nire amets gozoak aizeak eraman zituan. Liburu zakar aiek nere etxean eukitzeak ere iguin ematen zidan. Luzatu gabe, urrengo goizean lenbizi-ko liburutegira eraman nituan, eta arrezkero begiz ez ditut ikusi. Ikusi nai ere ez. Alako iguina eman zidaten! Norbaitek ebatsi<sup>199</sup> ta erreko balitu, poztuko nintzate. Kanpion jaunak ongi erran du: soinkariak bere otarrea uzten duan bezala, apez askok ere erdal iztegia euskarara irauli, uzkali<sup>200</sup> dute. Apezok euskara alperrik galdu dugu. Obena guk bakarrik dugula inork uste balu, zinez, oker legoke. Bertze enparauak, andere ta jaunak, erriko gizon eta emakumeak, batez ere gure arteko aundizki ta jakintsuak, guk ainbat oben eta, bearbada, guk baino oben andiagoga dute; baina guk apezok ere, geren obena badugu.

Euskal errietako apez askok, aundikeriz beren itzaldiak erderaz egiten omen zituzten, eta Kalaorrako gotzai erdaldunak euskaldun apez aundiputz oien arrokeri ta txaldankeria<sup>201</sup> bein baino geiagotan eragotzi, gebendu<sup>202</sup> bear izan zuten. Euskal idazle anitz eta anitzek ere, mintzaile aiek baino gutxiago ez izatearren-edo, erriak zerabiltzan eta ongi ulertzen zituan euskal itzak utzi ta irakurlerik geienentzat ezezagunak ziran erdal itz asko andikeriz, arrokeriz beren idaztietan sartu zituzten. Au egin ezik, erriaren mailara jausten zirala uste zuten, naski; ori egin ezkerro, berriz, erria baino gorago zeudela, erriak baino geiago zekite-la... Oni euskaraz ergelkeria deritzaio, baina arrokeriak ergelkeri asko eginarazten dizkigu.

Gaur egunean ere euskaldun askok, batez ere andere ta neskatxak euskara utzi ta erdera parra-parra erabili ezkerro, aundizki usaia artzen dutela uste dute. Ori egin ezkerro, bertzerik gabe aberats eta aundizkien alabak dirala beren buruetan sartzan zaie, ta amaren magalean ikasi zuten euskara, gauza lotsagarria bailitzan, nioz ez dute erabili nai; euskaraz mintzatu ezkerro, beren ezpainak zikinduko ote zitzaizkien beldur bide dira. Arrokeri zoro onek euskarari kalte andia egiten diola gure

<sup>197</sup> *Agitu*: jazo, gertatu.

<sup>198</sup> *Nioz*: inoiz.

<sup>199</sup> *Ebatsi*: ostu.

<sup>200</sup> *Uzkali*: eratsi, behera bota.

<sup>201</sup> *Txaldankeria*: memelokeria.

<sup>202</sup> *Gebendu*: galarazo.

begiz dakusgu; beraz aldi bateko apezen arrokeririk ere kalte txikiagoak ez zizkiola ekarri sinetsi genezake.

Gere aurretiko apezen obena gerok, al bestean, zuzendu bear dugu. Nola? Euskararen alde gogoz lan eginaz. Ontan Lizarraga eredu, jarraibide on-ona dugu. Berak idatzi zuan aldi artan euskara landu ta edertze-ko asmoz gutxi batzuek baizik ez zuten idatzi. Bertze gai batzuek, gure sineste ta uzkurtzari dagozkienak maizen, oiek erriari irakasteko asmoz idatzi zuten geien-geientsuak. Lizarragaren asmoa ere ori zan; augatik-edo bere liburuetan euskara ta erdera geiegi nasi zituan jaun onek ere. Zinez erriak ulaturen ez ote zion beldurrik gabe, euskara anitz garbiagoa erabili zezakean. Ori egia da; baina bere aldi artako idazlerik geienak erabili oi zuten bezelako euskaraz, liburu andi ta ederrak idatzi zituala ere egi-egia da. Lizarraga langile aundi-kartsua agertzen zaigu ta ortan gure eredu izan daiteke. Lizarragaren oldarrez<sup>203</sup> euskararen alde lan egin dezagun; baina gere lan au onuratsuago izan dadintzat, ortaz gainera, euskara landa, garbitu, txukundu, edertu ta aberasteko ere axola artu ta alegin egin bear dugu.

Bertze gauza anitzetan bezala, euskal arazoetan ere euskaldunok elkarganik urrunduta ibili gera geienez; etsai bezala kopet ilunez elkarri begiratu diegu maizegi. Euskaldun bakoitzak euskara osoa bere izkuntza bezala artu bearrean, berea bakarrik maitatu ta bertzeena arbuiatze onek euskarari kalte andi-izigarria egin dio. Kalte au guziz kendu ezin balitz ere, al bertzean arindu, gutxitu bear dugu, ta ortarako kalte ori ekarri digun bidea utzi ta bertze bide egokiago bat artu bear. Euskara-batasun eginen ontan astiro-astiro, emeki-emeki ibili bear gerala diote. Nik ere orrela uste dut. Baina naiz astiro naiz bizkor, naiz emeki naiz oldarrez ibili, urte askoren buruan baizik egin ezin genezaken lana data, elkarganatzeko bide ori gaurdanik kemen eta adore andiz artu bear genuke. Emeki ibili arren ere, ekinaren ekinaz, inoiz atzera egin gabe, beti aurrera jarraikiaz, urte batzuen buruan zerbait baino geiago eginen dugu. Euskara piztu, pizkortu, indartu ta sendotzeko ori bakarrik ez da aski izanen; baina ortarako bear-bearrak diran gauzen artean, ori bearrenetakoa dala deritzat.

Bizkaiko euskaldunen izenean eman dizkitzutedan apa ta laztana betirako izan bitez; elkarganatzeko len urratsa bedi ori, baina nioz gogaitu gabe, beti aurrera jarraikitze-ko asmoz. Aul eta eri dagoan gure euskara zutiarazi ta pizkortu nai badugu, otoi euskaldunak!, gaitezen beti aiskide, beti anai, beti elkar maite. Euskara banatu, zatitu, birrindu,

<sup>203</sup> *Oldar*: kemen, indar.



auldu ta eritu zitzaigun aurreko gizaldi oietan, Lizarragak nonbait dion bezala, atzo aiskide ta egun etsai ginalarik, atzo besarka, egun atzaparka, atzo musuka, egun muturka ibili gera, zoritxarrez. Emendik aurrera anai gera-ta, euskaldun guzien gogoak beti aiskide bitez, apa ta besarka bebiltz, aingerutxoak bezela, beti musuka beude. Gure erri oni, izenez eta izanez, Euskalerra iraunarazi nai badiogu euskaldunok Jaungoiko ta gizonen aitzinean, orren duin egin bear gera. Gizonen aitzinean orren duin izateko, guziok euskararen alde elkarren leian, asmo ta txede berdinez lan egin bear dugu. Jaungoikoaren aitzinean ere orren duin izateko, euskararen alde; orain arte gere sinismen eta oitura garbien zaitzaile ona izan zitzaigun euskararen alde, eginen ditugun lan orietan geren gogoak jaso ditzagun. Euskalerra guziz, osoro Goiko Jaunaren erri egitea, gure asmorik lenen eta nagusiena bedi, ta elbarritua dugun euskara oni, beinola Ebanjeliokoari bezela, Jaunak erranen dio: «Jaiki adi ta abil».

## KAXARRENKAREN GORABERAK ETA AURIAKO JAI<sup>205</sup>

Orain ni bezela itzaldiren bat irakurri bearrean daudenak, maiz one-la asi oi dira: «Buru-austerik geien nere itzaldi onen gaia aukeratzeak eman dit, gai egoki asko baitziran eta zein artu ez bainekian; egokiena aukeratu nairik eta ori zein zan ez jakinik, luzaro ezbaian egon naiz eta lorrik asko izan det».

Nik -argi ta garbi aitortzen dizutet- ortan buru-austerik batere ez det izan, itzaldi au eskatu zidan jaunak bere gaia ere eman zidalako. «Zure itzaldia -esan zidan- cuskeraz egin ezazu, euskeratzaz ez ordea, gai ori orain arte ere maiz erabili degu-ta. Lekeitioko oitura zarren bat edo beste ar ezazu -kaxarrenka edo olako zerbait- eta ortaz jardun ezazu, Fuskal Esnalearen asmoz eta aginduz egiten diran solas oietan ere, aditzaileak aspertu ez ditezen, gaiak aldatzea bezelakorik ez dago-ta.» Ori esan zidan, eta buru-auste gutxiago izan nezan, nere jardun onen gaitzat urak aipaturiko kaxarrenka artu det.

Lekeitioko oitura zarra dan kaxarrenka ori aldi baten nola egiten zan eta gaur egunean nola egiten dan azaldu nai nuke. Beste uritan egiten danik ez det uste eta gauza berezia dan ezkerro, gogo oncz entzungo dezutela deritzat. Besterik gabe, asi gaitezen.

Kaxarrenka orain egiten dan bezela, antzinakoaren geriza, itzal, oroi-pena besterik ez da. Antzina-antzinatik, bazuten Lekeitioko itxasgizonak beren anaidia, beren kofradia<sup>206</sup>. Anaidi onek eliz nagusian zeukan San Pedroren izeneko kapilla aundi-ederra; urteko igande ta jaietan meza emateko beren apeza ere bazuten eta ortarako bear diran eliz jantziak

<sup>204</sup> Argitaratua: «Kaxarrenkaren goraberak eta Auriako jai» in RIEV, XVIII (1927), 422-436 or. (Izendapen bibliografiko hau grafia moldaturik dago.) Gipuzkeraz idatzita dago.

<sup>205</sup> [Donianez Aurian egin oi izan jai aipatu gabe irakurri nuan itzaldi au Donostiako Novedades antzokian; orain ordea, Auriako jai ta kaxarrenkaren berriak era batera emango ditut, ageri zarretan ere bi gauza oiek elkarrekin nastuak daude-ta.

Gaur, batzuek *kaxarranka*, geiagok, *kaxarrenka* esaten dute. Anaidiaren sartu-irtenetako liburuak *kaxa-aldaketa* geroago *kaxa-errenka* dakar.]

<sup>206</sup> [Arrantzale, beste itxasgizon ta uriko auzorik geienak ziran bazkide.]

ere bai. San Pedroren jaia, batez ere, aundiro ospatzen zuten anaidi ontako bazkideak, ortan diru asko eralgiz, 1562garren urtean Olabidetar Joan Astigarrako seme ta Lekeitioko auzo zanak, Bizkaiko Zuzendariaren<sup>207</sup> aurrean aitortu zuanez<sup>208</sup>.

Urte barruan beren irabaziak begiratu, zaitu ta banatzeko, bi ogasunzai<sup>209</sup> aukeratzen zituzten itxasgizonak urteoro; ori antzina, geroago ogasunzai bakarra, ta orain batere ez.

Orain diruzai autatzen dute bein-betiko ta lendakari edo buruzagia urteoro; baina antzina ez zan olakorik. Aipatu ditudan bi ogasunzai aiek zituzten gaur beste orienak diran zeregin eta eskubide guziak, eta askoz geiago ere bai. Anaidiak bere ageri, paper eta diruak gordetzeko zuan kaxa edo kutxa, bi ogasunzai aietatik zarrenak euki oi zuan bere etxean. San Pedro biaramonean eramaten zuten kaxa ori ogasunzaitza<sup>210</sup> utzi bear zuanaren etxetik artu bear zuan berriaren etxera, ospe aundiz eramanez ere, onela ogasunzaitzaren jabe egiten zutela adierazteko. Kaxarrenka ortik dator.

Jai au zala-ta Lekeitioko itxasgizon eta apezzen artean eztabaida, liskar eta auzia sortu ezpalira, antzina nola egiten zan gaur ez genuke jakingo, noski. Baina zorionez edo zoritxarrez apezak ez zioten jai orri ongi iritzi ta amazpigarren mende edo gizaldiaren lenbiziko urteetan Kalaorrako gotzai jaunak jai ura, egiten zan bezela, galerazi egin zuan. Ark galerazi; baina itxasgizonak gaizki iritzi zioten galerazte orri, ta Felipe III Espainako Errege ta Bizkaiko Jaunaren auzitegira jo zuten beren iritizko oker ori zuzentzeko, ta aren agintza beren alde erdietsi ere bai. Lenbiziko aldian esan balie apezak Anaidiko bazkideai: «Zuen jai ori orrela ospatzea ez da sori<sup>211</sup>, ez da zilegi. Eleizak ori eragozten du»; olako zerbait esan balie, liskar aundirik ez zan izango nere ustez; baina dirudianez, luzaroan ere ez zien galerazi. Jaia, urtero eginaz, oitura zarra izatera eldu zan, eta errien oitura zar eta txarrak aldatzea eginkizun zail eta gaitza izan da beti. Amets eta gezurra dirudi, baina urte batzuek gorabera, amazpigarren gizaldi osoan iraun zuan eztabaida gogaikarri onek. Arazo au erdiz erdian utzi dedala inork esan ez dezan, gertaerarik nagusi ta gailenenak urtez urte aipatuko ditut.

1607garren urtean Bizkaiko epaikari nagusi amezketar Antoniok bidalita, etorri zan Lekeitiora Alonso Lopez Kordido, lentxeago aipatu

<sup>207</sup> [Zuzendari. korrejidore.]

<sup>208</sup> [Anaidiko idaztizartegi, 1go bilgo, 12garren bilabide, 8garren zenbaki.]

<sup>209</sup> [Ogasunzai: maiordomo.]

<sup>210</sup> Ogasunzaitza: gobernua.

<sup>211</sup> Sori izan: zilegi izan.

dedan agintza ori bete eragiteko. Ortarako egin zituan lanen berri orduan idatziriko ageri batek ematen digu. Onela dio: «Lekeitioko itxasgizonak ospatzen dituzten jai oiek San Pedro aurregunetik uztailaren bigarren eguneraino irauten dute. San Pedro aurregunean, arratsaldeko bi orduak ezkerro, arrantzale, itxasgizon eta beren bi ogasunzaiak elkarrekin biltzen dira, antzinatik oitura dutenez jai ontarako dantzari ta apostoloen ordezkioak autu ta izendatzeko. Beren eskubide ori zaitu ta begiratu bear dedala deritzat eta orrengatik auxe agintzen det: Orain diran eta aurrerakoan izango diran bi ogasunzai oriek aukeratu bitzate Anaidiko bazkideen artean, San Pedro, San Andres eta San Joan antzeztu ta irudituko dituzten iru lagunak. San Pedro egunean beren meza nagusia euki bezate itzaldi ta guzti, ta meza ortan apostoloen ordezkariok beren zomorro, koroe, gaineko jantzi zabal eta zetroekin antxe aurkez<sup>212</sup> beude. Urrengo egunean, arratsaldeko bi orduetatik iruretara, anaikide guziak bildu bitez eta uriko agintari ta apezak ere bilduarazi bitzate; guziak uriko ikurrin edo bandera arturik, bijoaz San Pedroren kaxa duan ogasunzaiaren etxera; onako aldi ta garaietan izan oi dan itzal, ospe ta aundizurenez<sup>213</sup> bebiltza uriko kaleetan zear eta egun ontan beti egin dan ibilaldia egin bezate. Ibilaldi ontan San Pedro irudituan anaikidea bere zomorro, burestun eta jantzi zabalarekin, giltza ta zetroa eskuetan dituala, kaxa gainean bjoa, eta San Andres ta San Joan antzeztu dituztenak –oiek ere beren zomorro, koroe, jantzi ta zetroekin– kaxaren bi aldamenetan. Esan dan bezela ibilaldi ori egin ondoren, San Pedroren kaxa bi ogasunzai berrietatik adinez zarrena danaren etxera beramate eta urrengo urtera arte antxe bego. Iru apostoloen ordezkari izan diran oiek beren zomorro ta beste ezaupideak, nai izan ezkerro, garagarilaren 27an asi ta uztailaren bigarren eguneraino erabili ditzakete; haina ez oiek ez dantzariak, beren oldez<sup>214</sup> nai ez badute beintzat, beren dantzakin inortxoren etxera joan bearrik ez dute.

»Gaur diran eta aurrerantza izango diran endore<sup>215</sup> edo alkateai, Lariz apezburu ta beste apez guziēi agintzen diet nere erabaki au egin eta bete dezatela, eta ezertan ere ez dezatela igaran eta autsi; bestela, bete bear dan gutun ontan dauden neke ta nik ezarten diedan bosteun dukaten isunpean eroriko dira. Ontan zabar, bigurri<sup>216</sup> ta agintza-ausle izan baditez, beren kaltez bide ta neurri gogorrak artuko dirala jakin bezate.

<sup>212</sup> *Aurkez*: aurrez aurre.

<sup>213</sup> *Andizuren*: ohore.

<sup>214</sup> *Oldez*: guraz.

<sup>215</sup> *Endore*: alkate.

<sup>216</sup> *Bigurri*: matxino, oker.

Lariz eta beste apezak, berriz, elizgizonak diralako, beren eginen ortatik datozkien etekin eta irabaziak ere gal bitzate ta arrotz ta atzerritartzat etsi ta eukiak izan bitez.<sup>217</sup>

Itxastarren Anaidi ta apezzen arteko auzi au zergatik sortu zan or ageri da. Eliz nagusiko beren kapillan bazuten itxasgizonak San Pedroren irudia, baina –nik ez dakit zergatik– ibilaldian ez zuten erabiltzen lenbiziko aldi artan beintzat; urte batzuek geroago, bai. Baina lenbiziko aldi artan, iru apostoloen irudi izateko iru anaikide aukeratzen zituzten urteoro, ta kapilla artako eliz jantziz beren buruak ederki apaindu ondoren, San Pedro iruditzen zuan anaikidea kaxa gainean jartzen zan, eta besteak kaxaren bi aldamenetan, onela ibilaldia egiteko. Apezak gaizki artu zuten ori ta esandako agintza betearazteko dei egin zienean, zalaparta ta iskanbila izan ziran Lekeitio: batzuek apezzen alde, besteak –dirudiane z geienak– itxastarren alde. Apezak Kalaorrako gotzai jaunarengana, arrantzale ta beste itxasgizonak Erregeren ordezkongana jo zuten berriz ere.

Uztailaren 30ean idatzi zien Erregeren izenean gotzai jaunari, esanaz: «Gure agintza betearazteko Lekeitiora bidali genuan ordezkari Alonso Lopez Kordidori, Lariz uri artako apezburu ta bere aldeko beste batzuek, eman genion zeregina aurrera eramatea galerazi nai izan zioten; ordezkari ori ta laguntzen zienak gaizki artu ta erabili zituzten, arpegiz arpegi erdeinu, irain eta lotsagabekeri asko esanaz. Ori dala-ta obendun orien auzia gure auzitegira etorri da; baina merezi duten zigorra galerazteko asmoz, zuk jaunorrek, Lariz eta beste batzuen eskabidez, agintza berriak eman eta elizneke<sup>218</sup> berriak ipini dituzu uri artako itxasgizon eta beren laguntzailen aurka. Oiek, obendun balira ere, elizgizonak ez dira-ta beren auzi ori elizaz atazkoa dalako, neroni dagokit eta nere epaikariak erabaki bear dute. Ori ta guzi ere –jakinarazi didatenez– auzi au zere auzitegian aurrera daramazu; itxasgizon orien aurka ipini zenituan zigor-nekeak, egunerik egunera astunago egiten dituzu, ortan bidegabezko indar eta irain ageria egiten dizkiezularik. Auzi onen ardura neronek ar dezadala eskatu didate ta orrengatik auxe agintzen dizut: Itxastarren Anaidi ortako bazkide ta ogasunzaiak baldin erri-gizonak badira ta beren auzia elizaz atazkoa ta neroni dagokidana, auzi ori utz ezazu, ez ortan aurrera jarraiki ta orain arte egin dezun guzia, nere auzitegira bidali, nik izendaturiko epaikariak, alde bat eta bestea entzun ta gero, zuzen erabakiz bakoitzari berea eman dezaioten. Auzi ontan zeri-

<sup>217</sup> [Anaidiko idatzizartegi, 2garren bilgo, 4garren bilabide, 1go zenbaki.]

<sup>218</sup> [Elizneke: zentsura.]

kusi duten apez oriek, nai badute –egoki baderitzate–, zortzi egunen barruan nere auzitegira betoz, edo ortarako eskubidea emanik beren ordekoa bidali bezate. Itxastarren anaidi orren eta bere laguntzaileen kaltez erabaki ta eman dituzun zigor ta eliz nekeak, irurogei egun barru atzeratu ta ken ditzazula eskatzen dizut.<sup>219</sup>

Auzia ontan zegoala, 1608garren urteko sanpedroak eldu ziran, eta gotzaiaren zemai<sup>220</sup>, zigor eta nekeak gorabera, Lekeitioko arrantzale ta itxasgizonak beren jaiak, aurrerago bezelaxe, egin eta ospatu zituzten. Ori eginaz ez ziran ase ta naikotu; beren Anaidiaren eskubideak zaitu ta begiratzeko on eta egoki izango zala-ta, amezketar Kristobal ango zin-emaileari<sup>221</sup> jai orren ageria idatziaz zioten. Jaun onek bere ageri ortan –beti berdinak izan oi diran gauzak alde batera utzi ezker– auxe dio: «Nere begiz ikusi nuana idatziko det. Elizan arrats-otoitzak<sup>222</sup> abestu ondoren, or irurak inguruan, uri ontako itxasgizonak, beren ogasunzai berri ta zarrak, endore ta zinegotziak, bertoko gizon presturik geienak, beste erri batzuetatik etorri ziranak ere bai, guziak batean beren dantzari, tuntun<sup>223</sup> eta uriko ikurrinarekin, zeregina utzi bear zuten bi ogasunzaietarik zarrenaren etxe aurrera joan ziran. San Pedroren kaxa kalera atera zutenean, mutil gazteak beren soinburuetan artu zuten. Gotzai-turrua<sup>224</sup> buruan, agure zar agurgarri antza ematen zion zomorroa arpegian, elizan erabili oi diran bezelako jantzi zabala soinean, giltz urreztatua eskuan zituala, San Pedro iruditzen zuan gizon bat kaxa gainera igo zan. San Andres eta San Joan antzezten zituzten biak –oiek ere beren zomorro ta jantzi zabalekin– kaxaren bi aldamenetan jarri ziran, eta onela beren tuntun, dantzari, mamu ta zomorrodunekin, batzuek kaleetan zear zalditxo gainetan zebiltzala ta beste batzuek su-iskiluz punpada<sup>225</sup> edo zunpak<sup>226</sup> jaurtitzen zituztela, joan ziran lenbizi uriaren goiko mugaraino, gero herriz kaira ta itxasoak jotzen duan nasa-muturreraino; eta onela, aspaldi ontan egin dan bezelaxe, ospe aundiz eramán zuten kaxa Sanjoan Gereá bi ogasunzai berrietatik adinez zarrena zanaren etxera eta antxe utzi zuten. Ibilaldi ontan inork ez zien zoztor<sup>227</sup> eta eragozpenik ipini: pake ederrez, alaitasun eta pozez eta San

<sup>219</sup> [Anaidiko idatzizartegi, 2garren bilgo, 4garren bilabide, 2garren zenbaki.]

<sup>220</sup> *Zemai*: mehatxu.

<sup>221</sup> [*Zin-emaile*: eskribau.]

<sup>222</sup> [*Arrats-otoitz*: bespera.]

<sup>223</sup> *Tuntun*: danbolin.

<sup>224</sup> [*Gotzai-turru*: mitra.]

<sup>225</sup> *Punpada*: tiro.

<sup>226</sup> *Zunpa*: eztanda.

<sup>227</sup> *Zoztor*: oztopo, traba.

Pedroren omen eta aundizurenez egin zuten guzi au. Ibilaldi ontako lagun guziak erri-gizonak ziran eta goiko konbentuko bi praile domini-kok lagundu zien. Apezen bat ikusminez erriko gizonak bezela jantzita eta arpegia zomorroz estalita ibili ez bazan beintzat, eliz nagusiko apezik batxo ere ez zan ibilaldi ontan agertu; beren nagusiak galerazi egin ziela erantzun zuten.<sup>228</sup> Amezketan zin-emaileak bere agerian orixe dio.

\*\*\*\*\*

Jai oiek elizatik ataz edo landa ospatzen zirala-ta, ortaz sortu zan auzia berari zegokiola uste zuan Erregek edo onen izenean zebiltzenak. Pedro Manso jaun bikain Kalaorrako gotzaiaren iritzia ordea ez zan ori. Bere eskubideak ongi zaitu zituan gotzaiak, lenbiziko aldi artan beintzat, eta Lekeitioko itxastarren Anaidiak pizka bat burua eratxi ta makurtu bear izan zuan. Makurtu zuan bai, baina apezai ere makurrarazteko asmoz.

1611garren urteko garagarriaren 18an Joan Otxoa Aperregik eskabide bat zuzendu zion gotzai jaunari, San Pedroren Anaidiko ogasunzai ta bazkide guzien ordez. «Jauna –esaten zion– San Pedro gure zaitzailearen egunetan jaiak ospatzeko oitura zarra, noiztik onakoa dan ere inork ez dakian oitura degu. Jai oietan, oarkabez, elizako jantzi ta gauzaren batzuek erabili genituala-ta, zure aurretikoak neke gogorpean ori galerazi ziguten. Lenbiziko urteetan –dirudiane– agintza oriek bear bezela –bear zan ajola ta begirapenez– ez ziran bete; baina igaz zeorren eta zure aurretikoen agintza oro zeatz betetzeko asmoa guziok aburu ta iritzi batez artu genuan. Aurrerakoan ez bazkide ez dantzari ez beste inork gauza onetsirik ez dezala jai oietan erabili ta guzia Elizako legeen arauz egin ditela: ori izan zan gure erabakia; ta jai oriek zoztor eta eragozpen gabe ospatu al ditzagun, nik guzien izenean geren asmo ona, geren mentasun zintzoa agertu ta jakinarazten dizut.» Aitorpen onen ondoren Aperregik bere eskabideak aurkeztu zizkion gotzai jaunari, eta onek eskatzen zion bezela jaiak egiteko baimena eman zion, erantzunaz: «Gure aurretikoak arazo ontan artu zituzten erabakiak eta eman zituzten agintzak bear bes-tean sendetsi<sup>229</sup> ta indartuz, San Pedroren Anaidiko bazkideai, eliz nekepean erori gabe ta bidezko dan bezela, beren jai oriek aundiro ta eraspen zintzoz ospatu al ditzaten, geren baimena ta ortarako eskubidea ematen dizkiegu. Orain arte bezela jai oriek beren dantzari, mamu ta guzi ospatu ditzakete; baina gauza ta jantzi onetsirik erabili ta Elizaren legerik

<sup>228</sup> [Anaidiko idaztizartegi, 1go bilgo, 12garren bilabide, 2garren zenbaki.]

<sup>229</sup> *Sendetsi*: baieztu.

ezertan ere autsi gabe. Guzi au ospatsuago ta Jangoikoaren omen geiagoz egin diten, Lekeitioko apez guziei agintzen diegu itxasgizonak San Pedroz eta bere aurregunean dituzten elizkizunetara joan eta aurkeztu ditezela utsik egin gabe, bestela meza emateko eskubidea galduaz gainera, berrogeitamar dukaten isunpean eroriko dira».

Aperregik, Anaidiaren izenean, beste eskabide bat ere aurkeztu zion gotzai jaunari. «Donianez –esaten zion– arrats-otoitzak bukatu ondoren, Lekeitioko itxasgizonak uriko agintari ta apezakin Auria deritzan toki batera joan izan oi dira urteoro, Doniane eguna ospatuz, sanpedroetako jai ta pozaldiak Jangoikoaren omen eta aintza geiagoz nola egingo ote diran, antxe elkarrekin ikusi, erabili ta erabakitzeke. Au ere aspaldidanik onelaxe egin degu; baina orain, entzun degunez, apez guziak, edo beintzat geienak, Auriara itxasgizon eta uriko agintariekin ez dirala geiago joango arrokeriz esan dute. Ori berrikeria litzate; ortik arrantzale ta toki artara dijoazen beste guzientzat naigabe ta lotsaria<sup>230</sup> letozke ta Doniane ta San Pedro egunak, orain arte bezala, guzientzat pozkorraz ez lirake izango. Au dala-ta, arren apez oiei agindu ezaiezu Auriako batzar ortara arrantzale, agintari ta enparauekin joan ditezela, orain arte berak eta beren aurretikoak egin duten bezela; eliz nekeen bidez ortara beartu itzazu.»

Goztai jaunak itxasgizonen eskabide au ere egin eta betetzeko agindu zien apezai, bestela meza emateko eskubidea kendu ta berreun dukaten isuna ezarriko ziela esanaz; baina agintza idatzi zuana pizkaren bat nastu egin zala dirudi, bere ageri ortan Donianeko jaien orde z sanpedroetakoak aipatzen ditu-ta.

Garagarrilaren 23an apez guziak eliz gelan bilduak zeudela, Zearreta eta Aransolo ogasunzaiak, Gallate zin-emailearen<sup>231</sup> aurrean eta bere bidez, gaztigatu zizkien gotzaiaren bi agintza oriek. Beren nagusiak erabaki ta agintzen zuana egin eta beteko zutela erantzun zuten apez guziak. Urte batzuetan bete zutela dirudi; baina 1655garren urtean berriz ere, Auriako ibilaldi au zala-ta aserre ta goraberak izan ziran. Doniane arratsaldean, itxastar eta auzorik geienak udaletzeko jaunekin eliz nagusiaren goialdeko atarian bilduak zeudela, irten ziran apezak elizatik. Oietatik iruk –Agirre, Aransolo ta Gamarrak– galdetu zienean zergatik ez zijoazen beste enparauak bezela..., ortara beartuak ez zeudela erantzun zuten, eta bakoitza gogoak eman zion tokira joan zan. Antonio Lopez del Puerto apezburuak ere ibilaldi ontara uts egin zuan. Au zala-ta Anai-

<sup>230</sup> *Lotsari*: ahalke, lotsaldi.

<sup>231</sup> [*Zin-ematle*: notario.]



diko ogasunzaiak, Zuberogoitia zin-emailea lagun zutela, bere etxera joan zitzaizkan eta arrebari galdetu zien neba non zan eta Auriara zergatik ez zan etorri. Etxean zala baina besterik ez zekiala erantzun zien arrebak, eta ogasunzaien eskabidez zin-emaileak gertaera guzi onen ageria idatzi zuan. Urte ortako uztailaren 21ean, Bakio ta Likona ogasunzai berriak gotzai jaunari esaten zien: «Jauna, uri ontako apezak orain arte gurekin etorri dira beti Auriako zelaira Doniane arratsalde; baina orain bat edo batzuek kezkek omen dituzte ta ez dute nai etorri. Erria, bere oitura on eta goragarriak zaitzen ez diralako, artega ta urduri dabil, aserre da ta pakez ezin euki genezake. Erriaren aserre ontatik kalte ta ezbear aundiak etorri ditezke. Agindu ezaiezu, ba, apez oiei aspaldi degun oitura begiratu ta gorde dezatela, bestela ortik lekorzken kalte guziak, oitura ori autsi dutenai egotzi ta ezarriko dizkiegu». Gotzai jaunak aserre ta kalteak galeraztearren, 1611garren urteko erabakia egin eta bete zezatela agindu zien berriz apezai, antxe bertan aipatzen diran neke ta isunen zemaipean. Beste eskubiderik zutela bazeritzaten, bere ordezkariarengana jo zezatela esaten zien; baina bien bitartean ezertxo ere berriztatu ta aldatu gabe<sup>232</sup>. Urrengo urteko donianeak baino len apez guziei gaztiagu zien gotzaiaren agintza berri au ere. Egin eta beteko zutela erantzun zuten apezak; baina Antonio Lopez del Puerto apezburuak Gasteizera –Bitoria– joan bearra zuala ta ez zekiala egun aietan Lekeition izango zan ala ez: Lekeition egon ezkeru urte artan eta enparauetan ere bere nagusiaren agintza ori betetzeko gertu ta prest zegoala. Ori idatziz erantzun zuan eta urrengo egunean Anaidiko ogasunzaiak berriz aurkeztu zitzaizkion esateko oiek aitzaki ta akiakulak besterik ez zirala, nai izan balu Gasteizko osteru ori lenago ere egin zezakeala; nolana ere Gasteizera joatea gerorako utzirik, bere eginbearra bete zezala lenbizi, eztabaida, zarata, liskar, auzi ta diru-xautzeari biderik eman gabe.

San Pedroren Anaidiko bazkideak nai zuten guzia iritxi zuten. Urte artan apez guziak –Antonio Lopez del Puerto apezburuak ere bai– uriko agintari, arrantzale ta beste auzoei Auriako zelaira lagundu zien, *boneta* buruan eta *manteoa* soinean zituztela. Gizonezkoak an egin zuten dantzaldia bukatu ondoren, guziak kai ta nasa-muturreraino itzuli ziran, andik elizaren bealdeko ildegira, ta antxe elkarri agur eginaz bukatu zuten egun artako ibilaldia. Guzi au onelaxe egin zala Urkizatar Martin zin-emaileak idatzi zuan ogasunzaien eskabidez<sup>233</sup>.

<sup>232</sup> [Anaidiko idatzizartegi, 2garren bilgo, besteen jarrai.]

<sup>233</sup> [Anaidiko idatzizartegi, 2garren bilgo.]

Zergatik ainbeste alegin apezak Auriara eramateko? Ageri zarrak diotenez, antzina -lenbiziko aldi, gero ez- Auriako zelai artan beste enparauak dantzaketan ziarduten bitartean, Anaidiko ogasunzai, uriko agintari ta apezak sanpedroetako pozaldi ta jaiak antolatzen zituzten, ortaz elkarren artean itz eginaz. Apezak arazo ortan zerikusi bazutela-ta, Auriara ez joan nai izatea gaizki artzen zuten Anaidiko bazkideak, eta buru ziran ogasunzaiak batez ere.

1655garren urteko Doniane arratsaldean, apezburua ta beste batzuek Auriara ez zirala joan lentxeago esan det. San Pedro biaramoneko ibilaldira ere uts egingo ote zuten beldur bide ziran Anaidiko bazkideak. Beren gauzak antolatzeko batzarra egin zuten. Garagarrilaren 27an Talaiako beren etxe ta elizatxoan bildu ziran endore, ogasunzai, txalupa-jabe ta beste bazkide asko. An bildurik erabaki auk artu zituzten: «San Pedro jaietarako txalupa-jabeak izendatu dituzten dantzariak, orain arte etxerik etxe eskean ibili dira. Ortik esamez eta makur asko etorri zaizkigu; augatik uritarren pakerako erabaki ta agintzen degu dantzari oriek aurrerakoan ez ditezela etxerik etxe eskean ibili ta orren ordez Anaidiaren ogasunetatik eman ditzaiela ogasunzaiak, orain arte eman dizkien ogeitalau errealez gainera, beste berrogeitamar. Baina mendexarrakin batasun eta anaitasun kutuna degulako, dantzariari erri ortara eskean joateko baimena ematen zaie. Dantzariak inortxori, ez bazkide ez uriko agintariri, baldin bakarrik badijoa, ez bezaiote lagundu, guztiak elkarrekin dijoazenean baizik. Erabaki au igaran eta autsi dezan edozein dantzarik, amar dukat ordaindu bitza Anaidiaren diru-eralketarako, ta ortaz gainera kai ontako txalupa-jabek bere batelean ez beza artu, beste orrenbeste dukaten isunpean.

«San Pedro biaramoneko ibilaldia nasara zetorrenerako, alki ta esertokiak jartzen izan dira kai gainean eta Kaiburua deritzan etxearen aurre ta bi aldamenetan. Lagun asko, bai elizgizonak bai bestelakoak ere, antxe eserita gelditzen izan dira San Pedroren irudiari aurrera jarraitu gabe. Ori gaizki dago-ta, inor gelditu ez dedin, aurrerakoan alki ta esertokirik ez bite jarri. Oro bijoaz aurrera ta San Pedroren irudiari nasa-muturretaraino jarrai ta lagundu bezaiote, guztiak antxe jeurt eta bira egiteko»<sup>234</sup>. Erabaki au dantzarietako gaztigatu bekie Anaidiaren izenean, zin-emailearen

<sup>234</sup> [Nasa-muturretaraino joan eta an bira egiteari leba edo garrantzi aundia ematen zien arrantzalcaak. Beinola antxe egiten omen zan San Pedroren irudia itxasora, uretara, jaurti nai zutelako keinua, arrain asko emango ote zien galdetzen ziotela. Norbaitek, bere izenean, baietz erantzuten zuan eta zemaia ortan gelditzen zan; baina inoiz, nai ez zutela, irudia uretara jausi zitzaizela ere esaten dute. Egia ote? Ez dakit. Gaur eguncan ere kinakada deritzaizoten irudiaren makurtze edo aierkundera, antxe nasa-muturrean egin oi da.]

bidez: Anaidiaren kaxan gorde bite ta bear izango dan edozein garaitarako antxe bego». Ogasunzaiak garagarrilaren 27an bertan gaztigatu zien erabaki au Ibieta eta Goikoa lenbiziko ta azkenengo dantzariet beste guzien ordezt, eta aditurik, egin eta beteko zutela erantzun zuten.

Gero, Intxaurraga apezaren bidez, beste guziak ere elizgelan bildu zituzten, Anaidiaren ageri ta paperak erakutsi ta bere eskubideak berriz jakinarazteko. Apezak elkarrekin bilduta luzaro egon omen ziran; gauzak ongi aztertu ondoren, Intxaurragak guzien izenean erantzun zien Anaidiaren ibilaldi ta jaietara joateko gertu zeudela ta aurrerakoan ere egongo zirala. Esan eta egin, urrengo egunean an ziran apez guziak batek ere uts egin gabe. Oiek eliz abestiak kantatzen zituztela ta San Pedoren irudia kaxa gainean zeramatela dantzari, musika ta laguntalde aundiarekin, beren ibilaldia oso ederki ospatu zuten: Arranegi kalean zear nasa-muturrera, gero berriz Atea deritzan uriaren eguerdi aldera, Basterretxeatar Mikel bizi zan etxe aurreraino. Apez guziak bira egin zuten nasa-muturrean, eta ez apezik ez bestelakorik inortxo ere ez zan bidean gelditu, aurreguneko erabakiak agintzen zuana guziak bete zutelarik. Zuberogoitia zin-emailearen ageriak orrelaxe dio<sup>235</sup>.

\*\*\*\*\*

Zein urtetan ez dakit, baina azkenengo ageri onek dionez, 1655garren urte au baino len, Lekeitioko itxastarrak beren ibilaldia egiteko era pizka bat aldatu zuten. Lenbiziko aldi artan –aurrera, esan dedanez– San Pedro iruditzen zuan gizon bat joan oi zan kaxa gainean; gero ez. Kaxa gainean San Pedoren irudia jartzen zuten apostoloen ordezkariak, len esan dedan bezela jantzita, kaxaren atzetik irurak oinez joaten ziran. Len bezelaxe jantzita esan det, eta ori egia dala ageri askok on egiten dute. Baina ori nola izan diteke? Elizkizunetan erabili oi dan gauza ta jantzi onetsirik<sup>236</sup> geiago bein ere ez erabiltzeko erabakia ez al zuten artu? 1611garren urtean gotzai jaunari ez al zien ori esan eta agindu? Anaidiko gizon aiek gezurtiren batzuek ote ziran? Nik ori ez det sinetsi nai. Lenbiziko jantzi aiek onetsiak zirala badakigu; geroko oiek ere elizkizunetan erabili oi diranen antzekoak zirala ageriak argiro dasate, baina onetsiak ziranik ez. Bearbada gauza onetsirik ez zutela erabilliko gotzaiari agindu zienean, jantzi berriak egin zituzten, onetsi gabe utzi ta beren ibilaldietan oiek erabili. Gezurtiak zirala esan baino ori sinetsi

<sup>235</sup> [Anaidiko idaztizartegi, 2garren hilgo.]

<sup>236</sup> [Onetsirik. bedeinkaturik.]

naiago det... Eta ibilaldi bitartean dantzariak egiten zuten dantza ura nolakoa ote zan? Lenbizikoa zein zan paper zar aiek ez dasate; baina geroago ezpata-dantza egiten zutela irakurri det eta lenbizikoa ere ori bera zala sinetsi genezake.

\*\*\*\*\*

Auzi ontan apezak gaizki zebiltzala ikusi degu. Anaidiko bazkideak asko ziran, aitabitxi ona zuten eta apez gaxoai geienez burua makurrarazi zien. Baina gauza bakoitzak bere aldia du ta laister apezak ere, garaitzaile<sup>237</sup> antzo, burua jasoko dute; 1656garren urtean, Agirretar Frantzisko apezari gotzaiaren agintzak gatzigatu zizkienean, onek erantzun zuan: «Bai, nere nagusiaren agintza oriek beteko ditut, baina nere eskubideen kalte gabe». 1682garren urtean jaun ori Lekeitioko apezan buru zan; eta eztabaida gogaikarri au bein betiko antolatu bear zuala-ta, Jose Ibáñez Gallate zin-emaileari dei egin eta esan zion: «Aurian gertatzen danaren ageria idatzi ezadazu». Eta onek auxe idatzi zuan: «Uri ontako San Pedroren Anaidiak Donianez urteoro Auriara egiten duan ibilaldira izan naiz eta endore, zinegotzi ta apezak an ikusi ditut; baina beren artean ezertxo ere ez dute autuan erabili ta erabakitzen sanpedro-etako pozaldi ta jaitezaz. Zelai artara dijoaz, bazkide asko dantzan asten dira, neskatzak ere bai, ta an egiten danak elizako gauzakin zerikusirik batere ez du. Ori egia dala uri ontan edonork daki».

Agirrek, bere ta beste apezan izenean, urte artantxe esaten zion Gabriel Esparza, Kalaorrako gotzai jaunari: «Lekeitioko urian egin bear ez liraken bi gauza galgarriren oitura degu. Donianez, ilunkeran, San Pedroren Anaidiko bazkideak –auzorik geienak dira bazkide– Auriako zelaira joan oi dira, ta gero gizaseme ta emakumeak beren dantzakin uri guzian zear kairaino datoz. Ibilaldi au Doniane goratzeko egiten dala-ta, apezak ere joatea naitanaiezkoa dala uste dute anaikide oiek, eta gere nagusien erabakiak erakutsiz ortara beartu gaituzte. Elizbira<sup>238</sup> balitz..., baina orren antzik ere ez du, eliz ezaugarri batxo ere ez da eramaten; apezai ez dagokien itzal gutxiko jostaketa bat, besterik ez da ibilaldi ori. Apezak Auriara eramateko, oiek ere beren zeregina bazutela an, Anaidiko ogasunzai ta uriko agintariekin batean, San Pedro jaiak antolatzen zituztela esan zien zure aurretikoai; baina ori aitzaki ta akiakula<sup>239</sup> besterik ez dala jakin dezazun, zin-emailearen ageri au aurkezten dizut.

<sup>237</sup> *Garaitzaile*: garaile.

<sup>238</sup> *Elizbira*: prozesino.

<sup>239</sup> *Akiakula*: desenkusa, estakuru.

Beste oitura galgarri bat ere bada uri ontan. San Pedro biaramoneko ibilaldian, done<sup>240</sup> orren irudi ta apezzen bitarte iru itxasgizon joaten dira beren zomorro ta eliz jantzi zabalekin. San Pedro iruditzen duan erdikokak buruan gotzai-turrua ta eskuan giltza eramaten ditu, ta San Andres eta San Joan iruditzen dituzten bi aldamenetakoak ere, beren burestun edo koroekin joaten dira, begira daudenai barre eginaraziz eta askori gaizpidea emanaz. Uri ontara, itxaskaia<sup>241</sup> dalako, arrotz askotxo etorri oi dira, zinausle<sup>242</sup> ta sinesgabeak ere bai; orrengatik egiten dan ori anbat kaltegarriago da. Apezak ibilaldi ortara ez joateko, edo beintzat jantzien gaizki erabiltze ori galerazteko, aleginik asko egin dute; baina alperrik. Anaidikoak asko dira, apezak zematu egin dituzte ta orai arte ezertxo ere ezin izan dute iritxi. Bestela Anaidiaren elizkizun guzietara, ta jantzi oiek kendu ezkerok, ibilaldira joateko ere beti gertu egon dira, ta gu ere gertu gaude. Guzia dan bezelaxe adierazten dizut, zuk gure gotzai zernorrek, arazo ontan sori edo zilegi dana ta ez dana berezi ta erabakiz, apezai zer egin bear duten agindu dizaiezun, eliz arauen kaltez eta itzal gutxiko dana eragotziz eta orai arte eman diran eliz nekeak bear beste-an kenduz».

Bere epaia garoil<sup>243</sup> edo agorraren<sup>244</sup> 22an eman zuan gotzai jaunak, onela aginduz: «Kristau arrotzai gaizpidea eman eta zinausleai barre eginarazi dizaiketeten gauza dalako, San Pedro biaramonez Lekeition egiten dan ibilaldi ortan zomorroz jantzitako gizon oriek eliz jantzi, turru, burestun eta zetrorik ez bezate erabili; bestela, apezak elizhira ori ez bezate egin eta ibilaldira ere ez bitez joan. Nere agintza au batzuek eta besteak zintzoro bete bear dute; bete ezik, lau apezik zarrenak beren eskubideak gal bitzate eta orrela jantzi ditezen gizon oriek ere, eliz neke nagusipean berealaxe erori bitez. .

«Eta San Pedroren Anaidikoak, Doniane arratsalde, Auriara egiten duten beste ibilaldi orrek elizkizunekin batere zerikusirik ez dualako, apezak ez bitez orra joan, ez elkarrekin oro ez banezean, eta norbait balioa bere eskubideak gal bitza. Nere agintza oiek betearazteko egine-na, eliz nekeak ipini ta kendu, lotu ta askatzeko eskubidearekin Lekeitioko apezburuari ematen diot, eta erabaki oien aurka izan ditezken orai arteko agintza guziak atzeratu ta kentzen ditut»<sup>245</sup>.

<sup>240</sup> Done: santu.

<sup>241</sup> Itaskai: itsaska.

<sup>242</sup> Zinausle: heretiko, hereje.

<sup>243</sup> Garoil: irail.

<sup>244</sup> Agor: irail.

<sup>245</sup> [Idazti zar oiek eliz nagusian, San Pedroren Anaidiko liburu barruan daude.]

Gotzai jaunaren agintza oriek apez guziei ta bakoitzari gaztigatu zizkien urte artantxe. Apezak beren nagusiaren erabakiak gogoz eta herealaxe bete zituztela esan bearrik ez dago; baina antzinatiko oiturak zeero kendu ta uztea gauza gaitza da-ta, Anaidikoak ez zituzten abegi onez artu. Eliz jantziak erabiltzeari utzi zioten ala ez ezin esan nezake, baina ibilaldia egiten jarraitu zutela dirudi. 1690garren urtean etorri zan Lekeitiora Pedro Lepe jaun bikaina, Kalaorrako gotzai ospatsu, argi ta jakintsu ura. Zurtasun andiz eta maitaki itz egin zien Anaidiko bazkideai eta guzien iritzi ta atseginez bi ibilaldi oien ordezt, Doniane ta San Pedro biaramonean arratsaldeko zazpitan bi elizbira egiteko agindu zuan<sup>246</sup>. Gainera, eliz gauzak beren bizibidekoekin nastu gabe, aien artu-emanak Anaidiko liburuan bereziki eramateko eta oituraz egin eta ospatzen zituzten elizkizunen arauak ere bi ilabete barru bear bezela idazteko eskatu zien. Arau oriek 1691garren urteko ilbeltzaren 6an idatzi zituzten Talaiako beren etxean bildurik, eta oraindik Markinan zegoan gotzai jaunak bi egun geroago zuzenetsi edo ontzat eman zituan.

\*\*\*\*\*

Elizbira ta kaxa-aldaketa onela berezi ziran, aurrerakoan bakoitza bere garaian eginaz; eztabaidak ere utzi ta aztu ziran bein betiko. Geroztik kaxa-aldantza ori noiz eta nola egin ote zan? Arrantzaleak beren arteko goraberak antolatzeke antzinatik zeuzkaten arauak 1766garren urtean zerbait aldatu ta berridatzi zituzten. Bederatzigarrenak onela dio: «Kaxa-aldaketa elizbira ondoren egiteko oitura degu». Oitura onek aspaldi orrela egiten zutela esan nai du; baina bi gauza oiek berezi ziran urte artan berean asi ta aurrera, elizbira ondoren egin ote zuten beti? Baietz dirudi, baina ziur ez dakigu.

Antzina ogasunzai berriaren etxera San Pedroren kaxa eramanaz beste gabe, ogasunzaitzaren jabe egiten zutela esan det; 1766garren urtean ori ere aldatu zuten, bederatzigarren arauak dionez: «Ogasunzai berriaren etxera kaxa eramanaz ez degu adierazi nai, orain arte adierazi degun bezela, ogasunzaitzaren jabe egiten degunik, ez. Ortarako ogasunzai berriak bear bezelako iru sendesle<sup>247</sup> edo fiadore eman bearko ditu, ta ori egin arte, kaxa bere etxera eraman arren, ogasunzaitza lengo zarraren eskuetan bego». San Pedro biaramonean, eguerdi aurretik, aukeratzen zuten ogasunzaia ta bere sendesleak aurkezteko, ogei ta lau

<sup>246</sup> [Urte gutxiz onantza bi elizbira oiek Doniane ta San Pedro egunez eta arratsaldeerdian egiten dira.]

<sup>247</sup> *Sendesle*: fede-emaile.

orduren epea ematen zien. Ogeitalau ordu barru bear bezelako sendeslerik aurkeztu ezik, kaxa ogasunzai zarraren etxera itzultzen zuten eta berealaxe zeregin ori ordezkariari eskaintzen zien. Onek ere bear bezelako sendeslerik aurkezten ez bazuan, besteren bat aukeratzen zuten, eta sendesleak eman ezkeru, kaxa bere etxera aldatu. Iru autaldi egin eta nai zan ori iritxi ezik, urte artan Anaidia bera gelditzen zan kaxa ta ogasunzaitzaren jabe<sup>248</sup>.

Nola egiten ote zan? San Pedroren irudia kaxa gainean zeramatera, elizbira ta kaxa-aldaketa biak batera egiten ziran garai artan, dantzariak ezpata-dantza egiten zutela badakigu. Bi gauza oiek berezi ziranean, ezpata-dantza egiteari berealaxe utzi ote zioten? Gaur bezela, gizon bakarrak kaxa gainean dantza egiteko duten oitura ori noiztik onekoa ote da? Oitura ori noiz asi zan, 1691garren urtean ala geroxeago ezin esan dezaket, asiera orren aztarnarik ez det aurkitu-ta.

Gaur bizi diran askok kaxarrenkaren bi era ezagutu dituzte: lenbiziko era, arrantzaleak beren ogasunzaia zuten garai artakoa; bigarrena, ogasunzaiaren ordezkari ta diruziaia dituzten azkenaldi ontakoa. Aldakuntza ori egin zutela oraindik urte gutxi dira<sup>249</sup>.

\*\*\*\*\*

a) Lenbiziko era: Elizbira bukatu ondoren, Anaidiko guziak edo geienak eta kaxarrenka ikusi nai zuten beste asko ere bai, ogasunzai zarraren etxe aldera joan oi ziran. Kaxa kalera atera ezkeru, mutil gazteak beren soinburuetan artu oi zuten; dantzaria kaxa gainera igoten zan, eta erpinean zedazko zapi gorria zeraman kainabera bat eskuan zuala, bere dantzaketa iru tokitan egiten zuan, bakoitzean iru dantzaldi labur, gaur egunean bezelaxe. Lenbizi ogasunzaitza uzten zuanaren etxe aurrean, gero Anaidiko San Pedroren irudi aurrean, eta azkenez ogasunzai berriaren etxeke atetan. Onen etxean gelditu oi zan kaxa urrengo urtera arte.

b) Bigarren era: Orai -1903garren urtetik aona<sup>250</sup>- ogasunzairik ez dute. Kaxa Anaidi etxean dago, orrengaitik kaxarrenka antxe asi oi da; ta atuntzura joateko eguntxo bat irabaztearren, azkenengo bospasei urte oietan San Pedro arratsaldez egin da. Gotzai-turrua ta giltza egalunez<sup>251</sup>

<sup>248</sup> [Anaidiko idatzizartegi, 4garren bilgo, 1766garren urteko araudi.]

<sup>249</sup> [Aldakuntza au 1903garren urtean egin zan: azkenengo ogasunzaia Antonio Alzibar eta lenbiziko lendakaria Bruno Larrazabal jaunak izan ziran, garagarriaren 26ko agerkaia dionez.]

<sup>250</sup> *Aona*: hona.

<sup>251</sup> *Egalun*: oxkar, festoi.

atereak dauzkan ikurrintxo gorria jartzen dute goizean goiz Anaidiaren etxeko leio batean, lorez apainduta, kalera begira. Arratsaldeko elizbira ondoren, endore ta zinegotziak, eresbatzak<sup>252</sup> biribilketa jotzen duala, Anaidiaren etxera dijoaz. Kaxarrenka ikusi nai duten lagun asko ere aruntz joan oi dira. Zortzi arrantzale gaztek artzen dute kaxa beren soin-buruetan. Dantzaria, txamarra beltz labur, galtza zuri ta gerriko gorritz jantzita, esku batean kapela kasko luzea ta bestean aipaturiko ikurrintxo ori dituala, kaxa gainean jartzen da. Atabalariak tuntuna ta txistua jotzen dituzte. Dantzaketan asi orduko, bere kapela ta ikurrina erabiliz eta burua makurtuz, lau aldetakoei itzal aundiz agur egiten die. Dantzaketa iru tokitan egiten du, bakoitzean iru dantzaldi labur: zortziko bat, fandango ta arin-arinaren ataltxo bana. Lenbizi Anaidi-etxean, San Pedroren irudi aurrean, bigarren lendakariaren etxe ondoan eta azkenez Arranegiko enparantzan; baina baldin lendakaria enparantza ori baino urrutiago bizi bada, bigarren dantzaldia enparantza ortakoa izan oi da ta azkena lendakariaren etxe aurrekoa. Bein ori egin ezker, kaxa, dantzaria bere gainean dala, Anaidi-etxera daramate txistulariak lagunduz, eta orrenbestez kaxarrenka bukatu da. Dantzaldi oiek ikus ditzazuten Atxabal jaunak –kaxa gainean ez, baina bai emen agertokian– orain berealaxe egingo ditu.

\*\*\*\*\*

Lekeition urtero egiten dan jai au ikustera laguntalde aundia dijoa beti; guziak atsegin-pozez egoten dira ta dantzaldi bakoitzaren bukaerari txaloak gogoz jotzen dituzte. Izan ere kaxarrenka gure arrantzale azarri, bulartsu, zintzoen oitura zarra da, ta aspaldi egiten dan bezela, guziz txalogarri ere bai. Ain begiko ditugun arrantzale oiek arbasoen oitura onen jarraitzaile bitez; asaben oroimen laztana zearo gal ez dedin ortan zintzo iraun bezate. Eta guk ere gere erriaren errai ta biotzean erne ta oraindik bizi diran oitura on-garbiak –diranak dirala– gogo onez ikus, maitaki begira ta txaloz gora ditzagun.

---

<sup>252</sup> *Eresbatza*: musika banda.



**ARRASATEKO EUSKAL EGUNEAN  
EGUZKITZA EUSKALTZAINAK EGINDAKO IT'ZALDIA**

*«Interroga... majores tuos et dicent tibi.»*

(Deut. 32, 7)

Aspaldi ontan kirol eta jolaszale aundiak egin gera. Aize garbia artuz mendi-goietatik ibiltzea osasuna dala-ta; laisterketa, ukabilketa<sup>254</sup>, ostiko-pelota<sup>255</sup>, nolanaiko zeingeiagokak, kirio ta zainak indartu ta gorputza sendotzeko berebizikoak dirala-ta, gure gazteak gogo ta biotz ortan dau-de, jolas oietan aspertzaka<sup>256</sup> diardute.

Gorputza indartu ta sendoagotzea ongi da-ta, jolas oriek -osasunari kaltea lekarkion geiegikeriren bat egin ezik- gaizki daudenik ez diot. Baina entzun: gizona ez da soin edo gorputz utsa; badu gizonak gorputza baino geiago, ederrago, bikainago danik ere, bere gogoia, bere anima. Gizona dan gizonak bere animaren almenak landu, adina argitu ta gogoia sendotzeko alegin egin bear du lenbizi. Augatik soinari aldi ta asti guzia eman eta gogo-jolasak, gogo-indarketak, burua argiz eta biotza kemenez betetzeko egoki diran zeregin ta lanak albo batera uztea, ori gaizki, oso gaizki legoke. Antzinakoak ere guziz egoki esan zuten: *«Mens sana in corpore sano; gorputz sendoan gogo azkar, pizkor<sup>257</sup>, zindo ta sendoa bego»*.

Gaur egunean gazte asko gorputzari dagozkan jolas oietan buru-belarri dabilta, ori baino beste ametsik ere ez dute. Gogoaren jolasak, ordea, burua argitu, biotza sendotu ta gizona gizon egiteko diran ikasketak, oiek agure zarren zereginak bailiran, guziz, zearo utzi dituzte. Bere senean dagoan gizonak ori ontzat ezin eman lezake.

---

<sup>253</sup> Argitaratua: «Arrasateko Euskal egunean Eguzkitza euskaltzainak egindako itzaldia» in EUSKERA, IX (1928), 24-34 or. (Izendapen bibliografiko hau grafia moldaturik dago.) Gipuzkeraz idatzita dago.

<sup>254</sup> *Ukabilketa*: boxeo.

<sup>255</sup> *Ostiko-pelota*: futbol.

<sup>256</sup> *Aspertzaka*: aspertu barik.

<sup>257</sup> *Pizkor*: bizkor.

Zorionez gazte guziak ez dute ori egin, ez. Gogoari dagozkan egin-kizun eta ikasketak benetan aundietsi ta aintzat artzen dituzten gazteak ere badira. Asabengandik datozkigun izakera berezi, oitura on-garbi ta euskera zar-ederra galtzen ikusteak, atsekabe aundi, naigabe samina ematen dien euskaldun zintzoak badira antzinako Arrasate ta oraiko Mondrago ontan ere. Politika-gauzak alde bat utzi ta anai bezela elkar arturik, gaurko jai oiek gertu ta antolatu dituzte. Lenbizkoak ez dira; 1896garren urteko uztailean ere Euskal jaiak andiro ospatu ziran emen. Orain berriz Euskal eguna egin eta ospatzen degu. Au dala-ta, zer esango ote dizutet?

Jesusen Lagundiko aita Kardaberaz jakintsu ta santuak, gizon argi ta jainkozale aundiak, *Euskeraren berri onak* deritzaion bere liburuan auxe ere idatzi zuan: «Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du». Kardaberazen iritiz Jainkoak nai duan ori euskaldun guziok ere zinez, benetan, zintzoki nai izan bear degula, nere itzaldi ontan orixe azaldu ta adierazi nai nuke...

\*\*\*\*\*

Euskalduna ta euskeraz mintzo dena, euskera darabilana, euskeraz itz egiten duana, gauza bat eta berbera dira; orrengatik euskera guziz, zero galduko balitz, euskaldunik ez legoke ta Euskalerririk ain gutxi. Euskera zeatz galdu ta gero ere, bearbada gure erri oni askok Euskalerriren izena emango liokete; baina ori ilunari argia, txiroari aberatsa, geixoari osasuna, eriotzari bizitza deitzea bezenbat izango litzake: izanik gabeko izen utsa, izen aizuna, berenez gezurra, euskera gabe Euskalerririk ezin izan diteke-ta.

Euskera ez da alderdi bat edo besterena, euskaldun guzioena baizik. Guzioena dalako guziok maite bear degu. Euskaldunok, zoritxarrez, geren arazo ta goraberetan maiz ezin elkar artu izan degu. Guzioena dan euskerari, euskeraren biziari zegozkion arazoetan ere, batean aiskide bestean etsai, orain besarka gero aztaparka, gaur musuka biar muturka ibili gera sarri, zorigaitzoz sarriegi. Baina, ori gaizki dagoala nork ez daki? Guzioena dan eta guziok berdin maite bear genuken gauza batean orrela ibiltzea, egin genezaken zorakeririk aundiena dala nork ez daki? Zer? Oben edo gaiztakeri aundi ta izigarriren bat egin ote degu? Ori dala-ta gure erri onek bere bizkarrean Jainkoaren zigorra ote darama? Ala euskaldunok atso zarrak bezela, guziok zarmindu ta txotxindu egin ote gera? Gere zentzua osoro galdu ez badegu beintzat, orai arte maiz egin degun oker ori ezagutu, aitortu ta zuzendu bearrean gaude.

\*\*\*\*\*

Euskaldunok noizko ta nondikoak ote gera? Gure antzinako arbasoak nonbaitetik etorri ziran onera. Baina, nondik eta noiz? Inork ez daki! Jesukristo gure Jaunaren etorrera baino askoz lenagotik euskaldunak emen zeudela ori inork ezin uka lezake; baina noiztik aona dauden dakianik inon ez da ageri. Aldi bateko iberotarren ondorengoak ote gera? Len jakitunik geienak ori uste zuten; gaur ere badira ori uste duten batzuek, baina beste askok ezetz diote. Dana dala, iberotarren Ugartexe edo Peninsula deritzan lurraldean antzina ere izkuntza bat baino geiago –bearbada askotxo– egiten zirala dirudi. Antzinako izkuntza aietatik bat izan ezik beste guziak il eta betiko galdu ziran; batxo bakarrik bizi da: euskera zarra! Antzinako mintzaira aietatik gelditu dan bakarra ta Europakorik zarrena dalako, izkelari<sup>258</sup> arrotzak, erbesteko jakitunak aurrez diote: «Gaur egunean jakitunentzat leba, garrantzi, inportantziarik geien duan izkuntza, antzinako gauza askoren berri ematen digulako, onurarik aundienaz ikasten dana, euskera da». Alemania, Austria, Holanda ta Frantziako izkelari jakitun asko iritzi ortakoak dira ta uste ortan daudelako euskera gogoz eta errotik ikasten dute... Eta guk, bere semeok, maite ezaz, erabili ezaz, ipizki<sup>259</sup> zarra bailitzan zokora jaurtiaz iltzen utziko ote diogu? Zenbat urtez, zenbat mendez bizi izan da emen euskera? Au ere inork ez daki! Gure etxe, mendi, zelai, aran, ibar, soro, latzin<sup>260</sup>, ibai, iturri ta zoko guziei beren izenak euskerak eman dizkie; ia toki guziak euskal izena daramate, izenez euskaldun dira. Gauza ta toki oiek beren euskal izenak galdu baino len, euskera euskaldunen gogoetan il eta beren ezpainetan guziz betiko ixilduko balitz, adimen, biotz eta zentzugabeko gauza mutu oiek ere, adimen eta biozdun euskaldunak baino euskaldunago izan dirala esan bearke genuke. Ainbeste euskal izen dituan gure lurralde oni bere alde guzietatik euskal usaia dario. Alaz ere badira gure artean euskera batere maite ez duten euskaldunak, badira gorroto diotenak ere. Euskerrari gorroto dioten euskaldunak! Ori nola izan diteke? Izan bear ez luketen beste gauza asko diran bezelaxe. Ez al dira gurasoai lotsa ta itzala galtzen dizkieten seme-alabak? Ez al dira beren buruak iltzen dituzten gizonak ere? Eta ori nola izan diteke? Zuzena utziz, okerra eginaz. Euskerrari gorroto izatea ere orrelaxe da: egin bear litzaken zuzena autsiz eta inoiz egin bear ez litzaken okerra jauki<sup>261</sup> ta eginaz.

<sup>258</sup> *Izkelari*: hizkuntzalari.

<sup>259</sup> *Ipizki*: sorki zahar.

<sup>260</sup> *Latzin*: larra, lantzar.

<sup>261</sup> *Jauki*: okerkeriaren bat egin.

Gaur egunean erdera naitaez jakin bear dala? Erdera jakin bear ez danik ez dizutet esango. Erdera baten ordeaz asko jakin al badira, anbat obe; baina erdera jakiteko euskera utzi ta aztu egin bear ote da? Biak ezin ikasi ote genitzake? European izkuntza bi batera darabilzkiten erri askotxo daude: amaren altzo ta magalean ikasi zutena ta beren garatz eta arazoetarako bear duten bestea, agintariena. Biak ongi ikasi ta bakoitza bere garaian ederki darabilte bai Suizan, bai Belgikan ta bai beste erri askotan ere. Gu aiek baino tentel eta totelagoak ote gera? Buru txarragoa ote degu? Eta baldin aiek baino zozo, txaldan<sup>262</sup> eta ergelagoak ez bagera, aiek egiten duten ori guk zergatik ez? Txaldankeriz ala alperkeriz? Motel eta txaldanagoak gerala aitortzea guretzat lotsagarri litzake; baina zabar, alper eta nagiagoak izatea askoz ere lotsari aundia-go da ta euskaldun asko lotsari gorri ori aitortu bearrean daude. Aitzakia ugari, andurreri<sup>263</sup> ta alperkeria nagusi ta euskera ikasi ta erabiltzeko gogo gutxi! Euskeraren etsaiak oiek dira; oiek ez balira, euskera bizi dan baino azkar, pizkor, mardo<sup>264</sup> ta sendoago biziko litzake.

Euskera uztera erdera jakin bearrak ez garamazki. Ori esan, bai, maiz esaten da, baina gezur biribila da. Egia balitz, euskera lenen utzi ta aztuko luketenak nortzuk izango lirake? Zertan esan ere ez! Erderaren bearrizanik geien dutenak! Eta oiek zeintzuk dira, gizaseme ala emakumeak, mutilak ala neskatxak? Gudaritza dala, beren ikasketak erderaz egin bear dituztela, beren ogipidea eskuratzeko ere maiz erdera eskatzen zaiela-ta, mutilak askoz ere erderaren bear geiago dute; baina euskera mutilak baino neskatxak lenago, errezago ta laisterrago uzten dute-la, ori ez dakianik ba ote dago? Erderaren bearrizan gutxiago ta erdalzalekeri geiago. Zer esan nai du orrek? Euskera uztera garamazkian zer ori ez dala maizenik beintzat erdera jakin bearra, andurreri ta arropuzkeria baizik. Inoiz entzun al dezute oiek erriei on eta mesede egin dietenik?

\*\*\*\*\*

Zu nor zera? Ni, euskaldun jatorra. Euskaldun jatorra bazera, zere asabak maite bear dituzu, beren antzeko izan bear dezu. Zere arbaso ta asabai galde ezaiezu ta nor ziran eta zuk nolakoa izan bear dezun berak esango dizute. *Interroga... majores tuos et dicent tibi.* Eta egiz, geren

<sup>262</sup> *Txaldan*: memelo.

<sup>263</sup> *Andurreria*: harrokeria.

<sup>264</sup> *Mardo*: indartsu, gogor.

asabakin ertsien, estuen, obekien lotzen gaituan lotzaiki<sup>265</sup> ta txibista euskera da. Gogoaren ispilua arpegia dala esan dute batzuek; baina ori maiz egia ez dala izaten badakigu. Antzinako greziatarrak askoz ere zeatz eta zuzenago esan zuten: gogoaren ispilua izkuntza da. Eta zinez gere barreneko bizia, gere gogapen, asmo ta gurariak izkuntzaren bidez azaltzen ditugu. Lenbizi, gure gogoak an, barrenean beretzat itz egiten du: gogapen, asmo, naikunde<sup>266</sup> ta gurariak gogoaren itzak bezelaxe dira; gero barreneko izketa ori, geronek nai izan ezkeru, aozko itzez besteai adierazten diegu. Augatik gure gogo ta izkuntzaren arteko zerikusi ta artu-emanak, benetan ertsi, estu ta arrigarriak dirala, gizonak ageriko gauzetan izkuntza baino bereago duanik, bere gogoaz zerikusi geiago duan gauzarik, ezertxo ere ez duala jakitunak iritzi batez aitortzen dute. Au onela izanik, gure asabak utzi diguten ondasunik ederren, bikainen, berenen eta barnekoena euskera da.

Asabak gauza asko utzi dizkigute: beren lanez irabazitako ogasunak, beren izerdiz bustitako lurak, beren oitura garbi-ederrak; baina gogoaren ispilu bikaina izkuntza dalako, asabak beren gogoa obekien euskeran utzi digute. Geren arpegia ispiluan bezela asaben gogo ori euskera zar-maitagarri ontan dakusgu. Loiolako Inazio Deunak, erderaz idazten zuanean ere, bere gogoa euskalduna zala, euskaldunak bezela oldoztu edo pentsatzen zuala urrundik ere ageri du. Zergatik ori? Barneko ta azaleko izkuntza, gogoa ta mintzaira elkarrekin dabilzalako beti.

Orain esadazute: asaben ezurrei ixeka, irri ta barre egiten nor azar-tuko ote litzake? Eta ezur oiek zer dira? Gorputzen azuzki<sup>267</sup> ta kondarrak besterik ez. Gogoa gorputza baino geiago da; asaben gogoaren aztarna ta agerketarik ederrenak beren izkuntzan dauzkagu. Eta euskerari, geren asaben gogoa ain ederki darakuskun izkuntza oni begirapen, lotsa ta maitasunik ez ote diogu izango? Urteen astunaz bere gorputza makur eta aulduta duan ama naiz amona zarrari bere seme ta ilobak irri ta barre égingo balie, biotzik degunok zer esango genuke? Euskera euskaldun guzior ama da, berreun gizaldi euskaldun baino geiagoren aztarnak bere arpegian daramazkian amona zar-agurgarria da. Augatik euskerari lotsa galtzea, gure aurretiko gizaldi guziei lotsa galtzea bezenbat da, gure euskera onetzaz irri ta barre egitea, arbasoetzaz ere irri ta barre egitea; asabakin lotzen gaituan lokarririk ederrena, barnekoena, gogozkoena autsi, urratu... ta asabai bein betiko agur lotsagabea egitea beze-

<sup>265</sup> *Lotzaiki*: lokarri.

<sup>266</sup> *Naikunde*: gogo, apeta.

<sup>267</sup> *Azuzki*: erlikia.

laxe da. Seme onai dagokienez gere asabak maite baditugu, aiekin ain ertsi ta estu lotzen gaituan euskera ere maite bear degu.

\*\*\*\*\*

Beste izkuntza batzuek noiz eta nola sortu ziran badakigu. Euskerak –dakigula beintzat– emen lurrean ez aitarik ez amarik ez du. Jaunak eman zien gure asabai ta oiek utzi digute guri. Jaunak emandako izkuntza onek Jaunarengana garamazki; orrengatik esan zuan Kardaberaz jainkozale aundiak: «Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du». Eta egiz, orai arte beintzat euskera gure sinismenaren lagun aundia, aiskide laztan-kutuna izan da. Kristau izatea lurreko beste arazo guziak baino zerbait geiagotan daukagunok, auxegatik bakarrik ere, euskera maite-maite izan bear genuke.

Izkuntza zearo galtzeak erriaren sinismen eta oitura onai ere kaltea dakarzkie. Beste erri batzuek alde bat utzirik, esadazute: gure erri ontan sinismena sendoen, indartsuen, non bizi da? Oraindik euskeraz itz egi-ten dan tokietan, ala osoro galdu duten beste oietan? Euskera zearo gal-du dan tokietan antzinako oitura onak ere noizbait izan zirala, baina orai ez dirala gere begiz ikusten degu.

Gure sinismenak laguntza asko izan ditu, lenbizi Jainkoarena; baina eguzkiaren azpian izan duanik onena, euskera. Ori nire iritzia baino ez balitz, ez zenukete sinetsi nai izango bearbada, baina orrelaxe uste duten geiago ere, ni baino esku ta itzal aundiagokoak ere badira. François Marie Guieure Baionako gotzai jaunak, Euskalerrian zear bere ibilaldia egin ondoren, esan zuan: «Erri onek bere sinestea ongi zaitu du. Ortarako zer laguntza izan ote du? Asko, baina laguntzaile aundia ezba-rik gabe, bere izkuntza, euskera izan da». Eta Iruñako gotzai jaunak: «Naparroan euskerak erlejioari asko laguntzen diola neronek ikusi det. Euskera uts-utsik darabilten bazterretan eta erderazko paperak sartzen ez diranetan, apezak askoz obeki daude ta beren erriak errezago zaitzen dituzte lengo oitura zar-ederretan».

Euskaldunak ez du euskeraz ainen<sup>268</sup> eta biraorik esaten. Euskeraz esan ezin diteken gaiztakeria ote da? Ez, ortan asi ezkeru euskeraz ere esan diteke; baina euskera garbiak ortarako egina, erabilia, oitua dan esakerarik ez du, ta birao zakarra jaurti nai duan euskaldunak lenbizi euskera utzi ta ukatu egin bear izaten du. Itxasotik irtendako urak berriz itxasora dijoazen bezela, Jaunak eman zigun euskerak ere birao ta itz

<sup>268</sup> *Ainen*. madarikazino.

zikinetatik aldendu ta Jaunarengana garamazki. Augatik euskaldun naitzanez maite ez banu ere, apaiz naitzanez euskera maite izango nuke, Jaunaren izenean irakatsi bear ditudan sinismen eta oitura garbien lagun aundi ta aiskide mamia dalako; euskera maite-maite izango nuke, eta kristau garenez guziok maite izan bear genuke.

Badakizute: izkuntzak berenez aldakor eta ilkorrak dira, baina barneko gaitzez ez dira iltzen. Darabilzkitenen gogo ta ezpainetan bizi dirata, iltzekotan oien erruz, ajolakabez, erabili ezaz iltzen dira beti. *«Mors et vita in manu linguae.* Bizitza ta eriotza mingainean daude» —esan zuan jakitunak *Esakunetako Liburuan*—, eta jakitunak dion ori izkuntzaz ere egi aundia da. Erabili ezker izkuntza ezin il diteke; erabili ezik, ordea, eriotzaren atzaparretan dago. Euskeraren bizia etsaien eskuetan balego..., baina ez: euskeraren bizia geronen, euskaldunen eskuetan dago. Gure gogo ta ezpainetan bizi da ta gure gogoa lotu, barneko gogapena ito ta nai degun bezela adieraztea galerazi lezaken etsai ta indarririk ez dago. Beti aitzaki ta aiko-maikoetan ibili gabe, zinez, benetan, zintzoro nai badegu, euskera geronek nai degun arte biziko da. Indartsu ta sendo bizitzeko orai ez duan laguntzarik asko ere bear du, ori nik esan gabe ere badakizute; baina orai bezela bizitzeko, euskaldunok zinez eta benetan nai izatea aski du. Gurasoak beren aurrari irakatsiko balie ta euskaldun guziok elkarrekin maitasunez beti ta edonon bagenu, gaur duan baino bizi azkar, zoli ta sendoagoa ere laister iritxiko luke... *Itaque fratres, state et tenete traditiones quas didicistis.* Onela ba, anai maiteok, zaudete zutik beti euskeraren alde ta asabengandik ikasi dituzuten izkuntza eder eta oitura onak ajola ta ardura aundiz zaitu ta gorde itzazute. Arrokeri ta aitzakiak utzi, alperkeria astindu, jaurti, ta ekin lanari!

Euskera euskaldun guziona da; Europako izkuntzarik zarrena ta gauza askotan bikainena. Izelari jakitunenak, gogoz ikasiaz gainera, zaitu dezagula eskatzen digute. Aul eta makal dago gaxoa, baina gere odolaren beroaz, gere maitasunaren garras, gere biotzetako joran eta suaz piztu ta pizkortu genezake. Euskaldun eta kristau geranez, ori zinez, benetan nai izan bear degu. Asabak utzi diguten bitxirik ederrena da; gere asaben gogoa darakuskun ispilu bizia, asabakin ertsien, obekien lotu ta elkartzen gaituan lotzaiki ta txibista bikaina; Jaunak emana ta Jaunarengana garamazkian izkuntza garbia. Ori da gureztat euskera! Daniel igarlearen aoz esan zuan Jaunak: *«Omnes populi, tribus et linguae servient tpsi.* Erri, gizeli<sup>269</sup> ta izkuntza guziak bere mendeko morroi izango dira,

<sup>269</sup> *Gizeli:* herri, tribu.

Jauna goretsiko dute». Ainbeste gizaldiz Goiko Jauna goretsi duan euskerak ere mundua mundu goretsi dezan, mundua mundu iraun beza, euskal izenak dituzten gure mendi oiek zutik dauden arte euskera ere bizi bedi, ta Jaunarengana joan eta beti bereak izateko, bide ta lagun izan bekigu.

Auspeztu gaitezen, ba, Jaunaren aurrean eta bere laguntza uste betez, gogo beroz eskatu dizaiogun: Jauna! Sinestez asabak bezain sendo, oituraz aiek bezain zindo ta garbi iraun nai genuke. Ortarako, zuk Jaunorrek gure asabai eman zenien eta gu aiekin ain estu ta ertsi elkartu, batu ta lotzen gaituan euskera zar-garbi au, laguntza aundia izango zaigula uste degu. Baldin orrela bada, arren Jaun ona, Euskalerrria bere izkuntzaz zaitu ta gorde ezazu, ta bere alde emen bildu geranok egunen baten goiko zorionera eraman gaitzazu.



**MEXIKOTAR KATOLIKOEN ALDE,  
LOIOLAN BATU ZIRAN LUISTARRAI  
APAIZ JAUN EGUZKITZA EUSKALTZAINAK  
EGINDAKO ITZALDIA  
1928GARRENEKO JORRAILAREN 22AN**

*«Nos legem habemus et secundum legem debet mori.»*

(Joan 19, 7)

Badakizute katolikoak Mexikon oso gaizki dabilta: agintariak etsai dituzte. Aspaldi aztuta zeuden gezur-legeak berbiztu, beste berri ta gaiztoago batzuek ere egin eta Jesukristoren Eliza suntsitu nairik, agintari aiek lanean gogor ari dira. Katolikoak gezur-lege oien uztarripean daude ta gizagaxo errukarriak neke ta lorra baino ez dana badaramate.

Sinistez anai ditugun aien alde zerbait, egiteko asmoz ainbat kristau on, ainbat gazte zintzo bildu zerate gaur emen, Loiolako eliz eder ontan.

Zuek, gazte maiteok, asmo aundi, biotz zabal, gogo bizi ta odol berokoak izaten zerate; bein leporatzen dezuten arazoa aurrera eramateko, alak eta lerrenak egiten dakizute. Egiz gaztezaroa biguin eta samurra da, onera naiz txarrera errez makurtzen da; bainan ongi azi eta ezi ezkerro, azi onak garaiz erein ezkerro, oien landarak zuen biötzetan sendo ta mardul etortzen dira. Gazte jatorren biotza asmo aundi, eder esta bikainen kabi izan oi da; asmo eder oriek beren erroak sakon sartzen dituzte ta odolaren beroaz indar aundiz azaltzen dira. Augatik kirol eta jolasetan aurrenengo zeraten bezela, egia ta zuzena elburutzat artuko bazenituzte, oien alde lan egiteko ere zuek bezelakorik ez dago.

Gizartean –gizonai dagokienez bizi nai badegu beintzat– egia ta zuzena ezin bearragoak dira; oiek, izan bear luketen bezela, beti nagusi balira, bestela biziko ginake! Zoritxarrez egia ta zuzenaren tokiak maiz

---

<sup>270</sup> Argitaratua: «Mexikotar katolikoek alde, Loiolan batu ziran luistarrai apaiz jaun Eguzkitza euskaltzainak egindako itzaldia 1928garreneko jorrailaren 22an», *Loiolako Argi Izpiak*, 13, Donostia: Gure Mutillak, 1928, 1-14 or. (Izendapen bibliografiko hau grafia moldaturik dago.) Gipuzkeraz idatzita dago.

gezurrak eta bidegabeak artzen dituzte: egia odai beltzez estalita, zuzena urkamendian esekita egon oi dira, ta gizarteak sarri askotan ikuski-zun negargarria eskaintzen digu.

Ameslari aundiak beti izan dira, gaur egunean ere bai. Prantziako matxinada ospatsu ura sortu zutenak, gizarteko zoriona bein betiko egin zutelakoan, beren buruak ezin sinisturik zebiltzan. Eiagoraz<sup>271</sup> eta deadar aundiz esaten zuten: «Agintarien nauskeria, bidegabeko agintea betiko joan da. Emendik aurrera gizonak bere izatez dituan zuzen eta esku-bideak..., oiek izango dira gizartean nagusi ta errietako agintariak naitaez ezagutu ta ontzat artu bearko dituzte. Eskubide orien aurka orain arte izan diran burni guziak autsi ditugu, jopu errukarri guzien estuntza<sup>272</sup> ta kateak bein betiko urratu dira. Askatasuna, libertadea lurrera jatsi da-ta, gaur gero gizon bakoitzak ongien deritzaiona sinetsi ta sinisten duanez egin eta bizitzeko eskubide osoa izango du».

Garaitza naro-joria iritxi zutela-ta, arri-abe aundi bat eraiki ta bere erpinean kate urratuak eskuan zeuzkan aingeru-irudia, egoak zabalik, jarri zuten, askatasuna, libertadea etorri zala mundu guziari adierazteko asmoz. Baina, zer? Laister ametsok amets agertu ziran: egiaren orde zezurra, zuzenaren orde bidegabe ta indarra egin zituzten nagusi.

Gizonaren eskubideak berentzat bakarrik nai zituzten ameslari aiek; beste iritzirik zutenak, dirudianez ez ziran gizon eta eskubiderik ez zuten bear. Askatasun, berdintasun eta anaitasuna beti mingain eta ezpainetan zerabilzkiten gizon antzeko aiek, beren aburu eta iritziko ez ziranentzat otso biurtu ziran, otso goseti, ta beren ortz eta atzaparretan erortzen ziranen errukarri! Anaitasunaren izenean basapizti aiek anaien odolez mozkortu ziran; mozkortu bai, baina ase ez. Odol-ibaiak ixuri ta gero ere odolik aski ez zala-ta, odol geiago, beti geiago nai zuten.

Eta gizonaren eskubideak, ainbeste ospatu ta goretsi dituzten eskubide oriek, non dira? Mingainetan baizik beste inon ez dira agiri! Gizonaren eskubideak egiak eta zuzenak zaitzen dituzte; oien tokian gezurra eta bidegabea jartzen badira, indarra duanak baizik beste inork ez du eskubiderik. Gaur Mexikon agintzen dutenak ere matxinadazale orien ikasle ta jarraitzaile omen dira; gizonaren eskubideak aspaldi ontan beretu zituztela diote. Baina an ere gezurrak egiaren argia itzali du ta bidegabeak zuzena lurrera eratsi<sup>273</sup>. Zuzena ostikopean dabil, indarra da nagusi; zuzena negarrez dago, indarra odolez mozkortu da. Ta egia ta zuzenaren alde daudenai irri, ixeka ta barre egiten die.

<sup>271</sup> *Eiagoraz*: oihuz, ahots handiz.

<sup>272</sup> *Estuntza*: kate, bilur.

<sup>273</sup> *Eratsi*: jaitsi, beheratu.

Gizonaren eskubideak mingainez goratzen eta egitez zapaltzen ederi dakite Mexikoko agintari bitxiak. Dana dala, eskubide oriek aspaldi ontan maiz aipatu dituzte; Jaungoikoarenak, ordea, bein ere ez. Zer? Jaungoikoak ez al du eskubiderik? Agintari arropuz aien iritziz ez, noski. Gauza guzietan, bai erriko ta bai elizakoetan ere, berak bakarrik izan nai dute eraentzaile<sup>274</sup> nagusi ta gogoak ematen diena –naiz zuzen naiz okerra– eragozpen eta kezkarik gabe egin al izateko, beren buruak baino nagusiagorik, ez lurrean ez zeruan inortxo ere ez dute nai; beren arazo guziak Jaungoikorik ez bailegoan egiten dituzte. Bainan gizon azarri aiek nai izan ez arren, Jaungoikoa badago ta bere eskubideak, inork inolaz ezin kendu dizazkioken eskubideak ditu.

Edozein gizonek bere Jaungoikoa ezagutu, aintzat artu, gurtu ta jauresteko<sup>275</sup> eginkizuna, Jaunaren mesedeai maitasun eta eskar onez erantzuteko eginbearra du. Bere Egile ta Jabe oso dan Jaunari gizonak ori guziori ta geiago ere zor dio. Zor badio, gizonak gizartean –naitaez– zor dion ori bere Jaunari emateko eskubidea ere badu, ta inongo agintarik ezin kendu lizaioke. Gizonak gizartean olako eskubiderik ez duala esatea, Jaungoikoak gizonari ori eskatzeko eskubiderik ez duala esatea bezenbat da; baina bere-berea duan eskubide ori Jaungoikoari ukatzeko, lurreko agintari txepelak nor dira? Inor baino gutxiago! Eta Jaunaren eskubide orri gizonagan erantzuten dion bestea, oni kentzeko ere gizarteko agintariak nor dira? Inor ez! Gere Jaungoikoa aintzat artu, goretsi, gurtu ta jauresteko degun eginbearra, gizonaren zor eta eginbearrik lenen eta aundiena da-ta, orrengatik zor ori ordaindu ta eginbear ori betetzeko degun eskubidea ere, gizonak gizartean duan eta izan dezaken eskubiderik aundien eta lenena dala agiri da.

Mexikon, agintari bitxi aiek beren mendeko katolikoei eskubide ori inausi<sup>276</sup>, moztu, laburtu ta kendu diete. Nola? Bidez eta zuzenez inolaz ere ezin egin zezaketen txarkeri ori, indarrez eta bidegabenez egin dute. Gizonaren eskubideak aipatu, mingainez goretsi, ta oien izenean, gizonak gizartean duan eskubiderik aundi ta garaiena ebaki, moztu, ebatsi ta lapurtu diete katolikoei. Oien elizak zuzena autsiz beretu zituzten agintari aiek, eta zeintzuek ideki ta zeintzuek ertsi bear diran ere, gotzai bezela, berak erabaki dute. Gotzaien jauregi, apezen etxe guziak ere, naien dutena egiteko, poliki-poliki arrapatu ta ebatsi dituzte.

Jaiotzaz bertako ez ziran apez guziak indarrez eta zemai gogorrez erbesteratu zituzten; bertoko semeai ere, gaizkinei bezela, eskuak lotu

<sup>274</sup> *Eraentzaile*: gobernadore.

<sup>275</sup> *Jauretsi*: gurtu, adorau.

<sup>276</sup> *Inausi*: murriztu.

dizkiete. Mexikoko errialde bakoitzean geienez zenbat apaiz izan ditezken, ori ere gotzai ta aita santu bailiran, berak erabaki ta agindu dute. Apezen bat, gizatxar aien baimenik gabe, bere zereginetan ari badadi, ori eginaz besterik gabe ango auzoak auzo bezela dituzten eskubide guziak berealaxe galtzen ditu. Ontan –dio aita santuak– apezak gaizkin eta zoroekin berdindu dituzte. Praile naiz moja izateko asmoa erakutsi dezanak, isunaz gainera, kartzelarako bidea egiten du. Politikako alderdiei eliz batzarren antzeko izena, erlejioaren usairik duan izena ematea, zearo eragotzita dago, ta inork orrelakorik egin badeza edo atzerrira bidali edo giltzapean sartzen dute.

Gizon bitxi aientzat erlejiorik irakastea izan ditekene gaiztakeririk aundi ta izigarriena da. Ikastetxe guzietan –berenetan eta berenak ez diranetan ere bai– erlejiorik irakastea gogorki galerazi dute, ikastaroko maila guzietan galerazi ere; apezik ezin izan diteke irakasle. Nolanaike erlejioa gogorazi lezaketen izen, jantzi, liburu, irudi ta beste enparauak ere zearo eragotzita daude. Naiz agirian naiz ezkutuan indar-lege oien aurka zerbait esatea, agintari bitxi aiek esan, egin naiz agintzen dutenaren aurka norbere aburu ta iritzia nolanai azaltzea ogeigarren gizaldi ontan espetxerako, kartzelarako bidea da<sup>277</sup>.

Naitanaiezkua zan-ta, lapurreta, bidegabe ta nauskeri oien aurka katolikoak beren aserrea erakutsi zuten; matxinada ta iskiluetara jo gabe, indar-lege oiek aldatzeko asmoa ere bai. Baina gizonaren eskubideak ainbeste goratzen diran garai ontan, ortarako eskubiderik ez omen dago, Mexikon ez beintzat. Indar-lege oriek kentzeko asmoz lanean ari ziran katolikoei, ainbeste katolikori beren buruen alde egiteko asti ta lekurik ere eman gabe, gizatxar aiek bizia kendu zieten. Ainbeste odol errugabe ixuri dute!

Zergatik gizatxarkeri<sup>278</sup> ori? Gure Jauna iltzeko Jerusalengo erriak zer esan zuan badakizute: «*Nos legem habemus et secundum legem debet mori*. Guk legea degu ta legearen arauz –onek– il bear du». Jerusalengo erriaren deadar anker eta basati ori, Mexikon ere aspaldi ontan maiz aditu da: «Guk legea degu –diote ango agintari biotz-gogorak–, legea degu ta lege ori betetzeko, oiek, aurka jarri zaizkigun katoliko oiek, il bear dute».

«Legea degu!»... Gezurra, gezur biribila; dezuten ori ez da legea, bidegabe ta indarra baizik. Legea zer da? Berez zuzena ta erri guziaren edo

<sup>277</sup> [1917garren urtean Keretaron egindako zozko-lege edo konstituzioaren 3, 24, 27 eta 130garren atalak: 1926garren urteko ilbeltzaren 7, garagarriaren 14 ta uztailearen 22an emandako lege ta agintzak, orrelaxe diote.]

<sup>278</sup> *Gizatxarkeria*: doilorkeria, zitalkeria.

beintzat erritar geienen onerako dana erriaren ardua duanak agindu badeza, legea ori da; baina agintzen duana berez okerra naiz erriaren kaltean bada, ori ez da lege. Gizonak bere adimenez, buruko argiz, egia ta zuzena ikusi ta arkitu ditzake; baina ez dauden tokian egia ta zuzena egin, irazan<sup>279</sup> eta sortuerazi, ori ez, inolaz ez. Au dala-ta, agintariak berez zuzena dan gauza agintzeko eskubidea badute, ori legearen bidez agindu dezakete; baina legea emanaz okerra zuzen eta gaizkia on egiteko almenik ez dute. Ona gaitzetsi..., gaizkia onetsi, indarrez bai, indarrez eta bidegabez egin dezakete; legez, ez. Zuzenaren aurka dan legea ez da lege. Igazko lotazila edo abenduaren 30garrenean esan zuan aita santuak: «Mexikoko erri katolikoa bere agintariak jopu errukarri ta gaizkin aundi bailitzan darabilte. Ortarako beren legeak aipatzen dituzte, baina aipatzen dituzten *zer* oriek, ez dira lege: Jangoiko eta gizonen eskubide ta zuzen guzien aurka daude-ta, ez dira lege, nauskeri, indar eta bidegabea baizik».

Zuzena autsiz egindako indar-legea, erririk geienak nai balu ere, ez litzake lege izango. Zergatik ez? Bidegabea, naiz gutxiren naiz askoren iritziz egin dala, bidegabekeria baizik ezin izan ditekela. Alaz ere, legea egiteko erririk geienaren iritzia alde badago, ori aski dala diotenak badira.

Zuzenaren aurka izan ezker, ori ez da egia. Baina balitz ere, Mexikoko indar-lege aiek erririk geienak ez ditu ontzat eman eta legeen izena gezurrez baizik ez daramate. Ango agintariak erriaren iritzia jakin nai zutelakoa, bai, ori egin zuten; baina Mexikon bakoitzak bere iritzia nai duan bezela agertzeko era ta aukerarik ez du, bertoko agintariak askori, naitaez, iritzia beren alde emanerazten dietelako ta beste askori aurka azaltzea indarrez galerazi. Mexikon erriak zer nai duan ez degu jakin eta jakingo ere ez, gauzak orai bezela dauden bitartean. Estatu Elkartuetako eun gotzai baino geiagok ori agirian eta guziak batean esan zuten, eta Mexikon gauzak nola dabiltzan inork jakitekotan, aiek bada-kite.

\*\*\*\*\*

Ikusi dezutenez Mexikon gezurra ta indarra dira nagusi; egia ta zuzena zokoratu ta bidegabe eta nauskeria egin dituzte lege. Gezur-lege oien izenean, zenbat gotzai, zenbat apez, zenbat katoliko ez dituzte atzerrira bidali edo kartzelan sartu? Zenbati ez diote bizia kendu? Zenbat odol

<sup>279</sup> *Irazan*: egin.

errugabe ez dute ixuri? Gezur-lege oien izenean il dituztenak, asko izan dirala bai, baina zenbat izan diran oraindik ez dakigu.

Eriotzaren aurrez aur Elizaren len egunetako martirien biotz, adore ta kemena agertu dituzten katolikoak asko izan dira. Gizon eta emakume, zar eta gazte, mutiko ta neskatx samurrak, arrosarioa eskuan eta «Gora Kristo Errege!» beren ezpainetan zituztela, bioztsu joan dira erioztzara, ta sinistearen alde beren zainetako odola eman dute. Ontan garai ta gailenen agertu diran katolikoek izenak bakarrik aipatzeko ere, itzaldi au geiegi luzatu bear izango nuke. Agintari bipil<sup>280</sup> aiek Zamora, Leon eta Guadalajaran katolikoak saldoka<sup>281</sup> il zituzten: Koliman bost andre zugaitz-adarretatik eseki, Jaliskon (Nayariten) berrogeitabost gorpu ipini zituzten zintzilik. Apaizak nondik nora dabiltzan, non ezkututzen diran jakin nai lukete ta ori esanerazteko katolikoai, emakume ta gaztetxoei batez ere, oinaze ta neke-min<sup>282</sup> izigarriak arrarazi dizkiete. Antzina Erromako agintari ankerrak asma zituzten bezelako gogorkeriak asma ta erabili dituzte: otso amurratu aiek batzui mingaina ebaki, besteai gorputz-atalak autsi eta puskatu dizkiete<sup>283</sup>.

Ogeigarren gizaldian eta gizonak gizartean dituan eskubideen izenean, olako basakeriak egin ditezkenik ikusi gabe inork ez luke sinistu nai izango. Eta zinez gezurra dirudi; baina Mexikon aspaldi ontan gezurra ta bidegabea dira agintari.

\*\*\*\*\*

Otso ta bildotsaren ipuina badakizute. Lenbizi, ura zikindu ziola, gero birao zakarra egotzi; azkenez berak ez bazion ere, gaiztakeri ori bere aitak egin ziola-ta, gezur eta aitzakiz otso ankerrak bildots otzana il eta irentsi zuan. Mexikon eraentzaile bitxiak katolikoentzat otso egin dira. Oiek zigorkatzeko beti aitzaki bila dabiltza:

«—Zuek —esaten diete katolikoei—, zuek erria nasten diguzute.

—Guk, ez. Bidegabekeriak aginduz erria nasi ta zikindu dezutenak, zeurok, agintariok zarete.

—Guk gizonaren eskubideak ditugu ta zuek ez dituzute ontzat artu nai.

—Gizonaren eskubideak?... Gere Jangoikoa ezagutu, maitatu ta berak nai duan bezela gurtu ta jauresteko eskubidea, gizonaren eskubi-

<sup>280</sup> *Bipil*: indartsu, kementsu.

<sup>281</sup> *Saldoka*: trumilka, samaldan; asko.

<sup>282</sup> *Neke-min*: nahigabe, atsekabe.

<sup>283</sup> [Aurtengo ilbeltzako *Etudes*.]

derik lenen eta garaiena, kendu eta ebatsi diguzute; ta ori egin ezkeru, eskubide oriek aipatzeko ere lotsa izan bear zenukete.

—Guk legea degu ta zuek lege ori bete bearrean, gaizki esaka zabiltzate.

—Bainan, jaunak, indarra ta bidegabea noiztik ona dira lege? Gezur-izen ori zergatik ematen dizkiezute?

—Guk legea degu —diote berriz ere indarra lege egin duten agintari aiek—, legea degu. Lege ori ontzat artu nai ez dezuten katoliko biurriok, eriotza zor dezute».

Eta otsoak arkumea aitzakiz il eta irentsi zuan bezela, agintari aiek katolikorik zintzoenak il eta zutoin<sup>284</sup> eta zugaitzetatik eseki dituzte.

Otsoak bildotsari egin ziona baino txarragorik, gaiztoagorik egiten ere badakite Mexikon agintariak. Bildotsak otsoari kalterik ez zion egin; baina on eta mesederik ere ez.

Mexikon, ordea, aurrekoari, urko-lagunari mesede egitea ere galera-zita dago. Katolikoei beren eriotz aldian lagundu nai dieten apezak maiz bizia galtzeko arriskuan dabilta. Gaisotu dan katolikoak —oi danez— elizakoak artu nai lituzke; apezari ots egiten dio, badijoa apeza, gaisoa aitortzen da, ta Gure Jauna emateko apezak Meza ere an bertan esaten du. Jauna artu ondoren gaisoa pozez beterik gelditzen da, apezari eskarrak biotzez ematen dizkio... Bainan agintarien ordezkioak an dabilta apez ori arrapatu nairik. Arrapatu ezkeru galdetzen diote:

«—Biurriorrek, zer egin dezu?

—Nik, on eta mesede, besterik ez. Estu ta larri zegoen biotza, pozez beterik, nare<sup>285</sup> ta lasai utzi det. Mesede ori egin diodalako eskar aundiak eman dizkit.

—Bai, bainan ori egitea legeak galerazten du. Guk legea degu eta lege ori betetzeko, zuk il bear dezu...».

Eta beren gezur-lege aien aurka gogoak berotu ta biotzak asaldatzen ibili dala aitzakitza artuta, mesede baizik egin ez duan apez gizagaxoari agintari otso aiek bizia kentzen diote.

\*\*\*\*\*

Mexikon noiznai matxinadan daude, baten ondoren beste bat dator. Au dala-ta ango agintariak gizonaren bizitzari aspaldi lotsa galdu zioten. Baina orain —*Excelsior* egunerokoak dionez—, orain lotsa ori zearo galdu

<sup>284</sup> *Zutoin*: habe.

<sup>285</sup> *Nare*: bare.

diote, eta katolikoan alde dabilzanai, ortaz salatuak izan diranai, esku-bide guziak kenduaz beren buruak garbitzeko biderik batere ez diete utzi. Katolikoak, arnasarik artzen ere utzi gabe, indar-lege oien uztarri-pean dauzkate. Bidez<sup>286</sup>, matxinada berririk gabe, astindu nai zuten katolikoak uztarri gogor ori; asmo orrekin lanean ari ziran luzarotxo, bainan alperrik. Lan ori ere galerazi egiten zitelako, azkenean indarrari indarraz erantzutea baino beste biderik ez zegoala ikusirik, igazko ilbeltzean katolikoak ere iskilu edo armetara jo zuten; agintarien aurka zeudenai laguntzeko asmoz berak ere jaiki ziran. Gizatxar aien eskuetan erortzen diranen errukari! Gizarajo aienak egin du! Gudu onen errua, obena, gotzai jaunei egotzi zieten agintariak. Aiek guziak batean erantzun zuten: «Diozuten ori ez da egia; guk gere mendekoak bein ere ez ditugu ortara zirikatu, bestela, erakutsi ezazute noiz eta non egin degun ori!». Gezurra zan ta ezin erakutsi; baina Mexikon gezurra eta bidegabea dira nagusi, ta gotzaiak atzerrirako bidea artu bear izan dute.

Gizadi<sup>287</sup> osoak, berenak bezela, zaitu bear lituzken eskubide ta zuzenak Mexikon ostikopean darabilzkite. An gertatzen dana lotsagarri da, gizadi osoarentzat lotsagarri. Ori ta guzi ere, eguneroko *paperak*, ezerezagatik abarrotsa ateratzen duten *paper* oriek, zer egin dute? Geienak edo otsoen alde jarri dira edo, alkar artuta bezela, ango bidegabe ta ankerkeriak beren irakurleei poliki-poliki ezkutatu dizkiete. Eta beste errietako agintariak, gizonaren eskubideen alde daudela dioten oriek, zer egin dute? Ezer ez! Erri bakoitzean naiz abendaz naiz izkuntzaz naiz sinistez gutxien diranak ere, beren eskubideak badituztela-ta, erri nagusietako ordezkariak or biltzen dira, ortaz maiz itz egin dute. Mexikoko katolikoan alde zer? Ezertxo ere ez! Gizagaxo aiek –dirudianez– ez geienak, ez gutxienak, ez inor ez dira; beren zorigaiztoan, «or konpon» esanda, bertan bera utzi dituzte. Lurreko ondasunak bitartean sartu balira, beste gauzarik izango zan, iskanbila ta abarrotsa ugari izango ziran bazterretan. Baina sinismenak, animen ondasunak eta gizonaren eskubideak ere, beren alde ez diranean, gaur eguneko agintariei buruko min gutxi ematen diete; orain arte beintzat, guziak soinuak jaso dituzte. Axolagabekeri onek gizartea bere asmoetan aldi batetik ona asko jausi ta jatsi dala argiro erakusten du!

Jazarpen gaitzak, ekaitz gogorak jo ta astindu du Mexikon Jesukristoren Eliza; bainan ez du eratsiko. Katoliko guziak ikaratzeko asmoz zintzo ta beroenai bizia kendu dieten agintariak ori nai lukete, baina

<sup>286</sup> *Bidez*: errazoiz.

<sup>287</sup> *Gizadi*: gizarte.



Tertulianok esan zuanez: «*Semen est sanguis christianorum*; martirien odola kristau berrien azia da-ta, etsai amurratuenak ere Eliza ez dute suntsituko». Orren beldurrik ez degu; baina katolikoak Mexikon uztarri gogorra daramate, aspaldi ontan atsekabe ta naigabez estu ta larri bizi dira-ta, beste enparau guziok aien alde zerbait egin bearrean gaude. Agintari arroputz aiek katolikoekin egiten dituzten bidegabeak gaizki eginak dirala-ta, Belgika, Prantzia, Austria, Ungria, Alemania ta beste erri batzuetako katolikoak beren naigabe ta aserrea erakutsi dituzte. Guk ere ori gutxienez egin bear genuan, agintari aien nauskeri orri gaizki deritzaiogula adierazi bear genuan. Eta zuek, gazte maiteok, ortarako bildu zerate emen, gaurko elizkizunak ortarako egin dituzute; ortarako ta Jaunari katoliko aien alde erruki ta laguntza eskatzeko. Nolanaike nauskeri ta bidegabeen aurka norberen gaitzespen eta aserrea erakustea ongi da; bainan ortaz gainera, atsekabe ta lorrez dauden gere anai aiei lagundu ere egin bear diegu. Nola? Al degun era guziz: Mexikon gertatzen dana zabalduz, edatuz, jakinaraziz, eta batez ere Jaunari eskatuz.

Zer eskatuko diogu Jaunari? Katoliko izenaren etsai amurratu aiek tximistaz jo, il eta suntsi ditzala? Zerutik sua bidali ta erre ta kiskali ditzala? Ez, ori etsaiez aspertzea litzake, maitasun orde zorrotoa erakustea ta, gizonena bezela, garaitza txiki ta kaskarra. Gaiztakeriari, bai, gorroto izan bear diogu; gaizkin itsuari erruki. Augatik Jaunari garaitza osoa, bere garaitza eskatu bear diogu, bere Elizaren etsai arro aiek apalerazi ditzala, beren itsutasun, oker eta bidegabe aundiak ezagutuaraziz zentzu ta bide onera ekarri ditzala. Jaunak bere etsaiak orrela garaitu zituan; len gizaldietako kristauak ere etsai malmutz<sup>288</sup> eta gaizto guziak orrelaxe garaitu zituzten. Gere indar utsez ezer ez gera-ta, gere uste osoa Jaunagan ipini bear degu. *Haec est victoria quoe vincit mundum, fides nostra*; mundua menderatzen duan garaitza, auxe da: gere sinismena, Jaunagan degun sinismen bizi, bero, sendo ta uste betea.

Gere siniste epel, makal, urri ta txikia dala-ta Jaunak maiz bere laguntza atzeratu, geroratu, belutu egiten du. Gere sinismena berotu, gere ustea sendotu ta Jaunari indar egin bear diogu, Mexikoko katolikoak bere babespean ar ditzan; etsai arro aiek apalerazi, beren asmo gaiztoetatik aldendu, bide onera ekarri ditzan, eta bere Elizari garaitza osoa eman dizaion. Guadalupeko Ama samurra, mexikotarren Ama agurgarri-laztana, Loiolako Inazio Deuna, Gonzagatar Luis gazteen zerutar Zaitzaile bikaina bitartekotzat arturik, otoitz beroz, eskari sutsuz Jaunari indar egin bear diogu, bere beso altsua luzatu ta aspaldi ontan ainbeste

<sup>288</sup> *Malmutz*: engainagarri.

ikusi duten katoliko errukarri aiek babestu ditzan, neke ta lorren aldia laburtu ta garaitza eguna aurreratu dezan.

Auspeztu gaitezen, ba, aldare aurrean eta biotz osoz, gogo beroz, uste betez bein eta berriz esan dizaiagun Jaunari: Errukior zeran Jauna, gere Jaun ona! Zure Elizaren etsaiak Mexikon arro dabilta; burugoi aiek apalerazi itzazu, gizadiak Zu baino beste Jabe osorik ez duala ezagutu dezaten; itsu aien gogoak argitu ta beren biotzak aldatu itzazu. Atseka-bez dauden katolikoez, arren Jauna, erruki zaitez; daramaten uztarri gogorra autsirik, zure garaitza, garaitza osoa lenbailen eman ezaiezu.

A. M. D. G.

**ANDOAINGO EUSKAL JAIETAN  
AURTENGO IRAILAREN 22AN  
EGUZKITZA EUSKALTZAINAK EGINDAKO ELEIZ ITZALDIA.  
GIPUZKERAZ ETA BIZKAIERAZ<sup>290</sup>**

*«Mementote operum patrum quae fecerunt in generationibus suis  
et accipietis gloriam magnam et nomen aeternum.»*

(I Machab. 2, 51)

Gizaldi batetik bestera gizartearen *iritzi* (eretxi), asmo ta oiturak *ere* (be) asko edo *gutxi* (gitxi) aldatu egiten dira; au dala-ta, erriak *ere beren* (euren) izakera ta bizikera obetu edo gaiztotuaz, batean aurrerantz eta bestean atzerantz egiten *dute* (dabe). *Gurdia* (burdia) *bi gurpilen* (burpil biren) gainean ibili oi dan *bezela* (lez), gizasemea *ere bi gurpilek* (burpil bik) *darabiltela* (darabilela) esan *genezake* (geinke). Gizona darabilten gurpilek bere buruko *iritzi* (eretxi) ta biotzeko gurariak dira. Askoren *iritzi* ta gurariak aldatu ezkeru, gizartearen aldakuntza *ere bere-alaxe* (bertatik) dator, andi edo txikiagoa, *iritzi* ta asmoetan egin danaren arauz eta neurriz.

Aspaldi *ontan* (onetan) errien *iritzi*, asmo, naikunde, gurari ta zale-tasunak asko aldatu dira-ta, oraingo erriok antxinakoen antz *gutxi dute* (gitxi dauke). Oker eta utsak, gaiztakeri ta bidegabeak, geiago edo gutxiago, gizartean beti izan dira; baina ori ta guzti *ere*, lengo gizaldietan bizi-bizia zan *kristau-errien* (kristinau-errien) sinismena. Errien sinismen ori bizia zalako, arazorik gailen eta nagusienetan beintzat, sinistearen argi ta indarrak *zerabilzkiten* (erabiltzen) eta egi ta zuzenaren alde egikizunik andi, arrigarri ta *oroigarrienak* (gomutagarrienak) egin *zituzten*

<sup>289</sup> Argitaratua: «Andoaingo Euskal jaietan aurtengo irailaren 22an Eguzkitza euskaltzainak egindako eleiz itzaldia. (Gipuzkeraz eta bizkaieraz)», *Jaungoiko-Zalaren Idaztiak*, Amorebieta-Zornotza: Jaungoiko-Zalaren Irarkola, 1929, 1-16 or. (Izendapen bibliografiko hau grafia moldaturik dago.) Gipuzkeraz idatzita dago.

<sup>290</sup> [Oarra: gipuzkoeraz irakurtzeko, itali-izkiz dauden itzak aintzat artu ta bitartekatzen barnekoak utzi bitez; bizkaieraz irakurteko, ostera, itali-izkiz dagozanak itxi ta, orrean ordez, bitartekatzen barukoak irakurri.]

(ebezan), lurrerako beste ezertariko irabazirik bilatu *gabe* (barik). Azkenaldi ontan, *ordea* (ostera), errien sinismena asko *erori* (jausi) ta makaldu, epeldu ta oztu da-ta, oraingo gizarteak beste iritzi ta asmo batzuek *ditu* (daukaz).

Orain gorputz-indarketak dira nagusi; gazteak batez ere *ortan dau-de* (orretan dagoz), gogoaren lanak, gizonarentzat egokienak diran lanok, gazterik geienak *zokora* (zokondora) jaurti ta agure zarrentzat-*edo utzi dituzte* (itxi dabez). Gizasemeak bere gorputza baino gauza aundi, eder eta bikainagorik ez *balu* (baleuko), kirol eta jolasai gaur egunean *ematen zaien* (emoten jaken) gora, leba, garrantzi edo inportantzia òri *ongi* (ondo) legoke; baina gure gogo soina baino, gure *anima* (arimea) gorputza baino geiago, eder eta bikainago da-ta, gizona dan gizonak bere *anima* (arimea) landu, indartu, argitu ta ederragotzeko, gorputzez sendoa izateko baino alegin geiago egin bear *luke* (leuke). Gorputzez azkar, sendo ta indartsuak izatea *ongi* (ondo) da; baina buru argi, adimen zoli, gogo *pizkor* (bizkor), sinismen bizi ta biotz andikoak izatea askoz ere obe *degu* (dogu).

Sinismen bizi ta sendoko asabak izan *ditugu* (doguz); *beren* (euren) siniste garbi, lege berezi ta oitura onak orban eta kutsu gabe zaitzearren gure guraso ta asabak, egi ta zuzenaren alde, neke andiak artu ta lan *oroigarriak* (gomutagarriak) egin *dituzte* (dabez). Orain *ordea* (ostera) euskaldunoi ere *gere* (geure) etxean arrotz-oitura, ekandu, kirol eta jolasak sartu *zaizkigu* (jakuz), eta gure erri onek aldi laburrean aldakuntza aundia egiteko bidea *darama* (daroa). Euskaldunak orain arte zer izan diran aztuta, arrotz-kirol eta jolas *orietan* (orreitan) nagusi ta gailen izatea baino beste asmo ta *ametsik* (amesik) ez *badegu* (badogu), zeregin aundiagorik ez baigendu *bezela* (lez), buru-belarri orretan badiardugu, Euskalerrriarenak egin *du* (dau): *laister* (laster) lengo antzik ere ez *du* (dau) izango.

Euskalerrri bizi dadin, *asabengandik datozkigun* (asabakandik jator-kuzan) sinismen, oitura, izkuntza ta jolasak maitatu, ikasi, erabili ta indartu bear *ditugu* (doguz). Gure erri oni bere izakera berezian *irau-narazteko* (iraunazoteko) ori baino beste biderik ez dago... *Mementote operum patrum quae fecerunt in generationibus suis et accipietis gloriam magnam et momen aeternum* (Ex I Machab. 2, 51); zuen asabak gizaldirik gizaldi egindako gauzez eta lanez *oroi zaitzte* (gomuta zaitze-ze) ta omen andia, betiko izena *iritxiko dezute* (jadetsiko dozue).

Au dala-ta, Andoaingo Udalaren, emengo agintarien asmoa benetan goragarri ta txalogarri izan da. Gogo-lanetan, euskal gaietan batez ere, gailen eta bikain agertu ziran bertoko seme argi, zoli ta *pizkorrak* (bizkorrak) ospatu ta goretsi nai izan ditu. Larramendi abak «*Ezina egina*»

*deritzan* (deritxon) bere liburua argitaratu *zuanetik* (ebanetik) berreun urte dirala-ta, emengo semerik ospatsuenak, *bear bezela* (bear dan lez) goratzeko, jai *oiek* (oneik) *antolatu* (gertu) ditu. Larramendik Euskalerrria fededun eta euskaldun nai *zuan* (eban); guk ere *gere* (geure) asaben seme zintzo izango *bagera* (bagara), orixe nai (gura) izan bear *degu* (dogu)...

\*\*\*\*\*

Kristau izan baino len gure asabak, antzinako euskaldunak, *nolako* (zelako) siniskintza, nolako *erlejiua* (erlejiñoa) *ote zuten* (ete euken)? Egia ote da Jesukristo gurutzean il baino len ere gure arbasoak, beinolako euskaldunak, gurutzea maite *zutela* (ebela) ta gudaldian *etsaien* (arerioen) eskuetan *erori* (jausi) ezkeren *beren* (euren) biziak gurutzean alai ta pozez *ematen zituztela* (emoten ebezala)? Ori egia ote da? Baietz *diotenak* (dinoenak) badira; baina gauza ziurrik ez dakigu. Dana dala, Kristoren siniste ta legea Euskalerrrian aserre, abarrots, iskanbila, zarata ta eragozpen andirik gabe sartu zirala deritzat. Euskaldunok *gereko* (geureko), setati ta burugogorak *omen gera* (ei gara); zipotz eta aldakaitzak *gerala diote* (gareala dinoe). *Ongi edo gaizki* (ondo edo txarto) irabazita, ortik zear entzute ori *degu* (dogu). Ontan ere gure asabak gu baino geiago zirala egingo *nuke* (neuke), eta onela izanik -ageri da-erlejiu *berriari* (barriari) ateak *ertsi* (itxi) ta siniskintza berria ikastera *zetoztenak* (etozanak), emendik jaurti naiz eran edo *ilarazteko* (ilazoteko) berebiziko gizonak ziran antzinako euskaldunak. Ori ta guzti ere, makilaz aurretik *eraman zituztenik* (eroan ebezanik) *inork* (inok) inoiz ez *du* (dau) esan. Emendik *urruti* (urrun) bai, sinistearen alde *beren* (euren) zainetako odola euskaldun askotxok ixuri *dute* (dabe); baina emen, kristau-sinistearen gorrotoz, gure asabak inoren odolik ixuri *zutenik* (ebenik) *egundaino* (egundo be) ez da entzun. Kristoren erlejiua *galerazi* (galerazo) nai izan *balute* (balebe) *beren* (euren) eskuan *zeukaten* (euken); ez *zuten* (eben) galerazi, eragozpenik ez *zioten* (eutsoen) ipini-ta. Ebanjelioko azi ona antzinako euskaldunen biotzetan, lur apatz<sup>291</sup> eta gantzatsuan ereindako aziaren antzera, laster erne ta *mardul* (mardo) etorri ta *jaiki* (jagi) zala -Aimerik Pikaud ta kidekoen berriketak gorabera- zuzen eta sustraiz uste izan *genezake* (geinke).

\*\*\*\*\*

<sup>291</sup> *Apatz*: astin.

Gero, *beren* (euren) sinismena orban eta kutsurik gabe zaitzeko, neurririk egokienak artu ta aleginik aundienak egin *zituzten* (ebezan) gure asabak. Badaezpadako kristaurik ez *zuten* (eben) nai *beren* (euren) artean, eta ori galerazteko, legearen bidez auxe agindu *zuten* (eben): «Kristau berriei, oraintsu kristau egin diran moro, judu ta orrelakoai gure artean sartzen ez bekie *utzi* (itxi), ta orain arte emen sartu ta bizi diranak, beretar guztiekin, lenbailen *irten bitez* (urten beitez). Jaungoikoari zor *diogun* (dautsagun) menpetasuna erakutsi ta biotzeko *kezkarik gabe* (kezka barik), siniste batez eta *pakez* (bakez) bizi al izateko, lege au *ipintzen degu* (ipinten dogu); eta lege onen aurka kristau berriren batek gure artean bizitzeko, emengo auzo izateko, baimen edo eskubidea *Erregerengandik* (Erregeagandik) lortu *baleza* (balegi), Erregeren baimen ori, itzalez artu arren, *inolaz ere* (ezelan be) ez bedi bete, *geronek* (geuk) emandako beste ori *baizik* (baino)». Gure asaben sinismena garbi ta bizi, bero ta gartsua izan dala jakiteko, gure Lege Zarreko liburuak irakurtzea *aski* (naiko) da<sup>292</sup>. «Euskaldun fededun» esan da, eta egia da.

Zinausle edo erejeak gure artean jarraitzaile gutxi izan *dituzte* (dabez). Luterotar eta Kalbinotarrekin emen egiteko aundirik ez *degu* (dogu) izan. Baina Joana Albret Benaparroa ta Bearneko erregina kalbinotar egin zalako, *apez batzuek ere* (abade batzuk be) jarraitu *zioten* (eutsoen), eta Bidasoz andiko euskaldunak *beren* (euren) alde irabazteko asmoz lanean asi ziran. Kalbinotar aiek *nola* (zelan) artu *zituzten* (ebezan) euskaldunak? Abegi txarrez, irriz, destainez. Bazan Oloronen Roussel *zeritzan* (eritxon) eta gotzain edo obispo izena *zeraman* (eroian) kalbinotar bat. Onek, Kalbinoren *gezurrak* (guzurrak) euskaldunei irakasteko, bere ordekoa *biali zuan* (bialdu eban) Maulera. Eta mauletarrak, zer? Asto-talde andia *bildu* (batu), gotzaiordekoa erdian artu ta irri ta *parrez* (barrez) *eraman zuten* (eroan eben) erritik kanpora. Ori lotsagarria zala-ta, egun batzuek geroago Roussel bera Maulera dator. Pulpitora *igo* (igon) eta itzaldia egiten asten da. Pierre Maitie ango endore edo alkateak jatsi daitela agintzen *dio* (dautso). Ez *zuala* (ebala) nai-ta, bere itzaldiari ekin *zion* (eutson). Orduan endoreak jantzipean zekarren *atzkora* (azkorea) atera ta aizkorakada izigarri batez pulpito ta predikari lurrera erasten *ditu* (dauz).

*Gezur-gotzai urak* (guzur-gotzain arek) *berriz* (barriro) ara etortzeko aldarte, *beta* (asti) ta gogorik ez *zuan* (eban) izan. Egun gutxi barru il egin zala *diote* (dinoe). Benaparroako erregina kalbinotar izan arren,

<sup>292</sup> [Gipuzkoaren Lege Zar, 41garren idazpuru, 1 eta 2garren lege. Bizkaiaren Lege Zar, lenengo idazpuru, 13 eta 14garren lege.]

Kalbinok jarraitzaile gutxi izan ditu Euskalerrian; gure artean kalbinotar geiago izatea naiago lukean Julien Vinsonek esan *zuanez* (ebanez), amar-amabiren bat, besterik ez. Zinez, gure asabak euskaldun eta fededun izan dira: bein artu *zuten* (eben) Kristoren erlejioa, orban eta kutsu gabe *zaitu* (zaindu) ta gorde *dute* (dabe) beti. Sinismen bizi, oitura ta jolas garbi, abesti edo kantu samur, lege ta izakera bereziak izan *dituzte* (dabez), eta guri, *beren* (euren) ondorengo semeoi, *utzi dizkiguten* (itxi dauskuezan) ondasunik ederrenak, *oiek* (oneik) dira. Gure bizia laburra, antzebidea, *ordea* (ostera), luzea *baita* (da-ta), «*quoniam vita brevis, ars vero longa*», errientzat jaurbide<sup>293</sup>, lege, arau, oitura ta jolasik onenak *zein* (zeintzuk) diran, bizikerarik egoki ta osasungarriena zein dan jakiteko, gizaldi bat edo beste ez dira *aski* (naiko). Gizaldi askok onentzat *eman dituzten* (emon dabez) izakera ta bizikera, erriendako egoki ta osasungarrienak, *oriek* (orreik) dira. *Orrengatik* (origaitik) gure asaba ta aurretikoekin lotzen gaituan urrezko ari eder ori inolaz ere ez *degu* (dogu) autsi ta urratu bear: sinismen biziko gure asabak ainbeste urtez irakatsi *dizkiguten* (dauskuezan) gauza *oriek* (orreik) arduraz, arretaz, *zintzoki* (zintzoro) zaitu ta gorde bear *ditugu* (doguz), *gere* (geure) jatorri, izen ta odola ukatu nai ez *baditugu* (badoguz) beintzat.

\*\*\*\*\*

Sinismen biziaren indarra gaurko Ebanjelioak ere argiro adierazten *digu* (dausku). Jesus Kaparnaumen *zegoala* (egoala), *oean* (oian) zetzan gizon elbarritua, gorputza sorgor *zuan* (eukan) gaisoa aurkeztu *zioten* (eutsoen). Etxeko atarian lagun-talde aundia zegoalako, atetik ezin sartu *zitezke-la-ta* (eitekezala-ta), etxe gainera igo, zulo andi bat egin eta gizon gaisoa oe ta guzti eratsi *zuten* (eben) Jesusen aurrera. Jaunak *aien* (aen) sinismena ikusirik, elbarrituari esan *zion* (eutson): «*Sinets ezazu* (sinestu egizu), ene semea, zure *bekatuok* (pekatuok) *barkatzen zaizkitzu* (parkatzen jatzuz)». Ori entzunik eskribatariko batzuek *beren baitan* (euren barrenean) esan *zuten* (eben): «Onek biraoa esan *du* (dau). Obenak, bekatuak, Jaungoikoak izan ezik beste nork barkatu *ditzake* (dagikez)?». Eta Jaunak *aien* (aen) gogapenak ezaguturik, esan *zien* (eutsen): «*Zeorren* (zeuen) biotzetan zergatik *gaizki* (txarto) oldoztu edo pentsatzen *dezute* (dozue)?» Zer da, ba, errezago, «obenak barkatzen *zaizkitzu* (jatzuz)» ala «*jaiki* (jagi) zaite ta zabiltz» esatea? Gizonaren Semeak obenak barkatzeko eskubidea *baduala* (badaukala) jakin *deza-*

<sup>293</sup> *Jaurbide*: gobernu-erregimen.

*zuten* (dagizuen), uatu edo elbarrituari esan *zion* (eutson): “*Jaiki* (jagi) adi, oe ori *ar zak* (artu egik) eta etxera joan adi”. Elbarritua berealaxe jaiki ta bere etxera joan zan. Ori ikusi zuten guztiak *beldurtu* (bildurtu) ziran eta gizonai olako eskubidea *eman zielako* (emon eutselako), Jaungoikoa goratzen *zuten* (eben).»

Sinismen txiki, epel, makala ezertarako ere ez da. Ebanjelioan ikusten *degunez* (dogunez), alatz<sup>294</sup>, mirari ta mesede andiak egiteko, sinismen sendo-bizia eskatzen *zuan* (eban) beti Jaunak. Elbarrituaren eta *gizon ura* (a gizona) *eraman ziotenen* (eroan eutsoenen) sinismen bizia zala-ta, egin *zuan* (eban) Jaunak mirari arrigarri au ere. «*Videns Jesus fidem illorum.*» Eta izan ere, kristau-bizitzaren erro ta sustrai sinismena da: Jaungoikoarengana *urbildu* (urreratu) nai *duan* (dauan) edorork –*dio* (dino) San Paulo Apostoluak– lenen sinistu egin bear *du* (dau), sinismenik gabe Jaungoikoarenak ezin izan *gindezke* (geinteketz). «*Sine fide impossibile est placere Deo*; sinismen gabe Jaungoikoari atsegin ematerik ez dago.»

Sinisten ez *duan* (dauan) gizonak itsua dirudi. Bere etorkizunatzaz, zer daki? Ezer ez! Eriotz ostean guzaz zer izango dan, gere buruko argi utsez, *ongi* (ondo) beintzat, ezin ezagutu *genezake* (geinke). Ori geure sinistek iragarri ta adierazten *digu* (dausku). Arrokeriz sinetsi nai ez *duten orien* (daben orrein) azken eta elburua, zein da? *Diotenez* (dinoenez) eriotz ostean, *zakurrak* (txakurrak) bailiran, lurperatu, eortzi ta ustelduaz *berentzat* (eurentzat) guztia *bukatu* (amaitu) da. Gizonarentzat etorkizun ederra!... Arroak diralarik, *beren* (euren) buruentzat azkenik lotsagarriena, abereen, zakurren azkena nai *lukete* (leukie)...! Ez! Gizona beste abereak baino zerbait geiago da, bai orixe! *Badu*, (badauko) gizonak argi egiten *duan* (dauan) eta ilezina dan *anima* (arimea); badu aukeramena, bere egiteen jabetasuna *ematen dion* (emoten dautsan) aukeramen edo libertadea; badu bere biotzean lurreko ezerk ezin ase *dezaken* (dagiken) zorion-egarria. Egarri ori, nork *eman dio* (emon dautso)? Bere Egile dan Jaungoikoak. Bizitza ontan gizonaren zorion-egarri ori gertu ta sumindu bai, baina ase ta naikotu *lezaken* (legiken) andikeririk, ez aukerarik, ez ondasunik, ez atseginik ez dago. Ori edo nork daki. Beste aldetik, Jaungoikoak gizonari iruzur, irri ta *parre* (barre) egiten *dionik ere* (dautsanik be) ezin sinestu ta esan *genezake-ta* (geinke-ta), egarri ori eman *digun* (dauskun) Jaunak goiko ta betiko zorionera dei egiten *digula* (dauskula) uste izan bear *degu* (dogu). Goiko zorion ori *eskaini* (eskini) ta arako bidea erakusten *diguna* (dauskuna) gere

<sup>294</sup> *Alatz*: mirari, milagro.



sinesmena da. Augatik gere buruak abere baino zerbait geiagotzat *dauz-kagunok* (daukaguzanok) asaben antzera fededun izan bear *degu* (dogu).

\*\*\*\*\*

Euskalerrria sinismen bizi ta oitura garbietako erria izan da; txiro ta landerra nai *badezute* (badozue), orain baino len askoz ere txiro ta landerrago, baina erri sendo, langile, zuzentzaile ta Jaungoikoarena ere bai. Mirari au zerk egin *duan* (dauan) bururik duanak errez ezagutu *lezake* (legike): euskerak egin du ta, Jangoikoaz gero, mesede aundi ori euskerari zor *diogu* (dautsogu). Gure erria sinistearen *etsaiengandik* (arerioakandik), ainbeste gezur zabaltzen *dituzten* (dabezan) egunoroko *paper oietatik* (papel orreitatik) zaitu, jagon eta gorde duan esi ta orma sendoa, euskera izan da, ta orain ere lurralde au erlejioaren gerizpe osasungarrian berariz daukana, euskera da. Larramendik Euskalerrria fededun nai *zuan* (eban); orretarako euskera laguntzaile aundia zala-ta, gure izkuntzau ikasi ta irakatsi, landu ta zabaltzen gogoz ekin *zion* (eutsan). Euskeraren alde ainbat lan aipagarri egin zituan, *Ezina egina* deritzan euskalitzia ta *Iru Izkuntzazko Iztegia* batez ere.

Bere lagun Mendibururi esaten *zion* (eutsan): «Esan biezat nork-nai zenbat zor dioten gure euskera onek beste or dabilzan izkundeen nas-pilai. Esan begik zeinetan Jesusen Biotzarekiko debozioaren gaia obeto, ederkiago, gozoroago berezia dagoan, zuzendua ta apaindua. Gaiak berak ezta du ta alderdi guzietatik ezta dario, eta arretzaz itz egiteko ez da munduan gure euskera bezain izkuntza itsaskorrago, eztiago, gozoagorik... Sinesterazo nai digute aditzen dala gaztelania are ikasi ez dutenen artean. Ez da ori egia, alperren erausi ta aitzakiak dirade... Baina egia balitz ere, ez da lotsagarri itz egin bear digutela euskaldunak euskal errietan, ez guziok dakigun izkuntzan, ez gure erriko; gure gurasoen izkuntzan, ez bularrarekin batean edoski genduen eta lenbiziko ginekien izkuntzan, baizikān gaztelauen izkuntza arrotzean...? Gutxik daki bere jaioterriko euskararen erdia eta alperrak diran bezela, ez dute ikasi nai geiago... Gizon zur, zintzo, menak eta jakintsuak gure alde ditugunean, ez diegu beste jendaila oriei jaramonik egin bear, ez eta aien esamesanaz ajolarik artu... Atera ezazu beraz zure liburu ori eta len baino len bana ezazu euskal errietan»<sup>295</sup>.

Lentxeago *aipatu ditudan* (aitatu dodazan) Larramendiren lan *oriek* (orreik) gaurko jakintsuen *iritziz* (eretziz) uts eta akats asko *dituzte*

<sup>295</sup> [Mendibururen *Jesusen Biotzaren Debozia*: A. Larramendiren karta.]

(daukez); baina txaraka artetik bidea urratzen asi danik, sasi ta arantzen urrakadarik gabe bein ere ez dala *irten* (urten) gogoratu *dezagun* (dagi-gun). Oker, uts eta akatsok alde *bat utzita* (batera itxita), goragarri ta txalogarri danik ere *badu* (badauko) Larramendik. Mendibururen iritxia entzun *ezazute* (egizue). Onela *dio* (dino): «Gizon andi oni zenbat zor diogun euskaldunak, ongi beintzat ez dakizu... Nere esanak zerbait balio badu, esan dezaket (eta ez dut esaten biotzean dadukadana baizik) ez nuela uste jaio edo jaioko zela, onek orietan, eta lenago atera zuen Euskeraren Ikasbideko Libruan egin duena egin zezakean euskaldunik. Orain Aita Larramendik egin duena egin balu norbaitek orain mila urte, dadukanik beste itxura izain zuen gure euskerak... Ondasun au guziok zorko diogu A. Larramendiri... Nik besterik ere zor diot, bada Jesus maiteak nai izan *du* (dau) zerbait arindu ilunsko zegoen nere biotza Aita onen eskuz... Beldurrez nengoen euskeraren eta *Jesusen Biotzaren* debozioaren galgarria izan zedin nere libru au; agertzeko zegoenean artu dut... Aita Larramendiren karta, ta au irakurtzearekin aienatu dira nere beldurrik geienak.<sup>296</sup> Ori *dio* (dino) Mendiburuk eta ori orrela izanik, Larramendiri bere eskuz euskeraren alde egindako lanez gainera, Mendibururenak ere nolabait zor *dizkiogu* (dautsoguz). Eta onela Andoaingo seme argi ta biotz andiko au birritan *degu* (dogu) goragarri, berak egin zituan eta Mendibururi *eginarazi zizkion* (eginazo eutsazan) lanengatik goragarri.

\*\*\*\*\*

Larramendik ainbeste maite *zuan* (eban) gure euskera zarra gaur egunean ere arrotz *jakintsu* (jakitun) askok ikasi ta goratzen *dute* (dabe): izkuntzetan ikasgarri ta ikusgarrienetarikoa dala *diote* (dinoe). Eta gu, euskaldunok, geure izkuntzaz lotsatu egiten *gera* (gara), lotsatu...! Euskaldun guraso askok arrokeriz *beren* (euren) seme-alabatxoei euskerarik ez *diote* (dautsie) irakasten, eta *oien aurrak ere* (onein umeak be) arropuzkeriz-edo euskerarik ez *dute* (dabe) ez ikasi ez erabili nai... Gure zentzua, non ote da? Kristau izateaz gero, euskaldunen arrokeririk aundiena, andikeririk bidezkoena euskera jakin eta euskeraz itz egitea izan bear *luke* (leuke)... Beste erri batzuen jatorria badakigu, gaur *daukaten* (dauken) lurraldean noiztik ona *dauden* (dagozan) ere bai; Euskaldunen jatorria, noiztik onakoak *geraden* (garean), gure asabak lurralde onetara noiz eta nondik etorri ziran inongo inork ez daki. Mon-

<sup>296</sup> [Jesusen Bihotzaren Debozioa: irakurleari.]

tmorentzi *aundizkiak* (andikiak) arrokeriz esan *omen zuan* (ei eban) bein batean: «Nire jatorri ta izena ezagunak dira, urte ta gizaldi asko *dituzte* (dabez)». Eta ori entzun *zuan* (eban) euskaldun batek erantzun *omen zion* (ei eutsan): «Jauna, guk, euskaldunok, gere jatorri ta izena urtez eta gizaldiz ez *ditugu* (doguz) kontatzen, noiztik onakoak *geran* (garean) ere inork ez daki-ta». Onela ba, gure omen, ospe, aintza ta gloriarik andiena euskaldun-fededun izatea da-ta, gaitezen gu beti euskaldun, gere asabai zor *dieguna* (dautseguna) emanaz, Euskalerria bizi dadin; geronek, bere semeok, il *degula* (dogula) esateko eskubiderik inork inoiz *izan ez dezan* (euki ez dagian)... Gaitezen gu beti fededun, orain Jangoikoarenak izanaz, gero, lurean inongo inon ez dagoan eta biotza guztiz, osoro aseko *digun* (dauskun) goiko zoriona, gere sinistetak eskaintzen digun zorion eder-osea lortu ta *iritxi dezagun* (jadetsi daigun).

\*\*\*\*\*

Euskera zearo galduaz, asaben oitura on, jolas garbi, abesti xamur eta izakera berezia ere galduko *genituke* (geunkez), eta gure sinismenak ere ilunaldi gaitza, andia izango *lukela* (leukela) deritzat... Ebanjelioko *gizon ura bezela* (gizonaren antzera), euskera ere gere *ajolakabez* (ardurarik ezaz) gaiso *degu* (daukagu): uatua, elbarritua dirudi. *Gizon ura* (a gizona) bere ta lagunen siniste bizia zala-ta sendatu *zuan* (eban) Jaunak. Jaunaren laguntza *iritxi* (jadetsi) ta gaiso dagoan euskera sendatzeko ere, sinismen biziz, uste betez lan egin bear *degu* (dogu). Jaunak esan *zuan* (eban): «*Si potes credere, omnia possibilisunt credenti*; sinetsi al *badezu* (badozu), sinisten duanarentzat gauza ezinik ez dago». Au dala-ta euskaltzale epel eta otz asko baino, biotz osoz eta gogo beroz lan dagiten bizi ta *pizkor* (bizkor) gutxi ere obe dira. Euskera sendatzeko, lenen eta aurrenen biotzeko bero ta garra bear *ditugu* (doguz). Euskalerria gaiso dago; bere semeak *gera* (gara), Jangoikoaz gero, *geran* (garean) guztia zor *diogu* (dautsogu)... Gure ama degu-ta, ama gaiso au sendatzeko, ala bearbada, gure bularra, zainetako odola ta bizia bera ere eman bear *dizkiogu* (dautsoguz)...

Aita Larramendi goratzeko bildu, batu gera emen... *Ezina egina* deritzan bere euskalitzia ta beste lanak, zertako, zer xedez, zer asmoz egin zituan? Gure lurralde au beti Euskalerrri ta Jaungoikoaren erri izan *zedin* (eiten). Au dala-ta, Larramendi aundietsi ta goratzeko biderik onena euskaldun fededun izatea *degu* (dogu). Asmo ori *ar dezagun* (artu daigun) gaur. Larramendiren irakaspen eta geure asaben *oroipen* (gomuta) laztanak ori eskatzen *digute* (dauskue). Gure asabak, euskaldun eta

fededun izan dira; guk *aien* (arein) semeok ere, gere jatorri, izen eta odola ukatu nai ez *baditugu* (badoguz) beintzat, euskaldun eta fededun izan bear degu...

*Bukatze*ko (amaitze)ko, Matatiasek bere semeai esan *zien* (eutsen) antzera esango *dizuet* (dautsuet) nik ere: Ene semeok, asabak gizaldirik gizaldi egin *zutenaz oroituz* (ebenaz gomutaurik), Jangoikoaren legea ta euskal legea maite *itzatzute* (egizue); *bi lege oiek* (oneik lege biok) jagon eta gordetzen leiatsu izan *zaitzte* (zaitze). Asaben ilburukoaren alde, ala bearbada, bizia ere *eman ezazute* (emon egizue); *fili aemulatores estote... date animas vestras pro testamento patrum vestrorum...* Orrela egin ezkeru, omen, ospe andia ta betiko izena lortu ta iritxiko *dituzute* (dozue); *accipietis gloriam magnam et nomen aeternum...* Lurrean omen andia, zeruan betiko zoriona.

## 2. ELEIZ BERBALDIAK

2.1. BETIKO EGIAK<sup>297</sup>

2.1.1. *Jangoikoa eta gizona* (X, XI)

X

LURREKO GAUZA GUZTIAK EGILEA DAUKE<sup>298</sup>

«*Manus tuae fecerunt me.*»

«Zure eskuak egin nabe.»

(Job 10, 8)

Euskaldun onak, entz(u)le) mait(eok):

Esku bete zeregin banerabilen, eleiza onetako abadeen buru danak onako dei egin eustanean. Eginen barri barik be baneukan zeri begiratu, zeri ekin eta erago<sup>299</sup>; baina euskaldunak, eta batez be Bilbo lango uri andietan, euren izkuntza ta sinesmena galtzeko arriskuan bizi diranak, maite-maite dodaz eta, maitasun orrek eraginda, dei egin eustan jaunari baietz erantzun neutsan.

Zuen onean, euskaldun maiteok, al dodantxua egiteko gertu ta prest nago; baina zuek be zeuen aldetik lagundu bear nozue, batak besteari esanaz, alkar zirikatuaz misino onetara al bait euskaldunik geien etorri daitezana. Eleizau euskaldunez bete, artu alean beteko balitz, ori ikustek asko biztu ta bizkortuko ninduke eta neure eginen au askozaz obeto egin al izango neuke.

Egun oneitan dagigun guztiok lan: zuek, zeuen ezagun eta aiskideai esan eta al bait geien ona ekarteko; nik ostera, guztioi al bait ondoen eta argiroen Jaunaren legea, zeruko bidea, irakasteko. Ori egin ezkeru, Jauna atseginez eukiko dogu, eta bere errukiak gure arimetara oparo ta esku-zabalez isuriko ditu.

---

<sup>297</sup> Lehenengo eskuizkribu-liburuari jagokoz gai hau dakarren berbaldiak.

<sup>298</sup> [Oarra: Itzaldi au 18-II-1929garrean Belguntzan egin eban Eguzkitza jaunak; Jose Antonio Oar-Arteta, bere misinolari-laguna.]

<sup>299</sup> *Erago*: jardun.

Beste barik asi gaitzean eta asi gaitzean errotik, beste egi guztien eustazpi<sup>300</sup>, jasoin<sup>301</sup> edo zimendu dana lenen eta aurrenengo azaldurik.

Jaungoikoa ta gizona: Jaungoikoa gizonaren Egile, gizona Jaungoikoak egina. Gauza argi ta agiria da: Jaungoikoa gizonaren Egile izan ezkerro, gure Nagusi, Ugazaba ta Jabe da, ta gu bere menpeko, otsein eta morroiak gara; ta beste barik be, lotsa, itzal, menpetasun eta gurtzea<sup>302</sup> zor dautsaguz. Jaunak bere legea gure gogo-biotzetan bere eskuz idatzi ta irarri dau ta guk lege ori bete bear dogu. Lurreko agintariak eragotzi, galerazoten ez dauskuezan eta, ori ta guzti be, guk gaiztakerizat daukaguzan gauza asko dagoz. Olakoren bat, gaiztakerizat daukagun zerbait egiten dogunean, biotza kezka eta arpegia lotsaz beteten jaku, bildur izaten gara. Zeren lotsa? Noren bildur? Jangoikorik ez balego, gure gaiztakeri orren kontua nok artu al izango leuskigu? Gure lepora zigorra nok jaurti al izango leuke? Zigorra erabiliko dauan esku ori, zein da, nun dago? Au dala-ta, euren gaiztakerietan kezka barik, nasai bizi gura leuken askok gauzen eta gizonen Egile dan Jaungoikorik ez dagoala esan dabe. Eta egiz, edozer egin arren kezka barik, lotsa ta bildur barik, atseginetan eroso ta nasai bizi al izateko, biderik onena ta errezena orixe da, Jaungoikoa ukatzea, gure Egile ta Jabe dan, gure ardurea daukan Jaungoikoa badagoala sinestu ezkerro, gaiztakeriak biotzeko kezka ta gerokoaren bildurra beragaz daroaz-ta.

Aginka egiten dauan ar txarra biotzean daroana, gerokoaren bildur dana, estu ta larri, artega ta urduri dago; kezka ta bildurra bakez eta nasai biziteko, lagun txarrak dira. Augaitik, gaiztoak izan eta ezetariko kezka ta bildur barik, bakez eta nasai, atsegin-eztitan bizi gura leuken askok, Jaungoikoa ukatu dabe; edo nasketa negargarri bat eginik, geure begiz dakusgun izate auxe berau Jaungoiko dala, Jaungoikoa izate auxe baino besterik ez dala, gauza guztiak eta bakotxa Jangoiko dirala, geu be Jangoiko gareala ta Jaungoikoa geu baino besterik ez dala..., ta olako tentelkeri, erokeri, zorakeri garbiak esan dabez.

Gaiztoak, bere gaiztakerietan nasai ibilteko, Jangoikorik ez leuke nai; baina gaizto arroak nai izan ez arren, gauza guztien Egile ta Jabe dan Jaungoikoa badago, bai.

1. Munduko gauzak euren izatez aldakorrak dira, eta aldakorrak diralako urteen joanaz, asko edo gitxi, guztiak aldatzen dira eta aldatzea zelanbaist ibiltea dalako, guztiak baterantz edo besterantz ibili dabiltz.

<sup>300</sup> *Eustazpi*: oinarri.

<sup>301</sup> *Jasoin*: zutabe, oinarri.

<sup>302</sup> *Gurtza*: adorazino.

Dabilena berenez ez badabil, beste norbaitek eta zerbaitek darabil; toki batetik bestera edo izakera batetik bestera aldatu dadin, norbaitek darabil. Geure begiz ikusten dogunez, gauza batzuek darabilez besteak: goikoak darabilez bekoak, lenagokoak urrengoak. Baina beko ta urrengoak darabilezan beste orreik, nok edo zek darabiltz? Orreik be beste norbaitek edo zerbaitek. Eta ori, nok edo zek darabil? Gauza batek bestea badarabil, batek bestea aldatzen badau, lerro edo ilada orrek noz edo bein azkena be euki bear dau-ta, gauza onein asikeran naitaez dago, bera ezetan be aldatu barik, gauza guztiak aldatzen dituana, bera bate-ra bestera aldakor ibili barik, gauza guztiak darabiltzana. Orixe da Jaungoikoa, beste izaki guztien asiera, sorkun<sup>303</sup> eta iturburua.

2. Bidez zoaze, zugatz artean jauregi eder bat ikusten dozue..., atarian gizon bat eta itanduten dautsazue: «—Jauregi eder au norena da? Nok egin dau?» «—Etorri aurrera, nai badozue; sartu zaiteze eta barrenetik be zein ederra dan ikusi egizue.» Sartzen zarie ta ango gela guztiak eta bakotxak arritzen zaitue; ikusiago ta arritzenago zarie. «—Au bai jauregi ederra! —dinozue—. Guztia dago apain eta ikusgarri, guztia ondo, ezin obeto; gauza bakotxa bere tokian, guztiak egoki, ezin egokiago. Nok egin dau? —itanduten dozue barriro.» Eta berak irribarrez dinotsue: «—Egin... inok be ez, berez egin da; emen jaunik ez da bizi, au sagu ta satorren bizitokia da». «—Gizon onek —esango zeunkie— burua galdu dau, zer dinoan ez daki, edo bestelan gure lepotik barre egiteko gogoia dauko... Goazen emetik.»

Mundu au baino jauregi ederragorik non dago? Lurrean ainbeste gauza eder; ortzean, zeruan ainbeste eguzki, ainbeste izar. Bakotxak bere tokia zaintzen dau; bakotxa bere bidetik dabil, beste enparauen kalte barik, ezetan be utsik egin barik, guztiak egoki ta zuzen, ezin egokiago, ezin zuzenago. Len aitaturiko jauregia berez egin zanik ez dozue sinestu nai izan eta bere senean dagoan gizonak ez leuke sinestuko. Eta mundu andi ta eder au berez egin zala, emengo gauzak, inok zuzendu barik, berez ain zuzen eta egokiro dabiltzala, ori nok sinestu daike? Jauregiko gauzak egoki ipinita egozalako, aek alan ipinten buru argiko gizonen bat ibili zala ziurtzat daukagu, ta berez egin eta berez alan jarri zirala dinoana tentel eta zoro anditzat. Baina mundu guztiaren ondoan, zer da jauregi bat ederrena izan arren be? Munduko edertasunaren ondoan, zer dauko zerikusí? Au onelan izanik, munduko gauzak ain zuzen ipini ta ain egoki erabilteko, gizon guztien burua baino askozaz

<sup>303</sup> *Sorkun*: jatorri.



argiago, azken barik argiago diran gogo, adin eta burua bear zirala, nok ukatu daike? Eta zentzunik ez buruko argirik ez dauken gauza orreik berez ain egoki jarri zirala, nok esan, nok sinestu daike? Bere senean dagoan gizonak ez.

3. Lurreko gauza guztiak amaia dauke, amaia daukenak asierea be euki dabe; asierea euki dauan edozer egina da. Baina lurreko gauza guzti oneik eginak badira, Egilea dauke, ezelan be ezin izan daitekela-ko gauza eginik Egile barik. Gauzen Egileari Jaungoikoa deritxogu.

Bein baten –esaten danez– bere burua jakituntzat eukan gizon gazte jauntxu batek Jaungoikoa ukatu eban beste lagun batzuen aurrean. Aren ausardiaz arriturik, ori entzun eutsenatariko lagun batek itandu eutsan: «—Esaidazu, aiskidea: oiloa ala arrautza, zein da lenago?». «—Zein izango da, ba? –erantzun eban jakitun arroak–; arrautzeak oiloak egiten dau-ta, zetan esan be ez, oiloa arrautza baino lenago da.» «Baina entzuizu –esan eutsan besteak–: oiloa, oilo izan baino len oilanda ta oilanda baino len txita izan oi da, ta txitea, zeuk dakizun lez, arrautzatik dator; beraz oiloa be arrautzatik.» «Ori orrelan dan ezkerro –erantzun eban jakitun arek–, arrautzea oiloa baino lenago dala dirudi.» «Ondo erantzun dozu –esan eutsan besteak–, baina arrautzea oiloak egiten dau eta oiloren batek egin ez dauan oilo-arrautzarik nik ez dot inoz ikusi. Zuk ikusi ete dozu? Esaidazu ba: arrautzea oiloa baino lenago bada, oraindik oilorik ez egoan aldi edo denpora aretako oilo-arrautzak, nok egin ebazan? Oiloa baino lenagokoak zirala dinozun ezkerro, oiloak eginak ezin zeitekezan izan. Nok egin ebazan? Ez dakizu erantzuten? Edo oilo barik oilo-arrautzak edo arrautza barik oiloak egin ebazan norbaitek. Nok? Gizonak? Gizonak ez bata ez bestea egiten ez dakie ta, gauzen Egile dan Jaungoikorik ez dagoala dinozu? Eta jakituna zareala uste dozu? Zuen jakituri ori arrokeri ta itsutasuna baino besterik ez da.»

Gizon eta emakumea be beste gizon eta emakume battegandik datoz: seme-alabak gurasoakandik. Baina geure adinaz gizaldietan atzera lenengoraino joan bagaitez, lerro ta ilada onek be azkena dauko-ta, lenengo gizon eta emakumera elduko gara, eta lenengo gizon eta emakume beste batzuekandik ezin daitekez etorri, bestelan lenengoak ez litzakez izango-ta. Lenengo gizon eta emakumea, guraso bai, baina beste batzuen seme-alaba ezin izan daitekez; bestelan, onein gurasoak eurak baino lenagokoak litzakez eta lenengoak dirala dinogunok ez litzakez izango lenengoak. Lenengo gizon eta emakumea beste gizon eta emakumek ez ebazan egin. Nok egin ebazan? Berez? Berez ezertxu be ez da egiten. Augaitik, lenengo gizon eta emakumearen Egilea Jaungoikoa dala sinetsi ta autortu bear dogu, eta eginaz gainera, beste batzuk –seme-alabak– egiteko almen eta indarra be Jaunak emon eutselako ta

bakotxaren arimea Jaunak berak irazan eta egiten daualako, guztiok eta bakotzak Job Santuagaz esan bear dogu: «*Manus tuae facerunt me*. Jaina, zure eskuak egin nabe». Zu nire Egile ta ni zure eskuetako izaki ta egitadea<sup>304</sup> naz.

Egi andi ta mamintsu onek zer irakasten dauskun ikusi daigun, baina orretan asi baino len...

---

<sup>304</sup> *Egitada*: obra.

2.1. BETIKO EGLAK

2.1.1. *Jangoikoa eta gizona* (X, XI)

XI

JAUNA, NEURE ELBURUA ERAZAGUTU EGIDAZU<sup>305</sup>

*«Notum fac mihi, Domine, finem meum.»*  
*«Jauna, neure elburua erazagutu egidazu.»*

(Ps. 38, 5)

N(eure) entz(u)le) mait(eok):

Edozein gizonek bere buruari lenen egin bear leuskiozan itaunak, onexek dira: nondik nator eta nora noa?, mundu onetan zetarako nago?, emengo nire eginbearrik nagusia zein ete da? Itaun onci erantzuten ez dakian gizasemea itsumustuan dabil, lemea galduta ekatzak ara ta ona darabilan itxasuntziaren antzera dabil; eta berak asko dakiala uste izan arren, ezertxu be ez daki, itsu errukarria da. Beste gauza batzuen izakerea ikasten, gauza orreik bata-besteagaz alkartzen, zetarako diran jakiten diardu, orretarako –esan oi dan lez– betuleak erreten ditu; eta bera nor dan, nondik datorren, nora doan jakiteko, ardurarik ez. Ez al da au zorakeri garbia? Gitxi baino ardura ez dautsen gauzak ezagutze-ko, ainbeste alegin eta geien joakona jakiteko, aleginik bapez. Ete dago munduan ezer gizona bera baino geiago danik? Ete dago ezer gizonak bere burua baino urrago daukanik? Ete dago ezer gizonari beragaz gero zer izango dan jakitea baino geiago ardura dautsanik? Ez, ezer be ez! Baina geure geroko geroaz, geure etorkizunaz alper, nagi, itxi ta zabarrak izaten gara-ta sarri askotan, orrek baino beste edozein uskerik gei-ago ardura dauskula dirudi.

---

<sup>305</sup> [Oarra: Lenengoko gabaz Eguzkitza jaunak egindako itzaldia; Jose Antonio misiolari-lagun. Bilbon, 18-11-1929.]

## I

1. Loiolako Eneko Inazio Deuna erdalerrian zear luzaro ibili zan arren, erderan antzetsu ta trebe inoz ez zan izan. Baina buru argia, adimen zoli ta bizkorra cukan, eta arimak Jaungoikoagana ekarteko, zeruko bidetik eroateko idatzi eban liburutzuan, beste guztien asiera, oinarri, eustazpi ta zimentutzat, auxe ipini eban: «Gizona egina da; Jaungoikoa ezagutu, goretsi, maitatu, gurtu, lurrean Jaunaren otsein zintzo izan eta onen bidez bere arimea zeruratu, gaizkatu edo salbetako, egina da gizona». Ori dino San Inaziok, eta egiz, beste munduko gauza guztiak lez, gizona be Jaungoikoak egina dala ikusi dogu ta ondo dakigu. Bere antz eta irudira egin eban Jaungoikoak gizona, *«faciamus hominem ad imaginem et similitudinem nostram»*; gorputza lurreko bustinaz egin eta eratu ezkeru, bere arnasaz emon eutsan bizia, *«spiravit spiraculum vitae»*.

Geure bizia Jaungoikoak emon dausku; geure zentzun eta asmame-nak, geure gogo ta adimena, geure naimen<sup>306</sup> eta aukeramena, dauka-gun eta garean guztia Jaungoikoak emon dausku. Guzti ori Jaunari zor dautsogu ta gareanok Jaunarenak gara. Zor andi ori, zelan ordaindu, zelan pagau dautsogu? Jauna bera ta bere ontarte<sup>307</sup> ta mesede andiak ezagutu daiguzan, gure buruan adimen argia sortu dau. Geure guraz maitatu daigun, bere legea bete ta bere otsein eta morroi, zerbitzari geure aukeraz izan gaitazan, gure adimen edo borondatea jarein, aske edo libre egin dau. Geure eskuko egin gaitu, bata zein bestea egiteko auke-rea emon dausku, baina zer egin bear dogun agindu ta esanaz: *«Dominum Deum tuum adorabis eta illi soli servies. Zeure Jangoiko Jauna gurtu ta jauretsiko dozu eta bere zerbitzari izango zara»* (Math. 4, 10).

2. Gure Egile dan Jaunari zenbat zor dautsagun ondo ta astiro gogoratu ta ausnartuko bagendu, eskar onaren su-garra gure biotzetan berea-laxe sortu, erne, biztu ta ixiotuko litzake. Jaunak, nai izanaz beste barik, egin ditu diran guztiak; gauzak egitorduan gauza ta izaki orrein ona nai izan dau; baina onginaia, ondogurea ta maitasuna gauza bat dira-ta, egin-dako gauza guztien asiera ta iturburua Jaungoikoaren maitasuna da. Onelan ba, Jaungoikoak egin ginduzanean gure ona nai eban; gure ona nai baeban, egin baino be lenago maite izan ginduzan, eta ain zuzen be maite ginduzalako, orixegaitik egin gaitu. Ondo dinosku, ba, Jaunak: *«In charitate perpetua dilexi te. Betiko maitasunaz maite izan zaitut»*.

<sup>306</sup> *Naimen*: borondate, gogo.

<sup>307</sup> *Ontarte*: mesede, esker.

Nai izan baleu, gure ordeztuak beste batzuk egin eikezan; ori bere eskuan eukan. Jaungoikoaren aukera ta maitasunak eginak garean ezkerro, gure ordeztuak beste orreik maite izan balitu, orreik egingo ebazan eta gu egin barik itxi. Baina geuk ezelan be irabazi barik, maitasun betikorraz maite izan gaitu eta geure zorionerako egin. Bearbada, egin barik itxi dituan orreitatik asko ta asko egin balitu, gu baino obak, zintzoagoak, eskar obekoak izango ziran, gu baino otsein, zerbitzari leialagoak izango jakozan. Ori ta guzti be, aek egin barik itxi ditu ta gu egin gaitu. Zegaitik? Maite izan gaitualako, ez bestegaitik. Au dala-ta, ondo baino obeto dinosku Jaungoikoak: «*In charitate perpetua dilexi te*. Eskar gaiztokoori, betiko maitasunaz maite izan zaitut».

Eta guk, zer egin dogu? Jaunaren maitasun andi ta betiko oni, zelan erantzun dautsogu? Geienez eskar gaiztorik baltzenaz. Geure grina ziztrinen menpeko, otsein eta jopu egin gara, eta Jaungoikoaren menpeko, bere otsein, morroi ta seme izateko ardurarik ez dogu euki. Otseintza eder, zeregin andi onetarako eginak izan eta gauzarik txatxarrenak bilatu, maitatu ta laztandu doguz; Jangoikoaren otsein ta zerbitzari izateko jaiotze ta aragiaren basatzen, mundu zoroaren simaurtzen sartu ta ondatu gara. Jaungoikoaren mesede andi au beti gogoan erabili bearrean, geure grina ta gurari txarrak ase ta betetearren egin eta sortu ginduzan Jaungoikoa itxi dogu; geure Egile ta Jabe oso dan Jaunagaz aztu egin gara, «*Deum qui te genuit, dereliquisti, et oblitus es Domini Creatoris tui*» (Deut. 32, 18). Au dala-ta badaukagu, bai, zertaz eta zegaitik garbaitu edo damutu, badaukagu biotz barrenean zegaitik negar egin, badaukagu zegaitik burua eratsi ta Jaunari parkeskatu.

## II

1. Zetarako egin gaitu Jaungoikoak? Bizitza onetan, zetarako gagoz? Jaunak emon eta ezarri dautsokun zeregina, zein da? Jangoikoak elbururik ez dautsukula izentau, zereginik ez dautsukula emon ezelan be ezin sinetsi, ezin esan geinke, ori Jaungoikoari irain egitea, Jaungoikoak zentzun eta bururik ez daukala esatea beste izango litzake-ta.

Ondartzen ondarrak etxetuak egin eta apurtu ibiltea, umeen joko ta jolasa da; elburu barik, zetan ez dala, zetarako diran jakin barik umeak egiten dabez inoz euren gauzak. Baina bere senean dagoan gizonak, ez. Zerbait egiten diarduan edozein gizoni itandu badagiozue: «—Ori zetarako dozu?» Nai izan ezkerro beintzat, bertatik erantzungo dautsue: «—Au, onetarako edo atarako». Gizonak bere gauzak zetako edo atako egiten baditu, Jangoikoak areago edo askozaz be geiago. Jaungoikoa gizona

baino askoz, amai barik zurrago, jakitunago da-ta, elburu ta azken barik, zetako edo atako ez dan gauzarik, ezertxu be ez dau egiten; gauza bakotxari bere zeregina emon eta izentau dautso, eta gizonari arabe geiago, lurreko beste gauza guztien nagusi ta jabe egin dau-ta.

2. Zein ete da, ba, Jaunak gizonari emon dautsan eginen ori? Zein, izentau dautsan elburu ori? Ausaz lurreko gauzen menpeko, otsein eta jopu izateko egin ete dau Jangoikoak gizona? Ori ezelan be ezin izan daiteke, lurreko beste gauzok gizona bera baino gitxiago, gizona baino txatxarragoak dira-ta.

*Esakunetako Liburuak* dinoskunez, Jaungoikoak gauza guztiak bera-gaitik eta beretzat egin ditu: «*Omnia propter semetipsum operatus est Dominus*» (Prov. 16, 4). Gauza guztiak, txikienak be bai, beretzat, bere omen, aintza edo gloriarako egin baditu, zetan esan be ez, gizona askozaz be geiago. Ori edonorentzat gauza argia da. Lurreko beste gauzok ez dauke gizonak lez adimenik, buruko argirik, eta euren Egile dan Jaungoikoa ezin ezagutu daikie; beste gauzok ez dauke gizonak lez naimen eta aukeramenik, borondate ta libertaderik, eta euren erara Jaungoikoa goretsi arren, eginen ori gizonak baizen ondo ezin bete leikie.

Lurreko gauza guztien ugazaba ta jabe gizona egin dau Jaungoikoak, eta beste guztien izenean bera goratzeko ardurea be gizonari emon dautso. Beste gauzok mintzule<sup>308</sup> edo mutuak lez dira, zer dinoen eta zer egiten daben ez dakie; gizonak mintzatzeko almena dauko eta zer egin eta esan bear dauan badaki. Augaitik, bere izenean eta beste guztien orde z Jaungoikoa ezagutu, maitatu, aintzat artu eta goretsi bear dau gizonak. Orra or, entz(ule) mait(eok), gure bizitza onetako zeregin eta egiteko nagusia! Orra or Jaungoikoak izentau dauskun eginen eta elburua! Orretarako egin gaitu; orretarako gagoz munduan eta ez bestetako. Ori egin ezik geure zereginik nagusia ostikopean sartzen dogu, geure bidetik urten, aldendu ta urrundu egiten gara, oker gabiltz eta oker goaz.

3. Baina Jaungoikoa guretzat ona baino obea, guztiz errukior eta maitale andia izan da: agindu ta izentau dauskun eginen ori, bere gorespen, omen, aintza ta gloria, gure betiko osasun eta zorionaz alkartu dau ta biak batera ekarri ditu. Jaungoikoak ezertxu be ez dausku zor; guk bera goretsi arren, ori geure eginbearra da-ta, ezer eskatzeko eskubiderik ez daukagu. Baina Jauna gugaz onbera eta errukior, biotzandi ta eskuzabala izan da-ta, geure eginen ori zintzoro bete ezker, betiko

<sup>308</sup> *Mintzule*: mutu.

saria, betiko osasun eta zoriona agindu dauskuz. Eta onelan, Jaungoiko onak gauza biok, bere aintza edo omena ta gure osasuna alkartu ditualako, geure urratsak geure elburura zuzenduaz, lurreko geure eginen au ondo beteaz, betiko zoriona eskuratzen dogu; zeregin ori aztuaz, geure bidetik urten eta oker ibiliaz, ostera, geure buruai betiko zoritxarra dakartsegu. Bata edo bestea autu, aukeratu ta artzea norezkoa<sup>309</sup>, naitaezkoa dogu.

Au ondo ta astiro gogoratu ta ausnartuko bagendu, gure nagikeria errez astinduko geunke, eta Jaunak emon dauskun zeregin ori betetea atsegin be atsegin izango litzakegu. Jaunaren legea bete dagianak, orrekek maite dau Jauna. Maite dagianak, gurtu ta jauresten dau; jauretsi dagiana, Jaunaren otsein da, bere menpean bizi da, Jaunaren naia egin eta beteten dau. Jaunaren naia zeatz eta zintzo bete dagiana, Jangoikorentzat bizi da ta bere arimaren betiko osasun, zoriona ta bizia be lortu ta jadetsiko ditu.

### III

Orain arte zer egin dogu? Gure bizikerea zelakoa izan da? Lurreko atsegin eta zorakeriak begiak lausotu dauskuez; geure zentzuna galdu dogu, geure Jaunagaz aztu gara. Berak emondako zeregina, gure zeregin andia, bear zan lez ez dogu bete; mendian zear galduta dabilen ardi gaxoen antzera, geure osasunera garoazan bidea galduta ibili gara. Geure erruz eta geure kaltean Jaunagandik urrundu gara ta askok bizitza negargarria egin dogu. Job Santuagaz, eta arek baino zio geiagoz, askoz obeto esan geinke: *«Taedet animam meam vitae meae. Nire gogoak orain arteko bizitza gaizto ori iguin eta gorroto dau»*.

Neure obena, neure errua, neure gaiztakeria autortuko dot eta biotzeko samin, garbai ta damuz neure Jaunari esango dautsat: Arren, Jaun ona, ez nagizu gaiztetsi, ez nagizu kondenau; nizaz erruki, nire eskar txarra parkatu!

Zure eskuak egin ninduen, zure eskuak eraldu nabe, nazan guztiau zeurea naz; azal ta aragiz jantzi ninduzun, azur eta kirio ta zanez batu, bizia ta errukia emon daustazuz; zatozkidaz errukiz, ene Jauna, ta nire bizia, nire arimea jagon, zaindu ta gorde egizu. Ardi galdua artzainagandik lez, zugandik urrundu naz; neure egunak uskerietan emon dodaz, baina orain damuturik, zugana nator, neure eskar gaiztoa autortzen dot eta errukia eskatzen dautsut.

<sup>309</sup> Norezko: behar-beharreko.

«Arren, Jauna, eriotzako iluntasunez estalita dagoan lur ilunera joan baino len, neure okerrak zuzendu, neure erru ta gaiztakerietzaz damutu eta biotzeko garbai ta samintasunez negar egiteko astia ta laguntza emoidazuz. *Dimitte me paululum, ut plangam dolorem meum (et errorem), antequam vadam ad terram tenebrosam et opertam mortis caligine.*» Ori esaten eban Job Santuak; arek baino obeto esan geinke guk: Jauna, guzaz eroapena artu egizu, ta geure gaiztakerien garbai ta damua autortu ta deitoratu daiguzan, asti ta laguntasuna emoiguzuz.

## IV

1. Jangoikoak egin gaitu; bera ezagutu, aintzat artu ta goretsiaz geure betiko zoriona irabazi daigun, orretarakoxe egin gaitu. Baina mundu onetan guzaz gainera, geu ez garean beste gauza asko be badagoz. Nok egin ditu, norentzat eta zetarako? Mundu onetako beste enparau guztiak Jangoikoak gizonarentzat egin ditu. «*Omnia subjecisti sub pedibus ejus.*» Gizonarentzat egin ditu, baina zetarako? Jangoikoa bera ezagutu, maitatu ta goersten lagundu dagioen, zerura eltzeko bide ta maila izan dakiozan...

a) Ontasun eta edertasun apurren bat –asko edo gitxi– gauza ta izaki guztiak dauke. Ontasun ori, edertasun ori Jaunaren eskutik artu dabeta, guztiak, alkarren leian, Jangoikoa zein on, eder, bikain eta maitagarri dan adierazoten daukue ta ori eginaz Jaunagana garoez... Gauza ta izaki guztiak geure eredu ta jarraibide doguz; guztiak, zer egiten daben jakin ez arren, Jaunaren agindua guztiak beteten dabe ta bere otsein zintzoak dira.

b) Eguzkia ta izarrak Jaunak izentauriko bidetik dabiltz, agindu dautsena zeatz beteten dabe; itxaso ta lurra Jaunaren agindupean dagoz eta bere esana egin daroe. Gauza guztiak, baktotxak bere erara, Jangoikoaren naia egiten dabe, Jaunaren otsein zintzoak dira... Eskar gaiztoko gizonak..., ez. Onek sarri askotan Jaunaren naia ez dau egiten, Jaunaren aurka jagiten da, Jaunaren legea ausi ta zor dautsan menpetasuna ukatu egiten dautso. Luziferren antzera dinotso: «*Non serviam.* Zure menpeko, zure otsein ez naz izango, ez dot izan nai...». Eta Jangoikoak bera goratzeko eta onelan arimearen betiko osasuna jadesteko gizonari emon dautsazan gauzak, onek sarri bere aukera ta atseginetara biurtu ta ekarten ditu; gauzak euren senetik atera, gauzen izatea okertu, onak diranak be gaiztotu ta Jaunagandik urruntzeko, Jangoikoa iraindu ta bere burua galtzeko erabilten ditu bein baino sarriago.



c) Lurreko gauzok zelan erabili bear doguz? Bidez doan edonok bere bidearen azkena, elburua beti begien aurrean dauko ta ara eltzeko biderik egokiena artzen dau... Nekatu ta gero, arnasa ta atsedean artzeko pizkaren bat gelditzen da; baina gelditzen danean be, bere asmua aurre-ra joatea da-ta, atsedean labur ori be, gero bere bideari azkar, zoli ta bizkorrago jarraitzeko asmuz artzen dau. «*Non habemus hic manentem civitatem, sed futuram inquirimus.*» Gu be bidaztiak gara; geure betiko etxera, geure zorionera, geure aberrira goaz, eta bidean aurkitzen doguzan mundu onetako gauzakin, orixe egin bear geunke: geure bide orri jarraitzeko laguntzen gaituen bestean artu ta erabili; ori eragotzi ta gale-razoten dauskuen bestean, laga ta itxi, kendu ta jaurti.

Beste gauzok geure zorionerako bide doguz; bide baino ez badoguz, amai, azken eta elburutzat inoz be ez doguz artu bear... Gure elburua, gure zoriona Jangoikoa da; gure elburu ta gure zoriona zeruan doguz; beste gauzok arako bide doguz. Zegaitik gelditzen gara, ba, bidean, geure Jangoiko ta geure zoriona gauza orreitan bailegoan? Olakorik bein be ez geunke egin bear. Baina sarri geure zentzuna galtzen dogu eta geure atsedena, geure zoriona lurreko gauza zirtzil orreitan ipini doguz: geure benetako zorionera joatea galerazoten dauskuen gauza txatxar orreitan!

d) Gauza batzuk, eurenez txarrak diralako, zorioneko bidetik alden-du egiten gaitue, geure zoriona galerazo egiten dauskue; onakoak, erruki barik, itxi ta geugandik urrundu bear doguz. Beste batzuk beti laguntzen gaitue; onakoak artu, geugandu ta erabili egin bear doguz. Baina gauza asko dagoz, batzuai zorionerako lagundu ta beste batzuai ori galerazoten dautsenak. Guretzat zorionerako bide ala eragozpen izango diran ez dakigunak, ori ez dakigun bitartean gauza orrei gora ta leba, garrantzi edo inportantzia gitxi emon bear dautsegu; naiz artu naiz isteko bardin gertu egon bear dogu. Onako gauzen aurrez aur zer egin bear dogun, beste askoren artean S(an) Luisek guztiz ederto irakatsi euskun. Santu onek bere buruari sarri itanduten eutsan: «*Quid hoc ad aeternitatem?* Betiko zorionerako, au zer? Lagunduko nau, bide izango jat?». Orre-lan bada, betor! Eragotzi, galerazo egingo daust, zoztor eta eragozpen izango jat? Beioa, urrun beioa! Nire eginenik andiena, geien ardu daustana neure betiko zoriona da-ta. Neurri ona, bide zuzena, eretxi zurra, jakituri guztien laburgo<sup>310</sup> ta erroa, orixe da. Geure zorionerako laguntzen gaituen gauzak, artu ta erabili; galerazoten dauskuenak, alden-du, itxi ta jaurti.

<sup>310</sup> *Laburgo*: laburpen.

Jangoikoak egin gaitu, beretzat egin gaitu, zerurako egin gaitu; beste gauza guztiak be bera goratzeko ta geure zoriona jadesteko emon dauskuz. Orretarako laguntzen gaituen bestean artu ta erabili; ori galezazoten clauskuen bestean kendu ta jaurti bear doguz. Orixe baino beste neurri ta erispide zuzenik ez dago. Santu guztien jakituria orixe izan da, ta guk lenen egin bear doguna be orixe: mundutarren eretxi okerrak itxi ta geure Jaunaren eretxi on, zuzenak artu ta geuretu.

2. Jangoikoak nai izan baleu, zeregin eta elburu txikiagoa, eratsiagoa be emon eta izentau eikegun; aingeruren bat gure nagusi ta gu onen otsein eta zerbitzari egin geinkezan. Baina ez dau nai izan, gauza andietarako egin gaitu. Gure Jabe, Ugazaba ta Elburu Jauna bera dogu; Jangoiko andiaren menpeko, otsein eta zerbitzari gara, Jauna baino beste Ugazaba ta Jabe osorik ez daukagu... Geure zeregina ondo bete arren, sari txikiagoa, zorion labur eta urriagoa emon eikegun eta orregaz be ondo ordainduta gengoan; baina ori be ez dau nai izan. Gure betiko sari ta zorion, egin ginduzan Jauna bera da: *«Ego ero merces tua magna nimis. Zure sari andia, andia baino be andiagoa, Neu izango naz»*. Biotzandi ta eskuzabal izan da gugaz Jangoikoa; zeregin andirako egin gaitu ta au bete ezkerero, amaibako saria, betiko zoriona eskini dausku. Geure Jangoiko onari zegaitik eskarrak emon badaukagu!

3. Jangoikoagandik gatoz, lurrean geure Jauna ezagutu, maitatu ta gorestekoko gagoz, eta itxasotik urteiten diran urak, barriro itxasora doazan lez, gu be egin ginduzan Jaunagana goaz. Emeko geure eginena ondo bete badaigu, betiko atseginetan, pozez eta zorionez gonburu, Jangoikoa ta bere erruki samurra amaibako egunetan goratuko doguz.

Auspaztu gaizan, ba, Jaunaren aurrean eta biotzez esan daiogun: Jaun maitagarria, betiko zorionerako egin gozuz. Ori dala-ta eskar andiak zor clausuguz. Geure erruz galdu ginan ta Zu, Aita samurrori, gure bila etorri zinakun. Au dala-ta eskar andiangoak zor clausuguz. Geure oker eta gaiztakeriak dirala-ta parkeske gagokizuz. Maite zaitugu, Jauna, ta Zeu maiteen zaitugulako egindako pekatu guztietzaz garbai ta damu gara. Eta garbai ta damuz dinotsugu: aurrerantzean geure elburua ondo ezagutu, geure zeregina zintzoro bete, Zu gure Jaunori, goretsi ta geure zoriona jadetsi daigun, arren Jauna, orain eta beti lagun zakiguz.

## 2.1. BETIKO EGIAK

### 2.1.2. *Salbazinoa* (XII)

## XII

### ARIMEAREN BETIKO SALBAZINOA<sup>311</sup>

*«Quid prodest homini si mundum universum lucretur,  
animae vero suae detrimentum patiatur?»*

«Mundu guztia irabazteak be ze on dakartso gizonari,  
azkencz bere arimea galdu badagi?»

(Math. 16, 26)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Guztiok ez arren, geienok beintzat bizi al izateko zetan edo atan lan egin bear dogu. Au dala-ta, lurreko gauzen ardurea osoro ezin itxi geinke, geure arazo ta zereginai naitaez begiratu bear dautsegu; au egia da. Baina esku artean ez darabilgu arazo ta zereginik, geure gogoia irakorri<sup>312</sup>, gora jaso ta Jaunagana zuzentzea zearo galerazo ta eragotzi leikegunik; au be egia da. Geuk nai bagendu, benetan nai bagendu, naitaez egin bear doguzan lurreko arazo txikiok geure arazo ta zeregin nagusira zuzenduko geunkez, eta onelan geure eguneroko eginenok arimearen betiko osasuna egiteko bide ta laguntzaile izango litzakiguz. Baina, zer jasoten da? Lurreko arazo oneitan begi bietaraino sartzen gara, geure buru ta gogoan lurreko arazo ta eginen oneik baino besterik ez darabilgu, arimearen osasunaz aitzu egiten gara, lurreko zoriona baino beste asmurik ez daukagu eta onelan geure bizitzako aldia umekeri utsetan joaku. Zer, ba? Eginenik andi ta bearrena, geien joakuna itxi ta txikiagotan, askozaz be gitxiago ardura daukuenetan egun eta gau osoak emotea, umekeri ta zorakeri garbia ez al da?

<sup>311</sup> [Oarra: Itzaldi au Bilbon 19-II-1920an goizeko mezatan egin da, aldizka egiten genduan-ta. J. Antonio.]

<sup>312</sup> *Irakorri*: jaso, altzau.

Lurrean euki geinkezan arazo ta zereginik andienak be, arimearen betiko osasunaren ondoan umekeri ta uskeri utsak baino ez dira; zeregin guztien artean, geureena, bearrena, andi ta nagusiena, geure arimearen zoriona da ta beste guztiai batera baino ardura geiago zor dauetsagu. Jangoikoaren laguntasunaz orixe azaldu ta adierazoko dauetsuet.

## I

Eginen guztien artean geureena, arimearen osasuna, salbazinoa da. Onen ardurea Jaunak geuri emon dausku; ondo naiz txarto urtetea geure eskuan dago: ondo urten ezkeru, bere irabazi guztiak geureak dira.

1. Gorputzeko gauzen ardurea, azkurri<sup>313</sup> edo janari, soineko ta enparauena euki bear dogu; baina ardura ori gurea bestean edo geiago Jangoikoarena da. Diran guztiak Jaunak egin ditu, diranai Jaunak irau nazoten dautse, ta geure aldetik zerbait egin ezkeru, biziteko lain beintzat Jaunak guztioi emoten dausku. Orren ardurea berak daukala Jaunak Ebanjelioan argiro dinosku: «Ez zaiteze ibili ardura larregiz zeuen artean esaten: "Zer jango ete dogu? Zegaz jantziko etc gara?", gauza orreik bear dozuezala zuen Aita zerukoak ondo daki-ta. Begiratu egizue ez dabilzan txoriak: ez dabe ereiten, ez dabe batzen, eta zuen Aitak elikatzen ditu, guztiai jaten emoten dautse. Zuek ez al zarie, ba, txoriak baino geiago? Zelaietako lorak zelan azten diran gomutau egizue: ez dabe lanik egiten, ez dabe iruten ez eunik egiten; ori ta guzti be, Salomon bera bere aintzarik andienez orreitariko edozein baizen apain eta zoragarri ez zan inoz jantzi. Jangoikoaren erreinua ta bere zuzentasuna, arimearen betiko osasuna, lenen eta aurrengo bilatu egizue, ta enparauok gaineratuko jatzeuz, pitantza<sup>314</sup> lez emongo jatzeuz» (Math. 6, 33). Ori dino Jaunak. Augaitik, gauza onein ardurea guk bestean edo geiago Jaunak berak dauko. «Baina zu barik egin zinduzan Jaunak dinosku S(an) Agustinek zeu barik ez zaitu salbauko, zeu barik, zeure ardura ta alegin barik, ez zaitu zerura eroango; jarei, aske edo libre egin zaitu bai, ta zeure lana, zeure alegina eskatzen dautsu.» «Bizitzea ta eriotzea, zoriona ta zoritxarra gizonaren aurrean dagoz dino jakitunak; nai dauana artzeko aukerea emon dautso Jaunak. *Quod placuerit ei, dabitur illi*» (Eccli. 15, 18). Onelan ba, arimearen osasuna egiteko ardurea Jaunak geure ardurara itxi dau.

<sup>313</sup> Azkurri: jateko, elikagai.

<sup>314</sup> Pitantza: bizigai, mantenu.

2. Jaunaren laguntasunaz zeregin au ondo egitea geure eskuan dago. Beste zeregin batzuk ez dagoz geure eskuan: gogoz lan egin arren, ezin burutu izaten dogu. Gizasemeak bere gara edo neurriari ukondotxu bat ezin geitu legio, eta gauza gatzagoak zelan egin daikez? Nekez eta lorrez ondasun bila edo andikeriak lortu nairik asko ibili dira; bizitza guztian orretan ibili ta azkenean ezer barik, narrugorrian il dira. Andi, aberats eta entzutetsu izatea gure eskuan ez dago; baina arimearen osasuna, bai, norbere erruz izan ezik, inor be galtzen ez dalako: «*Ex te enim perditio tua*. Zeure buruaren galtzea, zeugandik datorkizu» (Osee 139, 9).

3. Arazo au ondo eginaz irabazi daiguna, geure-geurea izango da ta inok be ezingo dausku kendu. Lurreko ondasunak batzen askok gau ta egun lanean diardue; baturiko ondasunok, ondorengoak banatu ta ondatzen dabez. Batu ebazana bizitza onetatik ezer barik doa ta bere arazoa baino inorena egin ebalta obeto dirudi. «Zoritxarra dino Jaunak Ebanjelioan eure bizia gaur gabeen kenduko dauske, ta batu doazan ondasunok, norenak izango dozak? *Cujus erunt?*» (Luc. 12, 20). Arimearen osasuna eginaz irabazi daiguna, ori inok be ezingo dausku kendu; inok be ez eta inoz be ez. Geure-geurea izango da, geurea betiko. Norbere arazoak itxi ta inorenak egiten ibiltea zorakeri andia da. Zereginik geureena arimearen osasuna da; zeregin onetan geuretzat landu, geuretzat erein eta geuretzat batzen dogu. Batu daigun irabazia inok be ezingo dausku kendu. Orain arte zer egin dogu? Bein baino sarriago geure arazo au itxi ta inorenetan ibili. Inoren arazo orreitarako asti asko euki dogu; geure onetarako asti gitxi. Zentzunbako andiak izan gareala autor-tu bearrean gagoz.

## II

Zeregin guztien artean bearrena be auxe dogu. Ondo begiratu ezke-ro, osoro bearrezko zereginik orixe baino besterik ez dago: «*Porro unum est necessarium* –esan eban Jaunak. Osoro bearrezkoa gauza bat bakarra da». Guztioen zeregina da (1), kalte andi barik ezin itxi geinke (2) ta bakotxak beretzat egitekoa dalako, inoren bidez egiterik be ez dago (3).

1. Guztioen eta bakotxaren zeregina da-ta, «nik ori egin bearrik ez daukat» inok ezin esan daike. Gizaseme guztiok orretarakoxe jaino gara, bizitza zuzenaren bidez betiko bizitzea lortu ta eskuratzeko. «Orain, Jan-goikoaren otsein eginik, emon bear dozuen arnari<sup>315</sup> edo frutua dino

<sup>315</sup> *Arnari*: frutu.

S(an) Paulo Apost(oluak)– santutasuna da ta onen azkena, betiko bizi-tzea» (Rom. 6, 22). «Jangoikoari bildur izaiozu dino jakitunak eta bere agintzak be egizuz, gizon guztien eginbidea orixe da-ta. *Hoc est enim omnis homo*» (Eccli. 12, 13). Gizonen asmu ta zalekeriak, egingen eta egi-bideak era askotakoak dira; gizartean batzuk gorago, besteak berago dagoz eta guztiak arazo bardinak ez daukez. Baina gagozan mailan gagozala, zeregin bat naiz beste bat daukagula, arimearen osasuna egi-teko guztiak bearturik gagoz, lege ori guztiontzat ipinia da-ta.

2. Zeregin au naitaezkoa dogu-ta, geure buruai kalte andia ekarri barik ezin laga ta itxi geinke. Lurreko gauzak galtzea ain kalte andia ez da; baina Jangoikoa galtzea izan daiteken kalterik andiena da. Gure ari-men atsedeen, atsegin eta zorion osoa Jangoikoa da, Jauna baino beste atsedeen eta zorion osorik ez dago; augaitik zinoan Agustin Deunak: «Zeuretzat egin ginduzuzan, Jauna, ta Zugan bere atsedena aurkitu arte gure biotz au artega ta urduri dago». Baina arimearen osasuna egin ezik, Jangoikoa, gure betiko zoriona dan Jangoikoa betiko galtzen dogu. Jau-nak dinosku Ebanjelioan: «*Quid prodest homini, si mundum universum lucretur, animae vero suae detrimentum patiatur?*» Mundu guztia irabaz-teak be ze on dakartso gizonari, azkenez bere arimea galdu badagi? Bein arimea galdu ezkerro, zelan eta zegaz erosi ta eskuratu leike berrero? *Aut quam commutationem dabit homo pro anima sua?*».

Egi andi au ondo ta astiro gogoratzeak arima asko ekarri ditu zeru-ko bidera. Bere ikasketak egiten ziarduan Parisen Xabier napar gazte bizkorrak gizon andi, jakitun, ospatsu izateko asmuak erabiltzan bere buruan. Onetan, badoa ara Loiolako Eneko edo Iñigo bere ikasketak antxe egiteko asmuz. Etxetik urrun, batez be, euskaldunak alkarren ais-kide laster egiten dira. Pizka bat aiskidetu ziranean, Xabier Jangoikoa-rentzat irabazteko asmuz, Enekok sarritxu esaten eutsan: «Ene aiskide, asmu andiak darabiltzuz, zeure bidean aurrera zoaz, munduan ospatsu izateko bidea daroazu; baina..., gure Jaunaren esana gogoratu egizu: «*Quid prodest homini, si mundum universum lucretur, animae vero suae detrimentum patiatur?*» Zetarako dau gizonak mundu guztia irabaz-tea, ibili ta ibili bere arimea galdu badagi?»». Xabierrek lenengotan jara-mon andirik ez eutsan egiten; baina Enekok ostera be esan, eta ekin. «*Quid prodest homini...?*» Alako baten Xabier ori ondo ta astiro gogora-tu ta ausnartzen asten da; egi garbia dala ezagutzen dau ta munduko andikeriak, andi izateko asmuak bein betiko itxirik, Jangoikoaren otsein, zerbitzari zintzo egiten da. Jesukistoren sinestea zabaltzeko zenbat lan egin eban eta zelako santu andia dan guztiok dakizue. Jaunaren esan ori, itz osasungarri orreik guk be gogoan erabili ta astiro ausnartu bear geunkez. Arimea galtzearen ondoan beste oker eta kalte guztiak uske-

riak baino ez dira. Oker eta kalte orreik beste aldi baten zuzendu geinkez, baina arimearen galtzea betikoa da-ta, oker au bein egin ezkerero..., zuzentzerik ez dago.

3. Lurreko arazoak geuk geurez egin ez arren, beste batzuen bidez, aiskide, otsein edo morroien bidez be erabili ta egin geinkez; arimearen osasuna inoren bidez ezin egin leike-ta, geuk geronek, bakotxak bereztat egin bear dogun zeregina da. Inoren bidez umeak eta ume antzekoak bakarrik joan daitekez zerura; enparauoi, adikuntzara<sup>316</sup> eldu gareanoi, geure egiteen arauz emongo dausku Jaunak: ondo egin badogu, betiko saria; txarto egin badogu, betiko zigorra. Aldi baten Martari lez, arima bakotxari dinotso Jaunak: *«Martha, Martha, sollicita es et turbaris erga plurima...»* Urduri ta artega zabiltz; uskerien ardura andia daukazu, arazo askotan sartzen zara, ta bearren dozuna isten dozu. Bearren dozun ori zeure arimearen osasuna da. *Unum est necessarium*. Jaunak orregaz adierazo nai dauskuna, auxe da: zeure biotza lurreko arazo orreitatik askatu egizu, ta zeure asmu, ardura ta alegin guztiak arimearen osasunera zuzendu egizuz.

San Felipe Nerik ikasketak egiten ebulan mutil gazte bat bide onera nai eban ekarri. Mutil ori bere arimearen osasunaz pizka bat baino geiago aztu zala-ta, bein baten esan eutsan:

«Zeure ikastaroa amaitu daizunean, zer izateko asmua dozu?

—Irakasle-maixu egingo naz —erantzun eban gazteak.

—Ori ondo..., ta gero zer?

—Gero abade egingo naz.

—Eta gero?

—Gero kanonigu be izango nazala uste dot.

—Eta gero?

—Gero... gero, bearbada gotzain, obispo edo andiago..., nok daki?

—Baina ori guztiori izan eta gero, zer?».

Mutil gaztea ixilik gelditu zan eta santuak esan eutsan: «Gero, ene semea, il egingo zara: Eta baldin galdu bazaitetz, irakasle, abade, kanonigu, gotzain eta andiago izate ori, zetako izango jatzu? Mundu guztia zeuretuko bazendu be, zeure arimea galdu badagizu, zeure buruari zoritxarra ekarri baino besterik ez dozu egin. Ene maiteorek, ori gogoratu ta ausnartu egizu...!». San Feliperen esana egin eban gazteak eta bere buruko eretxi ta biotzeko gurari ta asmu okerrak aldatu, aurreantzean zeruko bidetik zuzen ibili zan.

<sup>316</sup> Adikuntza: heldutasun.

Guk zer uste dogu? Batek esango dau: «Andi, ospatsu, agintari izan nai neuke». Besteak: «Aberats izan nai dot, aberatsak zernai dauke-ta». Irugarrenak: «Nik atseginak nai dodaz, orrein egarri naz-ta...». Eta gero? Gero... il, zu ta ni ta guztiok il. Eta geure arimea galdu badaigu, lurreko andikeri, ondasun eta atseginok zetako izango jakuz? Andi ta entzutetsu, aberats, jakitun, agintari izatea, gorputzeko osasuna bera be ez da osoro bearrezkoa; baina arimearen betiko osasuna bai, ori osoro bearrezkoa dogu.

## III

Gure arazorik andi ta nagusia be, auxe da, besteak onen ondoan umekeri ta uskeriak baino ez dira; andia benetan auxe da. Arazo au ondo erabili ta eginaz azkenbako onak lortu ta azkenbako txarrak urruntzen doguz; augaitik, arazo onen ondoan beste enparauak ume-jolasak baino be gitxiago dira.

1. Diruak batu, maila bat edo beste igon, omen eta entzutea lortu, andikeri ta atseginen batzuk eskuratu... Lurreko arazo andiak orreik dira, baina arimearen osasunaren ondoan uskeri ta ume-jolasak. Lurreko ondasun guztiak, zer dira? Erregerik jakitunenak esan eban: «*Vanitas vanitatum et omnia vanitas*. Uskerien uskeri ta besterik ez» (Eccli. 1. 2). Lurreko ondasunok guzurtiak dira ta iruzur egiten dauskue –dino S(an) Agustinek–. Jangoikoarentzat egina dan arimea Jangoikoa baino gitxiago danak lausotu daike, eroan eta narrastu<sup>317</sup> daike; baina ase ta bete, naikotu ezin daike-ta, ondasun guzurtiok iruzur egiten dausku. Errez galtzen dira, zerrenak<sup>318</sup> jaten ditu, lapurrak ostu daroez; gizonik aberatsenak be ilten danean, beragaz ezin eroan daikez. Daukaguzanean, ardura ta burtauste larregi; galtzen doguzanean, atsekabe ta min geiegi emoten dauskuez. «Gerizea lez igesi doaz –dino jakitunak–. *Transierunt omnia illa tanquam umbra*» (Sap. 5, 8). Zeruko ondasunak, ostera, ez dabe iruzurrik egiten, ez dabe esku artetik igesten, lapurrak ez dabez ostuten. Andi-andiak, mugabakoak diralako biotza osoro ase ta beteten dabe; betikoak diralako Jangoikoak beste iraungo dabe. Betikoa dan arimeak betiko ondasunak bear ditu, beste enparauak bere zorion-egarria ezin ase leikie-ta.

<sup>317</sup> *Narrastu*: arrastaka eroan.

<sup>318</sup> *Zerren*: sits.



2. Lurreko ondasun, izen on naiz bizia galtzea ezbear ta zoritxar anditzat daukagu; baina zoritxar ori betikoaren ondoan uskeri ta ume-jolasa baino besterik ez da. Munduko galtzairik<sup>319</sup> andiena baino Jangoikoa galtzea ta betiko galtzea, amai barik zoritxar andiagoa da. Bizitza onetako neke ta oinaze guztiak batera be inpernuoen ondoan, zer dira? Ezer be ez! Emengo nekeak geiago edo gitxiago irauten dabe, baina edozelan be, aldi gitxi barru amaitzen dira. Barrendiko<sup>320</sup> nekeak, ostera, amai ta azkenik ez dauke; ango sua inoz be ez da iraungi ta itzailiko, zorigaiztokoai uxika<sup>321</sup>, aginka egiten dauksen ar txarra egundo be ez da ilgo: bein galdu daben Jangoikoa inoz be ez dabe aurkitu ta ikusiko! Galtze negargarria, atsekabe izugarria, neke ta min amaigabea! Ortik igesteko aleginak dagizana, zentzundun gizona, orixe da; beste enparauok, zentzunbako tentel andi batzuk gara!

Inglaterrako errege zikin gaizto Enrike VIIIgarrenak Tomas Moro bere ordekoa bakaltseina<sup>322</sup> espetxean sartu eban. Zegaitik? Erregeak Eleizearen aurka emondako legeak ontzat artu nai ez ebazalako. «Agin-tzen dautsudana egizu –esan eutsan erregeak–, bestelan zeure ondasunak galdu ta kateetan egon bearko dozu.» Tomasek erantzun eban: «Guztiak galdu bediz, galdu bear badira; Jangoikoa galdu ezik, ez daust ardura espetxean sartu arren». Erregeak ezin eban zuritu ta eriotzara epaitu eban; baina eriotzea arrerazo baino len, Tomasen biotza irabazteko asmuz emazte ta umeak bialtzen dauksaz. Oneik negarrez agertzen jakoz; emazteak dinotso: «Guzaz erruki zaitez, ogi barik ez gaizuz itxi; zuk erregearen agindua egin ezik, gozez ilgo gara. Orren biotz-gogorra izango ete zaiakuz? Ea umetxuok, zuok be aitaren biotza negarrez bigundu egizue». Tomasek emazteari dinotso: «Esaidazu, Luisa, nik erregearen agindua egin arren, jateko ogia ta biziteko osasuna noz arte, zenbat urtez eukiko geunkez? Ogei, ogetamar urtez? Eta ori, zer da? Urte batzuk geiago bizitearren, neure arimea galdu daidan nai dozue. Orre-gaitik Jangoikoa iraindu, bere aiskidetasuna ta betiko zoriona galdu? Ez! Jangoikoa iraindu ta neure arimea galdu baino, beste enparau guztiok galdu obe dot; zuek be obe dozue». Eta arimea galdu baino eriotzea artu naiago izan eban. Guk be lagun txarren batek gaiztakerira eroan nai bagaitu, orixe erantzun bear dauksagu: «Jangoikoa galdu baino bizia galdu be naiago dot». Pekatu barik emon ezin eikeon gauza bat eskatu eutsan errege-ordezkariak Benedito XIgarrenak aita santuari ta onek esan

<sup>319</sup> *Galtzai*: galera.

<sup>320</sup> *Barrendi*: osin, leza; infernu.

<sup>321</sup> *Uxika*: aginka.

<sup>322</sup> *Bakaltsein*: ministro.

eutsan: «Zeure nagusiari esaiozu, arima bi baneukaz bearbada nai dauan ori egingo neukela; baina arima bat baino ez daukat eta au, aserre naiz aiskide, naitaez salbau bear dodala».

Jangoiko bat, sineste bat, arima bat, arazo bat: arimearen betiko osasuna egitea. Arazorik geureena, bearrena, andiena orixe da. Geurea dalako, bakotxak beretzat egin bear dogu; bearrena dalako, bere buruaren arerio ez danak egin barik ezin itxi daike; andiena dalako, beste enparauak onaxe zuzendu bear doguz. Geure zentzun eta almenak, biotz eta gurariak, asmu ta indar guztiak beragandu ta beretu bear leuskiguzan arazoa, arazorik geureena, bearrena, andi ta nagusiena, auxe da. Auspaztu gaizan, ba...

*Domine qui amas animas*, arimak maite dozuzan Jaun ona, gure gogo ta biotzak, gurari, asmu ta egite guztiak zeure legearen arauz zuzendu ta erabili egizuz; orretarako lagun zakiguz, zure laguntza orregaz gure arimen osasuna egin eta betiko zoriona lortu daikegun.

## 2.1. BETIKO EGIAK

### 2.1.3. *Pekatusa* (XIII)

# XIII

## PEKATUSA USKERITZAT EUKIKO DOGU?<sup>323</sup>

*«Peccatum vero, cum consummatum fuerit, generat mortem.»*

«Obenak egin ezkeru, eriotzea dakar.»

(Joan 1, 15)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Bizitza onetan zetarako gagozan atzo ikusi gendun. Geure Jangoikoa ezagutu, maitatu, goretsi, dautsagun zorra al bestean ordaindu, lurreko gure eginenik nagusiena ori da. Jaungoikoari zor dautsagun menpetasuna erakutsiaz, dagokion omen, aintza edo gloria emonaz geure betiko osasun eta zoriona lortu, gure azken eta elburua orixe da. Mundu onetan orretarako gagoz eta ez bestetako. Ori eragotzi, galerazo leikeguna zer ete da? Gauza bat bakarra: gaiztakeria, obena edo pekatua. Eta pekatua, zer da? «Jaungoikoaren legean eragotzia, galerazota dagoan zerbait norbere guraz esan, egin, gogoratu edo nai izatea, naiz aginduta dagoana ez egitea. Obena, pekatua orixe da.» Oben egiten dogunean Jaunaren legea austen dogu; au dala-ta pekatu egin ezkeru, Jaungoikoa aintzat artu ta goretsi bearrean, lotsea galtzen dautsagu, iraindu, gitxietsi edo gitxitan euki daroagu. Jaunaren legea zeruko bidea be bada; pekatu egin ezkeru, bide ori austen dogu, bide orretatik alendu egiten gara, ta barrero bide orretara biurtu ezik, geure zorionera ezin joan, ezin eldu geintekoz. Augaitik, pekatuak bizitza onetako geure zereginik nagusiena eta arimen betiko osasuna, biak batera eragotzi ta galerazoten dauskuz.

---

<sup>323</sup> [Oarra: Bigarren eguncan gabaz egindako itzaldia. Jose Antonio.]

## I

Ori egiten dauan oben edo pekatua, naitaez gaiztakeri andia da; baina arimako begietan lausoa daukagulako-edo, sarri askotan pekatu rik andi ta astunena be, gauza txiki, zirtzil eta ezereza begitanduten jaku. Beste gauza batzuetan lez onetan be, geure buruko eretxi okerrok, sinestearen argiz zuzendu bear doguz. Pekatua ta bere gaiztakeria guk baino obeto, amai barik obeto, askozaz obeto dazauz eta dakiz Jaungoikoak. Augaitik, onetzaz Jaungoikoak dinoskuna, orixe da egia; guri iruditzen jakuna, ostera, amesetan diarduanaren eretxi okerra.

Pekatu eginaz zeruak eta lurra darabiltzan legeren bat ausiko bagendu, eta izarrak zabuka, zorabioz nora doazan ez dakiela asiko balira, naiz lurrikarea etorrita lurra dardar, itxaso ta aizeak orroiak balebiltz, orduan pekatua erru ta uts anditzat, gaiztakeri baltz eta nabarmentzat eukiko geunke. Olakorik jazoten ez dalako pekatua uskeritzat daukagu, baina onetan oker gagoz. Ezpabe, esaidazue: Jaungoikoak zentzun eta adimen bako gauza orrei ipini dautsezan legeak, guri gizonoi, zentzun eta adimena, aukeramen edo libertadea daukaguzan gizonoi, ipini daukuzan baino andi, eder, bikain eta goragokoak ete dira?, lotsa ta itzal geiago zor ete jakez? Ez, batzuk eta besteak dira lege, batzuk eta besteak Jaungoiko berberak ipini ditu: batzuk, ez adimenik ez aukeramenik ez dauken gauzai; besteak, adimena daukan aske, jarein edo libre dan gizonari. Baina gizona, adimena ta aukeramena daukazalako aitaturiko beste gauza orreik baino geiago da-ta, Jangoikoak berari ipinitako legea be beste orreik baino ohea, garrantzi andiagokoa izan bear. Pekatu eginaz Jaungoikoak geuri, aske edo libre garean gizonoi, ipiniriko legea austen dogu; augaitik, pekatu egitea zeru-lurrak darabiltzan edozein lege ausi ta apurtzea baino askozaz be gaiztakeri andiagoa da. Eta oben eginaz ortzea, zerua ausi, apurtu ta jausten ez dalako, lurra ikaraz dardar asten ez dalako, pekatua uskeritzat, ezereztzat eukiko ete dogu? Ori zentzun eta buru gitxi eukitea izango litzake.

## II

Jangoikoak pekatuari dautsan gorrotoa argiro erakutsi dauku; gaiztakeri andi-andia ez balitz, orrenbesteko gorrotorik ez eutsan izango.

1. Lenengo pekatua aingeruak egin eben, guztien buru Luzifer zala. Aingeruak, euren izatez, gu baino askozaz geiago, askozaz ederragoak dira; aingerurik txikienak be gizon guztiak batera baino askoz geiago

daki, askoz geiago al dau. Luzbeli bere edertasunaz biotza arrotu jakon eta esan eban: «Jangoikoaren izarren gainean neure jarlekua ipiniko dot eta Goiko Jaunaren antzeko izango naz». Asmo gaizto onetan beste askok jarraitu eutsoen; guztiak arrokeriz pekatu egin eben. Ez ziran garbaitu, ez ziran damutu ta Jangoikoak aingeru errudunai ez eutsen parkatu; barrendiko katez lotuta barrendiko su luzera, betiko oinazeetara amildu ta jaurti ebazan. «*Angelis peccantibus non pepercit, sed rudentibus inferni detractos in tartarum tradidit cruciandos*» (II Petr. 2, 4). Nok egin eban ori? On eta errukior dan Jaungoikoak. Nogaz? Zeruko izarrak baino askoz ederrago ziran aingeruakaz. Zeruko izarrak andik kendu ta erastea baino, alako aingeru ederrak, zerutik eratsi ta barrendiko lezara amildu ta jaurtitea galtzai askoz andiagoa zan; ori guzti be, aingeru gaizto biurriak erruki barik galdu, betiko galdu ebazan Jaunak. Eta Jaungoikoak pekatuari gorrotorik ez dautsala uste izango ete dogu? Alako aingeru ederrak arrokerizko pekatu bakar batek deabru egin ebazan. Eta pekatua uskeria baino besterik ez dala esango ete dogu?

2. Bigarren pekatua gure lenengo gurasoak egin eben; oneik be, arrokeriz. Jaungoikoak izatez goitiko<sup>324</sup> eskar, emaitza eta doc askoz ornidu ta lurreko atsegintegian<sup>325</sup> ipini ebazan; guztiz zorionsu ziran. Atsegintegi aretako zugatzen<sup>326</sup> alort<sup>327</sup>, arnari edo frutuak jateko eskubidea emon eutsen, baina zugatz batenak galerazo. Deabruak, sugearen irudiz agertuta, esan eutsan emakume ari: «—Zugatz onen arnari edo ale-garauak jatea, zegaitik galerazo dautsue Jaungoikoak?» «—Ortik jan ezkeru, il egin-go gareala esan dausku.» «—Bai zera! Ez zarie ilgo, ez! Jan badagizue, ona ta txarra ezaguturik, jangoikotxu batzuk izango zarie. *Non moriemini, sed eritis sicut Dii, scientes bonum et malum*» (Gen. 3, 1).

Aerioaren esana sinestu eben; Jaungoikoaren agindua ausi. Eta Jaunak zer egin eban? Izatez goitiko doc ta eskar guztiak kendu, errugetasunczko<sup>328</sup> jantzi ederra erantzi, biluzik, narrugorrian itxi, arpegian lotsea, biotzean bildurra ebezala; gero iko-orritz jantzi, lurra gaiztetsi, madarikatu eta atsegintegitik kanpora negar-erri onetara, negarrezko erbeste onetara jaurti, aurrerantzean nekez eta lanez, izerdi ta lorrez biziteko.

Eta ikaragarriago dana, ez aek bakarrik, pekatu ori dala-ta aen ondorengo guztiok be neke ta lorrik asko darabilgu; bateko ezbeurrak, bes-

<sup>324</sup> *Izatez goitiko*: naturaz gaindiko.

<sup>325</sup> *Atsegintegi*: paradisu.

<sup>326</sup> [*Zugatz*: arbola.]

<sup>327</sup> *Alort*: frutu.

<sup>328</sup> *Errugetasun*: errubakotasun.

teko zoritxarrak, gaurko aleginak, biarko galtzaiak, bizitzea asko mingoiztuten<sup>329</sup> dauskue. Sarri gorputza ondoezaz makal eta geixo, gogoa atsekabez goibel, ilun, estu ta larri dogula, bizitza neketsua daroagu, eta bizitza neketsu onen ondoren, eriotzearen garratzasuna be irunsi bear. «Gizon baten erruz dino S(an) Paulo Apostoluak sartu zan pekatua mundura eta pekatuaren bidez eriotzea. *Per unum hominem peccatum in hunc mundum intravit et per peccatum mors.*» Pekatu ori dala-ta Jaungoikoak mundura bialdu dituan zigor, neke ta zoritxar guzti oneik ikusi ta gero, pekatua uskeria baino ez dala uste izan ete geinke? Gaiztakeri andia dala ta Jaungoikoak gorroto bizia, izugarria dautsala ukatu ete geinke?

3. Pekatuaren ondoren txarrak, bere kalteak ikusita gure lenengo gurasoak damutu ziran; bederatzireun urte baino geiagoz bizitza gogor eta neketsua egin eben. Baina pekatuaren orbana zearo garbitu ta bere kalteak kentzeko, aen neke ta lorrak, aen damu ta negarrak ez ziran nainko izan. Aita Jaungoikoak bere Semea lurrera bialdu ez baleu, Jesukisto gure Jauna gure Erosle, gure Salbatzaile ta Bitarteko egin ez balitz, zeruko atea gure gurasoentzat eta aen ondorengo guztioentzat betiko ertsita, itxita, zarratuta geldituko zan. Jesukistok idegi euskun; baina zenbat atsekabe, zenbat neke ez ebazan artu ta igaro, guri zorioneko ate ori idegiteko? Gure pekatu ta zorrak bere gainean artu ebazan Jaun ona, gurutze astuna bizkarrean ebala, joan zan Kalbarioko aldapan gora. Gurutzean untzez josita il zan; bere bizia emonaz, bere odola isuriaz erosi ginduzan. Pekatuaren orbana garbitu ta bere kalteak kentzeko Jangoikoaren eriotzea bear izan ziran! «*Sine sanguinis effusione non fit remissio.* Odol-isurte barik ez dago parkazinorik» (Hebr. 9, 22).

4. Gure pekatuen gaiztakeria ta Jangoikoak orrei dautsen iguin eta gorrotoa, Kalbarioko mendian beste inon baino obeto ikusi ta argiroago ezagutu geinkez. Jangoiko Gizona gurutzeko abean josita, zeru-lurren erdian eskegita dago. Gure gaiztakeriak gurutzera eroan dabe; gure erru ta pekatuak bere gain artu ditu, geure bitarteko egin jaku ta gurutzean besoak zabalik, garbai ta damuz, lotsa ta itzalez, Aita Goikoari guztioen izenean erruki ta parkazinoa eskatzen dautsoz. Gurutzean dagoan Jaun ori errugabea da; baina gure erruz, gure pekatuz jantzi da-ta Aitaren aserrea Semearen gainera etorri da. Semea, Seme ez balitzan, laga ta itxi dau, ta baretu ta baketu baino len, eriotzea eskatzen dautso. Gauza gogorragorik, zuzentasun zorrotzagorik ezin ikusi ledi! Gogoratu,

<sup>329</sup> *Mingoiztu*: mingostu, garratzu.

entz(ule) mait(eok), Aitaren aserreak zelan ipini eban bere Seme bakar laztan, errugabea; eta ori ikusi ta gero, gurutzeari begira, esan pekatua uskeria baino ez dala!

Gure erru ta obenez jantzi zalako ain gogor artu baeban Aitak bere Semea, ainbesteko aserrez, zuzentasun ain zorrotzez, ain erruki gitxigaz zigorkatu ta zeatu baeban bere Seme errugabea, gu pekatariok zelan artuko ete gaitu? Zer izango ete da guzaz, baldin geure gaiztekeriez damutu ta geure gogo-biotzak Jesukistoren odolez garbitu ez badaiguz? Egur bizian, frutu ederdun zugatzean olako zeatze ta triskantza gogorra egin bazan, egur igarrean, gaiztakeria baino besterik egin ez dogun gizon eskar gaiztoko oneitan, zer egingo ete dau? «Zelako aserrea agertu ta erakutsiko ete dau? *Quid in arido fiet?*» (Luc. 23, 31). Gure errukariak, Jaungoiko aserratuaren eskuetan jausi bagaitz! Errugabeak bagina, zetan bildur izan ez geunke; baina ez gara errugabe. Bearbada geure erru ta gaiztakerietzaz ez gara zintzoro damutu, geure erruen ordaina Jaunari emoteko neke gitxi, gitxiegi artu dogu. Au dala-ta zegaitik bildur izan baidaukagu.

Bildur-ikaraz, aurpegia lotsaz, biotza damuz doguzala esan bear dautsagu Jaunari: Jaun zuzena, epaikari zorrotza, eskar gaiztoko izan naiatzu; baina garbai naz, damu naz eta zure eguna, kontuak arteztu ta garbitzeko eguna etorri baino len, arren, parkatu egidazu. Madaleneari parkatu ta lapur onari entzun zeuntsan Jaunorrek, niri be uste ta itxaropena emon daustazuz. Errudun naizala ezaguturik, gurutzearen oinean antsiz<sup>330</sup> eta negarrez nago; damu ta lotsaz zeure aurrean auspaz, parkeske nagokizu. «Arren, Jaun ona, parkatu egidazu... *Supplicanti parce, Deus.*»

### III

1. Gure lenengo gurasoak oben egin eben ezkeru, beste pekatu asko ta asko be egin dira. Batzuk euren pekatuetzaz zintzoro damutu ziralakoko, orrean parkapena jadetsi ta betiko zoriona lortu dabe; beste batzuk, ostera, gaiztakeria egin eta bear zan lez damutu ez ziralakoko, betiko galdu dira, euren buruai betiko zoritxarra ekarri dautse. Galdu diran onein artean guk baino pekatu gitxiago egin ebezanak asko dira; luzaroan ondo ta zuzen bizi ta gero, pekatu astunean jausi, otoz otoan<sup>331</sup> eriotze-

<sup>330</sup> *Antsi*: zizpuru.

<sup>331</sup> *Otoz otoan*: behingoa, ezustean.

ak arrapau ta betiko galdu diranak be ez dira gitxi. Guztiok orain an, barrendiko su-lezan<sup>332</sup>, gaiztokian<sup>333</sup> erreta kiskaltzen dagoz. An zoritxar eta oinaze guztiak daukez, zorion eta atseginik bapez; neke ta lorrak, oinaze ta minak dira aen janari, atsekabe saminak aen edari, eta andik urteiteko itxaropenik ez dauke.

2. «*Vadam ad portas inferi*—dino Isaias igarleak—. Neure gogo ta iru-dimenaz infernuko, gaiztokiko ateetara jatsiko naz» (Isaias 38, 10), eta an nortzuk eta zegaitik dagozan, zelako neke-minak, daroezan ikusiko dot, ikuste osasungarri onek neure gaiztakerien garbai edo damua arrerazo dagidan eta gero suzko leza sakon aretara jausi ez naiten. Bizibide guztietarikoak dagoz an: gizon eta emakumeak, gazte ta zarrak, eleiz gizon eta osterantzekoak. Guztiak suzko itxasoan uger, igiri dabiltz; guztiak, minak erasota, alaruz, intziriz<sup>334</sup>, negarrez dagoz; guztiak, estu ta larri, deadarrez dinoc: «*(Ergo) erravimus a via veritatis*. Pekatu eginaz geure zorion-bidetik aldendu ginan», eta betiko galdu gara.

Nok amildu ta jaurti ditu barrendiko leza aretara? Jangoikoak, Jaungoiko onbera, amultsu ta errukiorrak. Zegaitik? Euren pekatuak diralata. Jaungoikoa berez onbera ta on utsa da, baina gure gaiztakeriak diralata, bere ontasun eta errukia erakutsi ondoren, bere zuzentasuna be erakutsi bearrean aurkitzen da eta berez nai ez eban inpernu, gaiztokia, gure oben, erru ta pekatuak eginazo dautse. «*Ex suo bonus, ex meo justus*. Berenez ona, neure gaiztakeriak diralata-zuzena.» Eta pekatua uskeritzat, gauza gitxitzat eukiko dogu?

Nortzuk dagoz an? Guk baino pekatu gitxiago egin dabezan asko; pekatu astun bat bakarragaitik, ez gitxi. Aek erretan dagoz, sutan dagoz; zorigaiztoko dira. Gu oraindik zorion-bidean gagoz, ta nai izan ezkerro, infernuari iges egin geinkeo. Zinez pekatu asko ta andiak egin doguz, guztiak zenbatu ezkerro, kontuan sartu ezkerro, buruko uleak baino be geiago dira; ori ta guzti be, oraindik barrendiko zoritxarrari iges egin geinkeo ta zeruko zoriona lortu geinke. Nori zor dautsagu ori? Jangoikoaren erruki bigun, ezti samurrari. «*Misericordiae Domini, quia non sumus consumpti*. Inpernuak beste asko lez irunsi ez bagaitu, ori Jau-naren errukiari zor dautsagu.»

An barrendiko lezan erreten dagozanen antzeko eta aetatik asko baino txarragoak, eskar gaiztokoagoak izan gara. Bein baino sarriago infer-

<sup>332</sup> *Su-leza*: infernu.

<sup>333</sup> *Gaiztoki*: infernu.

<sup>334</sup> *Intziri*: negar-zotin.



nura jausteko arriskuan egon gara, infernuko atetik ur ibili gara; egoera aretan eriotzeak artu bagenduz, Jaungoikoak bere eskua atzeratu ta bizia kendu baleusku, orain gaizto galduen lagun eta oneik baizen zoritxarreko izango ginake. Ori ta guzti be, oraindik zeruko zoriona irabazi geinke. Nori zor dauzsagu? Nori? Gure alde ta gure onerako gurutzean il zan Jaunari. Gurutzean untzez josita, besoak zabalik, parkeskatu eutsan Jesukistok Aita Jangoikoari: «*Pater, dimitte illis, non enim sciunt quid faciunt*» (Luc. 23, 34). Gurutzean il zan Jangoiko Semeak gelditu ta atzeratu dau gure gainera etorren Aitaren beso aserratua; Jesukistoren irabaziak dirala-ta jadetsi dogu bein baino sarriago geure pekatuen parkapena, Jesukistoren irabaziak dirala-ta itxaron geinke barriro be lortuko dogula. Zerura joateko daukagun itxaropena, gurutzean il zan Jaunari zor dauzsagu. Jaun on, maitakor, samur eta errukior au, nok ez dau maitatuko? Zeruko atearen giltza dogun gurutzea, nok ez dau laztanduko? Geure osasuna Jauna dogu; zeruko giltza gurutzea dogu.

Auspaztu gaizan here oinetan eta biotz-biotzez esan daiogun: Gizadia epaitzera zatozanean, arren Jauna, ez gagizuz gaiztetsi, ez gagizuz galdu. «*Noli me condemnare*» (Job 10, 2). Geu zerura eroatearren, gurutzean il zinan-ta, gaxxetik askatu, salbau, zeruratu gaizuz. «*Salvum me fac, Deus meus*» (Ps. 3, 7). Gure Jaungoiko on ta maitagarria zara-ta, zeure naia egin eta beteten irakatsi egiguzu; pekatua gorrotau, itxi ta zeuretzat bizi nai dogu-ta, arren Jauna, lagun zakiguz, geure asmu onetan sendatu gaizuz.

Il bedi pekatua! Bizi bedi Jesus! Orain, bere graziaren bidez, gure biotzen jabe izan bedi, gero geure zorion, betiko zorion izan dakigun.

## 2.1. BFTIKO EGIAK

### 2.1.4. *Damua* (XIV, XV, XVI)

## XIV

### DAMUA

*«Percutiebat pectus suum dicens: Deus, propitius esto mihi peccatori.»*  
«Bularra joten eban esanaz: Ene Jangoikoa, niri obendi oni erruki zakidaz.»  
(Luc. 18, 13)

N(eure) entz(u)le) mait(eok):

Geure Jangoikoagana berealaxe biurtu bear dogu. Ori Jaunak nai dau. Jaunak eskatzen dausku ta geuretzat osasungarri da. Geure oben eta gaiztakerien parkapena lortu ta jadesteko zer egin bear dogun, zein bide-ri jarraitu bear dautsagun Jaunak berak irakatsi dausku. Esanak baino eginak indar geiago dauke; Jaunaren laguntasunaz zer egin geinken, inoren esanak baino beste batzuk egin dabena, argiroago erakusten dausku; beste batzuk egin dabena begien aurrean ikusiaz, beste ainbeste egiteko gurari, asmu, kemen eta adore geiago artzen doguz. Au dala-ta, Jaunak sarri ipuin, irudi ta bardintasunen bidez irakasten eutsan erriari.

## I

1. Parixetar<sup>335</sup> eta zergariaren ipuina oso ezaguna da: zintzoro damutu ta Jangoikoagana biurtzeko zer egin bear dogun, irudi onen bidez irakasten dausku gure Salbatzaile onak. Parixetarrak egin ebana, oso kaltegarri da; zergari gaxoak egin ebana, ostera, guztiz osasungarri. Gizon bi oneik alkarren aurrez aur ipini ezkeru, Jaunagana joateko bidea zein

---

<sup>335</sup> *Parixetar*: fariseu.

dan argiro ikusten dogu. Parixeoak egin eban gauzarik ezertxu be ez dogu egin bear, Jaunagana joateko eragozpen, estorbu andia izango litzake-ta; gure eredu ta jarraibide zergaria dogu. Zergariak errietako zerga, sisa edo petxuak<sup>336</sup> eskatu ta batzen ibiltan ziran eta judatarrak pekatari andi ta agiritzat eukezan; parixetarrak, ostera, legean aginduta egozan azaleko gauza batzuk ardura andiz egin eta beteten ebezalako, on eta zuzenak zirala uste eben. Au zala-ta, arrotu egin zan parixetarra; pekatuen orde, berak ontzat eukazan egiteak autortu ebazan arrokeriz eta sartu zan baino txarrago urten zan eleizatik. Zergariak, ostera, bere burua eratsi, apaletsi eban, bere oben eta okerrak ezagutu ta garbai, damu andiz autortu ebazan, eta guztien parkapen osoa lortu ta jadetsi eban. Gure eredu ta jarraibide, auxe da: Jaunagana biurtzeko, onek egin ebana egin bear dogu.

2. «Gaiztakeri guztien asiera ta sustraia dino jakitunak antuste edo arrokeria da. *Initium omnis peccati est superbia*» (Eccli. 10, 15). Zuzentasun eta onoinen<sup>337</sup>, birtute, guztien erro ta sustraia, apaltasuna. Zergariak bere burua ezagutzen dau, gitxitan dauko, eratsi eta makurtzen dau; parixetarrak ez dazau bere burua, askotan dauko, goستن dau. Eleizara doa, baina legea, azaletik beintzat, bete dualakoan, arrokeriz zutunik dago, bere burua zuzentzat dauko; eta Jangoikoari parkeskatu bearrean, Jaunaren aserrea bere gainera ekarteko egoki diran gauzak esaten asten da. Zergaria be eleizara doa, baina bere burua ezagutzen dau; zerga ta petxuak batzen ibili danean, egindako bidegabe ta pekatuak ezagutzen ditu; ainbeste gaiztakeriz ikaratu ta damuturik, lurtean auspazu ta belaunikatzen da, ta Jaunaren aserrea baretu ta erria jades-teko, apal eta umil parkeskatzen dautso. Parixetarrak bere burua andietsi ta goratzen dau; eleizearen erdiraino doa, an be zutunik gelditzen da eta errukia eskatu bearrean, arrokeriz dino: «Jauna, eskarrak zuri, ni beste gizonak lez ez nazalako. *Deus, gratias ago tibi, quia non sum sicut caeteri hominum*». Zergaria, ostera, bere arpegia lotsaz gorriturik, an atzean, zokondo baten gelditzen da; auspaz, belauniko dago; aurrera joateko, Jaunaren aurrean agertzeko be adorerik ez dauko: «*Stans a longe*». Andik zokondotik urten eta bere burua erakusten lotsa da; pekatari andia dala badaki, lotsa gorrian, burua makur, bularra joten, parkeske dago.

<sup>336</sup> *Petxu*: zerga.

<sup>337</sup> *Onoinen*: bertute, dohain.

3. Bere burua ezereztzat, sastamarra<sup>338</sup> baino gitxiagotzat dauko, ezin geiagoan eratsi ta apalesten dau eta bere pekatuen zamapean makurturik, gora begiratzeko be adorerik ez dauko: «*Nolebat nec oculos ad coelum levare*». Jaunaren aserrea, baretu ta baketzeko bidea, orixe da: geure gaiztakeriak ezagutu, geure burua makurtu, apaletsi, gitxitan euki. «Jangoikoa gora dago –dino S(an) Agustinek–, baina burua eratsi ta apalesten dabenai errukiz begirutzen dautse; arrotzen diranak, ostera, bere goiko jarleku aretatik aserrez urrundu, jaurti ta zapaltzen ditu.» Zergaria urrun egoan, eleizako zokondo baten egoan; baina bere burua eratsiaz, Jaungoikoagana urreratzen zan; urrun egoan, baina apaletsi zalako, Jaunak bere belarriak adi eukazan eta urretik entzuten eutsan.

Guk lenen egin bear doguna be orixe da; geurez, egindako gaiztakeriak baino besterik ez daukagu; daukaguzan gauza on guztiak Jangoikoak emonak dira: geure oker, geure uts, geure oben eta gaiztakeriak, orreik bai, orreik geureak doguz eta zegaitik burua makurtu ta eratsi badaukagu. Zergariak lez gu be Jaunaren aurrean, begiak bera, burua makur, lotsaz beterik egon bear geunke.

## II

1. Zergariak bere pekatuak aoz eta biotzez, damuz eta naigabez autortzen ditu. Biotzeko atsekabe ta samintasunak zotin eragiten dautsoe; pekatuen gorrotoa ta Jaunagana biurtzeko gogo bizi ta asmu sendoa daukaz. Parixetarrak, ostera, ez damurik erakusten dau, ez Jangoikoari parkeskatzen dautso, ez onduko asmurik dauko. Bere utsegite ta pekatuak autortu bearrean, egindako gauza onak aitatzen ditu. «*Jejuno bis in sabbato dino decimas do omnium quae possideo*. Astean birritan barau egiten dot, daukadazan gauza guztien amarrenak emoten dodaz.» Ori ondo dago; baina bere biotza arrokeriz andituta eukan, Jaunaren legea gauza askotan ausi eban, eta ori ta guzti be bere gaiztakeririk ez eban autortu nai. Zergariak, ostera, bere burua garbitzen eta bere gaiztakeriak zuritzen ibili barik, egindako bidegabe, okerkeri, oben eta pekatu guztiak zintzoro autortu ebazan; bere zeregina arrisku andikoa zala, gaiztakeri asko egin ebazala baiekian; bere biotz eta barrena pekatuen loi ta orbanez ezainduta ikusten eban; ikuste orrek atsekabe saminez betetan eutsan here biotza, ta garbai ta damuz, zotin eta negarrez

<sup>338</sup> *Sastamar*: hondakin.

agertzen eban bere biotzeko atsekabe andia: «*Percutiebat pectus suum dicens: "Deus, propitius esto mihi peccatori"*». Bularra joten eban esanaz: «Jauna, erruki zaiten niaz, pekatari andionetzaz».

2. Parixetarrak ez eutsan Jangoikoari ezertxu be eskatu; ezeren preminarik ez eukala uste eban, eta parkatu bearrean, bere burua goratzen ekin eutsan. Zer lortu eban? Ezer be ez!, bere kaltean ez zan gauzarik, ezer be ez. Bere erruak ezagutu balitu, damutu balitz, Jaunari parkeskatu baleutso, Jangoikoaren errukia jadetsiko eban; baina arrokeri andiz, saria-edo izan ezik, beste ezer ez eban eskatu, ta Jaunak aserrea baino besterik ez eutsan erakutsi: «Aberats eta jori<sup>339</sup> zareala, eta ezeren preminarik ez daukazula dinozu, ta ez dakizu zirtzil eta errukarri, txiro, lander, itsu ta biloiz<sup>340</sup> zareanik» (Apoc. 3, 17). Zergariak, ostera, bearrian gorrian dagoala uste dau; auspaz eta makur, begiak lurrera eratsi eta eskuak gora jasota, Jaunari parkeskatzen dautso. Jangoikoaren zuzentasuna bigundu, bere aserrea urrundu ta errukia jadesteko, antsiz eta zotinez, otoitz eta negarrez dago, eta Jangoikoaren errai samurrak bigundu ta irabazteko, eginalak<sup>341</sup> egiten ditu. Eskar gaiztoko izan dala ezaguturik, damu ta lotsaz bere burua eratsi ta bularra joten dau esanaz: «Arren Jauna, erruki niaz, pekatari nazononetzaz». Pekatari dala autortzen dauanean, zintzoro damututa ez balego, ain apal eta umil ez litzake egongo, jotzen dauan lez ez leuke bere bularra joko, ainbeste alegin ez leuke egingo, alako eskari zintzo ta berorik ez leuskio Jaunari zuzenduko. Jangoikoaren aiskidetasuna nai dau; ori galerazoten daben pekatuak gorroto dautse; bere erruak damu biziz autortzen ditu, eta Jaunaren erruki andian bere uste ta itxaropen osoa ipini ditualako, apaltasunez burua eratsi ta bularra joaz, parkeskatzen dautso.

### III

1. Au dala-ta, zergari apalak bere oben, pekatu ta utsegite guztien parkapena lortzen dau ta Jangoikoaren aiskide egiten da. Ori Jesukisto gure Jaunak argiro dinosku: «*Descendit hic justificatus in domum suam*». Au osatuta, santu eginda Jangoikoaren aiskide itzuli zan bere etxera». Parixetarra, ostera, len baino txarrago. Eta onantxe: «Bere burua goretsi

<sup>339</sup> [Jori: ugari.]

<sup>340</sup> Biloiz: ezer bako, babesbako.

<sup>341</sup> Eginak: ahalegin.

dagian edonor eratsia izango da, ta bere burua eratsi ta apaletsi dagiana jaso ta goratua. *Omnis qui se exaltat, humiliabitur et qui se humiliat, exaltabitur*».

Irudi onek zer irakasten dausku? Iru gauza: arimearen osasuna egiteko, biotza pekatuen orbanetatik garbitu bear dogula; pekatuen orbanetatik garbitzeko, garbai edo damua, biotz barruko penitentzia bearbearra dala; zintzoro damutu nai badogu, geure buruak eratsi ta apaletsi bear doguzala. Geure asmu onetan sendoro egoten bagenki, ainbeste bidar damutu bearrik ez geunke izango; baina aldakorrak gara, geure asmu onak gorabera pekatu egiten dogu. Pekatuak gure arimea loitu ta orbandu daroa ta bere osasuna egiteko, orban orreik kendu ta garbitu bear; baina orbanak garbitzerik ez dago, benetan eta zintzoro, barrenez eta biotzez damutu ezik. Ori barik egin geinkezan beste gauza guztiak alper-alperrekoak dira. Esku ta arpegia ibaiko edo iturriko uraz garbitzen doguzan lez, biotza ta arimea garbai-uraz, damu-negarrak garbitzen dira. Gizon bi doaz eleizara Jaunari otoi edo eskariak egiteko asmuz: parixetarra ta zergaria. Lenengoak bere buruari zorionak emoten dautsaz, poztu egiten da; bigarrena lotsa gorrian dago, damu da, damuaren negarrak joakoz bere begietatik bera. Damutu dan au bere orbanetatik garbitu ta Jangoikoaren aiskide egiten da; bestea len baino txarrago gelditzen da. Berak dinoanez, astean birritan barau egiten dau, bere ogasun guztien amarrenak emoten ditu, jai-egunez ez dau lanik egiten..., beste gauza on batzuk be egiten ditu; baina bere utsegite, oben eta txar-to eginen damurik ez dauko: ez da damutu ta Jangoikoak be ez dautso parkatu. Damutu ezik ez da inoz parkatzen pekatuarik, ez andirik ez txikirik; baina bear dan lez damutu ta parkazinoa jadesteko, gizonak bere burua makurtu, eratsi ta apaletsi bear dau. Damutasunerako bidea, orixe da. Pekatu egiten dogunean, geure burua Jangoikoaren aurka jasosten dogu, zor dautsagun lotsa ta menpetasuna ukatzen dautsogu; augaitik, Jaunagana biurtzeko lenen geure burua makurtu, eratsi ta bere buztarripean ipini bear dozu. Ori barik, ez dago damurik; damu barik, ez dago parkatzerik. «Lurra ta autsa, usteltasun eta arrak baino besterik ez gara, eta zegaitik arrotzen gara? *Quid superbit terra et cinis?*» (Eccli. 10, 9). Parixetarra lez ez gaitzan arrotu, zertzaz arrotu ez daukagu-ta. Zergariari jarraitu daiogun; onek lez pekatari gareaa ezagutu, geure burua eratsi, geure gaiztakerietzaz damutu, geure erruak damu ta lotsaz autor-tu daiguzan... eta geure erruen parkapena lortuko dogu, ari lez guri be Jaunak parkatuko dausku.

Auspaztu gaizan bere aurrean eta zergariaren itzak geureturik, geure aotan arturik, bularra joaz esan daiogun: «*Deus, propitius esto mihi peccatori*. Ene Jangoikoa, erruki zakidaz». Pekatari andia naz, eskar gaiz-

toko izan naitzu; baina damutu naz. Arren Jauna, erruki zaitenitzaz pekatari andionetzaz. Nire pekatuak baino zure errukia andiago da-ta, zure besarte errukitsura nator. Artu nagizu; bakezko mosu ta laztana emoidazu.

## 2.1. BETIKO EGLAK

### 2.1.4. *Damua* (XIV, XV, XVI)

# XV

## DAMUTU EZIK, EZ DAGO PARKATZERIK

«*Si poenitentiam non egeritis, omnes similiter peribitis*<sup>342</sup>.»

«Damutu ez bazaitzeze, guztiok bardin galduko zarie.»

(Luc. 13, 3)

N(eure) entz(u)le) mait(eok):

Arimearen betiko osasuna geure oben edo pekatuak galerazoten dauskue; zeruko atea geure gaiztakeriak itxi ta zarratzen dabe. Gure areriorik andiena, kalterik geien egiten dauskuenak geure oben, pekatu ta gaiztakeriak dira: betiko zoritxarrera garoezan arerioak, orreixek dira. Orraitik be, zintzoro garbaitu, damutu ezkeru, pekatuen kalte andi orreik geugandik kendu ta urrundu daikeguz; damutu ezik, ezetan be ez; damutu ezik, geure betiko galdumendira garoez. Edo garbaitu ta damutu edo erre ta kiskaldu: pekatu andi edo astunik egin dogunentzat beste bide ta urteierarik ez dago; edo orain zintzoro, bear dan lez damutu eta damutasun negarren uraz geure biotzak orbanetatik garbitu, edo ezpabe gero barrendiko sutan erre ta kiskaldu. «*Aut poenitere aut ardere*». Penitentzia zer da? Lenen eta aurrengo biotz barruko damua: txar-to egin dogulako biotzeko atsekabe ta samintasuna; gero ta urrengo, pekatuen zorra ordaintzeko geure buruai arrezazoten dautsegun edozein neke. Oneri be penitentzia deritxogu, baina penitentiaren erro ta bizia biotz barreneko damu, garbai zintzoa da.

Damua, penitentzia, pekatu astunik egin dogun guztiok bear-bearrekoa dogu; eta pekatu astunik bein be egin ez dauan ori, nor da? Orbanbako

<sup>342</sup> [*Nisi poenitentiam habueritis, omnes similiter peribitis.*]



bizitzarik ez dago; parkatu ezin leiken pekatuak be ez, baina damutu barik parkazinarik be ez. Pekatu guztiok egin dogu. Egindako guzti-guztien parkapena lortu geinke; baina damutu ezik, ezelan be ez; damutu ta zintzoro damutu barik ez da parkatzen pekatuak, ez andirik ez txikiarik, ez astunik ez arinik.

## I

Pekatu guztiok egin dogu; batzuk geiago besteak baino, baina guztiok gara errudun. «Pekatuak ez daukat, nire biotza garbi dago» (Prov. 20, 9); ori nok esan daike? Fariseo arroaz geure burua zuritu ta garbitu baino, zergari apalaz geure oben edo pekatuak autortu obe dogu. Jangoikoak ondo dakiz; geuk geronek be badakiguz; sarri askotan gure lagun eta auzoak be gure pekatuak badakiez. «Pekatuak ez daukagula badinogu, geure buruai iruzur egiten dautsegu –dino S(an) Joan Apost(oluak)– eta gudan egirik ez dago» (I Joan 1, 8). Pekatuak ez dogula egin esan badaigu, Jangoikoa guzurti egiten dogu eta bere itza, bere esana ez dago gugaz. «Guztiok gauza askotan uts egin dogu –dino Santiago Apost(oluak)–. *In multis offendimus omnes*» (Jac. 3, 2).

Geure pekatuak geuk dakiguz: geure barrenak, geure biotzak salatzzen gaitu ta naita be ezin ukatu. Gauza txar asko eta onak be sarri txar to egin doguzala gomutan daukagu. Biotzeko kezkarik ez daukana, nor da? Geure gaiztakeriak autortu genduzala-ta, parkatu jakuzalakoan gagoz; baina orrelan ete da? Autortu genduzan, baina nok daki? Geure barrena, bear dan bestean, aztertu eta arakatu ete gendun, damutu ete ginan, erabagirik ete geunkan? Ondo ete ginan, ala onduteko aleginik egin barik lengo bide txarretara itzuli? Barrena aztertu barik, naiz damu barik naiz onduteko asmu barik egiten dan autorkuntza, txarra da, kaltegarri da. Kezkarik ez ete daukagu? Bearbada geure barrenak geure autorkuntzak barriztau egin bear geunkazala dinosku.

Gure pekatu agiriak geure lagun eta auzoak be badakiez; ixilekoak ez. Baina oneik Jangoikoak dakiz, geuk be badakiguz eta ori, deabruak ez balekiz be, naiko ta lar da.

## II

Parkatu ezin daiteken pekatuak ez dago. «Biurtu zaitezte –dinosku Jangoikoak–, damutu zaitezte ta zeuen gaiztakeriak ez zaitue galduko» (Ezeq. 18, 30). Bizi dan arte bere pekatuen parkapena lortu, jadetsi ezin

daiken pekatariarik ez dago. Gure pekatuak, andienak balira be, Jaungoikoaren errukia andiago da; gure pekatuak asko baino geiago balira be, Jesukistoren ordaintze ta irabaziak geiago dira. Pekatuak ugariak izan arren, Jangoikoaren eskintzak eta Eleizeari emon dautsazan eskubideak ugariago dira.

1. Jangoikoaren errukia amaigabea da ta bere pekatuakaz agortu dauala dinoanak Jangoikoari irain andia egiten dautso. «Pekatiariaren eriotzarik, galtzerik ez dot nai» (Ezeq. 18, 23), dino Jangoikoak. «Biurtu zaiteze Nigana ta Ni zuekana biurtuko naz.» Kainek esan eutsan Jaunari: «Nire gaiztakeria andiegia da bere parkazinoa lortu al izateko. Bidean aurkitu nagian edonok erailgo nau». Eta Jaunak erantzun eutsan: «Olakorik ez da jazoko: Kain il dagianak zazpi bidar zigor, kastigu andiagooa izango dau» (Gen. 4, 13-15).

2. Jesukistoren irabaziak amairik ez dauke: bere odol guztia isuri eban eta mundu guztia garbitzeko odol-tantatxu bat naiko zala S(an)to Tomasek dinosku. Judasen doilarkeria baino andiagorik, nok egin daike? Ba, Jaunak mosu emonaz damura dei egin eutsan eta, damutu balitz, parkatzeko gertu ta prest egoan.

3. Jaungoikoaren eskintzariak<sup>343</sup> azkenik ez dauke, Eleizeari emon dautsazan eskubideak be ez. «*Quaecumque solveritis super terram* –esan eutsan Jaunak bere ikaslai–; *erunt soluta et in coelo*» (Math. 18, 18). *Quaecumque*, edozer, edozein pekatu, dana dalakoa, ta diranak dirala, gitxi nai asko, zuek lurrean askatu dagizuezan pekatuak zeruan be askatuak izango dira. Geure gaiztakeriakaz zeruko atea itxi, zarratu geinke; baina Jaunak emon dautsazan giltzen bidez, Eleizeak edozein pekatariari, danik andiena izan arren be, zeruko ateak idegi legioz.

### III

Parkatu ezin leiken pekatariarik ez dago; baina zintzoro garbaitu, damutu ezik, penitentzia barik, garautxu bat be ez da parkatzen. Jangoikoak gizonai auxe jakinazoten dautse: guztiak edonon damutu daitezazala, penitentzia egin dagiela. «*Annuntiat Deus hominibus, ut omnes ubique poenitentiam agant*» (Act. Apost. 17, 30). Jangoikoak guztioi penitentziara dei egiten dausku, geure gaiztakerien parkapena eskintzen

<sup>343</sup> *Eskintzari*: eskaintza.

dausku; baina damutu ezik, ez dago parkatzerik. Jangoikoak ori argiro dinosku ta geure adinak, geure buruko argiak be olantxe dala, olantxe izan bear dauala adierazoten dausku.

1. «Biotzez garbaitu, damutu ez bagaitz –dino jakitunak–, Jangoikoaren eskuetan jausiko gara» (Eccli. 22, 2); baina, «Jaungoiko biziaren eskuetan jaustea –dino S(an) Paulo Apost(oluak)– gauza ikaragarria da» (Hebr. 10, 31). S(an) Juan Bateatzaileak entzun nai eutsen guztiai esaten eutsen: «Damutu zaitez, penitentzia egizue, zeruko erreinua ur dago-ta». Eta Jaunak bere ikaslai: «*Nisi poenitentiam habueritis, omnes similiter peribitis*. Damutu ez bazaitez, guztiok alaber, bardin galduko zarie». Eta gauzea argiroago adierazoteko irudiki edo bardintasun bat ipini eutsen: «Gizon batek ikotze edo ikondo bat landatu eban bere mastian eta arnari edo iko bila etorri zan ara eta ez eban aurkitu. Orduan mastizainari esan eutsan: «Arnari, frutu bila ikotze onetara notorrela iru urte dozak eta ez joat aurkitu. Ebagi egik; zetarako jagok lurrean alperrik?». Mastizainak erantzun eutsan: «Jauna, urte onetakoagaitik itxi egiozu, bere inguruan atxurtu ta ongarria bota dagiodan arte. Eta baldin fruturik emongo baleu, ondo; bestelan, gero ebagiko dozu» (Luc. 13, 6). Jauna egite onen bila etorri da gugana ta egite onik ez dau aurkitu. Gure Aingeru Jagoleari esan dautso: «Orren bizia ebagi egizu. Zetarako dago ori lurraren gainean? Aingeru Jagoleak eskatu dautsalako epe pizka bat geiago emon dausku Jaunak. Baina ondo ta laster damutu ez bagaitz, arnari, frutu onik emon ez badaigu, gure bizitzako aria ebagiko dau eta galduko gara. «Aizkorea –dino Jaunak– zugatzaren erroetan ipinita dago; damu ta penitentziazko frutu onik emon ez dagian zugatza, ebagi ta sutara jaurtiko dabe» (Math. 3, 10). «*Aut poenitere aut ardere*. Edo zintzoro damutu edo erre ta kiskaldu.» Damu utsala<sup>344</sup>, azaleko damua ez da naiko; barrukoa, biotzekoa, egiazko damua bear dau. Baina egiazko damuak egindako okerrak zuzendu ta oker barririk ez egiteko, neurri ta bideak artzen ditu; arimako orbanak garbitu ta barriro orbandu, loitu ez dadin, ardurea artu; egindako gaiztakerietzaz benetan negar egin eta negargarri edo negarkizun izango dan gauzarik barriro ez egin. Egiazko damuak ori beragaz daroa; olakorik ezer ez dagian damua azaleko ta guzur antzekoa da. Gure damua, olakoa izan ete da? Ala negar-zotintxu bat eginaz beste barik geure geixoak osatu, pekatuaren kalteak eta Jaungoikoari dautsaguzan zorrak ordaindu doguzala uste izan ete dogu? Kalteak kendu ta zorrak ordaintzeko ezetariko nekerik artu nai ez dauan damua, damu geixo, makal eta ustela da: azalekoa, ez zindo ta zintzoa.

<sup>344</sup> *Utsal*: galkor, iragankor.

Baina damu zindo ta zintzoro barik ez dago parkatzerik. Ori geure buruko argiak be argiro adierazoten dausku. Pekatu eginaz Jangoikoari lotsea galtzen dautsagu, geure Jauna iraindu egiten dogu. Baina Jangoikoak berari egindako irain eta lotsagabekeria, damutu ezik eta zelako-alako ordaina emon ezik ez dau parkatzen. Jangoikoa geure Aita dala? Bai, Aita da; baina, nongo aitak parkatzen dautso semeari bere gaiztakeria damutu nai ez dauala? «—Ene seme, zer egin dozu?», dinotso aitak. Eta semeak, kezka barik, erantzuten dautso: «—Egin dot eta ez naz damu; barriro egiteko be ereari begira nago». Ori dinoan semeari, orrelako biotz gaiztoa darakusan semeari parkatuko dautsan aitarik ez dago. Pekatu eginaz Jangoikoaren legea austen dogu. Jaunak bere lege ori, austeko ala betetako ipini ete dausku? Bete daigun eta ez ausi daigun! Bete daigun ipini badausku, ausi dagianari zigorra, kastigua ezarri bear dautso, bestela jolasean, olgetan ibiltea izango litzake-ta. Au onelan izanik, bere errua ezagutu, gaiztakeriaz damutu ta parkeskatu nai ez dautsanari, barriro be austeko asmua daukan zitalari, zelan parkatu legio? Jangoikoa errukiorra da; baina deun, santu ta zuzena be bada: deuna, santua dalako dirauan, irauten dauan pekatuari gorroto dautso; zuzena dalako bear bestean zigorkatu bear dau. Baina damutzen ez garean arte, pekatuak eta bere orbanak gure biotzetan irauten dabe; pekatua, geure guraz damutu arte, antxe geure biotzean dago. Ez dogu kendu nai? Jangoikoak be ezin parkatu lei. Negar eta damu barik ez da kentzen pekatuturik. «Ez egizu uste izan —dino S(an) Agustinek— pekatua andia nai txikia dala, pekatutik zuzentasunera damu barik inor aldatu daitekenik.» «Zuzena, santua izateko —dino S(an) Anbrosiok— gauza bi oneitatik bat edo bestea egin bear da: edo pekatu egiten ez ikasi, edo pekatu egiteari itxi.» Baina damutu nai ez dauanak, pekatu egiteari ez dautso itxi nai eta bere gaiztakerien parkapenik ezin jadetsi daike.

Damu ta garbaia biotzeko atsekabe ta samintasuna da, eta baldin zintzoa bada, egindako obenen, pekatuen gorrotoa ta geiago ez egiteko asmoa beragaz daroaz. Egindako pekatuari gorrotorik ez dautsanak, barriro ez egiteko asmu sendorik ez daukanak, damurik ez dauko; berak baietz uste izan daike, baina orretan guztiz oker dago. Damu barik ez dago parkazinorik; bere utsegite, erru ta pekatuak autortu nai ez dituanak be ez dauko bear dan besteko damurik. Egiz eta benetan damu dana, Jangoikoak eskatzen dautsana egiteko gertu ta prest dago; orretarako gertu ta prest ez badago, damuaren zomorro edo karatulea baino besterik ez dauko. Jaunak geure obenak parkatzeko, auxe eskatzen dausku: geure erruak ezagutu, euretaz damutu, geure burua apaletsi, makurtu, entzulearen oinetan auspaztu ta geure gaiztakeriak, diranak dirala, garbai ta lotsaz agertu, esan edo autortu daioguzala. Baina bere

burua makurtu ta bere obenak dakizan lez, biotzean daukazan lez, guzur eta naste barik autortu nai ez dituanak, Jaunaren agindua, Jaunak eskatzen dauksana ez dau egin nai ta bear dan damurik ez dauko. Norbere utsegiteak autortzea lotsea da, nekea da; baina deabruak begitandu eragiten dauksun baizen andia, ez, urrik emon be ez. Lotsa ta nekea baino, gero ariman gelditzen diran bake ta poza askozaz be andiagoak dira. Eta zer? Pekatu eginaz Jangoikoari lotsea galdu ta irain andia egiten dautsogu, ta bape lotsa barik, bape neke barik parkazinoa lortu nai dogu? Ori larregi izango litzateke!

Parkatu ezin daiteken pekaturik ez dago; Jangoikoa geure gaiztakeri guztiak parkatzeko gertu ta prest dago. Damutu gaizan, buruak makurtu eta daukaguzan guztiak autortu daiguzan! Eta Jaunak guztiak eta betiko parkatuko dauksuz.

Auspaztu gaizan...: Neure bizitzan pekatu larregi egin dodaz; arren, Jauna, erruki zakidaz, nire biotza samurtu ta nire begiak negar-iturri eginuz. Bizi naizeino damu ta garbai izango naz ta Zuk neure Aita errukior zareanorrek parkatuko daustazuz.

2.1. BETIKO EGIAK

2.1.4. *Damua* (XIV, XV, XVI)

XVI

**BEREALAXE DAMUTU ZAITEZ**<sup>345</sup>

*«Ne tardes converti ad Dominum et ne differas de die in diem.»*

«Jaunagana biurtzea ez bekizu belutu eta egun batetik besterako ez egizu itxi.»

(Eccli. 5, 8)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Munduan arazo ta zeregin asko darabilguz; baina guztien artean geureena, bearrena, andi ta nagusiena, geure arimen betiko osasuna, betiko zoriona dogu. Zoriontsu izan nai ez leukenik ez dago; baina orretarako egin bear dan lanak, askori atzera eragiten dautse; zeruan guztiok sartu nai geunke; baina bideko nekeak ikaratzen gaitu. Jesukistogaz garaitzaile izatea, ara gauza ederra!; baina Jaunari jarraitzeko, asko muker, alper eta nagi gagoz. Jaunari jarraitu ezik, garaitzarik ezin irabazi geinke; zeruko bidean gure aurretik doan Jaunari jarraitu ezik, ara ezin eldu geintekoz eta bide erdian gelditu ezkeru, ango zorionik esku-ratzerik ez dago.

Jangoikoak betiko zorionerako egin gaitu; baina geure grina donge, gaiztakeri ta pekatuak betiko zoritxarrera garoez. Gure areriorik andienak orrexek dira; geure oben edo pekatuak dira-ta, gorroto bizia izan bear geunskioe. Damuaren indarrez pekatuaren lokarriak urratu ta biotzetik lenbailen kendu ta jaurti bear geunkez; pekatuak biotzetik jaurti ta gaiztakerira garoezan bideak be lenbailen itxi. Geure betiko zoriona irabazteko, ori gauzarik bearrenetarikoa dogu.

Neure itzaldi onetan, orixe adierazo nai neuskizue.

<sup>345</sup> [Oarra: Bilbon meza bi artean egina, goizean, 1929. J. Antonio.]

## I

Noz edo bein damutu ta Jaunari parkeskatzeko asmua badaukagu; baina orain baino gero asti geiago ta era ohea izango doguzalakoan, bearbada, eginen ori gerorako isten dogu, eta guk ori egin ezkeru, gure arerioa pozik dago. Arerio zitalak, noz edo bein damutu ta onduteko asmua kendu ezin dautsen kistinauai, buruan orixe sartzen dautse: «Bai esaten dautse, damutuko zara, Jaunagana biurtuko zara; zegaitik ez? Baina orain beste zeregin asko daukazuz, ez dozu orretarako aldi egokia. Gero..., zeure zereginok pizka bat biribildu daizuzanean, orduan bai astiz egongo zara-ta, ondo baino obeto egin al izango dozu. Badakizu, ori astiz, ondo ta arduraz egiteko lana da-ta, orain arineketan ibili baino gerorako itxi obe dozu».

Ori, arerioak; baina Jangoikoak besterik dinosku: «*Ne tardes converti ad Dominum et ne differas de die in diem*. Zeure Jaunagana biurtzea ez bekizu belutu eta egun batetik besterako ez egizu itxi, ez egizu luzatu». Pekaturik egin ezkeru, berealaxe garbaitu, damutu bear geunke, pekatuaren lotzaikiak urratu, ta geure betiko zoriona galerazoten daukun arerio ori biotzetik kendu ta jaurtiteko. Luzapenetan ibiltea arrisku andiko jokoa da; arrisku ori begien aurrean dago ta ziurra baizen andia da.

Begira zegaitik: «Jangoikoak dei egin dautsu –dino Dabit igarleak–; biurtu ez bazaitez, bere ezpateak zirt-zart egingo dau, bere arranbela<sup>346</sup> estutu ta gertuko dau, ta eriotzea bialduko dautsu» (Ps. 7, 13). «Jaunaren eskuetatik iges, nok egin daike?»

«Oraindik gaztea naz, sendo nago, osasun ona daukat», esango dozu; baina zenbat gazte, zenbat sendo ta osasun oneko ez dira galdu? Zenbat ez dira barrendiko su-lezara jausi? Gaztea zan Ebanjelioko aberatsa; bere buruari esaten eutsan: «Ondasunik asko daukak, urte askotarako bear dan beste; atsedean adi, jan eta edan egik, jai ta jolas ibili adi, atseginetan egik igiri...». Aberats au gaztea zan; baina gau aretantxe esan eutsan Jangoikoak: «Buruñako tenteltzarra, eure bizia gaur gabeen galduko dok eta batu ta bildu doazan ondasunok, norenak izango dozak? Ire amesok zetan geldituko dozak? Eure bizitzearen kontua berealaxe emon egidak. *Redde rationem villicationis tuae*» (Luc. 16, 2).

«Ori orrelan da esango dozu; baina Jangoikoa biozbera ta errukiorra da-ta, damutu ta onduteko, penitentzia egiteko astia emoten daki.» Damutzeko, penitentzia egiteko bai; baina pekatu egiteko, ez: «*Nemini*

<sup>346</sup> *Arranbela*: arku.

*dedit spatiura peceandi*. Pekatu egiteko astirik inor be ez dautso emon» (Eccli. 15, 21). Emoten dauskun astia ez da orretarako, damutu ta ondu-teko baino. Penitentzia egiteko bai, astia emoten dausku; baina gerora begira egon barik, astia emoten dauskun bitartean, bizkor eta zoli ibili bear dogu.

Gero astirik izango dogun ala ez, ori ez dakigu. «Damutzen diranai parkazinoa eskini dautsen Jaunak –dino Tertuliano Eleizako irakasleak–, pekatariak biarko egunik ez dautse agindu.» Ez ori bakarrik; orrezaz gainera zemai gogorak be egin dautsez: «Gizonak bere azkenaren barri ez daki –dino Jaunak–. Ez dakizuen orduan, gitxien uste dozuenean etorriko naz; gabeko lapurra lez, ezorduan, gitxien uste dozuenean or naz, kontuak eskatzera etorriko naz». Au dala-ta, Jaunagana biurtzea ez beki-zu, ba, belutu eta egun batetik besterako ez egizu itxi; bestelan bere aserrea otoz otoan, bapatean etorriko da eta aserrealdian galdu, suntsitu ta birrinduko zaitu: *«Subito veniet ira illius et in tempore vindictae disperdet te»*.

Galtzeko arriskua ziorra da; ziorra baizen andia be bai. Geure alde txakur-amesak<sup>347</sup> polito egiten doguz: «Bearbada, oraindik ez da etorriko» esaten dogu. Eta baldin bertatixe baletor, berealaxe etorriko balitz, orduan zer? Gure azken ordua orren laster etorriko danik ez dogu uste; baina Jaunak geuk gitxien uste dogunean etorriko dala esan dausku: *«Qua hora non putatis, Filius hominis veniet»* (Luc. 12, 40). Gure azken ordu ori noz izango dan, nok ete daki obeto? Jangoikoak ala guk? Guk ez dakigu, Jangoikoak bai; baina jakin ez arren, ain laster etorriko danik ez dogu uste. Gure okerra ortxe dago. Ain zuzen be, geuk gitxien uste dogunean etorriko dala esan dausku Jaunak, eta augaitik, gitxien uste dogun une orretan, beste inoz baino arrisku andiagoan gagoz, Jaunak orduantxe etorriko dala esan dausku-ta. Eta gure arimearen betiko osasuna, bape kezka barik olako arrisku andian ipiniko ete dogu? Zorakeri andia litzake ori! Santo Tomas jakitunak dino: «Pekatu astunean lo datzanak arrituta nauko; nasai-lo zelan egin daiken ez dakit. Edo guztiz azartua edo burubako tenteltzarra dirudit». Eta egiz, sarri askotan Jonasek baino be zentzun gitxiago daukagu. Ekaitzak itxasuntzia gora ta bera, ara ta ona, galdu-gordean erabilan eta Jonas lo zetzan, nasai lo egoan... Untziko bere lagunak esan eutsen: «Nor aiz i, kemenbako gizonori? Galdu-gordean, ondatzeko arriskuan gaiabiltzak eta lo ago, lo?». Pekatariok be damutu ezik, geure gaiztakeriak itxi ezik, betiko galtzeko

<sup>347</sup> Txakur-ames: kimera.



arriskuan gagoz, egunero galdu ta ondatzeko arriskuan gabiltz; eta ori ta guzti be, asko pekatuko lozorroan gagoz, alper eta nagi gagoz eta arriskutik urteitea gerorako, urrengorako isten dogu... Bien bitartean il eta galdu bagaitez, gureak egin dau!, betiko galduak gara!; gero ez dago errukirik, ez itxaropenik, ez oker ori zuzentzeko astirik. Egun ziur bat be ez daukagu ta luzaro biziko gareala uste dogu. Beste orrenbeste uste eben zenbat eta zenbat ez dira galdu? Onelan ba gerorako luzapenetan dabilenaren galtzeko arriskua ziurra da, ta ziurra baizen andia be bai.

## II

Baina onezaz gainera, Jaunagana biurtzea luzatuaz, zerurako egin bear geunkezan irabaziak be galdu egiten doguz. «Zugatz txarrak arnari, ale edo frutu onik ezin emon daike –dino Jaunak–. *Non potest arbor mala bonos fructus gacere*» (Math. 7, 18.). Zugatz txar ori pekataria da ta onek pekatuan dagoan bitartean zerua irabazteko gai dan gauzarik ezertxu be ezin egin daike. Jaunak zeruko zorionik ez dautse zor agindu dautsenai baino; bere aiskideai, graziaren bidez bere seme egin diranai agindu dautse-ta, oneik bai, orretarako eskatzen dautsena egin ezkerro, zorion orren eskubidea dauke. Baina pekatariai zigorra baino besterik ez dautse agindu-ta, oneik damutu ta pekatutik urten arte, gauza onak egin arren be, zerurako irabazirik ez andirik, ez txikirik ezin egin daikie.

«Neure ondasun guztiak –dino S(an) Paulok– txiroen artean bananduko banitu ta neure gorputza erreteko emongo baneu be, Jaungoiko-maitasunik ez baneuko, bere aiskidetasunean ez banengo, ori guztiori ezetarako be ez litzaket izango.» Eta Jaunak bere ikaslai esan eutsen: «Matsondoan ez dagoan aienak, mats-adarrak, morderik ezin ekarri dai-ken lez, zuek be nigan ez bazagoze, frutu onik ezin emon zeinkie» (Joan 15, 4). «Egun aretan –dino Jaunak– askok esango dauste: “Jauna, Jauna, zure izenean alatz edo mirari asko ez genduzan egin, ba?” Eta nik erantzungo dautset: “Ez zaituet ezagutzen, zoaze nigandik urrun gaiztakeria egin zenduenok”» (Math. 7. 22).

Pekatuan jaustetik pekatuan irautera alde andia dago. Begira, Jangoi-koaren aiskidetasunean dagoala, gauza onak, zerurako irabaziak egin dituanak be pekatu astunean jausi ezkerro, irabazi orreik galtzen ditu; baina damutu ta autortu ezkerro, ori eginaz beste barik, barrero eskuratu leikez. Aurrerago egindako irabazi aek pekatuak ez ditu aldatzen, ez ditu galtzen, ez ditu usteltzen; gizona bera bai, au aldatzen dau, zerurako gai zana, gai ez dala ipinten dau. Baina damutu ta penitentzia egi-

naz, gizona barriro zerurako gai egiten danean, bere lengo eskubideak barriro emoten jakoz; aurreragoko irabaziak berbiztu egiten dira ta barriro eskuratzen doguz. Pekatu astunean gagozala egiten doguzan gauza onak, ostera, eurenez ilak dira, ilda jaio dira ta ezelan be ezin biztu geinkez; zerurako irabazte bakoak ziran-ta, gero damutu arren, egin ziranean ez euken baliorik, ezin emon geinkeoe. Jangoikoaren errukia, pekatutik urteiteko bear dogun erruki ta laguntza jadesteko bai onak dira, baina bestetako, ez: zeruko zorionik ez jake zor eta ori irabazteko ez dira gai. Au onelan izanik, luzapenetan dabilenak, Jaungoikoagana biurtzea gerorako itxi dagian pekatariak, zenbat irabazi eder ez ditu galtzen? Eta errez irabazi geinkena nagikeri utsez galtzea, ez al da zorakeri andia?

Orrezaz gainera, *nagikeri onek*, geure gauzak gerorako iste onek, kalte andiak be ekarri leikeguz. Geure lengo pekatuak beste barri batzuk erantsi ta gaineratuaz, Jangoikoaren aserrea irazegi<sup>348</sup>, biztu ta geure gainera ekarri geinke. Jaunaren aserrea ibitu<sup>349</sup>, baretu ta baketzeko alper eta nagie egotea, Jangoikoagaz bakeak egiteko, atxaki ta luzapen bila ibiltea, ori Jangoikoa aintzat ez artzea, gitxitan eukitea da; irain barria, gaiztakeri berezia, jasan ezindako biurrikeria da. Ondo baino obeto dino S(an) Joan Krisostomok: «Pekatu egin eta damutu ez, ez nai damutu, ori baino Jaunari geiago aserratu eragiten dautsan gauzarik ez dago. Pekatu egitea gizonaren argaltasuna da; damutu barik pekatuan irautea, ori deabruaren gaiztakeria. *Peccare humanum est, in peccato perseverare diabolicum*».

Pekatu eginago ta txarrago; Jaunagana biurtzea gero baino gero gaxago. Pekatu egin eta damutu nai ez dauana edo damutzea gerorako luzatu dagiana, pekatu barri barik luzaro ezin bizi daiteke; baina pekatu eginago ta grina dongea biziago, ekandu txarra indartsuago, gogoia makalago, Jaunaren laguntasuna urriago... Pekatu eginaz, gogoia ilundu ta biotza be gogortu egiten da; autortzea neketsuago da, Jaunagana biurtzea gaxago, ta azkeneraino txarrean irauteko arriskua egunerik egunera geitu, azi ta andiago-egiten da. Au dala-ta, geure gaiztakerietzaz damutu ta geure eta pekatuak autortzea ez dogu luzatu bear. Ori luzatzea, egun batetik besterako istea, arrisku andiko jokoia da; zerurako egin geinkezan irabaziak zearo galerezoten dauskuz eta igarri barik kalte andiak, gero zuzendu ezin leikezan kalteak, ekarri leikeguz. Gerora-

<sup>348</sup> *Irazegi*: isiotu, izetu.

<sup>349</sup> *Ibitu*: sosegau.

ko itxi barik lenbailen egitea, errezena orixe da; guretzat onuratsu ta osasungarriena be, orixe.

### III

Baina geure pekatu guztiak zeatz, bat be itxi barik, autortu edo konpesetea ez dogu naiko; orrezaz gainera, pekaturako bideak itxi ta arriskuetaatik be alde egin bear dogu. Gaur egunean, arriskuak non ez dagoz? Bateko antzoki edo teatroak, besteko zineak, ango jolasak, emengo dantzak, orko zorakeriak, irakurkizun lizunak, irudi zantarrak, emakumeen soineko nabarmenak, guztiok arimen betiko osasuna galerazoteko asmau dirala dirudi; baina bide batzuk oso labanak dira-ta, ortik joan garean bakotxean edo geienetan laprast egin eta pekatuan jausi gareala geuk dakigu. Zinez munduan arrisku asko dagoz, baina batzuk besteak baino andiagoak dira, pekatutik ur, pekatua joten dagoz; olako arriskuetan sartu ezkeru, beti edo geienetan pekatu egin dogula geuk dakigu. Au dala-ta, geure arimen osasuna nai badogu, zinez eta benetan nai badogu beintzat, bide labanok, urreko arriskuok, naitaez eta lenbailen, atxaki ta luzapenetan ibili barik, itxi bear doguz. Gure Jaunak argiro esan dausku: «*Qui amat periculum, in illo peribit*. Arriskua maite dauana, bere guraz arriskura doana, antxe jausi ta galduko da». Jaunak dinoskun ori zoritxarrez egia dala ondoegi be badakigu; bide laban orreitatik ibili, arrisku orreitara joan garean bakotxean, edo geienetan beintzat, pekatuan jausi gareala, arimearen osasuna galdu dogula, ondoegi dakigu. Augaitik, galtzori ta arrisku orreitara geiago ez joateko asmua artu ezik, geure arimen betiko osasuna ez dogu maite, mingainez baietz esan arren; zinez eta benetan ez dogu nai.

Gorputzeko osasunari kaltea, batez be kalte anditxua, ekarri leikeoen gauza ta tokietatik arduraz aldendu ta urruntzen gara. Gorputzeko osasunarentzat kalterik ez dogu nai, eta arimearen osasunari kaltea dakartsoen gauzak kezka barik egiten doguz: lagun gaiztoekin batu ta ibili, leku txarretara joan, irakurkizun lizunak irakurri, irudi zantarretan begiak ipini ta olako gauzak, kezka barik, egiten doguz; eta ori ta guzti be, geure arimen osasuna nai dogula, betiko zoriona irabazteko asmua badogula esaten dogu. Gure zentzuna, non ete dago? Gizonak, ona ta txarra, zuzena ta okerra, osasungarri ta kaltegarri dana ezagutu ta jakin, dastau, ikusi ta ikasi bear dituala esaten dabe sasijakitun batzuk; baina gorputzeko osasunarentzat txar eta kaltegarri danik edo izan leitekenik ez dabe nai izaten egin, ez artu, ez jan, badaezpada be. Arimeari janari kaltegarria emoteko, kezkarik ez; gorputzari janari kaltegarria emoteko,

ainbeste bildur... Zer? Arimea gorputza baino gitxiago ete da, ba? Arimearen osasunak gorputzarenak baino gitxiago balio ete dau? Zeruko zoriona lurreko uskeriok baino gitxiago ete da? Ez, urrik emon be ez! Arimearen osasuna edozelan be gorputzarena baino geiago da, eta zeruko zoriona lurreko zorion guztiak batera baino askozaz andiago, baina gizonaren buru ta zentzuna, sarri askotan, amilotxena baino txikiago; augaitik, gorputzaren osasunari kalterik ez egiteko ainbeste ardura ta arimearen osasunari kalterik ez ekarteko ardurarik bapez.

Esakun zarrak dinoanez, «zaietan zurregi ta urunetan zoro» izatea da ori, gure arimea edozelan be, gorputza baino geiago da-ta.

Bide labanok, urreko arriskuok, guztientzat bardinak ez dira izaten; bakotxarentzat zeintzuk diran eta non dagozan bakotxak daki: «Urlia lagunaz batu, onako edo alako tokira joan, au edo beste gauza egin ezkeru, geienez pekatu astunean jausi naz»; ori bakotxari bere barrenak, bere biotzak dinotso. Orain ba, len geienez pekatu eragin dauskuen lagun, toki ta gauzok guretzat bide labanak, urreko arriskuak dira; pekatuaren lotzaiki edo lokarriak dira-ta, arimearen osasuna benetan nai badogu, lokarri orreik erruki barik ebagi ta urratu egin bear doguz.

Ori naitanaiezkoa da; ona emen zegaitik. Bere guraz bide laban orreititik dabilenak, bere guraz arrisku orreitara doanak, egindako oben edo pekatuak zeatz autortu arren be, onein parkapenik ezin lortu daike. Zegaitik ez? Bear dan garbai edo damurik ez daukalako, orren damua azalekoa baino ez dalako. Esan ezpabe: bide labanetik ibili dalako, bein, birritan, geiagotan laprast egin, jausi ta min artu dauanak, barriro be bide laban aretara joan eta andik ibili nai baleu, bere jauste ta min-artzeaz damu dala esan arren, nok sinestuko leuskio? Inok be ez! Guztiok esango geunke: «Gizon au bein eta birritan jausi da ta min artu dau, baina ez da damutu, ez orixe, barriro be lengo bide labanera joan nai dau-ta!». Eta guk, pekatu eragin euskuen bide, lagun, toki ta arriskuak itxi nai ez doguzala, geure guraz arrisku orreitan sartzen garean edo sartzeko asmua daukagun bitartean, egindako pekatuen garbai edo damurik zelan euki geinke? Ezelan be ez! Baina damu barik, zintzo damu barik, ez da inoz be pekatu rik parkatzen. Augaitik, geure arimen osasuna benetan nai badogu, pekatua ta olako bideak berealaxe itxi bear doguz, pekatuaren lokarri orreik lenbailen ebagi ta urratu bear doguz.

Ori egin barik, geure arimen osasuna, betiko zoriona, lortu ta esku-ratuko dogula uste izatea itzarrik ames egitea litzake; orain, berealaxe ta inoz baino errezago egin geinken ori, gerorako itxi ta luzatzea zorakeri andia litzake. Ori gerorako, zartzarorako-edo isten dauanak bere arimearen osasunik ez dau nai; alper eta nagitzar andia da-ta, arimearen osasuna ezer egin barik nai leuke. Baina benetan ez dau nai, ezer egin barik

nai leuke eta ori ezin izan daiteke. Arimearen betiko osasuna nai dauanak orretarako bear dan guztia be nai izan bear dau; bear dan ori egiteko, pekatuak eta orrako bideak isteko gertu ta prest egon bear dau.

Ninibetarrai berrogei eguneko epea emon jaken euren gaiztakerietzaz damutu ta Jangoikoagana biurtzeko: «*Adbuc quadraginta dies et Niniue subvertetur* –esan eutsen Jonas igarleak Jangoikoaren izenean–. Oraindik berrogei egun eta onein buruan, damutu ta ondu ez bazaiteze beintzat, Ninibe erre, kiskaldu, auzitu ta auts egingo da» (Jon. 3, 4). Zemai ori entzunaz, azken egunari begira egon barik, berealaxe damutu ta penitentzia egiten asi ziran, eta Jangoikoaren errukia lortu ta jade-tsi eben. Guk zegaitik ez dogu egingo beste orrenbeste? Berrogei egun ezeze, eguntxu bat be ziurrik ez daukagu eta, zegaitik gerorako itxi? Itxiago ta alperrago egongo gara, itxiago ta gatxago izango jaku. Zentzunean sartu gaitezaz, ba, ta noz edo bein egin bear dogun ori, berealaxe egin daigun. «*Ecce nunc dies salutis*. Egun osasungarriak, onexek dira»; Jauna deiez daukagu, guri parkatzeko gertu ta prest dago.

Auspaztu gaizan, ba, eta geure biotzen oparia egin daiogun. Geure Jaun ona, zure erruki laztan-samurrak Zeugana gakarz. Lagun zakiguz. Belutu barik, gerorako itxi barik, Zeugana biurtzen gara-ta, geure gaiztakeriok parkatuta zeure aiskidetasunean artu gaizuz.

## 2.1. BETIKO EGIAK

### 2.1.4. Heriotzea (XVII, XVIII)

## XVII

### ERIoTZEA<sup>350</sup>

*«Memorare novissima tua et in aeternum non peccabis.»*

«Zeure azagak gomutau egizuz eta obenik inoz be ez dozu egingo.»

(Eccli. 7, 40)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Bizitza onetan daukagun eginenik andiena, nagusiena, lenena geure Jangoikoa ezagutu, maitatu, goretsi ta onen bidez geure arimen betiko osasuna irabazi ta eskuratzea dogu. Atzo ikusi genduanez, bata ta beste, gauza biok batera, obenak, pekatuak, gaiztakeriak eragotzi ta galezazoten daukuz. Au dala-ta, obenaren bildur-ikara izan bear gara; pekatuari beste ezeri baino iguin eta gorroto andiagoa izan bear dautsagu.

Gure gogoa dan baizen aldakorra ez balitz, bein arturiko asmu onai sendoro ta luzaroago cutsiko geunskiöe; baina gure gogoa aizea baizen aldakorra da-ta, arturiko asmu onak gorabera, obenean, pekatuan errez jausten gara. Geure asmu onak indartu ta sendotzeko, gaiztakeritik alde egiteko, zer da ona? Orretarako asko baino geiago lagundu geinkezana, zer ete da? Ori jakitunak dinosku *Ecclesiasticus* deritxon liburuan: *«Memorare novissima tua et in aeternum non peccabis. Zeure azagak, azkenengo gauzak beti gomutan erabili egizuz eta obenik, pekatuak inoz be ez dozu egingo»* (Eccli. 7, 40).

Gizonaren azagak, azkenengoak, dakizuen lez, lau dira: eriotzea, jui-zio edo epaikundea, barrendiko infernua ta zerua. Lau gauza oneik geure gogoetan ondo sartu, barrendu ta josiko bagenduz, egindako gaiztakerien garbai edo damua geure biotzetan sortuko leuskigüe ta gaiztake-

---

<sup>350</sup> [Oarra: Irugarren gabaz egindako itzaldia. Bilbon, 1929. Jose Antonio.]

ri barririk ez egiteko arduraz, bildur-ikaraz ibiliko ginake. Gaur eriotze-ari buruz zerbait esango dautsuet.

## I

1. Eriotzea geure-geurea dogu. Jaio ginan guztiok zor dogu, ta orri iges egin leikeon amen semerik ez dago; naiz jo batera, naiz jo bestera, eriotzeak geure gerizeak lez jarraitzen dauku. Bere igitei zorrotza, bizitzako aria ebagiko daukun igiteia eskuan dauala, or dabil eriotzea, bidean zear, kalean zear, erririk erri, etxerik etxe; zaldi gaineko zalduna baino azkar eta bizkorrago dabil. Aberats eta andikien jauregi apain-ederretan ikasginaren txabola zulatuan baizen errez, lotsa ta bildur gitxigaz sartzen da, eta bein atarian oles egin ezkeru, atea itxi nai izatea alperreko zeregina da; bein «emen nator» esan ezkeru, igiteia eskutik kendu ta atzera eragingo dautsan jakituririk, ez dirurik, ez indarrik ez dago. Bera da nagusi ta bere aurrean, orok, guztiok naitanaiez burua makurtu bear; bera da nagusi ta bere erpe zorrotzak, bere atzamar baltzak ezarri ezkeru, egundo inok ez dautso igesi.

2. Eriotzeak guztioi dinosku: «*Dispone domui tua; quia morieris tu et non vives.* Zeure gauzak atondu egizuz; ilgo zara zu ta ez zara biziko» (Isaias 38, 1). Eriotzearen aurrean negar egitea alperrik da; erruki, asti ta luzapena eskatzea, alper-alperrik: bein bizitzako epea bete ezkeru, epe barririk inorentzat be ez dago. Lenago, sortuten gareneko, ilten asten gara. Eriotzeak orpoan-orpoan jarraitzen dauku; tokirik ezkutuenean sartu arren, araxe dator; beti geugaz dabil, naiz egunez naiz gabaz, gagozan lekuan gagozala, eriotzea be geugaz dago, geure barruan, geure izatearen barren-barrenean daroagu. Lurreko lagun eta aiskideak bein baino sarriago isten gaitue, eriotzeak bein be ez; bizi gareino, beti geugaz dabil. Augaitik, norbaitek itanduko baleusku: «—Zeure lagunik zintzoena, inoz be itxi barik beti zeugaz dabilen aiskiderik barrukoena, zein dozu?» Ori itanduko baleusku, zuzen erantzungo geuskio, esanaz: «—Nire lagunik andiena, nok esango leuke?, nire lagunik andiena eriotzea dot. Gau ta egun neugaz dabil, noan toki guztietara neugaz dator, bein be ez, inon be ta inoz be ez dau nigandik alderik egiten; oian lo nagoanean be, antxe neugaz datza, ta neugaz dago. Zure ta nire ta gizon guztien lagunik andiena, orixe da, eriotzea». Ez dogu uste izaten, beti geugaz daroagu-ta, baina egia da.

## II

1. Ilgo gareala baidakigu; noz, non eta zelan, ori ez dakigu. Baina, edozelan be, laster izango dala, gitxien uste dogunean eta gitxien uste

dogun lekuan bere atzamarrak ezarriko dauskuzala ta betiko eroango gaituala guztiok dakigu. Itxasoz, leorrez eta aizez tximistea baizen azkar ta bizkor dabil eriotzea. «*Memor esto quia mors non tardet*. Eriotzea berankor ez dala, bizkor dabilela gomutau egizu» (Eccli. 14, 12). Aldi bateko jakitun eta olerkariak inoen: «Zaldi gainean doanari, eriotzea antxe bere atzean, zaldiaren bizkarrean jesarten jako; itxasuntzira igon bagaitez, eriotzea be untzi barrura dator». Orain, bateko gurtarin edo automobiletan, besteko egazkinetan, gizonak aldi baten baino arin, laster eta bizkorrago dabiltz, eta eriotzea be, eurakaz batera, beste inoz baino arin, laster eta bizkorrago dabilela dirudi.

2. Geure Jaunak esan dausku: «*Sicut fur in nocte, ita veniet*. Eriotzea, gabeko lapurra lez, gitxien uste dozuenean etorriko jatzue» (I Thess. 5, 2). Au dala-ta, itzarrik, beti erne ta bizkor, gertu ta prest egon zaitez, eguna ta ordua ez dakizuezt: «*Vigilate, et estote parati, quia nescitis diem neque horam*» (Math. 25, 13). Oraintxe, gitxien uste dogun une onetan, eriotzea baletorkigu, guzaz zer izango ete litzake? Ardura barik edo ardura gitxigaz bizi gareanok eriotzea urrun dagoalakoan, lurreko zorakeri ta arazoetan burutik beatzeraino, begi bietaraino sartuta geure arimeaz gomutau barik gabiltzanok, norako izango ete gintzakez? Pekatuko lozorroan gengozala eriotzeak arrapau bagenduz, orain non ete gengokez? «*Esto vigilans* –dinosku Jaunak–. Bizkor eta itzar<sup>351</sup> egon zait» (Apoc. 3, 2). Esku artean darabilzun zeure egitekoa, zeure arimearen osasuna, luzatu barik, geroko itxi barik, berealaxe egizu: «*Instanter operare*» (Eccl. 9, 10).

Eta egiz bizitzako aldia laburra da, gerizea lez igesi doa; eriotzea lau oinan, arin-aranga dator, eta eriotzako gaba etorri ezkerro, gauza onik egiteko astirik ez dago. «Emakumeagandik jaioriko gizona dino Job Santuak aldi laburrean bizi da; lorearen antzera goizean jaio ta arratsalderako zimeldu doa. Jaioaz batera ilten asten da, bere bizia gerizea ta aizea baino geiago ez da; euna, miësea zitzak lez, gizonaren bizia be eriotzeak jan daroa ta bere aragia beingo baten usteldu ta auts egiten da.»

Eriotzea guztioentzat ur dago, ezin urrago; geu eriotzatik ur gabiltz eskuaz ikutzen gagoz. Laster mundu onetan inoz izan ez baiginan beste izango gara; orduak ordua, egunak eguna, urteak urtea, gizaldiak gizaldia aurretik bultzaka daroetz, eta aldiaren joate, igarote onek gu be bere besartean eriotzara garoaz.

3. Uste dogu bearbada, gaiztakeriak egiteko euki dogun beste aldi, asti edo denpora eukiko dogula euretaz damutu, biotza garbitu ta aen

<sup>351</sup> *Itzar*: zuhur; itzarrik.



ordezko egite onetan inardu ta eragoteko; baina eriotzeak gaztaroan daroazanak, zartzarorako isten dituanak baino geiago, askozaz be gei-ago dira-ta. Gazteak izan arren eriotzea ezin atzeratu geinke-ta, oraintxe, berealaxe ondu ez bagaitz, gero onduteko astia emongo dauskula nok esan, nok agindu ta eskini dausku? «*Nox venit, quando nemo potest operari*. Eriotzako gaba or dator, galera dator, urrean dago eta bein etorri ezkerro, gauza onak egiteko astirik ez dago» (Joan 9, 4).

### III

1. Eriotzeak lurreko andikeri, aukera, ondasun, atsegin guztiak, aiskide, lagun ta beste gauza guztiak kenduko dauskuz, biluzik, ezer barik, narrugorrian itxiko gaitu. «Biluzik, ezer barik jaio nintzan dino Job Santuak, eta biluzik, ezer barik sartuko nabe lurpean. Nire arnasea estutu ta gitxituko da; nire egunak laburtuko dira ta ilobia, eorztokia, sepulturea, lurra izango da nire bizitoki. *Spiritus meus attenuabitur; dies mei brevia-buntur, et solum mihi superest sepulcrum*» (Job 17, 1). Eriotzeak errukirik ez dauko; daukagun guztia bein-betiko kentzen dausku. Gizasemea negar eragiten dautse, baina berak errukia ta negarra zer direan be ez daki. Gizonik aberatsenak, il daitenean, mundu onetako gauzarik zer daroa beragaz? Ezer be ez! Bere aberaski<sup>352</sup> ta ondasunak beste batzuai itxiko dautsez; bere ospe ta izen ona, beragaz batera, lurpera doaz. Ez da barriro bere etxera biurtuko ta gizonen begiak ez dabe geiago ikusiko. Dabit igarleak dino ori ta egi andia da.

2. Jaunak Ebanjelioan aitatzen dauan aberatsak, urte aretan bere landa, alor eta soloak emon eutsezan zitu<sup>353</sup>, arnari ta ogasunak gordetako, bear zan beste toki ez eukala-ta, lengoak apurtu, eratsi ta ganbara ta aletegi barriak egin ebazan. Troxa<sup>354</sup> ta aletegi guztiak gonburu bete ondoren, bere buruari zinotsan: «Badaukak zer jan eta zer edan; badaukak urte askotan zegaz bizi. Atsedean artu egik, atseginetan bizi adi». Orretan ebilela ta gitxien uste ebanean, entzun eban: «*Stulte*, burubako tenteltzarrara, eure arimea, eure bizia gaur gabeen kenduko dauske ta bildu ta batu doazan ogasunok, norenak izango dozak?».

Mundu guztia geure menpean balego, gizon guztien agintari ta gauza guztien jabe bagina be, eriotz orduan ori guztiori, zetarako litzakegu?

<sup>352</sup> *Aberaski*: aberastasun.

<sup>353</sup> *Zitu*: labore, uzta.

<sup>354</sup> *Troxa*: garautegi, aletegi.

Geugaz zer eroango geunke? Gorpua estaltzeko soinekotxuren bat, besterik ezer be ez. Il ta laster, zedenak jango gaitu, soineko ta guzti, ta gure jantzia arrak izango dira: «*Operimentum tuum erunt vermes*» (Isaias 14, 11).

## IV

1. Lurreko aukera ta atseginen bila bagabiltz, emengo andikeri ta gauza ogasunak maiteegi badoguz, gauza orrein maitasun eta gurariak gure biotzetan erro ta sustraiak egin eta botako dabez; eta gero, naitaez itxi bearko doguzanean, sustraiak barrurago ta ateratea gatxago izaten da-ta, eriotzearen erpe zorrotzak atsekabe ta min andiagoa emongo dauskuez. Augaitik, eriotzako orduan gura nai gura ez itxi bearko doguzan gauza orreitatik bizitzan be biotza askatuta erabiltea jakituri andia da; eta bestera, uskeri orreitan biotza ipini ta euren gurariz jostea, zorakeri garbia.

2. Pekaturik pekatu dabilenak, atsegin zikin eta loietan buru-belarri sartzen danak bere zoriona munduko aukera ta ondasunetan ipini dagianak, eriotzako ordua itzal eta bildurgarriago egiten dau. Olakoentzat eriotzea, berez dan baino be estu ta larriago, garratz eta mingotsago izango da ta antsiz ta negarrez atsekabe samin-saminez esango dau: «*Siccine separas, amara mors?*» (I Reg. 15, 32). Eriotza zital, samin eta baltza!, nik ainbeste maite dodazan gauzak onelan kentzen daustazak? Eta kendu be, bein ta betiko? Geiago neureak, inoz be ez izateko... Nire errukaria! Lengo nire atsegin guztiak batera baino oraingo nire atsekabe au andi, samin, garratz eta mingotsago da! *Siccine separas, amara mors?*

3. Begi aurrean dakusan eriotzeak bildurtu ta ikaratzen dau; bere biotza goibel eta ilun, estu ta larri dago. Maite dituan eta galdu nai ez leukezan lurreko gauzok gomutara datorkioz, gogoan darabiltz, ezin aztu ditu; ta bere arimearen osasuna egiteko bear dan askatasun, atsenden eta asti barik, bizitzako azkenaldia aieneka, alaruka, negarrez joako. «Onelan –dino S(an) Agustinek– lurreko uskeriok galtzeko bildurrak, arimearen osasunaz, betiko bizitzeaz oroitu ta gogoratzea galerazoten dautse ta biak batera galdu daroetz.»

4. Gero «egin haneu» esatea alperrik da-ta, egin daigun orain orduan naitaez egin bearko doguna. Bein bakarrik egiten dan gauzea, nekez, gitxitan egiten da ondo; bein bakarrik ilgo gara. Geure guraz, egunero ilaz lurreko gauzetatik geure biotza askatuaz, geure gurari oker eta gaiztoak inausiaz, ilten ikasi daigun; geuretzat eta munduarentzat ilik, Jaun-

goikoarentzat bizi gaitezán. Ori egin badaigu, eriotzea betiko biziaren ate izango jaku; berez garratz eta samina dan arren, gitxi bildurtuko gaitu; aiskide lez, aiskide, auzo, artu al izango dogu. Santuak abegirik onena, txerarik andiena egin dautse eriotzeari. S(an) Frantziskok, eriotzea baetorkiola-ta, pozaren pozez birloraturik, esan eutsan: «Nire arreba...».

## V

1. Bein bakarrik ilgo gara; eriotzearen atzamarretan jausi ezkeru, atzera etortetik ez dago. Bakotxa irabazi dauan tokira, bere betiko etxera joango da: «*Ibit in domum aeternitatis suae*» (Eccle. 12, 5). Eriotzeak lurreko gauza guztiak bein betiko kentzen daukuz; baina badago zerbait eriotzeak kentzen ez daukunik: egite on edo txarrak, arimeak beragaz daroaz eta bizitza onetan irabazi dauanez, betiko saria edo betiko zigorra, betiko zoriona edo betiko zoritxarra emongo dautse. Augaitik, eriotzako unea guretzat une estu ta larria da, gure betiko zoriona edo betiko zoritxarra eskegita, zintzilik, dingilizka daukazan une ikaragarria da-ta.

Gizasemea, eriotzako une au jausi dadin alderdian, naiz eskomara<sup>355</sup> naiz ezkerera, naiz iparrera naiz egoaldera jausi dadila, antxe egongo da; betiko, antxe: «*In quocumque loco ceciderit, ibi erit*» (Eccle. 11, 3). Ezkerraldera, zorigaiztokoan alderdira jausi ezkeru, ango kalteak zuzentzerik ez dago, betikotasuna azkenbakoa ta aldakuntza bakoa da-ta. Orduan ez, baina orain bai, orain zoritxar eta kalte orreik eragotzi, galarazo, geugandik urrundu geinkez. Eriotzea betikotasunaren ate dogu; ate onetatik barrura igaro ta laster, betiko zorionean edo betiko zoritxarrean sartuko gara. Augaitik, guretzat ondo iltea zorion andi-andia da, baina ondo ilteko bidea, bizitza on eta zuzena, ori baino beste biderik ez dago. Zintzoen, zuzenen, onen eriotzea Jaunaren begietan eder-ederra da, izan daitekenik ederrena: «*Pretiosa in conspectu Domini, mors sanctorum ejus*». Gaiztoen, pekatarien eriotzea, ostera, izan daitekenik txarrena: «*Mors peccatorum pessima*».

2. Geienez bizitza lakoxea izan oi da eriotzea be. «Txarto bizi izan danik, ozta inoz ondo ilten da», dino S(an) Agustinek. Eriotza ona betiko zorionaren ataurre, eriotza txarra betiko zorigaiztoaren atari doguzan ezkeru, ondo iltea beste joakun gauzarik ezertxu be ez dago. Baina

<sup>355</sup> *Eskoma*: eskoa, eskuin.

ondo il nai badogu, orain arte egindako okerrak, gerorako itxi barik, berealaxe zuzendu bear doguz, ori itxiago ta gatxago da-ta; ondo il nai badogu, egindako pekatu ta gaiztakerietzaz zintzoro garbaitu, damutu ta damutasun-negarrez geure arimak orbanetatik garbitu bear doguz; ondo il nai badogu, geure Jangoikoagaz daukaguzan kontuak, gerorako itxi barik, zeaztu, garbitu, geure zorrak egite onen bidez ordaindu ta aurretantzean zuzen biziteko asmu, erabagi ta ardurea artu bear doguz.

3. Eriotzeak noz, non eta zelan arrapauko gaituan ez dakigu; baina ur dabil, geugaz daroagu ta bere erpe zorrotzak laster ezarriko dauskuzala ondoegi be badakigu. Geuk nai izan ez arren, mundu onetako gauza guztiak, aukera, atsegin eta ondasun guztiak, gorputzeko biziaz batera, betiko ostu ta kenduko dauskuz; baina guk nai izan ezik, arimearen betiko bizia, geure betiko zoriona ezelan be ezin kendu leikegu. Kendu ezin leikegun orri sendoro eldu ta eutsi daiogun; geure asmu ta gurariak, geure indar ta aleginak orra zuzendu daiguzan, eta ain bildurgarri dan eriotzea betiko bizitzearen zeruko atari izango jaku.

Auspaztu gaizan Jaunaren aurrean eta eriotza ona eskatu daiogun: «Enc Jauna, nire bizitza onetako egun laburrak laster amaituko dira; gaiztakeriz orbandu, loitu ta ezaindu dodaz, baina garbai naz, damu naz, parkeske nagokizu. Errukior zarean Jaunorrek nire eskar txarra parkatu, nire gaiztakeria kendu ta nire biotza garbitu egidazu. Laster, lurperatuko naz eta biar nire bila asi bazaitez, ez naz izango, ez naz biziko-ta ezingo daustazu parkatu. Arren, Jauna, lagun zakidaz, epe pizka bat emoidazu, eriotza ilunaz estalita dagoan lurrera joan baino len, neure biotzeko garbai ta damu samina negarrez autortu ta deitoratu dagitsudan. Parkatu, Jauna, arren parkatu eta eriotza ona egin daidan lagundu nagizu».

## 2.1. BETIKO EGIAK

### 2.1.5. Heriotzea (XVII, XVIII)

## XVIII

Lemoa, 1923

### ARAGIAREN BIZTUEREA

*«Fili hominis, scribe tibi nomem hujus diei.»*

«Gizonaren semea, egun onen izena zeure gogoan josi egizue.»

(Ezeq. 24, 2)

N(eure) entz(ule) ta errit(ar) mait(eok):

Gizon bakotxak bere burua baino urrago ezertxu be ez dauko-ta, eretxi baten geure burua beste ezer baino obeto ezagutu bear geunke-la dirudi; baina, bai zera! Geienok zer garean ondo jakin barik bizi gara eta geure buruak, direan lez, ezagutu baino len ilgo gareala deritxat. «Geure ezauerarik asko daukagula uste dogu eta, zelan izan daiteke ori?», esango daustazue. Azalez eta antzez bai, itsu ez garean guztiok geure buruak ezagutzen doguz; baina barru, mami ta izatez, guztiz gitxik.

Ezbear edo zoritxarren batek zapaldu, geixoren batek eratsi ta eze-tako ez gareala ipinten gaituenean, naiz min andiren batek arterik artzen be isten ez dauskunean, orduan bai geure izatearen uskeri ta ezereztasuna zerbait ezagutzen doguz; baina osasun onez bagabiltz, gure arazo ta gauzak ondo badoaz, garean baino askozaz geiago gareala, gure bizitzako aria dan baino askozaz be sendoagoa dala uste izaten dogu.

Naiz geixorik egon naiz osasunez bizi, gure bizitzako aria beingo baten ausi, eten eta urratu daiteken ari me eta mengela da. Augaitik, berez ain me, bigun eta auskorra dalako, naiz gaztaroan naiz zartzaroan, bardin, gitxien uste dogunean, ausi ta apurtu egiten da. Baina bizitzan aurreratuez goazala, goruetan daragoionak lez, iruten dogun bizitzako ari ori orrenbes-teko me, zirtzil eta auskorra danik, gizonen artean nok uste izaten dau? Osasunean gitxik, guztiz gitxik; geixoan be, askok ez. Bildur izaten gara-ta!, bizitzako ari me ori astiro ta ondo begiratzeko bildur, bai; bildur. Geu-

re buruen ezagutze argi ta garbi onek ikarea sartzen dausku; geure izatearen zirtzilkeri ta ezereztasunak atsekabetu ta samindu egiten gaitu; ain gauza gitxi izateaz lotsatu egiten gara, ta lotsatzen gaituan ezereztasun ori begiak itxi, orregaz albait geien aitzu, ta luzarorako bagina lez, uste oker eta guzurti onegaz bildur barik eta nasai bizi atseginago izaten jaku.

Guk ori egin arren, gauzak ez dira aldatuko; Jaungoikoak egin eta ipini dituan lez izango dira beti. Gizon guztiok, Adanen seme-alaba guztiok, geure lepoan eriotzako legea, Jaungoikoaren zigorra daroagu; zigor orrek jo gaizanean, gure gorputzak lurrera eratsiko ditu. Lenengo gizonak, Jaungoikoaren antzeko izango zala-ta arrokeriz Jaunaren agindua ausi ebanean, Jaunak irriz, destainez, esan eutsan: «Ona emen Adan, gizon arroa, Jaungoiko izan gura leukela-ta jagi jaku; apur bategaitik geu bestekoa ez jaku egin. A, gaizoa! A, zoroa! Autsa az eta, eure arrokeri ori dala-ta, auts biurtuko az». Baina auts biurtuko zala gizonari esan eutsan Jaunak, auts biurtu ta gero beti auts izango dala, auts geldituko dala inoz be ez dautso esan. Beste gauzarik adierazo dautso Jaunak gizonari: «I arroa izaten dakianori, txiki, zirtzil, txaldan, ezereza, eta Ni andi, sendo, indartsu ta algutziduna nazala jakin dagian, ire aragi ta azurrez egindako autsari bizitzara dei egingo jautsat eta nire esanera, nire agindura, azur igarrak zutundu, autsak aragi biurtu ta barriro biztuko dozak».

Gaur, geure asaben, geure guraso ta aurretikoen azurrak ortusantu zarretik barrira, bekotik goikora eroateko doguz; gure asaben, geure aurretikoen azurren azur, odolaren odol, aragiaren aragi garean seme-alabok, azur orrei orrenbeste ta geiago zor dautsegu; azur utsak izan arren geure asaba ta gurasoen azurrak dira-ta, itzal andiz, maitasun samurrez eroan eta eortzi bear doguz, erruki ta eskar onez lurra emon bear dautsegu. Azur orreik auxe dinoskue: «Gu gareana, zuek be laster izango zarie». Geure sinesteak oster auxe dinosku: «Jaungoikoaren egun andian, azur orreik, antzinagokoak eta geroagokoak, naiz osorik egon naiz auts egin Jaungoikoaren esanera, barriro biztuko dira». Onek gauza biok pizka bat azaldu nai neuskizue. Laburtxu egiteko esan dauste-ta, albait lasterren amaituko dot. Bien bitartean, adi ta ernai, bizkor eta zoli egon zaiteze; arreta ta arduraz entzun egidazue.

## I

N(eure) entz(ule) ta errit(ar) mait(eok), munduan, gizartean alde andiak dagoz: batzuk andiki, jaun eta aberatsak dira, beste batzuk, langile, beargin lander, txiro edo pobreak; asko nasai, asebetez bizi dira, beste asko estu ta gosez dabiltz; batzuk atseginetan uger, igiri, beste batzuk neke ta lorrez,

negargarri. Guztiok zorionaren bila gabiltz; baina gura dauan guztia inok be ez dauko-ta, alde guztietatik zoriontsu danik inok be ez dau uste. Gizon bakotxaren bizitzan be gorabera andiak izaten dira: osasuna ta geixoa, atsegina ta atsekabea, zoriona ta ezbearra alkarren ur dabiltz eta gaur pozez beterik dagoana, biar edo etzi negarrez ikusten dogu. Gizartean alde andiak, gizon bakotxaren bizitzan gorabera andiagoak dagoz. Baina guztiok eriotzara goaz eta azkenean, guztiok bardin, guztiok auts.

Egi au ikusi ta ezagutzeko sinesteko argirik ez da bear; geure buruko argia be naiko ta lar dogu. Sineste bako jakitun batek, baina gauza ondo ta labor esaten ekianak, antxina ta beinola esan eban: «*Pulvis et umbra sumus*. Gerizea ta autsa baino ez gara». Bizi garean arte, gerizea; ilten gareanetik laster, autsa. Gerizea egiten dauan gauzea, dana dalakoa, kendu ezkerro, beste barik gerizea desegiten da; gure biziari eutsiten dautsan bere eskua, Jaungoikoak atzeratu ta kendu badagi, gerizea lez desegiten gara, gure gorputza beingo baten il, usteldu ta auts biurtzen da.

Egia ta zeaztasuna maite dituan Jaunak, Job Santuaren aoz esan euskun: «Gizonaren bizia guztiz laborra da, eta bere bizitza labor orretan ezbear eta zoritxar askok joten dabe; lorea lez jαιο ta lorea lez zimeldu be egiten da gerizea bailitzan, inor gelditu barik, bizitzatik igesi doa. *Fugit velut umbra*». Eta egiz, entz(u)le) mait(e)ok), gizaldiak ler<sup>356</sup> edo pinu, arte eta beste olako zugatz-arbolen orriak dirudie: arte ta pinuetan orri barriak lengo zarrak bultz egiten dautse; barriai lekua isteko, zarrak igertu ta lurrera jausten dira. Gizaldiak be bardin, bata-besteari bultz egiten dautse; atzetik datorrenari lekua isteko, aurreragokoa il, lurrera jausi, lurpean sartu ta auts egiten da. Gure aurretik Lemoan bizi izan zan gizaldia, or ortusantuan azur eta auts eginda geure begiz ikusten dogu; gure atzetik datorrenak gu be orrelan ikusiko gaitu. Augaitik, azur orreik, ortusantu zarretik barrira eroateko doguzan azur orreik, argiro dinoskue: «Gu gareana, zuek be laster izango zarie».

## II

Gure gauzak ondo dabiltzanean, zerbait baigareala uste izaten dogu; baina gizonok ondo txikiak gara. Andia, benetan andia Jaungoikoa bakarrik da; bizitza ta eriotzearen giltzak bere eskuan daukazan Goiko Jauna; kurutzean il eta irugarren egunean bere indarrez berbiztu ta jagi zan Jauna; suari ta galtzaiduaz txispea, argi ta sua ateraten doguzan lez, bere egun andian, azur igar eta lurreko autsari ikutuaz beste barik, bizi-

<sup>356</sup> *Ler*: pinu.

tzako txispa, argi, arnasa ta beroa aterako dituan Jauna, ori bai, benetan andi ta altsua, orixe da.

Ezekiel igarleak dinoskun au entzun egizue (Ezeq. 37, 1-10). «Egun baten dino, Jaunaren eskuak artu ta zelai andi batera eroan ninduan. Zelai ori azur igarrez beterik egoan eta Jaunak esan eustan: “—Gizonaren semea, azur oneik biztuko direala uste dok?” “—Jaungoiko Jauna —erantzun neutsan—, ori zeuk dakizu”. Orduan dinaust: “Eure igarle-zeregina egik eta azur onei esaihoek: ‘*Ossa arida, audite verbum Domini*. Azur igarrak, Jaunaren esana, bere berbea entzun egizue’. Jaunak auxe dino: “Neure arnaseaz, gogo ta arimea zuetan sartuko dot eta biztuko zarie. *Ecce ego introducarn in voz spiritua et vivetis*. Kirio ta zanak emongo dautsuedaz, aragiz jantziko zaituet, aragi gainean azala zabakduko dot, neure arnaseaz berotuko zaituet, eta gauza guztien jabe, bizitza ta eriotzearen jaun eta ugazaba nazala eza-gutu ta jakingo dozue. *Scietis quia ego Dominus*”. Agindu eustan lez egin neban; dardara ta durundi andi baten ondoren azurak igitu, bata-besteagana urreratu eta baktotxa bere lekuan sartu ta jarri ziran. Ikuskizun onegaz konkortuta nengoala, ona emen beste arrigarriago bat: beingo baten azur aek kirio, zan eta aragiz jazten dira ta gaintik azala egiten jake. Baina oraindik ez ziran bizi, ilda egozan. *Et spiritum non habebant*. Eta dinost Jaunak: “Gizonaren semea, azur onein arimai nire izenean dei egioek, esanaz: ‘Jaungoiko Jaunak auxe dino: biziaren erro ta sustrai zarien gogoak, lurra-ren lau egaletatik erdue eta azur igarrok bizi daitezcan, zeuen arnasaz berotu egizuez”. Jaunaren esana egin neban eta azur aetan sartu ziraneko, guztiak biztu ziran. Gizatalde izugarritzko andia zutundu ta orren gainean ebi-lan. *Steteruntque super pedes suos exercitus grandis, nimis valde.*»

Jaunak Ezekiel igarleari emon eutsan zeregina, ez daust emon niri eta arek agindu eutsen lez, gure asaben azur orrei ezin agindu nengioe; baina Jaunak esanda dauko ta Jaunaren esanak ez dau utsik egingo. Niri emon ez daustan zeregin ori, azkenengo egunean bere Aingeruari emongo dautso. Tronpeta-soinua entzungo da, aingeruak odaietatik trumoiaren burrunbadeaz deadar egingo dau: «*Surgite mortui et venite in iudicium*. Ildakoak, jagi zaitezze ta Jaunaren epaira, irabazi dozuena artzera, erdue». Lo dagoana gure dei eta deadarretara itzartu ta jagiten dan lez, Jaunaren agindura ildako guztiak biztuko dira. Au geure sinesteko egi andia dogu, Kredoa esan eta autortzen dogun egia: «*Carnis resurrectionem, vitam aeternam*. Aragiaren biztuerea, betiko bizitzea».

### III

Gauza gatxa dirudiala? Bai zereko gatxa! Guk egitekoa balitz, bai; baina Jaungoikoarentzat guztiz erreza. Lenengo gizonaren gorputza



lurreko bustinaz egin eta bere arnasagaz biztu eban Jaunak, aregaz, gizon bakarragaz zenbat gizon?, aren azur eta aragiaz, zenbat azur eta aragi egin ditu? Gizon baten azur eta aragi, odol eta bizia onenbesteraino ugaritze ori, zelan eta zegaitik da? Zelan eta zegaitik dan ez dakigu, baina olantxe dala geure begiz dakusgu. Lurrean ereiten dozuen azia il eta usteldu egiten da; baina azi usteldu arek landarea dakar eta onek garau baten ordez, arto naiz gari-garau asko emoten ditu. Zelan dan ori ez dakigu, inok be ez daki, baina geure begiz ikusten dogun gauzea dala, ezin ukatu. Oneik eta oraindik arrigarriago diran gauzak, egunero bape nekatu barik, egiten dituan Jaunarentzat, ildakoen azurrak batu, aragi ta zanez jantzi, arimea lengo lekuan sartu ta bizitzara ekartea, gureztat begien itxi-idegi bat baino be errezago da. Errezago ez dala esango leuskidanari, bere senean ez dagoala erantzungo neuskio.

Aragiaren biztuera barri au sinesteko argiz baino ezin ezagutu geinke; baina gauza zuzen eta egokia dala, ori bai geure buruko argi utsez be igarten dogu. Begira ezpabe. Jaungoikoa zuzena ta zuzentasuna berbera da; zuzena izateko, bakotxari berea emon bear dautso. Mundu onetan egitade on, errukior eta eder asko sari barik, egitade txar, donge ta gaizto asko zigor edo kastigu barik gelditzen dira. Zuzena dan Jaungoikoak munduko oker oneik zuzendu bear ditu... ta zuzenduko ditu. Baina egitade onak naiz txarrak arimeak bakarrik ez ditu egiten, gizon osoak baino; augaitik, zuzentasun zeatza egiteko, saria naiz kastigua, zoriona naiz zoritxarra be, gizon osoari emon bear jako. Egite onetan arimearen lagun izan dan gorputzak, arek irabazi dauan sari ta zorionean be lagun izan bear dau; egite donge ta gaiztoetan arimeari lagundu dautsan gorputza, kastigu ta zoritxarrean be lagun izatea egoki da, gauza zuzena da. Eta zuzena dalako, zuzen eta zeatza dan Jaunak, azkenengo egunean, azur eta autsak berbiztu eta arimakaz batera edo betiko zorionera eroan edo betiko zoritxarrera jaurtingo ditu. «Biztu bai –dino S(an) Paulò Ap(ostoluak)–, Jesukisto gure burua biztu zan lez, guztiok berbiztuko gara»; baina oberantz aldatu, geure izatean obetu, guztiok ez. On eta zuzenen gorputzak, argi ta edertasunez zoragarri jantziko dira, atsegin eta zorionez biziteko; gaizto ta dongeenak, Jaunaren aserrean il ziranenak, ilun eta baltz, betiko zoritxarrean arima galduari lagun egiteko.

#### IV

Egun onen izena guztiok eta bakotxak geure gogoetan ondo josi bear dogu: «*Scribe tibi nomen hujus diei*». Gaur, geure asaben azurren

aurrean, gure gorputzak be laster azur eta auts biurtuko direala gogoratu bear dogu. Ori gogoratzea ondo da, baina gitxiegi; orrezaz gainera, geure sinesteko argia biztu ta esan bear dogu: «*Credo quod in novissimo die de terra surrecturus sum* –Jaungoiko andi ta altsuaren esana data–. Sinesten dot, azur orreik eta nireak eta enparauak, azken egunean lurretik jagiko dirala sinesten dot». Nire gorputz au be biztuko da. Baina zelan?, argi ta eder ala itxusi ta ezain?, atsegin eta zorionez ala atsekabe ta zoritxarrez izateko? Ori, geure oraingo zeregina da, geure eskuan dago.

Bere burua gogamen eta irudi zantarrez, bere biotza gurari zikinez, bere eskuak gaiztakeri ta egite txarrez, bere min eta ezpanak ainen<sup>357</sup>, birao ta maldezinoz loitu dagizanak, egun aretan zer itxaron daike? Eta batez be, ekandu txarrez, goiz eta arrats, egunez eta gabaz birao-urtika dabilenak; bape diran gizonen aurrean aitatu be ezin leiken zikinkeriz, ao, min eta ezpanak loitu dagizanak; diabrukume bailitzan, lurreko zikinkeririk zikinena, Jaungoiko andi ta altsuari, on, errukior eta eroapentsu dalako beste barik, Jaungoiko andi ta altsuari arpegira jaurtiten dautsanak; beste inongo inon, gaztelako erdera egiten ez dan lekutan beintzat, ez Prantzian ez Italian ez beste inon esaten ez dan besteko blasfemia, birao loi ta zikinaz bere burua loitu ta zikindu dagianak, zer itxaron daike? Jaungoikoaren egun andian, azurrak jagi, aragi ta zanez jantzi ta biztuko diran egunean, bere min eta ezpan zikinak, ikastobiko ikatza baino baltzago, barrendiko laba gorian ilinti<sup>358</sup> ta txingar izateko, ori-edo izan ezik, zer besterik itxaron daike?

«*Scribe tibi nomen hujus diei*». Olako biraorik jaurtiten ez eben gure asaben azur orrein aurrean, geure senera etorri ta zentzun onean sartu bear gara; egindako okerrak zuzendu ta Jaunaren aiskidetasunean bizitako asmu ta erabagia artu bear doguz. Eriotzako igiteiak jo gaizanean, gure gorputz oneik azur eta auts egingo dira; baina azur eta auts orreik, bizitza ta eriotzearen giltzak daukazan Jaunak biztuko ditu. Argi ta eder, apain eta zoragarri, atsegin eta zorionez beterik biztuko dira, geuk benetan nai badogu; ori geure eskuan dago, Jaunak geure eskuan itxi dau. Zer besterik, zer geiago eskatu geinkeo? Jauna guretzat errukior eta ona izan da, errukior eta ona da. Beragaz gaizto ta donge izan gareanok, garbai biziz, damu zintzoz eta parkeske geure buruak bere beso errukitsuetara jaurti daiguzan, eta Jauna bein geiago errukior eta ona izango jaku, geure gaiztakeri ta oker guztiak parkatuko dauskuz.

<sup>357</sup> *Amen*: maldizino, arnegu.

<sup>358</sup> *Ilinti*: txindi.

Asko baino geiago joakun, beste ezer baino geiago ardura dauskun gauzea da-ta, albait ondoen egin bear dogu. Auspaztu gaizan, ba, Jaunaren aurrean eta errukiorra dan geure Jaunari, geuretzat eta gure aurretikoen arimentzat, biguntasuna, errukia eskatu daiogun: «Damu dogu, Jauna, parkeske gagoz; gure orain arteko eskar gaiztoa errukiz parkatu eiguzu. *Parce, Domine, parce populo tuo*. Geure okerrak zuzendu, biotzak garbitu ta onean irauteko bear doguzan argi, indar eta laguntasuna esku-zabalez emon eiguzuz. Semeen biotz onez geure guraso, senide ta aurretikoen azurei barriro lurra emoten dautsegu; zuk, Aita on, biotz bigun, samur eta errukiorra zareanorrek, euren arimei betiko argi, atsenden eta zoriona emon egiezuz. *Pie Jesu Domine, dona eis requiem*. Amen».

## 2.1. BETIKO EGIAK

### 2.1.6. *Epaikundea* (XIX, XX)

## XIX

### ERIO TZ OSTEAN, EPAIKUNDEA

«*Statutum est hominibus semel mori, post hoc autem iudicium.*»

«Bein bakarrik iltea gizonentzat erabagita dago;  
orren ostean, barriz, epaikundea.»

(Hebr. 9, 27)

N(eure) entz(u)le) mait(eok):

Arpegiz zelakoak garean ikusteko, ispilura begiraten dogu; baina gorputzez zer garean ondoen dinoskun ispilua, eriotzea da. Eriotz ostean gure aragia arrak jaten dabe, usteldu egiten da, auts biurtzen gara. Gure gorputz au autsetik dator, autsa da ta autsera doa. Gorputzez orain gareana ez gara luzaro izango; orain garean lakoak baino azur igarrak eta autsa askozaz be luzaroago izango gara. Augaitik, onetzaz egia dinoskun ispilua, eriotzea da.

1. Eriotzea, zinez, gauza bildurgarria da; baina pekatari gareanontzat, bere ostean datorrena askozaz be bildurgarriago. «Gizonentzat erabagita dago –dino S(an) Paulo Apost(oluak)–: bein bakarrik ilgo dira ta eriotz ostean, epaikundea, juizioa. *Post hoc autem iudicium.*» Eta beste toki baten: «Guk guztiok Jesukistoren auzitegian agertu ta aurkeztu bear dogu, bakotxak, gorputzean bizi zala, egin ebanaren arauz artu ta eroan dagian, ona edo txarra, saria edo zigorra, bere egitez irabazi dauana. *Omnes nos manifestari oportet ante tribunal Christi ut referat unusquisque propria corporis, prout gessit, sive bonum, sive malum*» (II Corint. 5, 10).

2. Azterketa, epaikunde, juizio bi izango dira: lenengoa bakotxarena, banezean, bakarrean, il eta berealaxe; bigarrean, guztiena, batera, agirian, munduaren azkenaldian. Lenengo aretan, banezekoan, emon

zan epaia bigarren onetan ez da aldatuko, ori ez; baina munduko oke-  
rrak zuzendu dirala guztiai adierazo ta jakinazoteko, bigarren au be bea-  
rrekoa da. Eta izan be, munduan sarri gaiztoak dira nagusi; onai ixeka,  
irri ta barre egiten dautse, ero ta zoro ta zentzunbakotzat daukez. Onak,  
ostera, gaiztoen buztarribean bizi dira; gaiztoen bidegabeak artu ta ero-  
an, euren irri ta destainak entzun ta atsekabe asko irunsi bear izaten  
dabez. Gaiztoak arro ta burua gora dabiltz; onak sarri zapalduta, burua  
apal eta makur dabela, eurak errudun bailiran lez.

3. Eriotz osteko epaikundean, Jaungoikoak bakotxari berea emongo  
dautso; baina banezean, zuzena<sup>359</sup> egingo dau. Baina egin dauan zuzen  
ori guztien aurrean, agirian ipini nai dau, guztiai jakinazo eta ezagutua-  
zo nai dautse; ta azken epaikundea orretarakoxe izango da: agirian, guz-  
tien aurrean, onak goratu ta gaiztoak zapaltzeko, onak poztu ta gaizto-  
ak lotsatzeko.

## I

1. Eriotz ostean, Jaungoikoak guztioi ta bakotxari geure bizitza guz-  
tiko kontu estu ta zeatza eskatuko dauku: «*Redde rationem villicationia  
tuae*. Neure ogasunak emon neutsuzan; zelan zaindu ta erabili dozuz?  
Orren kontu ta errazoia emon egizu. *Redde rationem*» (Luc. 16, 2). Kon-  
tu hau zeatz-zeatza izango da:

- a) oben, erru edo pekaturik bat eginik be, inok ezingo dau estaldu;
- b) Jaunaren eretxi ta epaia inok ezingo dau okertu, ez bigundu;
- c) neke ta zigorra, kastigua inok be ezingo dau atzeratu, eragotzi,  
aldendu, ez urrundu.

Epaikari, jueza jakitun-jakituna da-ta, iruzurrik inok ezin egin leio;  
zuzen-zuzena da-ta, inok be ezin erosi ta okertu leike; alguztiduna be  
bada-ta, amaibako almen ta indarra dauko-ta, bere eskuetatik inok be  
ezin igesi leike. Epaikunde onetan egiak eta zuzenak argi egingo dabe  
ta Jaunaren ala, bere indarra nagusi agertuko da.

2. Jaunak erriak egiaz aztertu ta epaituko ditu: «*Judicabit populos in  
veritate sua*» (Ps. 95, 13). Jauna ez da aitzukor<sup>360</sup>, gu lez; ezertxu be ez  
jaku aztuten, gauza guztiak, oraingoak lez antxinakoak be, bere begien  
aurrean daukaz; gure gogapean, asmu, gurari, ta egite guztiak ondo eza-

<sup>359</sup> Zuzen: epai.

<sup>360</sup> Aitzukor: ahazkor.

gutzen ditu; augaitik, egin dogun gaiztakeririk, batxu be, ezin ukatu, ezin estaldu, ezin aldeztu<sup>361</sup> geinke ta geure buruak ezelan be ezin zuritu geinkez. Naiz agirian naiz ezkutuan, naiz lagunaz naiz bakarrean egin doguzan pekatu guztiak ondo baino obeto dakiz, eta bere auzitegira guztiak eroango ditu, batxu be itxi barik. «*Cuncta quae fiunt, adducet in iudicium*» (Eccle. 12, 14). Gure gaiztakeriak estaldu, edertu, gitxitu edo zuritu nai izatea alperreko zeregina izango da. Jaungoikoak ondo dakiz eta, orrezaz gainera, Jaunak emongo dauskun goiko argiz geuk geronek be argiro ikusiko doguz; deabruak salatuko gaitu, baina ori baino txarragoa dana, geure barrena, geure biotza izango da geure salata-ri. «Gaiztakeri orreik zeuk egin dozuz, zeureak dira» esango dausku, eta gaiztakeriak eurak be geuk egin genduzala esango dabe. «*Arguet te malitia tua. Zeure gaiztakeriak salatu ta lotsatuko zaitu*» (Jer. 2, 19).

3. Epaikunde onetan egiak lez zuzenak be argi egingo dau. «*Judicabit Dominus orbem terrae in aequitate*. Jaunak mundua zuzenez epaituko dau» (Ps. 95, 14). Pekatuen azterketa edo examinea egiaz, eurak diran lez egingo da; eta Jaunak emongo dauan epaia be zuzen-zuzena izango da.

Orduan Jaungoikoa geure alde euki nai izango dogu. Baina epaikari artez, zuzen eta zorrotza da-ta, leusengu ta labankeriz ezingo dogu irabazi; diruz ezingo dogu erosi; parkeskatu arren, zuzentasuna egiteko aldia da-ta, errukira ezingo dogu itzuli.

Jaungoikoa norkerietan ez dabil, Jaungoikoak nor nor dan ez dau begiraten, bakotxaren egiteak zelakoak diran baino, eta bakotxari bere egiteen arauz epaia emongo dautso. An ez dau balioko esateak: «Andikia izan naz edo andikien seme; neure zereginak zirala-ta, munduan guztiak itzal andiz begiratu nabe. Agintari izan naz, jakitun, entzute andiko edo abade izan naz, mundutarren begietan gauza andiak egin dodaz». Ori guztiori an ezetako be ez da; Jangoikoaren eskutik artu doguzan mesedeak andiagoak eta epaia be astun ta zorrotzago izango da. Jakitunak dino: «Agintarientzat epai, gogor eta zorrotzagoa dago, ta altsuak neke-min eta oinaze saminagoak eroan beariko dabez. *Judicium durissimum, his qui praesunt, fiet... potentes autem potenter tormenta patientur*» (Sap. 6, 5-6).

Leunkeriz ta labankeriz irabazi ezin geinken Jaun ori; diruz be inok ezingo dau erosi. Jaunak inoren bearrik ez dauko ta gure ogasunak eze-tako be ez ditu. Asperkunde-egun aretan lurreko ogasunak, atsekabea

<sup>361</sup> *Aldeztu*: babestu, defendidu.

emoteko baino beste ezetarako be ez dira izango: «*Non proderunt divitiae in die ultionis*» (Prov. 11, 4). Gizonik aberatsenari be daukazan ogasun guztiak eriotzeak kenduko dautsaz, eta egite onik ez badauko, Jaunaren aurrera biloizik agertuko da, bere ogasunok munduan itxita.

Errukia eskatzea be orduan alperrik da; Jaunak bizitza onetan egiten dauku errukirik asko. Geure gaiztakeriak itxi ta beragana biurtu gaizan, egunero ta egunean sarri deiez daukagu; geu damutu ezkerro, guri parkatzeko beti gertu ta prest dago. Orain ainbeste bidar dei egin Jaunak, eta guk belarriak gor egin badaioguz, orduan parkeskatu arren, aserrez erantzungo dauku: «Zer? Dei egin neutsuen ez bein sarri baino, baina zuek ez zeunstien jaramonik egin. Orain neuk be zuen galtze ta eriotzan irri ta barre egingo dot. *Vocavi et renuistis; ego quoque in interitu vestro ridebo et subsannabo*» (Prov. 1, 26).

4. Egiaz aztertu ta zuzen erabagi ondoren, Jaunaren epaia berealaxe beteko da. Arimea orban eta zorretatik osoro garbi badago, Jaunak bertatik zeruko atea idegiko dautso; orban txiki edo zorren batzuk badaukaz, garbitokirako izango da; pekatu astunez orbandua badago, tximiste baizen arin eta laster barrendiko su-lezara jausiko da. Jaunaren epai ori atzeratu edo galerazo leiken al eta indarrik ez dago; Jaunari jarki<sup>362</sup> leikeonik, arpegi emon, bere besoa gelditu edo bere eskuetatik iges egin leiken gizasemerik, ez erregerik ez aita santurik, ez agintaririk ez gudalbururik<sup>363</sup>, ez indartsurik ez dago. Jaunaren ala, bere indarra nagusi agertuko da. «*Non salvatur rex per multam virtutem, et gigas non salabitur in multitudine virtutis suae*» (Ps. 32, 16).

Aztertu, epaitu ta epaia bete, iru gauza oneik beingo baten, unetxu baten, begi itxi-idegi baten egingo dira. Edonor, leorreatan naiz itxasoan, etxean naiz kalean, bakotxa ilten dan tokian bertan, auzitegia be antxe izango da. Jauna ez jake arimai agertuko, gaiztoai beintzat; baina agertu ez arren, bere aurrean dagozala iragarri ta jakinazoko dautse. Goiko argiz argituko ditu ta bakotxaren egite on eta txarrak bere begien aurrean agertuko dira; bakotxari zelako epaia emon, egite orreik esango dabe.

Gaiztoak Jaunaren aurrean bildur-ikaraz, lotsa gorrian, estu ta larri egongo dira; euren alde ezer esateko, kemen eta adore barik, alaru ta aieneka asiko dira. Errukarriak! Jaunaren arpegi aserratua ezin jasan, ezin eroan izango dabe ta infernuari bere aoa idegi ta lenbailen iruntsi dagizala eskatuko dautsoe. Onak, ostera, pekatu egin arren, zintzoro damutu ta Jaunagana biurtu ziranak, uste ta itxaropen andiz egongo

<sup>362</sup> *Jarki*: aurre egin.

<sup>363</sup> *Gudalburu*: gudariburu.

dira; zeruko aingeruak lagun egingo dautse; damutasun, negar eta egite onen gomuteak eta Jaungoikoaren begitarte argi ta arpegi bigun-samurrak, kemen eta adorea emongo dautsez. Epaia emon bear dautsen Jauna, euren Aita zerukoa, biotzez maitatu daben Aita on eta errukiorra dala badakie, ta aren epaia bildur barik entzungo dabe. Bildur barik? Ez dot ondo esan; betiko zoriona dakartse-ta, pozik andienaz entzungo dabe!

Egun aretan bildurrik izan nai ez badogu, orain Jaunari bildur izan daiogun, geure gaiztakeriez zintzoro damutu ta biotzez parkeskatu daiogun. Orain Jaunaren bildurrean bizi danak, egun aretan ikara ta dardararik ez dau izango. «*Qui timet Dominum, nihil trepidabit et non pavebit*» (Eccli. 34, 16). Orain Jaunaren bildur dana, orduan ezeren bildur ez da izango, ikara ta dardararik ez dau eukiko; pozez eta zorionez gonburu, atsegin-eztitan egongo da.

## II

Eriotz osteko epai au sendetsi, gaiztoak lotsatu, onak goretsi ta mundu onetako okerrak guztien aurrean zuzentzeko, munduaren azkenaldian beste epaikunde bat izango da, gizaseme guztiena ta agiria. Ari, egun ari, Eskritura Santuak «Jaungoikoaren eguna», «Egun andia» deritxo, egun aretan Jaunak oker guztiak zuzenduko ditualako.

1. Aurretiez, ezaugarri andiak, izugarriak etorriko dira. Erri batzuk besteen aurka jagirik, aserre, burruka, gudaketa gogorak izango dira: «*Surget gens contra gentem*» (Luc. 21, 10). Lurrikarak, gosete ta izurteak, goitiko bildur-ikarak edonon; baina oneik guztiok neke-minen asierea baino ez dira: «*Haec autem omnia initia sunt dolorum*» (Math. 24, 8). Ezaugarriak ortzean, zeruak dardar egingo dabe, eguzkia ilunduko da, ilargiak odol irudi, izarrak jausiko dira. Ezaugarriak lurrean, itxasoaren orroiak, aizearen txistuak, tximista ta trumoiak, gizarteko nastreak, asikalditik<sup>364</sup> inoz izan ez diran lako neke ta atsekabeak, bildurra sartuko dabe ta gizaseme guztiak laudarduan<sup>365</sup> egongo dira.

Zerutik sua jatsiko da, lurreko zikinkeriak erre ta garbitzeko (II Petr. 3, 10). «Jaunaren aurretik dino Joel igarleak, guztia iruntsiko dauan sua, atzetik guztia erre ta kiskalduko dauan garra. *Ante faciem ejus ignis vorans et post eum flamma exurens*» (Joel 2, 3).

<sup>364</sup> *Asikaldi*: hasiera.

<sup>365</sup> *Laudarduan*: bildurraren bildurraz dardarka.



2. Zeruko aingeruak turuta, tronpetea joko dabe; bere otsa, zaratea, durundia lurraren lau egaletara zabalduko da ta esango dau: «Ilok, jagi zaiteze ta Jaunaren auzitegira zatoze». «Eta unean, begien itxi-idegian, turutaren otsera, Jaunaren aginduz, ildako guztiak biztu, jagi ta Jaunaren aurrera joango dira. *In momento, in ictu oculi, in novissima tuba, mortui resurgent*» (I Corint. 15, 52). Jesukistoren gurutzea odaietan agertuko da; gizeli guztiak deitoratzen, negarrez eta alieneka asiko dira ta Jaungoikoaren Semea odai gainean, al, indar eta agintza andiz datorrela ikusiko dabe. Pekatarien orduko ikarea, nok azaldu? Euren larritasuna, nok adierazo? Baina oneik orandik neke, min eta atsekabeen asierea baino ez dira: «*Initia sunt dolorum*».

3. Onelan gertu dan epaikundea, ospatsu ta andiro asiko da. Guztioen eta bakotxaren pekatuak agertuko dira an eta inok be ezingo ditu ukatu. Okerrak, gaiztoak onen, zuzenen aurrez aur ipiniko ditu Jaunak, eta aei agiraka gogorra egingo dautse. Eta egiz, an agertuko ez dan gauza ezkuturik ez dago. Gure pekatu guztiak, parkatu ez jakuzanak be bai, guztien aurrean agertuko dira ta guztien begiak ikusi al izango dabez; orain gizon bati, autor-entzuleari<sup>366</sup> autortu nai ez dautsaguna, orduan geure bekokian idatzita, guztientzat agirian egongo da. «*Revelabo pudenda tua in facie tua* –dino Jaunak–. Zure gauzarik lotsagarrienak zeure aurrean agertuko dodaz» (Nah. 3, 5), eta zure biloitzasun eta lotsaria guztiai erakutsiko dautset; «zuk ezkutuan egin zenduan ori, nik erri guztien aurrean eta eguzki-argitan ipiniko dot» (II Reg. 12, 12).

Pekatariaren aurka salatari asko jagiko dira. (Pekatura eroan ginduezan diabruak, zaindu ginduezan aingeruak, bide txarra erakutsi geuntsen lagunak, gaizkideak, bidegabez zapaldu ta txarto erabili genduzan gaxoak, orreik guztiok salatari izango dira. Anaiak anaia, aita semea betiko eriotzara bialdu nai izango dau ta semeak gurasoen aurka jagiko dira.) Gaiztakeri bat be ezingo dogu estali; oso agirian egongo dira-ta, guztiak autortu beariko doguz. Gaiztoentzat lotsari gorria!, erre ta kiskaliko dautsen lotsaria!, arpègia jausi eragitekoea!

4. Jaungoikoak gaiztoen eta onen bizitzak, bata-bestearen aurrez aur ipiniaz, biak alkarrekin bardinduko ditu ta gaiztoai akiakula ta atxaki guztiak kenduko dautsez. «Zer? Erru andirik ez daukazuela? Baina oneik besteok ez al ziran izan zeuek lakoxe? Ez euken zeuen izatea berbera? Zeuek lakoxe grinak, zeuek lakoxe arriskuak? Argaltasun bardinak? Ori ta guzti be, egindako pekatuak damu-negarrez garbitu dabez; eta gero

<sup>366</sup> *Autor-entzule*: konfessore.

onak, zuzenak, zintzoak izan dira. Zuek ez zarie, nai izan ez dozuelako.» Agiraka ori entzunik, bildur izugarritz nastau ta ikaratuko dira ta alaru baten, naibage biziz eta biotz larriz esango dabe: «Aldi baten guk irri ta barre egiten geuntsenak, ero ta zorotzat geunkazanak, orrexek dira, eskomaldean dagozanok dira; orain Jaungoikoaren semeen artean dagoz eta euren zoriona santuen zoriona izango da» (Sap. 5, 2). Bekaitzez, inartziz<sup>367</sup>, inbidiaz erre ta kiskalduko dira ta amurruz esango dabe: «Eroak geu, zoroak geu, zentzunbakoak geu izan gara! Tenteltzar andiok, okerreko bidetik ibili gara!».

5. Jaunak beste agiraka gogor bat be egingo dautse: bere ontarte ta mesedeak pekatariaren gaiztakeriaz, bere eskar edo graziak pekatariaren eskar gaiztoaz bardinduko ditu. Bere nekauste<sup>368</sup> edo pasinoko lotsari, min, neke ta oinazeak gogoratuko dautsez; bere gurutzea, zeruko atea idegiteko bizkarrean eroan eban gurutzea; bere zauriak, guri zerua irabaztearren, artu ebazan zauriak erakutsita esango dautse: «*Nunc ergo... judicate inter me et vineam meam, quid est quod debui ultra facere et non feci?*» (Isaias 5, 4). Epaikari zeuek izan zaitezze. Orain Ni ta zuen artean eretxi ta erabagia, zeuek emozue. Zuen onerako zer besterik egin bear neban? Zer da egin barik itxi neban ori? Gaiztakeri asko egin zenduezan; ixilik nengoan. Uste zenduen bearbada, zeuen antzeko, zeuk lez oker ta gaizto izango nintzala; baina ez, orain salatzen zaituet, gaiztakeri guztiak zeuen begien aurrean ipinten dodaz eta zeuen kaltean izango dira». Lotsa andiz, ahalke gorritz egongo dira pekatariak Jaunaren aurrean; euren lotsaria, ain lotsari andia, argitan, agirian ikustea, barrendiko iluna baino be garratz eta saminago izango jake. Eta «mendiai esango dautse: "gure gainera jausi, amildu zaitez!"»; ta muruai: "zapaldu ta estali gaizuez!" *Cadite super nos... operite nos*» (Luc. 23, 30).

### III

Jaunak, aingeruen bidez, onak eta gaiztoak berezi ta batzuk bestea-kandik bananduko ditu. Artzainak ardiak eta akerrak berezi ta bananduten dituan lez, Jaunak be olantxe, gaiztoak ezkerraldean eta onak eskoman ipiniko ditu, ta bere epaia; azken epaia, emongo dau.

1. Gaiztoai arpegi aserrez esango dautse: «Alde nigandik, madarika-tuok; zoaze, Luzifer eta bere lagunentzat gertu neban betiko sutara zoa-

<sup>367</sup> *Martzi*: bekaizkeria, inbidia.

<sup>368</sup> *Nekauste*: Jesukristoren Pasinoa.

ze. *Discedite a me, maledicti...* (Math. 25, 41). Alde nigandik, betiko alde. Nora? Sutara, betiko sutara!» Azken epaia da; Jangoikoak, Epaikari Gorengoak, emon dau ta ez dago bestegana zuzentzerik, ez dago gorago jotzerik. Azken epaia da ta ez dago ori aldatzerik; negar egitea, erruki eskatzea alperrik da. Azken epaia da, Jaungoiko Alorodunak<sup>369</sup> emon dau ta berealaxe beteko da. Oinaztarri ta trumoi, abarrota eta durundi artean idegiko da lurra; gaiztokia zabalduko dau bere eztarri izugarria; madarikatuak tximistea lez amilduko dira, barrendiko lezeak iruntsiko ditu ta bere arrai sakonetan betiko estalduko dira.

2. Baina gaiztoen lotsaria baizen andia ta are andiagoa izango da egun aretan zuzenen, zintzoen, onen gurenda ta garaitza, atsegin eta poza. Onein damu ta negarrak, atsekabe ta egite onak be Jaungoikoak agirian, argitan ipiniko ditu, guztiak ikusiko dabez. Gaiztoak munduan irri ta barre egin eutsen, baina orduan Jaunak zinez goretsi ta goratuko ditu. Munduan bearbada ez ebazan inok aintzat artu, baina orduan Jaungoikoak benetan aintzat eta bere semetzat artuko ditu. Laztan eta samur, errukiz eta maitaro esango dautse: «Erdue, ene Aitaren onetsiok, erdue, ta muduaren asikalditik zuentzat daukadan erreinu, jaurgo<sup>370</sup> ta zorionaren jabe egin zaiteze. *Venite, benedicti Patris mei!, possidete paratum vobis regnum a constitutione mundi*» (Math. 25, 34). Eta Jauna aurretik dala, andiro, garaitzaile antza, gora, zerura joango dira.

3. Munduko okerrak zuzenduko dituan eguna, auxe da; gaiztoak betiko lotsatuta geldituko dira, onak betiko garaitzea lortuko dabe. Ezkerrean ala eskoman, zein aldetan egongo ete gara? Ori geure eskuan dago. Orain geure barrena aztertu, gaiztakerietzaz damutu, ta aurrerantzean bizitza zintzo ta zuzena egin ezker, Jaunak bere eskomaldean ipiniko gaitu.

Auspaztu gaizan gurutzearen aurrean: «Ene Jauna, neure bizitzan pekatu larregi egin dot; orain, errukarrionek, zer egin neike? Nogana zuzenduko naz? Zeugana zuzendu bear... Erruki zakidaz, nire gaiztake-riak kendu ta garbitu egizuz. Gizadia epaitzera zatorkezanean, nire pekatuak ez egizuz gogoratu; orre in bildur, lotsa ta damu gara. Parkatu egiguzuz. Egun izugarri aretan, zeruak eta lurra ikaraz dardar ibiliko diran egun aretan, betiko eriotzatik, arren, Jaun ona, jagon eta gorde gagizuz.

<sup>369</sup> *Alorodun*: ahalguztidun.

<sup>370</sup> *Jaurgo*: erreinu, aginterri.

## 2.1. BETIKO EGIAK

### 2.1.6. *Epaikundea* (XIX, XX)

## XX

### ERIOZEA TA EPAIKUNDEA<sup>371</sup>

*«Statutum est hominibus semel mori, post hoc autem iudicium.»*

«Gizonentzat erabagita dago, bein ilgo dira ta onen ostean epaikundea.»

(Hebr. 9, 27)

N(eure) e(ntzule) mait(eok):

Gizona dan gizonak bere azagak, azkenengo gauzak sarri gogoan erabili bear leukez. Gizonaren azagak dakizuenez— lau dira: eriotzea, epaikunde edo juizioa, inpernua ta zerua. Eriotzea baino gauza ziurragorik ez dago. Noz, non eta zelan ilgo garean ez dakigu, baina edozelan be laster ilgo gareala jakiteko, sinesterik ez dogu bear, ori geure zentzun eta adimenak be argiro dinoskue-ta. Beste iru azkenkiok be susmau bai, geure buruko argi utsez be susmetan doguz. Mundu onetan sarri gauzak oker dabiltzalako, Jangoikoak beste bizitzan onai saria, gaiztoai zigorra emongo dautsela ta orretarako onak eta gaiztoak azertu ta epaituko dituala, adimen-argi utsez be susmetan dogu. Baina epaikunde ori noz, zelan eta zetzaz izango dan, sari ta zigorrak zelakoak diran eta noz arte iraungo dabən, ori geure sinesteak dinosku; ta sinestedun kistinau garealako, onetan be geure buruko argi utsez barik sinemen argiz ibili bear dogu.

Gizonaren bizitzea luze-luzea balitz, geure azaga edo azkenengo gauza oneik noz edo bein aztu arren, burura ekarri ta ausnarrean erabilteko astia geroago be izango geunke; baina bizitzarik luzeena be laburra da *«Tempus breve est»*, dino S(an) Paulo Apostoluak, eta orrezaz gainera, bizitzako ezbearrak dirala-ta gizasemerik geienak zartzarora baino

---

<sup>371</sup> [Oarra: Bilbon, goizeko meza bitarteren baten egina dala. Jose Antonio.]

len ilten dira. Berez ain laburra dan oraingo bizitzau, geixo ta ezbearrak dirala-ta, gitxien uste dogunean, geuk uste baino askoz lenago galdu geinke; ta berealaxe galdu geinkelako, geure azaga edo azkenki onein gomutea ez dogu gerorako itxi bear, sarri, al bait sarrien, geure gogoe-tan erabili baino. Gomuta au guretzat osasungarri da; Jangoikoak dinosku: «*Nemorare, novissima tua et in aeternum non peccabis*. Zeure azkenngo gauzak gogoan erabili egizuz, eta pekaturik bein be ez dozu egingo». Gaur eriotzea ta onen osteko epaikundea azalduko dautsuedaz.

Eriotzea pekatuaren ondorena ta zigorra da; San Paulo Apostoluak dinosku: «Gizon baten erruz sartu zan mundura pekatua, pekatuaren bidez eriotzea ta onelan eriotzea gizaseme guztiakana eltzen da. *Et ita in omnes homines mors pertransit*» (Rom. 5, 12). Pekatu egin ondoren, Jaungoikoak esan eutsan lenengo gizonari: «*Memento, homo, quia pulvis es et in pulverem reverteris*. Autsa zareala ta auts biurtuko zareala gomutau egizu». Ilgo gareala geure sinesteak argiro dinosku; baina sinesteak gauza onetzaz ez er esango ez baleusku be, lentxuago edo gero-txuago ilgo gareala ondo dakigu ta ori iruntsita ez daukan zentzundun gizonik ez dago. «*Omnes morimur*. Guztiok ilten gara» (II Reg. 14, 14). Eta barrero ez agertzeko lurpean sartzan diran uren antzera, gu be barrero munduan ez agertzeko, lur eta auts egiten gara. Eriotzea geure barruan, geure unetan daroagu-ta, lentxuago edo gerotxuago gure gorputzau usteldu ta auts egingo dau.

Ilgo gareala badakigu; noz, non eta zelan ilgo garean, ori ez dakigu. Gure eriotzea laster izan daitekela jakin arren, ain laster izango denik ez dogu uste izaten. Gure lenengo amari iruzur egin eta guzurra sakatu eutsan deabruak, guri be guzurra sakatu nai dausku. Ari esan esutsan: «*Nequaquam morte moriemini*. Bai zera! Ori egin arren, ez zarie ilgo, ez». Guri be ain laster ez gareala ilgo esan eta sinestuazoten dausku: «Il bai, ilgo zarie; baina oraindik ez, geroago, zartu zaitezanean, biziteaz aspertu ta gero; bien bitartean eriotzeari bildurrik ez egiozue izan».

Ori gure arerioak geure kalterako sinestuazo nai dauskun guzurra da. Gure ona nai dauan Jangoikoak argiro dinosku: «Eriotzea gabezko lapurra lez, gitxien uste dozuenean etorriko jatzue, ta beti erne ta bizkor egon zaitez. Jangoikoaren Semea uste ez dozuen orduan etorriko da-ta, beti gertu ta prest egon zaitez». Noz eta non ilgo garean ez dakigu; baina laster, geuk uste baino lasterrago eta gitxien uste dogunean ilgo gareala gauza ziurra da, Jangoikoak esan dausku-ta. Gugandik erioztzara urrats bat, pausu bat baino ez dago: «*Uno tantum gradu ego morsque dividimur*». Eriotzea ur dago, gainera datorkigu, gitxien uste dogu-nean eroango gaitu.

Eriotzearen gomutarik ez eukan Baltasar Babiloniako erregeak. Are-rioak uria inguratuta, moltsotuta euken; baina inondik inora ezingo ebelakoan artu, bere jaurreri, bere erreinuko andi-mandiakin<sup>372</sup> aparti<sup>373</sup> andi bat egin eban. Ordituta egozanean, bere aita Nabukodonosorrek Jerusalemgo eleizan ostu ebazan urrezko edontziak<sup>374</sup> ekarteko agindu eban, eta euren guzur-jainkoen dedu ta opaz edontzi aetatik edaten asi ziran. Orduan esku batek orman eta erregearen begi aurean iru itz oneik idatzi ebazan: «*Mane, Thecel, Phares*». Erregea ikaratu zan; azturu<sup>375</sup> ta jakitunei dei egin eutsen, baina itz arrigarri aek inok be ezin izan ebazan irakurri ta aitua. Orduan erregina-amaren onuz, Daniel igarleari dei egiten dautso, ta dinotso: «Itz orreik irakurri ta azaldu badaistazuz, jantzi gorriz jantziko zaitut, zeure idunean urrezko idunestuna<sup>376</sup> ipiniko dautsut ta nire bakalderrian<sup>377</sup> irugarren izango zara». Danielek erantzun eutsan: «Zeure bezuza, emaitza eta andikeriok beste norbaiti emiozuz; baina itzok irakurri ta azalduko dautsudaz. Or idatzita dagona, auxe da: *Mane, Thecel, Phares*. Eta esan nai dabena, auxe: *Mane*, Jangoikoak zure erregetzako egunak zenbatu ditu ta azkena ipini dautse; *Thecel*, zuzentasun-aztaki<sup>378</sup> edo balantzan ipini ta aztatu<sup>379</sup>, pisau zaitu ta zure egite txarrak onak baino astunago izan dira, uts aurkitu zaitu; *Phares*, zure bakalderria, erreinua zatitu dau ta Medo ta Pertsitarrai emon dautse». Gau aretantxe sartu ziran Medo ta Pertsitar gudariak Babiloniako urian, eta gau aretantxe galdu eban bere bizia Baltasar Kaldeotarren erregeak. Baltasarrek esango eban bere artean: «Neure aginpidea neuk galdu? Neure bizia niri inok kendu? Eta, ori gaur gabean? Bajagok obarik! Erreinuko andikiak neugaz dagoz; uriak orma lodiak eta burdinezko ateak daukaz; uriaren alde guztietan gudari asko ta bulartsuak daukadaz, onein agintariak zintzoak dira, neure menpean dagoz... Eta nik gaur gabean bizia galdu?». Ez eban uste, inozkorik arrisku gitxien eukala uste eban; baina gau aretantxe bere bizia ta biziagaz batera eukazan gauza guztiak galdu ebazan Baltasar errege zorigaiztokoak.

*Mane, Thecel, Phares*, itz oneik guretzat be idatzita dagoz. Baltasarren antzera, gu be gitxiñ uste dogunean ilgo gara-ta, itz orreik geure

<sup>372</sup> *Andi-mandi*: boteretsu, beso luzeko.

<sup>373</sup> *Aparti*: afari.

<sup>374</sup> *Edontzi*: edalontzi.

<sup>375</sup> *Azturu*: igarlie, azti.

<sup>376</sup> *Idunestun*: iduneko, koilare.

<sup>377</sup> *Bakalderri*: erresuma, erreinu.

<sup>378</sup> *Aztaki*: balantza.

<sup>379</sup> *Aztatu*: pisatu.

etxeko ateburuan, geure gelako orman, gabiltzan toki guztietan ikusi ta irakurri bear geunkez. Gure egunak be zenbatu ditu Jangoikoak eta laster amaia ipiniko dautse. Pekatarion egite txarrak be onak baino geiago ta astunagoak dirala ikusi dau; laster ondu ez bagaitez, Jaunaren aserrea otoz otoan etorriko da ta bere aserrean banatu ta galduko gaitu: gorputza lurrari emongo dautso, arimea arerioen eskuetan ipiniko dau. Laster guk guztiok Job Deun eroapentsuaz esan beariko dogu: «Nire egunak tximistea lez joan dira, nire asmuak keia aizetan lez ezereztu dira, biotza atsekabez bete dauste, ta ilobia, sepulturea, lurra baino besterik ezin itxaron neike. *Solum mihi superest sepulcrum*».

Noz eta non, eta zelan izango dan ez dakigun eriotza orrek bere erpe baltzak ezarri daiskuzanean, geure gauza guztiak, lureko aukera, atsegin, andikeri ta ondasun guztiak bein betiko kendu ta ostuko dauskuz; ezer barik, esku-utsik itxiko gaitu. Eriotzan naitaez galdu bear doguzan gauza orreik maiteago ta eriotzea be samin, mingoitza eta garratzago izango jaku. Maite doguna galtzeak atsekabea emoten dausku, atsekabe ori maitasunaren neurrikoa izaten da. Augaitik, lureko gauzak maiteegi dituanak eriotzako orduan atsekabe ta lorrik asko izango dau; maite dituan gauzok gomutara etorriko jakoz, eriotzeak betiko kentzen dautsazala ikusirik, naigabe ta tamal andiz esango dau: «*Siccine separas, amara mors?* Eriotza anker, gaizto ta baltza, neure gauzok orrelan kentzen daustazak, eta kendu be bein betiko, neureak geiago inoz be ez izateko? *Siccine separas, amara mors?*».

## II

Eriotzea, zinez, gauza bildugarria da. Lurreko gauza guztiak bein betiko kentzen dauskuzalako gauza izugarria da; antzineko jakitun batek esan ebanez, gauza ikaragarrien artean ikaragarriena. Baina sinestedun kistinauok kentzen dauskunagaitik baino be, eriotzeak bere ondoren dakargunagaitik bildur geiago izan bear dautsagu. S(an) Paulo Apostoluak dinosku: «*Statutum est hominibus semel mori, post hoc autem iudicium*. Gizonentzat bein bakarrik iltea erabagita dago ta onen ostean epaikundea, juizioa». Birritan edo geiagotan iltea geure eskuan bageunko, lenengo eriotzan egindako uts eta okerrak bigarreanean zuzendu al izango geunkez; baina bein baino ez gara ilgo, bein orretan egindako uts eta okerrak zuzentzeko astirik ez dago. Eriotz ostean epaikundea, juizioa dator. Atzera egin nai izatea, epe ta luzapena eskatzea alperrik da; gure gogoia, gure arimea eriotz ostean berealaxe Jaungoikoaren aurrera joango da ta bizitza onetan irabazi dauanez, epaia emongo jako.

Arduraz, kistinau onai dagokionez, zintzoro bizi izan diranak Jangoikoak errukiz artuko dituala itxaron daikie. Baina pekatu rik pekatu ibili diranak, gaiztakerietan ebiltzala eriotzeak arrapau dituanak, Jaungoikoaren aserrea baino besterik zer itxaron daikie? «Jaungoiko aserratuaren eskuetan jaustea, gauza ikaragarria da –dino S(an) Paulo Apostoluak–. *Horrendum est incidere in manus Dei viventis*» (Hebr. 10, 31). Il gaitetzan tokian, naiz etxean naiz kalean, naiz itxasoan naiz leorrean, antxe bertan egingo da baktokxaren azterketa, esaminea, ta epaia be antxe emongo jako.

Egindako pekatu rik, bat eginik, inok ezingo dau ukatu ta ezkutau. Jaunak arimai, gaiztoai beintzat, ez jake agertuko; baina bere aurrean dagozala argiro iragarri ta ezagutuazoko dautse: goiko argiz argituko ditu ta arima baktokxak bere gaiztakeri ta pekatu guztiak begien aurrean eukiko ditu.

Gure salatzaile, Jangoikoaren legea, zaindu ginduzan Aingeru Jagolea, pekatu a eroan ginduezan diabruak eta geure barrena, geure kontzientzia izango dira. Jaunaren legeaz batera bizi bear genduan, lege ori biotzean erabili ta zintzoro bete bear genduan; baina geure grinak asertarren, Jaunaren lege ori auzi ta ostikopean zapaldu gendualako gure aurka jagiko da ta Jaunari esango dautso: «*Exsurge, Deus, et judica causam tuam*. Jagi zaite, Jauna, ta zeure auzi au erabagi ta epaitu egizu». «Onek, lotsa barik, ostikopean sartu ta erabili ninduan; ni ostikopean erabili az, Zu Jaunori iraindu zinduzan, lotsea galdu eutsun. Jagi zaite, Jauna, zeure auzi epaitu egizu, ta lotsea galdu eutsun eskar gaiztoko oni merezi dauan zigorra, kastigua emon egiozu.»

Bizitzan zaindu ginduzan Aingeru Jagolea be, orduan gure aurka egongo da ta esango dau: «Alegin andiak egin nebazan nik gizon pekatari au bide gaiztotik aldendu ta bide zuzenetik erabilteko; baina niri baino deabruari jaramon geiago egin dautso-ta, nik orain orren alde ezertxu be ezin esan neike». Eta deabruak pozik esango dau: «Bai, ori egia da, arimau neugaz ibili da; neuk burura ekarten neutsana, orixe egin dau ta ori egin daualako neurea da. Zuzen-zuzena zarean Jauna, neurea dana emoidazu; graziaren bidez zeurea izan nai ez dauan eta pekatuaren bidez bere erruz neurea izan zan arimau, orain be neurea dala epaitu egizu. *Aequissime Judex, judica hunc esse meum per culpam qui tuus noluit esse per gratiam*» (San Agustin).

Baina inok salatu bearrik ez dogu izango, geure barrenak, geure biotzak, salatuko gaitu-ta. Jaungoikoak emongo dauskun goiko argiz geure egite on eta txarrak argiro ikusiko doguz; gure pekatuak ezingo doguz ukatu. Geure barrenak, geure kontzientziak esango dausku: «Gaiztakeri orreik zeureak dira, zeuk egin dozuz nai ta be ezin ukatu



zeinkez, zeure eskuetako egiteak dira-ta». «*Cogente conscientia unusquisque erit accusator suus*» (San Bernardo); eta gaiztakeriak eurak be geuk egin genduzala, geureak dirala esango dabe. «*Accusator erit proprium scelus...; tu nos egisti, opera tua sumus, non te deseremus*. Salatzaille, bakotxaren pekatuak izango dira; zeuk egin ginduzun –esango dauskue–, zeure egitadak gara ta ez zaitugu itxiko.»

Zer erantzun al izango dogu? Nogana zuzendu al izango gara? Laguntasuna, nori eskatu? Jangoikoa da epaikari; azken barik jakitun, zuzen eta altsu dan Jangoikoa da epaituko gaituan Jueza. Guztia daki; gure gaiztakeririk ezkutuenak be badakiz eta ezer ezin estaldu geinkeo. Zuzen-zuzena da-ta, ezegaz be ezin erosi, ezelan be ezin okertu geinke. Altsua da-ta, bere eskuetatik iges egin daiken amen semerik ez dago. «*Redde rationem villicationis tuae* esango dausku–. Zeure bizitzako kontu ta errazoa emon egidazu.» Biotza pekatuz orbandu ta damu negarrez garbitu ez dauanak, gaiztakeriak egin eta parkazinorik lortu ez dauan pekatariak, zer erantzun al izango dautso Jaunari? Zelako estutasun larrian ez da aurkituko? Santurik andienak epaikunde onen, juizio onen zeaztasun eta zorrozatasuna gomutauaz beste barik, bildur-ikaraz, laudarduan egon dira; eta guk pekatariok, bildurrik ez ete dautsogu izango? Santuak euken sinismen bizia bageunko, gu be aen antzera bizitza guztian bildur-ikaraz ibiliko gintzakez, geure bizitzako kontua Jaunari emoteko, ardura andiagoaz gertu ta prestauko geintekoz. Gu be sinestedunak gara; laster ilgo gareala ta eriotz ostean geure bizitzako kontu zeatz Jaunari emon beariko dautsagula sinesten dogu. Sinestuko ez bagendu, kistinau ez gintzakez izango; baina biotzetan sinestea ilda lez daukagulako, emon beariko dogun kontu zeatz onen ardura barik bizi gara. Ardurabakotasun onek geure galdumendira garoaz. Sinesten dogunez bizi ezik, zerua irabazteko emon jakun sinestea be geure aurka jagiko da ta Jaunaren aurrean gaiztetsi, kondenau egingo gaitu.

Biztu daigun, ba, geure sinestea; gogoan erabili daigun Jaunak azken egunean eskatuko dauskun kontu estu ta zeatza. Damutu gaizan geure pekatuetzaz, Jaunaren aurrera joan baino len lortu daigun euren parkazinoa, geure obenak damuz eta zintzoro autortuaz aurreratu daigun geure alde Jangoikoaren epaia. Goazan autortzako sakramentura errukizko epaiaren bila, gero epai zuzen eta zorrotzak ez gaizan betiko galdu. «*Dum tempus habemus, operemur bonum*. Astia daukagun arte, egin daiguzan gauza onak» (Galat. 6, 10). Garbitu daiguzan orbanetatik geure arimak, bestelan eriotz osteko epaia zoritzarrekoa izango da guretzat. Jaunak zuzentasunezko aztakin eta balantzan pisatuko gaitu eta gure egite txarrak onak baino astunagoak badira, galduak gara. «*Thecel*» esango dausku Jaunak: «*Appensus es in statera et inventus es minus habens*.

Aztakin, balantza zuzenean pisatu zaitut eta arol<sup>380</sup>, txikol<sup>381</sup> zagozala, pisu gitxiegi daukazula, zeuk ikusten dozu». Geure egite txarrak onak baino astunagoak diralako, epaikunde onetan gaiztetsiak, kondenauak izan ez gaitezan, orain parkeskatu daiogun Jaunari.

*«Juste Judex ultionis donum fac remissionis ante diem rationie.* Jaun artez eta zuzenorek, kontua emoteko eguna etorri baino len, geure gaiztakeriok parkatu eiguzuz.» Pekatu larregi be egin doguz, autortzen dautsugu; baina garbai ta damu gara, erruki zakiguz. Laster ilgo gareala badakigu; eriotz osteko epaiaren bildur gara-ta, parkeske gagokizuz. Gu zerura eroatearren gurutzean il zinan Jaun ona, gure zorrak ordaintzearren zeure odola isuri zendun Jaun errukiorra, gure eskariak entzun, guzaz errukitu ta gure obenok parkatu eiguzuz. Orretarako, arpegia lotsaz, biotza damuz doguzala, dinotsagu: Jesukisto, etab.

<sup>380</sup> *Arol*: arin; harro.

<sup>381</sup> *Txikol*: huts, mami gabeko.

## 2.1. BETIKO EGIAK

### 2.1.7. *Infernua, Zerua eta Garbitokia* (XXI)

# XXI

Lekeitio, 1930

## GARBITOKIA

*«Plorans ploravit in nocte...  
et non est qui consoletur eam ex omnibus claris ejus.»*  
«Gau ilunean atsekabez eta negarrez dago...,  
eta bere maite guztien artean poztuko dauanik inor be ez dago.»  
(Lam. 1, 2)

*«Quando veniam et apparebo ante faciem Dei?»*  
«Noz elduko ete naz eta Jangoikoaren aurrean noz agertuko ete naz?»  
(Ps. 41, 3)

N(eure) e(ntzule) m(aiteok):

Gaur arima gaxoen eguna dogu. Garbitokiko arimak benetan errukarri dira. Zegaitik? Zoritxarpean, atsegin barik, nekez eta lorrez, atsekabe ta minez bizi dan edonor, errukarri dala nok ukatu daike? Garbitokiko arimak neke latzak daroetz, atsekabe garratz eta min andiak daukez... Geure sinesteak dinoskunez: garbitokian sua dago, arima gaxoak suzko itxasoan dabiltz... Urrea bere zamar<sup>382</sup> eta orbanetatik sutan garbitzen dan antzera, arima gaxoak be euren orbanetatik sutan garbitzen ditu Jangoikoak.

Ori San Paulo Apostoluak naiko argiro adierazoten dausku, esanaz: *«Si cujus opus arserit, detrimentum patietur...; ipse autem salvus erit, sic tamen quasi per ignem.* Norbaiten egitadak suak artu badagiz, kaltea izango dau...; orraitik be bera gaizkatu edo salbauko da, baina sutatik

<sup>382</sup> Zamar: zaborreria, zarama.

pasata» (I Corint. 3, 15). Apostoluen egunetan asi ta geiago Eleizearen sinestea beti orixe izan da; Eleizako gurasoak lenengo ta irakasleak gero, orixe irakatsi dauskue; kistinau-erriak be orixe sinestu dau beti. Jangoikoak arima gaxoak sutan garbitzen dituala geure siniskintzako egia da-ta, kistinau danak ezin ukatu leike.

Garbitokiko su ori zelakoa dan ez dakigu, baina benetako sua dala geure sinesteak dinosku. Arima gaxoak su orrek arrerazoten dautsen oinaze, neke, atsekabe ta mina baino besterik ez baleukie be, sutan egon bear izate ori, ez ete da neke latza, min andia ta oinaze izugarria? Errukarri izateko, zer besterik bear da? Ori bakarrik be, naiko ta lar ez ete da?

Bai, naiko da, geiagorik ez da bear. Baina gaur su ori alde betera itxirik, garbitokiko arimak zenbateraino errukarri dira beste era ta bide batez azaldu nai neuskizue; biotzetara jo nai dot, biotzari berba eragin nai dautset. Arima gaxoak Jangoiko barik, zorion barik, atsekabe ta nairgabez beterik dagoz. Atsekabe ta oinazea zer direan dakian biotzak, arima aek benetan errukarri dirala ezagutu ta autortuko dau. Neure itzaldi onetan orixe, arima gaxoak errukarri dirala, orixe azaldu ta adierazo nai neuskizue. Orretan asi orduko...

## I

N(eure) e(ntzule) m(aiteok), lurrean be atsekabe ta nekeak bein baino sarriago izaten doguz. Gure biotzentzat atsekaberik andiena, zein da? Maiteen dauana kentzea; maite dauan ona euki nai ta ezin euki, orren jabe izan nai ta ezin lortu izatea; maite dauan on ori barik bizi bear izatea. Gure biotzen oinaze ta atsekabeak ortixerik datoz. Eta ukatzen jakon ona andiago, on ori maiteago ta biotzaren atsekabea be andiago; biotza samindu ta urratzen dauan oinazea be sarkor eta biziagoa izaten da. Garbitokiko arimak Jangoikoa baino beste onik ez deuke, Jangoikoa baino besterik ez dabe maite. Arima gaxoen zorion bakarra Jangoikoa da. Jangoikoa ikusi ta Jangoikoagaz egotea baino beste asmu ta guraririk ez dauke; baina ain maite daben Jangoiko ori ezin dabe ikusi, ezin dabe lortu, ta ontasun utsa eta on guztien iturri dan Jangoiko barik egon bearrak atsekabez eta oinazez betetan ditu. Atsekabe au zelakoa dan orain aitu be ezin geinke. Zegaitik ez? Jangoikoaren azkenbako ontasuna ta arima gaxoak Jaunari dautsen maitasuna ezagutzen ez doguzalako; baina Jangoikoa ontasun andiagoa, arimen maitasuna samurragoa, ta atsekabea be beste ainbestean andi ta mingotsagoa izango dala edonok daki.

Zelako edo alako atsekabe edo larritasunen bat euki ez dauanik, gure artean inor ete dago? Eta ori, zegaitik izan ete da? Biotza atsekabez estu ta larri daukazuenean, Dabit igarleagaz itandu egiozue: «*Quare tristis es, anima mea et quare conturbas me?* Triste, itun<sup>383</sup> eta larri, zegaitik zagoz, ene biotza?, zegaitik nastau eta artegatzan nozu?». Bakea zegaitik kentzen daustazu? Eta biotzak erantzungo dautsue: «Neukan ona galdu dodalako edo nai neban ona ezin lortu izan dodalako; itun, artega ta larri orrexegaitik nago, kezkaz eta atsekabez orrexek nauko». Garbitokiko arima gaxoak be orixe dinoe. «Jangoikoa ta goiko zoriona lortu geinkezan, ori geure eskuan egoan; baina bear zan besteko ardurarik ez gendun euki, ta orain zorion barik, atsekabez, oinazez, itun eta larri gagoz».

## II

Garbitoki txiki bat mundu onetan be badaukagu. Buruauste ta elorrioak, oinaze ta nekeak, ezbear eta zoritxarrak gitxien uste dogunean etorten jakuz eta errukarri egiten gaitue. Baina ezbear guztiak ez dira bardinak; oinaze ta atsekabe batzuk besteak baino andiagoak dira, biotzean barrurago sartzen jakuz eta errukarriago egiten gaitue. Mundu onetan errukarrien eredu ta ispilu, nortzuk dira? Maite-maite izan daben on andiren bat ezbearrez galdu dabenak. Esaterako, erbestetua naiz espetxe edo presontegian dagoana, alarguna, umezurtza, orreik biotza atsekabez saminduta dauke-ta, benetan errukarri dira.

Erbestetua, zegaitik da ain errukarri? Bere senide, aiskide ta lagunak, bere aberriko eguzki, atsegin eta pozak indarrez kendu, itxiazo dautsez; bere erritik jaurti dabelako, gauzarik maite ta laztanenak galdu ditu. Galtze orrek biotzean zauria egin dautso, zauri orren atsekabea beragaz daroa eta orixegaitik errukarri da. Baina lurreko aberririk ederrena be zerukoaren ondoan, zer da? Gauza utsa. Ezer be ez! Erbestetuak bere aberrira etorriaz, zer irabazi daike? Sarritan gauza andirik ez. Batek baino geiagok neke ta lorrak, naigabe eta atsekebe barriak aurkitu dabez. Baina zeruan neke ta lorrik, ezbear eta negarrik ez dago; an guztia atsegin, zorion eta poza da. Garbitokiko arimak zeruko aberri eder aretatik erbestetuta dagoz, eta origaitik euren atsekabea be askozaz saminagoa da. Israeldar gaxoak Babiloniako erbestera eroan ebazanean, an Eufra-

<sup>383</sup> *Itun*: triste, goibel.

tes ibai- edo erreka-ertzean antziz, zotinez eta negarrez ezin ziran asper-  
tu be. «*Illic sedimus et flevimus, cum recordaremur Sion*. Siongo geure  
erriaz gomutetan ginala ibai-ertzean jesarrita, biotzeko atsekabea ager-  
tzeko aspertu barik negar eta negar egiten gendun» (Ps. 136, 1).

Garbitokiko arimak be, goiko Sion ederraz, zeruko zorion andiaz  
gomutarik Babiloniako atzerrian erbestetuta egozan israeldarren antze-  
ra, negar eta negar egiten dabe; baina zerua lurreko aberirik ederrena  
baino maitagarriago dan bestean, arima gaxoen negarrak be israeldarre-  
nak baino mingots eta saminagoak izango dira.

Espetxe edo presontegian, norbere atsekabeak baino beste lagun  
barik, lau ormen erdian, toki ilunean, luzaro egon bear izatea gauza itzal  
eta ikaragarria da. Olan dagoan gixaxoak bakartasuna ta naibageak ditu  
lagun; egunak eta orduak biotzean barriztetan jakozan oinaze eta atse-  
kabeen bidez neurtzen ditu, eta biotza zegaz alaitu ta poztu ez dauka-  
lako benetan errukarri da. Garbitokiko arimak be olantxe dagoz; Jaunak  
presontegi aretan sartu ditu eta nekearen nekez, atsekabearen atsekabez  
euren orbanak garbitu ta zorrak ordaindu edo kitatu arte, andik urteite-  
rik ez dauke.

Alarguna, benetan alargun bada, errukarri da. Biotzez maite eban  
laguna, bizitza osoan berariz maite izateko artu eban ezkontidea, erio-  
tzeak kendu dautso; bere lagun ori maiteago ta atsekabea be biotzean  
barrurago sartu jako. Errukarri da; baina garbitokiko arimak askozaz be  
errukarriago. Jangoikoaren grazian il danaren arimea Jesukistoren  
ezkontide da; emazteak senarragaz baino askozaz be ezkontza garbi,  
maitati ta laztantsuagoa egin dau. Ori dala-ta, egiz eta benetan esan dai-  
ke: «*Vivo ego, jam non ego, vivit vero in me Christus*. Bizi naz, baina egia  
esateko, ez naz neu bizi nazana, nigan Kisto bizi da-ta». Arima gaxoaren  
maite ta laztana Kisto da. Bere ezkontide maite orregaz egon nai leuke;  
baina orbanetatik garbitu arte Jaunak zorion andi ori ukatu egiten dau-  
tso-ta, alargun errukarria lez arima gaxoa be, bere ezkontide laztana  
barik atsekabe saminetan dago.

Umezurtza errukarri da. Maite eben eta berak be maite ebazan gura-  
soak galdu ditu. Zoritzar andia! Gurasoen magalpe beroan, landara gor-  
dina lez, azten zan ume gaxoa umezurtz egin da; arrezkero, gurasoen  
maitasun barik, maitasun orren argi ta bero barik, landarea negu gogo-  
rrean lez gelditu da. Errukarri da. Garbitokiko arimak be umezurtz  
dagoz; aen aita Jangoikoa da, aen ama A(ndra) Maria. Baina Aita ta Ama  
laztan orreikandik urrun dagoz eta egiz esan daikie: «*Pater meus et mater  
mea derelinquerunt me*. Neure aita ta amak be itxi egin nabe. Aek  
zeruan dagoz, ni zerutik urrun; neure orbanok garbitu ta neure zorrok  
osoro ordaindu arte, Aita ta Ama barik egon bear».

Arima gaxoak oinaze ta atsekabe orreik daroez; erbestean eta presontegian dagoz, alargun eta umezurtz dira. Noz edo bein andik urtete-ko itxaropena bai, itxaropen ori badauke; baina noz izango dan ez dakie, ta atsekabez beterik dinoe: «Erbestetuok geure aberrira, noz joango ete gara? Presontegi onetako atea, noz idegiko ete jakuz? Alargunok geure ezkontide maitearen zeruko jauregian, noz sartuko ete gara? Umezurtz gaxoak geure zeruko Aita ta Ama, noz ikusiko ete doguz? Aita ta Amaren laztana, betiko laztana, noz artuko ete dogu?». «*Quando veniam et apparebo ante faciem Dei?* Zerura noz elduko ete naz? Jangoikoaren aurrean noz agertuko ete naz?» (Ps. 41, 3). Zerutik zatozan mezularia, ara zoazanean, geure zeruko Aita ta Ama ikusteko egarri biziz gagozala esaiezu zerutarrai. Lurretik zatozan eta ara zoazan mandatari orrek, gure senide ta aiskideai euren laguntasun bearrean gagozala esaiozu. Guri laguntzera, noz etorriko ete dira? Aspaldi onetan itxaroten gagoz eta ez datoz, deiez gagoz eta ez dantzue, nekepean gagoz eta errukirik ez dauke; aiskideak itxi gaitue, senideak be guzaz aztu dira. Errukia eskatu ta inon errukirik ez aurkitzea nekepean egotea baino be atsekabe samina-goa da.

Antxina sineste bako bertsolariak esan eban: «Ilak bizitza onetatik doazanean, Lethe deritxon ibaiko urak edaten dabez eta ori eginaz emengo gauza guztietzaz betiko aztuten dira». Ori ipuina da; egia bestera. Ilak bizietzaz ez, baina biziok ilakin bai laster aztuten gara. Begietatik kendu ezkerro, biotzetik be laster kentzen doguz, gomutea be laster galtzen dogu. Eriotzako orduan agintza andiak..., «Zugaz inoz be enaz aztuko» ta olakoak; baina gero, zer? Ilobi gainean bedarra erne baino len, ilaren gomutea zimeldu ta igartu da. Olakoxeak gara! Gaxoaren azken arnasetan negarrak eta zotinak ugari; baina txilin-otsa ixildu ezkerro, negar eta aieneak be laster ixiltzen dira. Gorpua auts, aren gomutea be auts egiten da; beingo baten aztuten gara.

Orraitik be, iletzaz aztuten-ez dan, ilen alde otoitz egiten dauan biotz bat badago: Eleiza Amaren biotza. Eleizea ilen eta bizien Ama da, Ama errukiorra, garbitokiko arimen Ama samurra. Arima gaxoen zizpuru ta negarrak entzuten dauz Ama Eleizeak eta aen alde lureko bere semeoi dei egiten dausku. Soineko baltzez jantzita, abots itunez, biotza negarrez dinotse: «Ene seme errukarriok, zuetzaz ez naz aztu; zuen senide, aiskide ta lagunak aztu badira be, neuk dei egingo dautset; zuei laguntzera datozaala neuk esango dautset». Arima gaxoak euren buruak ezin lagundu dabez. Nekepean egon arren be, neke ori arindu ta gozatzeko zerbait egin al izatea pozkarri da; baina presontegian atsekabez egon eta atsekabe ori arintzeko ezertxu be ezin egin... Ori neke barria ta lengoa baino be atsekabe saminagoa da.

Itxasoak zear joazala, ontzia ondatu, itxas erdiko atxen batera igiri eldu ta an, ezetariko laguntza barik legokezan gixaxoak, beste itxasuntzi bat andik urretik igaroten ikusi ezkeru, zelako dei estu ta larriak ez ete leukioez egingo? Eta jaramon barik aurrera doazala igarri ezkeru, zelako atsekabe andiz ez ete leuskioe laguntasuna eskatuko? Dei estu ta larri aek entzun eta jaramon barik gixaxo aek bertan bera istea, zelako biotz-gogorkeria ez litzake izango? Arima gaxoak be bizitza onetatik bestera, lurretik zerura joazala bidean ondatu dira ta garbitokira jausi. Itxas erdiko atx bakarrean legokezan zorigaiztoko aek baino be egokera negargarriagoan dagoz; euren buruak ezin lagundu dabez eta bizitzako itxasoan zear gozanoi estu ta larri dei egiten dauskue, esanaz: «*O vos omnes qui transitis per viam, attendite et videte si est dolor sicut dolor meus*. Oi, zuek, bidean zear zoazenok, begiratu ta ikusi egizue gurea besteko neke ta lorrik, naigabe ta atsekaberik beste inon ete dagoan» (Lam. 1, 12). «Gure egokera onegaz erruki zaitzeze, ta laguntasun pizka bat emoiguzue.»

### III

Dei egiten dauskuezanok, nortzuk dira? Gizasemeak baino ez balira be, gureztat ezezagunak balira be, al izan eta ez laguntzea gogorkeria litzake; baina euretatik asko gure ezagun, aiskide, lagun eta senideak dira-ta, laguntza barik bertan bera istea eskar txarrik baltzena izango litzake. Geure senideak dira; sinestez geure anaiak, Eleiza baten semeak. Odolez be asko geure senide dira; geure asaba, guraso, seme-alaba, anai edo arreba. Geure odolak dei egiten dausku, geure odolak laguntasuna eskatzen dausku. Lurrean maite ginduzanak eriotzeak kendu euskuzean, negar saminez agur egin geuntsen maiteak orain erruki eske daukaguz. Gurasoak seme-alabai, seme-alabak gurasoai, senarrak emazteari, emazteak senarrari, nebeak arrebeari, arrebeak nebeari, aiskideak aiskideari errukia ta laguntasuna eskatzen dautsez, esanaz: «Zatoze, ene maiteok; antxinatik itxaroten naukazue; maite ninduzuela esan zeuntsen... Maitasun ori ointxe erakutsi egidazue; erruki zakidaze, lagundu nagizue».

Zinez arima gaxoai geure laguntza zor dautsegu. Benetan errukarri dira, errukia eskatzen dauskue. Sinestez geure anai, odolez be geure senide diralako, gure errukiaren eskubide osoa dauke. Garbitokiko arima gaxoen deia geure odolaren deia da. Entzun daigun eta biotz onez erantzun daiogun... Errukiorrak izan gaitzean, Jauna be errukior izan dakigun. Arima gaxoen alde zuzendu daioguzan geure eskariak; arimen



zorren orderako eskini daioguzan Jaunari geure egite on, geure lan, atsekabe ta nekeak. Biotz-biotzez eskatu daiogun arima gaxoentzat errukia, aen neke gogorren atsekabe saminen azken eta amaia; eskatu daiogun garbitokitik zeruko zorionera eroan daizala.

Arren, Jauna, gure eskariok entzun eta errukizko beso ori luzatu egizu; arima gaxoai presontegi aretako ateai degi egiezu, eta zeugana, maitte zaituen Jaunorregana, betiko atsedeen eta zorionera eroan egizuz. «*Requiem aeternam dona eis, Domine*. Errukior zarean Jauna, betiko atsedena emoeizu.»

## 2.1. BETIKO EGIAK

### 2.1.8. Zerurako bideak (XXII, XXIII)

## XXII

### JAUNARTZEA<sup>384</sup>

Gure Jauna zelan artu bear dogun Dotrinako liburutxuak dinoskue: arimea garbi ta gorputza baraurik dogula ta nor artzen dogun dakigula. Jaunak bizitoki garbi-garbia nai dau, augaitik, aurretiez geure oben edo pekatuak autortzen doguz eta onelan geure biotzak orbanetatik garbitu.

---

<sup>384</sup> Berbaldi honek gaztelaniaz idatzitako hurrengo atal hau dakar amaieran:

«Es indudable, a(mados) h(ermanos) m(íos), cuanto mejor y más perfecta sea nuestra preparación para la Sagrada Comunión, tanto mayor será el fruto que retiremos de ella. Dios se comunica al alma en la medida de las disposiciones que en ella encuentra; por esto, los santos que tan cuidadosamente se preparaban para acercarse a la sagrada mesa, al recibir al Señor veíanse colmados de gracias y dotados de una fortaleza sobrehumana que los sostenía en los más duros combates, proporcionándoles sus más grandes triunfos.

«Fe viva, firme esperanza, caridad ardiente, humildad profunda, con vivas ansias de recibirle en sus pechos; he ahí las disposiciones con que las almas santas se han acercado a la Sagrada Mesa. Fe viva, porque sin fe, como nos lo dice el Apóst(ol) S(an) Pablo, es imposible agradar a Dios; esperanza firme, porque Jesús sacramentado es la prenda más segura de nuestra salvación, *futura gloriae pignus*, caridad ardiente, para corresponder de algún modo al tiernísimo, dulcísimo y soberano amor que el Señor nos muestra en este divino sacramento, que por antonomasia se llama 'sacramento de amor'; humildad profunda, que al ver nuestra indignidad nos haga exclamar con el Centurión: «*Domine, non sum dignus...* Señor, no soy digno de que entréis en mi pecho, pero decid una palabra y mi alma será salva»; vivas ansias de recibirle, porque a pesar de nuestra indignidad y miseria, es tanta la bondad del Señor, tan grande su misericordia, tan paternal su amor, que no cesa de convidarnos a este sagrado convite: «*Omnia parata* —nos dice—; *venite ad nuptias*. Todo está preparado; venid a mis bodas»; «porque quiero comunicarme a vuestras almas y celebrar místico y espiritual desposorio con ellas».

«S(an)to Tomás, devotísimo de la S(anta) Eucaristía, en uno de los himnos que escribió en su honor, entre otras estampó estas bellísimas palabras: «*Fac me tibi semper magia credere, in te spem habere, te diligere*. Haced, Señor, que yo os crea cada día más, espere en Vos con más firmeza y os ame con más ardiente caridad». S(an)to Tomás, sapientísimo como era, humillábase ante el augusto Sacramento hasta quedarse anonadado en su presencia; pero atraído por las dulzuras de amor que el Señor prodiga en él, acercábase a recibirle cada día con fe más viva, más firme esperanza y más ferviente caridad. Imitémosle en esa su profunda humildad, pero sigámosle también en estos otros sentimientos de fe, esperanza y amor con que recibía la S(an)ta Eucaristía; despertemos nuestra fe, avivemos nuestra esperanza, inflamemos nuestro amor. Acerquémonos con estas disposiciones a recibir al Señor en el Sacramento y éste, como escribió S(an)to Tomás, será para nosotros *pignus futurae gloriae*, prenda de nuestra futura gloria».

Jaunari zor dauzagun lotsa ta itzal andiagaitik, gorputzak be baraurik egon bear dau, gauerditik aurrera ezertxu be artu barik.

Baina orrezaz gainera, nor artzen dogun be jakin bear dogula dino Dotrinako liburutxuak, eta ori dinoanean esan nai dau, geu nor garean eta artzera goazan Jauna nor dan astiro ta ondo gogartu bear dogula; geu zelako txiki ta ezereztzat garean eta gugana datorren Jauna zelako andi, altsu, jakitun eta aberatsa dan ondo pentsau eta gogoz ausnartu bear dogula esan nai dau.

Eta egiz, e(ntzule) mait(eok), Jauna geure biotzetan artzea, guretzat onuratsu ta osasungarri izango bada, Jaunak bere grazia ta mesedeak guri esku-zabalez emotea nai badogu, sinismen biziz, itxaropen sendoz, maitasun beroz, apaltasun andiz eta gurari zindoz artu bear dogu. S(an)to Tomasek orrelan egiten eban; bere sinestea biztu, bere itxaropen edo esperantzea sendatu, bere maitasuna ixioturik artzen eban Jauna, ta Jaun onak zeruko argiz argitzen eutsan bere gogoa, esku-zabalez emoten eutsan bere grazia ta atsegin zoragarritz bete bere biotza. «*Fac me tibi semper magis credere. In te spem habere, te diligere.*» Ene Jauna, zuga biziago sinestu, zutaz sendoroago itxaron eta Zu geiago maitatzeko indar eta laguntasuna emon egidazu.» Ori esaten eutsan S(an)to Tomasek bere Jaunari; biotz-biotzez eskatzen eutsan ori, ta Jaunak, bere aldetik, argi ta indar zerutarrez, gozotasun eta atsegin zoragarritz beteten ebazan S(an)to Tomasen gogo ta biotz andia.

Guk be orixe egin bear dogu: geure sinestea biztu, Jaungoiko andia, zeru-lurren Egile, Arduradun eta Jabe dan Jaun andia, ogi-irudipean estalduta, geure onerako geugana datorrela sinestu. S(an)to Tomasegaz batera esan: «*Credo quidquid dixit Dei Filius. Nihil hoc verbo veritatis verius.*» Jangoiko Semearen esana baino egi andiagorik ez dago-ta, berak esandako guztia zinez eta benetan sinesten dot. Jaunak esan eban: «*Panis quem ego dabo, caro mea est pro mundi vita.*» Nik emongo dodan ogia, neure aragia, neure gorputza da gizadiaren osasunerako». Augaitik, ogi-irudipean Jaunaren gorputza laster artuko dodala egiz eta benetan sinesten dot.

Gure Jauna on-ona ta errukiorra da, gure zoriona nai dau; augaitik, sinesteaz batera itxaropena be sendatu bear dogu. Eta geure maitasun utsez, geure onerako Altarako Sakramentuan ezkutaurik dagoan Jaun Andi ta Ongilea, nok ez dau maite izango? Beinola S(an) Pedrori lez, guri be itanduten dausku Jaunak: «*Diligis me?*» Neure odolez erosi zindudan arimatxuek, esaidazu: maite ete nozu?». Eta guk, biotzik badaukagu beintzat, S(an) Pedrok lez erantzun bear dogu: «*Tu scis, Domine, quia amo te.*» Jauna, nik maite zaitudala zeuk dakizu ondo». «Baina oraindik geiago, bero ta biziago maitatu nai zindukedaz eta onetarako,

arren, Jauna, lagun zakidaz. Zeorrek esan zendun: «*Ignem veni mittere in terram et quid volo nisi ut accendatur?* Maitasun-garra lurrean zabal-  
tzeko etorri naz, eta biztu ta ixiotu dadin baino zer besterik nai dot?». Ori esan zendun Jaunorrek, nire biotz epel au emen daukazu, osoro eskintzen dautsut, zeurea dozu ta maitasun-gar orregaz berotu, goritu ta txingar egizu.»

Jauna artzeko duin lurrean bizi gareanok inor be ez gara, baina Jaunak berak dei egiten dausku. Duin ez garealako, Euntariak<sup>385</sup> esan eutsana guk be apaltasun, umiltasunik andienaz esan bear dautsagu: «*Domine, non sum dignus ut intres sub tectum meum...* Jauna, zu nire biotzera etorri ta nire bularrean sartzeko ez naz duin; baina agindu egizu ta nire arima geixo au berealaxe osatuko da». Ori apaltasunik andienaz esan bear dogu; baina ori ta guzti be, Jaunak dei egiten dauskulako eskar onez eta uste betez urreratu bear gara Altarako Sakramentua artzera. Zelan ez? Jaunak nai dau; deiez daukagu, biotzeko atea idegi daiogula eskatzen dausku. Geure Jaunagaz sarri eskar gaiztoko izan gara, baina ori ta guzti be, Jaun errukiorrak geure biotzetara etorri nai dau; augaitik, Jauna artzeko guraria biztu ta biotzeko atreak osoro idegi bear dautsaguz.

Lurrean bizi zala, umeai, batez be ume errugabeai, abegirik onena egiten eutsen Jaunak, maitasunik andienaz artzen ebazan; bere ikaslai esaten eutsen: «*Sinite parvulos venire ad me*. Umetxuai nigana etorten itxi egiezue». Umeak, orain be Jauna deiez daukazue, beragana joateko dei egiten dautsue. Jaunak maite zaitue! Zuek be zeuen biotzetan maitasun andiz artu egizue. Zeuen biotzetara datorrenean, maite ta laztana emon eta beti antxe bizi dadila eskatu egiozue, esanaz: «Geure Jauna, geure Jaungoiko on maitagarria, beti zeureak zan gaizan gure biotzen jabe egin zaitue; bein ta betiko zeugandu ta zeuretu egizuz, eta zeugazko maitasun ederrean sendatu gaizuz». Onelan Jauna artu badaigu, berak esan ebana gudan beteko da: «*Qui manducat meam carnem et bibit meum sanguinem, habet vitam aeternam et ego resuscitabo eum in novissimo die*. Nire aragia jan eta nire odola edan dagianak betiko bizia dauko ta azken egunean neuk birbirtuko dot».

<sup>385</sup> Euntari: zenturioi.

## 2.1. BETIKO EGIAK

### 2.1.8. Zerurako bideak (XXII, XXIII)

## XXIII

### MEZA BARRIA

*«Quoniam tu es sacerdos in aeternum.»*

«Zu betirako abade zara.»

(Hebr. 7, 17)

N(eure) e(ntzule) m(aiteok):

Zeru-lurraren erdian, gizon errudun eta Jangoiko zuzenaren bitartean, gurutzean eskegita, besoak zabalik dago Jesukisto gure Jauna. Aita Goikoari, onen aserrea baretu ta baketzeko, bere neke-min, oinaze ta irabazi andiak eskini ta opaltzen dautsaz; gizonai, euren osasuna egiteko, erruki ta parkapena eskintzen dautsez. Esku bataz Aita Zerukoaren aserrea gelditu ta atzeratzen dau, besteaz gizonen gogo ta arimetara erruki ta itxaropena isuri ta zabaltzen ditu. Gizadi errukarria, sinestedun gizaseme guztiok, gurutzean dagoan Jaun orregana erruki eske zuzentzen gara; bere aurrean auspaz eskuak luzaturik parkeske gagokioz, eta erruki ta parkapen ori jadesteko, gure bitarteko ta betiko Abade dan Jaun onak bere eskariak gureakin bat egiten ditu, gugaz batera eskatzen dau. Bere bitartekotasun altsu, indartsu ta amaibakoaz, Aitaren aserrea ibitu, baretu, zerua idegi, zabaldu ta zerutik lurrera arimak garbitzen dituan parkapena onean eutsi ta iraunazoten dautsen grazia ta laguntasuna eratsi daroaz.

San Joan Apostoluak dinosku: «Ene semetxuak, oneik gauzok pekatu-rik egin ez daizuen idatzi ta esaten dautsuedaz; baina ori ta guzti be, norbait pekatuan jausi badaite, Zeruko Aitaren aurrean bitarteko ta laguntzailea daukagu Jesukisto Jaun zuzena. Gure utsegite, erru ta pekatuentzat erruki-bidea Jaun ori da, ta ez gureentzat bakarrik, baita mundu guztiaren pekatuentzat be. *Ipse est propitiatio pro peccatis nostris; non pro nostris autem tantum sed etiam pro totius mundi.*» Eta San Pau-

lo Apostoluak: «Guztioen alde, guztiok erosteko, bere burua eriotzara opaldu ta emon eban Jesukisto, Abade Nagusia, Jangoiko ta gizona, geure bitarteko dogu. Aurrerago be abade asko izan ziran –dino Apostoluak–, eta naitaez asko izan bear, betikoak izatea eriotzeak galerazoten eutselako; baina Jesukistok betikoa dalako, beti iraungo daualako betiko abadetzea dauko. Au dala-ta bere bidez Aita Jangoikoagana urrertzen diranak edonoz salbau edo zeruratu daikez, gure bitarteko ta laguntzaile izan eta gure alde eskatzeko beti bizirik, beti erne ta bizkor dago-ta. *Semper vivens ad interpellandum pro nobis*» (Hebr. 7, 23-25).

Gizon errukarri onei Jaunaren bitartekotasun orrek ez dausku inoz be utsik emongo. Zegaitik ez? Jesukisto betirako abade dalako: «*Eo quod maneat in aeternum, sempiternum habet sacerdotium*. Beti bizirik iraungo daualako betiko abadetzea dauko». Baina Jesukisto, betiko Abade nagusi ori, zeruetan dago, ta lurrean bizi diran gizonak emen be zerurako bidea irakatsiko dauksen abadiak bear dabez; augaitik, Jaunak here zereginari jarraituko eutsoen ordekoak autu ta ipini ebazan, bere lenengo ikaslak, apostoluak, eta onein ondorengo abadeak.

Orretarako Jaunak abadeai eskubide andiak emon dautsez, eta onein lanak zeru-goitik zuzendu ta ekarkor egiten<sup>386</sup> ditu. Abadeak Jesukistoren ordekoak dira, ta batez be iru egikizun andi daukez: Ebanjelioko egia irakatsi, altaran orbanbako oparia eskini, ta Jaunaren errukia biotzetara isuri. Euren zeregina bear dan lez betetako, ezpanetan egia, eskuetan oparia ta biotzean errukia erabili bear dabez: egia, gizonen gogo ta adimenak argitzeko; oparia, Goiko Jaunaren aserrea ibitu, baretu ta bere laguntasuna jadesteko; errukia, arimak orbanetatik garbitu te Jaunarentzat irabazteko. Neure itzaldi onetan orrexek iru gauzok azaldu nai neuskizuez. Orretan asi baino len:..

## I

«*Tu es sacerdos in aeternum.*»

«Zu betiko abade zara.»

N(eure) e(ntzule) m(aiteok), gure Jaunak esan eban bein baten: «*Ego sum veritas*. Egia neu naz». Au onelan izanik, Seme-Jangoikoa gizatu zanean, Jangoikoaren egia zerutik hurrera jatsi zan. Zetarako? Gizaseme-

<sup>386</sup> *Ekarkor egin*: ugaritu.

en gogo ta adimenak argitu ta zeruko bidea irakasteko; umetxuaren gogo samurra iratzartu ta argitzeko, amak bere erraietako umetxuari lenengo berbak belarrira esan eta lenengo gauzatxuak maitasunik andienaz irakasten dauksazan antzera, gure Jaunak be olantxe gizonen izateraino jatsi ta egirik bearrenak belarrira irakatsi eutsazan gizadiari. Baina Seme-Jangoikoa urte gitxitan baino ez zan egon lurrean, Belengo askatxutik gurutzera dagozan aldi ta bidea laburrak dira; gurutzeko eriotz ostean lur au betiko itxita, zerura joan zan Jauna. Lurrean bizi zala gizonai irakatsi eutsezan egiak aztu egingo ete dira? Jaunak hurrera ekarri eban argia, tximistearena lez unetxu baten argi egin ta gero itzali, amatau egingo ete da? Eta gizonak, lurrean bidazti diran eta Jaunak zerurako egin dituan gizonak, aurrerantzean argi barik, ilunetan ibili bearko ete dira? Ori ezelan be ezin izan daiteke.

Gizonai zeruko bidea irakasteko, betiko zorionari dagokiozan gauzetan gizonen gogoak argitzeko etorri zan lurrera Jauna. Orretarako etorri zan ezker, munduan gizonik dagoan bitartean Jaunak irakatsitako egiak be argi egin bear dabe; au dala-ta, egirik andi ta bearrenak bere Ebanjelioan itxi euskuzan eta munduaren azkeneraino egi oneik erriai irakasteko ardurea bere apostolui ta onein ondorengo abadeai emon eutsen. «*Sicut misit me Pater et ego mitto vos. Aitak bialdu ninduan lez, nik orain zuek bialtzen zaituet.*» «Zoaze ta enda guztietako gizonai irakatsi egiezue.» Zer? «Nik zuei irakatsi dauksuedazan gauza guztiak sinestu, egin eta beteten, orixe irakatsi egiezue. *Docentes eos servare omnia quaecumque mandavi vobis.*»

Arrezkero lenengo apostoluak eta gero onein ondorengo abadeak beti ta toki guztietan Jaunaren Ebanjelio eta bere legea irakatsi dabez. Beste jakitun eta irakasle batzuk aizea norantz, eurak be arantz ibili dira. Sarri, errien txaloak irabaztearren, entzuleentzat gogokoen ziran gauzak azaldu ta irakatsi dabez; gaur gauza bat, bear beste bat irakasten be ibili dira, gora ta txaloak irabazteko ondoen eritxoenez. Abadeak, ez; abadea egiaren gizona da, Ebanjelioko egiari zor jako, ta erriai atsegin izan naiz ez izan, beti ta edonon egi ori irakatsi bear dau. Ebanjelioko egia irakasteko eginbearra dauko; baina egi ori ezetan be aldatzeko eskubiderik ez dauko, augaitik, ogei gizaldi oneitan abadeak lur zabal guztian beti gauza bat eta berbera irakatsi dabe.

Guzurra aldakorra da; egia beti da bat, ezin aldatu daiteke. Augaitik, agintari ta erriak euren alde naiz aurka egon, abadeak beti ta edonon Jaunaren Ebanjelioa ta legea ezetan aldatu barik irakatsi dabez. Orretarako sarri askotan euren odola isuri ta bizia galdu bear izan dabez, baina egiari zor jakoz eta bizia galdu be naiago egia aldatu baino. Eta ain zuzen be orixegaitik, Jaunaren Ebanjelioa ta legea ezetan be aldatu barik

irakatsi dabezalako, orixegaitik erriak abadeen irakatsiok aintzat artu dabez.

«*Pro Christo legatione fungimur* –esan dautse erriei–. Jesukistoren ordekoak gara.» «Jaunak irakatsi ebana, orixe irakasten dautsuegu. Zinez geure eritxiak irakasten bagenbiltz, guri jaramonik egin ez arren, gauza andirik ez zeunkie galduko; baina gure aoz irakasten dautsuena Jauna bera da-ta, gure irakespenok Jaunarenak diralako, aintzat artu bearrean zagoze.» Jaunak esan dau: «*Qui vos audit, me audit; qui vos spernit, me spernit*. Zuei entzuten dautsuenak neuri entzuten daust, eta zuek ezesten<sup>387</sup> zaituenak neu be ez nau aintzat artzen». Onelan ba, abadeak Jesukistoren Ebanjelio ta bere legea irakatsi bear dabez, eta Jaunaren izenean irakasten dabezan gauza orreik gizon eta erriak be entzun eta ikasi, egin eta bete bearrean dagoz.

Aspaldian aurrerapide andiak egin dirala-ta, jakituriaren argia aurrez zabaldu dala-ta, gaur egunean Jaunaren Ebanjelioa antxina baizen bearra ez dala dinoe ameslari batzuk. Lurreko gauzetan aurrerapideak egin doguzala inok be ezin ukatu daike; baina gauzetan egin diran aurrerapideok gorabera, gizonak euren izatean be aurreratu ete dira? Aurrerapide andirik egin dabenik ez dirudi. Gizonarentzat aurreratzea, jakitunago, zuzenago, zintzoago, orniduago, berba baten ohea izatea da. Gizonak obetu ete dira? Lengo gizaldikoak baino oraingo onetakoak obak ete gara? Alkarrentzat lotsa ta itzal geiago ete daukaguz? Aurrekoai kalterik ez egiteko ardura geiago? Alkar maiteago ete dogu? Sendi edo familiak obeto ete dabiltz? Erriak be obeto? Geure asabak baino obak gareanik ez neuke esango; aek be zinez euren utsak eukezan, baina guk be geureak daukaguz.

Geure biotzetan grina txarrak daukaguzan arte, aurrerapideok gorabera, gizartean uts eta okerrak beti izango dira, ta gizon eta erriai Ebanjelioko egia ta Jaunaren legea irakastea be bearrezkoa izango da. Aurreratuentzat daukaguzan errietan be, gizonak sarri askotan alkar ezin artu dabe: basapiztien antzera alkarri erpe zorrotzak erakusten dautsez, nok nor iruntsiko dabiltz; goikoen andikeri ta arrokeria, bekoen gorroto ta amurrua, guztien atsegin-naia dirala-ta, anai izan bear leuken gizonak txakur-katu eginda dabiltz, alkar iruntsi bearrez... Ori ta guzti be, ameslari batzuk Ebanjeliorearen preminarik ez dagoala dinoe. Ori dinoenak itsuak ez balira, olakorik ez leukie esango. Zerua irabazteko ezeze lurrean bakez biziteko be, Ebanjelioko egia ta Jaunaren legea gizartearentzat

<sup>387</sup> *Ezetsi*: gutxietsi, mespretxatu.



bearrak dira ta izango be bai, mundua mundu dan arte. Augaitik, abadeen zeregina, erriai Ebanjelioko egia irakasteko dauken zeregina be, betikoa da ta gizonakin baino ez da amaituko.

## II

Ezpanetan egia, eskuetan oparia erabili bear ditu abadeak. Jangoikoari opariak egitea gizadi osoaren legea da. Mundua mundu danik aona, zelako edo alako opariak erri guztietan egin jakoz Jaunari. Gizonok errudun gara, gaiztakeri asko egiten doguz; gaiztakeri oneik dirala-ta, Jaunari gugaz aserratzeko bidea emon dautsagula igarten dogu. Jaunaren aserre ori ibitu, baretu ta baketzeko, opariak bearrak dirala erri guztiak ezagutu dabe: «*Sine sanguinis effusione non fit remissio* –dino S(an) Paulo Apostoluak–. Odol-isurte barik ez dago parkazinorik». Baina pekatuaren bidez Jaunari egiten dautsagun iraina Jaunaren aldetik amaibakoa dalako, ori dala-ta Jaunari dautsagun zor andia ordaintzeko, gure opariak ez ziran naiko, ta naiko ez ziralako, gure zor ori kitutu ta ordaintzearren, Jesukisto gure Jaunak, Jangoiko ta gizonak, bere buru ta bizia- ren oparia egin eban gurutzearen besoetan. Orain ba, gurutzeko opari ori munduaren azkeneraino gomutau ta barriztetako, Altarako Sakramentu gurgarria<sup>388</sup> ipini eban Jaunak, eta orretarako bere ikaslai ta onein ondorengo abadeai ogia bere gorputz eta ardao bere odol biurtu ta egiteko eskubidea emon eutsen, esanaz: «*Hoc facite in meam commemorationem*. Nire gomutaz zuek be beste onenbeste egizue».

Abadea ez da aingeru, ez gitxiago be, bere uts eta argaltasunak euki daikez eta daukaz; baina egundo bada ta, altarara doanean, Jesukistoren ordeko da, Jaunaren izenean doa. Meza erdira ezker, Jaunaren zereginetan diardu eta Jaunaren berbak Jauna bera bailitzan esaten ditu: «Au neure gorputza da –esaten dau–. Au neure odol-edontzia da, lege barri ta betikoaren odola, sinismen ezkutukia, pekatuen parkazinorako zuen eta beste askoren alde isuriko dodan odola». Meza erdira ezker, abadearen aoz Jesukistok berba egiten dau. Ogia bere gorputz eta ardao bere odol Jaunak biurtzen ditu, eta Kalbarioan gurutzearen besoetan egin eban antzera, mezatan be abadeen eskuz Aita Jangoikoari barriro eskini ta opaltzen jako, Aitaren aserrea baretu ta bere erruki, mesede ta graziak arimetara erasteko. Utsegite, erru ta pekatuak, geiago edo gitxiago, beti

<sup>388</sup> *Gurgarri*: adorarri, maitagarri.

izango dira-ta, mezako opari andi, garai ta gurgarri onen preminea be beti izango dogu.

Jesukistoren ordeko dan abadeak Jaunagaz batera bere buruaren oparia be egin bear dau, Jesukistoren ordeko dan lez Jaun onen irudi be izan bear dau-ta. Jaunak zeruko bidea irakatsiaz gainera, gizonen osasuna egiteko bere burua ukatu ta, lotsari, atsekabe ta neke andiak artu ta eroan ebazan; gure pekatuen parkapena jadesteko, gurutzearen besoetan il zan. Abadeak be pekatuen parkapena ta Jaunaren errukia jadesteko zeregina dauko; augaitik, bere arloan datorkiozan neke ta atsekaberen gurutzean bere burua josi ta Jaunari eskini ta opaldu bear dautso, bere lan eta zereginak goiko indarrez indartu ta ekarkor egiteko, Jaunaren errukia ugariago jadetsi ta gizonen biotzak Jaunarentzat irabazteko.

Pekatuaren parkapena ta Jaunaren errukia jadesteko, norbere burua ukatu, ilduratu<sup>389</sup>, eta laztasun eta gurutzeak maitatzea lakorik ez dago. Au dala-ta, abadeak gurutzea maite izan bear dau, ta gizon eta erriai be orixe irakatsi bear dautse: «Grina gaiztoak ezi, zeuen buruak ukatu ta pekatuen penitentzia egizue, bestelan guztiok galduko zarie. *Si poenitentiam non egeritis, omnes similiter peribitis*» (Luc. 13, 3). Abadeak sarrinen orixe esan eta irakatsi bear izaten dabe. Ori dala-ta, mundutar munduzaleak abadeen arerioak izan oi dira; abadeai gorroto dautse, ikusi be ezin dabez, betiko kendu nai leukiez. Kistinau izena daroen askok be abadeen itz, esate ta irakaste orrei gogorregiak deritxoe ta beinolako Jaunaren ikasle batzugin esan daroe: «*Durus est hic sermo, et quis potest eum audire?*» Izketa ori gogor eta latza da ta, nok entzun daike?; eta abadeen esanai jaramon gitxi eginaz, abadeakandik al bestean igesi dabiltz. Onelan abadeak, euren aleginak sarri alperrekoak izaten diralako, nalgabe ta samintasunik asko izaten dabez; baina ori ta guzti be, atsekabekok Jaunari eskini, indar barriak artu ta euren zereginari jarraitu egin bear dautse, Jaunaren naia ta agindua orixe da-ta.

### III

Laztasun, ildura<sup>390</sup> ta penitentziak naitaez egin bear dirala irakastea baino beste zereginik ez ete dauke abadeak?

Bai, ezpanetan egia, eskuetan oparia ta biotzean errukia erabili bear dabez. Agiraka dagienean be, errukia egiteko asmuz; errukia guztientzat

<sup>389</sup> *Ilduratu*: mortifikatu, zigortu.

<sup>390</sup> *Ildura*: mortifikazio, zigor.

eta batez be pekatari damutuentzat. Jaunak esan eban: «Zuzenen bila ez naz etorri, pekatarien bila baino». Pekatariekin batzandu zan, pekatariekin jesarri zan maian, emakume ezkontza-ausleari parkatu eutsan, eta samaritarra irabazteko bide luzeak egin ta gero, jateko be asti barik ekin eutsan Jaunak: «Osasun onean dagozanak –zinoan– ez dauke osatzaile edo mediku bearrik, geixorik dagozanak baino». «Eta ni ariman geixorik dagozan pekatarien bila etorri naz. Nekepean zabilzanok, pekatuen astunpean zagozanok, erdue nigana ta biotza estutu, barrena larritzen dautsuen astun ori neuk arinduko dautsuet. *Et ego reficiam vos.*»

Baina pekatu ta pekatariak beti izango dira, eta Jaunak zeruetara igon baino len bere ordeko egin ebazan abadeai arimak osatu ta pekatuak parkatzeko eskubidea be emon eutsen, esanaz: «Artu egizue Espiritu Santua, zuek parkatu dagizuezan pekatuak, parkatuak dira; pekatuen lotzaiketatik askatu dagizuena, zeruan be askatua izango da. *Quorum remisistis peccata, remittuntur eis.*»

Maitasunik samurrenaz, errukirik andienaz artu ebazan Jaunak pekatari damutuak, eta abadeak be, Jaunaren antzera, aitaren errai bigunez, abegi onez, erruki andiz artu bear ditu. Dongaro hizi izan dan gizona bere dongekeriez damuturik autortzera doa. Abadeari dinotso: «Jauna, ni pekatari andia naz; damututa nator, baina inon diran gaiztakeriak egin dodaz eta niretzat errukirik ete dago?». Abadeak dinotso: «Ene semea, errukiaren auzitegira etorri zara. Jaunaren errukia zure gaiztakeriak baino andiagoa da; ez zaite bildurtu. Zeure gaiztakeriok garbaiz eta damuz autortu egizuz, eta bein betiko guztiok parkatuko jatzuz». Autor-entzuleak maitasunik andienaz laguntzen dautso, bere pekatuok autortzen ditu ta biotza nasai ta bakez gelditzen jako; pekatuen kezka txarra biotzetik kendu ta, damu ta itxaropenaren argi ederra baino besterik ez jako gelditu.

Abadeak maitaro dinotso: «Zeure pekatuak jaurti dozuz, Jaunak be aztu ditu. Ain erruki andiz parkatu dautsuzan Jaunari zor andia dautsazu; eskar onez erantzun egiozu. Aurrerantzean arduraz ibili zaite, barriro pekatuak ez egiteko, arriskuetatik aldendu zaite ta au edo beste gauza on egizu». Gero Jaunaren ordekoak bere eskua jaso ta gurutzea eginaz dino: «*Ego te absolvo a peccatis tuis...* Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, zeure pekatuetatik neuk askatzen zaitut». Errudun etorri zan gizona, bere orbanetatik garbituta jagiten da; arimako bakea aurkitu dau, barrena nasai dauko, biotza pozez beterik eta, Jaunak dinoskunez, zeruko aingeruak be poztu egiten dira, gizon pekataria Jangoikoaren seme egin dalako: «*Ita gaudium erit in coelo super uno peccatore poenitentiam agente*» (Luc. 15, 7).

Ona emen abadearen zereginik nagusienak: ezpanetan egia, eskuetan oparia ta biotzean errukia dituala, arimak Jaunarentzat irabazi ta

zerura eroateko, gogoz lan egin bear dau, bere ordeko egin dauan Jaunak emon dautsan eginena orixe da-ta.

Onenbestegaz amaitu dot. Orain abade barriari, zertxubait. Abade Nagusi, beste guztioen buru Jesukisto da; baina Jesukistok bere ordeko egin zaitu, bere eskubideak emon dautsuz eta Jaunak lurrera ekarri eban zereginari jarraitu bear dautsazu: «Abade zara, betiko abade. *Tu es sacerdos in aeternum*». Jesukistoren ordeko zareanorrek, Jaunaren irudi be izan bear dozu: ezpanetan egia, eskuctan oparia, biotzean errukia erabili bear dozuz; Ebanjelioko egiaz gizonen gogoak argitu, mezako opariaz Jaunaren aserrea baretu ta errukirik andienaz arimak bilatu ta Jaunagana ekarri bear dozuz.

Gurutzean il zan Jaunaren ordeko zara-ta, gurutzea maite izan bear dozu; zeure burua bizitzako neke ta atsekabeen gurutzean josita, Jaunari eskini bear dautsazu. Noz? Beti, baina batez be gaur, meza barri onetan, bein eta betiko. Zeure biotz ori idegi, zabaldu egiozu Jaunari; gogo ta biotzaren jabe egin dakizula eskatu egiozu... Orretarako inozko erretirik<sup>391</sup> onena, egokiena, auxe dozu.

Laster zure eskuz Jaunak gurutzeko oparia egingo dau... Orduan, maite dozuzan guztietzaz gomutau zadiz; zeure guraso, senide, aita-amabitxi, aiskide, lagun eta erritar guztien alde eskatu egiozu. Meza barri onetan aurkeztu gareanok orain Jaunaren errukia ta gero betiko zoriona lortu ta jadetsi daigun.

<sup>391</sup> *Ereti*: abagune, era.

## 2.2. JESUKRISTO<sup>392</sup>

### 2.2.1. *Jesusen Bihotza* (XXIV, XXV, XXVI, XXVII, XXVIII, XXIX, XXX)

## XXIV

### JESUSEN BIOTZA

*«Praebe, fili mi, cor tuum mihi.»*  
«Emoidazu, ene semea, zeure biotz ori.»

(Prov. 23, 26)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Amasazpigarren gizaldia bere azken alderantz joian. Aor, Frantziako zoko baten, Paray-le-Monial deritxon uri txikian, lekaimetxe<sup>393</sup> edo konbentuko bakartadean bizi zan emakume zintzo, garbi, biozbera, on eta apal bat, Jaunagaz artu-emon kutun eta barru-barrukoak eukazana. Munduan bizi izan zan bitartean Margarite Alakoke zan bere izena, baina mundua itxita, Jaunari bere burua osoro opaldu eutsonek aurrera, Margarite Mariaren izena artu eban. Jaunak gizonai izan dautsen maitetasuna gogoratu, maitetasun samur orixe gogoz ausnartu ta bere biotzari Jaunaganako maitetasuna erasotea, ori zan bere zereginik atsegintsuena, orretan aurkitzen eban bere poz eta atsegini andiena, bere biotzeko asetasuna<sup>394</sup>.

Egun baten, agertu jakon gure Jauna ta bere biotz laztantsua, maitetasun-sugarretan erreten lez egoan biotza erakutsirik, esan eutsan: «Ona emen nire biotz au, gizonak ainbesterainoko maitatu dituan biotz au; bere maitetasunaren ezaugarrikerik ederrenak gizonai emotearren egin alak egin eta ezer egin barik itxi ez dauan biotz au, ona emen». Eta erakutsi eutsan bere biotza, su-garrak eriozala, bai; baina zauritua, arantzaz inguratua ta kurutzea bere gain ebalá, eta esan eutsan: «Eskar onaren ordezt,

<sup>392</sup> Bigarren eskuizkribu-liburuari jagokoz gai hau dakarren berbaldiak.

<sup>393</sup> *Lekaimetxe*: moja-komentu.

<sup>394</sup> *Asetasun*: poztasun, gogobetetasun.

gizasemerik geienak eskar txarragaz erantzuten dauste. Neure eleizan, neure aurrean, neu agirian nagoala be, asko ganora, lotsa ta itzal barik egoten dira; beste askok irri ta ixeka egiten dauste, ta onelan, geienak nire maitetasunari, batez be Altarako Sakramentuan darakutsedan maitetasunari, oztasun andiz eta eskar baltzez erantzuten dautse».

Au esan eta gero, iragarri eutsan, Gorputz-eguneko zortziurrena igarota, lenengo barikuan bere Biotzaren Jaia nai ebala, egun orretan bera zintzoro maite dabenak, emon egiozan batez be aurreragoko zortzi egunetan bere maitetasunari egindako irainen kitugarri ta ordainak; bera zintzoro maite daben biotzak euren egite on eta laztantasunaren ezau-garriakaz ordaindu egiozan zelanbait beste askoren oztasun eta eskar txarraren zorrak. Margaritek uste eban bera aorretarako txikiegi, ezereze-gi zala, baina Jaunak esan eutsan: «Zuk ez egiozu orreri jaramon; zu txikiago, apalago, ezerezeago ta ainbat obeto ezagutuko dabe neu naizala arazo aonetan nabilana, neuk ipini dodala zeregin onetan neure eskua». Eta esan eta egin, Jaunak arazo au bere ardurapean artu eban eta urte gitxi barru Eleizeak onetsi ta ipini eban Jesusen Biotzaren jaia, eta gauza jakina, Eleizako buruak onetsi, ontzat emon ebanean, ortzean eguzkiaren argia zabaltzen dan lez, zabaldu zan Eleiza guztira Jesusen Biotzaganako oneraspen<sup>395</sup>, zaletasun edo debozinoa; eta gaur egunean lurraren lau egaletan ezagutu, maitatu, aintzaldtu ta goratzen dabe kistinau-erriak Jesusen Biotz laztantsu ta maitakorra.

Zabaldu da, ba, kistinau-errian Jesusen Biotz eder origanako oneraspena; baina obeto litzake askozaz geiago zabaldu ta biotz guztietan sus-trai sakon eta sendoagoak botako balitu, oneraspen au dan ezkeru gure maitetasunaren okerkeriak zuzentzeko neurririk egokiena ta gure gogo edo arimen osasun betiko lortzeko hiderik errez, lau ta onenetarikoa. Auxe da arratsalde aonetan azaldu ta adierazo gura neuskizuena.

Bitarteko ipini daigun A(ma) Maria, esanik biotzez aingeruaren agurra.

## I

*«Praebe, fili mi, cor tuum mihi.»*

«Emoidazu, ene semea, zeure biotz ori.»

N(eure) entz(u)le) mait(eok), batek baino geiagok esan daroe Jesu-sen Biotzaganako oneraspena oraintsukoa dala, gauza barria. Beti elei-

<sup>395</sup> *Oneraspen*: debozio.

zan sartuta dagozenez, euren arimako naikeri guztiak ase ta bete nai dituenentzat, oneraspen edo debozino on eta egokia; baina beste enparauentzat, gauza barrizaleak ez diranentzat, antxinako zarrak be naiko ta lar dirala, oneraspen, debozino barriak ikasten ibili baga. Batzuk au esaten dabe eta Jesusen Biotzaganako debozino ori eurentzat ez dala-ta, aintzat be ez dabe artzen, entzuten dabenari jaramonik be ez dautse egi-ten.

Baina au uste dabenak oker dagoz. Jesusen Biotzaren Jaia, bai, oraintsukoa da, baina bere biotz samur eta laztantsu origanako oneraspena, ez; au Eleizea baizen antxinakoa da, Eleizearen lenengo egunetarik geiago, beti, aldi guztietan, kistinauak ezagutu ta laztandu, onetsi, bedinkatu, goraldtu ta gurtu dabelako Jesukisto gure Jaunak izan euskun maitetasun zintzo, eder, samur eta laztantsua. Orain ba, Jesusen Biotza dinogunean, ez dau inok aitu bear biotz utsa, biotza soilik, bera bakarririk, beste ezer barik adierazo nai dogula, Jesusen Biotza Jaungoikoarena da ta augaitik, gurgarri, omengarri baida. Baina biotz done origanako oneraspena irakasten dogunean, baidakigu Jaunak agertu euskun maitetasun guztiaren bizitoki, biotz orixe izan zala, antxe sortu, antxe bizi ta andixerik urten zala Jaunak bere bizitza eta bere eriotzan agertu euskun maitetasun andi, sakon eta zabala, muga ta ertzik ezagutu ez eban maitetasuna. Augaitik, Jesusen Biotza aitatzen dogunean, bere maitetasuna adierazoten dogu; Jesusen Biotzagazko oneraspena irakasten dogunean, bere maitetasunagazko oneraspena irakasten dogu.

Jaunak gure alde, gure onerako jasan edo igaro egin guztiak bere maitetasunean dauko bere asikera ta sustraia, maitetasun ori izan zan ezkerre gure alde egin eban guztia jasan eta eginazo eutsana. Au Eleizan beti ezagutu da; augaitik, aldi guztietan onetsi, bedinkatu, aintzat artu, laztantsu gogoratu ta itzal andiz gurtu ta goratu da Eleizan gure Jaunaren gizonagazko maitetasuna. Eta ez al da egia maitetasuna gomutau ezkerre, bere bizitoki dari biotza ezin aitzu leikela? Ez uste izan, ba, oneraspen au bere unean, daukan gauzarik ederrenean, ez uste izan oraintsuko barria danik, antxinako zarra da-ta.

Bein irakurri neban nunbait gogamen eta esakun auxe: «Gizadia, mundua geien maitatzen dauanarena izango da; maitetasunik geien erakusten dautsanak irabazi ta beraganduko dau mundua, gizadia». Au irakurri neban eta neure artean ninoan: «Esakun aonek egia dirudi, antxina esan zan, ba: "*Amor omnia vincit*; ez dago ezer maitetasunak esi, bigundu, menpetu ta irabazten ez dauanik». Egia dirudi, ba, baina bere egiantz guztiagaz be ezin izan daiteke egia. Dirudian lez egia balitz, oraingo antxinatik zan Jesukistorena gizadi osoa, beste inok be agertu ez dautsalako Jesusen Biotzak baizen maitetasun eder, zintzo, garbi,

onurakor eta mesedegarria. Baina gizadiak biotzez oso-osoan Jaunarena izateko, aldakuntza andia egin bearke dau ondino; orain arte ez da izan eta aurrerantzean be, aldakuntza andi ori egin ezik, ez da izango.

Gizadia bai, berari maitetasunik geien erakutsi dautsanarena izan bear leuke; izan bear leuke, baina ez da izaten, umeak lez uste daualako bere kasketaldi<sup>396</sup>, naikeri, grina ta gurarituak ase ta betetan isten dautsanak, axek dautsala maitetasunik andi ta zintzoena. Maitetasuna ondo nai izatea dan ezkeru, maitetasunik andiena izango da onik geien egiten dauskuna, onurarik andiena dakarskuna; baina umeak edo ez dau inoz ezagutzen orrelako maitetasuna, edo ezagutzen dauanean beranduegi izaten da. Umeari bere naikeri ta kasketaldiak betetan isten dautsanak baino kasketaldi orreik eragotzi, galerazo ta bide zuzenetik daroanak mesede andiagoa egiten dautso, on andiagoa dakartso ta augaitik, maitetasun zintzoagoa dagertso edo agertzen dautso. Baina umeak ez dau ori ezagutzen, ez ditu gauzak orrelan aitzen eta uste izaten dau bere kalterako izan arren be, uste izaten dau bere naikeri ta gurarituak asetan isten dautsanak, berak nai dabena egitea laketuten<sup>397</sup> dautsanak askoz be geiago maite dauala, bere naikeri ta kasketaldi orreik ukatzen dautsozanak baino. Gizona be, gauza askotan, ume lez izaten da, sarri askotan ez dau ezagutzen zein dan beretzat onik andiena. Umeak lez gizonak be bere kasketaldi, bere grina ta naikeriak daukaz eta oneik betetan itxi ezik, maitetasunik andiena be ez dau aintzat artzen, eta umearen antzera berak be edo ezagutzen dau beranduegi edo garai onez ezagutzera eltzen bada, aitzu egiten dau arinegi, lasterre-gi.

Orain ba, Jesukisto gure Jaunaren maitetasuna, askorentzat Eleizearen lenengo egunetatik ondo ezagutua izan arren, beste askok ez eben inoz aintzat artu, eta amasazpigarren gizaldi erditik bere azkeneraino, maitetasun ori ondoen ezagutu bear ebenen artean be, inozkorik geien ilundu zan bere ezaguerea; Jansenio ta bere jarraitzaileen irakaspentak, neguko izotzak lurra lez, otzitu zituen kistinau askoren biotzak; Jaunagazko lotsa ta itzala maitetasuna baino obe zala-ta, itzalaren izenagaz biotzen jaube egin zan sorgortasun eta oztasunik andiena. Eta orduantxe Jaunak agertu ta erakutsi eban bere Biotza; Eleizeak onetsi, ontzat emon eban Jesusen Biotzaganako oneraspena eta geure begien aurrean ipini euskun biotz laztantsu orren irudia, bere maitetasunaren iturri, ezaugarri ta bizitoki dan biotz ori geure begiakin ikusirik, obeto barren-

<sup>396</sup> *Kasketaldi*: setakeria.

<sup>397</sup> *Laketu*: atsegin eman.



du zedin gure biotzetan bereganako eskar ona ta berbiztu ta barriztau zedin Eleizako seme-alaben artean, Jaunak gizonai izan dautsen maite-tasun andi ta gartsuaren oroimen edo gomuta laztangarri ta onurakorra. Aonetarako ipini jaku geure begi aurrean Jesusen Biotzaren irudia; aonetarako irakatsi jaku biotz maitati eta laztantsu origazko oneraspena.

Esan lei, ba, Jaunak, bere biotza agertu ebanean, Eleizearen seme guztioi esan euskula: «Nire eskar eta mesedeak gogoratzen dozuzanean, nik, zure alde zere egin nebazan gauzak eta igaro nebazan atsekabe ta neke izugarriak, nire bizitza eta eriotzea gogoratzen dozuzanean, begiratu egizu, ene semea, begiratu egizu neure biotz aonetara ta ezagutu egizu egin dautsudazan mesede andi orreik, biotz-biotzez egin dautsudazala; ezagutu egizu zeure onerako egin nebazan gauzak eta jasan nebazan neke guztiak, maitetasun utsez egin eta igaro nebazala; eta biotzik badaukazu, maitetasun utsez egindako mesedeak zeure biotz orretan ikutzen badautsu, ezagutu, autortu, onetsi, bedinkatu, laztandu ta goraldtu egizu ainbeste mesede egin dautsuzan nire maitetasun au ta maitetasun orren iturri ta bizitoki izan zan nire biotz au».

Jaunak, gure biotz oneik irabaztearren, orain azkenaldi onetan, bere biotza agertu dau, ta bere biotza agirian, bular gainean dabela, jo dau gure biotzeko atea, Zeruetako Jauna, eskeko egin da ta bere maitetasunaren orde zere geure maitetasuna, bere biotzaren orde zere geure biotza emon daiogula, ori da Jaunak eskatu dauskuna: «*Praebe, fili mi, cor tuum mihi*. Emoidazu, ene semea, emoidazu zeure biotz ori». Eskari biguna, eskari samur eta laztantsu geure Jaun on eta maitatiak egiten dauskun eskarial! Geure aonen aurrez aur bere biotza ipinita, jo ta bultzetan dau gure biotzeko atea eta eskatzen dausku geure biotz barruan sartzen eta antxe biziten itxi daiogula! Bere biotza erakutsirik, esaten dausku ba: «Aona emen, zugazko maitetasunaren bizitoki izan zan nire biotza, orain be zugaz eta zure zorianagaz beti amesetan dabilan nire biotza; begiratu egiozu; maitetasun utsa da-ta, laztandu egizu eta beronek izan dautsun maitetasunaren orde zere, zeure biotz ori emoidazu. *Praebe, fili mi, cor tuum mihi*».

Urrinetatik dator Jauna, gure biotz aonen bila; bideko autzagaz ezainduta dakar bere soinekoa, osoro zaurituta bere gorputza, untzez zilotuta bere esku-oinak, burdainez idegita bere bularra. Golgota menditik jatsi da, agirian dakar bere biotza ta biotzean dakar, gure betiko osasuna egitearren, igaro zituam atsekabe ta neke guztien oroimen edo gomutea; biotz ori da, guri betiko bizia emotearren, eriotzarik gogorrenaren mingoztasuna iruntsi ebana. Biotz ori da, guri betiko bizia emotearren, eriotzarik gogorrenaren mingoztasuna iruntsi ebana; biotz ori da, gure Jauna kurutzean josi eban maitetasunaren iturri, bizitoki, agerpen

eta ezaugarria. Gure aldez ainbeste egin eta gero, Jaunaren Biotz orrek egiten daukun eskaria, ekari laburra da: «*Praebe, fili mi, cor tuum mihi*. Ekazu, ene semea, ekazu zeure, ekazu zeure biotz ori». Jaunaren eskari samur au entzun da, nok ez dau erantzungo S(an) Paulo Apost(oluak) esaten ebana: «*Nos ergo diligamus Deum quia ipse prior dilexit nos*. Maitatu daigun, ba, geure Jauna, berak lenago maitatu ginduzan-ta? Nor izango da Jaunaren eskari orri biotzez erantzungo ez dauksana? Biurtu daiogun, ba, bere maitetasunaren ordezt geure maitetasuna; bere eskar onaren ordezt geure eskar ona; bere odolaren ordezt geure odola; bere bizizaren ordezt geure bizia, bere biotzaren ordezt gure biotza, auxe dan ezkerok guk daukagun eta euki geinken zorrik andiena. «*Caritas Christi urget nos*. Geure Jaunaren maitetasunak bearpetuten<sup>398</sup> gaitu ori egite-ra.»

---

<sup>398</sup> *Bearpetu*: behartu.

## 2.2. JESUKRISTO

### 2.2.1. *Jesusen Bihotza* (XXIV, XXV, XXVI, XXVII, XXVIII, XXIX, XXX)

## XXV

Lekeitio

### JESUSEN BIOTZA

*«Cor mundum crea in me, Deus,  
et spiritum rectum innova in visceribus meis.»*

«Biotz garbia sortu egizu, Jauna,  
ta nire erraietan gogo zuzena barriztau egizu.»

(Ps. 50, 12)

N(eure) e(ntzule) mait(eok):

Gaurko elizkizun au zegaitik eta zetarako egiten dogun badakizue: Jesusen Biotzari eskarrak emoteko. Gure Jaunak egin dauskuzan erruki ta mesede andiak gogoratu ezkeru, Jaun maitale samur oni eskarrak emon bearrean gagozala ezin ukatu geinke. 1885garren urtean gangeri<sup>399</sup> edo kolerea deritxogun izurri bildurgarria bigarrenez agertu zan. Geixo txar ori onantza be urreratu zan, eta lenengoz emen agertu zanean, ainbesteri beingo baten, ezetarako asti barik, bizia kendu eutselako, bigarrenez etorri zanean bé, bazan bazterretan bildur-ikarea baino ez zana: asko iges joan ziran, iges egin ezkeru, geixoak ez ebazalakoan arrapauko, baina geixoak, gizonak baino arinago egiten daki, ta Jangoikoak jagon eta zaindu ezik, gizonaren aleginak alperrekoak izaten dira.

Bigarren aldi onetan ez zan Lekeitioraino eldu; emen ez eban kalterik egin. Ori zala-ta, uriko agintariak, udaletxeko gizonak, urtero Jesusen Biotz errukior-samurrari eskarrak emoteko erabagia artu eben.

---

<sup>399</sup> *Gangeri*: kolera.

Elizkizun au egin eta ospatuaz, orduan artu zan erabagi ori beteten dogu.

Beinolako lekeitiarrak gorputzen geixotik begiratu ta zaindu ebazalako, Jesusen Biotzari eskarrak emotea bidezko gauzea da; baina eskarrak emonaz gainera, arimen geixoetatik be osatu gaizala eskatu bear dautsagu. Gure gorputz ustelkor au lez, gure arimea be makaldu ta geixotu egiten da. Txarrerako daukaguzan irrirts eta lerak<sup>400</sup>, pekatuako grinak ilduratu ta ezi ezkeru, gure arimeak gauza onetarako sendotasun eta indarra artu, beragandu ta beretuten ditu. Baina lera okerrai eurenaz urteiten, grina gaiztoai indarra artzen itxi ezkeru, arimea makaldu, erkindu, geixotu egiten da-ta, gauza onetarako indarra galtzen dau: txarrerako itzuli<sup>401</sup> ta makur, ta onerako alper eta muker gelditzen da. Arimearen geixoak orrexek dira.

Jesusen Biotzagazko eraspén edo debozinoa kistinau guztioentzat, naiz zuzen naiz pekatariéntzat on, egoki ta osasungarri da. Pekatariok, batez be, geure arimen geixoak ezagutzen, geure gaiztakeriez damutu ta lotsatzen, geure eretxi okerrak zuzendu ta zeruko bidetik ibiltén, biotz andi, eder eta jangoikozko orretan ondo baino obeto ikasi geinke. Pekatuz orbandu ta loitu dan biotza, damu-negarrez baino ezin garbitu daiteke; eretxi ta asmu gaiztoz okertu dan gogo be, aldatu, barriztau ta zuzendu ezik, Jangoikoarena ezin izan daiteke. Geure biotzetako damua erakutsi ta autortu, ta Jangoikoaren errukia jadesteko, *Miserere* deritxon abeskia<sup>402</sup> berebizikoa da ta sarri erabilten dogu.

San Paulo Apostoluak dinosku: «*Omnia vestra sunt; vos autem Christi, Christus vero Dei*. Beste gauza guztiak, zeuenak dozuez; baina zuek Kistorenak zarie ta Kisto Jangoikoarena da». Onelan ba, kistinauon eginen nagusia Kistorenak izatea da; baina Kistorenak izateko, gogo zuzena ta biotz garbia bear doguz; geure gogoetan Kistoren eretxi goratu ta eregiak eta geure biotzetan Jaun orren gurari andi ederrak sortu ta euki bear doguz. Len aitatu dōdan *Miserere* abeski orretan Jangoikoari orretarako laguntza eskatzen dautsagu, esanaz: «*Cor mundum crea in me, Deus, et spiritum rectum innova in visceribus meis*. Nigan biotz garbia sortu egizu, Jauna, ta nire erraietan gogo zuzena barriztau egizu». Jesusen Biotza ispilu, eredu ta jarraibide dogula, geure biotzak orbanetatik garbitu ta geure gogoak asmu zuzenez barriztau bear doguz. Neure itzal-

<sup>400</sup> *Lera*: grina, aiher.

<sup>401</sup> *Itzuli*: barriro lehengora doana, berrerorle.

<sup>402</sup> *Abeski*: abesti, kanta.

di onen gaia orixe izango da. Bear dan lez azaldu al izateko, Jaunaren aurrean auspazu gaizan eta bere laguntasuna eskatu daiogun. Eta orretarako...

## I

*«Cor mundum crea in me, Deus,  
et spiritum rectum innova in  
visceribus meis.»*

(Ps. 50, 12)

N(eure) e(ntzule) mait(eok), gurutzeko zorakeria, Jesukistoren maitasun geiegia da. Zorakeri ori irakatsiaz, gizonen biotzak garbitu ta gogoak zuzendu ebezan apostoluak; sineste bako erriai zorakeria zirudien gurutzeko maitasun andi ta samur ori edonon eta edonoz azaldu ta irakatsiaz, erri osoak irabazi ebezan Jaunarentzat. «Kisto gurutzean josia irakasten dogu –dino S(an) Paulo Apost(oluak)–, judatarrentzat zoztor eta gaizpide, beste errientzat zorakeri da; baina guk Jesukisto gurutzuntzatu<sup>403</sup> baino besterik ez dakigu ta ori irakasten dogu. Judatarrak alatz edo mirariak eskatzen dabez, greziatarrak jakituria nai dabe; baina sines-tedunak gurutzeko jakituriz, zorakeria dirudian jakituri orren bidez, zeruratu nai ditu Jangoikoak. *Placuit Deo per stultitiam, praedicationis salvos facere credentes.*»

Askok zorakeritzat euken Jaunaren gurutzeko eriotza ori, Jesukistoren gizonakazko maitasun andi ta geiegiaren egitea da. Baina maitasunaren iturri ta abi biotza da-ta, biotzak eroan eban Jauna gurutzera; biotzak, biotzeko maitasun-indarrak eragin edo eginazo eutsan Jaunari sinestebakoak zorakeri garbitzat euken egite arrigarri ori. «Ona emen –esan eutsan Jaunak Margarita Maria Alakokeri–, ona emen gizasemeak ainbesteraino maite izan dituan nire biotza.» Apostoluak, esan dodanez, gurutzeko zorakeria irakatsiaz, orduko mundua aldatu, barriztau ta Jaunarena egin ehen. Guk be Jesusen Biotza, maitasunezko zorakeri ori egin eban biotz andi-samurra, geure begien aurrean dogula, geure biotzak garbitu ta geure gogoak-zuzendu ta barriztau bear doguz, geu Jangoikoaren erria ta Jangoikoa gure Jabea izan daiten.

Edozein gizon bere gogo edo buruko eretxiak eta bere biotzeko gurariak darabile. Gorputza oinak, baina arimea eretxi ta gurariak dara-

<sup>403</sup> *Gurutzuntzatu*: gurutziltzatu.

bile; arimearen egoak orreik dira. Eretxi oker eta gurari makurrak, lurreko aukera ta atsegin labur-igaskorren<sup>404</sup> bila atzetik garoiez; eretxi zuzen eta eregiak, gurari garbi ta andiak, ostera, gizonaren arimea Jangoikoa-gana jaso, irakorri ta goratzen dabe.

Gure biotza garbia izateko, aserre, gorroto ta zitalkeriak aztu, edonoz eta edonon zuzena maitatu, grina dongeak ezi, atsegin zantarrak itxi, lurreko uskeriok gitxitan euki ta goiko gauzen egarria biztu bear dogu. Arin eta laster esateko, gizona abereen mailara erasten daben gauza guztiak itxi, eta gizona goratu ta Jangoikoaren begietan andi egiten dabenak aintzat artu, egin eta bete bear doguz.

Gure gogoa zuzena izateko, mundutarren eretxi okerrak laga ta Jau-nak bere Ebanjelioan azaldu dauskuzan eretxi on, zuzen eta osasungarriak artu ta geuretu bear doguz. Mundutarren eretxiak ezeze, euren izketa edo berbetea be sarri oker eta bidegabea izaten da; eretxietan oker dabilzalako, bein baino sarriago onari txarra ta txarrari ona, argiari iluna ta ilunari argia deritxoe. Lurreko atseginetan igiri dabiltzanak, jakitun eta zorionsuak dirala uste ta esan daroe; gaiztakeritik alde egin eta bizitza zuzena daroenak, ostera, burubako tentel errukarrizat, ilunpean bizi diran gixaxo anditzat daukez.

Mundutarren artean bizi gara-ta, euren eretxi okerrok sarri entzuten doguz-ta, arduraz ibili ezik, erreze eta laster ontzat artzen doguz. Ontzat artu ezkerro, geure gogoetan sartu ta barrendu egiten jakuz; eta bein orra ezkerro, eretxi okerrok itxi ta geure gogoa zuzentzea biotza gurari gaiztoetatik garbitzea baizen gatx eta gatxago da.

Gorputzeko geixoak arin eta otoz otoan etorri, ta astiro, nekez joaten dirala esan oi da, ta geienez egia da. Arimearen geixoak etorri be, geienez beintzat, astiro, baratz<sup>405</sup> eta geldi-geldika etorten dira. Lenen biotzeko gurariak aldatu ta usteltzen dabez, gero buruko eretxiak okertu, ta azkenez, arima osoaren jabe egiten dira. Orduan grina gaiztoak ekandu txar biurtzen dira; ekandu txarrak erro ta sustriak egin eta botaten dabez eta bein orra ezkerro, arimearen geixoak ekinaren ekinaz baino ezin osatu leikez.

Geure arimen geixo oneik osatzeko gauza bi bear doguz: Jangoikoaren laguntasuna ta geure alegina. Dabit igarleagaz eskatu bear dautsagu Jaunari: «*Cor mundum crea in me, Deus, et spiritum rectum innova in visceribus meis*. Nigan biotz garbia sortu egizu, Jauna, ta nire erraie-

<sup>404</sup> *Igaskor*: igarokor.

<sup>405</sup> *Baratz*: astiro-astiro.

tan gogo zuzena barriztau egizu». Baina orrezaz gainera, Jaunaren laguntasun oni erantzunaz, geuk be alegin egin bear dogu.

Jaunak, bere aldetik, bear dogun laguntasuna emongo dausku. Jauna izatearen eta izatez goitiko graziaren Egile ta Emoile da; bere graziazko aberastasunak andi ta amaibakoak dira. Eguzkiaren bero ta argi-izpiak, eta goizaldeko inontz-tantak lurrera lez, olantxe bere graziaren argi ta inontza be gizonen biotzetara ugari ta oparo isuri ta bialtzen ditu.

Biotza orbanetatik garbitzeko, geure gaiztakerietzaz zintzoro garbaitu edo damutu bear gara; egindako pekatuok dirala-ta, negar eta penitentzia egin bear doguz. Geure gogotik eretxi okerrak kendu ta eretxi zuzenez barriztetako, geure buruak Jaungoikoaren aurrean eratsi ta gareanok garean bestean, Jaunarenak gareala ezagutu bear dogu. Jesusen Biotza orretarako eredu ta jarraibiderik egokiena dogula edonorentzat agirian dago. Eta egiz, Jaunaren gorputzeko neke-minak baino be bere biotzeko naigabe ta atsekabeak saminagoak, andiagoak izan zirala dirudi. Atsekabe andi orreik, zek ekarri eutsozan? Gizonen eskar txarrak, gure pekatuak; pekatu oneik zirala-ta, bere gainera jausi zan Aita Zeruikoaren aserreak; bere eriotzea gorabera, ori ta guzti be oraindik ainbeste gizaseme betiko galduko zirala ikusteak...

Gure Jauna errugabea zan; baina gure zorrak ordaintzearren, gure pekatuz jantzi zan. Pekatari ez zana pekatari bailitzan agertu zan, eta bere burua ainbeste pekatuz zamauta, estalduta ikusi ebanean, biotza atsekabe saminez bete jakon; damu ta atsekabearen indarrak, biotza ezin geiagoan estutu, larritu, ilundu, tristetu eutsan. «*Coeplit contristari et maestus esse.*»

Gaiztakeri ta pekatuak Jangoikoari aserratu eragiten dautsoe. Gure pekatuak bere gain artu ebazalako, Aita Jangoikoaren aserrea Jesukisto, bere Seme errugabearen gainera etorri zan, eta Aitaren aserre onek biotza eriotzako larritasunez estutu ta larritu eutsan Jaunari. «*Tristis est anima mea usque ad mortem.*» Pekatu astunak damu-negarrez kendu ta garbitu ezik, gizasemeari betiko eriotzea dakartso. Jaunak, bere odol eta eriotzea gorabera; pekatari asko, itsukeriz, betiko galduko zirala argiro ikusten eban, eta ikuskizun negargarri onek be biotza ezin geiagoan atsekabetu ta samintzen eutsan: «*Coeplit contristari et maestus esse.*» Estu ta larri, itun ta triste egoan. Jaunaren Biotz samurrari atsekabe andiena pekatuak eta onein ondoren txarrak emon eutsoen.

«*Inspice et fac secundum exemplar quod tibi in monte monstratum est.* Begiratu egizu eta mendian erakutsi jatzun eredu orren arauz egizu» (Ex. 25, 40). Gure Jauna Olibeteko mendian gure pekatuen astuntasunaz, lurrera eratsita dago; gure pekatuok dirala-ta, bere biotza larri ta triste, garbai ta damuz, atsekabe saminez gainezka dauko. Pekatu orreik

geureak dira; damutu bear geunkenak, geu gara. Onelan ba, geure pekatuen gaiztakeria, Jangoikoari egin dautsagun iraina, Jaunaren aserrea, betiko galtzeko arriskua begien aurrean doguzala, eredu dogun geure Jaunari jarraituaz damurik biziena artu bear dogu ta damu-negarrez geure biotzak garbitu. Orretarako eredu ta jarraibide Jauna dogu; gure pekatuak dirala-ta, bere biotza atsekabez beterik dauko. Jauna baino geu atsekabez egotea askozaz be zuzen eta bidezkoago litzake-ta, biotzak garbitzeko Jaunak darakuskuzan damu ta atsekabe orreik geuretu egin bear doguz.

Gure gogoetan darabilguzan eretxi okerren iturri, geienez beintzat, arrokeria da. Sinesteko argiak dinoskuna arrokeriz isten dogu, ta geure buruko axeai arrokeriz jarraitu. Pekatu egiten dogunean, Jaungoikoaren aurka jagiten gara; baina gizon txikia Jangoiko andiaren aurka jagitea arrokeria da. Augaitik, geure gogoa barriztau ta geure eretxi okerrak zuzentzeko, lenen eta aurrenen bear dogun gauzea apaltasuna da; ta Jesusen Biotzak beti, baina bere nekaldian batez be, apaltasunik arrigarriena erakutsi euskun. Jaun errugabea gurutzera eroateko, zelako guzurak ez ebezan asmau, zelako irainak ez eutsoezan egin, zelako ainen eta biraoak ez eutsoezan arpegiz jaurti, zelako lotsariak ez eutsoezan arrerazo? Jaunak mesede baino besterik ez eutsan inori egin, eta mese-deok artu ebezanak eskar txarrik baltzena erakutsi eutsoen. Biotzari atsekaberik andiena orrexek emoten dautso. Ori ta guzti be, Jaunari eskar ona erakutsi bearrean egozanen guzur, irain, laido, lotsari, irri ta destaina guztiak, Jesusen Biotzak apaltasunik andienaz artu ta otzantasanunik andienaz daroaz.

«*Humiliavit semetipsum factus obediens usque ad mortem.* Bere burua eratsi ta apaletsi eban, eriotzaraino esaneko egiten zala.» Gugaitik eta gure orde z eratsi eban Jaunak bere burua, gure arrokerien zorra ordaindu ta guri apalak izaten irakasteko. Irain eta laido, irri, destaina ta lotsaririk andienak, ixil-ixilik daroaz Jaunak. «*Inspice et fac secundum exemplar.*» Jaunak gugaitik eta gure alde egin ebana gogoratu daigun eta Jangoiko-eredu onek irakatsi dauskunez egin daigun geuk be. Garean baino geiago gareala sinestu eragiten dauskuen eretxi okerrok burutik kendu, arropuzkeria zapaldu ta geure buruak eratsi badaiguz, beste edo-zetan lez onetan be eredu dogun Jaunari jarraitu badaioagu, Jaunak bere grazia ta laguntasuna askozaz be ugariago emongo dauskuz. «*Humilia teipsum in omnibus et inuenies coram Deo gratiam.* Gauza guztietan zeure burua apaletsi egizu ta Jangoikoak abegi ona egingo dautsu; erruki ta maitasunez artuko zaitu» (Eccli. 3, 20).

Kistinau onak, Jesukistoren jarraitzaile zintzoak izateko, biotz garbia ta gogo zuzena bear doguz. Geure eretxi okerrakaz gogoa okertuta geu-



re gaiztakeriakaz biotza orbandu egiten doguz. Biotza zelan garbitu ta gogoa zelan barriztau ta zuzendu, Jesusen Biotzak irakatsi dausku. Gure pekatuak zirala-ta, biziro garbaitu, damutu, atsekabetu zan; atsekabearen indarrez odol-izerdia isuri eban. Azken barik goragarri zan Jaunak, bere burua eratsita, guri egokiguzan laido, destaina ta lotsariak apaltasunik andienaz artu ta eroan ebazan. Zetarako? Guri beste orrenbeste egiten irakasteko, biotza garbitu ta gogoa zuzentzeko bidea guri irakasteko.

Auspaztu gaizan, ba, Jaunaren oinetan eta bear dogun laguntasuna eskatu daiogun... Aldi bateko lekeitiarrak gorputzen geixotik begiratu ta zaindu zenduzan Jaunorrek, gu be arimen geixoetatik jagon eta zaindu gaizuz; biotz garbia ta gogo zuzena emoiguzuz. Buruz eta biotzez, eretxiz eta maitasunez zeureak izan gaitezcan, lagun zakiguz, eta bizitza onen ondoren, betiko zorionera eroan gaizuz.

## 2.2. JESUKRISTO

### 2.2.1. *Jesusen Biotza* (XXIV, XXV, XXVI, XXVII, XXVIII, XXIX, XXX)

## XXVI

Lekeitio

### JOSU BIOTZA

*«Tu dixisti quia rex sum ego...  
Ego in hoc natus sum et ad veni in mundum.»*

«Ni errege nazala zeuk dinozu...»

Ni orretarako jaio nintzan eta orretarakoxe etorri naz mundura.»

(Joan 18, 37)

N(eure) e(ntzule) m(aiteok):

Gaurko elizkizun au zegaitik eta zetarako egiten dogun, bein baino sarriago entzun dozue-ta, baidakizue. Gizartean, noizik noizera, izurriak errez iratsi edo inkaten diran geixo txarrak zabaltzen dira. Au geuk eza-gutu dogu. Oraindik urte asko ez dirala, 1918garren urtean –oker ez banago– gudu, gerra nagusiaren ostean, orrelako izurri batek ainbat bitzta mardo ta gazte ebagi ebazan beingo baten, eta erririk geienetan bildur-ikarea sartu eban.

Aurrerago; beste izurri bat, Ganges aldean lenengoz agertu ta andik beste tokietara zabaldu zalako, gangerri edo kolera deritxon geixoa, zabal ibili zan; 1852garren urtean lenen, eta gero barriro 1885garrenean. Bigarren aldi onetan lenengoan baizen gogor eta bildurgarri ez zan agertu; baina ori ta guzti be, ezetarako astirik emon barik bapatean bizia kentzen ebalako, gizaseme asko ikaraz ebiltzan, eta etxetik iges eginaz geixoari be iges egingo eutselakoan, erri batetik bestera iges joan ziranak ez ziran izan gitxi.

Bigarren aldi onetan Lekeitioraino ez zan eldu, emen ez eban kalte-rik egin. Au zala-ta, intera aretan uriko agintari ziranak urte oro Jesusen Biotzari eskarrak emotea erabagi eben, berarizko elizkizun baten bidez. Erabagi ori bete ta Jesusen Biotzari zor dautsaguzan eskarrak emoteko

egiten dogu gaurko elizkizun au. Onetan S(an) Paulo Apost(oluak) dinoskuna baino besterik ez dogu egiten: «*Grati estote* –dinosku S(an) Paulok–. Eskar onekoak izan zaitez». Gizartean be, mesede barriak lortzeko, eskar onekoa izatea lakorik ez dago; eskar onak mesede barriai bidea idegiten dautse, eskar txarrak zarratu ta itxi. Augaitik, eskar gaiztoko gizonak aiskide gitxi eukiten ditu, ta mesede egiteko gogoia dauke-nai be, bere eskar txarra erakutsiaz, gogo ori gitxitu edo guztiz kentzen dautse.

Gizartean jazoten dan au, Jangoikoagaz be bardin jazo oi da; augaitik dinosku S(an) Paulo Apost(oluak): «*Cum gratiarum actione petitiones vestrae innotescant apud Deum*. Zuen eskariak Jaunari zuzentzen dautsazuezanean, aurreragoko mesedeakaitik eskarrak emon egiozuez; zuen eskar ona ta zuen eskariak Jaunaren aurrean batera agertu beitez».

Jaunari eskatzen dautsaguna, berak guri emotea nai izaten dogu. Baina orretarako eskar onekoak izan bear, eta eskar onekoak izateko, Jaunak eskatzen dauskuna, geuk be berari emon bear dautsagu. Zer eskatzen dausku? Geure biotza! Zetarako? Guztioen eta bakotxaren biotzen Jabe, Agintari ta Errege izateko. Jaunak orretarako eskubide osoa daukala ta guk, eskar gaiztoko izan barik, Jaunari ori ezin ukatu geinke-ola azaldu ta adierazo nai neuskizue. Nire itzaldi onen gaia, orixe izango da.

N(eure) e(ntzule) m(aiteok), geu Jaunarentzat bizi gareanean, orduan Jauna be gudan bizi da. Berak esan eban: «Nire jarraitzaileak nire biziz bizi daitezcan eta bizitza ugariagoa euki dagien, etorri naz mundura. *Veni ut vitam habeant et abundantius habeant*». Gizaseme, famili ta erri guztietan eta bakotxean bizi nai dau Jaunak. Bere legea zeatz eta osoro betetan dogunean, bizi da Jauna gure biotzetan. Orduan da gure biotzen jabe, agintari, errege; bestelan, ez. Au onelan izanik, famili ta errien bizitzea be, Jaunarena izango bada, naitaez famili ta erriak be Jaunaren lege ori guztiz eta osoro bete bear dabe. Ori egingo balitz, gizaseme, sendi ta erri guztiak Jaunaren legepean balegoz, Jaunak ekarri euskun zerutar bizitzaz bizi balira, orduan Jauna gizaseme, famili ta erri guztien jabe, ugazaba, agintari ta errege izango litzake. Baina ori egiten ez dalako, gizon bakotxak bere bizitzan eta famili ta erriak euren dago-kienean Jaunaren legea aitzu, ausi ta zapaltzen dabelako, Jaunak berari dagokion jabetasun, agintza edo erregetzea guztiz eta osoro ez dau lortuten. Ez dau lortuten geure erruz eta eskar gaiztoz; baiña lortu ta jade-tsi bear leuke, orretarako eskubide osoa dauko-ta.

Sasijakitun batzuk, gauza andiren bat balinoe lez, bein baino sarriago esaten dabe: «Jesukistok errege izena artu eban». Bai, baina Jaunaren erregetzea ez da mundu onetakoa; mundu onetakoa ez zala Jaunak

berak esan eban. Egia da; bere erreinua ta orretarako eskubidea zerutik datorkiozalako, bere erregetzea mundu onetakoa ez zala esan eban Jaunak. Baina erregetza ori, zerutik jatsia izan arren, ementxe, mundu onetantxe, dago ta ementxe izan eta iraun bear dau. Bestelan, ori orrelan ez balitz, Aitagurean esaten doguna zetarako esango geunke? An esaten dogu: «Betorkigu, betor gugana zure erreinua; egin bedi zure borondatea zeruan lez lurrean be». Zetarako irakatsi euskun Jaunak ori esaten, bere erreinua emen lurrean ez badauko? Zetarako esanazo dausku Jaunak «betor», au da, «oraintxe etorri bedi», mundu onetan bizi gareala be, gure jabe ta errege ez izatekotan? Orain eta beti gu bere menpeko ta bera gure jabe ta errege izatea nai ez baleu, ori esaten Jaunak ez euskun irakatsiko. Egiz, Jesukistoren erregetzea zerutikoa da; goian dauko bere jatorria; baina lurrera jatsi zalako, ementxe izan eta ementxe iraun bear dau.

Gizaseme, sendi ta erri guztien errege izateko, Jesukistok eskubide osoa dauko. Eskubide ori Aita Jangoikoak emon eutsan, eta orrezaz gainera, bere odolez, ez urre ta zidarrez, bere odolez erosi ginduzalako, beste inok egundo euki ez dauan besteko eskubidea irabazi eban gure errege izateko. Jesukistoren erregetzau antxinako igarleak argiro iragarri ta adierazo eben; augaitik, judatarrak errege andiari itxaroten egozan. Burugogorrek ziran-ta, txarto aitu ebezan igarleen esanak. Zeruko erreinua ekarriko eutsen erregearen ordez, Erromako Kaisar agintariaren menpetik atera, beste erri batzuen jabe egin eta aberastasunez beteko ebazan lurreko errege andia itxaroten eben. Orretan oker egozan; baina erregea itxarotean ez egozan oker, zuzen baino. Jesukistok berak be, erririk erri irakasten ebilanean, bere erreinu ori sarri aitatu eban, eta sarri aitatu ebalako Zebedeoaren semeak eskatu eutsoen bein baten, esanaz: «Jauna, zeure erreinu orretan gu bioetatik bata zeure eskomaldean eta bestea ezkerrean ipini gagizuz». Oneik be lurreko erreinuaz amesetan ziarduen eta Jaunak euren eskaria ez eban aintzat artu; baina aintzat artu ez arren, Jaunak bere erreinua sarri aitatu ebala, anai bi orrein eskabideak argiro adierazoten dausku.

Jesukistok, gizon danez be, guztioen errege izateko eskubide osoa dauko; baina bere erregetza ori ez da lurreko erregeena lakoa; askozaz obe, baketsu ta ederragoa da. Lurreko erregeak sarri indarrez lortu dabe euren agintzea; gizon eta erriak indarrez menpetu ta euren menpean indarrez euki dabez. Jesukistok ez dau nai olakorik. Geure guraz, geure naiz bere menpeko egin gakiozan nai dau, eta bere guraz menpeko egiten ez jakonik, ez dau artzen bere erreinuan. Au dala-ta, gure biotzak irabazi nai izan ditu ta orretarako bizitza neketsuaren ondoren, nekaldi gogor ta eriotza garratza artu ebazan gure osasunerako; bere odola isu-

ri eban, gure gogo ta biotzak irabazi ta gu, geure guraz, bere menpeko egiteko. Augaitik-edo, bere nekaldi, pasino ta eriotzan be, errege agertu nai izan eban eta izen ori ez eban inoz itxi.

Judatarrak Pilatosen aurrera eroan eta gauza askotaz salatu eben. Baina Jaunaren aurka, bere kaltez esan eben gauzarik andiena, zein izan zala uste dozue? Ain zuzen be, Jaunaren erregetza. Judatarrak Pilatosi esan eutsen: «Gure erria nastau ta asaldatzen aurkitu dogu; Erromako Kaisarrari petxu ta zergak emotea galerazoten eta Kisto erregea berau dala esaten». Pilatosek itandu eutsan: «Judatarren errege zara zu?» Eta Jaunak erantzun eutsan: «Ni errege nazala zeuk dinozu. Egia da, ni orretarako jaio nintzan eta orretarakoxe etorri naz mundura. *Ego in hoc natus sum et ad hoc veni in mundum*».

Gauza arrigarria!, gure Jaunak bere lotsaririk andienetan be, bere agintza, jabetasun eta erregetzea agirian ipini eban beti, eta judatarrak bere eskubide, anditasun, aintza ta omen ori kendu nai izan arren, ez eutsen laketu, ez eutsen itxi. Jaunaren gurutzeburuan, Pilatosen aginduz, itz edo berba oneik ipini ziran iru izkuntzetan: «Nazaretgo Jesus, judarren erregea». Ori ikusirik judatarrak ezin geiagoan, osoro aserratu ziran. Olakorik ez eben nai ta Pilatosgana joanik, esan eutsoen: «Ipini dozun ori, kentzeko agindu egizu eta orren ordeez beste era onetara ipini eragin: «Judatarren errege dala, berak esan dau». Baina aurrerago ain makal eta bildurti izan zan agintariak, orduan judatarrai gogor erantzun eutsen: «Zer dakazue ona? *Quod scripsi, scripsi*. Idatzi dodana, idatzita dago; ipinia, ipinita. Ez dago ori aldatzerik». Onelan Jauna eriotzara epaitu eban agintariak, juezak berak; Jaunaren erregetzea ezagutu ta autortu eban eta erregetzearen ezaugarri ori, judatarrak nai izan ez arren, an gurutzearen buruan gelditu zan, gurutzean il zan Jauna, biotzen errege zala adierazoteko.

Jaunak eskubide ori berea dau ta guztioen errege izateko daukan eskubidea, inok be ezin kendu leio. Baina gure errege izateko eskubidea, ta egiz eta benetan gure jabe, agintari ta errege izatea, gauza bi dira. Bere naiz, bere borondatez menpeko egiten ez jakonik, Jaunak bere erreinuan ez dau artzen; geure naiz, geure guraz Jaunaren menpeko izan edo ez izatea, geure eskuan dago, Jaunak ori geure aukeran itxi dau-ta. Augaitik, guk geure erruz, gaiztakeriz ta eskar txarrez Jaunaren erregetza ori gudan galerazo geinke; bere eskubidea ez, ori ezelan be ezin kendu geinkeo, baina egitez gure errege izateko, geure baimena eskatzen dau ta, azkenengo au galerazo geinke.

Eta sarri orixe jazoten dala geure begiz ikusten dogu. Aita Jangoikokak bere Semea gizon guztien errege egin eban. Jesukistok diabruaren menpe ta joputza lotsagarritik atera ta bere erreinura aldatu ginduzan.

Sendi, famili, erri ta gizadi osoari egunoro ainbeste mesede egiten dautsez; baina ori ta guzti be, gizaseme, sendi ta erri asko ez dira, euren guraz Jaunaren menpeko egiten ta Jauna ez da izaten, izan bear leuken lez, euren errege.

Jauna, egiz eta benetan, gure errege izateko, erregetza ori geuk nai izan bear dogu; geuk nai dogula, geure jabe ta erregetzat ezagutu ta autortu bear dogu, biotzeko atea osoro idegi bear dautsaguz. Geure buruko eretxi okerrak sinesmenaren argiaz, biotzeko grina ta makurkeriak bere legeaz zuzenduta, geure aburu ta eretxi, asmu ta burubide, gurari ta egite guztien jabe egin bear dogu; orrelan gutariko bakotxaren errege izango da. Sendi, famili ta erriak be bardin. Jauna euren errege izango bada, euren jabetzat ezagutu bear dabe, ta bere menpean jarririk, euren arazo, eginen eta artu-emonetan Jaunaren legea zintzoro gorde; lege orri beste ezeri baino lotsa ta itzal andiagoa izan bear dautse.

Jauna, nai izan baleu, indarrez gure jabe egin zeitekean. Baina olakorik ez eban nai izan; gure biotzak maitasunez eta mesedeen bidez, irabazi, beragandu ta beretu nai izan ebazan. Orretarako bere bizia emon eta bere odola isuri eban; baina orrenbestegaz ez zan naikotu. Bere bularra be aiztamakilaz<sup>406</sup>, lantza zorrotzez, idegi eutsoen eta zauri aretatik bere biotza agertu ta erakutsi euskun; bere maitasun azkengabearen iturburu zan biotz samurra, maitasun-garrez irazegia, sutan egoan laba gorria, erakutsi euskun, ori ikusirik, geuk be maitatu gengian eta maitasun-atsegin onek beragaz batu, lotu ta bere menpeko egin gengizan.

Altarako Sakramentuan be, maitasun utsez gelditu jakun, eta ontarte, mesede andiak egiten dauskuz. Jauna, gau ta egun geu maitatzen dago; geugazko oneretxiak, geure ondo naiak ortxe, geure urrean dauko. Augaitik be, geure eskar ona, eskar onik biziena, zor dautsagu. «*Grati estote*—dinosku S(an) Paulo Apost(oluak)—. Eskar onekoak izan zaitez.» Baina eskar onekoak izateko, Jaunak eskatzen dauskuna emon bear dautsagu eta Jaunak biotza eskatzen dausku: «*Praebe, fili mi, cor tuum mihi*. Ekazu, ene semea, ekazu zeure biotz ori», orren ugazaba ta jabe, agintari ta errege izan nadin.

Auspaztu gaizan, ba, bere oinetan, eta gaur eskar ona erakusteko eguna dogun ezkerro, geure gogo ta biotzak emon daioguzan Jaunari. Zeru ta lurreko Jaun andia, zeugandu ta zeuretu gaizuz; geure gogo ta biotzen jabe egin zakiguz. Gure errege zeu izan zaite, ta gu zure menpeko, orain eta beti, lurrean eta zeruan, emengo atsekabetan eta betiko zorionean.

<sup>406</sup> *Aiztamakil*: lantza.

## 2.2. JESUKRISTO

### 2.2.1. *Jesusen Bibtza* (XXIV, XXV, XXVI, XXVII, XXVIII, XXIX, XXX)

## XXVII

Lekeitio

### JESUSEN BIOTZA<sup>407</sup>

*«Et grati estote.»*

«Eskar onekuak ixan zaitzeze.»

(Colocen. 3, 15)

N(eure) entz(ule) maitt(eok):

Eskar onak atseginddu ta zabalduen dau aurrekuaren bijotza; eskar txarrak atsekabetu, tximurtu ta zarratu. Eskar ona norberetzat be atsegingarri ixaten da; eskar txarra, lotsagarri. Gixonak alkarrekin sarri eskar txarrekuak ixaten gara, errez aiztuten dogu be aurrekuak egin dauskun mesedia; baña geu alkarrekin baño sarrijago ixaten gara eskar txarrekuak geure Jaunagaz, sarri askotan gomutau be egitten ez doguzalako Jaunak egunoro egitten dauskuzan mesediak.

Au ta guzti be, iñok ez dau entzun nai eskar txarrekua ixan dala. Zegaittik? Eskar txarrak edonor lotsatzen daualako, lotsia guztiz galdu dauanen bat-edo ez bada. Augaittik edonok, eskar txarrekua norbaitegaz ixan bada, bere eskar txarra al bait ondoen zurittu ta edertuteko egitten dau alegin, iñok uste ixan ez dagijan bijotz zimeleko gixon txatxarra dala. Mesediak berez eskatzen dau eskar ona, ta bijotz baltzeko gixona da mesediari, agirijan, jakiñez gañera, eskar gaiztoz erantzuten dautsana.

S(an)to Tomasek irakasten dauskunez, eskar onak iru malla daukaz: lenen eta berenengua da norbaitek eginddako mesedia ezagutu ta autoritu; bigarrena, mesedia aintzat artu, goratu ta herbaz eskarrak emon; iru-

---

<sup>407</sup> Ez jako ia grafia-ikulturik egin, Eguzkitzak berenberegi erabilitako ahozko hizkuntz eredua gorde gura izan dogulako.

garren eta gorengua, arturiko mesedia, al bada, eria datorrenian beste mesede bategaz ordaindu, pagau, kittutu.

Eskar txarrak be iru malla daukaz: eskar txarrik txikiena da, arturiko mesedia beste bategaz ez ordaintzia; urrengua, norbaitek eginddako mesedia aintzat ez artzia; irugarrena, ezagutu ta autortu be ez nai ixatia. Al ixan eta mesediai ez erantzutia, aintzat ez artzia, ezagutu be ez nai ixatia, dollorkeri, txatxarkeri andija da; baña askozaz txarrago mesedien orde z kalte egittia, onari txarragaz erantzutia. Au ixango litzake eskar gaiztorik baltzena, baña mesediak ez ezagutu, ez autortu, ez goratu ta ez aintzat artu nai ixatia be eskar gaiztorik asko da.

Gaurko eleizkixun au, zeuek dakixuen lez, Jaungoikuari eskarrak emoteko egitten dogu, Jaunak, 1885garren urtian, geixo edo izurri gaiztotik jagon eta zaindu ebalako Lekeittioko urija, Lekeittioko urijan sartu ez zalako emendik urrin barik ainbeste erijotz egin ebazan kolera edo gangeri izurri bilddugarrija. Aonelan ezagutu ta aintzat artzen dogu Jaunak orduan lekeittiarrai eginddako mesedia; au da Jaunari eskar onez erantzutia ta mesede barrijai bidia idegi ta zabaltzia. Baña gorputzai bixija kentzen dautsen izurrija baño bilddugarrijago da, ta geijago zabaltzen da, arimak geixotu ta ilten dittuan izurrija. Izurri aonetatik Jaunak sarritan zaindu ta beste sarri askotan osatu gaittu. Agiri da, ba, ene entz(u)le) maitt(eok), Jaunaren bijotzari, bere maittetasunari zor dautsoguzan mesediak, geuk uste dogun baño be geijago dirala. Guztijak eskatzen dauskue geure bijotzetako eskar ona.

Eskar onekuak ixateko, Jaunak egin dauskuzan mesediak ezagutu ta aintzat artu biar doguz, eta al dogun bestian, gauza andirik ez, baña al dogun bestetxuan, ordaindu ta kittutu be egin biar dautsoguz. Eta aona emen agertuta nire goiz onetako itzaldi onen gaija: Jaunak mesede asko egin dauskuz; guk eskar ona zor dautsogu.

## I

*«Et grati estote.»*

«Eskar onekuak ixan zaitze.»

(Colöcen. 3, 15)

N(eure) entz(u)le) maitt(eok), gure Jauna munduan agertu aurretik, gixonak illuntasun andijan bixi ziran. Ez eben ezagutzen, ba, geien ezagutu biar ebena: ez eben ezagutzen ondo zerurako bidia; eta zeruko bidia ez ezagutzia gixonarentzat illuntasun andija da. Etorri zan Jauna, ta Jaunagaz egizko argija. Jauna da, ba, gixon guztijak arazo aonetan



argitzen dittuana: *«Erat lux vera quae illuminat omnera hominem»*. Jaunaren argija bein be ezta itzali, bein be ezta amatau; bixi da ta bixiko da munduaren azkeneraño.

Gure adiñarentzat egija argija da, egijaren irakatsijak be argija dira. Jaunaren irakatsi ederren jaube egin zan bere Elexia ta Elexiak, Jesukistoren argijagaz, argitzen dauku orain zeruko bidia; au da, ba, Elexiaren seme garianok, Jaunari zor dauksagun lenengo mesedia. Geuk geure guraz begijak itxi ezik, errez ikusi geinke Elexiaren argija ta argi aonegaz ezagutu geinke zein dan geure betiko zorijonera garojizan bide artez eta zuzena.

Baña gixona ez zan aurkitzen bakarrik illuntasunian; onez gañera aurkitzen zan diabruaren joputzan, diabruaren menpian, eta menpetasun lotsagarri aonetatik be Jaunak atarau<sup>408</sup> gindduzan. S(an) Juan Apost(oluak) diñausku argiro: *«Qui facit peccatum, servus est peccati»*. Pekatu egitten dauana, pekatuaren jopu, otsein edo menpeko da» (Joan 8, 34). Lenengo gixonak pekatu egin ebanian, bera baño beste gixonik ez zan, gixatasun guztija beragan aurkitzen zan, eta, augaittik, gixatasun osua pekatuaren orbanagaz loittuta, ezaindduta gelditu zan. Diabruak azpiratu ta zapaldu eban lenengo gixona ta beragan egualako gixatasun guztija, esan biar da gixon guztijak, gixatasun osua diabruak orduan azpiratu ta zapaldu ebalá, bere jopu ta menpeko egin ebalá. Menpetasun lotsagarri onetatik gixona aterateko –diño S(an) Paulo Apost(oluak)– il zala Jesukisto gure Jauna: *«Qui dedit semetipsum pro nobis ut nos redimeret ab omni iniquitate»*. Geugaittik bere burua erijotzarako emon eban, geu gaiztakeri guztijen estuntza edo lokarrietatik askatuteko; pekatuen orbanak garbittu ta erri garbija, egitte onen jarraitzalle ixango zan errija sortu, gertu, atondu ta egitteko. Jaunaren bularra, Jauna il ta gero, gudari batek lantziagaz idegi ebanian, zauri aretatik ura ta odola urten ziran. Urak adierazoten eban bautismoa, eta baidakixue bautismoko urak garbitzen dauala jatorrizko pekátuaren orbanetik gure biotza; bautismoan pekatuaren lokarrijak urratzen dira ta Jaunaren alaba ixateko, diabruaren menpetik urteiten da bateatu danaren arimia. «Jatorriz, ixatez –diño S(an) Paulo Apost(oluak)–, gu be beste guztijak lez, aserriaren semiak giñan; au da, Jaunaren aserria geure gañera ekarri genduan. *Eramus natura filii irae, sicut et caeteri»*; baño Jaunak eskarrez bere grazijaren bidez, bere seme egin gindduzan. «Errukijan aberatsa dan Jaunak –diño S(an) Paulo Apost(oluak)– maittetasun larregigaz maittatu gindduzan, eta pekatuakin ildda gengoazanok barriro biztu gindduzan Jesukistogan. *Convivificavit nos in Christo.»*

<sup>408</sup> Atarau: atera.

Gero, geure erruz biarbada bein baño sarriago, geure erruz, ezainddu genduan barriro gaiztakerikaz geure bijotza; pekatuaren geixo ta izurrijagaz geixotu ta il zan. Jaunak bautismoan emon euskun grazijazko bixija, ta diabruaren joputzan, arerijo gaizto aonen menpian jausi zan barriro gure arimia. Baña errukijan aberatsa dan Jaunak, barriro, bere odolagaz garbittu eban orbanetatik gure bijotza, bere maitetasun geiejiaz biztu eban gure arimia, ta diabruaren menpetik ateraten gindduzala, aldatu ta eruan gindduzan bere Seme maitte-laztanaren erreñura: «*Qui eripuit, nos de potestate tenebrarum et transtulit in regnum Filii dilectionis suae*». Gomutau daigun zenbat bidar urten garian pekatutik, zenbat bidar artu dogun mesede au Jaunaren eskuetatik eta ezagutuko dogu geu ixan gariala Jaunak ain ardura ta maitetasun andijagaz billatu eban ardi galdua.

Norbere gauza ta ogasunak, erruki ta maitetasunez emotia mesede andija da; baño au baño be oraindik mesede andijagua da norbere aberastasan, eskar eta grazijez gañera, norbere burua be aurrekuaren onerako emotia. Au da egin eta asmau leiken mesederik andijena! Orain ba, Jaunak emon euskuzan bere ogasun eta irabazijak, bere eskar eta grazijak; baño ez zan aonenbestegaz ase Jaunaren gudanako maitetasuna ta, azkenez, emon jakun Jauna berbera. «*Cum dilexisset suos qui erant in mundo* –diño S(an) Juan Apost(oluak)– *in finem dilexit eos*. Maittetu ebazan munduan egozan beriak eta bixitzaren azkenian emon eutsoezan bere maitetasunaren ezaugarriak ederrenak.» Geugaz bixittiarren, ogi- ta ardao-irudipian gelditu zan; geure arimak elikatu, sendatu ta indartzeko bere aragi ta odola emon euskuzan, aonelan iragarten euskula amarik samurrenak bere erraietako umiak baño maitetasun samurraguaz maittatzen gindduzala.

Orain esaidazue: uste ixan ete geinke Jaunak egin dauskuzan mesede andi aonek, geuk irabazi edo merezi ixan doguzala? Ez, kistiñabak! Au uste okerra ixango litzake. Jakin nai badogu zek itzuli eban Jaunaren borondatia guri mesede egittera, geugandik begijak aldendu ta zuzendu biar doguz Jesusen Bijotzegana; antxe aurkittuko dogu Jaunak egin dauskuzan mesede guztijen itturrija: Jaunaren Bijotzeko maitetasun larregija, orixe ixan zan Jaunaren borondatia guri ainbeste eskar eta mesede egittera itzuli ebana. Entzun ezpabe S(an) Paulo Apost(oluak) Efesotarra esaten eutsena: «*Deus autem, qui dives est in misericordia, propter nimiam charitatem suam, qua dilexit nos*» (Joan 2, 4). Jaunak, errukijan aberatsa dan Jaunak, maitetasun larregigaz maitatu gindduzan eta auxegaittik pekatuakin ildda gengoanok barriro biztu gindduzan; eta biztu ta gero, Jesukistoren ixenian ixentau euskun jesarlekua zeruetan, etorteko dagozan gixaldijetan be, erruki, eskar edo grazijaren abe-

rastasun ugarijak agertu daittezan. «Baña ez uste ixan –diño S(an) Paulo Apost(oluak)– zeuek irabazittako gauzia dala, Jaunaren eskar edo mesedia da-ta. *Et hoc non ex vobis, Dei enim donum est.*»

Jaunak egin dauskuzan mesediak eskatzen dauskue, geu be Jaunagaz eskar onekuak ixan gaittezala. Eskar onekuak ixateko, S(an)to Tomasek irakasten dauan lez, iru gauza biar dira: 1. Arturiko mesediak ezagutu ta autortu. 2. Aintzat artu, goratu ta berbaz eskarrak emon. 3. Aldija datorrenian eta norberak al dauan bestian mesediak ordaindu eta kittutu. Ezagutu, autortu, aintzat artu ta goratu daiguzan, ba, Jaunak egin dauskuzan mesediak; aonelan beteko doguz eskar onaren lenengo malla bijak. Jaunak zaindu eban 1885garren urtian gorputzeko geixo ta izurritik Lekeittioko urija; Jaunak osatu dau sarritan, pekatuaren izurritik guztijoen eta bakotxaren arima. Mesede andi aonekaittik zor dautsagu geure eskar ona, ta geure bijotzetako eskar on au erakusteko egitten dogu gaurko eleizkixuna. Baña ez daigun aitzu eskar onaren irugarren mallia, gorengua, eskar ona edertoen erakusten dauana, dala arturiko mesediak, zelanbait, norberak al dauan bestian, ordaindu edo kittutia. Jaungoikuari, berak egin dauskuzan mesediak, guztiz ezin ordaindu geinkeoz; baña zor dautsagu ta emon biar dautsogu al dogun besteko ordaña.

Jaunak argittu gindduzan, Jaunak erosi gindduzan, Jauna emon jakun. Guretzat argija dalako, jarraitu biar dautsagu; bere odolagaz erosi gindduzalako, beriak ixan biar dogu; geuri bera emon jakulako, geu be berari emon biar gaijakoz.

Ona emen iru gauza. Jaunari eskar onaz erantzuteko, irurak biar-biarrekuak dira:

1. Jauna da zeruko bidia erakusten dauskun argija. Jaunak berak diñausku ba: «Neu naz bidia ta Neu naz egizko argija. *Lux vera*. Neu naz illuntasuna kendu ta bidia argitzen dodana. Nire jarrai datorrena, ezta illunpian ibilliko». Gabaz bidian doijazanak argija biztuten badabe, zetarako ixaten da? Zetarako biztuten dabe? Berari jarraitzeko, ezta? Ba Jauna bada zeruko bidian daukagun argija, gure zeregifia ixango da argi eder aoni jarraitzia. Au agintzen dauku argiro S(an) Paulo Apost(oluak) diñauskunian: *Eratis aliquando tenebrae, nunc autem lux in Domino. Ut filii lucis ambulate*. Nozbait illuntasun eta gaba ziñien, orain Jaunagan argi ta eguna zarie; Jaunagandik argija artzen dozue. Argijaren semiak lez ibilli ta bixi zaitteze. *Ut filii lucis ambulate*» (Eph. 5, 8).

2. Geure diruagaz erosten dogun gauzia, geuria dala esaten dogu, geure diruaren ordez erosi dogulako. Geure lan eta ixerdijagaz egin edo irabazi doguna, diruagaz erosirikua baño be geurijago da. Eta lan edo

ixerdijaren ordez, geure odolagaz irabaziko bagendu, esango geunke: «Neure odola bestian au gauzau neure-neuria da, neure zanetako odolaren ordaña da-ta». Orain ba, S(an) Pedro Apost(oluak) diñausku: «Jaxi-xue Jaunak berrerosi edo barriro erosi zindduezala, ez zidar eta urriagaz ta bai bere odol garbi ta orbanbagiaz. *Non corruptibilibus auro et argento, sed pretioso sanguine*» (I Petr. 1, 18-19). Diruagaz erosi dogun gauza baten eskubidia badaukagu, zelakua ixango ete da Jaunak gugan daukan eskubidia, diruagaz barik, bere ixerdi ta odolagaz erosi gindduzan-ta?

Egiz, Jaunak egin gindduzalako, beste barik be Jaunarenak giñan; baña geure erruz galdu giñanian. Jaunak barriro bere odolagaz erosi gindduzan, eta augaittik, Jaunak gugan daukazan eskubidiak ixan leikezanik andi ta sendoenak dira, ta guk Jaunarenak ixateko daukagun egin-biar edo obligaziñua be, gixonak euki leikenik estuena, biarrena, inddartsuena.

3. Azkenez, daukaguzan beste gauza on guztijak emon ta gero, emon jakun Jauna berbera. Emon jakun geugaittik gixatu zanian, emon jakun ume jaio zanian; emon jakun bere bixitza ezkutuan, emon jakun bere bixitza agirijan. Emon jakun, guztiz eta osoro, bere azkenengo arnasa ta azkenengo odol-tantaraño bere nekauste edo pasiño ta erijotzan, eta orain barriro, geure arimen jaki<sup>409</sup> ixateko, guztijoi ta baktxari emoten jaku ogi-irudipian Altarako Sakramentuan. Jauna osoro geuri emon jakulako, geu be osoro Jaunari emon biar gajjakoz. Jaunak guri bere ixate guztija emon eta geuk berari geure ixatia, geure almenak, geure zentzun eta inddarrak ez emon gura ixatia, eskar gaizto baltza ixango litzake. Jaunak, gure premiñarik ez eukala, emon euskuzan bere gauzak eta bere ixatia; ezta ixango, ba, geiegi guk, Jaunaren premiñia daukagunok, geure gauzak eta geure burua Jaunari emotia. Jaunak egin dauskuzan mesede guztijak bere maitetasunetik urtenak dira; guztijak dakarre maitetasunaren usain gozua. Augaittik geuk be, maitetasunagaz ondo usaindduta, eskiñi biar dautsagu Jaunari geure ixatia ta geure bixija. Auxe da Jaunak, egin dauskuzan mesede guztijen orde, eskatzen dauskuna: «*Praebe, fili mi, cor tuum mihi*. Ene semia, emoidazu zeure bijotza. Emoidazu zeure bijotzeko maitetasuna; maitatu nagixu beti, maitatu nagixu gauza guztijetan. Neu bakarrik maitatu nagixu, beste guztijak maitatu egixuz Neugan, aonelan Neu ixan naitten jaube, uga-zaba ta agintari zure bijotzian. Gomutau egixu Nik neure bijotzian euki

<sup>409</sup> *Jaki*: janari.

zaitudala ta eskar onekua ixan nai badozu, ekazu zeure bijotza: *Praebe cor tuum mihi*.

Auspeztu gaixan, ba, geure Jaunaren oñetan. Ezagutu ta aintzat artu daiguzan egin dauskuzan mesediak, eta eurakaittik dautsogun zorra, al dogun bestetxuan, ordaintzeko, eskiñi ta emon daioguzan osoro geure bijotzak.

Ezagutu ta autortzen dogu, geure Jaun ona, andi ta berua ixan dala Zuk guri ixan dauskuzun maitetasun samurra; ezagutzen dogu gure Zugarako maitetasun au epel eta txikarra baño ez dala. Baña errukiz artu egixu ta gure bijotzen jaube egin zaitte; gure maitetasun epel au berotu, txikar au azi ta geittu egixu. Orain zeure eskar eta grazija ta gero betiko bixija emon eiguzu. Amen.

## 2.2. JESUKRISTO

### 2.2.1. *Jesusen Bibotza* (XXIV, XXV, XXVI, XXVII, XXVIII, XXIX, XXX)

## XXVIII

1922

### LEKEITIOKO ERRIA GANGERITIK ALDENDU EBALAKO, ESKAR ONA

*«Quid retribuam Domino pro omnibus quae retribuit mihi?  
Vota mea Domino reddam coram omni populo ejus?»*

«Ze ordain emongo ete dausat Jaunari,  
berak egin daustazan mesedien ordez?»

Neure eskintzariak bere erri guztiaren aurrean ordainduko dautsadaz.»

(Ps. 115, 12-14)

N(eure) entz(u)le) mait(eok):

Jainkoak mesede asko ta andiak egiten daukuz; bere mesedeakaz gure biotzak irabazi nai izaten ditu. Baina gizonak zentzunera ekarteko, mesedeak naiko ez diranean, zigorra eskuan artu ta gizadiari lepoa berotzen be baidaki. On eta errukiorra da-ta, txarrean baino onean gure biotzak irabazi naiago izaten dau; baina geuk onean nai ez badogu, zigor astuna be bein baino sarriago erabili daroa. Israelgo bere erriari inon diran mesedeak egin eütsazan. Au ta guzti be, a erri itsu, biurri ta gaiztoa Jaunaren bideak itxita, beste bide oker eta dongeatatik sarritan ibili oi zan, eta Jaunak zentzun onera ekartearren, bateko gudateak edo gerrateak, besteko goseteak, besteko izurteak bialtzen eutsozan. Eta onean nai ez eban erria, zigor orreikaz ekarten eban bide zuzenera.

Israelgo erriaz egiten ebana, bein baino sarriago kistinau-erriaz be egin daroa. Onelako gaitz, kalte ta zoritxarrak gizadiaren lepora jausten diran guztietan eta bakotxean, Jainkoaren zigorra dirala ezin esan lei; bein baino sarriago gizadia bera izaten da, bere buruari onelako lor, neke, gaitz eta kalteak ekarten dautsozana-ta. Baina Jainkoak bialdu edo

gitxienez be berak laketu barik, munduan ezertxu be ez dala jazoten baidakigu; augaitik, gudate, gosete, izurte ta beste onelako gaitz eta kalteak etorten diranean, Jainkoak bialdu ez baditu be, guk ezagutzen ez dogun zioen bategatik, zegaitik edo agaitik, Jaunak berak laketu ditua-la sinetsi bear dogu.

Gudate ta goseteak alde batera itxirik, geixo ta izurrien artean bildurgarrietariko da, Ganges aldean lenen agertu zalako, gangeri edo kolerea deritxoguna. Gangeri edo kolera ori, mila zortzireun eta berrogeta amaboskarren urtean (1855) emen inguru guztian zabal ibili zan; bizitza asko ebagi ta triskantza gogorak egin ebazan. Gero, mila zortzireun eta larogeta boskarren urtean be (1885), barriro agertu zan eta ikarra andia sartu eban; ainbat gizasemeri eriotzako ateak idegi eutsezan. Emendik urrin barik be, bere aserrea erakutsi eban; baina bigarren aldi onetan ez zan Lekeitioko urian sartu ta, augaitik, udalak<sup>410</sup> Jesusen Biotzari, urtero eskarrak emoteko asmo eta erabagia artu ebazan. Onetarakoxe ba, eskarrak emoteko, egiten dogu gaurko elizkizun au. Mila zortzireun eta larogeta boskarren urtean, izurri ta gaitz bildurgarri orretatik Lekeitioko uria zaindu eban Jaunak; beste kalte ta zoritxar askotatik be jagon eta zaindu gaitu; beste mesede asko, guztioi ta baktoxari egin dauskuz, eta guztiakaitik geure biotzetako eskar ona erakutsi bear dautsagu. Mesedeak artu dituanak eskar ona zor dau; Jaunak mesede asko egin dauskuz eta geure eskar ona zor dautsogu. Auxe izango da nire itzaldi aonen gaia. Aurrera joan baino len:

## I

*«Quid retribuam Domino pro omnibus quae retribuit mihi?*

*Vota mea Domino reddam coram omni populo ejus.»*

(Ps. 115, 12-14)

Neure entz(ule) mait(eok), esker gaiztoa gauza nazkagarri, iguingarri, gorrotogarri izaten da. Eskar gaiztoko gizonak biotz txatxarra daukala esaten dogu eta beragaz artu-emonik inok be ez dau euki gura izaten. Abereak be sarri askotan eskar onekoak izan oi dira; augaitik, eskar txarreko gizona abere ta basapiztiak baino be gaiztoagotzat eukiten dogu. Baina eskar gaiztoak iguin emoten dauskun bestean, eskar ona

<sup>410</sup> [Udal: aiuntamentu.]

atsegin izaten jaku; egindako mesedeai eskar onez erantzuten dautse-  
nak, geure biotzak osoro irabazten dauskuz, eta mesede barriak egiteko  
askozaz be gertuago egoten gara. Guk eskar onez erantzuten dautsagu-  
nean, Jaunak be mesede barriak eta gero baino gero andiagoak egiten  
dauskuz-ta, gure eskar onaz atsegin artzen dauala esan lei.

Eskar ona zer da? Norbaitek egin dauskuzan mesedeak ezagutu,  
autortu, goretsi ta al dogun bestean ordaindutera bultzau edo igitzen  
gariozan birtutea; onoimena, orixe da eskar ona. Augaitik, gure Jaunak  
egin dauskuzan mesede andi, jori ta ugariak ezagutu, besteen aurrean  
autortu, andietsi ta goratzen badoguz; Jaunari, al dogun bestean, egin  
dauskuzan mesede orreik ordaindu badaioguz, Jaunagaz eskar onekoak  
izango gara eta mesede barriak jadesteko bide onetik gabilkez.

Jaunari guzti-guztiok zor dautsaguzan mesedeak S(an) Agustinek  
aitatu ta azalduten ditu. «Egin daustazun mesede bakotxagaitik –dino–,  
biotzetiko eskar ona zor dautsut, ene Jaun maiteorri. Ez nintzanean, egin  
ninduzun; egin ta gero, berrerosi; oben egin nebanean, parkatu. Zeuga-  
na biurtu nintzanean, lagundu ta onean iraun ezkerro, garaitzalien bures-  
tuna, koroia, agindu daustazu. *Antequam essem, quia feciste me; cum  
essem, quia salutem dedisti; cum peccassem, quia ignovisti; cum conver-  
sus essem, quia adjuvisti; cum perseverassem, quia coronasti.*»

Eta egiz, onelako mesede bakotxagaitik, geure bizitza guztiko eskar  
ona zor dautsagu geure Jaun eta Ongile andia dan Jainkoari. Gure orde-  
z beste batzuk egin eikezan eta gu egin barik itxi; beste askori emon ez  
dautsen lez, guri be izate ta bizirik ez emotea bere eskuan eukan. Zegai-  
tik emon euskun, ba, guri beste askori ukatu dautsen izate ori? Maitatu  
ginduzalako! *In caritate perpetua dilexi te.*» Izan baino be len maitatu  
ginduzalako, orixegaitik izatera ekarri gaitu; eta ginanean, irazan edo  
egin ginduzalako, betiko eskar ona zor dautsagu. *Antequam essem,  
quia fecisti me.*»

Eta bein emondako izateari, Jaunak berak iraunazoten dautso.  
Augaitik esaten eban len aitatu dodan Agustin Deunak: «Ordu ta une  
bakotxean, ene Jauna, zure errukiaren mesedeak artzen ditut. Une  
bakotxean ezereztuko nintzake, zeuk eutsiko ez bazeunst; une bakotxe-  
an ilgo nintzake, zeuk bizierazoko ez baninduzu. Une bakotxean eskar  
ona zor dautsut, une bakotxean zure mesedeak artzen nagoalako. *Omni  
momento me tibi obligas, dum omni momento mihi tua beneficia praes-  
tas.*»

Jaunak gizona lenengoz egin ebanean, zerurako egin eban; baina  
gizonak bere erruz galdu eban eskubide eder ori. Eta Jaunak bere odo-  
laz berrerosi ebanean, barriro zerurako bidean ipini eban ezkerro, zuzen  
esan ginei Jaunak barriro bigarrenez egin ebalá gizonak galduriko esku-



bide ori barriro emon eutsanean. Bigarren mesede au lenengoa baino be askozaz andiagoa da, Jaunak gizona berrerosteko, bera egiteko baino askozaz be neke geiago artu bear izan eban-ta. «Zeuk egin ninduzulako –dinotso S(an) Bernardok Jaunari–, egin ninduzulako guztian zeurea naiatzu; baina bigarrenez egin ninduzulako dautsudan zorra, zelan ordaindu al izango dautsut? Errez egin ninduzun; baina ni berregitea gatx izan jatzun. Itz bat esanaz beste barik egin ninduzun; baina berregiteko, gauza asko esan eta arrigarriak egin, neke izugarriak artu ta lotsari andiak jasan bear izan zenduzan. Zegaz eta zelan ordaindu neikezu, ba, Jaun andiorri dautsudan zor au? Mila bidar neure burua, nazan guzti au emongo banintzakezu be, neure zor onen apur bat ezin ordaindu, ezin kitutu izango neuskizu. Ez bedi, ba, inor beretzat bizi: guztiak, euren alde il zan Jaunarentzat bizi bediz. *Nemo igitur sibi vivat sed ei qui pro se mortus est.*»

Egin doguzan obenak ainbeste bidar parkatu dauskuz Jaunak; eta zeruko ateak zarratzen dauskuezan obenak, asketsi<sup>411</sup> dauskuzan bako-txean, barriro zerua idegi dauskula ondo dakigu. Au mesede andi ta gomutagarri au, zenbat bidar egin ete dausku? Aonelako mesede bat bakarra geure bizitza guztian ordaindu ezin bageinkeo, onenbeste mesede zegaz eta zelan ordaindu al izango ete dautsoguz? «Daukadazan gauza on guztiak, ene Jauna –esaten eutsan San Agustinek–, guztiak zeureak dira, zeure errukiak emon daustaz-ta. Neure gaitzakeri ta arriskueta-tik atera nozu; zugaz aztu nintzanean, nigaz gomutau zara; urrindu nintzanean, zeugana biurtu nozu; nentorreanean, maitasunez artu; damutu nintzanean, parkatu daustazu. Nazan guzti au zor naiatzu, neure gauza guztiakin zeurea nozu. Dautsudan zor andi au zelanbait ordaindu al izateko, beti maitetasun-garretan euki nai neuke neure biotz au. Biztu egizu, ba, Jauna, isiotu egizu nire biotzean zeugazko maitetasuna, gorritu egizu nire biotza, altara aurreko argia lez gau ta egun garretan iraun dagian.»

Onez gainera, bakoxtari banezean egin dauskuzan mesedeak, bako-txak dakiz, eta geuk igarri ta ezagutu barik be, mesede asko egin dauskuz. Edozein mesederi eskar ona zor bajako, aonenbeste mesede ta onelako mesede andiai, zelako eskar ona zor izango ete jako? Egiz eta benetan, entzule mait(eok), geure biotzeko zokondo guztiak eskar onez heterik euki bear geunkez eta geure bizitza guztian, inoz aspertu barik, Jaunari eskarrak emoten ekin bear geunskio!

<sup>411</sup> *Asketsi*: parkatu.

Mesedeak egiten dauskuzan Jaun orrek, eskar onekoak izan gaizala agintzen dausku; santuak, gure eredu izan diran santuak, eskar ona irakatsi dauskue; gure Ama Eleizeak, eten barik, Jaunari eskarrak egiten diardu. Abereak be sarri askotan euren ongileekin eskar onekoak izaten dakie ta, guk geure Jaunaren mesedeak aitzu egingo ete doguz? Geure Jaun onagaz eskar gaiztoko izango ete gara?

Jaunak Israelgo bere erriari mesede andiak egin eutsazan, eta onelako mesede bakoxtaren gomutea urtero barriztau egiala be agindu eutsan. Egiptoko joputzatik atarau ebalako, lekaroan<sup>412</sup>, basamortuan berrogei urtean zerutiko janariaz elikatu ebalako, Sinaiko mendian Legea emon eutsolako, Israelgo erriak, Jainkoaren aginduz, urtero jaiak egiten ebazan, Jaunaren eskutik arturiko mesede orreik gomutara ekarri, ezagutu, autortu ta goratzeko. Jaunak berak nai dau, ba, bere mesedeakaitik eskarrak emon daioguzan. Augaitik, S(an) Paulo Apost(oluak) esaten eban: *«In omnibus gratias agite. Haec est enim voluntas Dei. Gauza guztietan eskarrak egizuez. Jainkoaren naia orixe da-ta»* (I Thess. 5, 18). Ta beste toki baten: *«Beste ezer baino len, gizon guztien izenean, erregu, otoi, eskari ta eskarrak egin daizuezala eskatzen dautsuet. Obsecro igitur primum omnium fieri obsecrationes, orationes, postulationes, gratiarum actiones pro omnibus hominibus»* (I Tim. 2, 1).

Zeruko zorionsuen zeregina, orixe izango da: Jainkoari eskarrak emotea. *«Gaudium et laetitia inuenietur in ea, gratiarum actio eta vox laudis»* (Isaias 51, 3). Alaitasun eta poza an aurkituko dira; eskarrak emotea ta Jauna goratzea, ori izango da zorionsuen eginena. Augaitik, santuak, zerurako aututa egozan santuak, lurtean bizi zirala asi eben zeruko egikizun au, ta Jaunak egin eutsezan mesedeak gogoraturik, berari eskarrak emoten ez ziran inoz aspertu; eten barik goraldtu eben Jauna ta euren egitade guztietan erakutsi eutsoen biotzeko eskar ona. Auxe berau da lurtean gure Ama Eleizearen zeregina be; Jaunak egiten dautsazan mesedeak beti gogoan darabiltz eta abadien ezpanetan iminten dituan otoitzak, erreguak, Jaunagazko eskar onez bete-beterik dagoz. Ainbeste bidar esan eragiten dausku: *«Aintza, gloria ta omena Aitari, aintza Semeari, aintza Espiritu Santuari»*. Ainbeste bidar esaten dogu: *«Deo gratias. Jainkoari eskarrak»*; eta lenengo aldietako kistinauak, S(an) Agustinek dinauskunez, alkarrekin aurkitzen ziranean be, *«Deo gratias»* esanaz, bata-besteari agur egiten eutsen.

Guri eskar onekoak izaten irakasteko-edo, Jainkoak aberien biotzetan be eskar ona sartu, ezarri ta irarri dau. Jateko pizka bat emoten dau-

<sup>412</sup> *Lekaro*: basamortu.

tselako, abereak euren ugazaba ezagutzen dabe; txakurrak eta zaldiak eta basapiztiak be, inoz baino sarriago, euren eskar ona ugazabai erakusteko, sinestu be ezin leikezan gauzak egiten dabez. Eta gizona, Jaunaren mesedeak ezagutzeko, adina daukan gizona, abereak baino gixiago izango ete da? Abereak baino eskar txarragokoa izango ete da? Orrenbeste be inoz gertau da; ta augaitik dinausku Jaunak, Isaias igarlearen agoz: «Idiak bere ugazaba ta astoak bere jabearen askea ezagutzen dabez. Israelek, ostera, ni ez nau ezagutu; nire erriak bere Jabe ta Ugazaba nazan au, ez nau ezagutu, ez nau autortu» (Isaias 1, 3). «Semeak elikatu ta azi dodaz ta eurak ez nabe aintzat artu. *Filios enutriwi et exaltavi; ipsi autem spreverunt me*» (Isaias 1, 2). Jaunak orrelako agiraka gogorrik inoz egin ez daigun, bere eskutik artu doguzan mesedeak ezagutu, autortu ta aintzat artu bear doguz, zein ugariak eta zelako andi ta ederak izan diran gomutaurik.

Inguratzen gaituen izaki guztiak eta bakotxak iru gauza, iru itz esaten daukuez: *accipe, redde, fuge*; mesedea artu egizu, eskar ona erakutsi egizu, ta eskar gaiztotik iges egizu. Zeruak dinausku, artu egizu argia; suak, artu egizu beroa; aizeak, artu egizu arnasea; lurak eta itxasoak, artu egizuz abere, arrain, jaki ta biziteko bear dozun guztia. Baina jakizu, gu zure otsein egin ginduzun Jaunak, zu bere otsein egin zaituala; jakizu, zuri gure bitartez on eta mesede egiten dautsuna, Jainkoa bera dala. Ori jakizu, ta berari agertu ta erakutsi egiozu zeure biotzeko eskar ona; *redde*. Eskar gaiztoko dirantzat, zorigaiztoa dago; gure bitartez Jaunak egiten dautsezan mesedeak ezagutu nai ez dabezanen kaltez, guztiok jagiko gara ta orain, Jaunaren aginduz, gizonaren otsein eta ongile garionok, gero bere arerio ta etsai egingo gaiakoz. *Fuge*, eskar txarretik iges egizu.

Ezagutu, autortu ta goretsi daigun, ba, Jaunak Lekeitioko uriari, milia zortzireun eta larogeta boskarren urtean gangeri edo koleratik jagon eta zaindu ebanian, egin eutson mesedea, eta mesede origaitik erakutsi daiogun Jaunari geure biotzetako eskar ona. Baina orrezaz gainera beste mesede asko be egin daukuz eta, guztiakaitik biotzetiko eskar samur eta laztantsuak emon bear dautsaguz.

Santiago Apost(oluak) dinauskuna gomutau daigun: «*Omne datum optimum et omne donum perfectum desursum est, descendena a Patre luminum*. Emaizta on guztiak, eskar ta doe on guztiak goitikoak dira, argiaren Aita dan Jaunagandik jasten dira-ta» (Jac. 1, 17). Gomutau daigun Jainkoaren mesedeak eguzkiaren argi-izpien antza daukela; eguzkiaren argi-izpiak gitxika-gitxika ortzean zabaltzen dira ta gero baino gero argitasun andi, ederragoa emoten dabe. Jainkoak be lenengotan mesede txikiagoak egiten ditu; baina lenengo mesedeak zintzoro erabi-

lita, eskar ona erakusten dautsenari, gero baino gero argitasun geiago, eskar eta mesede andiagoak emoten dautsaz. Eguzkiaren argi-izpiak lurreko ta itxasoko urak lurrundu, gora jaso ta euri gozatsu biurtuta, barriro lurrera bialtzen dabezan lez, Jainkoaren mesedeak be, egitade onetan erabili ezkeru, eskar onezko lurrun gozo biurtuta, Jaunaren aurreraino igoten dira ta andik mesede barriak erasten dauskuez. One-lan ba, gure eskar gaiztoak Jaunaren mesedeai bidea zarratzen dautse, baina gure eskar onak mesede barriai be idegi; augaitik, geure Jauna-gandik mesede barri ta andiagoak lortu ta jadetsi nai badoguz, aurrera-go egin dauskuzanakaitik eskar bizi, bero ta biotzetikoak emon bear dautsaguz.

Auspaztu gaizan, ba, bere oinetan eta esan daiogun: Geure Jaun ona, garean guztiok zor gaiatzuz, geure gauza guztiakin zeureak gozuz. Ezagutzen dogu, autortzen dogu, eskarrak emoten dautsuguz. Bein baino sarriago eskar gaiztoko izan gaiatzuz-ta, parkeske gagokizuz. Ontasun osoa, erruki utsa zarean Jaunorrek mesede barriak guri egiten jarraitu egizu, eta azkenengo mesede, zeruko zoriona, ez eiguzu ukatu. Betiko eskarrak emon daitsuguzan, zeruko atea idegi eiguzuz.

## 2.2. JESUKRISTO

### 2.2.1. *Jesusen Bihotza* (XXIV, XXV, XXVI, XXVII, XXVIII, XXIX, XXX)

## XXIX

Lekeitio

*«Tu gloria Jerusalem, tu laetitia Israel, tu honorificentia populi nostri.»*

### JESUSEN BIOTZA<sup>413</sup>

*«Quam bonus Israel Deus!»*  
«Ara ona Israelgo Jangoikoa!»

(Ps. 72, 1)

*«Cum dilexisset suos qui erant in mundo, in finem dilexit eos.»*

«Lurrean eukazan bere maiteak,  
azkenerantza ta maiteago izan ebazan Jaunak.»

(Joan 13, 1)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Gaurko elizkizun onetan gauza bi alkartu doguz, eta nik be neure itzaldi onetan orixe berori egin bear dot. 1885garren urtean gangeri edo kolerea deritxon geixoa agertu zan bigarrenez. Emendik urrun barik be geixo orren igitei zorrotzak askori bizia kendu eutsen. Baina Lekeitio ez zan sartu; Jaunak nai ez ebalako, bape kalterik ez eban egin. Orre-lan zainduaz, Jaunak Lekeitioko uriari mesede andia egin eutsan. Meza barriak be gizaseme guztioi Jaunak egin euskun beste mesede andi bat geure gomutara dakarsku. Au dala-ta, mesede guztioen sustrai ta iturri dan Jaunaren maitasuna azaldu ta adierazotea egoki izango da.

Edozein mesedek, baina batez be maitasun utsez egiten danak, artzen dauanari eskar ona eskatzen dautso. Jaunak mesede asko ta andiak

---

<sup>413</sup> Izenburuagaz batera: «Lekeitio, meza barri baten».

egin dauskuz guztioi, eta mesede orreik bere maitasunaren ezaugarri eder eta bikainak dira. Augaitik, guk berari zor dauzsagun eskar ona be, andienetarikoa izan bear.

Bakotxari, banezean, egin dauskuzan mesedeak alde batera itxirik, guztioi egin dauskuzan batzuk aitatu daiguzan. S(an) Joan Apost(oluak) dinoskunez, Jangoikoa maitasuna da; egindako gauza guztiak, Jaunaren maitasunak egin ditu ta maitasun orren indarrak darabiltz. Lenengo gizonaren gorputza, lurreko basaz egin ta gero, bere maitasun-arnasaz biztu eban. Sinaiko mendian, Israelgo erriari bere legea emon eutsanean, zek igitu eban Jauna ori egitera? Maitasunak, gizonakazko maitasunak! Gero, gizadia galdubidetik<sup>414</sup> atera ta zorion-bidean ipinteko, bere Semea bialdu eban lurrera. Andik aurrera Jangoikoaren maitasunak bere Seme ta gure Jaunaren Biotza bere egongu ta bizitokitizat artu eban eta, augaitik, Jesukistoren bizitza ta eriotzeak, gure onerako artu ebazan nekeak eta egin ebazan mirariak, maitasun ori dabe euren iturri, maitasun orren agerkun, ezaugarri ta egitadeak baino besterik ez dira-ta.

Jesukisto gure Jauna Jangoiko on eta maitagarri agertu jakun, Belen-go aterpean asi ta gurutzeraino bere maitasun samur, bizi, bero ta gartsuaren ezaugarri ederrrik asko emon euskun-ta. Baina Eleizako irakasleak dinoskuenez, ezaugarri guztioen artean andi, eder eta arrigarriena, Altarako Sakramentua da; sakramentuan geldituaz, gurutzeko eriotzeaz baino be obeto agertu euskun Jaunak bere maitasun neurrigabea.

Jaunaren Biotz maitaleak gure osasunerako egin dauan miraririk andi ta arrigarriena orixe da. Eta egiz be, bizitzan ainbeste maitatu ginduzan Jesukistoren Biotza, orain be sakramentu gurgarri orretan geu maitatzen dago; eta gurutzearen besoetan gure betiko osasuna egitearren bere burua eskini eban lez, orain be, Aita Zerukoari egunero ta egunean sarri, abadeen eskuz, eskintza ta opari ori barriro egiten dautso.

Nire itzaldi onen gaia gauza bi orreik zuori adierazotea izango da. Bear dan lez egin al izateko, aurrera jarraitu baino len, Jaunaren aurrean auspaztu gaizan eta bere laguntasuna eskatu daiogun.

## I

N(eure) entz(u)le mait(eok), Altarako Sakramentuan estalduta bai, baina egiz eta benetan dago gure Jauna, eta bere maitasunik andi ta samurrena, bero ta gartsuena orretantxe erakusten dauku. Jaunaren

<sup>414</sup> *Galdubide*: galbide, okerbide.

bular gainean bere burua ipinita, Jaunaren Biotzeko taupadak entzun ebazan apostoluak, biotz andi orren maitasuna bere iturburuan edoski ta ondoen ezagutu eban ikasle maiteak dinoskuna gomutau daigun. «Jaunak –dino ikasle maite orrek–, Jaunak bere bizitzan, zeruko bidea irakasten erririk erri ebilan bitartean, maitasunik samur eta laztanena agertu eutsoen gizasemeai. Baina mundu au itxi ta gizonakandik alde egiteko ordua etorri zanean, bere maitasun ori neurri barik azi, geitu ta sendotu zan; lendik ain samurra zan maitasun ori, samur eta laztanago eginik, ezin geiagoan bero ta gartsu agertu jakun.»

«*Cum dilexisset suos qui erant in mundo, in finem dilexit eos.* Lurrean eukazan bere maiteak, bere bizitzearen azkenaldian inoz baino maitago izan ebazan.» Igaratz<sup>415</sup> edo Pazkoa ospatzeko, bere ikaslak apaltokian<sup>416</sup> batu ebazan Jaunak, eta apaiten<sup>417</sup> asi orduko, onelan esan eutsen: «Neure nekaldia, neure pasinoa asi baino len, azken aparti<sup>418</sup> au zuekin egiteko gurari bizi-bizia euki dot. *Desiderio desideravi.* Mundu au itxita, barriro neure Aitagana noa; baina ni banoiala-ta, ez zaiteze larregi estutu. Ume zurtz ez zaituet itxiko-ta. *Non relinquam vos orfanos.* Ez, ume zurtz ez zaituet itxiko; ona emen ni zuekin nago, zuekin egongo naz munduaren azkeneraino. *Usque ad consummationem saeculi.*»

Azken aparti aretan Jaunak berak biurtu ebazan lenengoz ogiaren izatea bere gorputz eta ardaoarena bere odol. Jaunak berak emon eban lenengo mezea ta bere ondorengo meza-emoleai berak egin ebana barriro egiteko almen edo eskubidea emon eutsen, esanaz: «Zuek be beste onenbeste egizue nire gomutaz, ni barriro etorri arte». Jaunak bere maitasunaren azken ezaugarria, guztien artean andi ta ederrena, orduantxe emon euskun; geugaz gelditu zan munduaren azkeneraino ta ez genduzan umezurtz itxi. «*Non relinquam vos orfanos.*»

## II

Ogi ta ardaoaren izatea Jaunaren Gorputz eta Odol biurtu ta egiten dirala esan dot, eta orixe da, ain zuzen be, geure sinesteak irakasten daukuna. Gauzen izatea begiz ezin ikusi, agoz ezin gozartu<sup>419</sup>, eskuz ezin ikutu geinke. Edozein gauzak zelako margo edo kolorea daukan,

<sup>415</sup> *Igaratz*: Pazkoa.

<sup>416</sup> *Apaltoki*: afaltoki.

<sup>417</sup> *Apaiten*: afaltzen.

<sup>418</sup> *Aparti*: afari.

<sup>419</sup> *Gozartu*: gozatu.

ori bai, ori begiz ikusten dogu; mingots ala gozoa dan, agoz gozartu ezkerro ezagutzen dogu; gogor ala biguna, luzanga ala biribila, andi ala txikia dan be, eskuz ikutu ezkerro edonok igarri ta ezagutu daike. Baina gauzen zurtasun naiz balztasuna, mingoiztasun<sup>420</sup> naiz gozotasuna, anditasun naiz txikitasuna, euren izatea diranik ez dogu uste izan bear; orreik guztiok eta beste orrelako asko izateari gainetik inkau edo ezarten jakazan eraskinak baino ez dira-ta. Izatea barru-barrukoa da-ta, inok be ezin ikusi, ezin dastatu, ezin ikutu daike. Aitaturiko margo edo kolore, gozotasun eta enparauok, ostera, azalekoak, gainekoak dira. Izateari gainetik iratsi edo ezarten jakazan eraskin argalak dira-ta, orreik bai, orreik ikusi, dastatu edo ikutu geinkez; baina izatea bera, ezelan be ez!

Au edonorentzat gauza argia dala uste dot. Begira ezpabe. Lur zabalean enda askotako gizasemeak dagoz: zuri, ori ta baltzak. European geienak zuriak dira; Asian oriak geiago; ta Afrikan baltzak ez gitxi. Baina zurtasuna gizonaren izatea balitz, enda ori nai baltzekorik gizon ez litzake izango. Itxasoko ura gazia da; ibai edo erreketakoa, geza edo gazea. Baina gazitasuna uraren izatea balitz, ibaietakoa ura ez litzake izango. Gauzen izatea andi-txikian be ez dagoala edonok daki. Gizon andi naiz txikiak izate bardina dauke; itxasoko ur lodiak naiz iturriari darion ur apurtxuak be izate bardina; itxasoan ur geiago bai, baina itxasoko ura, iturriari dariona naiz atzamar-erpinean artu geinken ur-tantatxua izate bardinekoak dirala inok ezin ukatu daike, irurak ura dira-ta.

Orain ba, ogiaren izateari eta bardin ardaoarenari be gainetik ezarten jakazan eraskinak, bere zurtasun, gozotasun, biguntasun, biribiltasun eta enparauak, Altarako Sakramentuan ikutu ta aldatu barik gelditzen dira, orreik ogiaren izatea ez diralako, ta ogi ta ardaoaren izatea bakarrik biurtu ta aldatzen diralako gure Jaunaren Gorputz eta Odol. Eta augaitik, Altarako Sakramentuan Jaunaren Gorputz eta Odola izatea lez, izate arauz, izatearen antzera dagozalako, begiz ezin ikusi, agoz ezin dastatu, eskuz ezin ikutu geinkez; baina geure Jaun laztan-maitagarria, estalduta bai, baina egiz eta benetan ortxe dagoala geure sinesteak dinosku. Gauzai izatea, ezetarikoi gai barik, ezerezetik emon eutsen Jaunak, izate ori errez aldatu daike, eta izatea andi-txikian ez dagoalako, leku andi naiz txikian bardin egon daitekelako, orixegaitik, Jaunaren Gorputz eta Odola, begiz ikusi ez arren, Altarako Sakramentuan egiz eta benetan dagozala zuzen sinesten dogu.

Mirari au egiteko gauza bi naiko zirala badakizue: al izatea ta nai izatea; besterik ez zala bear, edonok daki. Baina Jaunak al eban eta nai izan

<sup>420</sup> *Mingoiztasun*: garratzasun.



eban. Jesukistoren jangoikotasuna lenago ukatu ezik, Jaunari orretarako almen eta indarra zentzundun gizonak ezin ukatu leio; ori gauza argiegia da inok ukatu al izateko. Baina nai izan ebala be, Jaunak beste gauza askotan erakutsi euskun maitasuna gomutau ezkeru, argiro dakusgu. Ezpabe, esan: eta Jaungoikoaren Semea zerutik lurrera, zek eratsi eban? Ari be maitasunak, geugazko maitasunak! Maitasun onek eratsi eban A(ndra) Mariaren errai garbietara, maitasun onek eroan eban Belengo aterpera, maitasun onek eragin eutsan Nazareteko errian ogetamar urteko bizitza ixil eta ezkutua, maitasun onek erabili eban erririk erri arimen bila, maitasun onek eroan eban Kalbarioko aldapan gora, maitasun onek arrerazo eutsan gurutzeko eriotzea. Baina maitasunaren indarra maitalea bere maiteakin batu, alkartu ta lotzeko izaten dala ondo dakizue; augaitik, gure maitale nagosi dan Jaunak bere ikaslai esan eutsen: «Ni zuekin nago, zuekin egongo naz munduaren azkeneraino. *Usque ad consumptionem saeculi*». Gure Jaun maitakor eta samurrak orrenbestearaino maitatu ginduzan eta Jaun maitale arentzat gauza gatxik ez dagoala badakizue. Bere maitasun andi ta samur ori guri erakustearren, Jauna Altarako Sakramentuan dago, geugaz dago, gau ta egun geu maitatzen dago.

Jesusen Biotzak bere maitasunaren ezaugarririk asko emon euskuzan bere bizitzan, baina guztien artean andiena, auxe da: Altarako Sakramentuan emoten dauskuna da. Ezaugarri au betirako da, munduaren azkeneraino iraungo dau; augaitik, ezaugarri onen bidez adierazoten dauskun maitasuna be betirakoa da eta sakramentuak iraungo diraueno, munduaren azkeneraino, iraungo dau. Jesusen Biotza Altarako Sakramentuan bizirik dago; gugandik ur dago, beti geu maitatzen dago. Munduan bizi zanean lez, orain be on egiten dauku, mesedeak egiten daukuz, eta on egitea ta maite izatea gauza bat dira.

Jaunak, gure betiko osasuna egitearren, bere odola isuri ta bere bizia opaldu ta emon eban gurutzean. Maiteen alde norbere odola isuri ta bizia emon ezkeru, ori baino geiago egin leikenik ez dirudi. Eta egiz, gizon utsaren maitasunak, andi ta zintzoena izan arren be, geiagorik ezin egin daike. Baina Jangoiko ta gizonen artean azkenbako<sup>421</sup> aldea dago ta Jangoikoaren maitasuna gizonenagaz ezelan be ezin bardindu geinke; Jangoikoa edozetan Jangoiko agertzen da, ta maitasunean be bai. Jesukisto gure Jaunaren jakituri ta maitasunak, gurutzearren besoetan bere buru ta bizia gure alde eskini ta gero, opari ta eskintza ori barriztetako bidea aurkitu eben: Altarako Sakramentuan gelditu zan, eta

<sup>421</sup> *Azkenbako*: mugabako.

gurutzean egin eban oparia berbera orain mezatan abadeen eskuz egiten dau, ez bein bakarrik, sarritan baino.

Altaran odol-isurterik ez dago; baina gainerakoan, gurutzeko oparia ta altaran egiten dana, bat eta berbera dira. Gizonen osasuna egitearren eskini zan Jauna gurutzean; gurutzeko bere irabaziak guri emotearren, irabazi orrein jabe egin gaitezaz, eskintzen da Jauna meza santuan. Onelan Jaunak egunero mesede barriak egiten dauskuz, eta mesedeak egitea ta maite izatea gauza bat diralako, gure Jauna Altarako Sakramentuan, eten barik geu maitatzen dagoala sinetsi bear dogu, eta ori dala-ta geuk be berari etenbako eskar ona zor dauzsagu.

Mezako oparia abadeen eskuz egiten dau Jaunak. Azken aparia amaitu ondoren, bere ikaslai esan eutsen: *«Hoc facite in meam commemorationem. Nik egin dodan au, nire gomutaz, zuek be egizue, ni barriro etorri arte»*. Gurutzean lez mezatan be bere burua Jaunak berak eskintzen dau-ta, abadeok bere ordeko baino besterik ez gara; baina onelako gauza baten Jaunaren ordeko izatea be, benetan zeregin andi ta arduratsua dala edonok daki. Orretarako duin dan gizasemerik lurrean ez dago; baina gure ezereztasuna ondo ezagutzen dauan Jaunak, erruki utsez, orretarakoxe autu gaitu: *«Non vos me elegistis, sed ego elegi vos. Zuek ez nozue ni autu; neuk autu zaituet»*. Eta onelan, geure esku-bideok Jaunaren errukiari zor dauzsaguz.

Eleizate onetako seme baten meza barria daukagu gaur. Abade izateko Jaunak autu dau. Abadearen berarizko zereginak onexek dira: Jaunaren legea irakatsi, arimak orbanetatik garbitu, Eleizearen izenean guztien alde otoitz egin, eta Jaunaren erruki ta mesedeak ugariago jadesteko, Jesukistoren Gorputz eta Odola meza santuan opaldu. Jaunak ilen artetik bizitu ta gero, Madaleneari esan eutsan: *«Oraindik neure Aitagana ez naz igon eta ez eidazu ikutu»*. Abadeai esan dautse: *«Nik egin dodan au zeuek be egizue; zeuen eskuetan artu ta neure Aita Goikoari eskini nagiozue»*. Abadeen berarizko zereginok, dakizuen lez, guztioen onerako dira-ta, lenengoz meza emoten dauan abade barri onek bere zereginak ondo bete dagizan, guztiok Jaunari biotz-biotzez eskatu bear dauzsagu.

Onenbestegaz, zeregin andietarako autu zaitu Jaunak, neure antxina-ko ikasle ta oraingo abade-lagunori. Ainbeste urtean itxaron dozuna, lortu dozu. Meza barria emoteko, altarara igon zara. Laster Jauna zeure eskuetara jatsiko da. Orduan zeure biotza idegi ta zabaldu egiozu; gaurganik guztiz, osoro ta betiko herea izan nai dozula-ta, zeure biotz orren agintari ta jaube, ugazaba ta jaun egin dakizula eskatu egiozu. Zeure eskari orretan zeure guraso ta senideak, zeure aiskide ta ongileak, aitabitxi-amabitxiak, zeure lagun eta erritarrak be sartu egizuz. Zeure meza barri

onetara aurkeztu diran guztien alde otoi egizu; aldi egokia da-ta, guztien zoriona Jaunari eskatu egiozu. Zure ta nire, ta beste abade guztioen asmorik lenena, erabagirik sendoena, guraririk biziena, bere ordeko egin gaituan Jaunak emon dauskuzan zeregin andiok albait ondoen betetea izan bedi. Onelan, bere eskubideak emon dauskuzan Jaunak, orain ondo betetako bear dogun bere laguntasuna ta gero bere zoriona be emongo dauskuz.

## 2.2. JESUKRISTO

### 2.2.1. *Jesusen Bihotza* (XXIV, XXV, XXVI, XXVII, XXVIII, XXIX, XXX)

# XXX

Bilbao

## JAURESKUNDEA<sup>422</sup>

*«Adeamus ergo cum fiducia ad thronum gratiae,  
ut misericordiam consequamur et  
gratiam inveniamus in auxilio opportuno.»*

«Eskardun jarlekura uste betez urreratu gaitезan,  
errukia jadetsi ta adionezko<sup>423</sup> laguntza aurkitu daigun.»

(Hebr. 4, 16)

Goiko jaun gurgarriori, Bizkaiko agintari-batzar bikaina, n(eure) entz(ule) mait(eok):

Gure gaurko Bizkai onek, gauza askotan beintzat, gure asaba zindok ezagutu ebena ez dirudi. Asaben eskubideak, gure arbasoak ainbeste gizalditan biotzez maitatu, sendoro eutsi, ardura ta kemen andiz zaindu ebezan eskubide jatorrak, inoren inartzi ta erruz baino geure erruz bearbada geiago, geure arteko mataza ta nasteak egindako kaltez, igazi dan gizaldian Bizkaiak galdu ebazan eta, nik ez dakit zarrez ala galtzai aonen atsekabez, baina gure erri au aldi luzean bere itzalagaz gerizpetu eban Gernikako aretxa be geixotu, auldu ta igartu zan... Alde onetatik begiratu ezkeru, gaurko Bizkai aonek antxinakoaren antzik ez dauko; baina, zorionez, guztia ez dogu galdu. Asaben egunetan Bizkaiaren biotzean bizi zan sinesmena gaur be bizi da; pizkaren bat, bearbada, auldu ta makaldu izango da, baina dei egin ezkeru, orain be sendoro, adoretz beterik, jagiten da ta gaur egunean be, antxinako bere indar eta mardotasuna argiro darakus. Lege Zarra jausi zan; baina sinestea zutu-

<sup>422</sup> Izenburuagaz batera: «Bilboko Aldundian».

<sup>423</sup> *Adion*: erazko, apropos.

nik dago! Geratu jakun ogasunik ederrena, auxe da, ta guztia galdu nai ez badogu, beroni gogor eta adore andiz eutsi bear dautsogu. Eta eutsiko dautsagula dirudi; gaur emen dakusgun au ikusi ezkerro beintzat, gure asmorik sendoenak gure guraririk biziena, gure amesik gozoena orixe dala esan lei...

Gure asabak, euren ilobietatik jagiko balira, gaur Bizkaiak emen dagiana ikusirik, batetik tamalez, baina bestetik pozez esango leukie: «Oneik gure eskubideak galdu dabez; baina sinismena, ez, sinestean geure semeak dira. Guk itzal eta maitetasunez gurtu ta jauretsi genduan Goiko Jauna, goi-jarlekuan<sup>424</sup> ipini ta bere aurrean auspazturik, euren Jaun, jabe, ugazaba ta agintarizat artzen dabe. Ondo ezagutzen doguz, geure odoletikoak dira, geure oinatzai jarraitzen dautse; guk maitatu genduan Jauna, gure seme oneik be maite dabe!» Ori esango leukie...

Eta egiz, Bizkai guztiaren izenean, geure Jaunaren Biotz laztantsua geure erri aonen jabe, ugazaba, agintari, buru ta nagosi ezagutu ta autortzeko emen batzandu gara. Bizkai osoak, Jaunaren aurrean belau-niko, bere lotsa, itzal eta maitetasuna agertzeko eran, Bizkai osoak, bai, egingo leuko gaurko egun andi ta gomutagarri aoni dagokion lako itzaldia. Nik ezin neike, nai ta be, baina txikar eta gaizo onek guztioen izenean itz egin bear dodan ezkerro, arren anai maiteak, zeuen biotz orreitako maitetasun orri neure biotz onetara iruli egizue, guztiona batera aurkeztu ta eskini ta opaldu dagiodan Bizkaiak bere bakaldun<sup>425</sup>, bere errege, bere nagosi ta jabe autetsi dauan Jaunaren Biotz samur, errukior, maitale ta laztantsu orri.

Bizkaiko agintarien batzarrak igazko bagilaren ogeta bederatzian ebatzi guztiz txalogarria artu eban: Josu Biotzaren irudia goi-jarlekuan jarri ta Bizkai guztia bere jaurgo ta agintzapean ipinteko ebatzia. Egun gomutagarria Bizkaiarentzat ebatzi ta asmo txalogarri ori onetsi zan eguna! Egun andi ta gomutagarria guretzat eta gure ondorengo guztientzat, asmo eder ori, emen baturik, egiztau ta beteten dogun eguna! Zuek, Bizkaiko agintari ta zuzentzaile zarien Jaun goragarri-maiteok, gauza onetan, beste askotan lez, gure erri aonen gurariak ondo ezagutu ta azaldu dozuez; zuzen ibili zarie, ondo egin dozue, gure txalorik beroenen duin egin zarie. Zuen asmo ori on-ona da, Bizkaiaren antxinatiko izen, ospe ta entzuteari dagokion lakoa da. Auxe da zuoi, entz(ule) mait(eok), al bait laburtxoan azaldu gura neuskizuenta. Baina aurrera jarraitu baino len, eskar on guztien emoile dan Jaunari eskatu daiogun zerutar argiz

<sup>424</sup> *Goi-jarleku*: tronu.

<sup>425</sup> *Bakaldun*: errege.

geure adinak argitu ta bere maitetasunez geure biotz oneik berotu ta sutan daiguzala; ipini daigun bitartekotzat A(ndra) Maria...

## I

*«Adeamus ergo cum fiducia ad thronum gratiae,  
ut misericordiam consequamur  
et gratiam inveniamus in auxilio opportuno.»*  
(Hebr. 4, 16)

N(eure) entz(ule) maite-maiteak, erromatarren indar guztiak ez eben inoz Euskalerrria menpetu, euren gudarosteak<sup>426</sup> ez eben inoz euskaldun lur au zapaldu, euren arranoak ez ebezan inoz emengo mendi-gainetan bere egoak edatu; gure erriari bere izkera zala ez eutsen kendu, ta euren jainkoizunik be ez eben Euskalerrrian sartu. Onelan –gauza ziuerra deritxat–, onelan, Erromak andik-ortik batu ta gero Europako lurralderik geienetara zabaldu ebazan guzurrezko jainko lotsagarriak, gure antxina-ko asaba euskaldunak ez ebezan inoz be eurentzat artu ta ezagutu. Baina, egia ete da gure erri aonek asikalditik geiago beti Jainko bakarra ezagutu eta jauretsi dauala? Batzuk ori uste dabe, baina eskier<sup>427</sup>, ziur ez dakigu. Beste errien jainkoizunik artu ez arren, berak bere gogoko zirana-  
nak asmau ta eraldu eikezan; baina asmau ebezala nai ez ebazala, egia dirudit Jaungoikoaren izen ederra emon eutsan Goiko Jaun andia, Euskalerrriak edo bere Jainko bakartzat edo, gitxienez be, beste guztien nagositzat beti ezagutu, beti gurtu ta jauretsi ebal... Augaitik-edo, Jesukistoren irakaskizunak gure Jaun maitagarriaren barri onak Euskalerrira eldu ziranean, gure asaba zintzoak pozik entzun, abegi onez artu eta bizi-  
ro maitatu ebezan. Bai ba, orretarako ondo gertuak egozan-ta; eurak antxinatik jauresten eben Jaungoikoa, gizonen betiko zoriona egitearren, gizatu, lurrean bizi ta kurutzean il zala iragarri ta adierazo jakenean, gure sinesteko argia Euskalerrri guztian, ezetariko eragozpen barik, errez eta beingo baten zabaldu zan. Beste errietan gure sinesteko argiak zabaldu baino len, eragozpen izugarriak azpiratu, laino baltz-ilunak argitu bear izan ebazan. Gure Jaunaren sinestea lenengoz artu ebenetatik geienak, gaizkinak izan balira lez, euren biziak jainkoizunzalien eskuetan galdu ebezan; Euskalerrrian, ez, emen ez zan izan eragozpenik. Egundo ez da

<sup>426</sup> *Gudaroste*: tropa.

<sup>427</sup> *Eskier*: ziur, seguru.

entzun Jesukistoren sinestea artzeagaitik inori ezetariko kalterik etorri jakola, ta oraindik gitxiago, bere bizia galtzeko zorian origaitik inor aurkitu zala. Sinestearen azia ereitera ona etorri ziran Jaunaren bialduak, lur on, apatz eta gantzatsua aurkitu eben, eta eurak ereindako azia, laster erne ta mardo azi zan gure asaba zintzoen gogo-biotzetan.

Eta gure asabak, euren sineste laztan ori orban barik jagotearren, artu eben ardurea, egin eben alegina, eurak diran lez, nok adierazo ete leikez? Asaben sinesmen sendoa, Jaunagazko euren maitetasun gartsua eta gauza oneitzaz euken ardura zur, ernai ta bizkorra ezagutu nai dituanak, geure Lege Zarreko idaztian, bere lenengo idazpuruko amairu ta amaboskarren legeak irakurri beiz eta antxe ikusiko dau argiro zelakoa izan zan bere aurretikoen sinesmena; norainokoa izan sineste ori inoz ilundu, orbandu, ezaindu ez eiten gure arbasoak egin eben alegina. Au ikusiko dau: gure asabak kistinau oso-osoak izan zirala, ta begietako argia ta gorputzeko bizia baino ardura andiagoaz euren sineste laztan-kutuna jagon eta zaindu ebela.

Bizkañari ondo dagokio, ba, gaur emen egiten dauana. Jaunari egiz esan leio: «Gure erri aonek ezagutu zinduzanik aona, zeurea, Jaun laztantsu orrena, izan da emengo agintza, jaurgo ta jaubetza. Zeu izan zinan gure asaben bakaldun, jaube ta Jauna; aen semeok, zeure aurrean auspaturik, zeure betiko jaurgo, jaubetasun eta agintza ori poz-pozik autortzen dogu, ta zeu, geure Jainko on-onori, maitale-maitaleori, geu geronen eta geure gauza guztien ugazaba ta jaube, nagosi ta Jaun ezagutu, gurtu ta jauresten zaitugu». «Goi-jarlekuan jarri dogun Jaunari, giza-diaren oben eta orbanak bere odolagaz garbitu zituan Bildots orri, oneskunde<sup>428</sup>, omen, andizuren, agintza ta jaubetasuna gizaldi guztietan! *Sedenti in throno et Agno, benedictio et honor et gloria et potestas in saecula saeculorum*» (Apoc. 5, 13).

## II

Amazazpireun eta ogeta amaseigarren urteko (1736) orrilaren amazazpigarren eguna ta gaurko egun au, alkarren ondoan eta sukari<sup>429</sup> gogorrean idatzi bear litzakez, inoz ezabatu ta aitzu barik, Bizkai semen gomutan beti iraun dagien. Egun bi oneik gomutagarriak benetan dira! Urte aretako orrilaren amaseian, Gernikako batzar-etxean batzandu

<sup>428</sup> *Oneskunde*: bedeinkazino.

<sup>429</sup> *Sukari*: harrizko xafla edo plaka.

ziran gure asabak, euren izenean eta Bizkaiko erri, uri ta auzo guztien izenean, erabagi oso txalogarria artu eben: A(ndra) Mariaren sorpen<sup>430</sup> garbia, kemen eta adorez, biotzeko indar eta sendotasunez aldeztu eta jagoteko erabagia.

«Mariaren sorpen garbia –inoen gure asabak– Bizkaiak beti sinestu, lotsaz begiratu ta semeai dagokien maitetasunez itzaletsi<sup>431</sup> eta gurtu dau. Bera, gure erri aonen Zaintzaile arduratsua beti izan da ta, augaitik, geure erri guztiaren izenean, zin esaten dogu, Jaunari eskintza egiten dautsagu edonon eta edonoz, une ta aldi guztietan, orbanbako sorpenaren aldeztu beti egongo gareala...» Eta urrengo egunean, orrillaren 17an, antxinako A(ndra) Mari eleizan, errietako aldun guztiak aurreguneko erabagia barriztau eta sendetsi eben. Agintari biak Jaunaren aurrean zin esan eben, eta batzar guztiak ago batean baietz erantzun eban aurreguneko agintza eta zineskaina<sup>432</sup>, Jaunaren aurrean auspezturik, barriztau ta sendotzen ebela, ta A(ndra) Maria bere lenengo unean orbange<sup>433</sup> izan zala, seme onai dagokien zintzotasunagaz, kistinau zintzoai dagokien bular, kemen eta adoreagaz, beti-beti sinetsi ta aldeztuko ebela. Erabagi au artu eben gure asabak, Eleizeak sorpen garbia sinesteko agindu baino eun eta amazortzi urte lenago eta, gitxienez, berrogetamar bidar barriztau eben Eleizeak irakaspen eta agintza ori emon orduko. Gora geure asaben zintzotasuna! Aupa euren sinemen garbi-sendoa! Bizi bedi euren semeetan zeruko Amari eutsen itzal eta maitetasuna!

Orain eun eta larogeta bat urte gure asabak Gernikako A(ndra) Mari eleizan batzau ziran lez, gu aen semeok gaur emen batzandu gara. Aek, Amaren sorpen garbia aldezteko; gu, bere Seme ta gure Jaunaren Biotz laztantsu ori geure Jaun, jabe, buru, niagosi ta agintari ezagutu ta autoritzeko. Augaitik, gure asaben gogoak gaur emen, gure artean dabilzala iruditzen jat eta pozez heterik dinauskuela uste dot: «Ori ondo, geure seme zintzo ta kirmenak<sup>434</sup>, ori ondo! Geure oinatzak jarraitzen dozuez, eta geure ondorengotzat ezagutzen zaituegu. Goi-jarlekuan lastertxe jarriko dozuen Jaun andi orri, guk bere Amari egin geuntsan lako agintza eta eskaina<sup>435</sup> egiozue. Bera beti zeuen Jaun, eta zuek bere menpeko izango zariela esaiozue; zeuen biotzetan guztiok eta bakotxak jarto-

<sup>430</sup> *Sorpen*: sortze.

<sup>431</sup> *Itzaletsi*: jauretsi, gurtu.

<sup>432</sup> *Zineskain*: boto, testigantza.

<sup>433</sup> *Orbange*: orbanbako, garbi.

<sup>434</sup> *Kirmen*: leial, zintzo.

<sup>435</sup> *Eskain*: eskintza.



ki bizi bana emoiozue, eta zuen laguntzaile altsu, zuen jagola arduratsu, zuen aita laztantsu Jaun ori beti izango jatzue. Bizkaiaren etorkizuna biotz maitetsu orretan ipini egizue ta Jaunak zainduta Bizkaia zoriontsu izango da. «*Beatus populus, cujus Dominus Deus ejus*. Zoriontsua Goiko Jauna bere ugazaba ta jabetzat daukan erria» (Ps. 143, 15).

### III

Egoki da, barriro dinot, Bizkaiak gaur emen egiten dauana: Josu Biotzaren irudia goi-jarlekuan jarri ta bere jabe nagosi bakartzat ezaugutu ta jauretsi. Bein Moisesek Jainkoari itandu eutsan: «Eta Israelgo semeak badinoste 'Gugana, nok bialdu zaitu?', nik zer erantzungo ete dau-tset?». Jaunak esan eutsan: «Nazan onek bialdu zaitudala erantzun egioezu. *Qui est misit me ad vos*» (Ex. 3, 14). Onelan, Jainkoa beste izate guztien goitiko izate oso-osea da, beste izate oroen iturria. Guk be izatea baidaukagu, baina izatedun izan arren, gu ezetan be ez gara izatea bera. Jainkoa bai, Jainkoa izatea berbera da ta, augaitik, edozelako izatea dauken beste gauza guztiak bere eskuetatik urtenak dira ta bera guztien Egile, Jaun eta Jabe da...

Jainkoa azken bako jakituria, muga bako altasuna<sup>436</sup>, ertz bako zuzentasuna, amai bako errukia be baida. Baina, au ta guzti be, Jesukistoren ikasle maiteak, oneik gauza guztiok alde batera itxirik, guztiz argiro dinausku: «*Deus charitas est*. Jainkoa maitetasuna da». Ez al da, ba, izate oso-osea? Ez al da azken bako jakituria? Ez al da muga bako altasuna? Bai! Ori guztiori da; baina orreik guztiok baino, bere maitetasun bigun-samurra, argiroago, andiago, ikusgarriago agertu da... Gauza guztiak, andi ta txikiak, ondo begiratu ezkerro. Jainkoaren Biotzeko maitetasun-garraren txinpartak baino ez dira. Zeru-lurrak eta euretan dakusguzan gauza guztiak eta bakotxak dinauskue: «Jainkoak egin ninduan; nire egile ta jabe Jauna da». Baina, zelan eta zegaitik egin zinduzan? A! Maitatu ninduan bai eta bere maitetasunak nik daukadan eta zuk dakusun izate au emon eustan!

Au egia da, baina Jainko maitetasunaren agerkunderik andiena, gorenengoa, garaiena, ez da ortzea, ez da lurra, euretan dakusguzan gauza guztiak batera be ez dira; maitetasun orren agerkunderik andiena, Jesukisto gure Jauna, Jainko Seme gizatua, ori da. «*In hoc apparuit*

<sup>436</sup> *Altasun*: ahalmen.

*charitas Dei in nobis*. Onetantxe –dino ikasle maiteak–, onetantxe bai agertu zan Jainkoaren gugazko maitetasuna» (I Joan, 4, 9). Baina, ondo dakizue, Jesukistogan bere jainkozko eta gizonezko maitetasun guztia-  
ren jarleku ta bizitoki bere biotza da. Augaitik, biotz orretan dago izatea dauken guztiai euren izate ori, bizia dauken guztiai euren bizi ori emoten dautsen maitetasuna. Biotz orretan dago, andik urteiten da zeru-lurra ta euretako gauza guztiak eta bakotxa darabiltzan maitetasun-endarra.

Orain ba, biotz andi, biotz samur eta laztantsu orren maitetasun-  
-indarrak gauza guztiak badarabiltz eta indar ori barik ezertxu be ezin baleite iraun eta ibili, argiro-argiro, entz(u)le mait(e)ok, geure gauza guztiakin Jaun andi orrenak gara, ta bera geure ugazaba ta jabe bakarra da. Augaitik, bakaulkian<sup>437</sup> jarriko dogun biotz maitatsu orri, apaltasun eta zintzotasunik andienagaz, bere aurrean auspazturik, esan bear dautsagu: «Zeureak gara gu; zeure jaurgo, agintza eta jabetasun ori argiro ezagutu ta pozez beterik autortzen dogu. Zeureak gara gu, bai Jauna, bai, ta beste jaberik ez dogu nai. Maitetasunezko estuntza bigun, gozo-  
-eztitsuakin gure biotz oneik zeure orregaz batu ta lotu egizuz, eta Bizkai seme guztiok zeugandu, zeuretu ta zeutartu gagizuz!»

## IV

Gure Jaun maitagarri ori Belengo aterpean jaio ta egun gitxi barru, sorkaldetik<sup>438</sup> iru bakaldun etorri jakozan eta, bere aurrean belaunikaturik, opariak eskini ta euren Jaun eta Jainko ezagutu ta jauretsi eben: «*Proidentes adoraverunt eum*» (Math. 2, 11). Gaur, Bakaldunen jaiegun onetan, gu be geure maitetasunez Belengo askatzuan egon zan Jaun orren aurrean auspazten gara, bere biotz laztantsuari geure biotzak opaltzen dautsoguz eta bera geure ugazaba ta jabe autortu ta jauresten dogu. Gaurtik aurrera ba Bizkaiaren edestian itz gomutagarri aoneik idatzi beariko dira: Bizkai semeak Iru Bakaldun eguncan, Jaunaren aurrean auspaztu ziran, euren Jainko ta jabe autortu eben, ta iru bakaldunak lez gur egin eutsoen. «*Proidentes adoraverunt eum.*» Gure beste anaiak be, biotz orixe euren Jaun eta jabetzat ezagutu ta autetsi dabe. Batzuk, guk gaur emen dagigun zeregin au guk baino len egin dabe; bestetzuk, laster egiteko asmua dauke... Euskalerrri guztia Jaun andi orren aurrean auspaztuko da. Nabarra ta Araba, Gipuzkoa ta Bizkaia,

<sup>437</sup> *Bakaulki*: tronu.

<sup>438</sup> *Sorkalde*: ekialde.

Laburdi, Benabarra ta Zuberoa, zazpi aizta oneik asabakandik jatorken sineste garbi-sendoa argiro erakutsi dabe; Josu Biotz laztanari euren maitetasun zintzoa bizi-ro agertu dautse. Onelan, Euzkadi guztia biotz laztantsu orrena izango da, geure guraz geure jabe nagosi bakartzat ezagutu ta autortzen dogu-ta... Jauretsi, gurtu, maitatu daigun, ba, anai maitetak geronen eta geure gauza guztien jabe egin dogun Jaun ori; maitetasun-garrez inguratu daigun biotz laztantsu orren bakaulkia, ta onelan Euzkadiko zazpi aizta oneik, Jaunaren jarleku aurrean, beti garretan dagozan zazpi argi-untziak lez izango dira... «*Septem lampades ardentes ante thronum*» (Apoc. 4, 5).

Ori da, Jauna, gure asmoa, ori gure erabagi sendoa, ori gure gurari biziena. Zeureak beti izan nai dogu eta beti zeureak izan gaizan, zeuk Jaun errukitsu orrek, gure asmo ta gurariak urgazi, lagundu ta sendatu egizuz... Geure gogamen, asmo ta egikizun guztiak, geure atsekabe ta pozak, geure ogasun, irabazpide, oitura ta legeak, Bizkaiko zelai ta mendiak bere uri, erri ta auzotegi guztiakin, zeuri Jaun maiteorri, eskini ta emoten dautsuguz... Jabetu zaitte, zeuretu egizuz, geure Jaun eta Aita samurra izan zakiguz! Eta zeu jauresteke emen batzandu garean guztioi, agintari ta menpekoai, bizitza onetan zeure laguntza, eriotz ostean betiko atseden eta zoriona emoiguzuz.

## 2.2. JESUKRISTO

### 2.2.2. Jesukristoren jaiak (XXXI, XXXII)

## XXXI

### KISTO ERREGE

*«Tu dixisti quia rex sum ego...»*

*Ego in hoc natus sum et ad hoc veni in mundum.»*

«Ni errege nazala zeuk esan dozu...»

Ni orretarako jaiotzen eta mundura orretarakoxe etorri naz.»

(Joan 18, 37)

N(eure) e(ntzule) m(aiteok):

Gaur Kisto Erregearen jaiak ospatzen dogu. Badakizue, Jesukisto, geure sinesteak dinoskunez, Jangoiko ta Gizon da. Jangoiko, betidanik, asiera barik, Jangoikoa beti-betikoa da-ta; gizon, ostera, A(ndra) Mariaren errai garbietan sortu zanetik. Aita lez betikoa dan Semea, aurrerago, Mariaren erraietan sortu baino lenago, Jangoiko bazan. Aurrerago igaro ziran urteak alde batera itxita, gu kistinauok geure urteak zenbatu edo kontetan Jesukistoren jaiotzan asten gara. 1932garrenean gagoz eta Jangoiko Semea gizon danik ona, lau urte gorabera, orrexenbeste urte dirala esan geinke.

Jesukisto, Jangoiko danez, Errege dala esan bearrik ez dago; ori alperreko zeregina litzake. Izan be, Jangoikoa, gauza guztien Egile dalako, diran guztiak ezerezetik atera ta egin ditualako, guztien Jaun, Ugazaba ta Jabe da; diran guztiak, une guztietan bere-bereak ditu, goiko ta beko guztiak, bat itxi barik bere eskuan eta bere menpean daukaz. Baina izaki ta gauza guztien, gizon eta aingeruen Agintari ta Jaun, Ugazaba ta Jabe dana, errege baino askozaz be geiago da-ta, origaitik Jesukisto, Jangoiko danez, errege dogula esan bearrik ez dago, ta Eleizeak olakorik esan be ez dinosku.

Kisto, Gizon danez be, geure bakaldun edo errege dogula, orixe irakatsi ta adierazo nai dausku Eleizeak gaurko jai onegaz. Jesukistok izate bi daukaz, jangoikozko ta gizonetzko izatea; baina izate biok Jesukis-

togan notin edo persona baten dagoz. Kistoren gizatasuna be Jangoiko Semearena da; origaitik, gizon danez be, beste gizon eta aingeru guztien gainetik dago ta guztien Jaun eta errege da, batez be gizonena.

*Errege* izenak berez 'artezkari' edo 'zuzentzailea' esan nai dau. Gizon guztiok zeruko bidetik zuzendu ta eroateko ardura ta zeregina Kistorenak dira-ta, gizonok Jaun ori geure zuzentzaile ta errege dogula ezin ukatu. Kistoren erreinua –berberak esan ebanez– ez da lurretikoa zerutikoa baino; zerutik jatsia da, baina lurrean dago ta ementxe iraun bear dau. Kistoren erreinua, Eleizea da; gizonak zeruratzeko, Jaunak lurrean eta gizartean sortu, irasi<sup>439</sup> ta ipini eban bere Eleizea.

Gizon guztiak ez dira Eleizearen seme; Eleizatik ataz, landa eta kanpora askotzak dagoz. Baina zeruko ta betiko erreinuan sartzekotan, orreik guztiok be lenago Eleizara, Kistoren lurreko erreinura etorri bear dabe. Misinolariak lur zabal guztian asmu orregaz lanean daragoioe. Misino jaia lengo domekan izan zan; gaur Kisto Erregearen jaia dogu.

Gure Jaunak gizon ta erri guztien errege izateko eskubide osoa dauko, ta gizon guztiok bere menpean, bere agintza osasungarriaren menpean, biziteko bearturik gagoz. Neure itzaldi onetan orixe azaldu ta adierazo nai neuskizue. Orretan asi baino len, oitura danez, Jaunaren aurrean auspazu gaitez an eta bere laguntasuna eskatu daiogun, bitartekotzat A(ndra) Maria...

## I

*«Tu dixisti quia rex sum ego...»*

*Ego in hoc natus sum et ad hoc veni in mundum.»*

(Joan 18, 37)

N(eure) e(ntzule) m(aiteok), Jesukisto gure Jauna, gizon eta erri guztien Bakaldun edo Errege da: kistinau zintzoen errege, izatez eta egitez; kistinau ez diran guztiena be eskubide zuzenez. S(an) Joanek Apokalipsean dinoskunez, Jaunak bere jantzian eta iztarrean idatzita dauko: *«Rex regum et Dominus dominantium.* Erregeen Errege ta agintarien Agintari» (Apoc. 19, 16). Sinestez eta maitasunez Jaunarentzat bizi gareanean, orduan Jauna be guban, gure biotzetan bizi da. Ori Jaunak berak esan eta irakatsi dausku: «Nire jarraitzaileak –dino Jaunak– neure biziz bizi daitez an eta bizitza ugariagoa euki dagien, orretarakoxe etorri naz

<sup>439</sup> *Irasi*: eregi, fundau.

ni mundura. *Veni ut vitam habeant et abundantius habeant* (Joan 10, 10). Gizaseme, famili ta erri guztiak betiko bizitzara eroan nai ditu Jaunak, eta orretarako guztioen eta bakotxaren biotzetan bizi nai dau. Jaunaren legea zeatz eta osoro beteten doguncan, Jauna gure biotzetan bizi da ta gure biotzetan bizi danean, orduan da egiz eta benetan gure jabe, agintari ta errege; osterantzean ez. Au onelan izanik, Jauna sendi edo famili ta errien jabe ta errege izatekotan, orreik be Jaunarentzat bizi ta bere legea guztiz eta osoro bete bear dabe.

Ori egingo balitz, gizaseme, famili ta erri guztiak Jaunaren legepean balegoz, Jaunak ekarri euskun zerutar bizitzaz bizi balira, orduan bai, orduan Kisto gure Jauna gizaseme, famili ta erri guztien ugazaba ta nagusi, agintari ta errege egiz eta benetan izango litzake; orretarako daukan eskubidea bete dala, beretu dauala esan al izango geunke. Baina ori egiten ez dogulako, gizon bakotxak bere bizitzan, famili ta erriak eurenean, Jaunaren legea ausi ta zapaltzen dabelako, orixegaitik Jaunak berari dagokiozan eta berea dituan jabetasun, agintza edo erregetzea, guztiz eta osoro ez dau lortuten. Gizonen erruz, gaiztakeriz, eskar txarez ez dau lortu ta eskuratzen; baina lortu ta jadetsi bear leuke, orretarako eskubide osoa dauko-ta.

## II

Sasijakitun batzuk, gauza andiren bat dinoelakoan, bein baino sarriago esaten dabe: «Jesukistok errege izena artu eban; baina bere erregetzea mundu onetakoa ez zala be argi ta garbi esan eban Jaunak». Egia, Jaunari bere erreinua te errege izateko eskubidea zerutik datorkioz ta, origaitik bere erregetzea jatorriz mundu onetako ez zala esan eban Jaunak. Baina erregetza ori zerutik jatsia izan arren, ementxe, mundu onetantxe dauko ta ementxe izan eta iraun bear dau. Ezpabe, esaidazue: ori orrelan ez balitz, Aitagurean dinoguna, zetako esango geunke, «betorkigu zure erreinua, egin bedi zure borondatea zeruan lez lurrean be»? Ori esaten Jaunak berak irakatsi dausku; baina bere erreinua zeruan lez lurrean be ez baleuko, mundu onetan bizi gareala be, gure jabe ta errege izan bear ez baleu, ori esatea alperreko zeregina izango litzake. Orain, gero ta beti, gu bere menpeko ta bera gure jabe ta errege izatea nai ez baleu, Jaunak ori, Aitagurean dinogun ori esaten ez euskun irakatsiko.

Egiz, Jesukistoren erregetzea zerutikoa da, bere jatorria an goian dauko; baina lurrera jatsi zalako, ementxe izan eta ementxe iraun bear dau. «Kisto errege da -dino Agustinek-, baina ez bere menpekoai zerga

edo petxuak ezarri, iskiluz eta burdinez jantzi, ta gudu edo gerrara eroteke. Errege da gure gogoak zuzendu, gure betiko zorionaren ardurea eukiteko, ta beragan sinestu, itxaron dagienak eta bera maite dabena zeruko erreinura eroteke: *Rex est quod mentes ligat, quod in aeternum consulat, quod in regnum coelorum credentes, sperantes, amantesque perducat.*

Gizon eta erri guztien errege izateko eskubidea, Aita Jangoikoak emon eutsan bere Seme gizatuari, Kistori. Orrezaz ganera, bere odolez, ez urre ta zidarrez, bere odolez erosi ginduzalako, beste inok egundo euki ez dauan besteko eskubidea dauko Jaunak gure errege izateko.

Jesukistoren erregetzea antxinako igarlak argiro adierazo eben; augaitik, israeldarrak errege andia itxaroten egozan. Burugogorak ziralako, txarto aitu ebezan igarlen esanak. Zeruko erreinua ekarriko eutsen erregearen orde, Erromako Kaisar edo agintariaren menpetik atera, beste erri batzukaz jabetu eta aberastasunez beteko ebazan lurreko erregea etorkioela uste eben. Orretan oker egozan; baina erregea itxarotean ez egozan oker, zuzen baino, Jangoikoak igarlen bidez agindu eutselako.

Erririk erri irakasten ebilanean, Jesukistok berak be bere erreinu ori sarri aitatu eban. Ori zala-ta Zebedeoaren semeak esan eutsoen bein baten: «Jauna, zure erreinu orretan gu biok, bata zeure eskoialdean<sup>440</sup> eta bestea ezkerrean ipini gagizuz». Oneik be lurreko erreinuaz amesetan ebiltzan eta Jaunak euren eskaria ez eban aintzat artu; baina aintzat artu ez arren, Jaunak bere erreinua sarri aitatu ebala anai bi orrein eskarriak argiro dinosku.

Jesukistoren erregetzea ez da lurreko erregeenaren antzekoa, askozaz be oba, baketsu ta ederragoa baino. Lurreko erregeak sarri indarrez lortu dabe euren agintzea; gizon eta erriak indarrez menperatu ta menpean be indarrez euki dabez. Jesukistok ez dau nai olakorik. Geure guraz, geure borondatez menpeko egin gakiozan nai dau, eta bere guraz menpeko egiten ez jakon gizasemerik ez dau bere erreinuan artzen. Au dala-ta, lenen eta aurrenengo gure biotzak irabazi nai izan ditu, eta orretarako bizitza neketsuaren ondoren, nekaldi, pasino gogorra ta eriotza garratza artu ebazan Jaunak gure maitasunez eta gure onerako. Gure betiko osasuna egitearren bere zanetako odola isuri eban, mesede andi onen bidez gure biotzak irabazteko, onelan gu, geure guraz bere menpeko egin gakiozan, geure guraz eta oldez Jaunarenak izan gaitzan.

<sup>440</sup> *Eskoialde*: eskumalde.

Augaitik-edo, Jaunak bere nekaldi ta eriotzan be errege agertu nai izan eban eta izen ori bein be ez eban itxi.

Pilatosen aurrean Jaunaren aurka judatarrek esan eben salakuntzarik andiena, zein izan zala uste dozue? Ain zuzen be Jaunaren erregetzea. Judatarrek Pilatosi esan eutsen: «Gure erria nastau ta asaldatzen, Erromako Kaisarrari zerga-petxua emotea galerazoten eta Kisto errege berau dala esaten aurkitu dogu gizon au, eta esan dauan orretzaz erantzun dagian zure aurrera dakargu». Pilatosek orduan: «Judatarren errege zara zu?» Eta Jaunak: «Ni errege nazala zeuk dinozu. Egia da, ni orretarakoxe etorri naz mundura. *Ego in hoc natus sum et ad hoc veni in mundum*». Gauza arrigarria! Jaunak bere lotsaririk andienen erdien be bere agintza, nagusitasun eta erregetzea agirian ipini ebazan beti; arerioak aintza, omen eta izen ori kendu gura eutsen, baina ez eutsen leketu, ez eutsen itxi.

Jaunaren gurutzeburuan, Pilatosen aginduz, berba oneik ipini ziran iru izkuntzetan: «Nazareteko Jesus, judatarren erregea». Ori ikusirik, Jaunaren arerioak ezin geiagoan aserratu ziran; Pilatosgana joan eta esan eutsoen: «Ipini dozun ori kentzeko agindu egizu ta orren ordez beste era onetara ipini eragin: 'Judatarren errege dala, berak esan dau'». Baina aurrerago ain epel, koldar eta bildurti izan zan Pilatosek orduan judatarrai gogor erantzun eutsen: «Zer dakizue ostera? *Quod scripsi, scripsi*. Idatzi dodana, idatzita dago; ipinia ipinita, eta ori kendu eta aldatzerik ez dago». Onelan Jaunaren erregetzea Pilatosek berak be ezagutu ta autortu eban, eta erregetza orren ezaugarria, judatarrek nai izan ez arren, an gurutzeburuan gelditu zan. Gurutzean il zan Jauna, biotzen errege zala adierazoteko.

### III

Gurutzean il zan Jaunak lez beste inok ez gaitu maite izan; origaitik Jauna maitasunaren errege da ta orren bidez gizon eta errien errege be bai. Gizonak aitzukorrak garealako, gizaldien maitasuna irabaztea baino zeregin gatxagorik ez dago. Gizonik andienak, jakitunenak, indartsu ta aberatsenak il ziranean, zenbat-nai aiskide ta mundurik erdia euren menpean eukenak be, gizaldien maitasun ori ezin lortu izan dabe. Jesukisto aiskide barik, ondasun barik, areriaz inguratuta, lotsariz beterik il zan; ori ta guzti be, gizaldiak inongo gizonik ez dabe maite izan eta maitatuko be ez, Jesukisto maite izan daben lez. Maitasunaren errege da-ta, orixegaitik be gizon eta erri guztien errege izateko eskubidea berea dau.

Eskubide ori inok ezin kendu leio Jaunari; baina gure errege izateko eskubidea ta egiz eta benetan gure jabe ta errege izatea, gauza bi



dira. Bere guraz edo borondatez menpeko egiten ez jakonik, Jaunak ez dau bere erreinuan artzen. Geure guraz Jaunaren menpeko izatea nai ez izatea, geure eskuan dago, Jaunak ori geure aukeran itxi dau-ta. Augaitik, guk geure erruz Jaunaren erregetzea gugan galerazo geinke; esku-bidea ez, ori inok be ezin kendu leio. Baina egitez eta maitasunaren bidez, Jauna gure errege izatea, ori eragotzi geinke, biotza ukatu gein-keo eta menpetasuna be ukatu. Eskar txarrez eta gaiztakeriz Jaunari biotzeko atea askok zarratzen dautse; ori dala-ta, eskubide osoa euki arren, izatez eta egitez Jauna ez da orrein jabe ta errege.

Nai izan baleu gure biotzen jabe indarrez be egin zitekean Jauna, baina olakorik ez dau nai izan; gure biotzak maitasunez eta mesedeen bidez irabazi, beragandu ta beretu nai izan ditu. Orretarako bere bizia emon eta bere odola isuri eban, eta ori eginaz be ez zan asctu; bere bularra be aitzamakilaz, lantza zorrotzez idegi eutsoen eta zauri aretatik bere biotza agertu ta erakutsi euskun. Eta zelako biotza! Bere maitasun azkenbagearen iturburu dan biotz samurra, maitasunik laztanenaz irazegita, laba gorria lez gure oneretxizko garretan egoan biotz andi-ederra erakutsi euskun, biotz ori ikusirik geuk be maite izan daigun, maitasun samur, laztan, gozo-atsegingarri onek Jaunagana eroan, beragaz batu, lotu ta bere menpeko egin gagizan.

Altarako Sakramentuan be maitasun utsez gelditu jakun eta ontarte, mesede andiak egiten dauskuz. Sakramentuan Jauna gau ta egun gu maitatzen dago; gugazko oneretxiak, gure ondonaiaak, ortxe, geure urrean dauko. Augaitik be, eskar ona, eskar ónik biziena zor dautsogu. «*Grati estote* –dinosku S(an) Paulo Apostoluak–. Eskar onekoak izan zaitzeze.» Baina eskar onekoak izateko, eskatzen dauskuna emon bear dautsagu Jaunari, ta Jaunak geure biotzak eskatzen dauskuz: «*Praebe, fili mi, cor tuum mihi*. Ekazu, ene semea, ekazu zeure biotz ori; orren ugazaba ta jabe, agintari ta errege izan naiten».

Jauna eskubide osoz gizon eta erri guztien errege da, aurrerago esan eta adierazo dautsuedanez. Baina egiz eta benetan, indarrez barik maitasunez gure errege izateko, erregetza ori geuk nai izan bear dogu. Geuk nai dogula, geure jabe ta erregetzat artu, ezagutu ta autortu bear dogu; biotzeko atea geure eretxiz eta geure borondatez idegi bear dautsaguz. Geure buruko eretxi okerrak sineste argiz zuzendu, biotzeko grina ta gurari makurrak bere legeaz arteztu, ta geure aburu ta eretxi, asmu ta burubide, gurari ta egite guztien jabe egin bear dogu; orrelan gu Jaunaren menpeko zintzoak izango gara ta Jauna gutariko bakotxaren errege maitea izango da.

Sendi edo famili ta erriek be bardin... Jauna errege izateko, euren nagosi ta jaubetzat ezagutu bear dabe, eta bere menpean jarririk, arazo,

eginen eta artu-emon guztietan Jaunaren legea zeatz gorde. Lege orri beste ezeri baino lotsa ta itzal andiagoa izan bear dautsez, eta alkargazko artu-emonetan be lege orren aginduak zintzoro egin eta bete.

Kisto Erregearen jaia ospatzen dogun egun onetan, Kistoren eta gure arimen arerio diran mundu, deabru ta aragiaren eretxi, asmu ta gurari txarrak geugandik jaurti egin bear doguz, eta gure onerako gizatu eta gurutzean il zan eta bere odolez erosi ginduzan Jaun errukior ete maitale andi ori, geure nagusi ta jabe, agintari te erregetzat ezagutu ta artu bear dogu.

Auspaztu gaitzean, ba, bere oinetan eta geure eskar ona erakusteko eguna dogun ezkeru, geure gogo ta biotzok eskini ta emon daioguzan Jaunari. Zeru ta lurreko Jaun andia, zeugandu ta zeuretu gagizuz, gogo ta biotzen jabe egin zakiguz. Geure errege izan zaite, zeure menpeko egin gaizuz, lurrean eta zeruan, emengo atsekabeetan eta goiko zorionean, zeureak izan gaitzean. Orain gure Jaun eta Errege autortzen zaitugu, gero geure atsedan eta zorion izan zakiguz.

## 2.2. JESUKRISTO

### 2.2.2. Jesukristoren jaiak (XXXI, XXXII)

## XXXII

### EPIFANIA

*«Ubi est qui natus est rex Judaeorum?»*

*Vidimus stellam ejus in oriente et venimus adorare illum.»*

«Judutarren errege jaiobarria, non dago?

Orren izarra sortaldean ikusi dogu ta berori gurtzera gatoz.»

(Math. 2, 2)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Gure Jaunak gauzak ondo ta zuzen egiten daki. Israeldarra, bere erritarrai, dei egin eutsen lenen sinesteko argira; gero beste enparau guztiai. Gabon gabaz, Belen inguruan ebiltzan artzainak beragana, bere aurrera ekarri ebazan Jaunak aingeruen bidez; andik egun gitxi barru, sortaldeko iru azturu, iru jakitun, iru errege, izar barri baten bidez. Artzainak, Israelgo erriaren izenean etorri ziran Belengo aterpera; iru jakitunak, iru erregeak, beste erri guztien orde. Jangoiko Gizon jaiobarria, gure onerako ume egin zan Jauna, zeru-lurraren Jabe ta Erregea, antxe, auspaz, belauniko jauretsi ta gurtu eben batzuk eta besteak; Israelgo erriaren izenean etozan artzainak lenengo, sortaldeko iru erregeak gero.

Jaunaren ikaslak, bere apostoluak be beste orrenbeste egin eben. Sinesteko argira lenen israeldarra dei egin eutsen; zeruko bidea lenen orrei irakatsi eutsen. Baina urte batzuetan orretan ekin ta gero, Simon Pedro apostoluen buruak, Jopen egoala, otoitzetan, erreguetan eragoi-la bere konortetik urtenda, gauza arrigarria ikusi eban. Lau egaletatik lotuta etorren miesa andi bat jatsi zan zerutik bere aurrera; miesa<sup>441</sup> barruan abere, laroineko<sup>442</sup>, narrasti ta egazti asko. Ori ikusten egoala, zerutiko abots batek esan eutsan: «Pedro, jagi zaite, il eta jan egizu». San

<sup>441</sup> *Miesa*: ehun, oihal.

<sup>442</sup> *Laroineko*: lauoineko.

Pedrok erantzun eban: «Jauna, gauza loi ta satsurik<sup>443</sup> egundo ez dot neure agoan sartu ta, olakorik ez dot egingo». Baina zeruko abotsak barrero esan eutsan: «Jangoikoak garbitu dauana, lotsatsu ta zikina danik zuk ez egizu esan». Iru bidar jazo zan ori ta, miesa zerurantz igon eta odaietan estaldu zan.

Ikuskizun onek zer adierazoten eutsan S(an) Pedrok ez eban orduan ondo igarri. Orretan egoala, Kornelio euntariak bialduriko iru gizon eldu ziran bere bila. Badoa eurakaz Kornelioren etxera ta, Jangoikoak an egin ebazan mirari arrigarriakaz igarri eban S(an) Pedrok Jopeko ikuskizunak zer esan nai eban: «Jangoikoak Israelgo erriari lez beste guztiai be sinisteko argira dei egiten eutsela; erri guztiai zeruko bidea irakasteko eguna eldu zala». Ori esan nai eban ikuskizunak.

S(an) Pedrok here lagunak, beste apostoluak, jakitun ipini ebazan. Orduan, Jerusalemen bat gelditurik, beste enparauak lurraren lau egale-tarantza zabaldu ziran; erri guztiai zeruko barri ona emon, zeruko bidea erakutsi eutsen, eta olan Jaunak gaurko egunez egindako deia orduan-txe bete zan.

Gaurko jai oni *Erregenak* deritxogu, baina beste izen egoki bat be badauko: *Epifania*. Jaunaren erakuskundea<sup>444</sup> esan nai dau, Jaunak bere burua erriai erakutsi eutsen eguna da. Iru erregeak beragana ekarriaz, enda guztietako gizasemeai dei egin eutsen sinesteko argira, zeruko bidera. Guztiai esanaz, guri be dei ori egin eta zuzendu euskula esan nai dot; augaitik, gaurko jaiia guretzat be jai andi ta gomutagarria da. Jangoikoak zelan dei egiten daukun eta Jaunaren dei orri geuk zelan erantzun bear dautsagun azaldu ta adierazo nai neuskizue. Baina orretan asi orduko, oitura dan lez, Jaunaren aurrean auspaturik, goiko argi ta laguntasuna eskatuko dautsaguz, eta ugari, oparo ta esku-zabalez emon...

## I

*«Ubi est qui natus est rex Judaeorum?»*

*Vidimus stellam ejus in oriente et venimus adorare illum.»*

(Math. 2, 2)

N(eure) entz(ule) mait(eok), Belengo aterpera etorri ta Jesus ume jaioparria jauretsi ta gurtu eben iru gizonok erregeak ziranik Ebenge-

<sup>443</sup> *Satsu*: lohi, zikin.

<sup>444</sup> *Erakuskunde*: erakuspen.

lioak ez dino; baina Jaunak egin ebazan eta berari egin eutsezan gauza guztiak ez dagoz Ebanjelioan. Orretarako liburu anditzarra beariko zan eta Jaunaren ikaslak gauzarik bearrenak baino ez ebazan idatzi.

Iru gizon oneik azti edo azturu ta jakitunak zirala badakigu, ori Ebanjelioak dino. Baina antxina sortaldeko erri aetan azturu ta jakitun oneik, geienez errietako buru, agintari izaten zirala be badakigu. Onezaz gainera Dabit igarleak, Jesus jaio baino askozaz lenago idatzi ta esan eban: «*Reges Tharsis, et insulae munera offerent; reges Arabum et Saba dona adducent.* Tarsis, au da, sortaldeko erregeak eta ugarteak emaitza edo bezuzak eskiniko dautsez. Arabia ta Sabako erregeak opariakaz etorriko jakoz» (Ps. 71, 10). Sortaldetik etorri ziran iru azti edo jakitunok erregeak zirala Eleizeak lenengo eguncatik geiago beti sinestu dau; augaitik, gaurko jai oni, naiz *Jaunaren erakuskundea* naiz *Erregeen eguna*, batera zein bestera bardin deritxogu.

Israeldarrak aingeruak ikusten naiko oituak egozan; augaitik, Belen inguruko artzainai aingeruen bidez jakinazo eutsen Jaunak bere jaiotzea. Azturu ta errege oneik, ostera, izarren ibilera ta gora-berak ikasten ebazan, orretan ziran jakitun, orretan ziran nagusi; euren zeregina ori zalako, euren zaletasuna orretan eukelako, Jaunak izar baten bidez dei egin eutsen beragana. Onelan ba, Jangoikoak bakotxari ondoen, egokien datorkionez dei egiten dautso. Senide edo aiskideren baten otoz otoko criotzeaz, itzaldi edo sermoi gogorren bat entzuteko erea emonaz, galtzeko arriskua erakutsiaz, batzuri bildur-ikarea sartzen dautse; beste batzuri, bere onegite edo mesedeak eta euren eskar txarra begien aurrean ipinita, eskar on eta maitasun-garra biztuten dautse biotzetan. Bildurra egokiago jatorkenai, bildurraren bidez; maitasuna egokiago jakenai, onen bidez dei egiten dautse beragana. Jangoikoak dei ori egiteko bide asko dakiz eta era asko daukaz, baina bakotxarentzat egokiena zein dan be ondo daki-ta, geuretzat egokiena dan bide ori artzen dau.

Iru erregeai berarizko izar baten bidez dei egin eutsen Jaunak. Jaunaren dei ori gogoz entzun eta bertatik, gerorako itxi barik, jarraitu eben; zereginak baeukezan, bideak luze ta neketsuak ziran, baina alako atxakietan ibili barik, euren zereginak itxi ta Belenerako bide artu eben berealaxe. Onetan zoli, bizkor eta zintzoak izan ziralako, israeldar askok ezagutu ez eben Jangoikoa, Belengo aterpean aurkitu, euren Jangoikotzat ezagutu ta bere aurrean auspaz jauretsi ta gurtu eben. Opariak be eskini eutsoezan; agiriko opariakaz batera, euren gogo ta biotzak be bai, ta Jaunak orren orde zerruko bidea erakutsi ta gero betiko zoriona emon eutsen. Iru erregeak zeruetan dauken zoriona euren zintzotasunari, Jaunaren deiari jarraitzeko erakutsi eben zintzotasunari zor dautse.

Jaunak guztioi dei egin euskun sinesteko argira; baina gero be, geure erruz bein baino sarriago urrundu gara Jaunagandik. Oben edo pekatuaz Jaunagandik aldendu egiten gara. Jangoikoarenak eta pekatuarenak batera ezin izan geintekoz; ori ondo dakigu. Alde batetik Jangoikoa, bes-tetik lurreko aukera, ogasun edo atsegin txiki ta labur bat. Zer egiten dogu? Bein baino sarriago Jangoikoa itxi ta atsegin zirtzil eta txatxar ori obetsi, geiagotan euki, naiago izan. Ori Jangoikoa aintzat ez artzea da, Jangoikoa gitxitan eukitea da. Lurreko atsegin labur ta txatxar bat obetsiaz, geiagotan eukiaz, geure Jaunari irain andia egiten dautsagu.

Gauza arrigarria! Ori ta guzti be, Jangoikoa gure bila dabil; eta geure eskar txarra parkatu nairik, deiez daukagu. Lurrean onako gauzarik ez da ikusten. Iraina artu dauana, egin dautsanari parkatzeko asmuz, onen atzetik, onen bila, noz ikusi da? Gitxitan edo inoz be ez. Gizonen biotzak olakorik egiten ez dakie, ez dabe ikasi, larregi dala deritxoe. Baina Jaunaren Biotza, biotz andi ta samurra, on eta biguna, errukior eta maitasun utsa da-ta, geure erruz beragandik urrundu gareanean be, gure bila, iraindu dogun gaizto onein bila ibili oi da ta geuk parkeskatu baino be len beragana dei egiten dausku. Jaunaren dei ori noz edo bein bere biotz barruan entzun ez dauan pekatarririk ez dago; pekatuen damutasunera eta bere aiskidetasunera guztioi dei egiten dausku Jaunak, bakotxari ondoen datorkionez.

## II

Zelan erantzun dautsagu? Iru erregeak lez laster, zoli ta bizkor ala alper, nagi ta muker? Bakotxak daki bere barri; baina sarritan Jaunaren deiari erantzuteko, pekatuko bidea itxi ta Jaunagana biurtzeko alper ta nagi ibili gareala geienok autortu bearko dogu. Artzain ona ardi galduaren bila lez, Jauna gure bila ibili oi da ta maitasun andiz dei egiten dausku. Guk nagitzarrok, ostera, geure Jaun onari «biar, gero, urrengoan» biurtuko gareala erantzuten dautsagu. *Gero* ori arrisku andiko jokoa da; gero biurtzeko asmu makal eta atxaki orrek asko ta asko betiko galdu ditu.

Pekatu itxi ta Jaunagana biurtzeko, iru gauza gitxienez bear dira: gogoa, Jaunaren laguntasuna ta astia. Iru gauza oneitatik bat edo batek errez uts emon leikegu ta, bat zein batek uts emon ezkeru, gero biurtzeko asmu ori aizeak daroe. Gauza onak egiteko, itxiago ta nagiago izaten gara. Pekatu eginago ta gure gogoa makalago egiten da; pekatuan irainago ta bere lokarri edo estuntzak askatu edo apurtzea ainbat gaxago da. Oitura edo ekandu txarra artzen da, ta ekandu txarra garaitu

ta kentzea baino eginen gatxagorik ez dago. Jaunak dei egiten dauskunean berealaxe biurtzen ez bagara, gero gogoa makalago ta gaiztasunak andiago izango diranean, zelan biurtuko gara? Gero errezago izango jakula uste izaten dogu, baina ori uste izatea itzarrik ames egitea da.

Jaunak dei egiten dauskunean, bere grazia edo laguntasuna be eskini ta opatzen dauskuz. Baina sor ta gor egiten bagaiakoz, geure eskar txar orregaz aserratzeko bidea emoten dautsagu, eta aserratu badadi, gero, geuk nai dogunean, bere laguntza ukatu egingo dausku. Jaunak ori argiro dino: «*Vocavi et renuistis... Ego quoque in interitu vestro ridebo et subsannabo*. Deitu neutsuen, ez zenduen nai izan... Gero neuk be zuen galtzean, irri ta barre egingo dot» (Prov. 1, 24-26). «*Tunc invocabunt me, et non exaudiam*. Deiez etorriko jataz, baina ez dautset entzungo» (Prov. 1, 28). Ori dino Jaunak, eta Jaunak entzun eta lagundu ezik, gure aleginak alperrak dira.

Egun eta urteen jabe bagina lez, gero be astia eukiko dogula uste izaten dogu; baina egia esateko, egun ziurrik ez daukagu. Jaunak biariko egunik, geroko aldirik ez dausku agindu, ta eriotzea lapurra lez, otoz otoan etorriko da. Ain laster etorriko danik ez dogu uste izaten; baina ain zuzen be, geuk gitxien uste dogunean etorriko jakula esan dausku Jaunak, eta augaitik, gitxien uste dogunean, arriskutik andianean gagoz. Eriotzea geienai uste ez dabenean etorten jake; guri be orixe jazoko jaku. Egun bat eginaren jabe ez gara, biariko eguna geure eskuan ez daukagu; eta Jaunagana biurtzea, zegaitik gerorako itxi? Lurreko arazoetan ez dogu olakorik egiten. Gaur egin leiken eta egin bear dan gauzea, gerorako, urrengorako istea alper-nagien ames zoro dala-ta, bizkor ibiltzen gara, albait lasterren egiten dogu. Arimeari dagokiozan gauzak, ostera, geiago joakuzanak askoz be geiago ardura dauskuenak izan arren, luzatu egiten doguz, urrengorako itxi, gerorako beti. Ori zorakeri andi bat da; geure Jangoikoagaz orren alper ta nagi ibilteak kalte andiak, zuzendu ezin leikezan betiko kalteak ekarri leikeguz. Augaitik dinosku Dabit igarleak: «*Hodie si vocem ejus audieritis...* Jangoikoaren deia gaur entzun badagizue, biotza ez egizue gogortu; bestelan, Jauna aserratuko jatzue ta zeruko atsedenean ez zaitue artuko» (Ps. 94, 8).

### III

Iru erregeak nagi ta sor ez ziran ibili, bizkor eta zoli baino. Izarrari jarraitzen eutsela, Jerusalemenera etorri ziran eta an itandu eben: «*Ubi est qui natus est rex Judaeorum? Venimus adorare eum*. Judatarren errege jaioparri ori, non dago? Bera gurtzera gatoz» (Math. 2, 2). Jaio bada, gizo-

na da; errege dala eurak dinoe; gurtzera datozala esanaz, Jangoikotzat dauke. Onelan, iru erregeak Jesus ume jaioparria, gizon, errege ta Jangoiko ezagutu ta autortzen dabe. Augaitik, Belenera eldu ziranean, bere aurrean auspazturik, iru opari egin eutsoczan: gizon zalako, mirrea eskini eutsoen; errege zalako, urrea; Jangoiko zalako, kedatz<sup>445</sup> edo intzentsoa. Agiriko iru bezuza ta opari orreikaz batera, euren gogo ta biotzak be guztiz eta osoro opaldu ta eskini eutsoczan. Euren Jaun eta Jangoiko, ugazaba ta jabetzat ezagutu ta artu eben, eta andik aurrera beti, eriotzaraino, Jaun orren otsein eta morroi lez bere menpean zintzoro bizi izan ziran.

Guk be, iru erregeak lez, iru opari egin geinkeoz eta egin bear dautsaguz geure Jaunari. Gure arimeak iru almen daukaz; joan eta igaro diran gauzak gogora ekarteko gomutamena<sup>446</sup>, gauzak zelan diran aitu edo ulertzeko adimena, gauzak maitatu ta nai edo gura izateko naimena<sup>447</sup>. Gomutamena, bere mesedeak gogoan erabilteko emon dausku Jaunak; adimena, mesede orreik zein andiak diran ezagutu ta jakiteko; naimena, ostera, ainbeste mesede egin dauskuzan Jauna bera beste ezer baino maiteago izateko. Gure gogoak, gure arimeak, iru almen orreik baino besterik ez dauko. Augaitik, iru almen orreik Jaunari opaldu, eskini ta emon ezkerero, geure gogo guztia, arima osoa, eskini ta emoten dautsagu, eta Jaunak orixe nai dau, orixe eskatzen dausku: «*Praebe, fili mi, cor tuum mihi*. Ekazu, ene semea, ekazu zeure biotz ori».

Jauna gure gogo ta biotzen ugazaba ta jaube izateko etorri zan lurre-ra; gure gogo ta biotzen agintari ta errege izan nai dau; baina ez lurreko erregeak izan oi diran lez, askozaz obeto baino. Lurreko erregeak sarri, geienez, gizon eta erriak indarrez menperatu ta euren menpean indarrez euki dabez. Jaunak indarrez ez dau nai izan gure errege; geure guraz, geure borondatez baino. Nai baleu, gura nai gura ez ezi, bezau<sup>448</sup> ta bere menpean ipiniko gindukez; baina olakorik ez dau nai, geure guraz emon gakiozan nai dau. Gure biotzak maitasun eta mesedeen bidez irabazi nai ditu; Jaunaren mesedeak agirian dagoz, begietan lausorik ez daukan edonok ikusi daikéz. Baina obeto ezagutu daiguzan, azkenaldi onetan bere maitasunaren abi ta mesede guztien iturri dan bere biotza agertu ta erakutsi dausku. «Ona emen –esan eutsan Margarite M(ari) Alakokeri–, ona emen gizonak ainbeste maite dituan nire biotza.» Jaungoiko Gizonaren biotza da; augaitik, beste biotz guztien

<sup>445</sup> *Kedatz*: intzentso.

<sup>446</sup> *Gomutamen*: oroimen.

<sup>447</sup> *Naimen*: borondate.

<sup>448</sup> *Bezau*: hezi.



ugazaba ta jabe, agintari ta errege izan bear leuken biotz andi, eder eta maitale bikaina. Jesukisto gure Jaunak erakutsi euskun maitasun laztan guztiaren iturri, biotz ori da. Mesede guztiak biotz orrenak dira: gure alde oinaze, neke ta atsekebe izugarriak artu ta eroan ebazan; gure onerako beste odol guztia isuri eban; beragandik urrundu ta galdu gareanean, maitasunez beterik gure bila etorri da; ainbeste bidar geure gaiztakeriak erruki utsez parkatuta, bere aiskidetasunean laztan samurrez artu gaitu. Mesede orreik erakutsita, aitak semeari lez dinosku: «*Praebe, fili mi, cor tuum mihi*. Ekazu, ene semea, ekazu zeure biotz ori»; «zeure guraz emon zakidaz, biotzeko ateak zabaldu egidazuz, ortxe bizi nadin, zure jabe ta errege izan nai dot-eta».

## IV

Jauna beti, eskubidea daukan lez, beti gure errege ta jabe izan daiten, iru erregeak egin eben beste gauza bat be egin bear dogu. Herodesek esan eutsen: «Zoaze Belenera ta errege jaioparri ori aurkitu daizueanean, niri be jakinazo egidazue, neu be joan nadin eta gurtu dagidan». Baina Herodesen asmu gaiztoak aingeru batek agertu eutsezan «eta lengo bidea itxirik, beste bide batetik biurtu ziran euren errietara; *per aliam viam reversi sunt in regionem suam*».

Geure gaiztakerietaz damutu, pekatuako bideak itxi ta Jaunagana biurtu ezkerro, barriro lengo bide gaiztoetara bein be ez geunke joan bear. Laprast eta txirrist non egin gendun, pekatuan non eta zegaitik jausi ginan bakotxak dakigu. Urlia lagunaz batu, urlia lekutara joan, au edo beste arazotan sartu ezkerro, pekatuan jausi danak, lagun eta etxe ta arazo orreititik alde egin bear dau; arriskutik alde ta beste bide batetik ibili, iru erregeak lez. Bestelan, azalez bakarrik damutu da, guzurraz dabil, eta galduko da.

Jaunak gure biotzen jabe ta errege izan nai dau, ez egun bat edo bian, bizitza guztian baino; pekatu astunik egin ezkerro, jabetza ta erregetza ori ukatu egiten dautsagu. Augaitik, bein Jaunagana biurtu ta geure biotzak emon ezkerro, beti Jaunarenak izateko ardurea artu bear dogu; lengo bide txarrak bein ta betiko itxi ta bide barriari, Jaunagana ta geure betiko zorionera garoazan bideari, jarraitu bear dautsagu. Iru erregeak orixe irakatsi euskuen.

Jauna deiez daukagu; entzun eta jarraitu daigun berealaxe bere dei samurra. Geure biotzak eskatzen dauskuz; egin daigun biotzen jabe. Gure opariak izan bediz geure gurari, asmu ta biotzetako maitasuna. Ori egin ezkerro, ez gaitezcan biurtu lengo bide gaiztoetara; artu daigun Jau-

nak irakatsi euskun zeruko bidea, jarraitu daiogun, eta ori egin ezkerro, Jauna gure Jabe, Ugazaba, Agintari ta Errege izango da ta gu beti Jaunarenak izango gara.

Auspaztu gaizan bere aurrean eta eskatu daiogun bere laguntasuna. Jauna, zeureak gara, egin ginduzulako; zeure-zeureak, zeure odolez erosi ginduzulako. Beti zeureak izan nai dogu, baina gure asmuak argalak dira-ta, goiko indarrez sendatu egizuz. Zeure biotz maitale orretan artu gaizuz, maitasun lokarriz zeugaz lotu gaizuz, zugandik inoz aldendu barik, beti zeureak izan gaitazan; zeureak bizitzan, zeureak eriotzan, zeureak gero betiko zorion eta atseginetan.

## 2.2. JESUKRISTO

### 2.2.3. *Aste Gurena* (XXXIII, XXXIV, XXXV, XXXVI)

## XXXIII

### EGUEN GUREN: ALKAR MAITATZEKO AGINDUA

*«Mandatum novum do vobis,  
ut diligatis invicem sicut dilexi vos.»*

«Agintza barri bat damintsuet,  
alkar maitatu daizuela nik maitatu zaituedan lez.»

(Joan 13, 34)

N(eure) entz(ule) mai(teok):

Andi izateko gurari okerrak galdu ebezan gure lenengo gurasoak. Asikalditik guzurtia dan diabru gaizkinak esan eutsen: «Nik dinautsuedan au egiten badozue, jaungoikotxu batzuek izango zarie. *Eritis sicut dii*. Jaungoikuaren jakituria eukiko dozue, zein dan gauza ona ta zein txarra berak lez ezagutu al izango dozue. *Scientes bonum et malum*». Au esan eutsen diabruak eta eurak sinestu eutsen; arrokeriak zorabiau eutsen burua, sartu jaken biotzetan Jangoikoa lez izateko guraria, egin eben arerio gaizkinaren esana. Baina ez eben lortu, ez, berak agindu eutsen jakituririk ez eben jadetsi arek eskiniriko zorionik; argiaren ordeztasuna, jakituriaren ordeztasuna, zorionaren ordeztasuna: ori izan zan gure guraso gaxoen irabazia.

Abere gaiztoa da arrokeria. Antxina lez orain be, arrokeriak galtzen dau geienetan gizasemea; berau da, ba, beste pizti askoren ama, okerkeri askoren sorkuna, beste grina dongeen sustraia, egiten doguzan gaiztakeri asko ta askoren iturri loa. Arrokeria da gure edo arimearen geixorik txarrena, kaltegarriena. Gure arimearen geixoak osatzera etorri zan Jauna; augaitik, bere bizitza guztian baina batez be azkenaldian, itzez eta egitez irakatsi euskun apaltasun edo umiltasuna. Eguen Guren arratsean, zeru ta lurraren jaube zan Jaunak, bere ikasleen aurrean auspezturik, guztiai oinak garbitu eutsezan Simon Pedrogandik asita. Egi-

nen au amaitu ebanean, jesarri zan maian eta esan eutsen: «Zuek niri Irakasle, Maixu ta Jauna deitzen daustazue; ondo egiten dozue, izan be banaz-ta. Ba, nik, zuen Irakasle ta Jaun nazan aonek, zuei oinak garbitu badautsuedaz, zuek be beste orrenbeste egin bear dozue; au da, gorroto ta ikusiezinetan ibili barik, alkarrerri lagundu bear daustazue. Ikasbide, jarraibidea emon dautsuet, ba, nik zuekin egin dodaz lez zuek be bata-besteakin egin daizuen. *Exemplum dedi vobis, ut quemadmodum ego feci vobis sic et vos faciatis*» (Joan 13, 15).

Arrokeria, lentxuago esan dautsuedan lez, grina gaizto askoren sor-kun eta iturri da; baina arrokeria da, batez be, gizonak alkarrri zor dau-tsogun maitetasunak daukan etsairik andiena, areriorik gogor eta izuga-riena. Arroak bere burua maitatzen dau larregi, ta bere burua larregi maitatzen dauanak bear dan lez ezin maitatu daike bere geide<sup>449</sup> edo projimua. Augaitik, Jaunak apaltasun edo umiltasuna irakatsi eutsen lenengo eta, apaltasunaren jarraibide eder au emon ta gero, esan eutsen bere ikaslai: «Orain, agindu barri bat damintsuet, alkar maitatu daizuela nik zuek maitatu zaituedan lez; alantxe zeuek be maitatu daizuela bata-bestia. *Mandatum novum do vobis, ut diligatis invicem sicut dilexi vos, ut et vos diligatis invicem*. Bata-bestiaganako maitetasun zintzoa badau-kazue, orretantxe guzti-guztiak neure ikaslatzat ezagutuko zaituet; orixe izango da ba, nire ikasla benetakoak zariela adierazoteko, orixe izango da ezaugarririk onena».

Jaunak bere bizitza guztian irakatsi euskun alkarganako maitetasuna. «Nire lege guztia –esaten eban Jaunak–, nire lege guztia agintza bitan sartzen da: Geien maitatu egizu zeure Jaungoikoa. Zeure burua lez maitatu egizu zeure geide edo urko laguna ta bete dozu nire lege osoa.» Ori irakatsi eban Jaunak beti; baina bere bizitzearen azkenaldian, gure biotzetan obeto sartu, sendoroago iratzi<sup>450</sup> edo irarrita isteko, bere bizitzearen azkenaldian barriro emon euskun maitetasunaren agindua. Auxe izan zan Jaunak bere eriotz aurretixuan azkenengo agindu euskun gau-zea: «Nik maitatu zaitudan lez zuek be alkar maitatu egizue». Baina ez zan au aginduagaz ase ta naikotu Jauna; aonezaz gainera, bere maitetasunaren gomuteagaz, ito daiguzan gorroto gaiztoaren azi txarrak geure biotzetan, mundua mundu itxi euskun Altarako Sakramentuan bere gubanako maitetasun zintzo ta gartsuaren ezaugarririk andi ta ederrena. Gauza bi aonexek azaldutea izango da gaurko nire zeregina: lenen, Jau-

<sup>449</sup> *Geide*: lagun hurko, projimu.

<sup>450</sup> *Iratzi*: itsatsi, finkatu.

nak ipini euskun maitetasun agindua; bigarren, Jaunak Altarako Sakramentuan darakuskun maitasun samur, gozo ta laztantsua.

## I

*«Cum dilexisset suos qui erant in mundo in finem dilexit eos.»*

(Joan 13, 1)

N(eure) entz(u)le) mait(eok), baidakizue, gurasoak bere semeari azkenaldian, eriotzako orduan, emoten dautsazan aginduak benetan gogoangarri izaten dira; semearen biotzean barrurago sartu, obeto irarri edo irazten dira, ta nekezago aitzuten jakoz. Augaitik-edo, gure Jaunak be bere agindurik andi ta ederrena, il aurretxean bere ikaslai gogora ekarri ta barriro azaldu cutsoen. Bere azken aparta amaituta, Gesemani-rako bidea artu baino len: «Ene semetxuak –esan eutsen–, oraindik pizka baten zuekin egongo naz, baina pizka baten bakarrik. Neure Aitagandik urten eta etorri nintzan mundura; orain mundu au itxi ta, banoa barriro neure Aitagana. Baina joan baino len, entzun egizue zein dan nire azkenengo naia, nire ilburukoa, nire azken agindua. Agindu barri bat damintsuet, alkar maitatu daizuela nik maitatu zaituedan lez. *Mandatum novum do vobis, ut diligatis invicem sicut dilexisti vos*. Baina eriotzako zorian dagoan gurasoa, bere umeai agindu andi edo astunen bat emon nai badautse, ez da naikotuten bein bakarrik esanagaz. Jesukisto gure Jauna be bein bakarrik esanagaz ez zan naikotu; barriro esan eutsen: «Auxe da nire agindua: neuk zuek maitatu zaituedan lez zeuek be alkar maitatu daizuela. *Hoc est praeceptum meum: ut diligatis invicem sicut dilexisti vos*. Bigarrenez esanda be, ez zan ase gure Jaunaren Biotza, eta irugarrenez dinotse: «Auxe agintzen dautsuet: alkar maitatu daizuela. *Hoc mando vobis: ut diligatis invicem*. Nik agintzen dautsuedana da, bata-bestiaren maitetasun zintzo, gozo ta laztantsuan bizi zaitzela. Alkarganakoko maitasunaren legea austen ez badozue, bata-bestearen maitetasun zintzoan biziten bazarie, aorrentantxe guztiak ezagutu al izango dabe zuek nire ikasle on, zindo ta benetakoak zariela; au izango da, ba, nire ikasle egizkoak diranen ezaugarria. *In hoc cognoscent omnes quia discipuli mei estis, si dilectionem habueritis al invicem*» (Joan 13, 35).

Eta esan ta egin. Eleizearen lenengo egunetan, S(an) Lukasek Apostoluen Egitadetako Liburuan dinauskun lez, kistinau guztiak, Jesukistoren ikasle ta jarraitzaile guztiak, alkarganakoko maitetasun zintzo ta laztantsuan bizi ziran; maitetasunezko lokarri bigun-gozoakin lotuta,

guztiak egiten eben gogo ta biotz bakarra: *«Multitudinis autem credentium erat cor unum et anima una»* (Act. Apost. 4, 32). Euren artean ez zan ezagutzen gorrotorik, ez bekaizkeri edo ikusiezirik. Guztiak zan maitetasuna, alkarganako laztantasanik samurrena; guztia, bake ta zoriona. Au ikusirik sinestebakoak be arrituta, konkortuta gelditzen ziran, igarri ezirik nondik etorren kistinauen arteko bake, maitetasun eta laztantasan arrigarria, guztien gogoakin gogo bat, guztien biotzak in biotz bat egiten eban maitetasun ederra, *«cor unum et anima una»*.

Gu be Jesukistoren jarraitzaile ta ikasak gara, beintzat geuk uste dogu baigareala. Kistoren jarraitzailetzat, kistinautzat daukagu geure burua; baina, Kistoren ikasle zindoak ala ustelak ete gara? Jaunak esan eban bere ikaslen ezaugarria alkarganako maitetasunean izango zala, aonetantxe guztiak ezagutuko ebela nor zan bere ikaslea: *«In hoc cognoscent omnes quia discipuli mei estis»*. Ete daukagu, ba, guk Jesukistok bere ikaslai ipini eutsen seinale edo ezaugarri ori? Alkarren maitetasunean bizi bagara, bai; baina maitetasunaren ordezt, gure biotzetan gorroto ta ikusiezina bizi bada, ausi, apurtu ta geugandik jaurti dogu Jesukistoren ikaslen ezaugarria, ta kistinai-izena euki arren, sinetsi bear dogu Jaunaren jarraitzaile ustelak baino ez gareala, oker ipinita daukagula kistinaiuen izena, egin eta betetan ez dogulako Jesukistok azkenengo orduan ain alegin eta ardura andiz ipini euskun agindua.

Israeltarrak Babilongo buztarripetik urten eta barrero euren errira, Jerusalemenera, itzuli ziranean, aurreragoko euren gorabera ta aserreak amaituta, euren buruak bakezko maitetasun ederrean ikusirik, euren poza sinestu ezinda, esaten eben: *«Ecce quam bonum et quam jucundum habitare fratres in unum»*. Ara, gauza on eta atsegintsua anaiak alkarrekin maitetasun gozo-gozoan bizitea. Eta egiz, gorrotozko bizitzeak gaiztoki edo inpernuko bizitzearen antza daukan lezt, maitetasunezko bizitea zeruko bizitzearen irudia da, maitetasunezko estuntza edo lokarriakin lotuta dagozanai, Jaunak emoten dautselako lurrean be zeruko zorionaren antzeko zorion eder eta atsegintsua.

Gizonarentzat zorionik andiena da Jaungoikoagaz aiskide izatea; baina, zein da Jaunaren aiskidetasunera joateko bidea? Jaungoikoaren aiskidetasuna ta aonek dakarren zoriona lortzeko bidea da, alkarganako maitetasun zindo ta zintzoa. Jaunak berak esan eban: *«Vos amici mei estis, si feceritis quae praecipio vobis; hoc est autem praeceptum meum: ut diligatis invice»*. Zuek nire aiskide zarie, nik agintzen dautsuedana egiten badozue; auxe da baina nire agindua: bata-bestia maitatu daizuela.

Gure Jaunak maitetasun-agindua ipini euskunean, esan euskun agintza barria emoten euskula. Zelan ete da au? Maitetasun-agindua ez al da, ba, gizona bera baizen zarra? Asikalditik geiago ez dau maitatu

bear izan gizonak bere geide edo urko laguna? Bai, beti zor izan dautso gizonak gizonari bere biotzeko maitetasuna, beti ikusi daualako beste gizonetan bere izate, bere aragi, bere irudi, bere anaia. Zegaitik dino, ba, Jesukistok agintza barria ipinten dauskula, izanik agintza au mundua baizen antxinako-zarra? Begira, entz(ule) mait(eok). Jesukistok ez euskun agindu bakarrik geure geide edo projimua maitatu daigula, ori betiko agindua izan da. Jesukistok agindu euskun alkar maitatu daigula berak geu maitatu ginduzan lez. Eta au, bai, au agintza barria da, aurre-rago gizonak ezagutzen ez eben agintzea. Jaunak erakutsi euskun bere maitetasuna, gure izatea artu ta gizatasuna jaungoikotasunagaz batu ta lotu ebanean; erakutsi euskun bere maitetasuna, bere nekeakin Aita zerukoaren aiskidetasuna lortu, bere odolagaz gure arimak garbitu ta bere eriotzeagaz bizitza barriaren eskubidea emon euskunean. Aonelako maitetasun zindo, garbi, zintzo ta gartsurik ez zan ezagutzen gizonen artean. Augaitik, ondo baino obeto esaten eban agintza barria emoten euskula, barria zalako agintzen euskun maitetasuna; agintzen euskun, ba, berak geu maitatu ginduzan eran geuk be alkar maitatu daigula. Eta inoz gogoratu ete dogu bear dan lez, zelan, zein zintzoro ta noraino maitatu ginduzan geure Jaun errukior eta laztantsuak? Beste gauza askotan erakutsi euskun Jaunak bere maitetasun zindoa, baina ezetan be ez, aor Altarako Sakramentu agurgarri aorretan erakutsi euskun besteko andi, bero ta laztantsua. Augaitik dino S(an) Joanek bere Ebanjelioan: «*Cum dilexisset suos qui erant in mundo, in finem dilexit eos*. Munduan bizi ziran bere maiteak, azkeneraino, bere biotzeko maitetasun guztia itzuli arteraino, maitatu ebazala», sakramentu gurgarri ori ipini ta ogi-ardao irudipean estaldu zanean.

Geure maitetasunez artu eban Seme Jaungoikoak gizatasuna; geure betiko zoriona egitearren, gizatasunean ezkatu edo estaldu zan jaungoikotasuna. Au maitetasun andi-andia da: «*Magnum pietatis sacramentum*» (I Tim. 3, 16). Baina oraindik askozaz be arrigarriagoa da Altarako Sakramentuan erakusten dauskuna; emen estaldu ta ezkutetan dira, ba, Jesukistoren jaungoikotasun eta gizatasuna, biak batera. Ogiaren izatea biurtzen da Jesukistoren gorputz, ardaoarena Jesukistoren odol; onelan ogi ta ardaoak, euren antza, euren itxurea galdu barik, estalduten dabez Jaunaren gorputz eta odola.

## 2.2. JESUKRISTO

### 2.2.3. Aste Gurena (XXXIII, XXXIV, XXXV, XXXVI)

## XXXIV

### BARIKU GURENA

*«Nos autem praedicamus Christum crucifixum,  
judaeis quidem scandalum, gentibus autem stultitiam;  
ipsis autem vocatis..., Dei virtutem et Dei sapientiam.»*

«Jesukisto kurutzean josia irakasten dogu,  
judatarrentzat lotsaria, beste errientzat zorakeria;  
baina autuak izan diranentzat..., Jaungoikoaren indar eta jakituria.»  
(I Corint. 1, 23-24)

N(eure) entz(ule) mai(teok):

Jesukistoren legea irakasteko ardurea daukagunok, arazo ta zeregin au egiteko zetan lotsatu ez dogu. Baina inoz bildur eta lotsarik eukitekotan, gaurko egunez izango litzake, gaurko egunez Jaunaren gurutzeko eriotzea adierazo bear izaten dogulako: gure Jaunaren lotsari andi-andiak, bere oinaze ta min izugarriak, bere nekauste edo pasino gogorra, bere eriotza garratz-samina. Beste geienetan Jaunaren anditasunak azaltzen doguz: bere beso indartsuak egin dituan gauza arrigarriak, bere maitetasunak emon dauskuzan ezaugarri ederrak, bere legeko agintza guztietan eta bakotxean agertzen dan jakituri zerutarra; baina gaurko egunez geure Jaungoikoa, gizonik gaizkinena izan bailitzan lez, lapur bien erdian, kurutze lotsagarri baten josita aurkeztu bear izaten dogu.

Au ta guzti be, S(an) Paulo Apost(oluak) esaten eban ez zala bera Jesukistoren kurutzeagaz lotsatzen; bestera, kurutzea zala bere poza, kurutzean egoala bere atsegin, zorion, anditasun, aintza edo gloriarik ederrena, kurutzeko eriotzan ikusten ebalako Jesukistoren sendotasuna ta kurutzetik jasten dalako arimak goiko zorionera eroateko bear dan indar zerutarra. Augaitik, bere irakastaldi guztietan aitatzten eban Jesukistoren kurutzea, beti agoan eta ezpanetan erabilan Jesukistoren kurutzeko eriotzea.



«Judatarrak, nire erritarrak –esaten eban–, mirariak eskatzen dabez; greziatarrak, jakiturizaleak dira-ta, jakituria eskatzen dabe. Baina nik Jesukistoren kurutzean sendotasun eta jakituririk andiena dakust, eta augaitik, batzuai ta bestiai Jesukisto kurutzean josia irakasten dautset. Kurutzea izan arren, ba, nire erritarrentzat lotsari astuna ta greziatarrentzat zorakeri andia, Jaunak zerurako autu dituan guztientzat, kurutzea Jangoikoaren indar, sendotasun eta jakituri sakona da.» Auxe esan eta irakasten eban S(an) Paulo Apost(oluak), Jesukistoren pasino ta eriotzan beste batzuk makaltasuna baino ikusi ez arren, berak jaungoikozko sendotasun eta indarra argiro ikusten ebalako. Auxe berau da nik goiz aonetan, S(an) Paulo Apostoluari jarraiturik, zuori, kistinau maiteoi, irakatsi nai dautsuedana.

Sarritan bearbada, samurtu izango jatzue biotza, Jesukistoren pasinoko neke izugarriak gogoratuta; bein baino sarriago isuri izango dozuez, bearbada, negar-malko mingoitzak, gogoraturik geure onerako, gure betiko osasuna egitearren Jaunak igaro ebazan nekauste gogor eta eriotza garratz-samina. Ondo da; baina guretzat be esan eban Jesukistok, Kalbarioko aldapan gora joiala, Jerusalengo alabai esan eutsoena: «Ez egizue negarrik egin nigaitik; negar egizue zeuek eta zeuen semeakaitik. Bada egur bizian, lora, arnari edo frutu ederdun zugatzean, aonelako triskantza gogorra egiten bada, egur igarrean, frutu onik emon ez dauan egur igarrean, zelako zeatze ta triskantza ikarakorra egingo ete da? *In arido, quid fiet?*». Jesukistok esan euskun, ba, bere neke izugarriakaitik baino, geure gaiztakeriakaitik negar egin obe izango genduala, gure gaiztakeriok eroan ebelako bera kurutzeko eriotzara. Baina geure gaiztakeriakaitik negar egiteko ta damutasun-negarrez geure gogo ta biotza garbitzeko, gauzarik onena auxe da: geure Jaungoikoa, geure maitetasunarren kurutzean josita, ain neke izugarriak igaroten ikustea.

Geure sinestea biztu ta sendorö sinesten badaigu, Kalbarioko mendian neke gogorren artean kurutzean josita ilten dan Gizonaren Seme ori ez dala bakarrik gizona, gizon eta Jaungoiko, biak batera dala, ori bizi sinesten badaigu, geure gaiztakerien garbai edo damutasuna ta negar-malkoak berez etorriko dira. Augaitik, lenengo auxe erakutsiko dautsuet: Jesukisto gure Jauna bere eriotzan be gizon baizen argiro Jaungoiko agertu zala; gero erakutsiko dautsuet Jesukistoren eriotzan gizonen eskar gaiztoa batetik eta Jaunaren gubanako maitetasuna bestetik, azkenengo mailaraino eldu zirala. Aurrera jarraitu...

Emoidazu, arren, Jauna, zeure apostoluari, errege ta errien aurrean zeure kurutzearen indarra adierazoteko autu zendun apostoluari emon zeuntsan gar eta berotasuna, argitasun eta kemena, ta nire entzule maitete onei gogoz entzun eta biotz osoz zeugana hiurtzeko bear daben

laguntasun, eskar, edo grazia. Zeure eriotzako irabazi andiakaitik itxaroten dogu, Jauna, errukior izango zaiakuzala, ta biotzez eskatzen dautsugun grazia ori emongo dauskuzula.

*«Nos autem praedicamus Christum crucifixum,  
judaeis quidem scandalum, gentibus autem stultitiam;  
ipsis autem vocatis... , Dei virtutem et Dei sapientiam.»*

(I Corint. 1, 23-24)

N(eure) entz(ule) mait(eok), Jesukisto ez zala gizon bakarrik, Jaungoiko ta gizon zala, bere eriotzako egunean jazo ziran gauzetatik urten barik be, naiko errez azaldu ta adierazo leike. Begira ezpabe. Aurretiez eriotzea nortzuk arrerazoko dautsen, bere eriotzea noz, non eta zelan izango dan aurretiez dinona; alatz edo mirari arrigarriak bere eriotzan egiten dituana; kurutzeko eriotza ta lotsariakaz beste inok ez lako gurenda, garaitza andi, ospatsu ta ederra lortu edo irabazten dauana, ezin izan daiteke gizon utsa, bakarrik gizona. Naitaez gizon eta Jaungoiko, biak batera da. Orain, ba, Jesukistok aurretiez esan eban nortzuk jagiko ziran bere kontra, noz, non eta zelakoa izango zan bere eriotzea; mirari arrigarriak egin ebazan bere eriotzan, eta kurutzeko lotsariakaz lortu eban beste inok egundo lortu ez dauan besteko garaitza zabal, andi, eregi ta iraunkorra. Augaitik, Jesukisto bere eriotzan be, Jaungoiko ta gizon agertu zala autortu bear da. Ikusi daiguzan, ba, iru gauza aoneik, bana-bana.

## I.

«Eldu da ordua –esan eutsen Jesukistok bere ikaslai–, eldu da aldia ta goazen Jerusalemenera. An beteko dira, zeatz bete be, nitzaz esanda dagozan gauza guztiak. Gizonaren Semea –auxe zan Jesukistok beretzat artzen eban izena–, Gizonaren Semea abade nagusi ta idazkariai emona izango da, zinge<sup>452</sup> edo jentilen eskuetan ipiniko, ta gaitzetsi, kondenau egingo dabe. Irri ta barre egingo dautse, lotsari astunak jasan bearko ditu, zigorkatua izango da, bere arpegia txistu ta gorroz ezaindua, kurutzean josia; bertan ilgo da; baina irugarren egunean berbiztuko da. *Filius hominis tradetur principibus sacerdotum et scribis et condemnabunt eum, et tradent eum gentibus ad illudendum et flagellandum et crucifi-*

<sup>452</sup> Zinge: jentil.

*xendum; et tertia die resuget* (Math. 20, 18-19). Ori esan eutsen J(esu)k(istok) bere ikaslai. Judatar eskriba ta fariseoak be ondo ekien Jesukistok aurrerago ori esan ebala, augaitik joan ziran Pilatosegana ta esan eutsen: «Gero arek irugarren egunean herbiztuko zala esan eban ta, bere ilobia zaindu egin bear da, bere ikaslak etorri, gorpua ostuta, berbiztu dala erriari sinestu eragin ez daioen; eta bigarren oker au lenen-goa baino txarragoa izan ez daiten».

Aurretiez esan eban Jaunak bere ikasletatik batek diru pizka bategaitik saldu egingo ebala, ta egin-eginean bete zan Jaunaren esana; Simon Pedrori esan eutsan, oilarrak birritan jo baino len iru bidar ukatuko ebala; Jerusalemen arririk arri gainean ez zala geldituko; soldauak euren artean bere soinekoak banatu ta gero, barruko jantzia, zati batekoa norena izango zan jakiteko, zotzak egingo ebezala, ta bete-beteen jazo zan Jaunak esan ebana; kurutzean egoala emongo eutsien beztunerainokoa egoan aurretiez iragarrita. Eta ikusi ta gero esana izan bailitzan lez, egin eta bete zan guzti-guztia.

Gizon utsa baino izan ez balitz, zelan jakin eikezan ain zeatz bere nekauste edo pasinoko egunean gertauko ziran gauzak? Zelan aurretiez jakin, bere arerioak geroago eukiko ebezan asmuak eta bere kaltez egingo ebezan gauzak? Jesukisto gizon baino izan ez balitz, auxe da ezelan be egin ezin eikean gauzea, gizon utsak ezin ezagutu leikelako geroago beragaz jazoko dana.

## II

Bigarren, Jesukistok bere eriotzan, Jaungoikoak izan ezik, beste inok ezin egin daikezan mirariak be egin ebazan. Eta egiz, Jesukisto kurutzean egoala lur-ikara andia izan zan, atxak zatitu ziran, ilobiak idegi, ilak berbiztu; gòitik bera urratu zan Jerusalemgo eleizan eskegita egoan oiala, egunaren erdian ilundu zan eguzkia... Gauza aoneik ikusirik, kurutzearen ondoan egozan soldauak ikaratuta, bularra joten biurtu ziran Jerusalemenera, esaten ebela: «Benetan, au gizon au Jaungoikoaren Semea izan da. *Vere filius Dei erat*» (Marc. 15, 39). Aoneik alatz edo mirari guztiok Ebanjelioan irakurten doguz ta inok be ezin ukatu leikez, bape zentzunik daukan gizona bada. Begira zegaitik. Apostoluak ondo ekien Jesukistoren Ebanjelioa, bere jaungoikotasuna irakatsi ta zabaltzen asi ezkerro, mundutarrak, buztarri barik nasai ta oparo bizi nai eben mundutarrak, egingo ebela eurakaz euren Maixuagaz judatarrak egin ebena berbera, ta lentxuago edo gerotxuago, eurai be bizia kenduko eutsela. Ondo ekien inondik be ezin itxaron eikiela mundu aonetarako beintzat

gorrotoa, nekeak eta eriotzea baino beste onura edo probetxurik. Ori ta guzti be, egitiak eta egizaleak ziralako, nekea jaramon barik, eriotzearen bildurrik barik irakatsi ta zabaldu eben Jesukistogaz bere nekauste ta eriotzan jazo zana.

Bururik daukanak, ba, ezin ukatu daike Jesukisto il bazan, Jaungoiko ta gizona il daiteken lez il zala: gizon zanez, il zan neke-minen indarrez; baina jaungoikotasuna ezin il daiteke, ta gizontasunaren eriotzan be, jangoikotasunak bere almen, indar eta agintza osoa argiro agertu ebazan, mirari arrigarriak egiten ebazala. «*Christum Dei virtutem.*»

### III

Baina entzun oraindik gauza arrigarriagoa. Jesukistok bere lotsari, gurutze ta eriotzeaz lortu eban beste inok egundo lortu ez dauan besteko gurenda, garaitza, omen, entzute, aintza edo gloria. Jesukistoren gorpua bere besoetan euki eban kurutzea, Kalbarioko menditik Jerusalemenera jatsi zan; alderik alde igaro eban Palestinako lurra, etorri zan Atenas jakiturizalera, andik Erroma indartsura; jainko guzurrezkoak lurrera jaurti ebazan, guztien gainetik jagi ta agertu zan bera, ta munduari erakutsi eutsan egizko Jaungoiko bakartzat, kurutzean besoak zabalik il zan Jesukisto gure Jauna. Eta munduak, auspezturik, gurtu ta jauretsi eban kurutzea, bere Jaungoikotzat artu ta ezagutu eban kurutzean, lotsaririk andienen erdian, il zan Jauna; eta Jaunak, bere lotsariakaz, irabazi eban gizonen biotzetako maitetasuna! Nongo gizonak irabazi dau, ez dinot bere errian, bere erritik urrinetan, lurraren lau egaletan, nongo gizonak irabazi dau biotzetako maitetasuna? Gizon eta errien maitetasuna irabazteko, zenbat neke artu ta zenbat lan ez da egin bear izaten? Eta irabazi ta gero, zein errez, arin eta laster ez da galtzen? Gorpua ilobian sartu ezkerro, auts biurtu baino lenago, biotzak otzitu egiten dira, eta gizonak aitzukorrak garealako, gizartean maitasun iraunkorra lortutea gatx baino gatxago izaten da.

Ori ta guzti be, bada go gizon bat –dino Lacordaire jakitunak–, bada go gizon bat, beste gizon batzuen gorrotoak eriotzara eroan eban gizona; irri, barre ta destainen erdian il zana, kurutze lotsagarrian, bilozik, bere lotsari ta nekeak baino beste aberastasun barik, azkenengo arnasea emon ebana, gaizkinik gaizkinenak baino eriotza negargarriagoa euki ebana; il zanean, gitxi batzuen maitetasuna baino ez eukan gizona. Gizon aonek gizaldiai bere oroipen edo gomutea eskatu eutsen, eta bere gomuta laztangarria gizaldi guztietan bizi izan da; gizaldi guztiai maitasuna eskatu eutsen, eta gizaldi guztietako gizonak lurraren egal guztietan bere gurutzea gurtu dabe, bere irudia laztandu dabe, bere zauriai

mun egin dautse, ta kurutzean lotsariz beterik il zan Jaun orri euren biotzak eta biotzetako maitasuna opaldu dautsez. Ez dogu esan gizaldi askoren maitetasuna irabaztea baino gauza gatxagorik ez dagoala? Ez dogu esan gizonik andi ta ospatsuenak be ezin irabazi izan dabela? Ba, Jesukistok kurutzeko lotsariakaz irabazi eban gizaldien maitetasun ori. Kistinau asko eta askok Jaunari euren maitetasuna –ez edozelako maitasuna, egundo ezagutu dan maitasunik zintzoena– erakustearren, euren zanetako odola isuri ta euren bizia emon dabe. Aonclan, ba, Jesukisto gure Jauna, non eta noz eta zelan ilgo zan aurretiez bere ikaslai iragarri eutselako, kurutzean josita egoala alatz edo mirari arrigarriak egin zitualako, bere kurutzeko lotsariakaz egundo beste inok lortu ez dauan bes-teko gurenda edo garaitza lortu ta gizaldien maitetasuna irabazi ebalako, bere eriotzan be, egiz eta benetan, gizon eta Jaungoiko agertu zan.

Badakizue, geure sinesteak dinoskunez, Jesukisto Jangoiko ta Gizona da. Geure maitetasunarren, geu zerura eroatearren, Jesukistoren gizat-asuna jaio, nekez ausi ta il zan. Bere jaungoikotasuna, ez; jaungoikotasuna beti-betikoa da-ta, ezin jaio, ezin nekatu, ezin il daiteke. Baina Jesukistogan izate bietan notin edo persona bakarra dagoalako ta berau jaungoikozkoa dalako, orixegaitik gure maitasunez il zala ondo ta zuzen esaten dogu. Ikusi daigun orain norainokoa, zelako baltza izan zan gizonen Jesukistoganako eskar gaiztoa ta zelako samur, zintzo ta laztantsua Jaunaren gudanako maitetasuna.

Seme-Jaungoikoa gizonen bila, arimen bila, mundura etorri zan. Gizonai zeruko bidea irakasteko, neke ta izerdi artean, erririk erri ibili zan; beragana joaten ziran geixoak osatzen zituan; guztientzat eta batez be pekatari errukarientzat erruki ta maitetasunik samurrena erakutsi eban; eldu zan toki guztietan, esku-zabalez mesede ugariak egin eta zabaldu zituan. Lurrean egundo agertu dan gizonen ongile ta aiskiderik andiena bera izan zan; eta gizonak, zer egin eben? A! Gizonak gaizkinik gaizkinena izan bailitzan, bere aurka jagi ziran eta lapurra izan bailitzan, gabaz makila, ezpata, iskilu ta soldauekin joan ziran Gesemaniko zarradurara<sup>452</sup>, Jaunari eskuak ezarri ta txikot<sup>453</sup> bategaz loturik, errira agintari, epaikari edo juezen aurrera eroateko. Jaunak itandu eutsen: «Noren bila zatoze?» Eta eurak dinotse: «Jesus Nazaretarraren bila». Ta Jaunak bereala bere indarra iragarteko, «Neu naz» esanaz beste barik jaurti eban guztiak lurrera; baina jagiteko eskubidea emon eutsenean, eurak bape lotsa barik inguratu eben Jesus otzana, lapur gaizkina lez lotu ta eroan eben Kaifasen etxera.

<sup>452</sup> *Zarradura*: barruti, sail.

<sup>453</sup> *Txikot*: soka, erramal.

Izugarri ta ikarakorrak izan ziran andik aurrera eriotzaraino gure Jaunak artu zituan lotsariak, iruntsi zituan samintasunak, igaro zituan nekeak, jasan edo sufridu zituan min eta atsekabeak. Jopu doilorra izan bailitzan, betondokoak emon eutsezan, txistu ta gorro zikinez ezaindu eutsen bere arpegia, zenbatu ala ziorkadagaz<sup>454</sup> ebagi, zuzitu<sup>455</sup> eutsen bere gorputza, barre eragiteko jantzi eutsen erregeak erabilten eben lako janzki gorria, sartu eutsen buruan arantzazko koroia, emon eutsen eskura seska<sup>456</sup> edo kainabera utsa, ta bere aurrean belaunikoturik irri ta destainaz esaten eutsen: «Agur, judatarren erregeori. *Ave, rex judeorum*». Non, noz eta nori egin jakoz aonenbeste iseka, irri, destaina ta gaiztakeri? Inon be ez, inoz be ez, inori be ez! Zer egin ete dautse Jesukistok bere erritarrai, aonenbeste gaiztakeri beragaz egiteko? Zer egingo eutsen, ba? Maitatu! Gose ziranai jaten emon eta gosea kendu, euren geixoak osatu, il ziran batzuk biztu; guztiai on egin, zeruko bidea irakatsi, bere mesedeak euren artean zabaldu. Au ta guzti be, gizonak bere erritarrak gorroto itsu, gorroto zital, gorroto baltza erakutsi eutsen Jaunari, ta Pilatosek aonetarako aukera ta eskubidea emon eutsenean, auxe erantzun eban: Jesukisto baino naiago ebela Barrabas bera, aurreragoko egun baten gizon bat il eban lapur gaizkina. Au bai izango zala Jaunarentzat lotsari, tamal eta atsekabea! Barrabas baino be doilorragotzat, gaiztoagotzat bera eukitea!

Baina, non ete dira Jesukistoren ikaslak, bere eskolan zeruko jakituria ikasi ebenak? Non ete dira? A! Iksalak be lotsatu egin ziran euren Maixuagaz, iges egin eben geienak, ukatu egin eban Pedrok, eta Judasek saldu mosu lotsagarri bategaz. Ogetamar dirugaitik saldu eban Judasek bere Maixua! Saltzailea beste bat izan balitz, arerio bat izan balitz..., baina ez, Jaunaren ikasleak, Jaunak ainbeste bidar bere maitetasunaren ezaugarriak emon eutsozan gizona, ori izan zan Jesukisto abere bat izan bailitzan diru apur bategaitik saldu ebana! Egin ete lei egitada txatxarragorik? Egin ete lei zapokeri andiagorik? Nor ez litzake Judasegaz aserratuko? Nok ez leuskioz mailatu gurako bere matraila biak? Baina, kist(inau) mait(eok), ipini daigun geure bularrean eskua ta autortu daigun geuk be sarritan egin dogula Judasek egin eban dolorkeri ori; autortu daigun Judasegaz aserratzeko eskubiderik ez daukagula, berak lez eta bearbada berak baino merkeago, geure Jauna saldu dogu-ta. Zer egin dogu, ba, pekatu egin dogun bakotxean? Jesus itxi..., Jesus saldu... Zenbakaitik? A! Ze gauza gitxigaitik!

<sup>454</sup> *Ziorkada*: makilakada.

<sup>455</sup> *Zuzitu*: jipoitu.

<sup>456</sup> *Seska*: kainabera.

Aoneik gaiztakeri andiak dira; baina oraindik ez dot esan andiena. Entzun ezpabe. Non eta noz ikusi da, errurik ez daukan gizonari, errubagea dala autortu eta eriotzarik gogor, samin eta lotsagarriena arrerazotea? Olako gauzarik, non ikusi da? Bat baino geiago izan dira, bai, erru barik gizonen eskuetan il diranak. Baina aonelakorik egiten danean, eriotzako epaia emoten dauan epaikari edo juezak inoz be ez dau esaten errurik ez daukalako epaipetu<sup>457</sup> edo kondenetan dauala eriotzara; ori esatea lotsari andiegia izango litzake beretzat. Jesukistogaz orixe, gauza lotsagarri au egin zan: jakin errurik txikienik be ez eukala, epaikariak berak guztien aurrean autortu errurik txikienik be ez eukala eta kondenau eriotzara!

Judatarrak Jesukisto Pilatos agintariaren aurrera eroan eben, eta eriotzako epaia emon egiola eskatu eutsoen, eurak orretarako eskubiderik ez eukela-ta. Pilatosek laster igarri eban judatarrak inoen guztia guzur utsa zala, ikusiezin eta gorrotoa baino besterik ez zala, eta pizka baten Jaunagaz bakarrean egonda, erantzun eutsen: «*Nullam invenio in eo causa*. Ez dot aurkitzen errurik bape gizon aonegan. Zer gauza txar egin dau, ba? *Quid mali fecit?*». Baina judatarrak erruari ta errubakotasunari jaramon barik, beti gauza bat esaten eben: «Il bedi, il bedi, kurutzean josi bedi! *Tolle, tolle, crucifige eum!*» Baina, zegaitik? Ez dau ardura zegaitik! «Il bedi, kurutzean josi bedi ta bere odola geure gainera ta geure semeen gainera jausi bedi! *Sanguis ejus super nos et super filios nostros.*» Eta Pilatosek, berak ezagutu errugabea zala, berak guztien aurrean autortu errurik txikienik be ez eukala ta ori ta guzti, judatarren ederra eukitearren, kondenau egin eban Jauna, lenengo zigorkatua izatera, gero kurutzeko eriotzara.

Auxe da sinestu be ezin leiken gauzea, baina egi garbia. Jesukisto gure Jaunak errubagea zalako, epaikari edo juezak be errugabetzat eukelako, jasan, igaro, sufridu bear izan zituan, errudun izan balitz, juezak gaizto edo dongetzat euki baleu, igaro, sufriduko ez zituan lotsari, atsekabe, neke, min eta oinaze asko. Legeak agintzen eban norbaiti ziorkada edo azoteak emon bear bajakozan, azote orreik izan eitezala geieenez be berrogei baino bat gitxiago. Pilatosek uste eban Jesukistori gorputza birrindu ta gizonaren itxura barik ipini ezkerro, judatarren biotz gogorak errukitu ta bigunduko zirala; uste eban Jauna itxura negargarri aretan ikusi ezkerro, ase ta naikotuko zirala, ta eriotzako epairik ez eutsela geiago eskatuko. Ori uste izan eban eta uste oker aonegaz ipini eban Jauna urkatzaile gaizto, borraru ankerren eskuetan, eta agindu eu-

<sup>457</sup> *Epaipeku*: kondenau.

tsen neurri ta erruki barik emon egioezala bere gorputza birrindu ta zuzitu artean. Zenbat izan ete ziran? Ziur ez dakigu, baina bai legeak izentetan ebazan baino askoz geiago izan zirala; badakigu Jaunaren gorputza zauri gordin bat eginda itxi arteraino erruki barik astindu, ausi, jo ta birrindu ebela, gizonaren itxurea be kendu eutsela.

Baina Pilatosek au eginagaz ez eban ezertxu be aurreratu. Judatarrak, ba, Jesus bere odoletan gorrituta, zauri gordin eginda ikusi arren, ez ziran bape bigundu; len baino amurru andiagooz eskatu eben barriro Jaunarentzat kurutzeta, ta Pilatos epelak, judatarren ederra ez galtzerren, epaipetu, kondenau egin eban Jauna, bere eretxiz be errurik ez eukan Jauna, kurutzeko eriotzara.

Gazkinik andienai be, atsekabe larregi ez emotearren, azkenengo ordura arte ez eutsen erakusten eurentzat gertuta egoan kurutzeta. Baina gure Jaun errubageaz ez ziran orrelako bigunkerietan ibili; Pilatosek eriotzako epaia emon ebanean, bertatik ekarri eutsoen Jaunari kurutzeta ta lepora jaurti eutsoen, berberak bere bizkarrean eroan egian Jerusalemen asi ta Kalbarioko mendi tontorreraino, ilgo zan tokiraino.

Gesemaniko zarratuan<sup>458</sup>, bera atrapau ta lotutera joan ziranean, entzun eutsen Jaunari biotzean tamal eta atsekaberik andiena emoten eutsone auxe zala: bera lapurtzat eukitea, lapurra izan bailitzan, gabaz, makila ta iskiluakin bera atrapau ta txikotez lotzera joan bearra. «*Tamquam ad latronem cum fustibus et gladiis existis comprehendere me*» (Mt. 26, 55). Au entzun eutsen eta esan eben euren artean: «Bai, e? Ori da atsekabe ta min emoten dautsuna? Ba, orain kurutzean eta lapur biren erdian, lapurren buru baizinan ilgo zara». Eta esan ta egin. Lapur biren erdian egon zan kurutzean josita, zeru ta lurraren jaube zan Jauna! «*Morte turpissima condemnemus eum*. Arrerazo daiogun eriotzarik lotsagarriena, gizonik gaizkinenari baino be lotsagarriagoa» (Sap. 2, 20). Ez deritxazue, ene kist(inau) mait(eok), andien artean andiena, izugarririk izugarriena izan zala gizon eskar gaiztokoak Jesukistoren eriotzan egin eben gaiztakeria? Ondo esan eban, ba, gure Jaunak: «*Consummatum est!* Amaitu da!» (Joan 19, 30). Gizonen eskar txarra azkenengo mailaraino eldu da. Eta gure Jaun laztantsuari gizonak erakutsi eutsena baino gorroto zital eta doilorrakorik egundo ez da ikusi. Jaunagaz, egin ebena baino gaiztakeri baltzagorik egundo ez da egin eta egingo be ez. «*Consummatum est!*»

Ikusi daigun orain noragino eldu zan, zein laztantsua agertu zan Jaunaren guganako maitetasuna. Gizonen gaiztakeria baino be askozaz andiagoa izan zala, gizonen gorroto ta eskar gaiztoa Jaunak bere maitetasun samur eta laztantsuan ito ebazala errez ezagutu al izango dogu.

<sup>458</sup> Zarratu: barruti, sail.



Lenago esan dot ta badakizue: Jauna errugabea zan, Pilatosek be errugabetzat eukan; au ta guzti be Jerusalengo erriak diadarrez esaten eban: «*Reus est mortis!* Eriotzea zor dau, eriotzea merezi dau!». Eta auxe da benetan arritzeko gauzea. Jerusalengo erriak zinoana, Jesukistok ixil-ixilik entzuten eban eta eriotzarik ez ebala zor, bein be ez eban Jaunak esan. Zegaitik? A! Kist(inau) mait(eok)! Bera bai, bera errugabea zan; baina geu maitatu ginduzan, geure anai egin zan eta geu salbetarren, gure erru ta dongekeri guztiak bere lepora artu zituan. Gizon guztiok zor genduan eriotzea ta betiko eriotzea, pekatari donge ta gaiztoak ginealako, Jesukistok gure zorrak bere gain, bere lepora artu ebazan; eta onelan, bera errugabea izan arren, eriotzea zor eban, geure lekuan, geure orde, bera jarri zalako. Eta augaitik, Jaunak ixil-ixilik entzuten eban judatarren diadarra: «*Reus est mortis!* Eriotzea zor dau, eriotzearen duin da!» (Math. 26, 66).

Jaunak nai izan baleu errez eban eriotzatik igesten. Gesemaniko zarraduran «Neu naz» esanaz beste barik bere arerio guztiak lurrera egozti ta jaurti ebazan. Gero be errez eban beste aonenbeste egitea, errez arerio guztiak bizia kentzea; errez aen atzamarretatik igestea. Baina egin eikean ori ez eban egin nai izan; geure maitetasunak lotu eban, gurutze ta eriotzara gizonen maitetasunak eroan eban. Esan eiguzu, Jesus lazta-na: Zegaitik daroazu zeure bizkarrean kurutze astuna? «Maitetasuna da —dino Jaunak— kurutze astun au eroateko igitu, bizkortu ta indartuten nauana, orretarako gogo ta biotza emoten daustazana.» Zegaitik jausten zara iru bidar lurrera? «Ni lurrera jausten naz, gizonak zerura igon daitezana.» Borreruai, zegaitik isten dautsezue kurutzean josten? «Gizonak pekatuaren estuntza edo lokarrietatik askatu daitezana.» Zegaitik ilten zara kurutzean? «Kurutzean ilten naz, neure eriotza samin onegaz gizonentzat betiko bizia irabaztearren, gizonai betiko bizia emotearren.»

Iru ordu luzean egon zan Jauna kurutzean josita, bizirik, zintzilik, besoak zabalik, eskegita, guztiok beragana eroatearren. Samintasunik garratzenak, nekerik astunenak, atsekaberik mingotsenak, lotsaririk andienak, minik bizienak bere maitetasunaren indarra norainokoa zan guri adierazotearren. Borreruak burdinezko untzez josi eben, baina berak maitetasunezko untzez josi eban kurutzean bere burua; burdin untzeak urratu, apurtu eikezan; maitetasuna, ez. Augaitik, an egon zan, iru orduan kurutzean josita, maitetasunaren indarrez.

Eguzkia ilundu zan; oskuroan<sup>459</sup> odai baltzak zabaldu ziran, furra dardar asi zan; atxak erdibitu, ilobi edo sepulturak idegi ta ilak berbiz-

<sup>459</sup> Oskuro: horizonte, zeruertz.

tu ziran. Inguruan egozanak kurutzera begira jarri ziran. Jaunak eskini eban gure aldez bere bizia, makurtu eban lurrerantz bere burua, bere Aitari esan eutsan: «Ene Aita, zeure eskuetan ipinten dot neure gogoa, neure arimea». *«Et haec dicens expiravit.* Eta auxe esan ondoren il zan»; bere azkenengo arnasea emon eban. Geure maitetasunak eroan eban Jauna kurutzera, geure maitetasunarren galdu eban bere bizia, igaro eban eriotzea! O, Jaunaren maitetasun andi-samurra! Zuri zor dauetsugu, bai, zuri zor dauetsugu geure zorion guztia! Zuk idegi zeunskun zeruko atea, zuri zor dauetsugu zerura igoteko daukagun itxaropena!

Gure salbazinoa, gure zoriona egitea, ori izan zan Jesukistok bere sorburuan artu eban eginena; eginen andi, neketsu ta gatxa, zeru-lurrak egitea baino be askozaz gatxagoa. Geure gaiztakeriakaitik Jangoikoari geuntsazan zorrak, guk, geurez, ezin ordaindu, ezin kitutu geinkezan; Jesukisto gure orde z geure lekuan jarri ta geure bitarteko egin zan. Bera errugabea izanik, gure erru, dongekeri ta zor guztiak bere lepoan, bere gainean artu ebazan, eta origaitik, gurutze astuna eroan bear izan eban bere bizkarrean eta bere bizia be kurutzean emon.

Jaungoikoa ta gizona, zerua ta lurra, aserratuak egozan; Jesukisto bakeak egitera etorri zan. Augaitik, kurutzean eskegita, zeru-lurraren erdian, bitartean jarri zan Jauna, Aita-Jaungoiko ta gizonen bitartekoa, ta bere besoak zabalik, *cum clamore valido et lacrymis*—dino S(an) Paulo Apost(oluak)—, diadar sendo indartsuz eta negarrez eskatu eutsan zeruko Aitari gizonentzat erruki ta parkazinoa, esaten eutsola: *«Pater, dimitte illis, non enim sciunt quod faciunt.* Ene Aita, asketsi egiezu, zer egi ten daben ez dakie-ta». Eta bere eskariai indar geiago emoteko, gomutazo eutsan Aitari, Pilatosen etxean zigorkatua izan zanean isuri eban odol-errekea, Jerusalemgo kaleetan eta mendi-aldapan kurutzeagaz joia-la itxi zituan odol-markak, kurutzean bertan bana-banan eta maitetasunezko garretan berotu ta jausten ziran odol-tanta ugariak. Entzun zituan Aitak Seme maitearen eskariak, baretu zan bere aserrea, samurtu zan bere biotza ta itzuli zan errukira. Aitak emon eutsan Semeari gizonen kontra idatzita, eskribiduta, egoan epaia, ta S(an) Paulo Apostoluak dinoanez, Semeak, Jesukisto Jaun errukiorrak, epai ori bere odoletan sartu, ezabatu, garbitu ta kurutzean josi eban, aurrerantzean gizonen kaltez izan ez eiten, gizonen zorrak berak ordaindu ebazala guztiak jakin egien. *«Delens quod adversum nos erat chirografum decretis affigens illud cruci.»* Egun zoriontsua guretzat ori egin zan eguna! Jaun maitagaria benetan, aonelan maitatu ginduzan Jauna! Egun aretan idegi zan, ba, gizonentzat zeruko atea, ainbeste denporan, ain aldi luzean, itxita, zarratuta egoan zeruko atea!

Amaitzeko, gogoratu daigun Jesukisto gure Jaunak, Kalbariko aldapan gora joiala, Jerusalemgo alabai esan eutsena: «*Filiae Jerusalem, nolite flere super me, sed super vos ipsas flete eta super filios vestros*. Jerusalemgo alabak, nigaitik ez egizue negarrik egin; zeuekaitik eta zeuen semeakaitik negar egizue»; bada egur bizian, arnari, frutu ederdun zugatzean, onelako triskantza gogorra egiten bada, egur igarrean, frutu txarrak baino emon ez dituan zugatzean, gizon pekatari gaiztoan, zelako triskantza ikaragarria egingo ete da, Jaunaren zuzentasuna, suzko ibai bat lez, osoro aserratua bere gainera jausiko danean? Jaungoikoak ain gogortasun andiaz zigortau, kastigetari baditu, gure pekatuak bere Seme laztanangan, zelako zeaztasun eta gogortasunaz zigortauko ete ditu pekatarien lepoan, bizitza au amaituta, bere esku aserratueta jausi daitezanean? Benetan, kist(inau) mait(cok), Jaungoikoak pekatuari dautsan gorrotoa, Kalbariko mendian beste inon baino obeto ikusi geinke; geuk dongekeriari izan bear dautsagun gorrotoa be, geure Jaunaren eriotzan beste inon baino obeto ikasi geinke.

Begiratu ta ikusi geure Jauna Kalbarioko mendian kurutzean josita. Aona emen gure Jaunaren irudia; begira bere arpegi larri ta iluna, begira bere gorpuz birrindua, begira bere arantzak, begira bere untzeak, begira bere zauriak. Onexek bearrok egin ebazan gure Jaunagan zorigaitzoko pekatuak! Geure Jaun laztantsu maitakorra aonelan ikusirik, gure biotza biguntzen ez bada, gure barruan pekatuaren gorrotoa sortuten ez bada, geure Jaun laztanagazko maitetasun zintzoa irazegi, biztuten ez bada, atxen antzeko gogorra dogu gure biotza. Egin daigun kontu gure Jaunak kurutze aonetatik guztioi ta bakotxari dinauskula Jerusalemgo alabai esan eutsena berbera: Gizonak, emakumeak, kistinauak, nigaitik ez egizue negarrik egin; negar egizue zeuen gaiztakeri edo pekatuakaitik, ba, zuen dongekeriok dirala-ta naukazue ni aonelan kurutzean josita. Zeuen gaiztakeriok dirala-ta damututen ez bazare beintzat, jausiko da zuen gainera Jangoikoaren aserre betikoa. Damutu zaitezte ta damutasunezko negarrez zeuen gogo ta biotzok garbitu eginguez, Jaungoikoaren aserre bildurgarritik iges egin nai badozue! Auspezte gaizan, ba, Jaunaren aurrean eta esan daiogun: Damu dogu, Jauna. Gure eskar txarra parkatu eiguzu, gure biotzetan pekatuaren gorrotoa ta zeuganako maitetasuna sortu ta indartu, azi ta geitu egizuz, zeure agintzak gordeta, zeure maitetasunean bizita, zeuk irabazi zeunskun goiko ta betiko zoriona lortu ta eskuratu daigun.

## 2.2. JESUKRISTO

### 2.2.3. Aste Gurena (XXXIII, XXXIV, XXXV, XXXVI)

## XXXV

### ZAZPI ITZAK<sup>460</sup>

«*Hic est Filius meus dilectus; ipsum audite.*»

«Nire Seme maitea, auxe da; bera entzun egizue.»

(Luc. 9, 35)

N(eure) entz(ule) mai(teok):

Gaurko egunez, Ostiral Guren egunez, geure Jaunaren gurutzeko eriotzea gomutetan<sup>461</sup> dogu. Jaunak, gurutzean egoala<sup>462</sup>, zazpi itz esan zituan, eta ordutik aona gizaldi guztietako kistauak itz gomutagarri aek euren gogoan darabitez.

Antxinako<sup>463</sup> jakitunen itzez, gaur nor oroitzen da? Sokrates naiz Platon naiz Aristoteles azken itzak bere gogoan, nok darabiltz? Inok be ez! Aizeak-edo eroan zituan; gizonak, beintzat, aztu dabez eta jakin ez arren be, ardura gitxi, ajola gitxi.

Jesukistoren azken itzez olakorik ez da gertatu. Jaunak gurutzetik itz egin eban eta gizaldi guztiak entzun dautse. Azken arnasetan egoala Jaunak esandako itz samur aek, menderik mende, gizaldirik gizaldi etorri jakuz; enda guztietako gizonak entzun eta ikasi dabez, gogo ta biotz askoren jabe egin dira. Kistauen biotzetan beti bizirik dagoz eta gaur be<sup>464</sup>, antxina<sup>465</sup> besteko indarra dauke. Geure Jesus maitearen itzak dira-ta, lotsa ta itzal andia zor dautsegu; beste inok egundaino maitatu

---

<sup>460</sup> Gipuzkereagaz nahastean dator sermoi honen bizkaiera. Gure edizino honetarako behar-beharreko euskalki-aldaketak egin behar izan doguz.

<sup>461</sup> Jatorrizkoan: *gomutatzen*.

<sup>462</sup> Idem: *zegoala*.

<sup>463</sup> Idem: *antzinako*.

<sup>464</sup> Idem: *ere*.

<sup>465</sup> Idem: *antxina*.

ez gaituan bestean, gurutzeko eriotzaraino maitatu ginduzan Jaun laz-  
tantsuaren itzak dira-ta, arretaz entzun, gogoan artu eta geure biotz  
barruan, guztiok eta bakotzak<sup>466</sup>, astiro-astiro ausnartu bear doguz<sup>467</sup>.

Aita Jaungoikoaren esana da: «*Hic est Filius meus dilectus; ipsum  
audite*. Neure Seme maitea, auxe da; entzun egiozue». Jesus laztanak  
guztioentzat itz egin eban. Aita Jaungoikoak bere Seme maitearen itzak  
entzun daiguzala agintzen dausku; kistau zintzoak, lur zabal guztian, lo-  
tsa ta itzal andiz entzun, gogoan artu, biotzetan gorde ta samurkiro aus-  
nartzen dabez. Guk bere ori egin bear dogu. Jaunaren laguntasunaz,  
bana-banan, laburtxo ta al bait argiroen azalduko dautsuedaz eta gogo  
onez entzun egidazuez.

## I

«*Pater, dimitte illis, non enim sciunt quid faciunt.*»

«Ene Aita, parkatu egiezu, zer egiten daben ez dakie-ta.»

(Luc. 23, 34)

Gure Jauna gurutzean untzez josita dago; bere oinaze, min eta nai-  
gabeak izugarriak dira. An dagozan gizatxarrak irri ta ista<sup>468</sup>, ixeka ta  
burla egiten dautse, irain eta biraorik zakarrenak bere arpegira jaurti-  
ten<sup>469</sup> dautsez.

Biotza atsekabe saminez beterik daukan Jauna itz egitera doa. Zer  
esango ete dau? Bere borreroentzat tximistak eta sua eskatuko ete ditu?  
Lurra idegi ta irunsi daizala eskatuko ete dau? Bai zera! Gizon utsa  
balitz, gizonok olako aldietan egiten dogun ori berak be<sup>470</sup> egingo leu-  
ke, baina gure Jauna bildotsa baizen otzana da. Bere buruaz, bere neke-  
minetzaz aztu bailitzan lez, gure zorionaz bakarrik oroitzen da; gorro-  
toari maitasunaz erantzuten daki ta beste ezer baino len, bere etsai, bere  
borrero gaizto biotz-gogorrentzat errukia, parkazinoa<sup>471</sup> eskatzen dau:  
«*Pater, dimitte illis, non enim sciunt quid faciunt*. Ene Aita, nire etsai  
onei, gurutzean josi naben borrero onei, arren, parkatu<sup>472</sup> egiezu, zer

<sup>466</sup> Idem: *bakoitzak*.

<sup>467</sup> Idem: *ditugu*.

<sup>468</sup> *Ista*: burla, irain.

<sup>469</sup> Jatorrizkoan: *jaurtitzen*.

<sup>470</sup> Idem: *ere*.

<sup>471</sup> Idem: *barkazioa*.

<sup>472</sup> Idem: *barkatu*.

egiten daben ez dakie-ta» (Luc. 23, 34). Jaunaren lenengo itza parkazino<sup>473</sup> ta errukizko itza da; otoitz samur, eskari bigun-laztantsua. Jaunaren lenengo itzak maitasun ezti-gozoa dirudi ta bere etsaiantzako erruki eske, parkazino<sup>474</sup> bila, zuzen-zuzen zeruko Aitagana doa. «*Pater, dimitte illis.*»

Baina an egozan borroentzat baino ez ete eban Jaunak parkazino-rik<sup>475</sup> eskatu? Bai, gizarte osoa ta gizaldi guztiak bere gogoan cukazan Jaunak, eta errukia be<sup>476</sup> guztientzat eskatu eban! Zuek, entz(ule) mait(eok), Jaunaren gogoan zengozen; ni be<sup>477</sup> an nengoan. Pekatari<sup>478</sup> guztiok Jaunaren borroero izan gara, geure eskuak Jaunagan ipini doguz<sup>479</sup>, gurutzera eroan dogu, bere eriotza eta odolaren errudun egin gara; eta Jaun onak guzaz errukiturik, guztioentzat erruki ta parkazino<sup>480</sup> eskatzen dau. Esan ezpabe: gure Jauna gurutzera, zek croan eban? Bere bizia, zek kendu eutsan?

Jaunari bizia kentzeko, gizonen grina, lera, makurkeri gaizto guztiak alkartu ziran. Jerusalemgo apaiz, legegizon eta andikien arrokeri, gorroto, bekaitz eta ikusiezinak erabagi eben Jaunaren eriotzea. Judasen zikoizkeri, diruzalekeriak saldu eban. Erromako agintarien ederra ez galtzearren, makalkeri<sup>481</sup> utsez, gaiztetsi edo kondenau eban Pilatosek. Buruauste barik<sup>482</sup>, atseginez eta lasai bizi nai ebalako, diadar egin eban Jerusalemgo erriak: «*Tolle, tolle, crucifige eum.* Kendu, kendu, gurutzean josi egizu». Jauna gurutzean josi ta bizia kendu eutsenak gizonen grina gaizto ta zalekeri okerrak izan zirala agiri da. Baina grina gaiztoak guk be<sup>483</sup> badoguz<sup>484</sup>, euren egarria ase naiez Jaunaren aurka, bere legearen kontra jagiten dira eta Jerusalemgo erriak bezela «*Crucifige*» diadar egiten dabe.

Jauna egia, zuzena, bakea, maitasuna da. Gizonai egia ta zuzena irakatsi eutsen; gizartera bake ta maitasuna ekarri zituan. Baina geure grina gaiztoai jarraituaz, sarri askotan egia ukatu, zuzena zapaldu, bakea

473 Idem: *barkazio.*

474 Idem: *parkazio.*

475 Idem: *barkaziorik.*

476 Idem: *ere.*

477 Idem.

478 Idem: *bekatari.*

479 Idem: *ditugu.*

480 Idem: *barkaztoa.*

481 *Makalkeria:* ahultasun.

482 Jatorrizkoan: *gabe.*

483 Idem: *ere.*

484 Idem: *doguz.*

galerazo<sup>485</sup> ta maitasunezko legea ausi egiten doguz<sup>486</sup>. Arrokeri ta bekaitza, gorroto ta alkar ikusiezina orain be<sup>487</sup> gizartean zabal dabiltz. Grina oneik gizartearen jabe ta agintari egin dirala dirudi, eta beinola gure Jauna gurutzean egon zan lez, gaur egunean be<sup>488</sup>, sarri askotan, Jaunaren egia, Jaunaren zuzena, bere bakea ta maitasun-legea gurutze lotsagarrian josita dagoz. Au egitea, S(an) Paulo Apost(oluak) dinoskunez, Jauna bera gurutzean jostea bezelaxe da: «*Rursus crucifigentes sibi-metipsis Filium Dei*». Augaitik, Jaunaren egia ukatu, zuzena zapaldu ta maitasun-legea ausi dogun pekatariok<sup>489</sup> Jaunaren borrero izan gara. Jauna gurutzean josi dogu, ta bere borreroentzat erruki ta parkazinoa<sup>490</sup> eskatu zituanean, gu be<sup>491</sup> borrero izan gara-ta, Jaunak guretzat be<sup>492</sup> eskatu zituala agirian dago.

Bai, baina Jaunak guretzat eskaturiko erruki ta parkazino<sup>493</sup> orreik<sup>494</sup> lortu, jadetsi ta geugandu nai badoguz, bere irakatsiai jarraituaz, guk be<sup>495</sup> geure etsai ta arerioai biotzez barkatu bear dautsegu. Jaunak berak esan eban: «*Dimittite et dimittetur vobis*. Parkatu egizue ta parkatuko jatzue». Geure oben, pekatu ta gaiztakerien parkazinoa<sup>496</sup> irabazteko, ori bezelako biderik ez dago; geuk besteai biotzez parkatu ezkeru, Jaunak be<sup>497</sup> parkatuko dausku. Baina geure zordunai parkatu<sup>498</sup> ezik, Jaunak neurri bardinaz neurtuko gaitu-ta, geure obenen, geure pekatuen parkazinatorik<sup>499</sup> ez dausku emongo. Norbaitek esan daike: «Nire etsaia beste bat balitz, parkatuko neuskio. Baina nizaz eskar gaiztoko izan da; mesede baino ez dausat egin eta bera nizaz basati utsa, anker eta biotz-gogorra izan da, ta orrezaz ganera, gaizto andiak, irri ta barre, ixeka ta burla egiten daust. Beste bat balitz..., baina orri ezin parkatu nengio».

---

<sup>485</sup> Idem: *galerazi*.

<sup>486</sup> Idem: *ditugu*.

<sup>487</sup> Idem: *ere*.

<sup>488</sup> Idem.

<sup>489</sup> Idem: *bekatariok*.

<sup>490</sup> Idem: *barkazioa*.

<sup>491</sup> Idem: *ere*.

<sup>492</sup> Idem.

<sup>493</sup> Idem: *barkazio*.

<sup>494</sup> Idem: *oiek*.

<sup>495</sup> Idem: *ere*.

<sup>496</sup> Idem: *barkazioa*.

<sup>497</sup> Idem: *ere*.

<sup>498</sup> Idem: *barkatu*.

<sup>499</sup> Idem: *barkaziorik*.

Ori orrela izan daiteke. Baina esaidazu, entz(ule) maiteorrek, zuri ta niri parkatzeko<sup>500</sup> agindu dauskun Jaunak olakorik ez ete eban ikusi? Bere etsaiak beste orrenbeste ez ete eutsen egin? Bai beintzat! Ori ta askozaz geiago be<sup>501</sup>. Jaun maitaleak bere bizitza guztia aurrekoai on egiten emon eban, «*pertransiit benefaciendo*»; bere mesedeak ikusi ta artu zituen gizatxar aek gurutzera eroan eben. Asma aleko oinaze ta neke-minak arrerazo cutsoezan eta gurutzean untzez josita ikusi ebena, odolez ase ezin ziran gizon biotz-gogor eta basati aek, Jaun onari irri ta ixeka, barre ta destaina egiten eutsen. Au ta guzti be<sup>502</sup> Jaunak berari egindako gogorkeri, gaiztakeri, irri, ixeka ta burlak bere etsai dongeai guztiz, osoro barkatzen dautsez. Parkatzea naiko ta lar dala dirudi; baina Jaunak ori baino askozaz geiago egiten dau: berak parkatu<sup>503</sup>, Aitari parkazinoa<sup>504</sup> eskatu ta bere etsaien errua ere al bait geien zuritu, al eban besteraino gitxitu: «*Pater, dimitte illis, non enim sciunt quid faciunt*. Ene Aita, parkatu<sup>505</sup> egiezu, zer egiten daben ez dakie-ta». Jakinezaz, oartu barik<sup>506</sup> egiten dana, berez gauza txarra izan arren, ezaue-ra osoz egiten dana baino askozaz be gaiztakeri txikiagoa izan oi da; augaitik, borrheroak zer egiten eben ez ekiela esanaz, Jaunak aen errua asko zuritu ta gitxitu eban.

Guk uste izan ez arren, kalte ta bidegabeak, ixeka ta irainak egiten dauskuezanak sarri askotan jakinezaz edo beintzat bear bezela oartu barik<sup>507</sup> egiten dauskuez; augaitik, geure geide edo lagun urkoai parkatzeko<sup>508</sup> egoten garean baino askozaz gertuago, prestago egon bear geunke. Kistauak gareala esaten dogu, baina esatea ez da naiko. Kistauak bagara, Jaunaren jarraitzaile izan bear dogu; berak egin ebana, egin eban lez, guk ere egin bear dogu. Jaunak bere borrheroai guztiz, osoro parkatu<sup>509</sup> eutsen; guri be<sup>510</sup> sarri parkatu<sup>511</sup> dausku. Jesukistoren jarraitzaile bagara, alkarri egindako irain eta bidegabeak bata-besteari

500 Idem: *barkatzeko*.

501 Idem: *ere*.

502 Idem.

503 Idem: *barkatu*.

504 Idem: *barkaztoa*.

505 Idem: *barkatu*.

506 Idem: *gabe*.

507 Idem.

508 Idem: *barkatzeko*.

509 Idem: *barkatu*.

510 Idem: *ere*.

511 Idem: *barkatu*.



biotzez parkatu<sup>512</sup> bear dautseguz. Gaur erruki ta parkazino<sup>513</sup> eguna da; gure Jaunak esan eta egin ebana, guztiok eta bakotzak<sup>514</sup> esan eta egin daigun. «*Pater, dimitte illis*. Jauna, nire etsaiak parkatu egiezu; nik parkatzen dautset. Ordez neure oben eta pekatuak parkatu egidazuz.»

## II

«*Hodie eris mecum in paradiso.*»  
«Gaur izango zara neugaz paradisuak.»  
(Luc. 23, 43)

Getsemaniko baratzen esan eutsen Jaunak bere etsaiak: «Egunero zuen artean ibili naz eta eskurik ez daustazue ezarri; orain, oster, lapurra bainintzan lez, soldau, iskilu ta makilakin ni arrapatzera etorri zarie». Gure Jaunari bera lapurtzat artzeak biotzean min andia emoten eutsala igarri eben, eta min emotea Jauna lotsari gorrian ipintea baino beste asmorik ez erabilen gizatxar aek, lapur gaizkin biren erdian josi eben gurutzean; lapur biak ezker-eskubi<sup>515</sup>, ta Jauna, lapurren buru bailitzan bezela, bien erdian.

Ezkerraldeko lapurrari Egesta, eskoialdekoari Dimas zeritzaiela dinoe. Ezkerraldekoak irri ta destainetan Jaunaren etsaiak lagun egiten dautse; oneik lez berak be<sup>516</sup>, ainen- eta birao-urtika diardu, aserre ta amurruz beterik inon diran txarkeriak esaten dautsoz. Eskoialdekoak, oster, bere lagun gaiztoari agiraka egiten dautso, esanaz: «Zer? Gurutzean oinazez ago ta orrela agoala be<sup>517</sup>, ez daukak Jaungoikoaren bildurrik? Guk geure egite txarren saria artzen joagu; zuzenez eta bidez gaiagozak emen. Baina onek gaizkirik bape<sup>518</sup> ez jok egin. *Nibil mali gessit*». Eta bere begiak Jauniagana itzulirik, esan eutsan: «Jauna, zeure erreinura zatozanean, nizaz gomutau zaitez». Eta Jaunak dinotso: «Gaur egongo az<sup>519</sup> neugaz<sup>520</sup> paradisuak. *Hodie eris mecum in paradiso*».

<sup>512</sup> Idem.

<sup>513</sup> Idem: *barkazio*.

<sup>514</sup> Idem: *bakotzak*.

<sup>515</sup> *Eskubi*: eskuma.

<sup>516</sup> Jatorrizkoan: *ere*.

<sup>517</sup> Idem.

<sup>518</sup> Idem: *batere*.

<sup>519</sup> Idem: *aiz*.

<sup>520</sup> Idem: *neronekin*.

Jaunaren itzak, itz samur eta errukiorrak entzunik, Dimas lapur ona bere artean gogoratzen, pentsetan<sup>521</sup> asi zan: «Jaun onek gaiztakeririk ez dau egin eta gurutzean josi dabe; mesede baino ez dau egin eta inon diran txarkeriak egiten dautsez. Eta berak, gurutzean josi ta gero, irri ta barre egiten dautsen gizatxar oneintzat bere Aitari errukia eskatu dautso. Gizon baino ez balitz orrenbesteko ontasun, erruki ta maitasunik ez leuke erakutsiko, gizonok olakorik egiten oraindik ez dogu ikasi-ta». Au gogoratzen eban bitartean, goiko argiz argitu jakon bere gogoia; igarri, ezagutu eban bere ondoan gurutzean egoana Jaungoikoaren Semea zala. Bere sinestean etsaien aurrean lotsa ta ikara barik, adore ta kemen andiz autortu eban eta bere gaiztakeriez damuturik, apal eta umil esan eutsan Jaunari: «*Domine, memento mei, dum veneris in regnum tuum.* Jauna, zeure erreinura zatozanean, nizaz gomutau zaitez». Eta bere gaiztakeriez damututa, bere sinestea etsaien aurrean lotsa barik, goraki aitortu ebalako, Jaunak zeruko atsedena eskini<sup>522</sup> eutsan, erantzunaz: «*Hodie eris mecum in paradiso.* Gaur izango zara neugaz paradisu». »

Lapur onek gaur eguneko kistau askori ikaskizun ta jarraibide ederra emoten dausku. Kalbarioan, eretxi baten, Jaunaren etsaiak ziran nagusi; lurreko indarra euren alde egoan, Pilatosek nai ebena egiteko eskubidea emon eutsen. Dimasek ori ikusten eban; baina ori ta guzti be, gurutzean eta lotsa gorrian egoan Jesus laztana bere Jaungoikotzat ezagutu, sinestu ta aitortu eban, etsaien barre ta burlai jaramon barik. Gaur eguneko kistau asko etsaien aurrean sinestea aitortzeko lotsa izaten dira; irri ta barre egingo ete dautsen bildurrez sarri askotan sinestea ezkutau, estaldu egiten dabe, makalkeri utsez, lotsa txarrez. Geure sinestea aitortu ta erakusteko lotsarik izan ez daigun, Jaunak esan eban au gogoan artu bear dogu: «Gizonen aurrean aitortzen nauana, nik be<sup>523</sup> nere Aita zerukoaren aurrean aitortuko dot; baina ni gizonen aurrean lotsaz ukatu nagiana, nik be<sup>524</sup> ukatu egingo dot. *Qui autem negaverit me coram hominibus, negabo et ego eum coram Patre meo qui in coelis est* (Math. 10, 33).

Beste batzuk –nik ez dakit zegaitik, eurak be<sup>525</sup> ez dakie– Kalbario-ko Jesusen etsaien antzera, edonon, edonor eta edozegaitik ainen, biraoa, blasfemia izugarriak esaten dabez. Birao-urtika ibilte ori gizon

<sup>521</sup> Idem: *pentsatzen.*

<sup>522</sup> Idem: *eskaini.*

<sup>523</sup> Idem: *ere.*

<sup>524</sup> Idem.

<sup>525</sup> Idem.

txakil<sup>526</sup> eta txaldanen egikizun txatxarra da; bape bururik daukan gizonak, zentzun ona galdu ez dauan kistauak, egin ezin daiken gaiztakeri baltza. Biraoak esaten dituanak bere ao-etzpainak zikindu ta Jaunaren aserrea bere gainera ekarri, besterik ez dau egiten. Nik ez dakit nok sartu dautsen batzuai buruan biraoak esan ezkerro gizon egiten dirala; birao-urtika dabilena gizon azarri edo balientea dala. Uste okerra, tentelkeri utsa! Birao zikin orreik esatea gizon azarri izateko naikoa balitz, euren gurariz beti zikintzan ibili oi diran urdeak naiz karrakaldoak<sup>527</sup> gizonik gizonena baino azarriago, balienteago izango litzakez. Biraoa gizon galduen izketea da. Ezkerraldeko lapurrak biraoak jaurti zituan eta galdu zan; eskoialdekoak, etsaien bildur barik<sup>528</sup>, bere sinestea aitortu eban eta Jaunak betiko zoriona agindu eutsan. Betiko zorion ori lortu nai badogu, guk be<sup>529</sup> lotsatu barik geure sinestea itzez eta egitez aitortu daigun.

Jaunaren ezker-eskubi egozan lapur biak gizadi osoa adierazoten dauskue. Biziteko<sup>530</sup> lan egin bear eta laneko nekea gurutzea da; astuna ez, noski, baina gurutzea. Ezbear, ondoez eta geixoak; zoritxar, jazarkunde<sup>531</sup> edo persekuzinoak<sup>532</sup> be<sup>533</sup> sarri etorten<sup>534</sup> jakuz, eta oneik gurutze astunagoak dira. Gizon guztiok, naitaez, zelako-alako gurutzea geure bizkarrean daroagu; baina guztiok bardin, ez. Batzuk, lapur onaren antzera, egoarriz, pazentziaz daroe; beste batzuk, Jaunak errua baleu bezela, Jaunaren aurka jagi ta lapur gaiztoa lez, biraoka ibiltzen dira. Guztiok eta bakoitzak<sup>535</sup> geure gurutzea eroan bear dogun ezkerro, egoarriz, pazentziaz eroan daigun, eta Jaunak lapur damutuari esan eutsana guri be<sup>536</sup> laster esango dausku. Laster, bai! Gizonaren bizia oso laburra da. Egun bat berealaxe da; egunak lez bere goiza, bere eguerdia, bere ilunkerea ditu ta eriotzako gabaz amaitzen da. Dimas bezela geure gaiztakeriez damutu gaizan, geure sinestea aitortu eta geure gurutzea egoarriz eroan daigun, eta egun bat bezela dan geu-

<sup>526</sup> *Txakil*: ahul, makal.

<sup>527</sup> *Karrakaldo*: kakalardo.

<sup>528</sup> Jatorrizkoan: *gabe*.

<sup>529</sup> Idem: *ere*.

<sup>530</sup> Idem: *bizitzeko*.

<sup>531</sup> *Jazarkunde*: jazarpen, esetsi.

<sup>532</sup> Jatorrizkoan: *persekuzioak*.

<sup>533</sup> Idem: *ere*.

<sup>534</sup> Idem: *etortzen*.

<sup>535</sup> Idem: *bakoitzak*.

<sup>536</sup> Idem: *ere*.

re bizitzearen azkenean, eriotza-aldian, entzun al izango dogu: «*Hodie eris mecum in paradiso*».

## III

«*Dixit Matri suae: Mulier, ecce Filius tuus.*

*Deinde dicit discipulo: Ecce Mater tua.*»

«Bere Amari esan eutsan; Andrea, orra or zure Semea.

Gero ikasle maiteari: Orra or zure Ama.»

(Joan 19, 26)

Jaunak bere lenengo itzetan guretzat errukia eskatu eban; gero lapur onari parkatuaz, pekatari damutu guztiai parkazino<sup>537</sup> bardina eskini<sup>538</sup> eutsen. Baina ori eginaz Jaunaren gugazko maitasuna ez da ase, bere maitasun samurraren ezaugarri andi ta ederragoa emon nai dausku. Gurutzearen oinean emakume bat dago; emakume ori be Ama laztan-lasztana da. Jaunak begirakune samurrez begiraturik, dinotso: «*Mulier, ecce filius tuus*. Andrea, or daukazu zeure Semea»; ta gero ikasle maiteari: «*Ecce Mater tua*. Orra or zure Ama».

Aita samurra dogun Jaunak ez ginduzan umezurtz itxi<sup>539</sup>; seme errukariak ginala-ta, bere Ama maite-lasztana, amarik errukior eta samurrena geure Amatzat emon euskun. S(an) Joan, ikasle maitea, kistau guztioen izenean, guztioen orde, egoan gurutzearen oinean, eta Jaunak bere Amari esan eutsanean «Andrea, orra or zure Semea», ori esan eutsanean, kistau guztiok A(ndra) Mariaren seme ta Maria guztioen Ama egin eban. Au zelan<sup>540</sup> dan jakiteko, arretaz entzun egidazue.

Kistau zintzo bakotzak<sup>541</sup> bizitza bi ditu, izatezkoa ta izatez goitiko. Lenbizikoa, sortzez, jaiotzaz datorkio; bigarrenaren sustrai sinesmena da, ta Jaunaren eskar edo graziak emoten dautso. Sinestedun gizona ta sinestebakoa, mentau, eztitu, txertaturiko zugatza ta eztitzagea<sup>542</sup>, txerto bakoa<sup>543</sup> berealaxe dira. Zugatzak txertatu edo eztitu baino len, igale, arnari edo frutu mingoitzak emoten ditu; eztitu, txertatu ezker, oster,

<sup>537</sup> Idem: *barkazio*.

<sup>538</sup> Idem: *eskaini*.

<sup>539</sup> Idem: *utzi*.

<sup>540</sup> Idem: *nola*.

<sup>541</sup> Idem: *bakotzak*.

<sup>542</sup> *Eztitzaga*: eztitu bakoa.

<sup>543</sup> Jatorrizkoan: *gabea*.

bere ale ta frutuak be<sup>544</sup> ezti-gozaok izan oi dira. Zugatzondoa igartu barik<sup>545</sup> bere txertoak igartuko balira, onein bizia galduko leuke, baina zugatzari bere lenengo bizia geldituko litzakeo. Onelan ba, txertatua izan dan zugatzak, jaiotzaz eukan bizia galdu barik, txertoen bizitza barria artzen dau; aurreragoko bere frutu mingoitzen ordez, txertoari dagokiozan igale gozo, ezti ta ederrak emoten ditu ta ori egiteko barriz jaiio dala dirudi. Gizona be bardin; Jaunak bere eskar edo graziz txertatzen dauanean, izatez goitiko bizitza barria artzen dau eta bere egintzak be<sup>546</sup> izatez goitikoak, Jaunarentzat ezti-gozaok zeruko zoriona irabazteko bear bezelakoak izaten dira. Gizonaren jaiotza barri au Jaunak berak adierazo<sup>547</sup> euskun, Nikodemusi esan eutsonean: «*Nisi quis renatus fuerit ex aqua et Spiritu Sancto, non potest introire in regnum Dei.*» Gizona urez eta Jainkoaren doez barriz<sup>548</sup> jaiio ez badadi, zeruko erreinuan ezin sartu daiteke».

Andra<sup>549</sup> Maria bizitza barri onetara jaiio garean guztioen Ama da. Begira zegaitik. Edozein amak bere aurrai izatezko bizia iru gauzez emoten dautse: bere maitasun, bere odol, bere neke-minen bidez. Amak bere aurra maitasunez sortu, bere odolez elikatu, ta bere oinaze, bere minen bidez munduko argira ekarten<sup>550</sup> dau. Lentxoago aipatu dodan jaiotza barriaren bidez, kistauoi dagokigun izatez goitiko bizia, kistau-izatea, Andra<sup>551</sup> Mariak iru gauza orreikaz<sup>552</sup> emon dausku.

Gure zoriona biotz-biotzez nai eban eta ain zintzoro nai ebalako, erantzun eutsan Aingeruari: «*Fiat mihi secundum verbum tuum.*» Esan dozun lez egin bekik». Gure osasuna biotz-biotzez nai eban eta origaitik, gurutzearen oinean be<sup>553</sup> Ama samurrak bere «*Fiat*» barriro esanaz, bere erraietako Seme laztanaren bizia Aita Jaungoikoari gure alde, gure onerako, maitasun andiz eskini<sup>554</sup> eutsan. S(an) Pedro Apost(oluak) dinoskunez, Jesukistok bere odolez birrerosi ginduzan; baina Jesukistok gu erosi ta guri bizitza barri ori emoteko isuri eban odola, bere Amaren

<sup>544</sup> Idem: *ere.*

<sup>545</sup> Idem: *gabe.*

<sup>546</sup> Idem: *ere.*

<sup>547</sup> Idem: *adierazi.*

<sup>548</sup> Idem: *berriz.*

<sup>549</sup> Idem: *Andre.*

<sup>550</sup> Idem: *etortzen.*

<sup>551</sup> Idem: *Andre.*

<sup>552</sup> Idem: *orreikin.*

<sup>553</sup> Idem: *ere.*

<sup>554</sup> Idem: *eskaini.*

erraietan artu ebalu ondo dakigu, eta Andra Mariak, gurutzearen oinean, gure Ama egin zanean, oinaze ta min izugarriak artu ta eroan, egari ta jasan zituala, nok ez daki? Onelan ba, kistau-izatea, izate oni dagokion bizitza barria, A(ndra) Mariak bere maitasunez, bere odolez, bere neke-minez emon dauskula agiri da; baina iru gauza orreikaz<sup>555</sup> izatezko bizia emon dauskun emakumea, egiz eta benetan geure Ama bada, iru gauza orreirin bidez izatez goitiko bizia emon dauskulako, A(ndra) Maria be<sup>556</sup> egiz eta benetan geure Ama da. Geure biotzak poztu ta atsegin-eztiz betetzeko gauza ederragorik, gauza samurragorik ezin gomutau geinke.

Jaungoikoaren Ama, geure Ama, kistauoen Ama da. Biotz maitalea dauko, errai bigun-samurra ditu; asko maite gaitu, bere eskua luzatu ta guri laguntzeko gertu ta prest dago. Ama ona, Ama samurra!, zuk irabazitako bizia, arimen izatez goitiko bizia, geure erruz bein baino sarriago galdu dogu; eskar gaiztoko izan gara, zure semeen izenik ez dogu merezi. Baina on eta biguna, laztantsu ta errukiorra zara-ta, parkatu<sup>557</sup> eigu-zu, Ama on eta samurra zareala erakutsi egizu. «*Monstra te esse Matrem.*» Zeure Seme ta gure Jaunak, gurutzean zintzilik egoala, bere eriotzako ordu larrian gure Ama egin eta izentau zinduzala oroitu, gomutau egizu eta, biotz-bigun eta -samurra, Ama ezti-goza zareanorrek, gure eskar gaiztoa azturik, zeure magalpean artu gaizuz. «*Monstra te esse Matrem.*» Barriz be<sup>558</sup>, Ama zaitugula erakutsi egizu.»

## IV

«*Deus meus, Deus meus, ut quid dereliquisti me?*  
«Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa, zegaitik itxi<sup>559</sup> nauzu?»  
(Math. 27, 46)

N(eure) entz(u)le mait(eok), gure Jauna gurutzean zintzilik egoala<sup>560</sup>, eguzkia ilundu ta lurra be<sup>561</sup>, gaba izan bailitzan lez, laino baltzez estaldu ta jantzi zan. Badakizue, ilargia, eguzki ta hurraren bitarte dabilenean izan ezik, lurrean bizi gareanontzat eguzkiaren eklipse edo ilu-

<sup>555</sup> Idem: *orreikin*.

<sup>556</sup> Idem: *ere*.

<sup>557</sup> Idem: *barkatu*.

<sup>558</sup> Idem: *berriz ere*.

<sup>559</sup> Idem: *utzi*.

<sup>560</sup> Idem: *zegoala*.

<sup>561</sup> Idem: *ere*.

naldirik ezin izan daiteke; augaitik, ilargiaren ibilte<sup>562</sup> edo biraketak berenez sortzen dauan eguzkiaren ilunaldi ori, ilargi barriz<sup>563</sup> izan oi da beti ta ilargi betez ezelan be<sup>564</sup> ezin izan daiteke. Judatarrak euren Igaratza, euren Pazkoa<sup>565</sup> epail edo martxoko ilargi betean egin eta ospatzen eben urte guztietan; Jauna gurutzera eroan eben urtean be<sup>566</sup> bai. Baina ain zuzen be<sup>567</sup> euren Pazko-egunetan<sup>568</sup> josi eben Jauna gurutzean; augaitik, orduko eguzkiaren ilunaldia ilargiak bere biraketaz egingakoa ezelan be ezin izan zeiteken, Jaungoikoak mirariz egina baino, eta Jaunak alatzaz, mirariz egina zalako, ilunaldi arek iraun be<sup>569</sup> askozaz luzarago iraun eban, eguerdiko amabietatik arratsaldeko irurak arte.

Ilunaldi aretan Jaunak barriro itz egiten dau. Lenengo iru itzetan gizonai erruki samur-samurra erakutsi dautse, gizonen osasunaz oroitu da; orain bere buruaz oroiturik, bere biotzeko naigabe saminak crasota<sup>570</sup>, eiagoraz, abots andiz bere Aitari dei egiten dautso, diadarrez bezela, dino: «*Deus meus, Deus meus, ut quid dereliquisti me?* Ene Jauna, ene Jaungoikoa, zegaitik itxi<sup>571</sup> nauzu?». Zer? Jaungoikotasunak Jesusgandik alde egin ete dau? Ez! Jaungoikotasunak bein artu eban Jesusen gizatasuna ezin laga, ezin itxi<sup>572</sup> daike; ez bere gorputzetik, ez bere arimatik alderik ezin egin lei. Baina gizatasunari emoten dautsazan kemen, adore ta indarra bai, oneik ezkutau daitekez. Getsemaniko baratzan bezela, gurutzean be<sup>573</sup> Jaungoiko-izateak emoten eutsazan adore ta indarra Jesusi estaldu<sup>574</sup> egin jakoz. Zetarako? Gorputzeko neke-min andiak, arimako naigabe izugarriak gizatasunak bere indar utsez artu ta eroan, egari edo sufridu daizan.

Getsemaniko baratzan pasioko nekeak, eriotzako larritasunak bere begien aurrean jarri jakozan Jaunari, bere biotza ezin geiagoan estutu ta

562 Idem: *ibiltze*.

563 Idem: *berriz*.

564 Idem: *inolaz ere*.

565 Idem: *bazkoa*.

566 Idem: *ere*.

567 Idem.

568 Idem: *Bazko-egunetan*.

569 Idem: *ere*.

570 *Eraso*: esanarazo.

571 Jatorrizkoan: *utzi*.

572 Idem.

573 Idem: *be*.

574 Idem: *estali*.

larritu zan eta larritasunaren indarrez, odol-izerdia mara-mara isuri eban; baina gero, kemen eta adorez beterik, esan eban barriro Jaunak: «Ene Aita, al bada, eriotzako larritasunok nigandik aldendu, urundu egizuz. Baina nire naia ez bedi egin, zeurea<sup>575</sup> baino. *Non mea voluntas sed tua fiat*». Gurutzean dagoala be<sup>576</sup>, gizatasunak, bere adore ta indar utsez, Jaungoikoaren laguntza berezi barik<sup>577</sup>, bere pasioko neke-min, oinaze ta atsekabe mingoitza artu ta dastatu, egari ta eroan dagizan, Jesusi jaungoikotasuna barriro estaldu jako eta bere burua laguntza ori barik<sup>578</sup> ikusirik, gizona zanez, zeruko Aitari dei egiten dautso, esanaz: «Ene Jauna, ene Jaungoikoa, zegaitik itxi<sup>579</sup> nauzu? *Deus meus, Deus meus, ut quid dereliquisti me?*».

Zegaitik? Aita Jaungoikoak gurutzean egoan<sup>580</sup> bere Semea laguntza barik<sup>581</sup> zegaitik itxi<sup>582</sup> eban buruauste andi barik ezagutu geinke. Begira, entz(u)le mait(e)ok. Gure Jauna errugabea zala badakigu; baina gure zorrai erantzuteko, gaizto ta errudun ginan pekatarioen<sup>583</sup> orde z jarri zan eta, augaitik, Isaias igarleak dinoan bezela, Aita Jaungoikoak gizon guztioen gaiztakeri ta pekatuak<sup>584</sup> bere bizkarrean ezarri eutsazan: «*Posuit Dominus in eo iniquitatem omnium nostrum*» (Isaias 53, 6). Jauna errugabea zala badakigu; baina, S(an) Paulo Apost(oluak) dinoanez, pekatu rik<sup>585</sup> ezagutu be<sup>586</sup> ez eban Jauna, gu salbetarren,<sup>587</sup> gure errukiz, pekatarien<sup>588</sup> soinekoz jantzi ta gaizkin andia bailitzan bezela agertu zan Aitaren begietan: «*Eum, qui non noverat peccatum, pro nobis peccatum fecit*». Bere Semea onelan<sup>589</sup> gure pekatuz<sup>590</sup> zamauta, pekatuz<sup>591</sup> jantzita ikusi ebanean, Aita Goikoak pekatuen<sup>592</sup> nardaz, iguinez,

575 Idem: *zeorrena*.

576 Idem: *be*.

577 Idem: *gabe*.

578 Idem.

579 Idem: *utzi*.

580 Idem: *zegoan*.

581 Idem: *gabe*.

582 Idem: *utzi*.

583 Idem: *bekatarioen*.

584 Idem: *bekatuak*.

585 Idem: *bekaturik*.

586 Idem: *ere*.

587 Idem: *salbatzarren*.

588 Idem: *bekatarien*.

589 Idem: *onela*.

590 Idem: *bekatuz*.

591 Idem.

592 Idem: *bekatuen*.



gorrotoz bere begiak Jesusgandik aldendu zituan eta Jesus onak, beste bere oinaze ta min andiez gainera, bere Aitaren iste<sup>593</sup> edo lagatze onek biotzean emon eutsan naigabe izugarria be<sup>594</sup> artu, egari ta eroan bear izan eban; eta naigabe au andia, mingoitzenetakoa zalako esan eutsan bere Aitari: «*Ut quid dereliquisti me? Zegaitik itxi*<sup>595</sup> nauzu?».

Jesukisto gure Jauna inoren pekatuz<sup>596</sup> jantzi ta pekatari<sup>597</sup> itxuran agertu zalako beste barik<sup>598</sup>, Aita Jaungoikoak ain gogor artu baeban, esaidazue, entz(u)le mait(eok), pekatariak<sup>599</sup> bere eskuetara doazanean, zer egingo ete dau? Zelan artuko ete ditu? Zelako aserrea erakutsi, zelako kontu zeatza eskatu, zelako epai zorrotza emongo ete dautse? «*Quia si in viridi ligno haec faciunt, in arido quid fiet?* Egur eze ta bizian onako gauzak egin badira, egur igarrean zer izango ete da?» Bizitzako arnari ta frutu ederrak emon zituan Jesukisto gure Jaunagan, pekatarien<sup>600</sup> soinekoz jantzi zalako beste barik<sup>601</sup>, Jaungoikoaren zuzentasunak onelako zeatze ta triskantza izugarria egin baeban, gaiztakeria baino beste fruturik emon ez daben pekatarietan, zelako triskantza gogorra egingo ete dau?

Zeruko Aitak onelan<sup>602</sup> isterik<sup>603</sup> Jesukistok ez eban merezi; baina guk pekatariok<sup>604</sup>, bai. Pekatu<sup>605</sup> egin dogun bakotxean<sup>606</sup>, orixe irabazi ta merezi izan dogu, ta azkeneraino, eriotzaraino, geure gaiztakerietan iraun badaigu, damutu ez bagaitez, Jaungoikoak bizitzako liburutik kendu ta geure zoritxarrean betiko itxiko<sup>607</sup> gaitu. Jesukistoren itz oneik orixe adierazoten<sup>608</sup> dauskue. Pekatariak<sup>609</sup>, damutu ezik, Jaungoiko barik<sup>610</sup>, zorion barik<sup>611</sup>, barrendiko laba<sup>612</sup> gorian, beti zorigaiztoko

593 Idem: *uzte*.

594 Idem: *ere*.

595 Idem: *utzi*.

596 Idem: *bekatuz*.

597 Idem: *bekatari*.

598 Idem: *gabe*.

599 Idem: *bekatariak*.

600 Idem: *bekatarien*.

601 Idem: *gabe*.

602 Idem: *onela*.

603 Idem: *uzterik*.

604 Idem: *bekatariok*.

605 Idem: *bekatu*.

606 Idem: *bakoitzean*.

607 Idem: *utziko*.

608 Idem: *adierazten*.

609 Idem: *bekatariak*.

610 Idem: *gabe*.

611 Idem.

612 Idem: *labe*.

izango dirala; beti oinazez, beti atsekabez, beti naigabe izugarritz, erio-tzea baino gogorrago dan bizitza negargarria egin bearko dabela. Geure eriotz aldian Jaunak itxi<sup>613</sup> ez gaizan, itxi<sup>614</sup> daigun geuk pekatua<sup>615</sup>! Laga pekatuako<sup>616</sup> bidea ta biurtu, itzuli gaizan Jaunagana.

Geure Jesus maite-laztana, itz oncik esan zenduzanean zure biotzak artu eban naigabe andiagaitik eskatzen dautsut: bein be<sup>617</sup> ez gaizuz itxi<sup>618</sup>, bizitzako arriskueta eta eriotzako ordu larrian zaindu gaizuz! Pekatari<sup>619</sup> izan gara; geure obenetan, geure pekatuetan<sup>620</sup> istea<sup>621</sup> merezi izan dogu. Baina damu dogu, Jauna; arren parkatu<sup>622</sup> eiguzu ta betiko bizitzara eroan gagizuz.

## V

«*Sciens Jesus quia omnia consummata essent,  
ut impleretur Scriptura, dixit: 'Sittio'.*»

«Jakirik Jesusek guztia zeatz egina egoala<sup>623</sup>,  
Idaztia betetu zedin, esan eban: 'Egarri naz'.»

(Joan 19, 28)

Zauri andi-sakonak artuta odol asko isuri dauan edonok, egarri bizia, eutsi ta eroan ezindako egarria izaten dau. Jaunak bere gorputz guztia burutik beatzera zauri gordin eginik eukan: «*A planta pedis ad verticem capitis non est in eo sanitas*» (Isaias 1, 6); odol-ibaiak isuri zituan; aurreko gauetik geiago lorik egin barik<sup>624</sup>, ezer artu barik<sup>625</sup> egoan Jauna. Ainbeste neke ta zauri artu, ainbeste izerdi bota, ainbeste odol isuri eban Jauna egarri izatea, ez da mirari, ta bere egarri andi ori agertzeko ta idatzita egoana<sup>626</sup> bete zedin, esan eban: «*Sittio. Egarri naz*».

<sup>613</sup> Idem: *utzi*.

<sup>614</sup> Idem.

<sup>615</sup> Idem: *bekatua*.

<sup>616</sup> Idem: *bekaturako*.

<sup>617</sup> Idem: *ere*.

<sup>618</sup> Idem: *utzi*.

<sup>619</sup> Idem: *bekatari*.

<sup>620</sup> Idem: *bekatuetan*.

<sup>621</sup> Idem: *uztea*.

<sup>622</sup> Idem: *barkatu*.

<sup>623</sup> Idem: *zegoala*.

<sup>624</sup> Idem: *gabe*.

<sup>625</sup> Idem.

<sup>626</sup> Idem: *zegoala*.

Bere mingaina aosapaian itsasi eutsan egarri au, «*Lingua mea adhesit faucibus meis*», Jaunaren egarri au, benetan aundi ta izugarria izan zala errez aitu ta ezagutu geinke. Eta zinez, Jaunak bere pasioan oinaze ta neke-min andiak eroan eta sufridu zituan. Gorputza ziorkadaz birrin-du, burua arantzaz zulatu, arpegia txistuz ezaindu eutsen; gurutze astuna bere bizkarrera jaurti, esku-oinak untzez josi ta eskegi ebenean, ezurak be<sup>627</sup> euren lekutik atera eutsezan. Baina oinaze ta neke guztiok, bildots otzanaren antzera, ixil-ixilik, bere ezpanak idegi barik<sup>628</sup>, zotin eta aiene barik<sup>629</sup> artu, igaro ta eroan zituan; bere egarri aundia ixilik eroan ezinda, «*Sitio*. Egarri naz» esan eban.

Gizasemeok iru egarri gaizto doguz<sup>630</sup>: «Ogasun-egarria, andikeri-egarria ta atsegin-egarria. *Concupiscentia carnis, concupiscentia oculorum et superbia vitae*» (I Joan 2, 16). Sarri askotan bide okerrez iru egarriok ase nairik, aberaski ta ogasun bila, andikeri ta entzute bila, lasikeri ta atsegin zantar bila, zoratuta bezela ibiltzen gara, eta bide zuzenez ala okerrez gabiltzan begiratu barik, orri jaramon barik, geure egarri gaizto orreik ase nai doguzalako, ainbeste gaiztakeri, oben, pekatu egiten doguz<sup>631</sup>. Gizasemeok geure egarri gaizto oneik ase naiaz egiten doguzan pekatuak<sup>632</sup>, gure Jaunak bere egarri aundi, bizi ta ezin esan al bestekoaz ordaindu ta kitatu bear izan zituan gurutzean.

An urbil egozanak «Egarri naz» entzun eutsenean, beazun eta ozpina nastuta edatera emon eutsen; baina Jaunak, dastatu ondoren, ez eban nai izan.

Samariako emakumeari bezela, guri be<sup>633</sup> sarri esaten dausku Jaunak: «*Da mihi bibere*. Egarri naz<sup>634</sup> eta edatera emon egidazu»; eta guk eskar gaiztoko andiok garbai ta damutasunaren ur bizia emon bearrean, borro gaiztoen antzera, geure gaiztakerien beazuna, geure pekatuen ozpin mingoitza emon dautsagu sarri. Egiz, biotz-gogor eta gaiztoak izan gara geure Jaunagaz! Ez ete gara damutuko? Jaunaren egarria ase ta gure animak garbitzen dituan damutasun-ur bizi, garden eta garbia, noz edo bein ez ete dautsagu emongo? Jaunak ur ori nai dau. Bere egarri bikotxa<sup>635</sup> zan: gorputzekoa ta arimakoa, uraren egarria ta gure zorionaren egarria.

<sup>627</sup> Idem: *ere*.

<sup>628</sup> Idem: *gabe*.

<sup>629</sup> Idem.

<sup>630</sup> Idem: *ditugu*.

<sup>631</sup> Idem.

<sup>632</sup> Idem: *bekatuak*.

<sup>633</sup> Idem: *ere*.

<sup>634</sup> Idem: *naiz*.

<sup>635</sup> Idem: *bikoitza*.

Gizaseme guztien betiko osasuna egitearren, Jauna gurutzean untzez josita dago; guztien zoriona egitearren, ainbeste oinaze, neke ta atseka-be ta samintasan daroaz. Bere jakituri andiaz, gizaldi guztiak, izandakoak eta izatekoak, bere begien aurrean daukaz eta bere odolez birrerosi dauan gizatalde aundi orretan, zer ikusten dau? Eskar oneko gitxi, eskar gaiztoko asko. Damutu, ondu ta beragana itzuli nai daben gitxi; bide gaiztoz ibili ta eriotzaraino txarrean, pekatuetan<sup>636</sup> irauteko asmoa daben asko. Ikuskizun negargarria benetan! Animen maitasunez, arimai zeruko ateak idegi ta inpernukoak zarratzearren dago gurutzean Jauna, ta ori ta guzti, gurutzearen oinean inpernuko lezea aoa zabalik dakus. Animak zeruratzearren eginalak egiten ditu, bere gorputzean zati osorik ez dauko, bere zanetako odola isuri dau, bizia be<sup>637</sup> laster emongo dau; baina gizon itsuak, euren gaiztakerietan damutu ta Jaunagana itzuli baino, euren buruak galdu naiago dabez eta, Jesukistoren pasio ta eriotzea gorabera, aoa zabalik dagoan barrendiko bere sakonak ainbeste zori-gaiztoko iruntsiko ditu.

Ikuskizun negargarri onegaz<sup>638</sup> Jaunari bere biotza ezin geiagoan estutu ta larritu jakon. Gizaseme guztiak salbau nai zituan, baina bere neke ta aleginak gorabera, asko galdu ta gitxi salbauko zirala ikusirik, biotz larriz esan eutsan bere Aitari: «Ene Aita, ene Jaungoikoa, onegaz<sup>639</sup> bakarrik zegaitik itxi<sup>640</sup> nauzu? *Ut quid dereliquisti me?* Animak salbeta-  
rren<sup>641</sup>, ainbeste oinaze gogor, ainbeste neke-min astun eta izugarri igaroten dodaz<sup>642</sup> eta, neure Jaungoiko ta Aita maiteorrek, onegaz<sup>643</sup> bakarrik isten<sup>644</sup> nauzu? Gitxi dira. Geiago, Jauna, geiago; guztiak, ene Jaungoikoa, guztiak! Animen egarri naz<sup>645</sup>. *Sitio*. Guztiak salbau nai neukez, guztiak neure odolez garbitu ta zerura eroan nai neukez. *Sitio!* Egarrri naz<sup>646</sup>!».

Gure animen egarri da Jauna; bere egarri aundi au asetzeko, damutasunezko ur garbi ta biziaren ordez, barriro be<sup>647</sup> gaiztakerien beazun

<sup>636</sup> Idem: *bekatueta*.

<sup>637</sup> Idem: *ere*.

<sup>638</sup> Idem: *onekin*.

<sup>639</sup> Idem.

<sup>640</sup> Idem: *utzi*.

<sup>641</sup> Idem: *salbatzearren*.

<sup>642</sup> Idem: *ditut*.

<sup>643</sup> Idem: *onekin*.

<sup>644</sup> Idem: *uzten*.

<sup>645</sup> Idem: *naiz*.

<sup>646</sup> Idem.

<sup>647</sup> Idem: *ere*.

mingoitza, pekatuen<sup>648</sup> ozpin garratza emongo ete dautsagu? Ain biotz-gogorrek, ain eskar gaiztokoak izango ete gara? Ez, Jauna, ez! Zu gure arimen egarri zarean bezela, gure animak ere zure egarri dira; zugana itzuli ta zureak izan nai dabe. Artu egizuz, ba, Jauna ta bizitzearen iturri zareanorrek, zeure odolez garbitu, damutasun-urez ase ta zeure maitasunean sendotu ta indartu egizuz.

## VI

«*Consummatum est.*»

«Amaitu da.»

(Joan 21, 30)

Gure osasun eta zoriona egiteko zeregin aundia Jaunak bere gain artu eban. Onetarako Jaungoikoaren zuzentasunari zor geuntsan guzti-guztia emon, zuzentasuna eta errukia alkartu<sup>649</sup>, ta Jaungoiko ta gizonen arteko bakeak egin bear zirala edonok daki. Egikizun aundia, benetan, gure Jaunak bere gain artu eban au; zeru-lurrak egitea baino be<sup>650</sup> askozaz gatx<sup>651</sup> eta zailagoa! Zeru-lurrak egiteko, Jaungoikoaren jakituri, zuzentasun eta errukia alkartuta, batera ebiltzan; baina gizona bere pekatu<sup>652</sup> ta zorretatik askatu, zeruko atea idegi ta barriz<sup>653</sup> arako bidean ipinteko aldi ta eguna eldu ziranean, Jaungoikoaren zuzentasun eta errukia aurrez aur, arpegiz arpegi bezela aurkitu ziran. Errukiak gizonari parkatzea nai eban; baina zuzentasunak, berea eskatuaz, erantzun eutsan: «Gizonaren osasuna egin bedi, egin bearbada; parkatu<sup>654</sup> bekio. Baina zor daustana be<sup>655</sup> emon bekit; gizonak pekatu<sup>656</sup> eginaz ostu ta kendu eustazan aintza ta gloria bear dodaz<sup>657</sup>, eta orren ordaina emon bekit.»

Jaungoikoari geuntsan zorra, gizon guztiok bat eginda be<sup>658</sup>, geure indar utsez ezin ordaindu, ezin pagau<sup>659</sup> gengikeon; baina guk ezin gen-

<sup>648</sup> Idem: *bekatuen.*

<sup>649</sup> Idem: *elkartu.*

<sup>650</sup> Idem: *ere.*

<sup>651</sup> Idem: *gaitz.*

<sup>652</sup> Idem: *bekatu.*

<sup>653</sup> Idem: *berriz.*

<sup>654</sup> Idem: *barkatu.*

<sup>655</sup> Idem: *ere.*

<sup>656</sup> Idem: *bekatu.*

<sup>657</sup> Idem: *ditut.*

<sup>658</sup> Idem: *ere.*

<sup>659</sup> Idem: *pagatu.*

gikean ori egiteko bidea, Jaungoikoaren jakituri eta errukiak bilatu ta aurkitu eben. Jaungoiko Semea geu bezelako gizon, geure anai ta geure ordeko egiten da; pekatu<sup>660</sup> egin eban izateak berak pekatuaren zorra ordaindu dagian, geure izatez jantzirik gure zor guztiak bere gain artzen ditu. Jaungoiko ta gizon batera dalako, bere egite bakoitzak<sup>661</sup> azkengabeko aldin<sup>662</sup> edo balio dauko, eta bere egite jaungoikozkoak azkengabeko balioa daukelako, gure zor guztiak zeatz, osoro ordaintzen dautsaz Aitari ta Jaungoiko ta gizonen arteko bakeak egiten ditu. Onelan<sup>663</sup> Jaungoikoaren zuzentasun eta errukia gurutzean alkartu ta laztantzen dira eta alkartze<sup>664</sup> zoriontsu onek gizonari zeruko ateak barriz<sup>665</sup> idegiten dautsoz. Gure Jaunak lurrera ekarri eban egikizun aundi au amaitu, hukatu ebanean, arnasa artuaz guztiz egokiro esan eban: «*Consummatum est*. Amaitu da. Gizonen osasuna egiteko artu neban zeregina, neure Aitak emon eustan egikizuna, guztiz, osoro, zeatz, uts barik<sup>666</sup> amaitu dot. *Opus consummavi quod dedisti mihi ut faciam*».

Guk be<sup>667</sup>, aditz(aile) mait(eok), guztiok eta bakoitzak<sup>668</sup> geure egikizuna dogu: geure animak salbetea<sup>669</sup>. Lurrean daukagun zereginik lenena, aundiena, bearrena, orixe da. Geure egikizun aundi au bear dan lez egiteko ardurarik, ajolarik artzen ete dogu? Guztiok eta bakoitzak eriotzea urbil daukagu; bere aurrean, gure Jaunak bezela, esan al izango ete dogu: «*Opus consummavi quod dedisti mihi ut faciam*? Esan al izango ete dogu: «Neure arimearen<sup>670</sup> osasuna egiteko gurariak erabili nau; orren bila ibili naz<sup>671</sup>»? «Arazo ta zeregin aundi oni gogor ekin dau-tsat»? Jaunari esan al izango ete dauzsagu: «Ene Jaun eta Jaungoikoa!, lurreko basa artean itsasi jatazan orban eta kutsuak zure odoletan garbitu dodaz<sup>672</sup>, beste ezer baino maiteago zaitut. Emon zeunstan egikizuna bete dot, «*Opus consummavi*», eta errukior zareanorrek, betiko zoriona be<sup>673</sup> emongo daustazula itxaron daiket»? Urbil daukagun eriotzearen

<sup>660</sup> Idem: *bekatu*.

<sup>661</sup> Idem: *bakoitzak*.

<sup>662</sup> *Aldin*: balio.

<sup>663</sup> Jatorrizkoan: *onela*.

<sup>664</sup> Idem: *elkartze*.

<sup>665</sup> Idem: *berriz*.

<sup>666</sup> Idem: *gabe*.

<sup>667</sup> Idem: *ere*.

<sup>668</sup> Idem: *bakoitzak*.

<sup>669</sup> Idem: *salbatzea*.

<sup>670</sup> Idem: *arimaren*.

<sup>671</sup> Idem: *naiz*.

<sup>672</sup> Idem: *ditut*.

<sup>673</sup> Idem: *ere*.

aurrean, gure Jaunak bezela ori egiz esan al izango ete dogu? Ala kistau zintzoarentzat pozkarri izan daitekezan itz oneik, atsekabe andiagoa, naigabe andiagoa emoteko bakarrik izango ete jakuz?

Gure bizitza be<sup>674</sup> laster bukatuko da eta azken itz oneik, naitaez, esan edo entzun bearko doguz<sup>675</sup>: «*Consummatum est*. Neure emengo bizia amaitu da. Neureak izan diran ogasunak beste batek daroaz. Niretzat lurrean ez dago geiago ez ogasunik, ez atseginik, ez ames gozorik, ez olgantzarik, ez jolasik. Nire amesak aizeak eroan ditu ta neure gauza guztietatik orain neurerik, ilobia bakarrik gelditzen jat. *Solum mihi superest sepulcrum*. Baneukan, bai, nik be<sup>676</sup> neure egikizuna; neure arimearen<sup>677</sup> zoriona egin bear neban. Baina ez daust ajola izan eta, zorigaiztoko andionek, neure onerako ezer egin barik<sup>678</sup> il bear dot; geien ardura eustana, neure indar eta alegin guztiz egin bear nebana egin barik<sup>679</sup> eriotzeak arrapatu nau, eta bere atzaparretan, bere erpe zorrotzetan ilobira, lurpera naroa. *Consummatum est*. Bukatu da». Baina bukaera itun, larri ta negargarria, onelan<sup>680</sup> geure bizia bukatzea!

Luzaro itxasoz ibili ta gero, kaira, portura, eltzen diran itxasgizonak pozez beterik abestu edo kantetan<sup>681</sup> daben bezela, Jaunak be<sup>682</sup> orrelaxe, bere pasioko neke ta oinazeen azkenera, bakezko portura eldu zanean, garaitzako itz oneik pozez beterik esan zituan: «*Consummatum est*. Neure Aita zerukoari aintza ta gloria, gizonai osasun eta zoriona irabazi dautset; nire neke ta oinazeak be<sup>683</sup> bukatu dira. Neure egikizuna bete dot eta orain neure garaitza onen sari ta irabaziak eskuratzeko aldi ta ordua da».

Gure arazo ta zeregin guztien artean, osoro bearrezkoa bat bakarra dogu: geure arimearen<sup>684</sup> salbazinoa<sup>685</sup>, betiko zoriona. «*Unum est necessarium*.» Jaunak emon daukun egikizunik lenena, aundiena, garaiena, bearrena be<sup>686</sup> orixe da. Leial eta zintzoro egin eta bete dai-

<sup>674</sup> Idem.

<sup>675</sup> Idem: *ditugu*.

<sup>676</sup> Idem: *ere*.

<sup>677</sup> Idem: *arimaren*.

<sup>678</sup> Idem: *gabe*.

<sup>679</sup> Idem.

<sup>680</sup> Idem: *onela*.

<sup>681</sup> Idem: *kantatzen*.

<sup>682</sup> Idem: *ere*.

<sup>683</sup> Idem.

<sup>684</sup> Idem: *arimaren*.

<sup>685</sup> Idem: *salbazioa*.

<sup>686</sup> Idem: *ere*.

gun, eta Jaunaren antzera, geure eriotz orduan, garaitzako kantua beze-la, esan al izango dogu: «*Consummatum est*. Jaungoikoa maitatu bear neban..., maitatu dot; pekatua<sup>687</sup> itxi<sup>688</sup> bear neban..., itxi<sup>689</sup> dot; legea bete bear neban..., bete dot; neure animearen<sup>690</sup> osasuna egin bear neban..., egin dot. Nire lurreko zeregina amaitu da. Zeruko zoriona itxaron daiket».

## VII

«*Clamans voce magna Jesus ait:*

‘*Pater, in manus tuas commendo spiritum meum*’.

‘Jesusek eiagoraz itz eginik, esan eban:

‘Ene Aita, neure arimea zure eskuetan ipinten<sup>691</sup> dot’.

(Luc. 23, 46)

Eriotzea, S(an) Paulo Apost(oluak) dinoskunez, pekatuaren<sup>692</sup> ondorena, bere saria da. «*Stipendia peccati mors*.» Gure Jaunak pekatu-rik ez eban egin eta eriotzarik ez eban zor; baina gure ordezkio zan eta gure zorrai erantzuteko ardurea bere gain artu ebalako, guk zor dogun erio-rtzea be<sup>693</sup> bere guraz artu eban, guri betiko bizia emotearren bere naiz, bere borondatez il zan. Au Jaunak berak argiro adierazo euskun, esan ebanean: «*Nemo tollit animam a me, sed ego pono eam a meipso*. Neure bizia inok ez daust kentzen; neuk neronek neure oldez, neure boronda-tez emoten dot».

Jaunak, bere eriotz aurretxoan esandako azken itzak, onexek dira: «*Pater, in manus tuas commendo spiritum meum*. Ene Aita, neure gogo- a, neure animea zure eskuetan ipinten dot». Itz oneik, Ebanjelioak dinoskunez, abots sendoz, diadar andiz, Kalbarioko mendian egozan guztiak entzuteko eran esan zituan Jaunak. «*Clamans voce magna*.» Bai- na Jaungoiko ta gizon batera izan ez balitz, bizia ta eriotzea bere eskuan euki ez balitu, Jaunak bere eriotz aldi- an diadar andirik ezelan be<sup>694</sup> ezin-

<sup>687</sup> Idem: *bekatua*.

<sup>688</sup> Idem: *utzi*.

<sup>689</sup> Idem.

<sup>690</sup> Idem: *arimaren*.

<sup>691</sup> Idem: *ipintzen*.

<sup>692</sup> Idem: *bekatuaren*.

<sup>693</sup> Idem: *ere*.

<sup>694</sup> Idem: *inolaz ere*.



go eban egin. Ainbeste neke ta oinazez guztiz indargetua egoan<sup>695</sup>, ainbeste ziorkadaz bere gorputza birrinduta eukan; egarriaren indarrez bere aoa idor ta legor gelditu jakon, ainbeste zauriz bere gorputzeko zanak ia guztiz odolustuta eukazan. Au ta guzti be<sup>696</sup>, bere azken itz oneik eia-goraz, diadar andiz, an inguruetan egozan guztiak entzuteko eran esan zituan Jaunak. Onelan<sup>697</sup> adierazo eban gurutzean, untzez josita egon arren, bere bizia luzatzeko indarrrik asko eukala ta ilten<sup>698</sup> bazan bere guraz ilten<sup>699</sup> zala; bizia itxi<sup>700</sup> ta eriotzea artzen baeban, gure salbazioa<sup>701</sup> egitearren, guri betiko bizia emotearren, gure onginaiz, gure maitasunez artzen ehal.

Jaunak bere guraz eta gure onerako artu eban eriotzea, bere maitasun aundiaren ezaugarriarik bikain eta ederrenetakoa dogu. «Aiskideen alde –esan eban Jaunak–, aiskideen onerako bere bizia emoten dauanak baino maitasun aundiagorik inok ez dauko. *Majorem hac dilectionem nemo habet, ut animam suam ponat quis pro amicis suis.*» Jaunaren aiskide barruko izan bagina be<sup>702</sup>, bere bizia gure alde emonaz, maitasun aundi, samur, bero, gartsua erakutsiko euskun; baina aiskide baino obeto etsai ta arerio ginala, bere bizia gure alde emon ebalako, Jaunaren maitasun one-gaz<sup>703</sup> bardindu geinken beste maitasunik inongo inon ezin aurkitu geinke. Maitasunari maitasuna zor bajako, maite gaituan edonori maitasunez erantzun bear badautsagu, ainbeste maitatu gaituan Jaunari zor dautsaguna, zelakoa<sup>704</sup> izango ete da? Zegaz ordaindu, zegaz pagau<sup>705</sup> al izango ete dautsagu? Egiz, entz(u)le) mait(eok), garean guztiok geure gauza guztiakaz<sup>706</sup> Jaunari eskini<sup>707</sup> ta osoro beretzat bizi arren be<sup>708</sup>, dautsagun zor aundi onen erdirik ez laurenik ezin ordaindu gengikeo.

Jaunak bere azken itz oneik esan zituanean, ortzean odai baltzak ebiltzan, zeruak ilun egozan. Lurra be<sup>709</sup>, norbaitek bere ardatzean astin-

<sup>695</sup> Idem: *zegoan*.

<sup>696</sup> Idem: *ere*.

<sup>697</sup> Idem: *onela*.

<sup>698</sup> Idem: *iltzen*.

<sup>699</sup> Idem.

<sup>700</sup> Idem: *utzi*.

<sup>701</sup> Idem: *salbazioa*.

<sup>702</sup> Idem: *ere*.

<sup>703</sup> Idem: *onekin*.

<sup>704</sup> Idem: *nolakoa*.

<sup>705</sup> Idem: *pagatu*.

<sup>706</sup> Idem: *guztiakin*.

<sup>707</sup> Idem: *eskatni*.

<sup>708</sup> Idem: *ere*.

<sup>709</sup> Idem.

du baleu bezela, zabuka, ikaraz dardar asi zan. Jerusalengo Eleizan eskegita egoan estalkia erdibitu, ilobiak idegi ta ildako batzuk bizbiztu<sup>710</sup> ziran. Golgota mendian egozanak arrituta gurutzerara begira jarri ziran. Jaunak here bizia gure alde opaldu, eskini<sup>711</sup>, bere burua makurtu ta azken arnasea emon eban. Eriotzarik zor ez eban Jauna, guri betiko bizia emotearren, il zan! Gure animak beragana eroatearren, bere animea zeruko Aitaren eskuetan ipini eban. «*Pater, in manus tuas commendo spiritum meum.*»

Badakizue, gure bizia geure gogoa, geure animea<sup>712</sup> da; animeak<sup>713</sup> itxi<sup>714</sup> ezkeru, gure gorputz au, arri bat bezela, ilotz gelditzen da, beingo baten usteldu ta auts egiten da. Animea<sup>715</sup> Jaungoikoak emon dausku; ondo begiratu, ondo zaindu ta barriro bere jabeari biurtu daiogun, orretarako emon dausku. Jaunaren eskuetatik urten da ta here eskuetara itzuli bear dau. Bizitza onetan irabazi dauana, orduan artuko dau: edo betiko zoriona edo betiko zoritxarra; irabazi dauan bezela. Augaitik, eriotzako ordua gizaseme geienentzat ordu estu ta larria izan oi da. Ordu aretan, naitaez, animak Jaunari itzuli bear dautsaguz; zelan<sup>716</sup> egin bear dogun Jaunak irakatsi dausku. Baina, nok daki? Bearbada, orduan otoitz eta eskari samurrez geure animak Jaungoikoaren eskuetan ipinteko<sup>717</sup> asti ta beta onik ez dogu izango-ta, animen itzultze au orain, Jaunaren aurrean auspaz al bait ondoen egitea asmo on, zuzen eta osasungarria da. Auspaztu gaitazan<sup>718</sup>, ba, bere...

Animak maite dozuzan<sup>719</sup> Jauna!, *Domine, qui amas animas!*, zeuk emondako anima oneik zeure eskuetan ipinten doguz. Eriotz aldian, geure adina ilundu, geure biotza bildurtu ta zuri dei egiteko adorerik ez bagendu, orainganik zeure izen gozoz dei egiten dautsugu: entzun gaginguz! Biotz larriz, gogo ilunez, burutik egiten dauanaren ames gogorrez ikaratuta, zuri erruki ta parkazinoa<sup>720</sup> eskatzeko betarik ez bagendu, orainganik erruki ta barkazio eske gagokizuz: arren, emon eiguzuz!

<sup>710</sup> *Bizbiztu*: berbiztu.

<sup>711</sup> Jatorrizkoan: *eskini*.

<sup>712</sup> Idem: *anima*.

<sup>713</sup> Idem: *animak*.

<sup>714</sup> Idem: *utzi*.

<sup>715</sup> Idem: *anima*.

<sup>716</sup> Idem: *nola*.

<sup>717</sup> Idem: *ipintzeko*.

<sup>718</sup> Idem: *gaitezen*.

<sup>719</sup> Idem: *dituzu*.

<sup>720</sup> Idem: *barkazioa*.

Eriotzako gabak gure begietako argia itzali dagianean, parkatu<sup>721</sup> eigu-  
zu; gure animak gorputzetik urten daitezanean, arren Jauna, erruki ta  
maitasunez zeure eskuetan artu egizuz. *«In manus tuas Domine, com-  
mendo spiritum meum.»*

---

<sup>721</sup> Idem: *barkatu*.

## 2.2. JESUKRISTO

### 2.2.3. *Aste Gurena* (XXXIII, XXXIV, XXXV, XXXVI)

## XXXVI

### ZAZPI ITZAK<sup>722</sup>

*«Hic est Filius meus dilectus; ipsum audite.»*

«Nere Seme maitea, auxe da; bera entzun ezazute.»

(Luc. 9, 35)

N(ere) entz(u)le) mai(teok):

Ostiral Guren egunean Jesukistoren eriotzako urteurrena oroitzen degu. Egun andia, egun oroigarria benetan, bere sinestea daukagun guztioentzat! Gizartearen betiko osasun eta zoriona egitearren, gure Jaun errukior eta maitale andiak gurutze alderatzat arturik, bere buru ta bere bizia, bere bularreko azken arnasa ta bere zainetako odola Aita Goikoari eskaini zizkion. Bere erritarren gorroto itsuak eraman zuan gurutzera. Orain 1.889 urte Golgota mendi gainean, gurutzean iltze gogorrez josita zegoan gure Jaun on eta maitagarria. Geure gogo ta irudimenez aldatu gaitezen ara. Zer dakusgu? Erriaren gorrotoa ageri da, baina Jesusen erriarenaganako maitasun andi, bigun eta samurra ere bai. Jauna gurutzera eraman duan ageriko indarra bere erritarren gorrotoa izan da noski; baina gorroto ori laketu duana ta Jaunari gurutzera joateko adore ta kemena eman diona, bere maitasuna, biotzean irakiten eta gainezka zeukan eta gizonen zoriona egiteko bultz egiten zion maitasun ezti, gozo, laztan, samur, sendo, indartsua. Zeru ta lurra elkartu, Jaungoiko ta gizonak pakez, aiskide-auzo jartzeko egikizun andi ta astuna bere gain artu zuan eta egikizun ori bear bezela egin eta betetzearren, gurutzean iltzez josita, besoak zabalik, zeru-lurren erdian eskegita, iru ordu luzean dago Jauna.

Izate guzia, zentzu eta korde gabeko izatea, gertatzen dan orrekin ikaratua dago, arritua dirudi; eguzkiak bere aurpegia lainoz estali du,

---

<sup>722</sup> Aurreko herbaldiaren gipuzkerazko itzulpena da.

ilundu egin da; lurra, norbaitek bere ardatzean astindu balu bezela, ikaraz dardar dago, zabuka dabilela dirudi. Gizasemeak, oster, urruti, zer jasotzen dan igarri gabe dauden gizasemeak beren eginetan diardute. Jakitunak euren arteko auzi, mataza ta eztabaidak ariltzen; agintariak lege berriak asmatzen; erriak beren uztarri gogor eta gaitz andia eraman ezinik, zoritxarpean negar dagite, intziriz, uluz, adiaz<sup>723</sup> eta zotinez dau-de. Erromarren gudariak<sup>724</sup> erri batetik bestera, egaiz dabilen arranoa baizen arin, bizkor, laister dabiltz, eta erromarren agintzaren aurka asal-datu, jagi ta uztarria ausi nai duten erri gaixoak, iskiluz, armaz, indarrez menperatu, azpiratzen dituzte. Bien bitartean, Tiberio Kaisarra, Erroma-ko buruzagi, agintari nagusia, Napoles ur dagoan eta Kaprea deritxiaion ugartean atseginetan igiri, guztiz ederki ta lasai bizi da.

Jesus gurutzean dago. Gurutzearen ondoan antxinako apezak, legegizonak, erromarren gudariak eta Jerusalemgo erria, aserre ta amurruz gorrotoaren bitsa ezpagnetatik dariola. Jesusen borrero ankerrak an dira; etsai ta arerioak erruz, ugari daude; aiskide zintzorik, gutxi, guztiz gutxi: ikasle maitea, emakume errukiorrak, bere Ama, besterik ez.

Badakizute, gizar-tean ospe ta entzute ona, iraunkorra irabaztea, batez ere gizaldi askoren oniritxi ta maitasuna ardietsi<sup>725</sup> ta eskuratzea, egikizun zail eta gaitzenetarikoa izan da beti. Gizonik andienak, erri osoak beren menpean euki zituzten agintariak, eriotz aldian gudariz, indarrez, aiskidez, aukeraz eta aundikeriz inguratuta egon ziranak ere, gizaldien oniritxi ta maitasun ori ez dute lortu, ezin izan dute irabazi.

Gizon eta errien maitasuna irabazteko, zenbat lan ez da egin bear izaten? Eta ibili ta ibili irabaziko balitz ere, irabazi ta gero, zein errez, zein laister ez da galtzen? Alexander nagusia, Zesar, Napoleon eta beste orrelako gizonetzaz, gaur nor oroitzen da? Nork maite ditu? Gizonik andiena izan arren ere, eriotzako gabak estali badeza, bere oroipena, bizitzan irabazi zuan maitasuna, gorpuaz batera lur-rean eortzi, lur-pean sartu ta antxe usteltzen dala dirudi; ta gizonok, geurez aldakor eta aztukor-orrak geralako, gizar-tean oroipen, gomuta iraunkorra, luzaroko maitasuna irabazi ta maitasun orri irauneraztea, egikizun zaila baino zailago, gaitza baino gaitzago izan oi da.

Bai, gaitz baino gaitzago izan oi da; baina, alaz ere badago gizon bat txiro, biluzik, ezer gabe, aiskide gabe, lotsari gorrian il zana ta gizaldi guzien oroipen, oniritxi ta maitasuna irabazi duan gizona. Nor? Jesukis-

<sup>723</sup> *Adia*: aiene, zizpuru.

<sup>724</sup> [*Gudari*: soldau.]

<sup>725</sup> *Ardietsi*: lortu.

to gure Jauna. Bere eriotz aldian ikasle maitea, emakume errukiorrak, bere Ama laztana, beste aiskiderik ez zegoan gurutzearen ondoan. Enparau guziak Jesusen etsaiak, arerio amurratuak ziran; ixeka, barre ta burla egiten zioten, irriz eta destainaz esaten zien: «Ba! Jaungoikoaren eleiza eratsi ta iru egun barruan berriz jaso ta eregitzeko baintzala esaten uanori, oraintxe gurutzetik jetsi adi ta sinetsiko diagu». Gizonik zakar eta gaizkinena bezela, gurutze lotsagarrian iltzez josita, laido, irain, birao, alke ta lotsariz asebeteta, aiskide gutxi, etsai asko zituala il zan. Besoak zabalik gurutzean zegoala, gizaldiai bere oroipena eskatu zien eta gizaldi guzietako gizonak, lurraren lau egaletan, bere oroipen laztan-lasztana biotz barruan erabili dute; bere lotsari, neke-min eta eriotzaren ordezt, maitasuna eskatu zien eta gizaldi guzietako gizasemeak biotzeta-ko maitasun zintzo-zintzoa eskaini ta eman diote.

Gauza arrigarria, entz(ule) mait(eok), gizon utsak inolaz ere egin ezin lezakena! Jesukisto, gizon bezela Jaungoiko ere izan ez balitz, bere eriotza lotsagarriaz irabazi ta jadetsi zuan garaitza andi ori, beste inongo inok irabazi ez duan gizaldien oroipen laztan eta maitasun samur ori, ezingo zuan eskuratu ta irabazi.

Jaunak, gurutzean zegoala, zazpi itz esan zituan. Itz oroigarri aiek, etorkizuneko gizaldiai jakinerazteko, bere ikaslak gogoan artu ta ardu-ra, arreta andiz idatzi zituzten. Arrezkero —ordutik ona emeretzki gizaldi igaro dira—, arrezkero, apezak gaurko egunez urteoro azaldu, ta kistauak lur zabal guzian lotsa ta itzal andiz entzun, gogoan artu, beren biotzetan gorde ta samurkiro ausnartu dituzte. Antzinako jakitunen itzez gaur, nor oroitzen da? Sokrates naiz Platon, naiz Aristoteles azken itzak bere gogoan, nork darabilzki? Alexandro naiz Zesarren azken itzak gaur, nork ezagutzen ditu? Inork ez! Aizeak eraman zituan; gizonak aztu dituzte eta jakin ez arren, ajola gutxi. Jesukistoren azken itzez ez da olakorik gertatu. Jaunak gurutzetik itz egin zuan eta gizaldi guziak aditu, entzun diote. Bere itz aiek azken arnasetan zegoala esandako itz samur aiek, gizaldirik gizaldi etorri eta erri guzietara, lurraren azkengo zokoan dauden errietaraino edatu, zabaldu dira: mende, gizaldi, uri, erri ta enda guzietako gizonak entzun eta ikasi dituzte, gogo ta biotz askoren jabe egin dira. Kistauen biotzetan beti bizirik daude, ta gaur ere antzina bezelako indarra daukate. Au ere arrigarri da ta benetan arrigarria dalako, itz oriek gurutzean esan zituana, berberak aitortu zuan bezela, Jaungoiko Semea zala adierazi ta on egiten digu.

Aita Jaungoikoak esan zuan bein: «*Hic est Filius meus dilectus; ipsum audite*. Nere Seme maitea, auxe da; entzun ezazute». Jesus laztanak guzioentzat itz egin zuan; Aita Jainkoak ere bere Seme maitea aditu, entzun genezala guzioi agindu zigun. Jaunaren itzak itzal eta arreta andiz

entzun ditzagun; gere Jesus maitearen itzak dira-ta, itzal andia zor diegu. Beste inork egundaino maitatu ez gaituan bestean, gurutzeko erioztaraino maitatu ginduzan Jaun lastantsuaren itzak dira-ta, arretaz entzun, gogoan artu ta geure biotz barruan guziok eta bakoitzak ausnartu bear ditugu. Arlo au asi orduko auspaztu gaizan eta goiko laguntza eskatu dezagun. *O crux ave!* Agur gurutze deuna! Geure Jaungoiko lasttana zeure besoetan euki zenduan gurutze ona, lagun zakigu. Jaunaren maitasun, erruki, samintasun eta naigabeak ezagutzera eman ezazkiguzu; gure adinak argitu ta biotzak samurtu itzazu.

## I

*«Pater, dimitte illis, non enim sciunt quid faciunt.»*

«Ene Aita, barka ezaiezu, zer egiten duten ere ez dakite-ta.»

(Luc. 23, 34)

Gure Jaunaren lenbiziko itza, otoitz samur, eskari bigun-errukiorra, bere maitasun andiaren agerkun eta ezaugarri eder-ederra da. Gurutzean iltzez josita dago; bere neke-min eta naigabeak izugarriak dira. An dauden gizatxarrak irri, ixeka ta barre egiten die; borrareroak bere aurpegira irain eta biraorik zakarrenak jaurtitzen dizkie. Jauna, bere biotza atsekabe saminez beterik duan Jauna, itz egitera dijoa. Zer esango ote du? Bere borrarero gaiztoentzat tximistak eta sua eskatuko ote ditu? Lurra idegi ta bere etsai guziak irentsi ditzala eskatuko ote du? Bai zera! Gizon utsa balitz, gizonak olako aldietan egiten duten ori berak ere egingo luke, baina gure Jauna bildotsa baizen otsana da. Bere buruaz, bere neke-minetaz aztu bailitzan bezela, gure zorionaz bakarrik oroitzen da; gorrotoari maitasunez erantzuten daki ta beste ezer baino len, bere borrarero anker eta gaiztoentzako erruki ta barkazioa eskatzen du: *«Pater, dimitte illis, non enim sciunt quid faciunt.* Nere Aita, nire etsai onei, gurutzean josi nauten borrarero onei, barkatu, arren, barkatu ezaiezu, gaxo oiek zer egin duten ez dakite-ta» (Luc. 23, 34). Jaunaren lenbiziko itza barkaziozko itza da, errukizko itza; bere bular saminez beterik dagoan aretatik irten zan itza, bere etsaiendako erruki ta barkazio bila zeruko Aitarengana dijoa. *«Pater, dimitte illis.»*

Baina an zeuden borrareroentzat baizik ez ote zuan Jaunak barkaziorik eskatu? Bai, gizarte osoa ta gizaldi guziak bere gogoan zeuzkan, eta errukia ere gizon guzientzat eskatu zuan! Zuek, aditzaile mait(eok), an zeundeten; ni ere an nengoen. Guztiok eta bakoitza geren Jaunaren borrarero izan gera; bekatari guziok irain eta ofentsak egin dizkiogu, bere

biotza naigabetu degu. Geure eskuak Jaunagan ipini ditugu, gurutzerera eraman degu, ozpin eta beazuna eman diogu. Bere nekauste, pasio, eriotza ta odolaren errudun egin gera; ta Jaun onak guzaz urrikaldurik, guzientzat erruki ta barkazioa eskatzen du.

Gu ere an geundela, gu ere Jaunaren borrero izan ginala ez dezute sinetsi nai? Arretaz entzun ezazute eta diodana egia dala ezagutuko dezute. Esan ezpabe: Jainko Gizona, zek eraman zuan gurutzerera? Bere bizia, zek kendu zion? Jaunari bizia kentzeko, gizonen grina gaizto, bera donge guziak elkartu ziran; grina ta bera gaizto oriek elkar artuta Jaunaren eriotza erabaki zuten. Ez al da egia? Jerusalemgo apaiz, legegizon eta aundizkien arrokeri, gorroto, bekaizkeri ta ikusiezinak erabaki zuten Jaunaren eriotza. Judasen zikoizkeri, diruzalekeriak saldu zuan. Mundutarren beldurrez, esamesen beldurrez ukatu zuan Simonek. Erromako agintarien ederra ez galtzarren, makalkeriz, gaiztetsi ta kondenatu zuan Pilatosek. Buruauste gabe, atseginez eta lasai bizi nai zualako, eskatu zuan Jaunaren eriotza, «*Crucifige*» diadar egiten zuan Jerusalemgo erriak. Jauna gurutzean josi ta bizia kendu ziotenak gizonen grina donge ta zalekeri okerrak izan zirala ageri da. Baina grina dongeak guk ere badi-tugu; beren egarrria ase naiez Jaunak ipini digun legearen aurka jagiten dira eta Jerusalemgo erriak bezela «*Crucifige*» diadar egiten dute. Jauna egia, zuzena, pakea, maitasuna da. Gizonai egia ta zuzena erakutsi zien; gizartera pakea ta maitasuna ekarri zituan. Baina geren grina gaiztoai jarraitzen diegulako, sarri askotan egia ukatu, zuzena zapaldu, pakea galerazi ta maitasunezko legea ausi egiten ditugu. Arrokeri ta bekaitza, gorroto ta elkar ikusiezina gizar-tean zabal dabilta. Grina gaizto oiek gizar-tearen jabe, ugazaba, agintari egin dira ta Jaunaren egia, Jaunaren zuzena, bere pakea, maitasun-legea, Jauna bera egon zan bezela, gurutze lotsagarrian josita daude. Au egitea, S(an) Paulo Apost(oluak) dienez, Jauna bera gurutzean jostea bezelaxe da: «*Rursus crucifigentes sibi-metipsis Filium Dei*». Augatik, egia ukatu, zuzena ta maitasun-legea ausi degunok Jaunaren borrero izan gera. Jauna gurutzean josi degu, ta bere borroentzat erruki ta barkazio eskatu zituan Jaunak, guretzat ere eskatu ditu. Bai, baina Jaunak guretzat eskatu zituan erruki ta barkazioa jadetsi ta lortu nai badi-tugu, bere irakatsiai jarraiturik, geren etsai ta are-rioai biotzez barkatu bear diegu.

Jaunak berak esan zuan: «*Dimittite et dimittetur vobis*. Barka ezazute ta barkatuko zaitzute». Geren erru, oben, bekatu ta gaiztakerien barkazioa irabazteko ori bezelakorik ez dago; orduan bai, Aitagurean esaten deguna, egiz esan genezake: «Barka ezazkiguzu geren zorrak, guk geren zordunai barkatzen dizkiegun bezela». Baina geronek geren zordunai barkatu nai ez badi-egu, Jaunak neurri berdinez neurtuko gaitu ta



gere oben eta pekatuen barkaziorik ez digu emango; geronek aurreko-ai, gure geide edo proiektuari ukatu diogulako, Jaunak ere ukatu egingo digu.

Norbaitek esan lezake: «Nere etsaiari, beste bat balitz, barkatuko nioke. Baina nitaz eskar gaiztoko izan da; mesede baizik ez diot egin eta berak eskar beltzez erantzun dit; beti bigun, gozo, errukior agertu naitzaio ta bera nirekin basati utsa, anker eta biotz-gogorra izan da, ta orrezaz gainera, bere zapokeria egin zidanetik ona, irri ta ixeka, barre ta bur-la ere egin dit. Beste bat balitz...., baina orri ezin barkatu dizaioket». Au dionak, burua non ote du? Barkatzeko agintzen digun Jaunari, bere etsaiak beste orrenbeste ta geiago ez ote zien egin? Bai beintzat! Jaun otzan, bigun, errukior eta maitagarria, bere bizia mesede egiten eman zuan Jauna, *«pertransiit benefaciendo»*, gizatxar aiek, bere mesedeak ikusi ta artu zituzten gizatxar aiek, gurutzerera eraman zuten. Asma aleko neke-min eta oinazeak arrerazi zizkien eta odolez ase ezin ziran gizon basati ta biotz-gogor aiek, gurutzean josita ikusi zutenean, irri ta ixeka, barre ta destaina egin zioten. Ori ta guzi ere, Jaunak bere gainera ixuri zuten gorrotoa ta berarekin egindako gogorkeri, gaiztakeri guziak, irri ta ixekak, guziz, osoro barkatu zizkien. Erru gabe, besteren gorrotoz iltzen danak, bere eriotz aldian esan lezake: «Errurik ez det; bidegabez iltzen nauzute. Egunen baten argi egingo da, nire errugabetasuna gizonak eza-gutuko dute; bien bitartean, barkatzen dizutet». Gizonak egiteko aski dala dirudi, baina Jaunak ori baino askotaz geiago egin zuan. Berak barkatu, Aita Jaungoikoari barkazioa eskatu ta bere etsaien errua, gaiztakeria ere zuritu, al zuan besteraino gutxitu: *«Pater, dimitte illis, non enim sciunt quid faciunt»*. Nere Aita, barkatu ezaiezu, zer egiten duten ez dakite-ta». Jakinezaz, oartu gabe egiten dana, berez gauza txarra izan arren ere, ezaguera osoz egiten dana baino askozaz ere gaiztakeri txikiagoa izan oi da; augatik, borroeroak zer egiten zuten ez zekitelara esanaz, Jaunak aien errua, gaiztakeria asko zuritu ta gutxitu zuan. Guri irri, ixeka, kalte ta bidegabeak egiten dizkigutenak ere sarri askotan jakinezaz edo beintzat bear bezela oartu gabe egiten dizkigute; augatik, bidegabe oiek barkatzeko askozaz ere gertuago, pretago egon bear genuke. Zertan gera, aditz(aile) mait(eok)? Kistauak gerala esaten degu, baina esatea ez da naiko. Kistauak bagera, Jaunaren jarraitzaile izan bear degu; berak egin zuana, egin zuan bezela, guk ere egin bear degu. Ark bere borroeroai guziz, osoro, maitaki barkatu zien; guri ere maiz barkatu digu. Jaunaren jarraitzaile bagera, elkarri egindako irain, gaiztakeri ta bidegabeak bata-besteari biotzez barkatu bear dizkiogu. Gaur erruki ta barkaziozko eguna da; gure Jaunak esan eta egin zuana, guziok eta bakoitzak esan eta egin dezagun. *«Pater, dimitte illis...»* Ene Aita, nire

etsaiari, gaizki egin didaten guziaz barka ezaiezu; nik barkatzen diet. Zuk ere nere oben, pekatu ta gaizki-eginak barka ezazkidazu.»

## II

«*Hodie eris mecum in paradiso.*»

«Gaur izango aiz neronekin atsegindegi edo paradisuari.»

(Luc. 23. 43)

Badakizute, Getsemaniko baratzara Jauna arrapatu ta txikot edo sokaz lotzera joan ziranai Jaunak esan zien: «Egunoro zuen artean ibili naiz eta eskurik ez didazute ezarri; orain lapurra bainintzan bezela, gabaz gudari, soldau, iskilu, arma, ta makilakin ni arrapatzera etorri zarete». Bera lapurtzat artzeak Jaunari biotzean atsekabe ta min aundia ematen ziola igarri zuten, eta min ematea Jauna lotsari gorrian ipintzea baino beste asmorik ez zuten gizatxar aiek, lapur gaizkin eta gizeraille<sup>726</sup> biren erdian josi zuten gurutzean. Onela bete zan Isaias igarleak askozaz aurrerago esan zuana: «Gaiztotzat etsi ta gaizkinakin bat egin dute. *Cum sceleratis reputatus est*». Lapur biak ezker-eskubi ta Jauna, lapurren buru izan bailitzan bezela, bien erdian egon zan. Ezkerraldeko lapurra-ri Egesta, eskubialdean zegoanari Dimas zeritzaiola diote. Ezkerraldeko-ak irri ta ixeka, burla ta destainetan Jaunaren etsaiari lagun egiten die; oiek bezela berak ere, ainen- eta birao-urtika diardu, aserre ta amurruz beterik inon diran txarkeriak esaten dizkio. Eskubialdetik zegoanak, ostera, bere lagun gaiztoari akar eta agiraka egiten zion, esanaz: «Gurutzean, oinazez agoalarik ere, ez al dek Jaungoikoaren beldurrik? Gu zuzenez eta bidez gaudek emen, geren egite txarren saria artzen diaguta. Baina onek gaizkirik bat ere ez dik egin. *Nilil mali gessit*». Eta Jaunarengana bere begiak itzulirik, esan zion: «Jauna, zere erreinura zotozanean, nizaz oroit zaite». Eta Jaunak erantzun zion: «Gaur nerekin paradisuari izango aiz. *Hodie mecum eris in paradiso*».

Jaunaren lenbiziko itz errukiorrak entzunik, Dimas lapur ona bere artean gogoratzen, pentsatzen asi zan: «Gizon onek gaiztakeririk batere ez du egin eta gurutzean josi dute; mesede baizik ez du egin eta inon diran txarkeriak egiten dizkiote. Ori ta guzi ere, beren etsaiari barkatu die; irri ta barre, ta burla egiten diotenen alde bere Aita zerukoari erru-

<sup>726</sup> Gizeraille: hiltzaile.

ki ta barkazioa eskatu dio. Gizon baino ez balitz ez luke ori egingo; gizon utsa balitz, orrelako otzantasun erruki ta maitasunik ez luke agertuko, gizonok ori egiten ez degu oraindik ikasi-ta». Gauza arrigarri au gogoratzen, pentsatzen zegoala, goiko argiz argitu zaion bere gogoia ta ezagutu ta sinetsi zuan, gurutzean bere ondoan zegoan gizon ura Jaungoikoaren Seme zala. An zeunden beste geienak Jaunaren etsaiak ziran; birao-urtika ziarduten, Jaunari irri ta barre egiten zioten. Dimasek ori ikusten zuan; baina ez zan lotsatu, ez zan ikaratu. Etsaien aurrean bere sinestea adore ta kemen andiz aitortu zuan eta bere gaiztakeriz damuturik, Jaunari esan zion: «*Domine, memento mei, cum veneris in regnum tuum*. Jauna, zere erreinura zatozanean, nizaz oroit zaite». Eta gaiztakeriez damuturik, bere sinestea etsaien aurrean goraki aitortu zualako, Jaunak betiko zoriona, zeruko atsedena eskaini zion, esanaz: «*Hodie eris mecum in paradiso*. Gaur izango zera neronekin paradisu».

Lapur onek gaur eguneko kistau askori irakatsi ta jarraibide ederra ematen digu. Kalbarioko mendian, eretxi baten, ikusi baten, Jaunaren etsaiak ziran nagosi; lurreko indarra beren alde zekaten, Pilatosek nai zutena egiteko eskubidea eman zien. Ori ta guzti, Dimasek bere sinestea lotsa gabe, beldur gabe, etsaien aurrean aitortu zuan; gurutzean zegoan Jesus laztana, bere Jaungoikotzat ezagutu, sinetsi ta aitortu zuan etsaien barre ta burlai jaramonik egin gabe. Oraingo kistau asko etsaien aurrean beren sinestea aitortzeko lotsa izaten dira; etsaiak barre ta irri egingo ote dioten beldurrez, sarri askotan sinestea ezkutatu, estali egiten dute, ta ori makalkeri utsez, lotsa txarrez. Jaunak esan zuan eta gogoan artu dezagun: «Gizonen aurrean aitortzen nauana, nik ere nere Aita zerukoaren aurrean aitortuko det; baina ni gizonen aurrean ukatzen nauana, nik ere ukatu egingo det. *Qui autem negaverit me coram hominibus, negabo et ego eum coram Patre meo, qui in coelis est*» (Math. 10, 33). Beste batzuek –nik ez dakit zergatik, berak ere ez dakite– edonon, edonoz eta edozergatik, Kalbarioko Jesusen etsaiak bezela, ainen, birao, blasfemia izugarriak esaten dituzte. Au, zinez, gizon txakil, txatxu ta txaldanen egikizun txarra da; batere bururik duan gizonak, zentzu ona galdu ez duan kistauak, egin ezin lezaken gaiztakeri beltza. Biraoak esateko oitura txarra duanak ao-epainak zikindu ta Jaunaren aserrea bere gainera ekarri, besterik ez du egiten. Nik, ez dakit nork buruan sartu dien biraoak esan ezkeru gizon egiten dirala; birao-urtika dabilena gizon azarri, azkarri ta balientea dala. Uste ori tentelkeri, txaldankeri utsa da. Birao zikin oriek esatea gizon azarri izateko aski balitz, beti zikintzan ibili oi diran urdeak eta karrakaldoak gizonik gizonena baino azarri ta balienteago izango lirake. Ezkerraldeko lapurrak biraoak jaurti zituan eta galdu zan; eskubialdekoak, etsaien beldur gabe, bere sinestea aitortu

zuan eta Jaunak betiko zoriona agindu zion. Geure sinestea itzez eta egi-  
tez aitor dezagun, galdu ez gaitez.

Jaunaren ezker-eskubi gurutzean zeunden lapur biak gizadi osoa adie-  
razten digute. Bizitzeko lan egin bear, gorputza nekatu bear eta lana,  
nekea, gurutzea da; ez astunena noski, baina gurutzea. Ezbear eta ondo-  
ezak, geixo ta minak; zoritxar, jazarkunde edo persekuzioak ere sarri  
etortzen zaizkigu, eta oriek gurutze astunagoak dira. Gizon guziok, nai-  
taez, zelako-alako gurutzea geren bizkarrean daramagu; baina berdin, ez.

Batzuek, errudun dirala ezaguturik, lapur onak bezela beren gurutzea  
egoarriz, eroapenez, pazentziaz daramate; beste batzuek, Jaungoikoak  
orren errua balu bezela, Jaunaren aurka jagiten dira ta biraoka ekiten dio-  
te, lapur gaiztoak bezela. Guziok eta bakoitzak naitaez geren gurutzea era-  
man bear degun ezker, lapur onak bezela egoarriz, pazentziaz eraman  
dezagun, eta Jaunak Dimas damutuari esan ziona guri ere esango digu:  
*«Hodie eris mecum in paradiso. Gaur izango zera nerekin paradisu-  
an»*. Gizonaren bizia oso laburra da. Egun bat bezela da; egunak bezela, bere  
goiza, bere eguerdia, bere ilunkera ditu ta eriotzako gabaz bukatzen da.  
Augatik, guri ere geren neke ta gurutzeak egoarriz badaramazkigu, Jaunak  
lapur onari bezela esango digu: *«Hodie eris mecum in paradiso»*.

### III

*«Dixit Matri suae: Mulier, ecce Filius tuus.»*

*«Deinde dicit discipulo: Ecce Mater tua.»*

«Bere Amari esan zion: Andrea, orra or zure Semea.

Gero ikasle maiteari diotsa: Orra or zure Ama.»

(Joan 19, 26)

Gure salbazioa, gure betiko osasuna egitearren, igo zan Jauna guru-  
tzera; ta bere neke-min eta oinazez azturik, guzaz oroitzen da. Lenbizi  
otoitz egiten du, bere borroroendako ta bekatari guztiendako bere Aita-  
ri errukia eskatzen dio; gero, lapur onari barkatu dionean, bekatari  
damutu guziaz ere barkazio berdina eskaini die. Baina ori eginaz Jauna-  
ren gugazko maitasuna ez da ase, bere maitasun samurraren ezaugarri  
andi ta ederragoa eman nai digu. Gurutzearen oinean emakume bat  
dago; emakume ori bere Ama laztan-lasztana da. Jaunak begirakune  
samurrez begiraturik, diotsa: *«Mulier, ecce Filius tuus. Andrea, orra or  
zure Semea»*; ta gero ikasle maiteari: *«Orra zure Ama. Ecce Mater tua»*.

Jaun on eta errukiorrak zeukan guzia eman zigun; bere odola, bere  
bizia, bere biotzeko Ama laztana ere bai. Maitasunari maitasuna zor zaio;

guzia eman digunari, guzia zor diogu. Jauna gureztat bizi ta gureztat ilzan. Gu ere eskar oneko izan nai badegu, geren gauza guziakin Jaunari eman bear gataizkio ta Jaunarentzat bizi bear degu.

Gure Aita samurra dan Jaunak ez ginduan umezurtz utzi; ume errukarriak ginala-ta, bere Ama maite-laztana, amarik errukior eta samurrena, geren Amatzat eman zigun. San Joan, ikasle maitea, kistau guzioen orde zegoan gurutzearen ondoan, eta Jaunak bere Amari esan zionean «Orra or zure Semea», kistau guziok Andre Mariaren seme ta A(ndre) Maria guzioen Ama egin zuan. Au nola dan errez ezagutu genezake. Kistau zintzo bakoitzak bizitza bi ditu, izatezkoa bata, izatez goitikoak beste. Lenbizikoa, sortzez, jaiotzaz datorkio; bigarrenaren sustrai sinesmena da, ta Jaunaren eskar edo graziak ematen dio. Sinestedun gizona ta sinestegabea, txertaturiko zugaitza ta txerto gabea bezelaxe dira. Zugaitzak txertatu, eztitu baino len, igali<sup>727</sup>, arnari edo frutu mingoitzak ematen ditu; eztitu, txertatu ezkeror ordea, bere ale arnariak ere ezti-gozoak izan oi dira. Zugaitza bera igartu gabe txertoak igartuko balira, oien bizia galdurik, zugaitzari bere lenbiziko bizitza geldituko litzaioke. Onela, txertatua izan dan zugaitzak, jaiotzaz zuan bizia galdu gabe, bizitza berria artzen du; aurreragoko bere arnari, frutuen mingoitzen orde z, txertoari dagozkion igali, frutu gozo-ezti ta ederrak ematen ditu ta ori egiteko berriz jai o dala esan dezakegu. Gizona ere berd in; Jaunak bere eskar edo graziz txertatzen duanean, berriz jaiotzen da; bere izatez goitiko bizitza berria artzen du ta bere egintzak, zugaitz txertatuaren igaliak bezela izatez goitikoak, Jaunarentzat ezti-gozoak, zeruko zoriona irabazteko bear bezelakoak izan oi dira. Au Jaunak berak adierazi zigun, Nikodemusi esan zionean: «*Nisi quis renatus fuerit ex aqua et Spiritu Sancto, non potest introire in regnum Dei.*» Gizona berriz jai o ez badadi, zeruko erreinuan ezin sartu diteke».

Bizitza berri onetara jai o garen guzioen Ama, egiz eta benetan da Andre Maria. Ona emen zergatik. Ama bakoitzak bere umeai izatezko bizia iru gauza onekin ematen die: bere maitasun, bere odol, bere neke-minen bidez. Amak bere umea maitasunez sortu, bere odolez elikatu, ta bere neke-minen bidez erditu edo munduko argira ekartzen du. Kistau-izatea, aurrerago aipatu dedan jaiotza berriaren bidez, kistauari dagokion bizitza berria, Andre Mariak iru gauza oriekin eman digu. Gure osasun eta zorion ona biotz-biotzez nai zuan eta origatik erantzun zion Aingeruari: «*Fiat mihi secundum verbum tuum.*» Zure itz orien araura egin bek it». Gure osasuna biotz-biotzez nai zuan eta origatik, guru-

<sup>727</sup> *Igali*: frutu.

tzearen oinean ere Ama samurrak bere «*Fiat. Egin bedi*» berriz esanaz, Aita Jaungoikoari bere erraietako Seme laztanaren bizia gure alde, gure onerako, maitasun andiz eskaini zion.

S(an) Pedro Apostoluak dion bezela, Jesukistok bere odolez birrerosi ginduan; baina Jesukistok gu erosteko ta guri bizitza ori emateko ixuri zuan odol ederra, bere Amaren erraietan artu zuala, nok ez daki?; eta Andre Mariak gurutzearen oinean, gure Ama egin zanean, neke-min eta oinaze aundi ta izugarriak artu ta eramane, egari ta jasan zituala, nok uka lezake? Augatik, kistau-izatea, izate oni dagokion bizitza berria, Andre Mariak bere maitasunez, bere odolez, bere neke-minez eman digula ageri da; baina iru gauza oriekin izatezko bizia eman digun emakumea, geren Ama bada, iru gauza oriekin izatez goitiko bizia eman digulako, Andre Maria ere egiz eta benetan gure Ama, kistauoen Ama dala sinetsi ta aitortu bear degu.

Gure biotza poztu ta atsegin-eztiz betetzeko gauza eder eta samurragorik ezin oroitu genezake. Zorion aundia da au, entz(ule) mait(eok): Jaungoikoaren Ama gure Ama, kistauoen Ama da. Biotz maitalea du, errai bigun-samurrak ditu; asko maite gaitu-ta, bere eskua eman eta guri laguntzeko gertu, prest dago. Ama ona, Ama samurra!, zuk irabazitako bizia, animen izatez goitiko bizia, geren erruz bein baino sarriago galdu degu; eskar gaiztoko izan gatzazkitzu, zure semeen izenik ere ez degu merezi. Baina ona ta biguna, laztantsu ta errukiorra zera-ta, parka eza-guzu, Ama zatzaigula erakuts ezazu. «*Monstra te esse Matem.*» Zure seme ta gure Jaunak, gurutzean zintzilik zegoala, bere eriotzako ordu larrian gure Ama egin eta izendatu zinduala gomutatu, oroi ezazu ta gure eskar gaiztoaz azturik, seme-alaba errukarriok berriz ere bere magalpe gozotan ar gaitzazu. «*Monstra te esse Matrem.*»

#### IV

«*Eli, Eli, lama sabacthani?*

*Deus meus, Deus meus, ut quid dereliquisti me?»*

«Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa, zergatik utzi nauzu?»

(Math. 27, 46)

Gure Jauna gurutzean zintzilik zegoala, ezkutatu, ilundu zan eguzkia ta gaba baillitzan, laino beltzez estali ta jantzi zan lurra ere. Badakizute; eguzki, lur eta ilargiaren ibiltze edo biraketak berenez sortzen duten eguzkiaren ilunaldia, obeto esateko lurrarena, ilargi berriz izan oi da, eta lurra eguzkitik urbilago ta ilargia urrunago dabiltzanean edo ilargi betez inolaz

ere ezin izan diteke. Au edonork daki. Judatarrak beren Igaratz edo Bazkoa martxoko ilargi betean ospatzen zuten beti. Beren Bazko aurreko egunean gurutzera eramán eta gurutzean josi zuten Jauna; orrengatik orduko eguzkiaren estaltze edo ilunaldia ilargiak bere biraketaz egindakoa inolaz ere ezin zitekean, Jaungoikoak mirariz egina baizik, eta alatzez, mirariz egina zalako, ilunaldi ark iraun ere askotaz luzaroago iraun zuan, eguerdiko amabietatik arratsaldeko irurak arte. Gizonak beren alde il zan Jaunaren eriotzan, tamal, atsekabe, samin eta naigaberik batere ez zuten erakutsi; zentzugabeko gauzak gizasemea baino errukiorrago agertu ziran. Eguzkia larritu ta ilundu zan; lurra, laino beltzez jantzita, ikaraz, dardar zegoan; aitzak, arkaitzak ere urratu ta zatitu egin ziran, beren Jaun eta Jabearen eriotzak min ematen ziela adierazi naiez.

Iluntasun artan Jaunak berriz itz egiten du. Orain arte gizonen osasunaz oroitu da; orain bere buruaz oroiturik, bere biotzeko naigabe saminak erasota, eiagoraz, diadar andiz dio: «*Deus meus, Deus meus, ut quid dereliquisti me?*» Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa, zergatik utzi nauzu?». Zer? Jaungoikoak bere Seme laztana ziaro utzi egin ote du? Jaungoikotasunak Jesusengandik alde egin ote du? Ez! Jaungoikotasunak bein artu duan Jesukistoren gizatasuna ezin laga, ezin utzi dezake; ez bere gorputzetik, ez bere animatik alderik ezin egin dezake. Baina gizatasunari ematen dizkion kemen, adore ta idarra, bai, oiek ezkutatu ditezke. Getsemaniko baratzan bezela, orain ere Jesusi jaungoikotasuna estali zaio. Zertarako? Gizatasunak gorputzeko neke-min izugarriak eta ari-mako naigabe andiak bere indar utsez egari ta eramán ditzan. Getsemaniko baratzan pasioko neke guziak, eriotzako larritasunak bere begien aurrean jarri zitazkion; Jauna ezin geiagoan estutu ta larritu zan eta larritasunaren indarrez, odol-izerdia ixuri zuan; baina gero, kemen eta adorez beterik, esan zuan Jaunak: «Ene Aita, al bada, eriotzako larritasun oiek niregandik aldendu itzazu. Baina nire naia ez bedi egin, zeorrena baizik. *Non mea voluntas sed tua fiat*». Orain ere gizatasunak, bere adore ta indar utsez, Jaungoikoaren laguntza berezi gabe, pasioko neke, min eta atsekabe mingoitzak dastatu, egari, eramán ditzan, Jesuseri jaunkotasuna berriz estali zaio ta laguntza ori gabe bere burua ikusirik, bere Aitari diotsa: «*Deus meus, Deus meus, ut quid dereliquisti me?*» Ene Jaungoikoa, zergatik utzi nauzu?».

Zergatik utzi zuan jakin nai dezute? Begira. Jauna errugabea zala ongi dakigu; baina gaizto ta errudun ginan gizaseme oien ordezeko jarri zan bera eta, Isaias igarleak dionez, Aita Jaungoikoak gizon guzioen gaiztakeri ta bekatuak bere bizkarrean ezarri zizkion: «*Posuit Dominus in eo iniquitatem omnium nostrum*» (Isaias 53, 6). Errugabea zan, baina San Paulo Apost(oluak) dion bezela, bekaturik ezagutu ere ez zuan Jau-

na, gu salbatzearren, guzioen bekatuz zamatua, pekatarien soinekoz jantzita, bekataririk aundiena bezela agertu zan: «*Eum, qui non noverat peccatum, pro nobis peccatum fecit*». Aita Jaungoikoak bere Seme ala ikusirik, bekatuen iguinez, nardaz, gorrotoz bere begiak aldendu zituan eta Jesus onak, guzioen zorrak ordaindu, pagatu, kitzatzearen, beste neke-min asko ta andiez gainera, Aitaren uzte onek eman zion naigabe izugarria ere egari ta eraman bear izan zuan: «*Ut quid dereliquisti me?*».

Jesukisto gure Jaun ona, bekatari itxuran agertu zalako beste gabe, Aita Jaungoikoak ain gogor artu bazuan, bekataria bere eskuetara dijoazanean, zer egingo ote du? Nola artuko ote ditu? Nolako aserrea erakutsi, nolako kontu zeatza eskatu, nolako epai zorrotza emango ote die? «*Quia si in viridi ligno haec faciunt, in arido quid fiet*» (Luc. 23, 31). Bizitzako arnari, frutu ederrak eman zituan zugatzean, Jesukistogan, bekatarien soinekoz jantzi zalako beste gabe, Jaungoikoaren zuzentasun zorrotzak onelako triskantza izugarria egin bazuan, gaiztakeriak baizik beste fruturik eman ez dituzten bekatarietan, nolako triskantza gogorra egingo ote du?

Bere Aita Goikoak onela uzterik Jesukistok ez zuan merezi; gure gaiztakeriak bere gain artu zitualako, orrengatik utzi zuan. Berak ez zuan merezi, baina gu bekatariorok, bai. Bekatu egin degun bakoitzean, ori irabazi ta merezi izan degu, ta eriotzaraino geren gaiztakerietan iraun badaigu, Jaungoikoak bizitzako liburutik kendu ta betiko utziko gaitu. Jesukistoren itz oiek auxe adierazi nai digute: bekataria, damutu ezik, Jaungoiko gabe, zorion gabe, neke-min, atsekabe ta naigabe izugarritz zorigaiztoko izango dirala beti, beren gaiztakeriz irabazi duten barrendiko labe gorian... Jesus laztana, bizitzako ariskueta eta eriotzako ordu larrian zaindu gaitzazu, bein ere ez gaitzazu utzi! Eskar gaiztoko izan gatzazkitzu, baina damu degu; geren obenetan ez gaitzazu utzi. Itz oiek esan zenituan zere biotzak artu zuan naigabe andiagatik eskatzen dizut: arren, Jauna, barka ezaguzu eta betiko bizitzara eraman gaitzazu!

## V

«*Sciens Jesus quia omnia consummata essent,  
ut impleretur Scriptura, dixit: 'Sitis'.*»

«Jakirik Jesusek guzia osoro egina zegoala,  
Idaztia bete zedin, esan zuan: 'Egarri naiz'.»

(Joan 19, 28)

Zauri aundi-sakonak artuta odol asko ixuri duan edonork, egarri bizia, eraman ezindako egarria izaten du. Jaunak bere gorputz guzia,



orpotik burura zauri gordin eginik zeukan: «*A planta pedis ad verticem capitis non est in eo sanitas*»; odol-ibaiak ixuri zituan; aurreko gauetik geiago lorik egin gabe, ezertxo ere artu gabe zegoan. Ainbeste neke eramán, ainbeste zauri artu, ainbeste izerdi bota, ainbeste odol ixuri zuan Jauna egarri izatea, ez da mirari, ta bere egarri andi-bizi ori agertzeko ta idatzita zegoana bete zedin, esan zuan: «*Sitio*. Egarrri naiz». Egarrri au, mingaina aosapaian itsasi zion egarrri au, «*Lingua mea adhaesit faucibus meis*», izugarri zala errex aitu ta ulertu genezake. Zinez, Jaunak bere pasioan neke-min eta oinaze aundiak jasan eta egari zituan. Gorputza ziorkadaz birrindu, burua arantzaz zulatu, arpegia txistuz ezaindu zioten; gurutze astuna bizkarrera jaurti, esku-oinak iltze gogorrez josi ta eskegi zutenean, ezurak ere beren lekutik atera zizkioten. Baina oinaze ta neke-min guzi oiek, bildots otzanak bezela, ixil-ixilik, ezpainak ideki gabe, adia, zotin eta aiene gabe artu ta eramán zituan; bere egarrri aundia ixilik ezin eramán eta, «*Sitio*. Egarrri naiz» esan zuan.

Gizasemeok iru egarrri gaizto ditugu: «Aberastasun-egarrria, aundikeri-egarrria, atsegin-egarrria. *Concupiscentia carnis, concupiscentia oculorum et superbia vitae*» (I Joan 2, 16). Egarrri oiek ase naiaz sarri askotan bide okerre, aberaski ta ogasun bila, entzute ta aundikeri bila, lasaikeri ta atsegin bila, zoratuak bezela gabiltza, ta bide zuzenez ala okerre gabiltzan begiratu gabe, orren ajolakabe, geren egarrri gaizto ori ase nai degulako, ainbeste gaiztakeri, oben eta bekatu egiten ditugu. Gizasemeak egarrri gaizto oiek ase naiaz egin oi dituzten bekatuak, gure Jaunak bere egari aundi, izugarri eta ezin esan al bestekoaz ordaindu, kitatu bear izan zituan gurutzean. An urbil zeudenak «*Egarrri naiz*» entzun ziotenean, beazun eta ozpina nastuta edatera eman zien; baina Jaunak, dastatu ondoren, ez zuan edan nai izan.

Jaunak, Samariako emakumeari bezela, guri ere maiz, sarri esan digu: «*Da mihi bibere*. Egarrri naiz eta edatera emadazu»; eta guk garbai ta damutasunaren ur biziá eman bearrean, borrero gaiztoen antzera, geren gaiztakerien beazuna, geren bekatuen ozpin mingoitza sarri eman diogu. Egiz, biotz-gogor eta gaiztoak izan gera! Ez ote gera damutuko? Jaunaren egarrria ase ta geren animak garbitzen dituan damutasun-ur bizi, garden eta garbia, ez ote diogu emango? Jaunak ur ori nai du. Bere egarrria bikoitza zan: gorputzekoa ta arimakoa, uraren egarrria ta maitasun-egarrria, animen egarrria.

Gizaseme guzien betiko osasuna egitearren, Jauna gurutzean iltzez josita dago; guzien zoriona egitearren, ainbeste oinaze, neke, atsekabe ta samintasun daramazki. Bere jakinduri andiaz, gizaldi guziak, izandako eta izatekoak, bere begien aurrean dauzka eta bere odolez birrerosi zuan gizatalde aundi orretan, zer ikusten du? Eskar oneko gutxi, eskar

gaiztoko asko. Damutu, ondu ta beragana itzuli nai duten gutxi; bide gaiztoz ibili ta eriotzaraino txarrean, bekatuan irauteko asmoa duten asko. Ikuskizun negargarria benetan! Animen maitasunez, animai zeruko ateari iriki ta inpernukoak zarratzearen iltzen da gurutzean Jauna, ta ori ta guzti, gurutzearen oinean aoa zabalik dakus inpernuua. Animak zeruratzearren eginalak egin ditu, bere gorputzean zati osorik ez dauka, bere zainetako odola ixuri du, bizia ere laister emango du; baina gizon itsuak, gaiztakerietzaz damutu ta Jaunagana itzuli baino, heren buruak galdu naiago dituzte ta aoa zabalik dagoan inpernuak ainbeste zorigaiztoko iruntsiko ditu. Ikuskizun negargarri onekin Jaunari bere biotza ezin geiagoan estutu ta larritu zitzaion. Guziak salba nai zituan, baina bere pasio ta eriotza gorabera, asko galdu ta gutxi salbako zirala ikusirik, biotz larriz esan zion bere Aitari: «Ene Aita, ene Jaungoikoa! Onekin bakarrik zergatik utzi nauzu? *Ut quid dereliquisti me?* Geiago, Jauna, geiago; guziak, ene Jaungoikoa, guziak! Animen egarri naiz. *Sitio*. Guziak salba nai nituke, guziak nere odolez garbitu ta zerura eraman nai nituke. *Sitio*».

Gure animen egarri da Jauna; bere egarri andi au asetzeko, damutasurezko ur bizi ta garbiaren orde, berriz ere gaiztakerien beazuna, bekatuen ozpin garratza emango ote diogu? Ain biotz-gogorrek izango ote gera? Ez, Jauna, ez! Zu gure animen egarri zeran bezela, gure anima oiek ere zure egarri dira; zugana itzuli ta zureak izan nai dute. Artu itzazu, ba, Jauna eta bizitzako iturri zeranorrek, zere odolez garbitu ta zere maitasunez eradan<sup>728</sup> eta ase itzazu.

## VI

«*Consummatum est.*»

«Bukatu da.»

(Joan 21, 30)

Albait laisterren egin nai genduan eginkizunen bat, buruauste ta neke gogorrek eman dizkigun zereginen bat amaitu edo bukatzen degunean, arnasa artuaz, esaten degu: «Au ere noiz edo noiz bukatu da». Gure betiko osasuna albait laisterren eta gogo biziz egin nai zuan Jaunak: «*Baptismo habeo baptizari et quomodo coarctor usquedum perficiatur?*» Augatik bere lan aundia bere neke eta oinazen azkenera eldu zane-

<sup>728</sup> *Eradan*: edanarazo.

an, onela esan zuan: «*Consummatum est*. Bukatu da». Antzinako igaralak Jaunaren bizitza, pasio ta eriotzaren berri aurretiez emateko, gauza asko iragarri ta esan zituzten. Lege Zarreko irudiak adierazi nai zutena ta igaralak iragarritako gauza guziak zeatz bete zirala, uts gabe ta osoro eginak zeudela ikusirik, Jaunak guziz ondo esan zezakean: «*Consummatum est*. Bukatu da». Baina orrezaz gainera Jaunaren itz oiek beste gauza bat ere adierazi nai digute.

Gure osasun eta zoriona egiteko zeregin aundia Jaunak bere gain artu zuan. Ortarako Aita Jaungoikoaren zuzentasunari zor zitzaion guzi-guzia eman, zuzentasun eta errukia elkartu, eta Jaungoiko ta gizonen arteko pakeak egin bear zirala edonork daki. Eginkizun aundia, benetan, aditzaile mait(eok); zeru-lurrak egitea baino ere eginkizun gaitz eta zailagoa! Zeru-lurrak egiteko, Jaungoikoaren jakinduri, zuzentasun eta errukia elkartuta, batera zebiltzan; baina gizona birrerosi, beren bekatuetatik askatu, zeruko atea ideki ta berriz arako bidean ipintzeko aldi ta ordua eldu ziranean, Jaungoikoaren zuzentasun eta errukia elkarren aurrez aurre, arpegiz arpegi bezela aurkitu ziran. Errukiak gizonari bere gaiztakeria barkatzea nai zuan; baina zuzentasunak, Jaungoikoaren justiziak, berea eskatuaz, onela zion: «Gizonaren osasuna egin bedi. Baina zor zaidana ere eman bekit; gizonak bekatu eginaz ostu ta kendu zidan aintza edo gloria bear det, eta orren ordaina eman bekit».

Jaungoikoari genion zor aundia, gizon guziok bat eginda ere, ezin ordaindu, ezin pagatu genizaioken; baina guk ezin genezaken eta ezin dezakegun ori egiteko bidea, Jaungoikoaren jakinduri ta errukiak bilatu ta aurkitu zuten. Gure zorrai erantzuteko, Jaungoiko Seme gizon eta anai, geren ordezeko ta sendesle egin zitzaigun; bekatu egin zuan izateak berak bekatuaren zorra ordaindu zezan, geren izatez jantzirik, gure zor guziak bere gain artu zituan, bere bizitza guzian Zeruko Aitari atsegin eman zion. Jaungoiko ta gizon batera zan Jaun onen egite bakoitzak azkengabeko aldin edo balioa zualako, gure zor guziak ere zeatz ordaindu, pagatu zizkion eta Jaungoiko ta gizonen arteko pakeak egin zituan. Onela Jaungoikoaren zuzentasun eta errukia gurutzean elkartu ta laztandu ziran eta elkartze zoriontsu onek gizonari zeruko atea berriz iriki zion. Lurrera ekarri zuan eginkizun aundi au amaitu, bukatu zuanean, Jaunak guziz egokiro esan zuan: «*Consummatum est*. Nere lurreko zeregina, gizonen osasuna egiteko nere Aitak eman zidan eginkizuna guziz, osoro, zeatz, utsgabe bukatu det. *Opus consummavi quod dedisti mihi ut faciam*».

Guk ere, aditzaile mait(eok), guziok eta bakoitzak geren eginkizuna degu: Jaungoikoaren legea bete ta geren animak salbatzea. Lurrean degun zereginik lenena, aundiena, bearrena, ezpai gabe orixe da. Geren

zeregin aundi au bear bezela egiteko ardurarik, ajolarik artzen ote degu? Guzioi ta bakoitzari eriotza laister urbilduko zaigu; beren aurrean, gure Jaunak bezela, esan al izango ote degu: «*Opus consummavi quod dedisti mihi ut faciam*. Ene Jaun eta Jaungoikoa, zure legea nere biotzean erabili det, bere aginduak bete ditut. Nere animaren osasuna egiteko nai ta gurari biziak erabili nau, orren bila ibili naiz beti. Lurreko basa artean itsasi zaizkidan orbain eta kutsuak zere odoletan garbitu ditut. Zeori beste ezer baino maiteago zaitut, eman zidan nere eginkizuna zeatz bete ta egin det. *Opus consummavi*. Ta orain errukior zeranorren eskutik betiko zoriona itxarotzen det?» Urbil dagoan eriotzaren aurrez aur, Jaunak esan zuan au egiz esan al izango ote degu? Ala pozkarri izan bear luketen itz oiek, eriotzaren aurrez aur atsekabe, naigabe saminagoa emateko bakarrik izango ote zaizkigu? Gure bizia ere laister bukatuko da ta azken itz oiek, naitaez, esan edo entzun beariko ditugu: «*Consummatum est*. Nere lurreko, emengo bizitza bukatu da. Nere senide ta aiskide oiei, agur, betiko agur. Nereak izan diran ogasunak beste batek daramazki. Lurrean ez da geiago neretzat ez atseginik, ez amets gozorik, ez olgantzarik, ez jolasik. Nere amets guzi oiek aizeak eraman ditu eta nere gauza guzietatik, ilobia, lurrean egindako zilotxo bat, nererik ori bakarrik gelditzen zait. *Solum mihi superest sepulcrum*. Jaunaren errukiak sarri, maiz dei egin zidan; baina gogortu nitzaion, ez nion erantzun. Orain errukiaren aldi edo denbora ere bukatu da ta nereak egin du. Banuan nik ere nere eginkizuna, bai; nere zereginik aundiena, nere animaren zoriona egin bear nuan. Ez dit ajolarik izan eta zorigaiztoko aundionek, nere onerako ezer egin gabe, il bear det; geien ardua zidana, nere indar eta alegin guziz egin bear nuana egin gabe eriotzak arrapatu nau, ta bere atzaparretan ilobira, lurpera narama. *Consummatum est*. Bukatu da». Baina bukaera itun, larri ta negargarria, onela geren bizia bukatzea.

Gure Jaunak ere bere bizitzaren azkenean, «Bukatu da» esan zuan; baina luzaro itxasoz ibili ta gero, kaira, portura eltzen diran itxas gizonak pozez beterik abestu edo kantatzen duten bezela, Jaunak ere bere pasioko neke ta oinazeen azkenera, pakezko portura eldu zanean, garaitzako itz oiek pozez beterik abestu, kantatu zituan: «Nere Aita zerukoari aintza ta gloria, gizonai osasun eta zoriona irabazi dizkiet. Nere eginkizuna bete det; neke ta oinazeak bukatu dira. Garaitza onen irabaziak eskuratzeko aldi ta ordua, auxe da. *Consummatum est*». Esku artean darabilzkgun arazo ta zeregin guzien artean, osoro bearrezko bat bakarra da: geren animen salbazioa. «*Unum est necessarium*.» Jaunak eman digun eginkizunik lenena, aundiena, bearrena ere, auxe da. Leial eta zintzoro bete dezagun, eta Jaunaren antzera, geren eriotz orduan,

garaitzako kantua bezela, esan al izango degu: «*Consummatum est*. Jaungoikoa maitatu bear nuan..., maitatu det; bekatua utzi bear nuan..., utzi det; legea bete bear nuan..., bete det; nere arimaren osasuna egin bear nuan..., egin det. Nere lurreko zeregina bukatu da. Zeruko zoriona itxaron dezaket?»

## VII

«*Clamans voce magna Jesus ait:*

*'Pater, in manus tuas commendo spiritum meum'.*»

«Jesusek eiagoraz itz eginik, esan zuan:

*'Ene Aita, nere anima zure eskuetan ipintzen det'.*»

(Luc. 23, 46)

N(ere) aditzaile mait(eok), San Paulo Apostoluak dion bezela, eriotza bekatuaren ondorena, beren irabazia da. «*Stipendia peccati, mors.*» Eta berenez bekatuari betiko eriotza zor zaio; bekatuaren azkenengo zigor edo kastigua, aundiena, izugarriena betiko eriotza da. Betiko eriotza ta betiko zoritxarra gauza bat dirala badakizute. Orain ba, gu gizase-meok betiko eriotza orretatik askatu, atera, alden du ta betiko bizira eramateko gizon egin zan Jaungoiko Semea. Augatik, guk zor genduan eriotza Jaunak bere guraz artu zuan; guri betiko bizia ematearren, bere naiz, bere borondatez il zan. Au Jaunak berak argiro adierazi zigun, esan zuanean: «Nere anima, nere bizia inok ez dit kentzen; neuk neronek nere oldez, nere borondatez ematen det. *Nemo tollit animam meam a me, sed ego pono eam a meipso.*»

Gure Jaunaren azken itzak, oiek izan ziran: «*Pater, in manus tuas commendo spiritum meum.* Ene Aita, nere gogoa, nere anima zere eskuetan ipintzen det». Itz oiek, Ebanjelioak dionez, abots sendoz, diadar aundiz, Kalbarioko mendian zeuden guziak entzuteko eran esan zituan Jaunak. Baina Jesukisto Jaungoiko ta gizon batera izan ez balitz, naiz bizia naiz eriotza bere eskuan euki ez balu, bere eriotz aldi inolaz ere diadar andirik ezingo zuan egin. Ainbeste neke ta oinazez guziz indargetua zegon, ainbeste ziorkadaz bere gorputza birrinduta zeukan; egarriaren indarrez bere aoa igar eta legor, ainbeste zauriz bere zainetan ia odolik ez zitzaion gelditu. Ori ta guzi ere, bere azken itz oiek eiagoraz, diadar andiz, an inguruan zeuden guziak entzuteko eran esan zituan, onela guziaz adierazteko oraindik bazuala bere bizia luzatzeko indarrik asko, ta iltzen bazan bere guraz iltzen zala; adierazteko, bitzita ta eriotzaren jabe zala ta bizia utzi ta eriotza artzen bazuan, gure salba-

zioa egitearren, guri betiko bizia ematearren, gure onginaiz, gure maitasunez artzen zuala; gure aldez, gure onerako iltzen zala. Egiz, aditzaile mait(eok), berak nai zuala ta gure onerako Jaunak artu zuan eriotza, bere maitasun aundiaren ezaugarririk ederrenetakoa da. «Aiskideen aldez –esan zuan Jaunak–, aiskideen onerako bere bizia ematen duanak baino maitasun aundiagorik inork ere ez du. *Majorem hac dilectionem nemo habet, ut animam suam ponat quis pro amicis suis.*» Jaunaren aiskide barruko izan bagina ere, gure aldez bere bizia emanaz, maitasun aundi, samur, bero ta gartsua erakutsiko zigun; baina etsai ta arerio ginala, bere bizia gure alde eman zualako, Jaunaren maitasun onekin berdindu genezaken maitasunik, inon ere ezin aurkitu genezake. Maitasunari maitasuna zor bazaio, maitatu gaituan edonori maitasunez erantzun bear badiogu, ainbeste maitatu gaituan Jaunari zor diogun maitasuna, nolako izango ote da? Zerekin ordaindu al izango ote diogu? Geran guziok dauzkagun gauza guziakin Jaunari eskaini ta Jaunarentzat bizi arren ere, diogun zor aundi onen pizka bat ezin ordaindu genezaioke.

Jaunak bere azken itz auek esan zituanean, ortzean laino beltzak zabaldu ta zeruak ilundu ziran. Lurra ikaraz dardar asi ta Elizako estalkia ere erdibitu zan. Ilobiak ideki ta ildako batzuk berbiztu ziran. Ingu-ruan zeudenak gurutzera begira jarri ziran. Jaunak bere bizia gure aldez eskaini ta opaldu, bere burua makurtu zuan eta il zan! Bere anima Aitar-en eskuetan ipini zuan. «*Pater, in manus tuas commendo spiritum meum.*» Begira, aditzaile mait(eok), begira nola il dan. Jesukistoren biotza guganantz guziz itzulia zegon eta orrengatik, il baino len, bere burua ere lurrerantz makurtu zuan. Zertarako? Lurrean bizi ziran gizon eskar gaiztoai pakezko laztana emateko; gaiztakerietaz damaturik, beragana etorriko ziran bekatari guziaz barkatuko zuela ta berriz bere aiskidetasunean artuko zituala adierazteko. Jaun maitagarria!, esaguzu: berriz ta berriz bekatuan eroriko bagina ere, damuz eta negarrez, barkazio bila zugana etorri ezkerero, barkatuko ote diguzu? Eta Jaunak, bere burua makurtuz, baietz erantzuten digu. Munduko bekatariarik andiena, gaiztorik gaiztoena, bere gaiztakerietaz damaturik etorri badakizu, barkatuko ote diozu, bere anima zere odolez garbitu ta zere aiskidetasunean artuko ote dezu? Eta Jaunak, bere burua makurtuz, baietz erantzuten digu. Geren eriotz orduan, aiskide ta lagunik gabe, estu ta larri aurkituko bagina, zuri Jaun errukitsuorri dei egin ezkerero, lagunduko ote diguzu, etorriko ote zatzaigu ta gure anima zere esku jangoikozko orietan artuko ote dezu? Eta Jaunak, bere burua makurtuz, baietza ematen digu. Jaungoiko errukitsua, ontasun-iturria, errukiaren itxaso, maitasunaren Aita!, ontasun, erruki ta maitasunaren indarrez gure biotzak irabazi dituzu. Zeorrenak dira, artu itzazu.

Gure bizia geren gogoa, geren anima da; animak utzi dagianean, gure gorputz au ilotz geldituko da. Anima Jaungoikoak eman digu; ongi jagon, zaindu ta berriz bere jabeari biurtu dezaiogun, orretarako eman digu. Jaunaren eskuetatik irten du ta bere eskuetara itzuli bear du. Bizitza onetan irabazi duana, orduan artuko du: edo betiko zoriona edo betiko zoritxarra; irabazi duan bezela. Augatik eriotzako ordua gizasmerik geienentzat ordu estu ta larria izan oi da. Zer egin bear degun Jaunak irakatsi digu. Baina, nok daki? Bearbada, orduan otoitz eta eskari samurrez geren anima Jaungoikoaren eskuetan ipintzeko asti ta betarik ez degu izango-ta, geren animen itzultze au, Jaunaren aurrean auspaz, berak irakatsi degun bezela, orain egin bear degu.

Nere Jaun ona!, eriotzearen aurrean nere adina ilundu, nere biotza beldurtu ta zuri dei egiteko adorerik ez banu, oraindanik zere izen gozoz dei egiten dizut; entzun nazazu! Biotz larriz, gogo ilunez, burutik egiten duanaren amets gogorrez ikaratuta, zuri erruki ta barkazio eskatzeko betarik ez banu, oraindanik erruki ta barkazio eske nagokizu; arren, eman itzadazu! Eriotzako izerdi larriak nere aurpegia busti, eriotzako gabak nire begietako argia itzali dagianean, barka ezadazu; ta nire anima gorputzetik irten ditenean, arren Jauna, erruki ta maitasunez zere eskuetan artzazu. *«In manus tuas, Domine, commendo spiritum meum.»*

2.3. ANDRA MARIA<sup>729</sup>

2.3.1. *Sorkunde Garbia* (XXXVII, XXXVIII)

XXXVII

Lekeitio

SORKUNDE GARBIA

*«Multae filiae congregaverunt divitas, tu supergressa es universas.*

*Fallax gratia et vana est pulchritudo;  
mulier timens Dominum, ipsa laudabitur.»*

«Aberaskiak alaba askok batu dabez,  
baina orretan zu guztien gaisetik zagoz.  
Jasa zimarkun<sup>730</sup> eta edertasuna usteria da;

Jaungoikoaren bildur dan emakumea, auxe bai, auxe goretsia izango da.»

(Prov. 31, 29-30)

N(eure) entz(ule) mai(teok):

A(ndra) Mariaren Sorkunde Garbiko eguna laster datorkigu. Jai andi onetarako geure gogo-biotzak al bait ondoen gertu bear doguz. Asmo onegaz bederatziruena egiten diardugu; baina bederatziruena uts-utsik, beste ezer barik, gitxitxu dala dirudi. Geure batzar onen zerutar jagola dogun Ama Garbiaren Sorkundea joranez eta biotz-beroz ospatzeko, zerbait geiago egin bear dala uste izan dogu beti; augaitik, urteoro bederatziruena bitartean, norbaitek itzaldi edo sermoiak be egin dautsuez. Aurten zeregin onetarako inor ez dogu ekarri; baina ezer egin barik ezin itxi lei, bederatziruena au gauza otzegia izango litzake-ta, augaitik, gaur asita, egunero, J(aungoikoa) l(agun), zerbait eta bearbada zerbait baino geiago esango dautsuet, eta zuen gogoak bizkortu ta biotzak berotzeko alegin pizka bat egingo dot.

Eleizeak, Jaungoikoagan lenengo, baina urrengo A(ndra) Mariagan ipini dau bere uste ta itxaropena. Bere estualdietan, arerioak jagi ta

<sup>729</sup> Bigarren eskuizkribu-liburuari jagokoz gai hau dakarren berbaldiak.

<sup>730</sup> *Zimarkun*: itxurazko.



jazarten jakozanean, zapaldu nai daben bakoitzean, Eleizeak bere gogo ta begiak A(ndra) Mariagana jasoten ditu ta bere laguntza, bere bitartekotasuna eskatu ta uste betez itxaroten dau. A(ndra) Mariagan onenbesteko itxaropena, ain uste andia daukalako, urte barruan Mariaren opaz ainbeste jai ipini ditu. Eleizearen semeok, seme onak, zintzoak bagara beintzat, A(ndra) Mariaren omen, aintza ta opaz ipiniriko jai guztiak joranez, biotz-beroz ospatu bear doguz, eta onelan ospatzeko, albait ondoren gertu edo prestau bear gara. Baina Mariaren sorrera garbiko eguna, bere Sorkundeko jai beste enparauak baino be joran geiagoz, biotz beroagoz, gogo gartsuagoz, poz eta azkortasun andiagoz ospatu bear dogula deritxat. Arratsalde onetan auxe azaldu ta adierazo nai neuskizue. Albait laburtxuen eta argiroen egingo dot; bien bitartean adi egon zakidaze.

*«Multae filiae congregaverunt divitias, tu supergressa es universas.»*  
(Prov. 31, 29)

Mariaren edozein jai alaitasun eta pozez ospatu bear dogula esan dot; baina bere Sorkunde Garbia berarizko arduraz, gogo beroagoz, biotz samurragoaz, gar andiagoz ospatu bear dogu. Zegaitik ori?

Lenengo ta bein, A(ndra) Mariak berak orixe nai daukalako. Jaungoikoaren Amak ori nai badau, guri berak naiena dauana egitea dagokiguita, bere Sorkunde egunerako albait ondoen gertu bear gara ta jai ori joranez, biotz-beroz ospatu bear dogu. Zer ba? Seme-alaba onak ez ete dabe egin bear amak nai dauana? Zetarako daroazue, ba, Mariaren Alaben izena? Zeuen Ama onaren gurariak beste enparauak baino obeto egin eta betetako ez ete da? Bai! Ori ez egitekotan, Mariaren Alaben batzar edo alkargoa alperrekoa litzake.

Baina A(ndra) Mariak bere Sorkundeko jai eraspen, debozino ta biotz-beroz ospatzea nai dau; gurari ori erakutsi dau.

Bein baten, Inglaterrako erregeak Elsino eritxon abade bati zeregin andi ta astuna emon eutsan. Zeregin ori egiteko, itxasoz joan bear eban. Itxasoz joiala ekatx izugarria jagi zan eta itxasuntzia galdu-gordean, ondatzeko arrisku andian eбилan. Onetan, Elsino abadeari A(ndra) Maria agertzen jako ta dinotso: «Neure Sorkunde Garbiko jai joranez eta biotz-beroz ospatuko dozula agintzen daustazu? Jai ori beste batzuk be eraspenez, debozinoz, gogoz eta biotzez ospatu dagien lan egingo dozu? Zeure alegina ori izango dala eskintzen daustazu?». Elsinok bene-benetan, biotz-biotzez erantzun eutsan: «Andrea, neure bizitza guztian zure Sorkunde Garbia berariz ospatzeko ta nire aleginez beste askori be ospatu eragiteko asmoa daukat. Zure gurari ori, nire indarren neurritz, egin eta

beteko dot. Elsinok baietza agindu eutsanean, A(ndra) Mariak berealaxe ekatxa ixildu ta itxasoa baretu ebazan; eta Elsino Inglaterrara biurtu zanean, Mariaren naia egin, bere guraria bete ta Sorkunde eguna aurretzean egun andia, jai ospatsua izan eiten, gogoz lan egin eban. Sorkunde Garbi ta Orbangea andiro ospatzea, Mariak berak nai dauala agiri da.

Bigarren, Adanen seme-alaba guztien artean, sortzez garbia izatea Mariari baino beste inori ez dagokion zoriona da. Norbait goratzeko, beste batzuekin batera daukan gauza onen bat aitatu badaigu, ori omen, dedu ta goratze laburra da-ta, aintzat be ez dau artzen. Urليا aberatsa da, Berendia ederra da, bestea jakituna, edo Sandia ona da; au baino esan ezik, aberats, jakitun, eder eta on asko dagoz-ta, goratze txikar eta laburra egiten dogu. Baina norbaiten omen, aintza ta goran<sup>731</sup> berak baino beste inok ez daukan edertasun, ontasun goragarriren bat aitatu ezkeru, askozaz be gauza pozkarri ta atseginagoa dinotsagu, ta goratze argi ta andiagoa egiten dogu. Sorkunde Garbia, Adanen seme-alaben artean, Mariari ta bakarrik berari dagokio; zorion au berak baino beste inok ez dau euki. Augaitik, sortzez garbia dala esatea, bere Sorkunde Orbangea joranez eta garrez, gogo ta biotz-beroz ospatzea, Mariarentzat gauzarik atseginena, aintzarik ederrena, goratzerik andiena da.

Irugarren, Sorkunde Garbia, diabruaren zapuzte edo zapaltzerik lotsagarriena emakumeak irabazi ta lortu dauan garaitzarik andiena da. Izan be, Jaungoikoak sarritan azpiratu ta zapaldu eban diabru gaizkin eta arroa. Baina Jaungoiko Alorodunak, Jaunaren beso indartsuak zapaldu ta amildu arren, olantxe izan bear ebala-ta, diabrua gitxi lotsatzen zan; zapuzte ta zapalaldi orreik gorabera, diabrua arro ebulan. Baina emakume batek, sortu zan unean bertan, geiago egin, zapuztu ta jaurti ebanean, inozko lotsaririk andiena artu eban. Emakume batek bere sorreran garaitu ebala ta oinagaz burua zapaldu ta birrindu eutsala ikusirik, lotsaz gorritu ta amurruz zizkaldu<sup>732</sup> zala dirudi. Sorkunde Garbia ospatzen dogunean, Mariak lortu eban garaitza andi au ospatzen dogu; augaitik, bere Sorkunde Garbia gomutau ta ospatzea Mariarentzat gauzarik atseginena ta egin geinken goratzerik ederrena da.

Laugarren, Mariaren Sorkunde Garbiko eguna biotz-beroz, gogo biziz eta andikiro ospatzen geure asabak, geure aurretikoak irakatsi daukue. Asaba onein seme-alaba izateaz lotsatzen ez bagara, aek irakatsitako biderei jarraiturik, geuk be Mariaren jai eder au ondo baino

<sup>731</sup> *Goran*: omenez.

<sup>732</sup> *Zizkaldu*: kiskaldu.

obeto ospatzeko alegin guztiak egin bear doguz. Mariaren Sorkunde Garbia gure sinesteko egitzat Eleizeak agertu ta irakatsi baino lenago be, kistinau-erri geien-geientsuak sinesten eban, eta askok sineste onen aldez al eben guztia egiteko asmo sendoa be artu eben. Ikastetxe askotako irakasle edo maixuak, beti sineste onen aldez egongo zirala Mariaren sortze garbia sinestu ta irakatsiko ebela adierazoteko, zin edo juramentu egiten eben; ainbat erritako agintariak beste orrenbeste. Au dalata, euren asabak Mariaren sorpen garbia beti sinistu ta irakasteko zin esan edo juramentu egin ebela-ta, gaur egunean erri asko orretzaz pozta ta arrotzen dira.

Nik beste erriri ezer ez dauosat kendu, bai; bakotxak bere asabakandik datorkiozan aintza, omen, edertasun eta gauza on guztiak gomutau, jagon eta gorde begiz. Baina geure asabak, geure aurretikoak, Gernikako Batzarrean Sorkunde Garbiaren aldez artu eben erabagia baino sendoagorik, euren asmoa idatzi ta agertzeko erabili ebezan itzak baino ederragorik, itz orreitan agertzen jakun baino eraspén samurragorik, biotzeko berotasun eta gar andiagorik inon be ez dakust, inon be ez dot aurkitzen. Gernikako Batzar aetara erri bakotxetik bat edo batzuk joaten zireala ondo dakizue; augaitik, Sorkunde Garbiaren aldez orain aitaturko dodan asmo ta erabagi au artu zanean, lekeitiarren batzuk be an izan zirala zetan esan be ez da. Eleizeak Mariaren Sorkunde Garbia gure sinesteko egitzat irakatsi baino eun eta amazortzi urte lenago, mila zapiureun eta ogeta amaseigarren urteko maiatzaren amaseian artu zan erabagi au; baina erabagi utsa, gauza andirik ez litzake, beste erri batzuk be orrelako erabagia artu eben ezkerero. Orretarako idatzi ta erabili ebezan itzak oneik dira entzungarri; itz orreik erakusten daben biotzeko gar eta berotasuna, au da benetan gomutagarri. Entzun egizue, entzutekoak dira-ta:

Jaungoikoaren Ama, aingeru ta gizonen Andra Erregina dan Mariaren Sorkunde, garbi ta orbanbakoa izan zala apal-apalik sinistu dogu ta eraspén beroz, maitasun andiz, biotzeko zintzotasun osoz beti jagon eta aldeztu dogu. Ama samur au Bizkaiaren zerutar Jagola ta berarizko Zaintzaile izan dalako, ta bere bitartekotasun altsuaz orain arte lagundu gaituan Andra agurgarri onek, sortzez garbia, lenengo unetik orbagea dan Ama laztantsu onek, aurrerantzean be lagunduko gaituala uste dogulako, Batzar onetan batu garean aldun guztiok geure izenean eta Bizkaiko eleizate ta uri guztien izenean, baita eleizate ta uri orreitan bizi diran auzo guztien eta bakotxaren izenean be, Jaungoikoari agindu ta eskintzen dauzagu beti, edonoz eta edonon, Mariaren Sorkunde Garbiaren aldez egongo gareala ta ain maite dogun sineste oni gogoz eta biotzez, geure al izate ta indar guztiaz eutsi ta iraunazoko dauzogu.

Orain artu dogun asmo ta erabagi au Bizkaian zeatz eta zintzoro

bete dedintzat, Batzar osoak, biar goizean emen Gernikako Andra Mariaren eleiza onetan esango dan meza nagusian, Batzar osoak Bizkaiko erri, uri ta auzo guztien eta bakotxaren izenean, zin edo juramentu egin begi, asmo ta erabagi au zintzoro beteko dala adierazoteko.

Bardin, urte birik bein autu ta ipinten doguzan agintari biak, euren zeregin ori asi orduko, Bilbon S(an) Inazioren eleizan esaten dan meza nagusian, orain Jaunari egin dautsagun eskintza au barriztauko dabe ta orretarako barriro zin edo juramentu egin begie. Onelan, mundu guztiak jakin dagian Bizkaiko semeak Mariaren Sorkunde Garbia aldeztu ta jagoteko beti gertu ta prest egon dirala ta aurrerantzean be biotzik beroenaz eta maitasunik samurrenaz sinetsi, aldeztu ta jagon nai dabela. Orain artu dogun erabagi au, orren ezaugarri betikoa, Bizkaiko atxak baizen sendoa izan bedi».

Esan eta egin, urrengo egunean meza nagusiaren jarrai, guztien pozez, gurari biziz, joran andiz bete zan aurreko egunean arturiko erabagia. Urte birako autu ebezan agintari biak, guztien aurrean abadeak aurkeztu eutsen kurutzeari mun egin, eskuak Ebangelioen gainean ipini ta euren zin eta enparauen izenean esan, juramentu egin eben, eta Batzar guztiak zutinik eta pozez beterik baietz erantzun eban; jatorrizko pekatuak ikutu barik, bere izatearen lenengo unetik orbangea izan zan Ama maite onen Sorkunde Garbiaren alde egiteko ta ekiteko gertu egozala ta beti gertu ta prest egongo zirala.

1736garren urtean Jaunari egindako eskintza au urte birik urte bira, uts barik, barriztau zan, Eleizeak Mariaren Sorkunde Garbia gure sines-teko egitzat irakatsi eban arteraino.

Erabagi au artu ta eskintza au egin ebenak, abade edo praileren batzuk ete ziran? Bai zera! Itz samur orreik, biotzeko berotasun eta garra, A(ndra) Mariagazko maitasun sutsua iragarten daben itz orreik idatzi ebezanak, emakume eleizkoiren batzuk ete ziran? Ez! Erabagi ori artu ta Sorkunde Garbiaren aldez ain itz ederrak idatzi ta ainbeste joran, eraspen eta gar erakutsi ebenak erriko gizonak ziran. Orduko gizonak gaur egunekoak baino kistinau zindoagoak ziran, sinismen biziagoa euken, A(ndra) Mariari maitasun geiägo eutsen! Mariaren Sorkunde Garbiko jaia zelan ospatu bear dogun geure asaba orreik argiro erakutsi dauskue. Aek euken maitasun bero-gartsua geure biotzetan bageunko, jai onetarako askoz obeto gertuko ginakez, jai au askoz obeto ospatuko geunke. Zer egin bear dogu? Zer? Orbanak kendu, gogoak garbitu, biotzak berotu, Mariagazko eraspenaren sua biztu, ixiotu... geure barrenetan.

## 2.3. ANDRA MARIA

### 2.3.1. *Sorkunde Garbia* (XXXVII, XXXVIII)

## XXXVIII

### SORKUNDE GARBIA: EMAKUMEEN JASOTZAILEA

*«Tu gloria Jerusalem, tu laetitia Israel, tu honorificentia populi nostri.»*

«Jerusalengo aintza, Israelgo poza,  
gure erriaren dedu ta edergarririk onena zu zara.»

(Judit 15, 10)

N(eure) entz(u)le) mai(teok):

A(ndra) Mariaren Sorkunde Garbia ospatzen dogu gaur. Gugaz batera lur zabal guztian Eleizearen seme-alabak jai eder au andiro ta pozez beterik egin eta ospatzen dabe. Ainbeste gizaseme ta emakume, sineste ta asmo bardinez, gogo ta biotz bat eginik sorpen garbia goratzeko, Ama garbi oni euren lotsa, itzal eta maitasuna erakusteko, Mariaren oinetan auspazten dira gaur.

Betuliarrak euren Judit, emakume garbi, zintzo ta biotz andikoari esan eutsena, Eleizearen seme-alabok A(ndra) Mariari, sortzez garbia dan Ama samur, zintzo ta biotz andiko oni, zuzenago ta askozaz obeto esan geinco: *«Tu gloria Jerusalem, tu laetitia Israel, tu honorificentia populi nostri.* Jerusalengo aintza ta omena zu zara. Eleizearen atsegin, alaitasun eta poza, gure erriaren eta batez be, gure erriko emakumeen dedu, gorantzi, edergailu ta apaindurarik onena, zu, sorkunde z garbia zarean Ama laztan, eregi ta goretiori zara.»

Betuliarren aintza ta poza, edergailu ta omen argia izan zan Juditek, zer egin eban? Olofernes, Betuliako uria inguratua, moltzoan artuta euken arerioen buruzagia il; etsaien agintari oni samea ebagi, burua kendu ta betuliarrak arerioen menpean jausteko arriskutik atera, lotsari ta eriotzatik gaizkatu edo salbau. A(ndra) Mariak bere sorkunde garbian Olofernes baino arerio gaiztoagoari, deabru arroari burua zapaldu eutsan eta guztiok, baina emakumeak batez be, diabruaren menpetik eta gizartean erioen joputza lotsagarritik atera, gaizkatu edo salbau ebazan.

Ezin geiagoan jausita, ostikoperatuta egozan emakumeak, barriro ego-  
kioen mailara jaso ta eregi ebazan eta gizartean zeregin andi ta ardura-  
tsuetara dei egin eutsen. Augaitik, Sorkunde Garbiko eguna, guztioentzat  
ain pozkarri dan jaia, emakumeentzat jairik andi ta gomutagarriena da.

A(ndra) Mariari eskar onez erantzuteko, zuek emakumeok, berak  
jaso ta eregi zinduezan emakumeok, gizartean daukazuezan eginen andi  
ta arduratsuak zintzoro bete bear dozue. Arratsalde onetan adierazo nai  
neuskizuen, orixe da. Gogo onez eta arretaz entzudazue.

*«Tu gloria Jerusalem, tu laetitia Israel, tu honorificentia populi nostri.»*  
(Judit 15, 10)

N(eure) entz(u)le mait(e)ok, Sorkunde Garbiaz zer adierazo nai  
dogun guztiak ez dabe zuzen ulertzen, ez dabe ondo aitzen. A(ndra)  
Mariak bere bizitza osoan oben, pekatu edo utsegiterik ez eban egin;  
bere gogo ta biotza orbanik txikienaz be ez ebazan inoz ezaindu, eta  
bere bizitzan inoz orbandu ez zalako, Sorkunde Garbia aitatzen dogu-  
nean, orixe Mariaren bizitzako orbanik ez ori, garbitasun ori adierazo  
nai dogula uste izaten dabe batzuk; baina onetan oker dagoz. Egiz,  
Mariaren bizitza osoko garbitasun osoa, gauza andia, Jaungoikoaren  
eskar bikaina ta zorion ezin andiagoa da; baina bizitzako garbitasuna ta  
Sorkunde Garbia gauza bi dira ta bata-besteaz ez dira nastau bear.

Beste batzuk, Mariaren Sorkunde Garbia aitatzen dogunean, jaiotza  
garbia adierazo nai dogula uste izaten dabe. Zinez, Mariaren jaiotzea  
garbia izan zan; baina jaiotza garbia ta Sorkunde Garbia gauza bi dira  
eta alkarrekin ezin bardindu leiz. S(an) Juan Bateatzailea be jaiotzaz gar-  
bia izan zan; oraindik bere amaren sabelean egoala, A(ndra) Maria  
S(an)ta Isabel bere lenguseina ikustera joan zanean, Jaunak jatorrizko  
orbanetik garbitu ta bere eskar edo graziz apaindu eban. Augaitik, bagi-  
laren 24an S(an) Juanen jaiotzea ospatzen dogu, irailaren 8an A(ndra)  
Mariarena ospatzen dogun lez; baina S(an) Juanen sorkunde egunik ez  
dogu ospatzen, bere jaiotzea garbia izan arren, bere sorkundea garbia  
izan ez zalako. Baina Maria, oster, jaiotzaz lez sortzez edo sorkundez  
be garbia izan zan, eta bietan garbia izan zalako, bere jaiotza ta bere sor-  
kundeko egun biak ospatzen doguz: irailaren 8an bata, gaurko egunez,  
abenduaren 8an bestea.

Gure lenengo gurasoak Jaunaren legea ausi ta oben egin eben;  
orbandu egin ziran. Orban ori aen seme-alaba guztietara jatorriz, sortzez  
zabaltzen da; baina geure lenengo gurasoakandik datorkigun eta sortzez  
zabaltzen dan orban au Mariagana ez zan eldu, orban orrek ez eutsan  
ikutu, ez eban kutsutu. Jaunak —errez eban-da— orban orri aureak artu

etsazan; legez, bidez Mariari be ikutu, bere arimea be kutsutu bear eban, baina Jaunak bere Amatzat autu eban emakume onen aldez mirari bat egin eban: berak ipiniriko legea ausi eta bere graziaren bidez jatorrizko orban orrek Mariari ikutzea galerazo, eragotzi egin eban Jaunak. Augaitik, Maria sortzez orbanbakoa da ta orixegaitik ospatzen dogu bere Sorkunde Garbia.

Adanek, gure lenengo aitak, pekatu egin ez baleu, bere seme-alabok jatorrizko orbanik ez genduan izango; baina lurrean egin zan lenengo oben edo pekatu aretan gizonak baino be emakumeak erru geiago euki ebala dirudi, berak lenengo pekatu egin eta gero gizonari be pekatu eragin utsolako; augaitik, gizona baino askoz berago jausi zan emakumea ta buztarri gogorra ekarri eban bere gainera: A(ndra) Maria ta Jesukisto etorri arte, ezetariko eskubide barik, aberea bailitzan, joputza lotsagarrian ikusi eban bere burua; baina A(ndra) Mariak lengo mailara jaso ta eregi eban eta gizartean eginen andi eta bikainak emon dautsaz.

Emakumeak euren eginen andiak ondo beteko balebez, guztiak zindo, zintzo, kistinau on eta garbiak balira, gizartea dabilen baino zuzenago ibiliko litzake; gizonai be zindo, zintzo, obak eta garbiagoak izaten irakatsiko leuskioe. Emakumea berez bigun, samur eta auskorra da; baina gauza onak egin eta inori eragiteko sarritan gizonezkoak baino askoz be antze ta trebetasun eta indar geiago daukaz. Ebaren alaba asko ta Mariaren Alaba gitxi dagozalako, orixegaitik kistinau-errietan be Jaunaren legea sarri ostikopean dabil; Mariaren Alaba zindo ta zintzo asko balegoz, Jaunaren legeak daukan baino indar geiago, agintza sendo ta zabalagoa eukiko leuke. Eginen andi onetan emakumeak asko lagundu leikegue, eta orain dauken mailara eregi ebazan A(ndra) Mariari eskaronez erantzuteko, zintzoro lagundu bear dauskuela deritxat.

A(ndra) Maria dontzeila, emazte ta ama izan zan, eta iru bizibide oneitan dagozan emakumeai, neskatilai, emazteai ta amai jarraibide eder-ederrak emon dautsez. Neskatilak Mariak erakutsi dautsen garbitasuna biotzez maite balebe, garbitasun ori, euren apaindurarik ederrena dalako, ardura andiz jagon eta zainduko balebe, soinekoetan, josaletan, autuetan garbitasunaren maitale agertuko balira, mutilak be garbitasuna geiagotan eukiko leukie, lotsa obekoak izango litzakez, pekatu asko eragotzi ta galerazoko litzakez, eta garbitasunak gizartean agintze andi ta zabalagoa eukiko leuke. Emazteak benetan emazte izaten balekie, senarrak, gizonak be sarritan izan oi diran baino obak eta etxezaleagoak izango litzakez; amak euren zeregina ondo bete, ume gaztetxuen arduraga geiago euki, samurrak diran bitartean ondo ezi ta euren biotz bigunetan onoimen edo birtuteen aziak ereingo balebez, gizartea, dan baino ohea laster izango litzake.

Emakumeen eginena orixe da. Eginen au ondo baino obeto bete dabenak Eleizan asko izan dira. Gomutau egizue, garbitasunari orbanik ez ezartearren, bizitza latza egin, neke andiak jasan eta eriotzarik gogorrena artu eben neskatilak. Garbitasun osoaren alde, euren bizia oinazetik andienetan galdu eben neskatilak, gaur altaretan gurtzen doguzanak, guztiz asko dira; mundua itxi, bakartegietara<sup>733</sup> joan, kobentuetan sartu ta bizitza latza egin dabenak, askozaz geiago. Oneik euren bizike-reaz beste enparauai garbitasunaren aldin, balio ta edertasuna irakatsi dautse; gizartean eta Eleizan garbitasunaren argi bizia ta usain ederra zabaldu dabe. Gomutau egizue zenbat emazte izan diran sineste galduko gizona sinestera ekarri, senar gaiztoa ondu ta bere biotza Jaungoikoa arentzat irabazi dabenak. Gomutau egizue zenbat ama egon diran Eleizearen lenengo egunetatik ona, euren umeak, seme-alabak, lurrerako baino ardura andiangoaz zerurako azi dabezenak. Eleizearen aintza ta omena, argi ta edertasuna oneik izan dira. Betuliarrak Juditeri esan eutsena guk onei guztioi ta baktxari esan geinkeoe: *«Tu gloria Jerusalem... Eleizearen aintza, kistinauen poza ta gure erriaren dedu ta edergarririk onena zuek, A(ndra) Mariaren oinatzai jarraitzen dautsezuen emakumeok izan zare»*.

Erromako jolastokietan gizonak lez emakumeak be basapiztien ekandu, oitura, gurari ta izakerea artu ebezan. Katamotz<sup>734</sup>, leoi ta leoiarre<sup>735</sup> jopuen eta kistinauen gorputzak agin eta erpeakin urratu, zaitu ta birrintzen ebezanean, gizonak lez emakumeak be poza erioela zutinduten ziran; txaloka ta diadarka euren poza agertzen eben, eta ikuskizun negargarri ori arinegi, lasterregi amaitzen bazan, euren atsekabe ta amurrua be erakusten eben. Zinez, au ez da emakumeen zeregina; gizonena be ez da, ta emakumeena anbat gitxiago. Emakumeen zeregina zein dan jakin nai badogu, Kalbarioko mendiak erakutsiko dasku. Jauna kurutzean josita dago ta kurutzearen oinean S(an) Juan Apostoluagaz, Jesukistoren biotzeko maitasuna beste inok baino obeto ezagutu eban ikasleagaz batera, iru emakume, iru Maria idoroko doguz: Maria, Jesusen Ama, Maria Kleofasen ama, ta Maria Madalenea. Erromako emakumeak ango jolastokietan biotz gogorra ta gorrotoa erakusten dabe; beste iru emakume onei errukiorrak deritxogu. Kurutzearen oinean Jesusen odolak euren biotzak bigundu, samurtu dautsez eta erruki, samurtasun eta maitasunaren jabe egin dira. Emakumeak euren eginena zein dan, ementxe, gurutzearen oinetan, ikasi dabe.

<sup>733</sup> *Bakartegi*: bakarleku.

<sup>734</sup> *Katamotz*: tigre.

<sup>735</sup> *Leoiarre*: lehoiabar.



Emakume errukiorrak, Juan Apostoluagaz, Jesusen Biotzeko maitasuna ondoen ezagutu ta gizartean zabaldu bear eban ikasleagaz batera dagoz. Maitasunaren apostolua ta emakume errukiorrak gurutzearen oinean alkartu dira. Zetarako? Apostolui euren zereginetan emakume errukiorrak lagunduko eutsela adierazoteko. Orretarako dagoz an; eta Jaunaren azken itzak, San Joanegaz batera, dantzuez, azken arnasak dakusez, azken odol-tantak euren biotz-gainetan artzen dabez. Augaitik gero, gizartea Jaungoikoagana biurtzeko lanetan, apostoluak emakume on eta errukiorrak laguntzat artu ebezan, eta Jerusalem, Antiokia, Tesalonika, Erroma ta beste erri askotan emakumeak apostolui gutziz asko lagundu eutsen.

Emakume samur ta errukiorrak ezkutau ebezan sarri apostoluak, are-rioen eskuetan jausi ez eitezan. Emakume orrein etxeak izan ziran lenengo eleizak, orrein etxeetan egiten ziran, geienez, lenengo kistinauen batzarrak, eta mundua berotu eban garra, batzar aetatik urten zan. Emakumeak, bakotzak al ebana eginik, euren etxeko, senide, aide ta ezagunen artean lan andia egin eben, ta apostolui euren lanetarako bidea erreztu ta zabaldu eutsen.

Ona emen emakumeen eginena; ona emen, emakume askok Eleizearen aintza, omen eta edergarria izan diran emakume askok egin dabena. Gaur egunean be, emakumeak, euren biotz samur eta errukiorra dala-ta, indar andia dauke. On asko egin leie; etxeko, senide ta ezagunen artean asko lagundu leikegue; euren samurtasunaz, euren biotzetako maitasunaz, besteen biotzak irabazi daikiez. Eginen andi ta ederra da au. Bakotzak al dauantxua egin ezkeru, zuen izatea jaso ta egokion mailan ipini eban A(ndra) Mariari eskar onez erantzungo dautsazue; Mariak emondako eginena, Mariaren Alaba ta jarraitzaile izan diran emakume askok bete daberen zeregin au beteko dozue, eta aetzaz esan dana zueztaz be esan al izango dogu: *«Tu gloria Jerusalem...»*.

## 2.3. ANDRA MARIA

### 2.3.2. *Andra Mariaren jaiotzea* (XXXIX, XL, XLI)

## XXXIX

Natxitua<sup>736</sup>

### ANDRA MARIAREN JAIOTZEA

*«Suscepimus, Deus, misericordiam tuam, in medio templi tui.»*

«Zure errukia, Jauna, zeure eleizan artu dogu.»

(Ps. 47, 10)

N(eure) e(ntzule) m(aiteok):

Gaur Natxituan, berarizko jaiia egiteko asmua zeunkiela-ta, jai onetarako itzalditxu bat eskatu eustan zuen abadeak. Jai au zegaitik eta zetarako egiten dan, nik baizen ondo edo obeto dakizue. Eleiza au azkenengo emen egon nintzanean baino apain eta dotoreago dakust. A(ndra) Mariaren irudiak, antxina-antxinatik natxituarren Jagoła dan zeruko Amaren irudiak be, kamarin edo gelatxu barri apaina dauko. Orretarako norbaitzuk eskua luzatu ta dirua emon dabe. Eleiza au, erriko eleizea da-ta, natxituar guztiok zeuena dozue; origaitik, lanok egiteko eskua luzatu dabenai, natxituar guztioen orde, eskarrak emon bearrean nago. Eskarrak emotea gauza atsegina da-ta, emengo abade, erritar guztien eta neure izeneari zor jakezan eskarrök, gogoz eta biotzez emoten dautsuedaz ongile orrei.

Eskua luzatu dabenok inoren txalo bila, munduko sari bila ibili diranik ez dot uste; gogo ta biotzak gorago irakorri, jaso ta eregi dabezala deritxat. Jangoikoa ta zeruko Amagazko maitasunak, orrexek eskua luzatuazo dautse-ta, euren egite on ori Jaunak eta A(ndra) Mariak sariztau ta ordainduko dautsee. Baina guri be geure eskar ona erakustea dagokigu eta, gaur ongile orrein alde eskatu bear dautsagu on guztien

<sup>736</sup> Jatorrizkoan: *Natxitu*.

emoile dan Jaunari. Orrelan, geure eskar ona erakutsiaz, zorra ordaindu ta geure eginbearra beteko doguz.

Jangoikoak be eskar oneko biotzak nai ditu. Egiz, ainbeste mesede egin dauskuzan Jaunak gure eskar onaren eskubide osoa dauko, ta eskar onekoak izan gakiozala ainbeste bidar esan dausku: «*Grati estote* –dino S(an) Paulo Apostoluak–. Eskar onekoak izan zaiteze». Eta beste bein: «Gauza guztietan Jangoikoari eskarrak emon egiozue, daukazuezan on guziak berak emonak dozueztan. *In omnibus gratias agite*» (I Thes. 5, 18).

Jangoikoari eskar ona erakusteko era ta bide asko dagoz; baina eleizea Jangoikoaren etxea da-ta, bere etxe au garbiago, apainago, dotoreago ipiniaz be geure Jaunari eskar ona erakusten dautsogu. Eleizea apainago ipini dozue; zeruko Amaren irudiari be gelatxu barria egin dautsazue. Eleizea ta batez be erriko eleizea zer dan eta zetarako dan, eta Poz-ekarle aren izenaz zuen antxinako asabak or, altara nagusian ipini eben A(ndra) Mariaren irudi ori natxituarrentzat zer dan, orrexek iru gauzok adierazo nai neuskizueztan... Orretan asi baino len...

## I

Eleizea Jangoikoaren etxea da. Zinez, Jangoikoa leku edo toki guztietan dago. Zeru-lurren Egile ta Jabe da-ta, zeru-lurrak Jangoikoaren anditasun, omen, aintza edo gloria iragarri ta adierazoten dauskuez. Baina Jangoikoak bere anditasun, edertasun eta ondasunak, an goian, zorionsuen zeru-ederrean berariz agertzen dituan lez, olantxe lurrean be Jaunak bere erruki ta ontasuna eleizan berariz agertu ta erakusten dauskuz. Augaitik, eleizea Jangoikoaren etxea da.

Geure Jangoikoa edonon jauretsi ta gurtu geinke; gure otoitz, errege ta eskariak be edonon entzuten ditu. Baina Jangoikoa gurtu ta geure errege ta eskariak egiteko, berarizko lekua, orretarako berenberegi egin, eleizea da. Augaitik be, eleizea Jaungoikoaren etxea da.

Jangoikoa, Jangoiko danez, azken eta amaibako izatea da-ta, Jangoikoa barruan artu leiken eleizarik ez dago. Baina Jesukisto gure Jauna, gizon danez be, geugaz dago; mirariz bai, baina Altarako Sakramentuan egiz eta benetan dago. Augaitik be, eleizea Jangoikoaren etxea da. Jesukisto gure Jauna Altarako Sakramentuan egiz eta benetan dagoalako, eleizeak Belengo Aterpea dirudi; altareak ango askatxua, ostia santuak Jesusen jaiotzea, meza-emoileak A(ndra) Maria, Meza entzuten dagozanan S(an) Jose ta artzainak dirudie.

Eleizea Jangoikoaren etxea dalako, eleizak egin nai apainduaz Jangoikoaren gogoko dan gauzea egiten dogu; Jaunari atsegin emoten dautsagu eta Jaunak orren orde z mesede andiak egiten daki. Antxinako legean, Jerusalemgo eleizea egiteko bear ziran gaiak, diru ta enparauak, Dabit erregeak batu ebazan eta a, lenengo eleiza ederra, ederrenetan be ederrena, Dabiten seme Salomonek egin edo iragi<sup>737</sup> eban; bigarrena, Zorobabelek. Andra Maria ta Jesukisto gure Jauna, orrein ondorengoak, orrein odolekoak izan ziran ta, eleizea egin eutsoen orrei Jangoikoak mesede andia egin eutsela, sinestedun gizonak ezin ukatu leike.

## II

Geure erriko eleizea batez be, guztiok eta bakotzak aintzat artu ta gogoan euki bear geunke. Antxe bateatu ginduezan, antxe jaiio ginan graziatzko bizitzara, antxe egin ginan Jangoikoaren seme, antxe lortu gendun zerurako eskubidea. A(ndra) Mariak eta S(an) Josek Jerusalemgo eleizan lez, guk be geure eleizan aurkitu dogu Jauna, antxe emon dausku geure pekatuen parkapena, antxe etorri da gure biotzetara. Il gaitzanean be, elizkariak antxe egingo dauskuez eta il ta gero be, gure gomutea bizi dadin gure ilobi edo sepulturan argia biztuko dabe.

Geure gogo ta biotzak, geure asmu ta gurariak eleizara sarriago zuzendu bear geunkez; kistinau-erriaren biotz, eleizeak izan bear leuke. Gu salbetearren gizon egin zan Jangoiko Semea, geure maitasun andiz, geure artean daukagu, lurrean geugaz dago, Altarako Sakramentuan dago, eta eguzkiaren argia lurrera datorren lez, Aita Jangoikoaren maitasuna be zerutik altara, bere Seme maite-maiteagana dator. Jauna Altarako Sakramentuan mirarizko eran dago-ta, begiz ezin ikusi geinke, baina ortxe dagoala geure sinesteak dinosku. Ezkutuan dago, baina egiz eta benetan dago ta Altarako Sakramentuan geugazko maitasunak dauko. Ori dala-ta, kistinau gareanez guk be biotzetako maitasuna orraxez zuzendu bear geunke; geure izate ta bizia, daukagun guztia zor dautsagun Jaun altsu, errukior eta maitalea ortxe dago-ta, eleizeak kistinauerriaren biotz izan bear leuke.

Jaungoikoagaz daukaguzan eginbearrak betetako, orretarakoxe da eleizea; otoitz, erregu edo orazino egiteko etxea. Jerusalemgo eleizan saldu-erosian ebiltzanai esan eutsen Jaunak: *«Domus mea domus orationis vocabitur.* Nire etxea, erregu ta orazinoaren etxea da, ta zuek lapur-

<sup>737</sup> Iragi: eregi.

zulo egin dozue. Ken emendik!» Eta zigorra eskuan ebala, jaurti ebazan kanpora. Eleizea orazinoaren etxea da-ta, biotz garbiz eta asmu zuzenez etorri bear da eleizara. Jangoikoaren jauregia da-ta, ixilik, lotsa ta itzal andiz egon bear da eleizan. Alboetara adi ta barriketan ibilteko tokia ez da, sinesmen biziz eta apaltasun andiz Jangoikoari geure eskariak egiteko tokia baino. Augaitik, eleizara gatozanean, Jangoikoaren etxera gatzala gogoratu bear dogu ta eleizan bertan Jangoikoari zor dauzagun lotsarik ez galdu. Geure sinesmena biztu, Jangoikoaren aurrean gagozala, Jauna beste inon baino adiago daukagula sinestu ta geure erregu ta eskariak apaltasunez, baina uste betez zuzendu bear dauzaguz. Eleizea orixe da ta orretarakoxe da: Jangoikoaren etxea ta Jaunari erreguak egiteko berarizko tokia.

### III

Natxituko eleiza au lenengoz 1430garren urtean eregi zala, gero txikiegi eretxita-edo, 1611garrenean andiagotu egin zala irakurtzen dogu. Mariaren irudi txiki baltzaran ori egundo lenengo altara nagusian ei egon, baina gero ortik kendu egin ei zan. 1700garren urtean mixinoak izan ziran Natxituan; Agirre irakaslea ta Artakoz bere laguna, mixinolari. Lenengo mixinolari orren eskabidez, emeko auzo askok auxe autortu ei eben: guraso ta asabai entzun eutsenez, Andra Mariaren irudi txiki baltzaran ori elorri edo arantza baten agertu zala, lenengoan altara nagusian egoala, baina gero, eleiza onetako patroï zan Pedro Arteaga jaunak Italiatik beste irudi andi ta ederrago bat ekarri ebanean, irudi barri ori altara nagusian ipintearren, lengo txiki ori ortik kendu egin zala; antxinako irudi ori txiki ta zarra be bazala-ta, Arteaga jaunak eortzi edo lurpean sartzea nai izan ebala, baina emeko auzo batzuk ori egiteari ez eutsuela ondo eretxi, txarto baino, eta txarto eretxi eutsoelako, S(an)ta Agedaren altaran berarizko tokitxu bat egin eta antxe ipini ebala. 1700garren urtean emeko auzo askok orixe esan eta autortu eben. Orduan mixinolarien eskabidez eta guztien eretxiz, antxinako irudi ori barriro altara nagusira ekarri zan. Arrezkero or dago, ta orain gelatxu apain eta dotorea be badauko, lan ori egiteko eskua luzatu dabenaï eskarrak.

Irudi ori txikitxua bada, izan; baina A(ndra) Mariaren jaiotzea adierazoten dau-ta, orretarako egokia da. Poz-ekarlearen izena ipini eutsoen antxinako natxituarrak, eta izen ori ondo datorkio. Zegaitik? Mariaren jaiotzea gizaseme guztientzat pozkarri izan dalako. «Zure jaiotzeak, Jangoikoaren Ama Garbia, mundu guztiari poz andia ekarri dautso

–dino Eleizeak–. *Nativitas tua, Dei Genitrix Virgo, gaudium amuntiaavit universo mundo.*» Eta egiz, A(ndra) Mariaren jaiotzeak argi-urratzea, egunsentia dirudi. Edonorentzat, baina nekez eta lorrez, geixo ta minez dagozanentzat batez be, egunabarra<sup>738</sup> gauza pozkarria izaten da. Ogetalau orduan bein ikusi geinken egunsenti ori, urtean bein-edo baino ez baletor, gau luze orren ostean, dan baino be askozaz pozkarri, eder eta zoragarriagoa eretxiko geunskio. Orain ba, gizasemeak aldi luzean, ainbeste urtetan, ilunpean eta eriotzearen gerizapean egozan, *«In tenebris et in umbra mortis»*, Zeruko bidea galduta ebiltzan, zer egin eta nora jo ez ekien. Argia bear eben. Eguzkiaren zeregina egiteko, gizonen gogo ta arimak argitzeko, etorri zan lurrera Jangoiko Semea; baina gizon izateko, Ama bear eban eta orretarakoxe autu eban Jangoikoak A(ndra) Maria.

Gorputzeko begientzat, eguna eguzkiaren argiak dakar; goiko zorionerako eginak diran gure arimentzat, eguna Jangoiko Semearen argia da. Baina zeruko bidea argitu dauskun zuzentasun eguzkia, Jesukisto gure Jauna, Aita Jangoikoaren Seme ta A(ndra) Mariaren Seme da. Eguzkiaren aurretik datorren egunsentiak egun osoa be laster datorrela adierazoten dauskun lez, olantxe A(ndra) Mariaren jaiotzeak be zeruko eguzkia, Jangoiko Semea lurrera baetorrela adierazo eban; augaitik, Mariaren jaiotzeak, or, sinesteak iragarten dauskun izatez goitiko mundu ortan, poza dakarren egunsenti argi ta garbi, eder eta zoragarria dirudi. Au dala-ta, Mariaren jaiotzea adierazoten dauskun irudi orri antxina-ko natxituarrak Poz-ekarlearen izena ondo ipini eutsoen.

Ainbeste gizalditan zuen aurretiko asabak irudi orren aurrean auspazu dira; Zeruko Amari euren erregu ta eskariak irudi orren bidez zuzendu dautsez. Gaur ilobietatik jagi ta ona baletoz, Ama samur origandik lortu dabezan mesedeak eta etorri jakezan pozak esan eta adierazoko leuskiguez. Aen ondorengoak, aen odoletikoak zariela gomutau egizue eta seme onai dagokienez, zuen guraso ta asabak aienbeste maite eben irudi ori zuek be maite izan egizue; aek lez zuek be zeruko Ama laztantsuari zeuen eskariak irudi orren bidez zuzendu egiozuez. Argazkiak<sup>739</sup> papel zati bat baino ez dira izaten; ori ta guzti be, geure maiteen irudia antxe ikusten dogulako, aintzat artzen doguz, lotsa ta itzalez erabili ta maitasunez begiraten doguz. Irudi ori be A(ndra) Mariaren ekantza<sup>740</sup> dalako, zeruko Ama gomutara dakarskulako, orixegaitik aintzat artu ta itzalez eta maitasunez begiratu bear dogu.

<sup>738</sup> *Egunabar*: egunsenti.

<sup>739</sup> [*Argazki*: erretratu.]

<sup>740</sup> *Ekantza*: irudi.

Geure erregu ta eskariak irudiari ez dauztaguz egiten, irudiak gomutara dakarskunari baino. A(ndra) Mariaren irudiaren bidez eta ori begien aurrean dogula, geure eskari ta erreguak zeruko Andra gurgarri eta Ama samurrari zuzentzen dauztaguz eta eskari orreikaz, A(ndra) Mariaren biotza irabazi nai dogu; baina A(ndra) Mariaren biotza geure alde irabaztea guretzat osasungarri da.

Aita Jangoikoaren aurrean gure bitarteko ta laguntzaile, Jesukisto geure Jauna dogu: «*Unus mediator Dei et hominum, homo Christus Jesus*», dino S(an) Paulo Apostoluak. Baina Jesukisto gizon ezeze Jangoiko be bada-ta, Jaun orregana urreratzeko be beste bitarteko bat bear dogu. Orretarako bitartekorik onena, egokiena, nor izan daiteke? San Bernardo eleizako irakasle andiak dinosku: *Advocatum habere vis et ad ipsum*. Zer? Jesukistogana urreratzeko be bitartekoa nai zeunke? *Ad Mariam recurre*. Mariagana zuzendu zaitte. Eta izan be, A(ndra) Maria Jangoikoaren Ama eta batera geure Ama dalako, Jesukistogaz bakeak egin eta Jaunagandik mesedeak jadesteko, gizasemeak daukagun bitartekorik onena Andra agurgarri ori da. «Gure alde zerbait eskatu dagianean –dino S(an) Bernardok– Semeak Amari entzungo dautso, Aitak Seme-ari be bai, eta onelan, A(ndra) Mariaren biotza geure alde irabazi badai-gu, Jangoikoak gure eskariak abegi onez artuko ditu ta geure arimen osasun eta zorionerako bear doguzan eskar, grazia ta laguntasunak esku-zabalez emongo daukuz.» Augaitik dino San Bernardok berak: «Pekatoriok zerura igoteko daukagun mailadi edo eskeilarea, gure usterik andiena, gure itxaropenik sendoena, A(ndra) Maria da. *Haec peccatorum scala, haec mea maxima fiducia est, haec tota ratio spei meae*».

Bitartekorik onena dogun Ama samur orren irudia, emen, Eleizan gelatxu apainean ipini dozue. Ori ondo dago, baina naiko danik ez neuke esango. Ebanjelioak dinoskunez, gure biotzak be Jangoikoaren eleizak dira, eleiza biziak, eta geure zeruko Amari biotzetan be toki apain eta garbia emon bear dauztagu. Zeruko Amak maite gaitu, guk be maite-maite izan daigun eta maitasun orren bidez Ama onaren gomuta laz-tana beti geure gogo ta biotzetan erabili daigun. Zuen aurretiko asabak A(ndra) Maria eleizate onen Zaindari ta Jagolatzat autu ebenean, zeruko Amagaz egiunea<sup>741</sup>, alkartasuna egin eben. Erri ta eleizate onetako auzoak zaintzeko ardurea A(ndra) Mariaren eskuetan ipini eben; baina orretarako, eurak eta ondorengoak be seme leial, menpeko zindo ta zintzoak izango zirala agindu ta eskini eutsoen Jangoiko ta gizonen Amari. Egiune orri, alkartasun orri eutsi daiogun. A(ndra) Mariak ausi ez dagian,

<sup>741</sup> *Egiune*: hitzarmen.

geuk be ez daigun ausi. Orretarako gaiztakeririk ez egin, bide dongee-tatik ez ibili, pekatuak eta orrako bideak itxi; asmu zuzenai eutsi, kistin-au onak lez bizi, ta Mariaren seme-alaba zintzoak izan gaitezana. Eta guk ori egin ezkeru, zeruko Ama onak zainduko gaitu, Jangoikoaren aurrean bitarteko ta laguntzaile izango dogu, eta geure arimen betiko osasuna egiteko bear doguzan erruki ta mesedeak lortuko dauskuz.

Auspaztu gaizan, ba, Ama laztantsuaren oinetan eta beragaz beti zintzo ta leialak izateko laguntasuna eskatu daiogun. Ama samur ori, Jaunaren aurrean bitarteko izan zakiguz eta geure arimen betiko osasuna egiteko bear doguzan eskar edo graziak lortu eiguzuz; zeure magalpe gozo orretan artu ta bizitzan eta eriotzan arduraz zaindu gaizuz, zeu jagola, laguntzaile ta bitarteko zaitugula, betiko zoriona be jadetsi ta eskuratu daigun.



### 2.3. ANDRA MARIA

#### 2.3.2. *Andra Mariaren jaiotzea* (XXXIX, XI, XLI)

## XL

Lemoa

### ANDRA MARIAREN JAIOTZEA

*«Quae est ista quae progreditur, quasi aurora consurgens, pulchra ut luna,  
electa ut sol, terribilis ut acies castrorum ordinata?»*

«Nor da au, egunabarra lez aurreratzen dan au? Ilargia baizen eder,  
eguzkia baizen argi ta lerroan dagoan gudarostea baizen ikaragarri  
agertzen jakun au?»

(Cant. 6, 9)

N(eure) entz(u)le) mait(eok):

Geure begiakin ikusi geinkezan gauza polit eta ederren artean, eder, polit eta zoragarrienetarikoa da egunaren sorkundea, argiaren etorrerea, goizeko egunabarra. Egunero ikusten dogu, oituta gagoz eta jaramon andirik ez dautsagu egiten. Baina noizik noizera, urtean bein-edo baino ikusiko ez bagendu, urtebeteko gabaren ostean, gauzarik ikusgarriena begitanduko litzakegu; gau luze orren osteko egunabarrak, geure biotza atseginez bete ta pozaren pozez birloratu, zoratu eragingo leuskigu. Orain be, ain sarri ikusi arren, egunabarra gauza pozgarria izaten da. Udabarriko egun baketsu baten egunabarra agertzen danean, gabaren iluntasuna kendu ta eguzkiak bere argi-izpiak, argi-txinpartak, urrezko euria lez ortzean zabaltzen dituanean, poz-pozik biziten asi oi dira bizia dauken gauza guztiak: zelaietako liliak irribarre egiten dautse, larrosa ta beste lorak ondo etorria emoteko euren orriak zabaltzen dautsez. Gauza guztiak poz-tuten dira; gau ilunean esan eiken loak artuta, erdi ilik egozala ta egunabar ori eltzen jakenean, bizi barri batek guztiak bizkortzen dituala.

Orain ba, entz(u)le) mait(eok), emen beko mundu aonetan lez aonen goitik dagoan beste munduan, begiakin ezin ikusi geinken baina geure sinesteak iragarten dauskun beste mundu eder orretan be, izan zan bere egunabar zoragarria. Geure sinesteak iragarten dauskun izatez goitiko

mundu orretan, Jesukisto gure Jauna lurrera etorri zanetik aona, beti izan da eguna, gau bako egun argia. Augaitik, orrek munduorrek ez dau euki egunabarrik bat baino besterik, bat bakarra; baina bakarra izan dalako, egunero ortik sorkaldetik agertzen jakuna baino askozaz be eder, ikusgari ta zoragarriagoa. Begiakin ikusten dogun goizaldeko egunabar ori, gabak lurrean zabaldu dituan laino baltz artetik urten eta agertzen da. Geure sinesteak iragarten dauskun eskar edo graziazko egunabarra be gau baltz, itzaltsu hatetik, guzurrezko sinesteak eta ekandu gaiztoak gizar-tean zabaldu zituen laino artetik urten zan, eta goizaldeko egunabarrak gabeko ilunak kentzen dituan lez, beste egunabar onek be kendu ta aldendu zituan gizasemeen gogoetatik sineste okerrak eta oitura dongeak gizarte guztian zabaldu zituen guzurrezko laino ilun eta baltzak.

Egunabar zoragarri au zein dan itanduten badaustazue, S(an) Buena-ventura Eleizako irakasle andi ta ospatsuagaz erantzungo dautsuet, egunabarraren izena entzun daizuenean, zeuen begi orreik A(ndra) Mariagana biurtu ta itzuli daizuezala. Auxe da, ba, bere sorkundean pekatuen gau ilunetik orban barik urten zan emakumea; bere jaiotzean, egunabarra baizen argi, garbi, eder eta apain agertu zan Goiko Jaunaren alaba maite ta laztanena. Gaur ospatu ta jaialduten<sup>742</sup> dau Eleizeak A(ndra) Mariaren jaiotzea. Egun onetan egoki izango da-ta, gauza bi azalduko dautsuedaz: lenengoa, A(ndra) Mariaren jaiotzea izan zala Jesukisto gure Jaunak ekarri euskun sinesteko argi ederraren egunabarra; bigarrena, A(ndra) Maria dala geure betiko zoriona lortzeko daukagun itxaropenik ederrena, laburrago, A(ndra) Maria da gure zorioneko egun ederraren egunabar zoragarria, bera da guretzat zorion orren itxaropena. Lan onetan asi baino len, auspeztu gaitezcan eskar on guztien emoile dan Jaunaren aurrean eta eskatu daiogun zerutar argiz gure adinak argitu ta bere maitetasunez gure biotzak samurtu ta berotu daiguzala. Aonetarako ipini daigun bitartekotzat...

## I.

*«Quae est ista quae progreditur, quasi aurora consurgens, pulchra ut luna,  
electa ut sol, terribilis ut acies castrorum ordinata?»*

(Cant. 6, 9)

N(eure) entz(ule) mait(eok), gauzak zelan diran ikusi ta ezagutzeko, argia bear da; argi barik ezin ezagutu geinke gauzen izaterik. Jaunak

<sup>742</sup> *Jaialdtu*: ospatu.

aonetarako iru argi emon dauskuz: begietako argia, buruko argia, sinesteko argia. Orra or iru argi, bata baino bestea ederragoa; begietakoa baino adimen-argia, buruko argia obe ta ederragoa da; ta buruko argia baino be bizi ta ederragoa da sinesteko argia. Aona emen zegaitik. Buruko argiagaz ikusi ta ezagutu geinkez begiakin inok be ikusi ezin daikezan gauzak, eta gauza oneik begiakin dakusguzanak baino ederragoak diralako, eurak ezagutu eragiten dauskuzan argia be begietakoa baino obe ta ederrago da; gure sinesteak ezagutzera emoten dauskuz geure adinagaz bakarrik ezagutu ezin geinkezanak, eta oneik gauzok geure adinagaz ezagutzen doguzanak baino gorago dagozalako, andi ta ederragoak diralako, sinesteko argi ori besteak baino bizi ta ederragoa da. Eguzkiaren argia ta eguna guretzat gauza bat dira; augaitik, ondo baino obeto esaten da sinestearen argia lurrean zabaldu zanean, gure gogo edo arimentzat egunik argi, garbi ta ederrena agertu ta zabaldu zala. Auxe da sinestearen eguna ta aonexen egun onen asikerea, bere egunabarra izan zan A(ndra) Mariaren jaiotzea.

Gure adinak aitu ta ezagutu daikezan egiak, begiakin ikusten doguzan gauzetatik euren antz eta irudiak artu ezkerro, errezagot ta obeto ezagutu ta ulertzen doguz; augaitik-edo, gure Jaunak egunabarragaz bardindu eban A(ndra) Mariaren jaiotzea: «*Quasi aurora consurgens*». Onelan obeto ezagutu daigun egunabarra gure gorputzeko begientzat dana, orixe berori, gitxi gorabera, izan zala gure arimentzat A(ndra) Mariaren jaiotzea.

Jesukisto izan zan, dinoe Eleizako irakasleak, zuzentasun eguzkia; lurrean jaioten diran gizaseme guztiak argitzen dituan zeruko argia ekarri eban eguzkia: «*Erat lux vera quae illuminat omnem hominem, venientem in hunc mundum*». Eta A(ndra) Maria izan zan eguzki orren aurretik etorri zan egunabarreko argi garbi ta zuria; Maria izan zan argizarra, goizeko izarra: «*Stella matutina*». Bost antz gitxienez daukaz Mariaren jaiotzeak egunaren jaiotzeagaz. Begira.

1. Egunabarra da eguzkiaren ama ta batera bere alabea. Egunabarraren erraietatik urten eta agertzen da ortzean eguzkia; augaitik esan lei egunabarra eguzkiaren ama dala. Baina eguzkiak berak, gure begietara agertu baino len, bere argiagaz sortu ta egiten dau egunabarra; augaitik egunabarra eguzkiaren alabea da. Bardin A(ndra) Maria be Jaungoikoaren alaba ta bere Ama da. Jaungoikoaren alaba beste guztiok lez, bera be Jaunak egina da-ta; Jaungoikoaren Ama, bere erraietan sortu, bere sabelean bizi ta beragandik jaio zalako, gu salbetarren gizon egin zan Seme Jaungoikoa.

2. Egunabarragaz inontz-tantatxuak, bitxi argikor dizdiztarien<sup>743</sup> antzera, zelaletako bedar, lora ta orrien gainean jarten dira. Mariaren jaiotzeagaz, Jaunaren eskar edo grazien inontz-tantak askozaz be ugariago jatsi ziran gizasemeen gogo ta biotzetara, eta au da Mariaren jaiotzeak egunabarragaz daukan bigarren antza.

3. Gabaren ostean etorten da egunabarra. Gaba izaten da basapizti, lapur eta gaizkin guztientzat euren aldirik onena; orduan euren ezkututik urtenda, kalte ta gaiztakeriak egiten ibilten dira; baina egunabarra datorrenean, euren gaiztakeriak itxita, joaten da bakotxa bere zulora. Mariaren jaiotz aurretik, guzurrezko sinesteak zabaldu ziran gizaratean eta guzurrezko sinesteakin ekanduak be galdu, usteldu ziran, eta gizonak, gabaz ibilten diran patarien<sup>744</sup> antzera, beti ebiltzan gaiztakeriak egiteko asmo dongeetan. Auxe izan zan guzurrezko sinestean bizi ziran gizonentzat gaurik itzaltsuena, ta gau orren ostean lenen etorri jaken argia izan zan Mariaren jaiotzako egunabarra.

4. Orraitik be baiegozan gizaratean gitxi batzuk euren Salbatzailea itxaroten ebenak; oneik ziran euren zauriak ezagutzen zituen geixoak eta zauri orrein osatzaileari begira artega egozanak. Minak itzarrrik gaukazanean, gaba luzea izaten da ta artega ta urduri itxaroten dogu egunaren etorrerea; uste izaten dogu, ba, egunabarragaz geixoaren min eta nekeak arindu ta gitxituko dirala. Geixoak eguna ta egunagaz osatzaile edo medikuaren etorrerea lez, itxaroten eben egizko sinestean bizi ziranak Jesukisto gure Jaunaren etorrerea; augaitik, eurentzat A(ndra) Mariaren jaiotzea izan zan euren atsekabeak arindu zituan egunabarrik pozkarriena.

5. Egunabar argia ortzean agertzen danean, izate guztia alaitu, poztu egiten da; esan lei, lili ta lorak euren irribarreakaz eta txoriak euren abesti edo kantakaz argia bialtzen dautsen Jaunari eskarrak emoten dautsezala. Arteetan gizonik geienak aiztuta egozan euren Jaunagaz. Baina A(ndra) Mariaren jaiotzeagaz argiroago ezagutu, geiago maitatu, askozaz obeto goratu eben euren Jaungoikoa; orduan askatu zan, Jaunaren gorapenak abestu edo kantetako gizonen mina. Augaitik, benetako egunabarra izan zan gizonentzat A(ndra) Mariaren jaiotzea.

6. Gogoratu daigun, ba, entz(u)le mait(e)ok, zelako poza zabaltzen dauan egunabarrak izate guztira eta ezagutuko dogu zelakoa izan bear dan A(ndra) Mariaren jaiotzako egun onetan gure biotzetako poza. Gure

<sup>743</sup> *Dizdiztari*: distiratsu.

<sup>744</sup> *Patari*: pizti.

Ama Eleizea pozez beterik zuzentzen da gaurko egunez A(ndra) Maria-gana ta esaten dautso: «Nativitas tua, Dei Genitrix Virgo, gaudium annunciat universum mundo». Eleizearen seme zintzok bagara, geuk be erakutsi bear dogu gure biotzetako poza, A(ndra) Maria bere jaiotzan eguna-barra lez apain eta eder, argi zuriz jantzita, ezetariko orban barik, agertzen jakulako eta sinesteko egun argi ta ederragaz batera geure betiko osasun, betiko zorionaren itxaropena dakarskulako. Eta auxe izango da bigarren atal onetan azalduko dautsuedana.

## II

Ondo dakizue, emakume batek galdu ginduzan; baina beste emakume baten bidez Jaunak barriro ipini ginduzan zeruko bidean. Jaunak atseginezko baratzan, egokera zorionsuan imini ebazan gure lenengo gurasoak. Baina Ebak, gizaseme guztioen lenengo amak, sugearen irudian agertu jakon diabru gaizkinari entzun eutsan eta berak inotsana egia ete zan jakin gurarik, Jaungoikoak galerazo eutsen arnari edo fruitua artu ta jan eban; bere senarrari be emon eta jan eragin eutsan. Emendixik erne zan gizonen zoritxarra, emendixik sortu zan eriotzea; utsegitte onek zarratu eutsen gizonai zeruko atea ta ekarri eban gure lenengo gurasoen eta euren ondorengoen gainera Jaunaren aserrea. Lenengo emakumearen utsak bete ta arek egin euskuzan kalte ta okerrak zuzendutera etorri zan A(ndra) Maria.

1. Auxe da, jaio baino lenagotik, Jaunak bere Ama izateko autu eban emakume zoragarria. Ebak, diabruaren esana egin ebalako, ekarri eban gizonen lepora zoritxarrik astunena; Mariak, Jaungoikoaren esana egin da, ekarri eban osasunik ederrena, zorionik andiena. Jaunak «*Fiat*. Egin bedi» esanda beste barik, egin eban argia; orixe esanagaz bakarrik, egin zituan zeru-lurrak eta euretan dakusguzan gauza guztiak. A(ndra) Mariak be beste «*Fiat*» bat, «*Fiat mihi secundum verbum tuum*. Egin bedi nigan zeuk dinozun lez» orixe esanda, egin eban gizonen osasuna. Jaunaren barri onak ekarri eutsazan Aingeruari orrelan erantzun eutsonean, orduantxe sortu zan Seme Jaungoikoaren gizatasuna, Jesukisto gure Jauna. Eta baidakizue Jesukisto dala sinesteko argi ederra ekarri euskun eguzkia, Jesukisto dala gure arimetako zauri ta geixoak osatzen dituan osatzaile zerutarra, Jesukisto dala, berberak esan eban lez, gure bidea, gure egia, gure bizia; geure zorionera garoazan bidea, gure adinak argitzen dituan egia, pekatuaren eriotzatik gure gogo edo arimak biztuten dituan bizia: «*Ego sum via, veritas et vita*».

2. Pekatuaren ur loietan bere ezpanak iminita, loitu ta ezaindu eban lenengo emakumeak gizonen enda guztia; A(ndra) Mariaren erraietan arturiko odolagaz garbitu ebazan Jesukisto gure Jaunak gure arimetako loi ta orbanak. Zugatz edo arbola baten azpian jausi zan lenengo emakumea; beste zugatz baten azpian, kurutzearen oinean, zutundu zan A(ndra) Maria. Paradisuko zugatzean aurkitu eban gizonak eriotzea; Kalbarioko zugatzean aurkitu eban bizia; zugatz baten azpian egin eban gure lenengo amak gizonen zoritxarra; beste zugatz baten oinean, eskini euskun bigarren amak gure zoriona. Lenengo emakumeak zugatzetik artu ta emon eutsan gizonari eriotzako frutu dongea; A(ndra) Mariak, gure osasuna egitearren, kurutzearen besoetan emon euskun bere sabeleko frutu bedinkatua. Diabru gaizkinak paradisuko zugatzpean menperatu ta azpiratu eban gizona; Mariak kurutzearen oinean zapaldu ta birrindu eutsan diabruari bere burua; onelan, desegin eban lenengo emakumeak ekarri euskun kaltea, zuzendu eban arek egindako okerra ta kurutzean josita erakutsi euskun geure zorionerako bidea, geure osasuna, bere eriotzeagaz betiko bizia irabazi euskun Jauna.

Jauna kurutzean egoala, baidakizue, kurutzearen oinean egon zan bere Ama, atsekabez beterik, baina errime ta sendoro, zutunik. Semearen oinaze, neke ta minak saminduten eben bere biotza; baina gure betiko osasuna egitearren, maitetasunik samurrenagaz opaldu eutsan Aita Jaungoikoari bere Seme laztanaren bizia. Au egin ebanean, esan eutsan Jaunak: «*Mulier, ecce Filius tuus*. Andrea, aor daukazu zeure Semea»; esatea lez: «Orain arte nire Ama bakarrik izan zara, baina aurrerantzean beste seme askoren ama be izango zara. Zeure ta nire nekeen semeak dozuz eta amaren ardura ta samurtasunagaz jagon eta zaindu egizuz». Aonetarakoxe jaio zan A(ndra) Maria; lenengo, odolez geure Jaunaren Ama izateko; bigarren, maitetasunez Jesukistogan sinesten dogun guztioen ama izateko. Augaitik esan dot bere jaiotzea dala gure betiko zorionaren itxaropenik ederrena.

### III

Gure asabak, gure aurretikoak, eleiza au egin ebenean A(ndra) Mariaren babes, itzalpe eta egape gozoan imini eban Lemoako erria; A(ndra) Maria bere jaiotzean autu ta izentau eben euren erri aonen zerutar Zaintzaile ta Jagola. Gaur ospatuten dau Eleizeak Jaungoiko Amaren jaiotzea ta guk jaiotza onegaz batera ospatu ta jaialduten dogu geure erri aonen zerutar Laguntzaile ta Jagola bikainaren eguna. Gomutau daigun, ba, gure aurretikoak, eleiza au egin eben gure asabak, euren izenean eta

ondorengo guztien izenean Jaunaren Amagaz alkartasuna egin ebela. Alkartasuna egiteko, baidakizue, alderdi bakoetak zerbait emon edo agindu bear izaten dau; alderdi bakotxa beartu edo obligetan da, besteak egingo dauanaren ordez berak be zerbait egitera. Gure asabak Lemoako erriaren Jagola izentau ebenean, A(ndra) Mariak artu eban erri au jagon eta zaintzeko ardurea, eta aonen ordez gure aurretikoak agindu eutsen eurak eta euren ondorengoak bere seme-alaba zintzoak izango zirala, bere kerizpetik inoz urten barik Jaunaren legepean zintzoro biziteko ardurea artu ta alegin egingo ebela. Auxe da gure asabak A(ndra) Mariaren babes eta kerizpean euren erria imini ebenean, gure Jaunaren Amagaz egin eben egiune ta alkartasuna.

Baina alkartasuna, ondo dakizue, alderdi batak bere eginbear edo obligazioak bete ezik, berez eta bertatik ausi ta urratzen da eta beste alderdia, ezetarik zerikusi barik, aske edo libre gelditzen da. Augaitik, gure asabak A(ndra) Mariagaz egin eben alkartasuna oinean<sup>745</sup> euki nai badogu, geure alderdiari gogor eta sendoro eutsi bear dautsegu; ostantxean<sup>746</sup> geuk urratuko geunke gure asabak Jaunaren Amagaz egin eben alkartasuna, ta alkartasuna ausi ezkeru, A(ndra) Maria izenez bakarrik izango litzake Lemoako erriaren Jagola ta Zaintzaile zerutarra. Jagon dai-gun, ba, geure alderdia ta Mariak jagongo dau berea; eutsi daiogegun geure agintzai ta Mariak eutsiko dautse bereai; izan gaitzean bere seme-alaba zintzoak eta bera izango jaku geure Ama errukior, samur eta laz-tantsua. Onelan, oinean iraungo da gure asabak A(ndra) Mariagaz egin eben alkartasuna ta itxaron geinke Jaunaren Amak bere itzalpe ta kerizpe maitatsuan beti jagon, beti zaindu ta gordeko dauala Lemoako erria.

Goizaldeko egunabarra lez agertu zan A(ndra) Maria bere jaiotzan; augaitik, egunabarra dakusgunean, goizaldeko argi zuriak geure begiak argitu ta geure biotzak poztuten dauskuzanean, oroitu, gogoratu bear dogu Jesukistok ekarri euskun sinesteko argi ederraren egunabarra bere Ama A(ndra) Maria izan zala; gogoratu bear dogu egunabar zoriontsu orren irudia emen geure eleizan daukagula ta bere itzal, kerizpe ta ega-pe gozoan dagoala geure erria. Au gogoraturik, gorputzeko begiak argitzen dauskuzan egunabarrari abegi ta txera ona egiten dautsagunean, geure biotzak jasota, beste egunabar aoni, zeruko argi ederra iragarri ta ekarri euskun egunabar zoragarri aoni, biotz-biotzez ondo etorria emon bear dautsagu, abegi ta txerarik onenagaz artu ta maitetasunez agurtu bear dogu.

<sup>745</sup> *Oinean*: funtsea.

<sup>746</sup> *Ostantxean*: osterantzean, ezpabere.

Baidakizue, emen begiakin ikusten dogun mundu onetan eguzkia da bere argiagaz eguna egiten dauana; goizaldean bere aurretik urten eta arratsaldean bere atzetik joan eta ezkutetan da argizarra. Goiko munduan, sinesteak iragarten dauskun mundu barri orretan, Jesukisto gure Jauna da bere argiagaz eguna egiten dauan zuzentasun-eguzkia; A(ndra) Maria da argizarra, Jesukistoren aurretik mundura etorri ta bere ostean, geroago, mundutik aldendu ta zeruetan ezkutau zan argizarra. Augaitik, goizaldean, eguerdian eta arratsean kistinau zintzoak A(ndra) Mariari egiten dautse Aingeruaren agurra, bakotxean iru bidar «Agur Maria» esanda; goizaldean, egunabarraren etorrereak A(ndra) Mariaren jaiotzea gomutarazoten dauskulako; eguerdian, eguzkiaren argirik ederrenak Jesukistoren eguna geure gomutara dakarskulako; arratsean, argizarra eguzkiaren atzetik lez A(ndra) Maria be, geure itxaropen-argia, Jesukistoren atzetik zeruetara igon eta an ezkutau zalako.

Auxe da kistinau zintzoen oiturea, auxe da geure asabak itxi dauskuen ekandu ona; auxe da gure aurretikoakandik, eleiza au egin eta Lemoako erria Mariaren magalpe gozoan imini eben asabakandik datorrigun oiturea: txapela erantzi, ta goiz, eguerdi eta arratsean bakotxean iru Abemaria esateko oitura edo ekandu ona.

Eutsi daiogun, ba, entz(ule) mait(eok); goiz, eguerdi ta arrats agurtu daiogun geure zeruko Ama. Eskatu daiogun, geure txarto-eginak ikusita be, ez dagiala urratu gure gurasoak beragaz egin eben alkartasuna; Lemoako erriaren Jagoġa arduratsua beti izan daitela ta guztioi ta bako-txari emon daigula bere urgazpen<sup>747</sup> eta laguntasuna. Auxe da, geure Zaintzaile zerutar zarean A(ndra) Maria, auxe da zeure oinetan auspazturik, biotz-biotzez eskatzen dautsuguna. Ama laztanori, erruki zakiguz ta zeure egapean ondo jagon gaizuz; emon eiguzu bizitza onetan zeure laguntasuna, izan zakiguz eriotzan geure itxaropen-argia ta eroan gaizuz, eriotz ostean, betiko zorionera.

<sup>747</sup> *Urgazpen*: laguntasun, babes.



### 2.3. ANDRA MARIA

#### 2.3.2. *Andra Mariaren jaiotzea* (XXXIX, XL, XLI)

## XLI

Alboniga

### ANDRA MARIAREN JAIOTZEA

«*Supra modum, autem mater mirabilis et bonorum memoria digna.*»

«Neurritz goitik ama arrigarri ta on guztientzat gomutagarri.»

(II Machab. 7, 20)

N(eure) e(ntzule) mait(eok):

Aspaldi onetan zuek Almikarrok, Jangoiko ta gizonen Ama dozue zeuen erri ta eleizate onen zerutar Jagola ta Zaindari. Lur zabalean A(ndra) Mariaren izeneko eleizak asko baino be geiago dira; baina, dakizuen lez, Ama samur onen jaia erri guztiak egun berean ez dabe egiten. Batzuk Mariaren Sortze Garbia ospatzen dabe, beste batzuk, Jaiotzea; oneik lenguseinari egin eutsan Ikustaldia, orreik Garbikunde edo Eleizan Sartzea; askok, Aingeruak zerutik barri onak ekarri eutsazan eguna, eta oraindik geiagok, Mariaren Jasokundea, Ama laztan au gorputz eta arima aingeruen ego-gainetan zeruetara joan zan egun zoriontsua. Zuen asabak, aurretikoak, euren zerutar Zaindari ta Jagolatzat A(ndra) Maria autu ta izentau ebenean, Ama samur au goratzeko, bere aintza ta opaz jai egiteko, gaurko eguna, Mariaren Jaiotza eguna, obetsi, autu ta izentau eben.

Egun onetan Ama Eleizeak poz andia agertzen dau ta bere semeoi be Jangoikoagan poztu gaitezala dinosku: «*Gaudeamus omnes in Domino...* Andra Mariaren deduz, bere goran, jaia ospatzen dogun egun onetan, Jangoikoagan poztu gaitezkan guztiok, zure jaiotzeak, Jangoikoaren Ama garbia, mundu guztiari poza iragarri ta ekarri dautso-ta. *Nativitas tua, Dei Genitrix Virgo, gaudium annuntiavit universo mundo*». Eta egiz, Andra Maria bere jaiotzan udabarriko egunabarra, egunsentia bai-zen argi ta garbi, eder, apain eta zoragarri agertu zan eta bere etorrere-az zeru ta lurak poztu ebazan.

San Zirilo eleizako guraso ta irakasleak A(ndra) Mariari dinotsan au, benetan gomutagarri da: «Egunabar argia dirudizun Ama garbiorrek, Jangoiko Irukotxa atsegindu ta goretsi dozu. Guzurraren ilunpean, eriotzearen gerizpean gengozanoi geure argi ta osasun dogun Seme Jangoikoa ekarri dauskuzu; zeruko aingeruak poztu dozuz, deabruai iges eragin dautsezu eta lurrean bizi garean gizonoi barriro zerura dei egin dauskuzu. Alabarik onen eta bikainena jaio dalako, Aita Jangoikoa pozez dago; Amarik maitagarriena jaio dalako, Seme Jangoikoa pozez dago; ezkontiderik, emazterik laztangarriena jaio dalako, Espiritu Santua be pozez dago. Luzifer gaiztoari burua ausi ta birrindu dautsan emakume garbi ta orbanbagea jaio dalako, deabruak aserrez, bildur-ikaraz dagoz. Euren Andra Erregina jaio dalako, zeruko aingeruak pozarren dabiltz. Geure bitartekorik arduratsuen, laguntzailerik onena, Amarik samurrena jaio dalako, gizon guztiok be zinez eta benetan poztu bear gara; baina gure poz ori mundutarrena lakoa ez bedi izan, sineste biziko kistinauai dago-kien poza baino».

Gaiztakeri ta pekatuak zirala-ta, zeruko atea guretzat ertsita, itxita, zarratuta egoan. Ate ori idegiko euskun Salbatzailea bear gendun eta Salbatzaile ori A(ndra) Mariaren bidez emon euskun Jangoikoak. Andra Maria Jesukisto gure Salbatzailearen Ama ta geure Ama izateko jaio zan eta bere jaiotzea gogoratu ta ospatzen dogun egun onetan, Ama goragarrri ta samur orren seme zintzo ta leialak izateko, asmu ta erabagia artu bear doguz. Neure itzaldi onetan orixe azaldu ta adierazo nai neuskizue. Bear dan lez egin al izateko, aurrera jarraitu baino len...

*«Supra modum, autem mater mirabilis et bonorum memoria digna.»*

«Neurritz goitik ama arrigarri ta on guztientzat gomutagarri.»

(II Machab. 7, 20)

N(eure) e(ntzule) mait(eok), zerutik lurrera jatsi zan zuzentasun-eguzkia Jesukisto gure Jaunia da; onen aurretik etorri zan egunsentia, A(ndra) Maria. Argiaren etorrerea, goizaldeko egunabarra begiz ikusi geinken gauzarik atsegintsu, eder eta zoragarriena da. Egunero ikusten dogu, oituta gagoz eta jaramon gitxi egiten dautsagu; baina egunabarra noizik noizera, urtean bein-edo baino ez baletor, gauzarik ikusgarri ta zoragarriena begitanduko litzakigu. Geure sinesteak iragarten dauskun izatez goitiko munduan egunabar bat baino besterik ez da izan. Jesukisto bein etorri zan mundura; Jangoiko Eguzki onek bere aurretik ekarri eban egunabarra, A(ndra) Maria da, eta egunabar bakarra izan zalako, egunero ortik, sortaldetik agertzen jakuna baino askozaz eder, ikusgarri ta zoragarriagoa.

Egunabarra eguzkiaren ama ta alaba, biak batera, dala esan lei. Eguzkia egunabarraren erraietatik urten eta or goian, sortaldean agertzen da; augaitik, egunabarrak eguzkiaren ama dirudi. Baina egunabar ori eguzkiak berak, gure begietara agertu baino len, bere argiaz sortu ta egiten dau; augaitik, egunabarra eguzkiaren alaba da. Orren antzera, A(ndra) Maria be Jangoikoaren Alaba ta Ama da: Jangoikoaren Alaba, Jaunak egina dalako; Jangoikoaren Ama, gu salbetarren gizatu zan Seme Jangoikoa bere erraictan sortu, bere sabelean bizi ta beragandik jaio zalako.

Jesukisto Jangoiko ta gizon da. Jangoiko, asiera barik, beti-betik; gizon, A(ndra) Mariaren erraietan sortu ta gure izatea artu ebanetik jangoikotasuna beti-betikoa da-ta. A(ndra) Mariaren erraietan jangoikotasunik ez zan sortu, Jesukistoren gizatasuna baino; ori ta guzti be, A(ndra) Maria Jangoikoaren Ama dala zuzen dinogu. Ona emen zegaitik. Irutasun Guztiz Santuko bigarren notin edo personeak Jesukistoren gizatasuna beragandu ta beretu eban; au dala-ta Jesukistogan gizonezko personarik ez dago, izate biak, jangoikotasuna ta gizatasuna, persona bate-nak, jangoikozko personearenak diralako. Gure izatean sortu, jaio, bizi ta ilten dana personea izaten da; augaitik, Mariaren sabel garbian Jangoikoa bere gizatasunean sortu zala ta A(ndra) Maria Jangoiko gizatuaren Ama dala ondo dinogu. Orretarakoxe, Jangoiko Gizonaren Ama izateko jaio zan Andra Maria; Jesukisto gure Jauna, Jangoiko ta Gizona, A(ndra) Mariaren Semea da-ta.

Jesukistok gure pekatuen orbanak bere odolez garbitu ebazan; gure zorrak bere irabaziakaz ordaindu ebazan; zeruko atea bere gurutzeko eriotzeaz idegi euskuzan. Mesede andi oneik A(ndra) Mariak bere Semearen bidez egin daukuz eta eskari zintzo ta beroenak zor dauzaguz. Jesukisto baino len gizonak ilunetan bizi ziran; zeruko bidea gitxik baino ez eben ezagutzen. Sinesteko argia ta arimen osasuna Jaunak ekarri euskuzan. Baina gure Jauna A(ndra) Mariaren Seme da-ta, gure osasuneko egun ederraren egunsenti zoragarria Mariaren jaiotzea izan zala sinestu, esan ta autortu bear dogu.

A(ndra) Maria gure Ama izateko be jaio zan. Jesukisto, gizona danez, gure anai nagusia dala dinosku S(an) Paulo Apostoluak: «*Primogenitus in multis fratribus*». Jesukisto, gure anai nagusi bada, gu bere anai txikiak gara. Baina anaiak ama baten semeak izaten dira, augaitik Jaunaren Ama gure Ama be bada. Jesukisto Aita Jangoikoaren Seme ta A(ndra) Mariaren Seme da; Aita Jangoikoak lez A(ndra) Mariak be Seme orregan bere eskubideak daukaz, Amaren eskubideak. Au dala-ta Jesukistoren eriotzarako baimena zeruko Aitak eta lurreko Amak emon bear dabe.

Aita Jangoikoak mundua, gizadia, ezin geiagoan maite eban –dino S(an) Joan Apostoluak– eta azken barik maite ebalako, gizonen osasuna egitearren bere Seme bakarraren eriotzea ontzat emon eban: «*Sic Deus dilexit mundum ut Filium suum unigenitum daret*». Baina Amak be bere eskubideak eukazan eta Semearen sorkunderako bere baimena emon eban Amak eriotzarako be emon bear ebala dirudi; augaitik, Ama laztana, bere baietza agertu ta erakusteko, Kalbarioan gurutze aren oinean egon zan.

Bere odolez erosi ginduzan Jaunak; Eleizako irakasleak dinoskue-  
nez, A(ndra) Maria erosle-lagun izan da. Zegaitik? Jaunak gu erosteko isuri eban odola bere Amaren erraietan artu ebalako ta Jaunak gurutzean bere buruaren oparia Aita Jangoikoari egin eutsonean, Ama samurrak be, gurutzearen oinean gure betiko osasun eta zoriona egitearren, semearen neke-oinazeak ete bere biotzeko atsekabe samin-saminak maitasun andiz, bere guraz, bere borondatez Jangoikoari eskini eutsozalako. Onelan ba, Andra Mariaren maitasun samur, bere odol eta neke-min andien semeak gara; bere maitasunaz, bere odolaz, bere atsekabe larriakaz, bere Seme Jangoikoa gure osasunerako eriotzara emonaz, gurutzearen oinean kistinai izatera sortu gaitu. Jangoikoaren Ama geure Ama dogu.

Gurutzearen oinean egoala, esan eutsan Jaunak: «*Mulier, ecce Filius tuus*. Andrea, zeure Semea or daukazu. Nire biziaren oparia, zure biotz orrentzat ain neketsua izan dan oparia, gizonen alde egin dozun Andra samurrorrek, gizonak eskar gaiztokoak dira, baina Jangoikoaren seme be badira-ta, zeruetan Aita dauken lez Ama bigun eta samurra be euki dagien, zeure semetzat artu egizuz».

Gero, S(an) Joan ikasle maiteari esan eutsan Jaunak: «*Ecce Mater tua*. Orra or, zeure Ama». Ikasle maitea guztioen izenean egoan gurutzearen oinean; augaitik, ari esan eutsana Jaunak guztiori ta bakotxari dinosku: «*Ecce Mater tua*. Orra or non daukazuen zeuen Ama». Onelan A(ndra) Mariaren gugazko amatasuna Jaunak gurutzetik sendotsi<sup>748</sup> ta indartu eban eta Mariak bere semetzat artu ginduzan.

Biotz osoz eta gogo beroz bere semetzat artu ginduzalako, zenbat ez dautsagu zor? Ain bero ta gartsu, ain ezti ta samur maitatu ginduzan ezkerro, zelako uste bete ta itxaropen sendoa ez doguz beragan euki bear? Ama ain ona, ain biotz andiko ama, zenbateraino ez geunke maitatu bear? Baldin biotzik badaukagu, Ama bigun, samur, ezti ta gozo onen gomuta laztana gogoan erabili bear dogu beti. Ama bikain au neurritz goitik da arrigarri ta seme on guztientzat gomutagarri: «*Supra modum... mater mirabilis et bonorum memoria digna*».

<sup>748</sup> *Sendotsi*: sendatu.

Maite gaitu, maite izan bear dogu. Jaunaren aurrean bitarteko ta laguntzaile dogu-ta, bere laguntasuna uste betez eskatu bear dautsagu; Ama bigun eta samurra dogu-ta, bere seme on, zintzo ta esaneakoak izan bear gara. Lurrean ainbat maitasun mueta edo klase ezagutzen doguz; baina amaren maitasuna baizen ezti, gozo ta samurrik, ain bero ta gartsurik, bat eginik be ez. Amaren biotzeko maitasun ori zelakoa dan, noraino eltzen dan oraindik ez dau inok ondo azaldu ta irakatsi; azaldu nairik asko ibili dira, baina orretan ekin dauksen guztiak esanalak esan ta gero, labur eta motz gelditu dirala autortu bear izan dabe. Baina ama guztien artean bioztsu, errukior eta samurrena A(ndra) Maria da; au dala-ta maitasunik bero, samur eta zintzoena zor dautsagu. Ama errukior, maitati ta laztangarri au maite ez bagendu, biotzik ez daukagula, eskar ona zer dan be ez dakigula autortu bearko geunke.

Jangoikoaren Ama da-ta, Jaunaren aurrean bitartekorik onena, laguntzailerik altsuena dogu. Nai izan ezkeru, lagundu gengikezala, nok ukatu daike? Baina altsua baizen errukior, samur eta laztantsua be bada-ta, lagundu nai gaitu; augaitik, geure bearrianetan uste betez, itxaropen osoz zuzendu bear gaiakoz. Onezaz gainera geure eredu ta jarraibide be badogu; zerua irabazteko egin bear doguna ondo baino obeto irakatsi dausku, ta guk, Mariaren seme-alaba izango bagara, Ama laztan orren oinatzai jarraitu bear dautsegu. Amak bere antzeko seme-alabak euki nai izaten ditu; A(ndra) Mariak be bere antzeko nai gaitu. Bere bizitzan irakatsi euskuna egin nai ez bagendu, Mariaren seme on, zintzo ta esaneakoak ez gintzakez izango, biurri, oker eta gaiztoak baino; zeruko Ama samur au maite dogula aoz esan arren, maitasun apurrik be ez geunskio izango, Ama zintzoro maite dauan seme naiz alabea amaren esanak egi-teko gertu ta prest egoten da-ta. Ama samur au maite daigun, bere oinatzai jarraitu daiogun, orretarako bear dogun laguntza uste betez eskatu daiogun; eta berak be maite izango gaitu ta bear dogun laguntasun ori esku-zabalez emongo dausku.

Eleizeak gaur A(ndra) Mariaren jaiotzea ospatzen dau; zuek, e(ntzule) m(aiteok), jaiotza onegaz batera, zeuen zerutar Zaintzaile ta Jagola andiaren eguna ospatzen dozue. Eleiza au egin eben zuen asabak, euren eta ondorengo guztien izenean, Zeruko Amagaz egiunea, alkartasuna egin eben. Erri au jagon eta zaintzeko ardurea A(ndra) Mariak artu eban; orren orde, asabak A(ndra) Mariari beronen seme zintzo ta leialak izango zirala, bere gerizpetik inoz urten barik Jangoikoaren legepean biziko zirala agindu eutsoen. Zuen guraso ta aurretikoak Jaunaren Amagaz egindako egiune edo alkartasuna, orixe da. Baina alkartasuna, badakizue, alderdi batak zein besteak bere eginbearrak bete ezik, berez ausi ta urratzen da; eta beste alderdia ezetariko zerikusi barik, aské edo libre

gelditzen da. Augaitik, zuen asabak A(ndra) Mariagaz egindako alkartasun ori oinean euki nai badozue, zeuen alderdiari gogor eta sendoro eutsi bear dautsazue; ostantxean alkartasuna zeuek urratuko zeunkie eta alkartasuna urratu ezkeru, A(ndra) Maria Albonigako erri onen zerutar Jagola izenez baino ez litzake izango.

Inoz urratu barik, alkartasunari oinean iraunazoteko, zeuen alderdia arduraz jagon egizue ta Mariak berea jagongo dau; asaben agintzariari eutsi egiezue ta Mariak bereai eutsiko dautse. Mariaren seme-alaba zintzoak izan zaitezue ta Ama errukior, samur eta laztantsua izango jatzue. Onelan, A(ndra) Mariagaz egindako alkartasunak oinean iraungo dau ta Jaunaren Amak bere magalpe gozoan beti jagon, beti zaindu ta gordeko zaituela itxaron zeinkie.

A(ndra) Mariak bere jaiotzan egunabarra dirudi; Fleizeak artizarra, argizarra deritxo: «*Stella matutina*». Emen, begiz ikusten dogun mundu onetan, eguna eguzkiak bere argiaz egiten dau; argizarra goizaldean, eguzkiaren aurretik dator; arratsaldean bere atzetik doa ta gerotxoago ezkutetan da.

Goiko munduan, sinesteak iragarten dauskun beste munduan, eguna egiten dauan zuzentasun-eguzkia Jesukisto gure Jauna da; argizarra, Jesukistoren aurretik mundura etorri eta bere ostean, gerotxuago, mundutik aldendu ta zerura joan zan argizarra, Andra Maria da. Augaitik, kistinau zintzoak goiz, eguerdi ta arratsalde A(ndra) Mariari Aingeruaren agurra egiten dautsoe, baktotxean iru «Agur Maria» esanaz: goizaldean, egunabarraren etorrereak A(ndra) Mariaren jaiotzea gogoratzen dauskulako; eguerdian, eguzkiaren argi osoak Jesukistoren egun ederra, geure salbazinoko eguna gomutara dakarskulako; arratsaldean, argizarra eguzkiaren atzetik lez, A(ndra) Maria, gure Ama samur eta itxaropen gozoa be Jesukistoren atzetik zeruetara joan eta an ezkutau zalako.

Kistinau zintzoen oiturea, orixe da; aurretikoekandik, eleizan egin ta Albonigako erria A(ndra) Mariaren magalpe gozoan ipini eben asabakandik datorkigun oiturea, orixe da: goiz, eguerdi ta arratsalde A(ndra) Mariari iru «Agur Maria» esateko ekandu on-osasungarria. Ekandu on orri eutsi daiogun, geure Ama zerukoa egunean iru bidar agurtu daigun, geure Zaintzaile arduratsu ta Jagola ona izan dakigula ta guztioi ta baktotxari bere laguntasuna emon daigula, bere jaiia ospatzen dogun egun onetan, biotz-biotzez eskatu daiogun.

Auspaztu gaitezuan, ba, bere oinetan eta beti ardura zoliz zaindu gailzala eskatuko dautsagu: «Ama laztanori, erruki zakiguz, eta zeure magalpean ondo jagon gaizuz. Bizitza onetan zeure laguntasuna emon eiguazu, eriotzan geure itxaropena izan zakigu, eta eriotz ostean betiko zorionera eroan gaizuz».

## 2.3. ANDRA MARIA

### 2.3.3. *Andra Maria* (XLII, XLIII)

## XLII

Lekeitio

### ANDRA MARIA<sup>749</sup>

«*Qui me invenerit, inveniet vitam et hauriet salutem a Domino.*»

«Ni idoro nagianak bizia aurkituko dau  
ta Jaunagandik osasuna artuko dau.»

(Prov. 8, 35)

N(eure) entz(u)le) mait(eok):

Bidakizue, gure Jaunak, kurutzean untzez josita egoala, kurutzearen oinean bere Ama laztana ta bere ikaslerik maiteena ikusirik, eriotz aurretxean bere Amari esan eutsan: «*Mulier, ecce Filius tuus.* Andrea, zeure Semea or daukazu»; ta jarraian bere ikasleari: «*Ecce Mater tua.* Ikaslea, zure Ama orixe dozu». Eleizako irakasleak dinoskuenez, S(an) Juan kistinau guztien ordezkoa zan kurutzearen oinean eta guztioen ordezkari an egoalako, S(an) Juani Jaunak esan eutsona guztioi esan euskula sinetsi bear dogu. Onelan, A(ndra) Maria, Jesukistoren jarraitzaile garean kistinau guztioen Ama da ta kistinau guztiak Mariaren seme-alabak dira.

Au egia da, baina sendi edo familietan zer jazo oi dan bidakizue. Seme-alaba batzuk beste batzuk baino maiteago izaten dabé euren ama, ta amak be batzuk besteak baino maite ta kutunago izaten ditu. Kistinau guztiok zeruan daukagun Amagaz be orixe berori jazoten da. Kistinau batzuk besteak baino askozaz be maiteago dabe, Amaren gurariak beste batzuk baino zeztago egin eta betetan dabez; augaitik, zeruko Ama onak be, bere seme guztiak maite izan arren, berari eraspén geiago dautsenak, bera maiteago dabenak, beste enparauak baino maite ta laztanago ditu ta oneik ardura andiangoaz jagon eta zaindu daroaz.

---

<sup>749</sup> Izenburuagaz batera: «Lekeitioko Mariaren Alabai».

Mariaren seme-alaba berariz izateko guraria agertu dabenak, kistinauen artean beti izan dira ta Eleizeak oneikin, Maria berariz enparauak baino geiago maitatu nai izan daben oneikin, berarizko batzar edo alkar-goak egin ditu. Mutil eta neskatilentzat dagoz Eleizan Mariaren izeneko batzarrak, batzar berezi ta berarizkoak. Neskatilentzat Eleizeak ipini dauan batzarrari Mariaren Alaben batzarra deritxo. Mariaren Alabak zarie ta zeuen batzar au noz eta zetarako ipini zan jakitea beste inori baino geiago zeuoi joatzue; augaitik, gaurko itzaldi onetan orreixek gauza biok azalduko dautsuedaz. Gogoz entzudazue.

«*Qui me invenerit, inveniet vitam et hauriet salutem a Domino.*»

(Prov. 8, 35)

N(eure) entz(ule) mait(eok), Jesukisto gure Jaunak bere Ama Maria geure Amatzat emon, geure Ama izentau ta egin eban ezkeru, Jesukistoren eriotzan asita, kistinau guztiak Mariaren seme-alabak izan dira. Augaitik, Mariaren Alabak noztik onakoak diran norbaitek itanduko baleust, Maria kistinauen Ama danik onakoak, Eleizea sortu zanetik onakoak direala erantzungo neuskio; baina Mariaren Alabak eta Mariaren Alaben batzarra gauza bi dira. Batzar oneik oraintsuago sortuak dira Eleizan. Jesusen Lagundikoak<sup>750</sup> lenengo-lenengotik gazteai irakasteko ardurea artu eben. Euren ikastetxeetan gazte asko batzen ziran eta ondo ikasten ebelako, Ikastetxe orreik entzute andikoak, ospatsuak egin ziran; baina jakituria bakarrik, ontasun barik, sarri askotan kaltegarri izaten da. Augaitik, Jesusen Lagundikoak euren ikastetxeetara joazan gazteak jakitunak bai, baina jakitun eta kistinau onak be izan eitezan, A(ndra) Mariaren babes, magal, zaintze ta ardurapean ipinteko asmoa artu eben.

Orretarako 1584garren urtean, Gregorio XIIIgarrena aita santu zala, euren Erromako Ikastetxe nagusian Mariaren izeneko batzarra sortu eben. Batzar ari *Lenengo ta Nagusienaren* izena emon eutsen, latinez *Prima Primaria* deitu eutsen. Aita santuak obetsi eban eta parkemen askoz ornidu ta aberastu be bai. Gero beste ikastetxe batzuetan be orrelakoxe batzarrak irasi edo ipini ebezan eta zerbait baino geiago ugaritu ziran; baina emeretzigarren gizaldi erdi ingurura arte, ikastetxeetatik kanpo indar andirik ez eben artu.

Pio IXgarren aita santuak Sorkunde Garbia irakatsi orduko bai, Mariaren Alaben batzarrak uri ta erri askotan sortu ta jaio ziran, lenengo andiki ta andiki-usaineko andereño edo neskatilen artean eta lastertxu erriko neskatila beartsu ta txiroen artean be bai. Sorkunde Garbia

<sup>750</sup> [Lagundiko: jesuita.]



gure sinesteko egitzat Eleizeak irakatsi ebanetik laster, Europan bakarrik milaren bat Mariaren Alaben batzar, gitxienez, baiegotzan. Onetan be beste gauza askotan lez, Erroma joian aurrengo. Erroman sorturiko Mariaren Alaben batzarrai bere elizkizun egiteko, S(an)ta Inesen Eleizea izentau ta emon eutsen. S(an)ta Ines, badakizue, bere garbitasunari mota ta orbanik ez ezartearren amairu-amalau urtegaz il zan, edo obeto esateko, il egin eben. Garbitasuna bere bizia baino maiteago izan eban neskatila onen eleizan batzen ziran eta batzen dira Erromako Mariaren Alabak. Jesukisto ta Mariaren Alaba maitea ta aizta nagusia «Zu zara» esaten dautse, ta S(an)ta Inesen bizitza eta eriotzearen gomuteaz euren asmo onetan indartu ta sendotzen dira. Aita santuak batzar au be eskar joriz, parkapen ugariz aberastu eban...

Lekeitioko Mariaren alaben batzar au, bere asierako liburuak dinoanez, Jesusen Lagundikoak euren ikastetxean irasi eben eta *Prima Primaria* deritxonari eta gerotxoago S(an)ta Inesen Eleizan ipini zanari, biai erantsita dago, eta erantsita dagoalako aek daukezan parkapen guztiak daukaz: Lekeitioko Mariaren Alaben batzarrekoak Erromakoak irabazten dabezan parkapen oro irabazi daikiez. Baina orretarako elizkizunak, batzarrak bere erro ta sustraiak daukazan eleiza onetan egin bear dira; Gure Jauna artzera be, onaxe, eleiza onetara etorri bear da. Ona ezin etorri zarenean, Gure Jauna artu barik egon baino, beko eleizan artu obe da, ori zetan esan be ez; baina onaxe etorri ezik, Mariaren Alaben batzar oneik daukezan parkapenak ezin irabazi zeinkiez, eta au jakitea be ondo da, zerbait baino geiago joatzue-ta.

Goazen orain bigarren atalera ta Mariaren Alaben batzarrak zetarako ipini ziran ikusi daigun. Eleizeak, batzar oneik ipini ebazanean, asmo bat baino geiago eukan. A(ndra) Mariaren Sorkunde Garbia dedu ta argiz jantzi ta goratzea, auxe izan zan Eleizearen asmorik lenena, eta gure zereginik andiena be orixe da. Jaunak Laugarren Aginduan gurasoak aintzat artu, biotzez maitatu, itzez eta egitez goratu daiguzala agindu dausku; augaitik, seme-alabak euren lurreko amai dedu, maitasun, lotsa ta itzala zor dautsez. Baina lurreko amai zor dautseguna zeruko Amari be zor dautsagula, berez gauza argia da-ta, inok ezin ukatu legi.

Mariaren Sorkunde Garbia gogoz, itzez eta egitez goratu daikegu ta iru era orreitara goratu ta aintzaldu bear dogu. Sorkunde Garbi ori gomutara ekarri ta sendoro sinestuaz, gogoz goratzen dogu; beste batzua adierazo eta sinistu eraginaz, itzez goratzen dogu; ta bizitza orbange ta garbia egiteko aleginetan gabiltzanean, egitez aintzat artu ta egitez goratzen dogu. Iru era oneik on-onak dira, baina azkenengo au besteak baino Mariaren gogokoago. Sortzez orbanbagea ta garbi-garbia dan Ama maitagarri au, biotzeko orbanak garbitu ta bizitza zuzen-garbia egi-

ten dauanak, orretarako neurri ta bideak artu ta alegin zintzoa dagizanak, orrexek lotsa ta itzalez begiratu, omen, dedu ta aintzarik ederrenaz goratzen dau. Mariaren alabok, zeuen Amagaz daukazuen eginbearrik andi ta lenena, auxe da, ta auxe ondo egiteko ardurea artu bear dozue.

Mariaren Alaben batzarrak ipini ebazanean, Eleizearen asmorik lenena Mariaren Sorkunde Garbia goratzea izan zan; baina onezaz gainera, beste asmorik be baierabilan gure ama Eleizeak. «Munduan arriskurik asko dago. *Totus mundus in maligno positus est.*» Munduan bizi diran gazteak galdu-gordean sarri ibiltzen dira. Au Eleizeak argiro ekusan, eta neskatala gazteak arrisku orreitatik pizka bat aldendurik, arimearen betiko osasunari ardura geiagoz begiratu egioen, Mariaren izeneko batzarrak ipini ta batzar oneitan bildu edo batzandu ebazan. Berez onak diranak be, izatez edo menduz onerantz itzuliak be, lagun donge ta gaiztoakin batu ezkeru, laster okertu egiten dira; gauza onetarako otzitu, arriskuen bildurra galdu, deungeen antzeko egiten dira. «*Cum perverso perverteris.* Gaizto ta biurriaz, biurri ta gaizto egingo zara.» Eta bestera, berez munduzaletxua dana be, lagun onakin, jainkozale ta eleizkoi diranakin batzandu badaite, bere lagun jarraibide edo ejenplu onak ikusirik, bera be ondu egiten da; zorakeriak alde batera itxirik, arimegazko zeregin andiai ardura geiagoz begiratzen dautse.

Augaitik Eleizeak, neskatala on, azkuti<sup>751</sup> ta elizkoiak aurrenengo dirala, erdiz-erdizko ta munduzaletxuak be Mariaren Alaben batzarretan batu edo bildu ditu, aek emoten dautsezan ikasbide onak ikusirik, beste oneik be zentzun eta bide onera etorri daitezzen. Onez gainera, Eleizeak batzar onei berarizko eskar, laguntza ta parkapenak be emon dautsez, eta onelan batzar onetan sartu diran neskatalai zeruko bidea leundu ta erreztu dautse.

Onelan ba, Mariaren Alaben batzarrak ipintean, Eleizearen asmoa bikotxa izan da. Aingeruak zeruan egiten daben lez, lurrean be Mariaren Sorkunde Garbia aintzaldtu ta goratzea; ori izan da lenengoa. Neskatilak alkarrekin batu, zeruko Amaren magal, babes eta laguntzapcan jarri; Sorkunde Garbia eredutzat ipini, zeruko bidea erakutsi eta bide oni jarraitzeko, biotzak berotu; au izan da Eleizearen bigarren asmoa.

Ezin ukatu, entz(ule) mait(eok), Eleizea Ama samurra da, beti gure arduraz bizi da; gure betiko osasuna zintzoro nai dau, gu betiko zorionera eroatearren, aleginak alegin egiten ditu. A! Geuk Eleizearen alegin laurena eingo bagendu, zenbat zuzenago ez ginakez ibiliko? Zeruko bidean zenbat geiago ez ginakez aurreratuko? Zenbat irabazi andiangoak

<sup>751</sup> *Azkuti*: iaio, antzetsu.

ez gendukez eskuratuko? Ama arduratsua daukagu; baina seme-alabok, nagi, itxi ta ardurabakoak izaten gara sarri. Ezpabe, esan egidazue: Mariaren Alaba izan arren, Ama on, Ama garbi orien Alabak zarela egunean zenbat bidar gomutetan dozue? Eleizeak Mariaren Alaben batzarrean artu zaitue; baina Mariaren Alaba izateak ipinten dautsuezan eginbe-arrak, zenbat bidar burura ekarten dozuez?

Burura ekarri barik ezin bete leiz; edozelako eginbearrak beteteko lenen burura ekarri ta gogoan erabili bear dira. Mariaren Alaba onak izan nai zeunkie? Auxe biotzetan ondo josi egizue: «Ebaren alaba ta Mariaren Alaba naz. Ebaren alaba, zoritxarrez; Mariaren Alaba, zorionez. Eta Mariaren Alaba izatea, zeruan Ama laztan bat eukitea, nire aberastasunik, nire zorionik andiena dalako, Mariaren Alaba izateak ipinten daustazan eginbearrak zintzoro bete bear dodaz, eta edonon eta beti Mariaren alaba lez agertu bear naz». Guztiok eta bakotxak asmo ori biotzean ondo barrendu badagizue, gure batzar onen buru ta Jagola dan zeruko Amak be maite ta laztan izango zaitue.

Auspaztu gaizan, ba, bere oinetan eta geure asmo onak eskini daio-guzan. Ama samurrorrek, zeure babes eta magalpean artu gaizuz. Geure batzar onen zerutar Jagola zareala gomutau egizu ta geure bizitzako ibilera guztietan maitasunez jagon eta zaindu gaizuz; bide-erakusle izan zakiguz eta betiko zorionera zuzendu gaizuz.

## 2.3. ANDRA MARIA

### 2.3.3. *Andra Maria* (XLII, XLIII)

## XLIII

Larrea<sup>752</sup>, 1923

### KARMELGO AMA<sup>753</sup>

«*Ecce nubecula parva, quasi vestigium hominis ascendebat de mari.*»

«Eta ona emen giza oinatzaren irudiko odai txiki bat,  
itxasotik gorantz etorren.»

(III Reg. 18, 44)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Gizasemea bere bizitzako arazo ta eginenetan indar bik darabile; gizona darabilen indar bi oneik, maitasun eta gorrotoa dira. Gorrotoaren indarra berez indar banatzailea, zatitzailea da; maitasunarena, bestera, batzaile ta alkartzailea. Gorrotoak alkarrekin dagozan aiskideak be banatu egiten ditu; maitasunak, ostera, urrunduta dagozanak be alkartu ta batu. Badakizue, edozein maitalek bere maiteagaz egon nai izaten dau beti, eta gorputzez urrun dagoanean be, gogo ta biotzez beintzat bere maiteagaz egon oi da.

Jesukisto gure Jaun eta Aita samurrak maite ta laztan ginduzan; maite ginduzalako, gugaz, bere odolez erosi ginduzan kistinauokaz egon nai eban eta orretarako berak bakarrik asmau eta aurkitu eiken bidez, Altarako Sakramentuan gure lagun eginik gelditu jakun, eta bere maiteak daukazan lurreko alde ta erri guztietan, ezkutuan bai, baina egiz eta benetan be bai, Jauna bere maite orregaz<sup>754</sup> dago.

Amak be Semearen antzera egin dau. A(ndra) Maria Jaunaren Ama ta gure Ama da; gure Ama dalako, laztantasun samurrez maite gaitu eta maite gaitualako, zetan esan be ez, gugaz egotea pozkarri ta atsegin

<sup>752</sup> Jatorrizkoan: *Larrea*.

<sup>753</sup> Izenburuagaz batera: «Lekeitioko Mariaren Alabai».

<sup>754</sup> Jatorrizkoan: *orrekín*.

jako. Gugaz aztuta bizi danik inoz be uste izan ez daigun, gizaldien joanean sarri ta toki askotan agertu da ta bere agerkunde bakotxean berarizko izena artu ta errai bigun-samurak erakutsi dauskuz. Izen asko euki arren, agertu dan leku bakotxean berarizko izena artu arren, izen askodun emakume eregi-bikain eta agurgarri au bat baino ez da. Karmel mendian Jaunak Elias igarleari odai-irudiz adierazo cutsan emakume zoragarria ta Kalbarioko mendian gurutz ondoan zutunik egon zan andra sendo ta biotz andikoa, bat eta berbera da: Jaunaren Ama ta geure Ama on eta errukiorra.

Bere izen guztien artean gozo, samur eta laztantsuenetarikoa Karmelgo Amaren izena dau. Izen onegaz, gitxienez be, birritan agertu da: bein irudiz, jaio baino len, Elias igarleari Karmelgo mendian; beste bein S(an) Simon Stockeri, bizkar-gutun<sup>755</sup> edo eskapularioa ekarri ta emon eutsonean. Karmelgo Ama orixe da; bere gugazko erruki, maitasun eta ardurea zelakoak direan agerkunde bi oneik irakatsi daikegue. Albait argiroen azalduko dautsuedaz; baina lan onetan asi orduko, Jaunaren aurrean auspaztu gaizan eta bere Ama bitartekotzat ipinirik, goiko laguntasuna eskatu daiogun. Karmelgo Ama samurrori, Jaunaren aurrean bitarteko izan zakiguz; gure eskaria ta biotzez dinotsagun Aingeruaren agurra, abegi onez artu egizuz. Agur...

## I

*«Ecce nubecula parva, quasi vestigium hominis ascendebat de mari.»*

«Eta ona emen giza oinatzaren irudiko odai txiki bat,  
itxasotik gorantz etorren.»

(III Reg. 18, 44)

N(eure) entz(u)le) mait(eok), Israelgo erriak bere Jaungoiko itxi ta guzurrezkoak artu, ezagutu ta gurtu ebazan. Au zala-ta, Jaunari eskatu eutsan Eliasek erria bide onera etorri arte euri-tantarik be ez egiala bialdu, ta iru urte ta sei ilabetean Israelgo lurrera ezetariko euririk ez zan jausi. «*Oratione oravit ut non plueret super terraz et non pluit annos tres et meses sex*» (Jac. 5, 17). Leorte luzé onegaz estu ta larri, gosez eta ase-  
rez ebulan erria, Eliasek Karmel mendian bere oparia erreteko zerutik sua eratsi ebanean, barriro bere senera, zentzun onera etorri zan. Igarri

<sup>755</sup> Bizkar-gutun: eskapulario.

eban Baalen igarle guzurtiak guzurak baino besterik ez eutsiela irakatsi; aserratu zan ta Baalen igarle guztiak antxe bertan erail eta garbitu ebazan. Jainkoizun eta guzurrezkoak itxi eta egizko Jaungoiko bakarra Eliasen Jaungoikoa zala ao batez eiagoraz eta diadarrez autortu eban: «*Dominus ipse est Deus, Dominus ipse est Deus*».

Orduan Eliasek erregeari dinotso: «*Sonus multae aquae est*. Euri-jauste andiaren zaratea da». Karmel mendi-gailurrera igon, lurrean auspaztu, arpegia belaun bien artean sartzeko bestean bere burua makurtu, ta lentxuago zerutik sua bialdu eban Jaunari euria eskatu eutsan. Au egin ondoren, dinotso bere morroiari: «*Ascende et prospice contra mare*. Igoik eta itxasaldera begiratu egik». «Begiratu dot, baina euri-antzik ez da agiri», erantzun eutsan morroiak. «Joan adi barrero ta zazpi bidar begiratu egik.» Zazpigarrenez begiratu ebanean, odai txiki bat ikusi eban; giza oinatzen irudiko odaia, itxasbarrutik urten eta Karmel mendirantz etorrela. «*Nubecula parva, quasi vestigium hominis ascendebat de mari*.» «Bizkor joan adi –dinotso Eliasek–, eta erregeari esaiok: ‘Zaldiak artu ta iges egizu, euria dakar-ta’.» Esan eta egin, a odai txikia gero baino gero geiago zabaltzen da eta Israelgo lur igarraren gainera euri eder eta ugarria, euri mami-mamia bialtzen dau... «*Et facta est pluvia grandis*.»

Eliasen eskarietara itxasotik urten eta Karmelgo mendirantz etorri zan odaia. Israelgo lurra euri mami-ederrez ase ta ekarkor egin eban odaia, Karmelgo Ama samurraren irudia izan zala Eleizako irakasleak aurrez dinoskue; baina Karmelgo Ama egiz eta benetan geure Ama da. Au zelan dan jakiteko, gogoz entzudazue.

## II .

Kistinau zintzo bakotzak bizitza bi ditu: izatezkoa ta izatez goitiko. Lenengoa sortzez, jaiotzaz datorio; bigarrenaren sustrai, sinismena da ta Jaunaren eskar edo graziak emoten dautso. Sinestedun gizona ta sinestebakoa, mentau edo eztturiko zugatza ta ezttizagea lez dira. Edozein zugatz edo arbolak ezttitu baino len igale edo frutu mingoitzak emoten ditu; ezttitu ezkerro, ostera, bere garau-aleak be ezti-gozoak izaten dira.

Zugatxondoa igartu barik, bere mentuak igartuko balira, onein bizia galduko leuke; baina zugatzari bere lenengo bizia geldituko litzakeo.

Onelan ba, ezttua izan dan zugatzak, jaiotzaz eukan bizia galdu barik, beste bizitza barri bat artzen dau; aurreragoko bere frutu mingoitzan ordez, mentuari dagokiozan igale gozo, ezti ta ederrak emoten ditu ta ori egiteko barrero jaiio dala dirudi.

Gizona be bardin. Jaunak bere eskar edo graziz eztatzen dauanean, izatez goitiko bizitza barria artzen dau eta bere egintzak be izatez goitikoak, Jaunarentzat ezti-gozoak, zeruko zoriona irabazteko bear diran lakoak izaten dira. Gizonaren jaiotza barri au Jaunak berak adierazo euskun, Nikodemusi esan eutsanean: «*Nisi quis renatus fuerit ex aqua et Spiritu Sancto, non potest introire in regnum Dei.* Gizona urez eta Jainkoaren doez barriro jaio ez badadi, zeruko erreinuan ezin sartu daiteke».

A(ndra) Maria bizitza barri onetara jaio diran guztien Ama da. Begira zegaitik. Edozein amak bere umeai izatezko bizia iru gauzez emoten dautse: bere maitasun, bere odol, bere neke-minen bidez. Amak bere umea maitasunez sortu, bere odolez elikatu ta bere minen bidez munduko argira ekarten dau. Kistinauari dagokion izatez goitiko bizia A(ndra) Mariak iru gauza orreikaz emon dausku. Gure zoriona biotz-biotzez nai eban eta ain zintzoro nai ebalako, erantzun eutsan Aingeruari: «*Fiat mihi secundum verbum tuum.* Esan dozun lez, egin bekit». Gure osasuna biotz-biotzez nai eban eta origaitik, gurutzearen oinean be, Ama samurrak, bere «*Fiat*» barriro esanaz, bere Seme laztanaren bizia Aita Jaungoikoari gure aldez, gure onerako, maitasun andiz eskini eutsan. S(an) Pedro Apost(oluak) dinoskunez, Jesukistok bere odol ederez erosi ginduzan; baina Jaunak gu erosi ta guri bizitza barri ori emoteko isuri eban odola bere Amaren erraietan artu ebalako ondo dakigu, ta A(ndra) Mariak gurutzearen oinean gure Ama egiteko, oinaze ta min izugarriak artu ta eroan, egari ta jasan ebazala, nok ez daki?

Onelan ba, kistinau-izatea ta oni dagokion bizitza barria, A(ndra) Mariak bere maitasunez, bere odolez, bere neke-minez emon dauskula agiri da. Baina iru gauza orreikaz izatezko bizia emon dauskun emakumea egiz eta benetan geure ama bada, iru gauza orrein bidez izatez goitiko bizia emon dauskulako, A(ndra) Maria be egiz eta benetan geure Ama da. Jaungoikoaren Ama, geure Ama, kistinauon Ama da; biotz maitalea dauko; errai bigun-samurrak ditu, asko maite gaitu, bere eskua luzatu ta guri laguntzeko gertu ta prest dago. Gauza ederragorik, gauza atsegin-ezti ta samurragorik ezin gomutau geinke! Eliasen odaiak bere erraietan ekarren euria, Israelgo lur leorraren osasun eta bizia izan zan; A(ndra) Mariak bere erraietan sortu ta erabili eban Jauna, gure arimen osasun eta bizia dala guztiok dakigu. Arek odaiak Israelgo lurrarentzat urrezko euria ekarri eban; Karmelgo Amak gure gogo-biotzentzat eskar edo grazien euri osasungarria dakar. Jaunak emon dauskun Ama errukiorra, auxe da, ta jakitunak dinoskunez, Jaunaren errukia biotz gaxoentzat lur leorrarentzat euria baizen eder eta osasungarri da: «*Speciosa misericordia Dei in tempore tribulationis quasi nubes pluviae in tempore siccitatis*» (Eccli. 35, 26).

## III

Amairugarren gizaldia asi ta laster, Ingalaterran, amabi urteko mutil gaztetxu bat bere etxe, senide ta aiskideak itxirik, bakarlekura, basapiztiak baino beste inor bizi ez dan toki itzal batera doa ta antxinako bakartzaileen antzeko bizitza latza egiten asten da. Areitz arro bat bere bizitoki, errekatxuko ura bere edari, bedar eta sustraiak bere janari, otoitz edo orazioa, otoigintza bere egunoroko zeregina dituala, bizikerra latz aretan 33 urte oso igaroten ditu. Bere Jaun eta Jaube bakarra Jaungoikoa da; bere itxaropen samur eta uste betea, A(ndra) Maria. Simon Stock, bere izena. Onetan, karmeldar batzuk, Eliasen lezea, Karmel mendia itxita, Europara etorri ziran. Etorrera au goiko argiz ezagutu eban Simonek. Karmeldar aek bere seme maiteak zirala ta euren batzarrera dei egiten eutsala iragarri eutsan A(ndra) Mariak. Dei oni erantzunaz, Simon bere bakarlekua itxita karmeldarrakana dator; eruen soinekoa artu ta Karmelgo Amaren seme egiten da.

Zeruko garrez bere biotza berotu nairik, Palestinara doa. Gure Jaunak bere oinakaz zapaldu ebazan lur aetan ortozik dabil; Karmel mendira eldurik, Eliasen lezan auspazten da ta atseginez beterik dino: «*Ecce ego, vocasti enim me*. Ama laztanorrek, deitu nozu ta emen naukazu. Guztiz, osoro zeurea izateko asmoz nator eta artu nagizu». Sei urte an igarota, Eliasen garra bere biotzean ekarrela itzuli zan Europara eta andik laster karmeldarrak euren buru, agintari nagusi izentau eben. Baina Karmelgo semeen aurka ekatx gogorra jagi zan; batzar au eratsi, apurtu ta ondatzeko asmoz arerioak lanean gogor ziardeen. Estutasun larri aretan Karmelgo semeak indar eta laguntza bila euren zeruko Ama on eta samurragana zuzendu ziran.

Mila berreun eta berrogeta amaikagarren urtea (1251) ta garagarrieko 15etik 16ra bitarteko gaba zan, Zeruko Amari laguntza eske itzar eta ernai egoan S(an) Simon Stock; belauniko, bere begi, beso, gogo ta biotza gora jasota, uste betez dei egiten eutsan, inotsala: «Ama samurrori, erruki zakiguz; arerioen eskuetatik onez atera gaizuz. Zuk lagundu ezik galduak gara-ta, zeure magalpean artu ta zaindu gaizuz. Maite ta laztan zaitugu-ta, zeure maitasunaren ezaugarriren bat emon eiguzu». Onelan egoala, ilargia baizen eder, eguzkia baizen argi ta izarrak irudien aingeruz inguratuta, otoz otoan agertzen jako Karmelgo Ama. Bere eskuan eskapularioa dakar eta gozo ta maitaro dinotso: «Ene semea, eutsi; eskapulario au artu egizu. Karmelgo semeen ezaugarritzat dakartsudan soineko au, euren babes ta jagola izango da; estualdi eta galdu-gordeetan berariz lagundu ta zainduko zaitue ta berau eraspenez soinean daroala il daitenik barrendiko sutara ez da jausiko» (Juan XXII).



S(an) Simonek pozaren pozez zer egin eta zer esan be ez ekian. Ama laztanari eskarrak emon eutsazan; zerutik ekartson soinekoa itzal andiz artu eban eta laguntasun barri onegaz sendaturik, karmeldarrak aurretzean inoren eta ezeren bildur ez ziran izan. Arerioak ixildu ziran, ekatxa baretu zan eta aita santuak eraspen au onetsi ebanean, Karmelgo Amaren soineko osasungarria kistinauak aurrez, joran andiz, biotzez eta pozez artu ta jantzi eben.

Juan XXIIgarren aita santuak dinoanez, Karmelgo Amak bere eskapularioa daroenai beste mesede andi bat be eskini dautso: «Bizitza onetatik urten dagienean –dino– garbitokira balioaz, eriotz osteko lenengo zapatuan, neu, Amatzat ezagutu nabenu, garbitokira jatsiko naz eta an aurkituko dodazan neure semeak andik atera ta betiko zorionera eroango dodaz. *Protego nunc, in morte juvo, post funera solvo*. Orain neure magalpean artuko dodaz, eriotzan lagunduko dautset eta eriotz ostean be euren zorretatik askatuko dodaz. *Post funera solvo*».

#### IV

Karmelgo Amak eskapularioa emonaz, bere semeai mesede andi ta gomutagarria egin dautse; soineko osasungarriz jantzi ditu. Eskapularioak Jakobean soinekoa dirudi. Badakizue, Rebeka bere amaren aginduz, Esau anai nagusiaren soinekoz jantzi zan bein baten Jakob, eta onelan jantzita, bere aitaren onespén edo bendezinoa ta anai nagusiaren eskubide ta ogasunak beragandu ebazan. Gure Aita zerukoaren bendezinoa ta Jesukisto gure anai nagusiaren irabaziak geugandu ta geuretu daikeguzan, Karmelgo Ama samurrak, Ama errukior eta laztanak, Jesukisto bere Seme ta gure anai nagusiaren soinekoz jantzen gaitu. Eskapularioa maitaro daroanek Karmel mendirantz etorri zan odai atsegingarriari dei egiten dautso; Eliasek orduan euriaren ots eta zaratea entzun eban lez, eskapularioa eraspen edo debozinoz soinean darabilanak be Jangoikoaren eskar edo grazien otsa, goiko mesedeen zarata orren zoli ta pozkarria entzungo dau.

Baina orretarako, begira zer egin bear dan. Eliasek euria eskatu baino len, Baalen igarle guztiak ilerazo ebazan; landara gaizto aek lurretik kendu ta gero, eskatu eban euria, eta orduan, ez lenago, orduan agertu zan Karmel mendirantz etorren arako odai urtsu ta atsegingarria.

Baal izen onek israeldarren izkuntzan ugazaba adierazoten dau; eskubide barik ugazaba egin dana, esan nai dau. Gure grina dongeak eskubide barik geure ugazaba egiten jakuz eta igarle guzurtien antzera, guzurak eta bide okerrak irakasten clauskuez. Augaitik, graziazko euri

osasungarria lortu nai badogu, igarle guzurti oneik, geure jabe ta ugazaba egiten jakuzan grina donge oneik, zapaldu ta il bear doguz edo beintzat, gitxienez be, biotzetik kentzeko asmo ta erabagia artu bear dogu. Asmo onegaz eskatzen badautsagu, bai, Karmelgo Amak lagunduko dausku. Eskar eta mesede askoren inontz eta curia gure biotzetara bialduko dau; Israelgo lur igarra egin eban lez, gure biotz oneik be, apatz, bigun, gozatsu ta ekarkor egingo ditu eta zeruko zoriona irabazteko bear diran igale edo frutu ederrak emongo dabez. Onenbestegaz amaitzera noa.

Zerua izarrez beterik dago; Karmelgo Amak bere eskuak mesedez beterik daukaz. Bere eskapulario eraspenez eroan eta bera maite izan badaigu, bizitzan bere magalpean artu, eriotzan lagundu, ta eriotz ostean geure zorretatik askatuko gaitu; bizitzako arriskueta zaindu ta criotz aldian lagunduaz gainera, criotz ostean be garbitokira baginoaz, ango atea idegiko dausku. Karmelgo Andra bikaina, zeure oinetan auspazturik, eskar onez eta pozez dinotsugu: Ama laztan, Ama bigun, Ama gozo, Ama on, zure mesede andiak autortzen doguz; guztiakaitik eskar zintzonenak damotsuguz. Zeure magal ori zabaldu ta guztiok zeure egape gozoan artu gaizuz; bizitza zuzenaren bidez betiko zoriona jadetsi daigun, orain eta beti lagun zakiguz.

## XLIV

### JOSE DEUNA, GURE BITARTEKOA

*«Ite ad Joseph et quidquid vobis dixerit, facite.»*  
«Josegana zoaze ta berak dinokezuena, egizue.»

(Gen. 41, 55)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

*Genesis* deritxon liburuan irakurten dogunez, estualdi ta bearrizan andian aurkitu zan bein baten Egiptoko erria. Zazpi urtetan ango lurrak bere arnari ta frutuak esku-zabalez, ugari ta jori emon zituan, baina urte ugari onein ondoren beste zazpi urri ta mirrixak<sup>757</sup> etorri ziran. Urritasun onek aurreragoko ugaritasuna iruntsi eban eta Egipton eta inguruko errietan gosetea, izugarritzko gosetea sartu zan.

Ugaritasun eta asebetearen urrengo, beste zazpi urteko urritasun eta gosetea etorriko zirala, Jaungoikoak iragarri ta erakutsi eutsan Jose Jakob ben semeari. Onek, gizon jakitunak egin oi daben lez, gauzak ugari ta merke egozan bitartean erosi ta batu, aletegi barriak egin eta gari, garragar, olo ta enparauakaz gonburu bete ebazan. Gero, egiptoarrak, euren buruak preminan ikusirik, euren errege Faraongana, janari eske zuzendu ziranean, onek erantzun eutsen: *«Ite ad Joseph et quidquid vobis dixerit facite.* Josegana zoaze ta berak esan daizuen edozer egizue».

Kistinau-errian be urte ugarien ondoren urriak etorri dira. Gure sinesteak gizonen biotzetari erro sakonak eukazan bitartean, zerutar azi onen frutu ugari ta ederrak ikusi ziran, Jaungoikoaren legea obeto bete oi zan eta alkargazko maitasunez egitada on asko be egiten ziran; gizonak euren egikizunetan sineste-argiz ebiltzanean, gizartean bake andia egoan, aberats eta txiro, ugazaba ta langileen arteko aserre ta burrukarik ez zan ezagutu. Baina sinestea urrituaz, alkarganako maitasuna gitxi-

<sup>756</sup> Hirugarren eskuizkribu-liburuari jagokoz gai hau dakarren berbaldiak.

<sup>757</sup> *Mirrixa*: murriz, erkin.

tu ta makalduaz, aserre bizia sortu zan gizartean. Ordutik aurrera, guztiak gosez dabiltzala dirudi, lurreko ogasun eta atseginen gosez: asko daukenak, geiago nai dabe; gitxi daukenak, aserre dira, ta euren aldia, lan barik edo lan gitxigaz, ondo jan, ondo jantzi, jauregietan bizi ta atseginetan igiri egiteko euren aldia, euren txandea noz etorriko ete dan begira dagoz eta au dala-ta, gaur egunean gizartea edonon aserre bizian dabil.

Gizarteko aserre ta burruka gogor au ikusirik, azkenaldi onetan Eleizearen buru izan diran aita santuak gizaseme kistinau guztiakana zuzendu dira eta esan dautse: «Bizitza au baino besterik ez balego lez guztiok lurreko ogasun eta atseginen gose-egarriz zabilte; baina alperrik zuen atsegin eta zorion egarri ori, lurreko gauza utsez ezin ase ta naikotu leiken egarria da-ta. Aserre barik, bakez bizi nai badozue, asaben sinestera biurtu zaitzeze: 'Josegana zoaze ta berak esan eta irakatsiko dautsue-na egizue. *Ite ad Joseph et quidquid vobis dixerit, facite*'. Eta egiz, gizartean bakea ipini, lurreko atseginen egarria gitxitu, zerukoena geitu ta ango ogasun eta zorionak jadesteko, S(an) Jose laguntzaile ta bitarteko on-ona dogu. Itzaldi onen gaia orixe da, orixe azaldu ta adierazo nai neuskizue. Baina onetan asi baino len, oitura dan lez, Jaunaren aurrean auspaztuta, bere argi ta laguntasuna eskatu daioguzan.

## I

*«Ite ad Joseph et quidquid vobis dixerit, facite.»*

(Gen. 41, 55)

N(eure) entz(ule) mait(eok), A(ndra) Maria ta S(an) Jose andikien odolletikoak ziran, baina euren asabak gitxira etorri ziralako, eskuetako lana baino beste ogasunik ez euken. S(an) Jose zan etxeko buru ta buru zalako etxean bear zana irabazteko ardurea berak eukan. Naiz Egipton naiz Nazareten bere izerdi ta lanaz irabazi eban berak, A(ndra) Mariak eta Jesus umetxuak biziteko bear eben guztia. Arotzian ekiten eutsan; gauza andirik ezin eikean irabazi, baina biziteko lain euki ezkerro bape ez eutsan ardura. Sineste biziko gizona izan ez balitz, bere lanaz biziteko bear zana ta orregaz batera zeruko zoriona irabazten jakin ez baleu, gitxitxu irabazteaz urduritu ta artegatuko zan bearbada, beste asko egin oi diran lez; baina lanean inarduala, Jaungoikoaren naija egin eta Jaunari atsegin emoten eutsala, lurrerako gauza andirik irabazi ez arren, zerurako asko irabazten ebalba baekian eta bake andiz, gogo onez ekiten eutsan bere lanari.

Aldi bateko langileak, sineste biziko gizonak ziran-ta, baekien, S(an) Joserren antzera, euren begiak gora jaso ta zerura begirutzen, geroko itxaropenaz emengo neke ta izerdiak arindu ta gozutzen. Beste aldetik, orain besteko aberats andirik, langileai zerbait geiago emoteko eskua urri ta edozein zorakeritan dirutza andiak eralgiteko eskua zabal dauken aberats okitu<sup>758</sup> orreik lakorik, ez egoan edo guztiz gitxi. Egozan aberatsak euren langileai ondo begirutzen eutsen: etxeko lez artzen ebezan eta geixo ta ezbearretan maitasunez lagundu; augaitik, aldi bateko langileak biziteko lain irabazi ezkerro, ez ziran aserritzen, ugazabakin bakean ebiltzan. Baina gero, batean eta bestean lantegi ta ola andiak ipini ta ugazabak irabazi izugarriak egiten asi ziranean, bakea apurtu ta aserre bizia sortu zan laster ugazaba ta langileen artean. Noz amaituko dan inok ez daki.

Ugazaba askok sinisterik ez dauke; langileak be ez. Aberats askok lurra zeru egin nai dabe, atseginez ezin dira ase: lau badaukez, amar nai dabe; amar badaukez, ogei. Orretarako, irabazia bear dala-ta, irabaztez be ezin dira ase; irabaziago ta diru gose-egarri andiagoo sartzen jake biotzean. Ola ta lantegietan dabilzan langilerik geienak be sinisterik ez dauke, gerorako itxaropenik be ez. Bizitza au baino beste bizitzarik ez dagoala, emengo atsegin, emengo zorionak baino beste atsegin eta zorionik gizonarentzat ez dagoala irakatsi dautse, eta ori ikasi dabeneko, aserre ta amurruz dinoc: «Zelan da au? Bizitza au baino beste bizitzarik ez; emengoxe atsegin eta zorionak baino besterik ez; eta aberatsak dauken jai andi onetan guretzat lekurik ez, mai onetan guretzat platerik ez, munduko atsegin orreitan guretzat otapurak<sup>759</sup> eta ezkurak baino besterik ez... Zelan da ori? Batzuk, ugazaba ta aberats dirala-ta, atseginetan igiri, eurak nai daben lez aukeran bizi, ta gu beti nekez eta lorrez? Ori ezin izan daiteke, gu be gizonak gara. Gure txandea eldu da, gizartea laster ipiniko dogu goikoez bera!». Ori dinoc, eta egingo ez ete daben bildür izateko da.

Auzi andi au erabagi ta bakea ipinteko, agintari ta jakitunak buruausten dabilz; sinisterik ez dabe nai, sinestearen orde z euren jakituria bitartekotzat artu dabe. Zer egin dau? Gauza gitxi, ezer be ez; berak baka-riik, egingo be ez. Azkenengo asmakizuna, dakizuen lez, auxe izan da: laneko orduak gitxitu, alogerak geitu. Baina ori, ondo begiratu ezkerro, suari su emotea baino besterik ez da. Orduak gitxitu, alogerak geitu:

<sup>758</sup> *Aberats okitu*: milioi askodun.

<sup>759</sup> *Otapur*: ogi-apur, ogi-mamin.

biziteko bear diran gauzak, karutu; bizigaiak<sup>760</sup> karuago ta langile ta pobreak, txarrago.

Sinestea alde batera itxi ezkerro, auzi au erabagi ta gizartera bakea ekarri daiken jakituririk ez dago. Lurrak berez, lan barik, bear dan baino geiago, larregi emongo baleu, jakituri utsez be zerbait egingo litzake; baina lurrari emon eragiteko, lan egin bear da. Beste aldetik, diruak berez diru-gosea dakar; lurreko atseginak ase ezindako egarria sortu daroe gizonen biotzetan. Augaitik, ugazaba ta langileak sinestera ez badatoz, euren egikizunetan sineste-argiz ez badabilz, burruka au amaitzeko eginalak alperrik izango dira.

Gizartean bakea ipinteko, bide bat baino besterik ez dago: lurra gure erbestea dala gogoratu; arimako begiak gora jaso ta geure lan eta egite onen sari osoa emengoa baino ohea betiko bizitzan itxaron. S(an) Josek ori irakatsi euskun, augaitik aita santuak guztiai esan dautse: *«Ite ad Joseph et quidquid vobis dixerit, facite*. S(an) Josegana zoaze ta berak irakatsiko dautsuena, egizue». Ugazaba ta langileak euren begiak gora jaso ta zerura begiratuko balebe, lurreko ogasun eta atseginak baino goikoak, zerukoak gose-egarri andiagoaz bilatuko balebez, aberatsak gitxiagogaz ase, langileak be gitxiagogaz naikotuko litzakez, eta gaur gizartean ez dagoan bake ori errez-errez lortuko litzake.

## II

Lurreko gorabera, aserre ta burrukak baretu, amaitu ta gizartean bakea ipinteko, S(an) Jose eredu, jarraibide ta irakasle ona dogu; zeruko ogasun eta zorionak irabazteko be laguntzaile ta bitarteko ona dogula, beingo baten adierazoko dautsuet.

S(an) Josek zeruan eskubide andiak daukazala jakiteko, lurrean euki zituan zereginak gogoratzea naiko dogu. A(ndra) Mariaren ezkontide, Jesukistoren aitaordeko, ta sendi edo famili santuaren buru izan zan. Iru zeregin orreitarako Jaungoikoak bere eskuz autetsi eban S(an) Jose; zeregin orreik gizonen euki daikezan andi ta arduratsuenak dira. S(an) Josek ondo baino obeto egin, Jaungoikoari atsegin emon eta bere gogoa bete eutsalako, Jaunak berak be zeruan sari ta zorion ederrez ordaindu dautsala, agintza ta eskubide andiak emon eta gorengo mailan ipini dauala sinetsi geinke ta sinestu bear dogu.

<sup>760</sup> Bizigai: janari.

1. Ezkonduen artean, dakizuen lez, bardintasun osoa ez bada be, al bait bardintasunik andiena egotea ondo baino obeto izan oi da; batez be ezkonduak biotzez eta maitasunez alkarren antzekoak izatea. Izake-ra, aiurri<sup>761</sup>, asmo ta gurarietan alkarren idekoak izatea, guztiz arira dato-  
ren gauzea da. A(ndra) Maria emakume guztien artean garbi ta santue-  
na, bikain eta gorenengoa, Jaungoikoaren maiteen eta gogokoena izan  
zala badakizue.

S(an) Jose A(ndra) Mariaren ezkontide benetakoa da; orretarako Jau-  
nak berak autetsi eban, eta Jaunak gauzak ondo ta zuzen egiten ditua-  
lako, bere Amari senarrik, obeto esateko, ezkontiderik onena, egokiena,  
bere antzekoena emon eutsola uste izan bear dogu.

2. Jesukistok, gizona danez, aitarik ez daukala badakizue; Mariaren  
errai garbietan Espiritu Santuaren egitez sortu zan, Kredoan esaten  
dogun lez. S(an) Jose Jesukistoren ugazaita edo aitaordekoa baino ez da;  
baina ori ta guzti be legearen aurrean aita lez agertu zan. Legeak aita-  
ren eskubideak emoten eutsazan, eta ondo begiratu ezkerro, eskubide  
orreik S(an) Joseri beste edozein aitaordekori baino askozaz obeto ego-  
kiozala inok ezin ukatu legi.

Edozein solotan, mirariz, soloaren jabeak ezer egin barik, iturri eder  
bat sortu, erne ta jaioko balitz, iturri ori soloaren jabe ta ugazaba dan  
gizonarena dala guztiok esango geunke. Jesukisto mirariz sortu ta mira-  
riz jaiio zan; baina bere Ama, A(ndra) Maria, S(an) Joseren ezkontide  
zalako, bere emaztearen erraietan sortu zan Jesusegan, ugazaba ta jabe-  
ak euki oi dauan lako agintzea, eskubidea eukan S(an) Josek. Augaitik,  
A(ndra) Mariak bere semea galdu ta Jerusalemgo eleizan aurkitu ebane-  
an, ezetariko kezka barik esan eutsan: «*Fili, quid fecisti nobis sic? Ecce  
pater tuus et ego dolentes quaerebamus te.* Ene semea, gugaz zegaitik  
egin dozu ori? Ona emen zure aita ta ni, atsekabez beterik, zure bila ibi-  
li gara».

3. Onèzaz gainera, Jaungoikoak onelan nai izan ebalako, S(an) Jose  
Nazareteko etxearen buru; sendi edo famili santuaren agintari ta jagola  
be izan zan: «*Constituit eum Dominum domus suae.* Bere etxearen buru,  
ugazaba, agintari ta jaube egin eban Jaunak». Jaungoikoaren eskutik  
zeregin arduratsu ta andiagorik artu dauan gizonik izan ete da? Ezetz  
dirudi. Jaungoikoak bere Semea ta onen Ama baino maiteagorik ez  
eukan lurrean; maiteen zituan biok jagon eta zaintzeko ardurea S(an)  
Joseri emon eutsan ezkerro, S(an) Jose Jaungoikoaren begi-begiko zala,

<sup>761</sup> Aiurri: jite, temperamentu.

Jaunari gogoa bete eutsala agiri da. Baina Jaunak berari lurrean atsegin geiago emon dautsenai, bere gogokoago izan diranai, zeruan be zorion eta eskubide andiagoak emoten dautsez; augaitik, A(ndra) Mariaren ezkontide, Jesukistoren aitaordeko ta famili santuaren buru izan zan santu onek, eskubide andiak daukazala zeruan eta geure laguntzaile ta bitartekorik onenetariko dogula zuzen eta oker egoteko bildur barik sinestu geinke.

4. Kistinau-bizitzearen sorkunde ta jaiotzea, Eleizearen asikerea, Leon XIIIgarren aita santuak esan ebanez, Nazaretoko etxetxuan dago; gure sinestea ta kistinau-bizitzea antxe sortu ta erne ziran eta andik zabaldu dira. Au dala-ta, Nazaretoko etxearen buru, famili santuaren jagola izan zana, orain be Eleizearen Zaindari, kistinau-erriaren jagola, laguntzaile ta bitarteko izatea guztiz egoki datorren gauzea da; eta zeruko zoriona jadesteko bera baino laguntzaile oberik, bitarteko arduratsua-gorik ezin euki geinke.

### III

Aspaldi onetan, Lekeitioko langileok zeuen geixo ta ezbear, zartzaro ta eriotzan alkarri laguntzeko zeuen batzar edo anaidia daukazue. Anaidi au S(an) Joserren izenekoa da; bere zerutar Jagolatza, Jaunaren aurrean bitartekotzat Nazaretoko langile bikain eta uren<sup>762</sup> ori, omen andiko santu ori dauko. Ori eginaz, sineste biziko langileak zariela, bizitza onen ondoren beste bizitza zorionsu bat itxaroten dozuela argiro adierazoten dozue.

Egiz, gizonarentzat bizitza onetako atsegin apurrok, eukiago ta egarri andiagoo emoten daben atsegin apurrok baino besterik ez balego, lan egiteko, egunoro lanari ekiteko, poz andirik ezin euki lei. Baina geure sinesteak atsegin eta zorion andi ta ederragoak, inoz amaituko ez diran zorionak agindu ta eskintzen dauskuz, eta betiko zorion orreik, geure eguneroko lanaz, geure zereginak ondo beteaz, geure izerdi ta nekeen bidez, zindo ta zintzo jokatuaz, irabazi, lortu ta eskuratu geinkezala dinosku.

S(an) Josek ori irakatsi euskun: lurrean txiro, zeruan aberats; lurrean txiki, zeruan andi; lurrean nekez eta lorrez, zeruan atsegin eta zorionez; lurrean lan, zeruan atsedeen. Lanean diardugula, S(an) Josegaz gomutau

<sup>762</sup> Uren: gorengo.



gaizan; bere antzera geure biotz eta gogoak jaso ta Jaunaren agindua bete, bere naia egin eta berari atsegin emotea gogoan erabili daigun. Jaunaren maitasunez ekin daiogun lanari, ta Jaunak, orain lagunduaz gainera, bere maiteentzat zeruan daukan zoriona be emongo dausku.

S(an) Joseren aurrean auspaztu gaizan eta bere laguntasuna eskatu daiogun: Geure bitarteko zaitugunorrek, gure sinestea geitu ta bizkortu egizu; zeure antzera lan egiten, geure lanaz betiko zoriona irabazten irakatsi eiguzu; bizitzan eta eriotzan laguntzaile izan zakiguz, kistinau onak lez bizita, betiko zoriona be jadetsi daigun.

## XLV

Lekeitio

JOSE DEUNA<sup>763</sup>

«*Nonne hic est filius fabri?*»  
«Ez al da au langilearen semea?»

(Math. 13, 55)

«*Joseph autem vir ejus cum esset justus.*»  
«Jose, bere ezkontidea, zuzena zan-ta.»

(Math. 1, 19)

N(eure) e(ntzule) m(aiteok):

Lan egiteko ta lanaz biziteko agindua, Jangoikoak ezarri eutsan gizonari. *Genesis* deritxon liburuak dinosku: «Bere eskuz egindako gizona artu ta atsegintegian ipini eban Jaunak». Zetarako? Paradisuko atsegin artean, ezer egin barik, alper eta nagi biziteko izan ete zan? Ez! «*Ut operaretur et custodiret illum*. Paradisuko lur emokorra bere bearraz landu ta zaindu egian.» Zetan edo atan lan egiteko, orretarako ipini eban Jaunak paradisuari gizona. Baina orduan lana gizonarentzat atsegina zan, orain, ostera, nekea da.

Zegaitik? Atseginezko toki aretan zoriontsu bizi zan gizonak Jangoikoaren legea ausi ebalako, orixegaitik Jaunak esan eutsan lenengo gizonari: «Nire agindua ausiaz, gaiztakeria egin dozu; ori egin dozulako, aurrerantzean lurra ezikaitz, biurri ta madarikatua izango da zuretzat. Lurraz, baseaz egin zara ta barriro lurrera, auts izatera bihurtu arte, jango dozun ogi-kopaua zeure arpegiko izerdiz irabazi bearko dozu». Au dala-ta, orain gizonarentzat lana Jaungoikoaren agindua ezeze, Jaunaren zigor edo kastigua be bada; eta ain zuzen be, zigor edo kastigua dogulako, lana guretzat nekea da.

---

<sup>763</sup> Izenburuagaz batera: «Lekeitioko langileai».

Norbere guraz egiten dan lana, larregiren bat izan ezik beintzat, gizonarentzat atsegingarri be izan daiteke; baina premineak, bearrizanak, naitaezak<sup>764</sup> eginazoten dauana, latz eta garratza, gogor eta neke-tsua izan da beti ta izango be bai. Orraitik be, inoz begiak gora jaso barik, geroko itxaropen barik, ogi-kopau bat irabaztea baino beste asmu barik lanean diarduan gizonarentzat, lan ori naitaez, kistinau dan langilearentzat baino, geroko itxaropena daukan gizonarentzat baino, askozaz be latz eta garratzagoa, astun eta neketsuagoa izango da.

Egiz, gizonaren gaiztakeria lan neketsuaz zigorkatu edo kastigau eban Jaunak; baina Jauna gure zeruko Aita on, errukior eta samurra da-ta, beti, zigorkatzen gaituanean be bai, geure on eta mesederen bila dabil. Augaitik, eta Jaungoikoak olantxe nai izan daualako, geure lanaz grina gaiztoak ezi ta pekatuen orbanak garbitu geinkez; geure lanaz Jangoikoari dautsaguzan zorrak ordaindu geinkeoz eta zerurako irabaziak be egin geinkez. Onela, lana bear dan lez egin ezkeru, gizonarentzat zerurako bidea da.

San Joseren batzar edo anaidian zagozen Lekeitioko langileok, gaur zeuen zerutar Jagola orren deduz, omenez eta opaz jaia egin eta ospatzen dozue. San Jose langile zintzoa ta santu andia izan zan. Langileak, geixo ta ezbearretan bata-besteari laguntzeko, alkartuta egotea gauza ona da; alkargo edo anaidi orren jagolatzat San Jose eukitea, ona baino be ohea. Neure itzaldi onetan orrexek gauza biok azaldu nai neuskizuez. Orretan asi orduko, oitura danez, Jaunaren aurrean auspazturik, goiko argi ta laguntasuna eskatuko dautsaguz. Bitartekotzat S(an) Joseren ezkontide ta geure zeruko Ama samurra ipinirik, Aingeruaren agurra esan daiogun.

## I

N(eure) e(ntzule) m(aiteok), gizarteak gorabera andiak izan ditu. Gaur egunean be ondo dagoanik ez dinot; gizarteko gauzak dagozan baino obeto ipini leikezala dirudi, baina gizartea gaur baino askozaz txarrago be egon da. Erroma mundurik erdiaren jabe ta agintari zanean, bitariko gisasemeak egozan: batzuk aske edo libre, euren buruen jabe ziran; besteak ez ziran euren buruen jabe, inoren otsein, morroi ta jopu baino. Lenengoak, erti-lanak, lan bitxiak egiten ebezan, besterik ez. Burua nekatzeko lanak bai, baina gorputza nekatzeko zan lanik ez eben

<sup>764</sup> *Naitaez(a)*: eginbehar, obligazino.

egiten; onako lan guztiak otseinenak, morroienak, jopuenak ziran, eta onetariko askok, oina ta soina, jana ta jantzia baino beste irabazi barik, ekin bear izaten eutsoen lanari. Gorputza askotxu nekatu barik egin ezin leikezan lan orrei *opera servilia*, 'otsein-lanak', eritxoer erromarrak, eta lan orreik gizon aske edo librearentzat lotsagarri zirala uste eben. Eretxi okerra da ori; baina eretxi oker orrek gizartean sustraiak sakon bota eba-zan eta luzaro iraun eban.

Eretxi okerra dala esan dot. Eta egiz, eskulana, gorputza nekatuta egiten dan lana, gizonarentzat ez da egundo izan lotsagarri. Alperkeria bai, ekandu txar guztien ama dan alperkeria, bai. Baina lana, lotsagarri? Gizona zindotu, obetu ta goratzen dauan lana, lotsagarri? Kistinau danak olakorik ezin esan daike. Kistinaua Jesukistoren jarraitzailea da. Jesukistok zer egin eban? Ogetamar urtera arte, bere bizitzarik geienean, Nazaretoko lantegian lanari ekin eutsan. Augaitik, gero, irakasten eta mirariak egiten asi zanean, judatarrak esaten eben: «*Nonne hic est filius fabri?* Ez al da au langilearen semea; ta berau be langilea?» Ikasten ez da ibili ta ikasi barik, dakian beste zelan daki? Jangoiko Semeak bizibidea irabazteko lanean ziarduan. Jangoiko andia lan egiteaz ez zan lotsatu, ta guk gizon txikiok lana lotsagarri danik zelan esan geinke?

San Jose be jatorriz erregeen odoletikoa zan; baina lan egiteaz ez zan lotsatu, ez gitxiagorik be. Lana baino beste etorririk ez eukan, eta etxerako bear zana irabazteko, zintzoro lan egin eban. Lana Jaungoikoaren agindua zala, lan eginaz Jangoikoaren naia beteten ebala baekian, eta eriotzaraino gogoz ekin eutsan lanari. San Jose lurrean be gizon andi ta ospatsua da. Gauza arrigarririk ez eban egin, Jangoikoaren aginduari burua makurtu ta ixil-ixilik lanari ekin baino besterik ez. Baina bere lan guztiak Jaungoikoaren maitasunarren egin ebazalako, orain zeruan be maila goratu ta eregian dago. Lanak goratzen gaitu gizartean; bear dan lez egin ezkeru, lanak goratzen gaitu Jangoikoaren begietan be. S(an) Josek bere bizitzan orixe irakatsi dausku; augaitik, langile zintzo au guztiok eredu ta jarraibide dogu.

Eskulanaz bizi bear daben langileak, lana baino beste etorri andirik ez daukenak, banezean, bakotxa bere aldetik ibili barik, indarrak alkartu, batu eta ezbearretan bata-besteari laguntzeko, alkargo edo anaidia egin askoz obe dabe. Jakitunak dinosku: «*Melius est duos esse simul quam unum; habent enim emolumentum societatis suae*. Bakarrik baino alkartuta obe, alkartuta dagozanak alkarren laguntza dauke-ta» (Eccle. 4, 9). «Bat jausi badadi, besteak eutsiko dautso; bakarrik dabile-naren errukarria, jausi badadi, jagiten nok lagundu ez dauko-ta. *Vae soli, quia cum ceciderit, non habet sublevantem se*» (Eccle. 4, 10).

Lana baino beste etorririk ez daukan langileak, beretzat eta etxe-koentzat naiko izango danik ez dau uste izan bear; osasun eta indarren jau-be balitz, orduan bai, baina gizonik sendoena be lanerako gauza ez dala gitxien uste dauanean gelditu daiteke. Geixoak ez dau inor ezagutzen; ezbearra edonori etorri lekikeo. Lanerako gauza ez dala zarra nai gaztea gelditu leiteke eta ezbear orrek jo ezkeru, gazteak zarrak baino laguntza andiagoa bear izan leike. Orrezaz gainera, gaurko gaztea, urte gitxi barru, zarra izango da; gazte dan bitartean, alkargoan sartuta zarrai lagundu badagioe, gero berari be atzetik datozen gazteagoak lagunduko dautse. Inori lagundu nai izan ez dautsanak, ostera, gero inoren laguntzarik be ezin itxaron daike. Geixo ta ezbearra noz, nori, nondik eta zelan etorri leikeon inok be ez daki. Arriskuan guztiok gagoz; arrisku-etarako laguntasuna bilatzea, zurtasun eta jakituri andia da.

Inoz ezbearrik ez zoritxarrik ez geixorik ez baletorkio be, langileak alkargo edo anaidian sartuaz, zer galtzen dau? Ezer be ez. Alkargoan sartuaz, beste edozein bazkidek lez, berak be ezbearretarako laguntasunaren eskubidea euki dau. Ezbearrik ez jakola etorri? Ainbat obe; geixotu diralako, besteen laguntasunaren preminean aurkitu diran lagunak baino zoriontsuago izan da eta Jangoikoari zegaitik eskarrak emon badauko.

Langileak euren ezbearretan alkarri laguntzeko anaidian batuta ego-  
tea ondo da; beste enparauok be olako alkargoari zerbait laguntzea ez litzateke txarto. Lekeitioko langile asko San Joseren izeneko anaidian, kofradian dagoz. Euren arautegiak dinoanez, anaidi onetako bazkideak bitarikoak dira: barrukoak eta laguntzaileak. Ilebete baktotxean lau erre-  
altxu emon dagizana, bazkide laguntzailezat dauke. Bearrizanean aurkitzen danari laguntza, preminan dagoanari limosna egitea ondo da; baina preminarik izan ez dedin, edo beintzat premina gitxiago izan dadin, aurretiez laguntasun ori emotea, askoz obe. Lenengoa, karidadea da; bigarrena karidade ta zurtasuna, biak batera.

Onako langileai lagunduaz, alperrai barik, al izan daben artean lan egin daben gizonai laguntzen dautsegu; emon daioguen laguntza ori, ezbear eta geixoetarako izango dala be badakigu. Geixo, ezbear eta preminai arpegi emoteko alkartu diran langileak, nagi ta burubakoak ez dira izan, gizon zur, zintzo, bizkor ta arduratsuak baino. Bata-besteari lagunduaz, euren artean erruki, maitasun eta karidadea darabile; alkarri emoten dautsen laguntasunaz, errian izango litzakezan preminak be eratsi ta gitxitu egiten dabez. Ori gauza argia da; langileak alkarri lagunduko ez baleuskioe, geixo ta ezbearrak jo dagizanean, bein baino sarriago erriak lagundu bearko leuskioe, eta alkarri lagunduaz, premina ori gitxitu daroe.

Onelan ba, S(an) Joserren anaidian dagozanok langile zur eta arduratsuak izan diralako, inori begira egon barik euren artean karidade egi-ten dabelako, alkarri lagunduaz bestela errian izango litzakezan bearri-  
zan edo preminak be gitxitzen dabezalako, langileen alkargo edo anai-  
di oni laguntzea gauza zuzen eta bidezkoa dala dirudi.

## II

Lekeitioko langileen anaidi edo kofradia onek, San Jose dau bere Jagola, bere Zaindari, langileak euren anaidi au San Joserren ardurapean ipini dabe-ta. S(a)n Jose langile zintzoa ta santu andia izan zan: *Joseph autem vir ejus cum esset justus*. San Jose Jangoikoarentzat baino ez zan bizi, eta Jangoikoarentzat baino bizi ez zalako, begi ta biotza eskini eutsazan zeruko Jaunari; eskuak lanean eta gogoa Jangoikoagan erabilten ebalako, ixilean eta ezkutuan biziaz eta lan eginaz, beste berik, santutasunaren gorengo mailara igon zan.

Zereginik andi ta arduratsuenak emon eutsazan Jangoikoak. San Joserren ardurapean ipini eban bere Seme bakarra; San Joserren ardurapean onen Ama, A(ndra) Maria. Mariaren ezkontide, Jangoiko Gizonaren aitordoko izatea, gizonak euki leiken zereginik andiena da. Nok autu eban zeregin andi orretarako? Jangoikoak berak, gizonen gogo ta biotzak ondo ezagutzen dituan Jangoikoak. Au onelan izanik, San Joserren santutasuna, Jaunak berari ta berak Jaunari eutsan maitasuna, andi-andiak zirala agiri da. Baina Eleizako irakasleak dinoskuenez, zeruan Santuak dauken ala, bitartekotasunaren indarra, santutasunaren neurri ta idekoa da; augaitik, Jangoikoaren aurrean San Joserren bitartekotasuna indartsua, al andikoa dala sinestu ta autortu bear dogu.

Santu andi au langile zintzoa izan zala esan dautsuet; bera be bear-gina, langilea izan zalako, bere antzeko langileai berarizko maitasuna dautsela ta berarizko ardurez zainduko dituala uste izan geinke. Au dala-ta, zuek, Lekeitioko langileok, S(an) Jose zeuen anaidi orren zerutar Jagolatzat ondo autu dozue; baina Jagolatzat daukazuen ori zuen eredu ta jarraibide be izan bedi. Gogoz lan egiteko, lanagaz ogia ta zerua, biak batera, irabazteko, zer gauza oberik San Jose Nazaretoko lantegian bere zeregina zintzoro beteten ikustea baino? San Josek bere lanaz irabazi eban heretzat eta bere etxekoentzat janaria; bere lanaz irabazi eban zeruan daukan zorion andia be.

Aren antzera, lan eginaz guk be gauza bi orreik batera irabazi geinkez. Biziteko lan egin bearrak zerua irabaztea ez dautso inoz inori galez-razo; bestera, guztiai lagundu egin dautse. Santu alperrik ez dago; guz-

tiak, bakotzak bere arloan gogoz lan egin dabe. Guk be geure eguneroko lanaz zerua irabazi geinke; orretarako ardua pizka bat euki bear, besterik ez. Gogo ta biotzak gora jaso; noizik noizera Jangoikoagaz gomutau, Jaunaren aginduari burua makurtu, eta Jaunaren naia betetearren, Jaunari atsegin emotearren, lan egin badaigu, geure Egile, Jabe ta Ugazaba nagusi dogun Jaunak otsein zintzoari lez esango dausku guri be: *«Euge serve bone et fidelis... , intra in gaudium Domini tui*. Otsein on eta zintzoori, poztu zaite..., zeure Jaunaren zorionera sartu zaite. Ondasun txikietan zintzoa izan zarealako, ondasun andien jabe egingo zaitut. *Quia in pauca fuisti fidelis supra multa te constituam*».

Auspaztu gaizan, ba, S(an) Joseren irudiaren aurrean eta bitarteko laguntzaile ta Jagola izan dakigula eskatu daiogun.

Zeure lanaz zerua irabazi zenduan Nazaretoko langile zoriontsuorrek, gogo ta biotzak gora jasoten eta geure eguneroko lanak, zeure antzera, asmu zuzenez egiten irakatsi eiguzu. Zeruan daukazun zorion andi ori Jangoikoaren maitasunarren lan egiteak, orrexek ekarri dautsu; guri be lana zerurako bide izan dakigun, geure lanetan lagundu gaizuz, oraingo nekeen saria betiko atsedean eta zoriona izan daigun.

## XLVI

### KEPA DEUNA

*«Tu es Petrus et super hanc petram aedificabo Ecclesiam meam  
et portae inferi non praevallebunt adversus eam.»*

«Zu, Kepa, atxa zara ta atx onen gainean eregiko dot neure Eleizea  
ta barrendiko indarrak inoiz be ezingo dabe eratsi.»

(Math. 16, 18)

N(eure) e(ntzule) mait(eok):

Gu erosi, gure zorrak ordaindu ta guri zelan bizi irakasteko etorri zan Jauna lurrera; zeruko bidetik aldendu ziran gizasemeak barrero bide orretara ekarri ta betiko zoriona irabazteko, zer sinestu ta zer egin bear eben irakastea, orixe izan zan gure Jaunaren zeregina. Berak asi eban zeregin oni jarraitzeko, irasi edo ipini eban bere Eleizea be. Jesukistoren Eleizea aldra bitan berezi ta banatzen da: aldra bata irakaslea da, bestea irakatsia. Jesukistok bere bizitzan egin eta irakatsi ebana munduaren azkeneraino gizon eta erriai irakastea, Eleiza irakaslearen berarizko zeregina orixe da; irakatsiarena, ostera, Eleizearen buru, agintari ta zuzentzaileak irakatsi ta agintzen dabena sinestu ta egitea da.

Eleizea kistinau zintzo ta sinestedunen batzarra da, Erromako aita santua buru dala. Gizarteak eta erriak, ondo ibilteko, euren agintari ta irakasleak bear dabegan lez, olantxe kistinauen batzarra dan Eleizeak be bere irakasle ta agintariak bear ditu. Jesukistok ikasle asko euki ebazan; baina ikasle orrean artetik, bere ordeko izan eta bere zereginari jarraitzeko, amabi berezi ta autu ebazan Jaunak. Amabi onei apostoluak deritxogu. Apostolua ta bialdua gauza bat dira, ta Jaunak berak asiriko arloan lan egitera bialdu ebazalako, apostoluen izena ondo datorkie. Onei esan eutsen Jaunak: *«Euntes docete omnes gentes. Zoaze ta abenda ta erri guztiai irakatsi egiezue»*. Zer? «Neuk zuoi irakatsi ta agindu dautsuedan guztia. *Docentes eos servare omnia quaecumque mandavi vobis.»*

Apostoluak ez ziran jakitunak, ez gitxiagorik be; baina Espiritu Santuak goiko argiz eta jakituriz ornidu ta aberastu ebazanetik aurrera, len



gitxi baino ez ekien gizon bildurtiok, jakitun, azarri ta bioztsu agertu ziran. Simon arrantzalea, besteak baino jakitunago izan ez arren, odol biziko gizona zan, biotz eder eta andia eukan, Jauna zintzoro maite eban; augaitik-edo, beste apostolu guztien buru egin eban Jaunak.

Jesukistok ez eban Eleiza bat baino sortu, irasi edo ipini; Eleiza irakasleak bere irakaspén eta aginduetan bat izateko, naitaez buru bat bakarra bear eban euki. Au zala-ta, apostoluen artean bat edo batek beste guztien buru ta agintari izan bear eban, eta zeregin orretarako Simon autetsi eban Jaunak. Izena be aldatu egin cutsan eta lengoa baino ego-kiagoa ipini: «Emendik aurrera Kepa, Pedro, Atxa izango da zure izena; atx onen gainean eregiko dot neure Eleizea eta barrendiko indarrak, gaitoen aleginak, inoz be ezingo dabe eratsi. *Super banc petram aedificabo Ecclesiam meam et portae inferi non praevallebunt adversus eam.*»

Eleizearen buru Jesukisto da, baina Jesukisto begiz ezin ikusi geinke lurrean bizi garean gizonok. Eleizeak, osterá, sinestedun gizonen batzarra dalako, ikusi ta entzun geinken burua bear dau; augaitik San Pedro ta onen ondorengoak Eleizearen buru ta bere ordeko egin ditu Jaunak. Erromako gotzain edo obispo zala il zan San Pedro, baina onen eskubideak ez ziran il; bere ondorengoetan bizi dira-ta, Jaunak Pedrori emon eutsozan eginen andiak arrezkero Erromako aita santuak egin eta bete dabez. Neure itzaldi onetan orixe azaldu ta irakatsi nai neuskizue. Aurrera jarraitu baino len...

## I

*«Tu es Petrus et super banc petram aedificabo Ecclesiam meam  
et portae inferi non praevallebunt adversus eam.»*

(Math. 16, 18)

N(eure) e(ntzule) mait(eok), San Mateoren Ebanjelioan irakurten dogunez, bein baten gure Jaunak, Filiporen Kesarean egoala, bere ikas-lai itandu eutsen: «Gizonaren Semeau, nor nazala dinoe?» Ikas-lak erantzun eutsoen: «Batzuk, Joan Bateatzailea; beste batzuk Elias edo Jeremias edo igarleetatik bat edo bat zarea-la dinoe». «Eta zuek, nor nazala uste dozue?» Simon Pedrok erantzun eutsan: «Zu Kisto, Jangoiko biziaren Semea zara. *Tu es Christus, Filius Dei vivi.*» Orduan Jaunak esan eutsan: «Zorionekoa zu Simon, Jonen semeori, esan dozun ori aragi ta odolak irakatsi ez dautsulako, zeruetan dagoan nire Aitak baino. Eta zuri dinto-tsut: «Zu, Kepa, Pedro, Atxa zara eta atx onen gainean eregiko dot neure Eleizea ta inpernuko indarrak ezingo dautse geiagorik egin, inoz be

ezingo dabe eratsi. Zeruko giltzak zuri emongo dautsudaz eta zuk lurraren gainean lotu dagizuna, zeruan be lotuta geldituko da ta zuk lurraren gainean askatu dagizuna, zeruan be askatuta'.

Beste bein be esan eutsan Jaunak: «Simon, Simon, or dabil Satanas zuen atzetik, garia galbaian astindu ta eralgiten dan lez, zuek be astindu ta eralgiteko asmu txarrez; baina zure sinesteak utsik egin ez dagian, zure alde neuk eskatu dot eta zuk be, noizik noizera, biurtu ta gero, zeure anaiak sinestean sendotu egizuz. *Confirma fratres tuos*» (Luc. 22, 31).

San Joanek dinoskunez, geroago be itandu eutsan Jaunak Pedrori: «Simon, oneik besteok baino maiteago ete nozu?» (Joan 21, 15) «Jauna, maite zaitudala zeuk dakizu.» Ta orduan Jaunak: «*Pasce agnos meos*. Nire bildotsak zaindu ta bazkatu egizuz». Iru bidar ukatu eban Simonek Jauna ta iru bidar itandu eutsan Jaunak Simoni: «Simon, oneik besteok baino maiteago ete nozu?» Azkenengoan, bildurrez erantzun eutsan Simonek Jaunari: «Jauna, zuk gauza guztiak dakizuz eta nik maite zaitudala be ondo dakizu». Eta Jaunak orduan: «*Pasce oves meas*. Nire ardiak be zaindu ta bazkatu egizuz». Onetan bildots eta ardiak, artalde osoa, zaindu ta bazkatzeko ardurea emon eutsan Jaunak S(an) Pedrori; Pedro egin eban bere artaldeko artzain nagusi. Baina Jaunaren artaldea bere Eleizea da-ta, Jaunaren erabagi ta aginduz San Pedro bildots eta ardien, kistinau ta obispoen artzain eta Eleiza osoaren buru da.

Jasoin edo zimentu barik ez dago etxerik; artzain barik ez dago artalderik, errege barik ez dago erreinurik, agintari barik ez dago gudaroste edo ejerziturik, buru barik ez dago gorputz bizirik, lema ta lemari barik ondo ezin ibili daiteke itxasuntzirik. Jesukistoren erabagiz, Pedro ta onen ondorengoak dira Eleizearen jasoin edo zimentu, artalde onen artzain nagusi, erreinu onen jaurle<sup>765</sup> ta errege, gudaroste onen agintari, gorputz onen buru, bizitzako itxasoan zear zeruko kaira doan itxasuntzi onen lemari. Pedro edo bere ondorengo aita santu barik, ez dago Jesukistoren Eleizarik; ez dago Eleizan agintza nagusi ta irakasle utsezinik, guzurrak guzurtau, okerrak zuzendu, egia ta zeruko bidea erakutsi daiken maixu nagusi ta utsezinik.

Jesukistoren Eleizea bat da. Bat dala dinogunean, sineste ta agintzari dagokiezan gauzetan beti ta edonon bat eta berbera dala esan nai dogu; baina aita santu barik, ez sinestean ez agintzan ezin izan daiteke batasunik. Sineste ta agintzan bat izateko, kistinau guztiak aldi ta toki guztietan sineste bardina euki ta agintza baten menpean egon bear dabe. Baina guztiak irakasle, buru ta agintari nagusi bat eta bakarra euki ezik, ori ezelan be ezin izan daiteke; augaitik zinausle edo erejeen arte-

<sup>765</sup> Jaurle: agintari.

an, esaterako protestanteen artean, batasunik ez dago, buru bezenbat aburu edo eretxi baino, bakoitxak ondoen deritxona sinestu ta sinesten dauanez egiten dau-ta.

Jesukisto, emeko edo orko gizonak, oraingo edo geroakoak, zerura eroateko ez zan etorri, guztiak eroateko baino. Bere Eleizea be, Eleiza bakarra, gizaldi ta erri guztientzat ipini eban; ez eban ipini italiar, frantzitar, españar edo alemandarrentzat, guztientzat baino, ta guztientzat ipini ebalako, orixegaitik katolikua deritxo. Jesukistoren Eleizea bat eta katolikua edo guztientzakoa da; beti ta edonon, aldi ta toki guztietan sinestez eta agintzaz beti bardina izateak, batasuna ta katolikutasuna orrexek emoten dautso. Buru, agintari ta irakasle nagusi bakar bat ez baleuko, aldi ta toki guztietan bat eta berbera ez litzateke izango, ezingo litzateke izan; augaitik Eleizearen batasun eta katolikutasunaren zimentu, erro ta sustrai aita santua da. Eleiza osoari irakatsi ta agintzeko eskubidea aita santuak baino beste inok be ez dauko; mundu zabalean diran gotzain edo obispo guztiak bere menpean daukaz. Eleizearen buru ta irakasle nagusi danez, guztiai irakatsi ta agintzen dautse; gero gotzainak abade ta erriai, eta onelan katoliku guztiok sineste bat eta bardina daukagu ta agintza baten menpean gagoz. Eleizea bat eta katolikua izateko, ori naitanaiezkoa da, augaitik esan oi da: «*Ubi Papa ibi Ecclesia*». Pedro edo onen ondorengo aita santua dagoan lekuan, Jesukistoren Eleizea be antxe dago; ta bestera, aita santurik ez dagoan lekuan, Jesukistoren Eleizarik be ez dago.

Zinausleak, esaterako luterotarrak, euren Eleizea Jesukistorena dala esaten dabe; Errusi ta Greziako targoitale, zismatikuak beste orrenbeste dinoe. Baina esatetik izatera bide luzea dago. Jesukistok Eleiza bat baino ez eban ipini, Eleiza katolikua, guztientzat bardina; eta beti ta edonon bat eta berbera izan zeiten, buru bat, agintari nagusi bakarra ipini ta emon eutsan: S(an) Pedro Apostolua, Erromako Gotzaina, lenengo Aita Santua. Protestante ta zismatikuok aita santua Eleizearen buru bakartzat ez dabe ezagutu nai, aita santuaren menpean ez dabe jarri nai, ta eurak besterik esan arren, Jesukistoren Eleizatik urrun, ataz edo kanpora dagoz; asko ezjakinez eta uste onez, baina beste asko, batez be buru diranak, zitalkeriz eta asmu txarrez. Oneik, egia ezagutu arren, autortu nai ez dabenok, zerura joateko bide txarra daroe.

## II

Jerusalenen bertan asi zan S(an) Pedro lanean; bere lenengo itzaldian 3.000 biurtu ebazan Jaunagana; bigarreanean, 5.000. Eleizako atarian

egon oi zan eskeko errena, koxoa osatu ebanean, ango agintariak Jesukistoren izenean ezer irakastea galerazo egin eutsen; baina S(an) Pedrok erantzun eutsen: «Jangoikoaren esana baino zuena lenago egitea gauza zuzena dan ala ez, ori zeuk ikusi; guk Jangoikoari gizonai baino lenago men egin bear jakola uste dogu. Guk ikusi ta entzun doguzan gauzak esan barik ezin euki geinkez». Eta bere lanari jarraitu eutsan, agintariak galerazo arren; baina S(an) Esteban il ebenean, apostoluak be il nai ebezan-ta, iges egin bear izan eben.

S(an) Pedro lenengo Samariara joan zan; gero Lidian Eneas eritxon geixo elbarritu bat, gorputza sorgor eukan geixo bat, otsean osatu eban eta Jopen Tabithes eritxon andra bat ilen artetik herealaxe biztu. Ementxe egoala, adierazo eutsan Jaunak Pedrori, judatarrai ezeze beste erri guztiai be sinesteko argia emon eta zeruko bidea irakatsi bear jakela. Asian zear, Ponto, Galazia, Kapadozia, Bitinia ta beste anbat erritatik ibili ta gero, Jerusalemara dator.

Herodes Agripa, ango erregeak, judatarrai atsegin emotearren, Santiago Apost(olua) il ta gero, S(an) Pedro be giltzapean sartzen dau, Pazko ostean ilteko asmuz. Presontegia gau ta egun gudariak zaintzen eben; baina gau baten, aingeruak S(an) Pedroren kataiak urratu, atea idegi ta gudariak ezer igarri barik, presontegitik atera eban S(an) Pedro ta Herodes ago bete azurregaz itxi.

Gero, Antiokiara joan eta ango Eleizearen buru izan zan S(an) Pedro; baina urte gitxi barru Erromarako bidea artu eban. Aldi aretan Erromatarren agintzea andi ta zabala zan; ezagutzen ziran erririk geienak euren menpean eukezan, Erroma zan beste guztien uriburu nagusi, «*Domina mundi*». San Pedro, Eleizearen burua, araxe dator; ogeta bost urtean antxe lan egiten dau eta Jaunarentzat gizaseme asko irabazi ta gero, Neron Kaisarraren egunetan, oinez gora ta buruz bera gurutzean josita, emon eban S(an) Pedrok bere bizia.

Urte asko aurrerago esan eutsan Jaunak: «Egiaz dinotsut, gazte zinanean, zeure jantzia zeuk lotzen zendun garrian eta nai zenduan tokira joaten zinan; zartu, aguretu zaitezanean, zeure eskuak luzatuko dozuz, inok lotuko zaitu ta nai ez dozun tokira eroango zaitu». Zelako eriotzeaz ilgo zan adierazoteko –dino S(an) Joanek– esan eutsan Jaunak ori. Eta Jaunak esan eutsan ori egin-eginean bete zan. «*Sequere me*», esan eutsan Jaunak, «Jarraitu niri», eta gurutzeko eriotzaraino jarraitu eutsan S(an) Pedrok bere Jaunari. Arerioak lotu ta gurutzera eroan eben, baina S(an) Pedrok Kistoren jangoikotasuna gurutzean be autortu eban; Filiporen Kesarean lez, esan eutsan gurutzetik Jaunari: «*Tu es Christus, Filius Dei vivi*. Zu Kisto, Jangoiko biziaren Semea zara».

## III

Erromako gotzain eta Eleiza osoaren buru zala il zan S(an) Pedro. Onelan, aita santuak Pedroren ondorengo ta jarraitzaileak dira eta ondorengoak diralako, Jaunak S(an) Pedrori emon eutsozan eskubideak daukez; irakasle nagusi, Eleiza osoaren buru, artalde onen artzain nagusi dira ta Jaunak Pedrori emon eutsazan eginenak egin eta bete bear dabez.

Zer erantzun eutsan S(an) Pedrok Jaunari? *«Tu es Christus, Filius Dei vivi.* Kisto, Jangoiko biziaren Semea zara zu». Eta orduan, zer esan eutsan Jaunak Pedrori? «Zure izena Atxa da; atx onen gainean eregiko dot neure Eleizea ta infernuko indarrak, gaiztoen aleginak, bein be ezingo dabe eratsi». «Zure sinesteak utsik egin ez dagian, neuk eskatu dot eta zuk be noizik noizera, zeure anaiak sinestean sendotu egizuz. *Confirma fratres tuos.*»

San Pedroren ondorengo aita santuak be orixe egin dabe. Eleizearen lenengo gizaldietan Satanasek kistinau-odoletan ito nai eban Jesukistoren sinestea; Neronegan asi ta Juliano sineste-ukatzaileaganaino, amar jazarkunde gogor, andi ta zabalak izan ziran kistinauen aurka, miloi askok galdu eben euren bizia neke ta minik izugarrienakaz. Eleizearen arerio oneik ogetamar aita santuri kendu eutsen bizia; baina oneik erioztearen aurrez aur be San Pedrogaz esan eutsoen Jaunari: *«Tu es Christus, Filius Dei vivi.* Zu Kisto, Jangoiko biziaren Semea zara»; urkamen-dian be Kistoren jangoikotasuna autortu eben. Eta Jesukisto, Jangoiko bizi, ilezin eta betikoak S(an) Pedrori esan eutsona, esan dautse onen ondorengoai be: «Zu atxa zara; atx onen gainean eregi dot neure Eleizea ta inpernuko indarrak, amurru biziz jazarkatu<sup>766</sup> arren, inoz be ezingo dabe eratsi. Erromako agintariok, Eleizearen arerioak joan eta igaroko dira; baina Eleizeak eta Eleizearen jasoin zarienok, beti iraungo dozue. *Portae inferi non praevallebunt adversus eam.*»

Ainbeste odol isuri eben jazarkunde onein ostean, beste arerio batzuk etorri ziran: zinäusle edo erejeak, targozale edo zismatikuak. Inpernuko indarrook Eleizearen aurka jagi dira; baina uin edo olatuen indarra itxasertzeko atxetan ausi ta apurtzen dan lez, arerioen indarrak be Eleizearen jasoin edo zimentu dan atxean ausi ta birrindu dira, ta onako gudu eta burrukaldi bakotxaren ostean, Jesukistoren eskintzaria entzun da beti: *«Portae inferi non praevallebunt adversus eam.* Gaiztoen indarrak ezingo dabe eratsi».

<sup>766</sup> *Jazarkatu*: jazarri, esetsi.

Geroago, goiko ta bekoen ekandu txarrak orbandu eben Eleizea. Ekandu txarrok zirala-ta, XVIgarren gizaldian luterotarrak jagi ziran Eleizearen aurka. Lutero ta bere lagunak Eleizea barriztau egin bear ebela-ta asi ziran, baina ekandu txarrak kendu ta Eleizea orbanetatik garbitze-ko, bide txarra artu eben. Arroto egin ziran; arrokeriak itsutu egiten dau-ta, ibili ta ibili gure sinesteko egi asko eta egirik bearrenak ukatu ebezan eta kistinau errira kalte andiak ekarri. Baina txarretik ona ta kaltetik mesedea ateraten dakian Jangoikoak, garia galbaiaz garbitzen dan lez, protestanteen gerreaz Eleizea orbanetatik garbitu eban eta arerioak Erro-mako Eleizea amaitu zala zinoenean, Eleizea burrukaldi gogor aretatik inozkorik garbi ta sendoago urten zan. Erri osoak kendu eutsozan Lute-rok Eleizeari; baina Lutero ta onen jarraitzaileak kendu eutsoezan baino arima geiago, Indietako apostoluak Xabierrek bakarrik ekarri ebazan Eleizearen magalpera, ta barriro entzun zan Jaunaren eskintzaria: *«Portae inferi non praevalerunt adversus eam»*.

Pio VIIgarren aita santuari bereak ziran erriak kendu eutsozan Napo-leonek; Erromatik indarrez atera, Fontainebleaura ekarri ta espetxean, kartzelan sartu eban. Siniste ta biotz txikiko gizon batzuk Erromako Elei-zea amaitu zala uste eben. Baina Napoleon eta bere agintzea joan ziran; Napoleon Atlantikoan erdi galduta dagoan ugartetxu baten, atsekabez beterik il zan eta aita santua bizi da. Antxina lez arrezkero be Eleizea-ren buru da.

1870garren urtean Piamonteko erregeak, aurrerago beste erri batzuk kendu ta gero, azkenean Erroma be kendu ta ostu eutsan Pio IXgarren aita santuari. Eleizearen arerioak pozez beterik esaten eben: «Azkenen-go aita santua, auxe da; geiago ez da izango aita santurik». Baina ori egin eban Piamonteko erregea ta Kabur, gobiernuko buru ta lendakaria, il ziran eta aita santuak aurrera jarraitu dabe. Aurten Italiako agintariak aita santua barriro be errege ezagutu ta autortu dabe. Lurralde andirik ez dautse emon, aita santuak olakorik eskatu be ez dau egin; baina Eleizea-ren buru dana inoren menpean egotea egoki ez dala-ta, lur zatitxu bateko jabetasun, agintza ta erregetza emon dautsoe. Ori Italiako gobernuaren buru danak egin dauala dinoe, baina Jangoikoak egin dauala obeto dirudi. Agintari ori len beintzat Eleizearen arerioa zan, orain be aiskide andia danik ez neuke esango; baina Jangoikoak gitxien uste danean eta gitxien uste danaren bidez, oker dagozan gauzak zuzentzen daki. Agintari orrek Italia andiaz gau ta egun amesetan diardu; orretara-ko Eleizeaz, aita santuagaz bakeak egitea gauza bearra dala ezagutu ta ikusi dau ta aspaldiko auzi oni epaia, erabagia, gitxien uste zan gizon orrek emon dautso. Onetan Jangoikoaren eskua ibili da; Jesukistok San Pedroren ordekoari barriro esan dautso: *«Portae inferi non praevalerunt»*.

Gaiztoen aleginak alperrik izango dira; neure Eleizea ezingo dabe eratsi».

Bi mila urtera goiaz eta Jaunak bere Eleizearen jasoan, zimentutzat ipini eban S(an) Pedro beronen ondorengoetan bizi da. Jaunak Pedrori esan eutsana onen ondorengoetan bete da: atx onen gainean eregita dagoan Eleizeak arerio gogor eta indartsuak izan ditu; baina aleginak alegin egin arren, Eleizea inoz be ezin izan dabe eratsi ta banatu. Aita santuak, ainbeste urteren buruan be, Jaunak Pedrori emon eutsan zeregina beteten diardue: «*Confirma fratres tuos*. Zeure anaiak sinestean sendotu egizuz». «*Ubi, Petrus, ibi Ecclesia*.» Aita santua San Pedroren oinordeko ta ondorengo da; augaitik, aita santua burutzat daukan Eleizea, Jesukistoren Eleizea, orixe da. Eleizearen semeak gara; zeruko bidean S(an) Pedroren ondorengoak zuzentzen gaitu. Guk bere irakaspenak ontzat, artu ta bere aginduak bete bear doguz. San Pedroren jaia ospatzen dogun egun onetan gure asmua, orixe izan bedi.

Auspaztu gaizan bere aurrean eta bere laguntasuna eskatu daiogun. Jaunak emon eutsuzan zeruko giltzak, orain zure ondorengo aita santuak daukaz. Bere menpean zintzoro biziteko bear doguzan goiko argi ta graziak lortu eiguzuz, Eleizearen seme apal, zintzoak, izanaz betiko zoriona be lortu daigun.

## XLVII

### SAN PABLO

*«Vas electionis est mihi iste,  
ut portet nomen meum coram gentibus et regibus.»*

«Neure izena erri ta erregeen aurrera eroateko  
autu dodan langilea da ori.»

(Act. Apost. 9, 15)

Neure entz(u)le) mait(eok):

Saulo, gero S(an) Paulo izan zana, Jesukistoren apostolu baino len, bere arerio andia izan zala badakizue. Berez zoli ta bizkorra zan Saulok Moisesen legea ondo ikasi eban; lege ori ikasiaz, bere gurasoen siniskintza edo erlejinoa, biotzean ondo barrendu jakon eta Moisesen legearen alde, edozetarako gertu egoan. Au zala-ta, Jerusalemen kistinauak agertu ziranean, gorroto bizia artu eutsen; S(an) Estebanen eriotzan bera izan zan buru eta beste enparau guztien eskuz arrika egin gura eutsalako, guztien soinekoak berak zaindu ebazan.

Gero, abade nagusiari bear ziran agiriak eskatuta, aserre biziz, aotik amurru-bitsa eriola, Damaskorako bidea artzen dau, ango kistinauak galtzeko asmuz. Urira eldu baino lentxuago, eguzkiarena baino askozaz biziago zan zèruko argi batek inguratzen dau; ikaraturik lurrera jausten da ta zerutiko abots batek dinotso: «Saulo, Saulo, zegaitik zabiltz nire kaltez?» «Jauna, zu nor zara?», dinotso Saulok. Eta Jaunak: «Zuk jazarkatzen dozun Jesus naz. Ni ta untzeari ostikoka ekitea, gauza gogorra da zuretzat. «Jaunorrek, zer nai dozu nik egitea?» «Jagi zaite –dinotso Jaunak–, zoaz urira ta zer egin bear dozun antxe esango jatzu.» Jagi zan; baina Saulo gaxoa itsu egoan eta iru egunean jarraitu eban itsu, ezer jan ez edan barik.

Bazan Damaskon Jaunaren ikasle bat, Ananias eritxona. Oneri esan eutsan Jaunak: «Saulo itxaroten daukazu ta zoaz». Saulo nor zan, kistinai zelako gorroto zitala eutsen, ondo ekian Ananiasek eta ikaratu zan. Baina Jaunak esan eutsan barriro: «Zoaz eta ez bildurtu. Neure ize-



na erri ta erregeen aurrera eroateko autu dodan langilea da ori. Neure alde zenbat neke ta lor igaro bearko dituan, neuk erakutsiko dautsat orri». Badoa Ananias, sartzen da Paulo egoan etxean eta eskuak buru gainean ipinirik, dinotso: «Saulo anaia, bidean zentozala agertu jatzun Jesus Jaunak bialdu nau, ikusi daizun eta Espiritu Santuz bete zaitez». Au esanaz batera, Sauloren begietako geunak jausi ziran, barrero ikusi eban; bateatu zan eta Damaskoko Sinagogan bertan asi zan berealaxe Jesukistoren sinestea irakasten. Onelan –dino S(an) Agustinek–, Jesukistoren kaltez ebulan jazarlea bere sineste ta legearen irakasle egin zan; otsoa, ardi; arerioa, Jesukistoren soldadu, gudari: «*Ex persecutore praedicator, ex lupo ovis, ex hoste miles*». Len su ta gar ekin eutsan kistinau-sinestearen kontra; aurrerantzean bero ta gartsuago ekingo dautso bere alde. Apostolu guztien artean lanik geien egin ebana, S(an) Paulo da.

Bere bizitza osoa itzaldi labur baten ezin azaldu ledi-ta, iru gauza bakarrik aitatu ta azalduko dodaz: Jaungoikoari eutsan maitasun bero-sendoa; gizonai eutsen maitasun samur-errukiorra, ta Jesukistoren sinestea zabalduaz, arimak zeruratzeko biotzean eukan garra.

Aurrera jarraitu baino len...

## I

N(eure) e(ntzule) mait(eok), abereak, laroinekoak, neurri-kordelaz neurtu oi dira; baina gizonak ori baino beste neurririk dauko-ta, abereak lez ezin neurtu lei gizonik. Buru argi ta biotz andiak emoten dautso gizonari bere neurria. Gorputz andiko gizonak, batzuetan arimaz txikiak izaten dira, ta bestera, gorputz txikikoak, bein baino sarriago, gogoz, arimaz, biotzez andi ta azkarriak. S(an) Paulo izenez txikia, gorputzez be txikia zan; baina biotzez, gogoz, arimaz, benetako zentoi<sup>767</sup>, andien artean be andienetarikoa. Lurrean jaioriko gizona baino zerutik jatsiriko aingerua obeto dirudi. Gizona lan andi ta astunakaz aspertu ta nekatu egiten da laster; S(an) Paulo lanaz ez zan inoz nekatu, egiten ebana baino geiago egin nai eban beti. Apostolu guztiak egin eben lan asko; S(an) Paulok beste guztiak batera baino geiago. Errien irakaslea, *Doctor gentium* deritxogu, eta egiz, Europa ta Asian ia ez eban erririk itxi zeruko barri ona emon eta arako bidea irakatsi barik. Gizon batek ainbeste erritan eta bakotxean ainbeste lan egin leikenik, sinestu be ezin lei. Oinez baino obeto egaz ibili zala dirudi. Jaunak bere legean maitasun bikotxa

<sup>767</sup> Zentoi: erraldoi.

agintzen dausku: beragazko ta geide edo projimuagazko maitasuna. Maitasun bi orreik ziran S(an) Paulo arin eta bizkor erabilen egoak.

Irugarren zeruraino jaso, eregi ta eroan eban Jaunak bein baten; gorputz ta guzti ala gorputz barik, berak be ez ekian, baina edozelan be gizonak aitu ta besteai adierazo ezin leikioezan gauza arrigarri asko entzun ebazan bere goratze aretan. Andik aurrera, zeruko aingeru gartsuak lez, S(an) Paulok be Jaunagazko maitasun-garra beti bizi, beti irazegi erabilan bere biotzean. Maitasun onek birloratu ta mozkortu eban eta bere indarraz senetik urtenda, zoratuta lez ebilela zirudian; maitasun utsa, su bizia zan S(an) Pauloren biotza. «*Caritas Dei* –esaten eban– *diffusa est in cordibus nostris*. Jaunaren maitasuna gure biotzetan isuri ta zabaldu da.»

Ain zinez, ain benetan, ain zintzoro maite eban S(an) Paulok bere Jauna ze maitasun onen indarrak Jesukistoren antz andia emon eutsan, bere Jaunaren irudi bizi egin eban. «Niretzat bizitea Kisto da –esaten eban–; iltea, barriz, irabazia. *Mibi vivere Christus est et mori lucrum*» (Philipp. 1, 21). «Jesukistogaz gurutzean josita nago. Augaitik, bizi naz; baina egia esateko, ez naz neu bizi nazana, nigan Kisto bizi da-ta. Aragi onetan bizi naz; baina aragian bizi arren, sinestearen indarrez neu maitatu ninduan eta nire alde il zan arentzat bizi naz. Ez bekit inor gogaikarri izan, nik neure gorputzean Jesukistoren zauriak daroaz-ta. *Ego enim stigmata Domini Jesu in corpore meo porto*. Gurari bik ertu<sup>768</sup> ta estutzen nabe; gorputzaren lokarri oneik urratu, askatu nai neukez eta Jesukisto neure Jaunagaz egon. Gizon errukarriau, gorputzaren lokarri, estuntza oneitatik, nok askatuko ete nau? Lokarri oneik urratu ta Jesukistogaz egotea, niretzat askoz obe litzake.»

S(an) Paulok bere arerio, neke, lor, ezbear, arrisku, deabru, infernu ta munduari aupadea jaurti, burrukara dei egiten eutsen, bera Kistogazko maitasunaren alde zala, onelan esanaz: «Kistoren maitasunetik, nok eta zek aldenduko ete nau? Ausaz neke ta lorrak, atsekabeak, estutasunak, goseak, biloiztasunak, arriskuak, gorroto ta jazarkundeak, ezpateak? Idatzita dagoanez, o Jauna!, zu zareala-ta egunero eriotzearen atzamarretan nabil, eriotzara daroezan ardiak lez narabile; baina maitatu ninduzun Jaunorren laguntza ta indarraz estutasun guzti oneitan garaitzaille, nagusi izan naz. Ez bizitzeak, ez eriotzeak, ez aingeruak, ez agintariak, ez indarrak, ez oraingo gauzak ez gerokoak, ez goikoak ez bekoak, ez zeruak ez inpernuak, ez izatea daukan beste izakik ez nau Jesukisto neure Jaunagan Jaungoikoari dautsadan maitasunetik, ez nau aldendu-

<sup>768</sup> Ertu: gitxitu, urritu.

ko. Ori ondo dakit, orretzaz ziur nago. Len irabazitzat neukazan gauzak, orain kaltegarritzat daukadaz; Kisto irabaztearren, lurreko ogasun guztiak galdu dodaz eta simaurra, satsa baino be gitxiagotan daukadaz. Nire bizia Kisto da. Nire gogamena Kisto, nire guraria Kisto, nire maitea Kisto. Nire maitea niretzat eta ni berarentzat.»

San Paulok baino biziago, sutsu ta indartsuago Kisto maite izan dauanik inor be ez dago –dino S(an) Joan Kisostomok–. Jesusen izena zan San Pauloren atsegina; bere aoan ezta, bere belarrietan eresia, bere biotzean poza. Bere idazki edo kartetan 219 bidar aitatzten dau Jesusen izena ta 400 bidar baino geiagotan, Kistorena. S(an) Paulok ez eukan Jesukisto, bere Jaungoikoa, baino beste atseginik, ez guraririk, ez pozik, ez bizirik; Kistori emon eutsan osoro bere biotza eta Kistorentzat irabazi nai eban mundu guztia, gizadi osoa.

## II

Jesukistori eutsan maitasunak eroan eban gizon guztiak, bere arerio-rik andienak be bai, biotz-biotzez maitatzera. «*Caritas Christi urget nos* –esaten eban–. Jesukistoren maitasunak indar eta bultz egiten dausku»; lan egitera garoaz, gizonak eurentzat barik, euren alde il eta biztu zan Jaunarentzat bizi daitezkan. Mundu guztia, gizadi osoa baino be biotz andiagoa eukan S(an) Paulok. Guztien osasun eta zoriona biotz osoz nai eban; aurrekoen zoriona egitearren, berea galtzeko be gertu ta prest egoan. «Gorputzeko lokarri oneik urratuta, Jesukistogaz egoteko gurari bizi-bizia daukat –esaten eutsen filipostarrari–; baina zuen eta beste askoren betiko osasuna dala-ta, bizitza gogor onetan jarraitu ta atsekabe ta nekerik andienak igaroteko be prest nago.»

Gizon guztien biotzak irabazi nai ebazan Jesukistorentzat; augaitik guztien antzeko egiten zan bera: andiakaz andi, txikiakaz txiki, jakitunakaz jakitun, gitxi ekienakaz euren antzeko, geixoakaz geixo. «*Omnibus omnia factus sum ut omnes facerem salvos*. Guztiak zeruratzearren, guztien antzeko egin naz» (I Corint. 9, 22). Sinestebakoak sinesteko argira ekartearren, zenbat lan ez eban egin? Eta sinestera ekarri ta gero, berak sorturiko kistinauak, zelako ardura andiz ez ebazan zaindu? Norbait galtzeko arriskuan ikusi ezkerro, arriskutik aterateko, zelako aleginak ez ebazan egin? «Nor geixotzen da –esaten eban–, eta ni ez naz beragaz batera geixotzen? Nor jausten da pekatuan, eta ni ez naz orren erruki ta maitasunez erre ta kiskaltzen? *Quis infirmatur et ego non infirmor? Quis scandalizatur et ego non uror?*» Korintoarrai esaten eutsen: «Nik zuek maiteago ta zuek ni gitxiago maite nozuela durudit. Baina ori ta guzti

be, gogoz eta pozez emongo dot daukadan guztia, ta ez bakarrik daukadana, neure buru ta bizia be bai, zuen arimen osasuna egitearren» (II Corint. 12, 15).

S(an) Paulok aiskideak lez maite ebazan arerioak be. Judatarrak, bere enda ta odoleko gizonak, gorroto bizia artu eutsoen; bein arrika egin eutsoen, beste bein presontegian sartu eben, beste bein emonalak emon, uritik narraz atera ta iltzat itxi eben; ori ta guzti be, S(an) Paulo bein ta barriri joan zan bere arerio zitalen artera ta arerio orrei zeruko bidea irakasten aspertu barik ekin eutsan, Jaunak beste errietara joateko agindu eutsan arte. Judatarren itsutasuna ikusita, S(an) Pauloren atseka-bea ez da esateko: «Atsekabez bizi naz –esaten eutsen erromatarrai–, etenbako biotz-mina daukat neure anai orreik dirala-ta. Mila bidar ilgo nintzan, inpernuko nekeak igaroteko be gertu nengoan euren osasuna egitearren. *Optabam enim ipse ego anathema esse a Christo pro fratribus meis*» (Rom. 9, 3). Au baino maitasun andiagorik, errukior eta samurragorik, noz eta non ikusi da?

### III

Jangoikoa ta geidea, urko-laguna ainbeste maite ebazan apostolu onek, Jesukistoren sinestea gizartean zabaldu, biotzak irabazi ta arimak zerura eroateko, gar bizia eukan. Lan onetan ezin zan inoz aspertu: eginago ta naiago eban. Atsedetik artu barik, arin ta bizkor ebulan erri bate-tik bestera; arakatu ta argitu ebazan erri guztien izenak aitatzea bakarrik be, zeregin luzetxua izango litzake. Sua ta garra eroazan bere biotzean eta mintzatzen zanean, berba egiten ebanean, aotik tximistak eta garra jaurtiten ebazala zirudian. «Jangoikoaren langilea», «Errien irakaslea», «Ebanjelioko turuta», «Leoiaren orroia», «Etorri ederraren ibaija» deritxoe Eleizako gurasoak. Bere jakituri aundi ta etorri ederraz errez ixildu ta lotsatzen ebazan Jesukistoren arerioak, eta bere gogo bizi ta gar andiaz aurrez bigundu, samurtu ta irabazten ebazan entzuleen biotzak Jesukisto bere Jaunarentzat.

Sinesteko argia zabaltzen eragoion bitartean, zenbat neke ta lor ez ebazan igaro? Korintoarrai egin eutsen bigarren idazki edo kartan one-lan dinotse: «Zer? Orra joan jatzuezanok, Jesukistoren bialdu ta langile-ak dirala? Bai, baina orreik baino geiago naz ni. Neke asko ta asko euki dodaz, presontegietan aurrez egon naz, astinaldiak ugari artu dodaz, eriotzako arriskuan sarri ibili naz. Judatarrak ugelakaz bost bidar emon eustezan, bakotxean berrogei baino bat gitxiago; iru bidar zigorragaz astindu nabe, bein arrika egin dauste; iru bidar galdu naz itxasoan, eta

uretan ondatuta, gau ta egun itoteko arriskuan egon naz. Bideetan, barriz, neure ibilaldietan arriskuak aurrez izan dodaz; ibaiak, lapurrak, neure endako arerioak eta erbestekoak dirala-ta, naiz urietan naiz bakar-tegietan, naiz itxasoan naiz leorrean, naiz anai guzurtien artean, bizia galtzeko zorian ibili naz sarri: neke ta lana ugari, ezbear eta zoritxar asko, lo gitxi, gose, egarri ta barau asko, otza sendo ta erdi biloizik ibili naz. Agiriko lor eta neke orreitzaz gainera, eguneroko neure zeregin andi ta eleiza guztien ardurez estu ta larri, artega ta urduri ibili naz beti». Bizitza neketsua benetan eroan eban S(an) Paulok; baina arima andi, gogo eregi ta biotz sendoa agertu ta erakutsi ebazan beti.

Birritan etorri zan Erromara. Lenengoan, lotuta ekarri eben ango agintari nagusiaren aurrera; jagolea ipini cutsoen, baina presontegian ez eben sartu ta gogoz lanari ekinaz, kistinau barri asko egin ebazan Erroman. Ile batzuen buruan, errurik ez eukala-ta, aske edo libre itxi eben. Barriro be ibilaldi luzeak eta lan andiak egin ebazan. Neron agintari ankerrak bere menpeko kistinau guztiak ilteko agindu gogorra emon ebanean, S(an) Paulo barriro Erromara etorri zan, ango kistinauak sinestean sendatuta eriotzarako adore ta kemena emotearren. San Pedrogaz ebulan; biai eldu eutsen eta biak Mamertinoko presontegian sartu. Bederatzi ilebete garrean biak il ebezan egun baten; baina S(an) Paulo, Erromako auzoen eskubideak eukazalako, ez eben S(an) Pedro lez gurutzean josi. Burua moztu, samea ebagi eutsoen; odolaren orde ez sneak urten eutsola ta bere buruak egin ebazan iru jauzi edo saltuetan, iru iturri jaio zirala dinoe. Onelan S(an) Paulok be erakutsi eban sinestea, bere alde bizia emonaz sendatu eban, eta bere arima zorionsua ainbeste maite eban Jaunagana joan zan, Jaunagaz maitasun ezitan, beti zorionsu izateko.

S(an) Paulok bere bizitzan maitasun bi irakatsi dauskuz, ez edoze-lan, mailarik eregi, bikain eta gorenengoan baino. Jangoikoa biotz-biotzez, samur eta zintzoro maite eban, geide edo urko-laguna be bero ta gartsu. Jaunaren lege guztia orixe da, orretantxe dago. Bere oinatzai jarraitu badaioegu, guk be lege ori zeatz eta osoro beteko dogu, eta Jaunaren legea zerurako bidea dala badakizue. S(an) Pauloren antzera, Jangoikoa maiteen izan badaigu, alkarren maitasunean bizi bagaitez, zeruko zoriona lortu ta eskuratuko dogu.

Auspaztu gaizan, ba, bere aurrean eta bere laguntza eskatu daiogun. Errien irakasle izan zinan apostolu andiori, geure irakasle be izan zaki-guz; Jangoikoa maiteen, beste ezer baino maiteago eta geure geidea geure burua lez maite izaten, ondo baino obeto irakatsi zeunskun. Geuk be orixe egin bear dogula badakigu; orretarako bear doguzan goiko indar eta laguntza lortu eiguzuz, zeure oinatzai jarraiturik, zeruko zoriona be jadetsi ta eskuratu daigun.

## XLVIII

### SANTIAGO APOSTOLUA

«*Et imposuit eis nomina Boanerges, quod est filii tonitruui.*»  
«Eta Boanerges, au da, trumoi-semeen izena ipini eutsoen.»

(Marc. 3, 17)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Eskritura Santuko lenengo liburuan irakurten dogu, Jaunak abere ta egaztiak Adanen aurrera ekarri ta bakotxari bere izena ipinteko agindu eutsala, eta Adanek ipini eutsen izena, axe zala bakotxari egin-eginean, bete-betea, oso egokiro etorkion izena: «*Omne quod vocavit Adam, ipsum est nomen ejus*». A izketea galdu zan, aek izenak be galdu dira; ez dakigu, ba, zeintzuk izan ziran, baina Eskritura Santuak dinausku izen egoki-egokiak izan zirala. Aonetarako, gauza jakina, Jaunak argitu eban Adanen gogoia; bestelan, Jaunaren laguntasun barik, zeregin au egin bear izan baleu, arazo astunegia izango zan Adanentzat izen egokiak gauzai ipintea. Gizonak naiko ondo ezagutzen ditu berak egiten dituan gauzak eta oneik izentau leikez eurai egokiro datorkioen izanagaz. Baina beste gauza asko dagoz, gizonak biar dan bestean ezagutzen ez dituanak eta onei izen egokirik nékez ipini leioe gizonak; gauzak ondo ta sustraitu ezagutu bear diralako, eurai bete-betea dagokien izena ipini al izateko.

Gizonarentzat gatx dana Jaunarentzat errez da. Berak egin zituan gauza guztiak eta ondo, sustraitu, barru-barruraino ezagutzen ditu, bai egin zituanak eta bai egin barik itxi zituanak. Augaitik dinausku S(an) Paulo Apost(oluak), Jaungoikuak egin barik itxi zituan gauzai be, egin zituana lez, deitzen dautsela euren izenagaz: «*Vocat ea quae non sunt tanquam ea quae sunt*» (Rom. 4, 17). Izenak –ondo ipinia bada– adierazoten dau zer eta zelakoa dan izen ori daukan gauzea. Augaitik zeruko izarrak errez zenbatu ta bakotxarentzat izen egokia daukan Jaunak, beste norbaiti, gizonen bati, izena ipini badautso, beste barik uste izan gein-

ke izen ori egokia izango dala ta gizon ori nor dan, zelakoa dan eta zetarako dan bere izenak guztiz ederto adierazoko dauskula.

Jaunak bere ikasle guztien artean, amabi autetsi ebazan bere ordez erri guztietara bialtzeko, berak zerutik ekarri eban sinestea erri guztiai irakasteko; oneik izan ziran Jesukistoren Amabi Bialduak, Amabi Apostoluak. Euretatik iruri bakarrik ipini eutsen izen barria. Simoni deitu eutsan Cephass, Pedro; Pedrok atxa esan nai dau ta izen ori ipini eutsan Jaunak, Simon autetsi ebalako bere Eleizearen eustazpi edo zimentu-arri izateko. Santiago ta bere anai Joani trumoi-seeen izena ipini eutsoen: *«Imposuit eis nomina Boanerges, quod est filii tonitruui»*; eta izen onek adierazoten dausku, zelakoak izango ziran Jaunak berak izen barri au ipini eutsoen anai biak: trumoi-seeak. Gaur S(an) Joanen bizitzea zetan aitatu ez dogu, onetarako Eleizeak egun izentaua dauko-ta; baina ondo izango da nik gaur zuoi adierazotea Jaunak zegaitik ipini eutsan Santiagori trumoi-seearen izena. Aonetarako bere bizitzea pizka bat aztertu ta arakatuko dogu ta au egin ezkeru, errez ezagutuko dogu egoki-egokia izan zala Jaunak Santiagori ipini eutsan izena. Aurrera jarraitu baino len...

*«Et imposuit eis nomina Boanerges, quod est filii tonitruui.»*

(Marc. 3, 17)

N(eure) entz(u)le) mait(eok), trumoi-a zer dan ondo dakizue: or goian, ortzean ekatxen bat sortuten danean, entzuten dogun ots eta burrunbadea. Bere aurretik inostarri edo tximistea etorten da. Ikusten doguna tximistearen sua ta garra izaten da; bere ostean entzuten dogun trumoi-a, tximistaz kargauta dagozan odoiak, alkarganatzen diranean, ateraten daben ots andi, durundi ikaragarria. Tximistearen argi ta garra aurretik etorten da; bere ostean, gerotxuago, entzuten dogu trumoi-a. Orain, ba, S(an) Gregorio Eleizako guraso ta irakasle ospatsuak dinausku, Santiagoren abotsa, Jesukistoren sinestea irakasten ebanean, trumoi-durundiaren antzekoa izaten zala; trumoi-otsa lez, ikaragarria. Irakasle berberonek dinausku, Santiagoren bizitzea, Jesukistok bere ondora deitu eutsonetik aurrera, tximistea lez sua ta garra izan zala; Santiagoren biotzean bere Maixuaganako maitetasunik bero ta gartsuena sortu zala-ta, augaitik, gero, Jesukistoren sinestea lurrean zabaltzen asi zanean, tximistea lez berak be argi egiten ebala ta bere bular berotik trumoiarena lako durundia urteiten zala, oker ebiltzanai ikarea sartu ta bide zuzenera, Jesukistoren sinestera ekarteko. Ikusi daigun, ba, lenengo, zelan Santiagoren bizitzea, bere Maixuagaz ebilanean, zelan izan zan tximistearen antzekoa, au da, bero ta gartsua; gero ikusiko dogu bigarren

atalean, zelan Santiagok, Jaunaren sinestea erriai irakasten asi zanean, trumoiarena lako ots eta durundia ateraten eban.

## I

Jesukistok dei egin eutsonean, Santiagok bertatik jarraitu eutsan, biotz-zabalez, bere gurez eta maitetasunez. Tiberiades deritxon itxasoan aurkitu ebazan Jaunak Santiago ta S(an) Joan bere anaia, euren aita Zebedeoagaz batera. Txalupan, euren sareak adobetan ebiltzan; deitu eutsen eta eurak bertatik, «*statim*», aita, sareak eta gainerako beste gauza guztiak itxita, Jaunagaz joan ziran, andik aurrera beti beragaz ibilteko gure Jaunaren eriotzaraino. Santiagok jarraitu eutsan, ba, Jaunari «*statim*», bertatik, bere gauzak zuzen ipinteko be, asti eta eperik eskatu barik; esan geinke, ba, tximisteak baizen arin eta bizkor jarraitu eutsala, biotz-zabalez eta gogo onez, gauza guztiak bertan bera itxita.

Guri kistinauoi be, gure Jaunak sarri askotan dei egiten dausku. Noz eta zelan? Zerutar argiz geure gogoak argitu ta bere eskar edo graziaren bidez geure biotzetan ikutzen dauskunean. Jaunaren deia ixila izaten da, baina adi egon ezkeru, norbere barrenean, biotz barruan, entzuten da. Batzuetan esaten dausku geure lagun dongea itxi daigula; beste batzuetan, bide gaiztotik aldendu gaitezala; beste askotan, geure gaiztakeriak ezagutu, geure erruak autortu ta geure biotzak damutasun-negarrez garbitu daiguzala; ez gitxitan, bere aginduak bete, berak irakatsi euskun bideari jarraitu, berari eskar onez erantzun eta bere maitetasunarren, geure gauzak, geure eguneroko zereginak egin daiguzala. Oneik eta beste onelako gauza asko esaten dauskuz geure biotz barruan geure Jaungoikoak; geure bearrizan edo preminak ikusita, biotz barruan, ixil-ixilean adierazoten dausku Jaunak, geure animaren osasuna egiteko bear doguzan gauzak.

Begira, ba, ene entz(u)le mait(eok), ea Santiagoren antzera, bertatik eta biotz andiz eta zabalez jarraitzen doguzan ala ez gure Jaun laztantsu, gure Artzain arduratsu aonen deiak. Gauza argia da, ba, onetan muker eta atzerakorrak izaten bagara, egundo be ez dogula irabaziko geure Jaunaren biotza; geu Jaunaren deietara sor eta gorrak izaten bagara, Jauna bera be gure deietara gor egingo jakula. Ta bestera, geu aonetan arduratsu eta bizkorrak izaten bagara, bere deiari zoli erantzuten badautsagu, Jaunak berak be, zerbait eskatzen dautsagunean, gure deiak askozaz be arinago entzungo ditu, bear dogun laguntasuna emongo dausku ta geure gaiztakeriarekin zintzoro damuturik parkeskatu daiogunean, gure txarto-eginak parkatu ta bere aiskidetasunean barriri artuko gaitu.



Auxe da Santiagoren bizitzan dakusguna; ain laster, ain pozik, ain biotz-zabalez jarraitu eutsalako, asko maitetu eban Jaunak eta emon eutsazan berarizko eskar edo graziak. Beti Jaunaren ondoan ibili zan eta Jaunak egin zituan alatz edo miraririk arrigarrienak ikusi zituan Santiago Apostoluak: Jesukistoren ondoan egon zan Jaunak S(an) Pedroren ginarrabea osatu ebanean, Jairoren alabea berbiztu ebanean; Jaunagaz igon zan Taboriko mendira ta an ikusi eban bere Maixua zeruko zoriontsuen irudian, argi, edertasun, aintza edo gloriatz jantzita; Jaunagaz joan zan Getsemaniko zarratura ta beste ikaslak atzerago itxita, S(an) Pedro, Santiago ta Joan eron zituan Jaunak bere ondora, besteak baino maiteago ebazalako ta ordu larri aretan, odolezko izerdia isuriko eban ordu larri aretan, bere ikaslarik kutunenak bere urrean euki gura zitualako. Onelan, anai biak, Santiago ta Joanek, errez ezagutu eben Jesukistok berarizko maitetasuna eutsela ta eurak be biotz-biotzez maitatu eben euren Maixu laztantsua. Tximistearen su-garra lakoa izan zan euren maitetasunaren garra. Augaitik, egun baten Jesukisto Jerusalenerantz etorrela, samaritarrak uriko atea itxi ta zarratu eutsezalako, Santiago ta Joanek samaritarren doilorkeri aonegaz aserratuta euren Maixuari esan eutsen: «*Domine, vis dicimus ut ignis descendat de coelo et consumat illos?*» Jauna, nai dozu Aita Goikoari eskatu daiogun zerutik sua bialdu daiala ta gizon doilar oneik sutan erre daizala?» Jaunak erantzun eutsen: «Ez dakizue zer dinozuen: ni maitetasuna irakasteko etorri naz hurrera. Gorrotoak alde batera itxita, maitatu bear dogu gure geide edo projimoa, nai dala geure aiskidea nai geure arerioa; doilorkeriari ez dautsagu erantzun bear doilorkeriz, gaiztakeriari ez dautsagu erantzun bear gaiztakeriz. Inori be ez dautsagu izan bear gorrotorik». Onelan erantzun eutsen Jaunak; baina anai biok samaritarren kontra erakutsi eben amuru ta aserrear, ezagutu geinke zelako bizia izan zan euren Maixuari eutsen zaletasuna, zelako bero ta gartsua izan zan euren biotzetako maitetasuna. Bere Maixua zintzoro maite ebalako, orixegaitik ezin eroan izan eban Santiagok samaritarrak Jaunari egin eutsen irain eta doilorkeria ta eurak erreteko eskatu nai eban zeruko sua, aserrezko sua. Agiri da, ba, entz(ule) mait(eok), tximistearen su-garra lakoa izan zala Jaunaren maitetasunak Santiagoren biotzean bizitu ta ixiotu eban garra; augaitik, Jaunaren sinestea erriai irakasten asi zanean, trumoiaren durundia lakoa izaten zan Santiagoren abotsak ateraten eban ots eta burrunbadea. Onelan adierazo eban guttiz egokiro ipini eutsola Jaunak trumoi-semearen izena.

## II

Jesukisto gure Jauna zeruetara igon zanean, bere bialduak, bere apostoluak, Jerusalemdik inora alde egin бага, antxe bertan itxaron eben

Espiritu Santuaren etorrerea. Espiritu Santua suzko minaren irudian jatsi zan apostoluen gainera: argia zan eta apostoluen gogoak argitu ebazan; sua zan eta apostoluen biotzak berotu zituan. Suzko minaren irudian jatsi zan eta apostolui lurreko izketa guztiak irakatsi eutsuetan; apostoluen gogoak zerutar jakituriz argitu, euren biotzak maitetasunezko garretan berotu ta euren bularrak kemen zerutarrez indartu ebazan. Eta au jazo zanean, apostoluak gizon barri eginik, bertatik asi ziran Jesukistoren agotik entzun zituen irakaspenak zabaltzen.

Santiago Judean bertan asi zan Jaunaren sinestea ta bere legea irakasten; erririk erri ta uririk uri ibili zan. Samariaraino be eldu zan eta toki guztietan berotasun eta gar andiz azaldu ta adierazoten eutsen judatarrai, eurak kurutzean josi eben Jauna, axe zala Jaungoikoaren egizko Semea, axe zala Jaungoikuak urte asko aurrerago euren gurasoai agindu eutsen Salbatzailea; bere izenean eta berak irakatsiko bidetik izan ezik, inor be ezingo zala igon zerura, inok be ezingo ebala lortu betiko zoriona. Bere itzaldietan, su-gar andia erakusten eban; zarata, ots eta durundi izugarria ateraten eban. Asko ikaratuta, bide dongeak itxi ta biurtu ziran Jesukistoren sinestera; baina beste askoren aserrea be ekarri eban bere gainera. Judatarrak arrika il eben S(an) Esteban, lenengo zinopa<sup>769</sup> edo martiria; au egin ondoren, artu eben Santiagogaz beste ainbeste egiteko asmoa. Igarri eban bere bila ebiltzala, arrapau ta il nai ebela ta Judea itxirik, etorri zan, antxinatik sinestu danez, etorri zan Espainara.

Espanian zenbat biurtu zituan ez dakigu, baina bai alde guztietan, gogoz lan egin ebala; agintariak Jesukistoren arerioak izan arren, bildur eta ikara barik irakasten ebala bere Jaun maitearen sineste ta legea. Jesukistoren maitetasunean, bero-bero egoan Santiagoren biotza; augaitik maitetasunezko su-garrak bere aotik urteiten eutsan, zerurako bidea erriai irakasten eutsenean. Kintilionok dinausku, Perikles Atenasko ele-tari ospatsuak askoren aurrean itz egiten ebanean, esan eikela bere agotik itzak baino obeto, tximista ta trumoiak jaurtiten ebazala. Ain izaten ei zan andia bere itzai emöten eutsen indarra! Esan geinke Santiago Apostoluak be, Jaunaren sinestea irakasten ebanean, beste onenbeste egiten ebala: bere agotik urteiten ziran berbak, tximistearen garra lez zabaltzen ziran alde guztietara ta bere entzuleen belarrietan egiten eben trumoiarena lako burrunbada ta durundia. Antxinatik uste izan danez, Zaragozan ebilela, agertu jakon A(ndra) Maria eta esan eutsan gogotik lanari ekin egiola, egunen baten bere izerdiak, arnari edo frutu eder eta

<sup>769</sup> *Zinopa*: martiri.

ugariak emongo zituela-ta. Santiagok bere aldetik egin zituan aleginak; andiak izan ziran bere lan eta izerdiak, bero ta indartsuak bere agotik urteiten ziran itzak, ikaragarriak trumoi-seme onek erabiltzan burrunbadak. Augaitik aserratu ziran beragaz, batez be Espainian bizi ziran judatarrak eta artu ebezan bera galtzeko asmoak.

Orduan, Santiago, bere ordezeko beste batzuk itxirik, itzuli zan barriro Jerusalenera. Jerusalendarrak, baidakizue, Jesukistori eriotzea arrerazo eutsenean, euren buruai jaurti eutsen biraurik ikaragarriena. «Bere odola –esan eben–, bere odola jausi bedi geronen eta geure semeen gainera. *Sanguis ejus super nos et super filios nostros.*» Augaitik-edo, arria lez gogortuta eukezan euren biotzak, ezelan be ez eben entzun nai izaten eurak kurutzean josi ebena, axe zala euren Jaungoikoa; biotzak eta barrenak inotsen gaizkin-dongeak zirala. Augaitik Santiagok, bere indar guztiagaz, adierazoten eutsenean eurak kurutzean josi eben Jesukisto, axe bera zala Jeobak euren gurasoai agindu eutsen Salbatzailea, Jaungoikoaren Semea ta Egizko Jaungoikoa; Santiagok au adierazoten eutse-nean, apostolu onen berbak judatar arro ta gaizkinen biotzetan, trumoiak mendi ta muru-arroetan egiten dauan lako burrunbadea egiten eben eta judatar gaiztoai unetaraino ikarea sartzen eutsen. Onelan, ba, Herodes Agripa euren agintariari eskatu eutsen, Santiagok euren bizia mingoiztuten eutsela-ta, berari bizia kendu egiola. Herodesek judatarren ona euki nai eban eta eurai atsegin emotearren, bere menpeko morroiai agindu eutsen arrapau egiela Santiago Apostolua ta samea ebagi, burua moztu egiola. Eta Herodesek il eban Santiago, Joanen anaia ezpateagaz semea ebagita: «*Occidit autem Jacobum fratrem Joannis gladio.*»

Santiago izan zan, ba, Jesukistoren apostoluetatik bere sinestearen aldez lenengo il zana; S(an) Joan bere anaia izan zan lez guztien artean azkenengo bere bizia galdu ebana. Santiagok isuri eban bere odola, Jesukisto gure Jaunak isuri eban toki edo errian. Jesukistok bere odolagaz ezotu ta busti eban lurrean sortu ziran sinestea ta Eleizea; Santiagok bere odola isuri ebanean, sineste ori indartsutu ta Eleizea ugaritu ziran. Orduantxe zabaldu ziran, ba, beste apostoluak lurraren alde guztietara ta toki ta erririk geienetan irakatsi eben Jaunaren legea, zerurako bidea. Jesukistok bere eriotzan, bere borruentzat be parkazinoa eskatu eban; Santiagok be, eriotzara joiala, irabazi eban bera salatu edo akusau eban judatarra. Ikusirik, ba, onek –Josias ei zan bere izena–, ikusirik apostoluak eriotzeari bildurrik ez eutsala, bere bizia emoteko poz-pozik egoala, igarri eban Jaungoikoa zala Santiagori onelako indar, kemen eta sendotasuna emoten eutsana... Urten eutsan, ba, bidera, eskatu eutsan parkazinoa eta autortu eban berak be Jesukistogan sinesten ebala. Santiagok pozik parkatu eutsan, besarkatu ta laztandu eban eta beko-

kian mun eginik, esan eutsan: «*Pax tibi sit*. Bakea zugaz, ene aiskide». Askok dinoenez, emendixik datorkigu gaur egunean be kistinauok daukagun ekandu ona, meza nagositan alkarri bakea opaltzeko daukagun oiturea, bata-besteari «*pax tecum*» esanda.

### III

Gauzarik kutun eta maiteena lez jagon, zaindu ta gorde bear dogu geure sinestea, auxe dalako egizko sineste bakarra. Jesukisto, sineste au irakatsi ta emon euskun Jauna, kurutze baten il zan, onelan iragarteko egia zala berak irakatsi euskuna; bere apostoluak, Santiago lez beste guztiak be, sineste aonen aldez il ziran. Euren odola, sineste au ez ukatzearren isurita, iragarri eben euren zindotasuna; agertu eben egizat eukela ta egia zala Jesukistoren izenean irakasten ebena. Inorbait bale-torkizue beste sineste barriren bat irakasten, itandu egiozue nor dan sineste ori sortu ebana, nortzuk izan ziran sineste ori zabaltzen ibili ziranak, eta aurkitu badaizue sineste ori sortu ebana kurutzean il zala, bera zabaltzen ziarduenak be, guzti-guztiak, euren sinestearen aldez emon ebela euren bizia, zanetako odolagaz sendotu ebela irakasten eben sinestea, al, orduan gertu zeintekeze berak esan nai dautsuena entzuteko; baina bien bitartean, ez! Bien bitartean zetan entzun be ez da kistinau sinestearen kaltezko beste sinesterik, beste garautxu batek be ez daukalako egizko sinestearen ezaugarririk, geure sineste maitagarri onek izan ezik.

Baina sinisteari geure biotzetan bizi-iraunazoteko, berak irakatsi ta agintzen dauskuna egin bear da; bestelan, berak galerazoten dituan gauzak egin ezkeru, sinestea be erre-izilten da, erre-galtzen da. Egite onak dira sinestearen jakia, bizitza ona da sinisteari indar eta mardotasuna emoten dautsana; ta bizitza gaiztoa da sinestearen geixo, ugar eta gorri-na. Egin daigun, ba, al doguntxua geure sinisteari gogor eutsiteko; berak dinauskun lez, geure egikizun guztietan zuzen ibilteko; bera geure argizat artuta, geure ibilte ta egite guztiak geure elburura, zeruko zorionera arteztu edo zuzentzeko; geure bizitza oni kistinau-sinestearen ikurratz edo *selloa* emoteko. Onelan, Jesukistok zerutik ekarri euskun sinesteak eroango gaitu sinesteko argi ori emon euskun gure Jaun eta Jaungoikoagana, beragaz betiko zorionsuak izatera.

## XLIX

### ANDER DEUNA

«*Vidit duos fratres, Simonem qui vocatur Petrus,  
et Andream fratrem ejus.*»

«Anai bi ikusi ebazan, Simon, Pedro deritxona,  
ta Andres bere anaia.»

(Math. 4, 18)

Neure entz(u)le) mait(e)ok):

Simon eta Andres anaiak ziran; anaiak eta arrantzaleak. Arrantzuan ibiltzen ziran toki arek iru izen ditu: Galileako itxaso, Tiberiadesko itxaso ta Genezaretgo oxina. Itxaso baino obeto oxin andia da, zabaleran legua bat inguru ta luzeran iru bat legua daukazan oxina. Baina galilearrak, euren lurraldean itxaso zabalik ez eukelako-edo, oxin andi oni itxaso eritxoan, eta berez itxaso txikia izan arren, noizean bein itxaso zabalaren antzera, oxin au be aserratu ta gora-goraka asten zan, bertan arrantzuan ebiltzanai biotzetan bildur-ikarea sartzeraino. Goi aldetik ibai biren urak, Jor eta Dan ibaien urak artzen ditu; gero Jordango ibaian zear bere urak berago dagoan itxaso ilera jaurti daroaz. Augaitik, oxin andi ori, bere urak itxaso ilera jaurtiten dituan oxin ori, gure oraingo bizitza onen irudia dala esan geinke, aren urak lez gure egunak be erioztara doaz-ta. Oxin edo itxaso txiki aretan arrantzuan ebiltzala, dei egin eutsen Jaunak anai biai: «Zatoze neure jarrai –esan eutsen Jaunak–, eta arrantzale zarienok, gizon-arrantzale egingo zaituet nik. *Venite post me et faciam vos fieri piscatores hominum.*»

Eleizearen jasoin edo oinarritzat autu eban Simoni, bere izena aldatu ta izen barria, 'atxa' esan nai dauan izena, ipini eutsan Jaunak; S(an) Andresi, ostera, lendik eukan izena egoki-egokia zalako, ez eutsan ize-nik aldatu. Izen au greziatarren izkuntzatik arturikoa da ta 'biotza', 'kemena', 'adorea' esan nai dau.

S(an) Pedrori, lenengo aita santuari, Jaunak bere izena aldatu eutsalako, arrezkeroko aita santurik geienak, zeregin orretarako autuak izan

diranean, lengo izena itxi ta izen barria artu dabe. 1555garren urtean Marzelo (Kerbino) eritxon kardenala, gizon jakitun, zuzen on eta jangoikozkoa, autu eben aita santu izateko, eta bere izena aldatu egiala esan eutsenean, berak erantzun ei eban: «Ez, eztoz aldatu nai, izenik be ez, eta oiturarik be ez, Marzelo izan naz eta Marzelo izango naz». Onek ondo erantzun eban; baina onek baino be obeto esan eikean S(an) Andresek: «Andres izan naz orain arte ta aurrerantzean be Andres izango naz. Nire izen onek gizon bioztsu, sendo ta adoretua esan nai dau ta olakoxea izan nai dot». Eta egiz, sendotasun arrigarria, adore, kemen aundia erakutsi eban S(an) Andresek bere bizitzan, eta batez be eriotzako orduan. Orixe azaldu ta adierazo nai neuskizue neure itzaldi onetan. Baina orretan asi orduko, Jaunaren aurrean auspaztu ta bere laguntasuna eskatuko dautsagu...

*«Vidit duos fratres, Simonem qui vocatur Petrus, et Andream fratrem ejus.»*  
(Math. 4, 18)

N(eure) entz(ule) mait(eok), Jaunak bere bideak atondu ta leundu-teko, S(an) Joan Bateatzailea bialdu eban bere aurretik. Narruz jantzita, bedarrak baino besterik jaten ez ebala, bizitza gogor eta neketsuaren irudi bizi agertu zan S(an) Joan Jordango ibai-ertzean, eta beragana urreratzen ziran guztiai esaten eutsen: «Damutu zaiteze, zeuen gaiztakerien penitentzia osoa egizue ta bateatu zaiteze, Jaunaren erreinua laster jatortzue-ta. Jauna bear dan lez artzeko, zeuen arimak garbitu ta zeuen biotz orreik gertu, prestau egizuez».

Anbat ikasle batu jakezan; beste batzuen artean gero S(an) Andres izan zan arrantzale zintzoa be bai. Egun baten badator Jesukisto Jordango ibai-ertzera ta S(an) Joanez ikusi ebanekoxe, dinotse bere ikaslai: «Orra or Jangoikoaren Bildotsa, munduko pekatuak garbitu ta kentzen dituana, orixe da. *Ecce Agnus Dei, ecce qui tollit...*». S(an) Juan Bateatzaileak esan eban ori bere ikasle guztiak entzun eben; baina geienak ez nekatzearren-edo, ezer entzun ez baileben, zirkinik egin barik, an gelditu ziran. S(an) Andres eta beste ikasle bat —nor izan zan ez dakigu, Ebanjelioak ez dinosku-ta—, S(an) Andres eta beste ikasle bat bakarrik joan ziran Jesukistoren jarrai, Jauna non bizi zan jakin eta zeruko bidea bere agotik ikasteko asmuz.

Onelan S(an) Andresek berealaxe jarraitu eutsan Jaunari; ez zan egon beste enparauak zer egingo ete eben begira. Jesukisto Jangoikoaren Bildotsa zala, gizonen pekatuak bere odolaz garbituko ebazala entzun eutsan S(an) Joani, ta gerorako itxi barik, besteak zer egingo ete eben begira egon barik, Jaunaren jarrai doa, biotz andiko gizonari dago-

kion lez. Eta zinez, gauza onak egin baino len, besteak egingo ete dabean ala ez jakin gura izatea, ez da gizonkeria, umekeria baino. Gauzea berez on eta osasungarri bada, beste enparauak egin nai ez egin, bardin izango da on eta osasungarri; eta beste inok egingo ez baleu be, on eta osasungarritzat daukagun gauza ori bakotxak egin bear dogu. Besteai jaramon barik, bakotxak egin bear geunke, arimearen osasunari dago-kiozan gauzak bakotxak beretzat egitekoak dira-ta.

Jaunak bere aginduak gizon guztiai banan edo banezean barik aldran ipini baleutsez, beste enparauak bete ezik, geu be orretara be artuak ez gagozala uste izango genduan bearbada. Baina Jaunak bere aginduak guztioi aldran barik, bakotxari ipini euskuzan: «Maiteen neu izango nozu, nire izena alperrik agotan ez egizu artu...», ta alan beste agindu guztiak be. Agindu oneik bakotxari banezean ipiniaz adierazo euskun Jaunak, bere agindu orreik egin eta betetea bakotxaren egikizuna dala, ta besteak zer egiten dabean begira egon barik bakotxak bete bear doguzala. Geure arimearen osasunari dagokiozan gauzetan besteak zer egiten dabean begira bagengoz, orretarako ezertxu be egiten ez dabena askotxu dira-ta, gu be atzerakor eta nagi ibiliko ginake. Baina arimearen osasun eta salbazinoa inoren eskuetan eta besteen ardurara itxi leiken arazoa ez dalako, bakotxak beretzat egin bear doguna baino, orregaitik onako gauzetan besteak egin nai ez egin, bizkor eta ardura andiz ibili bear dogu. San Andresek, beste enparauak, S(an) Joanen ikas-lak, an Jordango ibai-ertzean itxi ta Jaunari jarraitu eutsonean, orixe irakatsi euskun.

S(an) Andresek Jaunari itandu eutsan: «*Rabbi, ubi habitas?* Maixua, non bizi zara?». Eta Jaunak berari ta lagunari erantzun eutsen: «*Venite et videte*. Zatoze neugaz eta ikusi egizue». Jaunagaz egon zan egun batzuetan, bere irakatsiak be entzun ebazan; baina jarraitzekorik ez eutsan esan Jaunak eta barriro bere zereginetara biurtu zan S(an) Andres. Gerotxuago, gaurko ebanjelioak dinoskunez, barriro aurkitu ebazan Jaunak Andres eta Simon bere anaia Galileako itxasoan arrantzuan ebiltzala. Orduan bai, dei egin eutsen biai esanaz: «*Venite post me*. Jarraitu nagizue»; eta eurak esku artean eukezan sareak itxi ta Jaunaren jarrai joan ziran: «*Statim, relictis retibus, secuti sunt eum*». Jaunak mundu onetako ogasunik ez eutsen eskini; lanerako dei egiten eutsela, argiro adierazo eutsen. Ori ta guzti be, eukezan ogasunak itxi ta berealaxe joan ziran Jaunaren jarrai.

Beste bein legegizon batek esan eutsan Jaunari: «Maixua, zoazen edozein tokitara jarraituko dautsut. *Sequar te quocumque iteris*». Baina gero, Jaunak esan eutsanean: «Azeriak euren zuloak, txoriak be euren abiak daukez; nik ostera, gizonaren semeonek, neure burua non ipini

be ez daukat»; ori entzunik, legegizona makaldu zan bere asmu onetan eta atzera egin eban. Jauna txiro, lander edo pobrea zala, lurreko aberastasunik ez eukala S(an) Andresek be ondo ekian; ori ta guzti be, biotz sendoko gizona zan-ta, ez eban atzerarik egin. Jaunaren jarrai joan zan eta lana ta nekea baino beste aberastasunik aurkitu ez arren, eriotzaraino jarraitu eutsan Jaunari.

Atseginetara barik, lanera dei egin eutsan Jaunak, eta S(an) Andresek Jesukistoren izena ta bere sinesteko argia gizonen artean zabaltzeko gogoz lan egin eban. Lenago arrainak artzen ebazan lez gero gizonak arrapauko ebazala, gizonen biotzak irabaziko ebazala esan eutsan Jaunak eta gizona Jaunagana ekarteko, eten barik, atsedeen barik ekin eutsan lanari. Trazia ta Epiro irakatsi eban lenengo Jesukistoren sinestea; gero Eszitia, Kapadozia, Galazia, Bitinia ta Itxaso Baltzaren ondoko errietan. Bide luzeak egin ebazan oinez; ibili ta ibili eldu zan azkenez Patras eritxon Akaiako uri nagusira, eta ainbat biotz Jaunarentzat irabazi ta gero, Egeas ango agintariaren eskuetan jausi zan.

Labankeriz lenengo, gogorkeriz gero, al eban guztia egin eban Egeasek S(an) Andresi bere sinestea ukatu eragiteko. Ondasun, aukera, andikeri ta atseginak eskini eutsazan lenengo; baina S(an) Andresek erantzun eutsan: «Zure ogasun eta atsegin orreik sastamarra<sup>770</sup> baino gixiango dira. Zeure jainkoizun edo guzurrezkoak itxirik, Kistogan sinestu ta zeure arimearen ardurea artu badagizu, zu ta ni, biok betiko atseginetara joango gara».

Egeasek aserrez dinotso: «Jesukisto ukatu ta neure jainkoen aurrean burua makurtu ta belaunikatzen ez bazara, gurutzean josiko zaitut». S(an) Andres ez zan ikaratu; bere biotzeko sendotasuna, bere adore ta kemena erakusteko, era egokia zala-ta, ikara barik erantzun eutsan agintariari: «Jesukistoren ikaslea naz. Nire Maixua gurutzean il zan eta neure Maixu ta neure Jauna gurutzean il zalako, gurutzea niretzat ez da bildurgarri, opagarri ta maitagarri baino. Len labankeriz ogasun, aukera ta atseginak eskini daustazuz; orain gogorkeriz gurutzeko eriotzeaz zematuten nozu. Labankeri ta atseginak opatuaz ez nozu irabazi, gogorkeri ta gurutzearen bildurraz be ez nozu irabaziko. Andres naz eta Andres izango naz; sendo ta adoretua esan nai dau nire izenak eta sendo ta adoretua izango naz, neure Jaunaren laguntasunaz. Kistorena naz eta Kistorena izango naz; gurutzeaz zematuten nozu, gurutzera joango naz».

Esan eta egin, gurutzean josi egiela agindu eban Egeasek. Gurutzera eroienean, erria diadarrez asi zan, esaten: «Zer? Errubako ori gurutze-

<sup>770</sup> *Sastamar*: hondakin.



ra? Gizon on eta santu ori gurutzean iltera? Ze gaiztakeri egin dau, ba? Askatu ori, errubako gizona da-ta» Erriak diadarrez ziarduan; askatu nai eban, baina berak ez eban nai eta diadarka ebiltzenai esan eutsen: «Zagoze ixilik, neuk ainbestean opa dodana ez egidazue galerazo; nire guraririk biziena gurutzean iltea da-ta, esku artera datorkidan zorion ori ez egidazue kendu». Ori esan eta aurrera joian eta gurutzea ikusi ebanean, ikusgarrizko arrera samurra, abegi ta txerarik laztantsuena egin eutsan, esanaz: «O gurutze ona, antxinatik nai izan zaitudan gurutzea laztana! Arduraz maitatu, atsedeen barik bilatu ta noz edo bein neure aurrean ikusten zaitudan neure Jaunaren gurutze eder eta agurgarria! Jaunak zure bidez artu nagian, zeure beso orreitan artu nagizu. *Ut per te me recipiat qui per te me redemit*». Eta bere oldez, bere gurez, poz-pozik joan zan gurutzearen besoetara.

Gurutzea izan zan S(an) Andresen laztana, bere atsegina, bere zoriona. Ezteguna baino pozago joan zan S(an) Andres gurutzeri; berez biotz-sendoa zan gizon oni, ain maite eban Jaunak emon eutsan olakoxe kemen eta adore arrigarria. Egun bian egon zan gurutzean eskegita; bere neke, min eta oinazeakaz aitzurik, atsegin-eztitan bailegoan, bake andiz ekin eutsan gurutzetik Kistoren sinestea ta zeruko bidea irakasten... Norbaitzuk bera gurutzetik askatu ta erasteko asmuz etozala igarri ebanean, Jaunari esan eutsan: «Neure Jangoiko maitea, judatarrak gurutzetik jasteko esaten eutsuen. Baina, zu nire Jaunori, ez zinan jatsi; nik be zu lez gurutzean il nai dot eta ni emendik erasteko asmuz datozen orrei, ez egiezu, arren, euren asmuaz urtetan itxi. Zu gurutzean il zinan; ni be gurutzean il nadi!». Au esan eta laster il zan, eta bere arima zorionsua gurutzearen besoetatik Jaunaren besarte gozora joan zan.

S(an) Andresek bere izena ondo ipinita eukala, gizon bioztu ta adore andikoa izan zala agiri da. Bere egikizun eta zereginak betetako, besteak zer egingo ete eben begira ez zan egon; berari egokiona, besteai jaramon barik, zintzo ta bizkor egin eban beti. Bere sinestean ta Jaunagazko maitasunean sendoro irauteko, adore andiz eta biotz osoz igaro eban gurutzeko eriotza gogorra. Kistinau ona izateko be, kemen eta adorea bear dira, arerioak garaitu, eragozpenak zapaldu ta zeruko bidean aurrera joan bear da-ta. Beste askok be ez dabezala egiten-ta, norbere egikizunak betetako, atzerakor, nagi ta alper dabilena, kistinau ona ezin izan daiteke. Kistinau onak bere egitadeetan erakutsi bear dau, Kistorena izateko ta bere legea betetako atzerapen eta lotsarik ez daukala; bestelan, geu Jaunagaz lotsatu bagaitez, kistinauren zereginak egiteko epel eta lotsorak izaten bagara, Jaunak dinosku bera be Aita Zerukoaren aurrean gutzaz lotsatu egingo dala. Eta bestera, geuk orain lotsatu barik geure Jauntzat ezagutu ta autortu badaigu, geure zeregin eta egin-

bearrak nagi ta alper barik egin eta bete badaiguz, berak be bere ikasle ta semetzat ezagutuko gaituala bere Aitaren aurrean. Begiratu daigun, ba, kistinau zintzoak izateko egin eta bete bear doguzan egikizunak zeintzuk diran, deitu gaituan Jaunari eskar onez erantzuteko, zelako gauzak, noz eta zelan egin bear doguzan; eta beste enparauak bete dagiezala naiz ez dagiezala bete, bakotxak egin eta bete daiguzan, ori egitea bakotxaren zeregina da-ta.

Zuek arrantzaleok be, S(an) Andresek Jaunari izan eutsan zintzotasuna gomutau egizue. Begiratu zeuen aurretikoak itxi dautsuezan oitura ta ekandu onak zeintzuk diran eta guztiak oinean eukiteko alegin egizue, Jaunak zuen lana bedeinkatu ta ugaritu dagian; arrantzura baino len eta arrantzuan zabiltzenean, jaso gora zeuen biotzak, eskini Jaunari zeuen zeregin, arazo, neke ta lanak, gizonen lanak Goiko Jaunak baka-rrik onetsi, bedeinkatu ta ugaritu daikez-ta.

S(an) Andresen sendotasun eta adorea gogoan artu daiguzan guztiok, bein baino sarriago geure bizitzan bearrekoak izango doguz-ta. Ondo astea gauza erreza da; onean jarraitu ta ondo amaitzea, ori da gauza gatxa. Orretarako sendotasun, adore ta kemena bear dira, S(an) Andresek erakutsi euskun antzeko adore ta kemena. Jaunak esan eban: *«Qui perseveraverit usque in finem, bis salvus erit.* Azkenean onean iraun dagiana, orixe salbauko da». Artu daigun, ba, guztiok geure egikizunak zoli ta bizkor betetako ardurea, kistinau gareanez daukaguzan eginbearrak azkeneraino zeatz eta adorez betetako asmua, eta Jaunak bere jarraitzaile zintzoai eskini ta agindu dautsen zoriona emongo dausku.

## L

### BARTOLOME DEUNA

*«Regnum coelorum vim patitur et violenti rapiunt illud.»*

«Zeruetako erreinua indarrez artu bear da  
ta indar dagienak arrapatzen dabe.»

(Math. 11, 12)

## I

N(eure) entz(ule) maite-maiteok:

Antxinako uri asko lur zelaian barik, muru ta gaintxueta egoten ziran. Beinolako gizonak, arrotz-arerioen bildurrez, euren uriak orrelako toki jagietan egin eta orrezaz ganera arresiz, orma lodiz inguratzen ebezan, arerioak etozanean, ateak itxi ta barrutik sendoro eutsi al izateko. Onelako uriburuak indarrez menperatu ta artzea, sail gogor, lan neketsu ta egikizun gatxa izaten zan; euren aurka joiazan gudari, soldauak, bular sendoa, kemen eta adore andiko biotza bear izaten eben, ormak zulatu, bidea idegi ta uri barruraino sartzeko. Barruko gudariak, gosez edo egarritz ukatu ezik, olako uria beti indarrez artu ta irabazi bear izaten zan.

Bein baino sarriago, gudarostearen agintariak bere menpeko gudarai esaten eutsen: «Neure soldauak, egikizun andi ta sail gogorra dauka-geure begien aurrean; uri au biotzeko sendotasun, adore ta indarrez izan ezik, ezin artu geinke. Baina ez ikaratu! Zuek niri jarraitu! Neure narru ta bizia ementxe itxi bear badodaz be, aurrenengo joango naz, lenago bizia galdu ezik; urian aurrenengo sartuko naz eta indarrez menperatu, irabazi daigunean, bertako ogasun guztiak zuentzat izango dira». Agintari, buruzagiak au esan ezkeru, gudarien biotzak ezin geiagoan berotu, adoretu ta sendatzen ziran, eta bein baino sarriago indarren indarrez eta adore utsez uriak arrapatzen ebezan.

## II

Orain, ba, gauzarik geienak irudien bidez irakasten ebazan gure Jau-nak, bein bere ikaslai esan eutsen: «Zeruko erreinua indarrez artu bear

da ta indar dagienak, biotzean kemen, sendotasun eta adorea daukenak, orreik irabazten dabe. *Regnum coelorum vim patitur et violenti rapiunt illud.* Baina ez zaiteze bildurtu, aurretik joango naiatzue ta bidea neuk idegiko dautsuet; zuek egin bear ko dozuen guzti-guztia ta geiago, nik zuek baino len egingo dot. Neuri jarraitu egidazue ta nire oinatzetatik bazatoze, zeruko erreinua ta ango zoriona irabazi ta eskuratuko dozuez.

Au entzunik, apostolu ta ikasleen biotzak ezin geiagoan sendotu ziran, kemen eta adorez bete ziran. Eta augaitik, Jauna zeruetara igon eta gero, sinesteko argia gizartean zabaltzen asi ziranean, zeruko erreinu ori irabazteko, egikizunik andi ta gatxenak bioztu ta sendoro egin eta nekerik gogorrenak be, kemen eta adorez igaro, jasan eta eroan ebezan. Ez otzak, ez biloiztasunak, ez goseak, ez egarriak, ez nekeak, ez kalteak, ez geixoak, ez eriotzeak, Jaunaren gudari adoretzu oneik ezek be ez ebazan ikaratu; ezek be ez ebazan bildurtu ta atzeratu.

### III

Euren zeregin andi ta neketsuetan, guztiak langile azkar eta gudari bulartsu ta sendoak agertu ziran; Jaunak irakatsi eutsen bideari, adorez jarraitu eutsen eta zeruko erreinua, ango zoriona indarrez irabazi eben. Gaur S(an) Bartolomeren jaia ospatzen dogu. Beste apostolui itxita, zeuen zerutar Jagolatzat daukazuen santu onen bizitza pizka bat aztertu, arakatu daigun eta zeruko erreinua irabazteko bear dan adore ta sendotasun ori zelakoa dan, ortxe ikusi ta ezagutu al izango dogu. Gure Jaunak esan ebanez, zeruko zoriona inori be ez jako duarik emoten; indarrez eta egite onen bidez irabazi bear da. Baina onetarako, gogo erkin eta makala barik, gogo sendo ta adoretzua bear dala edonok daki. Auxe da, ba, S(an) Bartolomek bere bizitzan guztiz egokiro irakatsi euskuna ta auxe berau nik goiz onetan, Jaunaren laguntasunagaz, azalduko dautsuedana be. Aurrera jarraitu orduko, Jaunaren aurrean auspezturik, goiko argi ta eskarrak jadesten lagun egidazue, ta orretarako, neugaz batera, geure bitartekorik altsu ta onena dan Ama samurrari, Aingeruaren agurra biotz-biotzez esan egiozue:

### I

*«Regnum coelorum vim patitur et violenti rapiunt illud.»*

(Math. 11, 12)

N(eure) entz(ule) mait(eok), egikizun andi ta gatxak egin eta neke astunak jasan eta eroateko indar eta adorea emoten dauskuzan onoi-

nari, sendotasuna deritxogu. Gauzak arira jatorkezanean, arriskurik andienetan bioztu sartzen diran gizonak be, bein baino sarriago; gauzak oker urten eta zoritxarrak bere azpian artu ezkeru, epel, makal eta erkinak izaten dira. Geienez, mundutarren sendotasunak, arrisku ta nekeetatik ondo urteiteko itxaropenak beste irauten dau; itxaropen ori galdu ezkeru, euren sendotasuna be galtzen dabe. Baina Kistoren gudari zintzoen sendotasuna, neke ta zoritxarretan beste inon baino obeto agertzen da; augaitik egiz esan oi da mundutarren sendotasuna amaitzen dan toki ta unean, kistinauena asten dala, ta gauza andiak egitea erromatarrena izan bazan, neke ta zoritxar andiak, kikildu barik, adore andiz igarotea, kistinauena izan dala: «*Magna agere romanum est; magna pati christianum*».

S(an) Bartolomek lan andi ta egikizun gatxak bioztu egin ebazan; etorri jakazan zoritxar eta nekeak be adore andiagaz igaro ta eroan ebazan. Augaitik bere sendotasuna osoa izan zala, kistinau zintzoa dago-kion lako sendotasuna izan zala, esan bear dogu. Lenengo atalean, egin ebazan lan andiak; bigarrenetan, jasan eta igaro ebazan neke izugarriak azalduko dautsuedaz.

1. S(an) Bartolome Jaunaren ikasle zintzoa izan zan. Jaunak beragana deitu eutsanean, gauza guztiak bertan bera itxirik, Jaunaren jarrai joan zan eta inoz be ez zan atzera itzuli edo biurtu. Jaunak dei egin eutsanetik aurrera, beti beragaz ibili zan eta Jaunaren irakaspén guztiak entzun eta egin ebazan alatz, mirari guztiak edo geienak beintzat bere begiak in ikusi ebazan. Jaunaren ondoan egon zan, ba, Kafarnaunen, Jaunak euntarieren semea osatu ebanean, Naingo alargunaren semea berbiztu ebanean, Kanako ezteguetan, Jaunak ura ardao biurtu ebanean, Simon parixetarren etxean, Madaleneak bere negarrakin Jaunari oinak garbitu ta bere buruko uleakin leortu eutsazanean, eta alán beste askotan, Jaunak egin ebazan mirari arrigarriak ikusteko era onean. Jaunaren eskolan ikasi eban, ba, S(an) Bartolomek zeruko erreinua irabazteko zer egin bear dan.

2. Espiritu Santua apostoluen gainera jatsi zanean, oneik batera ta bestera zabaldurik, guztiak lanean asi ziran. S(an) Bartolomek gogoz lan egin eban berari izentau eutsen tokian. Sinesteko argia zabaldu ta zeruko bidea irakastea, ori izan zan bere lana. Erri osoak ekarri ebazan Jesukistoren sineskintzara Likaonia ta Albanian; kistinau barri aen sinesmena sendotu ebanean, euren artekorik zintzoenak autu ebazan an berak asi eban lanari jarraitzeko ta oneik bere ordeko itxirik, bera sortaldeko Indietara joan zan. S(an) Bartolome ez eban ezek ikaratzen, ez bide luzeak, ez goseak, ez arriskuak, ez nekeak. Egikizun andiak ikusten ebazan bere begien aurrean; baina egikizun orrein neurritz, sendotu, azi ta jagiten zan bera ta ezegaitik be ikaratu barik joaten zan beti aurrera ta

aurrera, Jaunarentzat gizonen gogo ta biotzak irabaztea baino beste asmorik ez eroiala. Jaunaren sinestea zabal, sendo, indartsu ikusi ebanean, beste batzuk bere ordeko, bere lanari jarraitzeko ipini ebazan ta bera gorantz abiau zan. Ibili ta ibili, oinez bide luzeak egin ta gero, azkenez Armeniaraino eldu zan.

3. Polemon, Armeniako erregeak alaba zorigaiztoko bat eukan, diabru gaizkinak kalte andiak egiten eutsozana. S(an) Bartolomek egiten ebazan mirarien entzutea eldu zan errege onen belarrietara, ta bere alaba gaxoa diabruaren menpetik atera egion, S(an) Bartolomeri deitu eutsan bere jau-regira. Onek bertatik diabrua gorputzetik jaurti ta erregearen alaba ori osatu eban. Au ikusirik, erregeak eskupeko ta sari ederra eskini eutsan, baina Jaunaren bialduak sendoro erantzun eban: «Sari bila ez naz ni etorri; zuri ta beste enparauai egizko Jainkoa ezagutu eragiteko asmuz etorri naz. Goazen, ba, zuek eleizatzat daukazuen etxe andi orretara ta egizko Jainkoa nor dan, antxe ikusiko dogu». Eldu ziraneko, diabrua garraxika asi zan, esaten bera ez zala Jainkoa; S(an) Bartolomek irakasten eban Jesukisto zala Jainko Egiatkoaren Seme Bakarra. Orduan Jaunaren bialduak dinotso: «Ori orrelan dala iragarteko, uri onetan jagozan jainkoizun, jainko guzurrezkoen irudi guztiak lurrera eratsi, apurtu ta birindu egizak». Esan eta egin; guztiak lurrera jausi, guztiak birindu ta auts biurtu ziran. Mirari au ikusirik, gizon eta emakumeak aurrez artu eben Jesukistoren sinestea; egun gitxi barru erregea be etxeke guztiakin biurtu zan, eta onen ondoren beste amabi uri nagusienetariakoak be etorri ziran egizko sinestera.

4. Onelan, Likaonia ta Albania, Indietako zati andia ta Armeniarik geiena ekarri ebazan S(an) Bartolomek egizko Jainkoaren ezauerara; ainbeste gizasemeri argitu eutsen burua, ainbesteri berotu eutsen biotza, ainbesteri erakutsi eutsen zeruko bidea. Erri osoak ipini ebazan Goiko Jaunaren aurrean auspaz, belauniko, bere jaurgo, agintza ta jaubetasuna ezagutzeko ta egindako mésedeakaitik biotzez eskarrak emoteko. Oneik egikizun gatx, andi ta astunak dirala inok be ezin ukatu daike. S(an) Bartolomek azkar eta bizkor, gogoz eta adorez égin ebazala baidakigu, eta orretarako aurkitu ebazan eragozpenak, oinez egin ebazan bide luzeak, atsedean artzeko euki eban oe gogorra, bere gose ta egarriak burura ekarri badaiguz, bere biotzeko sendotasuna be ezagutu ta autortu beariko dogu.

## II

1. Baina biotzeko sendotasun ori egikizun andietan baino be obeto, neke ta zoritxar andietan agertzen dala esan dogu. Goazen, ba, bigarren

atalera ta ikusi daigun zelakoa izan zan S(an) Bartolomek bere neke, galtzai, kalte ta zoritxarretan erakutsi eban sendotasuna. Armeniako beste alderdi baten, Astiages, len aitatu dodan Polemonen anaia, zan errege. Polemon eta onen erriak lengo jainkoak itxita, Jesukistoren sinestea artu ebela entzun ebaneko, Astiages zalako ori ezin geiagoan aserratu zan eta aldakuntza orren errua S(an) Bartolomek eukala-ta, oneri narrua astindu ta berotzeko asmu dongea artu eban. Bere asmu donge ori ez eban lenengotan iragarri; berak be Jesukistoren siniskintza ta irakaspenak ezagutu nai ebazala-ta, guzurrez deitu eutsan S(an) Bartolomeri, esanik bere anai Polemoni irakatsi eutsan sineskintza barria, arren, berrari be irakatsi egiola. Ori nai eban S(an) Bartolomek; orretarako, bere odola isuri ta bere bizia galtzeko be, gertu egoan eta arriskuai jaramon barik, azkar eta bizkor joan jakan.

2. Erregeak, S(an) Bartolome bere aurrean ikusi ebaneko, bere asmu txarra, bere gogo gaiztoa erakutsi eban; entzun be ez eutsan gura izan. Bertatik agindu eban, bizirik, egoan lez, Jaunaren bialdu oni narrua eratziz egiola, gorputz guztiko azala eratziz ta kendu egiola. Errege aserratuaren agindua bertatik bete zan; borraruak, erruki barik, narrua eratziz eutsen eta S(an) Bartolomek, ikara barik, biotzeko sendotasuna galdu barik, neke-min eta oinaze gogor au igaro ta eroan eban. Gauza arrigarria! Martirio izugarri au igaroten egoanean be, ez zan auldu, ez zan jausi S(an) Bartolomeren gogo sendoa! Bere neke-min eta oinaze guztiakin be, ezer izan ez balitz lez, irakasten eban Jesukisto bere Maixu ta Jauna zala egizko Jainko bakarra, ta gizaseme guztiak zerura joateko, euren betiko zoriona lortzeko, Kistoren sinestea artu ta autortu bear ebela.

3. Erregeak aserrez esan eutsan: «Ixilik ez bazagoz, bereala samea ebagiko dautsut». Ikaratu egin zala uste dozue? Bai zera! Sendoro erantzun eban: «Nire guraria be orixe da; orrelan arinago joango naz biotzez maite dodan neure Jaunagana. Betoz nekeak, betoz goseak, betoz ezpata zorrotzak; betoz oinazeak, betoz galtzaiak, betoz aizkora ta aiotsak. Narrua eratziz, samea ebagi; burua moztu, bizia kendu daikedazu, baina neure biotzean daroadan sinesmen eta maitasuna ez daustazuzala kendumo, ori be jakizu. Lurreko gauza guztiak ustel-ustelak iruditzen jataz eta poz-pozik galduko dodaz, biotzez maite dodan Jaun lastana irabaztearren, nire maitasunez kurutzean il zan Jaunari atsegin emotearren. *Existimo omnia detrimentum esse et arbitror ut stercora ut Christum lucrifaciam*» (Philipp. 3, 8). Erregearen aginduz, borraruak samea ebagi, burua moztu eutsen eta S(an) Bartolomek bere sinestea bere odolagaz sendatu eban. Gorputza ilotz gelditu zan, baina bere gogoa goiko zorionera igon zan. Zeruetako erreinua indar, sendotasun eta adoretz lor-

tu eban eta orain atsegin eta zorionetan igiri bizi da, indarrez irabazi eban zeru ederrean.

4. Egiptoko buztarriean bizi ziran israeldarrai, Jaunak Kanaango lurraldea agindu eutsela bai-edo dakizue. Baina ezti ta esnea eriozan lur eder orren jabe egin baino len, arerio askori arpegi emon bear izan eutsen; guztiakin burrukan sartu, guztiai geiago egin eta indarraren indarraz lurralde eder aren jabe egin ziran. Jaunak israeldarrai agindu ta emon eutsen lurralde ori, zeruaren irudia izan zala Eleizako irakasleak dinoskue. Augaitik, guk kistinauok be, Jaunak eskintzen dauskun zeruko erreinua irabazi nai badogu, israeldarrak lez, geure osasunaren arerioai guda, gerra egin bear dautsegu ta guda onetan Kistoren soldauai dagokien biotzeko adore, sendotasun eta iraupena euki ta erakutsi bear doguz. Jaunak esan euskun, ba, zeruetako erreinua indarrez irabazi bear dala ta biotzez sendoak diranak bakarrik bere jabe egiten dirala: «*Regnum coelorum vim patitur et violenti rapiunt illud*».

5. Geure betiko osasuna galerezoteko asmuz, bidera urteiten jakuzan arerio oneik zeintzuk diran Jaunak argiro esan euskun eta guztiok ezagutzen doguz; mundu, diabru ta aragia dirala sarritan entzun dogu. Mundua berez arro ta zoroa da-ta, euren senean dagozala dirudien askori be, bere jolas eta zorakeriakin zoratu eragiten dautse. Diabrua asikal-ditik geiago guzurtia dala ta inartziz, bekaizkeriz kiskaltzen dagoan gogo gaizkin au, beti gizonak galtzeko asmuetan dabilela Jaunak esan dausku. Aragia berez atseginzalea ta gauza onetarako alper eta nagia dala geuk dakigu. Iru arerio oneik bidera urteiten jakuz eta batzuetan, zeruko zoriona irabazteko, egikizun andi ta astunak egin bearko doguzala-ta; beste batzuetan, eskuan eta aukeran daukaguzan atseginak galdu ta geure buruari neke ta lor txarrak ekarriko dautsaguzala-ta, orrelako guzurrakin ikaratu, bildurtu ta geure betiko zorionbidetik aldenduten gaitue. Guk arerio oneikin daukagun auska edo burrukea, S(an) Bartolomek bereakin euki eban baizen gogor, gatx eta izugarria ez dala edonok daki; narrua eratzi, odola isuri ta bizia galtzeko zori ta arriskurik ez dogu izaten. Baina epel-makalak izaten gara-ta, olako arriskurik euki ez arren, arerio orreik, nai daben lez, ara ta orra narraz erabilten gaitue.

Geure betiko osasunari dagokiozan gauzak, aldi batzuetan beste enparauetan baino argiroago ikusten doguz. Oraingo bizitza onen laburtasun eta ezereza argiro dakusgunean, betiko bizitza zoriontsua irabazteko gurari biziak biotzean sortuten jakuz, zorakeriai itxita bide zuzenari jarraitzeko asmo sendoak be artzen doguz; ezek ikaratu barik, aurre-ra joango gareala dirudi. Baina, zer jazoten da? Eragozpenen bat, gaiztasunen bat, neketxuren bat aurkitzen dogu ta gure asmu on guztiak



lurrera jausten dira; ezerezagaitik oka egiten dogu ta bide erdian gelditzen gara. Bein baino sarriago, asmu onak bertan bera itxi, jeurt egin ta atzera be itzultzen gara, ta au egiz bide erdian gelditzea baino be txarago da.

6. S(an) Bartolomek erakutsi eban adore ta sendotasunaren pizka bana bageunko, orrelakorik ez litzakegu jazoko. S(an) Bartolomeren antzera, geure asmuetan sendoak bagina, bein ondo oldoztu, ondo begiratu ta gero, artu dogun bide zuzenari aurrera jarraituko geunskio. Baina erkin eta makalak izaten gara-ta, gure asmo onak, geienetan, aizeak eroaten ditu. Jaunak esan ebana barriro be gomutau daigun: *«Regnum coelorum vim patitur et violenti rapiunt illud.* Zeruetako erreinua indarrez artu bear da ta biotzez sendoak diranak, orreik irabazten dabe». Geure begiak zerurantz jaso daiguzan; an goian, zorionez beterik dagozan guzti-guztiak, Jesukistoren gudari bulartsu, adoretzu, sendoak izan dira ta sendoak izan ziralako, euren egitade onakin betiko zorion ori irabazi eban. An dago S(an) Bartolome, zuen Jagola zerutarra; berak irakatsi cuskun geure asmu onetan sendoak izaten, eta zeruko erreinua indarrez irabazten. S(an) Bartolomeren bitartez eskatu daiogun, ba, Jaunari goiko indar eta laguntasunagaz geure gogoak indartu, sendotu daiguzala, onelan guk be irabazi daikeguzan, bizitza onetan Kistoren gudarrai dagokien garaitza ta beste bizitzan garaitz oni zor jakan eta Jaunak agindu dautsan betiko atseden eta zoriona...

Zeruko zoriona indarrez irabazi zendun geure Jagola maiteorri, biotz-biotzez agur egiten dautsugu. Geure buruak zeure ardurapean ipinten doguz; eta zure oinatzai jarraitzeko bear doguzan eskar eta laguntasunak jadetsi eiguzuz, zuri jarraituta eskuratu daigun guk be zeure sendotasunagaz irabazi zendun zoriona.

## LI

### SAN MIGEL

*«Factum est proelium magnum in coelo:  
Michael et angeli ejus proeliabantur cum dracone.»*

«Burrukaldi izugarria izan zan goietan:  
Migel eta bere aingeruak erensugeagaz<sup>771</sup> burrukatzen ziran.»  
(Apoc. 12, 7)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Gizon bakotxak bere Aingeru Jagolea daukala dinausku geure Ama Eleizeak. Aingeru Jagolearen zeregina da, gu galtzeko arriskuetatik alden du ta zeruko bidetik zuzentzea; augaitik itzalez eta maitetasunez begiratu bear dau bakotxak bere Aingeru Jagolea. Aingeru Jagoleak geure ondoan ibili arren, begiz ezin ikusi geinkez, gorputz bako gogo edo espiritu utsak dira ta. Inoz agertzen diranean, gazte galantaren irudia aritzen dabe; baina gizasemearen antzeko gorputzagaz agertu arren, euren ez, aingeruak gorputzik ez dauke.

Euren izatea gogo edo espiritu utsa dala baidakigu; baina zelako dan ezin iruditu geinke. Orraitik be, geure sinsteak dinausku guztien izatea ez dala bardiña, batzuk bestiak baino izate bikain eta ederragoa dauke la. Geure sinsteak dinausku aingeruen artean bederatzi maila dagozala ta urrengorik urrengora, berengoan asi ta gorantz, gero baino gero apain eta ederragoak dirala.

Sinigarri da, gizon bakotxak lez aberri edo nazino bakotxak be, bere Aingeru Zaintzailea daukala, eta aoneik errien zaintzaile diran aingeruok, geienean beintzat, gizon bakarraren jagola diranak baino goragoko mailan dagozala. Gaur ospatuten dau Eleizeak San Migel Goiaingeruaren eguna, eta bein baino sarriago adierazoten dausku San Migel

---

<sup>771</sup> [Erensuge: *dragoi*.]

aingeruari berarizko oneraspen, maitetasun, lotsa ta itzala zor dauetsagula. Zegaitik ete da?

Eleizeak uste dau S(an) Migel dala bere Jagola nagosia; Lege Zarrean, judatarren Eleizearen zaintzaile bera izan zan. Oraingo Eleizeak ari jarraitu eutsan, aren orde z ipini zan; augaitik, guztiz egoki da S(an) Migel bera gure Eleiza aonen Jagola izatea. Eleizeak uste dau aingeru on eta zintzoen buru be S(an) Migel dala. Eskritura Santuak dinausku, ba, Jaunari lotsea gorde ta bere menpean gelditu ziran aingeru on guztien gidari, agintari ta zuzentzaile S(an) Migel dala. Augaitik, Eleizearen Jagola ta beste aingeruen buru ta agintari lez dalako, auxegaitik nai dau gure Ama Eleizeak guk S(an) Migeli berarizko lotsa ta itzal onez begiratzea.

Baina aonezaz gainera, Eskritura Santuan esaten jaku Jaungoikoaren arerioakaz burrukaldirik gogorrenak egin dituana be S(an) Migel Goiaingeru dala; S(an) Migelek sarritan bezau, azpiratu ta zapaldu daua Luzifer gure etsai edo arerio gaiztoa. Augaitik Eleizeak, S(an) Migelen garaitza andiak ospatuteko, berarizko eguna izentau dau gaurko eguna. Egun aonetan, egoki izango da-ta, S(an) Migelen burrukaldi ta garaitzarik andienak azalduko dauetsuedaz eta azken aldean erakutsiko dauetsuet goiaingeru oni berarizko oneraspen edo debozinoa izan bear dauetsagula. Aurrera jarraitu baino len, eskatu daigun...

## I

*«Factum est proelium magnum in coelo:*

*Michael et angeli ejus proeliabantur cum dracone.»*

«Burrukaldi izugarria izan zan goietan:

Migel eta bere aingeruak erensugeagaz burrukutzen ziran.»

(Apoc. 12, 7)

1. N(eure) entz(u)le) mait(eok), baidakizue Jaunak gure lenengo gurasoekin zer egin eban. Atseginezko baratzen ipini ebazan, euren buruen jaube, onerako ta txarrerako lakemenagaz<sup>772</sup>, bizia nai eriotzea aututeko almenagaz. Euren eskuan euken onak, zintzoak izatea, Jaunak ipini eutsen agindua bete ta berak eskini eutsen zoriona irabaztea; baita euren eskuan euken Jaunaren agindua ausi ta euren zoriona galtzea be. Zer egin eben baidakizue. Jaunagaz zintzoak izan balira, eurentzat eta ondorengo guztientzat lortuko eben betiko zoriona; baina ez eutsen

<sup>772</sup> Lakemen: askatasun.

agertu Jaunari zor eutsen menpetasunik ta Jaunak jaurti ebazan atseginetzko baratziatik. Gizona baino len egin ebazan aingeruak eta aonei be gizonari lez emon eutsen onerako ta txarrerako lakemena, eskomarantz nai ezkerrentz joteko almena. Zegaitik? Zetarako? Ba, zeruko zorionera eroan baino len, bere menpeko zintzoak ziran ala ez ikusteko. Eta, zer egin eben aingeruak? Guztiak izan ete ziran zintzoak? Ez! Euretatik asko arroturik, Jaungoikoaren aurka jagi ziran, Luzifer guztien buru zala, eta orduan jazo zan S(an) Joanek, *Apokalipsis* deritxon bere liburuan dinoskuna: «Burrakaldi izugarria izan zan goietan, Jaunak aingeruak ipini zituan tokian; Migel eta bere aingeruak erensugeagaz, dragoiagaz burrukatzen ziran. *Michael et angeli ejus proeliabantur cum dracone*».

2. Luziferrek argi-ekarlea esan nai dau; ain eder bere burua ikusirik, arropuztu zan eta Jauna beste bazalakoan, Jaunari zor eutsan menpetasuna ukatu eutsan. Isaias igarleak onelan itanduten dautso: «Luzifer, goizaldeko izarra lez agertzen zinanori, zelan jausi zinan? Guztiak bildurikaraz zeunkazanori, lurreraino zelan amildu zinan? Zeure biotzean esaten zendun: «Zerura igongo naz, izarren goitik neure jesarlekua ipiniko dot; odai-gainetan igongo naz eta Jainkoaren antzekoa izango naz. *Similis ero Altissimo*» (Isaias 14, 14). Jainkoa beste izatea, ori izan zan Luziferren gurari ta asmo artoa. Beste aingeru askok jarraitu eutsen bere asmo okerretan, eta guztiak Jainkoaren aurka jarri ziran. Orduan S(an) Migelek Luziferren arrokeri zoroa ikusirik, jaso eban bere ikurrin edo banderea eta diadar egin eban: «*Quis ut Deus?* Jainkoa bestekorik, nor?». Eta aingeru zintzoak bere jarrai ebazala, asi eban auskaldi edo burrukarik gogorrena, eta Luzifer eta bere lagunak zapaldurik, beko barrendira jaurti ebazan. S(an) Migelek aingeru gaiztoakin auskan asi zanean, auxe diadarrau jaurti eban: «Jainkoa lakorik, nor? *Quis ut Deus?*»; eta diadar ori ebrotarren izketan iru itz aoneikaz esaten zalako, 'mi', 'cha', 'el', orixegaitik ipini jakan aingeru oni Mikel izena, gero erderan Migelera aldatu dan izena.

3. Burrakaldi aonen azkena geure gogora ekarri ezkerro, errez ezagutuko dogu arrokeriak erlatzi ta apaltasun edo umiltasunak jaso egiten dauala. Luzifer, aingerurik ederrenetarikoa zan, gorenengo mailan egotan ete bere arrokeri andiak berenengo mailaraino, berrendiko ondarretaraino erlatzi eban. S(an) Migel, ostera, apal edo umila izan zan; «Jainkoa lakorik, nor?» diadar eginda, erakutsi eutsan Jaunari zor eutsan menpetasuna. Augaitik, Jaunak jaso eban beste guztien goitik, aingeru on guztien buru ta nagosi egiten ebala. Jaunak arrokeria Luziferregaz zerutik jaurti ta umiltasuna S(an) Migelegaz zeruan artu eban, eta jazopen aonek irakasten dasku zerurako bidea apaltasunezko bidea dala.

Arroak bere burua maitatzen dau geiegi, bere indarretan itxaroten dau larregi. Baina bere burua geiegi maitatzen dauanak bear dan bestean ezin maitatu daike Jaungoikoa; eta Jaungoikoa bear dan beste maitatzen ez dauana, ezin sartu daiteke zerura. Bere indarretan larregi itxaroten dauanak uste izaten dau, inoren laguntasun bearrik ez daukala, bere indarrakin bakarrik be, edozein gauza egin eta edozein gauza lortu leikela. Onelan, ez dautso eskatzen Jaunari zeruko bidean aurrera joateko bear-bearrezkoa dauan laguntasunik, eta gauza jakina da inok be ezin igon daikela zerura Jaunaren laguntasun barik. Zeruko zoriona ez da gizonak bere indar utsez eskuratu leiken gauzea; goregi dago, gizona bere indar utsez araino igon al izateko. Jaunak jaso ta eregi bear dau zerutar indarragaz, zerura joango dan gizasemea; baina Jaunak esanda dauko arroai ukatu ta apal edo umilai bakarrik emongo dautsela bere laguntasuna. Gorrotau daigun, ba, arrokeri ta andiustea, Luziferren lagun eta aiskide egin gindukez-ta; maitatu daigun S(an) Migelen umiltasuna, auxe dalako zeruko zorionera eroango gaituan bidea!

## II

Moises, Israelgo erriaren buruzagi edo agintari ospatsua il zanean, euki eban S(an) Migelek Luziferregaz bigarren eztabaidea, egin eban bigarren auskaldia ta irabazi eban bigarren garaitzea. Luziferrek agirian, erri guztiaren aurrean ortzitu edo lurperatu nai eban Moisesen gorpua; S(an) Migelek ixilean, inok be ez ekian toki ezkutuan. Israelgo erriak errez aztuten eban bere Jaungoikoa, errez itzultzen zan gizon andi, abere ta beste onelako gauzak bere Jainkotzat artzera; Moisesen gorpua non egoan jakin ezkeru, bildur izateko zan, erri ori Egiptoko buztarripetik atarau eban gizon andia bere Jainkotzat artu ta Jainko izan balitz lez gurtuko ete eban. Ori zan Luziferrek nai ebana ta ori berori S(an) Migelek eragotzi edo galerazo nai ebana be. Au zala-ta, S(an) Judas Tadeo Apostoluak dinauskunez, izan zan Luzifer eta S(an) Migelen artean eztabaida ta burrukea. S(an) Migelek jaurti eban bere antxinako diadarra: «*Quis ut Deus?* Nor Jainkoa lakorik? Nor besterik Jainkoaren izen, itzal eta gurtzea zor jakonik?»; eta diadar onen ostean, esan eutsan Luziferri: «*Imperet tibi Dominus*. Agindu begizu Jaunak». Jaunaren izenagaz ikaratu eban diabrua, kendu eutsan Moisesen gorpua ta toki urrin eta ezkutu batera eroanik, an ortzitu edo enterrau eban, Israelgo semeak inoz be jakin ez egien euren agintari onen azurrak non egozan.

Israelgo erriari galtzeko arriskuak kentzearren, ezkutu eban S(an) Migelek Moisesen gorpua; baina antxina Israelgo erriaren Jagola izan

zan S(an) Migel, orain Eleizearen Zaintzaile ta Jagola be baida. Augaitik, sinestu bear dogu Israelgo semeak arriskuetaatik zaindu zituan lez, orain Eleizearen semeak zaindu ta jagoten dituala; arek galtzeko zoritxarretik aldendu zituan ardureagaz, gu kistinauok be bide txarretatik aldendu ta bide zuzenetik eroan nai gaituala. Augaitik zor clautsagu S(an) Migeli geure lotsa, itzal eta eskar ona.

### III

Baina burrukaldirik garratz eta gogorrena izango da S(an) Migelek Luziferregaz munduaren azkenaldian egingo dauana. Aingeru S(an) Gabrielelek iragarri eutsan Daniel igarleari esan eutsanean: «Gizonak lurrean bizi diranik aona ezagutu ez dan lako aldi bat etorriko da eta aldi aretan bere erriko semeen aldez jagiko da Migel, agintari nagosia. *In tempore illo surget Michael, princeps magnus, qui stat pro filiis populi sui*» (Dan. 12, 1). Orduan agertuko da Luziferren lagun eta aiskiderik andiena, Kistoren etsai nagosia, antekistoa. Irakatsiko dau bera baino beste jaungoikorik ez dagoala; Luziferrek lez igon nai izango dau Jaungoikoaren jazarlekura; bere asmoa izango da gizon guztiak bere menpean ipintea, bera guztien buru izateko. Eta orduan urtengo da, Eleiza guztiaren Jagola edo Zaintzaile dan S(an) Migel, urtengo da barriro auska edo burrukara; bere aingeru lagunak eta kistinau on eta zintzo guztiak bere inguruan batzaurik, jasoko dau ikurrin edo banderea ta jaurtingo dau antxinako diadarra: «*Quis ut Deus?* Nor Jainkoa bestekorik?». Eta burrukaldirik izugarriena asiko da.

Jesukistoren etsai gaizkinak, arerio amurratuak erakutsiko dau bere burua; baina S(an) Paulo Apost(oluak) dinauskunez, Jaunaren agotik urtendako indarrak austu ta birrinduko dau bere arerioa. Au Jaunaren agotik urtengo dan gogo-indarrau, S(an)to Tomas jakitunaren eretxiz, S(an) Migel Goiaingerua izango da, ta berak azpiratu, zapaldu ta infernuko ondarretara jaurtingo dau kistinau-izenaren areriorik amurratuena: «*Et tunc revelabitur ille iniquus, quem Dominus Uesus interficiet spiritu oris sui*» (II Thess. 2, 8). Eta aingeruak eta santuak eta kistinau zintzo guztiak, ikusirik arerio oneik ezi, azpiratu ta zapalduta; ikusirik S(an) Migelen banderapean irabazi ta lortu daben garaitza andia, pozez beterik esango dabe: «Oraintxe egin da osasuna, oraintxe agertu da Jaunaren indar eta agintzea ta Jesukistoren eskubidea; jaurti dogu, ba, beko ondarretara geure anaien salatzailea. *Nunc facta est salus et virtus et regnum Dei et potestas Christi ejus, quia projectus est accusator fratrum nostrorum*». Au izango da munduaren azkenaldean, Azken Juizioko egunean,

S(an) Migelek eta bere banderapean beste aingeru onak Luzifer eta bere lagunakin egingo dabon burrukaldi izugarria; burrukaldi aretan gaizto ta donge guztiak zapalduak izango dira ta beti-betirako jausiko dira beko barrerara. Orduan izango da egia S(an) Joanek bere *Apokalipsis* deritxon liburuan dinauskuna: «*Neque locus inventus est eorum amplius in coelo*. Eta eurentzako ez da zeruan inoz be geiago lekurik egongo» (Apoc. 12, 8).

#### IV

1. Geure biotzetan S(an) Migel Goiaingeruaganako oneraspena bizitu ta geituteko, gogoratu daigun gizon bakotxari, bere eriotz ostean, Jaunak eskatuko dautsala bere egitade guztien kontua ta bere egitadeai dagokien lez emongo dautsala epaia. Azkenengo egunean Jaunak guztiai batera emongo dautsen epaia, ez da izango lengoa aldatzeko, ez; izango da gizon bakotxari bere eriotz ondoren emon eutsana sendatzeko. Augaitik, sinisgarri da Azken Juizioan lez, gizon bakotxagaz eriotz ostean egingo danean be, S(an) Migel agertu ta aurkeztuko dala ta berak egiztau ta beteko dauala Jaunak gizon bakotxari emongo dautsan epaia. Auxe da beintzat gure Ama Eleizearen sinestea; augaitik, gaurko erre-zuetan irakurten dogu: «*Archangele Michael, constitui te principem super omnes animas suscipiendas*. Migel Goiaingerua, zeuri emon dautsut eriotz ostean arimak artzeko zeregin eta ardurea». Eta ilen mezan irakurten da: «*Ut signifer sanctus Michael representet eas in lucem sanctam*. S(an) Migel ikurrindunak argi santura eroan daizala». Augaitik-edo, S(an) Migelen antxinako irudi batzuetan ikusten da esku batean ezpatea ta bestean balantzea daukazala. Balantzearen alde batean arimea, bestean diabrua, aonelan adierazoteko S(an) Migel dala arimak Jaunaren auzitegira eroan edo aurkeztuten dituana; bera dala Jaunak emondako epaia, egin eta beteko dauana.

2. Orain, ba, Jaunak geure eriotz ostean emongo dauskun epaitik dago dingilizka, eskegita lez, gure betiko zorion edo betiko zoritxarra. Epai aretan ondo urtetan badogu, eskuratu dogu betiko zoriona; txarto urteitan badogu, betiko zigor eta zoritxarra jausiko da gure lepora. Auxe da, ba, guretzat une ta aldirik estu ta larriena, garrantzi edo inportantziarik geien daukana, ardurarik geien emon bear dauskuna. Baina ikusi dogu S(an) Migel Goiaingerua arazo ta zeregin aonetan barru-barruan ibiliko dala; Ama Eleizeak uste dauanez, S(an) Migeleri dagokiola arimak Jaunaren aurrera eroateko ardurea, berak beteko dauala Jaunak ari-

ma bakotxari emongo dauksan epaia. Augaitik, ondo baino obeto da guk S(an) Migel aingeruari lotsa, itzal eta maitetasunez begiratzea ta geure bizitzan berarizko onerazpen edo debozinoa izatea.

3. Gogoan artu daiguzan, ba, ene entz(ule) mait(eok), S(an) Migelek Luziferregaz egin dituan eta aurrerantzean egingo dituan burrukaldiak eta lortu dituan garaitzak. Gogora ekarri daigun, batez be, Azken Juizio-ko egunean eta gizon bakotxaren eriotz ostean gure arerio gaizkinagaz S(an) Migelek egingo dauan auskaldia. Gogoratu daigun orain bere maitale ta onerazpentsuak izaten bagara, orduan geure aldeztengo daua- la burrukara ta bere banderapean zapaldu al izango dogula geure are- rio gaizkina. Au gogoraturik, biztu, berotu, indartu, sendotu daigun geure biotzetan S(an) Migelganako onerazpen edo debozinoa ta eskatu daiogun sarri-sarritan gaurko egunez gure Ama Eleizeak eskatzen dau- tsana: *«Michael dux in proelio, adsis nobis in tremendo iudicio. Migel, burrukaldietan gidari, agintari zareanori, geure juizioko egun bildurgar- rian lagun zakiguz, zeure banderapean estaldu gaizuz eta in lucem sanctam, betiko argira, betiko zorionera eroan gaizuz»*.



## LII

### ANTOLIN DEUNA

*«Nisi granum frumenti cadens in terram mortuum fuerit,  
ipsum solum manet;  
si autem mortuum fuerit, multum fructum affert.»*

«Lurrera jausten dan galgaraua ilten ez bada, bakarrik gelditzen da;  
il ezkerro, barriz, arnari asko dakarz.»

(Math. 11, 12)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Sarrittan jazoten diran gauzak, berez arrigarri ixan arren, geijenetan aintzat be ez doguz artzen. Egunero ikusten doguzalako, jaramon gitxi egitten dautsegu, ta txikarrak, ardurarik zor ez jakenak balira lez, oartu barik ezkutau ta igesten jakuz. Emen lurrian bixija dauken ixate guztijak ilten dira; au ez dakijanik, ez dago. Baiña iñoz be ez dogu oldoztu ta gogoratu, biarbada, batzuen erijotziak dakarrela bestien bixija, osoro biarrezkua dala batzuk iltia beste batzuk bixiko badira.

Geure Jaunak diñausku gaurko ebanjalijuan: «Lurrera jausi edo lurrian ereitten dan galgaraua, gari-azija, ilten ez bada, bera bakarrik gelditzen da; il ezkerro, barriz, erneten da gari barrija, ugaritzen da ta emoten dau garau asko dakarzan galburua. *Si autem mortuum fuerit, multum fructum affert.* Au edonok daki. Lurrian zabaltzen dan gari-azija il ezik, ezin biztu ta erne daiteke gari barririk. Lurrera botau ezkerro, il eta usteldu egingo dala-ta, orren bildurrez, ganbara edo aletegijan gordeko bagendu galgaraua, urte batzuk barru galduko litzake ta azi barik eta gari barri barik geldittuko giñakez. Gari barrija ugarijago artu nai bada, biarrezkua da, ba, ereitten dan azijaren erijotzia!

Bardintasun au ipiñi ta gero, gaiñeratu eban gure Jaunak: «Zuen artian be beste aonenbeste gertauko da; bere bixija gorde nai dauanak galdu egingo dau, ta orain mundu onetan aragijaren bixija gorrotatzen dauanak, gero betiko bixija aurkittuko dau». Esatea lez: «Aragijaren bixi ori maittazen badozue; neuk eskatu arren, nire aldez bixi ori galtzeko bil-

dur ixaten bazare, azkenian zuoi be lurrian erein eta il ez dan galgaruari gertatzen jakana, orixe berori jazoko jatzue: orain daukazuen bixitza ori galdu ta betiko bixitza barri barik geldittuko zare. Eta bestera: orain, nire maittetasunarren zeuen bixi ori galtzeko gertu bazagoze, nire aldez arturiko erijotziagaz, bixitza barrija, beti iraungo dauan bixitzia lortuko dozue. *Qui odit animam suam in hoc mundo, in vitam aeternam custodit eam*. «Gorputzeko bixija kentzeko almen eta inddarra euki arren, arimia ezin il dabenai, ez egijoezue bildurrik ixan; gorputz eta arima barren-diko sutara jaurti zengikezanaren bildur ixan zaitteze.» Au esan eban Jaunak. Aonexek dira gure Jaunaren irakaspenak eta irakaspen aonek jarraitu zittuan, beste askoren artian, zuek zeuen errijaren Zaintzaille ta Jagolatzat daukazuen santuak; gaur goratu ta ospatuten dogun S(an) Antolin zorijonekuak. Munduko andikeri, atsegin eta ogasunak baiño geijago; bere gorputzeko osasun eta bixija baiño be geijago, maittatu eban Jaungoikua. Jaunari zor eutsan maittetasunian utsik ez egittiarren, galdu eban munduko andikeri ta ogasun, atsegin eta zorijon guztijak; galdu eban bere osasun eta bixija. Baiña bere erijotziagaz irabazi ta lortu eban bixitza barrija, iñoz amaittuko ez jakan bixitza zorijontsua.

Guk be mundu onetan aragijaren bixi zikiña gorrotatzen badogu, zeruetan betiko bixija lortuko dogu. Auxe da goiz aonetan, Jaunaren laguntasunagaz erakutsi ta adierazo gura neuskixuena. Aurrera jarraitu baiño len...

*«Qui odit animam suam in hoc mundo, in vitam aeternam custodit eam.»*

«Mundu onetan bere bixija gorrotatzen dauanak,  
betiko bixija aurkittuko dau.»

(Joan 12, 25)

## I

N(eure) entz(ule) maitt(iok), San Antoliñen bixitzia urteoro entzun dozue ta nik baxen ondo dakixue. Bana-banan eta zeatz bixitza ori zuen gogora ekarteko, larregi luzatu biarko neunke; augaittik, andi-andijak eta garrantzirik geijen dauken jazopenak bakarrik aittatuko dodaz. Erregien odoletik jaijo zan Antolin. Gaztetxu zala, umezurtz geldittu zan eta bere osaba Teodoriko Tolosako erregiak bere semeordetzat artu eban. Baiña osabia siñeste galduko gixona zan eta S(an) Antoliñek, ugatzagaz batera, edan eban Jesukistoren siñestia; augaittik, laster ausi ta urratu zan osaba-lobaren arteko aisqidetasun eta bakia. Osabiak gorroto eban Jesukistoren siñestia; bere lobiari siñeste au ukatu ta istiarren, atsegin eta ogasun andijak eskiñi eutsazan. Baiña Antoliñek entzun be ez eban gura

ixan, eta ikusirik erregiaren aserria, bere jauregi ta ango aukera guztijak bertan bera itxitta, iges egin eban; lenengo Erromara, gero Salermora. Amazortzi urte an igarota, biurtu zan barriro Tolosara. Erregiak uste eban bigundu ta damutu ixango zala bere lobia, ta lenengo labankeri asko egin ta gero, eskatu eutsan itxi egijala bere siñestia. Baiña len baiño be senduago aurkittu eban, eta osoro aserraturik, burdin gogorrakin lotuta, presontegijan sartu eban lobia, aginddurik ez egijoela ezer emon, ez jaten, ez edaten, neke-miñez eta gose-egarriz il eitten. Baiña, andik laster erregia bera il zan, eta aingeru batek beñola S(an) Pedrori lez, katiak urratuta, atarau eban S(an) Antolin presontegitik kanpora.

Teodorikoren orde z jarri zan errege beste Antoliñen senide bat; Geselaiko eritxona ta aurreragokua baiño be kistiñaben etsai edo arerijo amurratuagua. Antoliñek, jakiñik bera arrapatzeko asmoetan ebillala, iges egin eban basamortura; an urte batzuk bakartasunian igaro ta gero, erregiaren eixari batzuk, uste-uste barik, aurkittu eben eta erregiari atsegin emotiarren, artu ta ekarri eben bere aurrera. Erregiak eskintza ederrak lenengo, zemai gogorrak egin eutsozan gero; aginddu eutsan bere siñestia ukatu egijala, bestela bertatik aizkoriagaz burua moztuko eutsala-ta. Baiña alperrik; ez eutsan sartu S(an) Antoliñi ikararik: «Zuk eskin-tzen daustazuzan ogasunak andijak dira —erantzun eutsan—, baiña nire Jaunak aginddu daustazanak, askozaz andijaguak; zure jauregiko atsegiñak ederrak ixango dira, baiña askoz ederragua nik zeruetan itxaroten dodan zorijona. Zure aserre ta zemai orreik ez nabe ni ikaratzen; geijenez be gorputzeko bixija kenduko daustazu. Egiz, bixi au maittagarri da, baiña askoz maittagarriago da nire Jaungoikua. Jauna da nik geijen, beste gauza guztijen gaiñetik, neure bixija baiño be askoz geijago maitte dodana ta neure bijotzeko maittetasuna berari ukatu baiño, milla bidar naijago dot galdu neure bixija. Ba, orain bere maittetasun arren neure bixi au galtzen badot, Jaunak aginddu daust berak emongo daustala bixitza barrija ta iñoz amaittuko ez dana».

Erregiak au entzunik, emon eban erijotzako epaija; urkatzaille edo horreruak ebagi eutsoen samia, moztu eutsoen burua ta jaurti eben Ariege deritxon ibaira. Baiña gorputzeko bixija galduagaz batera, bere gogua, bere arimia igon zan zeruetara, betiko bixitza zorijontsuaren jaube egittera. «*Qui odit animam suam in hoc mundo, in vitam aeternam custodit eam.*»

## II

S(an) Antoliñek, ezetariko atsekabe barik, laga ta itxi ebazan lurrian gixonen zorijona egitten daben andikeri, atsegin eta ogasunak; tamal

barik itxi ebazan erregiaren jauregiko aukerak; naibage barik igaro ebazan presontegiko gose, egarri, neke ta miñak; ikara barik entzun ebazan erregiaren zemaiak; bildur barik ikusi eban borruaren eskuetan berari burua moztuko eutsan aizkoria; sendotasun errimiagaz jasan edo sufridu eban erijotzia. Sendotasun au ikusirik, arrittuta gelditzen gara eta, egiz, arritzeko gauzia be baida, geure argaltasun eta makaltasunari begiratu ezker. Baiña ondo gogoratu eta ausnartuko bagendu zelakua dan gure Jaunak bere Legeko Lenengo Agindduan eskatzen dauskun eta guk berari zor dautsagun maittetasuna, a, orduan egiz eta ziñez arritzen garian bestian ez giñake arrittuko! Oker uste ixaten dogu S(an) Antoliñek eta bere antzera beste martiri askok egin ebena, nai dauanak egin eta nai ez dauanak egin barik itxi leiken gauzia dala; ta ortik dator, euren sendotasuna ikusirik, gu ainbesteraifño arritzia. Baiña pizka bat gogoratu ezker, errez ezagutzen da S(an) Antoliñek egin ebana beste edozein kistiñauk bardin egin biar leukena baiño ez dala; edozein kistiñauk S(an) Antolin aurkittu zan lez aurkittuko balitz, beste ainbeste egin biarko leukela, guzurrezko kistiñau ustela ixan ezik. Au uste eben, au siñesten eben, au ondo ekijen antxiñako kistiñauak; au uste ixan dau beti ta au irakatsi dau gure Ama Elexiak. Augaittik, erijotziaren bildurragaz, siñestia ukatzen eben semiai ipinten eutsoezan laztasun edo penitentzija ikaragarriak. Eta, deritxazue Elexiak ain gogor artuko ebazala erijotziaren aurrian euren siñestia ukatu eben seme errukarriak, uste ixan baleu erijotzako arriskuan bakotxak egin egikela berari ondoen eritxona? Deritxazue bere semiakin ain gogorra ixango zala Elexia, uste ixan ez baleu Jaunagazko maittetasunak biarpetu edo obligatzen ebazala siñestia ukatu baiño lenago munduko gauza guztijak eta bixija bera galtzera? Ez, entzule maittiak! Elexia ez zan ixango bere semiakin ain gogorra, uste ixan baleu S(an) Antoliñek egin ebana beste kistiñauok, geure aukeran, egin nai egin barik itxi geinkela.

### III

Antoliñek jaurti eutsoen lurreko gauza ta ixaki guztijai aurrerago S(an) Paulo Apostoluak egin eutsoen aupadia: «Zuen artian, zein da ni Jesukisto neure Jaunaren maittetasunetik aldendu nengikena? Ausaz, atsekabia ala naibagia, oiñazia ala miña, gosia ala billoiztasuna, erijotzako arriskua, erregien aserria ala borruaren ezpatia? Zein da, ba, zuen artian ni Jaunaren maittetasunetik aldendu nengikena? Baidakit gauza guzti aoneittan, neure Jaunari dautsadan maittetasunak garaitzaille egingo nauala; baidakit neure maittetasunaren inddarra zuena baiño andija-

go dala. Augaittik ziur nago ezek be ez nabela neure Jaunaren maittasunetik aldenduko; ez erijotziak ez bixitziak, ez aingeruak ez agintarijak, ez sendotasunak ez inddarrak, ez oraingo gauzak ez gerokuak, ez goikuak ez bekuak. Ziur nago zuetatik batek be neure Jaun Jesukistori zor dauksadan maittetasunetik ez nabela aldenduko».

Auxe berau da S(an) Antoliñek lurreko atsegin eta atsekabiai, lurreko zorijon eta zoritxar guztijai egin eutsoen aupadia; ta atsegin eta zorijon guztijak pozik galdu, atsekabe ta zoritxar guztijak pozik igaro ebazan, Jaunagazko maittetasun zintzuak emon eutsalako lenenguak itxi ta bigarrenak artzeko biar eban sendotasuna: «*Fortitudinem christianorum Dei charitas facit*. Kistiñauen sendotasuna Jaunaren maittetasunak dakar». Baiña Jaunak guztijoi eskatzen daukun maittetasuna San Antoliñek erakutsi eutsona baiño txikarragua ez da; augaittik bera aurkittu zan lez aurkittuko bagiña, guk be egin biarko geunke berak egin ebana.

Uste dozue, biarbada, S(an) Antoliñek egin ebana geijegi be baidala; ausaz uste dozue beste enparauok onenbeste egittera biartuak ez gagozala, egin nai egin barik istia geure eskuan, geure aukeran daukagula. Ori uste badozue, oker zagoze. Guk larregi cretxi arren, S(an) Antoliñek egin ebana beste guztijok bardin egin biar geunkena baiño ez da. Jaunak agintzen dauku, ba, Lenengo Agindduan bera obetsi, bera geijen, beste gauza guztijen gaiñetik maittatu daigula. Baiña edonok daki, lurreko ogasun guztijak eta euren artian andijena, geure bixija, galtzeko gertu ez bagagoz, edonok daki ez dogula Jauna maitte gauza guztijen gaiñetik, beste gauza guztijak baiño geijago; eta Jauna beste gauza guztijak baiño maittiago ixan ezik, ez dauko Jaunak gure bijotzetan berari dagokijon tokija, ez dauksagu Jaunari zor dauksagun besteko maittetasuna, ta ausi ta zapaltzen dogu bere Legeko Lenengo Aginddua.

#### IV

Guk lurrian maitte doguzan gauzen artian, ete dago ezertxu Jauna baiño maittiago dogunik? Ete dago ezer Jaunagazko maittetasun ori gure bijotzetan itto leikenik? Esate baterako, norbait balebil guri kalte egittekoko asmoetan eta kalte ori geugandik aldendu ezin bageinke Jaunaren legia ausi barik, ausi ta zapalduko ete geunke? «*An persecutio?*» Estutasun eta premiña andijan aurkittuko bagiña, ta estutasun edo premiña aorretatik urteteko, bide dongian sartzia naiko balitz, sartuko ete giñake? «*An angustia?*» Gauza txar bat egifagaz, beste barik, agintari edo nagosi baten bijotza ta laguntasuna irabazi al bagenduz, Jaunari jaramon бага, gauza txar ori egingo ete geunke? «*An principatus?*» Jaunaren legia

ostikopian zapalduta, beste barik, agintza ta eskubide andijak lortu al bageinkez, toki eregi aorretara igotiarren, Jaunaren legia zapalduko ete geunke? «*An altitudo?*» Geure burua arriskutik aterateko dongekeria balitz bide bakarra, egingo ete geunke Jaunak galerazoten dauskun dongekeri ori? «*An periculum?*» Arin eta laster esateko, bixitzako atsekabe ta zoritxarrak naiz atsegin eta zorijonak, ete dauke inddarrrik Jaunari zor dautsagun zintzotasuna ausi, beragazko maittetasunaren lokarriak urratu, Jauna itxiaro ta gu euren billa, euren atzetik eruateko? Gure bijotza gertu ete dago gauza guzti aoneik galtzeko, Jaunari geure maittetasuna ukatu baiño lenago? Ba, gertu ez badago gauza guzti aonein gaiñetik Jauna maitte ixateko, gure maittetasun ori ez da Jaunak eskatzen dauskun bestekua. Guri bai, begittanduko jaku, biarbada, samur, bigun, bero ta zinddua dala; baiña ez dauko unik, ustel eta mami bakua da, ezelan be ez da Jaunari zor dautsagun maittetasuna.

Au edonok errez ulertu daike. Begira: gauza guzti aoneik batera baiño askozaz be obia da Jaungoikua; augaittik, guztiz ondo aginddu dausku geure maittetasunian bera obetsi daigula. Maittetasunian gauza bat obetsi edo obetzat eukittia da, beste guztijen gaiñetik ipiñi, beste ezer baiño maittiago ixan eta tokirik eregijena bijotzian emotia, Jaungoikua Jaungoiko lez, berari dagokijon neurrijagaz maitte ixatia. Baiña Jaunagantantz baiño beste gauza batzuetara itsuliago, jausiago, badago gure bijotza, ez dogu obesten Jaungoikua; ezin esan lei Jauna geijen maitte dogula, eta Jauna geijen maittatu ezik, ez dogu beteten bere Legeko Lenengo Aginddua, aginddurik nagosijena. Agiri da, ba, kistiñau guztijok, Jaunaren legia bete nai badogu, gertu egon biar dogula lurreko ixaiki guztijai jaurtitteko S(an) Antoliñek egin eutsen aupadia: «*Quis ergo nos separabit a charitate Christi.*» Zuetatik zein da ni Jaunaren maittetasunetik aldendu nengikena?». Edonoz au esateko ta aldiya datorrenian betetako adorerik ez badaukagu, Jaungoikuari biar dan besteko maittetasunik ez dautsagu.

## V

Jauna da martiri guztijen buru; berak galdu eban lenengo, gure alde, gure onerako bere bixija. Augaittik, kistiñau zintzua ixan nai dauanak gertu egon biar dau, Jaunak eskatu ezker, bixiraiñoکو guztija Jaunaren alde galtzeko; gertu egon biar dau aldiya etorriko balitxakijo, Jaunaren martiri ixateko. Erantzungo daustazue gaur egunian aorretarako premiñarik ez daguala, orain agintarijak bakian isten dauskuela, ez gaittuela antxiña lez siñestia ukatu edo bixija galtzeko estutasunian ipin-

ten. Au emen egija da; baiña bardin da egija kistiñau zintzuak edonoz daukala Jesukistoren martiri ixateko eria. Martiri, berez, lekuko edo testigu baiño ez da. Martiri ixateko ez da, ba, biarrezkua bixija galtzia; baiña, bai, biarrezkua da edozein alditan Jaungoikuari beste ezeri baiño maittetasun andijagua erakustia; biarrezkua da, arerijorik gogorrenen aurrian be Jaunagazko maittetasuna agertu ta autortzia.

Orain agintarijak ez leitez ixan kistiñauen arerijuak. Baiña beti ta edonoz arerijo asko daukaz zintzua ixan nai dauan kistiñauak, eta txikarrenak ez dira geure aragijaren jas oker, makurkeri ta gríña dongiak. Augaittik, esaten eban S(an) Zipriano Elexako gurasuak: «*Non decet concupiscencia quae martyrii materiam quotidianam nobis exhibet*». Gaur be, antxiña lez, daukaguz geure gríña txarrak, martiri ixateko eria egu-nero emongo dauskuenak. Aoneik dira gure arerijuak. Atsegiñak begijen aurrian ipiñitta esaten dauskue, beiñolako agintariak orduko kistiñauai lez, esaten dauskue: «Ukatu egixu Jaungoikua, ukatu egijozue zeure maittetasuna ta erdu geugaz, erdu geure billa, emoiguzu zeure bijotza. Itxi egixu Jaungoikua ta artu egixu geuk opa dautsugun atsegiña».

Augaittik, geuk be geure siñestia ta Jaunagazko maittetasuna egittez ez ukatzeko, geure gríña gaiztuakin auska edo burruka egin biar ixaten dogu. Esango daustazue martiriak agintari ankerrakin egin ebenaren onduan, gure auska edo burruka ori txiki ta kaskarra dala; burruka onetan bixija galtzeko arriskurik ez daukagula. Egija, bixija galtzeko arriskurik, ez; baiña Jaunari zor dautsagun maittetasuna ukatzeko, bai, ta auxe da arriskurik andijena ta txarrena. Esaidazue, ezpabe: burruka txiki aonetan ain errez eta ain sarri ukatzen badautsagu Jaunari geure maittetasuna; ain sarri ta ain errez geure arerijuak jaurtitten bagaittue lurrera, zelan itxaron geinke burruka andijaguan, martiriak agintari gaiztuakin egin eben lako burruka gogorrian, garaitzaille ixango ginakela? Zelan itxaron geinke erijotzako arriskuan be ez geunskijola ukatuko Jaunari geure bijotzetako maittetasuna?...

## VI

Aspaldi onetan gure ixatia askotxu makaldu da. Gaur egunian, gure artian beintzat, antxiña baiño geijago ta obeto jan eta edaten da, ta nik ez dakit zer dan: gero baiño gero geixoti ta makalaguak gara. Oraindik antxiña ez dala, sukar edo berua emoten eban geixoren bat eukanari osatzailliak aurrez odola ateraten eutsen; gaur egunian aittuak, jakittunak diñoie ori biarrori gitxitan baiño ezin egin leikela, gure ixatia cru-

ka<sup>773</sup> ta odolge, makal eta inddarge daguala-ta. Zergatik ete da? Ezetan be ez dogu nekatu biar; lanian eta jolasian, geure ibillera ta bixikera guztijan billatzen dogu aukera, bigunkerri ta atsegiña. Unetaraiño sartu jaku atsegin bigunen zaletasuna ta zaletasun aonek erkinddu ta makaldu dau gure gorputza; eta gorputzeko sendotasunian galdu dogun beste, gogo edo arimakuan be galdu dogu. Siñestia da kistiñau-bixitziaren odola eta gure zanetan odola gitxitu dan lez, gure bijotzetan siñestia be gitxitu da. Odol barik ez dago osasun eta bixitza sendorik; siñiste barik be ez dago maittetasun bero ta inddartsurik. Eta Jaunagazko maittetasun sendua euki ezik, zetan esan be ez da griña dongiakin daukagun auska onetan, geuk eurai geijago egin biarran, eurak geuri geijago egingo dauskuela. Eta baidakixue: garijaren bixi barrija ezin lortu leiken lez, creitten dan azija il ezik, guk be geure arimiaren betiko bixija ezin eskuratu geinke, aragijaren griña dongiak makaldu, ezi, itto ta il ezik.

Biztu daigun, ba, geure siñestia; berotu daigun Jaunagazko maittetasuna ta geure griña gaiztuakin auskan jarraitzeko, gertu ta inddartu daigun geure bijotza. Betiko bixija lortu nai badogu, auxe da naittaez egin biar dogun auskia. S(an) Paulo Apostoluak diñausku, ba: «Aragijaren era bixitten bazare, beragaz batera ilgo zare; baiña aragijaren jas oker eta egitte dongiak, goguaren inddarragaz ezi ta ittoten badozue, betiko bixija lortuko dozue. *Si autem spiritu facta carnis mortificaveritis, vivetis...*». Egin daigun, ba, al doguntxua; geure aragijaren makurkerijak ezitta, itto ta il daigun geugan bere bixi zikin eta ustela, aonelan, bere erijotziagaz, lortu dajjan gure arimiak bixitza barri, eder eta jangoikozkua. Geure griña gaiztuakin daukagun auska onetan, martirijak agintarijen aurrian lez, agertu ta erakutsi daijogun Jaunari geure maittetasun eta zintzotasuna, eta Jaunak emongo dausku guri be S(an) Antolin eta beste martirijai emon eutsen betiko zorijona.

S(an) Antolin zorijonekua, uri aonen Jagola zerutarra! Siñeste makalez eta maittetasun epelez, emen gabilz orain zutinddu gero jausi, kistiñau-ixenaren lotsagarri... Biztu egixu, arren, geure siñeste motel au, berotu gure maittetasun epel au ta inddartu gure bijotza, zeure orren antzeko sendotasunagaz jarraitu daikegun zeruko bidian aurrera ta eskuratu zeuk lortu zendun zorijon ederra.

<sup>773</sup> Eruka: anemiko.



### LIII

#### SANTA LUZIA

*«Vulnerasti cor meum, soror mea sponsa;  
vulnerasti cor meum in uno oculorum tuorum.»*

«Neure biotza ostu daustazu, ene arreba ta ezkona<sup>774</sup>;  
zeure begietako begirakune bakarragaz neure biotza ostu daustazu.»

(Cant. 4, 9)

N(eure) entz(ule) on eta mait(eok):

Abereak neurri-kordelagaz, eunak kaneagaz neurtuten doguz; baina ez neurri-kordelagaz aberea lez, ez kaneagaz miesea lez, neurtu geinke gizasemea. Gizasemeari bere gorputza, bere garria, bere oinetako bizkortasuna, bere besoko indarra neurtu arren, ez dogu neurtu gizonaren izatea, gizatasuna; orreitan eta beste orrein antzeko gauzetan ez dagoa-lako gizatasunaren neurria. Gizonari bere burutik argia ta bere biotzetik maitetasuna kenduko balitxakioz, orduan bai, aberea lez izango litzake ta abereak neurtuten doguzan neurriagaz gizona be ondo neurtuko geunke. Baina gizonak bere buruan dauko abereak ez dauken adimen-argia ta bere biotzean abereak ez dazaben maitetasuna. Buruan eta biotzean dago, ba, gizasemearen izatea; adimeneko argiak eta biotzeko maitetasunak abereakandik aldendu ta abere guztien gainetik jasoten dabe gizona. Augaitik, gizasemearen neurria jakiteko, ez da zetan neurtu bere besoko indarra, ta bai bere adimeneko argia ta bere biotzeko maitetasuna. Gauza bi aoneik ondo neurtu ezkeru, jakingo dogu norainokoa dan ezagutu nai dogun gizon nai emakumea.

Orraitik be, gizasemearen burua ta biotza ez dira izaten, sarritan beintzat, ez dira izaten alkarren idekoak; buruko argia ta biotzeko maitetasuna ez dira beti izaten neurri batekoak. Batzuk buru argi ta adimen

---

<sup>774</sup> Ezkon: senar; emazte.

zolia euki arren, biotz zimel eta txatxarra euki daroe; beste batzuk, ostera, buru txikarra, adimen laburra, baina biotz andi, samur, laztantsu eta maitatia. Aurrez esaten da, Jaunak gizonari adimen argiagoa emon eutsala emakumeari baino; emakumeai, ostera, biotz bigun, samur eta laztantsuagoa gizonari baino. Baidirudi geienetan au jazoten dala, baina ez dot uste beti aonelan izaten danik. Izan dira, ba, gizonak emakumerik samurrenak baizen biotz samurra euki dabenak, eta izan dira emakumeak adimeneko argian gizonik argienari be zor gitxi izan dautsenak. Baina dana dala, gizon nai emakumea norainokoa dan jakiteko, gauza bi aoneik neurtu bear dira: adimenaren indarragaz batera, biotzaren indarra; buruko argiagaz batera, biotzeko maitetasuna.

Eta banezean jakin gura izan ezkeru indar bi aoneitatik zeinek egiten dauan andiago gizasemea, esan bear da buruko argiak baino biotzeko maitetasunak, zuzen eta gartsua danean, geiago jaso, eregi ta goratzen gaituala. Ona emen zegaitik. Adimenaren indarrak aitu edo ulertzen dauan gauzea, bere antzeko egiten dau, ta bera baino andiagoa izan ezkeru, bere mailara erasten dau lenengo, aonelan, bere mailan ipinita, aitu al izateko. Maitetasunaren indarrak, bestera, maitalea egiten dau berak maite dauanaren antzeko ta norbera baino andi ta ederragoa izan ezkeru, norbera jasoten dau maite dogun gauza ori dagoan mailaraino. Gorengo mailan dagoana, Jaungoikoa da; augaitik, Jaunagazko maitetasunak beste ezek baino geiago jasoten dau gizon nai emakumea. Orain, ba, gaur Eleixeak ospatzen dauan neskatila garbiak, S(an)ta Luziak, maitetasun bero ta gartsuagaz, maitetasun indartsu ta sendoagaz, laztandu eban Jesukisto gure Jauna. Bere maitetasunaren indarrak jaso eban Libanoko mendira; au da, santutasun eta ornitasunaren<sup>775</sup> mendi gainera, eta Jaunak an ikusirik, dei egin eutsan, esaten eutsala: «*Sponsa mea, veni de Libano... coronaberis*. Neure ezkon maitea, erdu Libanotik aona, zerura, ta neuk ipiniko dautsut zeure buruan aintza edo gloriatzko bureztun, koroe ederra» (Cant. 4, 8).

Ikusi daigun, ba, gaur zelakoa izan zan S(an)ta Luziaren Jaunagazko maitetasuna, eta onek emongo dauku neskatila garbi aonen neurria; bere maitetasunaren indarrak adierazoko dauku noraino jagi ta igon zan S(an)ta Luzia santutasunaren mailetan. Eskatu daigun, ba, aurrera jarraitu baino len...

<sup>775</sup> *Ornitasun*: osotasun.

*«Vulnerasti cor meum, soror mea sponsa;  
vulnerasti cor meum in uno oculorum tuorum.»*  
(Cant. 4, 9)

## I

N(eure) entz(u)le) mait(eok), or, Italiaren barrenean, dago Sizilia deritxogun ugartea; bertan, sortalderantz, itxasertzean, Sirakusa deritxon uria. Antxe jaio zan S(an)ta Luzia irugarren gizaldiaren azken aldean. Alaba bakarra zan eta gainera aberatsa, bere gurasoak ogasun askoren jaube ziran eta; baina beretzat lurreko ogasunak baino aberastasun andiagoa izan zan, txikitxutatik kistinau izateko euki eban zoriona. Bost edo sei urte eukazala il jakan bere aita; amaren ondoan, lurreko andikeri ta zorakerietatik aldenduta, bizi zan S(an)ta Luzia ta urteakin batera azi, geitu ta berotu zan bere biotzean Jaunagazko maitetasuna. Odol-erionagaz geixotu jakon bere ama, Eutikia, ta andik aurrera, bere etxe-ko ixiltasun eta bakartasunean, Jauna maitatu, Jaunaren naia bete ta bere ama zaintzea izan zan S(an)ta Luziaren zeregina.

Aldi ona be ez zan eta, ez ebazan oraïndik itxi lurreko ogasunak; baina bere biotza bai, bere biotza lurreko gauza guztietatik askatu eban eta ezek galerazoten ez eutsala, Jaunagana zuzendu eban bere laztantasan guztia. Ardura ta maitetasun andiz zaintzen eban bere ama, baina ez zan osatzen. S(an)ta Luziaren aleginak gorabera, aurrera joian amaren geixoa ta egun baten esan eutsan: «Ene ama laztana, lurreko osakaiak eta nire aleginak ez zaitue osatzen, bai?, eta biok joan bear dogu Kataniara, S(an)ta Agedaren bitartez Jaunari eskatzeko ain bearrezkoa dozun osasuna. Uste dot, ba, Jaungoikoak, S(an)ta Agedaren bitartez, emongo dautsula osasun ori ta kenduko dautsula lurreko osatzaileak ezin kendu dautsuen geixoa».

Joan ziran ama-alabak Kataniara eta esan eta egin. S(an)ta Luziak uste eban lez, zerutik etorri jakon bere amari lurrean alperrik bilatu eban osasuna.

Au jazo baino lenago, amak Sirakusako mutil gazte bateri agindu eutsan bere alabea; S(an)ta Luziak, amaren geixoa atxakitzat ipinita, baina egiz ezkontzeko gogorik ez eukalako, luzatu, atzeratu eban ezkontzea. Ama osatuta, pozez beterik ikusi ebanean, eretxi jakan bere asmua agertzeko, aldi ta une egokia zala. Esan eutsan, ba, bere amari: «Ene ama, aor daukazu Jaunak, S(an)ta Agedaren bitartez, egin dautsun mesedea; orain neuk be, Jaunaren izenean, eskatzen dautsut ez daistazula geiago ezkontzarik aitatu. Aspaldi aonetan Jaunari eskini ta opalduta

daukat, ba, neure garbitasuna, ta Jaunagaz egin neinken ezkontza garbia izan ezik, beste ezkontzarik ez dot nai, besterik ez dot gura. Aonegaz gainera, Jaunagaz ezkontzeko be, lurrean edonogaz ezkontzeko lez, ezkonsari edo dotea bear da. Baina Jaunak eskatzen dauan dotea, baidakizu, ez da lurrean oituten danaren antzekoa; lurrean ogasuna eskatzen da eta Jaunak biotz garbia, lurreko ogasun eta atsegin guztietatik osoro askaturiko biotza. Augaitik, eskatzen dautsut, ene ama maiteorri, neure ezkonsari edo dotea emon daistazula; nik txiro, lander edo pobreen artean zabalduko dot neure ogasuna, ta aonelan, Jaunagaz ezkontzeko nire biotz au garbi ta lurreko gauzetatik osoro askatuta aurkituko da».

Ama lenengotxuan ez, baina gero jausi zan alabearen esanera ta S(an)ta Luziak, Sirakusara biurtu ziranean, txiroen artean banandu ta zabaldu eban bere ogasun guztia.

Au egin ebanean, esan eiken egiz S(an)ta Luziak: «*Regnum mundi te omnem ornatum saeculi contempsisti propter amorem Domini mei Jesu-Christi, quem vidi, quem amavi, in quem credidi, quem dilexi*. Lurreko agintza, andikeri ta edertasun guztiak ezereztat etsi ta gorroto dodaz, neure Jaunaren maitetasuna irabaztearren. Jauna ezagutu, bera maitatu, beragan sinestu ta bera laztandu dot; lurreko uskeriak itxita, Jaunaren maitetasunez bete dot neure biotza ta orain Jauna da nire biotzean bizi dana. *Vivit vero in me Christus*».

## II

Gorputzean begi bi daukaguz, ezker eta eskomako begia. Askok esan daroe maitetasunak be begi bi daukazala. Eskomako begiagaz, maitetasunak begirutzen dau zuzen Jaungoikoagana; ezkerreko begiagaz, lurrera. Eskomako begiagaz, ikusi ta bilatzen dau betiko ogasuna; ezkerrekoagaz, lurreko aberastasuna. Eskomakoagaz ikusi, ezagutu, maitatu ta bilatzen dau zeruko zoriona; ezkerrekoagaz, lurreko atsegina. Batzuk dinoe S(an)ta Luziak bere arpegiko begiak atarau ta bere ezkongaiari, bera emaztetzat artu nai eban mutil gazteari, bialdu eutsozala ta emendik datorrela kistinauen artean zabaldu dan oiturea, S(an)ta Luziari begietako osasun eta argia eskatzeko daukagun oiturea. Batzuk aonelan dinoe; S(an)ta Luziak, bere bila ebulan gazteari, beragaz ezkontzeko asmo ta amesa burutik kentzeko, bere begiak atarau ta bialdu eutsozala. Eleizeak ez dino gauza aonetaz ezer eta ezin jakin lei egia dan ala ez dan; baina ziur dakiguna da, S(an)ta Luziak, bere ogasunak txiroen artean zabaldu ta lurreko gauza guztiak itxi ebazanean, bere maitetasunari ezkerreko begia guztiz atarau eutsala. Lurreko gauzetatik bere bio-

tza osoro askatu ebanetik aurrera, S(an)ta Luziaren maitetasunak ez eukan begi bat baino, eskomako begia. Augaitik, ez eban inoz be begiratzen hurrera, beti begiratzen eban Jaunagana; ezkerrera, okerretara, inoz begiratu barik, beti zuzen joaten zan gora ta edonon eta edozetan bilatzen eban Jaunaren naia, Jaunaren gurari ta atsegina. Bere maitetasunaren indar guztia zuzendu zan Jaunagana, indar guztiagaz besarkatu ta laztandu eban Jaungoikoa, eta egi andiagaz esan eiken Kantuetako liburuan ezkon maiteak dinoana: «*Dilectus meus mihi et ego illi*. Nire maitea niretzat eta ni nazan guztiau beretzat».

Augaitik, S(an)ta Luziari guztiz ederto dagokio asikeran esan dodana: «*Vulnerasti cor meum, soror mea sponsa; vulnerasti cor meum in uno oculorum tuorum*. Neure biotza zauritu daustazu, ene arreba ta ezkona; zeure begirakune bakarragaz, irabazi ta ostu daustazu neure biotza»; esan nai dau, maitetasunaren begirakune bakarragaz irabazi ta ostu utsola Jaungoikoari bere biotza. S(an)ta Luziak atarau edo zarratu utsan, ba, bere maitetasunari ezkerreko begia, geiago begiratu ez egian lurreko gauzetara; eskomako begiagaz beti begiratu eban Jaunagana ta aonelan bakarra, beti bardina, beti samurra izan zan S(an)ta Luziaren maitetasunak Jaunari jaurtiten utsan begirakunea. Augaitik, irabazi eban Jaunaren biotza, ta gauza guztien Egile ta Jaubeak be maitatu eban bere ezkona: «*Et Dominus omnium dilexit eam*».

### III

S(an)ta Luziaren ezkongaiak jakin ebanean aonek bere ogasun guztiak ezeuki edo txiroen artean zabaldu ebazala, aserratu jakan eta Paskasio agintariagana joanik salatu eban S(an)ta Luzia, kistinaua zala-ta. Paskasio agintari ori kistinauen arerio amurratua zan; deitu utsan, ba, S(an)ta Luziari bere aurrera, ta esan utsan, bere bizia gordetako, bide bat baino ez eukala: bere sinestea ukatu ta Erromako agintariena artu. S(an)ta Luziak bere sinestea ukatu baino naiago eban bizia galdu. Agertu jakan, ba, bere begien aurrean eriotzea; igarri eban eriotzeak beronen agoa, eztarri sakon-baltza zabaldua, bere gaztaroan iruntsi nai ebala. Baina ez zan ikaratu; sendotu eban bere biotza ta bildur barik erantzun eban:

—Zuek, Jaungoikotzat gurtuten dozuezan irudi orreik, jaungoikoizunak, guzurrezko jaungoikoak baino ez dira; nik ezagutu ta maitatzen dodana, auxe da egiazko Jaungoiko bakarra. Ez daukat neuk neure sineste au ukatzeko; nire zorionik andiena kistinau izatea da, ta nai neke-minak nai eriotzea niri arrerazo, Jesukisto neure Jaunari zor dauzadan eskar on eta zintzotasuna ezegaitik ez dot ukatuko.

—Zuk mina daukazu zoli —erantzun eutsan Paskasiok—. Baina nik astinaldi on bat emon daizudanean, zure min ori berez mututuko da; berez kenduko jatzu barriketako gogoia. *Cessabunt verba cum ventum erit ad verbera.* (Of.)

—Ori ezin izan daiteke —erantzun eutsan S(an)ta Luziak—. Ezin izan daiteke, Jaunak agindu dauskulako agintari gaiztoak euren aurrera deitzen dauskuenean, Espiritu Santua izango dala gure agoz itz egingo dauana.

—Zer esan don? —erantzun eutsan agintariak—. Uste don, zentzunba-koorrek, Espiritu Santua, Jaungoikoa igan bizi donala?

—Nik sinesten dot —dinotso S(an)ta Luziak—, sinesten dot biotz eta arima garbiak Espiritu Santuaren bizitokia dirala.

—Bai, e? Ba, orduan, emakume zantarren etxera eroango aumat eta, antxe, garbitasunagaz batera, kenduko daunat eure Jaungoikoa.

Eta esan eta egin. Agindu eban Paskasiok eroan egiela emakume zantarren etxera; baina Jaunak josi eban, untze barik josi eban egoan tokian bere ezkon garbi ta maitea, eta eginalak egin arren, Paskasioren indar guztiak zirkinik be ezin eragin izan eutsoen: «*Tanto pondere eam fixit Spiritus Sanctus ut Virgo Christi immobilis permanere*» (Of.). Bereagaz ezin urten izan ebanean, agintariak, lotsatuta, amurruz kiskalduta, agindu eban egurra ekarri ta egoan lekuan bertan su emon egiola. Orduan ikusi zan ikuskizunik gelgarriena<sup>776</sup>. Su-garren erdian, suak ikutu baga egon zan S(an)ta Luzia, ta atseginik gozoenean egon balitz lez, gurtu, ospatu ta goratuten eban bere Jaungoiko laztana: «Zu nire lagun-tzaile izan zara, neure Jaun ona, ta nik, pozez beterik, autortzen dot suaren erdian zure izena. Zuk jagon eta gorde dozu zantarkeritik nire gorputza, ta zuk naukazu su-gar artean, ari-albinurik be erretan ez jatala. *Liberasti corpus meum a perditione et in medio ignis non sum astuata*».

Paskasio ezin eban arteak artu; biotza amuru ta beartzunez bete jakon, ikusirik neskatila gazte ta samur batek geiago egiten eutsala. Deitu eutsan, ba, urkatzaile bati ta begietatik bere amurruaren sua jaurtiten ebala, esan eutsan: «Artu egik eure ezpata ori ta besoan indarririk badaukak, sartu egiok alderik alde, edo bestela, zarrastada baten ebagi egiok samea». Borreruak jo eban bere ezpateagaz goitik bera; zauri aretatik il zan S(an)ta Luzia, baina ez bertatik. Il baino lenago iragarri eban lortuko ebala Eleizeak ainbeste urtetan euki ez eban baretasun eta bakea; au iragarri ta gero joan zan bere arima zorionsua ain zintzoro maitatu eban Jaunagana.

<sup>776</sup> *Gelgarr:* mircsgarri.

## IV

Zeruko ogasunak irabaztearren, ezereztzat euki ta txiroen artean zabaldu ebazan lurreko ogasunak; Jaunagaz maitetasunezko ezkontza garbia egitearren, senarrik ez eban artu nai izan; betiko bizia irabaztearren, galdu eban gorputzeko bizia; bere sinestea ta Jaunari zor eutsan zintzotasuna ez ukatzearren, jasan edo sufridu eban eriotzea. Lurra ta lurreko gauzak gorrotauta, irabazi eban zerua. «*Odisti quae in mundo sunt et coruscas cum angelis*. Lurreko ogasunak aintzat be ez zinduzan artu ta orain zeruko aingeruen artean dis-dist, argi egiten dozu.» Baina, zer izan zan lurreko gauzak gorrotaten eta zerukoak bilatzen irakatsi eutsona? A! Maitetasun zuzena, begi ta begirakune bakarra baino ez eukan maitetasuna! Entzun dozue: S(an)ta Luziaren maitetasunak ez eukan begi ezkerrik. Inoz ezkerrera, okerretara, begiratu barik, beti zuzen begirutzen eban Jaunagana; gauza guztietan bilatzen eban Jaunaren naia, bere atsegina. Augaitik, berotu, sendotu, indartsutu zan S(an)ta Luziaren biotzean Jaunagazko maitetasuna, eta ez suak, ez ezpateak, ez eriotzeak, ezek be ezin urratu izan eban S(an)ta Luziaren gogo edo arimea, Jaunagaz lotuten eban estuntza edo lokarri sendoa. Jaunagazko maitetasun aonek itxi eban lotsatuta Paskasio agintaria; maitetasun aonek emon eutsan S(an)ta Luziari, bere gaztaroan eriotzea jasan edo sufrietako biar eban kemen eta adorea; maitetasun aonek eroan eban bere arima zorionsua zeruko atseginetara, lurrean ain zintzoro maitatu eban Jaunagaz beti-betiko bizitera.

Bere aurrean auspezturik, eskatu daiogun, ba, argitu daigula geure adimena, geure arimako begia, bear dan lez ezagutu daikegun gauza bakotxa; zuzendu daigula geure maitetasuna, lurreko gauzakin itsutu barik, bere antzera, beti ta beste gauza guztien gainetik bilatu daigun geure arimearen betiko osasuna. Auxe da egun aonetan eskatzen dautsugun mesedea: zeure antzera, geure Jauna geien maitatzeko bear dogun eskar eta laguntasuna, lurrean onelan maitaturik, lortu daigun zeruan beti bere maitasun laztantsuan biziteko zoriona.

LIV

Otxandio, 1929

SANTA MARINĒ

*«Fortitudo et decor indumentum ejus,  
et ridebit in die movissimo.»*

«Bere jantziak garbitasun eta sendotasuna dira,  
eta azken egunean barre egingo dau.»

(Prov. 31, 25)

N(eure) e(ntzule) mait(eok):

Gizaldi batetik bestera gizarteko eretxi, ta oiturak be, asko edo gitxi, aldatu egiten dira; errien bizikera, asmu ta ekanduak onerantz edo txarrerantz egiten dabe, eta erriak eurak be, euren izakerea obetu edo gaiztotuaz, batzuetan aurreratu, besteetan atzeratu egiten dira.

Burdia burpil edo txirrinka biren gainean ibili oi dan lez, gizona be burpil bik darabilela dirudi. Gizona darabilen burpiloc bere buruko eretxi ta bere biotzeko gurariak dira. Askoren eretxi ta gurariak aldatu ezkerro, gizartearen aldakuntzea be bertatik dator, andi edo txikiagoa, eretxi ta gurarietan egin danaren neurritz. Urte ta gizaldien joanean, gizarteak, munduak aldakuntza asko egin ditu; baina Jesukisto gure Jaunaren irakaste zerutarrakaz egin eban baino aldakuntza lasterragorik eta andiagorik, bein be ez, inoz be ez. Kistinau egin zanean, lengo antzik be ez eukala gelditu zan gizartea; iruntzietatik erara aldatzen dan soinekoaren antzera, aldatu zan bere eretxi ta ekanduetan, eta ori guztiori urte gitxiren barruan.

Eta egiz, gure sinesteko argia lurrean zabaldu baino lenago, gizasemeak garbitasunari jaramon gitxi egiten eutsoen; baina Jesukistoren eriotzatik aurrera beste gauzarik izan zan. Jaunaren odolez ezotu ta busti zan lurra; sinestearen argiaz buruetako eretxi okerrak, biotzetako gurari makurrak aldatu ziran; udako goizaldeetan inontza soloetara lez, jatsi zan gizasemeen biotzetara zeruko eskar edo graziaren inontza. Ta andik aurrera, lili zuriak udabarrian lez, garbitasunaren jarraitzaleak be ugari



erne ta mardo azi ta jagiten dira; gizon eta emakume garbiak, edurra bai-zen zuriak, aragian bizi arren, zeruko aingeruen ideko ziranak, lurrean aurrez agertzen dira... «*In regno Christi reformata et angelicata est caro.*»

Jaunaren legea ausi baino bizia galdu naiago ebenak be antxinako errietan ez ziran asko. Baina gero, Jauna gurutzean il zanetik aurrera, erri guztietan agertu ziran gizon eta emakumeak, mutil eta neskatilak, kemen eta adorez beterik, sinestea ukatu ta legea austeko agintzen eutsenean, «Lenago il, naiago il» agintari ta borruari erantzuten ekienak.

Onakoxe neskatila garbi ta zintzoa, sendo ta adoresua izan zan, beste askoren artean, zuek, otxandioarrok, zerutar Jagolatzat daukazuen eta gaur Eleizeagaz batera ospatu ta goratzen dogun Mariñe Deuna. Garbitasun oso-osea, ezetan be orbandu barik, jagon eta gorde eban jaiotzatik eriotzara; eta ain maite eban garbitasun ori ezaindu ta galtzeko arriskua etorri jakonean, bere biotza orbandu ta sinestea ukatu baino naiago izan eban il, naiago bizia galdu. Augaitik, Esakunetako liburuan Jaunak dinoana ondo baino obeto datorkio S(an)ta Mariñeri: «*Fortitudo et decor indumentum ejus.* Bere jantziak garbitasun eta sendotasuna dira, ta azkenengo egunean bere burua ain ederto apainduta ikusirik, pozaren pozez barre egingo dau. *Ridebit in die novissimo.*» S(an)ta Mariñeren bizitza garbi ta eriotza zoriontsua azaldu ta adierazo nai neuski-zuez. Bear den lez egiteko, Jaunaren aurrean auspazturik, goiko argi ta laguntasuna eskatuko dautsaguz...

## I

«*Fortitudo et decor indumentum ejus.*»

(Prov. 31, 25)

N(eure) e(ntzule) mait(eok), lirio zuria garbitasunaren irudi da; larrosa gorria, maitasun bero-gartsuarena. S(an)ta Mariñe neskatila garbi-garbiak, Jangoikoari eutsan maitasun zintzoa bere odolez gorritu eban; augaitik garbitasunean lirio zuri, maitasunean larrosa gorri dirudi. Galizian jaiotzen zan. Mariñeren gurasoak jainko guzurrezkoen sinestea euker; ez ziran kistinau. Seintxu txiki zala, il jakon Mariñeri ama, eta aitak bere alabatxua kistinau zan inude bati emon eutsan azteko. Onek ardura andiz azi eban bere ugatz-alabatxua; bateatu eban eta kistinauak jakin bear dituan gauzak ondo irakatsi be bai. Ugazamak, inudeak, Mariñeren biotzean ereindako azi onak ez ziran alperrik galdu; goiz eta mardo erne ziran eta arnari edo frutu ederrak emon ebezan. Amabi urte ebazala, gorputz eta arimako garbitasun osoa eskini eutsan Jaunari; Jesus baino beste ezkonik,

beste senarrik, beste maiterik ez eukiteko asmua artuta, Mariñek Jauna egin eban bere biotzaren jabe, bere ezkontide bakar laztan-maite.

Aitak bere etxera daroa. Baina Mariñe kistinau dalako, aitak gorroto dautso, betozko ilunaz begiratu ta errubako alabatxuari ezerezagaitik agiraka dabilko. Aitaren etxean asi zan, ba, Mariñerentzat gurutze-bidea; antxe egin eban bere lenengo burrukaldia.

«Gizonaren bizitzea lurraren gainean –dino Job Santuak–, gudu, gerra, auska edo burrukea da.» Gure arimen arerioak mundu, diabru ta aragia dira. Arerio oneik, gu txarrera eroateko asmuz, gau ta egun gerra egiten daukue, ta guk be betiko osasun eta zoriona lortu nai badoguz, arerio orreikaz burrukan ekin bear. S(an)ta Mariñe burruka onetan bizkor eta zoli ibili zan eta arerio orrei geiago egin eutsen. Munduko andikeri ta arrokeriak aintzat be ez ebazan artu; asieratik guzurtia dan diabruak iruzur eta guzurrik ezin izan eutsan sakatu; aragiaren grina gaiztoak ezi ta bezau ebazan ta grina orrein suak ez eban erre, su orren txinpartak ez eutsan ikutu, bere ke baltzak S(an)ta Mariñeren arima garbia ez eban inoz ezaindu ta loitu.

Aitaren aserrea zala-ta, arrisku andian egoala igarri eban eta bere zereginak bete ta gero, gelditzen jakon astia Jaungoikoagazko artu-emonetan, otoitzean, orazinoan, igaroten eban S(an)ta Mariñek, orrelan Jaunaren laguntasuna ugariago lortu ta bere gogoa goiko indarrez sendotzeko. Bere biotza onoinen edo birtute guztiakaz ornidu ta apaindu eban, baina batez be garbitasuna eban laztan eta maite. Arima garbiak hurreko aingeru dirala-ta, aragian aingeru izan nai eban S(an)ta Mariñek, eta bere garbitasuna, ezetan be orbandu barik, edurra baizen zuri ta eguzkiaren argia baizen garbi jagon eta zaindu eban beti.

Gorputzez neskabila eder eta galanta zan Mariñe Deuna; baina gogoz, arimaz, askozaz be ederrago. Zeruko aingeruen antzeko bizitza garbi-garbia eroian aitaren etxean; biotzaren oparia egunero egiten eutsan Jaunari. Ezkontzarik garbi ta atseginena egin eban Jaunagaz, eta bere Jesus maitea baino beste ezkonik, beste senarrik, ez eban gura; baina aitak beste asmu batzuk erabiltzan bere buruan. Andikeriz eta alabatxuari kistinau-sinestea ukatu eragiteko asmu txarrez, Olibrio Galiziako jaurle ta agintariak nai eban ezkondu, ezkontza onetatik on eta mesede andiak etorriko jakezala-ta. Ezkontza-asmu ori aitatu eutsonean, alabeak, itzal eta lotsa andiz bai, baina sendoro erantzun eutsan aitari: «Ene aita, nik neure ezteguak aspaldi onetan egin dodaz; nire senarra Jesus neure Jangoikoa da ta ori baino beste senarrik ez dot gura, Jaun orregaz eginda daukadan ezkontzea baino beste ezkontzarik be ez».

Olibriok, ori jakin ebanean, Mariñeri bere aurrera dei egiten dautso. Onek dei ori burruka gogorraren asierea dala igarten dau, baina ez da

ikaratzen. Bere gelan sartu, gurutzearen aurrean belaunikatu ta Jaunari dinotso: «Ene Jaun ona, nire biotzaren ugazaba ta jabe bakarra zu zara; zu baino beste ezkonik, ez senarrik, ez jaberik ez dot gura. Ori ondo dakizu. Eriotzaraino zeure-zeurea izan nai dot-eta, arren, ene Jauna, burrukaldi onetan lagun zakidaz». Eskar ori egin, jagi ta adorez beterik, Olibrioren aurrera doa. Onek Mariñe bere emaztetzat gura eban; augaitik, lenengoan abegi onez artu ta inon ziran labankeriak esaten asi jakon: «Ez zaite zoroa izan; eskura jatortzun ona, artu egizu. Badakizu, nik agintza andia daukat. Nire gurariak bete egizuz, neugaz ezkondu zaite ta ondasun eta atsegin askoren jabe egingo zaitut; andra andi izango zara».

S(an)ta Mariñek dinotso: «Baina ni Jesus neure Jangoikoagaz ezkon-duta nago ta bestegaz ezin ezkondu naiteke. Zu baino ezkontide, senar obea, andi ta aberatsagoa aurkitu dot. *Meliorum te inveni sponsum*. Bere izena biotzean eta bekokian daroat: Kistorena naz! Orain bere laguntasuna, gero betiko ezteguetan amaibako zoriona eskini claut. Nire bizia, nire osasuna, nire Jaun eta Jabe bakarra, Jesukisto da. Nire alde, nire onerako bere zanetako odola isuri eban, eta bere alde neurea emoteko gertu ta prest nago. Zuk gura dozun lez, neure Jaunagaz egindako ezkontza ori urratu ta neure garbitasuna galdu? Ez orixe! Lenago il, naia-go ill».

## II

S(an)ta Mariñek bere burua aingeruen garbitasunaz jantzi, ornidu ta apaindu ebala ikusi dogu. Bere sendotasuna zelakoa izan zan orain datorkion burrukeak erakutsiko dausku. «*Confortatum est cor tuum eo quod castitatem amaveris, ideo benedicta eris in aeternum*. Garbitasuna maite izan dozulako, zure biotz ori sendotu jatzu; ori dala-ta, beti done-tsia, beti bedeinkatua izango zara» (Judit 15, 11). «Dontzeilatasuna goragarri, txalogarri da -dino San Anbrosiok-; baina martirietan aurkitzen dalako baino, berak martiriak egiten ditualako askozaz be geiago. *Non ideo laudabilis virginitas quia in martyribus reperitur, sed quia ipsa martyres facit.*»

Olibrio agintaria arteak be ezin eban artu; amurruz beterik dinotso Mariñeri: «Zeure Jesus ori itxi, beregan daukazun sinestea ukatu ta gure jangoikoak aintzat artu ta gurtu egizuz; bestelan, damu izango dozu...». Neskatilatxu batek berari geiago egin? Ez orixe! Naitaez burua makurtua-zo, naitaez sinestea ukatuazo bear eutsala-ta, borraruai agindu gogorrak emoten dautsez. Oneik gorpuz guztia mailatu arte neskabila errugabea

zigorkadaz astintzen dabe; burdin orraziz narrua eratsi, odol-iturri eginik itxi ta gero, presontegian sartzen dabe. Otoitzean egoala, lurra ikaraz asten da. Inpernuko txerrena, deabrua, erensugearen irudiz, txistuka, aoa zabalik, iruntsi bearrez agertu ta urreratzen jako; baina Mariñek gurutzearen ezaugarriaz dragoie amurratuari eztanda eragiten dautso. Presontegia goiko argiz argitzen da ta berba oneik entzuten ditu: «*Ave, Marina, ratione praedita, Dei columba, quae vicisti malignum... et bono adhaesisti...* Agur, Mariñe, adimen zoli ta argidun neskatila, Jangoikoa-ren usoa, txerrena garaitu ta onean iraun dozu. Siongo alaba bikainori, poztu zaite; zure nekeok laster amaituko dira ta zeure garaitzearen burestuna, koroe ederra, zeure buruan dozula, zeure ezkon maite, zeure errege ta jabeagana joan eta beragaz biziko zara... *Laetare ex toto corde superna filia Sion... ornata victoriae coronis, ingressa ad sponsum et regem tuum habitabis.*»

Olibrioren aginduz presontegitik atera ta bere aurrera daroe. Zaurietatik osatuta ikusten dau ta nok osatu dauan itanduten dautso: «Nok osatu nauan? Jesukisto Jangoiko ta Gizon Egiazkoak, neure biotzaren jabe oso egin dodan Jaun onak; orrexek osatu nau». Olibriok aserrez: «Nik ainbeste gorroto dodan izen ori nire aurrean aitatzen be azartu, atomau<sup>777</sup> egiten zara?». Eta S(an)ta Mariñek: «Jesus neure Jangoikoa da, neure maite bakarra da, ta neure maite-laztana dalako, bere izen gozoa biotzean eta ezpanetan darabilt beti». Orduan Olibriok, amurru-bitsa aotik eriola, dinotso: «Zeure Jesus orrek zer balio dautsun orain ikusiko dozu». Eta borrherruak dinotse: «Bularrak erre, bizkarrak gar gorritan kiskaldu, esku-oinak lotu ta uretara bota egizue». Uretara jaurti ebenean, zerutik uso zuri bat jatsi, Mariñeren buru gainean jarri ta dinotse: «*Pax tibi, ancilla Dei, nunc confide, caelestem accipiens coronam a manu Altissimi.* Bakea zuri, Jangoikoaren otsein zintzoorti; Goiko Jaunaren eskutik betiko koroia laster artuko dozu-ta, orain inoz baino uste beteagoa, itxaropen sendoagoa euki egizu». Uso irudiz agertu zan aingeruak esku-oinetako lotzaikiak askatzen dautsaz eta Mariñe garaitzaile uretatik urteiten da, ezetariko kalte barik. Mirari andi au ikusirik, sinestebako asko kistinau egiten dira.

S(an)ta Mariñeri nekeak arrerazotea alperrik zala-ta, gogorkeririk andienakaz be ezin zuritu ebala-ta, samea ebagiteko agindu eban Olibriok. Orduan Mariñek lurrean auspaz dinotso Jaunari: «Ene Jaun ona, neure biotz au gazterik emon neutsun eta zuk neure bizi guztian zain-

<sup>777</sup> *Atomau*: azartu, ausartu.

du nozu. Zure ta nire arerioak lotsatuta isteko, berariz lagundu nozu; munduzalekeria biotzetik kendu ta ziorkada, burdin orrazi, presontegi-ko neke ta sua igaroteko, indar eta sendotasuna emon daustazuz. Eskarrak, Jauna! Orain, nire bitartez laguntasuna eskatzen dautsuenakaz errukior izan zaitezala ta euren preminetan lagundu daizuzala eskatzen dautsut». Jauna aingeruz inguraturik agertzen jako ta dinotso: «Eskatu daustazun ori gogoz entzun dot, eta zeure garbitasun ta sendotasunaz irabazi dozun betiko saria artzera etorri zaite».

Borreruak zartada bategaz burua moztu, samea ebagi eutsan Mariñeri, ta bere arima zorionsua ainbeste maite eban Jaunagaz zerura, betiko zorionera, joan zan. Onelan, zeruan eta lurrean garaitza andi-ederra jadetsi eban S(an)ta Mariñek: zeruan koroe hikotxa, dontzeila garbien eta zinopa edo martirien koroe ederra; lurrean be omen, ospe, izen eta entzute andia.

### III

Asieran esan dodanez, gizasemea txirrinka edo burpil bik darabile: buruko eretxiak eta biotzeko maitasun eta gurariak. Santuak sinesmen bizi-bizia euki dabe, eta sinesmen bizi onek euren buru ta biotzetan eretxi zuzen eta gurari andi eregiak sortu, barrendu ta josi dautsez. Santuen esakuna, guztiok gogoan erabili bear geunken esakuna, izan da: «*Quidquid aeternum non est, nihil est*. Betiko ez dana, ezer be ez da, uskeria baino ez da; gerizea lez igesi doa»; begiak lausotu leikeguz, baina biotzik ezin leikegu ase, gure arimea oraingo gauzetarako barik, betikoetarako egina da-ta.

Atseginak eskintzen jakezanean, esaten eben: Lurreko aukera ta atsegin guztiak, zer dira? Ames utsa, besterik ez, beingoan amaitzen dira-ta. «*Momentaneum quod delectat, aeternum quod cruciat*. Pekatuaren atsegina, une batekoa; neke ta oinazea, ostera, beti-betikoa.» Naigabe, neke ta minak etorkiezanean, esaten eben: Emengo neke-min eta oinazerik andienak be betiko atsegin eta zorionen ondoan, zer dira? Gauza gitxi, uskeri bat, besterik ez, laster amaitzen dira-ta. «*Momentaneum quod cruciat, aeternum quod delectat*. Emeko oinazea, une batekoa; goiko zoriona, beti-betikoa.» Augaitik borreruen aurrean be ez ziran ikaratu: «Sinestea ukatu, Jaunaren legea ausi ta pekatu egin baino lenago il» erantzun eben, S(an)ta Mariñeren bizitzan ikusi dogunez.

Geure arazo ta zereginetan, santuak lez, sinesteko argiz bagenbiltz, buruko eretxi okerrak eta biotzeko gurari makurrak errez zuzenduko geunkez, eta betiko zoriona lortu ta eskuratzeko, egiten dogun baino

alegin geiago egingo geunke. «Oraingo bizitza au labur-laburra da. *Tempus breve est*» dino S(an) Paulo Apostoluak. Bizitza onen ostean betiko zoriona edo betiko zoritxarra daukaguzala geure sinesteak dinosku; pekatuen atsegin laburrak betiko zoritxarrera garoez; Jaunaren legea zintzoro gordetearren artu daiguzan neketxuak, ostera, betiko zorionera. Pekaturako bideak itxi ta Jaunaren legea beteteko indar, kemen eta adorea, ori ondo gogoratzeak emongo dauskuz.

S(an)ta Mariñek, zerua irabaztearren, ainbeste neke gogor artu ta eroan ebazan; Jaunak guri orrenbesterik ez dausku eskatzen, baina bere legea bete daigula, ori bai, ori guztioi eskatzen dausku. Mariñe Deuna bide latz eta gatxetik joan zan zerura; gure bidea leunagoa, errezagoa da. Jarraibide ederra emon euskun; neskatiñ gazte ta garbi ori geure aurretik eta bide gatxetik joaten ikusirik, bere jaia ospatzen dogun egun onetan, geure bide errezago oni kemen eta adorez jarraitzeko asmu ta erabagia artu bear doguz.

Auspaztu gaitezán, ba, bere aurrean eta bere laguntasuna eskatu daiogun. Aingeruak lez garbi bizi ta sinestearen alde zeure bizia emon zenduan martiri ospatsuori, Jaunaren aurrean bitarteko izan zakiguz; Jaunaren legea betetako bear dogun laguntasuna lortu eiguzu, zeruko bide dogun lege ori zeatz eta zintzoro beteaz, goiko zoriona be jadetsi ta eskuratu daiogun.

## LV

### EUFEME DEUNA

*«Veni, sponsa Christi, accipe coronam  
quam tibi Dominus praeparavit in aeternum.»*

*«Fortitudo et decor indumentum ejus  
et ridebit in die novissimo.»*

(Prov. 31, 25)

*«Regnum coelorum vim patitur  
et violenti rapiunt illud.»*

(Math. 11, 12)

N(eure) entz(ule) maite-maiteok:

Gaur egunean ez, baina aldi baten bai, antxina gizonak, geienez beintzat, euren uriak eta batez be uriburuak lur zelaietan barik, muru ta tontortxueta egiten ebezan eta, onezaz gainera, arresi, orma lodi ta jagiak inguratu ta zarratu eroiezan, guda edo gerraldian gerrarik bazan, arrotz-arerioak etozanean, atea itxi ta barrutik sendoro eutsi al izateko. Gaur egunean orrelako ormak lodi ta sendoenak izan arren be, zupinakin<sup>778</sup> beingo baten apurtu ta eratsiko leukiez eta alperrekoak izango litzakez; baina beinola, oraingoak lako iskilu izugarririk ez egoanean, muru gainean orma lodiz inguratuta egoan uria menperatu ta artzea sail gogorra, lan neketsua, egikizun andi ta gatxa izaten zan; eta bera arrapatzera joazan gudariak, soldauak, bular sendoa, kemen eta adore andiko biotza bear izaten eben, ormak urratu, bidea idegi ta uri barruraino sartzeko. Barruko gudariak gosez edo egarriz ukatu ezik,

---

<sup>778</sup> *Zupin*: kainoi.

onelako uria beti indarrez eta adore utsez irabazi ta menperatu bear izaten zan.

Bein baino sarriago gudarostearen buruzagiak, agintari nagusiak, bere menpeko gudariai esaten eutsen: «Neure soldauak, egikizun andi ta lan gogorra daukagu geure begian aurrean; uri au biotzeko adore, sendotasun eta indarrez izan ezik, ezin artu geinke. Baina ez ikaratu, zuek neuri jarraitu! Neure narru ta bizia ementxe itxi bear badodaz be, aurrenengo joango naz; burrukan bizia galdu ezik, uri orretan aurrenengo sartuko naz eta uri ori menperatu daigunean, bertoko ogasun guztiak zeuentzat izango dira». Agintariak au esan ezkeru, gudarien biotzak berotzen ziran eta bein baino sarriago, indarraren indarrez eta sendotasun utsez uriak arrapatzen ebezan...

Orain, ba, erriak obeto ulertu egion, gure Jaunak gauza asko irudien bidez irakatsi ta azalduten ebazan, eta bein baten bere ikaslai esan eutsen: «Zeruko erreinua indarrez artu bear da ta indar dagienak, biotz sendo ta adoretua daukenak, oneik bakarrik an sartzen dira. *Regnum coelorum vim patitur et violenti rapiunt illud*. Baina ez zaiteze bildurtu. Aurretik joango naiatzue ta bidea neuk idegiko dautsuet; zuek orretarako egin bearko dozuen guzti-guztia ta geiago, nik zuek baino len egingo dot. Neuri jarraitu egidazue ta nire oinatzetatik bazatoze, zeruko erreinua ta bertako zoriona irabazi ta eskuratuko dozuez».

Jaunak esan eban lez egin eban. Guztioi jarraibidea emotearren, guztioen aurretik joan zan, eta Jaun maitagarri ori aurretik joaten ikusirik, berari jarraitu dautsen kistinau askok be, adore ta sendotasun arrigarria erakutsi dabez. Sendotasun eta adorea, emakumeai baino obeto gizasemeai dagokiezala dirudi, emakumeak eurenez bigun eta samurragoak izaten dira-ta. Baina kistinauen adore ta sendotasun ori aragi ta odoletik ez datoz, goitik jatsi oi dira-ta, Jaunak berak nai dauanari emoten dau-tsoz; augaitik kistinauen artean neskatila bigunak sarri askotan gizonekoak baino be sendotasun, kemen eta adore geiago euki ta erakutsi dabez.

Gaur Eufemia neskatila garbi ta adoretuaren jaia ospatzen dogu ta bere biotzeko sendotasunatzaz zerbait esan nai neuskizue. Sendotasun eta adorea arerioen aurrez aur erakusten dira; kalte egin leikeguen arerioak bitarikoak izan daitekez: batzuk geure barrenean daroaguz, beste batzuk gure ataz dagoz, kanpotik etorten jakuz. Arerio bitzu onein aurrez aur Eufeme Deuna benetan sendo ta adoretua izan zala azaldu ta adierazoko dautsuet. Lan ori ekingo dautsadan aldi laburtxuan adi egon zakidaze. Baina aurrera jarraitu baino len, oitura dan lez, Jaunaren aurrean auspezturik, goiko argi ta eskarrak eskatu daioguzan; bitarteko-



tzat geure Ama samurra ipiniko dogu, ta bere biotza irabazteko, Aingeruaren agurra esango dautsogu...

## I

*«Fortitudo et decor indumentum ejus  
et ridebit in die novissimo.»*

(Prov. 31, 25)

N(eure) entzule maite-maiteok, arrokeria ta biotzeko sendotasuna, biotzeko adorea, gauza bat balira, gizasemeen artean adoretzu ta sendoak asko baino be geiago izango litzakez; baina arrokeri ta adorea ez dira alkarren lagun, geienez ez dira batera ibiltzen. Arroak bere itzetan, bai, gizon adoretzua dirudi, baina bere indar eta adore guztia minganetik joaten jako-ta, gitxien uste dauanean, biotz barruko epelkeriak arpegira urteiten dautso; orduan, mundu guztia irunsteke be naiko zala irudian gizon arro ori inor baino epel, makal eta koldarrago agertzen da. Gizon arroak bere burua eziten ez daki, grina dongeak geiago egiten dautse-ta; baina grina gaiztoak menperatzen eta bere burua eziten ez dakianak, benetako sendotasunik ezin euki daike. Sendotasuna gure gorputzari baino obeto geure gogoari dagokio; ez da, ba, azaleko gauzea, barru-barrukoa baino. Augaitik geure barreneko arerioakin gogoz eta biotzez auskan, burrukan ekiten dautsagunean ta arerio orreik ezi, menpetu ta zapaltzen doguzanean, sendotasunak bere erro ta sustriak sakon sartzen ditu ta gero, aldi ta crea datorrenean, inoz baino mardoago jagiten da.

Benetako sendotasunera eltzeko bidea, auxe da. Eufeme Deunak bide oni jarraitu eutsan: aragiaren grinak ezita, barruko arerioak lenengo menperatu ebazan; augaitik gero, agintari ta borrreru gaiztoen aurrez aurre bizia galtzeko zori ta arriskuan bere burua ikusi arren, ez zan ikaratu, ez zan kikiildu. Ez ba, ordurako sendotasunak Eufeme Deunaren biotzean sustrai sakonak eukazan eta sineste bako agintarien aurrean kemen eta adore andi ta arrigarria erakutsi eban.

1. Eufeme Deuna gorputz eta biotzez garbi-garbia izan zala; garbitasun osoa, ezetariko orban barik, jagon eta gorde ebala sarritan entzun dozue. Jainkoak bere otsein zintzoen garbitasuna jagon eta zaintzearren, alatz, mirari arrigarriak bein baino sarriago egin ditu, ta garbitasun osoaren mailaraino goratu geinken eta goratzea zor jakan gauzarik ezertxu be ez dagoala argiro esan dausku. Jesukisto gure Jauna Ama garbi-garbiaren Semea izan zala baidakizue; A(ma) Mariak bere garbitasuna

Jainkoaren Ama izatea baino be geiago maitatu ebala Eleizako irakasleak dinoskue; Santu guztiak garbitasuna jagotearren, lan asko egin, eta neke andiak artu ta igaro ebezala euren bizitzetan irakurten dogu; kistinau guztiak eta sinestebakoak eurak be garbitasuna beti aintzat artu, gauza anditzat euki ta asko goratu dabela ondo dakigu. Jainkoak, Jesukisto gure Jaunak, Andra Mariak, Santuak, sinestedun eta sinestebakoak, onelan aintzat artu, maitatu ta goretsi daben garbitasun ori, naitaez, ogasun andi ta apaindura ederra dala zentzunik daukan gizonek ezin ukatu daike. Baina garbitasun ori orban barik zaindu ta gordeteko, norbere burua sarri ukatu, aragiaren irrits eta grinak ezi, gogoz lan egin, burrukan sartu ta arerioak menperatu ta zapaldu bear dirala ondoegi be baidakigu. Eta oneik geure barreneko areriooneik azpiratu ta zapaltzeko, aragiaren garramura, irrits eta grina dongeak eziteko, egunerako auska, burruka onetan garaitzaile izateko, biotzean adore ta sendotasuna bear dirala, ori nok ukatu daike?

2. Eufeme Deuna gorputz eta biotzez garbi-garbia izan zan; bere gogo ta biotza garbitasunagaz jantzi, apaindu, edertu ebazan: «*Decor indumentum ejus*». Baina edurra baizen zuri ta eguzkiaren argia baizen eder ez zan izango, neskabila orbange ta garbi ez zan iraungo, garbitasunaren arerioakin gogoz burrukan ekin ez baleutso. Berak bere buruagaz erabili eban gudaldi, burrukaldi onetan barruko arerioak, aragiaren irrits eta grina dongeak, atseginzalekeriak ezi, azpiratu, zapaldu ebazan, eta burrukan egunerokoa-ta batzuetan naiko gogorra izaten dalako, Eufeme Deunaren gogoa adorez bete zan eta sendotasunak bere erro ta sustraiak sakon sartu ebazan bere biotzean: «*Confortatum est cor tuum, eo quod castitatem amaveris*. Garbitasuna maite izan dozu-ta, orixegaitik zeure biotz ori sendotu jatzu».

## II

Goazen bigarren atalera ta ikusi daigun zelakoa izan zan Eufeme Deunak agintari gaizto ta borreru ankerren aurrez aur erakutsi eban sendotasuna.

Erromako agintariak odolezko itxasoan ito, irato nai izan eben Jesukistoren Eleizea. Erromatarrek Europarik geienaren ta Asia ta Afrikako zati andien jabe egin ziran; euren ala, nagusitasuna, agintzea, orduan ezagutzen ziran erririk geienetara zabaldu zan. Nerongandik asita, Dioklezianoren eriotzaraino erromatarren menpean egozan erri guztietan kistinau-odolezko ibaiak isuri ziran. Uste eben onelan kistinau-izenaren

gomutarik ez zala geldituko lurrean, baina euren ames orrek oker urten eutsen. Ezagun eta aitatur da Tertuliano Eleizako gurasoak agintari gaizto, arerio amurratu onei esaten eutsena: «Gari-epaileak garia lez ebagiten gozuez; baina zuek ebagiago ta gu ugariago egiten gara. Isuriten dozuen kistinau-odola, kistinau barrien azia da. *Plures efficitur quoties metimur a vobis. Semen est sanguis christianorum*».

Gizonak aurrekoai min emoteko asmau leikezan asmakizun guztiak Erromako agintari oneik euren aukeran eukezan. Kistinau errubakoai neke ta oinazerik gogorrenak arrerazo eutsezan, uste izanik, onelan beste enparauak ikaratuko zirala; baina guzurrak urten eutsen. Ikara barik ilten ziran kistinauen sendotasunak beste enparauak be adorez, sendotasunez beteten ebazan; bildots otzanak irudien neskatala eta ume gaztetxuak be leoi kementsu, adoretu egiten ziran, eta onein adore ta sendotasuna ikusirik, bein baino sarriago, borraruak eurak be, arrituta, Jesukistoren sinestera biurtzen ziran eta sineste onen aldez bizia galtzeko gertu egozala guztien aurrean autortzen eben.

Geixoak —osatzaileak esaten dabenez— azkenaldian kalte andiagoak, triskantza gogorrakoak egiten ditu, igazkoa lako izurtea danean. Erromako agintariak Jesukistoren Eleizea odoletan itoteko, asmau eben jazarpen edo persekuzinoa be azkeneruntz eta ankerrago, gogorrago, ikaragarriago izan zan. Diokleziano, agintari nagusia, kistinauen kaltezko bere amurru ta gogorkeria dirala-ta, guztien artean ospatsu ta gorrotogarriena da. Ile baktotxean, gitxi gorabera, amazazpi mila kistinauri kendu eutsen bizia; triskantza izugarri onek ogei urte oso iraun ebazan eta bere egunetan, berak eta bere ordeko agintariak lau miloe kistinau baino geiagori erioztzea arrerazo eutsen, gizonak asmau leikezan oinaze ta gogorkeririk andienakaz. Onenbeste il ezkeru, uste eben kistinau-azia be guztiz amaitu izango zala ta arlanduetan arro-arro idatzi eben: «*Superstitione Christi ubique deleta*. Kistoren sineste ori lurreko zokondo guztietan ezabatu, amaitu da». Ori idatzi eben eta Eleizea kistinau-odoletan ito zalakoan, arro egozan; baina, bai zera!, ez zan olakorik jazo. Sua erabili, eragin astindua-go ta andi ta biziago egiten dan lez, Dioklezianoren astinaldi gogor one-gaz sinesteko argia be zabal eta biziago, Jaunagazko maitasuna bero ta gartsuago egin ziran lurrean, eta andik urte gitxi barru, gure sinesteak, beste guzurrezko sineste guztiak baztertuta, garaitza oso-osoa lortu eban Konstantino agintariaren aldi ta egunetan.

Diokleziano Erroman barik, Nikomedia eritxon Asia Txikiko urian bizi izaten zan. Kalzedonian jaio ta bizi zan Eufeme Deuna be, ta ementxe erakutsi eban bere sendotasuna, biotzean ondo barrenduta eukan bere sinesmenaren aldez. Prisko agintari-ordekoak deitu eutsan bere aurrera. Lenengo onean, labankeriak esanda, uste izan eban ukatu era-

gingo eutsala bere sinestea; baina bigunkeri orreik alperrik zirala igarri ebanean, txarrean, gogorrean asi zan. Eufeme Deunak be gogorrari gogor eta sendoro erantzun eutsan. Zigorkatu eban, narrua ondo astindu eutsan, baina alperrik; beste oinaze gogorrigo batzuk arrazo eutsazan, baina Eufemeren sendotasuna makaldu barik. Suagaz bigunduko ebala uste izan eban; baina Eufeme Deuna oso ta sendo urten zan sutatik.

Prisko agintariordeak, Marte gudako jainkoizunaren opaz, jai andi ta ospatsuak gertu ta atondu ebazan eta uritar guztiak jai orreitara joan eta erdu eitezala agindu eban. Eufeme Deuna ez zan joan; etxe oneko alabea, uri guztian ezaguna zan eta jaietara uts egin ebala askok igarri eben. Jai orreitara ez joateko, kistinau-edo izango zala-ta norbaitek Prisko agintariari salatu eutsan. Onek bertatik bere aurrera deitu eutsan eta labankeriak esaten asi jakan, labankeri orreikin sinestea ukatu eragingo eutsalakoan; baina ori alperreko lana zala-ta, zerbait egiteko asmuz, lastertxe txarrean, gogorrean asi jakan. Eufeme Deunak be gogorrari gogor, sendoari sendoro erantzun eutsan. Lenengo zigorrakin narrua ondo astindu eutsan, baina alperrik, sendotasunaren izpirik be galduazo barik. Gero, beste oinaze gogorrigo batzuk arrerazo eutsazan; azurrak euren lekutik atera arte txirringan lotuta erabili eban, baina Jaunak Eufemeri bere zauri guztiak beingoan osatu eutsazan eta Prisko txatxua ago bete azurregaz gelditu zan.

Eufemereren sendotasuna suak bigunduko ebala-ta, laba gorian sartzeko agindu eban. Lenengo borrreru biak, Eufemereren ondoan ingeru bi ekusezala-ta, ez ziran labara jaurtiten azartu; beste bi, Cesar eta Vario, azartu ziran, baina suak eurak kiskaldu ebazan eta Eufeme, ostera, ezetariko kalte barik sutatik urten zan. Eufemereren sendotasuna ezin ebala ausi-ta, amurruz kiskaltzen zan Prisko gixaxoa. Borrreruai agindu eutsen, zugatzak zeatzen diran lez, Eufemereren gorputza zerrakin zeatu egiela; baina zerrak, argi-zirizkoak izan balira lez, bigundu ziran eta Priskoren agindua ezin bete. Azkenez, lau leoi ta iru artza egozan tokira jaurti eben; artza batek, beste enparauak oinak miazkatzen eutsezan bitartean, aginka egin eutsan eta Eufemek berak Jaunari eskatu eutsan lez, aginkada aretatik il zala irakurten dogu.

Eufeme Deunak adorez, sendotasunez jantzi eban bere biotza: *Fortitudo indumentum eius*. Augaitik, Priskoren aginduz borrreruak neke batetik bestera erabilenean be, ez zan jausi, ez zan auldu ta makaldu Eufemereren gogo sendoa; adorez beterik, ikara barik, igaro zan oinaze batetik bestera, ta eriotzaraino jasan eta eroan ebazan neke ta oinaze guztietan bere oinpean zapaldu eban agintariaren indar eta gogorkeria. Gorputza ilotz gelditu zan, baina bere gogo sendoa, ez. Gogoa goiko zorionera igon zan; zeruko erreinua sendotasun, adore ta indarrez lortu

eban eta orain atsegin eta zori onetan igiri bizi da, indarrez irabazi eban zeru ederrean: *«Ridebit in die novissimo»*.

Guk be geure betiko osasuna galerazo nai dauskuen arerioen aurrez aur, Eufeme Deunaren antzeko adore ta sendotasuna erakutsi bear geunkez. Arerio oneik zeintzuk diran Jaunak argiro esan dausku ta guztiok eza gutzen doguz; mundu, diabru ta aragia dirala sarritan be entzun dogu. Mundua berez arro ta zoroa da-ta, euren senean dagozala dirudien askori be bere jolas eta zorakeriakaz zoratu eragiten dautse; diabrua asikalditik geiago guztia dala ta bekaizkeriz beti gizonak galtzeko asmoetan dabilela Jaunak esan dausku; aragia berez atseginzalea ta gauza onetarako alper eta nagia dala geuk dakigu. Iru arerio oneik aurrez aur urteiten jakuz eta batzuetan, zeruko zoriona irabazteko egikizun andi ta gatxak egin bearko doguzala-ta, beste batzuetan, eskuan eta aukeran daukaguzan atseginak galdu ta geure buruari neke ta lor txarrak ekarriko dautsaguzala-ta, orrelako guzurrakin bildurtu, atzeratu ta geure betiko zorionbidetik aldenduten gaitue. Guk arerio oneikin daukagun burrukea, Eufeme Deunak bereakin euki eban baizen gogor eta izugarria ez dala edonok daki. Eufemek lez astinaldi, azur-lokatze, odol-isurte, sutan errete ta bizia galtzeko arriskurik ez dogu izaten; baina epel-makalak izaten gara-ta, orrelako arriskurik euki ez arren, sarri askotan arerio oneik geiago egiten dauskue ta nai daben lez, batera ta bestera, narraz erabilten gaitue. Geure asmu onen ostean, lasterregi egin doguzan gaiztakeriak gomutau ezkerro, adore ta sendotasun gitxikoak izan gareala autortu bearko dogu.

### III

Eufemeren eriotz aldian lur-ikarea izan zala ta eriotz ostean be bizi-tzan maitatu eban sinemenaren aldez alatz, mirari andiak egin ebazala irakurten dogu. Eta egiz, bere gorpua luzaroan be zindo, usteldu barik iraun zan, ilobiaren inguru guztian usain gozo-gozoa zabaltzen ebala ta noizik noizera odol gordin-gordina ugari eriola. Maurizio agintari nago-siak mirari au ez ei eban sinestu nai izan eta gorpua ikustera joan eta ikutu eutsanean, bere eskuak odol gorri garbi usaintsuz bete ei jakazan. Kalzedoniako Eleiz batzar nagosia (451) Eufeme Deunaren eleizan egin eta ospatu zan Dioskoro ta Eutikes zinausleen kaltez. Batzarrak gizon donge onein irakaspenak gaiztetsi ebazan, baina eurak arrokeriz ez eben bururik makurtu gura izan. Orduan egizko sinestearen aldez egozanak gizon arro ta setatsu onei esan eutsen: «Nai badozue, zuen sinis-kintza ta gurea Eufeme Deunaren gorpuari bular gainean ipiniko dautsaguz eta egizkoa zein dan berak iragarriko dausku». Orrelan egin zan

eta Eufeme Deunak eriotz ostean, ilobian bertan be, bizitzan euki eban sinesmenaren alde zeaugarri agiri-agiria emon eban: Dioskoro ta Eutikesen sineskintza galdua oinetara jaurti ta katolikoena, egizko sineskintza, bere bular gainean estutu ta laztandu eban.

Eufeme Deunak bere bizitzan eta eriotz ostean sendoro autortu eban sineste ori daukagu guk be; baina gure sinesmena arenaren ondoan txiki, erkin eta makala da. Noizean bein argi biziz argitzen dau gure gogoa; baina laster geixoari lez ilunaldiak egiten jakoz; gure betiko osasunari dago-kiozan gauzak aldi batzuetan beste enparauetan baino argiroago ikusten doguz. Oraingo bizitza onen laburtasun eta ezereztasuna argiro dakusguzanean, betiko bizitza zorionsua irabazteko gurari biziak biotzean sortuten jakuz; zorakeriak itxita, bide zuzenari jarraitzeko asmu sendoak be artzen doguz; orduan, ezegaitik be ikaratu barik beti aurrera joango gareala dirudi. Baina geure bidean eragozpenen bat, gaitzasunen bat, neketxuren bat aurkitzen dogu ta gure asmo on guztiak lurrera jausten dira; ezerezagaitik oka egiten dogu ta bide erdian galditzen gara. Bein baino sarriago asmu onak bertan bera itxi, jeurt egin eta atzera be itzultzen gara, ta an bide erdian gelditzea baino be txarrago dala edonok dakus. Eufemek erakutsi eban adore ta sendotasunaren pizka bana bageunko, orrelakorik ez litzakigu jazoko; Eufemeren antzera, geure asmu onetan zendoak bagina, bein ondo oldoztu, ondo begiratu ta gero artu dogun bide zuzenari aurrera jarraituko geunskio. Baina erkin, makalak izaten gara-ta, gure asmu onak geienetan aizeak eroaten ditu. Kalterik geien egiten dauskuna, auxe da: aldakorrak izatea, geure asmu onetan sendotasun eta iraupenik ez eukitea.

Gomutau daigun, ba, barriro be Jaunak esan euskun au: «*Regnum coelorum vim patitur et violenti rapiunt illud*. Zeruko erreinua indarrez artu bear da ta indar dagienak, biotz adoretzu ta sendoa daukenak, oneik bakarrik an sartzen dira». Sinesteko begiakin begiratu daigun zerura; an goian zorionez beterik dagozan guzti-guztiak Kistoren gudari bulartsu, adoretzu ta sendoak izan dira eta sendoak izan ziralako, euren egite onakin irabazi eben orain an dauken betiko zoriona. An dago Eufeme, zuen zerutar Jagola ta Zaintzaile bikaina; geure asmu onetan sendoak izaten bere bizitzeagaz irakutsi euskun. Bere oinatzai jarraitzeko burubide ta erabagia artu daigun, berak lez guk be, Jaunak agindu euskun zeruko erreinua ta ango zoriona indarrez irabazi ta eskuratu daikegun.

Auspaztu gaizan, ba, bere oinetan eta gogoak sendotzen dituan goiko indar ori eskatu daiogun. Zeruko zoriona indarrez irabazi zendun gure Jagola maiteorri, biotz-biotzez agur egiten dautsugu. Geure buruak zeure ardurapean ipinten doguz eta zeure oinatzai jarraitzeko bear doguzan eskar eta laguntasunak eskatzen dautsuguz; arren, jadetsi euguzuz, zeuri jarraituta guk be eskuratu daigun zeure sendotasunagaz irabazi zendun betiko zorion ori.

## LVI

Lekeitio, 1929

### ASISKO SAN FRANTZISKO

*«Vivo autem, jam non ego, vivit vero in me Christus.»*

«Bizi naz, baina zinez ez naz neu bizi nazana, nigan Kisto bizi da-ta.»  
(Galat. 2, 20)

N(eure) e(ntzule) m(aiteok):

Gizonen eretxi, asmu, grina ta gurariak, munduko agintza ta indar guztiak aurka, kontra, egon arren, gure Jaunaren Ebanjelioa arin, bizkor eta laster zabaldu zan gizartean. Tertuliano Eleizako guraso ta irakasleak bere egunetako arerioai, sinestebakoai esaten eutsen: *«Hesterni sumus et vestra omnia implevimus.* Oraindik atzokoak gara ta zuen uri, erri, baserri ta zokondo guztiak bete doguz». Mirari au zelan egin zan? Zinez, Jangoikoak egin eban. Baina zelan? Amabi apostolu txiro, lander, ezezagun eta jakituri bakoen bidez.

Apostoluak, Grezia ta Erromako jakitunen antzera, aoz, itzez baka-rik Ebangelioa irakasten asi balira, labur eta motz geldituko ziran; entzulerik geienek irri, barre ta destaina egingo eutsen. Jarraitu, nok? Gitzik, edo inok be ez. Baina apostoluak Jesukistoren irudi bizia ziran. Gure Jauna A(ndra) Mariaren erraietan gizatu zan antzera, bere Ebengelioa apostoluetan gizatu edo gizon egin zala, azur eta aragiz jantzita, gorputz eta soina artu ebazala dirudi. Eta egiz, apostolu guztiak eta bako-txa Ebanjelioaren gorputz bizia dira. Gorputz bizidun Ebanjelio au apostoluekin erririk erri dabil eta guztien begi aurrean ikusgarri dago: apostoluak berbaz irakasten dabena, entzulak aei begiratuaz beste barik, euren arpegi, gorputz eta arimetan bizi-bizirik ikusten dabe; ikuskizun orrek arritzen ditu, biotza orrek irabazten dautse. Ebanjelio bizi ori ikusiaz, bere egi mardoaren indarrez, gizon eta erriak Kistoren jarraitzaile egin ziran.

Amabigarren gizaldiaren azkenaldean eta amairugarrenaren asieran Ebanjelioko argia lainopean estaldu ta gizonen gogo-arimetan pizka bat

baino geiago ilundu zan. Orduan beste apostolu bat, bigarren Paulo, Jangoiko biziaren ezaugarriekin agertu zan munduan Ebangelio bizia izateko. «*Vidi alterum angelum... habentem signum Dei vivi*» (Apoc. 7, 2). Asisko salerosle baten semea; lenengoan Joan, gero Frantzisko deritxo. Lurrean jaioriko gizona baino zerutik jatsi eta gizaturiko serafina obeto dirudi. Gizon andi ta Jesukistoren jarraitzaile zintzorik izan bada, S(an) Frantzisko, ezbai barik, egundo lurrean izan den gizonik andiena, Kistoren jarraitzailerik zintzoena dogu.

«Gizon arrigarri ta bardingabe au, gorputz eta aragi egindako Ebanjelioa, Jangoikoaren maitatzaile bero-gartsua ta Kistoren irudi bizia izan da.» Neure itzaldi onetan orreixek iru gauzok azaldu ta edierazo nai neuskizuez. Baina orretan asi baino len, Jaunaren aurrean auspazturik...

## I

«*Vivo autem, jam non ego, vivit vero in me Christus.*»  
(Galat. 2, 20)

N(eure) e(ntzule) mait(eok), San Joan Apostoluak dinoskunez, munduan iru grina dira nagusi: «Aragikeria, ondasun-egarria ta bizitzako arrokeria. *Concupiscencia carnis, concupiscencia oculorum et superbia vitae*» (I Joan 2, 16). Arimak galtzeko, Satanasek darabiltzan sareak orreik dira; munduan daukan agintzea, ortik dator.

Agintza ori eratsi, ausi, apurtu ta Jangoikoaren agintza ta erreinua gure biotzetan sartzeko, Ebanjelioak iru onoinen, iru birtute irakasten daukuz: biotzezko txirotasun edo pobrezea, apaltasuna ta nekeakazko maitasuna. Jaunaren Ebanjelio osoa orixe da. Baina onetan S(an) Frantzisko nagusi izan da, gorengo mailan dago; orreik iru gauzok beragandu, beretu, bere mami ta giarra egin ebazan. Augaitik, gorputz eta aragi egindako Ebanjelio bizia dala. ondo dinogu.

1. S(an) Frantzisko txiroago ta pozago egoten zan. Pobrezeaz ezkondu zala-ta, orren maitasunaz birloraturik, bere arreba, andra-erregina, ama kutun eta emazte laztana eritxon. Txirotasunak S(an) Frantzisko baino maitatzaile andi ta gartsuagorik inoz ez dau euki. «Jangoiko gizona –esaten eban– lander jai, txiro edo pobre bizi ta ezer barik, biloizik, bere burua non ipini ta non atsedan ez eukala il zan. O txirotasun zoriontsua! Ondasun askoren iturri zara zu, Jangoiko Gizonak beretzat artu zinduzan ezker! Zure ondoan lurreko ondasunak sastamarra baino be gitxiago dira.»



Albernia mendira joiazala, bere lagunai esan eutsen: «Anaiak, Orlando jaunaren eskintzetan uste larregirik ez ipini. Gu txiroago ta mundua guzaz errukiorrago izango da; guk pobrezea maiteago ta munduak bear doguna oparago emongo dausku. Ori orrelan dala ez aztu. Baina orrelan ez balitz be, munduak ezer emongo ez baleusku be, geu Ebanjelio-ko txirotasunaren jarraitzaile izan bagaitez, Elias lekaroan, S(an) Anton eta S(an) Paulo basamortuan elikatu ebazan Goiko Jaunak, biziteko bear doguna beti emongo dausku. Apaltasunaren biztugarri, santutasunaren sustrai, betiko zorionerako bide, gure Ordena, gure bizibidearen erro, orpo ta oinarri, Jaunak Ebanjelioan irakatsi euskun txirotasuna dala ez aztu». Ori esan eutsen bere lagunai.

2. Jesukistoren antzera, S(an) Frantziskok be irain, laido ta lotsariak nai ditu. Gorputzez ain argal, jausi ta murriz<sup>779</sup>, jantzietan ain maiz eta zarpail ikusirik, Asisko erriak, ero ta zoroa zala-ta, irriz eta destainaz jarraitzen dautso kaleetan zear; baina bere biotza inoz baino atsegin-eztiagotan dago. Bein baten anai Bernardori dinotso: «Neure arrokeria ausi ta erasteko, lurrean aratin, aoz gora etzungo naz; oin bata idunean, bestea ago ganean ipinita, inon diran irain, laido ta txarkeriak esaidazuz; batez be nigandik alde eginaz, iru bidar esango daustazu: «Agoori, gizatxar, doilor, Pedro Bernardoren seme zitalori! Izaki guztien artean txatxarrena, ezerezena az eta, nondik datorkik arrokeri ori?»». Anai Bernardoren oinpean irain ta lotsari orreik entzuten poz-pozik egon zan S(an) Frantzisko.

3. «Gurutzeko zorakeria itzez eta egitez munduari erakusteko autu zaitudan neure ero ta zoroa zara zu» –inotsan Jesukistok S(an) Frantziskori–. Ta onek, lotsariak, Jaunaren gurutzeko lotsariak, andizaleak munduko andikeriak baino askozaz be maite ta laztanago ditu. «Absit mihi gloriari –dino S(an) Paulogaz– nisi in cruce Domini nostro Jesuchristi. Jesukistoren gurutzez eta gurutzeko lotsariez baino beste ezegaz ez dot nai poztu, ez ilarraindu, ez bizi ez atsegin artu.»

Nekeak be lotsariak baizen maite ditu eta bere buruari ildura ta laztasunik andienak arrerazoten dautsaz. Gorputzari bere astoa deritxo ta lurra oe bigunegia bailitzan, arri gogor ganean etzuten da; edur eta arantza artean iraulka dabil, soinaren inguru orratz zorrozdu zurdaz<sup>780</sup>, burdin sarea daroa; urtean lau garizuma, lau baruzaro<sup>781</sup> gogor

<sup>779</sup> *Murriz*: eskas.

<sup>780</sup> *Zurdatz*: zilizio.

<sup>781</sup> *Baruzaro*: barau.

egiten ditu ta artzen dauan jaki apurrari be, gozoegi izan ez dadin, sarri autsa bota ta nastaten dautso. Pobreza, apaltasun eta ildurak Aita S(an) Frantziskoren aiskide kutunak dira; bere soinarean azur eta un, kirio ta zan egin ditu-ta, Asisko Aita, egiz eta benetan, gorputz eta aragi eginda-ko Ebanjelio bizia da.

## II

Ebanjelio bizi au Jangoikoaren maitatzaile bero ta gartsua be izan zan. S(an) Frantziskorentzat lurreko gauza guztiak eta bakotxa Jangoiko-agana igoteko mailak ziran; guztietan, txikienetan be bai, Egilearen edertasun-izpiren bat, edertasun orren aztarnaren bat oartu ta ikusten eban. Ibai guztiak artzen dituan itxaso andi-zabalaren antzera, Jangoiko-ak be lurreko ta zeruko edertasun guztiak gorengo mailan, eta askoz bikainago, beragan daukazala ondo ekian. Augaitik, itxasorantz joiazan ibaiak, ibai-ertzeko lorak, egan ebiltzan txoriak, beste edozein abere naiz gauza ikusiaz beste barik, bere gogo ta biotza, bere gurari ta maitasuna, erreztasunik andienaz Jangoikoagana zuzendu, jaso ta goratzen ebazan S(an) Frantziskok. Gau ta egun Jangoikoa bere gogoan erabilan; eten barik otoitz edo orazinoan ziarduan, geienez konorta galduta, sarri gorputzez lurretik gora jasota.

«Nire janaria neure Aita Goikoaren naia egitea da», esan eban Jesukistok. Jangoikoaren naia, bere Jaun eta Jabearen guraria, ezagutu nai eban S(an) Frantziskok be, orregaz bere arimearen janari bakarria egiteko; Jesukistoren antzera, Aita Jangoikoaren naia gauza guztietan osoro, zeatz, uts barik beteteko.

Jangoikoagazko maitasunez birloratuta, mozkortuta, zorabiauta ebi-lan beti, non egoan be ez ekiala; beti antsiz eta zizpuruz bere maite laz-tanaren bila, ikusten eben guztiak be Jangoiko-maitasunez sutan ta berotzen ebazala. Bein baten S(an) Frantzisko, S(an)ta Klara ta beste lagun batzuk Aingeruen Andra Marian alkarrekin batzen dira, bazkari izkitxu bat egiteko asmuz. Bazkalaurretik S(an) Frantzisko izketan asten da. Zerutik jatsiriko serafina dirudi; aingeruen izketea darabil, bero ta gartsu, bizi ta samur gauzarik arrigarrienak, zoragarrienak dinoz. Bera ta bere entzule guztiak birloratuta, konortea galduta, senetik urtenda, Jan-goiko-maitasunez erre ta kiskaltzen dagoz; maitasun orren argi ta garra gorantza doaz. Asistarrak Aingeruen A(ndra) Mariko eleiza ta etxea suak artu dituala, erreten dagozala uste dabe, ta arin-aringa doaz; baina zeruko sua baino beste surik, Jangoikoagazko maitasun-garra baino beste garrik an ez eben idoro ta aurkitu. S(an) Frantzisko Jangoikoaren mai-

tatzaile andi-gartsuak, bere suaren bero-txinpartez beste lagun guztiak be maitasun-garretan ipini ditu... Mundu guztia, gizadi osoa berotu ta sutan nai leuke ta Jaunagazko maitasun ori gizartean biztu ta zabaltzeko asmuz, iru lekaidi<sup>782</sup>, iru ordena ipinten ditu: praile, monja ta Irugarrengoen zuzenbidea.

### III

Asisko Aita Jesukistoren irudi bizia da. Jauna lez S(an) Frantzisko be aterpe, abeletxe baten jaio zan. Perusako aintziran berrogei eguneko barau luzea ogi erdi bategaz egin eban. Jaunak sinestea zabaltzeko amabi apostolu, S(an) Frantzisko be Ebanjelio bizia izateko amabi lagun aukeratzen ditu ta goiko barri ona irakasten, Jaunak apostoluak be, binan-binan bialdu. S(an) Paulok lez, Jaunaren bost zauriak bere soinean, bere gorputzean daroaz; Kistoren irudi bizi egin da, Jauna berbera dirudi.

Kistorentzat bizi da-ta, Jauna lez gurutzean egon nai leuke: «*Mihi vivere Christus est et mori lucrum*. Niretzat bizitea Kisto da, iltea, barriz, irabazia». Bizia biziaz ordaindu nai leuskio-ta, martirioaren bila iru bidar doa, bein Afrikarantz, birritan Siriarantz. Baina Jaunak maitasunezko martiri izateko autu dau-ta, bilatzen dauan beste martirio ori ezin dau lortu...

Bere Jauna gurutzean egon zala-ta, gurutze barik ezin da egon; Jesukisto zauriz beterik ikusita, zauri barik ezin da bizi. S(an) Migel Goiaingeruaren garizumea igaroteko, Alberna mendira, bakartegi itzalera doa, an barau, neke, laztasun eta gurutzez bere gose-egarria aseteko asmuz. Otoitz eta erreguz, negar eta zizpuruz egoala, serafin irudiz agertzen jako Jauna ta esku-oinetan eta bularrean bere bost zauriak arrerazo, irarri ta ezarten dautsaz. Orduan esan eikean egiz S(an) Paulo Apostolugaz: «*Christo confixus sum cruci*. Kistogaz gurutzean josita nago» (Galat. 2, 19). «Nik neure Jaunaren zauriak neure gorputzean daroadaz. *Ego enim stigmata Domini Jesu in corpore meo porto*» (Galat. 6, 17).

Jesusen irudi bizi egin da; Jaunak lez, neke ta oinazeen gizona dirudi. Orretarako adore ta indarra gurutzean il zan Jaunagazko maitasun andi, bero, gartsuak emon dautsaz. Berak egin eta idatzi eban maitasun-kantuan onelan dino: «Maitasunez erreten nago; maitasun-garrak kiskaltzen nauko. Jaunaren maitasunari neu be maitasun egin natxako. Neure

<sup>782</sup> Lekaidi: ordena.

maitasun au ez bizitzeak ez eriotzeak, ez oraingo ez geroko gauzak ez dauste kenduko. Biotza ostu daustazu, Jauna, ta maitasunean neurria nai dozu? Zeugan aldatu, zeugan biurtu, zeugandu ta zeuretu nozu; zeure maitasunez erre ta kiskaltzen naukazu. Zoratu egin jatala? Ni zoratzera narorian maitasun onek zu nire Jaunori be gurutzean josi zaitu, ta zentzuna galdu badot, zeure maitasunez galdu dot; birloratuta, mozkortuta banago, zure maitasunak birloratu ta mozkortu nau. Nire zoroa ta nire mozkorra, maitasun-zoro ta -mozkorra da, neure Jangoiko ta neure guztia. *Deus meus et omnia*.

Au dala-ta, S(an) Paulok zinoana S(an) Frantziskori guztiz egoki dator-  
kio: «*Vivo autem, jam non ego, vivit vero in me Christus*. Bizi naz, baina, zinez, ez naz neu bizi nazana, nigan Kisto bizi da-ta» (Galat. 2, 20).

Zauriak artu ta gero, oraindik urte bian bizi izan zan. Zaurien minak andiak ziran, baina atsegin-pozak andiago; maitasun-indarrez Jaunagaz bat eginda, Kistorentzat baino ez zan bizi. Eriotzea baetorkiola igarriarik, pozaren pozez birloratuta esan eban: «Nire arreba eriotzea badatorkit; betor ordu onean. Anaiak, geure poza erakusteko, eguzkiaren abeser-  
kia<sup>783</sup> kantau daigun guztiok; poztu gaitez, niretzat pozaldirik andie-  
na, auxe da-ta».

Bizi izan dan lez, txiro, pobre il nai dau; barreneko zurdatz edo marragea<sup>784</sup> izan ezik, beste soinekoak erantzi ta lurrean etzuten da. Kistoren antzera, pobre, erdi biloizik, errukiz, limosnaz emondako jantzi zar bat baino beste ezer barik, il zan Asisko serafina. Kisto, gurutzean gizonen maitasunez; S(an) Frantzisko, lurrean etzunda, ez geixoaren indarrez, Jaunagazko maitasun-garrez eta zeruaren gurari biziz baino.

Asisko bere ilobian, beste gauza batzuen artean, aita santuaren agin-  
duz auxe be idatzi zan: «*Ante obitum mortuus, post obitum vivus*. Eriotz aurretik bere guraz il zan gizon au, eriotz ostean bizi da». Eta egiz, bizi-  
tzan apaltasun, barau, laztasun eta neke gogorrez ilerazo eban S(an) Frantziskok bere burua. Munduarentzat guztiz, osoro ilda bizi izan zan; baina eriotz ostean bere gorpua ilobi eder aretan, usteldu barik, bizirik bailegoan zutunik zerura begira dago: «*Post obitum vivus*». S(an) Fran-  
tziskok bere burua ezin geiagoan eratsi, apaletsi ta Jangoikoa ezin geia-  
goan goretsi ta andietsi eban bere bizitzan, eta Jangoikoak be ezin geia-  
goan jaso, eregi ta goratu dau zeruan eta lurrean.

San Frantziskoren bizitzan ikasi geinkezan gauzarik gailen eta nagu-  
sienak orrexek dira. Gorputz eta aragi egindako Ebanjelio bizia izan zan,

<sup>783</sup> *Abeserki*: himno.

<sup>784</sup> *Marraga*: zilizio.

Jangoikoa biotz osoz eta gogo beroz maitatu eban, Jesukistori zintzoro, orpoan-orpoan jarraitu eutsan. Bere antzera, Ebanjelioa geure egiteen neurritzat artu, Jangoikoa maitatu ta Jesukistori jarraitu badaioгу, Jaunak bere eskintzariak beteko ditu; gugaz be eskuzabal izango da. Aginduta daukanez, beragaitik itxi daigun gauza bakotxeko, eun emongo dauskuz; geure buruau eratsi, apaletsi daiguzan neurriz jaso, eregi ta goratuko gaitu. Bere maitasunarren artu daiguzan nekeai dagokien besteko saria emongo dausku; lurrean bere grazia ta laguntasuna, zeruan betiko zoriona.

## LVII

Lekeitio, 1931

### ASISKO SAN FRANTZISKO

*«Omnia detrimentum feci et arbitror ut stercore ut Christum lucrifaciam.»*  
«Gauza guztiak itxi dodaz eta simaurtzat daukadaz Kisto irabaztearren.»  
(Philipp. 3, 8)

N(eure) e(ntzule) m(aiteok):

Santuentzat eriotzea zerurako jaiotzea izan da. Origaitik, gure Ama Eleizeak bere seme-alaba zindo, zintzo ta zorionsu orrein eriotz eguna jai egiten dau; egun ori pozik andienaz ospatzen dau. Aita S(an) Frantzisko gaurko egunez il zan lurrerako eta egun onetantxe zerurako jai.

Lurrean gizon andirik izan bada, San Frantzisko andien artean be andienetariko da, Jesukistoren irudi bizi izatera eldu zan-ta. Gauza bakan eta arrigarria! Izen andiaren gose-egarriz, munduko omen eta entzutearen bila ibili diranik geienak, azkenean ezer barik gelditu dira. Lortu nai ebezan omen, ospe ta entzute orreik, gerizea baino be gitxiago izan dira-ta, esku artetik iges egin dautse, aizeak eroan ditu, ta antxinako izen andizaleok, gaur egunean gizartean be, inoz ezer izan ez bailiran baino asko geiago ez dira.

San Frantziskok, ostera, lurreko andikeri, omen eta entzuterik ez eban nai; bere areriorik txarrenak izan bailiran, orreitatik iges ibili zan beti. Ori ta guzti be, gizon arro ta izen andizaleak ezin lortu izan dabena, San Frantziskok ugari ta oparo eskuratu dau: bere izena aspaldi onetan lotsa ta itzal andiz aitatzen da, bere gomuta laztana gizaldien eta gizartearen biotzetan sendoro bizi da. Eleizeak lur zabal guztian andiro goratzen dau, ta mundutarrak eurak be, bape dakienak beintzat, lurrean izan dan gizonik andi ta goragarrientzat dauke ta labur gelditu dirala uste dabe.

Gure Jaunak Ebanjelioan dinoana San Frantziskogaz egin-eginean bete da: *«Omnis qui se exallat, humiliabitur et qui se humiliat, exallabitur.»* Arrokeriz bere burua erakutsi ta goratu nai dauan edonor, beratu ta

eratsia izango da ta, bestera, bere burua bere gurez makurtu, eratsi ta apaletsi dagiana, ori jaso, irakorri ta goratua izango da». San Frantziskok bere burua ezin geiagoan eratsi ta ezereztu eban; origaitik, Jangoikoak emen lurrean, gizartean be, asko baino geiago, ezin geiagoan jaso, eregi ta goratu dau. Zinez, santu izateko Jesukistori jarraitu bear eta santu guztiak jarraitu dautse; baina lurrean inoz izan dan Jesukistoren jarraitzailerik zintzo, bero ta gartsuena, bizkor eta adoretsetariko, ezbai barik, Asisko santu serafin apal eta eskale txiro-lander au izan da.

Jesukistori jarraitzen asi zanean, lenen eta aurrenen gauza bi egin ebazan S(an) Frantziskok: bere buruko eretxiak zearo aldatu ta bere biotza lurreko gauza guztietatik osoro askatu. Andik aurrerantz San Frantziskoren eretxiak Kistorenak ziran, biotz osoa Kistorena zan; Kisto Jangoikoarena eta San Frantzisko, guztiz eta osoro Kistorena. Nire itzaldi onen gaia orixe izango da. Bear dan lez azaldu al izateko, Jaunaren aurrean auspaztu gaizan ete goiko laguntasuna eskatu daigun.

## I

«*Omnia detrimentum feci et arbitror ut stercora ut Christum lucrifaciam.*»  
 «Gauza guztiak itxi dodaz eta simaurtzat daukadaz Kisto irabaztearren.»  
 (Philipp. 3, 8)

N(eure) e(ntzule) m(aiteok), San Frantzisko gaiztoa inoz be ez zan izan, baina andikeri ta atsegin zaletxua bai bere gaztarroan; orraitik be, txiro ta eskekoentzat guztiz errukiorra izan zan beti.

Bere erritarrak Perusakoeekin euki eben eztabaida ta aserrean, bular-tsu, adoretu agertu zan Frantzisko. Burrukaldi gogorra egin eban bere erriaren alde, baina ori ta guzti be arerioen eskuetan jausi zan, Perusara eroan eben eta an urte bete osoan lotuta euki. Bere etxera etorrira, laster geixotu egin zan. Geixotik osatu zanean, soineko barri, eder, apain eta dotorea jantzita, urten zan etxetik. Gizon ezagun, txiro edo pobrea, soineko zarrez jantzia aurkitzen dau daroan bidean; bere soineko barri-ederra ari emon eta aren maizeta zarra jazten dau berak.

Urrengo gabeen ames bat dauko; amesetan jauregi eder bat, iskilu edo arma argi, garbi ta diztikorrez<sup>785</sup> beterik ikusten dau. Soldadutzarako deia dalakoan berealaxe Puilara doa ta Gautier Brienako kondearen menpean jarten da, gudaritzan entzute, omen eta izen andia irabazteko

<sup>785</sup> *Diztikor*: distiratsu.

asmuz. Baina andik laster Jesukistok, beste ames baten bidez, bere gudari, bere soldadu izateko autu dauala argi ta garbi adierazoten dautso. Orduan San Frantziskok Jaunaren naia ezagutu eta albait ondoen eta zeatzen betetako asmua artzen dau.

Kisto bere Jaunari jarraitzen asi da, biotz osoz eta gogo beroz asi be. Kistoren gudari, soldadu egin da, eta neke, irain, laido ta lotsaririk andienetan be kemen eta adorez jarraitu nai dautso. Santu andi, Kistoren gudari bikain izan nai leuke. Baina orretarako bidea lotsariak gogo onez artu ta norbere burua eratsi ta apalestea dala Jaunak irakatsi dautso-ta, San Frantziskok Jesukistoren neke, laido, irain eta lotsari guztiak beretzat nai ditu eta orrein bila doa.

Egun baten Asisko kaleetan gorputzez argal, arpegiz margul<sup>786</sup>, soineko zarrez, itxusi ta ezain agertu zan. Burua galdu ebala, zoratu egin jakola-ta, mutikoak irri, ixeka ta barrez artzen debe; garraxiz, destainaz, txistuka jarraitzen dautse, eta bere aitak narraz daroa etxera. Agiraka gogorra egin, astinaldi ederra emon eta zoro garbia izan bailitzan, giltzapean sartzen dau. Mundutarrak zorotzat dauke; baina munduak zorotzat daukan gizon au Jesukistok irakatsitako bidetik dabil, zeruko jakituriaren jabe da ta munduak barre egin arren, Frantziskoren biotza pozez beterik, atsegin-eztitan dago.

Gerotxuago, bere etxe ta erria itxi ta menditarteko bakarleku batera doa. Bidez doala, basoan lapurrak urteten dautsoe; gizonik doilorrena izan bailitzan, lapurrok astinaldi galanta emon eta edurrez heteriko obi edo zulo batera jaurti eben. Neke gogor eta lotsari andi ori San Frantziskok bape artegatu ta mindu barik, poz eta atsegin andiz artu eban eta bere bizitzako zorionik andientzat eukala esaten eban gero be.

Zetan esan be ez, mundutarren eretxiak euki balitu, lapurren giza-txarkeri onek, eta batez be bere erritar eta gurasoak egindako abegi ta arerra txarrak, min andia, atsekabe samina emongo eutsan San Frantziskori. Baina mundutarren eretxiak itxi ta munduak zorotzat euki eban zeruko Jaun andiarenak artu ta beretu dauz; Jaun orren gudari ta jarraitzaile izatea baino beste asmurik ez dauko ta origaitik S(an) Frantziskoren biotza lotsari gorri orreitan be bakez eta atsedenez, pozez eta atseginez dago.

## II

San Frantziskok mundutarren eretxiak zearo itxi ta Jaunarenak artu ditu; bere biotza be lurreko gauzetatik osoro askatu dau, aurrerantzean

<sup>786</sup> *Margul*: kolorga.



bere gogoan zerukoak baino besterik ez erabilteko. Gazte-gaztetatik txi-ro edo pobreentzat guztiz errukiorra izan zala esan dautsuet. Bein baten badoa Asisko erriaren inguru zaldi gainean zaldun dotore. Legenar<sup>787</sup> edo lepradun eskeko bat aurkitzen dau. Lenengotan itxusi, iguingarri, nazkagarri deritxo; baina gero ain bupera<sup>788</sup> izateaz lotsatu ta zalditik jatsi, eskeko gaxoagana urreratu, maitaro laztandu ta aldean daroan diru guztia emoten dautso. Eskeko au Jauna bera izan zala dirudi. Gerotxua-go, gurutzean josita arpegi larriz, iltamuan agertu jakon Jauna. Ikuskizun onek zauskada andia egin eutsan San Frantziskori eta andik aurrera Jau-naren nekaldi ta eriotzea gomutauaz beste barik erruki samurrez ta maitasun-negarrez urtu egiten jakan bere biotza. Beste bein Erroman, eleizatik urteieran, eskekoz beterik aurkitu eban eleiz ataria. Bere dirua aen artean banandu ta gero, erdi biloizik egoan bati bere soinekoak emon, aren zarrak berak jantzi ta bere burua eskeko eginik, besteakin batera, egun osoa igaro eban eskean eleizako atarian.

San Damiango eleizea barriztetako asmua artu eban San Frantziskok. Arazo orretan bere diruak ondatu bear eutsozala-ta, ezin geiagoan aser-ratu jakon aita; semeak apal-apal erantzun eutsan: «Aita, zure semea baino Jangoikoarena lenago naz eta nire jabe oso dan Jaun orren naia zurea baino lenago egin bear dot». Aitak aserre biziz dinotso: «Lenengo ta bein neure diruak ekazuz; gero zatoz neugaz gotzainaren aurrera ta nire oinordeko ta ondorengo izateko daukazun eskubidea, bein betiko isten dozula antxe gotzainaren aurrean autortu egizu». «Aita, dinozun ori atsegin andiz egingo dot» erantzun eban semeak. Esan eta egin. Gotzainaren aurrera eldu ziranean, aitak ezer esan baino len, bere soinekoak, barreneko marraga latza izan ezik, beste guztiak erantzi ta aitari emon eutsazan esanaz: «Orain arte aitatzat euki zaitut, izen ori emon dautsut; emendik aurrera, "Aita gurea, zeruetan zagozana" askozaz be uste ta itxaropen andiagoaz esango dot». Biotz-zabaltasun onegaz arrituta, artzainen kapizaia<sup>789</sup> bat emon eutsan gotzainak San Frantziskori bere soina estaltzeko.

### III

San Frantzisko oraindik mundutarren artean dago, Jesukistori jarraitzen asi baino ez da egin. Asisko bere errian eta gurasoen etxean bizi

<sup>787</sup> *Legenar*: lepra.

<sup>788</sup> *Bupera*: milika.

<sup>789</sup> *Kapizaia*: kasula.

zala egin ebazan gauza arrigarriok. Egun aretan, oinordeko, ondorengo izateko eskubidea itxi ta soinean eukazan jantziak aitari emon eutsozanean, bere biotza lurreko gauzetatik osoro askatu eban. Ori eginaz, aragi ta odolaren lokarriak urratu ta munduko andikeri, ondasun, aukera ta atseginak, satsa edo simaurra bailiran, guztiak betiko laga ta isten ditu, Jesukisto bere Jauna irabaztearren: «*Omnia detrimentum feci et arbitror ut stercora ut Christum lucrifaciam*». San Frantziskok orain bere gogotan Jesukistoren eretxiak daukaz eta Jaunak lez berak be munduko ospe, omen eta andikeriak baino laido ta lotsariak naiago ditu. Lurreko aukera, atsegin eta ondasunei agur egin dautse, Jauna baino besterik ez dau maite. Eta onelan, bere gogo ta biotza jarei, aske edo libre dituala, buruko eretxiz eta biotzeko gurariz Jaunaren bila doa; bere Jangoikoa aurkitu ta laztandu arte egakada bizi ta bizkorrez gorantza doa, santutasunezko mailetan gora, eriotzaraino, inoz gelditu barik, beti aurrera, zeruko serafinen ideko ta lagun egin arte. «*Exultavit ut gigas ad currendam viam*. Bere bidean aurreratzeko eta Jangoikoagaz bat egiteko, zentoiak lez S(an) Frantziskok be urrats, pausu andi ta bizkorrak emoten ditu.»

Eta egiz, andik aurrera S(an) Frantzisko Jangoikoarentzat baino ez zan bizi, bere gogo ta biotza Jangoikoagan josita eukazan beti. San Frantzisko nor zan, bere biotza zelakoa zan eta biotzeko gurari, asmu ta ames guztiak nogana joakozan S(an) Frantziskoren esakun batek argiro adierazoten dausku. «*Deus meus et omnia*. Nire Jangoiko ta nire gauza guztiak zu zara, Jauna» esaten eban egunoro ta egunean sarri. «Zu baino besterik ez dot maite. Diran guztiak zugaitik, zugan eta zuretzat maite dodaz-ta, nire maite bakar laztana zu zara. Eta izan be, zu izan ezik, zer daukat nik zeruan? Eta zu izan ezik, zer besterik maite daiket nik lurra- ren gainean? *Quid enim est mihi in cœlo et a te quid volui super terram?* Nire gogo ta gorputza, nire aragi ta biotza zure maitasunez birloratu dira ta garretan dagoz, nire jarauntsi<sup>790</sup> ta zorion osoa zarean Jangoiko laztan- kutuna. *Deus cordis mei et pars mea, Deus, in æternum*» (Ps, 72, 26).

S(an) Frantziskok izaki güztietan Jangoikoa ikusten eban; augaitik, edozein izakiri begiratuaz beste barik, biotza ta biotzeko maitasuna Jangoikoagana joakozan eta onelan eten barik Jangoikoa maitatzen ziarduan.

Jangoikoaren eskutik datozalako, gauza guztiak, nai atsegina nai atsekabea dakarskuenak, San Frantziskorentzat anai edo arrebak ziran: eguzkia, anai; sua, anai; otsoa, anai; txoriak, anai; poza nai atsekabea, bizia nai eriotzea, anai edo arreba. Nekeai be izen gozo orregaz deitzen

<sup>790</sup> *Jarauntsi*: herentzia, aberastasun.

eutsen eta abegirik onenaz, txerarik andienaz artzen ebazan, guztiak Jangoikoagana joateko eta Jangoikoarena izateko bide ta lagun ebazalata. Guztiak ebazan maite, ori bai; baina guztiak Jangoikoagaitik, Jangoikoagan eta Jangoikoarentzat eta onelan Jangoikoa beragan eta gauza guztietan.

Jangoiko Semea gure maitasunez gizon egin zan, nekaldia igaro ta kurutzean il. Jangoikoak iragarri ta agertu dauskun maitasunik andi ta samurrena, orixe da; ta maitasun orrek birloratu ta mozkortzen eban S(an) Frantziskoren gogoia, orrek sutau ta berotzen eutsan biotza. Kisto irabaztearren gauza guztiak itxi ebezan bere ... ta lagunai esaten eutsen: «Gure asmu bakarra, Kistorenak izatea, orixe izan bedi ta zer jan eta zer jantziko dogun ardurarik, ez daigun euki». Biotz-biotzez Kistorenak izan bagaitez, iruten ez dakien zelaietako lora ta liliak jazten dituan Zeruko Aitak gu be jantziko gaitu; Kistorenak izan bagaitez, ezer erein eta ezer batzen ez daben egazti ta txoriak elikatzen dituan Goiko Jaunak, guri be bear dogun janaria emongo dausku. San Frantzisko ta bere semeak txiro edo pobreak ziran, Jesukistori jarraitzearren, lurreko gauza guztiak itxi ebezan. Baina San Frantziskoren itxaropen sendo ori zala-ta, bear eben beste ta bear baino geiago be Jaunak beti emon eutsen.

Kistorena izateko, Kistoren antzeko izan bear. Kisto txiro edo pobre, San Frantzisko be olantxe; Kisto neke ta atsekabez, San Frantzisko be nekerik andienetan pozez; Kisto irain, laido ta lotsariz aseta, San Frantzisko be olakoxe irain, laido ta lotsarien bila. San Frantzisko erabilan indarra, Kistogazko maitasuna; maitasun onek txirotasun, neke ta lotsarietara daroa, eta aurkitzen dituanean, Kistoren antzeko egin dala-ta, beste inoz baino pozago dago. Guztiz eta osoro Kistoren antzeko izan dedin, Alberna mendian barau, neke ta laztasunak egiten dituala, bere bost zauriak arrerazo, irarri edo ezarri dautsoz, eta San Frantziskok bere bular eta esku-oinetako zauriekin Kisto berbera dirudi. Kisto Jangoikoarena da; San Frantzisko guztiz eta osoro Kistorena. Bizitzan lez eriotz aldian be, Jaunaren antzeko izatearren, txiro edo pobre, errukiz inok emondako soineko zar bategaz, lur gogorraren gainean etzunda, il zan San Frantzisko be. Lurrerako il zan, baina zeruetan bizi da. Gizonen gomutan be bizi da, ospe ta aintzaz beterik bizi da, bere izena agotik ago, ezpanik ezpan dabil. Bere gogoia zeru-goietan, atsegin eta zorionez beterik dago: *«Memoria vivit, fama per ora pervolat, spiritus astra tenet»*. Onenbestegaz...

Kistinau gareanez, guk be Kistori jarraitu bear dautsagu. Orretarako mundua ta emengo zorakeriak itxita, bakarlekura joatea laguntasun ona izan arren, osoro bearrekoa ez da; baina mundutarren eretxiak itxi ta Jaunarenak artzea, biotza lurreko gauzetatik askatu ta zerukoetara jaso,

eregi ta zuzentzea, ori bai, ori naitaezkoa, osoro bearrekoa da. Jaunari jarraitzen asi zaneke, gauza bi orreik irakutsi euskuzan Asisko Aitaren aurrean auspazu gaizan eta orretarako bearra dogun goiko indarra eskatu daiogun. Kistoren gudari ta jarraitzaile zintzo, bikainorrek, gure eskaria entzun egizu: zure antzera mundutarren eretxiak laga ta Jaunarenak geuretu, lurreko andikeriak gitxitan euki ta geure asmu ta gurariak goiko anditasun eta zorionera eregi ta zuzendu daiguzan, lagun egiguzu; gure gogo ta biotzok, asmu ta gurariok indartu egizuz, Jaunak bere jarraitzaileai eskini dautsen betiko zoriona lortu ta eskuratu daigun.

## LVIII

Arantzazu

### ASISKO SAN FRANTZISKO

*«Vivo autem, jam non ego, vivit vero in me Christus.»*

«Bizi naz, baina zinez ez naz neu bizi nazana, nigan Kisto bizi da-ta.»

(Galat. 2, 20)

N(eure) e(ntzule) mait(eok):

Barrero be aita santuaren deia entzun da. Zer dinosku? Igaz, urte santua zala-ta, kistinau-erriak gauza on eta eder asko egin ebazan. Orain -dino aita santuak- Asistar Frantzisko santu aundi ta bikainaren zazpigarren urtea, zerurako bere jaiotzaren zazpigarren eun urteburua<sup>791</sup> dator; eta igaz sinestedunen biotzetan erne ta azi ziran ale, arnari edo frutuak, aurten obetu, zoritu<sup>792</sup> ta guztiz elduko dirala uste dogu. Eleizako agintariai, gotzain eta abadeai dinotse: «San Frantziskoren semeakin batu, alkartu zaiteze; guztioen artean Asisko serafin gartsuaren bizitza arrigarria gogora ekarri eta bere onoiemen, birtute ta anditasunak erakutsi egieziek erriai, kistinau guztiak berotu daitezcan, San Frantziskoren antz-irudia euren gogo ta biotzetan sartu, barrendu, euki ta erabili dagien».

Aita santuaren dei ori entzunik, kistinau asko igitu ta lokatu dira. Euren etxeak itxita, Asisera ta Albornia mendira doaz, S(an) Frantzisko-ri antxe, bera luzaró bizi izan zan toki aetan, euren lotsa ta itzala, euren maitasun eta garra erakusteko asmuz. Guk araino joateko era ta zorionik izango dogun ala ez, ez dakigu; baina gu be Arantzazura, Aloña mendiaren aldapa edo malda onetara etorri gara, ta aspaldian S(an) Frantziskoren semeak itzal eta ardura andiz zaindu ta begiratzen daben Arantzazuko Ama laztan-samurraren oinetan gagoz. Zek ekarri gaitu?

<sup>791</sup> *Urteburu*: urteurren, urtemuga.

<sup>792</sup> *Zoritu*: heldu, umotu.

Gure asmua zein izan da? San Frantziskori zor dauzaguzan omen, ospe ta goraldia emon nai dauzaguz, aita santuak eskatu dauskunez; orrezaz gainera bere bizitza arrigarria gogoratu, geure biotzak berotu ta bere oinatzai al bestean jarraitzeko, laguntasuna eskatu be bai.

San Frantzisko nor izan da? Nor? Eguzkiaren antzera argi egiteko, erdi ilunetan ebulan kistinau erria bere zerutar argi eder, garbi-garbiaz argitzeko, Jangoikoak amabigarren gizaldian aukeratu ta bialdu eban gizon arrigarria, zeruko aingeru gartsuen antzeko gizona. A zan gizona, a! Gizonik jangoikozkoena, Jesukistoren irudi osoa, Jaunaren irakaskizunak bere gorputz eta ariman egitez erabili, biotzean sakon barrendu, maitasun-garraz berotu, biztu, eta bizi-bizirik erakutsi ta zabaldu ebazan gizona. Arin eta laster esateko, Jesukisto gure Jaunaren Ebanjelio bizia. Pizka bat orixe azaldu ta adierazo nai neuskizue. Orretan asi orduko, Jaunari bere laguntasuna eskatu daiogun. Arantzazuko Ama samurrori, lagun zakiguz. Zeure oinetan auspazten gara; gure eskariak entzun, abegi onez artu egizuz, eta goiko laguntza ori jadetsi daigun, Jaunaren aurrean bitarteko izan zakiguz. Agur...

## I

*«Vivo autem, jam non ego, vivit vero in me Christus.»*

(Galat. 2, 20)

N(eure) e(ntzule) mait(eok), S(an) Juan Apostoluak dinauskunez, munduan iru grina donge dira nagusi: «Aragiaren atsegin loaia, ogasunen guraria ta bizitzako aundikeri edo arrokeria. *Concupiscencia carnis, concupiscencia oculorum et superbia vitae*» (I Joan 2, 16). Satanasek darabiltzan sareak, orreixek dira. Gizonak sare orreitan artzen ditu; grina orreik euren biotzetan biztuaz, Legeko Aginduak ausi eragiten dautsez, eta arimak onelan galtzen ditu. Satanasek munduan daukan agintzea ortik dator. Agintza ori eratsi, apurtu ta austu ta Jangoikoaren jaurgo edo erreinua gure biotzetan ipinteko, Ebanjelioak iru onoinen, iru birtute irakasten dauskuz: ogasunen zalekeria errotik aterateko, txirotasuna, biotzeko pobrezea; aragia eziteko, barau, ildura ta nekeak; arrokeria erasteko, lotsariak. Txirotasun edo pobreza, lotsari ta nekeakazko maitasuna, orra or gure Jaunaren Ebanjelio osoa. Baina ori egiten S(an) Frantzisko nagusi, kanpeoi izan da, gorenengo mailan dago; augaitik Jesukistoren Ebanjelio bizia dala esan bear dogu.

S(an) Frantziskok ez ekian gauzak erdiz erdi egiten, guztiz, osoro ta zeatz baino; gaur bai ta biar ez, gaur zuzen eta biar errenka, ez zan ibil-

ten bere gauzetan. Bein artu eban asmura artez eta zuzen joaten zan, zoli ta bizkor egiten eban. Munduko ogasun, andikeri, aukera ta atseginak isteko asmua artzen dau, ta bein ta betiko guztiak zeatz eta osoro isten ditu. Ori bakarrik? Ez! Jesukistoren antzeko izan nai dau ta munduko aukera orreik itxi ondoren, pobreza, lotsari ta nekeen bila doa ta gauzarik maitagarrienak bailiran, biotz-biotzez artu ta laztantzen ditu.

Badakizue, S(an) Frantzisko salerosle baten semea zan. Seme onek eskekoai egiten eutsezan limosna ugariakaz ezer barik itxiko ebala-ta, aitik aserrez Asisko gotzain, obispo, jaunaren aurrera daroa, ta ogasunak ezeze, gero eukiteko eskubidea be itxi dagiala eskatzen dautso. Semeak gogoz eta pozez egiten dau ori ta bere aitari dinotso: «Orain arte aita deitu zaitut; emendik aurrera "Aita gurea, zeruetan zagozana" itxaropen andiangoaz eta uste beteagoaz esango dot». Eta onelan, eskekoen askidea, ezer barik gelditu ta hera be eskeko egiten da.

S(an) Paulo Apost(oluak) dino: «*Omnia detrimentum facio et arbitror ut stercora, ut Christum lucrificiam*. Jesukisto irabaztearren, lurreko ogasun guztiak galdu dodaz, simaurtzat etsi ta euki dodaz». S(an) Frantziskoren eretxiz be ogasun guzti orreik samarra baino gitxiago ziran eta simaurra baino be gitxiagotan eukazan, Jesukistoren antzeko izatearren. «Jangoiko Gizona esaten eban lander jaio, txiro ta pobre bizi ta ezer barik, biloizik bere burua non ipini ta atsedeen ez eukala il zan. O txirotasun santua, ogasuntegi aundia zara zu, Jangoikoak beretzat artu zinduzan ta! Zure ondoan lurreko ogasunak, sastamarra baino be gitxiago dira.»

Txirotasunaren maitale andi, laztan eta gartsuagorik ez da inoz izan. Pobrezeaz ezkondu zala-ta, orren maitasunez birloraturik, bere andrea ta bere erregina, bere ama kutun ete emazte laztana deitzen eutsan.

Onoimenak, birtuteak, gorputz-itxurarik ez dauke; baina baldin baleuke, Ebanjelioko txirotasunak, biotzeko pobrezeak, S(an) Frantziskoren gorputz eta gogoa artuko ebazan beretzat, eta bere jaiotza, bizitza ta eriotzea S(an) Frantziskorenak izango ziran. S(an) Frantziskoren gorputz eta gogoa artuko ebazan: gorputza, gauzarik bearrenak be ukatu, astoarena bailitzan; gogor artu ta azal eta azur utsez itxi ebalako; gogoa, emengo aukera ta ogasun guztiak simaurra baino be gitxiagotan eukazalako. Jaiotza, S(an) Frantzisko be askatxu baten jaio zalako; bizitza, aitaren ogasunak itxi ezkerro, lurraren gainean bere gauzarik ezertxu be euki ez ebalako; eriotzea, auts gainean etzunda, erdi biloizik, limosnaz emondako jantzi, abitu zar bategaz il zalako.

S(an) Frantzisko txiroago, pobreago ta pozago egon oi zan; maite-maite eban eta bere andra ta bere emazte laztan onen edertasunak erakusten ebulan erririk erri. «*Beati pauperes spiritu*. Biotzez txiroak, pobreak, zoriontsu dira» esaten eban edonoz eta edonon, eta bere esan eta

egiteakaz batez be, onenbeste maite eban txirotasun ori beste askori be maitatu eragin eutsen, eta txirotasunaren gogozko jarraitzaile orreikaz sortu ta ipini ebazan bere Ordenak.

## II

S(an) Agustinen eretxiz, lotsarien bila norbera ibiltea apaltasun, umiltasun osoa da ta au arimako txirotasun, pobreza benetakoa: «*Intelliguntur pauperes spiritu, humiles*». Jesukistoren antzera, S(an) Frantziskok be lotsari, ixeka ta burlak nai ditu. Artu eban bizibidea artu ezkerro, lotsariak ugari izango ebazala ondo ekian. Eta izan be, gorputzean ain argal, jausi ta mirriz, jantzian ain barregarri ikusi ebanean Asisko erriak, eroa zala, burua galdu ebala-ta irriz eta destainaz jarraitu eutsan kaleetan zear. Bere aitak, ostera, zoro gaiztoa zala-ta, preso artu eban. Baina S(an) Frantzisko, Jesukistoren antzera, lotsarien gose-egarri zan, bere burua lotsari gorritz, irri, burla ta destainaz ase nai eban; orrein bila ebilan eta aurkitu ezkerro, bere biotza atsegin-eztitan egoan.

Geroago, bere mirari arrigarriak zirala-ta, erriak lotsa ta itzal andiz begirutzen asi jakozanean, Jangoikoaren bialdua lez pozik artu ta goratzen ebanean, bere burua al bestean, ezin geiagoan makurtu, eratsi ta apalesten eban S(an) Frantziskok, omen, aintza ta gorapen guztia Jangoikoari emonaz. «*Respexit humilitatem*. Jangoiko errukiorrak nire ezeztasuna aintzat artu dau esaten eban eta pekatari andionen bidez mirari orreik egin nai izan ditu.» Jaungoikoa beragaz eskuzabalago ta S(an) Frantzisko ainbat geiago lotsatzen da; eskar txarrez erantzuten dautsalako ustaz<sup>793</sup> bere burua lurreraino eratsi, txikitu, ezereztu ta negar egiten dau. Andizaleak munduko andikeriak baino askozaz maiteago ditu S(an) Frantziskok lotsariak, Jaunaren gurutzeko lotsariak. «*Absit mihi gloriari dino* S(an) Paulogaz *nisi in cruce Domini nostri Jesu Christi*. Jesukistoren gurutzez eta gurutzeko lotsariez baino beste ezertaz ez dot nai pozutu, ez dot nai bizi, ez atsegin artu.»

## III

Atsekabe, laztasun, neke ta minak be lotsariak baizen maite ditu S(an) Frantziskok. Jaunaren nekaldi, pasino ta eriotzea beti gogoan dara-

<sup>793</sup> *Usta*: zigor, zartailu.



bilz. Bere Jaun eta Jangoikoa atsekabe larriz, neke ta min andiz, maitasun-untzez gurutzean josita ikusirik, biotza maitasun-garrez erreten dauko; bizia biziak ordaindu nai leuskio ta martirioren bila iru bidar doa. Zorion ori ezin dau lortu; orduan bere buruaren borrreru egiten da ta bere gorputzari laztasun, neke ta minik andienak arrerazoten dautsaz. Lurra oe bigunegia bailitzan, arri gogor gainean etzuten da; edur ta arantza artean iraulka dabil; gorputzaren inguru orratz zorrozdun burdin sarea daroa; urtean lau garizuma, lau baruzaro gogor egiten ditu, eta artzen dituan jaki apurrai sarri autsa botaten dautse. Zentzunak olakorik ez dabe nai; aragiak txartzat dauko ori. Baina S(an) Frantziskok, Jesukistoren antzeko izatearren, laztasunez eta barauz, neke ta minez, oinaze ta gurutzez bizi nai dau. Bere Jauna gurutzean ikusita, gurutze barik ezin da egon; Jesukisto zauriz beterik ikusita, zauri barik ezin da bizi. Albernia mendian otoitz eta erreguz, negar eta zizpuruz egoala, Jaunak bere bost zauriak irarri ta ezarten dautsaz esku, oin eta bularrean. Orduan esan eikean egiz S(an) Paulo Apostoluagaz: «Kistogaz gurutzean josita nago». «Neure Jaunaren zauriak neure gorputzean daroadaz. *Ego enim stigmata Domini Jesu in corpore meo porto*» (Galat. 6, 17).

S(an) Frantzisko Jesusen irudi bizi egin da; Jesukisto lez, neke ta oinazeen gizona dirudi. Orretarako adore ta indarra gurutzean il zan Jau-nagazko maitasun andi, bero, gartsuak emon dautsoz. Berak egin eban maitasunaren kantuan, onelan dino: «Maitasunez erreten nago, kiskaltzen nauko, Jaunaren maitasunari neu be maitasun egin natxako, eta nire onen garaitzaile, aren maitasuna da. Neure maitasun au ez uiolak, ez su-garrak, ez ezpateak ez daust kenduko. Biotza ostu daustazu, Jauna, ta maitasunean neurria nai dozu? Zeugana aldatu, zeugan biurtu nozu ta geiegi maitatu ete zengiket? Zoratu egin nazala? Bai, Jauna, bai; baina zeure maitasunez zoratu naz. Ni zoratzera narooan maitasun onek, zu be gurutzean josi zaitu ta zentzuna galdu badot, zure maitasunak galdu eragin daust». Au dala-ta, S(an) Paulok zinoana, S(an) Frantziskori guztiz egoki datorrio: «*Vivo autem, jam non ego, vivit vero in me Christus*. Bizi naz, baina zinez ez naz neu bizi nazana, nigan Kisto bizi da-ta».

Biotz andiko gizona; benetan Jaunari ezer ez eutsan ukatu ta Jaunak berari be ez. Txiro, pobre egin zan bere guraz eta Jaunaren maitasunez, eta Jaunak aberats egin eban; ainbeste komentu, ainbeste seme-alaba ta guztientzat janaria oparo emon eutsozan. Neke ta lor geiago euki eban larregi eritxona kentzen, bear ebana bilatzen baino, bear eban guzti-guztia Jaunak esku-zabalez emoten eutsalako.

Lotsari, irri ta destainen gose-egarri zan; orreïn bila ebulan. Baina Jaunak omen, ospe ta entzute andia emon eutsazan eta erriak be bere jantzia ikutu, bere oinai mun egiteko, aldra andietan etorkiozan bidera ta

txaloz eta kantuz goratzen eben. Neke ta gurutzepean bizi zan, baina gurutze ta nekeok zorion-iturri ta atsegin ezti egin jakozan. Gizonak ez dau inoz bilatu lurreko atseginik, S(an) Frantziskok gurutze ta nekeak baizen gurari ta gar andiz; baina mundutarrak be ez dau inoz euki bere atseginetan, S(an) Frantziskok gurutze ta nekeetan besteko poz bizi, atsegin ezti ta zorion ederrik.

Pozaren pozez birloratuta, atsegin zorionez ase ta mozkortuta, esaten eban: «*Deus meus et omnia*. Neure Jangoiko ta neure guztia. Ondasun guztiak, nai dodazan guztiak, zugan daukadaz; nire maitea, nire laz-tana, nire atsegin eta zoriona zu zara. *Deus meus et omnia*». Orixe zan S(an) Frantzisko: beartsua ta aberatsa; lotsarrietan izen eta entzute andia, neke ta gurutzetan atsegin ezti ta zorion garbia aurkitu ebazan santu zorionsua.

Jaunak beragaitik itxi daigun gauza bakotxeko eun agindu dauskuz. Eskatzen dauskunik ezer ukatu ez badaioгу, geure arimen osasunerako bear dogunik, ondo datorkigun gauzarik, ez dausku ukatuko. S(an) Frantziskoren antzera, geure Jaunagaz biotzandi ta eskuzabalak izan bagaitez, bera be Aita samur, bigun, biozbera ta eskuzabal izango da gugaz; guk Jauna maiteago ta berak be gu laztanago; gu eskar obeko ta bera be gugaz bere errukietan ugari ta aberatsago. S(an) Frantziskoren bizitzan ori argiro ikusi dogu.

Auspazu gaizan, ba, Jaunaren aurrean eta Arantzazuko Ama laztana ta geure Aita S(an) Frantzisko bitarteko doguzala, eskatu daiogun, geure biotzak artu, ostu ta beragandu daiguzala. Arren, Jauna, gure biotzok be lurreko gauzen eta geure buruen maitasunetik askatu ta zeugana erakarri ta eroan egizuz. Zeureak gara; S(an) Frantzisko lez gu be, zeugandu ta zeuretu gaizuz. Zeure maitasunean eta zeuretzat biziteko bear doguzan goiko indar ta laguntasuna emoiguzuz, gero zeruan be zeugaz eta zeuretzat biziteko zoriona izan daigun.

## LIX

### SAN ANTONIO

*«Adducam eos in montem sanctum meum  
et laetificabo eos in domo orationis meae.»*

«Neure mendi santura eroango  
eta antxe neure otoitz etxean poztuko dodaz.»

(Isaias 56, 7)

N(eure) e(ntzule) m(aiteok):

Aurtengo bagilaren 13an zazpireun urte S(an) Antonio il zala. Zazpi-reungarren urteurren au dala-ta, S(an) Antonioren goran jai andi ta ospatsuak egin dira toki askotan; baina berariz eta batez be Lisboa, Padua ta Urkiolan. Zegaitik berariz eta batez be? Lisboan, Jangoikoaren gizon andi au antxe jaio zalako; Paduan, andik urrun barik il zan santu onen gorpua, araxe ekarrita, antxe beatu, eortzi, enterrau ebelako; Urkiolan, barriz, S(an) Antoniok, il ta gero, bereala Jangoikoaren aurrean daukan bitartekotasun andia, mirarien bidez iragarri ta adierazoteko, auxe, Urkiola mendi au, beretzat aukeratu ta artu daualako.

Beste erri batzuetan Paduako San Antonio deritxoen oni, guk euskaldunok, geure gurasoakandik ikasita, San Antonio Urkiolakoa deritxogu. Lisboan jaio zan arren, S(an) Antonio amaren aldetik jatorriz euskalduna zala uste dabe batzuk. Egia ete da? Ori baino gauza gatxagorik bein baino sarriago jazo da-ta, gure errian zabal ibili dan uste ori egia izan daiteke; baina gai orretzaz gauza ziurrik ez dakigu. Dana dala, San Antoniok Urkiola maite izan dau, emen mirari andiak egin eta mesede asko banandu ditu ta zabaldu ditu; augaitik-edo, gure asabak, gure aurretikoak Urkiolako San Antoniogan uste ta itxaropen sendoa euki dabe, santu oni eraspen, debozino andi, bero, zindo ta zintzoa izan dautsoe. San Antoniok mendi gainean, goian euki dau bere eleizea; baina euskaldunen biotzetan sakon, barru-barruraino sartu zan santu augazko zaletasuna, debozinoa.

Uda ta negu, gure asabak Urkiolara aurrez etorri dira, bideak zear, mendiak zear sarri oinez eta ortozik, ez beroaren, ez otzaren, ez egural-

di txarraren bildur barik. San Antoniok, mirari ta mesedeak egiteko, Urkiola mendi au aukeratu eban ezkerre, bere beriak eta biotza ementxe ipini ebazala dirudi. Ori eginaz gurari bat erakutsi dausku: guk, euskaldunok be ementxe, berariz aintzat artu ta goratu daigun guraria. Gurari orri erantzunaz, gure asabak gizaldi luzeetan S(an) Antonio Urkiolakoa benetan aintzat artu ta goratu dabe; mesedeak eskatzeko onaxe etorri ta ementxe bere irudi aurrean, uste betez, auspaztu dira. Asaben oinatzai jarraiturik, orain be Urkiolara urte barruan gure erritar asko etorten dira; gaur aldra andia etorri gara.

San Antonioren eriotzako zazpireungarren urteurrena ospatzeko asmuz, gaur aldra andia etorri gara. Zek ekarri gaitu? Asabakandik jarauntziz artu dogun sinesmenak, fedeak, orrexek ekarri gaitu. Erdiz erdizkoak barik zentzundun gizonak izateko, asabakandik artu dogun sinesmen ori sendoro eutsi bear dautsagu.

## I

N(eure) e(ntzule) m(aiteok), kistinau izan baino len, gure antxinako asabak zelako erlejinoa euken ziur ez dakigu. Kistinau sinestearen argi ederra ona noz eta nondik etorri zan, Euskalerrira nok ekarri eban ori be ziur ez dakigun gauzea da. Baina edozelan be, gure asabak abegi onez, atsegin eta pozez artu ebela deritxat. Israeldarrak egiazko Jangoikoa itxita, guzur-jangoikoagana sarri jo eben. Ori zala-ta, bein baten Elias igarlearen eskabidez eta Akab erregearen aginduz, Karmel mendian batu ziran israeldarrak geienak. Orduan egiazko Jangoikoa zein zan adierazoteko, Elias igarleak, guztien aurrean, bere oparia erretako zerutik sua eratsi eban. Mirari arrigarri ori ikusirik Israelgo erria lurrean auspaztu zan eta damuz eta dedarrez esan eban: «*Dominus ipse est Deus, Dominus ipse est Deus*. Eliasen Jauna, oparia erretako zerutik sua bialdu dauan Jauna, gure Jangoikoa, orixe da, orixe da. *Ipse est Deus*».

Jangoiko Semeak maitasun-sua ekarri eban zerutik lurrera: «*Ignem veni mittere in terram et quid volo nisi ut accendatur?* Maitasun-sua lurrera ekartera etorri naz eta biotzetan biztu, ixiotu daiten baino, zer besterik nai dot?» Onelan ba, gizonen maitasun andiz, gure betiko zoriona egitearren, Jesukisto gure Jauna, Jangoiko Gizona gurutzean il zala; gure asabai ori irakatsi ta adierazo eutsenean, aek antxinako euskaldunak be, lurrean eta gurutzearen aurrean auspaztu zirala eta biotza eskar onez beterik, esan ebela deritxat: «*Dominus ipse est Deus, Dominus ipse est Deus*. Gure maitasun larregiz, *propter nimiam charitatem*, gizon egin dan eta gure betiko zoriona egitearren gurutzera joan eta gurutzean il

dan Jaun errukior eta maitale andi ori, gure Jangoiko orixe da, orixe da, eta ain bero ta gartsu maitatu gaituan Jaun laztangarri ori baino beste Jangoikorik ez dogu nai».

Arrezkero gure asabak gurutzean il zan Jangoiko Gizon ori, jauretsi, gurtu ta maitatu dabe ta Eleizearen seme-alaba zintzoak izan dira. Gure aurretikoen sinesmena garbi ta bizi, zindo ta zintzoa izan dala jakiteko, gure Lege Zarreko, Foruetako liburua ta batzarretako erabagiak irakurtea naiko da. «Euskaldun, fededun» esan da ta egia. Kistinau-sinesmena gure artean inoz ilundu eta orbandu ez eiten, gure asabak bide ta neurri egokienak artu ebezala Foruetako liburuak eta batzarretako erabagiak argiro dinoskue.

## II

Kistinau-bizitzearen erro ta sustrai sinesmena, fedea da, ta betiko zoriona irabazteko, osoro bearra, naitanaiezkoa. S(an) Paulo Apostoluak argiro dinosku: «*Sine fide impossibile est placere Deo*. Sinesmen barik Jangoikoari atsegin emoterik ez dago». Baina Jangoikoari atsegin emon ezik, zerua irabazterik be ez dago-ta, origaitik, zerua irabazteko, sinesmena naitaezkoa da.

Sinesmenik, federik nai ez daben gizonak, gaur egunean asko dira. Euren buruak jakituntzat daukez, baina jakitun txikiak eta arro andiak dira; buru argi, adimen zoli ta bizkorreko gizonak baino erdi itsuak obeto dirudie. Buruko argiz aitu, ulertu, jakin ezin leiken gauzarik ez dabela sinestu nai, ori dinoc. Baina lurrean bertan be gizonak aitu ta ulertu ezin leikezan gauza asko dagoz. Gauza orreik zelan direan jakitun arropuzok be ez dakie, ezin aitu, ezin ulertu dabez; ori ta guzti be egitzat daukez, sinestu egiten dabez. Gure sinesteko egiak, zegaitik ez?

Mundu onetan sarri gaiztoak dira nagusi; gura dabena egin eta gura daben lez, aukera ta atseginez bizi dira. Onak, ostera, sarri askotan gaiztoen menpean estu ta larrri, nekez eta lorrez bizi dira. Jangoikoa naitaez, zeatz, artez eta zuzena da. Mundu onetan bear dan besteko zuzenik egiten ez dalako, zeatz eta arteza dan Jangoikoak, bakotxari berea emoteko, ardurea naitaez euki bear dau; augaitik guretzat beste bizitza bat dagoala uste izan bear dogu.

Ezer sinestu nai ez daben orrein azken eta amaia, zein da? Dinocenez, eriotz ostean abere, lauoineko, patari bailiran, lurperatu, zuloan sartu ta ustelduaz eurentzat guztia amaitu da. Ori baino beste itxaropenik ez dauke! Gizonarentzat etorkizun ederra! Euren jakituri laburraz arrotuta dabiltz; arroak dira ta ori ta guzti be, euren buruentzat amairik lotsagarriena: patarien, laroinekoen azkena nai leukie.

Ez! Gizona beste abereak, patariak baino gorago dago, geiago da. Badauko gizonak argi egiten dauan adimena, ilezina dan arimea; badauko aukeramena, bere egiteen jabe egiten dauan aukeramen edo libertadea; badauko bere biotzean lurreko ezek ezin ase ta bete leiken zorion-egarria be. Zorion osoaren egarri ori, nok emon dautso? Jangoikoak, geure Egile ta Jabe dogun Jangoikoak. Baina bizitza onetan gure zorion-egarri ori azi ta geitu, biztu ta suminduten daben gauzak bai; baina guztiz ase ta bete ta naikotu leiken andikeri, aukera, ondasun eta atseginik inon be ez dago. Ori edonok daki. Beste aldetik, Jangoikoak iruzur ta engainu, irri ta barre egiten dauskunik be ezin sinestu ta esañ geinke, ori Jangoikoa guzurtia dala esatea beste izango litzake-ta. Augaitik emen lurrean inongo inon ez dagoan zorion osoaren egarria emon dauskun Jaunak, guzurtia ez dalako, goiko ta betiko zorionera dei egiten dauskula uste izan bear dogu.

Guzurra esaten dakigun gizonok, ori ta guzti be, alkarri sinestu egiten dautsagu; egitia ta egi utsa dan Jangoikoari, zegaitik ez? Gizartean gitxi dakianak geiago dakianari sinestu egiten dautso, ta ori gauza zuzen eta bidezkoa ez danik egundo inok ez dau esan. Orain ba, eriotz ostean guzaz zer izango dan, geure etorkizunaz, geroko geroaz, gizonok geurez gitxi baino ez dakigu. Gauza guztien Egile ta Jabe dan Jangoikoak, ostera, gauza guztiak oraingoak eta gerokoak, ondo baino obeto dakiz. Augaitik, baldin gauza zuzen eta bidezkorik bada, Jangoikoaren esana aintzat artu, egitzat euki ta sinestea izan daiteken gauzarik zuzen eta bidezkoena da; beraz, garako gizonak, zentzun andiko gizonak izateko, asaben sinestean bizi ta sineste ori sendoro eutsi bear dautsogu.

### III

Santuak Jangoikoaren aurrean bitarteko doguzala; Jaunak, bere aiskide diran Santuen bidez, mesede ta grazia asko egiten dauskuzala, alatz edo mirariak be sarri egin dituala geure sinesteak dinosku. Jakitun andia zan S(an) Antonio, baina batez be izlari, sermolari bikaina, ezin ohea. Mesede ta mirari asko egin ebazan bere bizitzan. Bein baten gizon gaiztoak ez eutsoen entzun nai izan; badoa itxasertzera, arrainai dei egiten dautse ta arrainak uretatik buruak aterata, gizonak entzun nai ez ehen itzaldia, adi-adi entzun ehen. Beste bein, sermoiginan egoala, odai, trumoi, inizitu ta tximistak asten dira; S(an) Antoniok alde egiteko agintzen dautse ta geiagoko barik an doaz guztiak igesi. Beste bein be sermoiginan egoala, zoro bat sartzen da eleizan eta deadarrez, garraxika ta alarauka asi; San Antoniok garriko kordelaz ikutzen dautso ta beste barik

zoroa osatu ta bere senera dakar. Baruzaro- edo bijilia-egun baten, bes-terik ez egoala-ta, kapoia ipini eutsoen aurrean; otoiitz, orazino, egiten dau ta kapoia arrain biurtu.

«Neure obenak, neure pekatuak autortu nai dodaz; baina orretan asten nazanean, geienak aitzu egiten jataz» esan eutsan gizon batek. Orduan S(an) Antoniok: «Gomutara jatortzuzanak, papel baten ipini, idatzi egizuz». Ori egin ta, badator gizona; bere papela S(an) Antoniori irakurten dautso. Amaitu ebanean, santuak barriro irakurri egiala agindu eutsan eta, gauza arrigarria!, guztiak parkatu jakozala ta arimea garbi eukala adierazoteko, papela ezetariko izki edo letra barik, zuri ta garbi aurkitu eban. Beste bein, bidez joiala, burdidun gizon bati mesedez zakua burdian eroan egiola eskatu eutsan. Arek ez eroatearren, guzurra asmau eban: «Burdian erantzun eutsan gizon ila, gorpua daroat, bai?, ta mesede ori ezin egin neikezu». S(an) Antoniok, sinestu baileutsan, Aitagurea errezau eban eta burdian joian gizon bizia ilda gelditu zan. Banandu ziranean, burdidunak bere lagunari dei egin eutson; baina ilda egoan eta ezin erantzun. Ori ikusirik, burdi-jabea estu ta larri, damuz eta negarrez, an doa San Antonioren bila; onek lenengo agiraka gogorra egin eutsan gizon guzurti ari, baina gero errukitu zan, atzera etorri ta gizon ila barriro biztu eban. Frantziako Tolosan Gialdo eritxon gizon gaizto bat Jesukistogana ekarteko, alak egin ebazan San Antoniok; baina alperrik. Azkenean, Gialdok esan eutsan: «Zuk dinozuzan gauza orrei erantzuten nik ez dakit, egia dinozula dirudi; baina Jesukistogana biurtzekotan, mirari andi bat bear dot nik. Iru egunean ezer jan barik egon ta gero, nire mandoa, pentsua itxita, altarako Jaunaren aurrean balaunikatzen bada, Jesukisto Altarako Sakramentuan dagoala, orduantxe sinestuko dot; bes-telan ez». Esan eta egin; eguna izentau eben. S(an) Antoniok mezea emon ebaneke, an zan Gialdo bere mando gosetiaz. San Antoniok gure Jauna eskuetan ebala, Gialdok mandoari pentsua aurrean ipini eutsan; baina mandoa, pentsuari jaramon barik, Jaunaren aurrean belaunikatu zan eta Jaunak alde egin arte, kopaurik be ez eban jan. Mirari arrigarri ori ikusi-ta, asko biurtu ziran Jesukistogana. Gialdo be sinestedun egin zan eta aurrerantzean kistinau on eta zintzoa izan zan beti.

#### IV

San Antoniok, bere bizitzan beste mirari asko be egin ebazan; il ta gero, emen Urkiolan bertan, zenbat ez ete ditu egin? Mirariak egiteko Jangoikoaren besoa lez izan dan santu onek, Urkiolako mendi gainetik, zenbat mesede ez ete ditu zabaldu? Lurrean bizi zala, bein baten emetik

igaro ta pizka baten emen gelditu zala dinoe. Erritik baturiko uste ori egia dan ala ez ziur ez dakigu; baina gorputzez etorri ez bazan be, biotzez bai. San Antonio, il ta gero, biotzez onaxe etorri ta ementxe gelditu da eta arrezkero, laguntza eske datorkiozanai, eten barik mesedeak egiten daragoio. Eta egiz, emen geixo asko osatu dirala or dagozan makulu ta beste ezaugarriok argiro dinoe; mesede asko ta andiak egin dituala, San Antoniori eskarrak emoteko, urteoro Urkiolara datozenak esango dauskue. San Antoniok mesedeak egiten diardu, eta eskar ona erakusteko, urtero aldra andiak datorkioz. Jangoikoaren esana bete da emen: *«Adducam eos in montem sanctum meum et laetificabo eos in domo orationis meae.* Neure mendi santura eroan eta antxe, neure otoitz-etxean poztuko dodaz, eta poztuteko euren eskariak entzun eta mesedeak egingo dautsedaz».

Sinesmen bizi ta sendokoak izan diralako, gure asabak S(an) Antonio Urkiolakoa gogo ta biotzean erabili dabe. Aspaldiko gizaldietan, zenbat ez dira ona etorri? San Antonioren irudi aurrean edonongo euskaldunak aurrez auspazu dira; santu andi au bitartekotzat artuta, Goiko Jaunari mesedeak eskatu dautsoez eta zeruko indar eta laguntasuna, gorputz eta arimetako osasuna, askok lortu dabe. Egiz esan geinke: *«Patres nostri in hoc monte adoraverunt.* Gure guraso ta asabak mendi onetan Jangoikoa berariz jauretsi ta gurtu dabe». Euren eskariak San Antonioren eskuz, santu onen bidez, zerura bialdu dabez eta askok, pozez beterik, esan dabe: *«Exaudivit me de monte sancto suo.* Jangoikok bere mendi santu onetan nire eskaria entzun dau, eta eskatu dautsadan mesedea, egin daust». Ori dala-ta, aspaldi danik gure asabak sinesmen biziz eta itxaropen andiz etorri dira Urkiolara.

San Antonioren eriotzako zazpireungarren urteurrena ospatzeko, gu be santu miraritsu onen oinetara etorri gara. Zer eskatuko dautsagu? Bakotxak naien eta bearren dauana; baina batez be, sinesmenean bizkortu, itxaropenean sendotu ta Jaunagazko maitasunean irazegi ta bertu gaizala; Jangoikoa gure Jaun, Ugazaba ta Jabe beti izan dakigula; euskaldun, fededun, beti, munda munda, egia izan daitela.

Eskari ori egiteko, auspazu gaizan bere oinetan. Geure asaben sinesmenean sendoro iraun ta jarraitu daigun, santu andi miraritsuori, lagun zakiguz; mendi-gane onetatik errukiz begiratu ta arduraz zaindu gaizuz, orain Jangoikoaren menpean maitaro bizita, gero Jangoikoaren zorionean gozaro sartu gaitezan.



## LX

### TERESA DEUNA

*«Dilectus meus mihi et ego illi.»*

«Ene maitea niretzat eta ni berarentzat.»

(Cant. 2, 16)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Gizasemea gorputzez andia izan arren, gogo ta biotzez txikia izan daiteke, eta, bestera, gizon gorputz txikia, buru argi ta biotz andikoa be bai. Abereak gorputzez neurtzen doguz; ori abereentzat neurri ona da. Baina gizasemea abere antzera neurtu nai bagendu, ori gizonarentzat neurri txarra da-ta, uts andia egingo geunke. Gizon naiz emakumea nor-aginokoak diran jakiteko, gorputzez ez, buru ta biotzez bai, buru ta biotzez neurtu bear dira.

Gizonak emakumeak baino buru argiagoa; emakumeak, ostera, gizonak baino biotz samurragoa daukala aurrez esaten da. Geienez egia dala dirudi, baina beti, ez. Gizaldien joanean, emakumerik samurrenak baizen biotz bigun, maitati, errukior eta samurra euki daben gizasemek, ainbat izan dira; eta gizonik argienak baizen gogo bizkor, adimen zoli ta buru argia euki dauan emakumerik ez dala izan ezin esan lei. Esaterako, gaur. Eleizecagaz batera gomutau eta ospatzen dogun emakume bikainak, S(an)ta Teresa zorientzuak, ezauera ta jakiturian gizonik zoli ta bizkorrenai be gitxi, guttiz gitxi zor dautse. Berak, bere eskuz, idatzi ebazan liburu eder-ederretan, gizonik jakitun eta argienak baizen buru argi, adimen zoli ta jakituri sakona eukazala argiro erakutsi eban. Eta ez bakarrik adimen zoli ta buru argia, biotz andi, samur, maitati ta adoretua be bai.

Edozein gizon naiz emakumeren neurri oso ta zeatza eukiteko, adimenaren indarraz batera, biotzeko indarra, buruko argiaz batera bere biotzeko kemen, adore eta maitasuna be neurtu bear doguz, eta egia esateko, buruko argiak baino biotzeko maitasunak, zuzena danean, andi ta ederrago egin, gorago eregi ta jasoten gaitu. Ona emen zegaitik. Gure

adimenaren indarrak aitu, ulertu edo ezagutzen dauan edozein gauza, bere antzeko egiten dau, eta gauza ori bera baino andiago balitz, gorago balego, orren irudia bere mailaraino eratsi daroa, onelan aitu ta ezagutu al izateko. Maitasunaren indarrak, ostera, maitalea bera maite dauan gauzearen antzeko egiten dau, eta maite dogun gauza ori geu baino andi ta ederragoa balitz, gu baino gorago balego, maitasunaren indar orrek geu be ederragotu ta andiago egiten gaitu. Au dala-ta, gizasemearen neurri oso ta zeatza euki nai dauanak, aren biotzeko maitasuna bere buruko argia baino be ardura andiagoaz neurtu bear dau.

Buru argi ta biotz andiko emakumea izan zan S(an)ta Teresa: adimen zolian, gitxi lakoa; biotzeko maitasunean, bardinbagea. Indar bi oncik Jaungoikoagana zuzendu ebazan. Bere bizitzako zereginik nagosiena Jaungoikoa albait ondoen ezagutu ta albait geien maitatzea izan zan; hurreko edozein arazo edo zereginetan sartzen zanean be, Jaungoikoari atsegin emotea baino beste asmorik ez erabilan. Augaitik, santutasunaren gorenengo mailara igon zala, inok esan barik be, errez igarri ta ezagutu zengikie.

S(an)ta Teresa, buruz ta biotzez, jakituriz ta maitasunez, emakumerik andi, bikain eta gorenengoa izan zala adierazo nai neuskizue. Onetan asi orduko, oitura dan lez, zeruko argi ta laguntasuna eskatu bear doguz. Auspaztu gaizan, ba. Karmelgo Ama laztanori, Jaunaren aurrean bitarteko izan zakiguz, eta zeure alaba gurgarri onen irakaspen, esate ta egiteak osasungarri izan dakiguzan, geure gogoak argitu ta biotzak berotu, samurtu eiguzuz. Auspaz dinotsugun Aingeruaren agurra abegi onez artu egizu eta errukior zareanorrek, oraintxe, inoz baino geiago lagundu gaizuz; arren bai arren, lagun zakiguz. Agur M(ari)a.

## I

*«Dilectus meus mihi et ego illi.»*

«Ene maitea niretzat eta ni berarentzat.»

(Cant. 2, 16)

N(eure) entz(ule) maite(ok), S(an)ta Teresa 1515garren urtean Ávilan jaiotako irurogeta zazpi urte ta erdi ebazala, Alban il zan. Bere eriotzatik berrogei urte barru, 1622garren urteko epaila edo martiaren 12an Gregorio XVgarren aita santuak, Loiolako Inazio ta Jabier Indietako apostoluaz batera, Teresa be santutzat iragarri ta altaretan ipini eban. Augaitik, aurtan, irureungarren urtea dala-ta, Eleiza guztiak eta karmeldarrak batez be, S(an)ta Teresaren ospaz jai andiak egiten dabez. Karmelgo

Amaren alaba laztan, emakume argi ta Jaunaren maitale andi onek, bera ospatu ta goratzeko egiten diran jaiak ondo irabazita daukaz.

S(an)ta Teresa, bere izatez, bizkor eta zolia zan, adimen zorrotz, bizi ta argia eukan; baina orrezaz gainera, Jaunak bere gogoz argitu ez baleutso, bere liburuetan ikusten dogun jakituri arrigarria ezelan be ezingo eban erakutsi. Beste asko ibili oi diran lez, ikastetxerik ikastetxe jakitunai entzule bein ez zan ibili; baina lurreko jakitunai entzuten ibili ez arren, zeruko Jaunari entzun eutsan sarri. Jauna bere irakasle egin jakon eta jakituririk gaxena dan zeruko jakituria, lurreko maixurik one-nak baino askozaz obeto irakatsi eutsan.

Isaias igarleak dinosku: «*Qui sperant in Domino... assument pennas ut aquilae, current et non laborabunt.* Jaunagan itxaropen osoa daukenak, arranoen antzera egoak zabaldu ta neke barik ibiliko dira, egan egingo dabe». Baidakizue, egazti guztien artean egazkaririk<sup>794</sup> onenak arranoak dira. Aukera guztiaz egan egiten dabe; bape neke barik guztiz gora igoten dira eta andik goitik euren begi zoliz lurreko mendi, zelai, bidezabal eta bidezidor guztiak begirakune bataz ikusten dabez. Arranoen izenaz, Eskritura Santuan, aingeru egodunak adierazoten jakuz.

«Orain ba, egun baten dino S(an)ta Teresak Jaunak esan eustan: emendik aurrera zure autu, izketa eta artu-emonak lurreko gizonakin barik zeruko aingeruakin izan beitez. Nire naia orixe da ta orretan egiteko ardurea artu egizu.» Eta egiz, entz(ule) mait(eok), Jaunak S(an)ta Teresaren gogoari aingeruen egoak emon eutsazala dirudi: otoitz, orazi-no egiten eban bakotxean, bere arimea, arranoak egaz igoten diran bai-zen errez, igoten zan gora; bere adimena zerutar argiz argitzen zan eta zerurako bideak, Jaunak arima batzui ta besteai ara joateko izentau dautsezan bideak, guztiz argiro ikusten ebazan.

Aingeruen antzera Jaunaganantz igoten zan emakume zoriontsu onen jakituri andi ta sakona; bere liburuak irakurri ezkeru, edonorentzat agirian dago; liburu orrei, iturriari ura lez, zeruko jakituria darioe ta ezti-abaia baino be gozoago da. Eguzkiak bere argiz lurreko bideak argitzen dituan lez, S(an)ta Teresak bere liburu ederretan zeruko bideak erakusten daukuz. Karmelgo alaba zintzo au gizonik jakitunenak be euren irakasletzat artzen dabe; bere liburuak esku artean sarri darabilez eta ango jakituri arrigarriaz konkortuta lez gelditzen dira. Au dala-ta, gure Ama Eleizeak guztiz ondo, egoki Karmelgo irakaslearen izena emon dautso: «*Sapientiam ejus enarrabunt gentes et laudem ejus enuntiabit ecclesia.*

<sup>794</sup> Egazkari: hegalari.

Bere jaituria erriak ao-minean erabiliko dabe eta bere izena Eleizeak ospatuko dau» (Eccli. 39, 14).

## II

Egiz, jakituria gauza ederra da ta gizasemea asko goratzen dau; baina aurrerago esan dodan lez, adimen zoli ta argiak baino biotz garbi ta maitaleak geiago ornidu, ederrago egin eta gorago jasoten gaitu. Buru argiko emakumea izan zan S(an)ta Teresa, baina buruz baino be biotzez, andiagoa. Entzun ezpabe.

Sinestearen aldez eta Jaunaren maitasunez bizia emon eta zanetako odola isuriten ebenak, zeruko zoriona arin eta errez, merkeegi irabazten ebela-ta, zazpi urte baino ez eukazanean, bere nebatxu bat lagun ebala, inori ezer esan barik, gurasoen etxetik urten eta Afrikarako bidea artu eban S(an)ta Teresak, an sinestebakoen eskuetan bere bizia emoteko asmoz. Gauza arrigarria benetan! Zazpi urteko umea eriotzearen bila! Zazpi urteko umea, Jaunaren maitasunarren, bere zanetako odola isuri nairik! Oraindik ez ekian Jaunak aizkora edo aiotzaren zauria baino atsegintsuago dan maitasun-zauriz eriotzako atea idegiko eutsazanik: *«Divini amoris cusptide in vulnus icta concides»*. Ori ez ekian eta euren osaba batek bidean aurkitu ta etxera ekarri ez balitu, neba-arrebatxu biak eriotzearen bila noragino joango zirean ez dakigu.

Ogeta bat urtegaz, munduko andikeri, aukera ta atsegin guztiak itxi, konbentuan sartu ta Karmelgo Amaren alaba egin zan: *«Regnum mundi et omnem ornatum saeculi contempsit propter amorem Domini mei Jesu Christi*. Munduko agintza, atsegin eta edertasun guztiak gorrotatu ta itxi nebazan neure Jaunaren maitasunagaitik». Oben edo pekatu astunik bein be ez eban egin, baina epelalditxu bi bai, euki ebazan: gurasoen etxean, lenengoa; Karmelgo alaba egin ta gero, bigarrena. Onelan ebi-lela, egun baten, otoz otoan eta zer egiten eban be ez ekiala, kurutzean josiriko Jesusen irudi zaurituari begiratu dautso ta Jaun on eta maitalearen zauriak bere biotza zauritzen dautse: «Zuk ene Jaunorrek, ainbeste maite nozu ta nik epelonek, gitxi baino ez zaitut maite. Eskar gaiztoko izan naiatzu, ene Jaun ona!». Au esanda, irudiaren aurrean auspazten da, negarrari emoten dautso eta bere epelkeriaren garbai biziz, damu zintzoz, Jaunari parkeske dagokio. Jaunak dinotso: *«Surge, prospera amica mea, columba mea et veni*. Jagi zadiz, ene maiteori, bizkortu zaitetz, uso laztanori, eta etorri zakidaz, erdu nigana». Orduan S(an)ta Teresak bere Jauna biotz osoz eta gogo berroz beti-beti maitatzeko asmo ta erabagi sendoa artzen dau. Eta ez artu bakarrik; artu ta bete, erabagi ta egin.

Andik aurrera, goiz eta arrats, S(an)ta Teresaren zeregin bakarra, eguneroko zeregina, Jaunagaz gogoratu, Jauna obeto ezagutu, geiago maitatu, gauza guztietan bere naia egin eta beti ta edonon atsegin emotea izan zan: Jaunagaitik zerbait egari edo sufridutea, bere guraririk biziena; biotzari Jaunaren laztantasunez gainezka eragitea, bere asmorik sendoena; Jesukistoren antzeko izatea, bere ames gozo, gurari bizi ta aleginik andiena. «*Dilectus meus mihi et ego illi*. Nire maitea niretzat eta ni berarentzat.»

Gutziz, osoro Jaunarena izateko asmoa artu eban egunetik aurrera, S(an)ta Teresaren gogoa, bere arimea, non egoan jakiteko, S(an) Agustinek dinoana esan eiteken: «*Magis est ubi amat qua ubi animat*. Bizirik daukan gorputzean baino maite dauan Jaunagan geiago dago». Augaitik S(an) Paulo Apost(oluak) esana, egiz eta zuzen artu ta beretzakotu eiken S(anta) Teresak: «*Vivo ego, jam non ego, vivit vero in me Christus*. Bizi naz, bai, baina egia esateko, nigan bizi dana, ez naz neu; maitasunaren indarrez, nigan bizi dana Jesukisto neure Jaun maite ta laztana da». Egun baten, beste geiagotan lez, agertzen jako Jauna ta eskomako eskua luzaturik, dinotso: «*Deinceps, ut vera sponda, meum celabis honorem*. Emen-dik aurrera, neure ezkontide, neure emazte lez, nire gauzen eta nire izen onaren ardurea eukiko dozu. Zu nor zara?». «Ni Jesusen Teresa.» «Ba ni be, Teresaren Jesus», erantzun eutsan Jaunak, eta onelan bien artean, Jesus eta Teresaren artean, ezkontzarik garbi, maitati ta laztantsuena egin zan.

Gauzarik onena, Jaunaren gogokoen zana, Jaunari atseginik geien emongo eutsana beti egiteko asmoa artu eban. Aingeru batek maitasun-suaz goritutako gezi bategaz bere biotza alderik alde igaro eutsan; zentzunetako konorta galduta, bere arimea, gorputzetik urten bailitzan, Jan-goikoaren laztan gozora igoten zan eta gozotasunen gozotasunez zora-garriro birloratuta gelditzen jakon. Jaunagaz eukiten ebazan onelako artu-emon gozo, kutun eta laztantsuetan, S(an)ta Teresaren biotza atseginez gainezka ta maitasun-garrez bero ta gori gelditzen zan, eta bere senera, bere konortera etorten zanean, Kantuetako liburuan ezkontide maiteak dinoana esaten eban berak be: «*Adjuro vos, filiae Jerusalem, ut nuntietis dilecto meo quia amore lango*. Jerusalengo alabak, arren eskatzen dautsuet; nire maiteari bere maitasun andiz geixorik naukala ta nire geixo au berak izan ezik, beste inok be ezin osatu daikela esan egiozue».

S(an)ta Teresa lau ormen erdian sartuta beti bizi izan balitz, Jaungoikoaren maitasunez birloratuta ikustea ez litzake arrigarri. Baina bere esku artean arazo ta zeregin andiak erabiltzan; zeregin oneik aurrera eroateko, naitaez, konbentutik urten eta eririk erri ibili bear izaten eban

sarri. Au ta guzti be, bere biotza ez zan inoz otzitu, maitasun-garra ez jakon inoz makaldu, ez gitxitu. Karmeldarrak, euren antxinako lege ta arauak pizka bat nasaituta, bizikera bigun eta erosoagoa artu ta obetsi eben. S(an)ta Teresak, bizikera biguna baino latza, nasaia baino estua, eroso baino neketsua naiago eban eta Karmelgo seme-alabak antxinako senean, euren lenengoko bizikera estu, latz eta neketsuan ipinteko eginena bere arduraz artzen dau. Zeregin andi ta astuna emakume batentzat! Baina bere itxaropena Jaunagan ipinirik, gogoz lanean asten da ta urte gitxi batzuen buruan, zuriko barik, berak dinoan lez, zuriko barik, ogeta amabi konbentu barri irasi edo ipinten ditu, ta eurentan antxinako karmeldarren bizikera latz, zintzo ta jaungoikozkoa loratuta bere begiz ikusten dau.

Gaiztoak ezeze, onak be sarritan aurka, kontra egiten eutsen, eta atsekabe mingotsak, naibage saminak, kurutze astunak, neke andiak artu ta eroan bear izan ebazan. Baina maitasunaren indarra!, atsekaberik andienetan be kikildu barik esaten eban: *«Aut pati aut mori*. Edo Jaunagaitik sufridu edo il; edo nekeak artu, eroan eta egari, edo ezpabe neu-re bizi au eriotzearen atzamarretan itxi».

S(an)ta Teresaren gogoia erabilezan birpil biak, Jaungoikoaren ezaue-rea eta beragazko maitasuna izan ziran; Jaungoikoaren ezauera argiak bera geiago ta biziroago maitatzera eroan eban. Goiz eta arrats, egunez eta gabaz, zeregin andi ta txikietan beti Jaunagazko maitasunak erabilan. Maitasun orren indarrez izan ezik, ezertxu be ez eban egin, bere burua osoro Jaunari eskini eutsanetik aurrera. Maitasun orrek eukan bizirik bere gorputz geixoa eta maitasun orrek, geixoak baino obeto, eriotzako atea idegi eutsanean, bere arima zorientzua, *candidae instar columbae*, uso zuri antzera, ain maite ta laztan eban Jesusen besarte gozora joan zan; zerura egan igon eta betiko zorionaren jabe egin zan.

Geure Jauna ondo ezagutuko bagendu, bere errukia norainokoa dan, bere gugazko ontasun eta maitasuna zelakoak diran ondo bagenki, egunero egiten dauzkuzan ontarte ta mesede andiak, geure gogoan bagerabiltz, geure Jaun ona dogun baino maiteago izango geunke, S(an)ta Teresari lez guri be, geure biotza osoro irabaziko leuskigu. Eta Jauna zintzoro, biotzez maite bagendu, bere naia, edonon eta edonoz, zeatz egiteko be gertu ta prest gengokez; S(an) Agustinek esaten ebana, guztiok eta bakoxtak esan al izango geunke: *«Amor meus pondus meum; illo feror quocumque feror*. Nire astun eta nire indarra neu-re maitasuna da. Noan leku guztietara berak naroa, neu-re egitekoetan berak narabil; egiten dodan guztia maitasun orrek eginazoten daust».

Gure biotza Jaunagazko maitasunaren burpilak balerabile, gure bizi-tza guztia zuzen lebilke. Gure asmo, gure gurari, gure egite guztiak Jau-

naren gogoko izango litzakez; Jaunari aintza, omen edo gloria emongo leuskioe eta geuk be Jaunaren aurrean irabazi andiak egingo geunkez.

S(an)ta Teresak bere bizitzan, orixe irakatsi dausku.

LXI

Elorrio

**BALENTIN BERRIOTXOA**

*«Majorem hac dilectionem nemo habet,  
ut animam suam ponat quis pro amicis suis.»*

«Bere adiskideen aldez bere bizia emoten dauanak baino,  
maitasun andiagorik inok be ez dauko.»

(Joan 15, 13)

N(eure) entz(u)le) mait(eok):

Erri guztiak zetan edo atan euren arrokeritxua euki daroe. Batzuk, andi ta sendoak dirala-ta, orregaitik poztu ta arrotzen dira; beste batzuk, txikiak izan arren be, zoli ta bizkorrak diralako, beste edozein aina badi-rala uste dabe. Batzuk, jakintza ta elertietan enparauak baino geiago aurreratu zirala-ta, anditasun ori pozez beterik erakusten dabe; beste batzuk, ostera, bein arturiko sinestean zindo ta sendo iraun dabelako, euren buruak zerbait baino geiagotan daukez.

Beinolako barririk ez daukagu; baina aspaldi onetan Euskalerrria, beste batzuen ondoan, erri txikia da. Txikia izan arren, antxina-antxinakoa dala guztiak aurtortzen dabe. Beste erri askoren asikerea ezaguna da; Euskalerrria non eta noz asi zan, noztik onakoa dan inok be ez daki. Au dala-ta, gure erri onek be bere andikeritxua euki daike.

Onezaz gainera, beste gauza berezi bat be badago. Beste erririk geienetan, gure sinesteak garaitza osoa lortu baino len, burrukaldi luze ta gogorra egin bear izan eban. Gaur, erri orreik antxinako martiriak daukezala-ta, poztu ta arrotu egiten dira. Euskalerrriak arrokeri ori ezin euki lei; baina orrenbeste eta ori baino geiago dan beste gauza batez poztu ta arrotu daitekela deritxat. Entzun ezpabe.

Kistoren sinestea irakatsi ta zabaltzeko ona etorri ziranai, sineste maitagarri au emen lenengoz artu ebenai, gure asabak, Euskalerrriko agintariak ez eutsen kalterik egin, ez eutsen bizirik kendu, beste errietan lez. Lur apatz eta gantzatsuan ereindako azia lez, euskaldunen bio-



tzetan sinestearen azia arin eta laster erne, sendo ta mardo azi zan. Egizko sineste maitagarri onek, ilundu ta makaldu barik, bere mardotasun osoan urte luzeetan iraun dau ta Euskalerrriak, berez txikia izan arren, Jesukistoren sinestea beste erri batzuetan zabaltzeko, urrunetara be seme asko, langile azkarrak ugari, bialdu ditu.

Kistoren sinestea dala-ta, bere muga barruan inori bizirik ez dautso kendu, martiririk ez dau egin; baina bere mugarrietatik landa edo kanpora, inok egindako martiriak daukaz. Eta gauza bi orreik dirala-ta, gure erri au be poztu daiteke, bere burua jaso lei, Jaunari eskarrak emon leioz. Euskalerrriak bere muga barruan egindako martiririk ez dauko, baina bere mugetatik landa, gure sinestearen alde zanetako odola isuri daben euskaldunak, ainbat izan dira. Gaur bat bakarrik aitatuko dot: Bizkaiaren omen, aintza ta edergailurik onena dan Balentin Berriotxo, Elorrioko semea. Jaunagazko maitasun bizi, bero ta gartsuak erabili eban Balentin. Maitasun orrek atera eban Euskalerritik eta eroan eban urrunetara; maitasun orrek erabili eban gau ta egun, nekez eta lorrez, arimen bila; maitasun orrek ipini eban aizkorapean bere burua. Itzaldi onen gaia orixe izango da. Aurrera jarraitu orduko...

## I

*«Majorem hac dilectionem nemo habet,  
ut animam suam ponat quis pro amicis suis.»*

(Joan 15, 13)

N(eure) entz(ule) mait(eok), orain dirala ainbat urte --zenbat direan ez dakit-- gaurko onen antzeko bidezkunde<sup>795</sup> bat zala-ta, itzalditxu bat egin neban emen. Gero nire belarrietara eldu zanez, norbaitek auxe esan ei eban: «Berriotxo santu andia dala esan dausku. Santua bai, baina ainbesteko andia danik ez dot uste. Bere gorpuzkinak, bere azurrak Elorrioko eleiza nagusi onetan daukez, baina aragiak aspaldi usteldu ziran. Beste santu batzuen gorputzak, ostera, azur eta aragi usteldu barik dagoz, eta oneik, nire eretxiz, santu andiangoak dira».

Orduan norbaitek ori esan ei eban; baina ori esan ebanak, zinez, santutasuna zer dan ez daki, santu andia zein dan jakiteko bide txarretik dabil. Egiz, santu batzuen gorputzak urte askotan osorik usteldu barik egon dira. Jaungoikoak ori zegaitik egin dauan, aldi bakotxean

<sup>795</sup> *Bidezkunde*: ibilkunde.

beintzat, ziur ez dakigu; baina, dana dala, gorpua luzaro usteldu barik egoteak, berez ez dau esan nai santu ori besteak baino andiagoa danik. Ori ezelan be ez.

Santutasunaren neurria Jaunagazko maitasuna da: maitasun au andiago ta santutasuna be andiago. Bere izatez deuna, santua, Jaungoikoa bakarrik da; beste enparau guztiak dauken santutasuna, naiz dala andia naiz txikia, Jaungoikoagandik artzen dabe. Baina suaren ondorago dagoanak bero geiago artzen dauan lez, Jaungoikoagana geiago urreratzen danak be santutasun geiago artu daroa.

Sinesmen eta itxaropena Jaungoikoagana igoteko egoak lez dira; baina Jaunagana urreratu ta beragaz bat egiteko, maitasuna baino beste indarririk, maitasuna baino beste estuntza edo lokarririk ez dago. Augaitik eta maitasunak bere izatez, maitearen antzeko egiten gaitualako, santutasunaren neurria beti Jaunagazko maitasuna da. «Jaungoikoa –dino S(an) Joanek bere Lenengo Eskutitzean–, Jaungoikoa maitasuna da, ta maitasunean dagoana Jaunagaz dago ta Jauna beragaz. *Deus charitas est et qui manet in charitate, in Deo manet et Deus in eo*» (I Joan 4, 16).

## II

Balentin zoriontsua, bere bizitza guztian maitasun onek erabili eban. Uri onetantxe jaio zan eta bere gaztaroan ezagutu ebenak dinoskuenez, txikitatik Jaungoikozale, Jaungoikoaren maitetzaille andia izan zan: «*Ad pietatem proclivis*». Bere aitagaz arotzian inarduan bitartean, ementxe bertan dominiku bategaz latin be ikasi eban. Balentinen gurasoak eskuarte andiririk ez euken, txiroak ziran; baina Jaungoikoagan bere itxaropena ipini, bidean aurkitu ebazan eragozpen, estorbu guztiak garaituta, Balentin, amazortzi urtegaz eta abade izateko asmoz, Logroñoko ikastetxera, seminariora doa. Berak Jaungoikoarena izan nai dau, beste batzuk be Jaunarenak egin nai ditu; berak Jaungoikoa maite dau, beste askori be maitarazo nai dautse ta maitasun onek Logroñora dāroa.

Balentinek, Logroñon, bere bizikera zeatz eta zuzenaz santu-usain gozo-ederra zabaltzen dau. Ango nagusiak jaungoikozko gizona dala igarten dabe, ta abade egin eta berealaxe, angu abadekien gogozuzentzaille izentetan eben. Seminarioko ikaslen biotz eta arimak zuzendu ta lantzeko arlo ta zeregina emon eutsen. Urte bian zeregin astun eta arduratsu ori ondo baino obeto egin eban Balentinek; baina bere biotza artega ta urduri dago. Jaungoikoari ori baino geiago zor dautsala uste dau, eta bere zor au guztiz ordaintzea galerazoko ete dautsen bildurrezedo, bere etxekoai be ezer esan barik, 1853garrenean, ogetasei urtegaz,

Okañarako bidea artzen dau. Jaunaren maitasunak erazota, daukana ta ez daukana eukiteko itxaropena, bere erri ta aiskideak, bere senide ta guraso maiteak be isten ditu, eta S(an)to Domingoren semeen soineko zuri-baltza jazten dau.

Okañan be bera zan lez agertu zan Balentin; jaungoikozko gizona, bere zeregin guztietan Jaunagazko maitasunak erabilan otsein zintzoa. Iru urte ta erdi barru, Indietan Jesukistoren sinestea zabaldu ta bere legea irakasteko autu ebela adierazo cutsen bere nagusiak, eta Balentinek barri au biotzeko pozik andienaz entzun eban: «*Summo gaudio nuntium accepit*». Kadiztik inotsan bere osaba bati, Frai Juan Aristiri: «Manilarako bidean nago; an nitaz zer izango dan ez dakit. Urrunago... niretzat kate ta presontegiak dagoz. *Vincula et carceres me manent*».

Sei ilebeteren buruan eldu zan Manilara; baina egun gitxi barru, berak eskatu ebalako, andik Tonkinera bialdu eben. Jaunaren maitasunarren, lor andiagoak, neke latzagoak artu, egari ta eroan nai ebazan eta orretarako, zinez, Tonkinera berebiziko lekura joian. Melchor García Sampedro Tonkingo gotzain edo obispoak ikusi ebanekoxe, esan eban bere artean: «Biar edo etzi, bearbada, sinestearen arerioak arrapau eta ilgo nabe; ordekoa itxi bear dot eta orretarako auxe baino oberik, ego-kiagorik, inor be ez». Izan be, Tonkinera eldu zaneko, Balentinen santutasuna guztiak ezagutu eben: «*Brevi, praeclara ejus virtus cunctis perspecta fuit*». Eta au ezagutu ebalako, oraindik ogeta amaika urte baino euki ez arren, ango obispoak ile bi barru Balentin obispo egin eta bere oinordeko izentau eban.

Andik laster kistinauen kaltez ekaitz gogorra jagi zan; jazarkunde la-tza, persekuzino itzala asi zan, eta Balentinen aurreko obispoa arerioak arrapau ta il eben. Orduan, ango kistinau guztien ardurea Balentinek bere gain artu bear izan eban eta iru urtean, arnasarik artzen be isten ez eutsen arerio amurratuz inguratuta, gure Balentinek ikustekoak ikusi bear izan ebazan. Arerioak orpoan-orpoan jarraitzen eutselako, gabaz eta ixilean baino ezin eutsen ango kistinauai lagundu; egunez, etxe-zoko edo zuloren baten ezkutauta egon bear. Berez, bizikera estu ta larria, neketsu ta gogorra zan Balentinen bizikerea; baina berak, Goiko Jaunagan uste osoa ipinita, bildur eta ikara barik jarraitzen eban bere arloan aurrera. «Jazarkundea itzala da, persekuzinoa guztiz gogorra—dino karta baten—, baina ni bizkaitar ona lez, sendo ta adoretu nabil.»

Iru urtean Balentinek igaro, sufridu ebazan lor eta nekeak itz gitxitan ezin adierazo leiz. Arerioak ur ebiltzala jakinik, Amaltó bere lagunagaz bateltxo baten ezkutau bear izan zan. Andik be iges egin eben, baina norbaitek salatu ebazalako, egun gitxi barru biak arrapau ebezan eta Hai-Duong eritxon urira ekarri. Urian sartu baino len, ango jauntxuak

lurrean gurutzea ipini ta zapaldu egiela agindu eutsen. Balentin etorren aurretik eta sendoro erantzun eban: «Gu geure sinestearen alde bizia emoteko gertu ta prest gagoz; gurutze ori ortik kendu ez badagizue, narraz izan ezik, ez gara aurrera joango».

Kendu eben gurutzea ta Balentin eta bere laguna orduan sartu ziran urira. Ango agintariaren aurrera eroan ebezan lenengo eta onek itaun bazuk egin ondoren, Hermosilla ta Khang egozan presontegira. Khang bertako semea zan; beste irurak kanpotarrak zirala-ta, onein kontra arrapalaka baten emon eban agintariak eriotzako epaia ta irurai egun baten kendu eutsen bizia be. Balentinen burua lenengo aizkorakadan jausi zan lurrera, ta bere gogoa, bere arimea, gorputzeko lokarriak urraturik, berealaxe igon zan zerura, ainbeste maite eban Jaunagaz betiko zoriontsu izatera.

### III

Berriotxoak Jaungoikoari izan eutsan maitasuna, ikusi dozuen lez, mailarik maila, igonez joan zan, gero baino gero gorago. Jaunaren maitasunarren itxi ebazan bein betiko lurreko aukera ta ogasunak, itxi eban bere erria, itxi ebazan bere guraso maiteak. Au maitasun zintzoa da. Jaunaren maitasunarren, bere ezagun eta aiskideak be itxita, lur urrunetara, ezezagunen artera joan zan, eta au maitasun andiagoa da. Jaunaren maitasunarren, Tonkingo lur garratzean, arerioen artean, gosez eta egarriz, nekez eta lorrez ibili zan arimen bila, Jaunarentzat arimak irabazi nairik, bere osasun eta biziiaz aitzuta. Au maitasun zindo, bero ta indartsuagoa da. Eriotzearen aurrez aur be, Jaunari zor eutsan maitasuna ez ukatzearen, sendoro autortu eban bere sinestea; kemen eta adore andiz ipini eban aizkorapean bere burua. Au maitasunik zintzo ta ederrena da, maitasunaren gorengo mailea. Jaunak esan eban: *«Majorem hac dilectionem nemo habet, ut animam suam ponat quis pro amicis suis.* Aiskideen alde —esan nai dau—, maite dauanaren alde bere bizia emoten dauanak baino maitasun andiagorik inok be ez dauko». Balentinek maite eban Jaunagaitik bere bizia pozik emon eban, eta bere bizia pozik emon eban ezkeru, Jaungoikoa maitasun andiz maite ebala-ta, augaitik, santu andia dala autortu bear dogu.

### IV

Elorrioko seme ospatsu ta santu andi onen gorpuzkinak, bere azur agurgarriak, 1886garren urtetik ona, ementxe datzaz, eleiza onetan

dagoz. Balentin zorioneko zala 1906garren urtean erabagi ta adierazo eban gure Ama Eleizeak. Bizkai osoa pozez eta joranez bete ta birloratu zan. Orduan, bere gorpuzkinai dedu, lotsa ta itzal andiagoa zor jakela-ta, leku eder eta eregiagoan ipini ziran. Andik laster Bizkairik geiena emen zan eta Balentinen aintza ta goran, elizkizun eta jai andi ta ospatsuenak egin ziran Elorrion.

Baina igazko Gabon-jaietan, abenduaren 27tik 28ra bitarteko gabe-an, donauzteko<sup>796</sup> lapurretea egin zan emen. Lapurrak, lotsagabeak beti izan dira-ta, zidar pizka bat geiago ostutearren, Balentinen gorpuzkinai be itzala ukatu, lotsea galdu eutsen. Lapurrak egindako irainaren orde, lotsa, itzal eta maitasuna erakutsi ta aren ordaina emoteko, Bizkaiari dei egin jakon eta aurten Bizkaiko alde guztietatik kistinauak aurrez etorri dira ona... Balentin Manilara eroan eban itxasuntziko burua, kapitana, bermeotarra zan. Balentinen gorpuzkinak andik ona ekarri ebazan untziburua, mundakarra. Au dala-ta, itxasaldeko erriak Balentin Deunagaz berarizko zerikusia dauke ta berarizko artu-emonu euki bear dabela dirudi. Erri orrein izenean gatoz gaur ona, Balentin Deunaren azurrai, Bizkaiaren aintza edo gloria, Bizkaiaren omen eta apaingarria dan santu andi onen gorpuzkinai, geure lotsa ta itzala, geure abegi maite ta lastana agertu ta erakusteko. Asmo ori on-ona da, txalogarria da; egin eta bete bear genduan asmoa da. Albait ondoen egin daigun, bete daigun! Balentinek, bere bizitza zuzenaz, bere eriotza arri-garriaz andietsi, aintzaldu ta goratu eban bere ta gure erria. Augaitik, guk be bere izena ta bere gomuta lastangarria ospatu ta goretsi bear doguz.

Auspaztu gaizan bere aurrean, eta pozez eta eskar onez esan daio-gun: geurea zara, maite zaitugu. Zeure odola isuriaz gure Jaungoikoa goratu zendun, eta guk be, al bestean, goratu nai zaitugu. Zeure zeregin guztietan igitu ta erabili zinduzan Jaunagazko maitasun eder ori, gure biotzetan be sortu, biztu, geitu ta sendotu egizu, emen zeure jarraitzaile ta zeruan zeure lagun izateko zoriona euki daigun.

<sup>796</sup> *Donauste*: sakrilegio.

## LXII

Abadiño, 1925

### KISTINAU-IKASBIDEAREN JAIA

«*Sinete parvulos, venire ad me, et nolite prohibere eos ad me venire; talium est enim regnum coelorum.*»

«Umeai nigana etorten itxi egiezue, ta ez egiezue galerazo, zeruko jaurreria olakoxeena da-ta.»

(Math. 19, 14)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Gure Jaunak Judeako erri baten bere legea irakasten ziarduan; bere ikaslak bere inguruan egozan eta lagun-aldra andia ixil-ixilik, Jaunari entzuten. Otoz otoan zurrumurrua, berbotsa zabaltzen da entzuleen artean. Zarata ori zala-ta, Jauna be ixildu egiten da. Zer izan ete da? Guraso asko, euren umetxuak besartean dabezala, entzuleen artetik bidea idegita aurrera datoz. Euren umeak Jaunari aurkeztu nai dautsez eta bere onespén edo benedezinoa umcentzat eskatzeko asmoz, Jauna dagoan lekuraino eldu nai dabe.

Ori ikusirik, Jaunaren ikaslak aserratu egiten dira. «Zer dakazue? –dinotse–. Zeuén umeok Jaunagana ekarteko, au baino aldi obe ta ego-kiagoa ezin itxaron izan dozue? Epebakook! Bere itzaldia be eragotzi edo galerazo dautsazue. Zoaze atzera, ken emetik, eta ez etorri, geu asti geiagoz ez gagozan arte!»

Ikaslak egin eben au, eurak baietz uste izan arren, Jaunak ez eban ontzat artu. Bere arpegia ikaslakana itzulirik, dinotse: «*Sinete parvulos, venire ad me, et nolite prohibere eos ad me venire; talium est enim regnum coelorum.* Umeai nigana etorten itxi egiezue ta ez egiezue galerazo, zeruko erreinua olakoxeena da-ta» (Math. 19, 14).

---

<sup>797</sup> Hirugarren eskuizkribu-liburuari jagokoz gai hau dakarren berbaldiak.

Eleizako guraso batek dinoanez, gizon bakoetak beragan gauza bi daukaz: Jangoikoak egin dauksan ona ta berak, bere kabuz, egin dauan gaiztakeria. «Zeure gurez, zeure erruz egin dozun gaiztakeri ori ikuzi, garbitu ta kendu egizu –dino Eleizako irakasle onek–; eta Jangoikoak zugan egin dauan ona jagon, zaindu ta zorionerako bidean ipiniko dau.» Jaunari ekarri eutsezan umetxu aek, euren erruz egindako gaiztakeririk ez euken, umetxu aetan Jaungoikoak egindako ona baino besterik ez egoan; eta on ori zala-ta, Jesukistok, bere itzaldia ebagirik, umeak abegi onez artu, maitaro laztandu ta onetsi edo bedeinkatu ebazan bere irakle ta entzule guztien aurrean.

Eleizeak be, bere Jaunagandik ikasita, beste orrenbeste egiten dau. Guztien ardurea dauko, baina berariz, umetxuena. Zeruko bidea, entzun nai daben guztiai irakasten dautse; baina umetxuen biotz samurra, oraindik bere erruz gaiztotu ez dan biotz ori, Jaunaren irakaskizunak artzeko egokiago dala, grina dongez beterik dagozan andien biotzak baino geru ta prestago dagoala badaki, ta ori dakialako, gaztetxuai, oraindik ume dirala, kistinau-ikasbidea, kistinauaren dotrinea ardurarik andienaz irakatsi daiogula agintzen dauku. Eta egiz neska-mutiltxuai kistinau-ikasbidea arduraz eta ondo irakasteak inok uste dauan baino leba, garrantzi edo inportantzia geiago dauko. Nire itzaldi onen gaia, orixe izango da; al bait laburren eta argiroen orixe adierazo nai neuskizue. Baina orretan asi orduko, oitura dan lez, Jaunaren aurrean auspaztu gaizan eta bere laguntasuna eskatu daiogun.

## I

*«Sinete parvulos, venire ad me, et nolite prohibere eos ad me venire.»*

(Math. 19, 14)

N(eure) entz(u)le mait(eok), gizonaren biotza gazte-gaztetatik, txarrrera, gaiztora itzul eta makur dago. Ori geurez dakigu, baina geurez ez bagenki be, Jangoikoak dinosku: *«Sensus enim et cogitatio humani cordis in malum, prona sunt ab adolescentia sua»*. Gure biotzak arnari edo frutu onik emongo badau, zuek nekezariok lurraz egiten dozuena gure biotzaz be egin bear da. Lenengo gurasoen oben edo pekatuaz aen ondorengo guztioen gogo ta biotzak gaiztotu ziran. Ori zala-ta, lurak be Jangoikoaren maldezinoa bere gainean daroa: *«Maledicta terra in opere tuo; in laboribus comedes ex ea onmibus diebus vitae tuae. Spinis et tribulos germinabit tibi»*. Madarikatua lurra; zeure neke ta izerdiz atera bearko dauksazu zeure janaria; berez, arantza, lar eta sasiak baino ez dauksuz emongo-ta» (Gen. 3, 17-18).

Nekezariok, lurrari emon eragiteko, zer egiten dozue? Sasi ta bedar txarrak kendu, lurra giau ta landu, azi ona erein eta indar emoteko, ongarrria ezarri, ongarrria bota lur landuari. Gure gogo ta biotzaz be beste orrenbeste egin bear da. Gure arimea gorputz barruan bizi da, aragia bere lagun dau ta onen irrits, grina ta gurariak beretzat artu daroaz sarri. Aragiaren irrits, grina ta makurkeri oneik lurreko bedar txarrak lez dirata, lur lantzen dinarduan nekezariak bedar txarrak kentzen dituan lez, arimak landu nai badoguz, orretan gabiltzan bitartean, irrits eta grina gaiztoak kentzen be ekin bear dautsagu.

Lurra landu ta gero, nekezariak soloan azi onak ereiten dabez; arima ta biotzetan be, orixe berori egin bear da. Adinaren jakia egia dadata, umeen adinean egiaren azia erein bear dogu; naimen eta biotza, gauza on eta zuzenak maitatzeko eginak dirata, umeen biotz samurretan, grinak jagi ta indartu baino len, gauza on eta zuzenen aziak erein bear dira.

Edozein egi ikasiaz, gure adina, gure gogo argitu egiten da; baina beste jakintza batzuetan ikasten doguzan egiak, andi ta ederrenak izan arren be, geien joakun arazoan, geien ardura dauskuen gauzetan, sarri ilunean edo erdi ilunean isten gaitue. Geien joakuzan gauzak, onexek dira: nondik gatozan, munduan zetarako gagozan, nora goazan, eriotz ostean gugaz zer izango dan; gure asikerea zein dan, egin gaituan Jau-nak zelako eginbearrak ipini dauskuzan; zor dautsagun eskar ona zelan eta zegaz agertu, erakutsi ta ordaindu geinkeon; zelako azken, azaga edo elburua ipini dauskun, zein zorionerako autu gaituan eta ori jadetsi edo eskuratzeko, zer egin bear dogun. Beste gauza asko jakin arren, ori ez dakien gizonak ezertxu be ez dakiala uste izan daike; geien joakon gauzarik ez daki-ta, geien ardura dautsen gauzetan, itsumustuan dabil-ta. Ori ez dakianak ezer ez dakiala uste izan begi. Baina orreik gauza guz-tiok kistinau-ikasbideak irakasten dauskuz; augaitik, kistinau-ikasbidea jakintza guztien artean bearrena dogu.

## II

Lurrean izan diran gizonik jakitunen esakunak, Sokrates, Platon, Aristoteles, Zizeron eta beste gizon zur eta bizkorrenen esanak liburu-txu baten bildu edo batu eta urrengorik urrengora ipiniko bagenduz, zer irakatsiko leuskigue? Gauza ederrak, zinez; baina kistinau-ikasbideak irakasten dauskuzanen ondoan, uskeri utsak, ezer be ez. Egirik andi ta bearrenak kistinau-ikasbideak irakasten dauskuz. Gure Egile dan Jangoi-koa, izatez bakarra, notin edo personaz irukotxa, Aita, Seme ta Espiritu



Santua azken barik zoriontsu izateko, beste inoren eta ezeren preminarik ez daukana, baina bere jakituri, al eta anditasunak agertu ta erakusteko, inok eta ezek beartu barik, mundu andi ta zabal au egin eban Jauna. Azkenez, gizona egiten dau, bere antz eta irudira, on eta zuzena, bere eskar eta doez aberats eta ornidua; baina gizonak bere aukerarena, bere libertadea, txarto erabiliaz, Jaunak emon eutsazan zuzentasun eta zoriona galtzen ditu, Jaunak ipini eban mailatik bera jausten da, ta bere buruari lez, bere ondorengo guztiai be, neke, atsekabe, zoritxar, geixo ta eriotzea dakartsez.

Bere irudira egin eban gizon gaxoa. Jauna barrero gomutetan da; bere erruki ta maitasuna iragarri ta erakusteko, bere Semea bialtzen dau lurrera. Jangoiko Semea gizonaganaino jasten da ta bere izatea arturik, gizona Jaungoikoaganaino eregi ta jasoten dau. Jangoiko ta gizonen bitarteko izatearren, bere Semea Mariaren errai garbietara jatsi da ta izate biak, jangoikotasun eta gizatasuna, beragan batu ta alkartu ditu. Gizonen bila etorri da ta bere zorionera eroateko, zeruko bidea argi ta garbi erakutsi dautse; berak irakatsi ebazan egiak, munduaren azkeneraino iraun egien ezetan be ilundu ta aldatu barik, bere Eleizea irasi edo ipinten dau. Jaunak asikeran emon eutsan arimako bizia, gizonak bere erruz galdu eban; baina Jesukistok gurutzean bere bizia emonaz eta gizonari bigarrenez jaloaraziaz, galduriko bizitza ori barrero emoten dautso. Kistinau-ikasbideak oneik gauza guztiok bere lenengo atalean irakasten dauskuz. Gauza andi, eder eta osasungarriagorik, non ikasi geinke?

Jangoikoaren legea irakatsiaz, umeen biotzetan gauza on eta zuzenen aziak ereiten doguz. Jangoikoaren Legea! Amar Agintzak! Guztiok ondo beteko bagenduz, bestelako bakean biziko ginake! Orreik ondo ta zeatz beteko bagenduz, beste legeren premina edo bearrian andirik ez legoke. Betetan ez doguzalako, ainbeste lege euki arren be, guztiak nainko ez doguzala bizi gara.

Nekezariak, azi onak erein orduko edo erein ta gero, lurrari indar emoteko, ongarria bota ta ezarten dautse. Umeen eta ume ez diranen biotzetan ereindako azi onak be, curai dagokiezan arnari edo frutuak emon dagiezan, goiko inontz-indarra bear dabe; indar ori Jaungoikoaren eskar edo graziak emoten dautse. Baina grazia ta laguntza ori zelan lortu ta eskuratu geinken be, kistinau-ikasbideak bere bigarren eta laugarren atalean irakasten dausku. Onelan, kistinau-ikasbideak, liburu txikia dala, ikaskizunik andi ta ederrenak emoten dauskuz; zentzudun gizonari dagokion bizitza on eta zuzena egiteko, lenen eta aurrenen jakin bear doguna, liburu txiki orretan ikasi geinke.

## III

Eta egiz, jakituririk andiena, gizonarentzat bearren dana, liburu txiki orretan dago. «Jakituriaren jabe, gure Jangoikoa da. *Deus, scientiarum Dominus est*» (I Reg. 2, 3). Aita Jangoikoak bere jakituria, betiko jakituria dan Semea bialdu eban lurrera eta, S(an) Joan Apostoluak dinoskunez, Jangoikoaren Seme au da, mundura datoza gizon guztiak argitzen dituan egiazko argia: «*Luz vera quae illuminat omnem hominem venientem in hunc mundum*». Jesukistok irakatsi ebazan egiak Ebanjelioan dagoz. Onelan Ebanjelioa Jangoikoaren jakituria da; baina Ebanjelioko egirik andi ta bearrenak, argi ta garbi, urengorik urengora ipinita eta edonok errez aitu ta ulertzeko eran kistinau-ikasbidean dagoz. Augaitik, kistinau-ikasbidea irakatsiaz, Jangoikoaren jakituria irakasten dogu. Gure Jaunak bein baten bere entzule ziran judatarrai esan eutsen: «*Mea doctrina non est mea, sed ejus qui misit me*. Nire irakaskizunok nireak ez dira, ni bialdu ninduanarenak baino». Guk be bardin esan geinke. Guk irakasten doguna ez da gure jakituria, bialdu gaituan Jesukistoren jakituria baino.

Kistinau-ikasbidea Ebanjelio laburra da; Jesukistoren Ebanjelio laburra dalako, Jesukistoren jakituria da; Jesukistoren jakituria dalako, liburu ori goian eta bean dagozanen, andi ta txikien, aberats eta txiroen, agintari ta menpekoen liburua da. Liburu onek dinoskunez, andiak ez dira txikiak zapaltzeko, onein ardurea eukiteko baino; aberatsak ez dira aberats, euren ogasunak zorakerietan eralgi eta nai daben lez, oitura ta ekandu txarrez biziteko, beartsuai erruki izan eta enparetan jakenez, geiegi daukenaz onein bearrizanak arindu ta gitxituteko baino. Agintariak errien onerako ipiniak dira-ta, menpekoak lotsa ta itzala zor dau-tsez; baina agintariak eurak be euren agintza ta eskubideak menpekoen onean erabili bear dabez.

Jangoikoaren legea gure biotzetan ondo josita balego, kistinau-ikasbidearen irakatsiak gizonen gogo ta biotzetan ondo sartu, ondo barrenduko balira, zuzentasuna litzake munduan nagusi ta Jangoikoa, gizon eta errien Ugazaba, Jabe ta Agintari. Orduan bakez eta zorionez biziko ginake: bakez, zuzena ta bakea alkarren lagun dira-ta; zorionez, Jaungoikoak gure ardurea eukiko leuke-ta. Orduan egiz esan al izango geunke: «*Beatus populus, cujus Dominus Deus est*. Jangoikoa bere Jabe ta Jaun dauan erria, erri zorientzua da». Aranetako lora ta lilien, eta egaz dabiltzan txori ta egaztien ardurea daukan Jaunak, bere erri ori berarizko arduraz, maitasun bereziz jagon eta zainduko leuke, ta erri ori Jaunaren itzalpean, benetan zorientzua izango litzake.

Zorion onen sustrai, eustazpi, zimentu, kistinau-ikasbidea da. Geu guztiz eta osoro Jangoikoarenak bagina, Jangoikoa be gure Jaun maitatsu, gure Aita on, errukior eta samurra izango litzake. Baina geu Jangoikoarenak izateko, lenen eta aurrengo kistinau-ikasbidea ikasi, geure bizitzearen neurri ta arautzat artu ta berak dinauskun lez bizi ta berak irakasten dauskuna zeatz eta osoro egin eta bete bear dogu.

Onenbestegaz amaitu dot. Gaurko jai au zetarako dan badakizue. Umeak kistinau-ikasbidea ikastera, ta gurasoak euren umeai irakastera igitu, bizkortu ta zaletu nai doguz. Jauna guztioi lagun bekigu, betiko zoriona guztiok jadetsi daigun.

## LXIII

Iurre

### KISTINAU-IKASBIDEAREN JAIA

«*Quae enim seminaverit homo, haec et metet.*»

«Gizonak erein dagiana, orixe batuko dau.»

(Galat. 6, 8)

«*Sinite parvulos ventre ad me.*»

«Umetxuai nigana etorten itxi egioezue.»

(Marc. 10, 14)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Jesukisto gure Jauna umezale andia izan zala Ebanjelioan argiro ikusten dogu; euren biotza gaiztakeriz orbandu ez eben umetxuak maite-maite zituan Jaunak. Bere ikaslai esaten eutsen: «Ume antzeko egin ez bazaiteze, zeruan ez zarie sartuko. Umeai nigana etorten itxi egioezue ta ezelan be ez egioezue galerazo. Errugabeak dira-ta, zeruko zoriona olakoxeena da; umeak lez errugabe diranak, irabazi, lortu ta eskuratuko dabe. *Talium enim est regnum coelorum*». Abadeok, Jesukistoren ordeko ta bere bialduak gara. «Ni Aitak bialdu ninduan lez –esan eutsen Jaunak bere ordeko abadeai–, nik zuek bialtzen zaituet. Munduko argi ta lurreko gatza zuek zarie; zoaze ta erri guztiai irakatsi egiezue. Gizonen adinak ilunez okertu ez daitezcan, nire argiz argitu egizue; biotzak aragiaren lizunkeriz usteldu ez daitezcan, nire gatzaz zindotu ta sendotu egizue.»

Jaunak zinez gizaseme guztiak maite ebazan, baina ume errugabeak berarizko maitasunez. Jaunaren ordeko garean abadeok be, geure irakasle ta buru dogun Jaunaren oinatzai jarraituaz, umeak maite-maite izan bear doguz; umeen aziera onari berarizko ardureaz begiratu bear dautsagu. Oraingo umeak geroko kistinau onak izan daitezcan, Jaunaren Eleizan arnari bikainak, frutu ederrak emon dagiezan, umezaroan euren biotz samurretan azi onak ereiteko ardurea euki bear dogu.

*Jaungoiko-Zale* deritxon batzarrak sortu zan egunetik artu eban

asmu au. Eleizate baxotxean kistinau-irakaskintzarako bazkunak sortu ta bertoko abadea zuzentzaile zala, umeai kistinau-ikasbidea, Kistoren dotrina azaldu ta irakasteko asmua eukala ta orretarako bear ziran aleginak gogor egingo ebazala bere arautegi edo erreglamentuan dino. Geure arautegian iragarri genduan asmu oni indar geiago emotearren, umeak be poztu ta aurrerantzean gogo obeaz ikasteko azkortu ta bizkortu daitezcan, gure batzarreko zuzentzaile diran jaunak aurten emen inguruko erri batzuk autu ebezan eta erri oneitako umeen artean sarike-ta bat egitea erabagi eben. Ondoen ikasi daben umeai sariak emotea dala-ta egiten dogu gaurko jai au.

Gaurko umeak biarko gizonak dira; gizonak, gizon eta batez be kistinau on izateko, gauza bi bear ditu: egia jakin eta zuzena maitatu. Bere adinean, bide zuzena erakutsiko dautsan egiaren argia; bere biotzean, gauza on eta zuzenak egiteko maitasun eta indarra bear ditu. Kistinau-ikasbidea ondo ikasi dagiana bear dituan gauza bi orrein jabe egingo da. Goiz onetan orixe azaldu ta adierazo nai neuskizue. Aurrera jarraitu baino len, Jaunaren aurrean auspaztu gaizan eta bere laguntasuna eskatu daiogun. Gizonen argi ta osasun izateko hurrera etorri zinan Jaunorrek, gure adinak argitu, gure biotzak berotu egizuz. Gure eskari au abegi onez artu dagizun, zeure ta geure Ama bitartekotzat ipinten dogu ta zerutik jatsirik Aingeruak egin eutsan agurra, biotz-biotzez dinotsagu.

## I

*«Quae enim seminaverit homo, haec et metet.»*

(Galat. 6, 8)

N(eure) entz(ule) mait(eok), gizasemea bere bizitzako arazo ta zereginetan burpil bik darabile; gizona darabilen burpil oneik, bere adime-nean daukan argia ta bere biotzean nagusi dan maitasuna dira. Eretxi ta maitasun okerrak dituan gizona, geienez beintzat bere egikizun eta zereginetan be oker, Jaungoikoaren bidetik urrun ibiliko da. Jaungoikoa, berberak dinauskun lez, egia ta maitasun garbia da; zeruko bidetik ibili nai leukenak, Jaungoikoaren egia ikasi ta bere lege zuzena maitatu begi.

Egia gure gogoentzat argia da; gorputzeko begientzat eguzkiaren argia baizen ederra ta ederragoa. Aspaldian gizasemerik asko ernai ta bizkor, ardura ta arreta andiz egiaren bila ibili dira. Beinola ezkutuan, estalduta egozan egi asko ediren edo aurkitu dabezala-ta, jakitun usaineko batzuk andikeriz arrotuta dabiltz. Jakintza askotxutan aurreratu gareala ezin ukatu ledi; baina aurrerapide orreik gorabera, gizonen jaki-

turia orain be labur asko da.

Lorarik lora dabilen erlea lez egiaren bila dabilen gizona be, orain oni, gero besteari ikutuka dabil; emen pizka bat, an beste pizka bat arzen dau. Geienez, ikasten dituan gauzai arpegi batetik bakarrik begiratzten dautse; alde guztietatik, era batera, ikusi ta ikasi, ezagutu ta argitzen ez daki ta au ez dakialako, egi osoaren jaube bere indar utsez ezin egin izaten da. Gizonik argienak arrokeriz beterik irakasten dauskuen jakituri ospatsu ori, egiaren atal edo zati bat, jakituriaren alde bat edo beste baino ez da izaten.

Egi osoa Jesukisto da: *«Ego sum veritas»*. Jesukisto, dakizuen lez, Aita Jaungoikoaren Semea, adinez datorren bere irudi bizia, Aitaren Itza ta Jakituria da; augaitik, Egi osoa.

Jaungoikoak bere izatea ezagutuaz beste barik, izate orren antzera, izate ori eredu zala, egin ebazan beste gauza guztiak be, erroz eta sustraiz, osoro ta argiro ikusi ta ezagutzen ditu; baina Jaungoikoak bere izatea bere Semeagan ispilu baten lez ikusten dau, eta egindako gauza guztiak be bardin. Semearen bidez eginak diralako ta berau barik ezertxu be egin ez zalako, *«Omnia per ipsum facta sunt et sine ipso factum est nihil quod factum est»*; orixegaitik egindako gauza guztiak be, Jaungoikoak bere Irudi bizia, bere Itza, bere *Verboa* dan Semeagan, ispiluan lez dakusaz, direan lez ezagutzen ditu. Augaitik, Jesukisto Jaungoikoaren Jakituria ta Egi osoa da.

Lorak euren usain gozoa inguru guztian zabaldu oi daben lez, Jaungoikoaren egia dan Jesukisto gure Jaunak be gizartean agertu ta egiaren argia zabaldu eban. Jaunak irakatsiriko egirik nagusi, osasungarri ta bearrenak kistinau-ikashidean, laburtxu bai, baina sustraiz ta zeatz, argiro ta garbiro irakatsi, azaldu ta adierazotén jakuz... Jaungoiko bat, izatez bakarra, notin edo personaz irukotxa; azken gabe zoriontsu izateko, ezeren eta inoren priminarik euki ez arren, bere almen eta indarra, bere jakituri ta aintza erakusteko, inok beartu barik eta maitasun utsez, gauza guztiak egin ebazan Jauna.

Gizona, aingeru gaiztoak zeruan utsik itxiriko jesarlekuak betetako, Jaunak egin eban gizona... Lenengoan Jaunaren eskar edo graziaz, zuzenez eta edertasun zoragarriz apain eta ornidua; gero, bere aukerarena oker erabili ta gaiztakeria egin ebalako, edertasun guzti orreik galdurik, zerurako eskubide barik, bere lenengo maila eregi, goratu aretatik jausita, zoritxarreko bidean zear...

Barriro Jaungoikoa bere errai samur, errukior eta bigunak idegi ta gizonen osasunerako bere Semea lurrera bialtzen... Seme Jaungoikoa lurrera jatsi, gizatasuna beragan artu, gure izatez jantzi... Jausita egoan izate au barriro jaso, eregi, zerurako bidean ipini, arako bidea erakutsi,

orretarako bear eban laguntasuna eskini ta emoten... Ori guztiori ta askozaz geiago be kistinau-ikasbidearen lenengo atalean ikasten dogu. Zinez, kistinau-ikasbidea liburu txikia da, umeak euren eskuetan erabilten dabe; txikia dalako ta umeak erabilten dabelako, gizon askok ez dabe aintzat artzen. Baina egirik andienak, bearrenak, osasungarrienak liburu txikitxu orrek irakasten dauskuz.

Esan ezpabe, gizonak lenen, aurrenen, beste ezer baino lenago jakin bear leukena, zer da? Nondik datorren, nora doan; mundu onetan zetarako dagoan; bere elburua zein dan; bere zoriona non dagoan eta zein bidetatik jadetsi daiken. Gizonak ori ez badaki, zer daki? Ori ez jakitekotan, aurrerapideak egiteko asmoz buru austen ibiltea, zetarako dau? Aspaldian aurrerapideak gauza askotan egin dira; baina egin diran aurrerapide orreikaz gizona bera be aurreratu ete da? Aurreratzea oberantz egitea da; gizonarentzat aurreratzea ta bere burua obetu, zuzenago ta orniduago egitea, gauza bat dira. Anditzat daukaguzan aurrerapide orreikaz, gizona obetu ete da?, zuzenagotu ete da?, bere burua ontasunez orniduago egin ete dau? Ez? Ba, orduan gizonari geien joakon arazoan, geien ardura dautsan zereginetan, ezertxu be ez gara aurreratu; gure esakun zarrak dinoan lez, «zahietan zio<sup>798</sup>, urunetan ero» izan gara. Gizonarentzat egirik bearrenak bere buruari, bere gogo edo arimearen osasunari dagokiozan egiak dira ta orreik kistinau-ikasbidean izan ezik, beste inon ezin ikasi daikez.

## II

Jagon eta egin eta bete bear dogun zuzentasuna be kistinau-ikasbidean irakasten jaku. Geure Jaungoikoaz, geure geide edo projimuaz eta geure buruaz daukaguzan eginbearrak, liburu txiki orretan ikasten doguz; geure Jaunari zelako maitasuna zor dautsagun, geure geideaz daukaguzan artu-emonetan zelako zuzentasuna gorde bear dogun; geure buruai zer zor dautsegun... Ori guztiori kistinau-ikasbidean zeatz eta osoro ikasi daroagu. Egiz, zuzentasuna jagoteko gizonak asmau ta ipini dabezan legeen ondoan, Jaunaren legea laburra da, agindu gitxi daukaz; baina lege askogaz gizonak agindu dabezan gauza zuzen guztiak, ortxe, Jaunaren lege labur orretan dagoz. Gizonak Jaunaren lege eder au euren biotzetan ondo barrenduko halebe, bere amar aginduak gizonen gogo-biotzen jaube oso egingo balira, guztiok eta baktokak,

<sup>798</sup> *Ziogi*: zuhur, zentzundun.

gizon ta erriak, zintzoro beteko bagenduz, gizartea bake andian biziko litzate, beste legeren bearrizan andirik ez legoke, gizonak ipinitako lege oneik bete eragiteko, daukaguzan ainbeste jaurle, agintari ta errizain ez litzakez bear izango; lapurretak, eriotzeak, aurrekoai kalte-egiteak, gorroto, aserre, burruka, gudu edo gerrak ezagutu be ez. Kistinau-ikasbideak darakuskun Jaungoikoaren egia aintzat artu ta bere argiari jarraituko balitzakeo, bere legea zeatz beteko balitz, bestelako bakean biziko ginake.

### III

Lurreko agintariak legeren batzuk ipinten dauskuezanean, lege orreik bete al izateko indar eta laguntasunik ez daukue emoten; baina Jaunak bai, bere legea betetako bere eskar, grazia ta laguntasunak agindu ta eskini daukuz. Gurari ta asmo onetan gure biotzak indartu ta sendatzen dabezan goiko eskar eta laguntza orreik, otoitz edo orazino ta sakramentuen bidez lortu ta eskuratu geinkez. Baina zeruetan zelako Aita samur, errukior eta maitalea daukagun; Aita samur onen laguntasuna ugari ta oparo jadesteko, zelan eskatu bear dautsagun; graziaren iturri diran sakramentuak be osasungarri izateko noz eta zelan artu bear doguzan, kistinau-ikasbideak azaldu ta adierazoten dausku.

Beraz, kistinau-ikasbidea ondo ikasi dagiana egia ta zuzenaren jabe egiten da; bere adinean Jaungoikoaren egia, bere biotzean Jaunaren legea daroaz: bere adina goitiko egiaren argiaz, bere biotza Jaunaren legeaz zuzentzen ditu. Zinez, gizon artez, zeatz ta ona izateko, egi ta zuzenaren ezauera soil eta uts ori ez da naiko: egia edonon eta edonoz autortu bear da; zuzena be guztiakin jagon eta gorde, egin eta bete bear da. Baina onetarako gizonak bear dauan Jaunaren laguntasuna, goiko indar eta kemena, zelan lortu daikezan be kistinau-ikasbideak bigarren eta laugarren atalean irakasten dautso.

Gizonak, gizon izateko, ori baino besterik ez dauala bear; ori jakin ezkerro, beste enparauak ikasi barik itxi leikezala, olakorik ez dinot. Baina jakintza guztien artean bearrena orixe dala inok ukatu balegi, itzarrik amesetan diarduala erantzungo neuskio. Gizonak bere inguruan daukazan gauzak eta gauza orrein indarrak erabilten jakitea ondo dau; baina bere buruari dagokiozan arazoak zuzen erabilten jakitea, ori baino bear-rago. Beste gauzak ondo ezagutu ta zuzen erabilten ikasi ta gero, bere arazo ta egikizunetan oker ibili dalako, bere burua galdu balegi, gizon ori jakituna baino obeto zoro garbia izan dala esango geunke. Gizonaren jakituririk bearrena, andi ta bikainena bere bizia Jaunaren aiskideta-



sunean amaitzea da. Bizitza onen ostean betiko zoriona eskuratzeko bidetik dabilen gizonak jakin daki; beste enparauak, orren ondoan, gixi baino ez dakie.

Onenbestegaz amaitzera noa. Gaur gure Ama Eleizeak Jesusen odol ederraren jaia ospatzen dau. Jaunak, gure zorrak ordaindu, gure orbanak garbitu ta guri zeruko atea idegiteko, bere odola isuri eban. Zidar ta urrez ez ginduzan Jaunak erosi, bere odol ederrez baino: «*Redempti pretioso sanguine*». Bere odolaz erosi ginduzan Jaunak, gure gogoen eta gure biotzen jaube izateko eskubide osoa dauko.

Eskubide osoa daukan ezkeru, gure gogoetan bere egiak argi egin begi; gure biotzetan bere legea bizi bedi ta beragazko maitasuna izan bedi nagusi. Ori egin ezkeru Jaunari dautsagun zorra, zelanbait ordainduko dogu; geure Jaunagaz eskar oneko izan eta agertuko gara ta, Jaunak, bere egian iraun, bere zuzena gorde, bere legea bete ta bera maiteen izan dogulako, gure osasuna nai daben Jaunak, zeruko atea idegi ta bere maiteentzat an daukan zoriona emongo dausku.

## LXIV

Markina

### KISTINAU-IKASBIDEAREN JAIA

*«Dei enim adjutores sumus;*

*Dei agricultura estis.»*

«Gu Jangoikoaren langileak gara;  
zuek Jangoikoaren alorra, lur landua zarie.»

(I Corint. 3, 9)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Gaurko jai ta elizkizun oneik, kistinau-ikasbidean dabiltzan, ori ikasten diarduen umeak dirala-ta, egin eta ospatzen doguz. Neska-mutiltxuai kistinau-ikasbidea ondo irakastea, berez lan ixil eta apala, entzute gitxi-koa izan arren, dirudien baino eginen andi, astun eta onuratsuagoa da.

Amalau urte baidira ordutik ona, Bizkaiko Abadeen Alkartasun au sortu zanezkoxe, kistinau-ikasbidea, dotrinea, umeai ta ume ez diranai be bai, baina batez be umeai albait ondoen, arteetan baino obeto, ardura geiagoz irakasteko asmuak artu ebazan. Orduan idatzi zan gure arautegiak, erreglamentuak, bere lenengo ta bigarren arauetan ori argiro dino:

1. Euskaldunai kistinau-ikasbidea, Jaungoikoagazko lotsa, itzal eta maitasuna albait geien eta ondoen irakatsi ta antxinako oitura, ekandu onetan iraun eragitea, gure Alkartasun onen asmu nagusia, bere egikizun eta zereginik andiena, orixe da.

2. Orretarako, gotzain edo obispo jaunaren menpean gure Alkartasun onek gogoz lan egingo dau kistinau-irakaskintza batzarrak eleizate guztietan sortu ta ipini daitezcan eta sinesteko egiak euskaldun umetxuui, euren izkuntzaz, irakatsi dakioezan, eleizetan abadeen ardurapean eta, al dala, eskoletan be bai, obispo jaunak orretarako izentau dauan liburu erabiliaz.

Lenengotik orixe zan gure asmua ta asmu orri ekin geuntsan. Baina azken urte oneitan, umeen biotzak berotu, gurasoak zirikatu eta eginen

eder onetan diarduen abadeai pizka bat laguntzeko, erri baten edo besteetan berarizko jaiak be egin doguz. Aurten Markinara etorri gara, Mogel osaba-llobak bizi ta il ziran uri onetara. Batak eta besteak ainbat liburu eder egin eta argitaldu ebezan euskeraz eta eurai eskarrak, batez be, Markina ta bere albo-errietako euskereak ospe ta entzute andia euki dau ta dauko.

Mogel zarra Eibarren jaio zan, gaztea Deban; baina euren bizitzarik geiena emen Markinan emon eta igaro eben. Luzaroan osabea baino llobea luzaroago, baina biak luzaro eleiza onetako abade izan ziran eta augaitik bizitzaz eta biotzez markinarrak izan zirala esan daikegu. Abade bi oneik euren euskeraz ospe ta entzute andiko egin eben uri au autu dogu, aurtengo umeen sariketea egiteko.

Jai au atondu ta gertu dabenak eleizako itzaldia nire ardurara itxi eben, eta neure zeregin au betetako, kistinau-ikasbidea umeai albait ondoen irakasteak daukan leba, garrantzi, inportantzia andia adierazoko dautsuet. Kistinau-ikasbidea umeai irakasten ibilita baino, beste eginen batzuetan abarrots eta durundi geiago atera, omen eta izen andiagoo irabaziko geunke bearbada; baina egin gegikezan zeregin guztien artean, onura ta mesede, arimako irabazi ta ondasun geien dakarrena, auxe dala deritxat. Orixe azaldu nai neuskizue; baina lan onetan asi orduko, oitura dan lez, Jaunaren aurean auspazu gaitez.

*«Dei enim adiutores sumus; Dei agricultura estis.»*

(I Corint. 3, 9)

N(eure) entz(u)le) mait(eok), kistinau-ikasbidea umeai ondo irakasteak onera ta mesede andiak dakarzala, zeregin on ete irabazi andikoa dala Jesukisto gure Jaunak, bere bidali edo apostoluak, Eleizako irakasla ta santurik andienak, itzez eta egitez, argiro irakatsi ta adierazo dauskue.

Gure Jauna umezale andia zan; bein baten bere entzulai esan eutsen: *«Quisquis unum ex hujusmodi pueris recipit in nomine meo, me recipit.* Onetariko edozein ume nire izenean artu dagianak, neu nerau artzen nau» (Marc. 9, 36). Bere eskuak buru gainean ipini egioezan, onetsi, bedeinkatu egizan, guraso askok euren umetxuak ekarten eutsoezan Jaunari. Egun baten, ori zala-ta, bere ikaslak aserratu ziran eta gurasoai agiraka egin eutsen, alako eginen andietan ebulan Jaunari astia ta bakea kentzen eutsela-ta. Jaunak orduan esan eutsen ikaslai: «Umeai nigana etorten itxi egiezue ta ezelan be ez egiezue galerazo, zeruko erreinua olakoxeena da-ta. Txikitxu oneik ez egizue gitxietsi, edo gitxitan euki euren aingeruak zeruetan dagoan nire Aitaren arpegia beti ikusten dabe-ta; gitxitan euki ez dagizuezan dinotsuet ori».

Umeak gitxi dakie, baina geienez tolesgabe, zintzo, esaneko ta apalak izaten dira; zerua irabazteko be, olakoxe zintzo, apal eta esanekoa izan bear da. Augaitik, bein baten gure Jaunak umetxu bati dei egin, bere entzuleen erdian ipini ta onci esan eutsen: «Egiaz dinotsuet, ume biurtu, umeen antzeko egin ez bazaiteze, zeruko erreinuan ez zarie sartuko». Umezale zan Jaunak umeai ta ume ez ziranai, gizon elduai be, orain kistinau-ikasbidean neska-mutikoai irakasten dautseguzan egi andi ta sakonak, arimentzat osasungarri diran egi mamintsu orreik, irakasten eutsezan geicenez, eta sarri, obeto, errezago aitu edo ulertu egiezan, ipuin, bardintasun eta irudi egokien bidez.

Jaunaren ikaslak be, Espiritu Santuak irakatsita, beste orrenbeste egin eben erririk erri joan ziranean; kistinau-ikasbideko egiak beste enparauen oinarri ta jasoin, erro ta sustrai diran egi orreik, azaldu ta adierazoten eutsezan andi ta txiki ai itzaldietan. Guztien artean Jesukistoren sinestea zabaltzeko lanik geien egin ebana, S(an) Paulo Apostolua da, ta onek tesalonikarrai esaten eutsen: *«Facti sumus vehut parvuli in medio vestrum, tanquam si nutrix foveat filios suos.* Zuen artean ume lez egin gara, otzan, bigun, maitakor; bere umeak altzoan artu ta bere bular gainean berotzen dituan amaren zeregina, zuekin egin dogu» (I Thess. 2, 7). Esan nai dau: «Geure burua ume egin eta umeai lez, leun-leun ta albait errezen irakatsi dautsuegu; umeai bularra emoten dautsen amak lez, guk be samur eta maitaro artu zaituegu». Eta korintoarrai esaten eutsen: *«Tanquam parvulis in Christo lac vobis potum dedi, non escam.* Kistogan oraindik ume zarien orrei esnea emon dautsuet edatera ta ez bestelako jaki sendorik» (I Corint. 3, 2).

S(an) Paulok itz oneikaz adierazoten dauskunez, amak bere umeakin egiten dauana, orixe egin eban berak korintoarrakin. Amak bere umetxu ai lenen bularra emoten dautse, ta zelako edo alako jakia emoten asten danean, arduraz ibiltzen da; lenengo bere aora sartu, au txikitu, zeatu, birrindu ta gero, emoten dautse umetxu ai, kalterik egin ez dagioen. Kistinau-ikasbidea umeai irakasten diardenak be, orixe egin bear dabe, dino S(an) Agustinek: sinesteko egiak zeatu, leundu, argitu ta errez aitu edo ulertzeko eran irakatsi; norbera umeen mailara jatsi, egiak be al dan bestean eratsi, ta umeen adin gordin eta samurrak egi orrein esneaz edo beintzat jaki zeatuaz elikatu, janaritu. S(an) Paulok korintoarrakin orixe egin eban, eta ori egin ebalako, kistinau-ikasbidea irakatsi eutsela, ondo ta egokiro irakatsi eutsela, agirian dago.

Kistinau-ikasbidea irakasten, Jaunaren urrengo, bere apostoluak asi ziran eta onein arloari ondorengo guztiak jarraitu eutsen. Eleizearen lenengo urteetan itzez bakarrik irakatsi oi ziran gure sineskintzako egi nagusienok. Baina gero, bakea lortu zanean, Eleizako gurasoak, Jerusa-

lengo Kirilo, Nizeako Gregorio ta S(an) Agustinek batez be, liburu ederrak idatzi ebezan, orain kistinai-ikasbideko umeai irakasten dautseguzan gauzak, orduko kistinai irakasteko eta zelan irakatsi bear jakezan azaldu ta adierazoteko.

Gerson, jakitun andi-ospatsua, Parisgo ikastetxean jakituririk bikainena irakasten baino umeai kistinai-ikasbidea buruan sartzen pozago ibiltzen zan, eta orretan bere aldi ta astia alperrik galtzen ebalá esaten eutsenai erantzuten eutsen: «Astia alperrik galdu? Ez orixe! Onetantxe baino on geiago beste ezetan be ez dodala egiten uste dot». «Zatoze –esaten eban–, umetxuok, nigana. Nik kistinai-ikasbidea irakatsi ta emongo dautsuet; zuek, orde, zeuen eskari samur eta otoitz zintzoak emongo daustazue, eta onelan bitzuon Aingeru Jagolak poztuko doguz.»

Loiolako Inazio Deunak umeai kistinai-ikasbidea irakastea berarizko zeregina eban, eta bere Lagundiko guztiai be orixe egiteko agindu eutsen. Xabier Deunak, osterá, Lutero ta onen lagunak Eleizatik alden du ebezan baino gizaseme geiago Eleizara ekarri ebazan Indietako apostolu andiak; bere azkenengo geixoan Jangoikoari bere otoitz eta eskariak euskeraz zuzendu eutsozan napar azarri, bioztu, ospe ta entzute andiko arek, txilina eskuan artu ta txilin-otsez batzen ebazan neska-mutikoak, kistinai-ikasbidea irakasteko ta onei kistinai-ikasbidea irakatsiaz, guraso asko ta askoren gogo ta biotzak be irabazi ebazan, gurutzean il zan gure Jaunarentzako.

Bein baten Jaunak bere ikaslai esan eutsen: «*Pater meus agricola est*. Nire Aita lugina, nekezaria da. Nekezariak lez nire Aitak be bere alorrek, bere soloak daukaz. Solo oneik geure gogo-biotzak dira ta bere aziak gizasemeen biotzetan ereiten ditu; baina Jangoikoak orretarako, bere soloak landu, aziak erein eta landarak zaintzeko, berarizko langileak daukaz». S(an) Paulo Apost(oluak) esaten eutsen korintoarrai: «*Dei agricultura estis. Dei adjutores sumus*. Zuek, Jangoikoaren alorra, lur landua, zarie. Gu bere langileak gara; eta Jaunaren langile garealako, bere soloak landu ta giau, aziak erein eta zaintzeko zeregin eta ardurea geuri dagokiguz».

Jaunak beste bein esan ebanez, bide-ertzerá jausten dan azia, txori ta egaztiak jaten dabe; arri artera jausi dana, eguzkiaren beroak erre; arantz artera jausi dana, arantzak jagi ta ito daroe. Lur onean erein dan azia, ori da dino Jaunak alorta, arnari edo frutua dakarrena, bateko eun, besteko irurogei, besteko ogetamar. Baina ume zintzoen biotza baino lur oberik, bigun, samur, apatz eta gantzatsuagorik ez dago; sinesmenaren aziak bere sustraiak errezen, ondoen, barruren, umeen biotzetan botaten ditu. Augaitik, etekin, mozkin, irabazi ta ondasunik andienak be, umeai kistinai-ikasbidea irakatsiaz lortu ta eskuratu daikeguz.

Sinismen-azia erne ta mardo aziko bada, arnari edo frutu ugariak emongo baditu, lur onean ereiteko ardurea artu bear dogu; orretarako lurrik onena umeen biotza dala esan dot. Baina umeen biotz samur-apatzetan ereindako aziok be, bedar txarrak jagita, ito ez dagiezan, arduraz jagon, zaindu bear dira. Garitzetan olo, galikio, iraka, zoragari ta beste bedar txar batzuk erne ta jagiten diran lez, umeen biotzetan be, pizka bat kaskondu daitezanean batez be, arerioak azi txarrak ereingo ditu ta garitzetako galikio ta zoragariak baizen kaltegarri edo kaltegarriago diran grina gaiztoak erne ta jagiko dira. Bedar txar oneik indarra artu ta azi onak irato ez dagiezan, umeak lenengotik ondo azi ta arduraz ezi bear dira, ta orretarako abade, irakasle ta gurasoen aleginak alkartu ta guztiak batera lan egitea lakorik ez dago.

Gaztetxu diran artean, umeen irakaslerik onena ama da. Amak bai-zen samur eta biziro beste inok ez ditu maite. Umeak ori laster igarten dabe, eta ama laztanaren esanak, bere irakaspenak, maitasun andiz artzen dabez; biotzean gozaro sartzen jakez. Gero, azi daitezanean, amak baino aitak lotsa ta itzal geiago dauko, batez be mutilentzat, eta itzez eta egitez berak irakatsi bear dautse.

Zoritxarrez, mutil askotxu okertu ta gaiztotzen dira, aita asko onetan zabar, itxi ta ardurabakoak izaten diralako. Agiraka batzuk egiten dautsez, baina semeak ondo azi ta eziteko, agirakak indar gitxi dauke. Aita askok onetan zentzunbakoak dirudie. Semeai gauza bat esan, eurak beste bat egin; semeai itzez gauza bat irakatsi, eta irakatsi dautsen ori guzurrailitzan bizi: eleizara joateko agindu ta eurak eleizatik urrun ibili, ilunkeran etxera etorteko esan eta eurak gabak orduak emon ta gero etxeratu, eta onelan beste gauza batzuetan be... Zer jazoten da gero? Jazo bear dauana! Seme-alabak entzuten dabena baino euren begiz ikusten dabena errezago ikasi ta lasterrago egiten dabe. Amaren esan eta aleginak gorabera, aitaren oinatzai jarraitzen dautse eta onelan, aita askok euren zabarkeriz, ardurarik ezaz, arteetan egin diran alegin guztiak alperrik galtzen dabez. Augaitik esan dot, seme-alabak ondo azi ta eziteko, abadeen, irakasleen eta gurasoen, aitaren eta amaren, aleginak alkartu bear dirala.

Umeak ondo azi ta ezitea guztioi joaku, guztioi ardura dausku; baina geien gurasoai, gurasoen ondasunik ederrena, aberastasunik andiena, seme-alaba on, esaneko eta maitakorrek dira-ta. Augaitik, gurasoak abadeai euren lanean, eta batez be, kistinau-ikasbideko lan on, eder, onura ta mesede andiko onetan, zintzoro ta arduraz, gogoz eta biotzez lagundu bear dautse.

Eta onenbestegaz amaitzera noa. Kistinau-ikasbidea gure Jaunak irakatsi eban lenengo; bere bidaliak, bere apostoluak be gogoz ekin eu-

tsen arlo orri; Eleizako gurasoak berenberegi idatzi ebezan liburuak orretarako; jakitun eta santurik andienak zeregin onetan aurrengo ibili dira. Seme-alaba onak, kistinau zintzoak egiteko bidea, orixe da. Alkartu daiguzan geure aleginak eta enparaua Jangoikoak egingo dau; erein daiguzan umeen biotzetan azi onak, zaindu daiguzan ereindako aziok eta mardo azteko bear daben goiko inontza, Jangoikoak bialduko dau.

Auspazu gaizan bere aurrean eta bere laguntza eskatu daiogun. Umezale, ume-maite zarean Jaunorrek, gure asmu, gure eginen, gure lanok, arren, onetsi, bedeinkatu egizuz. Kistinau-ikasbidea irakatsiaz, umeak zeugandu ta zeuretu nai doguz, gure erri au orain lez gero be zeure erri ta egite onen jarraitzaile izan daiten. Lagun zakiguz, Jaun mai-teori, zeugandik zeruko bidea ikasi dogunok, ango zorionera eldu gaitazan.

## LXV

### ARATUSTEA

«*Quid tibi vis ut faciam? Domine, ut videam.*»  
«Zer nai dozu dagitsudan? Jauna, ikusi dagidan.»

(Luc. 18, 41)

«*Et flebetis vos, mundus autem gaudebit.*»  
«Zuek negar egingo dozue; mundua pozez ibiliko da.»

(Joan 16, 20)

N(eure) entz(ule) mait(eok):

Jesukisto gure Jauna ta mundua alkarren arerio dira, bata-bestearen aurka dagoz, burruka gogorrean dabiltz. Gu be burruka onetan sartu bear gara. Kistinau-izatea, Jesukistoren gizon, jarraitzaile, gudari edo soldadu izatea da; baina Jesukistoren jarraitzaile izateko, naitaez bere ais-kideekin aislide, bere arerioekin arerio izan bear dogu. Jaunaren jarraitzaile ta gudari bagara, bere aldez eta munduaren aurka burruka ta guduan ekin bear dautsagu. Jaunak berak esan eutsen bere ikasleai: «Baldin munduak gorrotatzen bazaitue, ez zaitetze arritu; ni zuek baino len gorrotau ninduala jakizue. Munduarenak bazinie, munduak berea dana maitatuko leuke; baina munduarenak ez zarie, nik autetsi ta mundutik atera zaituet. Orixegaitik, munduak gorroto dautsue. *Propterea odit vos mundum*» (Joan 15; 19).

Jesukisto ta mundua alkarren arerio dirala, bata-bestearen aurka dabiltzala, edonoz, baina egun oneitan batez be agiri-agirian dago. Gaurko ebanjelioa irakurri ezkeru, Jaunaren asmuak argiro ikusten doguz. Amabi apostoluak alde batera artu ta esan eutsen Jaunak: «Orain, Jerusalemenera goakez, eta igarleak nitzaz esan eta idatzi eben guzti-guztia, antxe zeatz beteko da. Gizonaren Semea sinestebakoen eskuetan ipiniko dabe; irri ta ista, ixeka ta burla egingo dautse, zigorrakin astinduko dabe, bere aurpegia txistu ta gorroz ezainduko dautse, astinaldi gogorra emon ondoren il egingo dabe. Baina irugarren egunean



ilen artetik berbiztuko da». Gure Ama Eleizeak, gaurko egunez, Jaunaren alkekizun, lotsari, neke-min, atsekabe, oinaze ta eriotzea dakarskuz geure gogora. Jaunaren asmuak orrexek dira; bere jarraitzaile bagara, Jaunak gure onerako artu ta eroan ebazan lotsari gorri ta oinaze andi orreik gomutau ta geure gogoan ausnartu bear doguz. Munduaren asmuak beste batzuk dira; bere atsegin guztiak begien aurrean ipini ta gizasemeai opatzen dautsez. Munduak opatuta, munduak dei eginda, munduzaleak jaia dauke; jolas, olgantza, jostatze ta dantzetan nasai ta pozik dabiltz.

Jesukistoren izenean geure Ama Eleizeak dinoskuna ta munduak irri-barrez opatzen dauskuna alkarren aurka dagoz; biak batera inok ezin egin daikez. Ugazaba bi onein morroi inor ezin izan daiteke; ugazaba bi onei atsegin inok ezin emon legioe: edo bataz edo besteaz ibili bear. Augaitik inoan S(an) Pedro Krisologok: «*Qui jocari voluerit cum diabolo, non poterit gaudere cum Christo*. Diabruaz olgau nai dauana, Jesukistogaz ezingo da poztu». Mundua baino Jaunagaz poztu obe da-ta, obe dan ori naiago be izan daigun munduzaleak ain gar andiz bilatzen dabezan poz ta atsegin orreik zelako gaizto, malmutz eta guzurtiak diran adierazoko dautsuet. Albait laburren egingo dot eta gogo onez entzudazue.

## I

«*Quid tibi vis ut faciam? Domine, ut videam.*»

(Luc. 18, 41)

N(eure) entz(u)le) mait(cok), gure egitadea, ezauera argiz eta geure naiz edo guraz egiten dogun edozein egitade Jaungoikoaren begietan on eta zuzena dan ala ez jakiteko, Eleizako irakasleak dinoskuenez, iru gauzari begiratu bear dautsegu: zegaitik, zetarako eta zelan egiten dan; egitade ori bere sustraiz, bere elburuz eta inguruko atz-begiz edo zirkunstantziaz zelakoa dan. Jaunak ontzat artzeko, Jaunaren begietan on eta zuzena izateko, iru gauza orreitan on eta zuzena izan bear dau; iru-retatik bat zein baten uts badagi, oker eta gaiztoa izango dala dinoskue jakitunak. Baina edozein egitade gaiztoa izateko, iru gauza orreitatik bat zein baten uts egitea naiko bada, esaidazue, iruretan batera uts egiten dauan egitadea, zelako gaizto, donge, oker eta gorrotogarria izango ete da Jaungoikoaren begietan?

Orain, ba, munduak egun oneitan batez be, munduzaleai eskini, opatu ta emoten dautsezan poz eta atseginak, euren sustraiz gaiztoak dira, euren elburuz be gaiztoak ta inguruko atz-begiz edo zirkunstantziaz be oker eta gaiztoak dira.

Begira, ezpabe. Egun oneitako jolas, olgantz, algar, poz eta atseginen sustraia zein da? Edonok daki: grina gaiztoak, batez be lizunkeria, aragi ustelaren grina dongea. Augaitik inoan Eleizako irakasle andia dan S(an) Joan Krisostomok: *«Tolle vesanas passiones et cessabunt profana gaudia»*. Grina dongeak kendu, ezi nai ito egizuz eta atsegin zoro orreik berealaxe amaituko dira». Baina jolas eta atsegin onein sustrai ta iturburua, aragiaren grina, lera ta makurkeriak izan ezker, ortik datoza jolas eta atseginak curak be sustraiz gaizto ta dongeak dirala bere senean dagoan gizonak ezin ukatu daike.

Elburuz be gaiztoak dira. Beinola sinestebakoak egiten ebezan one-lako jolas eta olgantzak Erroman eta bere menpean egozan beste erri batzuetan. Bai, ba, ainbat jangoikotzako edo jaungoikoizun eukezan eta geienak gizonak eurak baizen gaizto ta lotsabakoak ziran.

Jangoikoizun eta lotsabako aen ederrarren, eurai atsegin emoten eustelakoan, urteko egun batzuetan jolas eta olgantz zikin eta lotsa galdukoetan ibiltan ziran.

Orain Aratustez egiten diran jolas eta zorakeri oneik, beinolako aen aztarnak, antxinako aen ondorenak dira. Augaitik, jolas onein elburua, sinestebakoen jai ta olgantz lotsagarriak kistinau-erriaren erdian sartu, eutsi ta oinean eukitea dala dirudi. Elburu ori baino gaizto ta txarragorik asmau ete ledi? Erromako batzarrak be, zikin-egiak, lotsagalduko egiak eretxita, bein baten Erroma ta Italia guztian gebendu, galerazo ebazan; sinestebakoen batzarrak eragotzi ta galerazo ebana, guk kistinauok ontzat emon ete ginegi? Geure kistinau-izatea ukatu ezik, ez!

Jolas oneik euren inguruko atz-begiz edo zirkunstantziaz be gaiztoak dira. Sinestebakoakandik datorkuzan jolas oneik, nok eta noz egiten ditu? Kistinau-izena daukenak, Kistoren jarraitzaile dirala dinoenak egiten dabez: *«Hoc nos qui christiani dicimur facimus»*. Baina Jaunak bere egitez irakutsi euskun bidea, ori ete da? Jaunaren apostoluak olako gauzarik, non ete noz irakutsi dauskue? Kistinauok olako gauzak egin daiguzan etorri ete zan Jauna mundura? Orretarako egon ete zan askatxu baten? Orretarako, bere jarraitzaileok ori egin daigun, igon ete zan gurutzera? Geure grina dongeak eziten guri irakasteko, bizitza latza egin eta eriotza gogorra artu eban Jaunak, bere oinatzai jarraitu daioegun, jarraibiderik ederrena emon euskun; baina kistinau munduzaleak egun oneitan dagieta, Jaunaren oinatzai jarraitzea ete da?

Eta noz egiten dabe ori? Ain zuzen be, geure Ama Eleizeak damutasunera, penitentziara dei egiten dauskunean; geure Jaunaren neke ta oinazeak geure begien aurrean ipinten dauskuzan egunetan. Eleizeak damutasunera dei egin, eta bere semeak pekaturako bidea artu; Eleizeak Jaunaren pasino ta eriotzea gogora ekarri, ta bere semeak jolasik

jolas, olgantzarik olgantza ibili. Gauza onek eder ez dirudi; baina munduak eskintzen dautsozan atseginak gizonari bere biotza birloratzen dautse, ta eder ez diran gauza asko egiten ditu.

Munduaren atsegin oneik malmutz eta guzurtiak dira. Aurretiez zerbait badirala dirudic, baina gerizea baino ez dira eta ikutu ezkerro, berealaxe ezereztu egiten dira. «*Et mundus transit et concupiscencia ejus*» (I Joan 2, 17). Beingoan amaitu doaz, tximistea baizen arin igesten dabe ta, geienez beintzat, biotzean arantzea itxi daroe. Jolas eta atsegin orrei Salomon jakitunak esan ebana guztiz ondo datorkieoe: «*Vanitas vanitatum et alectio spiritus*». Uskeri utsak baino ez dira eta euren ondorentzat atsekabea isten dabe. Arimako osasunaren kaltean dira beti, gorputzeko osasunaren kaltean sarri.

## II

Jolas eta atsegin oneik uskeri, gerize ta guzurra baino izan ezik, eta joan daitezanean gomuta mingoitza baino isten ez badabe, ainbeste gizaseme atsegin orrein bila zegaitik ete dabiltz? Au zelan aitu lei? Errez, entz(u)le) mait(eok). Ori aituteko, mundua mundu danik ona, izkuntza guztietan esan dan au gogoratzea naiko dogu: grina dongeak itsuak dira, eurak darabilen gizona be itsutu egiten dabe ta bein adinez itsutu ezkerro, zorakeriak egitea berezko gauzea da. Gizadia, gizon guztiok eta bakotxa, geien joakuzan gauzetan, ardurarik geien zor dautsegunetan, arimakoetan esan nai dot, guztiok itsu errukarri batzuk gara; gizadi uts onen irudia gaurko ebanjelioan daukagu.

Jesus Jerikorantz joiala –dino ebanjelioak– bide-bazterrean jesarrita egoan eskeko itsu bat aurkitu eban. Eta itsuak, bidez joiazanen oinots eta zaratea entzunik, zer ete zan itandu eban. Bide aretatik Nazaretgo Jesus igaroten zala erantzun eutsoen eta au entzunik, eiagoraz, oiuz asi zan esaten: «*Jesu, fili David, miserere mei*. Jesus, Dabiten Semea, nizaz errukia euki egizu». Aurretik joiazanak ixildu ledin, agiraka egiten eutsen; baina berak diadar andiagoea eginaz, bein eta barrero esaten eban: «Dabiten semeori, nizaz erruki zaitez».

Gizadiak itsu onen antza dauko; itsu onetan bere irudia ikusi legi, arimako begiak lausotuta daukazana, itsurik asko da-ta. Itsutasunean biak alkarren antza dauke; baina asmo ta gurarietan, ez. Itsu onek Jaunari dei egin eta errukia eskatu eutson. Gizadia, ostera, Jaunagandik urrun dabil; Jaunagandik iges eta munduko atsegin bila dabil eta Jaunari errukia eskatzeko asmurik ez daukala dirudi. Itsuak, bai. Bidez joiazanak agiraka egin eta ixilik egoteko esaten eutsen; baina berak diadar

andiagoaz esaten eban: «Dabiten semeori, erruki zakidaz». Eta Jaunak, gelditurik, itsua beragana ekarri lekion agindu eban eta urreratu jakonean, itandu eutsan: «Zer nai dok nik dagiadan? *Quid tibi vis faciam?*». Eta berak erantzun eutsan: «Jauna, ikusi dagidan. *Domine, ut videam*». Eta Jaunak esan eutsan: «Ikusi egik, ba; eure sinesteak osatu au». Eta berealaxe ikusi eban eta Jaungoikoa goratzen ebala, Jesusen jarrai joan zan: «*Confestim vidit et sequebatur illum, magnificans Deum*».

Batzuk geiago beste batzuk gitxiago, baina arimako gauzetan guztiok, itsu edo erdi itsuak gara. Geure grin en su-garrak, bere ke baltzez, arimearen begiak sarri lausotzen daukuz. Itsuak errukarri dira-ta, geuretzat eta beste enparau guztientzat, ain bearrezkoa dogun arimako argia eskatu bear dautsagu Jaunari. Ebanjelioko itsuaren antzera erruki eske zuzendu bear gaiakoz; biotz-biotzez dei egin bear dautsagu, esanaz: «*Jesu, fili David, miserere nobis*. Jesus, Dabiten semea, erruki zakiguz; ta arimako begiak argitu eiguzuz».

Grina makurren gaiztakeria, munduko atseginen uskeria, pekatuaren ezintasuna ta bere zorigaiztoko ondorenak argiro ikusi ta gorrotau dai-guzan; damutasunaren indarra, arima garbien edertasuna, egite onen irabazia, zeruko bidea ta bide onetatik dabiltenen zoriona argiro ikusi ta maitatu daiguzan, goiko argiz argitu gaizala eskatu bear dautsagu.

Auspaztu gaizan, ba, bere oinetan eta biotz-biotzez esan daiogun: Jauna, zuk maite dozun gizadia eri ta geixo dago; baina zeuk nai izan ezkeru osatu zengike. Geien joakozan gauzak ez ikusteko, gizadia itsu dago; baina itsuak argitu zenduzan Jaunorrek, gu be argitu gagikezuz. Errukior zareanori, guzaz errukitu zaitez eta zeruko bidea ezagutzeko argia ta bide orri jarraitzeko indarra emon eiguzuz, zeruko bidez ibili ta ango zorionera eldu gaitazan.



JAREIN sorta

1. Eusebio Maria Azcue-koa: «EUSKARAZKO VERTSOAK».
2. Pedro Antonio Aníbarro: JESU CHRISTOREN LAU EVANGELIOAC BATERA ALCARTURIC.
3. Juan Antonio Mogel: EL CATEQUISTA BASCONGADO. CRISTAU ERACASLE EUSKALDUNA.
4. Domingo de Aguirre: SERMOIAK.
5. Nagore Etxebarria Etxebarrena: FRANTZISKOTARREN ARTXIBOAK. EUSKARAZKO SERMOI ETA ANTZEKO ESKUIZKRIBUEN KATALOGOA (XVIII-XX).
6. Nagore Etxebarria Etxebarrena - Ainara Apraiz Oliden: JUAN IGNAZIO ASTIGARRAGA (1783-1854). SERMOITEGIA. XVIII. eta XIX. mendeetako euskal oratoria sakratua.
7. Joakin Lizarraga: DEKALOGOAREN ETA AITAGUREAREN AZALPENA. Explicatio Decalogi et Dominicæ Orationis.
8. Nagore Etxebarria Etxebarrena - Ainara Apraiz Oliden: BIZENTE SARRIA (1767-1835). SERMOITEGIA. XVIII. eta XIX. mendeetako euskal oratoria sakratua.
9. Juan Bautista Eguzkitza Meabe: NEURE ENTZULE MAITEAK, Berbaldi hautuak.

JAREIN

9



LABAYRU IKASTEGIA

bbk=



LEMOAKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Kultura  
Saila  
Departamento  
de Cultura

